

Colección
MENDAUR
bilduma

XI



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

Amiküze eskualdeko ^heskuara
Iñaki Camino Lertxundi



Colección MENDAUR bilduma

XI



Amiküze eskualdeko ^heskuara

Iñaki Camino Lertxundi



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

ISBN 978-84-946477-1-0



9 788494 647710

Colección MENDAUR bilduma

XI

Amiküze eskualdeko ^heskuara

Iñaki Camino Lertxundi



Camino Lertxundi, Iñaki

Amiküze eskualdeko ^heskuara / Iñaki Camino Lertxundi. – Iruña : Nafarroako
Gobernua, Hezkuntza Departamentua ; Bilbo : Euskaltzaindia, 2016. -- (Mendaur; 11)

808 orr. ; 24 cm

L.G. BI-1814-2016

ISBN 978-84-946477-1-0

I. Nafarroa (Foru Komunitatea). Hezkuntza Departamentua. II. Euskaltzaindia. III. Men-
daur (Euskaltzaindia)

Liburuaren izenburua: Amiküze eskualdeko ^heskuara

Liburuaren egilea: Iñaki Camino Lertxundi

© **Nafarroako Gobernua**. Hezkuntza Departamentua

© **Euskaltzaindia / R.A.L.V.**

Testuen hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza
Kalitatearen Behatokia (HIZBEA)

Taiuketa eta moldaketa: Euskaltzaindia / R.A.L.V.
Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

Diseño/Azala: Iñaki Cabodevilla / CAB

Preinpresioa eta inprimategia: Grafo, S.A.
Cervantes Hiribidea, 51,
48970 Basauri

ISBN: 978-84-946477-1-0

Lege gordailua: BI-1814-2016

Nafarroako Gobernua

Hezkuntza Departamentua

Sustatzaileak eta banatzaileak:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa

Navas de Tolosa kalea, 21

31002 IRUÑA

Tf.: 848427121

Faxa: 848427123

fondo.publicaciones@navarra.es

www.cfnavarra.es/publicaciones

Euskaltzaindia / R.A.L.V.

Plaza Barria, 15

48005 BILBO

Tel.: 94 415 81 55

Faxa: 94 415 81 44

info@euskaltzaindia.eus

www.euskaltzaindia.eus

Hainbat ikerketa-egitasmori lotua da liburu hau:

- a) *Núcleos innovadores de los dialectos vascos*, MEC, FFI2012-33190
- b) *Monumenta linguae vasconum (IV): textos arcaicos vascos y euskera antiguo*, MEC, FFI2012-37696
- c) *Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada*, Grupos consolidados, 2012, GIC. IT698-13
- d) *Lingüística teórica y diacrónica: gramática universal, lenguas indoeuropeas y lengua vasca*, UPV/EHU, UFI 11/14
- e) *Periferias del vascuence de Navarra II*, Nafarroako Gobernua, 2009, [440002 44200 4812 334100]
- f) *Periferias del vascuence de Navarra*, Nafarroako Gobernua, 2008, [440002 44200 4800 334100]

Aitzinsolas

René Lafon hizkuntzalariak 1955ean zioenez biziki konplexutasun du Amiküzeko ^heskuarak eta xeheki aztertu beharko litzateke. Henri Guiter-ek ere mikroeremu anitz ikusten zituen ibar honetan (1973 : 103). Auzi honetan irizkide baikara, amiküztarren mintzoaren ikerketari lotu gara hondarreko urteotan. Beste anitz ere bezala Euskal Herriko alderdi bat haboro da Amiküze, Nafarroa Beherean Baigorri, Garazi, Oztibarre edo Arberoa diren bezala, Frantziako Errepublikak hainbat eskualde historikori aitortza ofizial edo administratiborik egin nahi ez badie ere. Frantziako Iraultzaz geroztik eskualdeko herri batzuk ofizialki taldekaturik ageri dira herriko etxe edo udalak eratzeko, baina guk herrien edo gizataldeen aspaldiko errealitateari itsatsirik doan ohiko ^heskuararen, eskual dialektoen eta mintzoen errealitateari so egin nahi ukan diogu eta horregatik, gure liburu honetan herriak zein bere gisa doaz, biko edo hiruko taldeetan bildu gabe: jende xeheen ohiko ibilera eta jardunek bilbatu duten herri ^heskuara da liburu honen ardatz eta helburua, ez 1841-46 bitarte bi herrirekin udalerrri bat eratu zuen administrazio ofizialaren jokamolde uniformatzailea.

Herri xehea diogunean gogoan ditugu liburu hau ontzeko baliatu dugun ^heskuara ahotik belarrira eman diguten lekuko amiküztarrak eta ondoko eskualdeetakoak ere; laugarren atalean zerrendatu ditugu gure berriemaile eskualdun amiküztar adinetakoak: cf. 4.3.1. § eta ondoko beste hiru azpiatalak ere. Ez dakigu guztiak nola eskertu: beren biziko ibileren berri emanez eta herriko berri kontatuz honenbeste erakutsi digute ahoan darabilten eskual mintzoaz!

Amiküzeko eta Zuberoa ipar-mendebaleko mugako euskararen pleguak erakutsi nahiz, hogeit etnotestu dakartzagu liburuaren bukaeran: lekuko bizialdiaren berri dakarte, haien errealitatea eta haien gertakariak dira, funtsean bizimolde bat, adinetako jendeak duen esperientziatik eta ezagutzatik kontaturik. Mingarri gerta litezkeen zatiak kimaturik eta izen zenbait estalirik dakartzagu, inor mintzeko den mendreneko borondaterik gabe. Gure ustean bederen aberatsak dira testu zatiok, bada bertan istorio eder eta irri-egingarririk, eta baita nahigabe zenbait ere; nolana den ere, ez dugu zalantzarik etnografian aditua den norbaitek egin balitu aberatsago jalgiko zirela, baina gu dialektologiatik inguratu gara Amiküzerat. Ibar honetakoak dira testu gehienak, hamabost testu amiküztarrek emanak dira, baina Zuberoako mugako bost herritako idazkiak ere ekarri ditugu, mintzoaren aldea eskualde batetik bestera nola haziz doan garbi ager dadin. 1985ekoa da lehen etnotestua eta XXI. mende honetakoak beste

guztiak, betiere adinetako jendeari bildurik: 2005eko bi, 2006ko bost, 2007ko bi, 2008ko zati bat, 2009ko sei eta 2015eko lau etnotestu dakartzagu orriotara.

Zorigaitzez hondarreko urteetan gurekin mintzatu diren franko lekuko orain ez daude gure artean, baina liburu honen orrialdeek ezagun dute erakutsi digutena zenbat den; bihotzean gorderik daramagu eskaini diguten gozotasuna eta ez dakigu haiei nola berriz itzuli. Zinez eskertzen dugu lekuko horiengana heltzeko laguntza eman diguten lankide amiküztar gazteagokoen esku-ukaldia ere; horrezaz landa, beren adiskidantza eta eskuzabaltasuna gozatu ahal ukan ditugu. Eta guk nola orain horiek eskertu?

Ez da egungo euskal mintzoa bakarrik liburura dakarguna: ezagutzen ditugun eskualdeko testu zaharrak ere irakurri eta ustiatu ditugu liburu honen idazteko, hizkuntzaren alderdi diakroniko edo historikoaz interes berezia baikenuen Amiküzera jitean. Hala XVIII, XIX eta XX. mendeetako nola egungo Amiküzeko ^heskuararen alderdi fonikoa, morfosintaktikoa eta lexiko-semantikoa aztertu ditugu eta horren emaitza aurkituko du irakurleak liburu honetan.

Amiküzeko mintzoa sakon eta kontrastiboki aztertzeko, gauza beharra izan da ondoko eskualdeetako eskuarari ere so egitea: Bardoze, Arberoa, Landibarre, Oztibarre eta Zuberoako ipar-mendebaleko nahiz Xiberoa orokorreko mintzoak ere zinez aintzat hartu ditugu eta herri eta eskualde horietako jendeen mintzoa ezagutzen nahiz inkesta egiten eraunsi dugu, bildu datu horien bidez konparazioaren egiteko eta ondorioz, ahal bezain xeheki deskribatu eta aztertu dugu Amiküzeko eta auzo herrietako euskara, baina bidean hainbat eta hainbat herri kurrutu behar ukan dugu mintzoa biltzeko, bazter batzuetarik besteetara mintzamoldea aldatuz nola doan ikusteko, liburu hau idazten eraunstean ahalik eta informazio eta datu gehien ukaiteko. Arestian aipatu bezala, lana franko aberastu dute Amiküze ondoko eskualdeetako testu zaharretan atzeman ditugun egiturek eta aldaerek.

Anitzez ere haboro baliatu dugu mintzo librea hizkuntza-inkestak baino; galdeketa bat edo beste egin badugu ere, liburura ekarri diren datu ia guztiak mintzo libretik hartuak dira; berriemaileen berri dakargun 4.3. §-n ageri da inkesta zein herritan egin den, baina liburuko mami gehiena mintzo libretik jalgia da, non eta ez den testu zahar zenbaitetarik ekarri ezaugarri edo perpaus zenbait.

Berebat, Amiküze eta ondoko eskualdeetako mintzoa alderatzeaz landa, Amiküze barreneko ezaugarriei ere so egin diegu, eskualdearen barrenean zein azpieskualde bereiz daitezkeen jakin nahirik. Ez dugu banaketa garden eta exakturik proposatu, baina eskualdean hizkuntza-eraginak nondik nora ibili diren eta gune nagusi bakoitzeko berrikuntzen eragina ibarreko zein herritan sumatzen

den bederen adierazi eta islatu dugu mapa edo karta batean; halaber, ibarreko tasun berrien hedadura nora heltzen den ere saiatu gara adierazten, baina liburura ekarri ditugun ezaugarri guztiez ez dugu nahiko genukeen bezainbat informazio. Iraganeko *Dnapliiko* euskararen izaeraz gogoeta egin badugu ere, egungo Amiküzeko herri bat haboro balitz bezala aztertu dugu Donapaleu liburuan, soziolinguistikako azterketa sakonik egin gabe, baina ez da aise egun hitzun donapaleutarrak aurkitzea, are gutiago karrikakoak; gure bi lekukoak Xibaltarre auzoko laborariak izan dira. Nolanahi ere den, eginen dituzke gero ere norbaitek honelatsuko lanak eskualdean.

Badu saio honek ezaugarri nabarmen bat lañoki adierazi beharra: ikertzailea ez da behatzaile parte-hartzaile izan Amiküzén, ez da eskualdean lekuko euskaldunen artean bizi izan. Paraxutistaren gisan, filologoak aldizka Amiküzerat jo du halako hitzunaren etxerat, eskualdeko gaiez mintzaraztera: lauretan hogei minutuz lekukoa *etxen* kanpotar bati mintzatu da eta etxe horretako sukalde, egongela edo atelierrean soziolinguistikan *the observer's paradox* deritzana leiratu da. Ohiz amiküztar baten edo haurride baten aitzinean sekula erabiliko ez lukeen zenbat hizkuntza-aldaera baliatu du lekukoak filologo kanpotarraren aitzinean, honek eskualdeko bereko mintzoa baizik nahi ez duelarik? Amiküze utzi ondotik etxera itzuli da ikertzailea, bildu emaitzak landu eta monografia dialektalaren ontzera eta idaztera. Datu hau ezagutzea gauza beharra du bertako edukiak juzgatu nahi dituen orok; gauzak diren bezala adierazi beharra dago.

Amiküzén anitz ahuldu da ^heskuararen gizarte-erabilera, haur eta gazte gehienak, helduak eta adinetako franko jende ere frantsesez birrinbi-barranba egun oroz mintzatzen dira. Oraingo gure ikerlan honek ez dio eskualdeko ^heskuararen gizarte-erabilerari ez haren geroari deusetan ere mesederik ekarriko, baina ez da hori aski arrazoi guk lan honen ez egiteko: nori berea egitea dagokio.

Irakurleak erran behar du orain, guretako jardunbide ezinago atsegin eta emankorra izan den ikerketa lan hau interesgarri edo baliagarri denetz.

IÑAKI CAMINO

AURKIBIDEA

Aitzinsolas	IX
Oharrak liburua irakurtzeko	XXXVII
a) Eskualdeko herrien laburdurak	XXXVII
b) Garrantzi handiko euskal lan batzuen laburdurak	XXXVII
c) Erreferentzien berri	XXXVIII
d) Hots berezien transliterazioa	XXXIX
1. Dialektologia: hizkuntzaren aldakortasuna espazioan, gizartean eta historian	1
1.1. Dialektologialariaren xedea	3
1.2. Gizartearen espazioa	5
1.3. Hizkuntzaren aldakortasuna	6
2. Amiküze eskualdea: giza-geografia eta historia	11
2.1. Historiaren jakintzagaia	13
2.2. Aitoren semeen araberako berri zaharrak	13
2.3. Espazio fisikoa	15
2.4. Ura, elkarrekintzak eta hizkuntza	18
2.5. Hiriaren sorrera	23
3. Hizkuntzaren soziologia	27
3.1. Euskararen auzo hizkuntza: kaskoia	30
3.2. Euskararen estatusa Ipar Euskal Herriko gizartean	32
3.3. Hizkuntzalari naturalisten ideiak	40
3.4. Euskararen corpus plangintza Ipar Euskal Herrian	43
3.5. XX. mendea: biziberritu nahi eta ezin	46
3.6. Euskararen egoera Amiküzén	48
4. Amiküzeko euskararen corpusa: lehen eta orain, idatziz eta ahoz	57
4.1. Amiküzeko euskararen corpus historikoa	59
4.1.1. Metodoaz, orduko eta egungo datuei so egiteaz	59
4.1.2. Oihenarten forma batzuen kokagune geografikoaz	59
4.1.3. Tartasen mintzoaz	61

4.1.4.	<i>Catichima edo fediairen eta guiristino-eguien explicacione laburra</i> (c. 1740)	62
4.1.5.	<i>Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco aitaren guiristinho perfeccioniaren praticaren pparte bat</i> (1782)	65
4.1.6.	A. Guiresse (XIX)	75
4.1.7.	Pierre Jauregiberri apeza (1859-1872)	75
4.1.8.	Cazenave apeza (XIX)	75
4.1.9.	B. Celhabe (XIX)	76
4.1.10.	Jauregiberri (1891)	76
4.2.	Etnotestuak eta hizkuntza-inkestak	76
4.3.	Ahozko corpusa	79
4.3.1.	Amiküzen	79
4.3.2.	Arberoa eskualdean eta Landibarren	82
4.3.3.	Oztibarren	82
4.3.4.	Zuberoan Amiküze ondoko eskualdean	83
4.3.5.	Laguntzaileak, kontrol taldea	84
5.	Amiküzeko euskararen bilakabide historikoa	87
5.1.	Aldaketa historikoen agerpen idatzia	89
5.2.	Testu zaharrak Amiküzen	91
5.3.	Ezaugarri sail bat hiru garai eta bost idazkitan	94
5.3.1.	Idazkietan ageri ez diren berrikuntzak	95
5.3.1.1.	Etorkizuneko morfemaren palatalizazioa	95
5.3.1.2.	Muga adlatiboa	95
5.3.1.3.	Pluraleko instrumentala	96
5.3.1.4.	Adizki berritzaileak <i>izan</i> -en iraganean	96
5.3.2.	Idazkietan ageri diren berrikuntzak	96
5.3.2.1.	Etorkizun aditzetako <i>-n</i> -ren galera	97
5.3.2.2.	Mugagabea = mugatu plurala	97
5.3.2.3.	Destinatiboa	97
5.3.2.4.	Ablatiboa	98
5.3.2.5.	Izenordain zehaztugabeak	99
5.3.2.6.	<i>bere / beren</i>	99
5.3.2.7.	Aditz trinkoen galera	99
5.3.2.8.	<i>rten</i> → <i>rtzen</i> & <i>kiten</i> → <i>kitzen</i>	100

5.3.2.9.	<i>*eradun</i>	101
5.3.2.10.	<i>*ezan</i> -en pluralgilea	101
5.3.2.11.	<i>d</i> - analogikoa triperpsonaletan	102
5.3.2.12.	\emptyset / <i>-ke</i> ahaleko adizkietan	102
5.3.3.	Ezaugarrien sekuentzializazio lausoa	103
5.3.3.1.	<i>i - u</i> sekuentzia	103
5.3.3.2.	Adlatiboa	104
5.3.3.3.	<i>zaz</i> → <i>taz</i> instrumentalean	105
5.3.3.4.	Pluralgilea <i>*edin</i> adizkietan	105
5.3.4.	Arkaismoen erabileraren bakantzea	105
5.3.4.1.	<i>-ke + -en</i>	106
5.3.4.2.	Soziatiboa	106
5.3.4.3.	Inesiboa	107
5.3.4.4.	<i>*eradun</i> = ‘eman’	107
5.3.4.5.	<i>l</i> - sortako era zaharrak	107
5.3.4.6.	<i>l</i> -ren iragan balioa	108
5.3.4.7.	<i>-(r)en</i> etorkizun morfema	108
5.3.4.8.	<i>izan</i> eta <i>edun</i> -en balio zaharrak	109
5.3.4.9.	Nor Nori saileko iraganeko adizkiak	109
5.3.4.10.	Aspaldiko aditz trinkoak	110
5.3.4.11.	<i>*edin</i> -en ahalerako pluralak	110
5.3.4.12.	<i>dative flag</i> gabeko <i>*edin</i> eta <i>*ezan</i>	111
5.3.4.13.	<i>*edin</i> eta <i>*ezan</i> baldintzaren protasian	111
5.3.4.14.	Erlatiboko perpausaren buruaren kokagunea ..	111
5.3.4.15.	Denborazko perpausak	112
5.3.4.16.	Osagarri zuzena estraposizioan	112
5.3.4.17.	<i>ehor</i> & <i>nehor</i> saila polaritate negatiborik gabe .	113
5.3.4.18.	Ukapenaren hurrenkera zaharra	114
5.3.4.19.	<i>amorekatik</i> xedezkoetan	114
5.3.4.20.	<i>nahibada</i> kontzesiboa	114
5.4.	XVI. mende bukaerako gutun bat	115
6.	Aldakortasun geolinguistikoa Baxenabarreko ipar-ekialdean ..	117
6.1.	Baxenabarreko eskuara	119
6.2.	Bardozeko heskuara	124
6.3.	Arberoako eskuara	126

6.4. Oztibarreko eskuara	127
6.4.1. Oztibarre eskualdea	127
6.4.2. Oztibarreko mintzoa	128
6.5. Zuberera euskalkia	134
6.5.1. Zubereraren berrikuntzak	134
6.5.1.1. <i>ü</i> fonema	134
6.5.1.2. Sudurkari aitzineko <i>o</i> → <i>u</i>	135
6.5.1.3. <i>-ú</i> sudurkaria hitz bukaeran	135
6.5.1.4. <i>i - u</i> → <i>ü - ü</i> asimilazioa	135
6.5.1.5. <i>au</i> → <i>ai</i> palatalizazioa	135
6.5.1.6. <i>lt, nt, lk, nk</i> kontsonante taldeak	135
6.5.1.7. <i>*j-</i> sabaiaurreko ahostuna	135
6.5.1.8. Txistukari ahostunak	136
6.5.1.9. Txistukariaren ahostuntzea sandhian	136
6.5.1.10. <i>r</i> → \emptyset	136
6.5.1.11. Azentuera	136
6.5.1.12. <i>hurak</i> erakusle plurala	137
6.5.1.13. <i>horiak</i> erakusle plurala	137
6.5.1.14. <i>-n</i> morfemarik ez iraganeko hiketan	137
6.5.1.15. Lehen pertsona datiboaren morfema errepikatzea	137
6.5.1.16. <i>-e</i> & <i>-i</i> > <i>-ü</i> berranalisia	138
6.5.1.17. <i>r</i> → <i>ll</i> palatalizazio sinbolikoa	138
6.5.1.18. Txistukari afrikatu sabaiaurrekoa mailegu batzuetan	139
6.5.1.19. <i>goizan, arratsan, gañan</i>	139
6.5.1.20. <i>-xe</i> indargarriaren <i>-k</i> erantsia	139
6.5.1.21. Aditz nagusi mailegatuen partizipioko aldaera	139
6.5.1.22. <i>e-</i> <i>*ezan</i> -en pluraletan	139
6.5.1.23. Adizki puntukari perifrastikoak	139
6.5.1.24. Pluraleko <i>-de</i> pleonastikoa <i>izan</i> aditzean	140
6.5.1.25. Aurkezpen formulako <i>-(a)la</i> espletiboa	140
6.5.2. Zubereraren hautuak	140
6.5.2.1. Inesiboa + <i>gañen</i> = <i>barnen</i>	140
6.5.2.2. Partitiboa polaritate negatibotik landa	140
6.5.2.3. <i>z</i> & <i>tz</i> pluralgilea adizki datibodunetan	140

6.5.2.4.	<i>-tez & -tzez</i> moduzko perpausetan	141
6.5.2.5.	<i>bezainbeste & bezanbat</i> konparazioan	141
6.5.3.	Zubereraren ezaugarri zaharrak	141
6.5.3.1.	Bokal sudurkariak	141
6.5.3.2.	<i>rz, rs</i> kontsonante taldeak	142
6.5.3.3.	<i>īhūr</i> erako izenordain zehaztugabeak	142
6.5.3.4.	Mugatzailerik gabeko izen sintagmak	142
6.5.3.5.	Instrumentaleko <i>-zaz</i> atzizkia	142
6.5.3.6.	Edute-genitibo hutsa destinatiborako	143
6.5.3.7.	Mugatzailerik gabeko inesiboa	143
6.5.3.8.	<i>-rik</i> ablatiboa	143
6.5.3.9.	<i>-ti</i> ablatiboa	143
6.5.3.10.	Instrumentala egiletza adierazteko	143
6.5.3.11.	<i>alde & alte</i> hitzak osagarria eskuin	143
6.5.3.12.	<i>e-</i> aditz-aurrizkia	143
6.5.3.13.	<i>-rten & -lten</i> aditz izena	143
6.5.3.14.	Aditz nagusi asertihoak partizipio-atzizkirik ez	143
6.5.3.15.	Etorkizuna adierazteko <i>-iren & -türen</i>	144
6.5.3.16.	<i>za</i> gabeko <i>izan</i> aditza Nor Nori sail iraganean	144
6.5.3.17.	<i>-te</i> etorkizun atzizkia	144
6.5.3.18.	<i>ai-</i> aurrizkiaren botibo balioa	144
6.5.3.19.	<i>l-</i> aurrizkiaren iraganeko balioa	144
6.5.3.20.	<i>-e</i> Nork morfema hirugarren pertsona pluralean	144
6.5.3.21.	<i>tza</i> pluralgilea <i>jakin</i> aditzean	144
6.5.3.22.	<i>baleki</i> vs. Baxenabarreko <i>balaki</i>	144
6.5.3.23.	Aldaera gordetzailerak lexikoan	144
6.6.	Zuberoako ipar-mendebala	145
6.6.1.	Proiekzioa, gizarte-sareak eta hizkuntza-merkatua	145
6.6.2.	<i>Donapauleik Maulialat</i>	150
6.6.3.	Mendialdeko muga: Lohitzüne, Oihergi eta Ainharbe	153
6.6.3.1.	Lohitzüneko ezaugarriak	154
6.6.3.2.	Oihergiko ezaugarriak	155
6.6.3.3.	Ainharbeko ezaugarriak	157

6.6.4. Zolako muga: Artüe, Sarrikotapea eta Ündüreine	158
6.6.4.1. Artüeko ezaugarriak	159
6.6.4.2. Sarrikotapeko ezaugarriak	161
6.6.5. Pagolako bikoiztasunak	165
7. Amiküzeko ^heskuara	169
7.1. Soziolinguistika: mintzoaren oharmena Baxenabarre eta Amiküzen	171
7.1.1. Tradizio idatzia Baxenabarren eta Lapurdin	171
7.1.2. Ezaugarri baxenabartarren gizarte-balioa	172
7.1.3. Hazparneko euskararen ospea eta eragina	173
7.1.4. Gizarteko nagusitasunaren balizko isla hizkuntzan	180
7.2. Bi uren arteko mintzoa	181
7.2.1. Ohar zenbait	181
7.2.2. Oharmenezko dialektologia: hiztunen hizkuntza-ikuspegia	186
7.2.3. Elkarreraginaren emaitza norbanakoarengan	187
7.2.4. Ekialdeko ezaugarriak Amiküzen	188
7.3. Amiküzeko mintzoaren deskribapena	190
7.3.1. Fonologia	190
7.3.1.1. Azentuera	190
7.3.1.2. Fonema arrotz berriak	191
7.3.1.2.1. Bokalak	192
7.3.1.2.1.1. <i>æ</i> mailegu berrietan	192
7.3.1.2.1.2. <i>æ</i> mailegu berrietan	192
7.3.1.2.1.3. <i>ü</i> mailegu berrietan	192
7.3.1.2.1.4. <i>ṽ</i> mailegu berrietan	192
7.3.1.2.2. Kontsonanteak	193
7.3.1.2.2.1. Igurzkari ezpain-horzkaria	193
7.3.1.2.2.2. Bokal arteko txistukari ahostunak	194
7.3.1.2.2.3. Dardarkari ubularea	194
7.3.1.3. Bokalak	195
7.3.1.3.1. Aferesia	195
7.3.1.3.2. Bokalen sinkopak	196
7.3.1.3.3. Sudurkaritasuna bokaletan	198

7.3.1.3.4.	<i>u</i> -ren palatalizazioa: seigarren bokala Amiküzen	205
7.3.1.3.4.1.	Indeterminazio grafikoa XVIII. mendean	205
7.3.1.3.4.2.	<i>u</i> eta <i>ü</i> Amiküzeko eskualdeetan	207
7.3.1.3.4.3.	<i>ü</i> -ren baldintza fonologikoak Amiküzen	214
7.3.1.3.4.4.	<i>ua</i> → <i>ia</i> palatalizazioa	218
7.3.1.3.4.5.	<i>tuko</i> & <i>tüko</i> → <i>tiko</i> palatalizazioa	219
7.3.1.3.5.	<i>o</i> → <i>u</i> / <i>_</i> <i>n</i> bilakabidea	221
7.3.1.3.6.	<i>i</i> - <i>u</i> edo <i>i</i> - <i>ü</i> bokal sekuentzia	223
7.3.1.3.7.	Hitz hasierako <i>oa</i> -	226
7.3.1.3.8.	Hitz bukaerako <i>-u</i> & <i>-ü</i> berria	226
7.3.1.3.9.	Hiatoak	227
7.3.1.3.9.1.	<i>oa</i> & <i>ea</i>	227
7.3.1.3.9.2.	Oharrak <i>ue</i> > <i>ie</i> & <i>ie</i> > <i>ii</i> bilakaerez	228
7.3.1.3.9.3.	Amorotzeko emaitza ezohiko batzuk	229
7.3.1.3.9.4.	<i>-oak</i> > <i>-uk</i> Bithiriñan	230
7.3.1.3.9.5.	<i>-i</i> + <i>e</i> - > <i>-i i</i> -	230
7.3.1.3.10.	Bokalak eta bokalerdiak	230
7.3.1.3.11.	Bokal asimilazioak	230
7.3.1.3.12.	<i>ai</i> diptongoaren emaitzak	231
7.3.1.3.12.1.	<i>ai</i> gordetzea	231
7.3.1.3.12.2.	<i>ai</i> > <i>ei</i> goratzea	231
7.3.1.3.12.3.	<i>ai</i> soiltzea	232
7.3.1.3.12.4.	<i>bait</i> > <i>bit</i> soiltzea	233
7.3.1.3.13.	<i>au</i> diptongoaren emaitzak	234
7.3.1.3.14.	<i>eu</i> diptongoaren emaitzak	235
7.3.1.3.14.1.	<i>eu</i> gordetzea eta <i>eu</i> - > <i>u</i> - soiltzea	235
7.3.1.3.14.2.	<i>eu</i> > <i>ou</i> bilakatzea	236
7.3.1.4.	Kontsonanteak	237
7.3.1.4.1.	Hasperena	237
7.3.1.4.1.1.	Ohar orokorrak	237
7.3.1.4.1.2.	<i>h</i> -ren entzumena	238
7.3.1.4.1.3.	Hitzaren hasieran	239
7.3.1.4.1.4.	Bokalen artean	240

7.3.1.4.1.5.	Diptongoaren ondotik	241
7.3.1.4.1.6.	Herskari biezpainkarian	241
7.3.1.4.1.7.	Herskari horzkarian	242
7.3.1.4.1.8.	Herskari belarrean	243
7.3.1.4.1.9.	Albokariaren ondotik	244
7.3.1.4.1.10.	Dardarkariaren ondotik	244
7.3.1.4.1.11.	Sudurkariaren ondotik	244
7.3.1.4.1.12.	Hasperenaren higidura	244
7.3.1.4.1.13.	Igurzkari baten ordain	245
7.3.1.4.2.	/j/ fonema	245
7.3.1.4.3.	Txistukariak	247
7.3.1.4.3.1.	Hitz hasierako sabaiaurreko igurzkaria	247
7.3.1.4.3.2.	Hitz hasierako lepokari afrikatua ...	247
7.3.1.4.3.3.	Txistukari ahostunak bokal artean ..	247
7.3.1.4.4.	Dardarkaria	249
7.3.1.4.5.	Herskariak	250
7.3.1.4.6.	Kontsonante palatalizatuak	250
7.3.1.4.6.1.	Palatalizazio sinbolikoa	251
7.3.1.4.6.2.	Ozenen palatalizazio automatikoa ...	252
7.3.1.4.6.3.	Txistukarien palatalizazio automatikoa	255
7.3.1.4.6.4.	Bustidura erromanikoak txistukarietan	255
7.3.1.4.7.	Kontsonanteen sinkopak	256
7.3.1.4.7.1.	Bokal arteko <i>r</i> galtzea	256
7.3.1.4.7.2.	Igurzkarien galera bokal artean	259
7.3.1.4.7.3.	<i>-n</i> -ren laburdura etorkizuneko aditzetan	262
7.3.1.4.8.	Kontsonante zenbaiten txandaketak	264
7.3.1.4.8.1.	<i>r / g</i>	264
7.3.1.4.8.2.	<i>d / g</i>	264
7.3.1.4.8.3.	<i>b / g</i>	264
7.3.1.4.8.4.	<i>b / h</i>	264
7.3.1.4.8.5.	<i>r / h</i>	264

7.3.1.4.9.	Kontsonante taldeak	264
7.3.1.4.9.1.	<i>rz, rs, rx & nx</i>	265
7.3.1.4.9.2.	<i>st / rtz</i>	266
7.3.1.4.9.3.	“ozena + herskaria”	266
7.3.1.4.9.4.	“ozena + txistukaria” lexemaren mugan	268
7.3.1.4.9.5.	<i>jakin</i> + hasiera txistukariko aginte adizkia	269
7.3.1.4.9.6.	“hetskaria + txistukaria” lexemaren mugan	269
7.3.1.4.9.7.	Hetskaria + herskaria	270
7.3.1.4.9.8.	<i>n + b</i>	270
7.3.1.4.9.9.	<i>rk > rg</i>	270
7.3.1.4.9.10.	<i>-rk > -k</i>	271
7.3.1.4.9.11.	<i>ez + g-</i> eta <i>ez + d-</i> sandhia	271
7.3.2.	Izenaren morfologia	272
7.3.2.1.	Determinazioa	272
7.3.2.1.1.	Mugatzailerik gabeko izen sintagmak	272
7.3.2.1.2.	Mugagabea eta mugatu plurala nahas	276
7.3.2.1.3.	<i>bat</i> zenbatzailearen joko mugagabea	277
7.3.2.2.	Izen sintagmaren egitura	279
7.3.2.2.1.	“izena + <i>bat</i> + adjektiboa”	279
7.3.2.2.2.	“ <i>geiho</i> + izena”	280
7.3.2.2.3.	“ <i>biziki</i> + izena”	280
7.3.2.2.4.	“ <i>bardin</i> + adjektiboa”	280
7.3.2.2.5.	Superlatiboa bikoizturik	280
7.3.2.3.	Kasu atzizkiak	281
7.3.2.3.1.	Ergatiboa	281
7.3.2.3.2.	Partitiboa	282
7.3.2.3.2.1.	Polaritate negatiboan	282
7.3.2.3.2.2.	Baiezko perpausetan eta erlatibozkoetan	282
7.3.2.3.3.	Datiboa	283
7.3.2.3.3.1.	Pluraleko aldaeraren hedadura	283
7.3.2.3.3.2.	Amiküzeko adibideak	284
7.3.2.3.4.	Edute genitiboa	284

7.3.2.3.4.1. Laburdura fonikoa	284
7.3.2.3.4.2. Osagarri zuzenaren eginkizuna	286
7.3.2.3.4.3. Balio destinatibo zaharra	288
7.3.2.3.5. Soziatiboa	289
7.3.2.3.5.1. Eskualdeko aldaerak	289
7.3.2.3.5.2. Denborazko balioa	291
7.3.2.3.5.3. <i>-kilako</i>	292
7.3.2.3.6. Destinatiboa	292
7.3.2.3.6.1. Genitiboari <i>-tzat</i> erantsirik	292
7.3.2.3.6.2. Genitiboari <i>-tako</i> erantsirik	294
7.3.2.3.6.3. Hitzen osagarri	295
7.3.2.3.7. Instrumentala	295
7.3.2.3.7.1. Morfema berria	295
7.3.2.3.7.2. Pluraleko morfema	296
7.3.2.3.7.3. Ohiko erabilera eta adiera	296
7.3.2.3.7.4. Aditz eta adizlagunen osagarri	296
7.3.2.3.7.5. Moduaren adierazle	297
7.3.2.3.7.6. Denboraren adierazle	297
7.3.2.3.7.7. Egiletasunaren adierazle	297
7.3.2.3.8. Bizidunen lekuzko kasuak	298
7.3.2.3.8.1. <i>bait(h)a</i>	298
7.3.2.3.8.2. <i>**_ga</i>	298
7.3.2.3.9. Inesiboa	300
7.3.2.3.9.1. Aldaera zaharra	300
7.3.2.3.9.2. <i>gañan</i> erakoak	302
7.3.2.3.9.3. <i>**_larikan</i>	302
7.3.2.3.9.4. Moduzko perpausetan	302
7.3.2.3.9.5. <i>holetan</i>	302
7.3.2.3.9.6. Adinaren adierazle	303
7.3.2.3.9.7. <i>su</i> hitza	303
7.3.2.3.10. Genitibo lokatiboa	303
7.3.2.3.10.1. <i>-nko</i>	303
7.3.2.3.10.2. Amiküzeko berri	304
7.3.2.3.11. Ablatiboa	304
7.3.2.3.11.1. Eskualdeko aldaerak	304

7.3.2.3.11.2. Aldaera zaharra	306
7.3.2.3.11.3. <i>-danik</i>	306
7.3.2.3.11.4. Adiera lokatiboa	306
7.3.2.3.11.5. Denboratik denborara	307
7.3.2.3.12. Adlatiboa	307
7.3.2.3.12.1. Ekialdeko berri	307
7.3.2.3.12.2. Baxenabarre eta Lapurdiko berri	308
7.3.2.3.12.3. Aldaera zaharra Amiküzén	309
7.3.2.3.12.4. Aldaera berria Amiküzén	310
7.3.2.3.13. Norabide adlatiboa	311
7.3.2.3.13.1. Norabide adiera	311
7.3.2.3.13.2. Adiera ez gardena	312
7.3.2.3.13.3. Bikoiztasun formala	313
7.3.2.3.13.4. Adlatiboaren adiera neutroa	313
7.3.2.3.14. Muga adlatiboa	314
7.3.2.3.14.1. Baxenabarreko berri	314
7.3.2.3.14.2. Amiküzeko berri	314
7.3.2.3.14.3. <i>-ra artio</i>	316
7.3.2.3.15. Prolatiboa	316
7.3.2.3.16. Kausatiboa	316
7.3.2.3.16.1. <i>-gatik</i>	316
7.3.2.3.16.2. <i>-tako</i>	317
7.3.2.3.16.3. <i>-takotz</i>	317
7.3.2.4. Leku-denborazko postposizioak	317
7.3.2.4.1. <i>artio</i>	317
7.3.2.4.2. <i>-ri & -ra = -la bürüz</i>	319
7.3.2.4.3. <i>-ri gora</i>	320
7.3.2.4.4. <i>-ri kuntre</i>	320
7.3.2.4.5. <i>-n gaindi</i>	321
7.3.2.4.6. <i>-tik landa</i>	323
7.3.2.4.7. <i>-tik harat</i>	323
7.3.2.4.8. <i>-(e)n bürían</i>	323
7.3.2.4.9. <i>gabe</i>	324
7.3.2.4.10. <i>(-en) antzüra</i>	324

7.3.2.5.	Beste postposizio batzuk	324
7.3.2.5.1.	<i>-(r)en arau</i>	324
7.3.2.5.2.	<i>-(r)en gain</i>	325
7.3.2.5.3.	<i>(-ko) orde</i>	325
7.3.2.6.	Zenbait adizlagun berezi	326
7.3.2.6.1.	<i>-kotz</i>	326
7.3.2.6.2.	<i>-ko xedezkoa</i>	327
7.3.2.6.3.	<i>hartako / hartakotz</i>	327
7.3.2.6.4.	<i>-ki nolakotasunean</i>	328
7.3.2.6.5.	<i>-rik nolakotasunean</i>	328
7.3.2.7.	Erakusleak	328
7.3.2.7.1.	Erakusle arruntak	329
7.3.2.7.1.1.	Eskualdeko aldaerak	329
7.3.2.7.1.2.	Erakusleen zerrenda	330
7.3.2.7.1.3.	<i>hu(r)ak</i> -en agerpen bakana	332
7.3.2.7.1.4.	Kontsonantizazio adibide bat	332
7.3.2.7.2.	Erakusle hanpatuak	332
7.3.2.7.2.1.	Eskualdeko aldaeren berri	332
7.3.2.7.2.2.	<i>idem</i> euskaraz	332
7.3.2.7.2.3.	<i>ipse</i> euskaraz	333
7.3.2.7.2.4.	<i>bere</i> -ren erabilera	334
7.3.2.7.2.5.	Bakartasunaren adierazpena	336
7.3.2.7.2.6.	Genitibo plurala	336
7.3.2.8.	Izenordain, galdetzaile, zenbatzaile & determinatzaileak	338
7.3.2.8.1.	Pertsona izenordainak	338
7.3.2.8.2.	Pertsona izenordain hanpatuak	338
7.3.2.8.2.1.	XX. mende hasierako datuak	338
7.3.2.8.2.2.	Egungo datuak eta bilakaera	339
7.3.2.8.2.3.	Genitibo bihurkarien erabilera	341
7.3.2.8.2.4.	Bakartasunaren adierazpena	342
7.3.2.8.3.	Izenordain zehaztugabeak	343
7.3.2.8.3.1.	<i>nehor / nihor / nihur</i>	343
7.3.2.8.3.2.	<i>noit</i>	344
7.3.2.8.3.3.	<i>nornahi & zernahi</i>	344

7.3.2.8.3.4.	<i>norbera</i>	345
7.3.2.8.3.5.	<i>deus & bate</i>	345
7.3.2.8.4.	Galdetzaileak	346
7.3.2.8.4.1.	<i>nor / nur & noiz / nuiiz & nola / nula</i>	346
7.3.2.8.4.2.	<i>naa 'nora' / naat 'norat'</i>	347
7.3.2.8.4.3.	<i>zein / zoin & zuin, zenbat / zonbat & zumat</i>	347
7.3.2.8.5.	Zenbatzaile zehaztugabeak	348
7.3.2.8.5.1.	<i>batzu</i>	348
7.3.2.8.5.2.	<i>zeinbait / zenbait / zonbait / zunbait</i>	349
7.3.2.8.5.3.	<i>anitz & guti & frango & hunanbeste</i>	350
7.3.2.8.6.	Determinatzaile zehaztugabeak	352
7.3.2.8.6.1.	<i>zerbeit / zeit</i>	352
7.3.2.8.6.2.	<i>edo zoin / edo zuin</i>	353
7.3.2.8.6.3.	<i>beste</i>	354
7.3.2.9.	Zenbakiak	355
7.3.2.9.1.	Hogeiko sailen egitura	355
7.3.2.9.2.	Zenbakien sorta	355
7.3.2.9.3.	Zenbaki banakariak	357
7.3.2.9.4.	Orduaren adierazpena	357
7.3.2.10.	Hitz elkarketa	357
7.3.2.10.1.	Galdetzailea + <i>nahi</i>	357
7.3.2.10.2.	Adizlagun errepikatu hanpatuak	358
7.3.2.11.	Eratopen atzizki eta aurrizkiak	359
7.3.2.11.1.	Amiküzeko zerrenda	359
7.3.2.11.2.	Amiküze, Oztibarre eta Zuberoa batera ...	366
7.3.2.11.3.	Amiküze eta Zuberoa batera	367
7.3.2.11.4.	Zuberoako atzizkien aldaerak	367
7.3.3.	Aditzaren morfologia	368
7.3.3.1.	Ezaugarri orokorrak	368
7.3.3.1.1.	Aditz eta lokuzio batzuen balentziak	368
7.3.3.1.1.1.	<i>askaldu, auhaldu, bazkaldu</i>	368
7.3.3.1.1.2.	<i>lagundu, manatu, utzi, mintzatu</i>	368
7.3.3.1.1.3.	<i>joan</i> eta <i>jin</i> -en balio iragankorra	369
7.3.3.1.1.4.	<i>behatu</i>	370

7.3.3.1.1.5.	<i>nahi + izan</i> lokuzioa	370
7.3.3.1.1.6.	<i>gogo + edun</i> lokuzioa	371
7.3.3.1.1.7.	<i>behar + edun</i> lokuzio inpersonala	371
7.3.3.1.1.8.	<i>ari + izan</i> lokuzioa	372
7.3.3.1.2.	Aditzen gobernua	372
7.3.3.1.2.1.	Absolutiboa	372
7.3.3.1.2.2.	Datiboa	373
7.3.3.1.2.3.	Adlatiboa	373
7.3.3.1.2.4.	Ablatiboa	374
7.3.3.1.3.	Aspektua	374
7.3.3.1.3.1.	Aditz trinko puntukariak	374
7.3.3.1.3.2.	Joko trinkoaren galera	378
7.3.3.1.3.3.	<i>johan</i> ohikotasunean	381
7.3.3.1.3.4.	Puntukaria perifrasiaren edo lokuzioan	383
7.3.3.1.3.5.	Aditzoina ohikotasunaren adierazle	383
7.3.3.1.3.6.	<i>-ki</i> atzikia ohikotasunean	386
7.3.3.1.3.7.	<i>izan</i> eta <i>ukhan</i> aspektu bururatuak	387
7.3.3.1.4.	Tempusa	389
7.3.3.1.4.1.	Iragana adierazteko oraina	389
7.3.3.1.4.2.	<i>-e</i> → <i>-a</i> iraganeko aditz trinkoetan	390
7.3.3.1.4.3.	<i>izan</i> -en iraganean <i>-an</i> / <i>-en</i>	391
7.3.3.1.4.4.	<i>izan</i> -en Nor Nori iragana	392
7.3.3.1.4.5.	<i>-te</i> & <i>-ke</i> etorkizunaren adierazle	392
7.3.3.1.5.	Modalitatea	393
7.3.3.1.5.1.	<i>-ke</i> morfema	393
7.3.3.1.5.2.	<i>omen</i>	397
7.3.3.1.5.3.	<i>behar</i> / <i>**bide</i>	398
7.3.3.1.5.4.	“ <i>ez + edun + -rik</i> ”	398
7.3.3.1.6.	Baldintza	399
7.3.3.1.6.1.	<i>Irrealis</i> baldintzaren era zaharra	399
7.3.3.1.6.2.	<i>Irrealis</i> baldintzaren era berria	400
7.3.3.1.6.3.	Baldintza erreala	400
7.3.3.1.6.4.	Aditz jokatu gabea + <i>-kotz</i>	401
7.3.3.1.6.5.	Baldintzaren apodosia	401
7.3.3.1.7.	Ahala	401
7.3.3.1.7.1.	<i>*edin</i> eta <i>*ezan</i> bidezkoak	401

7.3.3.1.7.2.	<i>*iron</i> bidezkoak	402
7.3.3.1.7.3.	<i>ahal</i> bidezkoak	403
7.3.3.1.8.	Agintea	404
7.3.3.1.8.1.	<i>*edin</i> eta <i>*ezan</i> bidezkoak	404
7.3.3.1.8.2.	Agintea ezezkoan	404
7.3.3.1.8.3.	Forma laburrak	404
7.3.3.2.	Aditz nagusia	404
7.3.3.2.1.	Aditz nagusiko <i>e-</i> / <i>i-</i> aurrizkia	404
7.3.3.2.2.	Aditz nagusiko atzizkiak	405
7.3.3.2.2.1.	<i>-tu</i> pleonastikoa	405
7.3.3.2.2.2.	<i>-i</i> atzizki mailegatua	405
7.3.3.2.2.3.	<i>-rik</i> modu atzizkia	405
7.3.3.2.2.4.	<i>-rten</i> & <i>-lten</i> aditz izenaz	406
7.3.3.2.2.5.	<i>-iten</i> zaharra aditz-izenean	408
7.3.3.2.2.6.	Txistukari inguruneko aditz-izena	408
7.3.3.2.2.7.	<i>-t(z)eko</i> morfemaren balioa	408
7.3.3.2.2.8.	Etorkizuneko morfema	409
7.3.3.2.3.	Aditz nagusiaren eta laguntzailearen hurrenkera	410
7.3.3.2.3.1.	Hanpadura egoeran	410
7.3.3.2.3.2.	<i>behar</i> eta <i>nahi</i>	412
7.3.3.2.4.	Aditz elkartuak	413
7.3.3.2.5.	Aditz aldaera laburrak	413
7.3.3.3.	Aditz morfemak	414
7.3.3.3.1.	Tratamendu alokutiboak: <i>no</i> , <i>to</i> , <i>zu</i> eta <i>xu</i>	414
7.3.3.3.1.1.	Izaera alokutiboaz eta hiketaz	414
7.3.3.3.1.2.	Zuketa alokutiboa	417
7.3.3.3.1.3.	Adizki alokutiboen egitura	420
7.3.3.3.1.4.	Bilakabide fonikoak zuketan	422
7.3.3.3.1.5.	<i>d-</i> eta <i>z-</i> oraineko adizki alokutiboetan	425
7.3.3.3.1.6.	Xuketa alokutiboa	426
7.3.3.3.2.	Datiboaren komunztadura	429
7.3.3.3.3.	Pertsona morfemak	430
7.3.3.3.3.1.	<i>t / ta</i>	430

7.3.3.3.3.2.	<i>da / ta</i>	434
7.3.3.3.3.3.	<i>t → k</i>	434
7.3.3.3.3.4.	<i>k & n</i> -ren kokagunea	435
7.3.3.3.3.5.	<i>ko & ka</i>	435
7.3.3.3.3.6.	<i>gu</i>	436
7.3.3.3.3.7.	<i>zu & zie</i> pleonastikoak	439
7.3.3.3.3.8.	<i>zu & tzu</i>	439
7.3.3.3.3.9.	<i>zite</i>	441
7.3.3.3.3.10.	<i>e</i>	442
7.3.3.3.3.11.	<i>te</i>	444
7.3.3.3.4.	Beste zenbait morfema adizkietan	445
7.3.3.3.4.1.	<i>gitzan & gitzak</i>	445
7.3.3.3.4.2.	<i>ginden, ginten / zinden, zinten</i>	446
7.3.3.3.4.3.	<i>gindien, ginien / zindien, zinien</i>	448
7.3.3.3.4.4.	<i>nintien & nintzin</i> analogikoak	449
7.3.3.3.4.5.	<i>zauntan & zaunkuten</i> analogikoak ..	450
7.3.3.3.4.6.	<i>-ku- / -kiu-</i>	450
7.3.3.3.4.7.	<i>**d-</i> Nor Nori sailean	451
7.3.3.3.5.	Pluralgileak	452
7.3.3.3.5.1.	<i>z</i> berria <i>edun</i> -en	452
7.3.3.3.5.2.	<i>z</i> berria <i>izan</i> -en	453
7.3.3.3.5.3.	<i>it → zki *ezan</i> -en Nor Nork sailean ..	453
7.3.3.3.5.4.	<i>zt</i> erako osagarri zuzen pluralak tripertsonaletan	455
7.3.3.3.5.5.	<i>zki - tz</i> adizki berean	455
7.3.3.4.	Aditz laguntzaileak	456
7.3.3.4.1.	Gertakari fonikoak	456
7.3.3.4.1.1.	<i>izan & edun</i> -en monoptongazio zaharrak	457
7.3.3.4.1.2.	<i>di-</i> eta <i>du</i> -ren galera	457
7.3.3.4.1.3.	Adizkiko lehen <i>t</i> galdu bi daudenean	458
7.3.3.4.1.4.	Aditzeko bi atalen arteko metatesia .	459
7.3.3.4.1.5.	Aditz laguntzailea + atzizkia	459
7.3.3.4.1.6.	<i>zatean & zatan, zaztean & zaztan</i> ...	459
7.3.3.4.1.7.	<i>dakoat & dakat</i>	459
7.3.3.4.1.8.	<i>behar + edun</i> lokuzioko fusioa	459

7.3.3.4.1.9.	<i>*ezan</i> -en ondoko fusioa	460
7.3.3.4.2.	Oharrak aditz laguntzaile batzuez	460
7.3.3.4.2.1.	Subjektu singular & pluralak adizki bera	460
7.3.3.4.2.2.	Iraganeko hiketan <i>-n</i> & \emptyset	460
7.3.3.4.2.3.	<i>*eradun</i> -eko adizki <i>u</i> -dun eta gabeak	460
7.3.3.4.2.4.	<i>*edin</i> + <i>-ke</i> adizkietan <i>e</i> - <i>e</i> eredia	461
7.3.3.4.2.5.	<i>ki</i> morfema Nor Nori aditz sailean	463
7.3.3.4.2.6.	Datiboaren <i>i</i> adizki hirupersonaletan	464
7.3.3.4.2.7.	Zenbait adizki analogiko	464
7.3.3.4.2.8.	<i>düzte</i> & <i>tüzte</i> ‘dituzte’	464
7.3.3.4.2.9.	Osagarri singularrean <i>nt</i> nahiz <i>nd</i>	465
7.3.3.4.2.10.	<i>dizi</i> ‘dizugu’ nahiz ‘dizuegu’	465
7.3.3.4.3.	Aditz laguntzailearen elipsia	465
7.3.3.4.4.	Aditz laguntzaileen joko aberastasuna	465
7.3.4.	Sintaxia	466
7.3.4.1.	Erlatibozko perpausak	466
7.3.4.1.1.	<i>-en</i>	466
7.3.4.1.2.	<i>-enik</i>	466
7.3.4.1.3.	<i>bit</i>	466
7.3.4.1.4.	Aditz nagusi soila atzizkirik gabe	467
7.3.4.1.5.	<i>-(r)ikako</i>	469
7.3.4.1.6.	Korrelatiboak	469
7.3.4.2.	Kausazko perpausak	471
7.3.4.2.1.	<i>bit</i>	471
7.3.4.2.2.	<i>zeen ta... (bit)</i>	471
7.3.4.2.3.	<i>-lakoan</i>	472
7.3.4.2.4.	<i>**lakotz</i>	473
7.3.4.2.5.	<i>kausaz</i>	474
7.3.4.2.6.	<i>medio</i>	474
7.3.4.2.7.	<i>-z gañ</i>	474
7.3.4.2.8.	Mailegu bidezkoa: <i>parce que</i>	475
7.3.4.3.	Perpaus kompletiboak	475
7.3.4.3.1.	<i>-(e)la</i>	475
7.3.4.3.2.	<i>-(e)n</i>	475

7.3.4.3.3.	Ezezkotetan <i>-(e)la</i>	476
7.3.4.3.4.	* <i>edin</i> & * <i>ezan</i> oinarrien bidez	476
7.3.4.3.5.	Zehar-galdera	477
7.3.4.3.6.	<i>be(i)zik eta</i>	479
7.3.4.3.7.	<i>hotsez eta</i>	480
7.3.4.4.	Perpaua konparatiboak	481
7.3.4.4.1.	<i>bezain / beza(i)nbeste / bezanbat</i>	481
7.3.4.4.2.	<i>nola</i> partikula	482
7.3.4.4.3.	<i>-ago</i> & <i>-oo</i>	482
7.3.4.4.4.	<i>-agoko</i> & <i>-oko</i>	483
7.3.4.4.5.	<i>-ago... ezin ez</i>	483
7.3.4.5.	Denborazko perpauak	484
7.3.4.5.1.	<i>-larik</i>	484
7.3.4.5.2.	** <i>-larikan</i>	485
7.3.4.5.3.	<i>-nean</i>	485
7.3.4.5.4.	Soziatiboa	486
7.3.4.5.5.	Datiboa	486
7.3.4.5.6.	<i>eta</i> partikula	487
7.3.4.5.7.	<i>ondoan</i> adizlaguna	487
7.3.4.5.8.	Denboraren muga: <i>-(e)no</i>	487
7.3.4.5.9.	Denboraren muga: <i>artean</i>	488
7.3.4.5.10.	Lehenagoko denbora: <i>aitzin</i>	489
7.3.4.5.11.	Aldiberekotasuna: <i>arau</i>	489
7.3.4.6.	Perpaua kontzesiboak	489
7.3.4.6.1.	Aditz nagusia + <i>-ik ere</i>	489
7.3.4.6.2.	Aditz jokatua + <i>ere</i>	489
7.3.4.6.3.	<i>nahiz</i> partikula	490
7.3.4.6.4.	** <i>nahibada</i>	490
7.3.4.6.5.	<i>alta</i> partikula	490
7.3.4.6.6.	<i>solamente / solo</i> partikula	491
7.3.4.7.	Xedezko perpauak	491
7.3.4.7.1.	* <i>edin</i> & * <i>ezan</i> oinarrien bidez	491
7.3.4.7.2.	<i>amokatik eta</i> partikula	491
7.3.4.7.3.	Aditz izena + <i>-ko</i>	494
7.3.4.7.4.	<i>-kotan</i>	494

7.3.4.8.	Moduzko perpausak	495
7.3.4.8.1.	<i>-tez</i> & <i>-tzez</i> vs. <i>-iz</i> & <i>-tuz</i>	495
7.3.4.8.2.	Soziatiboa	496
7.3.4.8.3.	<i>-(e)n ber</i>	497
7.3.4.8.4.	<i>-n arau</i>	497
7.3.4.9.	Perpau hautakariak	498
7.3.4.10.	Galdera perpausak	498
7.3.4.11.	Galdera ez diren inguruneetan <i>-a</i> morfema	500
7.3.4.12.	<i>othe</i> partikula modala	500
7.3.4.13.	Emendiozko <i>ere</i> lokailua	502
7.3.4.14.	<i>non</i> + <i>ez</i> + aditza + <i>-(e)n</i> baldintza perpausak	502
7.3.4.15.	Galdegaia	503
7.3.4.15.1.	Galdegaiaren kokaguneaz	503
7.3.4.15.2.	<i>ba</i> neutroa	503
7.3.5.	Lexikoa	504
7.3.5.1.	Aurkezpena	504
7.3.5.2.	Amiküzeko lexikoa	508
7.3.5.2.1.	Amiküzeko hitz eta aldaera endemikoak	509
7.3.5.2.1.1.	Amiküztarren konpromisoa: <i>interdialect</i>	509
7.3.5.2.1.2.	Berezko nortasuna Amiküzeko hitzetan	509
7.3.5.2.1.3.	Berezko nortasuna Amiküzeko aldaeretan	511
7.3.5.2.1.4.	Amiküzeko alderdi batek nortasuna aldaeretan	515
7.3.5.2.2.	Amiküze eta ondoko eskualdeetako lexikoa	517
7.3.5.2.2.1.	Ipar Euskal Herri barnealdeko hitzak Amiküzen	517
7.3.5.2.2.2.	Ipar Euskal Herri barnealdeko aldaerak Amiküzen	519
7.3.5.2.2.3.	Baxenabarre ekialdeko hitzak Amiküzen	522
7.3.5.2.2.4.	Baxenabarre ekialdeko aldaerak Amiküzen	523

7.3.5.2.2.5.	Baxenabarre ekialdeko eta Zuberoako hitzak Amiküzen	525
7.3.5.2.2.6.	Baxenabarre ekialdeko eta Zuberoako aldaerak Amiküzen	527
7.3.5.2.2.7.	Amiküzeko hitzak Zuberoan bezalakoak	531
7.3.5.2.2.8.	Amiküzeko hitzak ipar-Zuberoan bezalakoak	534
7.3.5.2.2.9.	Amiküzeko aldaerak Zuberoan bezalakoak	534
7.3.5.2.2.10.	Amiküzeko aldaerak ipar-Zuberoan bezalakoak	540
7.3.5.2.3.	Hedadura zabaleko lexikoa Amiküzen . . .	540
7.3.5.2.3.1.	Ipar Euskal Herri guztiko hitzak Amiküzen	540
7.3.5.2.3.2.	Euskal Herri guztiko hitzak Amiküzen	541
7.3.5.2.4.	Bestelakoak	542
7.3.5.3.	Arberoako lexikoa	543
7.3.5.3.1.	Ipar Euskal Herri barnealdeko hitzak Arberoan	544
7.3.5.3.2.	Ipar Euskal Herri barnealdeko aldaerak Arberoan	545
7.3.5.3.3.	Ekialde zabaleko hitzak Arberoan	546
7.3.5.3.4.	Ekialde zabaleko aldaerak Arberoan	548
7.3.5.4.	Zuberoako lexikoa	548
7.3.5.4.1.	Zuberoako berezko hitzak	548
7.3.5.4.2.	Bearnésaren eragina	553
7.3.5.4.3.	Zuberoako berezko aldaerak	554
7.3.5.5.	Oztibarreko lexikoa	559
7.3.5.5.1.	Grabitazio-indar lexikoak Oztibarren	559
7.3.5.5.2.	Oztibarreko lexikoaren nortasun apala . . .	564
7.3.5.5.3.	Baxenabarre erdiguneko lexikoa Oztibarren	568

7.3.5.5.4.	Oztibarre Baxenabarreko erdigune-hegoalderat pibotatzen	570
7.3.5.5.5.	Baxenabarre ekialdeko hitzak Oztibarren	574
7.3.5.5.6.	Baxenabarre ekialdeko aldaerak Oztibarren	575
7.3.5.5.7.	Baxenabarre ekialdeko eta Zuberoako hitzak Oztibarren	575
7.3.5.5.8.	Baxenabarre ekialdeko eta Zuberoako aldaerak Oztibarren	576
7.3.5.5.9.	Oztibarreko herri batzuek eta Zuberoak partekatzen dituzten hitzak	576
7.3.5.5.10.	Oztibarreko herri batzuek eta Zuberoak partekatzen dituzten aldaerak	577
8.	Ondorioak	579
8.1.	Espazioa, gizartea, bizia, berrikuntzak eta hizkuntza	581
8.2.	Amiküzeko hizkuntza-ezaugarrien hezurdura orokorra	584
8.3.	Amiküzeko mintzoaren nortasunaz eta haren idatzizko agerpen berankorraz	588
8.4.	Donapaleu sorburua: batasunaren eta aniztasunaren artean	591
8.5.	Berrikuntzen hedadura: Amiküzeko erdigunea vs. saihetsak	593
8.5.1.	Amiküzeko saihetsetan diren herrietako mintzoaz	593
8.5.2.	Kaskoinaren eragina Amiküzeko iparrean	593
8.5.3.	Amiküzeko ezaugarri batzuk Zuberoarat joanik	594
8.5.4.	Zuberoako eragina Amiküzeko ekialdean	595
8.5.5.	Amiküzeko hegoaldea	596
8.5.6.	Amiküzeko mendebala	598
8.5.7.	Amiküzeko erdigunea	600
8.5.8.	Hogeita hamabi herritako mintzoaren homogeneotasunik ezaz	601
8.5.9.	Amiküzeko eta saihetsetako hizkuntza-eragina mapan	601
8.6.	1782ko <i>Pratica</i> -ko euskara Amiküzeko dea?	604
Bibliografia	609

Etnotestuak	637
Azalpenak transkribatze lanaz eta bestez	639

Amiküzeko etnotestuak

1) Oragarre (1985)	643
2) Amorotze (2007)	649
3) Behauze (2006)	655
4) Bithiriña (2008, 2009)	660
5) Ostankoa (2015)	665
6) Donapaleu (Xibaltarre auzoa, 2015)	672
7) Uhartehiri (2009)	678
8) Sorhapürü (2015)	683
9) Arrüeta (2006)	688
10) Martxüeta (2005)	695
11) Labetze (2006)	700
12) Amendüze (2015)	705
13) Gamue (2005)	710
14) Zohota (2006)	716
15) Arberatze (2006)	722

Zuberoako etnotestuak

16) Olhaibi (2009)	730
17) Arüe (2009)	738
18) Sarrikotapea (2009)	745
19) Oihergi (2007)	752
20) Pagola (2009)	759

Mapen aurkibidea

1 mapa	17
2 mapa	18
3 mapa	603

Oharrak liburua irakurtzeko**a) Eskualdeko herrien laburdurak**

Amiküze: Aiziritze, Altzümarta (Altzü), Amendüze (Ame), Amоротze (Amo), Arberatze (Arbe), Arboti (Arbo), Arrüeta (Arrü), Barta-Oragarre (Barta), Behaskane (Behas), Behauze (Behau), Bithiriña (Bith), Bizkai, Donapaleu (Donap), Gabadi (Gab), Gamue (Gam), Garrüze (Gar), Ilharre (Ilh), Labetze (Lab), Laphizketa (Laph), Larribarre (Larri), Lüküze (Lük), Martxüeta (Mar), Oragarre (Ora), Ostankoa (Ost), Sarrikota (Sar), Sorhapürü (Sor), Uhartehiri (Uha), Unaso, Zilhekoa, Zohazti (Zoha), Zohota (Zoho), Zokotze (Zok)¹

Arberoa: Armendaritze (Arm), Donamartiri (Donam), Heleta (Hel), Izturitze (Izt), Mehaine (Meh)

Oztibarre: Arhantsusi (Arh), Arroze (Arro), Azme (Azm), Bunuze (Bun), Donaixti (Donaix), Hozta (Hoz), Ibarre (Ibarre), Ibarrola (Ibarro), Izura (Izu), Jutsi (Jut), Larzabale (Larz), Zibitze (Zib)

Landibarre: (Lan)

Ipar-ekialdeko Zuberoa: Ainharbe (Ainh), Arië (Arië), Berroeta (Ber), Domintxaine (Dom), Etxarri (Etx), Ithorrotze (Itho), Lohitzüne (Loh), Oihergi (Oih), Olhaibi (Olh), Pagola (Pag), Sarrikotapea (Sarkp), Ündüreine (Ündü)

Gainerateko Zuberoa: Larraine (Larr), Urdiñarbe (Urd)

Lapurdikoko Aturrialdea: Bardoze (Bardo)

b) Garrantzi handiko euskal lan batzuen laburdurak

EAEL → *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa* (Aranzadi Zientzia Elkarte 1984, 1990)

EHHA → *Euskal Herri Hizkeren Atlas* (Euskaltzaindia, 2008 →)

EI → *Erizkizundi Irukoitza* (Euskaltzaindia, 1922-25)

FHV → *Fonética Histórica Vasca* (Koldo Mitxelena, 1961, 1977)

HB → *The History of Basque* (R. Larry Trask, 1997)

OEH → *Orotariko Euskal Hiztegia* (Koldo Mitxelena & Euskaltzaindia, 1987-2005)

TAV → *Textos arcaicos vascos* (Koldo Mitxelena, 1964)

¹ Egun bederen Bizkain ez dira euskaraz ari, kaskoina edo frantsesa baliatzen dute mintzatzeko. Bestalde, Aiziritzen, Unason eta Zilhekoan ez dugu daturik bildu.

c) Erreferentzien berri

1. Besterik aipatzen ez baldin bada, liburu honek dakartzan Amiküzeko hizkuntza-adibideak egileak berak ageri diren herrian bilduak direla ulertu behar da; adibidea bestek bildua denean erreferentzia agertuko da, eman dezagun, Koldo Artola, Pedro Irizar, Rudolf Trebitsch... Herri izena nabarmendurik edo azpimarraturik ageri denean ulertu behar da Euskaltzaindiaren *EHHA* atlasetik bildu datua dela; errate batera, "Arrü" atlaseko emaitza da eta "Arrü", berriz, guk herri horretan bildua. Aditaz jardutean usu aipatuko da Irizarrek 2002an argitaratu *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental* (II) bilduma, (2002a) eran ageri dena eta funtsean Artolak Bardozen nahiz Amiküzen bildu adizkiak dakartzana: Arrüeta-Sarrikota, Oragarre, bertako auzo Barta, Behauze, Gabadi, Zohota, Domintxaine, Donapaleu, Bithiriña, Lohitzüne, Etxarri eta Olhaibin bildu ditu eta baita ibarraren ondoko herri gehiagotan ere. Aditz taurok dakartzaten orrialdeek ez dute zenbakirik idatzirik, irakurleak herri bakoitzeko taulara jo behar du eta adizkia dagokion laukian bilatu.

Adibideak Oztibarrekoak direnean guti batzuetan baizik ez dira egileak bilduak izanen, Oztibarreko adibide gehienak Xarles Videgainen 1989ko doktoretza tesi bikainetik bilduak dira. Arberoakoak direnean, besterik erraten ez bada egileak bilduak direla ulertuko da eta berdin Zuberoako ipar-mendebaleko adibideei dagokienez ere.

2. Alferrikako errepikapenak saihesteko edo datu soil bat erreferentzia luzeaz arintzeko asmoz, usu errepikatuko diren erreferentzia batzuk laburrago emanen ditugu, eman dezagun, bestek idatzi edo ahoz eman testuak dakartzaten bildumak:

Jose M. Etxebarriak argitaratu zituen (1994) Trebitsch-i hiztun amiküztar batzuek eta beste baxenabartar batzuek 1913an kontatu etnotestuak

Txomin Peillenek argitaratu zituen (1986) Allande Elixagarai ligiarraren etnotestuak

Rosa Miren Pagolak eta Itziar eta Juan Jose Iribarrek argitaratu zituzten Louis-Lucien Bonaparteren inguruan XIX. mendean itzuli ziren katiximak: gure eskualdean Donapaleu (1999a), Donamartiri (1999a), Bardoze (1999a) eta Hazparnekoa (1999b) aipa daitezke edo Iribarnegararen Baigorriko ebanjelioa (1999b)

Gotzon Aurrekoetxeak eta Videgainek argitaratu zituzten (2004) Edouard Bourciezek 1894an eskualdean lortu haur prodigoaren parabolako euskal itzulpenak

Guhaurek argitaratu dugu (2013) eskualdeko 1782ko *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco aitaren guiristinho perfeccioniaren praticaren parte bat* itzulpena

Argitalpen horietako hizkuntza-adibideak emanen diren guztietan “Trebitsch”, “Elixagarai”, “Bonaparte”, “Bourciez” edo “1782ko testua” erako izen-dapenak eta orrialde zenbakia agertuko dira, baina labur beharrez argitaratzailearen izenik edo argitalpenaren urterik ez. Osorik agertzekotan gure liburuko lehen adibideetan izanen da, ondokoetan orrialde zenbakia baizik ez. Berebat, Videgainen Oztibarreko 1989ko ikerlaneko datu ugari ere ez ditugu erreferentziaz josiko, guti batzuetan baizik ez da orrialdea agertuko.

3. Ibarretako herri izenen laburdurak / marraz bereiziko dira, honela, Arbe-roako (Hel, Arm, Meh) herrien ondotik parentesiaren barrenean / emanen dugu Amiküzeko herriak datozela adierazteko eta Zuberoako lehen herri Domin-txaineko datuak ematean ere, Zuberoan garelara adierazten duen / agertuko da adibideen zerrendetan; eman dezagun:

(Arm, Meh / Barta, Ora, Amo, Behau, Ilh, Lük, Sor, Arbe / Dom, Olh, Sarkp, Oih, Pag, Urd)

Oztibarreko adibideak Zuberoakoen ondotik agertuko dira.

d) Hots berezien transliterazioa

Sony etxearen *mini-disk* sisteman grabatu diren bandak digitalizatu ditugu *wav* bilakaturik eta elkarrizketak *audacity* egitarauaren bidez entzun ordenagailuan.² Transkribatzean beti izaten dira hots batzuk besteek baino lan haboroxeago ematen dutenak, argi entzuten ez direlako edo ahoskera ahulekoak direlako; ahul entzuten dugun hotsa goitixeago eman dugu: *alaba* ^re, *ba*^zo^at^zün, *bitu*^u, *esnia*^akilan, *he*^endako ^bezala, *ho*^sei, *ho*^ri, *ikhasia* ^baitute, *izi*^sarri, *noa*^t joan, *ogia*^an saria^an, *O*^harren, *untsa* ^sinten, *xut* ^tzun...

Bi hotsen arteko *continuum*-aren erdibidean entzuten direnetan ikertzaileak zirt edo zart idazkera bat eman behar die eta guk liburu honetarako nola jokatu dugun eta zein zeinu baliatu dugun aurkezten dugu orain; funtsean *EHHA* euskal hizkuntza-atlaseko zeinu berak darabiltzagu:

ą: “a” eta “e” arteko hotsa

ę: “e” eta “i” arteko hotsa

2 Berebiziko laguntza eman digute honetan UPV-EHUko Gasteizko Letren Fakultateko Aitor Mendibil eta David Alonso soinu-teknikariak eta Ander Egurtzegi fonetikariak. Bihoakie hirurei gure esker ona.

o: “o” eta “u” arteko hotsa

œ: “e” eta “o” arteko hotsa, maileguetan ageri den frantses fonema

ü: “u” palatala, “u” hetsia, “u” eta “i” arteko fonema

bokal sudurkariak eman ditugu: *ã, ã̃, ï, õ, ü; ü* sudurkaria [j̃] adierazi dugu

[ʒ]: Zuberoako ohiko /j/, txistukari igurzkari sabaiaurreko ozen edo ahostuna

[ʒ]: zenbait hitzen barrenean gertatzen da, txistukari igurzkari apikari ahostuna da

[z]: txistukari igurzkari lepokari ahostuna; ondotik bokalez hasten den hitza duen *ez* hitzaren sandhietan aise entzun daiteke eta maileguetan ere bai; Amiküzén bada sandhietako ahostuntze hori, baina Zuberoan areago gertatzen da

j: Baxenabarreko [y] arrunta, hots sabaikari herskaria; honen aldaera goxoagoa, hersketarik ez duena, *i* transkribatu dugu; eman dezagun, Arberoko Mehainen entzun *ioaiten* ‘joaiten’

R: dardarkari ubularea, frantsesaren eite duena, bereziki hiztun gazteetan ageri da, Hego Euskal Herrian ez bezalakoa

Berezia eta aipagarria da “h” edo hasperenaren gaia; alde ederra dago 1986ko garaian Ipar Euskal Herrian entzuten genuen eta orain entzuten dugun hasperenaren indarraren artean. Arestian adierazi bezala, erdizka entzuten ditugun *h*-ak íganago kokatu ditugu: errate batera, ^h*orgo* dakargu Labetzen

Beste batzuetan “ph”, “th”, “kh” herskari hasperenduak dira garden sumatzen ez ditugunak, ez dago argi kontsonantean hasperenik baden ala ez den; gure belarrian hasperen kutsua ukan dezaketenetan *p^h, t^h, k^h* idatzi dugu eta gardenak direnetan “ph”, “th”, “kh”

1. Dialektologia: hizkuntzaren aldakortasuna espazioan, gizartean eta historian

1.1. Dialektologialariaren xedea

Dialektologiaren helburua, historian zehar eta espazioan gaindi gertatu diren aldaketak aztertzea da, hizkuntza komunaren desberdintze historiko-geografikoa ezagutzea; hartara, hizkuntzak harrapatzen duen geografia-eremuaren barrenean gertatu diren berrikuntzen abiaguneak eta berriztatze horien garaiak aurkitzera jo beharko du. Hizkuntza-geografiaren helburu nagusietarik bat, hizkuntza-aldaketa alderdi geografikoan non eta noiz ageri den deskribatzea da, geolinguistika jardun hermeneutikoa da. Baina aldaketa horiek nola gertatu diren azaltzea ere desiragarri da: hizkuntza-aldaketek hizkuntzaren beraren barreneko eragileak izan ohi dituzte, errate batera, fonikoak, morfosintaktikoak edo lexiko-semantikoak, baina baita kanpo eragileak ere, gizartearekin lotura duten hainbat eta hainbat.

Hizkuntzan sumatzen diren azpisistema geografikoak aurkitu nahi ditu dialektologialariak, dialektoen arteko erlazioaren izaera eta nolakotasuna aztertu, mintzoen arteko harremanak zenbaterainokoak diren argitu gogo du. Hizkuntzaren egiturari dagozkion azpisistema hauek geografian kokaturik daudenez, mintzoen mugak edo muga dialektal zenbait finkatu beharrean gertatuko da ikertzailea, kasu guztietan muga dialektal geografiko batzuen eta besteen izaera era berekoa ez izanik ere. Orobat, dialektoen artean dagoen berdintasunaren eta desberdintasunaren maila neurtzera edo kuantifikatzera ere jo ohi du dialektologialariak, bereziki dialektometria egitean.

Hizkuntzaren aldakortasunaz arduratzen da ikertzailea eta dialektoek geografian edo gizartearen gaindi ageri duten hedadura aztertzen du, dialektoek duten motibazio historiko, politiko, ekonomiko eta kulturala aurkitu nahi ditu. Horrez gainera, historia aztertzean, dialektoa osatzen duten ezaugarri linguistiko zahar eta berrien alderdi kronologikoa sakon ezagutzea komeni zaio, hizkuntza-aldaketak garai eta leku desberdinetan gertatzen baitira. Badakigu aldaketa horien ondorioa diren berrikuntzak lekuz alda daitezkeela eta ezaugarri horien hedaduran hiztunek eragin handia dutela: hizkuntza-berrikuntzak ez lirateke lekuz aldatuko jokaleku geografiko-historikoan hauen eramaile diren hiztunik ez balego batetik bestera higitzen, hizkuntza-ezaugarri usu berri batzuek zaharragoko beste batzuek baino gizarte-onespen gehiago ez balute.

Mintzoen ezaugarriak biltzea, antolatzea, deskribatzea, elkarren artean alderatzea eta jardun horien ondorioz, dialektoak bereiztea eta sailkatzea ere bada dialektologiaren helburua, baina dialektoak elkarrengandik banatzea eta batzuk besteekin multzokatzea lan korapilatsua da; dialektoak sailkatzea ez da joko inoza:

- Dialektologiaren jarduna bilakabide historikoen eremura inguratzen da: azterketan gaindi hizkuntza-aldaketez erabakiak hartzean, baliatuko diren ezaugarrien izaera kronologikoa aintzat hartzea komeni da
- Belaunaldien arteko hizkuntza-aldaketen menpe daude dialektoak: hiztun zahar eta gazteen aldaerak beti ez datoz bat; Pagolako mintzoak jardutean ikusiko dugu hau
- Kanpotik etorritako hizkuntzen eraginaren menpe nahiz ondoko beste hizkuntza batzuen eraginaren menpe daude hizkuntzak eta dialektoak
- Ondoko dialektoaren eragina jasaten dute mintzoek eta dialektoek
- Gizarte-bilakabideek beren isla dute hizkuntza naturaletan, zeinak ez baitaude eragile geografikoen menpe soilik; gizarteko klaseen menpe ere badaude dialektoak, prestigio soziala duten ezaugarriak ditugu hizkuntzan eta mintzatze ekintza zenbaitetan horiexek hautatu ohi dira usu
- Eredu estandar nagusiaren edo eredu idatziaren ohituren menpe daude dialektoak, adbergentzia erlazioan

Dialektologialariak bere buruari egin beharko liokeen hainbat galderak hizkuntzaren eta dialektoen historiarekin lotura hertsia du; jakin nahiko luke, eman dezagun, nola hedatu den hizkuntza-tasun bat espazioan gaindi:

- Egungo dialektoek zenbateraino jarraitzen dituzte Erdi Arokoak?
- Egungo banaketa dialektalek eta antzinako zatiketa historikoez zein paralelotasun dute? Mugak bat ote datoz?
- Behaztopa naturalek eta gizakiak eraiki eta ondotik baliatu dituen komunikabideek zein neurritan baldintzatzen dute dialektoen sorrera?

Ikuspegi sinkronikoagotik ere egin daitezke galderak:

- Zein propietate edo tasun estrukturalek bereizten dute dialekto bat beste batetik? Nola antolatzen ditu hizkuntzalariak ezaugarrien konbinazio hauek? Eta nola bereizten ditu dialekto edo konbinazio hauek bata bestetik?
- Gertatzen den eremu zatiketari, zein dira eremu baten eta beraren barrenean sisteman ageri diren hizkuntza-ezaugarriak?

Azpisistema geografikoez mintza gaitzke, eskualdeen arabera aldakorrek diren hizkuntza-ezaugarrien sistemak daudelako; hizkuntza errealean alderdi geolinguistiko bakoitzean ezaugarrien konbinazio jakin bat baliatzen dute hiztunek, inkestaren bidez aleka biltzen dena eta mapa dialektaletara eramaten dena: tasun edo ezaugarri linguistiko horien presentzia, absentsia edo bestelako aukerak dira mapetan grafikoki aurkez ditzakegunak. Hizkuntza-aldaketaren ondorio diren berrikuntzak, bestalde, mapetan ikusi nahi izaten ditugu, eta hauexen itxurak eta hedadurak erakusten ahal digu eskualde lektal baten dinamika zein eratakoa den egun edo historian zein izan den.

Hizkuntzaren zatiketa geografikoaz landa, dialektologia egitean hizkuntzaren batasuna eta osotasuna ere ongi azaldu eta deskribatu behar dira. Dialekto bateko edo mintzo-erkidego bateko hitzunek beren mintzoa elkarri egokitzen diote; berebat, gure ondoko hitzun arruntek urrunxeagokoekin elkar ulertzeko, komunikazioaren mesederako diren jarrerak baliatzen dituzte usu: gizakiak mintzatzeko duen gaitasunaren alderditik ikusirik, guztiz interesgarri da aztertzea elkar ulertzeko baliatzen ditugun estrategiek gizakien eta gizataldeen mintzoak eta dialektoak nola itxuratzen dituzten. Gertakari hau gardentasun handiz agertuko zaigu Zuberoako mugako euskal hitzunen mintzoa aztertzean.

1.2. Gizartearen espazioa

Dialektologialariari hamaika buruhauste eraginez, ongi zehazten, kokatzen eta finkatzen ez diren dialektoen errealitatearen pean, espazioaren izaera dinamiko eta biziberritzailea ikusten eta beraren arau eraikitzaileak aurkitzen asmatu behar dugu: espazioaren sorrera eta bilakabidea gizartearen baitan dauden gakoan arabera ulertu behar dira, espazioa ez da berez eta betiko finkaturik edo zehazturik dagoen zerbait, beti dago garapen eta bilakabide egoeran.

Geografiaren eta dialektologiaren arteko harremana emeki-emeki aldatuz joan da; izan ere, interesgunea lehenik geografia fisikoan zetzan, baina XX. mendeko ikuspegi berriek galdera nagusiak giza-geografiaren alorrera bideratu dituzte. Hizkuntzarentzat benetako behaztopa direnak ez dira batasun geologikoen eta topografikoen hausturak, batasun ekonomikoaren haustura eta giza-geografiaren hainbat fenomenoren hausturak baizik (Veiga, Vilasó & González 2006: 310).

Anthony Giddens-ek dioen legez, leku jakin bat ez da espazioko puntu bat soilik, gizarte-elkarrekintza jakin batzuen kokagunea ere bada (Gregory & Urry 1985: 7). Ez dago bilakabide espazial hutsik, espazioan gertatzen diren gizarte-bilakabide jakinak daude. Dialektologia aztertzean espazioaz ari bagara, ez dihardugu geometriak eta orografiak eragin duten azalera edo eremu meka-

niko hutsaz; gizarte-erlazioen eta espazio-egituren arteko loturak dira ikerketa zientifikoaren giltza: jende taldeek edo gizarteak ekoizten duten espazioa da dialektologialariaren ardura, gizataldeen elkarrekiko jardunetik sortzen den errutinizazioa.

Errutinizazioaren ideia garrantzizkoa da hizkuntzalaritzan ere: gizarteko sare tinkoek bezala, errutinak ere sistema babesten du, gizarte-sistema baten barreneko arauak errutinen bidez berrindartzen dira. Hizkuntzara etorririk, norbanako batek edo gizatalde jakin batek darabilen mintzoaren berrizaletasunean edo gordetze-mailan, errutinizazioak eragiten du. Errutinen eta gizarteko sareen geografiak ikertzen baldin baditugu, ikusiko dugu espazialitateak —zentzu fisiko, sozial eta oharmenezkoan— eremu funtzionalak eraikitzen laguntzen duela, jarduera-erkidegoak eraikitzen dituela (Britain 2004: 612).

Hizkuntza eta gizartea elkarreraginean aztertzekotan, gizarte-prestigioa mintzo geografiko jakin batekin identifikatzea, batetik, eta erkidego baten barrenean sektore batek behintzat ondoko mintzoa pasiboki bederen ezagutzea, bestetik, hizkuntza-aldaketaren eragile oinarri-oinarrikoak dira: bi kasuetan espazioa funtsezko osagaia da (Bynon 1981 [1977]: 273).

Jendeen eta gizataldeen arteko elkarrekintzen maila eta maiztasuna, espazioan gandi neur daitezkeen gauzak dira. *Interaction Potential Index* edo IPI delako neurbidea, norbanakoen, herrixken edo hirien kasuan erabil daiteke: gauza ezaguna da, hizkuntza-berrikuntza gehien biltzen eta erabiltzen duen jendea, bere bizigunetik kanpo harreman gehien duena edo arrotzekin jarduteko ohitura duena dela.

Leonard Bloomfield hizkuntzalariak zioen bezala, mintzo-erkidego baten barreneko komunikazio-maiztasunaren desberdintasunak ez dira norberaren araberakoak bakarrik: erkidegoa bera azpitaldeen sistema batzuetan banaturik dago. Errate batera, azpitalde jakin bateko pertsonak, anitzez gehiago mintzaten dira bigarren azpitalde jakin bateko pertsonekin, beste hirugarren azpitalde jakin bateko pertsonak baino (Moulton 1987: 140). Ezaugarri hau hala geografikoak nola gizartekoak diren parametroei egokitzen zaie. Gertakariok Zuberoako eta ondoko eskualdeetako hiztunen mintzoan islaturik ikusiko ditugu lan honen ondoko ataletan.

1.3. Hizkuntzaren aldakortasuna

Soziolinguistikak hizkuntzalaritzaren saihetsetik erdigunera ekarri zuen hizkuntzaren baitako aldakortasuna eta honela, salbuespentzat hartua izatetik arautzat hartua izatera iragan da, hala gizataldearen barreneko nola norbanakoaren baitako hizkuntza-aldakortasuna. Hizkuntzaren baitako aniztasuna eta

desberdintasuna ez da dialektoen, eskualdeen edo hiztunen artekoa bakarrik, lagun batek berak ere badu halako aldakortasuna bere baitan: duen gaitasun komunikatiboaren arabera, hiztun batek berak usu aldaera bat baino gehiago erabili ohi du eduki jakin bat adierazteko. Uriel Weinreich, William Labov eta Marvin Irving Herzog-en 1968ko artikulua klasikoan aipatuenez geroztik, hizkuntzaren baitako heterogeneotasuna egituraturik dagoela dioen uste edo ideia soziolinguistikaren ohiko aldarrikapena bilakatu da: aldakortasun hori ez da zorizkoa edo ustekabekoa (J. Milroy 1995: 435).

Aurrez aurre gaudenean gizakiok elkarri eragiteko eta elkar kutsatzeko dugun gaitasuna, giza izatearen eta jokabidearen ezaugarria da. Gizakiok motibaturik gaude gure mintzamodua elkarri egokitzeko, giza-baloreetan, jarreretan edo asmoetan elkarrenganako halako hurbilpena adierazteko edo elkarri eragina sortzeko. Gauzatu den edo gauzatzen ari den hizkuntza-aldaketa bat hiztun batek baliatzeko arrazoia, hein batez honakoa da: hiztun horren ondoko edo auzoko kideak, gero eta gehiago berrikuntza hori baliatuz mintzatzen dira, ondoko laguna ere kutsatzeraino, eta honela, hizkuntza-aldaketaren baldintzak eta ondorioak elkar elikatzen dute, mintzoaren baitako aldaketak espazioan eta gizartean gaindi hedatzen dira.

Aldaketaren hedadura, aukera edo probabilitate batzuetan oinarritu daiteke: hiztun bat hizkuntza-aldaketa baten aitzinean franko alditan gertatzen baldin bada, hiztun horrek erabilera berria baliatzeko dituen baldintzen edo murrizketen *ranking* edo maila, *input* datu horien izaerara hein batez doituko da, eta *rankinga* gero eta gehiago doitzen baldin bada, hiztunak forma aldatu berri hori aldi gehiagotan baliatuko du: geografia-hedaduraren eragileek eta ondorioek elkar elikatzen dute. Inolaz ere, Howard Giles-en “egokitzapenaren teoria” zuzena da.

Giles-en “egokitzapenaren teoria” eta Robert B. Le Page-ren “identitate bidezko hizkuntza-ekintza”-ren ideia sintetizatuz gero, eta bestalde, hizkuntza-gertakaria norbanakoaren alderditik gizataldearen edo erkidegoaren alderdira eramaten baldin badugu, denbora luzeko egokitzapen prozesuaren ondorio makrosoziolinguistikoko garden bat aterako zaigu: hizkuntza-ezaugarriak dialekto batetik bestera hedatzen dira (Harris 1988: 229).

Eragile foniko, morfosintaktiko eta lexiko-semantikoek, denbora iragan izanak, gizarte-bilakabideek, belaunaldien arteko aldaketek, hizkuntza arrotzetako maileguen eraginak, hizkuntza-aldaketa prestigiodun edo jantziek, ondoko dialektoek, sistema estandarrekiko adbergentzia-erlazioak... hizkuntzan aldakortasuna sortzen dutela erran dugu; eragina beti ez da ezarri dugun hurrenkera honetan berean gertatzen, ezta beti maila berean ere, baina hein batean edo bestean izanik ere, hiztunen mintzoan aldakortasun maila bat ageri zaigu beti, hiztun oren hizkuntza-gaitasunaren atal osagarria da aldakorta-

suna. Errate batera, Basabürüko belaunaldien artean aldaketak sumatu zituen Peillenek (1984: 250): belaunaldi zaharrak Nor Nori Nork aditz saileko *deiot* ‘diot’, *deiozü* ‘diozu’ sistema zerabilen, ondokoak *diot* & *diozü* eta gazteenek *dot* & *dozü*.

Egun idiolekto indibidual homogeneoaren ideia ez da emankorra eta ikertzaileak hizkuntza-transferentziaren mekanismo ulergarriago bat deskribatu behar du; bi-idiolektalismoaren ezaugarri sinkronikoak proposatu behar ditu eta jarduera honen premia anitzez handiagoa da bi dialektoren ukipena gertatzen den eskualdean.

Zuberoako mugan guk herri berean bi edo hiru forma entzun izan ditugu: Pagolan gizon batengandik *eitasüna* ‘eritasuna’, *goatasüna* ‘goratasuna’ eta *xehetarsunak* hitzak entzun ditugu eta haren emazteak, berriz, *eitarzüna* ‘eritasuna’ ahoskatu du, senarra eta gu mintzakide ginela; senar-emazteak sortzez pagolarrak dira eta herri honexetan bizi dira. Senarrak dioskunez, Pagolan *gaua* eta *gäia*, bi aldaerak erratea gauza arrunta bide da, *au* eta *ai* diptongo palatalizatu, biak entzuten bide dira herrian.

Idiolekto batek darabiltzan ezaugarrien azterketa deskriptiboan, elkarren ondoan ala elkargainka dauden sistemak ageri zaizkigu. Hizkuntza-bilakabide edo hizkuntza-aldaera baten transferentzia, berrikuntza bat kopiatu eta iragatea, hiztun / mintzo / dialekto / diasistema / hizkuntza batetik beste batera gertatzen da: dialektoak etengabe elkarri eragiten ari dira (Bárczi 1963: 149). Claude Hagège-k zioen bezala, aldakortasun dialektala erregela da, homogeneousun dialektala, berriz, salbuespena. Dialektoaren ikuspegi homogeneoa, dialektoak aldatzen ez direlako ideia usu kritikatu ukan dute hango eta hemengo dialekto-logialariek.

Amiküze eta Zuberoako ipar-mendebala den eskualde ez guztiz handian, geografikoki aitzinatuz goazen ber, aldaketak hautematen dira mintzoan, “ezkondu” hitzaren ahoskeran gertatzen denez: *ezkondu* (Ora, Ost, Uha, Zoho), *ezkondü* (Mar), *ezkõndu* (Ora), *ezkundu* (Ora, Zoho), *ezkundü* (Behau, Mar), *ezkündü* (Lab, Olh), *ezkonthü* (Mar), *ezkontü* (Oih), *ezkunt eta* (Zoho), *ezkhiüntü* (Sarkp, Oih, Pag); baita, nahi izanez gero, *ezkuntza* izena ere (Behau, Altzü, Arrü, Ilh)...

Baina *u* → *ü* arauaren aferak ez du batere matematikak ukan ohi duen itxura zehatz hori; Sorhapürü Zuberoako muga-mugan dagoen herria dugu, Lohitzüne berehala duena, hiru muturreko kanpandorrea duelarik, gainera. Herri honetako gure lekukoak badarabil *ü* fonema, baina partizipioko *-tu* atzizkian ez darabil *ü* Zuberoan bezainbateko erregularitasunez. Zuberoatik urrun den Arrüetan, ordea, *-tu* morfema palatalizatzen da, horregatik, pentsa liteke Zuberoarekiko hurbilta-

sunak baino areago, gizarte kaskoinaren hurbiltasunak eragin duela Amiküzen *u* bokalaren palatalizazioa, Amiküze ibarrean iparrean ala hegorago kokaturik egoteak, baina hartara, ez da ulertzen Oragarreko Barta auzoan nolaz ez den *ü* ahoskatzen, orain bederen ondo-ondoan baitituzte bartarrek kaskoinak. Barta auzo berria izateak azal lezake *ü*-rik eza, iparreko Amiküzen berrikuntza gertatu zen garaian Bartan jenderik ez bizitzeak. Hona Bartaz diharduela Itxaro Borda idazle oragartarrak zer dioen (2011b):

Bartak, ihi eta urmel gunek apalak ziren. XIX. mendean Landetarik zein Biarnotik beharginak etorrarazi zituzten lurrak uren menetik askatu eta laborantzarako baliatzeko. Horko biztanleek luzaz okzitaniera zeukaten ezpainen oragartarrak euskaradunak ziren bitartean. Aitor dezagula herriko euskararen harilkatzea salbaia dela: Zuberoako *ü* hura daukate batzuek eleetan, besteek Nafarroako hitzen musika eta azkenek Lapurdikoaren soina ezpainenetan. Hemen aditza irensten da, auzoko biarnesaren itzala sumatzen eta hika arraiki mintzatzen. Erabilpena ahulduz doan arren, aditzen dira hala ere bereziki Donapaleu edo Arberuako ikastoletan dabiltzan haur hotsak euskaraz. Bartetan adinekoek gaskoia trabukatzen dute oraindik. Azken muga honetan hargatik hizkuntza nagusia frantsesa bihurtua da.

Aldakortasunaren adibide nabarmena da hedadura lexikoarena ere; eman dezagun, Olhaibin ikusten denaren arabera, *i - ü* → *ü - ü* araua emankorra da, baina ez guztiz, hitz batzuetan gertatzen da baina beste batzuetan ez; so egin diezaiogun eskemari:

Zuberoan asimilazioa ageri duten honako adibideetan Olhaibin ez da gertatzen:

idüikatzen ‘zain’, *ingüatzen*, *itzüiltzeko*

Aldiz, Baxenabarren ohiz gertatzen ez den adibideotan ageri da:

lübüriak, *üngürü*, *xerbüttxatzen*

eta bada ohikoagoa den *bülüzaazten* ‘biluzarazten’ aldaera ere; non ez Olhaibiko datu hauek ezagutu, ezein arauk ez liezaguke adieraz herrian zein hitzetan ageri den asimilazioa eta zeinetan ez, iduri luke ezarpena ez duela arauak gobernatu, zorizkoa dirudien halako hedadura lexiko batek baizik

Dialekto bakartuen azterketatik aspaldi jo zen elkarren ukipenean dauden dialektoen ikerketara eta honela, hizkuntzaren aldakortasuna jakintzagaiaren erdigunean kokatu da: “ezaugarrien hedadura”, “mintzoen arteko egokitzapena”, “dialektoen arteko nahasketa” erako gertakariak aztertzeko ereduak eraiki dira; har gogoan 1986ko Peter Trudgill-en *Dialects in contact* liburua.

Dialektologialariari etengabe ihes egiten dion aldakortasun multiforme eta ia mugagabe horrek, ordea, koherentzia sakona du kontzientzia kolektiboan, iltzaturik dago gizatalde batek bizi izan duen historian; hartara, soziolinguistikaren ikuspegi zabalak ikertzailearen jarduna aberasten du eta dialektologiaren irispidea haratago eramaten; izan ere, espaziala, historikoa, soziala eta kulturala baita dialektologiaren xedea eta jakintzagai anitzen artean kokaturik dago.

Dialektologialariak erne ibili behar du eta ohartu, hiztunaren ahotik jalgitzen diren aldaera guztiak ez direla beharbada haren eskualdekoak, izan ere, hizkuntza jantziari dagozkion atalak balia ditzake inoizka zeinahi hiztunek, batez ere idatzizko mintzoarekin, hedabideetakoarekin edo Elizakoarekin hartu-eman zuzena duenean. Bilobak ikastolan dituzten adinetako euskaldun batzuek hezkuntzak hedarazi forma berriak ezagutzen dituzte egun Amiküzten eta beraz, aukera dute inoiz horiek baliatzeko, zinez Amiküzeko tradizioan ondu direnak baliatu beharrean, edo are batzuk eta besteak nahasiz ere. Ikertzaileak erne egon behar du egoera horretan garbi ikusteko zer den bertakoa eta zer ez. Sorhapürüko hiztunak Elizaren edo mezako liburuen bidez Lapurditik sartua dirudien datibo pluraleko *-eri* baliatu du behin: *pre[ž]uner zieneri*, elkarrizketa guztiko *-eri* alomorfo bakarra, Lapurdiko oihartzuna dakarkiguna, baina *-er* eman ditu beste guzti-guztiak. Amiküztarrek arras maite dute Lapurdiko euskara, Baionako apezpikutegiaren meneko Elizaren bidez igandeetan entzun dezakete.

Eta erdarak nahasi duen euskararen kutsua ere badu Amiküzeko mintzoak hiztun batzuentzat, hor gaindi anitzen artean dabilen uste hedatua da. Zohaztiko lekukoak dioskunez, mintzatzean idiak orgaren aitzinean ezartzen omen dituzte berek, ez omen dute Zuberoako eta Lapurdiko mintzoek duten sendotasun hori, halako iritzi ezkorra agertu du Zohaztiko berezko bere mintzoaz. Ez da iritzi bakartua hau, hor barrena hedaturik dabilena baizik; cf. 7.1.3. § ere gai honetaz.

2. Amiküze eskualdea: giza-geografia eta historia

2.1. Historiaren jakintzagaia

Erran ukan da historiaren lege bakarra aldaketarena dela; izan ere, ez dago historia geldirik, baina aldaketa bera ere ez da historia, aldaketa adierazgarrien azterketari erraten diogu historia. Gainera, Jacques Le Goff-ek dioen bezala, orain badakigu iragana hein batez orainaren meneko dela. Iraganari orainetik so egiten zaio eta ondorioz historia oro garaikidea da, orainaren interesen menekoa (1991 [1977]: 52), gertatu zen hura gertatu zen unearen arabera azaldu behar bada ere. Bestalde, historiaren azalpenak demostrazioa baino gehiago ebaluazioa dira, historialariaren iritzia era arrazionalan dakarkigutenak, baina azalpenaren prozesu intelektualaren baitan kokaturik daude (42).

Gertakari indibidualizatuak historiaren intereseko dira, zeinetarik bat bera ere ez baita beste baten alferrikako errepikapena, eta halarik ere, egia da ez dela gertakariaren indibidualtasuna interesgarri dena: gertakaria ulerturik, haren baitan orokortasun bat aurkitu nahi du historiak (40-1).

Historialariaren eginkizun premiazkoena datatzea da eta hala izaten jarraituko ere du, baina beste manipulazio bat ere baitezpadakoa du: iraupenarena. Historikoki iraupena ulergarri egiteko periodizazioa landu beharko du historialariak (48), baina gu hizkuntzalariak gara eta horregatik, Amiküzeko gertakari historikoen berri erarik soil eta xumeenean dakargu, historialari batzuen lanak irakurri eta hona laburturik.

2.2. Aitoren semeen araberako berri zaharrak

Jaun militarrek gerretan erdietsi garaipenen, errege-erreginek bideratu zituzten ezkontzen, seme-alaba bati ala besteari ondarez eman zizkioten jaurren eta hartu zituzten erabakien arabera, edota iraganeko aitoren semeen ibileren eta zenbait jauntxok inguruneko abeltzainen edo laborarien lurrez jabetzeko eraiki amarruen arabera gorpuztu dira lurraldeen geografia eta hedadura, haien etorkizuna eta eraketa. Berebat, herriko jende xehearen erabakien eta ahalaren arabera bideratu dira gero administrazio-erak nahiz hautu politikoak. Amiküze eskualdea ez da honetan salbuespena izan, ezta inoizko erlijio eta fede gaietan ere.

Erdi Aroko Donejakue bidea Amiküzen gaindi iragaten zen, izan ere Donapaleuko Xibaltarre auzoan biltzen dira bidearen hiru adar, baina horra heldu gabe, Agaramont eskualdean, Sorde → Ordios → Garrüze ibilbidean, Erango eta Erreitiko aterpeak aipa daitezke. 984. urtean San Nikolas kapera eraiki zen Haranbeltzen eta bertatik urrun ez den beste bat ere bada Donejakue bidean, Zoihartzeko kapera, mendixka baten gainean; fedezko gizarte-fenomeno haren lekuko ditugu biak. Gerora, 1523an, Baiona eta Akizeko apezpikuei bezala, Haranbeltzeko prioreari leku bat zegokion Nafarroako Estatu Nagusietan, Baxenabarreko diru aferak, politika eta erakundeak kudeatzeko.

Erdi Aroan X-XII mendeen artean Gaskoiniako konderrria berrantolatatu zen eta Akizeko, Oloroeko eta Bearnoko bizkonderrriak eratu ziren (Normand: 1992: 54). XIII. menderako Nafarroako Erresumako aitoren semeen bi talde nagusien ordezkariak ditugu Amiküzen: alderdi batetik Agaramonteko jauna, hasieran gaztelua Erreiti herrian zeukana, Mulari izeneko muinoan (Baratchart 1992: 160), nahiz leinu honek gerora Bidaxuneko gaztelura jo zuen. Bestetik, beaumontarren alderdiko Lüküzeko jauna dugu.

Baziren aitoren seme indartsu haboro Erdi Aroan Amiküze eskualdean: Eskosen, Burguen eta Sorhapürün. Aitoren seme haiek menpekotasunaren edo odolaren alderditik aspaldiagoko Akizeko bizkondearekiko lotura atxikitzen zuten, baina bizkonderrri hari Tartasko bizkondeak eman zion etorkizun eta jarraipena. XIII. mendetik harat orduko Tartasko bizkondea Nafarroako Erresumari atxiki zitzaion. Amiküzeko *Coutume* edo, nolazpait erran, foruen bilduma 1316an berriztatu zuen Amanieu d'Albret *seigneur de Labrit, vicomte de Tartas et seigneur naturel de Mixe et d'Ostabares* izenekoak. Helburua ohikoa zen: jende onuratsu mota guztiak —izan zitezen alderdi honetan sortuak edota kanpotik jinak— eskualdean bakean, gizalegean eta lasai bizi ahal izatea, jaun zuzen baten lurraldean izan behar duen bezala (Orpustan 1992b: 74).

XVI. mendearen hasierako gerran Gaztelak Nafarroako Erresuma konkistatu zuelarik, Nafarroako erregeari leialak izan zitzaizkion agaramontarrak Bidaxuneko gazteluaren barrenean erre zituzten gaztelarrek eta hiru eguneko borrokan eraikuntza suntsitu zuten. Gerora Frantziako erregeak Bidaxuneko jaunaren ahala onetsi zuen, baina XVIII. mendearen bukaerako Iraultzaren garaian, militarren erietxetako baliatu ondotik, Bidaxuneko gazteluaerrerik gertatu zen: 1794/II/22ko gauean hain zuzen ere (Bruneau 1992: 96). Egundainokoan zutik diraute gaztelu eta jauregi zaharraren hondakinek, ikusgarri, eder, bihotz-altxagarri ere, beharbada. Gazteluak iraganean zukeen lurraldearen erdi-erditik iragaten da amiküzitarrendako hain merkatu garrantzizkoa ukan duen Peirehorade/Peirahorada herrira doan errepidea.

Ondotik, XVI. mendeko erlijio gerretan Albretarrak kalbinismora bihurtu izanak Nafarroa Garaiaren eta Baxenabarreraren arteko etena areagotu zuen. Agaramonteko jauna higanoten aldezele izan zen, baina Lüküzeko jaunak katolikoen alde jo zuen. Bearnon nagusi zen eragin protestantean murgildurik zegoen Agaramonteko jauna, Garrüzeko jaun Larrea bezala: biak Joana Albretekoaren alde agertu ziren, gainerateko baxenabartarrak ez bezala. Akizeko bizkonderriari atxikia zen Beltzuntzeko jauna ere Albretarren alde atera zen erlijio gerran; aldi hartan Mauleko gazteluaz jabeturik zegoen Lüküzeko Charles jaun katolikoa, baina Beltzuntzeko jaunak indarrez beharturik, higanoten jazarraldietarik Zaraitzura ihesi jo zuen Lüküzekoak 1587an, Otsagabira, harik eta 1593an itzuli zen arte; cf. Monteano (2010: 367). Urte baten buruan, 1594an Enekot Ezponda higanota hil zuten Donapaleuko elizan katolikoek; erlijio gerren bukaera heldurik, laster galdu zen protestanteen eragina Baxenabarren.

2.3. Espazio fisikoa

Leku zabal eta zelaia da Amiküze eskualdea, iparrerat Bearnoko gune ordoikiak dituena. Amiküzeko Arboti eta Zohota herrietarik iparrerat den eremuan bi kilometro oihan dira Okzitaniarat, jenderik bizi ez den alderdia: bitartean Lauhiraze izeneko erreka doa, Arboti-Zohotatik Erangora, 19'2 kilometro egin ondolik urak Biduzen isurtzeko. Bearnoko zelaia gotik gatzela, 200 metroak gaintzen ez dituzten muinoak aurkituko ditugu Amiküzen, baina alderdi menditsua ez da urrun, Oztibarren eta Zuberoan ikusiko ditugu mendi goragoak, lehen soakoan ageri dira Amiküzetik behatuz gero. Aro ezti eta goxoa lagun, soro berde eta alor edo elge biziki aberatsak ditu Amiküzek, bazka eta arto nahiz gari uzta ederra eman ohi dutenak, eta gainera neguan bakan egiten du elurra: aukera handia eman du laborantzan plantatzeko. Uler litekeenez, inguruko eskualde menditsuek baino sos gehiago higiarazi du, maiatzetik azaroa bitarteko garapena duen artoak bereziki, egun eguzkitsuak eta haize hegoa lagun.

Amiküzeko iparrean eta ekialdean agertuko zaigu artoa nagusi, eskualdeko hegoaldean ardi esnari ari dira gehiago abeltzainak; handixkoa da bertan abereak bazkatzeko behar den belarraren premia, Baxenabarre gehienez bezala, baina badira esnetik nahiz artotik ausarki duten herri eta etxaldeak Amiküzen. Hartara, bikoiztasun honek eta hein batez trantsizioak definitzen dute Amiküze eskualdea (Viers 1992: 27): orografian, hidrografian, lur langintzan, laneko irabazien banaketan, kulturen eta hizkuntzan; euskara eta kaskoia ondoan, jendeen deiturak barne. Dialektoan edo mintzoan ere trantsizioa dago: Baxenabarreko eskuara eta Xiberoakoa elkarrengana biltzen dira alderdi honetan.

Etxalde ederrak ageri dira ibarrean: aspaldian jaun aberats ugari izan da lurralde honetan, Amiküzeko bazterretan ikus daitezkeen jauregiak ditugu lekuko, batzuk urraturik badaude ere. Errate batera, Ithorrotzera inguratzean ohartzen gara herria pribatua dela, galarazirik dagoela bertara sartzea, ez dela beste edozein herri bezalakoa, ondarez bildu duen edo erosi ahal izan duen jaun ahaltsu zenbaitena dela pentsatzen du bertara lehen aldiz heltzen denak.

Jaun aberatsok lur sail handien eta etxe ugariaren jabe ziren: laborari ugari zeuden haien lurretan etxetiar edo etxezain, erdizka lanean, Aturri ur handiaren iparreko eskualdeetan nagusi izan den jarduera mota berean; biltzen zen mozkinaren zati handi bat nagusiari eman behar zitzaion gero. Liburu hau ontzeko datu biltzen erauntsi dugun artean adinetako lekuko amikütarrak ezagutu ditugu; ñabardura anitz eman digute ondasun edo mozkin batzuen eta besteen banaketa nola, noiz eta zenbana egiten zen.

Bada hedadura handiko oihanik ere Amiküzen —eskualdean *oihen* aldaera fonikoa ibiltzen da gehienik— eta aberastasun iturri bilakatu dira historikoki: haritza, pagoa eta gaztaina ageri zaizkigu bazterretan. Hariztien garrantziari erantsi behar zaizkio amikütarren elikadurarako baitezpadako ziren zerri edo urdeek guztiena den basoan jaten zituzten ezkurak. Oihanik handiena ibarraren ipar-mendebalean dago, Amiküzeko oihana deitzen dena, Arrüeta eta Oragarre artean hedatzen da eta Bidaxuneko muga ukitzen du. Ibarreko herriak dira elkartasunean oihan handi honen jabe, baina haren ustiaketak ohiko eztabaidak eragin ditu: errate batera, Bidaxune herriak basoaren zati bat bereganatu zuen 1819an eta egun 207 hektarea kudeatzen ditu; Amiküzeko sindikatuak, berriz, 543.

Frantziako Iraultzaren ondotik, Donapaleuko kantonamenduko hogeita hamabi *commune*-ak Amiküzeko basoaren jabe eta arduradun izan dira eta kudeatu behar ukan dute. Amiküzerenak diren herri-oihanen berri hainbat txostenetan xeheki ematen da; 1831ko berri dakar Pierre Hourmat-ek eta Oragarre, Arrüeta, Sarrikota, Ilharre, Burgue, Bithiriña eta Uharteko basoak aipatzen ditu (1992a: 186-7). Amiküzeko oihan batzuk norenak izan ziren, nola kudeatu ziren, urteko zein sasoitari ustiatu ziren edo zein baldintzatan egin zen Clément Urrutibehetyk aurkeztu zuen (1992a).

Aurkez ditzagun orain eskualdearen berri ematen diguten bi mapa.


Liburuan usu errepikatuko dira Amiküzek ondoko eskualdeetan dituen ibarren izenak; horien guztien muga geografikoak zein diren garbi ager dadin, lehen mapa honetan erakusten ditugu.

1 MAPA



Bigarren mapan eta Baxenabarren fisikoki kokaturik, kolore berdez eman dugun Amiküze ibarreko herri guztiak dakuskigu, geografikoki euskarak iparrean duen mugan; hona beraz:

2 MAPA



2.4. Ura, elkarrekintzak eta hizkuntza

Urez ongi horniturik dago Amiküze eta dituen alor edo landa zabalak ureztatzeko aukera ederra baliatu du; arberoarren dioten legez —eman dezagun, izturiztarrek— *elge* hitza ibiltzen dute amiküzitarrek ohiko ‘alorra’ izendatzeko. Donapaleu estrategikoki bi ur handien elkargunean kokaturik dago. Amiküzeko ibaian gandi ontziak ibili izan dira. Agaramontarrak Bidaxunetik Baionara itsasontziz joan zitezkeen; aspaldian, Bizkaia herrialdeko mea Baiona bitarte Amiküzeko oihaneraino ekartzen zen ibaian gandi (Bruneau 1992: 97).

Biduze ibaia Arbailatik Oztibarren gandi heldu da, Ahüzkitik ez urrun Donaixtiko gainetan sorturik: arrantza nahiz garraio aukera eskaintzen du ur alderdi zabalenetan. Bithiriñan gandi Landibarretik datorren Iholdiko erreka-

ren edo Joyeuseren urak biltzen ditu Biduzek Donapaleun, Moxahanditik heldu baitira. Ondotik Biduzek Aturri ibaira eramanez dituzte bere urak Lapurdiko Gixunen, Bardoze herriaren gainean, Bidaxunetik ezker; Biduzeko ura hartzen duen elkargunetik eskuin, ez biziki urrun, Zuberoatik eta Bearnatik datozen urak ere hartu ditu Aturrik. Borda idazleak dakarrenez, “Amikuzeko ekoizpenen atarabide bakarra, Biduze ibaian behera, Aturri eta Baiona zen. Baina agaramuntesek Bidaxunen debekatzen zieten itsasora heltzea” (2011a: 10). Eskualdearen ekonomian garrantzi betekoa izan da Biduze ibaia.

Ez horren aspaldi, Donapaleutik Bidaxunera errepidean gaindi ostegunarekin jotzen zuen jendeak, bertan itsasontzia hartu eta Baionaraino joateko (Zubialde 1992: 231). Eskualde guztian eihera edo errotak ikusgarri dira Biduze ur handiaren ertzean. Donapaleuko eiheraren irabaziak Lüküzeko jaunari zuzentzen zitzaizkion aspaldiko garaian. Donapaleutik Bidaxunen gaindi Aturri ur handia bitarte Baionaraino doan Biduzeko ura zeharkatzen duten Amiküze eskualdeko zubien konpontzeko gastuez dihardute iragan ez hain urruneko Donapaleuko erakundearen txosten ofizialek (Hourmat 1992a: 176). Bordak grafikoki erakusten digu denboraz amiküztarrek Biduzen gaindi salerosgoa nola egiten zuten, bizibidea nola jalgitzen zuten (2011a: 12-13):

Komertzioaren premia zaina zen Biduze. Gabarrez ibili zitezkeen Akamarreko Port Bidouze deitu zuzeko kaiaraino. Itsas gorarekin ontziek Baionatik gata ekartzen zuten, epizeak, manufakturatutako gauzak, burdina arotzentzat, errautsa eskopentzat. Itzultzen ziren urdekiz, haragi idor kez-tatuz, esnekiz, oihalez, abere larruz, ardo barrikotaz eta egurrez kargaturik. Ageri dira oraindik batelen leihorreratzeko egitura zaharrak...

Ur handiak, ibaiak, berarengana erakartzen ditu gizataldeak, ibai arroetara biltzen dira eskualde bateko lehen herri jendeztatuak, eta uretik urrunago dauden mendialdeetara jo ohi dute lurrik gabe gelditu direnek, jende onuragabeek, uraren pribilegiotik urrunxeago. Landa lau eta urdunak dira gizakiarendako maiteenak eta batere gabe bizi diren azken jendeentzat gelditzen dira mendietako aldapa ibairikgabeak.

Hizkuntzen, dialektoen edo mintzamoldeen eraketan garrantzi handia ukan ohi dute ibaiak, ur handiek; denbora luzean gizataldeen arteko ohiko komunikazioa eta elkarrekintza eragin dezakete eta horregatik, klasiko bilakatu dira dialektologiaren literaturan. Alemaniako Rhin edo Poloniako Vistula ibaietan gaindi edo beren adar diren ibai txikiagoetan zehar, hizkuntza-berrikuntzak hedatu dira. Galizian ere badirudi hizkuntzaren aldetik ibaiak aspalditik hizkuntza-batasuna eman dietela lurraldeei, jendeen arteko komunikazioa erraztu dute urak eta ibaiaren ondoko eremuek.

Biduze ibaiko urak garrantzi estrategikoa eduki duke historikoki Euskal Herriko ekialdean (Normand 1992: 45): hegotik iparrera bidean dator. Gogoan izan dezagun Euskal Herriko Pirinioetarik Bordeleko edo Gaskoiniako landetara neguan bazkatzera aspaldiko denboratik joan ohi direla artalde edo behi aldeak eta horiek ura behar dutela bidean egun oroz, goiz eta arrats. Edateko urik ez duen lurraldeak ez du balio udako bazkategitik negukora abereak eramateko edo higiarazteko. Aturri ur handira heldu baino lehen, Amiküze zeharkatzen duen Biduze ibaiko ura baliatu dukete, eman dezagun, erronkariar, zaraitzuar edo aetzen abereek, ala Zuberoako edo Bearnoko ibaietan gaindi ere joaten ote ziren Aturriraino? Odette Bruneauk ur handiaren arroari garrantzia ematen dio hizkuntza ibilbide eta etenak justifikatzeko (1992: 90):

Ces landes et bois, ils se nomment Lanep্লা au nord, Lauhire plus au sud, sont aussi zones de parcours privilégiées pour de nombreux troupeaux transhumant des Pyrénées vers les landes de Gascogne. Le passage régulier des bergers de la vallée d'Aspe sur une large bande bordant la rive gauche du Gave d'Oloron, a dû contribuer à l'implantation ici, du parler béarnais-gascon, cantonnant plus au sud la langue basque conservée à Orègue, Arraute, Masparraute, Ilharre.

Zuberoako eta Euskal Herriko ekialdeko euskaratik Baiona ondoko herrixketara dagoen hein bateko hizkuntza-batasuna zertan oinarritu jakin nahirik bagabiltza, arrazoi bat edo gehiago beharko dugu aurkitu; aziendaren ur behar ohikoak eragin dukeen ibilbidea ez litzateke garrantzi gutiko arrazoi gure ustez. Hizkuntza-ezaugarri franko aurki daitezke Zaraitzun, Erronkarin, Zuberoan — artzaintza gogotik landu eta bizi izan duten eskualdeak hirurok —, Amiküzen edo Bardozen, Lapurdi erdialde eta hegoaldean edo Baxenabarre erdialde eta hegoaldean ibiltzen ez diren tasunak, hain zuzen ere. Berebat, Aturri ibaia ondoan duten ala urrun ez duten Beskoitze, Urketa, Mugerre, Hiriburu edo Lehuntzeko euskara aztertzeak ere on handia egin liezaguke ildo honetan. Abereen etengabeko ibilera errepikatuok zerikusi zuzena ote dute eskualde horietako euskararen izaera edo berrikuntza zenbaitekin? Ez gineteke batere harrituko hala balitz.

Nekazaritza ugari eta aberatsekoa da Amiküzeren auzo eskualdea den Bearn ere, Okzitaniako ibarra, hizkuntzaz erromanikoa dena; geografikoki elkarren ondoan egoteak hartu-eman eragin du. Zaharra da, gero, errealitate *vasco-béarnaise* hau, gogoan harturik Nafarroako Erreinuak Bearnorekin iraganen izan zuen lotura politiko-administratibo hertsia. 1790ean hiru euskal herrialdeak eta Bearn Pirinio Apaletako Departamendura bildurik, bearnesek gehiengo osatzen dute euskaldunen aldean eta eragina du horrek ere. Amiküzeko deiturretan ere sumatzen da Bearn ez dela urrun, kultura horren eragina senti-

tzen da; gure lekuko behaztar batek *Peyroutet* du deitura, latineko *Petrus*-ek kaskoinean *Peyrot* emanik; berebat, lekuko gamuar batek *Sallenave* du deitura, kaskoina, euskaraz *Jauregiberri* litzatekeena; Zohotako gure lekukoak, berriz, *Marquesuzaa* du deitura.

Geografikoki zelaia den eskualde honek eskuin Zuberoako ipar-mendebala ukitzen du; ondokotasun geografikoak eta administrazioz kantonamenduaren buru Donapaleu izateak lotura hertsia goa eragin du Baxenabarre ipar-ekialdearen eta Zuberoa ipar-mendebalaren artean. Ezaguna da amiküztarren euskararen badirela ohiz Zuberoakotzat jotzen ditugun hainbat ezaugarri. Laphizketar batek dioskunez, egiten duen euskaragatik Baionan xiberotartako hartu ukan dute inoiz. Zuberoa eta Amiküzek beren artean partekatzen dituzten eta Baxenabarraren gehiago atzemanen ez ditugun hizkuntza-ezaugarriez lerroño batzuk idatzi genituen orain duela hamar bat urte (2004: 449-55).

Donapaleu eta Maule dira eskualdeko bi buruak eta hurranen euskal burua urrunxe dute, peko alderdian, Donibane-Garazin; ezker bada beste buru bat, Hazparne. Lurralde-egitura arrazoiengatik, Frantziako Iraultzatik honat herri zuberotar batzuk, Mauletik hain hurbil ez daudenak, Donapaleuko kantonamendu edo barrutiari atxiki zaizkio eta administratiboki honen orbitapean ibili dira azken aspaldian: Domintxaine, Berroeta, Arüe, Ithorrotze, Olhaibi, Etxarri, Lohitzüine eta Oihergi dira Pettarran eta Pagola Arbailan. Oihergi eta hein batez Pagola salbu, hizkuntzaren aldetik Amiküzeko alderdira jotzen duten herriak dira hauek guztiak, historikoki Zuberoako kide izan baziren ere, baina mintzoan ez dira xiberotar *phürrak*. Zuberoan dira Donapaleuko kantonamenduko Jeztaze, Ozaraine eta Erribareita herri mintzoz bearnesak ere.

Amiküze eta Xiberoako ipar-mendebaleko eskualde honi guztiari halako batasuna eta partaidetza-sena ematen dio oraino *Le Journal de Saint-Palais (et de Basse-Navarre)* astekariak; 1884/XII/28tik kaleratzen da, orain ostiraletan eta 2.200 ale zabaltzen ditu; aski irakurria da eskualdean.

Historikoki hiru zatitan banatu ohi dute Amiküzeko eskualdea; alderdi batek Biduze ibaiiaz haratagoko alderdia dugu, Bearnoko eta Zuberoako mugan: Uharte, Larribarre, Sorhapürü, Laphizketa, Behaskane, Aiziritze, Arberatze, Zilhakoa, Arboti, Zohota, Gamue eta Zohazti herriek eta Donapaleu hiriak osatzen zuten. Kaskoinez *Barhoa* izena duen barrutia dugu bigarrena, Amiküzeko erdiguneko aldean bederatzi herri zituena: Ostankoa, Bithiriña, Garrüze, Unaso, Amendüze, Gabadi, Ilharre, Altzümarta eta Lüküzek osatzen zuten. Amiküzeko mendebalean, Arberoari eta Bidaxuneko eskualdeari hurbil dago *Ahetze* barrutia, euskal izena duena, hona zein herrik osatzen zuten: Behauze, Labetze, Bizkai, Sarrikota, Arrüeta, Martxüeta, Zokotze, Amorotze eta Oragarrek; cf. Jean-Baptiste Orpustan (1992c: 12-3).

Beste sail batean sartu behar da Amiküze historikoa osatzen zuen Agaramont barrutia, betiere Baxenabarre historikoaren barranean. Egun Bidaxuneko kantonamenduan dira Erango, Burgue, Erreiti, Samatze eta Akamarre eta aldiz, Salies-de-Béarn-eko kantonamenduan da Eskos, baina halaz ere, Nafarroa Beherekoak dira edo izan dira herriok, hizkuntzaz kaskoinak badira ere; egun Amiküzekoa den Sarrikota herri euskalduna ere sartu izan da Agaramonten.³ Bizkai herria ez zegoen Agaramont-en kokaturik, Amiküze da orain ere, baina gauza jakina da orain bederen hizkuntzaz herri kaskoina dela, bertako euskaldunak herri honetara ezkondu amiküztar zenbait baizik ez dira, nahiz toponimiak eta etxe izenek iragan euskalduna salatzen diguten.

Administrazio-barrutiekiko herri hauen atxikimendua aldatuz joan da historikoki: Frantziako Iraultza baino lehen Agaramonteko herriak Nafarroari atxikirik zeuden, nahiz gero barruti aldaketak gertatu diren (Bruneau 1992): Akamarre Gaskoiniara joan zen, nahiz zergak ohiz Nafarroari ordaindu zizkion. Berebat, Gaztelako Carlos V.ak Baxenabarre 1523an jazarri zuenean, Sorde, Hastings eta Peirahorada hartu eta arpilatu zituen. 1643an Burgue, Eskos eta Erreiti herriak Baxenabarre ziren; baita Akamarreko La Ferrerie auzoa ere, baina herri honen alderdi gehiena Gaskoiniakoa zen. Herriotako jendeak ez ziren beste amiküztarrak bezalakoak: ez zituzten Amiküzeko zerga batzuk ordaintzen, ez ziren euskaraz mintzatzen, ez ziren Amiküzeko Gorte Nagusiaren bilkuretara joaten eta ez zuten Amiküzeko gudarostea osatzen. Halaz ere, Eskos herria Amiküzeko oihana kudeatzen duen batzordeko kide da (Bruneau 1992: 96-9). Agiritan bederen, bost mendez Akamarrek eta Erangok Gaskoiniarekiko eta Burguek eta Eskosek Nafarroarekiko izan duten atxikimendua nabarmena da (Bruneau 1992: 99).

Ohiz entzun diegu gure lekukoei ez dela emazteki bearnotar ugari ezkondu Amiküzera, edo alderdi erromanikoak eta euskaldunak ez dutela horrenbesteko hartu-emanik ukan, baina historikoki ezkontzak gauza arrunta izan dira: amiküztar euskaldunak ezkondu dira Burgue, Eskos edo Akamarrera eta bearnesek eta kaskoinak kokatu dira Ilharre, Behauze, Labetze-Bizkai edo Oragarren (Bruneau 1992: 98). Badakigu amiküztar ugari kaskoina ematen zutela, zehazki kaskoinaren hizkuntza-aldaki bearnesa: amiküztar batzuek etxean aita edo ama kaskoinarengandik ikasi dute; bestalde, merkatuetan nahiz abereen salerosgoan ongi moldatzeko kaskoina hizkuntza beharra zen jende anitzendako. Iragan ez urrunean gazte amiküztarrek Bearnora jotzen zuten lanera, mutil, eta kaskoina ikasten zuten, eman dezagun, Peirahoradako merkatuan abere saltzaile bearnesekin baliatzeko.

3 Halaxe ageri da (Salaberri Zaratiegi 1994: 355), baina *Amiküze. Le Pays de Mixe* liburuak barruti horretarik kanpo dakar, Amiküze barreneko Ahetze barrutian (1992: 26).

Kaskoinaren eta euskararen arteko hartu-emanaren ondorioz Amiküzeko euskarak ezaugarri berri zenbait bildu dituela idatzi ohi dute hizkuntzalariak: errate batera, Bearnoko hizkuntza ondoan eduki izanak eragin dukeela Amiküze iparreko herrietan eta Bardozen entzuten den *ü* fonema bokalikoa. Martin Haase hizkuntzalariak dioenez (1994: 176), *ü* egiten den eskualdean entzuten da Amiküzen gehienik jendea zuketa alokutiboan mintzatzen: bigarren pertsona aktante ez den kasuetan *zü* morfema aditzean agertzea da delako zuketa alokutibo hori. Nolanahi ere den, guk ez dugu datu berezirik ikusi baieztapen honen oinarrian; autore honek ez dakar frogarik eta guk ez dugu honelakorik sumatu; berebat, honetaz ongi dakitenek ere — eman dezagun, gure kontrol taldeko kideek — ez dute gaia honela bizi izan.

Kaskoinaren dialektoa den bearsesa, Pauek eta Oloroek beren agintetik bultzatu zuten aldetik, administrazio-hizkuntza ofiziala izan da gure eskualdean. XIII. mendetik XVII.a arte kaskoinezko agiriak ausarki ibili dira Baxenabarre guztian eta horrek eragina ukan duke baxenabartarren idatzizko ohiturretan eta zertan erranik ez, baita Bearnoko mugan kokaturik dauden Amiküzeko herri euskaldunetan ere. Bearnon eta Baxenabarren frantsesak kaskoinaren erabilera ofiziala ordezkatu behar zuela aldarrikatu zuen *Edit d'Union* izenekoak 1620/X/11n, baina 1789ko Frantziako Erreboluzione Handia arte kaskoinaren erabilera ez zen eten.

2.5. Hiriaren sorrera

Historiak Garrüze aipatzen digu Amiküze eskualdeko lehen hiriburu gisa: Burdigalatik Asturicara zihoan erromatarren garaiko XXXIV zenbakia zuen *iter* edo Antoninoren bidean kokaturik dago eta erromatarrek *Carasa* izendatzen zutena izan liteke. Ezagunak dira Erdi Aroan bertako jaunak zuen garrantzia, haren gaztelua, hiriko etxe kapareak eta Garrüzeko jaun *jurat* edo zinegotzi batzuek eratu batzordea ere. Garrüzeko eliza XII. mendekoa da eta erlijio gerren garaian nahiz Iraultza denboran erre zuten (Ribeton 1992: 225). Bidaiariendako pausagune edo aterpeak zituen Garrüze hiriak Donapaleurekin batean; *bonnes villes* ziren bi hiri hauek eta bertako biztanleak *citadins* edo *ruans*. Nolanahi ere den, ez da ezagutzen Donapaleu hiriaren sorrerako agiririk, baina pentsatzen da 1196-1228 urteen bitartekoa izan daitekeela; 1266ko sos kontuen erregistro batean hiriaren izena ageri da.

XIV. mendean zehar garrantzia hartuz joan zen Donapaleu eta denbora iragan arau Garrüzeri nagusituz joan zitzaion. 1352an Nafarroako Karlos II.ak diru egiteko lantegi bat eraiki zuen Donapaleuko Angelua izeneko etxean, nonbait

1672 arte iraun zuena (Urrutibehety 1992b).⁴ Salgaien garraioa kontrolatzeko gunea ere ezarri zen hirian, Garrüzen zegoena bezalakoa. Garrantzi handia ukan du geroztik Donapaleuk Amiküzen. Gaztelarren inbasioaren ondoren, erresuma zatitzean, Nafarroako Gorteak —legezko dinastia Albretarrak kudeaturik— Donapaleuko kantzileria sortu zuen 1521ean. Herritarren hizkuntza aintzat harturik, zuzentzako gorte nagusi honetan hiru kontseilari euskaldun egon ziren 1589tik harat. Nafarroako erakundeak Donapaleun kokatu baziren ere, errege-familiak interes handia zuen Pauen eta Bearnoko kokalekuak hobesten jarraitu zuen; izan ere, Albretarrak Bearne eta Foix-ko bizkondeak ziren eta Frantzia hegoaldeko aristokrazia garrantzizkoenaren partaide, nahiz egia den ere, Nafarroako erregetzak prestigio berezia eskaintzen ziela. Paueko jauregia zen Albretarren ohiko bizigunea.

Administrazio gune indartsua izan da Donapaleu: aspalditik zuzentza jauregiaren edo epaitegiaren kokagunea izanik, Arnaud Oihenart bera izan zen erakundearen burua XVII. mendean; Erdoiko etxe handian bizi zen. Baliteke 1640an Donapaleun egin zen *Etats de Navarre* izenekoaren saio batean bera biltzarkide izatea; badakigu 1647an Donapaleuko *jurat* edo zinegotzi hautatu zutela ere (J.-M. Larre 1992: 138-9).

Hondarreko mendeetan Donapaleura bildu dira Baxenabarreko, Zuberoa ipar-mendebaleko eta Bearnoko jende ugari. Hiriko ostiraletako merkatuak erakarpen handia izan du historian zehar eta salerosgo hiri garrantzizkoa izan da Biduze ur handiaren bazterreko hau, une honetan bertako merkatua lege berrien baldintzengatik burua beheiti baldin badabil ere. Aldiz, Donapaleu ondoko Garrüzeko abere feriak ohiz eduki duen arrakastari eusten dio oraino. 1813ko agiri batek erraten duenaren arabera, feria hurbilenak Xiberoako Maulen eta Bearnoko Salbaterran zituzten. Bestalde, sendagileak ukan dituen hiria da ere Donapaleu: 1858an hiru *mezinder* eta hiru notario genituen 1645 biztanleko hiri honetan; aldiz, 1813an 1000 bizilagun ziren (Hourmat 1992b: 195-6). Trena 1884ko abenduaren 22an heldu zen hirira eta Maulera 1887an. XXI. mendearen hasieran, 2007an zehazki, 1875 bizilagun zituen, 1975. urtean bezala.

XX. mendean aldaketa gaitza bizi izan du Amiküzek: XIX. mendetik Ameriketara lerratu den emigrazioak XX.ean ere jarraitu du, aspaldi honelakorik gehiago ez bada ere; bestalde, Bordele, Paue edo Paris hirietara sehi joatea ere ederki ezagutu dute egun adinetako diren amiküztarren: liburuaren bukaerako etnotestuetan mende hasierako amiküztarren errealitate horiek islatzen dira. Berebat, mila urteko tradizioa ukan duen ohiko nekazaritzatik, tresneria berrian oinarriturik lan egitera jo da eta lur sail handiagoak landu dira. Traktoreak

4 *Gran Enciclopedia Navarra* delakoak (Nafarroako Aurrezki Kutxa, Iruñea, 1990) beste data batzuk dakartza: 1331-1643.

etorri ziren, bi lehenak 1947an, baina 1954rako 18 ziren eta 1956an 100. Hiru-retain hogeiko hamarkadan 3.000 hektarea inguru luberritu edo defrixatu ziren Amiküzen eta Agramont eskualdean 1.000 (Batmalle 1992: 253). Hainbat *othar* eta larre aldatu eta arto ereiteko prestatu direla entzun ukan dugu franko lekukorengandik. Gainera, aukera ukan zutelarik —nagusiak saltzea erdietsiz gero—, etxetiar amiküztarrek lantzen zituzten jauntxoan lurak eta baliatzen zituzten etxeak erosi zituzten eta bertan laborantzan plantatu.

Donapaleuk ekonomian garrantzi handia izan du XX. mendean, indar handiko kooperatibagintza sortu da hirian. Lehengaien salneurrien espekulazioari aurre egin nahirik, laborariak elkartzen eta ekimenak batasunean garatzen hasi ziren. Donapaleu ondoko Aiziritzen eraiki zen *Lur Berri* kooperatiba indartsua, Amiküze eta Bearnoko garau eta laboreak ontzen eta kudeatzen dituen, Frantzia osora eta herrialde gehiagotara ere saltzen duena, bereziki garrantzizkoa baita artoan daraman saila: modernizazioaren eta teknikaren aitzinamenduaren ikurra izan da; 1990ean 271 langile zituen. Aitzinamendu giro hartan, etxera traktorea ekartzen lehena izan zen etxetiarren seme Jean Errekart (1909-1971) sindikalista oragartarraren ekimena da aipagarri.⁵ Amiküztar eta bearnotarren bermea lagun, bereziki laborariena, 1945etik hil arte deputatu edo senatur izan zen; 1947an *Lur Berri*-ko administrazio kontseilura sarturik, 1955ean kooperatibaren lehendakari hautatu zuten. Kooperatibak aberastasuna ekarri du Amiküzera, baina egun herritar anitzen artean kezka eta arrangura dago laborantza modernizatuko ongailu kimikoez eta artoaren moldatze genetikoek osasunari ez ote dioten kalte egiten ahal; nolahi ere den, iritziak era guztietarik dira, sendagileena, ekologistena, ingeniariena, biologoena eta arto-ereileena barne.

Hizkuntzaren alderdiari edo euskarari bagagozkio, Euskal Herriko ekialdea arras ahul dago eta Donapaleu hiri kasik erdalduna da egun: Amiküzek, Zuberoak, Erronkarik edo Zaraitzuz gizarte aldetik egun ez dute beren arteko batasunik, ekonomiako guneen eta erakundeen aldetik errealitate desberdinetan murgildurik daude, eskualde hauetako bazter gehienetan ekonomia apalduz doa eta euskara bera ere, gainbehera gogorrean sarturik dago. Gizarte-egoera hau ez da egokiena hizkuntza-berrikuntzak Euskal Herriko ekialdean sor eta ondoko eskualdeetara heda daitezen.

Egungo Amiküzeko hizkuntza-berrikuntzak Lapurdi-Baxenabarretik edo Euskal Herri orokorragotik iritsiak izaten dira; tasun berriok ez dira gizarte euskaldun guztira hedatzen, euskaraz mintzatzen jarraitzeko halako barne erabakia hartu duten hiztunengana baizik, eta hauen artean, bereziki helduengana edo gazteengana, zaharregana ez. Liburu honetarako datu biltzeko berriemaile

5 Sortze urtea 1909 dakarte batzuek eta 1912 beste batzuek; 1971n hil zen.

edo lekuko adinetakoak hobetsi ditugu guk, Amiküzeko orain arteko berezko ^heskuaratik nahi genuen. Nabarmena da orain arteko Amiküzeko ^heskuarak Zuberoako mintzamoldea hurbil ukan izanak eragina ekarri duela, baina hau aitortzeak ez dakar Baxenabarre orokorretik Amiküzeko ^heskuarara etorri den eragina ukatzea: Amiküzeko euskal mintzoak bi alderdietarik edan du; Amiküzeko zein alderditan gauden, ezker, eskuin edo peko alderdiko mintzoaren hurbiltasuna eta eragina sentitzen da amiküztarren hizkuntza-ezaugarrietan.

Amiküzeko herri bakoitzeko ^heskuara leiala bilatzen eginahalak egin ditugu, baina usu ez da aise izan, jendeak etxetiar edo etxezain ibili baitira Amiküzen, herri batetik bestera eta honek higadura handia eragin du eskualdean. Zail da herri batean sortu, aita-amak herri horretakoak dituen eta herri horretan bizi izan den beriemaile amiküztarrak aurkitzea. Halaz guztiz ere, lan honek Amiküzeko hizkuntza-errealitatea erakutsi nahi du, ez dakar ametssetako egoera ideal bat eta horregatik, bildu dugun ^heskuara motaren berri leialtasunez ematea izan dugu helburua, hori izan da aldi oro gure borondatea.

Amiküztarrek berek kontatu digutenez, Amiküzek eta Bearnok halako urguilu bat eduki dute, ondoko ibar txiroagoen aldean laborantzako zenbait onura ukanik, beren buruaz harturik baleude bezala. Patarrak eta leku meheak Oztibarren edo Garazin daude, ez Amiküzen, peko alderdi menditsuetan daude artzainak. Alduden hogeita bat urtez sendagile izan zen Jean Etxepare Bidegorri idazleak Amiküze eskualdea 1903an aipatu zuenean, alorrak kimikoki zigorturik zeudela adierazi zuen (Charritton 1984: 16):

Amikuze!... Bada landa ederrik, bai eta oihana frango. Bakarrik, pentzeak iduritu zauzkit mehexko eta guneka larrutuak: ezagun dute «engrais chimiques» horiek bortxatzen dituztela apur bat.

Aberastasun ezaugarri horien aldetik, beharbada amiküztarrak bere burua poxi bat besteen gaineratik ikusi duke, ondoko eskualdeetako langileen aldean burua goraxko ibilirik. Eta litekeena da ondoko eskualdeetako jendeak inoiz honetaz ohartu izana ere.

3. Hizkuntzaren soziologia

Merkhatietan biarnesa zun marxa, edo eskuara, etzun frantsesik ordian
(Mar)

*Nik kundatiko dauziüt ixtoria at horren gaiñean, ez eta, gure jenerazionea,
bena ene aita eta amain jenerazioniak... aitak, zenak, bazitzin lau aneia, eta
kominonia (sic) in eta, e, zazpi aneiak Biarnon ber etxian, biarnesain ikhasteko,
konprenitzein tzia? Biarnesain ikhasteko, ez, frantsesa ez, na biarnesa
bazekizien ene aita zenak eta beste aneia, otto ta horiek e, biarnesa (Gam)*

Gure makiñunak, denboa hartako makiñunak oro, denak biarnesak zütziin
(Gam)

Zeren eta euskara nagusi baldin bazen ere, harrabots alimale horren erditik gure kaskoinaren hizkuntzki guziak entzuten baitziren, biarnesen akzentu bizi sudurretikakoa, Baiona aldeko hizkuntz beltza, Chalosse aldeko eta Bastidako molde airos argia. *Que sembla estar un mercat de Garris!* Iduri du dela Garruzeko merkatua, hala erraiten da bilkura zaratatsu batetaz, mota guzietako jende mugimendutsuak aurkitzen direlarik, oihuka, jestu ainitzekin eta elgarren deitzen ari beren boz indartsuenekin (Gilabèrt Nariò, Ortese ondoko Valensuneko idazle okzitaniarra, 2010)

3.1. Euskararen auzo hizkuntza: kaskoia

Okzitania hizkuntzak hiru aldaki ditu —aldi zaharragoetan *proventzera* ere deitu izan da—: iparrekoan Limòtges (Limoges), Auvèrnhe (Auvernia) eta Alpeetako mintzoak daude. Hegoan proventzera (Marsiho – Marseilla) eta langedokera (Tolosa) mintzatzen dira, bigarren aldakia egiten baitute. Hirugarren aldakia Pauen, Bordelen edo Baionan mintzo da, kaskoia edo gaskoia da; eza-guna denez, Kataluniako Val d’Aran-en (Lleida) ere egiten da gaskoia.

Probentzal edo okzitania izendatzen den hizkuntzaren dialektotzat jo ohi da gaskoia beti, baina badira uste honen aurkako iritziak ere, munta handiko hizkuntzalariek adierazirik. J.-P. Chambon & Y. Greub-ek diotenez (2002), gaskoi hizkuntzaren ezaugarri bereizgarri nagusiak arras goiz gauzaturik zeuden, baina orain okzitania deitzen dugun errealitateak ez zuen oraino hizkuntza identitaterik; beren iritzian historikoki gaskoia ez litzateke okzitanieraren dialektoa.

Ipar Euskal Herriaren gaineko eta eskuineko alderdia kaskoinez mintzatu izan da. Ekialdean, Zuberoako mugan bearnesa egiten da, zeina izatez kaskoinaren aldaki bat baita. Aspaldi ez duela, Okzitanian baziren okzitanieraz baizik mintzo ez ziren jendeak, elebakarrak, baina 1940 aldera hirietan galtzen hasi ziren hiztun elebakarrok eta Diane Dansereauk dioenez (1992: 191), ez da gehiago honelako jenderik gelditzen. Bigarren Mundu Gerra artean, frantsesa, eskolan, elizan, hirian eta kanpotarrekin baliatzen zen, baina etxean, adiskideekin edo baserri giroan okzitania egiten zen. XX. mendearen hasieran, Lapurdiko Basusarri edo Hiriburuko jende gaskoiek eskolan ikasten zuten frantsesa, baina Jean-Baptiste Darricarrèren 1904ko berrien arabera, Baiona ondoko haur euskaldun eta gaskoiek frantsesa zekiten edo aski ongi ikasten zuten. Gizarte estatusaren aldetik, hiztun okzitaniarren kontzientzian frantsesa baino maila apalagokotzat jo izan da gerora beren hizkuntza eta bereziki emaztekien artean, *patois*-tzat, landu gabeko mintzotzat. Egun hainbat eta hainbat tokitan galduz doa ahozko ohiko okzitania, ez zaie haurrei transmititzen, giro akademikoetako okzitania estandarra gelditzen da.

Euskal Herriko eskualde batzuetan badira jende gaskoia, errate batera Baionan, Miarritzen edo Angelun; Baionan euskararen aldean kaskoia historikoki hizkuntza nagusia izan da. Baionako merkatura beren gaiak saltzera edo abere tratura zihoazen lapurtarrek ere kaskoinez mintzatzen zekitela diotso Darricarrèrek Julien Vinsoni 1904an; Miarritzera zihoazen lapurtarrek beren artean euskaraz egiten zutela, baina miarritzarrei kaskoinez egiten zutela. Baionako mintzoaren ezaugarri bereziak Pierre Rectoran-en *Le gascon maritime de*

Bayonne et du val d'Adour (1996) lanak eta Henri Gavelek zehaztu dizkigute.⁶ Baionako mintzamoldea, 1816an sortu Justin Larrebat olerkari baionesaren *Poésies gasconnes* lanean aurki daiteke (1868), baina olerkari baiones gehiago ere badira kaskoinez idatzi zutenak: Delbreuil, Laborde, Lagravère, Lesca, Oiarzun, Rectoran...

Badira, bestalde, migrazio handia jasan duten kokaguneak Ipar Euskal Herrian: Baxenabarreko Bastida herria mugako gotorleku gisa eraiki zen Erdi Aroan eta historikoki Frantzia hegoaldeko hainbat jende kokatu da bertan; hondarreko garaian nagusiki kaskoina mintzatu dute bastidarrek, nahiz herriko karrikan eta Kosta auzoan euskaldun batzuk bederen izan diren. Honezaz gainera, herri gehiago ditugu, errate batera Bizkai herria Amikützen; bertan orain euskaraz mintzo diren jende bakanak harat ezkondu euskaldunak dira, herri honetan sortuek kaskoinez egin dute, baina herriko toponimiak eta etxeen izenek iragan euskalduna salatzen dute. Bizkai herriak Labetze herri euskaldunarekin udala eratu du Frantziako Iraultzatik honat. Lapurdiko Bardoze herria ere euskalduna da, baina gaskoi eta euskaldun nahasirik bizi izan dira herrian aspaldian. Zuberoan Montori-Berorize aski herri bearnesa dugu hizkuntzaz, erkidegoa etorkiz bearnesa izanik eta baita hein batez Maule ere. Alderantziz, Bearnora jo zuten zuberotar euskaldunek jendeztatu zuten Eskiula herria.

Elkarren ondoan bizi izanak eragin du hainbat euskaldun jendek bizian gaindi kaskoina ikasi izana, eskualde haietan mutil edo neskame egon zirelako edo azienda tratuan haiekin usu ibili behar izan zutelako, edota merkatu hartu-emanagatik, adibidez Peirehoraden. Ohikoa da amiküztarrek kaskoina jakin izana, guk Oragarren ezagutu ditugu honelako gizon nagusiak eta ohikoa da zuberotarrek bearnesa mintzatzea ere. Petiri Prebende Salaberrikoa aurkeztu zigun Peillenek: euskara, bearnesa, gaztelania eta frantsesa zekizkien 1902an sortu eta 1985ean 83 zituen gizon santagraztar hark. Zuberoako euskararen bearnesak agerpen handia du: Etxahunen bertsoek, pastorek edo zuberotarren mintzoko mailegu lexiko bearnesen kopuru haziak erakusten digute honen berri. Bearnesaren eragina ahoskeran eta lexikoan gertatu da bereziki, izenaren eta aditzaren morfologian aurrizki edo atzizki zenbait ahantzi gabe; ez dirudi atzo goizeko eragina, gainera.

XX. mendearen bigarren erdian frantsesa bazter gehienetan nagusituz joan den ber, kaskoin edo bearnesaren indarra higatuz joan da: 1968. urtean adineko ziren hainbat euskaldun ipartarrek bazekiten kaskoin edo bearnesa, baina XX.

6 Okzitaniera gehiengan *-o* eman du latinetikako *-a* azentugabeak, baina Baionan *-e*; latinetikako bokalarteko *-n*-ren emaitza, aitzineko bokalaren arabera da; latin arrunteko *o* hetsi zaharrak frantsesez ez bezala *u* eman du; euskaraz bezala, sudurkari eta albokari ondoko herskari ahoskabeak ahostundu dira; adibide zaharretan bokalarteko kontsonante ahoskabeak ez dira ahostundu.

mende bukaerako zahar euskaldunetan ez zen hau hain arrunta, apalduz zihonan, nahiz zenbait jendek oraino mintzo zuten. Okzitanieraren erabileraz eta duen etorkizun beltzaz dihardu Dansereauk (1992): dioenez, okzitanieraren mintzatzailerik gaztea izateko, *sine qua non* erako baldintza da lagun hori gizona izatea, baserri giroko lanetan jardutea eta herrian bizitzen eta lan egiten gelditzeko asmoa izatea, erabaki hori irmoki harturik edukitzea, hori da egun okzitanieraz mintzo den gaztearen soslaia.

Chambonen arabera (2004: 6, 8), okzitaniera moderno eta garaikidearen ezaugarri nagusia frantseste bilakabidea da: lexikoan, erranmoldeetan, sintaxian nola fonologian. Hiriguneak dira frantseste honen eragile nagusiak: Miarritze-Baiona, Bordele, Periguers (Périgeux), Limòtges, Clarmont-Ferrend (Clermont-Ferrand), Tournon, Romans, Gap eskualdeko Ambrun (Embrun), Marsiho (Marseille), Montpelhièr (Montpellier), Tolosa. Hiriotan Bordele, Clermont-Ferrand, Limòtges eta Ambrun dira frantseste gehien eragin dutenak, ondotik doakie Marseille eta eragin apala jokatu dute Montpellier eta Tolosa hiriek. Chambonen arabera Baiona Montpellier-en heintsuan legoke.

3.2. Euskararen estatusa Ipar Euskal Herriko gizartean

XIX. menderako Frantziaren eta Espainiaren hizkuntza-jokaera erabakirik zegoen eta jakinaren gainean, izan ere, erabaki politiko sendo eta orokor batek finkatzen zuen hizkuntza "baliagarriak" frantsesa eta gaztelania direla. Inoizko denboran Pauen bearnesa hizkuntza ofiziala baldin bazen ere, XVII. mendean gauzak nabarmen aldatu ziren frantsesaren alde. Euskaldunak bazekien administrazio zereginetara Paue hirira jotzean bere burua saldurik ikusiko zuela (Ciervide 1994: 613):

les pauvres gens qui ne scavent ni entendent que leur langue basque, souffrent de grands frais et incommodité estant obligés aller a Pau et se faire assister d'interprètes.

Deserosotasunok saihestea eragin zukeen Donapaleun berean 1639an eratu zen auzitegiak, eta Oihenart idazlea bera izan zuen buru.

XIX. mendean Frantzian Montpellier aldetik indarra egin zen estatuan bi hizkuntza ofizial egoteko aukera aintzat har zedin, frantsesa eta proventzala (= okzitaniera), baina periferiaren indarraren fruituak ez ziren horrenbesterainokoak izan. Pariseko zentralismoak saihestetako hizkuntzen aldeleen aurka baliatu argudio zientifikoez Daniel Baggioni-k idatzi du (1996: 144-9). Jakobinismoak gogor jotzen zuen, Pariseko Goi Eskolako irakasle zentralisten artean jokabide ezkutua ageri da, Okzitanian ikuspegi berezia zuten dialektologialarien aurkakoak: *langue d'oïl* eta *langue d'oc*-en artean muga finka daitekeela,

proventzala frantsesa ez den beste hizkuntza bat dela, proventzalak Frantzia bigarren hizkuntza ofiziala izan beharko lukeela, proventzalak batasuna duela edo frantsesaren eta proventzalaren artean franko-proventzala izendatu ohi den errealitatea dagoela ziotenei, jakobinismotik gogor aurre egin zitzairen. 1820-1850 aldian François Raynouard-ek proventzalaren antzinatasunaren tesia hedarazi zuen, baina Pariseko Goi Eskolakoen ustez periferiako ikerlanetan ideologia eta literatura nagusiturik zebiltzan eta horiei aurre egitekotan, hiriburuko “zientzia objektibo”-a baliatu behar zen. Erromanista paristarrak frantsesaren partisano bilakatu ziren eta nazioaren hizkuntza-batasuna auzitara ekar zezakeen zernahi teoriaren aurka agertu ziren (Desmet, Lauwers & Swiggers 2002: 30).

Honelako giroan kokatu behar dugu XIX. mendeko Ipar Euskal Herria ere. Gizaldia aitzinatuz zihoan ber, euskaldun bati Euskal Herrian euskarak ez zion ohiko arrantza, nekazaritza edo abeltzaintzatik bizi ahal izatea baizik bermatzen, edo industrian eskulan izatea, bestela. Euskaldun huts elebakarrak tradizioko zokoetan iraun zezakeen, baina gainerateko jardunetara inguratzeko, erdara bat baliatzea baitezpadako izaten hasi zen Ipar nahiz Hego Euskal Herrian. Beharrezko eskola eratu, ezarri eta finkatu zenetik, Euskal Herriko ikasguneetan erdara baliatzen zen. Euskal haurrek ez zuten beren sortzezko hizkuntzako hitz altxorra aberasten, ez zuten mintzamolde jasoan egiteko aukerarik.

Ordea, herri gehienetan eskolaz kanpo herriko lagunartean eta etxean jendeek euskaraz egiten zuten, erdararen muga-mugan ez zeuden euskal herrietan bederen honela zen, baina hiri eta herri hazietan, estatu frantsesak eta espainiarrak, euskaraz mintzatzeko gai ez ziren administrazio lagunak sartu zituzten emeki-emeki eta ondorioz, goi mailako hizkuntza-prestigioa erdarek zegokien. Gizarteko aldaketek ez zioten euskarari mesede egin: eman dezagun, Ipar Euskal Herrian 1850-1890 bitartean, alderdi ekonomiko, tekniko eta kulturaleko aldaketek frantses kutsua zekarten oro har. Errate batera, indartuz zetorren liburu generikoa frantsesez zen gehienik Ipar Euskal Herrian, jendearen hain gogoko ziren eleberririk-eta, frantsesez zetozen, kultura berri orokorraren zabalkundeak frantsesaren alde jotzen zuen, ez euskararen alde: frantses itsaso hartan euskarak bere lekua eta zirrikitu batzuk bilatu beharko zituen bizirik iraun nahi baldin bazuen.

Euskarari tokiko prestigioa zegokion, etnizitate arlokoa, lagun eta kide hurbilekikoa, *in-group* delakoa. Lanbide batzuetan euskara gauza beharra zela erakusten dute orduko agiri batzuek: basoko hiru zaindariren ezgaitasunaz mintzo direla, bata hil dela dio *Pays de Mixe*-ko administrazioaren 1819ko agiri batek: bigarrenak gorputza ezindurik duela eta hirugarrenaz erraten da *étant avancé en âge et ignorant complètement la langue basque* (Hourmat 1992a: 178). Bestelako prestigioa, elitearekin identifikatzen zena, frantsesak zekarren; euskarari atxikirik zirauen jendarteak *ignorants* eta *gens rustiques* batzuek osatzen

zuten. Honelako kalifikazioak entzutera usatu behar zuen euskal populu laboraria emeki-emeki halako auto-lotsa eta estigma bizi beharko zituen bere herrian berean, usu kanpotik jin berriak ziren jende batzuegandik, gainera. Bertakoena zen *ce peuple de pasteurs ignorants et grossiers* (Hourmat 1992a: 184). Izan ere, Donapaleuko *Conseil municipal* delakoak 1848an zioenez “la plus grande partie des habitants des communes rurales dans le Pays Basque ne parlait pas encore la langue nationale” (Hourmat 1992b: 199). Hauteskunde legeez diharduten eztabaidetan *Mémorial* eskuineko kazetak adierazten du aldarrikapen berrien zaleen artean “les trois quarts de la population étaient incapables de parler français ou de signer leur nom” (Hourmat 1992b: 201).

Horrezaz landa, emigrazioak ekarri zuen aldaketa demografikoa ere aintzat hartu behar da. Barreneko herri ordura arte guztiz euskaldunak husten hasi ziren, Lapurdiko itsasaldera jotzen zuten, hain zuzen ere hizkuntzaz euskalduna ez zen jende ugari bizi zen alderdira. Ameriketara ere gogotik jotzen zuten gazte euskaldunek lan bila; 1832-1843 artean 8.174 euskaldunek jo zuten Montevideora, Iparreko populazioaren 1/20 egiten zuen horrek.⁷ Halaber, Maule, Hazparne eta Donapaleura jende ugari joan zen bizitzera, baina hiri hauetara jo zuten guztiak ez ziren euskaldunak.

Euskara hutsezko harreman-sareak ahulduz zihoazen frantses mintzoko jendea ugaltzarekin, izan ere, gizartean aitzinamendua frantsesak zekarren: ibilbide ekonoteknikoan murgiltzen zen euskaldunak frantsesa behar zuen baitzepada eta erdal gizarte modernoa nagusituz zihoan Ipar Euskal Herrian: Pierre Broussainek Trebitsch austriarrari 1913an ziotsoenez, Hendaia, Donibane-Lohizune, Ziburu, Donapaleu edo Maulen galduz zihoan euskara: *hiri horiitan badia haur frango, aitamak eskualdunak tiuztenak eta eskuara eztakitenak. Gure arbasuen mintzaia eskoletan iakats balezate, elitake holakorik gerta.*

Mundu ofizialean bertakoa ez den hizkuntza bat nagusitzen baldin bada eta etxekoa bigarren mailakotzat uzten baldin bada, hondarrean herriak bigarrenari, kanpotarrari irizten dio garrantzizkoago; 1992ko *Le Pays de Mixe* bilduma liburuan izenburuan euskara ageri da, *Amikuze*, eta aitzinsolaseko mezu nagusi batek adierazten digu euskarak Amiküzeko nortasunaren atal handi bat osatzen duela, baina ohiko sinbolismo eta aldarrikapen borondatusuetarik harat, liburuko hamazazpi atalak frantsesez idatzi ziren eta aitzinsolasa frantsesez eta euskaraz gain, ingelesez, alemanez eta gaztelaniaz eman zen; hori bai, liburuko

7 Odoluste gaitza eragin zuen emigrazioak Ipar Euskal Herrian XIX. mendean. 1867/VII/29an Emmanuel Intxauspereen iloba bat Hego Ameriketara nola joan zen aipatu zion gutun batean Bonaparteri zunharretarrak, printzearen hizkuntza-galdetegiari Atharratzen erantzun zion hura, hain zuzen ere. Mauleko arrondizamenduak 1846-1861 bitartean bizilagunen apaltzea jasan zuen: 76187-tik 66933-ra (Hourmat 1992b: 211).

lehen hitzetan Oihenarten euskal olerki bat aurkeztu zen haren frantses itzulpenarekin batean; neke litzateke diglosia desorekatua denaren adibide adierazgarriagorik atzematea.

Mendearen hondarreko laurdenean sortu zen *Eskualduna* kazeta Baionan (1887-1944), herri xehea xuri eskuindarren ezagutzaz euskaraz argitzeko; Ipar Euskal Herrian nekazari jendearen etxe ugaritara iristen zen aste oro, xuriek herri euskara dotorean emanik. Apez eskuindar eta frantziazaleek kudeaturik, Pochelou astekariaren idazkariak “Zazpiak bat” goiburua zentsuratzen zuen *Eskualduna*-n, arriskua ikusten zion. Urte bete lehenago errepublikarrek Pauen sortu *Le Réveil Basque* (1886-1894) astekari elebidunari aurre egin behar zion *Eskualduna*-k. Kazeta bakoitzak bere ikuspegitik, integristek eta errepublikarrek funtsean Frantzia handiaren ideia sakon erroturik zeramaten, Ipar Euskal Herriko jende euskalduna Frantzia nazio edo aberriko partaide zekusaten bi ildoek.

XIX. mendeko Ipar Euskal Herriko nortasun kolektiboaren errealitatea konplexua da, eta eman beharra dago bigarren egia paralelo baten berri ere. Iritzi abertzaleagoa zuten orduko Broussainek eta Constantinek (Zalbide 2007: 952). Iparrean ohartzen ziren Hegoaldeko euskaldunen karraz: *mendiz harateko anaiak, hedaduraz eta bihotzez botheretsu dire. Gauza zuzenbidezko bat, nahi izateaz, geroz ardiesteko moldez galde dezakete* zioen Landerretzek (1910: 64).

Idealista alemaniarrek erromantizismoaren hazia erein zuten Europan: herrien berezitasunen aldeko joerak eta oldarraldiak XIX. mendeko euskaldun anitzen nazio kontzientzia inarosten eta ekimen euskaltzaleak bizten lagundu zuen. Orduko *Euskal Pizkundea* gizarte eta kultura fenomeno hedatua da. Ipar Euskal Herrian Antoine Abbadiak lehen aldiz 1851n Lapurdiko Urruñan eratu zituen *Lore Jokoak* edo *Koplari Guduak* mugimendu erromantikoarekin lotu behar dira: eman dezagun, *Zazpi euskal herriek bat egin dezagun...* kantu ezagunaren egile den Gratian Adema “Zaldubi”-ren edo *Ikhusten duzu goizean* ahaiarearen egile Jean-Baptiste Elizanbururen emaitza lirikoak Lore Jokoetan garatu ziren; Hegoaldean *Ama euskeriari azken agurrak!* ezaguna sortu zuen Felipe Arrese Beitiak. Ipar Euskal Herriari dagokionez Lore Jokoen hondarreko saioa 1914an izan zen, munduko gerlak eten zituen (Charritton 1984: 20).

Élisée Reclus frantziarraren 1867ko *Les Basques. Un peuple qui s'en va* iruzkin erromantikoak islatzen du, euskal hizkuntza, bertako ohitura zahar franko eta beste hainbat eta hainbat errealitate etnografiko aldapan beheiti abiatuak zeudela orduko Euskal Herrian. Abbadiak ikusten zuen hizkuntza ezin salbatu dela berez eta bakarrik, haren *volksgeist* edo herri nortasunean aldaketa bortitzak jasateko arriskuan dagoen erkidego batek bere kultura osotasunean zaindu eta kudeatu behar duela ulertu zuen.

Giro erromantiko haren kutsadurak dakartza ahozko literaturaren bildumak ere; herri ipuin eta kantuak bildu zituen Jean François Cerquand-ek: *Légendes et récits populaires du Pays Basque* (1874-1883). Wentworth Webster-ek, aldiz, *Basque Legends* argitaratu zuen (1879), baina arlo honetan Resurrección María Azkueren lan erraldoia da aipagarriena. Tradiziozko euskal kultura, ohiturak, artea, aitzinaroko kultura materiala eta beste hainbat erakusgarri biltzen eta aztertzen jardun zuten garai hartan Telesforo Aranzadik, Azkuek, Joxe Miel Barandiaranek, aita Donostiak edo Manuel Lekuonak.

Lore Joko edo harako euskal jaiak euskaltasuna harrotasunez erakusteko eta goratzeko halako *in-group* beroaldia ziren: koplari gudu haiek literaturaren sisteman eragin zuten, sariketak eta argitalpenak eragin zituzten. Olerkigintza eta kantu bildumak hedatzeko joera sustatu zuten. Aitzineko garaietan euskal literaturan hizkuntzaren apologia eta erlijiozko gaiak nagusitu baziren ere, Lore Jokoen garaian literatura helburuko lanen ugalketa gertatu zen. XX. mendearen hasieran *Euskal Pizkundera* izeneko mugimendua harrotzen ari zen gizartean, guztiz euskal idazleen artean: garai hartan inoiz baino gehiago idazten ari zen euskaraz. Ordutik honatako Ipar Euskal Herriko idazleak hiru belaunalditan kokatzen ahal ditugu:

Lehen belaunaldia: Gratian Adema "Zaldubi", Jean-Pierre Arbelbide, Laurent Diharasari, Jean-Pierre Duvoisin kapitaina, Jean-Baptiste Elizanburu, Mixel Elizanburu, Jean Hiriart-Urruti, Emmanuel Intxauspe, Basilio Joanategi.

Ondoko belaunaldia: Jean-Baptiste Althabe, Jean Barbier, Jean-Baptiste Constantin, Jean Elizalde "Zerbitzari", Jean Etxepare Bidegorri, Etienne Lapeire, Pierre Lhande, Leon Leon, Jules Moulrier "Oxobi", Jean Saint-Pierre "Anxuberro".

Hondarreko belaunaldia: Xabier Diharze "Iratzeder", Jean Etxepare Landerretxe, Piarres Lafitte, Piarres Lartzabal, Jon Mirande, Etienne Salaberri.

Eta bertsolariak ere aipa ditzakegu: Ferrando Aire "Xalbador", Pierre Bordazaharre "Etxahun", Manex Etxamendi, Jose Mendiage, Mattin Treku.

Euskal Pesta haiek euskal kulturaren inguruko agerraldi pozgarriak ziren. Etxepare Bidegorri miriku eta idazleak 1903ko Donapaleukoaren berri dakar *Eskualduna*-n urriaren 16an, *jakintsun bezain xoratua* ezarri baitu: Euskal Pestan abeltzainen gizarte bati dagozkion abere erakusketa eta sariketak, pilota partidak, euskal dantzak eta olerkarien guduak deskribatzen ditu; *beren xamar urdin laburretik ezagut errex* diren xiberotarrak aurkezten dizkigu, *diarelakotz zangoz bezain mihiz zaluak*; haien dantzen berri dakar, gogoko zer duen eta zer ez argi utzirik. Etxeparek Donapaleuko 1903ko Euskal Pestaren sustatzai-

leen berri xeheki dakar. Ezinago garden ageri da euskaltasunaren funtsean zer dagoen eta zer ez dagoen: *arbasoen mintzaia zaharraren elgarretarik aditzeak gituelarik oro sustatzen* dio, eta bazkalondoaz diharduenean: *sukar batek zainak hartuak derauzku, airatzen gaitu Euskalduntasunaren urguluak, eta Lapurtar, Xuberotar, Baxenabartar, Espainol eta Frantses han giren guziet botz batez errepikatzen ditugu «Gernikako arbolaren» kantuak*, nahi bailuke adierazi goi mailako jende euskaldunak han direla: diputatu, auzapez, kapitain, notario, mediku, apez, andere *anitz anitz apainduak*.

1903ko Euskal Pesta hartara bildu ziren literatura-epaile, euskaltzale eta agintariak ez ziren euskal abertzaleak bakarrik, Ipar Euskal Herriko auzapez eskuindar erregetiar, Frantziako armadako kapitain ohi euskaltzale, senatari gorri, mediku abertzale, dena delako diputatu, auzapez eta apezak ere Donapaleun ziren astelehen hartan, Euskal Pestaz nor bere erara gozatzen. Inolaz ere, gehien-gehienek Frantziako aberriaren ideia erroturik sentitzen zuten, baina euskal kulturaren partaide sentitzen ere ziren, hizkuntzaz, ohituraz, arrazaz edo bere jakin nola. Hiri pollit eta euskalduna dakusa Jean Etxeparek Donapaleu 1903ko urriko astelehen hartan, nahiz badakigun ordurako frantses hizkuntzak indar handia duela hirian; labur mintzatu da herriko etxean Pradet auzapeza, frantsesez, eta euskaraz egin du kontseilu jeneraleko Nicolas d'Arcangues, Milafrangako auzapez erregetiar eskuindarrak; haien ondotik, Darricarrère kapitain ohi euskaltzalea hasi da euskal *gudukarien bertsuen irakurtzen*.

Erakunde euskaltzaleen sorrera garaia ere izan zen hura, giro hartan Ipar Euskal Herriko gizartean *Eskualzaleen Biltzarra* eratu zen (Hendaia, 1901) eta Hegoaldean *Euskal Esnalea* erakunde (Zumarraga, 1907). Ipar Euskal Herrian *Eskualzaleen Biltzarra* arduratu zen euskaldunen adorea biziberritzeaz; hasieran erakunde hau zazpi euskal herrialdeetarako pentsaturik zegoen, baina Iparrean jardun zuen, bidegile eta bide erakusle izan zen: apezgaien eta irakasleen alfabetatze lana 1913tik eta batez ere 1920tik aitzinera erakunde honek egin zuen, berak barreiatu zuen jende xumearengana tradizioko hizkuntzaren aldeko leialtasuna, Lafitte gramatikaria edo Xalbador bertsolaria bezalako partaideak izan zituzten lehiaketak bultzaturik (Zalbide 2003: 127).

Ordea, 1914ko eta 1939ko gerlek Iparreko euskal populu gehienaren ariman eta gogo-bihotzean halako frantsese bat eragin eta berrindartu zuten; ondorioz, euskarak gizartean erabilera eta onspena galtzen jarraitu zuen, Iparreko hainbat eta hainbat jende eta familiak erdararatzen eta frantsesera lerratzen jarraitu zuten. Ipar Euskal Herrian frantsesa nola aitzinatuz zihoan adierazi zuen Hazparneko idazle Jean Hiriart-Urrutik 1896an, orduko Euskal Herri hartan jende zaharrak baitziren bakarrik beti euskaraz mintzo (2004: 331):

Datozila español-eskualdunak mendiez hunaindirat: guk heientzat bezenbat erraiteko badukete heiek guretzat. Ezen gutartean ere ondikotz ikusgarri bera dugu begien aitzinean: zaharrak dire bakarrik beti eskuaraz mintzo. Bitarte adinekoak erdi eskuaraz, erdi frantsesez.

Ipar Euskal Herriko XX. mende hasierako berri, Lapurdiko Hazparnekoa, Emile Larrek eman du (1992: 268-9):

...ikusia zuen jaun errientak euskaraz ari zirela haurrak eskolan elgarren artean, etxean bezala: gaztigu gisa, xiri ttipi bat emaiten zitzaion euskaraz mintzo aurkitua zen haurrari eta gaztigatze haundiago bat bazeukan ondotik haur gaizoak... non ez zuen haur hark beste "hobendun" bat kausitzen, euskaraz mintzo zena. Orduan hari sakatzen zion harrapatua zenak bere "anti" madarikatua. Molde horretan haurrak berak zituzten poliza lan batean ezartzen, elgarren salatari eginez, euskara «galgarri» horren kontra: lan higuin eta iluna beraz hori ainitz eskualdetarik. Zenbaitek bakarrik zuten ordukotz ikusten, etorriko zirela egunak, uste baino lehen menturaz, haurra bere herriko mintzairaz ahalgetuko baitzen holako bidetik.

Gizartean euskara ez zen idatzizko hizkuntzatako sentitzen eta ez zen kultura hizkuntzatzat jotzen, ez kanpoan eta ez etxean ere. Sasoi hartako Euskal Herriko gizarte-bilakabideak eta hiri eta herri hazietako jendeen jokaerak ezagun dute hori. Pierre Broussainek 1913an adierazi zuen zein zen maila gorako eskaldunen hizkuntza-joera (Etxebarria 1994: 51):

Eskualherriko jende handiek, miiku, aphez, notari, abokat, aspaldian eskuara utzi'ute frantsesez edo espñolez artzeko, eta hek bezala iteko, jende xehiak ee ai dia frantsesez edo espñolez mintzatzen, ahal dutenian.

Goi maila edo arloetan euskararentzat iraupena horren zail izatearen ondorioa zen maila apaleko jendeek ere hein batez euskara gaitzetsirik erdaraz mintzatzera jotzea, Hiriart-Urrutik 1896an salatu bezala (2004: 331-2):

Gazteriak ere badauka oraino hein bat eskuara. Frantses hortan trebe dela erakutsiz geroz, nahiago du eskuaraz mintzatu gutartean hogoi, hogoitama hamar urtetako gizon gazteak. Handik beheitikoak lerrakorrigo dire frantses hortarat. Bainan haurrak? Haurrak asko tokitan osoki frantseserat eroriak dire. Ala frantses polita derabilate mihietan! Zer nahuzue ordean, uste badute jaunago direla eskualduntasuna utzirik franximan bilakatuz?

Kexu zen hazpandarra 1897an: *Guhaur; gu gira eskualdunak guhaur eskuararen etsai; eskuararen galerazle*; honela zioen (2004: 337-8):

Galtzen dugu eskuara, edo galtzerat uzten guhaurek eskualdunek. Arrotza orotaz emeki-emeki nausitzen ari zaku. Eskualduna ez da gehiago ez bere lurren, ez bere haurren ez eta ere askotan bere buruaren jabe Eskual

Herrian. Gure bideak, etxeak, bazterrak oro bizardun, kaxketadun... nork daki nor, eta zer, eta nondik huna jin batzuez beteak ditugu. Urrats bat ez dezakegu egin Donibane-Ziburuko itsas hegitik Santa-Garaziko mendi-zokoetaraino, jaun eta andre franximant zenbaitekin buruz-burutu gabe.

Orduko Ipar Euskal Herrian frantsesez egiten zen formaltasuna zerion oro, idatzizko gutunak barne. Goi arloak, administrazioko zeregin guztiak eta jendaurreko ekintza publikoak frantsesak bereganatu zituen. Gizarteko goi mailan euskal hizkuntzak inoiz ukan zuen indar bakan hura galbidean zihoan, herriburu eta hirietan mintzaldaketa fite frantseserat lerratuz zihoan eta herrixketara helitzen hasi zen frantsesa, euskaldun hutsen eremuetara, baserri girora, mendialdera, emeki-emeki izanik ere.

Ipar Euskal Herrian eskola frantsesez zen, ikastetxe bat bera ere ez zegoen euskara baliatzen zuenik, baina katixima euskaraz egiten zuten apezek herrietan, nahiz eliza batzuetan frantsesa ere sartua zen. 1902. urtean Parisen lege bat ezarri zuen Emile Combes-ek herrietako apezek egiten zuten katixima debekatzeko; Britainian apezek soldata kentzeko mehatxua egin zien baldin bretoieraz mintzaten baziren. Garai hura zalapartatsua izan zen Frantzia guztian xurien eta gorrien artean, Elizaren eta gobernuaren artean: Frantzian ez zen bakerik izan. Gobernamentu zentralak irizten zion Eliza katolikoak bereak ez ziren eginkizunak hartzen zituela; errepublikazaleen ustez, estatuari zegokion haur eta gaztetxoek heziketa. Apezek zeuzkaten irakaskuntza-erakunde eta egiturak, heziketarako izan beharrean, beren erlijioa hedarazteko baliatzen zituztela uste zuten gorriek. Zalaparta eta zatiketa ideologikoaren garai haietan, Ipar Euskal Herriko kultura herritar euskarazkoan bi talde nabarmendu ziren: kopuruaren aldetik gehiago ziren ikuspegi eskuindarreko xuriak batetik, eta bestetik ikuspegi ezkertiarreko gorriak. Frantzia katolikoa, Eliza eta euskaltasuna goresten zituen Zaldubi euskal idazle lapurtarrak gogor idazten zuen errepublikaren aurka.

Frantses estatu zentralistak eskola laikoa bultzatu zuen, frantses hizkuntza ezartzen eta euskara galarazten zuena; euskaldun apezek hizkuntzaren eta fedearren alderdietarik kritikatu zuten ekimena. Martin Landerretzek 1910ean zioenez, a) *euskara semenario handitan irakatsia izatea* eta b) *Euskal-Herri guzian, bai euskara ahanzterat utzia duten herrietan ere, eskoletan edo eskoletarik kampo, erdararekin edo erdara gabe, euskara irakatsia izatea* gauza beharra zen, baina Lehen Mundu Gerra hasteak honelako eztabaidak bigarren mailara eramane zituen; azken buruan, mehatxaturik sentitzen zen estatu frantziarra babestera joan ziren indar eta eginahal guztiak; ikus Hiriart-Urrutiren *Biba Frantzia* artikulua: *biba Frantziako populuaren bihotza!* (1914/IX/11).

Ipar Euskal Herrian frantses erakundeek zentralismo nabarmena ezarriarik zuten, eta euskaraz mintzo ziren bertako jendeak ohartzen ziren giro ofiziala

frantsesaren aldeko eta euskararen aurkako bihurturik zegoela; halako euskaltasun kulturala sumatzen hasi zen garai hartan. Ipar Euskal Herrian ere bazen halako elite bat, apez, sendagile eta gainerateko lanbide liberaletako gizonak osatua, Frantziako estatuaren nagusitasuna politikoki zalantzan jarri gabe euskaltzetasun etnikoari indar eman nahian zebilena.

Baina ordurako XIX. mendean Xaho zuberotarrak zazpi euskal herrien batasuna aldarrikaturik zuen, Zaldubik *Zazpi eskual herriek* kantu ezaguna haizaturik, Abbadiak 1892an Donibane-Lohizuneko jaietan *Zazpiak Bat* oihukatuturik eta Sabino Aranak Hegoaldean *Euzkotarren aberria Euzkadi da* goiburua sorturik. Batzuk eta besteak ikur politiko-kultural berria eraikitzen ari ziren, nahiz euskaltasuna Iparrean soilik etniko-kulturala zen.

Hala Ipar nola Hego Euskal Herrian, euskararen aldeko *Hizkuntza Plangintza* antzeko zerbait eraiki edo egituratzen hasi zen. Euskaltzale guztiak bat zetozen euskara gizartearen gibelera zihoala, jendeak erdararatzen ari zirela, frantseserak eta gaztelaniarrek lerratzen: arazoaren zinezko neurria hautematen ez baldin bazen, galerak etenik ez zuen izanen, zazpi herrialdeetako hizkuntza galduko zen. XIX. mendearen hasieran Humboldt-ek errana zen hau, eta erritmoan asmatu ez bazuen ere, norabidean guztiz asmatzen ari zen hizkuntzalari alemaniarra. Plangintza ez zegokion estatusari bakarrik, baita corpusari ere.

Baziren euskararen galera onuragarri izan zitekeela irizten ziotenak ere: Vinson frantsesa Baionan edo Miguel de Unamuno bilbotarra, 1901ean bere hiriko Arriaga antzokian euskararen heriotzaren onuraren prospekzioa egin zuena.

3.3. Hizkuntzalari naturalisten ideiak

Pablo Pedro Astarloak eta Azkuek uste zuten denboraren iragate luzea jasanik, euskaldunek berek hutsunez eta ahulgunez bete dute euskara. Azkue gaztearen arabera, euskal hizkuntza hondamendirantz zihoan, baina naturalista frantziarrek honelako auziak alderantziz zekuskiten: haien ustez, hizkuntzen garapenak hobekuntza bidean ezartzen ditu hizkuntzak behar den bezalako bilakabidea gertatuz gero. Euskal Herrian ere bazituen aldezleak hizkuntzalari-tzako joera honek, Vinson eta Unamuno gaztea.

Ohiko iritzi-emaile eta idazle ziren orduko Euskal Herrian Vinson frantziarra Baionan eta Unamuno Bilbon. *Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca* doktoretza tesia defendatu zuen bilbotarrak 1884an eta 1886koa du *Del elemento alienígena en el idioma vasco* artikulua. Vinson errepublikazalea, berriz, Parisen 1867-1916 artean argitaratu zen *Revue de Linguistique et Philologie Comparée* [RLPhC] aldizkariaren zuzendari izan zen garai batez eta haren jabe bukaerako garaian; luzaz izan zen hizkuntza dravidiarren

ikertzaile eta hizkuntza kreolez ere arduratu zen. Harrigarriro, Vinsonek euskara gai harturik egin zuen analisia, hizkuntza dravidiarrez egin zuenaren arras iduria da. 1876an zioenez, India hegoaldeko dravidiarrek ez zuten beren gizaki-izaera aberastu herri indoeuroparrak bertara iritsi ziren arte (Oihartzabal 2008: 678). Hizkuntza kreolez ziharduela, honela zioen 1889an: *hizkuntza apal batzuek hizkuntza indo-europar goragoekin elkartzeko edo nahasteko zortea izan dute*.

Vinsonen ustez, gizarteko orduko aldaketa demografiko, ekonotekniko, politiko-operatibo eta soziokulturalak ziren euskara eta euskal kultura ahultzen ari zirenak. Vinson eta Unamuno gaztearen ikuspegi esentzialistaren arabera, berezko gaitz barrenekoa du euskarak: hizkuntza eranskaria (aglutinantea) izanik, hizkuntza malgukariak (flexiboek) baino gaitasun mugatuagoa du giza komunikazio konplexurako eta hartara, alfer-alferrik da hizkuntza hau doitzen, gaitzen eta hobetzen jardutea. Euskara ez da kapable adigai jaso eta abstraktuak adierazteko eta horregatik, bi jaun hauen ustez euskaratik bi erdaretara mintzaldaketa gauzatzea —euskaldunak erdaraz mintzatzea eta bizitzea— zen etorkizuneko jarrera zentzuzkoena Euskal Herriarentzat. Bizitzaren lehian euskara galtzaile zekusaten biek. Ramón Menéndez Pidal filologo espainiarra ere iritzi honen haritik ibili zen garai hartan; euskararen corpus plangintzarekiko jarrera probidentzialista zeukan hark: *hil behar baldin badu, utz dezagun euskara lasai eta bakean hiltzera*, baina gaztelaniari dago kionez ez zuen honelako jarrerarik (Zalbide 2003: 33).

1860ko hamarkadaren erdian Europako mendebalean hizkuntzalaritza naturalista sortu zen: Honoré Chavée, Abel Hovelacque eta August Schleicher hizkuntzalariek bultzatu zuten. Naturalisten arabera, maila apaleko hizkuntzen galera automatikoa joera nagusia da, baina zientziak erakutsi duenez, ez dago ikuspegi hau edukitzeko berezko ebidentziarik, ezagunak diren hizkuntzen historiak ez digu erakusten beren patua hizkuntza-eragile batzuek determinaturik dagoenik (Oihartzabal 2008: 681). Darwinismoak izaki bizidunen eboluzioaz eta hautapen naturalaren legeez sortu zuen teoriarekin bat zetorren naturalismoa eta uste nagusi hori hizkuntzari txertatu zion. Beren ustean, hizkuntzen garapen mailan, hizkuntza isolatzaileak (aislanteak) ondotik hizkuntza eranskari bihurtzen dira eta azkenik hizkuntza malgukari. Vinsonek eta Unamunok uste zuten ez zuela etorkizunik maila malgukari goren horretara heldu ez den euskara eranskariak. Errealitate modernorako prestatzeko, hoberena euskara ahanzte eta erdaraz jabetzea zuten euskaldunek haien ustez. Azkue batek, ordea, hizkuntza eranskaria izateak kalterik ez dakarrela argudiatzen zuen 1888an Bizkaiko Aldundiko Euskara Katedrara aurkeztu zuen txostenean.

Vinsonek eta Unamuno gazteak Schleicher indoeuropeista alemaniarren eragin handia izan zuten. Hizkuntza-naturalismoaren aitzindari izan zen Schleicher-ek hizkuntza izaki bizidunak legeez garatzen dela irizten zion eta

hizkuntzalaritzak gizakiaren fisiologiaz diharduela. Schleicher-entzat “natural” adjektiboak erran nahi du lege batzuen menpe dagoela hizkuntza, gizakiaren borondatek kanpo eta askatasunik gabe (Gómez 2007: 118). Hizkuntzalaritzak, beraz, hizkuntzaren alde “naturalena” izango du aztergai, fonetika eta morfologia. Naturalismoak gizaki-hiztunetik eta gizartetik kanpo zekusan hizkuntza, naturaren arloko ente beregain bat balitz bezala, naturaren legeei atxikirik, ez zekusan kulturaren edo gizartearen baitako errealitatetzat; naturalistek ez zioten hizkuntzen kanpo historiari so egiten.

Beren aitzindari alemaniarrek bezala, Vinsonek eta Unamuno gazteak uste zuten hizkuntza naturalak monosilabismotik eranskari izatera iragaten direla eta behin izaera hori edukitzean, malgukari izatera jotzen dutela. Maila gorenera iritsi diren hizkuntzak malgukariak dira, arimaren eta izpirituaren mugimenduak eta pentsatzeko ekintza hobekien adierazten dutenak, erran-nahia eta erlazioa bateratzen dituztenak (Schleicher 1852). Euskara ez bezala, frantsesa eta gaztelania hizkuntza malgukariak dira. Vinsonen arabera, hizkuntza eranskariak zibilizazio maila apalari dagozkio eta non eta ez diren beste hizkuntza mota batzuen eraginpean sartzen, ez dira maila gorago baterantz arrakastaz garatuko.

Schleicher-ek zioenez, malgukari izan ondotik, hizkuntzaren garapenaren ondorioz flexio-sistemaren endekatzea dator eta ondotik hizkuntza suntsitzea, eta Vinsonek ere honela zioen 1877an; Schleicher-en ustez hizkuntzaren gibelamendua gauza naturala da eta beraz, hizkuntzalaritzaren aztergai izan behar du. Vinsonek zioenez, hizkuntza eranskariak bestelako hizkuntza (isolatzaile edo malgukari) baten eraginez bakarrik abiatu ahal izan dira iraungitzeko bidean, eta euskararen egoera hauxe dela uste zuen. Unamunok uste zuen euskara aditz arloan eranskari izatetik malgukari izatera iragaten ari zela: *como el paso de la antigua conjugación aglutinante a la conjugación analítica con el auxiliar*. Vinsonek 1867an zioenez, malgukari izatetik hurbil dagoen aldiari kokaturik dagoen hizkuntza da euskara eranskaria.

Euskal hiztegi bakana ere salatu zuten garai hartan hizkuntzalari kanpotar nahiz etxeko zenbaitek, adigai abstraktuak edo ideia orokorrak adierazteko ez duela balio: Francisco Grandmontagne, Hovelacque, Ramiro de Maeztu, Unamuno edo Vinson aipa ditzakegu. Ideia hau Hovelacque-k jaulki zuen lehenik, baina Ricardo Gomezek dioenez, Vinsonen iritziari jarraituz adierazi zuen hori (2007: 169). Hovelacque eta Vinson hizkuntzalarien ustez euskal lexikoa ez da gai goi mailako kulturarako. Campionek 1899an ideia honi aurre egin nahi izan zion (Zalbide 2007: 982). Hona Unamunoren hitzak (1884): *el euskera es pobrí-simo en voces significativas de objetos espirituales o suprasensibles y hasta carece de términos que expresan ideas abstractas en general*. Achille Luchaire ere irizkide zuen erran honetan.

3.4. Euskararen corpus plangintza Ipar Euskal Herrian

XIX. mende Erdiko euskal gramatikarien asmoa hizkuntza doitzea eta taxutzea zen. Eman dezagun Zuberoko adibidearen berri: euskaraz taxuz idatz zedin eta halako literatura euskalki bat finka zedin nahi zuten, Xahoren hitzetan bereziki. Intxauspek ere helburu hori bera zuen 1858ko bere aditz taulen bilduma eraiki zuenean. Zuberotar haien ustean, dohain bereziak ditu Zuberoko euskarak. Xahok zioenez, euskalkietan zuberera da erregularrena eta perfektuena. Intxauspek ere antzera zioen: *zuberera da aldaera osoenak dituen, eta flexioa, berriz, soilena eta erregularrena du*. Ez da zertan adierazi Intxauspek 1858ko adizkitegi luze hartan dakarren egitura guztiz aberatsa eta txundigarria dela, ez dela zuberotar hiztun arruntek egunorozko jardunean darabiltenaren parekoa.

XIX. mendearen bigarren erdian euskarago zen sistema grafikora iragan zen: Intxauspek tradizioko grafia sistema frantsesari hurbil idazten zuen, ez zeritzon egoki tradizioko bidea uzteari, baina mende bukaerako *Almanak Uskara edo Ziberouko Egunaria*-n, ia grafia guztia euskaldundurik zetorren, <ou> / <u> eta <ch> / <tch> salbu. *Eskualduna*-k ere sistema hori baliatzen zuen Zuberoko Constantin zaharraren idazkietan; 1921-1976 bitarte argitaratu zen *Gure Herria* aldizkarian gauzak aitzinatu ziren: <u> / <ü> bereizi zituzten xiberotarrek, frantses sistemaren oihartzun bakarria <ch> / <tch> zen.

Hizkuntzaren corpusaz dihardugula Jean-Pierre Duvoisin ezpeletarraren ekimena aipagarri da grafiaren euskararatze alorrean, bide-erakusle izan baitzen; errate batera, Jean Hiriart-Urrutik 1858ko haren *Laborantza liburua*-ko grafia eta zainketa maite zituen; grafia berria *Eskualduna*-ra ere eraman zen. Duvoisinen grafia sistema egungo euskararena bera da, <x> eta <tx> baizik ez ditu falta, Ipar Euskal Herriko ohiko <ch> eta <tch> dakartza hark. Patxi Altunak 1986an erakutsi bezala, Duvoisin *Eskualduna*-ko estilo zuzentzaile izan zen eta baita Abbadiaren jokaldietako sariketetan ere. 1900erako gaia bideratuxe zegoen, 90eko hamarkadan babes handia jaso zuen grafia berriak *Eskualduna* kazetan. 1850eko eta 1890eko egoerak ez ziren inola ere berdinak, Ipar Euskal Herriko corpus plangintzak emaitzak zekartzan: *guiçonec* idaztetik *gizonek* aldaera idaztera mende erdi horretan iragan ziren. Garai hartarako, *mutico* / *mutiko*, *oquer* / *oker*, *cerbait* / *zerbait* auzietan iritzi gehienak bateraturik zeuden.

Baionan 1911n eratu zen *Cercle d'Études Euskariennes* erakundeak ortografia bateratu nahian jardun zuen Ipar Euskal Herrian, baina Europako gerra hastearekin eten zuen ibilia: Julio Urkixo, Georges Lacombe, Gavel, Pierre Broussain, Jean-Baptiste Constantin «Joanes garaztarra» eta Albert Constantin, Jean-Baptiste Daranatz, Nicolas d'Arcangues, Alexis Durisburu, Jean Etxepare Bidegorri, Martin Landerretxe eta Albert Léon ziren partaide. Idazteko arauak

erabaki eta bateratu zirenean, Ipar Euskal Herrikoen eskarmentua garrantzizkoa izan zen, Gavel batena, adibidez.

Oro har erran daiteke mende hasierako euskaltzaleen arrangura bi aldeta-rik zetorrela: euskara gero eta gutiago mintzatzen zen eta mintzatzen zena ere traketsa zen usu. Adstratu egoeran dauden hizkuntzen artean elkarreragina ger-tatu ohi da eta honela izan da euskararen eta erdaren artean ere. Aski da orduko euskal idazle edo euskaltzaleen kexuez ohartzea, Euskal Herrian erdal maile-guek ahozko euskaran zuten sarrera zenbatekoa zen jabetzeko. Hiriart-Urruti mindurik ageri zaigu 1896an, ohiko euskal hitzak beharrean, premiarik gabeko hainbat mailegu entzuten zela euskaldunen ahotik, *beti edo ardura frantximant hitzak dariozkate*; adibideak herronkan dakartza:

Nola ekartzen zira? / Nola zira?

Gure granerak enormiak dire / Gure granerak edo soilaruak, edo selauruak anitz handiak, gaitzak handiak dire edo Gure bihitegiak, belarte-giak ezin handiagoak dire

*Drole da; nire haurra cependant orai arte beti assidu izan da eskolarat
Jaun hunek introduisatuko gaitu barnerat / sartzea, sarraraztea*

*Bonjour; bonsoir; Monsieur le curé / agur; bai zuri ere; Jainkoak
dizuela egun on, gau on!*

parlatzen, erresponsabilitatea

clotura / hesi edo harrasi; bordura / alor bazter

*promes, dispozizione / ezkontzeko xedetan direla, elgarri hitzemanak
direla*

*Meza bat Monsieur eta Madame edo Mademoiselle holakoaren partez /
meza bat holako etxeko-nausiaren edo etxekoandreaken izenean*

Zuberoako Larrainen 1884an sortu lekuko batek, gerlan alemaniarrek atxiloturik zenak, honako maileguak baliatu zituen Hermann Urteli 1916an ipuin bat kontatzean: *afrentü egiten* 'iraintzen', *arrakontratü* 'buruz buru egin', *atzeta* 'onets', *blesatü* 'zauritu', *genatzen* 'gogaitzen', *konfjüs* 'zalantzati', *ofentsatü* 'samindu, iraindu', *okasionea* 'aukera', *pünitü* 'zigortu', *thürmentiak* 'oinazeak'. Ez dira, noski, guztiak maila berean gordinak, batzuek tradizioa bai-tute Zuberoako hizkuntzan eta literaturan, baina horien arteko batzuetan bada aski gordintasun.

Arazo lexiko hauek konpontzen hasteko, hein handian hizkuntzaren gizarte estatusaren galeraren alderdiari eragin beharko zitzaion, baina ez zatekeen kal-tegarri eskolan euskara erakutsi balitz, euskal jendeak hizkuntzaren maila jasora eskolan euskaraz inguratzen hasi balira. Hori egin ezean —eta egiari zor, Ipar

Euskal Herrian ez zen egin—, bestela ere zerbait aitzina zitekeen auzi honetan, euskal idazleei begira bederen: euskal hiztegiak behar bezala eginez eta hedaraziz. Alderdi honetatik, Azkuek euskalki guztiak baliaturik 1905-6an ondu *Dictionnaire basque – espagnol – français* da nabarmenena, nahiz, hasieran bederen, Ipar Euskal Herrian Azkueren hiztegiari ez zitzaion abegi onik egin. Larresoroko seminariotik ale bat bera ere erosi ez izanaz nahigabea erakutsi zion lekeitiarrak Broussaini 1905/XI/26an; egia erran, mende erdi luzea behar izan zuen 1500 aleak saltzeko. Lhandek hasi eta Lafittek landu zuen hiztegia Ipar Euskal Herriari begira eratu zen (1926); bertan adierazten da hitzak orokorrak diren, ala Lapurdi, Baxenabarre edo Zuberoakoak diren; Azkueren eta Maurice Harrieten hiztegietan oinarriturik egin zen hiztegi hau; bertan balio handikoak dira Lhandek Zuberoako Zalgizen bildu hitzak. Halaber, erdaratikako euskal hitzak izarño batez markaturik datoz. Baziren gero herri xeheari begira egin ziren beste hiztegi komertzialago batzuk: frantsesetik euskarara jotzeko tresna André Tournier-ek eta Lafittek ondu zuten (1953); hitz berri gabekoa da, bakan batzuk baizik ez dakartza eta euskara dakiten frantses hiztunentzat pentsaturik dago.

Arlo fonikoari lotzen bagatzaizkio ohartuko gara izan direla erdal hotsak euskal fonemen *inventarium*-era egokitu direnak, euskal egituran aurkitzen zuten hots idurienera jo dutenak; baina izan dira euskal sisteman lekua egin duten hots arrotzak ere, gerora euskaraz fonema bihurtu direnak. Fonema bihurtzeko bidean, hots berriak mailegu anitzetan eta kokagune foniko ahalik eta ugarienetan agertzea izaten da baldintza.

XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran sortu ziren Ipar Euskal Herriko hiztunek euskal fonema idurienei egokitzen zizkieten frantseseko hainbat fonema; gure aldiko hiztun ipartarengan, guk ezagutu ditugunengan bederen, ez ziren ohikoak XXI. mendearen hasierako lekuko ipartar batzuen euskararen ageri diren frantses fonema guti batzuk; artean beste euskal fonema batzuen bidez egokitzen ziren, baina egungo euskal mintzoan frantseseko era gordinean ageri dira. Irantzu Epeldek Donibane Lohizunen 2007an bildu dituen adibideetako egokitzapenak berriskoak dira Ipar Euskal Herriko euskararen: mailegu ugariaren eraginez bokaletan *ü* palatala txertatu da, eta kontsonanteetan [v] ezpain-horzkaria, [ʒ] txistukari sabaiaurrekoa eta [z] ahostuna, hondarreko hau *müze* ‘erakustokia’, *kuziniera* ‘sukaldaria’, *gaza* ‘gasa’, *prezüira* ‘gatzagia’, *kazerna* ‘kuartela’ maileguetan. Lehenago ere Ipar Euskal Herriko hainbat hiztunengan —baina ez zaharrenen artean edo zuberotarretan— entzuten zen [R] ubularea ere aipagarri da (Epelde 2012: 317-8).

3.5. XX. mendea: biziberritu nahi eta ezin

Ezin ukatu da euskaldunen eta Vinsonen arteko XIX. mendeko eztabaida frankok hizkuntzaz kanpoko osagaiak dituela: Vinsonek eta Unamunok euskal foruek askatasun izaerarik ez dutela irizten zioten eta gai minbera da hau Euskal Herrian. Vinsonek zioenez, zibilizazio eta aitzinamendu oro bat-batean desgertzen da Espainia eta Frantzia elkartzen diren ingurumari geografiko horretan, Euskal Herrian. Hondarribia eta Hendaia alderatzen dituenean bi errealitate antagoniko dakuski: heriotza, iragana, monarkia, feudalismoa eta behar gorria vs. zori ona, demokrazia, Errepublikak, etorkizuna, bizia (Villasante 1979: 304). Euskaldunen adimena loak harturik dagoela zeritzon Vinsonek (1867), apezten eragin handiak euskaldunen aitzinamendua galarazi duela; Iñaki Aldekoaren iritzia iduria da (2008: 217, 223-4, 228).

Vinsonek uste zuenez, euskara ahanzten dutenean euskaldunak beren auzoen pare izatera iritsiko dira; ez zuen uste euskara XIX. mendeko izaera demokratikoarekin ongi ezkontzen zenik (1878). Vinsonek eta Unamunok uste zuten, hizkuntza eranskaria duen euskal gizartea eredu militarrean aingura botarik dago, baina hizkuntza malgukaria duten espainiar eta frantses gizarteak eredu industrialari dagozkio. Ereduen ikuspegi hau H. Spencer-en gizarte-darwinismoari dagokio: antzinako gizartea → gizarte militarra → gizarte industrialia da garapenaren norabidea (Gómez 2007: 174). Euskal Herria Espainiako gizarte industrialean sarturik baitzen, euskara galtzea hobe zuela irizten zion Vinsonek.

Bonapartek, Campionek eta Manuel Gorostidik Vinsoni aurre egin zioten: Euskal Herrian kultura eta alfabetatze maila gora zegoela zeritzoten eta euskaldunak ez direla arlosteak. Vinsonek euskaraz erantzun zien, Iruñeko *Revista Euskara*-n (1879): euskara maite zuela erraten zien, baina aitzinamenduak etenik ez duela izanen adierazirik. Frantziako prefekturak Ipar Euskal Herriko eskoletan euskara galaraztea, ordea, begi onez ikusi zuen Vinson errepublikazaleak 1879 urte hartan berean, Frantziako hezkuntza nazionalaren lehen xedea frantses jendeak sortzea dela uste baitzuen, nahiz, paradoxikoki, Vinsonek euskara maite zuela aldarrikatzen zuen.

Garai hartako Ipar Euskal Herrian apezak ziren euskaltasun etnikoaren lemazainak eta beren idazkiei ideologia arras integrista zerien. Nolanahi ere den, ez gara adierazten ari Iparraldean errepublikaren aldeko ideiak zituen euskaldun euskaltzalerik ez zenik (J.-B. Elizanburu olerkaria, errate batera), edo sendagile euskaltzalerik ez zegoenik, edota Hegoaldean euskaltasunak apezten bermerik ez zuenik, gauzak ez dira hain ximpleak.

Alta, Hegoaldeko hirietan kulturaren aldeko euskal aldizkari batzuk aterarik, eta Iparraldean nekazarien gizarteko harat-honatak leial eta xorrotx jarrai-

tzen zituen *Eskualduna* astekari xuria argitaraturik, euskararen etorkizuna ez zen aise trenkatuko. Euskal eliteko handiki batzuek sumatzen zutenenez, estatuaren arrazioia eta indarra iraultzeko, auziaren sakonean borondate esplizitu eta teorizatua harilkatu beharra zuten euskaldunek: pentsaera hori batik bat Hegoaldean zebilen.

Oro har, hizkuntzaren galerari norabide aldaketa eragingarria ezartzeko, funtzio berriak eskuratu behar zituen euskarak: aurrez aurreko ahozko ohiko jardunari ez zitzaion aski irizten; euskarak eguneroko zinezko tresna behar zuen izan irakaskuntzan eta administrazioan, lanbide berrietan edo arlo politikoan... Esparru horiek guztiak erdarari utziz gero, lanbide berri horietara joko zuten euskaldunek ezinbestean erdara baliatuko zuten: lanbide berrietan eta eguneroko bizi arrunteko beste hainbat arlotan euskarak behar zituen funtzio berriak irabazten ez bazituen, ordura arteko gizartean eta bizimoduan bermaturik zeuzkan ohiko funtzio arrunt edo xeheagoak ere galduko zituen. Perspektiba makurra zen euskararena, hil ala bizikoa.

Adierazi dugu XX. mendeko Frantziako bi gerrek euskal gizartean eragina izan dutela, gudu horietan partaide izan diren ipartarrek Frantzia handiarekilako identifikazio politiko, nazional eta sinbolikoa inoiz baino gehiago barreneratu dutela: euskaltasun etniko-kulturalari kolpe latza eragin zioten 14ko eta 39ko gerlek. Berebat, gauza jakina da Frantzia handiaren praktika politiko-administratibo zentralistak euskararen aurka eta frantsesaren alde jo duela: bi estatu handietan euskararen aurkako politikak areagotu dira. Hegoaldean Primo de Riveraren garaian eta 1939tik honat zigorrak legeak esplizitaturik eta formulaturik zeuden: biloa moztu zitzaion euskaraz mintzatzen entzun zitzaion hainbat eta hainbat emaztekiri. Iparraldean euskaraz jarduteko ezintasuna inplizitua zen, mozturrotuago zetorren, baina hala Espainiako nola Frantziako legeriak zehaztasun handiz euskararen aurka ziharduten; bakoitzak bere estiloa zeukan, baina eragina berbera zen: erdararatzea, deseuskalduntzea, espainiartzea, frantseseta.

II. Mundu Gerraren ondotik, 1956ko Parisko I. Euskal Mundu Biltzarrak argi eta arnasaldi zerbait ekarri zuen euskaltasunarentzat; dinamika euskaltzale kulturala eta politikoa berriz abiatu ziren, halako *Bigarren Euskal Pizkunde* bat gertatu zen, hala Hego nola Ipar Euskal Herrian:

Euskal Kanta Berria izendatu zenak kulturazko bultzada handia eman zion euskarari: *Ez dok amairu* taldea nabarmendu behar da eta Ipar Euskal Herrian Michel Labeguerie uztariztarraren kantuak.

60ko hamarkadan *Euskara Batua*ren bidea urratu zuen Baionako Euskal Idazkaritzak eta 1968ko iraileko Arantzazuko Bilkuran estandarizazioa finkatzen hasi ziren euskaltzainak. Oñatin urrian ofizialki aurkeztu behar zen, baina

garai hartako arrazoi politikoak bitarteko, Franco jeneralak Hegoaldean *Estado de excepción* ezarri baitzuen, onespen ekitaldi ofizial eta publikorik gabe abiatu zen euskara batua.

Euskara etxetik ikasirik zekarten hurrei edo eskolara frantsesa mihian heltzen zirenei heziketa euskalduna emateko, Lapurdin 1969an lehen ikastolak ireki ziren eta Ipar Euskal Herriko Ikastolen Federazioa eratu zen, *Seaska* izeneko: lehen ikastetxea Arrangoitzen abiatu zen eta ondotik Baionan eta Donibane-Lohizunen. Ondoko urtean, berriz, Senperen, Hendaian eta Baxenabarren Donibane-Garazin. Amiküzen ere bada ikastola Donapaleun, jarraipena eta iraupena ziurtatzeko Estatu Frantseseko hezkuntza ministerioaren aurka jokatu behar izan dituen borroka latzengatik aski ezagun bilakatu dena. Hasieran bi urtetik bost urte arteko hezkuntza eman zuen, baina 1977-78 urtetik harat urte gehiago artekoa.

Politikari dagokionaz bezainbatean, Ipar Euskal Herrian abertzaleak *Enbata* taldearen inguruan bildu ziren (1960) eta izen bereko aldizkaria argitaratu zuten. 1963an lehen *Aberrri Eguna* antolatu zen Ipar Euskal Herrian, Lapurdiko Itsasun hain zuzen ere. Lehenxeago Euskal Herriaren beregaintasun politiko-administratiboa bilatzen duen *Euskadi Ta Askatasuna* edo ETA erakunde armatua 1959an eratu zen Hegoaldean eta 70eko hamarkada aitzintxoan ekin zion Espainiako estatuaren estamentu zenbaiten aurkako odol-ekintzak eta heriotzak gogor egiteari. Erakunde honen iparreko ataltzat jo dezakegun *Iparretarrak* ere abiatu zen, baina jardun armatua intentsitate apalez garaturik.

Nolanahi ere den, ekintza euskaltzale edo abertzale hauek guztiek ez dute erdietsi Ipar Euskal Herrian gertatzen ari den berezko hizkuntzaren —euskararen— galera saihestea. Erdararatze edo frantsestea, deseuskalduntzea, indarrean etorri dira hondarreko hamarkadetan eta giro eta egoera hitsa utzi dute euskarentzat.

3.6. Euskararen egoera Amiküzen

Egun inor ez da harritzen entzunik Amiküzen euskara biziki ahul dagoela: ibar edo eskualdean euskaraz mintzatzeko gai ez den hainbat eta hainbat heldu eta gazte dago, ez gaude Oihenarten garaian; herri xehea euskaldun elebakarra zen orduan Donapaleun. Zuberoan bezala, Amiküzen ere gainbehera doa euskara; orain artean tradizioko hizkuntzaz ezaxola erakutsi duten bertako hainbat lagun eta handiki, beren bizi guztian inguruan euskara entzutera usaturik zirenak, orain bai, euskara zinez galtzen ari dela ohartzen hasi dira.

Hiri honetako Etxekopar Lizeoaren zuzendari izan zen Junes Casenave-Harigile zuberotarrak idatzirik dakigu haurren ezagutza errekaraz bidean zihola duela hiruzpalau hamarkada (1983: 8):

Azken urte horietan, iduri du hurrek, hamaika urtez goiti bigarren mailako ikastetxeetan egoten bait dira, galtzen ari da gure mintzaira ederra.

Jatorriz amiküztarra den Antton Luku euskal idazleak halako marra irudikatu du berriki (2009: 47-48): erdaldunduz doan eremu ordokia dago batetik, kooperatiben jardunak Zuberoako Pettarra, Amiküze eta Bearno apala bateratu dituelarik; mendialdea bere horretan gelditu da, euskaldunago eta txiroago.⁸ Eta egia hau ez da atzo goizean ezagutu edo bilakatu, 1913an Pierre Broussain mediku eta auzapez hazpandarrak Rudolf Trebitschi ziotsonoz galduz ziholan euskara Donapaleun (Etxebarria 1994: 51). Amortzeko berriemaile Adolf Berdecok Trebitsch honi ziotsonoz, ordea, *Amikuzeko xoko huntako eskuara... amikuztarrek, maite diñi dena den* (65). Eta egia dateke hain segur amiküztar anitzek euskara maite dutela, baina eskola frantsesak, administrazio zentralistak, modernotasunak, euskal hiztunen ahalke ezkutu zenbaitek ala Frantzia Handiaren ideiak eta eraginak euskararen aurka eta frantsesaren alde jokatu dute hondarreko hamarkadotan eskualdean.

Eta arrazoiek eta ondorioek elkar elikatzen dute, euskal hiztunak ttipitzean, gazte erdaldunek ere ez baitute arrazoi berezirik ikusten euskara ikasi eta baliatzeke, ez baita norekin euskaraz ari; Arbotiko lekuko baten hitzek argi adierazten dute arazoa:

hartako zie erten, heskuara, azkenian zendako ikhasiko ütēn, parce que ezpita... hen üngüría hola in eta ageri zü, mēme Baiunat juan eta re lehen eta... heskualdünak bazitzün Baiunan, Handaian, Sein Andresen, uai etzün biziki hatzemain, lehenako zaharrak, güe idürikoak oono

Amiküzeko euskararen ezagutzaren gaia argitzen hasteko aski dugu duela berrogei urte baino gehiagoko datuei so egitea. 1972 garaituan ezagutzaren halako inkesta handi bat kudeatu zuen Irizar dialektologialari azkoitiarrak Euskal Herriko bazter guztietan, lekuan lekuko laguntzaileak baliatuz jakin baitzuen herri bakoitzeko biztanleen artean zenbat ziren euskaldunak (1981: 209). Guk Amiküzeko emaitzei so egiten diegu; bildumako datuak udalen arabera bildu baitziren, emaitzak udalka dakartzagu, ezin eman ditugu herrika.

8 Gauza jakina da, bestalde, Ipar Euskal Herriko mendialdean, goratasun jakin batetik goitiko biziguneez, nekazaritza eta abeltzaintza gaietan Frantziako erakundeetarik diru-laguntza berezi bat biltzen dutela. Berebat, ardiari ari denak badaki latz lan egin beharko duela, baina ezin erran daiteke esneak eta gaztak ez dutela mozkinik uzten; gogor lan eginez bizi diren artzainek ateratzen dute bizibidea.

Ageri denez, herri ttipietan praktikan jende gehiena euskalduna zen, hizkuntzaren transmisioak ez zuen etenik izan kasik, Donapaleu zen gune bakarra euskaldun ez ziren erdaldunek ehuneko gora zutena, 41'2 hain zuzen ere, funtsean hamarretik lau lagun:

Herria	Biztanleak	Euskaldunak	Ehunekoa
Aiziritze	219	170	% 77'6
Amendüze-Unaso	280	270	% 96'4
Amorotze-Zokotze	249	247	% 99'1
Arberatze-Zilhekoa	175	170	% 97'1
Arboti-Zohota	324	300	% 92'6
Arrieta-Sarrikota	444	425	% 95'7
Behaskane-Laphizketa	428	350	% 81'7
Behauze	347	346	% 99'7
Bithiriña	400	376	% 94
Donapaleu	2.293	1.350	% 58'8
Gamue-Zohazti	178	173	% 97'2
Gabadi	202	152	% 75'2
Ilharre	169	160	% 94'6
Labetze-Bizkai	226	176	% 77'8
Larribarre-Sorhapürhü	214	214	% 100
Lüküze-Altzümarta	271	253	% 93'3
Martxüeta	292	284	% 97'2
Oragarre	596	550	% 92'2
Ostankoa	106	100	% 94'3
Uhartehiri	214	212	% 99
Orotara	7.627	6.278	% 82'3

Datuok erakusten digutena da 1972an Amiküzeko gizarteak etxean euskara transmititzen zuela, nahiz gero Donapaleu hirian etxetik euskara ikasi gabeko anitz jende egon, baina ibarreko herrixketan etxean euskara erakusten zitzairen haurrei, gero hauek eskolan frantsesa baizik entzuten eta baliatzen ez bazuten ere, eta logika honen arabera, eskolako errealtateak eta hezkuntzaren inguru-

mariko prestigioak eragina ukan zuketan etxeko hizkuntzaren hautu, erabilera eta ohituretan.

Badira, bestalde, Amiküze ondoko herri batzuk Zuberoari dagozkionak, baina Frantziako administrazioak Donapaleuko kantonamenduan sartzen dituenak eta mintzoaren aldetik Amiküzeko moldea egiten dutenak; Dominixaine-Berroeta eta Ithorrotze-Olhaibi dira; Etxarri eta Arüe ez ditugu sailera ekarriko, mintzo zuberotarrari hurbiltzen zaizkiolako, bereziki Arüe; Lohitzüneko euskara ere ez dugu Amiküzekora ekarri nahi, nahiz ez dabilen hain urrun; aldiz, Oihergikoa garbi dakusagu ez dela Amiküzekoa, Zuberoakoaren barrenean Ainharbekoa edo Ündüreinekora bezain nabarmen kokatzen ez baldin bada ere.

Herria	Biztanleak	Euskaldunak	Ehunekoak
Domintxaine-Berroeta	707	500	% 70'7
Ithorrotze-Olhaibi	85	65	% 76'4

Datu hauek erantsirik ohartzen gara 1972an Amiküze eskualdeko 8.419 biztanleentatik 6.843 lagunek zekitelako euskaraz, egiten baitu % 81. Ez da inola ere egun Amiküzenera ageri den egoera bera, hondarreko berrogei urteotan euskaraz zinez behetiko joera hartu du Amiküzenera eta erran liteke galbidean dela. Egungo biztanle eta euskal hiztunetako datu eta ehunekoak ez dugu guk, horregatik dakargun informazioa *cum mica salis* hartu behar da, baina amiküzitarren artean herriz herri eta hiztun bila etxez etxe ibiltzean zer aurkitu dugun adieraziko dugu bederen.

Adinetakoen eta helduen munduan frantsesak indar handia hartu eta berebiziko aitzinamendua egin du. Eman dezagun, Donapaleuko karraketan jaun eta jabe da frantsesa, laborarien euskal mundutik hirira jo duten adinetako euskaldunak erdarara lerraturik ikusi ditugu hiri honetan. Baina frantsesa herri txikietarara sartu da ere, guztiz laborari giroko bizimoldera, orain artean tradizioz eta ohituraz erabat euskarazko terminologia eta erranmoldeak bizi zituen alderdira, euskaraz bizi zen laborarien mundura. Eguneroko ohituretara frantsesa indarrez sartu da eta oro har mintzaldaketa eragin du; hein handian erran liteke transmisioak eten nabarmena ukan duela, belaunaldi batean ala bitan amiküzitarrek euskaraz heztetik frantsesetik heztera iragan direla. Adibideak herri txikietan ikusi ditugu, gure begien aitzinean eta euskaltasunaren alderditik so egini, gogo-bihotzendako eta belarriarendako mingarri gertatzen da, baina ikuspegi

inpresionista eta baloratiboaren ematea baino gehiago, ikusitakoaren aurkeztea da gure eginkizuna.

Oragarren ikusi dugu euskara guztiz makesturik duen 40-45 urte inguruko heldu jendea, komunikatzeko zailtasun handian; hala-hala gertatu zaigu Oragarreko auzo Bartan ere. Laphizketan entzun dugu etxeko seme-alabek egun aita-amei kritika egiten dietela, baizik eta euskara ez dietela transmititu eta erakutsi. Berebat, Gamueko adinetako lekukoa kexu entzun dugu, erranez herriko gazteak ez direla beren artean euskaraz mintzatzen:

eskuara, be^har tzi gauza den bezala eRan, eskuara galdü duzu amiña at, zeen eta gaztek etzï ari eskuaraz, heRian e uai, elgaRen artian e gazte ^hoiek etzï seküla entzïten eskuaraz, be^hi frantsesez ai tziï, pilotan ai dielaik e ikhusten tziï nik gazteak or, hamoost-hamasei urtheko...

Biziki nabarmena da euskaraz komunikatzeko ezintasuna haurren artean ere, transmisioaren etenak hor du erakusten aurpegirik beltzena. Aitañi-amañi euskaldunak ikusi ditugu hurrei frantsesez mintzatzen; eman dezagun, Sorhapürün, Frantziako futbol selekzioaren elastikoa soinean duen mutikoari, euskaraz xarmanki egiten duen aitañi frantsesez mintzo; Zokotzen haur batzuei amañi frantsesez ari zen ere. Dakigunez, Frantziako hezkuntza sistema ofizialak frantsesez dihardu Ipar Euskal Herrian eta egun bederen berebizikoa da eskola nazionalaren eragina. Ez dugu ukatzen Ipar Euskal Herriko eskoletan gela zenbaitetan euskaraz oren zenbait sartzen duen hezkuntza ildoak ere badela, baina ez dakigu horrek nolako emaitzak dakarzkion euskarari: teknikari zenbaitek ondu txosten kualitatibo edo kuantitatiborik ez dugu eskuartean.

Hurrei dagokienez egun ildo nagusia frantsestea izanik ere, ez genuke errealitatearen berri behar bezala emanen aurkako adibideak estal bagenitza; Garrüzeko etxe batean hurrei euskaraz egiten zaiela ikusi dugu, baita Arberatzen ere; Behaizen bi etxetan ikusi dugu; batean hurrek euskal antzerkia egiten zuten larunbat goizetan eta bestean euskaltzain urgazlea dute alaba. Etxeetan ezagutu ditugun haur horiek, gainera, Amiküzeko ikastolara joan dira eta gauza jakina da euskarazko hezkuntza ukan duten haurren ikasketen emaitza orokorak ez direla eskola nazionalera joan diren haurrenak baino makurragoak izan. Bestalde, gure adinetako lekuko batzuen artean ikastolaren fenomeno guztiz onetsirik dago. Gamueko lekukoak Arberatzeko gazteen mintzatzeko ohitura erdaldunaren gaia atera orduko, berehalakoan adierazi dio emazte martxüetarrek ikastolan haurrak euskaraz hezten direla:

ba, bena behe'izi gauza at erran: badizi herrian... ikhastolan eta bidira familia frango ta haurrak heskuara ikhasten tzie ik^hastolan! Hek ^heskuaraz ai tuk, e!

Adinetako gure lekukoei usu entzun diegu aste hondarrean pilota ikusteko edo meza entzuteko usu Hego Euskal Herriko *Euskal Telebista* ikusten dutela, baina ez dakigu astean zehar horri behatzeko ohiturarik duten, *Iparraldeko orena* saioa entzun ohi duten, adibidez. Bestalde, hainbat eta hainbat lekukok adierazi digute euskarazko *Irulegi Irratia*-ri behatzen direla, euskal irratien emankizunek beren interesa eta arreta bereganatzen dutela.⁹ Aitortu behar dugu egon garen sukaldeetan ez dugula *Herria* astekaria ikusi, baina guk ikusi ez ukanetik ez daiteke baieztarrek *Herria* kazetaz interesik ez dutenik, irakurtzen edo jarraitzen ez dutenik.

Eta *ekharri du solhasak* berreuskalduntzearen gaia. 1971tik diharduen Amiküzeko ikastolak 11 urte arteko 70 haur biltzen ditu egun haur eskolan eta lehen mailan.¹⁰ Halaber, helduen berreuskalduntzean AEK erakunde ezaguna da aipagai, bertan urte oroz 50 bat lagunek euskalduntzen dihardute.¹¹

Berebat, Amiküzeko eskualdean euskalgintzari eta kulturari alderdi globaletik ekin beharra sumaturik, Manex Erdozainzi-Etxart idazle eta poetaren liburutegiaren inguruan Donapaleuko Frantziskanoetan biltzen ziren kide batzuek eta beste hainbat eta hainbat amiküztarrek euskararen alde modu eragingarriagoan eraunsteko premiak hartaraturik, *Zabalik elkarte*a ageri zaigu egun ibarrean arras nabarmenki: *euskararen erabilera biziko urrats guzietan lagundu eta hedatzea* dute xedea, *bizi publikoan eragina duen edo zoin aktore publiko nahiz pribaturi buruz joanez, bakoitzaren egun orotako lanaren ondorioz euskararen erabilera ahalbidetzeko eta normalisatzeko norbanako eta taldeen urrats guzietan*.

Elkarte honen inguruan hainbat taldek eta nahikarik eraunsten dute euskaltasunaren eta oro har kulturaren aldeko franko xedetan: *Aldaka* gatzetxeak, *Kitzikazank* antzerki taldeak, musikaren inguruko jendeek, mintza-praktika taldeek, Amiküzeko historia soziologikoa aztertzeke borondatea duten lagunek, toki-izenen behatokia eratzeko nahiak, alderdi teorikoan sakondu nahirik erazten diren soziolinguistikako formakuntza-zikloek, bizi-bizi dagoen webgune baten antolaketak dakartzan gizarteratze saio dinamikoek...

Adierazi dugu euskaltasunak oro har ahulaldi handia jasan duela hondarreko hamarkadetan Amiküzeken, hori ezin ukatua da, eta bistan dena, euskalgintzak lan

9 Kontrol-taldean lagundu gaituen Gabi Agerre larribartarra *Irulegi Irrati*-ko langile izana da.

10 2016/II/4ko arratsaldeko 3'30-4'30-ak artean, Jean-Claude Mailharin amendüztarrarekin Donapaleuko ikastolan Coline Urcun-Marco irakasle lüküztarraren haurren gela ezagutzeko zortea ukan dugu, 9-11 urte artekoak. 21 haurrekin ariketa batzuk egin ditugu ezagutzen duten ikastolako edo etxeko euskaratik abiataturik Amiküzeko mintzora heltzeko. Ikastolak darabiltzan lan sailen balioa, inplikazio-maila eta kalitatea zenbaterainokoak diren adierazteak leku handia galdeginen luke.

11 Arberatzeko lekukoaren familiako gazte bat ezagutu dugu, Irisarri alderdira ezkondu eta AEKn euskara biziki ongi ikasi duena.

handia du eginkizun eskualdean, baina bizirik dirau eta hainbat jenderen gogoia bero dago euskarari buruz; Euskal Herriko hizkuntzarekiko hotzago ala epelago dauden jende horiengana heldu nahi dute eskualdeko euskaltzaleek eta horretan eraunsten dute; ez dute itxaropena galtzen, gazteak bideari lotzen baldin badira etorkizunean emaitza onak jinen direla.

Honaino idatzi den guztia Amiküzera kanpotik jin den paraxutista baten ikuspegi lausoa da, baina hara non, liburu hau eta lerro hauek idatziak zirelarik, Amiküzeko *Zabalik* taldeko kideek azterketa bat aurkeztu dute 2016/IV/8an: 2015 urteko iraileko haur ttipien eskola sartzearaz dihardute, hizkuntzaren hautuaz datuak eta datu hauez beren irakurketa kuantitatiboa dakartzate.

Ipar Euskal Herri guztian % 9 (2.243 haur) D ereduari ari da euskaraz, % 30 (7.811 haur) B eredu elebidunean eta % 61 (15.995) A eredu erdaldunean, non euskaraz ez den erakusten, baina haurren arteko batzuek baduten hautua euskaraz zerbait entzuteko edo bestela ibilkari gisan. Honela diote Ipar Euskal Herri barreneko eskola sartzeko datuez, euskararendako hobeak baitira:

Barnekaldeko datueri so egiten badugu, ehuneko haundiagoak ikusten ditugu euskararen erakaskuntzan. Damurik, iparraldeko ama eskola eta lehen mailako haurren % 18a dugu Baxenabarre, Xiberoa eta Hazparne eskualdeetan eskolaturik (Hazparne hartu dugu beste bi probintziekin, hurbiltasunagatik eta haur kopuru berdinsuagatik).

	Baxenabarre	Xiberoa	Hazparne
A eredu	913 (% 40)	459 (% 48)	489 (% 39)
B eredu	944 (% 42)	346 (% 36)	513 (% 41)
D eredu	404 (% 18)	151 (% 16)	236 (% 19)
Orotara	2.261 (% 100)	956 (% 100)	1.238 (% 100)

Adierazten dutenari jarraipena ematen diogu duen interesagatik:

Baxenabarren zentratzen bagira orain, eskualdeka ikusten ahal ditugu emaitzak. Jada sumatzen zen bezala mendialdetik beheiti jitean, euskarazko ereduak ere apaltzen dira. Baigorri ja haurren 10etik 9k euskaraz edo euskaraz ikasten du, ondotik Garazin dira emaitza gorenak bi herenekin. Iholdi Oztibarrek aldiz Iholdi aldean elebidun eredurik ez izatea azkar patitzen du.

Baxenabarre	Baigorri	Garazi	Iholdi-Oztibarre	Amiküze	Orotara
A eredia	54 (% 12)	230 (% 35)	179 (% 63)	450 (% 52)	913 (% 40)
B eredia	262 (% 59)	284 (% 43)	55 (% 19)	353 (% 40)	944 (% 42)
D eredia	129 (% 29)	148 (% 22)	52 (% 18)	75 (% 9)	404 (% 18)
Orotara	445 (% 100)	662 (% 100)	286 (% 100)	868 (% 100)	2.261 (% 100)

Amiküzez dihardutenean guretzat biziki interes duten hitzak ageri dira:

Azkenik, begirada Amikuzen zentratuko dugu, hangoak izanik. Ohartzeko gira eskualdeko eremu oso batean herrietako eskolek ez dutela ez elebidun ez imertsio sistemarik eskaintzen. Herri horiek dira: Arberatze, Arboti, Arüe, Behaskane, Etxarri, Domintxine, Mehaine, Mithiriña eta Ozeraine. Nunbait han, Amikuze ekialderat hedatzen den arku bat egiten dute herri horiek, gehienak artoaren eremuan finkatuak, ardiaren eremuko Mehaine eta Mithiriñaren anomaliak baztertzen baditugu.

Amiküze	Eskaintza gabeko eskolan	Eskaintza elebiduneko eskolan	Inmertsio eskaintzako eskolan	Orotara
A eredia	213 (% 25)	237 (% 27)		450 (% 52)
B eredia		343 (% 40)		343 (% 40)
D eredia			75 (% 9)	75 (% 9)
Orotara	213 (% 25)	580 (% 67)	75 (% 9)	868 (% 100)

Gaiaz amiküztarrek egiten duten gogoetaren bidez bukatuko dugu hasi dugun saila:

Aitzineko solasari jarraitzeko, ohartzeko gira eskola elebidunak diren tokietan, haurren % 59a elebian ezarriak direla erran nahi baita, hautua dutelarik, burrasoen gehiengoak euskararen hautua egiten dutela.

Agian, haur horiek ez dute euskara mintzatzen ahalko kurantki, baina hori ere ez denean, ezagutza zero heinean dago.

Urjentzia egoeran gaude datu hauek ikusten ditugunean. Ondoko urteetan B eredia ez bada orokortzen, eta D eredia kopuru handiagoetara heltzen, jakinki belaunaldi euskaldunenak desagertzen doazela pirripitaka ondoko hamarkadan, lanak izanen ditugu sinesteko oraino Euskal Herrian gaudela hemen gaindi.

4. Amiküzeko euskararen corpora: lehen eta orain, idatziz eta ahoz

4.1. Amiküzeko euskararen corpus historikoa

Ez da ongi ezagutzen dugun mintzoa Amiküzekoa, guk dakigularik eskualdeak ez du idazle ezagunik edo testu luze eta aberatsik eman. Jo dezagun: Bona parte printzeak ez zuen lexikoki hain aberatsa den San Mateoren ebanjeliorik Amiküzeko euskarara itzularazi, ez dago liburu idatzi bat amiküztarren lexikoa bere aberastasunean erakuts lezakeenik; hori guztia dela eta, gure liburuaren helburu nagusia Amiküzeko euskararen aurkezpen orokor bat lehen aldiz ematea da, nolakoa den erakustea edo ezagutaraztea: atal honetan mintzo hau ezagutzeko balia ditzakegun liburuak eta ahozko emaitzak aurkeztuko ditugu.

4.1.1. On da lehenik metodologiaz eta lan prozeduraz ohar orokor bat eman dezagun. Idazle zaharren jarduna ardatz geografikoaren arabera interpretatzean beldurrez dago ikertzailea; orduko idazleek sasoi hartan baliatu zituzten hizkuntza-aldaerak eta orduko ezaugarri haiei dagokien geografia-kokagunea lotu nahirik ikertzailea lanean hasten denean, ikuspegi aktualistak kalte egiten ahal dio filologoari: orduko idazleen mintzoa ardatz kronologikoaren arabera aztertetik ardatz dialektalaren arabera ikertzera iragatean, dialektologian eraunsten dugunok irudipena dugu, dialektologiaren azterketa ikuspegi historikoaren arabera ere egin beharrean, ez ote garen, Oihenarten, Jean Tartasen edo 1782ko *Alphonsa Rodriguez* liburu luzea itzuli zuen Lopez jutsiarraren mintzoa egungo euskalki modernoan erakutsiaren arabera aztertzen ari, idazle haiek *orduan* zerabiltzaten hizkuntza-aldaerak, ez ote ditugun aztertu eta sailkatu nahi, aldaera horiexek *egun* dituzten hedadura eta muga geografikoen arabera.

Izan ere, lan du arestian aipatu ditugun hiru idazle horien mintzoa zehazki nongoa den jakiteak eta segurki, desira antzu horri lehen baino lehen ihes egitea du ikertzaileak irtenbiderik hoberena, baina non eta ez ditugun orduko idazkietako datuak eta egungo ahozkoak alderatzen eta erlazionatzen, egin ote daiteke inolako aitzinamendurik hizkuntzaren historian edo dialektologian? Gai korapilatsu honetaz ikus 5.1. § liburu honetan berean.

4.1.2. Aspaldiko idazleetan bereziki aipatu behar da Oihenart. Idazle hau ez da sortzez baxenabartarra, Maulekoa baizik, baina Donapaleura jo zuen bizitzera eta ezkontzera, egokiera hark gizartean goiti jotzeko aukera eskaini baitzion; hiri honetan Frantziako Luis XIII.aren aginduz 1639an seneskalia edo

auzitegia eratu zenean, gure idazleari egokitu zitzaion gertakariaren muin-muinean egotea (Pontet 1994: 632):

Arnaud d'Oyhenart, par son mariage avec Jeanne d'Erdoys héritière de la maison noble d'Erdoys, peut siéger aux états de Navarre comme député de la noblesse ou comme juge et conseiller dans les cours mixtes de Mixe ou de Navarre... Il participe notamment en décembre 1632 à la réformation du régleme[n]t des droits de justice de Navarre...

Ezin pentsa daiteke Oihenartek euskaraz idazten zuenean bizi zen Amiküze ibarreko mintzoa zen bezala islatzeko desirarik zuenik: idazle sena zuen, goitik hegan egiten duten txori horietarik genuen, haren borondatea ez zen testu dialektalak idaztea; ezagutza ere halakoa zuen. Haren lumak ezagun du Lapurdiko literatura irakurtzera usaturik zegoela.¹² Oihenartek bildu zituen atsotitzetan alderdi bateko baino haborotako euskara dagoke; sortu zituen neurtitzetan, berriz, ez da ahozko eredurik ageri, estilo zaindu, landu, jantzi eta barrokoa baizik.

Hurranen adibideak argitu dezala zer adierazi nahi dugun zehazki: idazle zaharrak beren sortzezko edo bizitokiko mintzoarekin identifikatu nahiak dakarren arazoaren eta arriskuaren lekuko da *eu* diptongoaren testuetako agerpena. *EDEL*-ren arabera, egun Nafarroa Beherean *huri* aldaera nagusi da eta halaxe erraten dute, bestalde, Lapurdiko Arbonan, Hazparnen eta Itsasun, zehazki errateko. Gaineratekoan, Lapurdiko Ziburun, Saran, Beskoitzen eta Urketan *uri* ibiltzen da. Zuberoan *ebi* da nagusi egun eta Domintxainen *urria* dakar *EDEL* bildumak. Idazle baxenabartar zaharren edo inguruko jarduna egoera honekin alderatuz gero, badira koherentzia ageri duten batzuk: errate batera, Leizarraga beskoiztarrak *vri* dakar eta Lopezek *huri* (40, 43, 445); Ibarrolako Salaberrik *huri* (27) dakar San Mathiuren ebanjelioan eta Bonapartek Garaziko euskarara egin *Canticum trium puerorum*-en itzulpenean ere *huri* dator.

Aldiz, Oihenartek *uri* dakar (2003: 295) eta Tartasek *urité* (*Olsa*, 117). Oihenarten kasuan aldaera atsotitz batekoa dugunez —698.a hain zuzen ere, *guk uri badugu, izanen duzue ihitz*—, Lapurdin bildua edo izan daitekeela pentsa dezakegu; *ihitz*, bere aldetik, Aturrialdean ezaguna da egun Lapurdin. Halaz, *huri* hitzaren Nafarroa Behereko nahiz Zuberoako erabilera guztiak *eu-* edo *e-* direnez eta *u-* *eu-* edo *e-* eman izana gauza ezina denez, ezaugarri hau idaztean Oihenart eta Tartas Lapurdira begira zeudela pentsatu beste biderik ez dugu.

12 Handikiak *zor utena* 'zor hautena' (2003: 477) darabil olerki batean; *zor* hitzean oinarritu aditz-lokuzioan Nor Nork aditz saila dakar, ez Nor Nori Nork; honelako egiturarik ez da Baxenabarren entzuten, baina Lapurdiko itsasaldean geroagoko lekukotasunetan bai; ordea, idazle lapurtar klasi-koek ez zuten baliatzen, XIX. mendean ageri dira honelakoak jende xehearen gutunetan.

Izan ere, Tartasek berak aitortzen du badela bere liburuan Lapurdiko euskaratik ere. Nora begira egon ote zitezkeen bi idazleok, gogoan ukanik XVII. mendearen lehen erdian euskaraz idatzitako literatura ia oro Lapurdin sortu zela? Ordu arte bederen, liburuak lapurtarrek idatzi zituzten eta haiexek izan zitezkeen baxenabartarren iturri eta ispilu bakarra; artean Zuberoak ez zuen oraino libururik eman, guk dakigula, bederen.

Bestalde, eta arestian Lapurdiko euskararen eraginaz errana hein batez uzkailez, aditz aldaera batzuetan argi dago nor diren ekialdeko eragin gehien jasan duten idazleak, eta ez dihardugu orain xiberotar *phürrez*. Oihenart eta Tartas Zuberoan sortu ziren, Baxenabarreko Amiküzen edo ibar horren ondoko muga bizitzea gertatu bazitzaian ere; alta, guk dakigula bederen orduko Nafarroa Beherean —edo Baxenabarre gehienez bederen— baliatzen ez ziren adibide nabarmenak ditugu haien bien idazlanetan, honelako item zuberotar garbiak haien lanean horrenbeste ez badira ere: *urhentu* ‘bukatu’ (341) dakar Oihenartek eta baita *ahatzte* ‘ahantzi’ (388) ere, Tartasek legez: *eztü ützi ahatzera* (*Ontsa*, 52); *bataz orhit bazite*, *bertzia etzautzü ahatzeko* (*Ontsa*, 74); berebat, Tartasena da *hautse* ‘hautsi’ (*Ontsa*, 130) aldaera. Zuberoako eran dakar idazle honek *bakhitzak* ‘paga itzak = ordain itzak’ (*Ontsa*, 153). Zernahi ere den, Le Quien de Laneufvillek 1786an argitararazi katiximan ere, bokal arteko herskari ahoskabea dugu: *pacatzen* (104) & *paccatceco* (156), Belapeire zuberotarrak dakarren era berean; aldiz, 1782ko Baxenabarreko *Alphonsa Rodriguez* ezagunaren itzulpenak *pagatu* (177) dakar.

Nolanahi ere den, arestiko hizkuntza-ezaugarri hauek funtsean Zuberoako literaturan agertu izanak eta Baxenabarrekoan oro har ez agertzeak ez luke adierazi beharko garai hartako Amiküzeko ahozko mintzoan baliatuak izateko aukera ezinezkotzat jotzen dugula; egun ere entzun daitezke aldaera horietarik batzuk Amiküzeko herri batzuetan. Gure eskualdeko testu zaharrek duten indeterminazio geografikoak eta aingura testu sendo bat ez ukaiteak ez dute aukerarik ematen baieztapen edo ezeztapen kategorikorik egiteko.

4.1.3. Tartas *Arueco Retora* idazlearen mintzoa ahozkotik hurbilago dago Oihenartena baino, baina idazle honen lanean badira dialektologialariak arazotzat hartuko lituzkeen alderdiak: pentsatzen da sortzez sohütarra zela baina idazle hau Arüen egon zen apez. Haren euskarak ezagun du oinarrian Zuberoako mintzoa dagoela, baina aitortzen duen bezala, baliatzen du Nafarroa Beherekoa ere eta uste izatekoa denez, Amiküzekoa edo orduko Amiküzekoaren arras iduria izan daitekeen mintzoa. Irakur zezakeen gehiena Lapurdin idatzia baitzen, *Ontsa hilceco bidia* liburuan (1666, *Ortheceñ*) irakurleari berari aitortzen dio Lapurdiko euskara berarenarekin nahasiko dela. Bigarren liburu *Arima penitentaren occypatione devotaq* 1672an argitaratu zuen, *Ortheceñ*. Darricarrère-k

Amiküzekotzat jo zuen Tartasen mintzoa (1911: 17), baina haren lumatik ez zen baieztapen hori egiteko beharko litzatekeen arrazoi bat bera ere jalgi.

4.1.4. Luis-Maria de Suarez d'Aulan Akizeko apezpikuak Larre segretaria-
ren bidez kristau ikasbide baten onspena izenpetu zuen 1740/III/2an: *Catichima edo fediaren eta guiristino-eguien explicacione laburra*. Akizeko apezpikutegiak gure eskualdea gobernatzen zuen, Amiküze eta Oztibarre, Landibarre barne. Eskualde horretako eliz-agintariak arrangura zuten haurren hezkuntzari ez zitzaiola behar hainbat arreta eskaintzen eta honek eragin kaltegarriak zekartzala: ezjakintasun damnagarria, bizitze gaizto bat, hatsarrerik gabea eta erlijioaren irakaspenez bestelakoa; katixima bat hedarazi behar zela erabaki zuten, *çointan Erreligioneco lehen principiäc içan citen explicatiac manera laño eta arrunt batez haurric mendrenac endelga ahal ditçaqueten beçala*. Aita-amen, nagusi-etxekandereen zeregina zen *haurrerr eta sehierr* eliz-irakaspenen ematea, hainbatean non, horretan jardun ezean heriotzako bekatua egiten ari baitziren; berebat, parroketako erretore eta bikarioak ere beharturik zeuden gaztetxoek heziketan eraunstera, *haurren salvamendiaren daco*. Agiriaren bidez apezpikuak elizgizonak eta haurren hezkuntzan zihardutenak behartzen zituen *catichima haur 'hau' choilqui, eta berce guciac utziric, eracax edo eracaxaazi deçaten parropietan eta herrietan*.

Onespen agiri hau G. Dugue eta J. Desbaratz *liburu saldıçaliaren imprimeriatic* Pauen argitaratu zen euskal katixima datagabe batek dakar; apezpikuak onspen agirian aipatzen duen *catichima haur* Pauen argitaratu zena bera izan behar du, baina ez dakigu Pauko katixima datagabea 1740ko onspena idatzi aitzinetik ala ondotik euskaratu ote zen, euskal katixima apezpikuak onspena 1740an ematean ala ondotik itzuli eta argitaratu ote zen. Vinsonek ere ilun dakusa dataren afera (1984: 180-1).

Vinsonek dioenez, aipatzen dihardugun euskal *catichima* honen interesa Amiküzeko euskarari idatzia izatean datza (1984: 182), eta Amiküzekotzat jotzen du Jutsiko Lopez apezak egin *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco aitaren guiristinho perfeccioniaren praticaren pparte bat* 1782ko itzulpena ere.

Jacques Pons *Conseil Général des Landes*-eko Eskualdeko Artxibategiko Zuzendariak gutun batean dioskunez, izan zen frantsesezko katixima bat ere, *Catéchisme ou abrégé de la foy, et des veritez chrétiennes* Suarez d'Aulan-ek berak onspena 1740/III/2an emanik, idazkari Cailhebar zela eta Roger Leclerq-ek Akizen inprimatua; euskarazkoaren onspen data bera da.

Vinsonek berak 1740 inguruko euskal katiximaren beste edizio baten berri ematen du, 1770 inguruko batena; Akizen egina da baina ez dakar datarik,

horregatik, ez dakigu zein oinarri dagoen 1770 inguruko delatzen pentsatzeko.¹³ Badakigu, ordea, 1770 ingurukotzat jotzen den edizio honen izen bereko beste bat argitaratu zela Akizen 1786an, Charles-Auguste le Quien de Laneufville izeneko apezpikuak bultzaturik.¹⁴ Iduri luke biak edizio bera direla, bata bestearen berrargitalpena dela, izan ere, orrialdeak batak eta besteak gehien-gehienak berdin-berdinak dakartzate: lerro baten gorabehera egon daiteke orrialde zenbaitean. Berebat, huts edo errata berak dakartzate; eman dezagun, “icena” beharrean biek *ioena* dakarte (13), “adinetaraino” ez, *adineteraino* dakarte (40); *usus scribendi*-a ere bera dute: 1740 inguruko edizioiko *daiteque* aldaera *deiteque* da hala 1770 ingurukoan nola 1786koan (37); halaber, biek *stecamendutic* idazkera dakarte (150). Aldiz, 1740 inguruko Paueko katixima datagabetik Akizeko 1770 eta 1786koetara aldea dago hizkuntza-ezaugarri batzuetan eta grafian. Hona 1740 inguruko Paueko katiximatik 1786ko Akizekora gertatu diren aldaketen sail bat:

- Aldaera lexikoetan: *aberaxcuac* (124) / *aberaxgouac* (160); *arrestanchetarie* (120) / *arrestenchetarie* (154); *aunhitz* (32) / *anhitz* (43); *bozcarencia* (120) / *bozcalencia* (155); *chuchenqui* (81) / *chuchengui* (106); *debecatiac* (51) / *debetatiac* (66); *geuss dadila* (128) / *geix dadila* (164); *ibacoitz* (34) / *iracoitz* (45); *mendeiquioz* (76) / *meindeikioz* (97).
- Hautu lexikoetan: *iduriac consumitu artiraino* (101) / *iduriac ecesta artekan* (132); *copetan* (98) / *belarrian* (128); *chinchiricatu* (34) / *ourratu* (45); *gorda injustoqui* (74) / *deakialaric atchekiren* (95); *imediatoqui* (50) / *hurrenenic* (64); *invisiblequi* (120) / *eçabeki* (155); *murmuracionen* (124) / *iroien* (160); *ondicatcen* (108) / *osticacen* (138); *sudur-mizpiretan* (97) / *sudur pincetan* (127); *haren graciac guehiago thebecatuz* (91) / *haren graciac agortur* (sic, 118).
- Aldaera fonikoetan: *baia?* (40) / *badia?* (52).
- Morfologian: *çaharraguëna* (3) / *çaharrena* (7); *çautezte* (38) / *çauzte* (50); *eguïn dugun ussaie gachtüaren gagnian* (112) / *eguïn dugun ussaie gaistuen gagnian* (143).
- Dieresiaren erabileran: *bere alguën aravera* (88) / *bere alguen aravera* (114).
- Huts edo iratxoetan: *batheura* (97) / *bathura* (126); *Huiçonec* (87) / *guiçonec* (113).

13 Ezagutzen dugun eta baliatu dugun alea Eusko Legebiltzarren *liburuklik* sail telematikoan dator.

14 Baliatu dugun edizio honen alea Bonaparteren ondarekoa da eta UPV-EHUREN Gasteizko Letren Fakultatean dago mikrofilmaturik.

Baionakoa da katixima honen hurranen edizioa, 1815ekoa, Loison eliz agintariak 1815/IX/16an eman aginduaren bidez argitaratua eta Vinsonek dakarrenez, 1770 inguruko edizioaren arabera egina, hark 164 eta honek 174 orrialde baditu ere. Guk 1815eko edizio hau Pariseko *Bibliothèque Nationale de France*-n eskuartean izan genuen 2013an, baina aizinarik ezaz ez genuen aztertu, gainera, ordu hartan ikertzen geniharduen garaia XVIII. mendearen bukaerako mintzamoldea zen, ez XIX. gizaldikoa.

Katixima honen bi frantses edizio ezagutu zituen eskuartean Vinsonek: bata *Catéchisme ou abrégé de la foi, et des vérités chrétiennes*, 160 orrialdekoa, Akizen egina eta Suarez d'Aulanek eman aginduaren arabera, lehenago aipatu duguna; eta bestea 152 orrialdekoa, Baionan 1815ean egina, bere garaian Charles-Auguste le Quien de Laneufville eliz-agintariak bultzatua.¹⁵

1740 ingurukoa izan daitekeen Suarez d'Aulanen euskal edizioa, Pauen argitaratu zena eta 1786ko le Quien de Laneufvillerena, biak dotrina bera direla erran ohi da, 1786koa 1740 ingurukoaren berrargitalpena dela, baina arestian ikusi dugu ez direla guztiz berdinak. Errate batera, grafian <u> bokala baizik ez dakar 1740 ingurukoak, ez dakar <ou>, baina 1786koak <u> eta <ou>, biak eman zituen; bi grafia desberdin dakartzan argitalpen honek eskualde hartako hitzen bokalen izaerarekin, hau da, /u/ eta /ü/-rekin zer koherentzia duen aurkezten erauntsi dugu orain duela guti (2009b: 69-73) eta liburu honetan ere aurkeztuko dugu gure ikuspegia; cf. 7.3.1.3.4.1. §.

Suarez d'Aulan Akizeko apezpikuak iduriz 1740 urtearen inguruan Pauen inprimarazi *Catichima edo fediarene eta guiristino-eguien explicacione laburra* izeneko idazkian eta Charles Auguste Le Quien de Laneufville Akizeko jaun apezpiku osoki ilustre eta ohoragarriaren manuz 1786an arra-inprimatu zen hartan, mintzoari dagokionez ez dirudi ez batean ez bestean eragin kanpotarrik dagoenik, egun bederen Zuberoan baliatzen diren ezaugarrien islarik ez da sumatzen. Katixima honek dakarrena ahozko mintzoa da. Testuan datorren mintzoari Jutsiko Lopezen 1782ko itzulpenari baino baxenabartarrago deritzogu guk: ekialdeko Nafarroa Beherean XIX. mendean eta XX.ean baliatu diren hizkuntza-ezaugarrien konbinazioarekin koherenteago da Suarez d'Aulan-ek eginarazi 1740 inguruko lana eta 1786ko berrargitalpena, Lopezen 1782ko itzulpena baino. Errate batera, *OEH*-k Amiküzeko euskaratzat dakar Charles-Auguste le Quien de Laneufville apezpikuak argitararazi katiximakoa; c. 1780 dakar data eta *traducción a la variedad bajo-navarra de Mixe* adierazten du.

15 Katalogoetan ere ikusi zuen beste edizio bat frantsesez: Saintes hiriko liburutegiko katalogoan bada frantses edizio bat, 393 orrialde duena, Akizen 1886an egin zena, Charles-Auguste le Quien de Laneufville agintariak bultzaturik, nahiz hau honela ulertzea neke den.

4.1.5. Frantziako Iraultzaren aitzinean Akizeko apezpikutegiak hala galdegini, Oztibarreko Jutsin sortu Lopez apez Ibarrekoak Alonso Rodríguez jesuita espainiarraren 1609ko lan arras luze baten zati batzuk euskarara itzuli zituen eta 1782an Avignonen argitaratu: *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco aitaren guiristinho perfeccioniaren praticaren pparte bat*. Itzulpen hau Amiküzeko mintzotzat hartzeko tradizioa luzea izan da, hala adierazi baitute Bonaparte printzeak (1869), Vinsonek (1891), Darricarrère-k (1911), Lacombe (1931), Karl Bouda-k (1948), Luis Villasante euskaltzainburuak (1979) eta Orpustanek (1998).

Euskal itzulpen luze honetat 2013an egin berri dugun argitalpenean adierazi dugu zein eragozpen ikusten dugun itzulpeneko euskara Amiküzekoa izan daitekeela onesteko. Alde batetik, aintzat hartu behar dira Amiküzekotzat edo inguruko eskualde batekotzat jo litezkeen 1740 inguruko eta 1786ko bi katixima iduri horiekin 1782ko itzulpenak dituen desadostasunak, eta bestetik, ezagutzen dugun Amiküzeko XIX, XX eta XXI. gizaldietako mintzoarekin dituenak. Gure ustean hipotesi egiantzekoena da pentsatzea, 1782ko itzulpeneko euskara Oztibarreko Jutsin sortu Lopez apez Ibarrekoak sortzezko bere mintzoan eman zuela eta ondotik bigarren esku zuberotar baten eragina izan zela idazkian; eta afera guztiz honela gertatu ez balitz ere, ez dugu uste orduko zinezko errealitatea eta gure susmoa elkarrengandik arras urrun direnik.

Nolanahi ere den, 1782ko *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco Aitaren Guiristinho Perfeccioniaren Praticaren pparte bat* liburuko euskara ez dago Amiküzeko mintzotik urrun eta horregatik, gure azterketa lan honetan Amiküzeko hizkuntza-aldaeren berri ematean, usu joko dugu 1782ko *Pratica* liburuko euskara Amiküze eskualdekoarekin alderatzera, usu aipagai izanen dugu garai hartako Amiküze eskualdeko idazkien saila aztertzean.

Duela gutiko lan batean agertu dugunez (Camino 2009b), Baxenabarre eta Zuberoa herrialdeek elkar ukitzen duten eskualdean, errate batera Amiküzeko ekialdean eta Zuberoako ipar-mendebalean, hizkuntza-aldakortasun handia dago hitzunen artean, eman dezagun Pagolan, Oihergin, Arüen, Sarrikotapean, Laphizketan, *yuntako* euskaldun hauek ondoko auzoen euskara ezagutzea aski gauza arrunta da eta beti ez da batzuen eta besteen mintzoaren arteko eten garbirik ageri erabiltzen dituzten ezaugarri zenbaitetan. Honelako alderdietan hitzun zenbaiten gramatika pasiboan ondoko eskualdekoen tasunak kokatu direla dirudi. Honelako eskualdeetan polimorfismoa agertu ohi da: ezagutu ditugu Oztibarreko Jutsin *heben* aldaera erabiltzen duten hitzunak eta baita herrian *hemen* aldaera erabiltzen dela —*heben* Donaixtikoa dela— diotenak ere; berebat, *interdialect* izendatu ohi diren ezaugarriak sumatzen dira jauzi guneean:

Baxenabarren nagusiki *jalgi* baldin badago eta Zuberoan *élkhi*, Oztibarreko Jutsin *jelgi* bildu dugu.

Gure galdera da ez ote daitekeen pentsa halako zerbait gertatu zela Alphonsa Rodriguezen frantses testua euskaraz eman zuen lagun oztibartarraren gogoan, hau da, XVIII. mendeko Baxenabarre eta Zuberoako mugako euskaldun batek ez ote zituen gramatika pasiboan Xiberoako hizkuntza-ezaugarri batzuk kokaturik, gerora itzulpenean aski era edo maiztasun desorekatuan islatu zirenak.

Ikus dezagun orain 1782ko *Pratica* liburuak dakarren euskaraz edo mintzoaz ikertzaileek artean zer adierazi duten. Amiküzeko euskaratzat hartu izan dute autore gehienek, baina horien arteko batek Oztibarrekotzat:

- Bonaparte printzeak 1869ko *Le verbe basque en tableaux* lan ezagunean “le traducteur mixain du Rodriguez, lui aussi, a jugé convenable d’emprunter au dialecte souletin plusieurs terminatifs du futur simple, plus ou moins modifiés d’après le caractère du bas-navarrais oriental” dio; cf. *Opera omnia vasconice* I (1991: 442).
- Vinsonek ere Amiküzekotzat jotzen du liburu hau *Essai d’une bibliographie de la langue basque* lan ezagunean: “...qu’il est écrit dans le dialecte bas-navarrais oriental du pays de Mixe. Il n’y a qu’un autre livre basque qui ait été écrit dans la même variété linguistique, c’est la traduction abrégée de la *Pratique* d’Alphonse Rodriguez (voy. à 1782)” (1984 [1891]: 182).
- Darricarrère-k Tartasen 1666ko *Onsa hilceco bidia*, Pauen 1740 urte inguruan argitaratu zen *Catichima edo fedieren eta guiristino eguien explicacione laburra* eta Alphonsa Rodriguezen 1782ko itzulpena Amiküzeko mintzoan kokatu zituen (1911: 17).
- Lacombek ere, 1782ko Alphonsa Rodriguezen itzultzaile Lopez apezaren berri zenbait eman ondotik, itzulpenekoa *incontestablement* Amiküzeko euskaratzat jo zuen. Lanaren zubererazko eta lapurterazko bertsio argitaragabe bana ere badaudela adierazi zuen (1931: 69).¹⁶
- Ondotik Boudak Lopezen laneko adizkiak Amiküzekotzat ikertu zituen eta adierazpen hori oinarritzeko hizkuntza-aldaera batzuk eskaini. Ikertzaile honek baliatu zituen formak egoki dira hein batez (1948: 596), baina gure ustean arazo nagusia ez datza ezaugarri horietan, liburuan ageri diren eta Boudak aipatu ez zituen beste batzuetan baizik: idazkia esku amiküztar batek egin zuelako hipotesia erlatibizatzen duten beste

16 Ez dugu bi itzulpen horien berri batere erdietsi; Piarres Charriton euskaltzainari galdeginek, hark ere ez du berririk.

ezaugarri batzuetan datza auzia. Ez dugu adierazi nahi Boudak testua Amiküzekotzat jo izana hutsegitea izan zenik: darabiltzan argudioetarik batzuk zuzenak dira, baina zinez auzi konplexua da *Pratica*-ko euskara nongoa den jakitea.

- Villasante euskaltzainburu ohiak ere hitz iduriak dakartza eta “curiosa obra”-tzat jo zuen itzulpena; Tartasen mintzoa bezala Amiküzekotzat jo zuen *Pratica*-koa (1979: 114).
- Martin Haase-k duela urte multzo bat zioenez, berriz, “Baxenafarroan badugu testu zahar bat (Lopez 1782), Oztibarrekoa” (1994: 182, 15. oh.).
- Ondotik Orpustanek berriz ere Amiküzekotzat jo du zorioneko itzulpen hau (1998: 232).

Auzi honetan guk ez ditugu gauzak horren garbi ikusten; Boudak salbu, egile horiek ez dute beren iritzia argudioz jantzi; azterketa sakontzen hasiz gero, Amiküzeko *egungo* euskara 1782ko itzulpeneko mintzoarekin alderatzen hasiz gero, kontuak ez dira guztiz ateratzen. Bestalde, itzulpeneko euskara ez dator bat 1740 inguruan Pauen eta 1770 inguruan nahiz 1786an Akizen berrargitaratu zen Baxenabarre ekialdeko *Catichima edo fediaeren eta guiristino-eguien explicacione laburra*-ko mintzoarekin: bata eta besteak ezaugarri ugaritan ez datoz bat eta, idazkiak aski garaikideak eta teoriarik eskualde bertekoak diren aldetik, garrantzi handia du honek.

1782ko *Pratica* itzulpeneko datu foniko, morfosintaktiko eta lexikoen konbinazio geolinguistikoa ezohikoa da euskaran, egun bederen ez da ezaguna inolako eskualdetan eta halaz, beharbada historiari ilundu dukeen interpretazio bat bederen beharko luke. Garai hartako *Pratica*-ren eskuizkribuaren gaineko frogak materialik ez badugu ere, Zuberoa eta Baxenabarreko testu zaharretako lekukotasunetan eta egungo Baxenabarre orokorreko, Amiküzeko, Oztibarreko eta Zuberoako ahozko mintzoetan oinarritzen da gure interpretazio edo hipotesia.

Pratica itzulpeneko euskarari so eginez gero, oro har eta ezaugarri gehienetan Baxenabarreko sistemari edo erei loturik dagoela jabetuko gara, hori ezin ukatua da, Baxenabarre ekialdeko euskara da funtsean, baina Zuberoako mintzoaren kutsu susmagarria dakar. 1782ko *Pratica* ez zen zubereraz idatzi, ez dakar euskara zuberotarrik, ez da garai hartako Zuberoako idazle edo itultzaitleen ohiko mintzoa, ez dira ohiko ezaugarri zuberotarrak, besterik da *Pratica*-ko mintzoa. Honako adibideok erakusten digute *Pratica* funtsean Baxenabarreko euskaran ondu zela; pare bakoitzean lehen forma 1782ko Alphonsa Rodriguezen itzulpenekoa da eta eskuinekoa XVIII. mendeko Zuberoako testu zenbaitetako:

- aldaera lexikoen adibide zenbait: *anitz / hanitz* (Olor kat, 1706: 37, 62), *atchiki / etcheki* (Maister, 262), *bederatzi / bederatçu* (Olor kat, 30), *eskuinnheco / aldescugnian* (Olor kat, 9), *ezarri / eçary* (Olor kat, 35), *galdata / galthatu* (Maister, 11), *gau / gai* (Maister, 83), *girstiño / chyristi*, gogoan ukanik aldaera honetako bokal sudurkariaren izaera ez zela idatzian islatzen (Olor kat, 69), *garizuma / goroçuma* (Olor kat, 6), *hurrandu / huillantu* (Olor kat, 103), *inçun / ençun* (Olor kat, 6), *kotsu / khoçu* (Maister, xvij) & *khoçatu* (Olor kat, 59), *kurutze / khurutche* (Olor kat, 2), *mutil / mithilgoua* (Maister, 170), *pagatu / pphaca* (Olor kat, 78), *barkatu / ppharcatu* (Olor kat, 96), *utzi / eytci* (Olor kat, 40) & *utci* (Olor kat, 11), *zalhu / zalhe* (Charlemagne pastorala, 261)
- adizkietan *izan*-en Nor sailean: *cirete* ‘zarete’ / (*et*)*ciradeye* (Maister, 326)
- Nor Nori sailean: *çaukona* & *çakona* ‘zaiona’ / *çeyon* ‘zaion’ (Olor kat, 51) & *beytçayo* ‘baitzaio’ (Olor kat, 62)
- Nor Nork sailean: *hut* ‘haut’ / *ayt* (Olor kat, 81) eta *dute* / *duye* (Olor kat, 66)
- Nor Nori Nork sailean: *deracogu* / *deriogu* (Olor kat, 51-2)

Nolanahi ere den, argibidexka hauek emateak, ezaugarri garden batzuetan Baxenabarreko eta Zuberoako euskara hein handian bereiz doazela eta bi sistema desberdin direla erakusteak ez du erran nahi, 1782ko *Pratica* itzulpenak Zuberoako idazleen ezaugarririk baliatzen ez duenik, eta ezin izan liteke horrela, gainera, Baxenabarreko ekialdea eta Zuberoa elkarren ondoko eskualdeak direnez eta lanbide eta kultura bertsuak ukan dituztenez.

Alphonsa Rodriguezen itzulpenean herri euskara xumea ageri da, itzultzailea(k) ez d(ir)a ederzale, irakurleak aise ulertzeko moduko euskara funtzionala dakar(te). *Pratica*-ren 1782ko itzulpenean ageri den mintzoa ez dago Lopezen sorterri Jutsiko egungo euskaratik hain urrun, baina 1782ko liburuko eta Jutsiko egungo euskararen artean aldea dago; hain segur, alderdi kronologikoak eragin duke 1782ko liburukotik Jutsiko egungo mintzora dakusagun alde hori.¹⁷ Ikus dezagun datu gramatikal eta lexikoen sorta bat:

Adizkiei dagokienez, errate batera, 1782ko *dieitezu* eta egun Jutsin entzun daitekeen *ditakezu* bikotearen artean, *ke* morfemaren hedadura dago; bestalde, liburuko *beirauzu*, Jutsin *kasu egizu* da egun eta liburuko *Jaunak detsala ez*,

17 2005ean egin genuen inkestan bi lekuko izan genituen: 1920an sortu emazteki bat, ama Donaixtikoa eta aita Jutsikoa zituena eta 1935ean sortu gizon bat, hau ere ama Donaixtikoa eta aita Jutsikoa zituena.

Jinkoak nahi dezala erraten da egun Jutsin. Halaber, liburuan konparazioaren bigarren atal *ezin ez* zazpi aldiz ageri da eta *ezi ez* hogeita hamazazpi aldiz, baina egun Jutsin *ezin ez (ta)* egiten dela erran digute. Berebat, egun *ibiltzen & ibiltzen*, *ekartzen* eta *jelgitzen* bildu ditugu Jutsin, eta *Pratica*-k *ibiltzen* (9 agerraldi), *ekarten* (50 ager.) eta *jalguiten* (9 ager.) dakartza nagusiki, baina baita *ekart(z)cen* (3 ager.), *ibiltce-* (1 ager.) eta *jalguitce-* (4 ager.) aldaera berrituak ere, beraz, 1782ko itzulpenak lekukotasuna dakarkigu orduko txandaketa hasia zela.

Berebat, liburuan *enpaitxatu & epaintxatu* aldaerak ditugu, baina egun Jutsin *epantxatu* erraten da eta bestalde, liburuan *elgar & elga* daude, baina Jutsin egun *elgar* baizik ez da *ibiltzen*; *berthaite* ‘begitarte, aurpegia’ hogeita bost aldiz dakar liburuak eta *beitarte* behin baizik ez, baina egun Jutsin *beitarte* *ibiltzen* dute. Halaber, erraztasunaren arlo semantikoa adierazteko *aisa*, *ih* eta *ihiki* ditugu liburuan, baina egun Jutsin *ai[ʒ]e* baizik ez; *belar* dugu liburuan, baina egun *kopeta* erraten dute jutsiarrek; *belhauriko* dakar liburuak, baina egungo Jutsin *belauniko* bildu dugu.

Halaber, honako hitzak liburuan ditugu, baina egungo Jutsin ezezagunak dira: *apaizeatu* ‘baretu’, *apariatu* ‘norabide bat hartu’, *arrerosi* ‘erredimitu’, *arresta* ‘epaia’, *gortu* ‘adore eman’, *ireizi* ‘baztertu’, *iroi egin* ‘errietan eman’, *jankatu* ‘hortzikatu, karraskatu’, *kroketarik idoki* ‘giltzadura edo artikulazioetarik aterarazi’, *lehiataka* ‘tarrapatan’, *mañata* ‘mirabea’, *nabasitu* ‘konfiantza hartu, ausartu’, *peorreria* ‘behar gorria, miseria’, *plaga* ‘zauria’, *suergaraitiko* —ez du adiera garbirik 1782ko itzulpenean ere—, *usustamendu* ‘sustatzea’.

Liburuko aldaerok ere ez dira *ibiltzen*: *ahulgatu* ‘aholkatu’, *artekan* ‘artean’, *honitu* ‘hornitu’, *jardiretsi* ‘erdietsi’; ez dira alferrik joan berrehun eta hogeita hiru urte.

Beste adibide bat ere eman daiteke erakusteko mende eta erdian mintzoa alda daitekeela: Ibarrolako Salaberrik *ilkhi* dakar 1856ko hiztegian, baina Jutsin egun *jelgi* entzun dugu. Ibarrolatik Jutsira joateko ez da Bunuze iragatea baizik behar, herriak ez daude urrun bata bestetik.

Orduko eta egungo ezaugarrien arteko aldearen eragiletzat, 1782ko *Pratica*-ko eta Jutsiko egungo mintzoaren arteko aldearen berri emateko edo argitzeko, denbora iragan izana har dezakegu, baina nolnahi ere den, gure ustean alderdi diakronikoaz landa bila daitezke beste ikuspegi batzuk ere. Dugun ikuspegi edo hipotesi honetaz ikus 8.6. § liburu honen ondorioetan, baina artean jarrai dezagun 1782ko itzulpen lan honen hizkuntza-ezaugarri habororen aurkezten.

Inoiz gertatzen da liburuan ohiz Baxenabarreko edo Ipar Euskal Herri zabalagoko hitz bat baliatu dela eta adibide batean ala bitan Zuberoako tradi-ziokoa ibili dela; errate batera, *urrentcian* (149) dugu behin eta *urhentcian* (250)

beste behin, ‘bukatzea’ adieran, Zuberoako tradizioan arras baliatu dena: Oihe-nart, Belapeire, Oloroeko katixima, Maister, Egiategi, *Charlemagne* pastorala, Etxahun, Arxu, Intxauspe, Gèze edo Larrasket dira erabiltzaile, baina Ibarrolako Salaberri oztibartarrak ere badakar *urhent & urhentu* bere hiztegian (1856: 168). Hitz horretaz landa, *finitu & finitze* bost aldiz ageri dira *Pratica*-n (63, 65, 245, 257, 375), *akabatu & akabatze* hamahiru aldiz (47, 58, 62, 62, 63, 65, 161, 231, 247, 248, 259, 263, 350) eta *akabanza* izena bederatzi aldiz (8, 63, 116, 100, 239, 247, 334, 448, 466). Funtsean Zuberoako tradizioari dagokion *akabi* ere badakar, sei aldiz: (63, 63, 238, 248, 328, 351).¹⁸

Hitz batzuetan *Pratica*-k bi aldaera foniko dakartza, bata Zuberoatik ezker ibili ohi dena —pare hauetan ezkerrekoa da— eta bestea Zuberoakoa dena edo egungo egunak artean bertan iraun duena —paretan eskuin kokatu dugu—:

abisu ‘aholkua’ (4 ager.) / *abis* (10 ager.)
anaya (6 ager.) & *anhaya* (1 ager.) / *anaye* (1 ager.)
erregret ‘arrangura’ (2 ager.) / *arragret* (3 ager.)
heuzcara (14 ager.) / *huzcara* (1 ager.)¹⁹
pizatu ‘juzgatu’ adieran (5 ager.) / *phezatu* (2 ager.)
paubre (1 ager.) / *praube* (13 ager.)

Adierazgarri da *nehor* / *ehor* parean gertatzen dena ere. Baxenabarren nagusi dabilen *nehor* liburuko alderdi guztietan erabiltzen da; errate batera, lehen ehun orrialdeetan *nehor*-en hirurogeita bederatzi adibide ditugu; aldiz, hondarreko mendeetan Zuberoako kutsua duen *ehor* aldaerak —Etxepare batek Garazin zerabilen *ehor* XVI. mendean— zortzi agerraldi ditu liburuan eta gehienbat 22-32 orrialdeen artean kokaturik dago: *ehor* (22, 25, 30) & *ehorc* (31, 31, 32, 156); aurkibidean ere badakar: *ehor* (457). Distribuzio berezixea da eta *ehor* ageri den 22 eta 32 orrialdeen artean *nehor*-en agerraldi bakarra dago: *nehorc* (25); *ehor* eta *nehorc*, bi aldaerak ditugu 25. orrialdean. Ibarrolako Salaberrik *nehorat*, *nihun* eta *nihoz* dakartza hiztegian. Amiküzen XXI. mendean *nihur* nagusi da, baina *niur*, *nihor* eta *nehor* aldaerak ere baliatzen dira.

Ezagun du testua euskarara itzuli zenean edo itzulpen horren ondoko mol-daketan, egilearen edo egileen gogoan Baxenabarreko eta Zuberoako tradizioak present egon zirela, bi herrialdeen arteko muga inguruko euskal giroa eta euskal

18 Berrikuntza morfologiko honetaz adieraz dezagun Amiküzeko Bithiriñan *espa(a)kiik* ‘eskapatu-rik’ bildu dugula, baina sail honetako adibide gehiago ez. Larribarren *espatatzea* entzun dugu. Oztiba-rrereko Jutsin ere *espati* entzun dugu.

19 Etxeparek eta Leizarragak bezala hasperendurik; egun ere Amiküzen hasperendurik dirau *heskua-rra* aldaeran eta Sarrikotapean *hiiskaa* entzun dugu. Bestalde, <z> hori ohitura grafiko hutsa da eta txistukari igurzkari apikaria irudikatzen du, fonikoki ez da lepokaria.

mintzoak ongi ezagutzen zitu(zt)ela itzulpenaren edo moldaketaren ardura izan zu(t)en(a/e)k.

Alderdi fonikoari dagokionez, bokal asimilazioa aipa daiteke, “paradusu”, “utsu”, “utsutu” eta “utumendu” aldaera asimilatuak dakartza *Pratica*-k eta itzulpenean ez dira **“paradizu” edo **“parabizu” ezta **“itsu” ere ageri. Nolanahi ere den, *Pratica*-n nagusi dena *i-u* sekuentzia da: “apezpiku”, “iduri”, “iguriki”, “ikuzi”, “ilhun”, “inguru”, “ithurri”, “itxura”, “itzuli”, “izurri”. Egungo Amiküzen *i-u* > *ü-ü* bilakabidea eskualdearen ekialdeko herrietan baizik ez da ibiltzen —cf. 7.3.1.3.6. § eta Oztibarren *i-u* egiten da sekuentzia hau. Errate batera, Jutsin egun *itsu* egiten da.

Berebat, Zuberoan bezala atzizki ordinalaren aldaera *-gerren* asimilatu da beti 1782ko itzulpen honetan, eta gogoan izan behar da Amiküze guztian zabal dabilela berrikuntza, *-gerren* egiten da.²⁰

Kontsonante taldeez dihardugula, Zuberoan bezala <*-tarçun*> atzizkia dakar *Pratica*-k aldi oro, baina egungo euskararen Amiküzeko ekialdean ere *-tarzün* entzun daiteke; ordea, Oztibarreko Jutsin *-tasun* bildu dugu 2005ean.

Aldaerez denaz bezainbatean, *gorpitz* laurogeita hemezortzi aldiz ageri da *Pratica*-n, *korpitz* behin eta *gorputz* bi aldiz; Ibarrolako Salaberrik ere *gorphitz* dakar hiztegian eta guk Jutsin *gorpitz* entzun dugu; aldiz, Amiküze eskualdean Bithiriñan *gorphutz*, Labetzen *gorputz* eta Arberatzen *korphütz* bildu ditugu.

Halaber, Zuberoako antzera *hulaco* dakar *Pratica*-k bi aldiz (305), baina testuan *holaco* nagusi da (79, 80, 85, 131, 167, 174, 206, 337, 348, 364, 367, 368, 385, 393). Aipagarri da *hulaco* bi aldiz baizik ez dela ageri, baina bi adibideak orrialde berean kokaturik daude, arestian *ehor* dela eta aipatu dugun 22-32 orrialde bitarte horretatik aski urrun, egiazki.

Alderdi morfologikoaz denaz bezainbatean, egungo euskararen Zuberoan baizik ez dira ageri gure 1782ko *Pratica* itzulpeneko hurrenaren ezaugarriok:

- *batciak* ‘batzuk’ izenordain zehaztugabea ondotik *besthiac* duela: Nafarroa Behereko 1740 inguruko katiximan *batciac* ... *berciac* (21) dugu eta 1786koan *batciac*... *berciac* (28); adierazten ote du agerpen honek garai hartan ezaugarri hau Baxenabarreko ekialdean erabiltzen zela? Egun ez da honelakorik Amiküzen

20 Guk Barta, Oragarre, Behauze, Bithiriña, Martxieta, Labetze, Gabadi, Gamue, Zohota, Sorhapürü eta Laphizketa herrietan bildu dugu; aldiz, XIX. mendean *-garren* dakar Ibarrolako Salaberri oztibartarrak. Zuberoan aspaldikoa da asimilazio hau: 1706ko Oloroeko katiximak, 1734ko othoitze eta kantikek eta 1780ko Eskiulako idazkiak *-garren* dakarte oraino, baina Bonnecase <Mauleoko> errektorak *zortzigerrenian* darabil 1666an eta *23.guerrenian* 1668an; Zuberoako 1676 inguruko *Pronus*-ek ere *-gerren* dakar, Maisterrek 1757ko itzulpen liburuan bezala.

- pertsona izenordain indartuetako *gihaur & zihaur* aldaerak —Hego Euskal Herriaren Erronkarin ere ibiltzen zirenak— Zuberoan ibili dira eta ibiltzen ere dira; 1740 inguruko katiximan *guhaur* dago eta 1786koan *gouhaurec* (38), baina 1786ko honetan *guihaurec* (111) eta *guihaur baidhan* (113) aldaerak ere baditugu; Baxenabarreko ekialdean erabiltzen ote ziren? Egun ez da honelakorik Amiküzen
- absolutiboko hirugarren graduko *hurak* erakusle plurala dakar 1782ko itzulpenak, Erronkarin eta Zaraitzun *kurak & urak* zena. Oihenartek, 1740 inguruko Paueko katiximak edo Le Quien de Laneufvillek argitararazi 1786ko Akizeko katiximak ez dakarte “hurak” eta Oztibarreko Jutsin ere ezezaguna dute erakusle hau. Amiküzeko egungo euskararen ez dugu guk ia inoiz entzun, *hek* edo *heek* agertu zaigu beti; Bithiriñan *huak* entzun dugu
- ezkerrean inesiboa har dezake *gañan* postposizioak 1782ko *Pratica*-n, nahiz ez diren falta genitiboa jokatzen duten adibideak: *erakazten derauskun eguietan gagan unxa goguaketac eguinic* (121) / *penxaketa cite beste religioniaren eguien gagan* (122). Amiküzeko egungo mintzoan ez da honelakorik, ezta 1740 eta 1786ko katiximetan ere, bi idazkiotan ezkerrean edute genitiboa hartzen du *gañ*-ek

Pratica-ko aditz batzuetan ere badira hainbat ezaugarri Zuberoara begira jartzen gaituztenak: errate batera, **edin*-en ahaleko *ditake* adizkiak hirugarren pertsona plurala adieraztea, guk dakigula Zuberoako gertakaria da, baina *Pratica*-n bi aldiz ageri da:

ceren horiec aiza dembora oroz eguin baititake (89)

galdo suerte horiec dituçu Gincoari eguin ahal ditakeen laketenac (343)

Halaber, ahalera hipotetikoko *laite* adizkia bederatzi aldiz ageri da *Pratica*-n, baina adibide batean plurala adierazten du (137):

pundu gucietan hain arhinzki igaraiten tuçu, nun kassi ikatz gorrietan gagan hain fite ibileraz gueroz, ezpailaite erra (137); frantsesez ere plurala da jatorrizkoa: *ils ne pourroient se brûler*

Zuberoan ere plurala da: Intxauspek *líte* aldaera dakar (1858: 153).

Bestalde, liburuko etsenplu batek *beileite* aldaera dakar: kausal-azaltzailearen *bei*- aldaera foniko asimilatu hori ez da liburu guztian behin baizik ageri. Hala *bei*- nola *leite*, XVIII. mendeko Zuberoako testuetan ageri dira eta egungo Zuberoan ere *bei*- egiten da, baina Baxenabarren *bai(t)*-, gerora ahozkoan *bit*- bilakatu ohi dena. Orduko testuen arabera eta oraingo ahozko mintzoaren

arabera, forma bakoitza sistema bati dagokio, ez besteari. Gauzak bestela izan balira eta XVIII. mendean *bei-* aurrizkia edo *leite* adizkia Baxenabarreko ekialdean baliatuak izan balira, testuan ez ziren agertuko ehundaka *bai(t)-* eta *bei* bakar bat —zeina, ez dezagun ahantz, berrikuntza baita—, eta ez lirатеke agertuko ere bederatz *laite* eta *leite* bakarra, ehunekoetan pentsaturik ez litzateke batere logikoa eta 1740 inguruko eta 1786ko testuetan ere agertuko lirатеke eta ez da hala. Agerpen maiztasun hain desorekatu honek guri bederen zerbait gertatu zela pentsarazten digu: inprimategirakoan norbaitek zertxobait aldatu zukeen edo aldatzen hasi zatekeen, edo itzulpenaren bilakaeraren erdian Lopez euskaratzaileari zuberotar zenbaitenganik manu zenbait etorri ote zitzaion?

Nor Nori aditz sailean *izan*-en iraganean *cițacola*, *cițaucien*, *ezpaitz-citceen* erakoak dira nagusi itzulpenean, baina behin bestelako oinarria duen *etceitan* ‘ez zitzaidan’ ageri da, Zuberoan legez. Nolanahi ere den, kasu honetan aitortu behar da Baxenabarreko ekialdean ere inoiz ageri direla honelako aldaerak egun; *zatan* ‘zitzaidan’ da erabiliena Amiküzen eta ez da *zitzaitan* falta, baina Amorotze-Zokotzen *zeitān* bildu zen 1974an eta Behaskanen *zaitān* 1998an; cf. Irizar (2002a: 87 eta 160).

Pratica-ko lexikora jotzen badugu, anitz dira Zuberoako tradizioan erabat erroturik dauden hitz edo aldaerak: alderdi fonikoan *h* gabe dakartza 1782ko *Pratica*-k *aize*, *azi*, *igitu*, *odei* eta *osto*, Zuberoan bezala, eta herrialde horretan bezala, *aurhide* eta *hume* ditugu; aldiz, Zuberoan ez bezala, *h*-dunak ditugu itzulpenean *haragi* eta *hezur*.

Aurkez dezagun hitzen eta aldaeren zerrenda luzexko bana, Zuberoako oihartzun betean jartzen gaituena, itemak hangoak baizik ez direlako, edo gainerateko eskualdeetan aspaldi galdu ondotik, Zuberoan bederen iraun dutelako. Zerrenda ez da osoa edo sistematikoa, erakusgarria baizik. Hitz eta aldaera sail honetako ale batzuk Baxenabarre ekialdeko Amiküze eskualdekoak ere izan daitezke: herririk herri ezker-eskuin jorik hizkuntzaren aldetik gero eta kutsu zuberotar handiagoa hartuz doa hizkuntzaz Amiküze ibarra, baina gai hori eta beraren hainbat xehetasun beste artikulu batean landu dugu (2009a: 196-201).

Zerrendan ezker aldean izarñoa daramaten hitz edo aldaerez ulertu behar da Zuberoaz landa egun Amiküze ibarreko herri zenbaitetan ere erabiltzen direla eta + ikurra daramatenez, Oztibarreko Jutsin egun ibiltzen direla; aldiz, azpimarraturik doazen hitz edo aldaerak Ibarrolako Salaberri oztibartarraren 1856ko hiztegiak dakartza eta interpreta liteke orduan bederen Oztibarren ibiltzen zirela. Datuak ez dira osoak, guk entzun dugunaren arabekoak baizik, ez dira inkesta sistematiko baten emaitzak.

Hona hitzen saila:

aments ‘bederen’, **aparanziarik ez* ‘logikarik ez izatea’ da liburuan, baina egungo Amiküzén *apentziaik e* erratean ‘inondik ere’ adierazten du, *arrabaskatu* ‘suntsitu’, *arrerrosi* ‘erredimitu’, *arrier* ‘alaia, atsegina’, **askaizi* ‘ahaidea’, *bakoitz* ‘bakarra’ adieran, **behatu* ‘entzun’ adieran, *burthini* ‘burugaina’, *eia* galderetan ‘beharbada’ adieran —Zuberoan Maisterrek bezala—, **+ekhi* ‘eguzkia’,²¹ *endeski* ‘narraski’, *eraiki* ‘haurrak hezi’ adieran,²² *ezabatu*, *+ezabeki* ‘segretki, oharkabea’,²³ *faxeria* ‘eragozpena, traba’, **+gei* ‘nahi’, *gogatu* ‘norbaiten edo norberaren borondatea zerbaitezara erakartzea’, *goihera* adjektiboa ‘sakontasunik gabea’, *gorthu* ‘adore ematea’, *hersatu* ‘norbaitengana zuzendu edo enkomendatzea’, *ihii* ‘aise, errazki’, *jankatu* ‘karraskatu, hortzikatu’, *kaneta* ‘hodia’ adieran, *kausitu* ‘atsegin eman’ adieran, *+kunde & kunte* ‘espeziea, mota’, *leiñhuru* 1) ‘argi printza’ eta 2) ‘zantzua, aztarna’, *mañata* ‘mirabea’,²⁴ *nabasitu* ‘konfiantza hartzea, ausartzea’, *orhitu* —‘ohartu’ adieran (7, 360), Zuberoako euskaran bezala, baina itzulpeneko adibide gehienetan ‘oroitu’ adierazten du, Baxenabarre eta Zuberoan legez—, *pairatu* ‘konformatu’ adieran, *pekatu* ‘ausartu’ adieran, *+peretxatu* ‘balioa eman, estimatu’, *poroatu* ‘ohartu’ adieran, *propitaje* ‘ezaugarria’, *senthatuki* ‘erosotasunean bizitzea’, *thaik gabe* ‘etengabe’, **thini* ‘gailurra’, *thona* erdal ‘tache / mancha’ adieran, *uhaitz* ‘ibaia’,²⁵ *ziflet* ‘masailekoa, ukabilkada’.

Hona, berriz, aldaerak:

ahalgaizun adjektiboa, *ahulgu* ‘aholkua’, *ainguru* ‘aingerua’, *amoratsu* ‘maitagarria’, *arhinmendu* ‘aringarria’, *ataku* ‘erasoa’, **auher* ‘alferra’, **barazkarite* ‘bazkaltzea’,²⁶ *beire* ‘beira’, *berhala* (huts grafikoa ez baldin bada), *bihoztoi* ‘ausarta’, *bilhatu* ‘bilakatu’, *bortxu* egin ‘borondatea bortxatu, indarra baliatu’, *debetatu* ‘debekatu’,²⁷ *deseñ* ‘asmoa, xedea’, *desir & desiresko*, *eretze* ‘norbaitekiko edo zerbaitekiko erlazioa adierazteko’, *eskele* ‘eskalea’, *eskenu* ‘eskaintza’, *fabori* ‘mesedea’, *feit* ‘gertakaria’, **fermo* ‘fer-

21 Jutsin *iruzki* eta *iguzki*-rekin batean ibiltzen da.

22 1786ko katiximak *haurren eraikiciaz* dakar (159), baina 1740 ingurukoak *haurren educacioniaz* (123).

23 Oztibarreko Jutsin dioskutenez, lehenago erabiliagoa zen *ezabeki*.

24 Amiküzeko Aiziritzen Bourciez-ek XIX. mendearen bukaeran bildu testu ezagun baten itzulpenean *mañata* ‘mirabea, sehia’ dugu. Guri egungo Zohotan ezezaguntzat eman digute; egia erran, Bourciez-en itzulpenetan Baxenabarren ez da beste inon ageri.

25 Oztibarreko Jutsin ez da egun ibiltzen, *erreka* eta *uraundi* eman dizkigute; *uhaitz* “Xiberon” dela diote.

26 Izan ere, *baskaiten* baitago Arberoako Mehainen eta Amiküzén (Ora, Amo, Behau, Arrü, Sor / Olh).

27 Egun Jutsin ez da “debetatu” ezagutzen, *debekia* ‘debekua’ eman digute.

mu’,²⁸ **gañeran*²⁹ ‘gainera’, *gutiz bestetan* ‘ia guztietan, aldi gehienetan’, *herabezti* ‘nagia’, *herakitu* ‘irakitea’,³⁰ *jakintsu* (vs. Ipar Euskal Herriko *jakintsun* aldaera, Hego Euskal Herriko erabileran),³¹ *latxera* ‘lakioa’, *+*nahar* ‘sasia’, *nahibada* ‘nahiz eta’, *ogen* 1) ‘kaltea’ eta 2) ‘errua’,³² *orano* ‘oraino, oraindik’, *orde(i)ñu* ‘hondarreko borondatea, testamentua’, *plaga* ‘zauria’, erdal ‘plaie / llaga’, *sarkura* ‘sarrera, sarbidea’, *tendrezia* ‘samurtasuna’, *tradizale* ‘traidorea’, *uken*,³³ *xerku* ‘bilaketa’, **xilintxau* ‘zintzilik’, **zelu* ‘zerua’,³⁴ *zurthaje* ‘zureria’.³⁵

4.1.6. Piarres Charrittonek dakarrenez (1992: 159), Hazparneko misionestetan luzaz ibili zen XIX. mendean apez amiküztar bat, aita A. Guïresse, 1799.ean Behaskanen sortua. Sauveur Lardapideren paperetako bertsoetan egon daitezke Guïresse harenak ere, delako *Guïresse apez poeta* arrastoa ageri baita A. Hiriart Uztaritzeko irakasle baionesaren 1840ko *Introduction à la langue française et à la langue basque* liburuan. Jean Elizalde «Zerbitzari» azkaindar idazleak dioenez (1985: 17), Guïresse hark ez zuen oroitzapen onik utzi Azkainen. Handik 1852an joan behar izan zuen, eta 1855eko irailaren 16an hil zen. Guk segurik ez dugu Guïresse haren bertsoirik edo idazkirik ezagutzen.

4.1.7. Pierre Jauregiberri Donapaleun apez egon zen (1859-1872) eta Bonaparteri olerkiak egin zizkion, baina sortzez izpurarra zen (1808) eta Donapaleura joan baino lehen, Maulen, Donaixtin eta Larzabalen egon zen (Charritton 1992: 159). Nikolas Alzola Gerediagak Jauregiberri apez honen berri dakar *Gure Herria* aldizkarian (1968ko agorrila, 89-92): “Jauregiberry eta Bidegaray abadeek Bonaparte Luis-Luziano-ri omenaldia”.

4.1.8. Bonaparte printze euskalariaren eraginez, Cazenave izeneko Bithiriñako apezak Donapaleuko euskarara itzuli zuen aita Asteteren kristau ikasbidea XIX. mendearen bigarren erdian (Pagola, Iribar & Iribar 1999a: 223-46). Ez dakigu jaun hau sortzez amiküztarra ote zen, baina adierazgarri da apez honek berak Asteteren katixima hori Bonapartek hala manaturik Arberoako Donamartiriko euskarara eta Donibane Garazikora ere moldatu zuela. Bizkaian Jose

28 Zuberoan ibiltzen da eta 1782ko *Pratica*-k ere badakar. Amiküzen Arberatzen entzun dugu.

29 Egun Amiküzeko Amendüzen eta Zuberoa mugako Olhaibin entzun dugu *gañan* aldaera ‘gainera’ adieran; cf. herri horietako 12 eta 16 etnotestuak liburu honen bukaeran.

30 Ibarrolako Salaberrik *erakitu* dakar, *h* gabe.

31 Ibarrolako Salaberrik *yakinsun* ‘savant’ eta *yakinsu* ‘instruit’ pareta dakar.

32 Ibarrolako Salaberrik *ogen* ‘tort’ dakar, eta frantses hiztegiak bi adierok dakartza *tort* hitzean.

33 Zuberoan *ükhen* bildu dugu eta Arberoa eta Amiküzeko zenbait herritan *ukan*, baina Amiküzen nagusi da *ukhan* eta Arberoan ere bada; Oztibarreko Jutsin, berriaz, *ukan* bildu dugu.

34 Egungo Amiküzen ez dugu entzun; *EAEL*-k Amendüzen *zeria* dakar eta Zohotan *zerü* bildu dugu, baina Zuberoako Domintxainen eta Etxarrin *zelü* entzun dugu. XIX. mendeko Donapaleuko katiximan *zelü* eta *zerü* ditugu, *zelü*-k maiztasun handiagoa duelarik: *hain egiazki eta errealki nola zelian beito* (Pagola et alii 1999a: 245) / *ohit güten zeria egöiten denaz* (233).

35 Laphizketan *zurthaiak* entzun dugu.

Antonio Uriartek egin zuen lana gogorarazten digu Cazenaveren jardunak. Kristau ikasbideak hiru mintzo desberdinetara itzuli dituen apezaren fidagarritasun dialektala ez da beharko lukeen bezain sendoa, baina besterik ezean hau baliatu beharko dugu Amiküzeko euskara historikoaren alderatze lanean.

Badirudi, bestalde, Bonaparte bera izan zela *Canticum trium puerorum* edo *Benedicte* testu llaburra Amiküzeko euskarara moldaturik eman zuena. Guretzat bien artean interesgarriena Cazenavek itzuli katixima da.

4.1.9. Bonaparteren garaikoa da B. Celhabe Bardozeko notarioak bertako euskarara egin katiximaren euskal itzulpena ere, 1868ko lehen erdian oraino egin gabe zegoena (Pagola, Iribar & Iribar 1999a: 277).

4.1.10. Bestalde, Mongongo Dassanzaren albaitaritzako 1692ko testuaren itzulpen bat gordetzen da Pariseko Biblioteka Nazionalean, 1891ko data duena: Amiküzeko Uhartehiriko Beltzagia etxean Jauregiberri izeneko batek egina dirudi, baina Beltzagiako egungo belaunaldikoez ez dute deitura horren berririk eta ezin, beraz, itzultzaile haren sorterriaz argitasunik lortu. Idazkiko euskaraz honela dio Peillen argitaratzaileak: “oinarrizko lapurteraren gainetik, Amiküzeko kutsua eta zübereraz bezala “ü” ta “u”-ren bereizketa. Fonetikaz kanpo hiztegian “manexago” da Amiküzekoa” (2015: 67-8) edo “soit de la part du copiste soit de la part de l’auteur il y a mélange de formes dialectales” (1972: 129). Dena den, badakigu 1894ko Bourciezen aldakian eta egungo mintzoan Amiküzeko Uhartehirin ez direla *u* eta *ü* bereizten, *u* fonema baizik ez dela.³⁶

4.2. Etnotestuak eta hizkuntza-inkestak

Herri mintzoak edo herri literatura ezagutu nahirik inkestak eta bildumak egin ziren Frantzia eta Europako beste lurralde batzuetan XIX. mendean. Amiküzeko euskara espezifikokoaren zer-nolakoaz jabetzeko asmoz ere egin ziren eta inkesta eta bilduma haien emaitzak ditugu orain aipagai.

4.2.1. Ardura literarioak zerabilen Cerquand 1874-1885 bitartean hainbat elezahar bildu zuelarik, ez zuen gogoan hizkuntza-azterketa bat egitea. Gure eskualdeko honako herriotan ixtorioak bildu zituen: Ainharbe, Arhantsusi, Bunuze, Ilharre, Oragarre eta Sarrikotan.

4.2.2. Julien Sacaze Frantziako Hezkuntza Ministerioko kideak Pirinioetako bi elezahar euskararazi zituen 1887an: Barbazan-ekoa eta Tantugou-rena. Egiazki, gure eskualdeko herri guztietako euskal itzulpenak eskuratu zituen;

36 2015ean ere egungo grafia aldatu da idazkia, *u* eta *ü* bereizirik, baina 1972an legez ez da berririk eman jatorrizkoan diren bokalen grafiaz, ezta jatorrizkotik grafia berrira heltzeko egin den egokitzapenez ere.

Donapaleuko kantonamenduari hogeita zazpi itzulpen dagozkio, Arüe (109), Domintxaine-Berroeta (115), Etxarri (116), Ithorrotze-Olhaibi (120), Lohitzüne-Oihergi (123) eta Pagola (128) barne. Datu horiek baliaturik hainbat hizkuntza ohar egin zituen Tolosako unibertsitateko Jacques Allières euskalari kaskoinak 1960-61 bitartean.

4.2.3. Haur prodigoaren parabola euskaratu zuten Ipar Euskal Herriko zoko guztietako errientek Bourciez frantsesarentzat (1894): *Recueil des Idiomes de la Région de la Gasconne* ekimena gidatu zuen eskoletako errienten bitartekaritza baliaturik. Irakasleek itzulpenaren 4.444 bertsio erdietsi zituzten Gaskoinian; nahi ala ez egin beharreko lana baitzuten, ez da herririk itzulpenik gabe gelditu denik. Guk euskal itzulpenez dugu interesa, baina guztiak ez daude baliatzeko eran, mintzoaren aldetik guztiak ez dira bildu ziren herriko mintzoarekiko ber heinean leialak. Gure eskualdeari dagokionez honako herriak aipagai dira: Aturrialdean Bardoze. Arberoan Donoztiri, Donamartiri, Armendaritze eta Mehaine. Amiküzen Oragarre, Arrüeta-Sarrikota, Behauze (bi itzulpen), Gabadi, Garruze, Ilharre, Lüküze-Altzumarta, Martxüeta, Donapaleu (bi itzulpen), Ostankoa, Behaskane-Laphizketa, Larribarre, Bithiriña, Uhartehiri, Gamue-Zohazti, Aiziritze, Amendüze, Arberatze-Zilhekoa (bi itzulpen) eta Arboti-Zohota. Oztibarren Arhantsusi. Zuberoan Domintxaine-Berroeta, Etxarri, Arüe, Sarrikotapea, Ündüreine, Lohitzüne, Pagola eta Ainharbe.

Euskal datu hauen zatikako azterketa bat egin eta argitaratu zuen Jacques Allières euskalari kaskoinak 1977an eta 1986an. Bourciezen euskal testu guztiak 2004an argitaratu dira; cf. Aurrekoetxea eta Videgainen *Haur prodigoaren parabola Ipar Euskal Herriko 150 bertsiotan*. Bi egileok eta Aitor Igleasiasek testuon azterketa lexikoa eta gramatikala egin dute 2004 eta 2005 urteetan kartografia baliaturik.

4.2.4. Gure eskualdeko lehen ahots edo soinu grabazioak Trebitsch austriarrak egin zituen 1913an Azkue eta Urkixoren laguntzarekin Vienako *Fonogram-marchiv*-erako, hiri hartako Zientzien Akademiak igorririk. Gure eskualdeari dagokionez, honako hiztunen etnotestu llaburrak bildu zituen: Amorotzeko Adolf Berdecoren bi, Behauzeko Katherine Faut-en bat eta Amorotzen bizi zen baina sortzez bardoztarra zen Jeanne-Marie Mendibilen bi. Jose Mari Etxebarriak entzungai horien transkribapen fonetikoak egin ditu eta 1994an argitaratu.

4.2.5. Ipar Euskal Herriko euskarari buruz Hermann Urtel-ek 1916-17an alemaniarren eskuetan atxiloturik zeuden euskaldunei bildu bandak aipa daitezke, Berlingo Fonoteka Zaharrean gordetzen zirenak, baina egun ez dakigu noiz entzuten ahalko diren.

4.2.6. Euskaltzaindiaren bitartez eta Azkue bultzatzaile nagusi zelarrik, *Erizkizundi Irukoitza* izeneko hizkuntza inkesta bildu zen Euskal Herri guztian 1922-1925 bitartean. Galdeketak gure eskualdean Beskoitze, Urketa, Bardoze, Hazparne, Heleta, Larzabale eta Arberatzen egin ziren, baina Amiküzeko herri honetako erantzunen liburuxka galdurik dago egun. Azkuek eginarazi inkesta haren erantzunak kartografiaturik argitaratu zituen Ana Maria Etxaidek 1984an.

4.2.7. Lehenago eta gerora ere egin dira euskal etnotestu edo hizkuntza-datu habororen bildumak gure eskualdearen ingurumarian. Charencey kondeak zuberera dialektoaren fonetikaz datuak bildu zituen (1891). XX. mendearen hasieran Lacombe³⁷ Alduden hainbat ixtorio bildu zituen (1911-12), Jose Migel Barandiaranek 1971-72 urteetan argitaratu zituenak. Aldudeko bereko Lacomberen hizkuntza-ohar batzuk argitaratu ziren 1952an Gavelen bitartez. Hugo Schuchardt-ek Lapurdiko Sarako euskaraz (1922) eta Jean Saroihandik herri honetan berean 1924an; Jean Larrasketek Zuberoako azentu eta kontsonante arteko eraginaz (1927) eta Barkoxeko mintzoaz (1932, 1939). Pierre Duni Pétrék hiru etnotestu bildu zituen Baxenabarren: Lekunberrin (1937), Iholdin (1950) eta Donibane-Garazin (1957) eta 1959an argitaratu zituen, baina ez dago Amiküze korrik. Jean Haritxelhar zenak ere Baigorriin bildu zituen ixtorio batzuk eta 1963an argitaratu.

4.2.8. Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa [EAEL] eratzeko inkestak egin zirenean Amiküzen inkestalekutat Amendüze hautatu zen eta ondoko eskualdetik Domintxaine eta Etxarri. Grabazioak lauretan hogeiko hamarkadan egin ziren: Amorotzen (1986), Amendüzen (1981), Domintxainen (1981), Arrüetan (1986), Etxarriin (1980) eta Pagolan (1986). Hala inkesten emaitzak nola grabazioen transkribapenak bi zatitan 1984 eta 1990ean argitaratu zituzten.

Euskaltzaindiaren Euskal Herri Hizkeren Atlasa [EHHA] 1985-1996 bitartean bildu zen: inkestak Euskal Herri guztiko 145 herritan egin ziren eta 5700 oren inguru grabatu. Funtsean galdera lexikoak egin ziren, baina ageri dira galdera foniko eta morfosintaktikoak ere. Ohi bezala testu libreak ere grabatu ziren, bizimodu, ohitura eta oro har interes etnografikoa duten gaien inguruan. Gure eskualdeko datuak Arrüetan, Garrüzen eta Arbotin bildu ziren, eta ingurumarian, interesgarri dira guretzat Armendaritze, Izturitze, Jutsi, Larzabale eta Landibarreko erantzunak ere. Eskuin, Zuberoako Domintxaine eta Pagolakoak dira guretzat jakingarri.

37 Gavelek diosku (1952) Lacombe Aldudeko euskara gaitzat harturik doktoretza tesia idatzi nahi zuela eta horretarako 1911tik harat herrian egonaldiak egin zituela, baina gerlak saioan etena ekarri zuen; gerla hartan eskuin besoa galdu zuen; 1936-37 urteetan Aldudera itzuli zen datu berrien xerka.

4.3. Ahozko corpusa

Aspalditik dihardugu euskal mintzoen azterketan eta hainbat alderditan gaindi kurri ibili gara euskal jendeen mintzoa biltzen; 1982an bertako mintzoa ezagutzeko asmoz aste beteko egonaldia egin genuen Heletako Garra auzoan; ondotik, 1985ean Lapurdiko Beskoitzen eta Uztaritzen izan ginen grabazio egiten; Baxenabarren, berriz, Orzaizen eta Amiküzeko Oragarren; beste grabazio bat egin genuen 1986an Heletan.

Amiküzeko mintzoa aztertu nahirik 2005 urteko neguan datu biltzen hasi ginen eta hainbat herritan grabazio egiten hasi; Amiküzeko mintzoa aztertzeko ezker-eskuin eta beheiti ere jo genuen datu bila, hauek gero Amiküzeko ezaugarriekin alderatu ahal izateko. Honela, eskualdea ezagutzen, zeharkatzen eta datu biltzen erauntsi dugu hainbat urtez.

Zein grabazio egin ditugun eta lekukoak nor izan diren adieraziko dugu jarraian. Grabazioaren egunaz edo garaiaz landa, urte bat ageri da, lekukoaren sorturtea, hain zuzen ere eta baita lekukoaren aita-amen sorterrria ere.

Emazteki anitzen kasuan bi deitura ageri dira: kasurik gehienetan lehenik ageri dena ezkondu ondokoa da, eta sortzezkoa *claudator* artean eman dugu, baina guztiek ez digute berdin eman, bakan batzuek lehenik sortzezkoa eman digute eta honelaxe ageri da gure zerrendan, eman dezagun, Heletan, Bartan, Oragarren, Berroetan, Olhaibin edo Pagolan; kasu hauetan *claudator* artean dena ezkondu ondokoa da.

Alta, emazteki batzuek ezkondu ondoko deitura baizik ez digute eman. Bestalde, litekeena da guk ezagutzean emaztekoa alargun izatea ere eta kasuistika areago kiribiltzen ahal da.

Hona, bada, gure lekuko guztien zerrenda:

4.3.1. Amiküzen

Dakargun hurrenkerak geografiari erantzuten dio hein batez, ezker eskuin joanik ekialderat, Xiberoarat eta iparretik hegorat jorik. Hizkuntzaren izaerari ere heltzen dio hein batez, aski tentazio ukan baitugu *ü* fonema ahoskatzen ez duten herriak hegoaldean uzteko. Alta, badira Amiküzen mugak finka ditzaketen hizkuntza-ezaugarri haboro, baina honetaz mintzatzeko jokaleku egokiena liburuko mamia bera dateke, ataltxo hau baino egokiagoa bai, bederen.

Hona, beraz, kurrutu ditugun bazterren eta laguntzaile ukan ditugun jendeen berri:

- Barta (Oragarreko auzoa), elkarrizketa:* Berthe Sarcou [Urruti], ama Bartako, aita Oragarreko, 1934 (2014/X/31)
- Oragarre, elkarrizketa:* Elixabet Xarriton [Borda], ama Lekorne herriko Gerezieta auzoan sortua, aita Oragarreko, 1932 (1985/IV)
- Oragarre, elkarrizketa:* Graxia Borda, ama Oragarreko, aita Beskoitzeko, 1924 (1985/IV)
- Oragarre, elkarrizketa:* Gaxuxa Xarriton [Peyroutet], aita-amak Oragarreko, 1932 (2006/IV/22)
- Amorotze, elkarrizketa:* Henri Fordin, aita-amak Amorotzeko, 1928 (2007/III/3)
- Amorotze, elkarrizketa:* Maitexa Fordin, ama Amorotzeko, aita Oragarreko, 1934 (2007/III/3)
- Zokotze, elkarrizketa:* Jean Ollier, ama Zuberoako Bildozen sortua, aita Zokotzeko, 1932 (2014/X/31)
- Behauze, elkarrizketa:* Jeanne Altxurrun, ama Armendaritzeko, aita Heletako, 1921 (2006/IV/19)
- Behauze, elkarrizketa:* Noel Xohobigarat, ama Behauzeko, aita Lüküzeko, 1955 (2006/IV/20)
- Behauze, elkarrizketa:* Jan-Battitt Peyroutet, ama Lekhuineko, aita Behauzeko, 1924 (2006/IV/22)
- Bithiriña, elkarrizketa:* Odette Luku,³⁸ ama Larribarreko, aita Bithiriñako, 1925 (2008/IX/30) eta (2009/VIII/24)
- Ostankoa, elkarrizketa:* Maia Idiart [Astabie], aita-amak Ostankoako, 1925 (2015/VIII/21)
- Uhartehiri, elkarrizketa:* Mañex Eiheramunho, ama Uhartehiriko, aita Arrozetik Sorhapürüra joana, 1925 (2009/XI/16)
- Sarrikota, elkarrizketa:* Pierre Caillaba, aita-amak Sarrikotako, 1935 (2006/IV/6)
- Arrüeta, elkarrizketa:* Margarita Garai [Etxart], ama Gamueko, aita Arrüetako, 1925 (2006/III/28)
- Martxüeta, elkarrizketa:*³⁹ Janamari Sallenave, ama Martxüetako, aita Arberatzeko, 1922 (2005/XI/13)
- Labetze, elkarrizketa:* Arño Mazain, ama Oragarreko, aita Bastidako, 1922 (2006/III/28)

38 Zenbait aldiz elkarrizketan lagundu dute Maddi (1929) eta Kattin (1933) ahizpek ere.

39 Amiküzeko euskararen gure azterketa lanean laguntzaile eskuzabal eta bikaina izan den Jean-Claude Mailharin amendüztarraren aita-ama martxüetarrak, Franxua eta Dorothei Mailharin, elkarrizketatu zituen 2005/V/2an Argitxu Canterok *Irulegi irratia*-n; Jean-Claudek grabazioa utzi digu laneko.

- Altzümarta, elkarrizketa:* Germena Dufau [Lakaberatz], ama Altzümartako, aita Behauzeko, 1942 (2015/X/1 eta 2015/X/27)
- Lüküze, elkarrizketa:* Simone Khurutxet, ama Lüküzeko, aita Oragarreko, 1930 (2015/VIII/21)
- Ilharre, elkarrizketa:* Jean Dascon, ama Ilharreko, aita Behaskaneko, 1936 (2006/IV/26)
- Gabadi, elkarrizketa:* Pantxika Bordagarai, ama Zokotzeko, aita Gabadiko, 1938 (2006/IV/27)
- Amendüze, elkarrizketa:* Xeñan Xala, ama Zohotako, aita Amendüzeko, 1929 (2015/VIII/22)
- Gamue, elkarrizketa:* Jan-Battitt Sallenave, ama Gamueko, aita Arberatzeko, 1920 (2005/XI/13)
- Zohazti, elkarrizketa:* Terexa Salato [Egurbide], ama Labetzeko, aita Domin-txaineko, 1937 (2015/VIII/21)
- Donapaleu, elkarrizketa:* Maddalen Lagarde [Lapebie], ama Oragarreko, aita Labetzeko, 1928 (2015/VIII/22)
- Donapaleu, elkarrizketa:* Battitta Hourcade, ama Aintzileko, aita Behaxkaneko, 1931 (2015/VIII/22)
- Arboti, elkarrizketa:* Jean-Marie Larroque, aita-amak Zohaztiko, 1938 (2006/IV/19)
- Arboti, elkarrizketa:* Pilla Narbaitz, ama Zohaztiko, aita Arbotiko, 1937 (2006/IV/22)
- Zohota, elkarrizketa:* Philippe Marquesuzaa, ama Zohotako, aita Mehaineko, 1924 (2006/V/16)
- Arberatze, elkarrizketa:* Marie-Jeanne Elizondo, ama Arberatzeko, aita Zohotako, 1922 (2006/V/16)
- Laphizketa, elkarrizketa:* Dominique Xilindron, ama Donapaleuko, aita Zohotako, 1931 (2015/X/27)
- Laphizketa, elkarrizketa:* Jan-Battitt Karrik, ama Larribarreko, aita Laphizketako, 1927 (2009/X/28)
- Laphizketa, elkarrizketa:* Jean-Pierra Rekalde, ama Laphizketako, aita Labetzeko, 1948 (2006/IV/26)
- Larribarre, elkarrizketa:* Pierre-Paul Lamothe, ama Artüeko, aita Burgaronneko bearnesa, 1924 & Joanes Goihetxe⁴⁰

40 Bi lagunek *Irulegi Irrati*-rako egin elkarrizketa bat baliatu ahal ukan dugu Gabi Agerre larribartarak utzirik; eskerrak zor dizkiogu.

Sorhapürü, elkarrizketa: Philippe Castillon, ama Larribarreko, aita Sorhapürüko, 1930 (2015/VIII/20)

4.3.2. Arberoa eskualdean eta Landibarren

Armendaritze, elkarrizketa: Maia Urruti, aita-amak Armendaritzeko, 1939 & Noëlie Lartigau [Arrhegi], ama Iholdiko, aita Armendaritzeko, 1932 (2006/III/21)

Armendaritze, inkesta: Noëlie Lartigau [Arrhegi], 1932 (2009/IX/7)

Heleta, elkarrizketa: Terexa Mendiburu [Arbelbide], ama Heletako, aita Lekorneko, 1900 (1986ko primadera)

Landibarre, elkarrizketa: René Zabalo, ama Heletako, aita Landibarreko, 1952 (2006/IV/27)

Mehaine, elkarrizketa: Mixel Mendibil, ama Bithiriñako, aita Iholdiko, 1938 (2005/XI/13)

Mehaine, inkesta: Mixel Mendibil, 1938 (2009/VIII/19)

Mehaine, elkarrizketa: Arño Etxebarne, ama Oragarreko, aita Mehaineko, 1939 (2009/X/10)

4.3.3. Oztibarren

Donaixti, elkarrizketa: Piarres Erdozainzi, ama Donaixtiko, aita Ibarrolako, 1957 (2015/IV/28)

Hozta, elkarrizketa: Dominique Berrhuet, ama Donaixtiko, aita Hoztako, 1932 (2015/IV/28)

Ibarrola, elkarrizketa: Arño Harizpuru, ama Donaixtiko, aita Ibarrolako, 1932 (2015/IV/25)

Ibarrola, elkarrizketa: Hélène Labarthe, ama Ibarrolako, aita Donaixtiko, 1928 (2015/IV/25)

Ibarrola, elkarrizketa: Panpi Harizpuru, ama Ibarreko, aita Pagolako, 1954 & Petri Harizpuru, ama Ibarreko, aita Pagolako, 1957 (2015/IV/25)

Jutsi, elkarrizketa: Kattaliñ Ollarburu, ama Donaixtiko, aita Jutsiko, 1920 (2005/XI/9)

Jutsi, elkarrizketa: Pierra Lako, ama Donaixtiko, aita Jutsiko, 1935 (2005/XI/9)

Zibitze, elkarrizketa: Lucien Ruspil, ama Zibitzeko, aita Hoztako, 1936 (2015/IV/28)

4.3.4. Zuberoan Amiküze ondoko eskualdean

Ageri denez eskualde honetan ere norabide bera dakargu, ezkerretik eskuinera ekialderat eta iparretik hegorat, kurritu ditugun ipar-mendebaleko Zuberoako herri guztien berri emanik; hona zein diren:

Domintxaine, elkarrizketa: Jean Etxebest, ama Domintxaineko, aita Behaskaneko, 1938 (2006/III/21)

Berroeta, elkarrizketa: Marie Diribarne [Karrik], ama Behaskanen sortua, baina haur denboran Berroetara joana, aita Berroetako, 1931 (2009/X/28)

Etxarri, elkarrizketa: Xixili Etxeberri, ama Arüeko, aita Etxarriko, 1929 (2006/IV/20)

Ithorrotze, elkarrizketa: Jean-Louis Jauriberri, ama Aiziritzeko, aita Armendaritzeko, 1946 (2009/IX/17)

*Olhaibi, elkarrizketa:*⁴¹ Gaxuxa Couillet [Lacarrieu], aita-amak Olhaibiko, 1924 (2009/VIII/26)

Arüe, elkarrizketa: Hortense Idiart, aita-amak Arüeko, 1932 (2009/IX/17)

Sarrikotapea, elkarrizketa: Georges Rekalt, ama Oihergiko, aita Sarrikotapeko, 1923 (2009/VIII/24)

Sarrikotapea, elkarrizketa: Henri Labarthe, ama Lohitzüneko, aita Sarrikotapeko, 1928 (2009/X/6)

Ündüreine, elkarrizketa: Marie Faurie [Aphardoi], ama Larrabileko, aita Ündüreineko, 1925 (2009/X/6)

Lohitzüne, elkarrizketa: Joseph Poxelu, ama Gabadiko, aita Lohitzüneko, 1932 & Phénicie Poxelu, ama Arhantsusiko, aita Lohitzüneko, 1935 (2006/V/17)

Oihergi, elkarrizketa: Joseph Arbouet, ama Oihergiko, 1923 (2007/III/3)

Oihergi, inkesta eta elkarrizketa: Pierre Iratzabal, ama Oihergiko, aita Urdiñarbeko, 1935 (2009/II/14)

Ainharbe, elkarrizketa: Maieta Mirande-Garat [Caparrus], aita-amak Ainharbeko, 1938 (2008/X/1)

Pagola, elkarrizketa eta inkesta: Añamari Camadro [Erazarret], aita-amak Pagolako, 1948 (2009/IX/24)

Pagola, inkesta: Jean Erazarret, ama Donaixtiko, aita Pagolako, 1939 (2009/II/14)

Urdiñarbe, elkarrizketa eta inkesta: Kattina Guiresse [Tartaxü], aita-amak Urdiñarbeko, 1929 (2009/X/10)

41 Egin genuen beste elkarrizketa luze bat Olhaibin, Maddi Berterretx emaztekiarekin (2008/X/8), baina zorigaitzez ez zen ongi grabatu eta ez dugu baliatzeko aukerarik izan.

Adieraz dezagun, bestalde, Mattin Irigoien kontrol taldeko gure laguntzaileak Domintxaineko Juhañe Cousteau XX. mendeko bertsolariak ondu *pertsu* batzuk helarazi dizkigula, berari Arberatzeko Jan-Battitt Etxeparek ahoz kantaturik; hona hemen Mattin Irigoienen transkribapena:

Domintxaineko oilarra

Bi bertset baditut orai eginik
suieta ukenik Domintxainetik
oilarrak dituztela arras ñapurturik
aizoko oiluetan biziaturik.

Biba oilar zaharra
oi zer oilokaria
biba oilar handi lepo luzia.

Etxengo oiluetan ez dute gusturik
nahiago beitzute kanpokuetarik
atzamaiten dutela oi ez da dudarik
menturaz ez beti nahi dutenatarik.

Oiluez ere ez dira beti kumentatzen
oilandak ere dituzte gaizki atakatzen
haien inuzentziaz dira baliatzen
lehuñ baten pare gero aplikatzen.

Orai nahi dianak kanbiatu oilarra
Domintxainen bada mota partikularra
arrazaz handi eta ilun koloria
oiluen jokatzeko paregabia.

4.3.5. Laguntzaileak, kontrol taldea

Laguntzaileak izan ditugu gure lanean eta kontrol talde gisa ere baliatu ditugu inoiz behartu garelarik; hona nor izan diren:

Gabi Agerre (Larribarre)

Itxaro Borda (Oragarre)

Jojo Bordagarai (Gabadi, Jutsi)

Arnaud Dendaletxe (Arie)

Mixel Etxeber (Pagola)

Mixel Etxeberri (Hazparne, Behaskane)

Mattin Irigoien (Arberatze)

Antton Luku (Bithiriña)

Jean-Claude Mailharin (Martxüeta, Amendüze)

Xan Othabürü (Laphizketa)

Mixel Thikoipe (Amendüze, Domintxaine)

Frantses hitzen xuxen idazteko laguntza handia eman digu Uztaritzen bizi den Maitena Duhalde ikertzaile ziburutarrak.

Liburuko hiru mapak, berriz, Xamarrek egin ditu.

5. Amiküzeko euskararen bilakabide historikoa

5.1. Aldaketa historikoen agerpen idatzia

Hizkuntzalaritza historikoak argi erakutsi du zernahi hizkuntzak beti gorde ohi duela bere iragana ezagutu ahal izateko hainbat herexa edo aztarna eta argibide, iraganeko hainbat atal haren hizkuntza-aldaeretan iltzaturik gelditzen dela, interpretazio egokiaren zain. Hizkuntza horren iraganeko zenbait ezaugarri eta forma sakonago eta osotasun handiagoan ezagutzeko, aro garaikideko hizkuntza-formak eta datuak ongi aztertu eta interpretatu behar dira; diakronistarentzat helburuaren alderdi handi bat hizkuntza horren iraganeko formak berreraiki ahal izatean datza.

Ahaidetasun harremana duten hizkuntzen artean adiera bera duten forma edo aldaerak alderatzen dira eta hizkuntza bereko dialektoen artean ere, sorburu bera duten baina fonikoki desberdin bilakatu diren aldaera kideko edo *cognatum*-ak alderatzen dira. Hizkuntza-informazio garaikide ezaguna baliatuz eta triangulazio edo ekuazio linguistiko egokiak gauzatuz gero, ingurune foniko edo morfologiko jakinetako ezaugarrien egokitzapen eta alderaketak behar bezala eginez gero, hizkuntzalariak argitasun eta ezagutza berriak lor ditzake hizkuntzen iraganaz, azken buruan, testu idatzirik ez zen garaiko historiaurreko formak eraiki ditzake, baina eginkizun hau ez da gauza erraza eta eredu egokiak baliatu behar dira, azterketa empiriko konplexuak eginez, gainera. Dialektologiaren denaz bezainbatean ere, aldakortasun dialektal berankorraren ebidentzia konparatiboan oinarriturik lehenagoko aldi historikoak berreraikitzen ahal dira (Pilch 1988: 423).

Hizkuntza baten iraganeko berri jakiteko badira aukera gehiago, ordea, nahiz eta ez dakarkioten azterketari horrenbesteko sakontasun kronologikorik: hizkuntzalaria idazki zaharretan informazio lagungarria aurkitzen saiatzen da, mintzo baten forma garaikideak iraganean nolakoak ziren jakin nahirik, ustez eta antzinako idazleek orduko hainbat aldaera testu zaharretan idatziz utzi zuten, eta testuen arteko alderaketak hizkuntza-aldaketa historikoen katea edo sekuentzia koherente bat islatuko duen, baina afera ez da izaten dirudien bezain erraza eta ikertzaileak *handicap* batzuk izan ohi ditu:

- a) beharbada ez dago eskualde jakin bateko idazki zaharrik eta hau izan liteke Amiküze ibarraren kasua

- b) eskualde bateko idazki bakanen arteko tarte edo distantzia kronologikoa arras handia da hizkuntzako forma edo aldaerei buruz ondorio xehe eta finak aurkitu ahal izateko: datuak ditugun aldien arteko hutsune kronologikoak sobera luze dira hizkuntza-gertakari berriak edo aldaketak zehazki noiz gertatu ziren jakin ahal izateko; ongi ezaguna da datu historikoez beren maiztasun kronologikoan eta beren hedadura espazialean arras irregularrak izateko joera dutela (van Reenen, Rem & Wattel 2009: 48) eta hau da Nafarroa Behereko euskararen kasua, izan ere, ez da beti aise izaten baxenabartarren idazkiak haien ezaugarrien bilakabidearen historian kokatzea
- c) iluntasun handia dago testu jakin zenbaiten jatorriaz: halako edo hone-lako idazkia eskualde jakin batekotzat jotzeko ez da aski aztarna edo informaziorik aurkitzen, bertako ezaugarrien artean ez da testuaren jatorriaz adibide endemiko eta unibokorik edo froga positiborik atzematen; eta testuko berrikuntza berezi batean edo batzuetan oinarriturik harentzat jatorri geografiko jakin bat postulatzeko aukera balego ere, beharbada hizkuntzalaria ez da datu egokienak xuxen diskriminatzeko gai
- d) testuak dakarren eskualde jakin bateko mintzoaren gainean, hizkuntza-ezaugarrien bestelako geruza bat ere bada, literatura tradizioko ohiturek eragina dirudiena, baina testuko zenbait ezaugarritan ez dugu aise bereizten ahal zein den zinez eskualdeko tasuna eta zein zor zaion ohiturazko tradizio idatziari edo mintzo jantziari
- e) inoizko ezaugarri zahar ala berri bat haren garaiko testuetan islaturik agertzea ala ez agertzea zoriaren menpe dagoen zerbait da; cf. Ulibarri (2013: 522)

Hizkuntzalariarendako egoerarik bikainena litzatekeenean, idazkiek aski leialki erakutsiko lukete eskualde bateko eta garai jakin bateko mintzoa nolakoa zen eta ondorioz, eskualde horretako testu erlatiboki leialen sekuentzia kronologiko jarrai eta goitik beherakoa antola litekeen kasuetan, ezaugarri berri batzuen idatzizko lehen agerpenak aldaketaren garaia sala lezake, eta ez lirudike hain zaila berrikuntza edo aldaketa noiztsu gertatu zen irudikatzea, ezaugarri berri zenbaiten agerpen garaiari so eginez nola edo halako periodizazio bat garatzea edota postulatzeari.

Ordea, errealitatean gauzak ez ohi dira nahi genukeen bezalakoak izaten eta testuetako ezaugarrien jatorria ez da nahi bezain unibokoa izaten, datuek ez dute egoera garden edo absoluturik erakusten, hizkuntzalariaren azterketa geo-

linguistikoa ez da behar edo nahi bezain zorrotza eta honezaz landara, idazketa ohitura supradialektalak ager daitezke ustez eskualde batekotzat jotzen dugun idazkian.

Testuko ezaugarriek ez badute argitzen idazkia geografikoki nongoa den eta ez badugu hizkuntzaz landako erreferentziarik testua nork, norentzat, non eta noiz idatzi zuen jakiteko, noiz eta non idatzi ziren badakigun beste “aingura testu” batzuekiko alderaketa lan xehe eta konplexuak erakutsi beharko digu ebidentzia zenbait, testua garaian ala geografian hein batez bederen kokatzeko; cf. van Reenen, Rem & Wattel (2009).

Eta aingura eginkizuna bete lezake egungo datu dialektal ongi lekukotuek ere, halako lekutan berrikuntza endemiko bat baldin badago eta testu zahar batean berrikuntza hori bera ageri baldin bada, baina beste inolako testu zaharretan ez: honelako kasuetan aukera dago testuaren jatorria berrikuntza endemiko garaikidearen eskualde bera izateko, baina ongi dakigu anitz aldiz berrikuntzak historikoki lekuz aldatu direla eta ondorioz kontu handiz juzgatu behar dugula.

Errealitate honek Koldo Ulibarrik bikain aurkeztu duen egia paraleloen eremura garamatza:

- a) egungo ezaugarrien banaketa geografikoak lehenagokoa berreraikitzeke zantzuak eta gakoak eman diezazkiguke, baina
- b) egungo banaketak eta aspaldi batekoak ez dute zertan berdinak izan

Ulibarrik ongi dio dialektologialari historikoak bi ziurtasun hauen artean murgiltzen eta eraunsten ikasi behar duela (2013: 519).

5.2. Testu zaharrak Amiküzen

Amiküzeko ^heskuararen iragana aztertzen hasiz gero, bertakotzat jo ditza-kegun testuen azterketara arestian aipatu ditugun bost *handicap*-ak biltzen zaizkigu. Galdegin bageneza ea ba ote den zinez Amiküzekotzat jo dezakegun testu zaharrak, hau da, berme handiz eta era kontrastatuan esku amiküztar ezagun batek idatzia dela dakigun testurik, ezin genezake baieztatu honelakorik badenik. Ez dago esku amiküztar batek idatzi testu jator bat, aingura lana egin lezakeena, gainerateko idazkiekiko alderatze ziurra berma liezagukeena. Eta areago dena, zinez 1740 inguruko edo 1786ko kristau ikasbideak esku amiküztar batek bere sortzezko mintzoan ondu balitu ere, guk ez dakigu honen berri, ez dakigu nor izan zen 1740 inguruko katiximaren itzultzailea ezta 1786koaren egokitzailea ere, baina ez dugu ukatzen bata, bestea ala biak Amiküzeko seme izateko aukera

ere. Aukera hori ukatzeko Amiküzeko euskararen garapen diakronikoaz dugun baino ezagutza hobea ukan beharko genuke: alde batetik testu diakroniko fida-garriagoak, eta bestetik hizkuntza-ezaugarrien sekuentzializazio diakronikoa sakonago ezagutu beharko genuke, baina gure ezagutzaren egoera ez da behar bezalakoa.

Uler daitekeenez, aspalditik honat Amiküze ibarraren saihetsetan badira Zuberoan eta Baxenabarren idatzi diren euskal testu zahar zenbait.⁴²

Amiküzeko eskualdean testu berankorrekin lan egin beste biderik ez denez, zail da berrikuntzak noiz gertatu diren —eta bereziki Amiküze alderdian noiz

42 **Zuberoa:** **XVI. mendea:** Leizarragaren hiztegia: *Çuberoaco Herrian vsañçatan eztiraden hitz bakoitz batzu hango ançora itzuliac* eman behar izan zituen beskoiztarrak hango apez edo irakurleak gogoan (1571). **XVII. mendea:** Jakes Belakoaren atsoitzak. Oihenart: *Neurtitz hautako hitz bekanean adigarria* (1657) / *Onsa hilceco bidia* liburuan badira hiru testu labur (lehen argitalpean 7, 183 eta 184. or.); A. de Conget eta B. de Jauregiberri jaunek 1657an izenpetua (1975: 8); Darhetzek Tartasi eskainitako bertsoak (1975: 157), eta Bonnecase Mauleko erretorearen 1666ko izkributxoak (1975: 158); zail da Juan de Baguarie Camblonque eta Susmioko *erretoraren* euskara kokatzea (1975: 158). *Arima penitentaren occupatione devotaq* inprimatzeko egokia dela dioen oharra (21), 1668koa, Bonnecasek eta Fr. Nicephore izeneko kaputxino batek izenpetua. *Pronus singulis diebus...* (c. 1676). Athanase Belapeireren *Catechima laburra* (1696). **XVIII. mendea:** *Catechima Oloroeco Diocezairen Cerbutchuco* Jacques de Maytierena (1706). *Othoitce eta cantica espiritualac Çubero herrico* (1734). Martin Maisterren *Jesu-Kristen Imitacionia...* (1757). *Igan-teçtaco Pronoua, eta hilen pronoua* (c. 1757); Pello Agirrek hartu-eman hertsia dakusa lan honen eta Maisterren *Imitacionia*-ren artean. Ressegueren *Sacramentu-Saintiaren aurhidegouaco maniac eta chedia...* (1758). Alexis Mercyren *Andere Dona Maria Scapularicouaren confrariaco bula, decreta, statutac eta maniac...* (1780). **Pastoralak:** ahoz irudikatzeko idatzi zatzerkiak dira, ondu ziren testuen ondoko kopiak ere hor barrena ibili dira, eskurik esku, etxez etxe, familiarik familia; kopia hauetan egitura edo aldaera zahar batzuk norbaitek ondoko forma berriago batzuen ordeztatu edo eguneratu ahal izan ditu; cf. adibidetzat honako aldaketak, Beñat Oihartzabalek aipatzen dituenak: *nouequi* → *enequi*, edo baita *ore* → *hire* ere (1991: 116). *Antiokiako San Julian*, 1770koa (Loidi 2004). *Charlemagne*, XVIII-XIX-koa (Oihartzabal 1991). *Edipa*, 1793koa (Bilbao, 1996). *Klobis*, XVIII-XIX-koa (Loidi 2009). **XIX. mendea:** *Sainta Catherina* pastorala, 1839koa (Loidi 1996). *Kaniko eta Belxitina* komedia, 1848koa, Jakes Oihenartek idatzia (Aresti 1971). *Jesu-Kristen ebanjelio saintia Sen Mathiuren arauera*, E. Intxauspereña, 1856. *Dialogues basques souletins*, Intxauspereña, 1857. *Jaundone Jouhane apostoliaren apokalipsa*, Intxauspereña, 1858.

Ziur gara Manu Padillaren oraintsuko ikerketek Zuberoako testu zahar gehiagoz etorkizun hurbilean argitasun handia ekarriko dutela.

Baxenabarre: Beñat Etxepareren 1545eko *Linguae Vasconum Primitiae* (Patxi Altuna, 1980). 1651ko *Pregariac Bayonaco diocezakotz* (Euskaltzaindia, 1991); aldaki hau Nafarroa Beherekoztat jo da, baina oinarria Lapurdiko idazki batean du eta zati batzuetan bederen areago ematen du Lapurdiko mintzoa Baxenabarrekoa baino. Garazi ibarreko Bazkazane herriko 1762ko predikuak (Orpustan 2005). Bonapartek XIX. mendean eragin itzulpenak ere (Pagola et alii 1999a eta b): Cazenavaren Donamartiriko katixima [Donam kat], Cazenavaren Donibane-Garazikoa [Donib kat] eta Cazenavaren beraren *Jondoni Juane Apostoliain Apokalipsa* [Caz JJ], in Pagola et alii (1999a); Iribarnegarairen *Ibarnegarai* ere izan liteke deitura] San Mateoren ebanjelioa Baigorriko erara itzulia [Irib SM], in Pagola et alii (1999b).

gertatu diren — jakitea, ez baitago bertako XV, XVI edo XVII. mendeko testurik alderatze zehatzak egiteko.

XVII. mendeko Tartas eta Oihenart idazle zuberotarrak dira sortzez; ezagun du hori Amiküze ondoko Ariñen apez egon zen Tartasen euskara idatziak. Oihenart Amiküzera ezkondu zen idazle zuberotarra dugu. Bi idazle on testuetarik ezin ondorio sendorik atera dezakegu Amiküzeko orduko euskararen zer-nolakoaz jabetzeko, besteak beste, beren idazkietan biek ausarki baliatu zituztelako Lapurdiko liburuetakoa euskaratik hartu edo mailegaturikako aldaerak.

Baxenabarreko berri izateko, XVI. mendeko Beñat Etxepare idazle garaztarra dugu bestalde eta bertatik atera genitzake ondorio batzuk XVI. mendeko Baxenabarreko euskara orokorra irudikatzen, baina betiere garbi izanik, Garazin 1545ean gauzak era jakin batekoak izateak ez duela bermatzen Amiküze eskualdean ere XVI. mendean aferak halakoxeak zirela.

Jardunbide zientifiko honetan guztian bada gainera beste *handicap* handi bat: Lapurdi alderdiko literaturan XVI eta XVII. mendeetan ezaugarri berritzaile zenbait ageri dira, baina Baxenabarren ia ez dago garai hartako idazkirik. XVIII. mendean Baxenabarreko idazki batzuetan ageri diren berrikuntzak, Lapurdin XVI-XVII. gizaldietan badirenak, baina Baxenabarreko beste idazki batzuetan XVIII. ean ageri ez direnak, Baxenabarreko eskualdeetan zehazki noiz agertu ziren jakitea zinez zail da.

Arestiko laugarren atalean aurkeztu ditugu XVIII-XIX. mendeetako Amiküze eskualdeko euskal idazkiak; adieraz dezagun *grosso modo* zein estatus dialektal duten; hurrenkera kronologikoan dakartzagu:

Amiküze eskualdeko euskal idazkia	egilea	nongo mintzoa	literatura-eragina	fidagarritasun dialektala	sekuentzializazio kronologikoaren ikuspegia
c. 1740	ezezaguna	ezezaguna	zaila jakiten	zaila jakiten	batere ez
1782	ia ezezaguna	beharbada Oztibarrekoa	ez bereziki	zalantzakoa	apala
1786	ezezaguna	ezezaguna	zaila jakiten	zaila jakiten	apala
XIX. mendeko Donapaleuko katixima	ia ezezaguna	erlatiboki Donapaleukoa	ez bereziki	zalantzakoa	besteena baino goragoa
Jauregiberri (1891)	ia ezezaguna	ezezaguna	bai	zalantzakoa	besteena baino goragoa

Taulan eskuinera seigarren laukian dioguna honela uler daiteke: XVIII. mendeko lehen idazkiak ez du eskualdeko lehenagoko testurik alderatu ahal izateko eta ezin, beraz, hizkuntza-ezaugarrien sekuentzializazio kronologikoaren ikuspegirik eduki; XVIII. mendeko hurraren bi testuek badute 1740 urte ingurukoa aitzinean eta XIX. mendeko Cazenaveren katixima ondotik eta halaz, alderatze horretatik ondorio zenbait atera litezkeela uste dugu; XIX. mendeko katiximak XVIII. mendeko kristau ikasbideak eta XX. mendeko inkesta edo bildumen emaitzak ditu alderagai, guhaurek XX eta XXI. mendeetan bildu datuak ahantzi gabe.

Eskualdeko hainbat hizkuntza-berezitasun eta hauen agerpen historikoa aurkezteko, alderdi fonikoko adibide guti batzuk eta morfosintaxiko kasu sorta zabalago bat baliatu ditugu. Adibideak ez dira hustuketa guztiz sistematikoaren emaitza: adierazgarri iruditu zaigun emaitza sorta bat dakargu orriotara, baina ez dakargu hustuketa edo kopuru osorik, eta ez dakargu ezaugarrien erabilera-maiztasunaren ehuneko edo datu erlatiborik ere; inoiz oharrik eginen dugu honetaz, baina ez dugu bilakuntza sistematikorik egin, bai ordea idazkien irakurraldi aski arretatsua. Nolanahi ere den, testuan adibideak salbuespena direnean edo idazkian ageri den kasu bakarra direnean, honelakoetan esplizituki adieraziko dugu salbuespenak direla edo adibide bakarra dela.

Eskualdeko ezaugarri berri eta bereizgarri batzuk zaharrak dira, lehen testuak agertu aitzineko berrikuntzak dira eta zail da noiz gertatu ziren jakitea. Beste hainbat kasutan ezaugarri berriak berankorrakoak dira eta litekeena da berrikuntza XVIII. mendekoa izatea eta bilakabidea testu berankorrakoetan sendoago gauzaturik edo erroturik agertzea; berrikuntza hauetarik batzuetan progresioa nabarmena da gainera, eta idazki zaharragoetan sumatzen ez den indarra ageri da berrienetan, eman dezagun XIX. gizaldiko katiximan. Aldiz, beste kasu batzuetan ez dago koherentzia handirik ezaugarrien historiaz ustez dakigunaren eta testuek dakartzaten datuen maiztasun-agerpenaren artean.

Arrazoiak xuxen zein den ez dakigularik, batzuetan eskualdeko berrikuntzak falta dira testuetan: berrikuntza arras berria izatea, testuotan hedadura geografiko edo literario handiko formak nagusitzea, testuok eskualdeko mintzoa leialki ez islatzea... izan daitezke arrazoiak, baina zail da datu haboro gabe argudio batoren ala bestearen alde agertzea.

5.3. Ezaugarri sail bat hiru garai eta bost idazkitan

Datuak nolerebait erakusten hasi behar baitugu, literaturako testuetan hizkuntza-errealitate historikoa nola islatu den irakurlearen begien aitzinean ezarri beharrez, *grosso modo* tipologia laukoitz hau aurkezten ahal dugu:

5.3.1. Idazkietan ageri ez diren berrikuntzak

Lehen multzora idazkietan ageri ez diren berrikuntza batzuk ekarri ditugu. Eskualdeko berrikuntza guztiak ez dira idazkietan ageri: berrikuntza bat arras berria delako — eman dezagun XIX. mendean honatakoa —, edo bestela berrikuntza XVIII edo XIX. gizaldian gertaturik ere orduko idazkietan islatu ez zelako, ez dago egun amiküztarrek ahoz ibiltzen duten tasun berri baten lekukotasun idatzirik XIX. mendea bitarteko idazkietan, edo beharbada ez da ageri XX. mendeko inkestean emaitzak bildu arte. Kasu honen barrenean sartu beharko genuke XX-XXI. gizaldietan Amiküzen usu eta aldi oro entzuten den berrikuntza adibide bat XIX. mendeko idazkietan ez agertzea, baina XVIII. mendeko testuetan berrikuntza honen adibide bat bakarra eta behin baizik agertu ez izana; irudi lauso honek XIX. mendeko testuaren leialtasun dialektala zenbaterainokoa den pentsatzera eramaten gintuzke, batez ere aldagaiaren edo erabileraren aldi posible guztietan tasun berri horren lehenagoko beste alomorfo edo kide bat bertan ager baledi. Testuetan ageri ez diren hiru berrikuntza eta behin baizik ageri ez den beste bat aurkezten ditugu:

5.3.1.1. Zenbait kasutan ez dago koherentzia handirik ustez dakigunaren eta testuek dakartenaren artean. Amiküzen eta Zuberoako ipar-mendebalean *-tuko & -tüko* → *-tiko* palatalizazioa gertatu da partizipioaren eta etorkizuneko morfemaren loturan, Bithiriñako *batheatiko*, Ilharreko *hartiko* edo Oihergiko *gidatiko* egungo adibideak lekuko; ordea, eskualdeko idazki zaharretan ez dugu adibide bakar bat baizik bildu, XVIII. mende bukaerako katiximan:

c. 1740: *barcatuco* (65), *cehatuco* (67), *sartuco* (87), *soccorrituco* (60)

1782: *aitcinatuco* (10), *bessarcatuco* (32), *carreatuco* (22), *desiratuco* (30), *eçagutuco* (12), *errecebituco* (205), *galdatuco* (13), *goçatuco* (31) *hartuco* (206), *honituco* (205), *inxeatuco* (12), *seindituco* (20)

1786: *adoratuco* (13), *barcatuco* (85), *beiratuco* (13, 88), *cehatuco* (86), *gouticiatuco* (14), *juratuco* (13), *maitatuco* (82), *ohoratuco* (13) / *maitatico* (13)

XIX-ko Donapaleuko katixima: *barkhatuko* (225), *geldituko* (242), *juntatuko* (242)

5.3.1.2. Muga adlatiboaren eskualdeko atzizki espezifikoa falta da Amiküze alderdiko testuetan: aldaketa arras berria delako — baina Joseba A. Lakarra hizkuntzalariak arkaismotzat dakar (2008: 484) —, testuetan hedadura geografiko edo literario handiko formak nagusitu direlako, testuok eskualdeko mintzoa leialki islatzen ez dutelako, Amiküzen onduak ez direlako... ez dakigu xuxen zerengatik. Egungo *-radio* aldaera ez zaigu XVIII-XIX. gizaldietako idazkietan ageri; bestalde, 1782ko itzulpenak ekialdean — Zuberoa eta Erronkariko idazleak barne — ohikoa den *noraderano* aldaera osatua dakar:

c. 1740: *biharamuneraino* (81), *eguneraino* (35) [vs. *egundaigno* (121)], *hil ordura-inocuan* (44); *adinetaraino* (30), *urthetaraino* (30); *gutaraino* (41)

1782: *burthiniranokuan* (158), *Celurano* (76), *emaiterano* (172), *finerano* (63), *hil arteranokuan* (64), *pundurano* (27) / *noraderano* (160, 420)

1786: *acabançaraino* (99), *biharamuneraino* (106); *adineteraino* (sic, 40), *ourthetaraino* (40); *gutaraino* (53); cf. *egundaigno* (155)

XIX-ko Donapaleuko katixima: *tenoreano* (225), *bulharretaano* (227)

Jauregiberri (1891): *fundamenerano* (76); *ahi arteraino* (78)

5.3.1.3. Egungo euskaran berria da izen arrunt pluralen instrumentaleko *-etaz* atzizki aldaera, zeinetan *hetaz* edo *horietaz* erakusleen itxurak eragin analogikoa ukan dukeen: *ixtorioetaz* (Behau), *phestetaz kanpo* (Mar), *bakantzetaz kanpo* (Bith). Testu zaharrek ez dakarte berrikuntza honen berri:

c. 1740: *desiratia aspaldian arçainez eta populiez* (manamendia), *eguin dezteen graciez* (104), *erhiez hunquitu gabe* (109), *gerta ahal dauzquiuu gaitz guciez* (114); cf. *hetaz* (87), *hitz hotaz* (26)

1782: *gauça ispiritualdez edo Gincoazkuez* (9), *gaucez* (10), *harri baliossez* (11); *hetçaz dakar* (37), ez da ***“hetaz” ageri

1786: *arçainez* (iv), *lanez* (88), *motivez* (iii); cf. *hetaz* (84)

XIX-ko Donapaleuko katixima: *othoitzez*, *barurez*, *limosnez*, *induljentziez* (242), *egin bekhatiez* (243), *egin bekhatu guziez* (245); cf. *horietaz* (238), *hetaz* (234, 236)

5.3.1.4. Baigorri izan ezik ohikoak dira egun Baxenabarren *izan*-eko *gin-den* ‘ginen’ & *zinden* ‘zinen’ edo *ginten* adizki berritzaileak, analogia zenbaitek eragin dituzkeenak eta Amiküze eskualdean ere ibiltzen direnak, baina eskualdeko idazki zaharretan ez dira ageri:

c. 1740:

1782: *guinen* (172), *cinen* (281), *etcinetena* (177)

1786: *guinen* (161), *cinen* (47)

XIX-ko Donapaleuko katixima:

5.3.2. Idazkietan ageri diren berrikuntzak

Beste kasu batzuetan ezaugarri berri jakin baten erabileraren progresio mailakatu eta logikoa dakarte idazkiek: tasun berria testu zaharrenetarik honat menderik mende idazkietan maiztasun handiagoz ageri da eta egun ibiltzen ez

den hizkuntza-ezaugarri zaharra, berriz, testurik zaharretan ageri da usuen, mende batetik bestera erabilera-maiztasuna galduz doalarik.

5.3.2.1. XVIII. mendeko testu gehienek erakusten digute etorkizuneko aditz-morfemaren bokal arteko *n* galtzen ari zela, baina XIX.ekoek ezagun dute galera ordurako nagusiturik zela:

c. 1740: *egui*nen (45), *eman*en (125), *eraman*en (88), *gini*en ‘*jini*en’ (4), *içan*en (5), *ideren*en (37), *iraun*en (7), *juan*en (45) / *jain* (10, 81)

1782: *edan*en (31), *egon*en (82), *egui*en (28), *eman*en (11, 15), *eraman*en (145), *erran*en (32), *galdein*en (61) & *galdeguin*en (114), *içan*en (10, 17), *idire*en (16, 32), *içunen* (104), *iraun*en (65), *jan*en (199, 202), *jini*en (38), *joan*en (20, 37, 343), *so in*en (74), *uken*en (18, 31)

1786: *gini*en (9, 49), *jan*en (15), *jouan*en (10), *ouken*en (60) / *içaeen* ‘*izan*en’ (60), *jain* (105)

XIX-ko Donapaleuko katixima: *jakini*en (228, 231) / *emai*n (242), *izai*n (240, 246), *juai*n (241)

5.3.2.2. Egungo ahozko mintzoan ere gertatzen den bezala, mugagabeko eta mugatu pluraleko aldaeren arteko bereizketa galduxe dago; badira mugagabeko formak jator dakartzaten adibideak idazkietan, baina baita mugagabea beharrez plurala daramaten anitz adibide ere, berez mugagabea beharko baidukete:

c. 1740: *cenbait libururen leitcen* (110), *sutan egon* (98) / *aunhitz gracietaric* (86), *çoin mecetara* (78), *çonbait besten bezperan* (80), *Certan consistitcen da Virginia ossoqui seindiarendaco uquen beharr dugun errespectia? Laur gaucetan* (59), *senharr emaztec beharr dutela* (123); cf. adibide honetan aldaera mugagabea singularraren ordain: *hartara obligatiac guira becauren penan* (117)

1782: *çoin bertuthe* (135), *çoin becatutara* (126), *etchecho borthalburietan* (221) /

1786: / *çoin mecetara* (101)

XIX-ko Donapaleuko katixima:

5.3.2.3. Egun *-retako* & *-rendako* atzizkia ibiltzen da eskualdean gehienik destinatiboan, baina idazkiak dira lekuko iraganean izan direla beste bi era ere, bata *-(r)en* genitibo hutsa eta bestea *-re(n)tzat* atzizkia:

c. 1740: *bai, harendaco ičan beharr guira devotago seindu gucien baino* (58) / *curuciaren gaiñian gureçat hilic* (3); *gureçat guiçon eguina* (25) / *batbederarendaco amena* (manam.); *Norendaco hil ičan da?* (3); *hilcen da guretaco* (103)

1782: *perfeccioniaren uken behar den amoriuaz eta garraz* (17); *Cer da ere, cioçu Seint Augustinec, otoițça beno hobiagoric? Mundu huntan prootçhozagoric? Ispirithiaren ezthiagoric?* (95); *bakoitz baten eguinen ciela ororen eguin diena* (180) / / *bicitce haur guiçon ororendako bidage bat duçu* (407); *çunbat amorioreki bere buria guretaco curucificatcera utci dien* (202); *batcec bestendaco esteçaciela erran medisenciariic edo gaiskiric* (436)

1786: *particulariki bere ascacien, gutaz arrangura dutenen, eta Purgatorietaco arimendaco* (141); *harendaco ičan behar guira devotago seindu gucien beino* (76) / *goureçat hilic* (8); *oraino har deçakegu intencione çonbait graciaren, çoinbait berthuteren jardirexteco, becatiençat satisfatceco eta berce holaco cert baitendaco* (sic, 108) / *barcamendu galdeguin çacon bere Aitari bere Borreduendaco* (43); *ukenaraazten darauzkiu seindimendu aphaltac guharendaco* (66); *neorc beretaco dien Amorio desordenatu bat* (113)

XIX-ko Donapaleuko katixima: / / *othoitç egizu gu bekhatorosendako* (224); *bekhatoros guziendako abis huna* (223); *egin dezazien othoitç enetako* (225); *zeen heendako beita zelietako erresuma* (240)

Jauregiberri (1891): *erremediak balia daitezke sabelminentzat* (71) / *erremedio eman baitiit sabeltasunendako* (72)

5.3.2.4. Ablatiboan *-(r)ik* eta *-ti* aldaera zaharrak ageri dira *-tik*-ekin batean; ohi denez, erakusleetan, *bait(h)a* partikulan, *-gan* atzizkian eta pluralean ageri da *-(r)ik*; *-ti* aldaera, berriz, XVIII. mende bukaerakoetan dugu, baina 1740 inguruko idazkian eta XIX. mendekoan ez:

c. 1740: *hotaric* (3), *bere baitaric* (112), *bateren ganic* (17), *Demonivaren ganic* (56), *principaletaric bat* (manam.), *çaharretaric* (80); *salbuespen edo hustzat jotzen dugu othoitçetatic* (77) / *artetit* (7), *becatutic* (27), *hantic* (34), *imprimeriatic* (azala)

1782: *huntaric* (121), *hortaric* (187), *hartaric* (192); *ekiaganic* (72) / *Celuti* (233), *gorati* (326), *peredicuti landan* (230), *templuti* (274) / *bihotçcetic* (331), *erditic* (191), *gogotic* (200), *hantic* (203), *haxetic* (229), *ondotic* (229), *ordutic* (12); cf. *hartatic* (341) ere

1786: *hilen arteric* (12), *certaric* (34), *hartaric* (95), *hirritietaric* (29), *lanetaric* (88) / *aicineti* (109), *fedeti* (146) / *eguerditic* (44), *Eliçatic* (54), *gu becatoreatic* (13), *hantic* (manam.), *imprimeriatic* (azala)

XIX-ko Donapaleuko katixima: *gainetik* (225), *gaitçetik* (224), *ogitik eta anotik* (245), *sobaldatik* (227)

Jauregiberri (1891): *aldetik* (78), *erortetik* (74), *hantik harat* (73), *kopetatik* (75, 144)

5.3.2.5. Izenordain zehaztugabeetan aldaera zaharrak eta berriak nahaska ditugu testuetan, hala Etxepareren garaiko *e-hor* eskema zaharra nola *n-e(h)or*-en berriagoa; egun Amiküzen *nihur* entzuten da gehienik, *nihor* eta *nehor* baino gehiago; Zuberoan *ihūr* era nagusi da, salbu ipar-mendebalean:

c. 1740: / *neor* (10, 34, 41, 49, 71, 80, 124) & *nehor* (9), *neorc* (68, 82, 90, 107), *nehoiz* (76)

1782: *ehor* (22, 25, 30, 457), *ehorc* (31, 32, 156) / *nehor* (21, 38, 39), *nehorc* (12, 13, 15, 18, 25, 34, 35, 36, 40, 41, 47...), *neholare* (41, 84, 161, 165), *nehun* (55)

1786: *ehoc* (148) & *ehorc* (16, 104, 156) / *neor* (45, 54, 149, 160), *neorc* (87) & *nehorc* (156)

XIX-ko Donapaleuko katixima: / *nehor* (226, 234), *nehor* (234)

5.3.2.6. *bera* izenordain anaforikoaren genitibo pluraleko aldaera zaharra *bere* da, egun Amiküzen *beren* ibiltzen bada ere; gure eskualdeko testuek aldaera zaharra nahiz berria dakartzate:

c. 1740: *ideren ceçaten halaberr noutic* (sic) *edifica bere buriac* (manam.); *ceren ezpaitute ez harmaric bere burien defendiatceco* (manam.); *bai, ceren giten ezitrenac ezpaitira ordinariozqui instruitiac bere eguinbidez* (14); *bere conversionia bere goihancera autiquitcen* (sic) *dutenac* (45); *aphezpiqu bere missionia errecebitu dutenen* (77) / *beren perseverancia dela caussa* (21)

1782: *malur bere bicia oro desiretan igaraiten dutenen* (27); *azkenian ikussico dicie hartu tuzten desirac bere contre jeikiten* (28). Izenordain indartua denean ageri da *beren*: *heen barouren eta heen beren nahisco praubeciaren* (391); *guiçonen beren aitcinian* (436). Zerbaiten ber izaera adierazteko baliatzen denean ere *beren* ageri da pluralean: *gauça beren eguithia* (234); *hitz beren gagnan* (359)

1786: *nontic edifica bere buriac* (manam.); *bere conversionia bere goihancera utci dutenac* (61); *bere gorphutzetan içaiteco errecompensatiac* (57) / *Nola deitcen dira beren orguliaz erori diren ainguriac?* (29)

XIX-ko Donapaleuko katixima: / *beren pasionetan arras mortifikatzen dienak* (241); *emain beitude beren bekhatiez satisfazione osua* (242); *bena beren burien kondemazioneko* (246)

Ahozko egungo euskaran gelditzen dira adibide zaharrak; hona Oragarreko adibide hau: *hola mendiz mendi, baakizu, bazitzi en bere bideak, xendrabidiak, ordian joaiten tzi tzi un eta...* Aldiz Sorhapürün aldera berria entzun dugu: *beren gangotsaekilan*.

5.3.2.7. Goiztiar hasi zen ekialdean balio puntukaria zuten aditz trinkoen galera; Tartasen adibideok adierazgarri dira: *jiten dena* ‘datorrena’ *ezta hanbat*

lütze izanen (Ontsá, 79); gendé hec consideraturic batçiac gora, bertçiac behera ioaiten çirela 'zihoazela', oiuhu egin dut (Onsa, 5). Gure eskualdeko lehen idazkiak ere lekuko dira:

c. 1740:

1782: *Beda Author errespetagarriac hori iduri den exemplu bat ekarten dici 'dakar' bere Anglaterraco Eliçaren Istorian (253-4); eguin cicin meciaren eitera certbitzchari hura joaiten celaric 'zihoalarik', igaran çadin Eliça baten aldian (247); hec utciric labur içaihiagatic, jiten nis 'nator' Cassianec bertuthe horren perfeccionera heltceco erakasten derauskigun çazpi graduataric lehen hirouren explicatcera (355); eta doctrina hori Seint Augustineganic jiten duçu, çoinhec erraiten baitu otoitzça meditationia gabe hotz edo epel dela (114)*

1786: *semia jiten baita aitaganic (26); ez, ceren haren Contricionia ezpailiçateque dolu natural bat becic, edo fedeti jiten esten bat (146)*

XIX-ko Donapaleuko katixima: *eta aldarian egoiten dena nor da? (233); dena den, baliteke hondarreko adibide honek ohikotasuna adieraztea*

5.3.2.8. Partizipio bururatuan *-rr-i*, *-l-i* edo *-ki* bukaera duten aditzetan *-rten* → *-rtzen*, *-lten* → *-ltzen* edo *-kiten* → *-kitzen* aldaketa gertatu da historikoki aditz-izenean; aldaera zaharrek ekialdean luzaz iraun badute ere, berrikuntzak indarra hartu du hondarreko mendeetan; idazkiak dira lekuko:

c. 1740: *eçarten (66); geiquitia (83); idereiten (100), etcitian (14) & etcitiaren (84), jassaitia (123) / eçartcen (94) & eçarcen (120), ecartcen (55) & ecarcen (86), erabilcen (72), erortcen (65) & erortcia (20) & erorcetic (116), ibilcia (88), igortcen (14) & igortceco (36), ichurcen (98), itçulcen (17); atchiquitcia (15), edequitcein tia (95), eduquitceco (52), eguriquitcen (48), erachiquitcen (70), jalguitcen (21), geiquitcian (14); erratcen (45); hilcen (103); idereitceco (106), jaisaitceco 'jasaiteko' (120); mereçitcen (85) & mereçitceco (3); itxaron genitzakeenak dira alchatceco (12), barurtcia (79), barreatchen (22), behatchia (123), bethatchen (18) & bethatceco (39) & bethetceco (12), deitatchen (53), emendatchen (92), finatchen (48), galdcen (49), harchia (3), hautatce (123), hunquitceco (52), lagundcen (22), minçatcia (62), oritcia (88), urrundcia (123)*

1782: *eçarten (18), ekarten (139), erakarten (377), erorten (432), ibilten (35), ichurten (359), igorten (270), irakurten (319), jarten (223); araciten (213, 233), atchiquiten (278), baraskariten ari (444); joiten (24); idireiten (356) / aracitceco (20, 21, 24, 436)*

1786: *ecarten (158), erortera (12), jarten (103); atchekiteco (14), geikitia (109) / ecarcera (158), erorcetic (150); aurthiquitcen (94); maitaracicen (145); cf. idereiten (52) & idireiten (16) / idereitcen (130)*

XIX-ko Donapaleuko katixima: *ekhartzten (232), erortzen (237), eçartzten (241)*

5.3.2.9. Adizki laguntzaileetan sorburuko oinarritik eskualdean egun ibiltzen den aldaerara bokal asimilazioak, hots galtzeak eta bat-egite edo fusioak gertatu dira; cf., errate batera, Patxi Salaberri Zaratiegik Beñat Etxepareren Garaziko aldaera osoen eta egungo Luzaideko higatuagoen artean egin duen erkaketa (2012). Amiküze inguruko eskualdeko idazkietara jotzen baldin badugu eta **eradun* oinarriaren bilakabideak aztertzen baditugu, egungo ahozko mintzoko hainbat aldaketaz jabetuko gara: *ra* osoki galdu da kasu anitzetan eta *u* ere bai; lehen pertsona datiboan *data-* egitura nagusi dabil egun, *ra* eta *u*, bi atalak falta ditu eta hirugarren pertsonaren datibo singularrak ere oro har *dako-* egitura darabil, *ra* eta *u* atalak gabe; pluraleko lehen eta bigarren pertsona datiboetan gorde da *u* hori, baina *ra* ez da ageri; bilakabide hauen guztien berri dakarte idazkiek, aldaera osoagoak eta higatuagoak batera ageri zaizkigu horietan:

c. 1740: eni: *baitaut* (13) / *dautaçula* (51); hari: *ezpadaco* (67) & *dacon* (72), *dazco* (85), *çacon* (33), *çazconac* (57) / *daucogu* (58) & *baitacogu* (71), *dazcogu* (83) / *dacoçula* (43), *dazcoçun* (127) / *dacote* (19), *dazcote* (22), *çacoten* (29), *çazcoten* (102); guri: *baiteraucu* (53) & *daraucun* (12) & *daucu* (38) & *daucuna* (85) & *baitagu* (91), *darauzquiu* (51) & *dauzquigun* (41) & *deuzquigun* (31) & *dauzquiu* (65) & *dauzquium* (87) / *dauçu* (127), *dauzquiguçun* (125) / *dagute* (92), *dauzquiuten* (119) & *baitauzquiute* (65) & *dezquiuten* (22); zuri: *dauçugu* (127), *dauzquiçugu* (125)

1782: eni: *deraut* & *deradala* & *deraala*, *derauzkit* & *derazkit* / *deradazu* & *deraazu* / *deraate*, *derastaten*; hiri: *dereat*; hari: *derakot* / *derako* & *deako*, *derazkon* / *derakogun* / *derakozu* / *derakozielarik* / *derakotela*, *derazkoten*; guri: *derauku* & *deraugula* & *deragu* & *daukularik*, *derauzkigu* & *derauzku* & *dirauskigu* & *dauzkula* / *deraguzu*, *derauzkiguzu* / *deraugute* & *deragute* & *daukutela*, *derauzkiguten*; zuri: *derauzkizut* / *derauzkizun* & *derautzu*; haiei: *deresten* ‘dizkien’, *deresten* ‘dizkieten’ (cf. Camino (2013b: 133-4)

1786: eni: *baitaut* (18) / *dautaçula* (66); hari: *dazco* (111), *çacon* ‘zion’ (32) & *baitaçacon* (73), *baitçazcon* (81) / *daucogu* (71) & *dacogu* (125) / *çacoten* (45); guri: *baiteraucu* (69) & *daucuna* (15) & *daunic* (153) & *baitagu* (79), *darauzkiu* (66) & *dauskun* (137) & *dauzkiu* (84) & *deuzquigun* ‘dizkigun’ (41) / *dagute* (95); zuri: *dauçut* (108) / *dauzkiçugu* (161); haiei: *baderee* (154) & *dee* (99) & *deela* (24) & *deelaco* (85)

XIX-ko Donapaleuko katixima: eni: *datazula* (225), *dazkiatzula* (225); guri: *daukun* (234)

5.3.2.10. Pluralgile zaharra eta berria ageri dira eskualdeko idazkietako **ezan*-en Nor Nork adizkietan, hala *it* nola *zki*; Nor Nork sailean gertatu den *it* → *zki* pluralgile aldaketa horren alde, osagarri datiboa duten **ezan*-en aldaera *zki*-dunek eragin ote dute? Nor Nori Nork osagarri pluraleko *errazquiuçu* (c. 1740: 17) erakoek eragin ote dute *it* → *zki* pluralgile aldaketa Nor Nork saileko adizkietan? Testuek erakusten digute XVIII-XIX. gizaldietan aldaera berriak

gauzaturik daudela, baina Baxenabarren aldaketa ez dela adizki subjuntiboetan ageri; cf. Nafarroa Garaiko *zkitela* ‘ditzatela’:

c. 1740: *beiraitçaçu* (9), *errainçatçu* (63) / *errazquitçu* ‘erran itzazu’ (63); cf. *absolviaraaz ditçagun* (82)

1782: *galda itçaçu* (131), *beguira itçaçu* (149, 347), *eçaba itçaçu* (168), *igor itçaçu* (205), *atçhikitçaçu* (279); *eguin itçacie* (83), *tapa itçacie* (445); *eçartzçu çure ariman bertuthe ororen liliac* (111)

1786: *pagaiçac* (15), *betha itçaçu* (162), *errainçatçu* (81) / *errazkitçu* (81)

XIX-ko Donapaleuko katixima: *beira zatzu* (234) / *errantzkitzu* (236), *itzultzikitzu* (sic, 225); cf. *eman ditzaula* (232); *haz ditzaten* (238)

Jauregiberri (1891): *erremedia itçaçu* (70), *trenpa itzazie* (71)

5.3.2.11. Agintezko adizki tripersonaletan *d-* analogikoa ageri da Lapurdiko, Baxenabarreko eta Nafarroa Garaiko adizkietan eta Amiküze eskualdeko oraingo lekukotasun batzuetan ere bai. XVII. mende hasieran bilakabidea gertaturik zegoen Lapurdin eta Nafarroa Garaian, baina ez dugu Baxenabarreko orduko berri, dakiguna da XVI. mendeko Nafarroa Behereko idazki bakanetan berrikuntza hau ez dela ageri:

c. 1740: *barca ditçaguçu* ‘iezazkiguzu’ (8), *seindiaaz deçaguçu* ‘iezaguzu’ (126), *jardirex deçagucie* ‘iezaguzue’ (128) / arestiko aldaera berri horien analogiaz gertatu dirateke agintezko adizkietan *beneditca ditçaçu!* ‘itzazu’ *Iauna!* erako adibideak (125)

1782: *çabal eçadaçu* (24), *eman eçacoçu* (151), *uken eçaguçu* (383), *erran eceçu* (276)

1786: *barca ditçaguçu* (12), *jardirex deçagucie* (164); cf. *benitca ditçaçu* (161) analogikoa eta aldaera berri horrekin batean baita ohiko *betha itçaçu* (162) ere

XIX-ko Donapaleuko katixima: *barkha dazkiautzu* (224) & *barkha dauzkiutzu* (232) / *eman ezauzu* (224, 232); cf. *ekharrakozu* (233) soilagoa ere

Jauregiberri (1891): *eman eçaguçu* (70), *sar ezakozie* —Peillenek *ezazozie* (75) & *erazozie* (135) dakartza idatzirik, baina gure ustez *ezakozie* ere izan daiteke—

5.3.2.12. Ahaleko egitura iragangaitzak eratzeko **edin*-en adizki *-ke* gabeak ageri zaizkigu XVIII. mendea bitarte Baxenabarre-Zuberoetan, baina idazkietan mende honen bukaeran aditzoi *-ke* morfema erantsi zitzaizkien; Etxepare batek, errate batera, *ecin deusere scriba dayteyela* (6); *gaixtoequi ecin ayte gayzqui beci prouecha* (46); *iamas çurequila enaynde enoya* ‘ez nintekte neka’ (198); *ecin scriba çayteyen* ‘ezin idatz zitekeen’ (252) idatzi zituen. Oihenartek edo Belapeirek ere *ke* gabe idatzi zuten, baina XVIII. mendearen erdian Maister zuberotarrak baditu adibideak *ke* erabilirik; eman dezagun mende honetako

adibide bat, 1782ko itzulpenekoa: hogeita zortzi *daite* dakartza eta bederatzi *daiteteke*. Halaz guztiz ere, egun Amiküzen baliatzen diren **edin*-en saileko *leteke*, *zeteke*, *deteke* erako adizki berririk ez da eskualdeko testu zaharretan ageri:

c. 1740: *ezpailaite ichur hura buriaren gagnera* (95) / *estal daitequeenic* (18) & *eztaiteque içan* (101); *eceztu liroque* (20)

1782: *beste anitz gauça chahutarçunaren laudoriotan ekar ahal laite* (355); *erakaz eta ikaz daiteenaz miñçatceco* (113); *Daviten erran hoc senxu hortara har dieiesteçu ‘daitezke’ zuketan* (27) / *nola erran edo abança daiteke umilitathia bertuthe ororen eta etche ispiritualaren cimendia dela* (263)

1786: *ezpailaite ichour houra buriaren gagnera* (124) / *içan deiteque* (37), *eguin ahal daiteque* (25), *salva gaiztekea?* (14)

XIX-ko Donapaleuko katixima: *erran eta phentsa ez daitekena* (229)

Jauregiberri (1891): *daiteke* (70, 74, 76) & *deteke* (74), *daitezke* (71)

5.3.3. Ezaugarrien sekuentzializazio lausoa

Idazkietako adibide batzuetan sekuentzializazioa lauso dago eta ezaugarri zaharrak testu zaharretan eta berrietan eta tasun berriak idazki zaharretan eta berrietan duten agerpenaren maiztasuna ez dagokio logika argi bati; testuetako agerpenek ez dute bermatzen ezaugarri baten historiaz dakigula uste dugun hori. Honelakoetan ikertzaileak pentsa dezake beharbada eragile geografiko bat nahasi dela eta horrek argitu lezakeela testu berankorretan ere aldaera zaharra —Zuberoan nagusitasunez iraun duena— sistematikoki edo maiztasun handiz bederen erabili izana. Afera ez da aise trenkatzekoa.

5.3.3.1. Etxe izenen eta toponimo diruditen batzuen idazkera azterturik, Txomin Peillenek ondorioztatu du XIV. menderako Zuberoan hiru silabako hitz batzuetan $i - u \rightarrow u - u$ edo $i - \ddot{u} \rightarrow \ddot{u} - \ddot{u}$ aldaketa beharbada gertaturik zela edo gertatzen ari zela (1992: 256). Egungo Amiküzen ere bada bilakabide hau, baina ez da eskualde guttikoa, Zuberoari hurren diren herrietakoa baizik; ez da Zuberoan bezainbateko indarrez gertatzen, gainera.

Hona egungo etsenplu batzuk: *üdüri* ‘iduri’ (Laph), *ülüüntzetan* ‘iluntzeetan’ (Arbo), *üngürü* ‘inguru’ (Laph). Eskualdeko idazki zaharretan bilakabidearen izpi ahulak daude, baina bereziki 1786ko itzulpenean; idazki honetan ere ez da aldaketaren araua erabat gauzatu, baina ez dakigu bilakabidea hitzez hitz aitzinamendu lexikoaren bidez garatu zatekeela erran ote daitekeen ere; erabakia testuen bizkar utziz gero auzia ilun dago:

c. 1740: *aphezpiku* (77), *cerbitchatu* (90) & *cerbitchuco* (20), *liburu* (42) / *ain-guru* (84), *buluzi* (84) & *buluciac* (24), *parabussurat* (44); gogoan har bedi badela *buluzi* aldaera berria asimilazio mota hau ibiltzen ez den Euskal Herriko beste zenbait eskualdetan ere

1782: *apezpiku*, *higungarri*, *iduri*, *iguriki*, *ikuzi*, *ilhun*, *inguru*, *ithurri*, *itxura*, *itzuli*, *izurri*, *liburu*, *zerbitxu* / *ainguru*, *buluzi*, *paradusu*, *utsu* (izenen lematizazio fonologiko hau 2013ko gure edizioan argudiatu da)

1786: *aphezpicu* (99), *baitituçu* (11), *cerbitchu* (141) & *cerbitchatu* (153), *higun-garri* (93), *iduria* (92) & *iduripen* (iii), *ilhundu* (45), *ithurburia* (iii), *itchurac* (131), *liburu* (94) / *buluciac* (80), *cerbutchatceco* (27), *higungarri* (149), *lutukian* (16), *parauçura* (10), *uduri* (101), *ungurumian* (29), *utxuki* 'itsuki' (53)

XIX-ko Donapaleuko katixima: *aphezpikiain* (237), *baigitzte* (228), *gindukena* (236), *iduria* (233), *ithurriak* (238), *itzul-* (225), *liburu* (224), *zerbitzu* (225) / *ainguru* (233), *pharauzia* (241)

Jauregiberri (1891): *idiiri* (79), *zintziurrian* (71)

5.3.3.2. Adlatiboan ere aldakortasuna ageri da testuetan eta *-la* nahiz *-ra* ditugu, baina 1740 inguruko testuan *-la* falta da; *-la* 1782ko testuan *-a-z* bukatu hitzetan ibiltzen da; XIX. gizaldiko katiximan hitz bukaerako bokal guztiei nahiz pluralari lotzen zaie *-la*; bestalde, atzizkiek *-t* morfema har dezakete:

c. 1740: *aguerturen da Jesu-Christoren aitcinera* (5), *juanen da parabuçura* (5); *itçulico da errauxetara* (5); *azpicuen alderat dituzten eguinbidiaç* (70), *ispirituz alchatur cerurat* (105), *Ifernurat egotziac* (21)

1782: berezko *-a* dutenetan dakar *-la*: *gure arimala lerratcen eta sartcen* (40), *heuzcarala itçuliric* (3), *laster eguin cicien bere Jaunaren tombala* (355); bestela, *-a-z* bukatu hitzetan *-tara* dago beti, ez dago *-ara-rik*; *gogara da salbuspena*, baina *-o* du oinarrian / *kapa bat aitcinera aurtikiten baitute* (447), *joan behar balu alhargun praube baten etchera ostatatcera* (204), *bertuthia hedatcen dela arimala, bai eta gorpitçera* (222), *ounci bat gal dadin, hour-perat joanez* (42), *carga handiac itxassorat aurtiki tuçu* (43)

1786: *creatu baitu bere imaginala eta idurira* (31), *Arima geutsi içañ cen leku hartala* (46), *obligatia da oraigno mesperetala... assestitcera* (102) / *jouanen da parauçura* (10) & *parauçurat duatcenac* (10), *ifernurat joaitico* (10); *itçulico da errauxetara* (9), *endelguco adinetara heldu guirenian* (102)

XIX-ko Donapaleuko katixima: *ifernulat* (241) & *ifernietalat* (224, 226), *pharauzialat* (241), *purgatorialat* (241), *zeliatalat* (224, 230); ikus adibide honetan bi atzizkiak: *Zombat gisetala gristiñuak egiten du señale hori? Bietara, jauna* (227); ikus hurrengo hau ere: *Zoumbat gisetara da doloria? Bietara, jauna* (243) / *obliatia dena hain zerbitzu sandura* (227), *gristiñua heltzen delaik adimendura* (228); hurren bi etsenpluek ttap kontsonantea falta dute: *erortzea* (232), *huñetaa* (244)

Jauregiberri (1891): *bistara* (69), *bi hilabethetara* (72), *kanpora* (76) / *kanporat* (73), *emaiterat* (69)

5.3.3.3. Morfologian ere testuek salatzen digute zenbait berrikuntza noizez geroz ageri den. Pertsona izenordainen, galdetzaileen edo erakusleen instrumentaleko atzizkian *-zaz* ageri da XVIII. mendean, egungo mintzoan *-taz* dena, baina aldaketak lehenago hasia behar du izan, idazkietan aldaera zaharra *-taz*-ekin batean ageri denez:

c. 1740: *gutaz* (22); *certaz* (98), *çointaz* (15, 24, 52, 93, 117); *hotaz* (26, 55, 72), *hetaz* (87)

1782: *nitçaz* (57), *gutçaz* (19, 40); *certçaz* (141); *huntçaz* (204), *hortçaz* (251), *harçaz* (354), *hotçaz* (230), *horietçaz* (357) & *horiez* (397), *hetçaz* (143)

1786: *gutçaz* (29); *çoinçaz* (21) & *çoinçaz* (155), *nortçaz* (99); *hountaz* (71), *bide harz* (27) / *çointaz* (87); *hountaz* (91, 144), *hotaz* (37, 75, 93), *hetaz* (84)

XIX-ko Donapaleuko katixima: *orotaz* (240); *zertaz* (230); *hartaz* (240), *horietaz* (238), *hetaz* (234, 236)

Jauregiberri (1891): *huntaz* (71, 73), *hortaz* (72) & *hartaz* (73)

5.3.3.4. Testuek erakusten digute **edin* adizkietan *z* pluralgilea ez dela beti kokagune berean egokitu, *daizte* = *daizteke* → *daitezke* erako lerradura gertatu ahal izan da; bestalde, zaharrak izan litezkeen aldaeretan are *z* pluralgilerik gabe ere ageri da 1782ko itzulpenean:

c. 1740: *daiztequea?* (16) & *daiztequeen* (45), *gaizteque* (106) & *gaiztequeenaren* (22); *laizteque* (manam.) / *eztaitezqueela* (123)

1782: *guitakeela* ‘gaitezkeela’ (51), *citake* ‘zaitezke’ (206), *ditakeen* ‘daitezkeen’ (343); *zintakea?* ‘ote zintezke?’ (369), *litakeen* ‘litezkeen’ (53) & *ezpailaite* ‘ez bailitezke’ (137) / *ezpaikaiste* ‘ez bait gaitezke’ (32), *jarraiki çaitzen beçala* ‘zaitezkeen’ (66), *daiste* ‘daitezke’ (33) & *estaitzteke* ‘ez daitezke’ (392); *baikindaiste* ‘bait gitezke’ (282)

1786: *gaiztekea?* (14) & *gaiztequeenaren* (30), *daiztekeen* (60) & *daiztequea?* (23) & *ezpaitaizteke* (121); *laizteque* (iv)

XIX-ko Donapaleuko katixima:

Jauregiberri (1981): *daitezke* (71)

5.3.4. Arkaismoen erabileraren bakantzea

Denboraren logikaren arabera, ordea, oraingo aldiar arkaismotzat jotzen dugun ezaugarri bat XVIII. edo XIX. mendeetako testuetan usu agertzea, garbi dakigularik tasun hori ez dela ibiltzen XX. mendearen bukaeran edo XXI-aren hasieran ezagutu dugun Amiküzeko ahozko mintzoan, edota arkaismoen

kasuan ohi den bezala, ibiltzen dela, bai, baina guztiz erabilera bakanean, noizbehinka baizik ez, jende adinetakoen ahoan inoiz, episodikoki baizik ez, gutien uste dugunean, ez sistematikoki ez eta usu ere. Testuek erakusten digute arkaismoen agerpene bakanduz doala eta aldaera berria nagusituz joan dela. Arkaismoen erabilera, gainera, ez da kasu guztietan lastertasun berean ahultzen edo bakantzen, batzuek luzaz irauten dute, baina beste batzuk, ordea, galtzen hasiz gero belaunaldi batean edo bitan ezkututzen eta ahanzten dira: galbidean edo indargalduz doazen hizkuntza-ezaugarrien ibilbidea ez da beti berbera izaten eta Amiküze eskualdeko idazkiak berak dira gertaera honen lekuko.

5.3.4.1. Egun *ke* aditz-morfema eta *-en* atzizkia biltzean *keen* nahiz *ken* laburtua aurki ditzakegu Amiküze eskualdean, bi emaitzak. Literatura zaharrean *keen* da egitura bakarra, non eta ez den *keien* epentesiduna ageri, Lapurdiko idazkietan ohi den bezala, baina gure eskualdeko testuetan ez da kasik adibiderik:

c. 1740: *daitequeen* (32) & *eztaitequeenian* (94), *diratequeenac* (37), *ditçaqueen* (manam), *ezçaqueenic* (19), *gaiztequeenaren* (22), *leçaqueenac* (63)
 1782: *nindaitekeen* (286), *guintukeen* (288), *duhakeen* (297), *ciratekeenetaric* (310)
 1786: *daitekeen* (43), *diratekeener* (57), *hiçatekeenian* (107) / *daitekeien* (9)
 XIX-ko Donapaleuko katixima: *daitekena* (229), *gindukena* (236)
 Jauregiberri (1981): *dezakenian* (74) / *lizatekeiala* (78)

5.3.4.2. Sozietiboaren euskara zaharreko *-ki* aldaera testu guztietan ageri da, baina 1782ko itzulpenean izan ezik, maiztasun apalagoa du *-kin*-ek baino:

c. 1740: *vigiliequi* (79), testuko *-ki*-ren adibide bakarra / *gurequin* (manam.), *çurequin* (8), *batequin* (37); pluralean *hegalequin* (21)
 1782: *arraçoin handireki* (84), *çureki* (24), *elgarreki* (33), *Gincoareki* (110), *gracia-reki* (18), *itceki*, *lançareki*, *espoitzxareki eta canaberareki* (192), *oussustamendureki* (30) / *berekin* (66), *harekin* (158), *Gincoarekin* (29), *mehatzchurekin* (444); liburuak lau aldiz dakar *-kila* berria: *berarekila* (204), *dereunekila* (445), *handienekila* (324), *heenekila* (210), baina ez darabil *-kila*-rik
 1786: *berriareki* (37), *eçagucereki* (111) / *çourekina* (13), *estecurekin* (138), *heekin* (99), *penekin* (16), *seindiarekin* (143)
 XIX-ko Donapaleuko katixima: *konfiantzaiki* (233), adibide bakarra katiximan / *çourekina* (224), *beraikina* (230), *elgarrekina* (230), *noekin* (233), *ikhustiaikina* (233), *fede bizi batekin* (234), *botheriaikina* (229), *chediaikina* (244), *Jinko Jaunaikina* (227)
 Jauregiberri (1891): *arnuarekin* (71), *belharrekina* (75), *elgarrekina* (71), *lizarrarekin* (77) —baina *leizar* dakar ere (78)— / *bateki* (79), *honeki* (71)

5.3.4.3. Inesibo zaharra ez da ageri 1740 inguruko testuan, baina XVIII. mende bukaerako batean bai; bestalde, *gañen* beharrean *gañan* dakar 1782ko itzulpenak:

c. 1740: *curutciaren gaiñian gureçat hilic* (3); *lurraren gaiñian* (9); *hitz hoin gaiñian* (20, 28); *eguín duquegun hunguiaren eta gaitzaren gaignian* (38)

1782: *hitz horien gagnan* (17); *dugun ikuz horren gagnan Seindiec cer seindimendu duten* (38); *hotan gagnan goguaketatu niçan aldi oroz* (35); *heriuaren gagnan medita-cione eguiten dugunian* (86); *beste orotan gagnan dien abanthailhez* (87); *gaiñian-en adibide bakarra dakar: eguia horren gagnian fedesco acto baten choilki eguinez* (77); *etxen-en adibideak anitz dira: adiskide batec bere adiskide maithiaren etchen sartcia desiratcen dien beno aboro* (25); *Zachearen etchen sarthu cinenian erran cindiena* (211); *ama hirian baitcen, gin onduan bere semia etci etchen idireiten* (223)

1786: *preferencia becatore lagunaren ohoriaren gaignen* (148) / *curutciaren gaiñian* (8); *Ceren gaiñian içanen da jujatia?* (10); cf. beste hau ere: *maite citut ene bihotz guciaz, gauça gucien gaiñatic* (13)

XIX-ko Donapaleuko katixima: *bere estatuko obliazionein gaiñian* (243)

Jauregiberri (1891): *goure gainian* (70)

5.3.4.4. Amiküzeko egungo euskararen gordetzen ez diren arkaismoak ageri dira idazki zaharretan. Aditz autonomoak iduri du izan zirela **edutsi*, **i* eta **eradun*, emate adiera bederen bazutenak, Lazarraga, *Refranes y Sentencias*, Juan Zumarragakoaren gutuna, Leizarraga edo Iruñeko XVII. mende hasierako olerkiak lekuko. Izan ere, 1782ko *Pratica*-n adiera hori bera dute **eradun*-ek eta **i*-k bi adibidetan eta baita gure eskualdeko testu gehiagotan ere; ikus gaiaz Céline Mounole (2011: 349).

c. 1740: *esquerr dauçut neure bihotz guciaz. ceren nahi uquen nuçun visitatu* (125)

1782: *cerc derauçun ppena* (350); *Gincoari tiici eskerrac* (281)

1786: *esker dauçut neure bihotz guciaz. ceren nahi uken nuçun visitatu* (161)

Jauregiberri (1891): / *promes eman derauziet* (78)

5.3.4.5. **ezan*, *edun* eta *izan* aditzen *ba-* aurizkirik edo *-ke* atzizkirik gabeko *l-* sortako era zaharrek Etxepare, Leizarraga edo Otxoa Arinen jarduna dakarte gogora; gure eskualdeko idazkietan badira hondarrak; bestalde, 1782koak *ai-* aurizkia duen era botibo bat dakar:

c. 1740: *ez, eguin leçaque sacrilegio higuingarri bat, cofessa liçan ere berce becatu guciac* (116)

1782: *segur içan behar diici, beraz, Gincoc igorten derauzkigula gure hobetan eta gure prootzchuric handienarendaco, eta eliçan ordian hetan beste prootzchuric, mundu huntan Gincocaren haur guiza gaztigathiac içaithia beci* (311-2); *Gincoc permetitu balu Demoniuc haren tentatceco uken dien botere bera ene contre uken lien* (428); *horra botiboa: sobera guihaur beithan poroança diici otoitzçaren dugun beharras, eta ailira poroança suerte horiec becanago* (97)

1786: *nahi luketenac ez liçan Gincoric heen becatien puniceco* (85)

5.3.4.6. Euskara zaharrean ohi bezala eta oraino Zuberoan diharduen legez, iragana adieraz dezake *l* morfemak hipotetikoa beharrean; gure eskualdeko idazkietan 1782koan ageri da aztarna hau:

1782: *onduan bere etcherat itçulcen celaric, laboraria idiren cicin urkaturic trathia ein çuten lekian, Gincoc permetituric desesperacionesco seindimendiec ekar leçaten bere buriaren urkatcera trathu gaizto hura ein cien leku berian* (245); *bathu çutela laborari bat, çoinec anitz otoitu baitzçithien eman liçakoten bere paketac, behar çuten lekura gogotic eremanen cerestela* (145); *bena nola Gincoc beti berez arrangura baitu, eguin cicin meciaren eitera cerbitzchari hura joaiten celaric, içaran çadin Eliça baten aldian, çointan Meça erraiten ari baitcen; Elevationeco chilinta inçunic, Jaun Handiaren adoratcera Eliçan sar ladin, Meça haren akabança inçun leçan, bai eta ere beste bi Meça ondoz erran cirenac* (246-7); *eta bethiere intencioniarekin, Sacrificio Adoragarri hartaric heer çor içaithen ahal cen parthia oro heendaco içan ladin, beztendaco eiten cien oferimendiaz etçadin heena hert edo guti ahal* (235-6).

5.3.4.7. Aspaldiko euskaran agerpen zabala zuen Ipar Euskal Herriko ekialdean *-(r)en* atzizkiak etorkizuna adierazteko; *-tu* eta *-i* partizipio atzizkia duten aditzei ere lotzen zitzairen, eskualdeko idazkiak lekuko:

c. 1740: *aguerturen* (5), *beguiraturein tugula* (96), *desiraturen* (9), *finituren* (21), *guertaturen* (60), *lagunduren* (manam.), *offensaturen* (61), *phizturen* (5), *possedituren* (31); *icussiren* (94), *sinhexiren* (96) / *barcatuco* (65), *cehatuco* (67), *sartuco* (87); *içulico* (4); *betheco* (60), *erreco* (45); *jalgüico* (46)

1782: *agerturen, aitzinaturen, azkarturen, baraturen, barkaturen; araziren, ekarriren, erakatsiren, erosiren, ezarriren, ibiliren, ikusiren, irabaziren, itzuliren, utziren; atxikiren / agertuko, aitzinatuko, azkartuko, baratuko, barkatuko; araziko, ekarriko, erakatsiko, ezarriko, ibiliko, ikusiko, itzuliko, utziko; beteko; atxikiko, jalgüico*

1786: *aguerturen* (9), *guertaturen* (78), *lagunduren* (iv), *phizturen* (9); *ebaxiren* (14), *icoussiren* (123) / *barcatuco* (85), *beiratuco* (88), *cehatuco* (86), *maitatuco* (82)

XIX-ko Donapaleuko katixima: *barkhatuko* (225), *geldituko* (242), *juntatuko* (242); *ardietsiko* (241)

Jauregiberri (1891): *edan eraziko* (71) *hartiüko* (75), *khendiüko* (73), *ütziko* (74) / *ezarriren* (78)

5.3.4.8. Euskara zaharrean *izan* eta *edun* aditzen era trinkoak —**edin* edo **ezan* izateko beharrik gabe— edo beste aditz trinko batzuk menpeko perpau-sean ager zitezkeen xedezko edo agintezko balioan, baina baita perpaus konple-tiboan edo borondate-aditz baten perpaus osagarrian ere, Amiküze eskualdeko idazkiak lekuko:

c. 1740: *ait'amac ohora itçaçu lurrian çauden luzazqui* (9), adiera xedezkoa du garbi; *Nola ičan daiteque ičan den Ama, eta Virginia baratu den?* (28); *beharr da Gincüa... othoitztu nahi ditien haren frutiac applicatu bai guhauri, bai berce, sacrificiüa oferitia ičan den persona gucierr* (106); *galdeiten daucogu placerr guitien beguiratu becatutic, Demonivaren ganic, Ifernutic...* (56); *galdeiten daco nahi dazcon barcatu eriari unctatcen çazcon membro bacotchaz eguin ditien becatiac* (120); *conjuratcen citugu Jesus çure semiaz, nahi dauçquiuçun othoi barcatu [...gure becatiac]* (128)

1782: *Gincoac lexala... sinhestetan guinen!* (275); *desira ere dieiteçu ezkinen behin ere mundura gin* (342); *bena erran eçadaçu othoi, dembora berian, nunti jiten ahal den etciren lohikeriaco penxaketez behin ere ppenathia ičan* (395). Hona orain xedea adierazten duten adibide iragankorrek; *edun*-en era zaharrak nabarmendurik dakartzagu, baina **edin* eta **ezan*, letra biribil nabarmenduan: *horra sendua cira, ezteçaçula aboro becathuric eguin, damu edo malur handiago bat eztuçun* (314) era trinkoan; *hobe lukeçu, dudaric gabe, gure proximuarendaco amorioz eta opinione hunez bihotzçac bethiac guinthien eta guihauren estakuriac beguien aitcinian atchiki guinçan* (419). Hona orain nahi baliatzen duten aditz lokuzioak: *otoitzcen dugularic nahi dien gure pacencia ezkacen ordain hartu edo errecebitu Jesu-Christoren pacencia* (152); *çointan Apeçac Aita Eternala otoitzcen baitu bere Seme bakoitzçaren merechimendiez nahi dien errecebitu offritcen deracon Sacrificiua* (233); *nigarrez otoitzcen cielaric nahi cien lagundu oro contre cithienaz gueroz* (390); *otoitzcen citugu, Jauna, nahi tuçun gure botzçac juntathiac ičan diten manatu Celuco Aingurieneki* (151); *otoitu ciela Joannez Egiptaco Abade Seindia nahi cien sendotu sukar gaiçtho batetatic* (332). Are **eradun* ere bada triperpersonaletan: *handiski otoitu cicin nahi ceracon eman har hetaric bat erlekietan beguiratceco* (325); *haren otoitzcera nahi ceracon Gincoganic ossagarria jardiretxi* (327).

1786: *Nola ičan deiteque ičan den ama eta virgina baratu den?* (37); *nahi luketenac ez liçan Gincoric heen becatien puniceco* (85); *galdeiten daco nahi dazcon barcatu eriari ounctatcen çazcon membrouez eguin ditien becatiac* (155); *galdeiten daucogu placer guitien beguiratu becatutic, Demoniouaren ganic...* (72); *anhitz otoicen citugu Jesus çoure semiaz, nahi dauçkiuçun othoi barcatu [...goure becatiac]* (164)

5.3.4.9. Iraganeko Nor Nori adizkietan bi erak batera ditugu, *it* morfema falta duten zaharragoak eta baduten berriagoak; hona idazkiek dakartena:

c. 1740: *gin baiçacon* ‘jin baitzitzaion’ (28) / *baitçiçacon* ‘baitzitzaion’ (23), *citceen* ‘zitzaion’ (35)

1782: *etceitan* ‘ez zitzaidan’ (428), *zit-* gabeko adibide bakarra liburuan / *çiçakon* (155), *çiçaucien* (69), *ezpaitzicitceen* (232)

1786: *gin baiçacon* ‘jin baitzitzaion’ (37) / *çiçacon* (133) & *çiçacola* (251), *citceen* (153)

5.3.4.10. Ugari dira egun ibiltzen ez diren aditz trinkoak, iraganeko idazkietan ageri direnak; hona sorta bat erakusgarri:

c. 1740: *dabilça* (22) / *eztuanian* (69), *hartcera guacen errepaussa* (128), *çuazte* (38), *duacenac* (5) & *duatça* (21) & *duatcenac* (46) & *baduatcea?* (46) & *çointara baituatça* (6) / *çaude* (agint., 128), *çautezte* (38), *daude* (6) / *dirauino* (126) / *ahal badagui* (68), *eguiçu* (1), *eguidaçu* (83) / *dioçu* (92) & *dioçunian* (108) / *iguçu* (8) / *emaguçu* (126) / *erraguçu* (103)

1782: *lexala* ‘letsala, nahi lezala’ (40) / *cioçut* ‘diot’ (18), *cioçu* ‘dio’ (60), *ciocie* ‘diote’ (160) / *beirauçu edo gogua emaçu* (43)

1786: *dabilça* (29) / *eztuanian* (90), *duatça* (29) & *duatcenac* (10) & *duatcenen* (126) & *baitouatça* (10) & *badouatcea?* (61) & *douaicenac* (61), agintezko *çuazte* (agint., 50) / *çauste* (50), *dauzcon* ‘dagozkion’ (81) / *datça* (104) / *ahal badagui* (88) / *iguçu* (12)

XIX-ko Donapaleuko katixima: *gouazen* (231) / *beito* ‘baitago’ (224, 241) & *dola* (226) & *badoya?* ‘badago?’ (245), *beitzaude* (223), *beitaude* (245) / *beigauzkete* (224) / *dazkielaik* (228) / *ekharrakozu* (233)

Jauregiberri (1891): *dario* (71) / *ežin dauke* (71) / *dohakola* (76) / *emozie* (71, 73) & *emaozie* (71, 73)

5.3.4.11. Ahalekoak ez diren **edin*-en pluraletan egun ere falta den *z* morfemarik ez da testuetan:

c. 1740: *prest egon guiten* (43), *sarr citen ene bihotzian* (124), *salva diten* (33)

1782: *herssa guiten* (105), *etciten ... ezteka* ‘ez zaitezen’ (338) & *etcitela horri fida* (406), *etzitesten tentacionetan eror* (377) & *etcitezteela enea* (28), *hel diten* (92)

1786: *prest egon guitian* (58), *salva diten* (44) & *informa diten* (4) & *amorecatic fidelac hobeki aplica ditien oracionari* (106); *catichima bat, çointan erreligioneco lehen principuac ičan citen explicariac* (sic) ‘izan zitezen’ (3)

XIX-ko Donapaleuko katixima: *ohit giten* (233) & *izan gitela* (234), *bizi ziten luzaz* (234)

5.3.4.12. Idazkiek erakusten dute **edin* eta **ezan* sailetakako adizki ez aserti-boetan osagarri datiboa dagoenean ez dela *i* datibo morfemarik ageri:

c. 1740: *hungui eguin ahal deçaqueogu* ‘diezaiokegu’ (62), *eman deçagun* ‘diezagun’ (55), *ezeçacunaren* ‘ez diezagukeenaren’ (48), *eguin ahal çeçaquegun* ‘ziezagukeen’ (13), *eguin leçaguten* ‘liezaguten’ (61), *eman deceen* ‘diezaien’ (80); *izan-en* Nor Nori saileko asertiboan ere *i* morfema gabekoa da adizkia: *guitçazcola* ‘gatzaizkiola’

1782: *deçakoon* ‘diezaiokeen’ (448), *leçakoonic* ‘liezaiokeenik’ (57), *ezeçakegucie* ‘diezagukete’ zuketan (164), *deçacogun* ‘diezaiogun’ (25), *çeçacon* ‘ziezaion’ (324), *leçagun* ‘liezagun’ (104), *leçaçun* ‘liezazun’ (131), *baleçagu* ‘baliezagu’ (13)

1786: *deçakeogu* ‘diezaiokegu’ (80), *leçaguten* ‘liezaguten’ (79)

XIX-ko Donapaleuko katixima: *deçakoun* ‘diezaiogun’ (233), *eçauzu* ‘iezaguzu’ (224)

Jauregiberri (1891): *dohakola* (76), *emozie* (71, 73) & *emaozie* (71, 73), *ezakozie* (75) — argitalpenean *ezaozie* — / *diozozie* (72)

5.3.4.13. Baldintzaren protasian **edin* eta **ezan* oinarriko adizkiak baliatzen ziren euskara zaharrean eta honelaxe da gure eskualdeko idazkietan ere:

c. 1740: *gaizqui minço diren compagnatic, ahal baguite, erretiratuz* (76); *ezpaguineça adora* (102)

1782: *ene Aita, ahal badadi, eneganic urrunt eçaçu caliça hori* (300); *dei banindeça* (57); *merechi ahal baneça!* (242); *penxa baguindeça* (71); *ahal baleça* (368); *ahal baleçate* (311); *eman banitça* (287); *eguin balitçça* (117); *eguin baguinça* (56); *soguïn baguindeçako* (428)

1786: *gaizki minço diren compagnatic, ahal baguite, erretiratuz* (98); *confessa balitça ere* (149); *ezpaiguineça* (sic) *adora* (132)

5.3.4.14. Zahartzat jotzen dira erlatiboko perpaus buruezkerrak eta baita burua hondarrean dutenak ere; eskualdeko idazkietan bi ereduak ageri dira:

c. 1740: *hori da aphezpiqu bere missionia errecebitu dutenen autoritatiaren azpian populien instruitcia* (77); *ogui galdeiten dugun hura* (55) / *gure proximiaren salvamendiari soiten duten gauçac* (52); *eracuxten ditien lekhia* (53); *ibili guiren lekia, antatu ditugun personac* (112)

1782: *emazte hamabi urthe hartan odol galciareki cen bat, medikiec ecin sendotu çutena* (201); *Seindu umilitathia chehetarçun bateki tratatu dutenec anitz grado bertuthe hortan eçarten dicie* (277); *ohoin etche bat arrobatu nahi lukeen batec* (364); *çunbatenaz gauça, ceren ere gagnan gure jujamendia eguiten baitugu, handiago edo thipiago baita* (418); *gauça estimatcen dien hareganaco gure desiren içaria* (10); *guiçon penitencia handiric eguinez bici ciren batçuri* (272) / *presencia hura diagoçu gure beithan ičan behar duten bi seindimendutan* (74); *apecec Meça Seindian sacrificio ikaragarria oferitu beno lehen eguiten duten ezkien ikuzthia* (195)

1786: *ogui galdeiten dugun houra* (71); *tradicione errecebitu behar direnac* (55) / *hartcera gouacen errepaussa* (164)

XIX-ko Donapaleuko katixima: *Jinkuari behatiengatik eman behar zakon satifazionian barkhamendia* (242)

5.3.4.15. Denborazko perpausetan *-la(r)ik* atzizkia ibiltzen da egun nagusiki Amiküze alderdian, ohiz ez da *-nian* entzuten; egoera berbera aurkitu dugu Nafarroa Garaiko Aezkoan guk, *-nean* aldaeraren ale bakan baizik ez da entzuten Garazi gaineko ibar horretan, baina ausarki ageri da XVIII-XIX. mendeetako idazkietan. Amiküze eskualdean ere berdin da, anitz ibiltzen da *-nian* XVIII-XIX. mendeetako idazkietan:

c. 1740: *endelgamendutara gin guirenian* (10), *heldu guirenian* (79); *igortcen dituztenian* (14); *gure Jauna jujatcera ginen denian* (37)

1782: *miñçatu guirenian* (214); *pindar bat lastora erorten denian* (359)

1786: *gin guirenian* (15); *jalguitcen direnian* (29)

XIX-ko Donapaleuko katixima: *aphezak eskia gibelatu dienian, ahua hetsi behaizi eta Ostia Seindia ihetsi hezatu denian* (246) / *zerbeit obra hunen egiten hasten gielaik edo gerthatzen girenian beharretan, tentazionetan edo lanjerrian* (227)

Jauregiberri (1891): *sükarra dienian* (70), *seindi düzienian* (70), *ezagüt düzienian* (71), *zangua heda dezakenian* (74)

5.3.4.16. Egun gertatzen den bezala, eskualdeko idazkietan ere estrapozioan ageri dira aditz iragankorren osagarri zuzen batzuk, adizetek guztiz eskuinera kokaturik:

c. 1740: *executatcia haren manien* (21); *han guri preparatceco leku baten* (36)

1782: *hartacotz, gauça handi bat duçu anitz estimatcia Gincoareen bidian aïtcinaraçi guitçaketan gaucen* (11); *net prootçhoz dela gure abançu ispiritualaren desiraren ukeithia, edo hobeki erraiteco, haren gosse eta egarriaren* (22); *eracazteco... erakaxi behar cithien gaucen* (257)

1786: *han gouri preparatceco leku baten* (48); *gouri igortceco Ispiritu Seindiaren* (48)

Jauregiberri (1891): / *eginahalaren egitera* (71); *eritarziin horren sendotzeko* (72)

5.3.4.17. Polaritate negatiborik gabeko egoeran, “norbait” edo “normahi” izenordainak ez, *nehor* edo *ehor* ageri dira Amiküze eskualdeko idazkietan —Zuberoan *ehor* ibili ohi da—; aldiz, Baigorriko XIX. mendeko Iribarnegaraiaren *San Mathioin* ebanjelioan *no(h)ait* ageri da: *ordian Yesusek erran zeen bere dizipulier: nohait yarraiki nahi balin bazaut, ukho ein dezala bere buriai* (53); *eta noait mintzatzen bada Gizonain Semiaïn contra, barkhatia izain zako* (43); egiazki, egungo Amiküzen ere *noit* ibiltzen da ingurune gramatikal honetan, baina Oragarreko lekuzko adibide batean eskema zaharraren jarraipena daku-sagu, *nihat* ageri da, ‘inora’ adieran; cf. 7.3.2.8.3.1. §: hona hemen gure eskualdeko lekukoak zerik diren:

c. 1740: *ceren neorc engaiatcecotz, jaquin beharr baitu certara engaiatcen den* (68); *Aunhitz aldiz egunian neorc communia deçaquea?* (107); *exerciçuëndaco neorc dien desgusta vorontario bat* (90); *ceremonia bat çointan neorc bere buria oferitcen baitaco Gincuari* (122); *neor malhuross denian ezçonçan* (124) / *cenbait accione gaitçto eguinen diela, hala nola chehatuco diela norbait cin eguin diena, obligatia dea bere cinaren complitcera?* (67)

1782: *hitz horietan daguena mundu guciarendaco duçu eta berheciki, perfectionera heldu nahi direnen, eci nola gauça handiec bereki baitute bere gomendia, nehor aboro ernetarçun hetan ukeitera ekarria duçu, bena gauça thipietan nehor gutis aboruetan lachatcen duçu, uztez gauça guti bat den hetan falta eguithia* (38); *haxarrian ihi çuçon gaitççaren handitçetic beiratcia, bena ceren nehorc gaitçça orano thipi cenian lachoki utci dien, becatu thipietaric corrigitu faltaz eta gauça thipiez cassuric ezthielacotz ein, hantic gin duçu lachakeria ahalgaitçun batez, tentacioniari bere buria garaitcera utci baitu; Gincoc lexala, halaco exemplien poroançac eliten hain ussu!* (40)

1786: *beldur hori jiten denian bicitce honi ehorc dian stecamendutic* (156); *occasione hortan ehoc eman behar baitu confessioniaren osso eguitiari preferencia becatore lagunaren ohoriaren gaignen* (148) / *cenbait accione gaitçto eguinen diela, hala nola chehatuco diela norbait, cin eguin diena obligatia dea bere cinaren complitcera?* (86)

5.3.4.18. Euskaraz ukapenaren hurrenkera zaharra “aditz nagusia + ez + adizki laguntzailea” da, hainbat adibide lekuko; Etxepare: *esquer hon bat vqhen ez tut çuyeganic vician* (64); baita erlatibozkoan ere: *nahi eztenac enganatu* (42). Katixima zaharretako debeku formula batzuek ukapenaren hurrenkera zahar hau bera dakarte. Hona gure eskualdeko idazkien lekukotasun zenbait:

c. 1740: *orcilarez jain eztuçu ez ibacoitzez haragui* (10); *juramenturic einen eztuçu* (66); cf. *neor obraz hil etçaçu* (71)

1786: *ostiralez janen estuc* (15)

XIX-ko Donapaleuko katixima: *nehor obraz hilen eztuzu* (234)

5.3.4.19. Eguzkialdeko idazleen lanetan **edin* edo **ezan* oinarriko aditza dakarren xedezko perpaus bat baliatu da, *amorekatik* partikula lagun duena, honen kokagunea perpausaren aitzinean nola ondotik doalarik. Errate batera, Zuberoan Belapeire da erabileraren lekuko (1696): *amorecatic paradussian Gıncao gana artecarí eta patron houra ukhen deçan* (1, 63). Lapurdin ere ibili da *amoreagatik* aldaera, Materra lekuko: *çu hil çara, ni hil eznenđin amoreagatic: eta penatu çara, penatarik ene atheratceagatic* (1623: 278-9); cf. mendebaleko euskal idazkietako *amorean* aldaera ere. Hona Amiküze eskualdeko idazkiek dakarten lekukotasuna:

c. 1740: *dudaric bathere içan ez çadin amorecatic* (35); *eçagut deçaten amoreçatic* (sic, 38); *goguan guehiago uquen etçagun amorecatic çure maitatcia eta çuri placer eguitia beçic* (126)

1782: *Bonaventurac erraiten dici, Gıncaoc hiltceco orenaren ecin jakin hortan nahi uken guithiela utci, amorecatic munduco gaucez sobera kassu ezkindeçan eguin* (61); *anitzcetan guttitciaraci diracicie Heuzcarala içan ladin itçulia, amorecatic Heuzcara beçic eztakiten guiristinhuc ere, probetzcha ahal liten Liburu preciatu hortçaz* (4)

1786: *haren hilciaren eta piztiaren gaignian dudaric bathere içan ezçadin amorecatic* (47); *errachkiago jardirex ditçagun amorecatic... gauçac* (73); *amorecatic fidelac hobeki aplica ditien oracionari* (106); *uken etçagun amorecatic çoure maitatcia... beçic* (162)

XIX-ko Donapaleuko katiximak gramatikalizazioaren beste aldaki bat dakar: *maithatzeko Jinkoua gauza guzien gañetik, eta protsimo laguna hain amoekatik* (240)

5.3.4.20. Perpaus kontzesiboak eratzeko *nahibada* partikula ibili izan da ekialdean, Zuberoa edo Erronkari ibarrak barne; gure eskualdeko idazkietan ere ageri da, baina egungo egunean ez da honelakorik entzuten Amiküzen, edo guri bederen ez zaigu elkarrizketetan agertu:

c. 1740: *nahibada bata bertcianic berechiac diren* (18); *nahibada ez guindien merechi* (127); *nahi-bada ez tugun gaizquiric eguiten* (71)

1782: *otoitu cicin bere Fraide lagun bat iratçartçeçan, nahibada etcen ordian orano unxa sendothia anitz flacatu cien sukar batetatic* (17); *nahibada beztagnez eris edo flacoz comenthari etçuten cerbitzchuric batere eguiten* (13). Nolanahi ere den, behin *nahiz* darabil: *oraidanic, erran diici, nahiz nehorc behar dien finkatu hobekienic beharren dien gauçari, orotarar ere eguin cirozkiçu meditatcen thien bertuthen actac ere* (136)

1786: *ceren hirour persona hoc, nahibada bata bertcianic berechiac diren, ezpaitute natura divino bat bera becic* (25); *nahibada ez guindien merechi gaztiguric becic* (163)

5.4. XVI. mende bukaerako gutun bat

Lüküzeko Charles jaunaren alabak idatzia izan daiteke XVI. mende bukaerako gerla-gutun bat, Espainiako Simancasko artxibategian agertu zena; cf. J. M. Floristán Imízcoz, “Conflictos fronterizos, espionaje y vascuence a finales del siglo XVI: 20 documentos inéditos”, *FLV* 63 (1993), 204 or.; ikus J.-B. Orpustanen argitalpena ere: *Lapurdum* 14 (2010), 138-9 or.

Gutunean XVI. mende bukaerako mintzoa islatzen duten ezaugarriak ageri dira, menturaz Amiküzekoak. Tasun morfologiko zaharretan *haur* ‘hau’ erakuslea, *nicac* ‘ni(t)zaz’ instrumentala, *niri* datiboa eta *neure* izenordain hanpatua ditugu. Nor Nori Nork adizkietan egungoak baino osoagoko *deraut* ‘dit’, *derautcut* ‘derautzut’, *derautacun* ‘derautazun’ eta Nor Nork sailean *duiela* ‘duela’, hiatoan *i* duena; trinkoa da *dioite* ‘erraten dute’; etorkizuneko aditz nagusi *abisaturen* dakar eta baita *suplicazen nizaucu* ‘suplikatzen nitzauzu’ = ‘eskatzten dizut’ era zaharra ere. Denborazko perpausa da *gindenian* ‘jin denean’; aldaera lexikoetan, berriz, honakoak ageri dira: *anaie*, *bazu* ‘batzu’, *berce* ‘ber(t)ze’, *countre* ‘kuntre’, *duhuruian* ‘diruan’, *egori* ‘egorri = igorri’, *encun* ‘entzun’, *hainberze*, *haniz* ‘anitz’, *heben*; baita *urçagei* ‘urkatzeko dena’ ere.

6. Aldakortasun geolinguistikoa Baxenabarreko ipar-ekialdean

6.1. Baxenabarreko eskuara

Pertsonen arteko eta gizataldeen arteko hartu-emanen nahiz harremanik ezaren arabera moldatzen dira historikoki mintzoak: orografia, hidrografia, lana non ematen duten edo non aurki daitekeen, salerosgo hartu-emanak non gertatzen diren, aisialdia bizitzeko jendeak nora jotzen duen... euskal mintzoak bilakarazi dituen oldar historikoaren sorburua gizarteko eta naturako eragile horien guztien arabera da. Baxenabarre gehieneko ibarretan ageri diren hizkuntza-ezaugarri berdin edo berdintsuen kopurua handia da: Pirinioen altzoan dauden herri bakan batzuk alde batera utzirik, aski eremu zelaia da Nafarroa Beherea eta ez dirudi bertako jendeen arteko hartu-emanak behaztopa orografiko handirik izan duenik. Aldiz, Zaraitzu-Erronkarietarik gertatzen den bezala, Oztibarretik edo Garazitik Zuberoara joateko bortu gorak gainditu behar ditu gizakiak: udan mendiko bazkalekuetara joan da bai goiti, Zuberoako mugetarat, baina merkatura *Doñanera* jo beharko du astelehenero. Aldea dago mendiaz bi alderdietako mintzoen artean, Garazi eta Oztibarreko euskaratik Xiberoakora.

Lapurdin gaindi Euskal Herriko erdigunetikako hizkuntza-eragina eta espezifikoki Lapurdikoa mendebaletik biltzen dute Bidarrai batek edo Arberoako mendebaleko herriek. Eskuin, Zuberoako Pettarrera joateko orografia arazorik ez duten amiküztarrek ere, Nafarroa Behereko ezaugarrien multzo orokorretik saihesten diren hizkuntza-aldaera batzuk darabiltzate. Goiti galdurik bezala Lapurdiko barrutian kokaturik dagoen Bardozoko hizkuntza-ezaugarriez, erran daiteke Amiküzeko mintzoarekin estekaturik daudela; Aturri ibaiari zor ote zaio historikoki lotura hori, nahiz amiküztarrek eta bardoztarrek ur handia goitixeago duten?

Nafarroa Behereak halako batasuna du mintzoen aldetik, baina trinkotasun hori bereziki erdigunean ageri da, Arberoa, Garazi, Oztibarre alderdi horretan; aldiz, hego-mendebalera Baigorriara jotzen badugu, edo ipar-ekialderat Amiküzerat higitzen baldin bagara, *baxenabar eskuara*-tik bi ibarrotara isoglosa batzuk biltzen direla ohartuko gara. Baxenabarren mintzo dibergenteena dute gaineratekoekiko hala Baigorri ibarrak nola Amiküzek.

Henri-Guiter-en ikuspegian (1973: 103), Lapurdiko euskaratik Nafarroa Beherekora ez dago dialekto biren arteko muga justifika lezakeen hizkuntza-jauzirik. Bonaparteren ekialdeko *vs.* mendebaleko behe-nafarrerren banaketaren

gaia, bestalde, frankotan eztabaidatu da eta Irizar zenak ikusi bezala, aldeaz ez da handia: batean zuketa edo xuketa alokutiboa erabiltzea eta bestean ez erabiltzea aipatu da dialekto-mugaren arazoitzat. Egiazki, garrantzi franko eman zaio zuketa-xuketa gai honi dialektologian, daukan sistematikotasun eta agerpen maiztasun handiagatik.

Ordea, zuketarik edo xuketarik ezarekin batera, koherentzia geolinguistikoa doazen hizkuntza-ezaugarri gehiago ditugu Nafarroa Beherean, errate batera Baigorri ekialdeko behe-nafarrerarekin ez biltzeko; metodologia hertsiki zain bageneza arrazoi horiei ere garrantzia eman beharko litzaieke eta artean ez zaie eman. Beharbada eskusiboak ez direlako ez zaie eman, baina zuketa alokutiboa ere ez da eskusiboa, ez orain ezta Bonaparteren garaian ere: indarrean dago Zuberoan eta Hegoaldeko Zaraitzu eta Erronkari ibarretan ere ibiltzen zen. Halaz guztiz ere, dauden lekuan kokaturik daudelako ziur aski, Lapurdiko zuraidar batzuen begietan baxenabartarren jokabide sistematikotzat jotzen da zuketa; cf. Epelde (2003: 343).

Hondarreko urteetako dialektologiako ikerketek nafar-lapurtera euskalki bakartzat aurkeztu dute, baina aztertu behar da ea historikoki ere gauzak honela izan ote diren: XVI. mendeko Baxenabarreko euskaran baziren ezaugarri berri batzuk garai hartako Lapurdin falta zirenak, baina tasun hauek guztiak Zuberoarekin partekatu izan ditu Nafarroa Behereak; hona zein diren:

- adizlagunetan *hantik* 'handik' eta *heentik* 'hebendik' aldaerak
- sozietiboko atzizkian *-kila(n)*
- izenordain indartuak: *nihaur*, *hihaur*; pluralean *guhaur*, *zuhaur* / Zuberoan *gihaur*, *zihaur*
- *ehor* & *nehor* polaritate negatiborik gabeko perpausetan; Baigorriin *nohait*⁴³
- *nai* > *niz*, *hai* > *hiz*, *gira*, *zira* eta *nau* > *nu*, *hau* > *hu* erako monoptongazioak
- zuketan mintzatzea, xuketa Baxenabarreri atxikiago egon bada ere
- aditz tripertsonala morfema datiborik gabe agertzeko aukera, XIX. mendean gertakaria Lapurdirat inguraturik
- *ukhan* aditza perifrasi perfektiboan, Zuberoan *ükhen*

43 Hona Oihenart: *alfer egonez gai*zki egiten *nehork ikas diro* (2003: 254). Beste bi hauek Baigorrikoak dira, XIX. mendekoak, Iribarnegarairen ebanjeliokoak: *ordian Yesusek erran zeen bere dizipulier: nohait yarraiki nahi balin bazaut, ukho ein dezala bere buriai* (Pagola, Iribar & Iribar 1999b: 53); eta *noait mintzatzen bada Gizonain Semian contra, barkhatia izain zako* (43).

- perpauseko *-a* galdera morfema
- *elgar* aldaera ahostundua, Zuberoan *alkar* & *algar* dena

“Behe-nafarrera” dialektoaren ideia ere aski barreneraturik egon da hizkuntzalarien artean. Ez dute Bonapartek eta haren jarraitzaile Irizarrek bakarrik baliatu, Azkuek eta Mitxelenak ere bazerabilten. Eta zein dira dialekto horren ideia bermatzen duten arrazoi edo argudioak, zein bere-berezko hizkuntza-ezaugarri berriak? Nafarroa Behereak baditu bere-berezkoak diren beste berrikuntza batzuk, Zuberoan edo Lapurdin ageri ez direnak:

- *noit* ‘norbait edo *zeit* ‘zerbait’ erako erabilera laburtuak
- *duen* > *diin* bezalako bokal asimilazioak adizkietan (Hazparnealdean ere badena)
- *izan*-en Nor Nori adizkietan *ai* > *au* egitea; Etxeparek *çayt* & *çauçu*, bi erak darabiltza
- *izan*-en Nor Nori adizkietan datiboko hirugarren pertsonan *zako* ‘zaio’ aldaera izatea, nahiz Etxeparek *zaika* zekarren
- aditz laguntzaileen konbinazio berezi baxenabartarra da *niz* ‘naiz’, *nintzan* ‘nintzen’, *zako* ‘zaio’ eta *dako* ‘dio’ adizkiek egiten dutena
- *deramat*, *deramazu*... erako adizki trinko berriak
- *bait* partikula kausala *bit* monoptongatzea
- *elgar* izenordain ahostundua
- *intzun* ‘entzun’ aldaera, Lapurdin⁴⁴ edo Zuberoan entzunen ez duguna

Ezaugarri hauek guztiak batera ageri zaizkigunean, tasunen konbinazio hau Lapurdi edo Xiberoakoa ez denez, orain arteko tradizioan *Baxenabarreko eskuara*-tzat jo da mintzo hori eta Ipar Euskal Herriko gizartean ere ibiltzen da adigai hau: zenbait jendek, hainbat idazlek, euskal astekari ezagunenek erabili ohi dute eta erroak egin ditu; Baxenabarre herrialde bat denez, bere batasuna, mugak eta historia berezia dituen, euskaldun ipartar anitzek ibiltzen dute *Baxenabarreko eskuara*-ren ideia.

Eta badira beste berrikuntza batzuk XVII. mendeko Lapurdin, orduko Baxenabarren falta direnak, baina ondotik Nafarroa Behereko XVIII. mendeko idazkietan agertzen hasi zirenak; aitor dugu kasu honetan arazo nagusia Baxenabarreko XVII. mendeko testurik eza dela; cf. Suarez d’Aulan-en 1740

44 Lapurdiko mugako Hazparnen XIX. mendeko katiximan: *intçutia* (Pagola, Iribar & Iribar 1999b: 222).

urte inguruko katixima. Dena den, denbora iraganik Lapurdin baino geroago Baxenabarren agertu berrikuntzok ez dira espezifikoak, euskara orokorrarenak baizik, ekialdeko bidea motelago hartu dutenak eta Ipar Euskal Herrian lehenik Lapurdiko idazkietan ikusi ditugunak; erdiguneko Euskal Herrian berriztatu ziren itxura dute, gerora emeki-emeki ekialderat jo dutenak.

Baigorriko euskarak Lapurdi aldera jotzen duela gauza ezaguna da; hona ezaugarri sorta bat lapurtarrek eta baigorriarrek ibiltzen dutena, Nafarroa Behe-reko erdigunean eta Amiküzten falta baita:

- Nafarroa Behere guztian osoki bederen gauzatu ez den *erorten* > *erortzen* erako bilakaeran Baigorriko euskara berritzaile da, Nafarroa Garaiko auzoko ibarrak bezainbat; baigorriarrek ez dute *erorten*, *ibiltzen* erako aldaera zaharririk gorde
- Baigorriin *etxean* aldaera berria dugu, ez ***etxen* zaharra
- *-la(t)* adlatibo zaharra dugu Baxenabarre gehienez, Baigorriin *-ra(t)* berria baizik ez
- Baigorriko euskarak bere-berezko berrikuntzak ditu adizkietan, gainerateko Baxenabarren ezezagunak baitira

Bestalde, Nafarroa Behere guztian ibiltzen diren lau berrikuntza falta ditugu Baigorriin:

- *bit* 'bait' morfema kausal monoptongatua
- moduzko *-xe* atzizki indargarria *-xet* & *-xetan* egitea
- *ginen* > *ginden*, *zinen* > *zinden* bilakabidea
- zuketa eta xuketa tratamenduak

Ezaugarri horietan guztietan gordetzaileago izan da Baigorri ibarra, dinamika bakartuagoan iraun du, Lapurdi eta Hegoaldeko Nafarroa Garaiko ibarrekin batera: Nafarroa Behere orokorrarekin alderatuz gero, jokabide gordetzaileagoa izan du. Nafarroa Beherearen hegoaldean, Nafarroa Garaia zulatzen duen ziria dirudi Baigorriko kantonamenduak, sarbide baten eitea du: Baigorriko Banka, Aldude eta Urepele mendien artean ditugu, Luzaidek, Erroibarrek, Esteribarrek eta Baztanek inguratirik. Baigorriko hizkuntza-ezaugarri batzuek Ipar Euskal Herriko mendebaleragoko euskararen oihartzuna dakarte eta Nafarroa Behere gehienez ageri diren zenbait ezaugarritarik urruntzen dira. Besterik da frogatu ahal izatea, Nafarroa Behereko berrikuntzetarik desberdinak diren Baigorriko ezaugarri gordetzaile batzuk, Baigorriren izaera menditsuaren eta bakartzee

orografikoaren ondorio diren, ala ondoko Baztan, Esteribar eta Erroibarrekiko hartu-emanari ote dagozkion, ala bi arrazoiak batera biltzen ote diren.

Baigorri alderdiko euskaraz eta bereziki Aldudekoaz diharduela, honela dio Lacomberi ikasirik Jean Etxepare Bidegorrik 1912an: *mintzo dugu Aldudan Baxenabartar garbia, bainan ez holetan arras Irisarrin eta Donianen bezala. Ba omen ditu gure hizkuntzak hetarik berexkuntza ttipi batzu* (in Charritton 1984: 259).

Garazitik edo Iholdiko kantonamendutik zetorkeen hizkuntza-eragina zehazki zerk neutralizatu du Baigorriin? Zerk baino, zerk gehiago? Enpirikoki froga ote daiteke, Baztango, Esteribarko, Erroibarko eta Baigorriko diren ezaugarri batzuk — Nafarroa Behere orokorretik saihesten direnak, baina beste eskualde batzuekin partekatzen dituztenez eksklusiboak ez direnak —, mugaz bi aldeetako ibar hauen arteko hartu-eman historikoari dagozkiola? Ez da aise. Ohar gaitezen, bestalde, baigorriarrek —urepeldarrak eta aldudarrak barne— asteleheneroko merkatura Donibanera jo dutela, Garazira, han izan dutela *bilgia* eta Elizondora urtean behin joan direla feriara; baina hori egungo errealitatea da.

Euskal mintzoak diren bezala izatea eragin duten arrazoi historikoak ez ditugu nahi bezainbat ezagutzen, baina badakigu egun Baigorri kudeatzen duen Aldudeko oihana aspaldian Erroibarrena eta geroago erroibartar eta baztandarrena izan zela, Zangozako merindadekoa. Abeltzaintzaren aldetik lotura hertsia izan da Luzaide, Erroibar, Esteribar, Baztan eta Baigorri ibarren artean: Sorogaingo fazeria adibide argia da. Bestalde, Iruñeak behar zuen haragia bilduko bazen, baigorriarren abeltzaintza zinez garrantzizkoa zen (Esarte 1983: 40). Baztandik Baigorri biziara joanak eta Baigorritik Baztana ezkonduak ere izan dira historian zehar. Eta Baiona Baigorriko ardoaz eta haragiaz behartu da historikoki, baigorriarren eta lapurtarren arteko hartu-emana eraginik, ondokotasun geografikoak bezala.

Baigorriin ez baita xuketan edo zuketan mintzatzen, Bonapartek mendebaleko behe-nafarreran sartu zuen. Halaz guztiz ere, arestiko ezaugarri horiez landa, Baigorriko euskara Nafarroa Behereko mintzo orokorretik bereizteko arrazoi gehiago ere badira:

- Baigorriko eta Arberoa-Iholdiko alderdia dira Baxenabarren bustidura gutien dutenak eta Lapurdi ekialdeko erara gehien hurbiltzen direnak
- Baigorrialdean badirudi *rtz* taldea gehiago ibili dela *st* baino
- Baigorriin *nundik* & *handik* erakoak ditugu: ***nuntik* & ***hantik* erakorik ez, ezta ***hanko* edo ***he(m)enko* erakorik ere
- bakanduz joan da Baigorriin soziatiboko *-kilan* atzizki berriaren erabilera

- bilaketa atzizkia ez da *-ka* Baigorriin, Baxenabarre hegoalderagoko *-keta* baizik, Baztanen gisa

Nafarroa Beherean bederen, zuketaren eta xuketaren eremua hizkuntza-ezaugarri gehiagorekin ere geolinguistikoki koherentea dela ageri da: zuketaxuketa falta den Baigorriin Baxenabarreko ezaugarri berritzaile batzuk falta dira eta zuketaxuketa egiten den tokietan, Baigorriin falta diren berrikuntzen eremu bat sortzen da.

6.2. Bardozeko heskuara

Liburu honetan guztian ikusiko denez, bada halako konexio bat Amiküze eta Aturrialdeko euskararen artean, edo hori erran daiteke zenbait ezaugarri bederen: alderdi lexikoaz egin dugun azterketan nabarmen ageri da Amiküzeko hitz eta aldaera zenbaitek jarraipena dutela Bardozen edo Aturrialdean. Guk gaia ez dugu sakon aztertu, besteak beste Aturrialdeko euskararen lagin sendorik ez dugulako, baina argi dago Amiküzeko ezaugarri franko Bardozen berragertzen zaigula eta hori aspalditik heldu den erlazio bati dagokio, nahiz egun erlazio horren islarik ez den ageri; eman dezagun, Arbotiko lekuko batek dioskunez: *eztik relazioneik Bardotzek eta Amikuzekin, ez*. Egun bederen lan aferetarako bardoztarrek Baionara jotzen dute eta ez Amiküzerat.

Baina ez Amiküzekoarekin bakarrik, Hazparneko euskararekin ere lotura hertsia du Bardozeko mintzoak, Hazparnealdeko berrikuntzak bildu ditu hondarreko aldian Bardozeko euskarak: mintzoaren aldetik Bardoze eta Hazparne ez dabilta urrun, izan ere Bardoze Lapurdin da eta lapurtarren hainbat ezaugarri partekatzen ditu Bardozeko mintzoak; cf. 7.1.3. §.⁴⁵

Beste ezaugarri aipagarri bat bardoztarren izaera nahasi edo *xarnegua* da, kaskoinarekin duten harreman sakona, izan ere, Bardoze aldi berean herri euskaldun eta kaskoina baita, biak, nahiz egun euskara galbidean den Bardozen.

Hona Bardozeko euskaraz Amiküzen galdegin dugunean herri batzuetan bildu dugun iritzia:

Bardotzeko ^heskuara biarnosoo zen geiho, hemengoa heskuara (Oragarreko Barta auzoa)

Bardotze eztaikit ze heskuara den, erdia frantsesa, erdia ^heskuara (Sar)

45 *EHHA* bildumako Bardozeko lekuko batek honela dio: *diozie zonbeitak badiela eite Hazparneri ene mintzaiak, galdein datazie hazpandarra nintzenetz, ezetz, bardoztarra nintzela*. Aita-amak hazpandarrak zituen bardoztar batek Kristina Encinarri ziotson Hazparneko eta Bardozeko euskara iduriak direla (2008: 387).

*bena Bardotze bauk biziki kaskoiñ, e, eRan nahi bita biarnes eta hoi-
taik, ze (Ilh)*

[Bardozeko eskuara konprenitzen?] *Hein bat, hein bat* [Xiberokoaren
iduria?] *Ez, ez, ez, ez, beste gisa at ono, plutôt biarne[¿]Jari hürrentzen den
zeit, erdi heskuara erdi biarnes (Arbo)*

Beren burua baxtartzat hartu ohi dute bardoztarrek nortasun bikoitz hone-
taz jardutean, *EHHA* atlaseko lekuko bardoztarrak dioenez:

*Basaburia ez hemen, hori Eskual Herrian, gu re Eskual Herrian gitzu,
bana bastartak*

Eta *EHHA*-ko lekuko bardoztar batek dioena ere adierazgarri da:

*hen guk nahastikatzen duu kaskoinarekin poxi bat, bai poxi bat, nahi-
tez, itzuli guziak denak kaskoinak bitira, nahitez, merkhatura johan ginen
Bastidat, johan ginen Bixunat, bena Peyrehoradeat hasi ginen eta han kas-
koinak dira*

Hona zer dioen atlas bereko beste lekuko bardoztar batek ere:

*behala, behala, elgar mintzatzen eta ta Donaphaleuko, Oharrekoa,
herria eta hek gutaz trüfatzen, Bardotzen gauza drolia, erdia gaskoina, oai
gaztiak ezute mintzatzen eskuaraz, batutzu hitzak Eskual Herri guzietakoak,
“giltza” erten duu guk, auzo herrian “gakhoa” guziek, eta Oharre ta Bes-
koitze, eta auzo herriak trüfatzen: “gakho” erten da, ezta “giltza” erraiten*

Kristina Encinarrek Mugerren eta Beskoitzen entzun du bardoztarren min-
tzoa nahasixea dela (2008: 390).

Bardoztarren hitz berezia omen da *xapo at* ‘pixka bat’ ere, bardoztarrei
erraten baitiete hori ez dela euskara; hiztun bardoztarrek berek aipatzen dute
berezitasun hau (*EHHA*):

*“xapo at”, “pitta at” erteko orde, “xapoño at”, ‘un petit peu’, emak
ogi xapo at, Bardotzen bakharrik, naski bakharrik*

Aspaldiko lekukotasunetara jotzen baldin badugu, Bardozeko notario Cel-
habek XIX. mendearen erdialdean Bonaparterentzat itzuli katiximan ageri denez
(Pagola & alii 1999a: 275-316), badira hainbat tasun Bardozen, Amiküzeko
euskarari edo Euskal Herriko ekialdekoari anitz hurbiltzen zaizkionak; hona
ezaugarri horien sorta bat erakusgarri:

ü palatala (cf. Encinar 2008)

i - ü → ü - ü asimilazioa: *bühürtia* (277), *lübürü* (278), *ülhün* (315), *ützülia* (277)

muga adlatiboko *-radio* aldaera: *akaantchadio* (305), *boulharreta'adio* (285), *orduradio* (281); cf. *escouñecoradino* (285) ere

inesibo zaharrak: *gaiñen* (308)

**edin*-en ahaleko *e - e* aldaerak: *deitekezu* (279), *ezteitekena* (288)

-t lehen pertsonaren datiboan: *errazut* (286), *ema'atzut & emazkiatzut* (316)

hainbat hitz: *aboro* 'gehiago' (294), *haidürü* (284), *idokia* 'aterarik' (312)

hainbat aldaera: *-gerren* atzizkia (280), *gorphitzeco* (292), *-tarziin* atzizkia (280)

6.3. Arberoako eskuara

Arberoako euskararen balizko batasun edo zatiketaz ez dugu iritzirik: Heletan, Armendaritzen eta Mehainen erauntsi dugu datu biltzen, baina ez dugu eskualde horretako euskara sakon ezagutzen, ez dugu arberoarren mintzoaz funtsezko iritzirik.

Ezagun du, bestalde, Lapurdiko Hazparne hiriak hizkuntza aldetik Arberoan eragin duela.

Bestela izan ezin zitekeenez, Nafarroa Behereko ezaugarri orokor ugari baliatzen dira herrialdearen erdigunean kokaturik dagoen Arberoa eskualdean. Euskal Herriko ekialdeko formekiko bestelakoak diren aldaerak darabiltzate arberoarren. Ipar Euskal Herriko Lapurdin nahiz Nafarroa Beherean berriztatu diren, baina ekialdekoak ez bezalakoak diren ezaugarriak ageri zaizkigu Arberoan.

Nolanahi ere den, Zuberoara eta haren ezkerretara ekialdeko Baxenabarrera hedatzen diren ezaugarriak ere badira Arberoan. Euskal ekialde linguistikoaren gune-gunean Zuberoa ikusi ohi dugu, bertan ageri da ekialdean geografia-eremu hedatuena duten ezaugarrien konbinazio sendoena, baina tasun horietarik batzuk ondoko ibarretan ere ibiltzen dira: funtsean Baxenabarren eta Lapurdiko iparraldean.

Ekialdeko ezaugarri gehienak Zuberoan batera agertzeak adierazten ote du berrikuntza horiek guztiak Zuberoan sortu zirela edo bertatik hedatu zirela? Beharbada bai, baina juzgu sendoagoak eduki ahal izateko hizkuntza-berrikuntzak banaka aztertu beharگو genituzke, ardatz historiko-geografikoaren arabera. Hauetariko ezaugarri batzuk Nafarroa Behereko hainbat alderditan ere ageri

zaizkigu, Zuberoaz landa ezker Amiküze eta Arberoarat ere hedatzen dira eta usu baita Lapurdiko Aturrialdeko mintzora ere.

6.4. Oztibarreko eskuara

6.4.1. Oztibarre eskualdea

Hamabi herrik osatzen dute Oztibarre: Arhantsusi (Arh), Arroze (Arro), Azme (Azm), Bunuze (Bun), Donaixti (Donaix), Hozta (Hoz), Ibarre (Ibarre), Ibarrola (Ibarro), Izura (Izu), Jutsi (Jut), Larzabale (Larz) eta Zibitzek (Zib).

Landibarre herria (Lan) ez da Oztibarreko partaide, baina usu aipatuko dugu herri hau hizkuntza-datuak aurkeztean, nahiz ez den guztiz Oztibarrekoa bezalako euskara. Oztibarretik ezker, historikoki edo ofizialki bereiz egon da Landibarre, baina Oztibarrerren barrenean dakar Nafarroa Behereko herrien izenen mapak (Salaberri Zaratiegi 2004) eta Euskaltzaindiak. Herriko Etxea du eta bere lau auzoak: Behaune, Jandonemarti, Jantoozti eta Azkonbegi. Ibarrolan kontatu digutenez ez omen dira *khuutzatzen landibartarrek*, izan ere, Ipharlatzeko lepoa gainditu behar baita horretarako. Zibitzen dioskutenez *mendi hori hor du artian, ta hartako da behex, Landiarre hartako uzu behex, beste alderdian da*.

Zabala da gero Landibarre herria dituen lau auzoekilan, ohar bedi Baxenabarrerren bihotzean dela, kasik eskualde guztiak ukitzen ditu: Oztibarre, Arberoa, Garazi eta Amiküze ondoan ditu; hegoaldean Azkonbegin gaindi Garaziko Suhuskunera goaz, eskuin Ipharlatzeko lepoan gaindi Oztibarreko Izurara, goiti Behaune auzotik Amiküzera eta ezker Arberoa du, Iholdiko alderdia.

Egungo mundu modernoan Frantziakoa bezalako erakunde zentralistarendako ez da ohikoa Oztibarre eskualdetzat hartzea: ibar honi ez dio izaera handirik aitortzen. Ibarren izena, datzekion eduki historikoa, hamabi herriak eta geografia horretako jendeak dira egun Oztibarre euskaldunontzat, baina Frantzian ez da errealitate administratiboa.

Gizarte eta ekonomiaren alderditik Oztibarre ez da ongi bereizten Donapaleu eta Donibaneren errealitate sendoetarik, bi hirien artean dago, ixtaklok. Urrun da Hazparne, oztibartarrek ez dute hango merkatura jotzeko ohiturarik ukan: Ibarrolan dioskutenez merkaturako *hurruntxei duzu Hazparne*. Donibane eta Donapaleura, baina inoiz Maulekora ere jo dute, errate batera gerla denboran. Amiküzen ez bezala, ez dugu Oztibarren Hazparneko euskararen ederra aipatzen entzun, baina hori bai, mendebaleko mintzoa goersten da: *ba mintzaira ederra da, Baigorin ta, enetako ederra ute, ba, Baigorin ba, Lapurdin e ba* (Zib).

Oztibarre ez da Baxenabarreko eskualde handienetarik, Arberoa eskualdearen edo Baigorri-Ortzaize alderdiaren pareko edo da kilometro karratuetan, eta nabarmen Garazi edo Amiküze baino ttipiagoa, baina aintzat hartu behar da Hozta – Arhantsusi – Landibarre herriek eratzen duten trianguluan, Gamarten, Duzunaritzen edo Lekunberrin gaindi ondo-ondoan duela Garazi eta baita haren gizarteko buru Donibane hiria ere, orain astelehenerokoa den merkatuarekilan. Aspaldiko berrietan Garazira bizitzera joan oztibartarrak ditugu, zergen idazki zaharretan ageri denez: Ainhize-Monjoloseko Apezetxeko Arnalt Larzabaletik joan laboraria zen 1350ean (Arbelbide 1987: 29).

Nafarroa Behereko hego-ekialdean kokaturik, eskuineko mendi sortak Zuberoatik bereizten du Oztibarre eta erdi hetsirik eta zokoraturik gelditzen da ibarra, baina ez horregatik gizarteko komunikazio saretik landa. Larzabaletik eskuin, Zibitze, Bunuze eta Donaixtin gaindi, Oxxaxe igan eta Oztibarrek ez ditu urrun Zuberoako Muskildi eta Urdiñarbe: xiberotarren gizarte berezi eta batu horretara aise iragan daitezke gure eskualdeko abeltzainak. Urdiñarben argi ageri da Baxenabarreko euskararen hurbiltasuna eta eragina. Udan bortuetan elkar ikusten dute alderdi bateko eta besteko artzain euskaldunek; Jutsin 2005ean zioskuten bezala, *juntan baigira*. Jutsiko bidean barrena ere fite gaude Pagola erdi-zuberotarrean.

Amiküzeko sarbidean da Uhartehiri, distantzia euklidearrean eta hizkuntzaz Oztibarrera hurbil den herria. Donapaleu dago Amiküze ibarreko erdigunean, merkatu eta ekonomia aldetik garrantzi handiko hiria. Itxaron zitekeenez, historiak diosku oztibartarrek Amiküzera jotzen zutela eta orain ere halaxe da: era guztietako zerbitzuetarako, biziki erakarpen eragiten du Donapaleuk.

6.4.2. Oztibarreko mintzoa

Oztibarre izena euskal deituran iltzaturik gelditu da; eman dezagun, garai batez Baxenabarrerekin horrenbeste hartu-eman ukan zuen Nafarroa Garaian.⁴⁶

Garaziko eta Arberoa gehieneko euskararekin batean Baxenabarreko *eskuararen* muin-muinean kokaturik dago Oztibarreko mintzoa, eskualde haue-tan heltzen da baxenabartarren *eskuara* homogeneousotasunaren *goihen gradora*.

Oztibartarrak ez dira Hazparne eskualdeburuaren orbitapean gertatu; hiri horren indarra Aturrialdean, Lapurdiko erdialdean, Amiküzeko mendebalean eta Arberoan senti da, eragina ukan du eskualde horietako mintzoan, baina Oztibarreko hizkuntza-datuek erakusten dute Hazparneren eragina ez dela ibarrera

46 Hiruretan hogeita hamarrek hamarkadako Osasuna futbol taldeko Juan Jesús Ostivar aurrelari azkoiendarra dugu gogoan.

heldu. Izatekoz, Landibarre bustitzen dute Hazparnetikako eragin horren tantek, lexikoaren alderdi batzuetan.

Oztibarreko *eskuara* ongi ezagutzen duen Videgainek aski batasun hauteman zuen ibarrean (1989: 30, 38) eta lekuko oztibartarrek ere batasuna senti dute ibarreko mintzoan, baina Arhantsusin Amiküzeren hurbiltasuna ageri da eta Hozta ere berezitat aipatu digute: xuketan mintzatzeko ohitura ukan dutela eta Oztibarren oro har egiten den baino haboro entzuten zaiela xuketan, jende hoztarrek nonbait Garazira joateko joera ukan dutenez: senar-emazteen artean to eta no egin ohi da Oztibarren.

Guhaurek ere aski batasun dakusagu Oztibarreko mintzoan, baina ez da gizatalde guztiz batua, ez doaz herri guzti-guztiak mintzoan batera, eragin baten baino gehiagoren menpe dago ibarra, grabitazio indar linguistiko bat baino haboro heltzen da ibarreko herrietara, herri batzuetarik besteetara aldea dago hizkuntzan, baina ez du honek erran nahi ibarrean hizkuntza-batasunik batere ez dagoenik.

Oztibartarren hizkuntza-komunikazioaren gaian ohar bat egin behar da Zuberoaz: auzo eskualdea da oztibartarrentzat, baina orografiak bereizirik mendiez bestaldean da. Ezagun du Oxkaxez bestaldeko mintzo zuberotarra eta Oztibarrekoa anitz ezaugarritan desberdinak direla, baina halaz ere elkarren ondoko ibarrak dira: oztibartarrek Xiberoara garaztarrek ez duten sarbide orografikoa izateak eragin duke Oztibarreko herrietan zuberotarren ezaugarritzat jotzen ditugun era batzuk lehen eta orain erabiliak izatea eta aldiz, garaztarren mintzoan ez agertzea. Ondoan Zuberoa izateak halako batasun bat eragin du ekialdeko Baxenabarren; ongien Zuberoan gorde diren ezaugarri zahar zenbait Amiküze eta Oztibarren ageri dira, baina Garazin ez, edo hein berean ez bederen. Amiküze eta Oztibarre bete-betean sartzen dira ekialdeko Baxenabarreko euskaran, franko ezaugarritan zuberotarren mintzo-ohiturei hurbil, baina hondarreko mendeetan eragin handia etorri da mendebaletik, erdiguneko Euskal Herritik: ekialdean gorde diren ezaugarri zaharren geografia-eremua bakantzea eragin dute ezkerretik jin tasun berriek: errate batera, XVIII. mendeko Oztibarren aditz-izenean *-ten* → *-tzen* lerratzea gertatzen ari zen.

Alderdi guztietarik euskarak inguraturik den Oztibarre eskualdeak ez genezake itxaron berezko hizkuntza-ezaugarri ugari izatea: harritzeko litzateke ondoko ibarretan ageri ez diren tasunak Oztibarren ausarki ager balitez, hau da, tasun endemikoak, eksklusiboak, oztibartarrenak baizik ez direnak ibarrean ugari baleude. Honelako eskualde arras erdigunekoek komunzki saihetsetako herrietan ondoko ibarretako ezaugarriak ukaiten dituzte, haien eragina jasan ohi dute, areago eskualdeak geografian hedadura zabala hartzen baldin badu; alta, Oztibarre ez da ibar handia. Nafarroa Behereko euskararen interkomunikazioen

erdigunean edo erdigune honetatik hurbil egoteak eragin duke oztibarren euskararen berezko ezaugarriarik batere ez izatea; ez dute berezko berrikuntzarik sortu, ez dira ondoko euskaldunetz bestela mintzatu: nabarmena da muga adlatiboko *-radino* aldaera, Oztibarren aurkitu dugun tasun berezi bakarra, Amiküzeko *-radio* gogorarazten diguna.

Alderdi lexikoan ere berezitasun guti batzuek bereizten dute Oztibarre ondoko eskualdeetarik. Hitzetan *askaot* 'haize zirimola, zurrunbiloa' aipa liteke (Bun, Jut, Larz), Pagolan *kaxkabot* erraten dena; Garazi-Landibarren *tirurite* & *tiuite* darabilte. Aldaera fonikoetan ere badira ale berezi bakan batzuk Oztibarren: *ainhera* 'enara' — baina Landibarren *iñhara* & *iñara* dakar EHHA-k —, *lanbrots* 'xirimiria, langarra' (Jut, Larz) — Urdiñarben bezala —, *perret* 'aketza, umea egiten duen zerri arra' — Landibarren *herautx* & *eautx* gorde da eta Ezterenzubi, Gamarte, Irisarri, Hazparne, Izturitze eta Aturrialdean ere *herauts* & *erhauts* dago —, *toto* 'hazitegia, mintegia' (Lan, Jut, Larz, Donaix) — Baxenabarren ez dago beste inon; Zuberoan Pagolan dago eta Larrainen proposamen onetsia da EHHA atlasean; Zuberoan nagusi da *soto* —, *xitxer* 'kazkabarra, txingorra' (Lan, Larz) — Domintxainen eta Pagolan bezala — ..., baina ez dugu datuetan Oztibarren baizik baliatzen ez den hitz edo aldaera ugari sumatu, alderantziz baizik.

Oro har oztibartarrek ibiltzen dituzten hitz edo aldaerak ezagunak dira inguruko eskualde zenbaitetan. Oztibartarrek inguruko mintzoekin batean eta horiek aintzat harturik ondu dute beren *eskuara*, eta beharbada horregatik da zaila, alderdi lexikoa aintzat hartu gabe hiztun bat oztibartarra ala garaztarra den bereiztea, horregatik zail da Oztibarreko berezko ezaugarri markatzaileak aurkitzea. Hiztun oztibartar baten kasuan baino, mintzotik aiseago jabetuko gara zein eskualdetakoa den Baigorrialdeko edo Amiküzeko lagun bat.

Konparazione, Amiküzeko hiztun batek Oztibarren entzuten ez diren hone-lako ezaugarriak erabiltzen ahal ditu:

- *ü* fonema palatalizatua
- *i-u* > *ü-ü* bokal sekuentziaren asimilazioa aitzinerat
- *-oin* > *-uin* & *-uñ* bokal hersketa
- *etxengo* 'etxeko' lokatibo zaharra, Xiberoan *etxenko* dena
- *bañotek* 'bakar batek' erako *-ot* atzizki txikigarria — baina ohart Oztibarren badela *-xot* atzizkia: *handixot*, *ttipixot*... —
- datiboaren morfema bikoizturik duten aditz laguntzaileak: *zindataziin* 'zenidan' (Arrüeta-Sarrikota)

- moduzko perpausetan partizipio bururatua beharrean aditz-izena baliatzea: *uai libertitez, ai zizte lanian* ‘orain dibertituz ari zarete lanean’ (Zoho); aldiz, beste alderdian egitura horretan partizipioa baitezpadakoa da; cf. Arberoako Mehaineko *hau pusatuz, atheako uk*

Baxenabarren ezaugarri sail batek ez du Oztibarre ondoko mintzoetarik bereizten, ez da ibarrean berrikuntzen sail sendo bat garatu, ondoko auzo baxenabartarretarik ez dira nabarmen bereizten, horregatik, Garazi eta Arberoakoa bezala, oztibartarren *eskuara* arras hurbil da Nafarroa Behereko mintzo nuklearrari, ez du bereizgarri esklusiborik. Mintzoaren aldetik oztibartarrek ez dute beren burua erakusterat eman, bereizgarri handirik gabeko mintzoa darabilte, historikoki inguruarekiko komunikazio maila handia ehun dute.

Baxenabarreko erdigunean kokaturik, trantsizioan gertatu da inoiz, ipar eta hegoko aldaeren arteko desberdintasuna gauzaten den eremuan: anbiguotasunez jokatu du *ginakon / gindakon, zinakon / zindakon* etenarekiko; Baxenabarre iparreko era *-nd*-dunak eta hegoko era *-n*-dunak biak batera baliatzen dituzte oztibartarrek. Berebat, lehen pertsona datiboko morfeman ere bitasuna aurkezten digute: hegoalderago nagusitzen den *da* eta iparreragoko *ta*, bi alomorfoak ageri zaizkigu Oztibarren. Baxenabarren ipar eta hego arteko trantsizioa dirudi egin duela Oztibartarrek, ipar eta hegoko jendeekin eskuz esku halako komunikazio maila ona gorde du, hizkuntza-bitartekaritza lana eginez; konparazione:

- zuberotarrek gaztainaren morkotsa *mardots* deitzen dute eta amiküztarrek, berriz, *garbots & garbuts*; guk Sorhapürün *gargots* entzun dugu; oztibartarrek batzuekin eta besteekin egokitze konpromisoko *gardots* berrikuntza sortu dute (Lan, Jut, Larz)
- *oilanda* orokorra dugu Landibarren eta *ollanda* Jutsi eta Larzabalen, baina Amiküzen bezala, *pullarda* mailegua dago Jutsin eta *pulara* Larzabalen
- Baxenabarren ohikoa den *ortzegun* dugu Oztibarren (Lan, Jut, Larz, Ibarro), baina baita *ostegun* (Lan) eta *osteun* (Larz) ere; berebat, *ortzirale* (Lan) & *ortziale* (Jut) ditugu, baina baita *ostiale* (Larz) ere
- Ipar Euskal Herriko ipar zabalean legez *pazko* ageri da Landibarre-Larzabaleetan, baina pagolarren eta xiberotarren gisa, jutsiarrek *bazko* diote; berebat, *bestaberri* ibiltzen dute jutsiar, pagolar eta zuberotarrek, baina iparrerago bezala, Larzabale eta Landibarren *p(h)estaberri* ibiltzen da eta *phesta* darabil Jutsiko lekuko batek (Videgain 1989: 1164)

Garaziko *eskuarari* ageri da lotuen Oztibarrekoa, lekukoek berek eta hizkuntzalariak dakusate hori eta balirudike soilik hiztegiaren alderdiko ñabar-

durak direla Oztibarre vs. Garaziko ekialdea bereiztea ahalbidetzen dutenak, baina guretzat berrikuntzen salbuespenak garrantzizkoak dira, errate batera aditzetako *-ki* atzizkirik eza: Amiküze, Zuberoa, Erronkari edo Zaraitzu bezala, berrikuntza honetarik landa kokatzen da Oztibarre, hain zuzen ere Aezkoa edo Garazi ez bezala. Gramatikaren aldetik Garazik baduen berrikuntza hau falta du, ez da Oztibarren *-ki* aditz atzizkirik, baina Nafarroa Garaian eta Lapurdin bai: Epeldek are bardoztar batengandik *izaiki* bildu du (2003: 129); eta Baigorri eta Garazin ere ageri da.⁴⁷ Azken buruan, Baigorrialdea eta Garazi lotuago egon dira ezaugarri hau baduen Nafarroa Garaia. Tasun berri honen hedadurari Oztibarre immuneago egon da: Baxenabarreko saihetsean delako, menturaz? Ezaugarri hori ez duten ondoko Amiküze eta Zuberoari atxikirik egon delako eta horiekiko hizkuntza hartu-emanak eragin duelako oztibartarrak *-ki* berri horretaz ez jabetzea? Ez da aise arrazoi sendoak ematea, izan ere oztibartarrek Donibane-Garazira ere jo ohi dute, astelehenean egin ohi den merkatu garrantzitsura, baina baita Donapaleura ere, eta hainbatek Donapaleura gehiago Donibanera baino.

Berrikuntza batzuek hedadura bat eta beste batzuek beste bat ukaitea zerk eragin duen jakitea sekula ez da aise: *izan*-en Nor adizkietan *nd* edo *nt* izatea —*ginden & ginten* ‘ginen’, *zinden & zinten* ‘zinen’— berrikuntza analogikoa da eta Baigorri salbu, Baxenabarre gehienez bezala Oztibarre eta Amiküzen ageri da, baina Xiberoan ez; adizki itxuraz berri hauekiko Oztibarre ez da immune izan, Baxenabarreko ekialde guztiak berrikuntza hau darabil. Anitz ezaugarri berriren abiaguneaz eta garaiaz ez dakigu gauza handirik.

Beste ezaugarri batzuek erakusten digutenez, Oztibarren ekialdeko ezaugarri zahar batzuk gorde dira, baina Lapurdi eta Baxenabarre gehienez berrizaturik daude: *eraman* —*eamaiten dut* (Izu), *eramain* (Jut); baina baita *ereman* (Jut) & *eeman* (Arh, Larz, Ibarro) & *eamaitia* (Jut) ere—, *heben* (Arh, Izu, Jut, Ibarro) —baita *hemen* (Izu, Jut) ere; XVI. mendean *heben* zerabilen Etxeparek Garazin eta orain ere *heben* dakar EHHA-k Gamarten—, *hoge* (Larz, Ibarro) —nahiz *ogoi & hooi* ere ibiltzen diren (Larz)—; Amiküze, Oztibarre eta Landibarren salbu, Baxenabarren *hogo* berrikuntza ibiltzen da.

47 Egoeraren, gertakariaren edo ekintzaren hanpadura adierazten duen aditz nagusiko *-ki* atzizkia ez da Oztibarren baliatzen, ezta diosala gisa edo balio puntukarian ere, ibar honek ez du berrikuntza bildu: cf. Ezterenzubiko *soldadoak hor ibilki* (EHHA) edo Luzaiden ere entzuten diren *ibilki*, *izanki*, *jakinki*, *jinki*... Baigorri eskualdean ere badira adibideak, Barandiaranek Urepelen bildu hau lekuko: *iratzartu zenean, erloirik ez izaki etxean eta, ustez argia urbil zen, abiatu zen joan beharra zen etxera buruz* (1982-3: 22). Urdazubi eta Zugarramurdi balio puntukaria du eta baita hanpatzailea ere, Lapurdiko Saran bezala. Baztanen ez da puntukaria, baina diosalean baliatzen da eta baita era hanpatzailean ere (Montoya 2004: 176-7). Ibarrolan eta Donaixtin dioskutenez *ibilki*, *izanki*, *jakinki* erakorik ez dute ibiltzen eta Videgainen 1989ko corpus luzean ere ez dugu ezaugarri honen alerik ere aurkitu.

Oztibarrerren kokaguneak behartu beharko gintuzke haren alderdi lexikoa ardatz bat baino gehiagoren arabera aztertzea: Baigorri-Ortzaize eskualdea ez du hurbil, baina Baxenabarre erdialdeko Irisarri, Heleta edo Armendaritze herriak, goitixeagoko Amiküze eskualdea eta Garazi nahiz Xiberoa hurran ditu Oztibarrek, horregatik hitzak eta hauen aldaera fonikoak ikertzean eskualde horietako guztietako emaitza ere aintzat hartu beharko litzateke, ezina baita bestela Oztibarreko alderdi lexikoa sendo aztertzea. Ondoko ibarretarik Oztibarre lexikoki bereiztea ez da aise, ez du berezko tasunik, inguratzen duten ibarrekiko lotura geolinguistiko hertsia ageri du, komunikazio maila sakona erakusten du ondoko eskualdeekin, auzoei hertsiki estekaturik dago. Hitz eta aldaeretan forma hedatuak darabiltza, saihetsetako Amiküze, Zuberoa edo Erronkarik frankotan ez bezala.

Aldera dezagun Amiküzeko mintzoarekin etsenplu batzuen erakusteko:

Oztibarre	Amiküze
<i>basurde</i> ⁴⁷	<i>basaurde</i>
<i>eguerdi</i>	<i>egordi, egurdi & egürdi</i>
<i>gorringo</i>	<i>korringo</i>
<i>hurran</i> ‘hurbil’	<i>hurren & hürren</i>
<i>ikhazkin</i>	<i>ikhatzile</i>
<i>leizafin & lezafin</i>	<i>leizamin & lezamin</i>
<i>mertxika</i>	<i>mixtika</i>
<i>oihan</i>	<i>oihen</i>
<i>otsolahar</i>	<i>otsonahar</i>
<i>perrexila</i>	<i>pexil(a)</i>
<i>urtxintx</i>	<i>burxintxa & burtxuntxa</i>

Lexikoaren arloan diharduenak itxuraz eremu aleatorioan dabilen sentiera du, izan ere, zail da batzuetan sistematikoak diren ondorioak ateratzea; etsenplu batek argi erakutsiko du zer adierazi nahi dugun. Teorian *oren* lehenago dago

48 Hori dakar *EHHA* atlasak Jutsin, baina guk *basaurde* lekia bildu dugu herri honetan; aldiz, Ibarro-lan *basurde* entzun diegu hitzunei eta Zuberoako Pagolan ere bai.

denboran edo logikan *oron* asimilatua baino; Lapurdi eta Zuberoan nagusi da *oren*; aldiz, Zaraitzun dago *oron*, Nafarroa Garaiko Pirinioen ondoan. Baxenabarren ere hedadura du *oron*-ek, baina aldaera honek Baxenabarren duen kokagunea zehazterakoan ez da erabateko emaitzarik ateratzen.⁴⁹ Oro har uler liteke *oren*-en kokagunea Baxenabarreko mendebala dela eta *oron*-ena Baxenabarreko ekialdea, baina sobera salbuespenek uzten digute hankamotz ikuspegi orokor hau; oroit, gainera, Zuberoan nagusi dela *oren* aldaera zaharragoa.

6.5. Zuberera euskalkia

dantzaria da xiberotarra; ordian, zangoak arin eta büria berdin (Laph)

Badago Zuberoako euskara salatzen duen hizkuntza-tasunen multzo bat, zubereraren ezaugarri eskusiboek nahiz semiesklusiboek osatzen dute eta herrialde guztian edo gehienez gaindi entzuten dira. Batzuk estereotipaturik egon ohi dira: azentuera eta doinu kantari berezi hori nahiz seigarren bokal *ü* tasun markatzaileak dira ondoko ibarretako hiztunentzat. Egiazki, Zuberoako ezaugarri batzuk semi-esklusiboak dira: Zuberoa guztian eta Amiküzeko hainbat alderditan ageri dira, bereziki Zuberoako mugaren ondoan kokaturik dauden Amiküzeko herrietan baliatzen dira, ez dira Donapaleuko kantonamenduko eskualdearen hegoaldean edo mendebalean ageri. Amiküzeko mintzoa aurkeztean, Zuberoakoak ere badiren bereizgarri gehiago agertuko zaizkigu.

6.5.1. Zubereraren berrikuntzak

6.5.1.1. Itxuraz gaskoitik mailegaturik, euskal hitzetan *ü* fonema dago Zuberoan, Amiküzén eta Bardozen; berriki herri honetako *ü* aztertu du Encinarrék (2008). Fonema agertzeko baldintzak ez dira eskualde guztietan berdinak; errate batera, Zuberoan *üik* sekuentzia egiten da, baina Amiküzén *uk* dago, ez da palatalizatzen. Peillenek dakarrenez (1992: 252), badirudi XIV. menderako Zuberoan bazela *u*-ren palatalizazio hau. Fonemaren sorrera dela eta, Miren

49 Atlasak oro har mendebalean dakar *oren*: Aldude, Arnegi, Baigorri, Bastida, Bidarra, Irisarri, Izurtitze eta Uhartén, baina ekialdean ere ageri da: Garrüze, Jutsi eta Ezterenzubin. Amiküze eta ondoko eskualdeetan guk bildu datuetan aski sartzen da ekialdera *oren*: Mehaine, Oragarre, Amotzte, Bithiriña, Arrüeta, Labetze, Arboti eta Xiberoako ipar-mendebaleko Olhaibin agertu zaigu. Beste aldaerak ere hedadura handia du: atlasak *oon* Izurtitzen, Armendaritzen, Landibarren, Garmarten eta Behorlegin dakar eta laburrago den *on*, berriz, Arrüetan, Arbotin eta Jutsin. Guk bildu datuetan, Arberoako Armendaritze eta Amiküzeko Bithiriña, Arrüeta eta Zohota herriak *oon*-en erabiltzaile dira, eta Xiberoara ere sartzen da: Sarrikotapea, Ainharbe, Pagola eta Urdiñarbera. Aldiz, atlasak *oen* dakar Altzai eta Eskiulan. Guk bildu datuetan, aldaera laburrena den *on*, Amiküzeko Amotzte, Bithiriña, Labetze eta Gamuen ibiltzen da eta ipar-mendebaleko Zuberoan, berriz, Olhaibi, Sarrikotapea eta Pagolan.

Lourdes Oñederrak diptongazioaren azalpena eman du: $u > uw > iw > ü$ (2009). Ander Egurtzegik maileguzko bilakaera onesten du, baina diptongorik gabeko sorrera aldezen duela diosku (a. k.).

6.5.1.2. Kontsonante sudurkaria ondoan duen *o* bokala hainbat hitzetan *u* bilakatu da euskal mintzoetan, baina Zuberoan du gertakari honek indarririk gehien; bilakabide hau ezezaguna da Erronkarin. Peillenek XVIII. mendean kokatzen du $o > u$ bilakabidea nagusitzea (1992: 253).

6.5.1.3. Hitz bukaeran *-ú* sudurkaria eman dute maileguetako *-(i)on(e)* bukaera zaharrak eta *-on* bukaera berriagoak: *arrathú*, *arrazú*, *sasú*; baita *kamiú* ‘kamioia’, *lehú* ‘lehoia’, *xabú* ‘xaboia’ itxuraz berriagoak ere. Euskal hitzetan ere bada bukaera hori: *kharrū* ‘karroina’, *hazkū* ‘azkona’, hondarreko bokal sudurkarian azentua dutela.

6.5.1.4. Amiküzén bezala $i-u > ü-ü$ asimilazioa egiten da Zuberoan; Erronkarin, berriz, $u-u$. Peillenek dioenez, XIV. mendeko oikonimo idatzietan, *Ithurriague* (Bildozeke etxea), *Itturrialdea* (Arstue) & *Iturralte* (Montori-Berorize) edo *Itchurie* aldaera gordetzailak ageri dira (1992: 256). Hau izan liteke delako *terminus post quem*, baina gogoan izan behar da oikonimoak eta dokumentu idatziak gordetzailak izan daitezkeela; izan ere, litekeena da ordurako asimilazioa gertaturik egotea ere, zeren Zuhare herrian *Uthurria* eta *Uthurriague* oikonimoak ageri baitira; ez baldin bazituen XIV. mendeko dokumentuaren XVII. mendeko kopiatzailak aldatu, uler liteke XIV. menderako asimilazioa gertatzen ari zela.

6.5.1.5. Hainbat ingurunetan $au > ai$ palatalizazioa dago Zuberoan eta Erronkarin: *gaiza*, *gai*, *hait* ‘haut’..., baina *gaur*, *haur*, *hautse* ‘hautsi’, *aurthen* adibideek erakusten digute Zuberoan ez dela *au* oro aldatu. Adibide batzuetan $*eu > ei$ ere gertatu da: *ein* ‘ehun’ dago Erronkarin / Zuberoan *éhiin*; *eitzi* & *eitzu* ‘utzi’ Erronkariko Bidankozen, baina Izaban eta Uztarrozen *útzu* / Zuberoan *eitzi* & *ützi* dago eta Zaraitzun, berriz, itxura zaharragoko *eutzi*.

6.5.1.6. Zuberoan eta Erronkarin sortu dira *lt*, *nt*, *lk*, *nk* kontsonante talde beharbada berriak: *altha(r)e*, *althatü*, *althe*, *heltü* / *abentü*, *bo(r)onte*, *igante*, *lanthatzeko*, *oillanta* / *hunki*, *mahanka*, *zankho* / *ahalke*... Ohi bezala, Jacques Allièresek irautea zeritzon ahoskabe ahoskatzeari eta bearnesengandik eta manexengandik bereizi nahiarekin identifikatu zuen joera hau; ikus gaiaz Jean-Baptiste Coyos (1999: 75). Kontsonanteen *cluster* hau iraganeko egoeraren gordetzailak dela uste izan da, baina Mitxelenak bestelako ikuspegia dakar *FHV*-n (355); cf. Joseba A. Lakarra ere (2011: 205-6).

6.5.1.7. Aditzen hasieran ahoskera sabaiaurreko ahostuna dago Zuberoan $*j-n$:

[ʒ]akiten, [ʒ]ateko, [ʒ]erraikitzen, [ʒ]in, [ʒ]oiten, [ʒ]osten, [ʒ]uiten
(Ainh)

Hotsaren garapen diakronikoaz ikus Hualderen iritzia (2015).

6.5.1.8. Txistukari ahostunak garatu dira bokal artean Ipar Euskal Herriko ekialdean; ugariago dira igurzakariak afrikatuak baino. Hona Zuberoako berri:

bede[z]i ‘sendagilea’, *u*[z]u ‘usu’, *ai*[z]a ‘aise’, *fri*[ʒ]itu ‘frijitu’; afrikatuak dira *e*[dʒ]amína ‘azterketa’ eta *e*[dʒ]énplü ‘adibidea’

Coyosek afrikatu sabaiaurreko ahostunak aipatu ditu (1999: 63):

jäd[ʒ]á ‘irainja, laranja’, *läd*[ʒ]éa ‘lanjera, arriskua’, *ēd*[ʒ]óγi ‘enjogi, joera duena’

6.5.1.9. Zuberoan hitz hasierako bokalaren aitzinean ageri den hitz bukaerako txistukari igurzkaria ahostundu daiteke:

eskü[z] ai / *eskü*[z] eta (Olh)

ardi[z] edo / *e*[z] ootaik e / *gük* *e*[z] *ikhu*[z]iko (Sarkp)

etxe[z] *etxe* / *Ahüzkia büü*[z] eta (Ainh)

hanitxe[z] e (Pag)

üskaa[z] ai / *besteñe*[z] edo (Urd)

Ordea, 7.3.1.4.3.3. §-n ikusiko dugu berrikuntza hau ez duela Zuberoak bere-berea, amiküztarrek ere egiten dute ahostuntze berezi hau.

6.5.1.10. Zuberoako euskaran bokal arteko *-r-* fonema XIX. mendean galdu zen, sistematikoki galdu ere; estrukturalki, ondotik gertatu dateke dardarkaria soildu izana eta honela, Etxarrin bildu ditugun *eran* ‘erran’, *haurik* ‘haurrik’, *hería* ‘herria’ erako emaitzak sortu dira.

6.5.1.11. Hitz arruntetan Zuberoa-Erronkarietan azentu nagusia hitzaren azken-aurreko silaban doa flexiorik gabeko formetan. Mugatu pluralean bi mintzoetan kolumnala da, azken silaban kokatzen da: *mithilék*, *mithiléz*, *mithilér* dugu Zuberoan eta *gizonék*, *morroién* Erronkarin. Mugatu singularrean ez doaz bi mintzoak batera; Erronkarin mugatu singularra kolumnala da: *mítula* edo *sémeak*, *sémeari*, *sémearen*, *sémeareki*; Zuberoan azentua silaba bat aitzinatzen da mugagabetik joko mugatura: *míthil*, baina mugatu singularrean *míthíla*; *étxe*, baina *etxía*; *lékhü*, baina *lekhía*... Bestalde, berezko *-a* duten hitzetan, mugagabeko hitza eta mugatu singularrekoa berdin bereizten dira bi ibarrotan: determinatu gabea *arrólla* edo *néska* da eta mugatu singularra *arrollá* edo *neská*, bukaeran du azentua.

6.5.1.12. Zuberoan *hurak* & *huak* & *huk* eta Zaraitzu-Erronkarietan *kurak* erakusle analogiko berriak ditugu:

bená onduak, orro aitzürrez, eta ník huk in tit etxekuekin (Pag)

6.5.1.13. Hirugarren mailako *hurak*-en antzera sortu dateke Zuberoako *hoiak* erakuslea ere (Oihartzabal 1991: 347). Ohiz absolutiboa da *hoiak*:

hoyak dutuciela jaunak polarda eta olascoua by plat hoyen artin ereryk beytira (Charlemagne pastorala, in Oihartzabal 1991: 354)

Belapeireren lanean eta 1706ko Oloroeko katiximan *horik* absolutiboa da eta *horiek* ergatiboa, eta honen arabera *hoiak* Zuberoako XVIII. mendeko berrikuntza dela uler liteke, baina honela ez baldin bada, pentsatu beharko dugu Leizarragak orduko laguntzaile zuberotarren eraginez zerabilela *horiac*.⁵⁰

6.5.1.14. Hiketako iraganeko adizkiek *-n* falta dute Zuberoan eta Erronkarin; Sohütan, errate batera, *nündia* eta *nündiña* baliatzen dira maskulino eta femeninoan. Erronkariko Uztarrozen bi generoetarako *nundia* eta *gundia* bildu zituen lehen pertsona singular eta pluralean XX. mendearen bukaeran Artolak, *-n*-rik gabe. Halaz ere, Zuberoako herri batzuetan inoiz bada *-n* hori; errate batera, Muskildin *nündian* & *nündia* edo *güntian* & *güntia* baliatzen dira maskulinoan; aldiz, Garindainen *-n*-dunak dakartza Irizarrek iraganeko hiketako adizki guztiak (2002b): *nündian, güntian, nioan, ginoan...* (guztiak maskulinoak). Guk bietarik entzun dizkiogu hiztun urdiñarbetar bati, adizki *-n*-dunak eta gabeak.

6.5.1.15. Datiboko lehen pertsona singularraren morfema adizkian errepi-katzeko aukera dago Zuberoan: *eta alhabák erran títadan “züik xantzä dükezü”* (Pag), non *-ta-* eta *-da-* lehen pertsonari dagozkion morfemak baitira; hurrenaren adibidean, *-ta-* eta *-t* dira: *üdüü zitazüt* ‘iduritzen zait’ (Ainh), Nor Nori sailean; Nor Nori Nork sailekoa da *tormentüz min egin ditaziet* ‘didate’ (Elixagarai 1986: 119). Erronkarikoak dira *zaitad* ‘zait’ eta *zitzaitadan* ‘zitzaidan’, baina lehen pertsonaren datibo pluralean ere gertatzen da: *zitzaikugula* ‘zitzaugula’. Nor Nori Nork-en: *zaitadan* ‘zidan’ dugu lehen pertsona singularrean, baina pluralean *daikugei* ‘digute’, Bonaparteren garaian *daikugei* zena.

Jarraian berrikuntza ez hain sistematikoen zerrenda bat dakargu:

50 Aditza pluraleko lehen pertsonakoa izanik, *anaye areba hoyak / nahi gutuçu qhirititu* dakar Charlemagne-ren bertsio batek (245); *hoyak* eta *gutuçu* erreferentziakide direla ulertu behar da. XVIII. mendekoak dira honako beste adibideok; Ressegue (1758): *ikhoussiric statuts edo manu hoïac* (39); beste hauek 1780ko edizioari dagozkio: *oraïco hoyac deusic baliotaco içan ditian* (8); *instrui deçan bere populia offritcen edo emayten derogun graciez, hoyac esplica ditçaten* (17); *hoyac youanen dira hen visitçera* (42). Ez dirudi Baxenabarreko idazkietan aldaera hau ageri denik.

6.5.1.16. Zuberoan *-e* & *-i* > *-ü* berranalisisa gertatu da; fenomenoak hitz batzuetara mugatzen da, ez du gramatikaren guztizko hedadurarik erdietsi, ez zen bestela *-e* edo *-i*-z bukatutako hitzik geldituko ekialdean. Amiküzen eta Arberoan ere badira gertakariaren ondorioak; Erronkariko berri ere emanen dugu. Belapeireren garaian *kolpe* hitzaren berranalisisa gertaturik zegoen: *kolpi* dakar 1696an (II, 50), baina Oloroeko 1706ko katiximan *barruky* (30) eta *esku-khaldi bat* (83) ditugu oraino, berranalizatu gabetik; aldiz, 1839ko *Sainta Catherina* pastoralak *illinti caldu* (584) dakar, besteen 'ukaldi'. Belapeirek *barrüki* (I, 32) eta *eskü-khaldi* (I, 65) dakartza.

Egun Zuberoan *atherbü* baliatzen da, berranalizaturik eta *üñhürri* nahiz *üñhürri* ibiltzen dira. Bada *drolü* adibidea ere, baina Larrasketek *drole* dakar (1939); Allande Sokarros idazleak *arrabotü* baliatzen du (Davant 2009: 187). Bada *hazkürrü* & *hazkürrü* ere Zuberoako literaturan; Larrasketek *hazkürrü* dakar eta hitz guti erabilia dela dio. Berebat, guk Ainharden *dole iten* "dolu egiten" bildu dugu, hiperzuzenketa jasanik, Zuberoan *dolü* egin erraten dena; Larrasketek *dolütü* dakar. Amiküzen *dolu in* entzun dugu Uhartehirin. Eta Olhaibin *khoste* 'gorostia' bildu dugu ere. Halaz ere, Zuberoan (*h*)*axe(r)i* baliatzen da, aldaketa jasan gabe, baina Amiküzeko Ilharren bildu dugun *azerü* & *axerü* aldaerak —Arbotin *axerüka* 'azeri bila' dago— garden erakusten du adibide horretan berranalisisa gertatu dela.

Zuberoan, *üzkü* eta *zübü* aldaerak dakartzate hala Larrasketek nola *EAEL*-k, eta adibide hauetan, berranalisiaren ideia jartzeko beharrik gabe, iduri luke *üzkü* eta *zübü* hitzetan ezkerretik eskuinera asimilazioa gertatu dela. Hitzaren erdian *ü* du *barrükü* hitzak ere: Amiküzeko Ilharren, Zuberoa ipar-mendebaleko Olhaibin eta Urdirarben bildu dugu. Amiküzeko Oragarren bezala, Arberoako Mehainen ere *barruku* berrikuntza baliatzen da, baina, aldiz, *azeri* dute hitza Mehainen, ez dute ***azeru* aldaerarik sortu; aldiz, *argizaitia* hitz jokaturik, *argizaitu berria*, *argizaitu bethia* edo *argizaitu xuria* gertatu da Mehainen;⁵¹ honek iradokiko luke Mehaineko *barruku* hitzean ere berranalisisa dagoela eta ez asimilazioa. Ez dakigu Erronkariko Mendigatzaren *axuru*, *eguzku*, *guzu*, *margu* 'masusta', *uzku* aldaerak berranalisi mota honen emaitza diren: adibide gehienetan asimilazioaren eraginez izan litekeen *u* bat dago aitzinean.

6.5.1.17. Hitz guti batzuetan Zuberoan *r* → *ll* bustidura adierazgarria gertatu da: *bello*, *ello*, *holli*, *hüllan* & *hüllen* 'hurran'; ondoko ibarretan ere bada: Erronkarin *alliko* 'harilkoa' edo *bella* & *bellatu* 'beraztu' adibideak ditugu; Zaraitzuko Espartzan ere *belló* zegoen (Artola 2005: 230).

51 Armendaritzen 'ilargi betea' edo 'ilargi aldaketa' adieran bildu dugu *argizaitu*, baina Mehainen ilargiaren adieran eman digute.

6.5.1.18. Zenbait mailegu erromanikotan bustidura dago Zuberoan: *atxeidü* ‘altzairua’, *khüütxe* ‘gurutzea’, *zerbütxü* ‘zerbitzua’, *zethatxü* ‘bahe ez fina’; hauetarik batzuk, Amiküzen, Erronkarin — *akabantxa*, *atxeiru*, *krutxe*, *zerbutxatu*, *zetatxo*— edo Zaraitzun ere badaude.

6.5.1.19. Zuberoan ageri dira, baina ez Erronkarin, morfologiako *goizan*, *arratsan*, *gañan* aldaerak; ohar jakingarriak eman ditu berriki Julen Manterolak honelako adizlagunen antzinatasunik ezaz, ez dira testu zaharretan ageri (2015: 257-9). Eta egitura berri hauei lokatiboaren atzizkia lotu zaie: *goizanko bedeatzü* *oenetan zabaltzen tützü* (Sarkp). Errate batera, *gañan* entzun dugu Amiküzen nahiz Xiberoan: (Ora, Lab, Arbo / Oih, Pag). Bada gero adizlagun gisa baliatzen den *gañan* ere, ‘bestela’ adiera duena, eskualdean agertu zaigu: (Ame, Zoha / Ber, Arüe, Pag).

6.5.1.20. Adizlagunetan *-xe* indargarriari *-k* erantsi zaio Zuberoan: *hebetxek* ‘hementxe’ (Sohüta-Hoki).

6.5.1.21. Aditz nagusi mailegatuen partizipioko aldaeretan era berriak baliatzen dira Zuberoan:⁵² *akabi zioa* (Elixagarai 1986: 81), *esprabi* ‘frogatu’ (161), *esteki nizie* (118), *nia erremarki* ‘ohartu ninduan’ (185), *desaloki* ‘dислоkatu’ (185).

Gertakaria ez da Amiküzen ezezaguna, baina Zuberoan baino anitzez ere aditz gutiagotan ageri da; cf. 7.3.3.2.2.2. §

6.5.1.22. Singularraren analogiaz **ezan*-en pluraleko adizkietan *e-* dago hala xedezko nola agintezko aldaeretan; errate batera, urdiñarbetar batengandik [3] *Jan etzak gaztañak* entzun dugu. XVIII. mendean *itz-* erakoak ditugu Zuberoan, baina Intxauspek XIX.ean *itz-* & *etz-* txandaketan dakartza. Lapurdin ere hau bera gertatu zen, baina idazkiak lehenagokoak dira herrialde horretan: Materrak *ditçagun* (48) & *ditçan* (265) dakartza XVII. mende hasieran, baina hamarkada baten ondotik Etxeberrri Ziburukoak *detçala* (314) & *etçac* (48).

6.5.1.23. Aditzen joko trinko batzuk galdu ondoko egoera berria dago ekialdean: *horra zira* ‘zatoz’, *jiten niz* ‘nator’, *joaiten zelarik* ‘zihoalarik’ erako adizki puntukari baina perifrastikoak baliatzen dira Zuberoan. Aldiz, egoera zaharra gorde izanaren erakusle ditugu *jaugin* aditzaren Zuberoako erak: *dagün igantian* (Elixagarai 1986: 114). Erronkarin *degun bedátserarèino* dakar Izabako kantu batek (Mixelena et alii 1953: 512). Azkuek Zaraitzun *aurten aurrak andi*, *dagun urtean lanak egin* esaera bildu zuen; cf. *Euskalerrriaren Yakintza* III, 1660. esaldia.

52 Analogia gaskoizko aditzei egotz dakieke, indikatiboko oraineko lehen pertsona singularreko *canti* ‘kantatzen dut’, *coneishi* ‘ezagutzen dut’, *sorteishi* ‘irteten naiz’ erakoei; cf. Padilla (2013: 328).

6.5.1.24. Euskal Herriko bazter ugaritan, ez ekialdean soilik, *-de* morfemak plural iragangaitz pleonastikoak eratzeko balio izan du; Zuberoa, Erronkari eta Zaraitzu ibarretan, XVIII-XIX. mendeetako testuetan ezaugarri hau ageri da eta iraun du gerora ere Zuberoan: *haurrak oro kürius beítirade* (Elixagarai 1986: 129).

6.5.1.25. Testu idatzietan *-(a)la* espletiboa ageri da *haur* + adizkia + *(a)la* aurkezpen formulatan; bearnesa baizik ezin izan daiteke iturria, kaskoinarekin hartu-emana duten Ipar Euskal Herriko Lapurdi eta Baxenabarre eskualdeetako testu ezagunetan bederen ageri ez denez.⁵³

6.5.2. Zubereraren hautuak

6.5.2.1. Osatzen duten aitzineko izenak inesiboa duela jokatu ohi dira *gañen* eta *barnen* postposizioak Zuberoan. Oloroeko katiximakoa da *tahailla eskietan gaignen etchekiten dugula* (1706: 103); 1734ko otoitzekoa, berriz, *khu-rutche batetan gaignen hil içan beita* (20). Eskiulako idazkian dugu beste bat: *çortzi-egunetan barnen, aïtcineco cargudunec, emanen dutie berrier, hartien eta igorrien kontiac* (1758: 29). *Charlemagne* pastoralak dakar *denbora aphuretan barnen jçanen jz galduriq* adibidea (279). Ematen du gerora genitiborat jo duela. Honela dio Intxauspek: *lurraren gañen aurkhitzen dena deitzen da gatz harria* (1857: 112); *berroquei egunen barnen* (5). Baina Intxausperena da *ezari zian bere esku eskuña nitan gañen* (Apok, 8), inesiboa duena eta halakoak dirudite *itcháson gañen* eta *houren gañen* adibideek ere (SM, XIV, 26 & 29). Pikoxet barkoxtarrak *olan barnen* dakar 1928an (Coyos 2013: 56). Madeleine Jauregi-berrik *etxe barnen* (158) eta *mandoren gaiñian* (161) dakartza XX. mendean. Guhaurek Arüen *errekolietan gañen* ‘uztak direla eta, uzten kontura’ adibidea entzun dugu, inesiboa duena, baina baita edute-genitiboa duen *ez emazten ez gizunen gañen* etsenplua ere, hots, ‘ez gizonak edo emazteak direla eta’.

6.5.2.2. Ekialdeko mintzoetan, partitiboko atzizkia dutelarik joka daitezke polaritate negatiborik gabeko sintagmak: *Jinkuak egiün hunik hanitx deiziila* dakar Etxahunek (Haritschelhar 1970: 280). Zaraitzuko Espartzan bildu genituen hauek 1982an: *oroan [orduan] beltx eder nu(e)n bai, onen gisa, onen gisa beltzik nuen biloa / aurten negua egin du, egin dixu anitz, anitz onik*.

6.5.2.3. Datiboa duten adizkietan pluralgilea *z* edo *tz* da Zuberoan: *ordian treinetako bi empletatiü hüllantü ziztada* ‘zitzaizkidan’ (Elixagarai 1986: 187); *galthoak eginen ditzot* ‘dizkiot’ (59).

53 Manuel Padilla ikertzaileak eman du ezaugarri honen berri Gasteizko Letren Fakultatean (2016/II/18).

6.5.2.4. Aditzaren bidez modua adieraztean, Zuberoan instrumentala ez zaio partizipioari atxikitzen, aditz-izenari baizik: *amaekilan eta amaen ahizpa batekilan* [3] *juiten üthürrila, bide buzi bat beitzen, tripaen xähätzea eta erraitez süia etxeke lezen artin* (Urd). Iraganeko Lapurdiko eta Nafarroa Garaiko idazki zaharretan ere honela ziren kontuak: *honrratu, eta ceruizatu baytuçu egun Meza ençuteas, eta oficioac ençuteas* (Beriaín 1621: 113r). Lapurdin Materrak *ceure odolpreciatuaren saihetsetic issurteaz dakar* (1623: 208).

6.5.2.5. Konparazio perpausetan *bezainbeste* & *bezanbat* baliatzen dira Zuberoan eta Amiküzen; Baxenabarren *bezanbat* ibiltzen da, Aezkoan bezala; Zaraitzun *bezainbat* & *bezamat* bildu dira eta Erronkarin *bikainbat* & *bekeinbat*.

6.5.3. Zubereraren ezaugarri zaharrak

Euskal Herriko gainerateko eskualdeetan oro har galdurik edo galbidean dauden franko hizkuntza-ezaugarrik iraun dute ekialdean, Zuberoan eta ondoko ibarretan. Agertuko zaizkigu, bai, ezaugarriok hainbat euskal eskualdetako testu zaharretan, eta egun ere Euskal Herriko bazter zenbaitetan entzun ditzakegu. Ez bedi uler gure hitzetarik Zuberoa ondoko eskualdeetan, eman dezagun, Baxenabarre ekialdean edo Amiküzen, tasun hauek entzun ez ditzakegunik, baina guztiak batean eta halako indar edo iraunkortasunaz, Zuberoan baizik ez.

6.5.3.1. Bokal sudurkariak Zuberoan ditugu egun; cf. 7.3.1.3.3. §, non Amiküzeko berri ere baitakargu. Larrasketek hiztegian Zuberoako emaitzak eskaintzen ditu; hona sorta bat (1939): *ardū, āhāte, īhārdetsi, īhārrausi, īhītz...* José Ignacio Hualdek argitu zuen bokal sudurkarien bitarteko *h* kontsonantea ere sudurkari dela Zuberoan (1993). Peillenek dioenez Pettarran ozenki ahoskatzen dira bokalok (1992: 254) eta Coyosek, berriz, Arbailako bokal sudurkarien eta ez sudurkarien pare minimo bakan batzuk dakartza (1999: 64).

FHV lan ezagunean Zuberoako bokal sudurkariak ezegonkortzat jo zituen Mitxelenak, galbidean doan ezaugarri arkaikotzat (1977: 48). Ezegonkortasun hori zehazki zertan den ulertu nahirik, batek pentsa lezake aldakortasuna beharbada hiltunetik hiltunera dagoela bokal sudurkarien erabileran, edo aldakortasuna Zuberoaren barreneko geografiaren araberakoa dela. Adibidetzat urdiñarbetar bati 2009an entzuna hartuz gero, Mitxelenak bokal “arkaiko” hauen ezegonkortasunaz dioena hobeki uler liteke (48), bai bederen Barkoxe, Ospitalepea eta Eskiulan bi belaunaldi eta erdi lehenago Larrasketek 1939an bildu datuekin alderatuz gero, hiru herri horietan eta Urdiñarbeko lekuko batengandik guk entzundakoaren artean ez baitago guztizko berdintasunik.

Errate batera, Larrasketen 1939ko lanean bildu hitzetan hurrenena bokal sudurkariak dira:

âhârdi, âhâte, âhâtz, âhîzpa, ardû, bêhîn, gîhâû, hâmâr, hân, hândi, hébên, îhârdets, îhârrâus, îhâû, îhîtz, îhû ê, lêhên, mâhâñ, mâhâts, mêhê, mîhîse, nâhâs, nâhî, ûhûe, xâhâ, xêhê...

Aldiz, 1939ko lan horretan bederen beste hitz hauen bokaletan ez dakar Larrasketek sudurkaritasun ikurrik:

behá, béhar, behatz, behéz, béhi, bíhi, bihotz, bóhor ‘behorra’, *ého, khámbára* ‘gela’, *léher, ohártze, óhe, xáhar & záhar...*

Urdiñarbeko hitzun bati entzun dizkiogun hitz bokal sudurkaridunak, Larrasketek Barkoxe, Ospitalepea eta Eskiulako hitzetan 1939ko hiztegian dakartzanak berak dira:

âhîzpa, bêhîn, hân, hândi, hêben, îhîztatzen ‘ihinztatzen, ureztatzen’, *khânbean, lêhênik, hâmar, mañhietan* ‘bainuetan’, *mîhîsik* ‘mihiseak, maindireak’, *nâhî, sa[ʒ]û* ‘sasoina’, *xâhâtzea, zihâun* ‘zuhaure, zeure’ ...

Urdiñarbeko hitzun adinetako horri entzun dizkiogun hitz bokal sudurkaridunak dira hurrenaren hauek ere, baina Larrasketek bokal sudurkaririk gabe dakartza eleok 1939ko hiztegian; parentesi artean dator hiztegiko haren emaitza:

âhâl (áhal), *behârrik* (béhar), *ehâitea* ‘hiltzera’ (eháite), *ohâpin* ‘ohapean’ (ohápe), *oihâlen* (óyhal), *segazahîa* (záhi), *zâhâr* (záhar)

Ozen ondotik ere bokal sudurkaria entzuten dugu Urdiñarbeko lekukoarengandik: *alhábák* (alhába), *errhâtzaekilan*.

6.5.3.2. Hitz batzuetan *-rz-* & *-rs-* kontsonante taldeek afrikatu gabe diraute Zuberoa-Erronkarietan.

6.5.3.3. Polaritate negatiboa duten izenordain zehaztugabe zaharretan Zuberoan *îhûr, îhüntik, îhûrat* erakoak ditugu; aldiz, Erronkari ibarrean Azkuek *eûr* eta *eunr* ‘inor’ bildu zituen Uztarrozen; Bidankozen, berriz, *ñor* aldaera ageri da.

6.5.3.4. Euskal Herriko ekialdean izen sintagmak mugatzailerik gabe jokatzea gauza arrunta da. Arbailan *ógia badít* eta *ógi badít* ederki bereizten dira, *har ezazü ogia* zehaztua eta *har ezazü ogi* zehazgabea bezala (Coyos 1999: 117, 119). Galdetzean generikoa da *ógi badéa?* (204). Interes berezia du Manterolak gai honetaz egin ikerlanak (2012) eta aipagarri da Ekaitz Santaziliarena ere (2010).

6.5.3.5. Instrumentalean *-(t)zaz* gorde da mugagabe eta pluraletan Zuberoako Basabürüan, Arbailan eta Pettarreko bazter batzuetan.

6.5.3.6. Erronkari, Zaraitzu edo Aezkoan bezala, destinatiborako edute genitibo hutsa baliatzeko aukera dago Zuberoan: *mithilak etzila deu[ʒ] egiten, etzia nahi a[ʒ]juantzaiak pakhatü haen* ‘harentzat’ (Urd).

6.5.3.7. Inesibo zaharreko adibideak gorde dira ekialdean: *gio ku[ʒ]ia beitiüt hor gañen* (Olh); *etxen iikhen tü haurrak* (Ainh). Erronkariko Uztarrozen *arratsen* bildu zuten Mitxelenak eta bestek (1953: 530). Inesibo zahar hori duen egiturari genitibo lokatiboa lotzen zaio: *etxenko egürra* bildu dugu Ainhoben; cf. *behin nurbaitek etxenkoen berri galthatiirik* (Elixagarai 1986: 190). Literatura zaharrean egitura berriagoan, mugatzailea duela, *barruangoak* dugu Euskal Herriko mendebalean; cf. *Bengoa* bezalakoetz Manterolaren ikuspegia (2015: 220-1).

6.5.3.8. Mendebalean bezala ekialdean ere irau du ablatiboko *-rik* atzizkiak. Leku izen berezietarako *-(r)ik* eta arruntetarako *-ti(k)* bereiztea, Zuberoan, Erronkarin eta Zaraitzun egin da. Erronkariko Uztarrozen *xuan dun étserik* dakar Izagirrek (1959: 297).

6.5.3.9. Ablatiboko atzizkiaren *-ti* era zaharra gorde da Zuberoan, baina Nafarroa Garaiko hainbat ibarretan ere honelaxe da egun; iraganean Bizkai aldean ere arrunta zen *-ti* aldaera zaharra.

6.5.3.10. Zenbait hitzun xiberotarrek egiletza adierazteko kasu instrumentala baliatu ohi dute. Hona Sarrikotapean bildu dugun adibide bat: *ez solamente alemanez atzamanik izan behar*. Beharbada maiztasun bakanagoa izanik, badi-rudi mendebalera ere irau duela; Baxenabarren, Arberoako Armendaritzen honakoak bildu ditugu: *denetaz bazter utzia; aitaaz baztertia; haurride batez baztertia*; cf. Beñat Karrikaren liburuko adibidea (1990: 45): *denetaz debalde utzia*.

6.5.3.11. *alde* & *alte* hitzak osagarria eskuin darama Zuberoan.

6.5.3.12. Aditz batzuetan *e-* aurrizki zaharrari eutsi zaio Zuberoan: *ebili, egorri, egüriki & egürüki, ekusi*. Erronkarin ere honela dakartza Mendigatxak: *ekusi, ebilten*. Zaraitzukoak dira *ebli* ‘ibili’, *egorri* eta *ekusi* ere, baina Aezkoara helduz gero, *ibili, igorri, ikusi* erakoak ditugu.

6.5.3.13. Ekialdean partizipioan *-rr-i, -l-i* egitura duten aditz izenetan *-ten* zaharra egiten da —*ebilten, erortera, ezartez, igorten, ixurtera, jarten...*—, baina ezagunak dira Bizkai aldeko *etorten* edo *ekarten* aldaera zaharrak ere.

6.5.3.14. Aditz nagusi asertiboak partizipioko atzizkirik gabe balia daitezke Zuberoan, Amiküzen, Erronkarin edo Zaraitzun: *gük [ʒ]an gintiouk ogiaikin delakoz, ogia ezpadie maite, bena ordin de[ʒ]a zomaitek etzieia maite, ordin*

ni kuntent nündia erdia üzten balima zien, komitatin sar eta han [3]aten nian (Urd); hona Amiküzeko Arrüetako adibidea: *esküz bil eta esküz karga*.

6.5.3.15. Zuberoan eta ondoko eskualde batzuetan etorkizuna adierazteko *-(r)en* atzizkia ez da *-n-z* bukatzen diren aditz nagusietara mugatzen: Peillenek Basabürüan honakoak bildu zituen (1985): *ibiliko, phiztüko / erreren, ikhusiren, nahasiren, orhitüren, sendotüren*. Zaraitzuko Jaurrietan *xóren* 'joko', *erósien* 'erosiko' eta *berótren* 'berotuko' bildu genituen 1995.ean.

6.5.3.16. Iraganeko Nor Nori sailean *izan* aditzean ez da *-za-* erroa ageri Zuberoan: *zeitán* 'zitzaidan', *zeion* 'zitzaion', *zeikiün* 'zitzaigun', *zeiziün* 'zitzaizun'.

6.5.3.17. Etorkizuna adierazteko *-te* morfema arras baliatua da aditzetan Zuberoan: *bihar, beharbada, aphilago hizate* (Elixagarai 1986: 174).

6.5.3.18. Zuberoako euskara mintzatuan galdurik egon zitekeen XIX. menderako *ailitz, aileza, ainintz* erako botiboa, Xahok, Intxauspek, Gèzek edo Bonapartek zubererakotzat aurkezten bazuten ere; alta, Albert Constantinek (1873-1957) badarabil: *aitzinte helt, beste hainbeste honki egitera* (Davant 2009: 81); *ailekigü balia* (85); Philippe Etxegorriren arabera, Biarnoko Jeruntzen bada adibide ihartu zenbait: *ailedi jin!* (2003: 270); cf. honetaz Beñat Oihartzabal (1997: 56).

6.5.3.19. Iraganeko balioa izan dezake *l-* aditz-aurrizkiak: *EHHA* bilduman **ezan*-en iraganeko "hark haiek", *zitzan* da Baxenabarre guztian, Pagolan eta Domintxainen, baina *litzan* ageri da Zuberoan.

6.5.3.20. Erronkarin eta Zaraitzun bezala, Zuberoan pluraleko hirugarren pertsonaren Nork morfema *-e* da, Euskal Herriko mendebal-erdiguneetan hedadura zabala duena; Baxenabarren *-te* aldaera dago.

6.5.3.21. *Jakin* aditzaren pluralgilea *tza* da Zuberoan *dakitza* bezalakoetan, baina *dazki* eratzen da Baxenabarren; Intxauspek *dakitzat, dákitzan & dákitzak, dakítza, dakitzágü, dákitzü, dakitzé, dakité* sorta dakar (1858: 449); aldiz, Baxenabarreko Zohotan *etzazkie ixtoria horiek, etxaxkik* adibidea bildu dugu.

6.5.3.22. *Jakin* aditzaren baldintzaren protasiko aldaera zaharra gorde da *baleki* erakoetan Zuberoa gehiengan;⁵⁴ Baxenabarren *balaki* aldaera berria dugu; cf. *EHHA* (92780).

6.5.3.23. Nafarroa Behere, Nafarroa Garai eta Lapurdi gehiengan ez bezala, lexikoan aldaera gordetzaille zenbait ageri da Zuberoan eta ekialdeko

54 Halaz guztiz ere, Intxauspek *banáki, baháki, baláki, balakié* dakartza Zuberoan, *a-*dunak (1858: 450).

eskualde zenbaitetan: *eitzi* ‘utzi’, *haur & kaur* ‘hau’, *heben*⁵⁵ ‘hemen’, *hirur, laur, bakhatü & pakhatü* ‘ordaindu’...

6.6. Zuberoako ipar-mendebala

6.6.1. Proiekzioa, gizarte-sareak eta hizkuntza-merkatua

Mintzatze-ekintza oro berez entzuleari edo entzuleei bideraturik dagoen nortasun edo identitate-ekintza bat delako tesia defendatu zuen Robert B. Le Page-k (1980: 13): autoerrepresentazio bat egiten dugu mintzatzen garenean; ohartuki ala oharkabean, halako gizataldetako partaide garela erakusten du gure mintzoak. Le Page-k “proiektatzea” izendatzen duen jardueran engaiatu ohi da hitzuna, “enfokea” ere dei litekeenean.

Aldi berean, komunikazio eta elkar-ulermen arrazoiengatik, mintzalaguna aintzat hartzera behaturik gaude: bi hiztunen arteko mintzatze-ekintza, une bateko *pidgin* bat balitz bezalakoa bilakatzen da, hiztunen arteko elkarreragintzaren ondorioa da, ez da zentzu chomskiarrean hiztunak mintzatzeko duen gaitasuna baliatzearen emaitza hutsa. Hizkuntzak komunikatzeko eta mezuak helarazteko balio du eta horregatik, aitzinean duen mintzalagunari egokitzen asmatu behar du hiztunak.

Soziolinguistikako azterketek erakutsi dute, hizkuntzaren erabilerari dagokionez norberaren edo hiztunaren estatusaren autokontzientzia garrantzi handikoa dela (Kroch 1986 [1976]: 345). Hiztunak bere kokagunea du gizartean eta bere nortasunaz ere badu iritzi bat; gizartean gaindi higitzeko duen itxaropenak, batetik, eta kide den taldeko jendeekiko sentitzen duen elkartasunak, bestetik, pertsona baten kapital sozial, kultural eta linguistikoa definitzen dute; hiru kapital mota horiek elkartruketako merkatu-egoera aldakor eta ugarietan baliatu beharko ditu hiztunak, jokoan dauden “ondasun” edo “sarien” arabera (Villena 1990: 168).

Hiztunak sortzen dituen erranak eta adigaiak gizarteko agertokian proiektatzen ditu; “enfoke” maila handiko edo apaleko hizkuntza-sistema erabiliko du, barreneraturik dagoen mintzo-erkidegoa nolakoa den, beti horren arabera. Errate batera, herri bakartu batetik deusetarako atera gabe, beti bertako zaharrek hartu-emanetan bizi izan den hiztun batek, mintzo guztiz enfokatua izanen du; normalki, ez luke herri horretako mintzoa baizik eginen.

Aldiz, Baxenabarreko eta Zuberoako mugaren inguruko herrixketan bizi den euskaldunak, bere mintzoa proiektatzean ez du enfoke bakarra aski izanen,

55 Beñat Etxeparek eta Nafarroa Behereko ekialdeko idazkiek bezala.

eguneroko bizian usu gertatzen delako muga linguistikoaz alderdi bateko eta besteko hitzunekin; aldakortasun-maila gora egon daiteke mugako herrietan. Eman ditzagun adibideak:

Zuberoako Oihergiko hitzun batek zioskunez, berek *hitz baxtartak* [dituzte] *üskaan, manex eta xübeatar nahaska diaii*. Bestalde, aita-amak biak oihergiarak dituen lekuko bat aurkitzea ez da aise Oihergi herrian, aita edo ama ondoko herrietakoa dute gehienek: Ainharbeko, Urdiñarbeko, Lohitzüneko...; berebat, ezkontidea Amiküze aldekoa izan dezakete honelako zuberotar anitzek. Halako egoeran Oihergiko berezko mintzoari dagozkion ezaugarriak zein diren xuxen jakitea ez da aise hizkuntzalariarentzat.

Beste hitzun oihergiar batek ere halaxe aipatu zigun bere mintzoaz: *ezta xübeatarra tout à fait eta ezta hankua* [Amiküzekoa edo Baxenabarrekoa], *biak nahastekatzen tüit nik; geo, berriz, egonik niz mithil Gersen eta han Biarno zen... biarne[ž]a Gerseko lengoa[3]a, hua elhekatü üt, ikhasi ta geo, berriz...*

Ez da guztizko ziurtasun dialektala edo linguistikoa honelako hitzun batek duena, *xibeotar phürra* ondoko herrian baitakusa: *heen ja Añharbe Xübea da de[3]a, habooxago gü beno, Xubea atxiitzen düte han e Añarben; Añharbek Xubeala thiatzen düi*. Aldiz, hitzun oihergiar honi Pagola aipatu orduko, bere burua zubereraren barrenean hautematen du eta Pagola herriko mintzoa kanpoan dakusa: *Phagola e haata amiñi at, heen Xubea ta han manexa...* Ez da ahantzi behar usu hitzunek mintzoaren eta administrazio-barrutien arteko identifikazioak egin ohi dituztela. Alta, hitzunak maite izaten dituen kategorizazioen gaitetik, hizkuntza-ezaugarrien konbinazio dinamiko eta konplexuen berri ematea da hizkuntzalariaren einkizuna.

Egitura etniko eta sozialen arabera, hainbat eremutan hizkuntza-sistema "diffuse"-ak aurki ditzakegu (Le Page 1980: 16); halaber, historia, aukera ekonomikoak edo gertakari politikoak berak izan daitezke hizkuntza-sistema "diffuse" horien eragile ere. Delako gizarte "diffuse" horietan aldakortasun-maila eta heterogeneotasuna gorak dira. Hiri handietako mintzoa datorkio nornahiri gogora honelako erkidego "diffuse"-ak aipatzean, eta bereziki trantsizio-guneetako mintzoak: etnia, kultura eta hizkuntza anitz batera biltzen dituzten eremuak, hainbat tributako jendeen migrazioa bildu duten Afrikako hiri berriak, Brasilgo urbanizazio garapen basatiak, mundu eslaviarreko zenbait eremu urbanoren hazkunde gaitza...

Zenbait eskualdetan hizkuntza-aldakortasuna estrukturala da, bi sistemaren artean bizitzera usaturik daude bertako jendeak, bertako hitzunik; honelakoe-tan litekeena da hitzunen aldetik dimorfismoa agertzea, enfoke bikoitza, eta ondorioz, inoizka ziurtasun linguistiko apaleko egoerak bizi izatea: Pagolako

lekukoa ikertzailearekin mintzatzen hasi da eta “abendua” aipatu behar duenean, *abendia*, *abent...* ahoskatzen du, ez daki zehazki egoera berezi horretan zein aldaera eman behar duen. Mintzoaren aldetik ezker-eskuin bi tradizio bizi izan ditu pagolarrak, hori da beti ezagutu duen errealitatea, esperientziaz gainera. Donapaleuko kafetegi batean zerbitzatzen zuenean, nola jokatu behar duen erakutsi zioten gure lekuko pagolarrari:

ordian nik erraiten nizün... “godaleta”, “ze nahi düzü, godalepat ano?” , a, be etzizien konprenitzen, “baso at ano” behar nizün erran

Izan ere, pagolarrak zango bat hemen eta bestea han duela bizi du bere mintzoa:

bo, bixtan dena, gü Xubealat [ʒ]un eta bethi atzamaiten tzeiküzien difeentzia, bethi, gü bethi, Xubealat [ʒ]un eta manexak güntützün, manexeat [ʒ]un eta xubeatarrak, ükhen dizüü bethi... mintza[ʒ]e lifeent pat, amiñi at bietan nahasteka, nahasteka, zeen eta Xubeatik jin düzü [ʒ]ente, jin düzü Oztibarretik e bai, han e ezizie tout à fait ber mintza[ʒ]ia, voilà, nahasteka amiñi bat, bai

Jakin nahi dugu pagolarrek Zuberoara jotzean beren mintzoa hangorak lerrarazten ote duten eta ezetz erantzuten zaigu, herrian bezala mintzo zirela han ere:

ber gaiza, bai, ba, bai; ez, ez, bate, ez, ez, bate, ez, ez, ez, hartako zeiküzien erraiten “manexinak” edo hola; gio joaiten nüntzün berdin eta Donapläilat, xerbütü, xerbütü itea, kafe batzüta, Donapläieko bestetako edo merkatü...ietako, ordian berriz han erraiten tzeitazien, bo, ni Xubeatik heldü nintzala, ta bon, enündüzün Xubeatik dyiten,⁵⁶ bena...

Zuberoako eta Baxenabarreko muga-mugako herria den Pagolan mintzo nahasia ageri da: hiztunak Xiberoako aldera nahiz *manex* aldera lerra lezake bere mintzoa, bere egunerokotasunak horretara bultzatu duelako, eta ez dugu pentsatu behar, bestalde, muga herrietan mintzo bata eta bestea ezaugarri guzti-guztietan matematikoki ongi bereizirik eta finkaturik ageri direnik; aldizka *interdialect* deitu ohi diren aldaerak ere ager daitezke, joera edo ohitura lektal bataren eta bestearen arteko nahasketak eraginik: Amiküzeko *gitzak* — ‘gaituk’ toka— eta Zuberoako *gütük* dirateke Sarrikotapeko lekuko batek baliatzen duen *gützak*-en erantzule. Sarrikotapean entzun dugu *atxeki* aldaera ere, haren eragile Amiküze aldeko *atxiki* eta Zuberoako *etxeki* formek baitirudite.

56 Entzuten den hotsa ez da Zuberoako hitz hasierako txistukari sabaiaurreko ahostun garbia, ezta Baxenabarreko eta Amiküzeko hitz hasierako [y-] sabaikaria ere, bien arteko hotsa eman du hor lekukoak.

Izan ere, Pagola herria, erreka alde batera ala bestera gauden, erdiz Zube-roako Arbaila eta erdiz Baxenabarreko Oztibarre da, eta gainera, administrazioz Pagola Donapaleuko kantonamenduari atxiki zioten. Historikoki Pagolako etxe anitz garai batean Oztibarreko Iutsi herrikoak ziren eta honezaz gainera, egungo Pagolara baxenabartar anitz ezkondu da. Gainera, Donapaleuko merkatua biziki baliatu dute pagolar adinetakoek, aste oroz. Pagola ez da Ondarroa, Zaldibia, Goldaratz edo Larraine bezalakoa, guztiz bestelakoa da bertan ageri den hizkuntza-errealitatea eta hizkuntza-sentimendua. Gaude pagolarrek Xiberoa ez ote duten Muskildiz harat edo Oxkaxe gainaz bestalderat sentitzen, mintzo *xibeotar phiirraen* arabera.

Mintzo-erkidegoa alderdi soziolinguistikotik aztertu duten lanen arabera, garrantzi handia hartu dute "gizarteko sare" (L. Milroy 1980) eta "hizkuntza-merkatu" (Sankoff & Laberge 1978) adigaiak; banaka aurkeztuko ditugu.

Lehen adigaiari dagokion ikerbidean, usu nabarmen edo begi-bistakotzat erakusten zaizkigun mailakatze sozioekonomikorako irizpideak zalantzan jartzen dira hizkuntzalaritzan baliatzerakoan. Ikuspegi honetan aldakortasun soziolinguistikoa ez da gizarteko mailaren arabera edo estratuka interpretatzen, jardun komunikatiboko taldeen arabera baizik. Hipotesi gisa aldarrikatzen da, lekuan lekuko mintzoaren arauetako lotura edo atxikimendua, bertako erkidegoko sareetan norbanakoak duen integrazio-mailarekin hertsiki loturik dagoela; honela, norbanakoak gizarte bateko sareen egituran duen kokaguneak baluke zerikusi zuzena hitzun horren hizkuntza-jokabidearekin (Milroy & Margrain 1980: 44). Hartara, delako *local satisfaction* horren maila handia duen kide bat, familia, lana eta adiskideak gune berean dituen bat, bere ingurumeneko taldean ongi integraturik legoke teoriarik, eta leku horretako berezko mintzoaren erabile-ra-maila ere gora luke; hitzun honen mintzoa guztiz enfokaturik litzateke.

Gizakiaren hizkuntza-jokabidea aztertu denean usu ikusi da, pertsona anitzek gatazka bizi dutela sortzezko beren gizataldearekiko duten pertenezaren eta beste gizatalde baten erreferentziaren artean: beren gizataldearenak ez diren mintzamoldeekiko mimesi estilistikoa ager daiteke hitzun horien mintzoan, gizarteko eragileen indarra eta isla suma daiteke beren mintzamoldean. Aldiz, beren taldeko kide izatea gehien baloratzen duten hitzunak, *gutusun ideal* baten autokontzientzia dutenak, horietatik izaten dira beste gizatalde batzuen mintzoarekiko dagoen desberdintasunaren berri xeheki emateko zaletasun gehien dutenak (Zamora 1986: 319).

Hitzunaren proiektzioaren, gizarte-sareen eta hizkuntza-merkatuaren ikerbide edo lan-ildoetan eginahal finkoa dago hizkuntza-aldakortasunaren azterketaren alderdi soziolinguistikoa oinarri teoriko egokiagoen bidez aztemateko. Gizarte-sareak aztertzean, hauen trinkotasuna eta ugaritasuna neurtzen

da: zenbat pertsonak osatzen dituzten sareok, sarekideak elkartzen dituzten loturen indarra zenbaterainokoa den, zenbat motatako sareak dauden, sareok zein egitura duten...

Hizkuntza-merkatuaren ideiarenean hatsarre marxista bat dago, historia eta gizartea era kritiko eta dinamikotik ikusi nahia: truke-merkatu zurrun, formal eta asimetriko horietara dagoen hizkuntzazko sarbidea aztertzen da adigai honen bidez. Merkatu adigai hau Pierre-Félix Bourdieu eta Luc Boltanski-ren “Le fétichisme de la langue” (1975) lanetik hartua da.

Merkatuak norbanakoen ekintza sozioekonomikoen ondorio diren jarrerak islatzen ditu; aipatu jardueraz gainera, hiztunak mintzo legitimitatuan mintzatzeko duen gaitasunak garrantzia du: mintzo estandarra ematea, elitearena den hizkera ezagutzea eta baliatzeko gai izatea, heziketa egokiari dagokion mintzamolde hori menperatzea... David Sankoff-ek eta Suzanne Laberge-k diotenez (1978: 240), hizkuntza-jarduna eta beraren aldaketak, hiztunek produkziobideekin dituzten erlazioek eraginik daude. Sexu femeninoaren barranean, Trudgill-ek ikusi du etxetik kanpo lan egiten ez duten etxekoandreak ez direla etxetik kanpo lan egiten duten emaztekiak bezala mintzaten (Linn 1983: 240).

Gizarte-sarearen eta hizkuntza-merkatuaren korranteotan, egiturazkoak diren alderdi makrosozialak —estatusa— eta mikrosozialak —lekuko prestigioa, elkartasuna— aztertzen dira. Gizarte-sareen ikerketan, talde informalei garrantzi handia ematen zaie: erkidegoarekiko leialtasuna, elkartasuna, kohezio-arauak, lekuan lekuko sare trabatuak...

Bi ikerbide hauek guztiz atxikitzen zaizkio Le Page-ren “Erreferentzia Taldearen Teoria”-ren ildoari. Honelako ikerketetan usu ikusi da, kide diren gizataldeko partaidetzari eta gogoko dituzten kanpoko beste erreferentziei pertsonak ematen dieten balioaren arabera —mintzatzean egin daitekeen mimesi estilistikoa barne—, hiztunen baitan gatazkak eta sentimendu kontrajarriak ager daitezkeela.

Hiztunak aitzinean duen mintzalagunari egokitzen asmatu behar duela adierazi dugu arestian; sortzezko mintzoa baliatuz, bere herritarrekiko hurbiltasuna edo atxikimendua adierazteko beharra senti lezakeela ere erran dugu; ezaguna da ogibidez saltzaile diren jendeak, eskualdeetan bidaiatu beharrean gertatu diren horiek, hizkuntza-misiolari edo hizkuntza-ezaugarrien kontrabandista galantak direla. Aspaldi ezagutu genuen gizon bat, Maule eta Donapaleu bitarteko Sarrikotapean sortu eta bizi zena, lan egiteko adinean eskualdean saltzaile ibili zena eta ostatu bat ere bazeramana, ordubeteko grabazio baterako mintzakide ukan genuen eta atera ziren aldaerak, xiberotarrak eta manexak dira, nahaska: berak aitortu zuen bezala, saltzaile jardueragatik bazekien *manexian*

mintzatzen ere, nahiz herritarrekin zuberera egiten zuela zioskun, baina gu ez izaki xiberotar!

6.6.2. Donapauleik Maulialat

Zuberoan nagusi diren baina hiztun amiküztarren ahotik ere entzuten diren aldaerak daude gure eskualdean, baina alderantziz ere gertatzen da, hau da, Nafarroa Beherean edo Amiküzten nagusi diren ezaugarri batzuk, Zuberoako ipar-mendebaleko herrietan ageri zaizkigu, Zuberoa gehienez ibiltzen ez direnak; errate batera, *bit* ‘bait’ partikula azaltzailea, Baxenabarren eta Amiküzten aski hedadura duena, Zuberoako Domintxainen, Olhaibin, Lohitzüenen edo Oihergin bildu dugu, baina behin Ainharbera helduz gero, *beit* baliatzen dela ikusi dugu, Artien eta Sarrikotapean bezala.

Berebat, dialekto mugaren inguruko bitasun eta txandaketak entzun daitezke eskualde honetako hiztunen artean: Pagolako hiztunengandik *gaia* eta *gaua* bildu ditugu, eta baita *-tasiin*, *-tarsun* eta *-tarziin* aldaerak ere. Oihergin ere bietara entzun daiteke: *baakite*, *düte*, *nüte*, *züten* adizkiak baliatzen dira, baina baita *die*, *nie*, *zien* ere; Ainharben ere *-e* & *-te* bikoizketa dago pluraleko hirugarren pertsona Nork-en. Nor Nori Nork-en *erran nakon* ‘nion’, *ginakon* ‘genion’ eta *zakokan* ‘zioan’ bildu ditugu Oihergin, baina Artolak *nion* & *non*, *ginion* & *ginon* dakartza (Irizar 2002b: 175). Nor-Nori sailean *zakok* ‘zaiok’ eta *hiltzakon* ‘hil zitzaion’ bildu ditugu Oihergin, Baxenabarreko ohituren arabera, baina Zuberoako gisan *zoo* ‘zaiok’ ere bildu dugu eta Artolak *zion* ‘zitzaion’ dakar (Irizar 2002b: 170).

Interesgarri da biziki Baxenabarreko ekialdetik Zuberoako ipar-mendebalera doan hizkuntza-*continuum*-ean Amiküzeko euskara emeki-emeki aldatuz nola doan ikustea. Berebat, Donapaleu hiriak ekonomian eta demografian ukan duen eragina erakutsi lezake Baxenabarren edo Amiküzten nagusi diren hizkuntza-ezaugarri batzuk eskuin Zuberoako ipar-mendebalera zein xorrotx sartzen diren ikusteak. Lur-Berri kooperatibak, Donapaleuko zerbitzuek —saltegi, erietxe...— erakarmena eragiten dute eskuinerat ondoko herrietan eta eragin honek aise gainditzen du Zuberoa herrialdearen muga. Baxenabarretik Zuberoarat goaz Amiküzten gaindi, hango mintzora inguratuz eta hurbilduz, baina halako batean Zuberoako euskaran osoki sartu gara; ibilaldi edo *continuum* eta eten horien berri eskualdean bildu ditugun datuek erakusten dute.

Arestian zubereraren ezaugarri eskusiboen berri eman dugu eta eskualdeko lekuko euskaldunen jokabide lektal usu bikoitzaren berri ere agertuko zaigu geroxeago, baina dialekto batetik bestera dagoen trantsizioa geografian non eta nola gertatzen den aurkeztu nahi dugu orain. Arberoako Armendaritze-

tik eta Mehainetik Zuberoako ipar-mendebaleraino inguraturik, ikusiko dugu herririk herri euskara emeki-emeki aldatuz doala. Geografian aitzinatzearekin batean, ordura arte ibili den herrietan entzun ez dituen ezaugarriak agertu zaizkio hizkuntzalariari, baina ez du herri batetik bestera halako aldaketa edo eten bortizik hauteman: ekialdeko edo Zuberoako ezaugarritzat jotzen diren formak gero eta gehiago dira eskuinera jotzen den ber, baina tasun berrien agerpenaren erritmoan gertatzen den maiztasuna aski homogenea da.

Badakigu Zuberoa barreneko herri guztietako mintzoa ez dela zuberera dialektoaren barrenean sartzen, herrialde honen ipar-mendebalean Amiküzeko mintzora sarbidea dagoela; eskualde honetan dialektoen arteko zinezko iraganbide natural eta komunikatiboa dugu eta bestalde, badakigu Pettarreko Artie, Berroeta, Domintxaine, Etxarri, Ithorrotze, Jeztaze, Lohitzüne, Oihergi, Olhaibi eta Ozaraine, nahiz Arbailako Pagola herriak, administrazioz Donapaleuko kantonamenduari dagozkiola. Egungo dinamika sozioekonomikoan Donapaleu garrantzi handiko hiria da eskualdean eta lehenago ere horrela zen, merkatuagatik bereziki; ipar-mendebaleko xiberotarrak usu behartzen dira bertara joatera. Maule ere hamar-hamabost kilometro ingurura dute eta hainbat zerbitzuren bila bertara jotzen dute behartzen direnean: hautua, hiri bakoitzean dagoen eskaintzaren eta norberak dituen zaletasunen, adiskideen edo ahaideen arabera izan daiteke, giza-jardunean ohi denez.

Dialektoez dihardugunean, erabaki lektalak hartzean, aztertzen den geografiaren edo eremuaren saihesta batetik bestera jauzi lektal handirik ez dagoelako, erran ohi da banaketarik ez dela finkatuko; hori baino hobea da, ordea, hizkuntza-ezaugarri multzoak bereziki azpidialektoen arabera lan egitea, ezaugarri-taldeak batzuk besteekin alderatzea eta bereiztea, ezaugarrien konbinazio jakin horiek geografia-eremu zehatz batekoak —eta ez besteak— direla dakigun heinean bederen. Azpieuskalkiak sailkatzean eskualde batzuetako mintzoaren *unikotasuna* aintzat hartu behar da, beren izaera berexia onetsi beste biderik ez dago, bestela, egun eragin-eremu idurien menpe gertaturik ere, aski desberdinak diren mintzoak batera agertuko zaizkigu, baina nolana ere den, gauzei honela so egiteko dugun era honek ez dakar atomismora jotzeko inolako arriskurik, guztiz bestelako gauza da atomismoa.

Dialektologian dihardugunez, lan egiteko darabilgun metodoaren funtzio-namendu mekanikoa esplizitatu behar dugu: errate batera, herri bateko mintzoa zuberera ez dela adierazi ahal izateko, Ipar Euskal Herriko erdialdetik datozen ezaugarrien olde berriak dialektala beharko luke izan, nafar-lapurteraren ezaugarri eskusiboak, ez erdialdeko euskara orokorrari dagozkion ezaugarri supradialektalak, horiek ez dute herri bateko mintzoa zubereratik kanpo uzten eta nafar-lapurterara sarrarazten. Berebat, Ainharbe, Oihergi, Lohitzüne edo

Pagola zuberera orokorretik kanpo dakusan xiberotarrak, lau herriotan ezaugarri ez zuberotar anitz ikusi beharko ditu; halaber, herriotan falta diren ezaugarri zuberotarrek bateratzaileak beharko dute izan, Zuberoa guztikoak; hartara, basabüritarrak ez dezala lau herriotan beste dialekto bat ikus, Zuberoa hegoko edo mendialdeko Zuberoako ezaugarrien falta sumatzen duelako.

Errate batera, Zuberoan badago aditz nagusiari etorkizuneko bi atzizki lotzeko aukera, baina ez da herrialde guztiko ezaugarria, Xiberoako ekialdekoa baizik; ez da, beraz, zuberera guztiaren berrikuntza: *janenko*, *eramanenko* dakartza Elixagarai ligiarrak (82) eta Santa Grazin ere baliatu da: *jinenko* dakar Maddi Hardoi lekukoak Peilleni kontatu ixtorio batean (1985: 21); euskaltzain honek dakarrenez, Eskiulan eta Santa Grazin baizik erabiltzen ez zen *-renko* aldaera ia galzorian da (1992: 250) eta *emaneko* erakoak, Santa Grazin, Montori-Berorizen, Eskiulan eta ondoko auzoetan daude (262); cf. Etxegorri (2003: 271). Guri Larrainen "emanenko" erakoak Santa Grazikotzat eman dizkigute. Ezaugarria ez da Zuberoa guztikoa.

Halaber, Oihergi edo Pagola ez dadila zubereratzat har, herriotan Pettarreko ezaugarriak baliatzen direlako. Erabakiak hartzean, herri bateko mintzoa zubereratzat hartzeko, zuberera osotasunean batzen duten ezaugarriak baliatu behar dira, Zuberoa guztiko ezaugarri bateratzaileak behar dute izan, Pettarreko aldakiko tasunak izatea ez da aski herri horretako mintzoa zubereran sartu ahal izateko.

Ez da ahantzi behar zenbait hitzek lotura lana ere egiten dutela; eman dezagun, *e(i)ñhe* 'nekatu' aditz zuberotarrak bereizketa baldin badakar ere, Zuberoan *akhitü* ez da ele ezezaguna: itxaron zitekeenez, Domintxainen eta Etxarrin baliatzen da, Baxenabarre guztian bezala, baina baita Zuberoa barrenean ere; guk Ainharben entzun dugu eta Bildozen ere bildu da (*EDEL* 552); iraganean Belapeirek, Egiategik edo Intxauspek zerabilten eta XX. mendean Larrasketek eta Guillaume Epherrek dakarte; berebat, Erronkari-Zaraitzuetan ere *akaitu* dago.

Mintzoa aztertzeko franko herritan gaindi ibili ondotik, zubereraren guztiz barrenean dakuskigu, eman dezagun, Ündüreine, Ainharbe, Ospitalepea, Sohüta-Hoki, Urdiñarbe edo Larraine, etsenplu baten emateko; aldiz, ditugun datuen arabera, Pagolan Xiberoara nahiz Baxenabarrera begira mintzatzen dira hiztunak; errate batera, Domintxainerekin alderaturik anitzez ere zuberotarrago ageri da Pagola, edo Pagolako hiztun batzuk bederen: ondotik ikusiko dugun bezala, iraganeko hiztunak bereziki.

Sarrikotapeko mintzoa, oro har Xiberoako ohiturekin bat dator, baina herrian euskara guti mintzatzen denez, sarrikotarrek baliatzen duten euskara

usu beste herrietako euskaldunei begira egitea ez litzateke harritzekoa; herriz kanpoko aldaerak entzuteko egokiera handia dutenez, baita, ondorioz, kutsatzeko aukera ere, edota ziurtasun linguistiko apala izatekoa, zinez herrikoa zer den eta zer ez den ziurtasunez ez jakitekoa. Arüe-tik eskuin dugu Sarrikotapea, zenbaiten ustez ipar-mendebalean zuberera *phürra*-ren lehen herria dena; erran behar da, halaz ere, amiküztar jende xehe zenbait Etxarri eta Arüera orduko kutsu zuberotarra hautematen hasten dela, hori sentitzen dutela adierazi digute guri bederen. Egia erran, Arüen bi alderdietako ezaugarriak entzuten dira lekukoen ahoan. Izan ere, hiztun batzuek doinuarekin eta azentuerarekin identifikatzen dute Amiküzeko mintzotik Xiberoako *üskaa*-ra dagoen jauzia; Zuberoako azentueraren sentiera eta izaera hori zinezkoa izanik ere, tasun suprasegmentalez landa ezaugarri gehiago ere badira *continuum* horretan Amiküzetik Zuberoara dagoen desberdintasun lektala salatzen dutenak.

Idiolektoaren errealitatea garrantzi handikoa da dialektologian: mugako edo “juntako” hiztunek argi dute eskualde honetan mintzatzeko bi molde daudela, xüberatarra eta manexa, norberarena eta ondokoena, eta hainbat jendek bietara egiten dakite, hiztun biidiolektalak edo bidialektalak dira; noren aitzinean dauden, era batera edo bestera lerra daiteke beren mintzoa.

6.6.3. Mendialdeko muga: Lohitzüne, Oihergi eta Ainharbe

Eman dezagun orain zubereraren geografiako muga dialektalen adibideetarik bat: Amiküzen mailaz maila gauzatu den aldakortasun jarraikor hori egonik ere, Nafarroa Beheretik ekialderat etorririk, eskualdeko herri jakin batzuetan muga dialektalera inguratzen ari garela iradokitzen digun jauzi galanta gertatzen da, muga dialektalaren “errealitate berezi hori” hautematen da. Zuberoako lehen herria den Lohitzünen oraindik ere aldakortasun mailakatuaren zantzuak hautematen ditugu, baina ondoko herri Oihergira heldu orduko, berehala oartzten gara berez Zuberoako ezaugarri tipiko edo diagnostikatzaitzat jotzen diren tasun horiek, eksklusiboak direnak, nabarmen ugaltzen direla herri honetan, Lohitzünetik Oihergira dagoen aldea handiagoa dela ordura arteko auzo herrien artean gertatzen zena baino. Lohitzüne manexago dakusagu Oihergi baino. Ñabardurak egin behar badira ere, behin Oihergira orduko zubereraren barrenean gaudela erran liteke. Zuberoa guztian baliatzen diren eta euskalki hau batzen duten ezaugarriak ageri dira Oihergin. Zubereraren muga bi herri horien artean dagoela hautematen dugu; darabiltzagun datuen arabera hala da, eta bereziki, Amiküzen gaindi egin dugun hizkuntza-bidaia Lohitzüneraino egin ondoan da honela; eskuin, Oihergira sartu eta beste giro linguistiko batean dagoela oartzten da hizkuntzalaria: ez da doinua aldatu den bakarra, hizkuntza-aldaerak ere bai.

Hizkuntza-ezaugarrien hedadurari so eginez gero, Baxenabarre zabaleko tasun ugari, egiaz Amiküzekoak ere badirenak, Lohitzünen ageri zaizkigu, baina aldez, Xiberoan baizik baliatzen ez diren ezaugarri ugari, Oihergin ageri direnak, ez dira Lohitzünen baliatzen; beste giro xiberotarrago horretara jauzia egin dugu Oihergira orduko, nahiz herri honetan baden oraino Amiküzeko oihartzun zerbait.

Jauzia gertatu da aldakortasunaren maiztasunean, herri batetik bestera ezaugarri desberdinen kopurua areagotu da; Zuberoa aski ibar batua da mintzoaren aldetik, Zuberoako beste bi herri auzoren artean Lohitzünetik Oihergira dagoen alde lektalaren parekorik aurkitzeko bazter ugari kurritu beharko du hizkuntzalariak: muga dialektalaren itxura du jauzi lektal honek, baina ez dugu adierazi nahi Lohitzüneko mintzoak Zuberoakoarekin batere zerikusirik ez duenik, inola ere ez. Bestalde, Oihergitik eskuin lehen herria den Ainharben sentitzen du hizkuntzalariak zubereraren barrena osoki murgildu dela; aurkeztuko ditugun emaitzek erakutsiko digute hori.

Hurranen hizkuntza-ezaugarrietan hainbat sail bereizi ditugu, hizkuntza-etenaren berri hobeki islatzeko; hala Lohitzüneko nola Oihergiko tasunak dakartzagu, baina etena absolutua ez denez eta dialektoen arteko jauziak erabatekoak ez diren aldetik, ezaugarri sail bakoitzaren hedadura geografikoaz ñabardurak egitea baitezpadakoa da; alderdi fonikoa / izenaren morfologia / aditzarena / sintaxia / alderdi lexikoa / aldaera lexikoak hurrenkeraren arabera bereiziko ditugu ezaugarriak; hona bi herrietako ezaugarri multzoak geografia-hedaduraren arabera sailkatuz:

6.6.3.1. Lohitzüneko ezaugarriak

Badira Lohitzünen ezaugarri batzuk Amiküzen eta Zuberoan baliatzen direnak: alderdi fonikoari dagokionez *aizoekin* adibideko diptongo aitzinatua; izenaren morfologian *etxengoa* lokatiboa eta *ber* aldaera: *ber kartierrekoak* & *ber ideiak*; alderdi lexikoan *aidiüü* eta *lanean eauntsia* hitzak eta aldaera lexi-koetan, berriz, *heben* eta *hirugerren*. Zuberoan bezalako ezaugarria da *txeste at* ‘dastamen bat’ adibidea.

Zuberoan baliatzen ez diren ezaugarriak dira honakoak Lohitzünen: alderdi fonikoan *heldü* dago, herskari ahostuna duena, baina *lanthüik* ‘landurik’ ere bildu dugu, Zuberoan bezala ahoskabe; *j*-ren hotsa sabaikaria da, Baxenabarren bezala: *juna*, *juaiten*, *joko*; *au* diptongoak aldatu gabe dirau: *gauza*, *gauaz*; soiltzea dago “bait” aurrizkian: *bitzen* ‘baitzen’; izenaren morfologian, polaritate negatiboa duten izenordain zehaztugabeak berritzaileago dira Zuberoakoak baino: *niok* & *niur e*; sozietiboan ez zaigu *-ki* agertu. Aditzaren mor-

fologian Nor aditz saileko iraganean *ginden* ‘ginen’ entzun dugu, Baxenabarren bezala; hirugarren pertsona pluralaren Nork morfema ez da ekialdekoa: *zūten* & *duten*; aditz-izenean *-ten* beharrean *-tzen* ageri da *ekhartzen* adibidean; alderdi lexikoan *iakoitzaikilan* ‘larunbatean’ bildu dugu Zuberoako hitza beharrean. Aldaera lexikoetan, berriz, hona Baxenabarrera so jartzen gaituen sorta bat, Zuberoako aldaerez bestelakoa: *ahantzia izit e* —baina baita *aatzia izit* ere—, *beatzi ontan*, *berdin-berdina*, *ederra*, *elgarrekin*,⁵⁷ *euria* —baina baita *ebia* ere—, *hemen*, *joana* —nahiz *juan* eta *jun* ere bildu ditugun—, *oiñez* & *oñez*, herskari ahoskaberik gabeko *paatii* ‘ordaindu’, *-tasiün* atzizkia: *garbitasiün* & *ontasiüna* & *ondasiüna*.

Eta ohikoa da diskurtso metalinguistikoa ere: hizkuntzaren moldeari dagokionez, alderdi batean nahiz bestean, kokatu ezinik daude lohitzüntarrak: *xuberatarrek* [dioskute] *manexak giela*, *manexek xuberatarrek giela*.

6.6.3.2. Oihergiko ezaugarriak

Continuum-aren ideari jarraikiz, Oihergiko ezaugarrien aurkezpena ez dugu Baxenabarren ez bezalako ezaugarri xiberotarrak ekarririk hasiko; etena sortzen duten ekialdeko tasunak geroko utzirik, lehenik Baxenabarrerekin eta Amiküzerekin lotura egiten dutenak aurkeztuko ditugu. Zuberoakoak ez bezalako ezaugarriak dira honako Baxenabarreko orokor hauek. Oihergiko mintzoan ere bildu ditugunak: alderdi fonikoan bokal arteko “r” fonema ageri da *oro* adibidean eta hots sabaikaria dute *joka*, *jakiteko*, *juiteko* eta *jateko* adibideek; berebat, ahostuna da “n” ondoko herskaria *igandia* adibidean. Izenaren morfologian *nihu* ‘nehon, inon’ & *nihū* edota *nihur* ‘inor’ ditugu polaritate negatiboko izenordain zehaztugabeetan; ablatiboan herri izen bereziarekin *Mauletik* bildu dugu; aldiz, Pagolan *Mauleik horra niik* entzunik gaude eta Ainharden ere *Mau-leik* eta *Hazparneik* adibideak bildu ditugu.

Aditzaren morfologian, Baxenabarren bezala *-te* dago Nork morfeman hirugarren pertsona pluralan: *baakite*, *düte*, *nüte*, *zūten*; ordea, ez da aldaera bakarra, izan ere, Artolak Oihergin *die*, *nie*, *zien* bildu zituen (Irizar 2002b: 171, 174); Nor Nori Nork-en *erran nakon* ‘nion’, *ginakon* ‘genion’ eta *zakokan* ‘zioan’ bildu ditugu, baina Artolak *nion* & *non*, *ginion* & *ginon* dakartza (Irizar 2002b: 175); Nor-Nori sailean *zakok* ‘zaiok’ eta *hiltzakon* ‘hil zitzaion’ bildu ditugu, Baxenabarren bezala, baina Zuberoako gisan *zoo* ‘zaiok’ ere bildu dugu eta Artolak *zion* ‘zitzaion’ dakar (Irizar 2002b: 170). Alderdi lexikoan Baxenabarre

57 Egia erran, Arxu da Zuberoan *elgar* aldaera darabilen idazle bakarra; Belapeirek, Maisterrek edo Gèzek *alkhar* & *algar* darabiltzate. Baxenabarre ondoan *elgar* & *alkhar*, bi aldaerak bildu ditugu Zuberoa mugako Pagola eta Oihergin.

gehienekoak —Zuberoakoak ez bezalakoak— dira honako adibideak: *atsalde*, *eakoitza* ‘larunbata’, *primadea*; Baxenabarreko aldaera lexiko orokorrak dira honakoak ere: *bedeatzi* & *beatzi*, *ederrago*, *elgar*, *ga[ʒ]na*.

Oihergi Amiküzerekin batean doa *gidatiko* ‘gidatuko’ erako palatalizazioan, baina ez Baxenabarre orokorrarekin —*tuko*— edo Zuberoarekin —*tüko*—; Amiküze alderdiko berrikuntza da *-tiko* aldaera hau.

Amiküzeko eta Zuberoako ezaugarriak dira hurrengo hauek, lotura lana egiten dutenak; alderdi fonikoan *zübü* ‘zubi’ aldaera berranalizatua dugu; alderdi lexikoan *haidiüü* ‘zain’ edo *iauntsi* ‘erauntsi, jardun’ aipa daitezke; bi eskualdeetako aldaera lexikoak dira *kuntre* ‘aurka’, *mezpean* ‘bezperan’, *prau* ‘txiroa’ edo *laugerrena*.

Zuberoako egungoak bezalako ezaugarriak dira orain dakartzagun Oihergikook, baina ezaugarri zaharrak izanik ez dira ezezagunak Amiküzen. Alderdi fonikoan bokal sudurkari zaharrak daude: *azkü* ‘azkon’, *nihü* ‘nehon, inon’. Alderdi morfologikoan ablatiboan *horti* ageri da eta sozietiboan *güeki* edo *ahiüntzeki* adibideak. Aditzaren morfologian aditz-izenaren aldaera zaharra bildu dugu *ilten*, *eẓarten* eta *eorten* ‘igortzen’ adibideetan.

Hurranen adibideek erakusten digute Oihergik hizkuntzaren sistema Zuberora orokorrarekin batera berriztatu duela: aldaera ahoskabea dugu “ozen + herskari” loturan: *abentin*, *altekua*, *etxaltia*, *ezkontü*, *galthätü*, *igante*, *jatekoaintako*, *jente*, *presunteian*, *zankhun* ‘zangoan’. Eta *-n* gabeko adibidea da *kamiua* ‘kamiona’. Bestalde, sabaiaurreko ozena dago *j*-ren ordain: [ʃ]an, [ʃ]arraikia, [ʃ]ente, [ʃ]in, [ʃ]un. Txistukari ozenak ageri dira maileguetan: *bede[ʒ]ik* ‘sendagileak’. Bokal artean ttap fonema galdu da: *axei* ‘azeri’ *autza* ‘arotza’, *bio* ‘bero’, *etxekandeiak*, *haiki* ‘harekin’, *hamahiu*, *hii* ‘hiri’, *laboai*; eta beste kasu batzuetan tinkatu da: *hurra* ‘ura’, *orro* ‘oro’; aitzineraturik ageri da *au* diptongoa: *aihaia* ‘afaria’, *aizuk* ‘auzoak’, *belhain* ‘belaun’ & *belhañian*, *gaian* & *gaiaz*; *o > u* gertatu da sudurkarien inguruan, baina ez *huñez* ‘oinez’ erako adibidean bakarrik, baita galdetzaileren paradigmaren ere: *nuiẓ* ‘noiz’, *nur* ‘nor’. Zuberoan bezala, *goizan* ‘goizean’ berrikuntza entzun dugu, Belapeirek idatzi bezalaxe; bada Oihergin *gañan* ere, baina kontsonante sabaikariak lotura bokala irentsi duela pentsatzea baino, hobe izanen da beharbada azalpen morfologikoa bilatzea; cf. Manterola (2015: 257-9).⁵⁸ Azentuari dagozkio *partidaküa* edo *semüa* adibideak eta Pettarran bezala laburdurak jasan dituzte honako formok: *bestik* ‘besteak’, *igantin* ‘igandean’, *lanín* ‘lanean’. Morfologian erakusle plural berria garatu da hirugarren mailan: *etxe huk* ‘etxe haiek’. Berebat, aditzaren morfo-

58 Belapeirek *gañen* dakar, inesibo zaharra, egun Altziirikün-eta entzun daitekeena.

logian lehen pertsonaren datibo morfema bikoizturik dakar *detaate* ‘didate’ aldaera berriak; bestalde, berria da *horra niik* ‘nator’ egitura ere.

Zuberoan ohikoak diren Oihergiko ezaugarri gehiago ere aipa daitezke; aditzaren morfologiako hurranen aldaerak ere ez dira Baxenabarren bezalakoak: *etzeitán* ‘ez zitzaidan’, *zoo* ‘zaio’, *erran deta* ‘dit’, eta baita *detaie* ‘didate’ ere, non hirugarren pertsona pluraleko Nork morfema ekialdeko *-e* baita; berebat, baldintzaren apodosian *aski lia* ‘lirateke’ adizkia bildu dugu. Modua adierazteko aditz-izenari lotzen zaio instrumentalaren atzizkia eta ez partizipioari: *oro ius tiik alkhar lagüntzez; libertitez ni ein nünten han*. Konparazio perpausetan, berriz, *bezainbeste* baliatzen da: *lekhü bezainbeste jente bazia*. Dena den, hondarreko bi ezaugarriok Amiküzeko ekialdean entzun ditzakegu egun.

Alderdi lexikoan, maileguen eta bertako hitzen artean, zubereraren ezaugarri diagnostikatzaila ugari dugu Oihergin: *azkaziak, bedatsia, egüüki, ehaiten* ‘eraiten, hiltzen’, *elhekatü & elhesta ai, eli bat, gei* ‘nahi’, *godaleta, latsün, neskenegün, seteme, üñhiia, xinkhor*. Aldaerak dira honakoak: *agia* ‘haragia’, *ahatze, aiñarba, aitañiak, alkhar & elkar, belhaiko* ‘belauniko’, *bihamen, bohorra, ebi* ‘euria’, *aitarziin, ei[3]jerra & ei[3]jerki, elger* ‘ergela’, *etxaltia, ezai* ‘ezarri’, *ezkhüntü, ezne, gazna, goxiima* ‘garizuma’, *haitxa* ‘haritza’, *hanitx, hautse, holli* ‘horia’, *hüllan, ialli* ‘irauli’, *inkhatz, kaidea, kirixti, khutxia* ‘gurutzea’, *nurbeit, pakhatü* ‘ordaindu’, *ükhen, üñhürri, ürtüki & ithuki* ‘jaurtiki’, *xeste* ‘dastatu’, *zeliü*.

Aldiz, *destatzeko* ‘dastatzeko’ aldaerak, Zuberoako *tx-* falta du, Baxenabarren ohikoa den *d-* du, baina zuberotarren gisa *e* bokala dakar.

6.6.3.3. Ainharbeko ezaugarriak

Arestian adierazi dugunez, Ainharben sentitzen du hizkuntzalariak zubereraren barrenean osoki murgildurik dagoela, entzuten duen mintzoa *xibeotar phürra* dela; Peillenek, ordea, manexturik dakusa herri honetako mintzoa (Coyos 1999: 45). Oihergin bietara egiten diren ezaugarri zenbait, Ainharben ez dira Zuberoako eran baizik baliatzen. Errate batera, Oihergin /j/ fonema gauzatzeko hots sabaikaria eta sabaiaurreko ozena entzun ditugu, baina Ainharben sabaiaurreko ozena baizik ez: [3]akiten, [3]ateko, [3]entiak, [3]erraitzen, [3]in, [3]oiten, [3]osten, [3]uiten, [3]untatü. Gaineratekoan, bokal sudurkariak gardenago entzuten dira Ainharben: *xäink* ‘garbiak’, *sasü* ‘sasoa’. Oro har, txistukari ozenak entzuten dira: *bede[z]ia*; ttap fonema galdurik dago: *beo* ‘bero’, *büiak* ‘buruak’; dardarkariaren aldaketa sumatzen da: *herietan* ‘herrietan’, *hurak* ‘urak’, *izigari, orro* ‘oro’ eta bestalde, *ezai* ‘ezarri’ aldaera dago; bestalde, “ozena + herskaria” loturan ahoskabea ibiltzen dute: *althae* ‘aldarea’,

Ahüzki altin, aphezentako, heltü, igante, xaalentako; o > u gertatu da galde-tzaileetan: *nuiž* 'noiz'; hainbat ingurunetan *au* diptongoak *ai*-ra jo du: *aizoak, gaiardi, gaizekilan...* Baigorri izan ezik Baxenabarre gehienez *bait > beit > bit* soilteza gertatu da, Zuberoako Domintxaine, Olhaibi, Lohitzüne edo Oihergi barne, baina Ainarbe Zuberoako ohitura nagusiari jarraiki zaio: *beinin, beitie*.

Izenaren morfologian polaritate negatiboko izenordain zehaztugabe zaharren saila baliatzen da: *ihü* 'inor'; pluralean hirugarren mailako erakusle berria dago: *gizon huk; goizan* aldaera baliatzen da; izen berezien ablatiboa *-(r)ik* zaharra da: *Mauleik hunat, Hazparneik, etxerik*; adlatiboan bokal hersketa dago: *bestila* 'bestera', *borthilat, frantsesilat*; muga adlatiboan *artino* egiten da: *gaierditaa artino*. Oro har, Zuberoan ohikoak diren egiturak baliatzen dira Ainarben: jarduna adierazten duen *-kan* atzizkia, *pelotakan ai* etsenpluan. Aditzaren morfologian moduzko perpausak aditz-izenari lotzen zaizkio: *pakhatzez; ützültzez behiekin*. Adizkiek ere osoki zubereraren barrenean kokatzen gaituzte: *horra züzün* 'zeturten', *zitäzüt* 'zait' — datiboaren morfema bikoiztua duena —, *zütüzün* 'zituen'. Berebat, bokal asimilazioa dago Nor Nork sailean: *nüntin* 'nituen', *zünin* 'zenuen'. Halaz guztiz ere, hirugarren pertsona pluraleko Nork morfemaren bi erak agertu zaizkigu Ainarben, *-e* eta *-te*: *emaiten die, die emaiten, nik uste batütien, phastoala egin beitie / badakitela, biltzen düte, batüzte, maite tüzte, igaiten tüztenak, iten tzuten*.

Lexikoan ere Zuberoa guztian orokorrak eta baliatuak diren itemak aurkituko ditugu Ainarben, bai euskaratikakoak eta bai maileguak: *bedaka* 'belarka, belar biltzea edo moztea', *bedatsin, elestan, bide ttipi eli bat & eli batetan, hürrentzilak* 'bukaerara', *khantin* 'ondoan', *net* 'guztiz', *ñabo, seteme*. Aldaera lexikoetan honako beste hauek: *anaie, belhainko & belhainkoz, bezainbeste, biamen, etxekitzen, gazna, haitxe* 'haritza', *hanitx, hüllanik ee, hüñez, khutxiez, mithil, ogei* 'hogei', *pakhatzen* — baina baita *pagatü* ere —, *üskaa*. Bestalde, Ainarbeko gure lekukoak *behor* baliatu du eta ez ***bohor*.

6.6.4. Zolako muga: Arüe, Sarrikotapea eta Ündüreine

Amiküztarrei Donapaleutik Maulera doan zola horretan euskara xibero-tarraren muga non den galdegiten zaienez, batzuek Etxarri aipatzen dute eta beste frankok Arüe; Etxarri eta Arüe herri koxkorak dira eta bata bestearen ondo-ondoan daude. Errate batera, Zohotan guri Arüe aipatu digute, aldiz, Zuberoarago joanez gero, hiztunek Sarrikotapea aipatzen dute mintzoen arteko mugatzat.

Olhaibin guri Sarrikotapea eman digute xuberotar *phürraren* lehen herri-tzat eta Arüen ere horrela erran digute; hona anai-arreba arüetar batzuek errana:

Domintxiñe artio uzü, la Soule *Domintxiñe artio*; arrebak Etxarri eta Arüe euskararen berdinak direla dio eta anaiak dio euskara Domintxainen aldatzen hasten dela. Domintxainez arrebak honela dio: *etzü bate ber eskuara horrat e, eta horrat e etzü ber gauza, heben Mauleko aldeat, xubeatar, Xubeako aldeat, horrat Xarrikota hasten tzü, Xarrikotan hasten tzü hor Xubea*; lekukoak funtsean mintzo zuberotarrak dihardu, baina baita Mauleko kantonamenduko administrazio-barrutiaz ere, izan ere, Sarrikotapea Mauleri eta Arüe Donapaleuri atxikirik daude.

Domintxaine, Berroeta, Ithorrotze, Olhaibi, Etxarri, Arüe, Sarrikotapea, Ündüreine ibilbidea egin dugu guk, herri guztiak banaka kurririturik eta ditugun datuak ditugularik, Arüe / Sarrikotapea / Ündüreine hirukotean uste dugu aipa daitekeela dagoela muga: Ündüreinen bat zinez zubereraren barrenean sentitzen da; Arüen, berriz, zubererazko ezaugarrien kopuru hazia ageri da, baina Baxenabarre edo Amiküzeko anitz tasun baliatzen dute, ez da oraino zubereraz egiten Arüen, baina Xiberoako ezaugarri ugari ate joka ditugu bertan. Arüetik Maulera bidean dagoen Sarrikotapea litzateke zubereraren lehen herria beharbada, baina herri honetan ere badira Amiküze urrun ez dela salatzen diguten ezaugarri bakan batzuk, horregatik diogu Ündüreinen sentitzen dela ikertzailea zubereraren guttiz barrenean.

6.6.4.1. Arüeko ezaugarriak

Aita-amak Arüekoak zituzten eta beti herrian bizi izan diren bi anai-arrebarekin egindako elkarriketa baliatu dugu herri honetan, gehienik arreba (1932) mintzatu bazen ere; anaiak (1940) ia ez zuen parte hartu. Ikertzailearen aitzinean anai-arrebak biak elkarrekin egoteak mintzoa leialxko atera dadin laguntzen du. Bestalde, solastatzeko garaian hirugarren arüetar bat ere bazegoen gurekin: aiseago eman ditzake lekukoak aldaera arrotzak edo berezixeak, aitzinean ikertzaile ezezaguna baizik ez badu, baina sukalde hartan hiru arüetar euskaldun zeuden ikertzailearekin.

Arüen aldaeren bikoiztasunak ageri dira, pertsona berak orain *ano* eta geroxeago *ardu* edo *ardü* baliatzen ditu eta ezaugarri frankorekin gertatzen da hori: Mauleren eta Donapaleuren arteko eremuan gaudela ezagun du lekukoek euskarak. Halaz ere, aldaeren bikoiztasuna ez da Pagolan bezainbatekoa. Hona Arüeko adibideak:

Bikoiztasunak: fonologian galdetzailean *nola* eta *nula* arteko hotsa entzun dugu eta *huna* & *hona* ‘ona’, bi aldaerak baliatu dituzte. Diptongoetan pertsona berak *gau* / *gai* darabiltza, nahiz *gauza* hitzean lekukoek ez duten aldaera palatalizatua eman. Kontsonanteetan ttap-aren galeran *oro* & *oo*, *sobera* & *sobe*

adibideak entzun ditugu, baina galera aski hedaturik dago: *ei* ‘eri’, *etxekhandeia*, *iina* ‘irina’, *iosten* ‘erosten’ *zia* ‘zira’, eta badira Zuberoako eran dardarkari diren adibideak ere: *hurra* ‘ura’, *rre* ‘ere’, *zirrea* ‘zara?’ . Adizlagunetan herskari ahostuna eta ahoskabea entzun ditugu: *hengo* / *heenkuk*, biak. Hitz hasierako *j*-n ere hitz zenbaitetan, baina guztietan ez, bi hotsak entzun ditugu: *jan* / [ʃ]an, *jendeak* & *iende*, *jente* / [ʃ]ente, *juiten* & *joaiten* / [ʃ]un & [ʃ]uiten. Aditz nagusien etorkizuneko forman ere bietara entzun dugu *i* eta *ii*: *ohartiko* / *arrastratiiko*, lehenak Amiküze gogorarazten digu. Lexikoan ere bikoiztasuna dago: *baso* / *goollet*, *geiooxago* / *habooxago*. Aldaerek ere bidegurutzean gaudela erakusten digute: *algar*, *ano* / *ardo* & *ardu* & *ardü*, *ukhan* / *ükhen*; aldiz, ez dakigu *zalu*, *zale* ala bi bokal horien arteko hotsa entzuten dugun, baina zalantza honek ere bidegurutzea adierazten du.

Hona orain Zuberoan bezalako ezaugarriak Arüeko elkarrizketan entzun genituenak: fonologian Pettarreko bokal hersketak ageri zaizkigu: *ardik*, *baatzin*, *behik*, *gaztiaguk*, *heenkuk*, *ondun*... baina badira *ardiak* edo *ondoan* adibide osoagoak ere. Diptongoetan *beit* ageri da: *beitzen*, *ezpeitakit*; bokal sudurkariak ere badira batzuk: *ähälaz*, *ähäteki*. Hitz hasierako *j*- foneman hurranen hitzek sabaiaurreko ozena dute: [ʃ]arraiki, [ʃ]eiki, [ʃ]in, [ʃ]o & [ʃ]oiten, [ʃ]osten; baita *arre[ʃ]unta* mailegua ere. Izenaren morfologian soziatiboan *-kin* da baliatuen, baina *algarreki* eta *mazineki* ‘makinekin’ erak ere bildu ditugu; adlatiboan, berriz, *bestila* —bokal aldaketarekin— eta *üzkila* adibideak agertu dira mintzatzean. Aditzaren morfologian *zünin* ‘zenuen’ Zuberoara begira dago eta baita moduzko perpausetan aditz-izena baliatzea ere: *edo oono xilintxa atekin hola* [ʃ]oitez / eta *khanbiatzez*, *beaizi biziki eman geo*, *biziki meza*. Lexikoan *eo* ‘hil’ edo *setemer* hitzak agertu dira eta baita honako aldaerok ere: *bardin*, *elkhi*, *gazna*, *gordatzea*, *phakatii*, *sendotzen* ‘sendatzen’.

Hona orain Amiküzen bezalako ezaugarriak Arüeko elkarrizketan entzun genituenak; fonologian herskari ahostunak ditugu ozenen ondotik: *atsalde*, *bazkaldü*, *ezküindü*, *heldü*, *iande* ‘igandea’; baita destinatiboaren atzizkian ere: *etxekhandeandako*, *nausiaendako*; aldiz, *Pai[ʃ]en gainti* adibidean postposizioak herskari ahoskabea du; kontsonante taldean *hak* ‘hark’ ageri da gure emaitzetan. Izenaren morfologian izenordain zehaztugabeetan *n*- darabilte: *niuek*, *niun e*; berebat *-xe* atzizkia *-k* gabekoa da: *hortxe*, nahiz badakigun Zuberoan ere badela *-xe*. Aditzaren morfologian atzizki berria ageri da aditz izenetan: *ekhartzen*, *ezartzen*, *ibiltzen*. Baxenabarren bezala Nor sailean *zinden* ‘zinen’ darabilte eta Nor Nori Nork sailean bada *-ko-* datiborako: *galde zakozü horri*; *emaiten bazandakoten*; halaber, hirugarren pertsona pluralean *-te* da Nork morfema: *beituzte* & *ezpeitüte*. Lexikoan *atsalde* hitza aipa daiteke eta aldaera batzuek ere mendebalera begira jartzen gaituzte: *bedeatzi*, *bihamun*, *ederra*,

emezortzi, eskuara, galdein, haitza ‘haritza’, *hamoost, hanitz, phesta, txekha & xekhatzen*. Ikertzaile ezezagun euskaraz arduratua etxera sartu zaielako edo, beharbada euskara txukunagoa eman nahiz, *ortzeüna* aldaera ere agertu da elkarrizketan.

6.6.4.2. Sarrikotapeko ezaugarriak

Zubereraren lehen herrizat jo ohi da herri hau; bertan izan ditugun bi lekukoetarik baten ustez, Zuberoa Sarrikotapean hasten da, Domintxaine-eta ez dira Xiberoa:

ez, huk, manexago mintzo tützü de[3]a Aüben hasiik, Domintxiñe sustut manexago üzü, Etxarri e amiñi at manex düzü, bena gue aldeat amiñi bat nahas; Aübe ber gaiza, aprespres gü bezala [mintzo dira].

Lixoze herri bearnesetik bi kilometrora kokaturik baitago, euskara guti egiten da Sarrikotapean. Baliatu ditugun bi lekukoek, bakoitzak bere ñabardurak ditu. Bata gizon laboraria da (1928): haur denboran euskaraz egiten zuen, gaztean euskara erdi utzirik zeukan, baina gerora helduaroan berriz euskarari heldu zion; aita etxekoa zuen eta ama lohitzüntarra; emaztea, berriz, domintxaintar euskalduna du. Garbi utzi du garai bateko merkatu nagusia Donapaleukoa zela beren eskualdean, Maulekoa ttikiagoa zela; *bohorra* eta karrosa harturik, Donapaleura joko zuten garai batez ostiraletan.

Bigarren gizona (1923), gure aspaldiko ezaguna, saltzaile izana zen: ama oihergiarra zuen eta aita etxekoa; emaztea nafar orbaizetarra, orain euskaraz moldatzen dena. Ostatua zeraman gizon honek herrian, baina *Guyenne*-rekin saltzaile *turnada* egiten luzaz ibili zen herriz herri; hori dela eta, ezagun du manex aldera nahasten zuela mintzoa.⁵⁹ Guk Sarrikotapeko mintzoa garbiago ematen duen laborariaren erak aztertuko ditugu lehenik.

Bikoiztasunak aurkeztuko ditugu lehenik. Fonologian herskarietan ageri dira: *heldü / heltü, etxalde / etxaltía, herritarrendako / khanbeentako, [3]un nahi denaintako, oontako, beentako...*, baina gure datuetan ozen ondoko herskari ahoskabea nagusi da: *aphaltia, gaintik —heben gaintik—, hanko, hunkallík, igantia, presontegia, sükhalte, ülhüntü...* Adibide berexi eta ezohiko bat badu, guk uste hiztunaren lapsusari gehiago dagokiona, euskara guti egiten baita Sarrikotapean: *galdü / galtü*; iduria da *ibili / ibilü* adibidea ere, guk uste lapsusa den, nahiz honek ez duen adierazten adibideok fonikoki edo morfologikoki eraginak ez direnik. Diptongoetan Zuberoako ohiko *beit* darabil —*beinien, beigüintin,*

59 Lekuko honen aldaerek ordezkatu zuten Sarrikotapea Pedro Irizarren aditz tauletan (2002b).

beita, beitaki, beitia, beitude, beitzen, beitzien, beizizien —, baina elkarrizketan, Baxenabarren bezala *ezpitzzen* erran du behin.⁶⁰

Izenaren morfologian, ablatiboaren atzizkia leku izen bereziari lotzean, *-tik* nahiz *-rik*, bi aldaerak entzun ditugu: *Aljeriatik, Aübetik, Mauletik / Baiunaik, Etxarriik, Orthezeik, Xarrikotaik*.

Aditzaren morfologian, hirugarren pertsona pluraleko Nork morfema nagusiki *-te* darabil, baina ez da *-e*-ren adibiderik falta: *egiten baute; bazüte-lakoz; etzakitenik e; dakitenik; ezaia ütela; ezpa züzten oro [ʒ]aten / ze iten dien eztakit; ützi zien ‘zuten’; deitzen tzüena ‘zutena’; ahal düen lekhuat; afermatzen tüenak*. Aldiz, ondoko Ündüreinien ez zaigu *-e* baizik agertu: *deie, deikie, deitadie, die, gütie, tütie*... Mintzatzen ari zela, hitz batean zalantzaz bezala jokatu du, lehenik Baxenabarreko hitza eman baitu: *ez eiakoitz, ez neskenegün ooz, ez*; beste kasu batean bi hitzak baliatzen direla erran digu: *arratsaldia / arrastia*, baina lehena erabiliagoa dela aitorturik. Aldaeren bikoizketa sumatzen da Sarrikotapean: *atxeki / etxeki, bedeatzi / bedeatzü, ükhan / ükhen*.

Baxenabarre aldeko ezaugarriak dira honakoak, Sarrikotapean agertu zaizkigunak: aditz nagusiaren etorkizuneko aldaeretan Amiküzen bezala egiten du: *aipatiko, kunprenditiko, sartiko*. Izenaren morfologian izenordain zehaztuga-beetan *n-* darabil: *nihu, nihui*; *-xe* atzizkia Zuberoan ohikoa den *-k* gabe darabil: *holaxe, horxe*, baina ondoko Ündüreinien *-xek* bildu dugu guk. Lexikoan men-debalera begira dago *üdalen* ‘iraulden’; aldiz, *xikitatzen* ez da hitz ezezaguna Xiberoan. Sarrikotapeko aldaera batzuek ere Baxenabarreko kutsua dute: *artio, hágik* ‘haragiak’, *hamoost & amoost, lapinak, phesta, txekhatü* ‘bilatu, xerkatu’.

Zuberoako ezaugarriak dira Sarrikotapean entzun ditugun hauek: fonologian prosodia aipagai da —*osagarría*—, izan ere, Sarrikotapeko euskarak Zuberoako azentu eta doinurat jotzen du; bestalde, *gaiko bala* ‘gaueko dantza’, *gaizak, haitüik* ‘hauturik’ erako diptongoak daude; hitz arteko txistukari bokalartekoak ozentzea ere gerta daiteke: *ardi[z] edo, gaia[z] e geo*; sabaiurreko ozena dago hitz hasierako *j*-foneman: *[ʒ]akin, [ʒ]eiki, [ʒ]ente, [ʒ]in, [ʒ]inkua, [ʒ]oiten, [ʒ]jun*; Pettarreko bokal laburdurak baliatzen dira: *hein bathin, urthin, zaharraguk*; ttap fonemaren galera azkarra da: *iamaiteko* ‘eramateko’, *iostea* ‘erostea’, *iostunak* ‘erostunak’; dardarkarian *orro & oro* bikoizketa ageri da eta baita *orron* ‘orena’ ere; galdetzaileetan *nula* eta izenordainetan *nurbaitek* bildu ditugu; bokal sudurkariak ere entzuten dira: *ardüik, arrazü, desühüe, ñhñzlaiak, [ʒ]anbü* ‘urdaiazpikoa’, *xähäl*...

60 Zuberoako Olhaibin *biginen* ‘baikinen’ ageri da; *bit-* aldaera arrunta da Olhaibin.

Izenaren morfologian *huk* dago hirugarren mailako erakusle pluralean; ablatiboan izen bereziekin *Baiunaik*, *Etxarriik* edo *Xarrikotaik* erakoak baliatzen dira, nahiz *Mauletik goiti* adibidea ere bildu dugun; mugatu singularrean bukaeran doa azentua: *eskolán*; genitibo lokatiboan hitz batzuetan *n* ageri da: *etxenkuk*, *goizanko*, *ordiünko*; adlatiboan *bestilat* —bokal aldaketarekin— edo *mendilat* erakoak entzuten dira; kasu instrumentalak egiletasuna adieraz dezake: *ez solamente alemanez atzamanik izan behar*. Perpaus konparatiboetan *ogia e etzüün nahi bezainbeste* bildu dugu. Aditzaren morfologian *dagüin urt...* ‘datorren urtean’ eta *güintin* ‘genituen’ Zuberoari begira daude, *nahi* aditzaren jokaera iragangaitza bezala: [*ʒ*]un nahi denaintako; [*ʒ*]un nahi etzena; berebat, moduzko perpausetan aditz-izena ageri da: *bena uai xaharrak ai tütüz güititez bethi / eta ardik e bai, eta bethi handitzez... bethi haboo*.

Zuberoako hitz bereziak dira *arrasti*, *askaiten*, *erre[ʒ]enta*, *hatsarrín*, *legarrak*, *neskenegünez* eta *seteme*. Hona aldaera zuberotarrak: *algar*, *ardü*, *bar-din*, *bohor*, *egorten*, *elkhi*, *entzüin* —ez Baxenabarreko *intzun*— *espaantxetan*, *gazna*, *goizan*, *gordatzen*, *hanitx*, *pakhatü*, *üskaa*, *xinkhor*. Atzizkietan *-kan*, *-tarzüin*, *-us* eta *-xkot* aldaera zuberotarrak entzun ditugu: *pelotakan*, *eitarzüinak*, *bi ogixkot*, *phenü[ʒ]ena*.

Manexera lerratzen da Sarrikotapean ukan dugun bigarren lekukoa (1923); harekin egin dugun grabazioan agertu aldaerek guztizko bikoiztasuna ageri dute; binaka dakartzagu joerak eta adibideak, aldea argi ager dadin; lehenik alderdi fonikoko sei berrikuntza zuberotarren erabilera dakargu; azkenik bokal sudurkarien agerpena:

1) *u* bokalaren palatalizazioan, aldizka bikoiztasuna dago: *borthüirat / borthutik*, *ezkhüntü / ezkuntuik*, *gü / guekin*; dena den, ohiko *ü* nabarmen ageri da: *enüindian*, *güti*, *gütük*, *heltü*, *üngüria...*; bestalde, *-tüko* > *-tiko* bilakabidea dakar: *hartiko*.

2) *o* > *u* bilakabidea: *ezkhüntü*, *huñez*, *muztu*, *nula*, *nurbaitek*, *zumait*; baina *zonbeit* eta *zoñek* darabiltza ere, Zuberoan ezezagunak ez direnak.

3) *aizoan* & *aizoetan*, *belhain / gau*, *gauzak*.

4) [*ʒ*]akin, [*ʒ*]in, [*ʒ*]uan & [*ʒ*]uaten ‘joaten’ / *jakhiten*, *jarriik*, *jaten*, *jeistia*, *jende*, *jiten*, *joiten*, *jun* & *joan*; baita *iarraikitzen* eta *iende* ‘jende’ ahoskera leunagoak ere.

5) *autza* ‘arotza’, *gazteia* ‘gazteria’, *handikeia*, *heexa* ‘herexa, arrastoa’, *hua* ‘hura’, *iosi* ‘erosi’, *laboai*, *otan* ‘orotan’, *üdüi*; Zuberoan ohi bezala, *ezái* ‘ezarri’ hitzak ez du dardarkaririk eta ondoko adibideetan ttap fonema tinkatu da: *berra* ‘bera’, *berroa* ‘beroa’, *eorri* ‘erori’, *harria* ‘harea’, *hirirrat* ‘hirirat’,

horri ‘hori’, *hurra* ‘ura’ & *hurra* ‘hura’, *orro* ‘oro’, *Xüberroan*; aldiz, honako etsenpluetan bada *r*: *akhidurak*, *etxekandere*, *landare*.

6) “ozena + herskaria” elkarketa: *aphaltü*, *etxalte*, *ezkhiüntü*, *hanko*, *heltü*, *hemeko* & *hebenko*, *hor gainti*, *igantía*, *kantonamentü*; destinatiboan *Dübo[z]entako* / *ezk(h)üündü*, *heldü*, *igandia*, *landare*, *zangoak*; destinatiboan *artoaindako*.

7) Bokal sudurkariaren adibidea dakar *āhate* hitzean.⁶¹

Izenaren morfologiako ezaugarrietan ere bikoiztasunak ageri dira hiztunaren jokabidean: soziationean *manexeki* / *alkharrekin*, *astoaikin*, *beroaikin*, *guekin*, *nihuekin*, *ostatiakin*, *xübeotarrekin*; ablatiboan *traturreti* ‘traktoretik’ / *Biarnotik*, *borthutik*, *nuntik*; adlatiboan *alderdilat*, *bortüila büüz*, *klinikala*, *retretala*, *sabailat* / *borthüirat* & *borturrat* ‘borturat’.

Zenbait erabileratan Baxenabarre aldera jo du, edo Zuberoan baizik baliatzen ez diren ezaugarrien ordain, hedadura handiagokoak baliatu ditu: instrumentalean izenordain pertsonalarekin *nitaz* dakar —eta ez ***nitaz*—; berebat, polaritate negatiboko izenordain zehaztugabea *nihuekin* dakar; bestalde, osagarri zuzenean hirugarren mailako erakusle pluralean *saltzen heek* dakar. Zuberoakoa da *arrebáa diat* adibidean mugatzailea eta berezko *-a* biltzen diren guneko azentua, ondoko bigarren *a* hori zubereraz ezohikoa bada ere; *kartaka partida at* adibidean *-ka* atzizkiaren erabilera hori ere Zuberoakoa da, baina Amiküzen inoiz agertzea ez da ezina. Izenordain pertsonal hanpatzaileetan *gühook* ‘guhauk’ dakar.

Aditzaren morfologiaz denaz bezainbatean, hona bikoiztasun adibide batzuk: aditz nagusiaren aurrizkian *e-* / *i-* ibili ditu: *ebilten* & *eiltten*, *egortzeko*, *elkhitzen*, *eüüki* / *iiltten*, *i(g)orri*. Baita Zuberoako ohiko Nor Nori Nork sistemako *ezteitak* ‘ez dereitak’ era ere —euskara batuko ‘ez didak’—, baina horrekin batean baita mendebaleragoko adizkiak ere, Zuberoa orokorrean ageri ez direnak: *dauzut* ‘dizut’, *zakon* ‘zion’.

Berriemaile honek eman aditzaren morfologiako aldaeretan, Zuberoako joerak, Amiküzekoak nahiz hedadura handiagokoak ageri dira: hirugarren pertsona pluraleko Nork morfema *-te* darabil: *beitüite*, *ezpeitüite*; Amiküze aldera jotzen du *gitzak* ‘gaituk’ adizki aldaerak, baina badarabil *interdialect* itxura duen *gützak* ‘gaituk’ aldaera ere. Hedadura handia du *ohit nüik* ‘oroitzen naiz’ erak, ez da soilik xiberotarrena; ondoko aldaerok ere ohikoak dira Zuberoan: *eskapi* ‘ihes egin’, *ezkapaiko nitzala*; *zütiät* ‘zaituztet’, *güntian* ‘gintuan’.

61 Lehen *a* hori sudurkari entzuten dugu nabarmen; bigarrena ere sudurkaria izan liteke beharbada.

Sintaxian ez dugu hainbesteko bikoiztasunik aurkitu: erlatibozko perpaus korrelatiboetan Zuberoan eta Amiküzzen bederen ohikoa den *non e bitzen etxea* adibidea dakar eta itxaron zitekeenez, konparatiboetan *bezanbeste* partikula bildu dugu: *nahi nian bezanbeste*. Berebat, moduzko perpausetan, instrumentaleko atzizkia aditz-izenari lotzen zaio: *bazian beharra re, denak esküz itez*.

Lexikoan Zuberoako hitz ugari baliatu du: *ardail* ‘belarraren bigarren uzta’, *arrasti*, *manex*, *neskenegiin*. Zuberoako aldaera anitz dakartza ere: *ala[ʒ]inkua* ‘alajainkoa’, *alegrantxa*, *alkhar*, *aurhíde*, *batü* ‘gelditu, baratu’, *beit* ‘bait’, *ber*, *bürdüña* ‘burdina’, *ebi* ‘euria’ —Nafarroa Behereko *uri* edo *euri*-z bestela—, *ehaxten* ‘jaisten’, *elkhi*, *erri in* ‘irri egin’, *etxeitzen* ‘atxikitzen’, *eüüki* ‘iguriki’, *ezne*, *galduak* ‘eskaerak’, *gazna*, *giel* ‘gibela, atzealdea’ —Nafarroa Behereko *gi(h)il*-ez bestela—, *gordatzzen*, *hanix* ‘anitz’, *heben* & *heen*, *hoei* ‘hogeia’ —Nafarroa Behereko *hogoi*-z bestela—, *hüstü* ‘txistu joaldia’, *iatsi* & *ietsi* ‘jaitsi’, *igan* ‘iragan’, *igaille* ‘iragalea’, *khanbea*, *khoditü* ‘izorratu’, *kholpü*, *khüütatü* & *khüütetako*, *losko*, *pakhatü*, *pintoaikin* —ardo neurria da *pinto* & *pintu*—, *üdüü*, *ukhen* & *ukheiten*, *üngürü*, *ürrietan* ‘urrian’, *üskaa*.

Hona mendebalerago begira dauden hitzak, zuberera orokorrean bestela direnak: *gita* ‘ahatea’, *iakoitz*; hurraren aldaerok ere beren era berezia dute zuberera orokorrean: *anixko*, *ano* ‘ardoa’, *atxiitzen* ‘atxikitzen’, *bedeatzi*, *berdin*, *bihamon*, *bit* ‘bait’ —*binien* ‘bainuen’, *binitzan* ‘bainintzen’, *ezpita* ‘ezpaita’—, *eeman* ‘eraman’ —Belapeirek *eraman* eta Zuberoan iraganean *eroan*—, *eder*, *galdein*, *hautsi*, *hemezortzi*, *paatia* ‘pagatua’ & *pagazten* ‘ordain-arazten’, *phesta*, *ükhan*, *xeka* ‘xerka, bila’.

Hurraren hitzak Zuberoakoak dira, baina herrialde honena baino hedadura zabalagoa dute: *amiñi at*, *apairü*, *arrapartitü*, *arraseme* ‘biloba’, *borta* ‘atea’, *borthü* ‘goi mendia, udako pentzea’, *begia(tü)* ‘zaindu’, *bultta at* ‘ixtant bat’, *despendio*, *eihera*, *emeki-emeki*, *eontsi*, *gi[ʒ]jala* ‘dirudienez’, *idor*, *jun-jina* ‘joan-etorria’, *kaale* ‘aberea’, *küküla* ‘goiko alderdia, burua’, *mentüaz* ‘beharbada’, *paketik* ‘askorik’, *untsalaik e* ‘ondo bidean’, *zarmanta* ‘xarmanta, atsegina’.

Aldaeroi ere berdin gertatzen zaie, zuberotarrak dira baina ageri dira Baxenabarren ere: *aitañi*, *bestañez* ‘bestela’, *gazteña* ‘gaztaina’, *mezpera*, *hilaite* ‘hilabetea’, *phutiko*, *zerbitxatzeko*. Amiküze alderdikoa dirudi *phintziak* ‘pentzeak’ aldaerak. Atzizkietan *-tra* dugu: *saskitraka* ‘saskiak betean’.

6.6.5. Pagolako bikoiztasunak

Zuberoan nahiz Baxenabarren kokatu ohi da Pagola, baina mintzoaren aldetik oztibartarrez bestela mintzo dira eta hein handian pagolarren euskara

Zuberoakoari so dago, nahiz ez den guztizko zuberotarra; Zuberoa eta Baxenabarre artean zangalatrau dagoen herria da eta bertara franko jende baxenabartar ezkondu dela entzun dugu. Pagola herria Oztibarren sartu ohi da, edo ibarreko abeltzainen sindikatuko kide da bederen. Zuberoako Muskildi ondoan du eta Lohitzünerekin ere harremana dute, nahiz Lohitzüine herriko mintzoa ez den zuberera. Baxenabarreko Oztibarreko Jutsi ere ondoan du eta Amiküzeko Uhar-tehiri hamar kilometroa.

Historikoki Pagolako herriari Jutsiko atal bat gaineratu zitzaion XIX. mendean, elizaz Pagolara jotzen zuten jutsiarrena, udalez Jutsikoak baziren ere. Egun ere, Izpaxuriko erreka alderdi bateko hitzun orain pagolar eta lehenago jutsiarrek mintzo manexagoa egiten dutela entzuten dugu jende pagolarrengandik berengandik.

Pagolako etxeen kokagunea Izpaxuri erreka alderdi batean ala bestean dago: Zibitzen dioskutenez, Pagola Oihan eta Pagola Uhaitz bereizten dira. Senarra pagolarra duen lekuko gabadiar batek kontatu digunez *urak iten tzi limita, han bauzü eReka pasatzen dena, eRekaz haindian xiiberataRa uzü, ta eRekaz huindian manexetik baizi biziki*. Senar pagolarrak dioskunez *familiak haunditzian* auzo berrira jo zuten batzuek, *Pagolakotik Jutsikorat ioan tziren, Baxenafarroko eskualderat, hek oro manexeko alderdiat pasatzen tzien* eta auzo berriko etxeek izen luzeak dituzte, *-borda* edo *-oihana* erantsirik: *Etxeberriborda, Salaberriohania...*

Guk bertako senar-emazte laborari batzuekin bildu ditugu datuak. Ama Oztibarreko Donaixtikoa eta aita pagolarra zituen senarrari (1939) inkesta egin diogu; berebat, aita-amak pagolarrak zituen emaztearekin (1948) elkarrizketa luzea egin dugu; inkestatik solasaldi laxoa egin artean, zazpi hilabete joan dira. Bi hizkuntza-egoerak bereziak dira, bietan ikertzaile kanpotar bat egon baita lekuko pagolarraren aitzinean, baina inkestakoak baino, solas laxoko mintzoak aukera handiagoa du Pagolako egunorozko era izateko. Aldiz, itxaron daiteke inkestan errazago dela lekukoak halako hizkuntza-egokitasuna bilatu nahia, edo erreferentziazat duen mintzorat lerratze joera ukaitea. Inkestako eta solas laxoko emaitzak elkarrekin ez nahasteko, inkestan bildu erantzunak nabarmendurik edo azpimarraturik utzi ditugu.

Pagolako gertakari nabaria da bertako mintzoan ageri den bikoiztasuna, Baxenabarre nahiz Xiberoako erak batera agertzea; guk lehenik bikoiztasun adibideak emanen ditugu, Nafarroa Beherea / Zuberoa hurrenkeran; inoiz ikusiko da ezkerreko forma ez dela Baxenabarre guztikoa, Amiküzeko baizik: *atsaldeko* & *atsalditan* / *astiskaia*, *ebiakoitza* & *iiakoitzaikin* / *neskeneiina*, *garbitü* / *xahätzea*, *gehio* / *habooxiek*; hona aldaera lexiko batzuk: *abendia* / *abent...*, *ahatzü* / *ahatzeik* & *ätze*, *ainitz* / *hanitx* & *hanitx*, *aldexian* / *altexeko*,

berdin / bardin, baskaia / bazkai, behor / bohor, belhauniko / belhaiñak, elgar & elgar / alkhar, euri & euri / ebi & ebi, eskuaraz / üskaaz & üxkarraz, galdein / galtatzea, ga[ʒ]na —behin gasna— / gazna, gaixüma / gooxüma, gau & gauaz / gai & gai, emezortzi / hamazortzi, igandia / igantia & iante, lapinen / lapi, muthil & muthilek / mithil, sa[ʒ]uiña / sas[ʃ̃] & sa[ʒ]utik, ürri & ürrian / ürrieta, xerkhatü / txekha, xütik / xüti^k.

Gramatikari dagokionez ere, bi joerak dakuskigu. Fonologian: *hartiko üzii / maneatiiko —EHHA-k ekhiatiiko dakar—; gaintitü, heldü & heldü / ezkhüntü, gaintitü, hankua ‘hangoa’, heltü, lagüntü, -ntako* atzizkia, *zabaltü; ezpitzien / beitzen, beitzet; xoriak / etxekandeia, iosi ‘erosi’, xoiak, zaiak ‘zareak’; berra ‘bera’, orrai ‘orai’, orro ‘oro’; jan / [ʒ]an, jarraikitzen & jarraitzen / [ʒ]arraikitzen, jaten / [ʒ]aten, jende / [ʒ]ente & [ʒ]ente, jirik —baina senarrak inkestan aldaera manexa dela dio— / [ʒ]in, joan, joaiten / [ʒ]un & [ʒ]un. Izenaren morfologian: *Donaxtitik, Oztibarretik, Urdiñarbetik / Mauleik horra niz; goatasüna / eitarzüna & eitarsün, xehetarsunak*. Aditzaren morfologian: *jün zako / [ʒ]in zoo, [ʒ]in ziook ‘zaiok’, zozün ‘ziozun’.**

Zuberoari begira jartzen gaituzten Pagolako emaitzak dira beste hauek: fonologiakoak dira *nü[ʒ]enez, iosi ‘erosi’, ühüñak, xahü*. Izenaren morfologian: *huk & huk; mezá, nexká, alhabá; alderdilak, arditeilat, bankulat, kafilat, merkhatilat; goizan —baita bihar goizün & bihar goizian ere—, beant artino & Pai[ʒ]e artino*. Aditzaren morfologian: *deitazüt ‘dit’, zeitazüt & zitazüt ‘zait’ zuketan; konparazio perpausetan: ez uai bezanbeste; kaidea bezanbeste [ʒ]ente*.

Hona alderdi lexikoa: *akhodiñak, eetzián ‘eretzéan’, ehaiten, godalet, heltübada, khünte —emazte khüntiai—, latsün, phüü, seteme, üñhüa, ühaitza*. Aldaerak dira honakoak: *aihai & aihaitea, azku ‘azkona’, egükatiü, elhestatzen & elhesta ai, elkhü, **eder —azpiatal honetan bi izarñoek adierazten dute inkestan erran zaigula forma hori ez dela herrikoa— / ei[ʒ]er, ezne, gaiza, haitx ‘haritza’, hatsarretik —senarrak atsarre ukatu zuen inkestan—, hautse, hüllan, inkhatz, [ʒ]eiki, [ʒ]inko, kaidea, khirixti, khüütxe, leizar, mintza[ʒ]e, nula ‘nola’, phakatzia & phakatzeko, sakola & (t)xakolan, ük(h)en, txilintxau, xinkor, zelia, zühañ ‘zuhaitza’.*

Baxenabarrekoak bezalako emaitza lexikoak Pagolan: *botatiü / **urtuki, finitü & fini —**ürhentü* Urdiñarben eta Muskildin dela dio lekukoak inkestari erantzutean—, *kopeta, primadera & primadea / **bedatse*. Ez da Baxenabarren orokorra, baina bai Amiküzén baliatzen dena *paketa* ‘anitz’ hitza, Pagolan entzun duguna.

Hona aldaerak: *anua* ‘ardoa’, *atxikia*, *bedeatzi*, *bihamiin*, *galdo*, *hagía*, *hamoost*, *hertziak* & *herzi*, *idiü*, *intzüten*, *iñhürria*, *jestatü* — *Xübean txeste dela dio* —, *josten*, *khantü* ‘abestia’, *noit* ‘norbait’, *nihu e* & *nihü e*, *ollategietaik*.

Hona Pagolan baliatzen ez diren Zuberoako hitzak: ***eli bat*, ***thai gabe*. Hona aldaerak: ***aiñharba*, ***neskatxuna*.

Aditzaren morfologian emanak: *baliüte*, *düte*, *(t)zütena*; *joan nahi dut*, *[3]un nahi diat*, *[3]un gei diat*.

Belaunaldi bat gibelera jotzen baldin badugu, hizkuntza-aldaeretan joera zuberotarragoa ageri da; Lohitzünetik Pagolara bizitzera joan zen emazteki batek Artolari 1999.ean ziotsoenez, Pagolako lehenagoko euskara zuberotarragoa sumatzen zuen, oraingo aldian baxenabartarrerat lerratzeraz jo du (Irizar 2002b: 47).

EHHA-ko Pagolako lekukoak Videgaini eman aldaerak ere zuberotarragoak dira guk bildu ditugun batzuk baino: *au* > *ai* bilakabidea guztiz ageri da: *gaizak*, *gaia* & *gaiän*. Bokalarteko ttap galdurik dago: *agei*, *axei*, *axui*, *biibil*, *eauntsi*, *ernai*, *espaiak* ‘ezpareak’, *hain* ‘haren’, *ihizlai*, *laboai*, *sobea*, *uin* ‘urina’, *xixaiak*; baita *ezai* ‘ezarri’ ere. Aditz nagusiaren etorkizunean *ekhüatüko* ageri da — baina *EAEL*-k *haunditüko* bildu zuen Pagolan (274. etnotestua) —. Izenordain zehaztugabeak: *ihuk e* & *ihur e* & *ihulaz* & *ihün e* — baita *nihun e* ere —. Aditzaren morfologian *die* ‘dute’ dakar, baina baita *beitiüte* ere. *EHHA*-ko Pagolako hitz batzuk guk bilduak ez bezalakoak dira: *arrestü*, *bedats* — herriko eletzat ez badu ere, *primadera* ezagutzen duela dio *EHHA*-ko lekukoak —, *urthuki*; antzera gertatzen da aldaeretan: *bedatzü* & *bedeatzü*, *txeste*, *üñhürri* & *üñhurri*.

Eskualde honetako guztiko hizkuntza-eraginen berri kolorez hornitu mapa batean irudikatu dugu: Baxenabarreko eta Xiberoako hizkuntza-eraginaren norabideez dihardugun liburu honetako 8.5.9. §-n dakargu 603 orrialdean.

7. Amiküzeko heskuara

7.1. Soziolinguistika: mintzoaren oharmena Baxenabarre eta Amiküzén

7.1.1. Tradizio idatzia Baxenabarren eta Lapurdin

Baxenabarrek garatu dituen eta guregana heldu direlako ezagutu ahal izan ditugun testuen arabera, oro har ez dirudi Nafarroa Behereko euskal idazki dialektal sendoak ontzeko giro berezirik izan denik, XVII eta XVIII. mendeetan bereziki. Bonaparte printzeak arrazoi zuen *baxenabar eskuara* libururik gabeko mintzotzat hartu zuenean.

Ibarrolako Salaberrik San Mateoren ebanjelioa itzuli zuenean (1856), ezau-garri batzuetan Lapurdiko euskarak ederturik edo kutsaturik egin zuela iruditzen zaigu guri eta iritzi berekoa zen Lacombe ere: zioenez, Garaziko, Baigorriko eta Lapurdiko mintzoetarik zeukan itzulpen honek (1947: 290). Alta, Bonaparteren garaiko kristau-ikasbide eta gainerateko itzulpenak dialektalago dira, XIX. mendearen bigarren erdiko Nafarroa Behereko eskualde batzuetako mintzoa leialago islatzen dute: Arberoa, Amiküze eta Garazi eskualdeetakoak dira hiru, Cazenave apezak itzuliak. Itzultzaile honek berak *Gaaziko heskuaran* emana da Jondoni Juane *apostoliain apokalipsa* eta eskualde bereko mintzoa dakar *San Mathiun* ebanjelioak ere.

Aldiz, Baigorriko San Mateoren aldakia, Iribarnegaraik itzuli zuena, ezau-garri batzuetan Nafarroa Behereko gainerateko katiximetarik bereiz doa eta mendebalerat inguratzen da, Lapurdirat, arrazoi geografikoak eta sozio-historikoak direla bide Baigorriko ahozko egungo mintzoari gertatzen zaion bezala; cf. Camino (2004: 455-60 eta 478-83). Bonaparteren aldiaren ondorengo idazle baxenabartarren lanean ere Lapurdiko itzala sumatzen da: errate batera, liburu luzeen egile Jan Piarre Arbelbide kalonjea (1841-1905), Zaroko seme zen, garaz-tarra, baina haren idazkietan Lapurdiko euskararen kutsua ageri da.

Gure lekukoek diotenez haur denboran ezagutu zituzten katixima-liburuak Baionatik heltzen ziren eta ez ziren beren eskualdeko mintzoan ondu. Arbotiko lekukoetarik batek dioskunez katiximan bazen guztietarik zerbait, Zuberotatik salbu: *katixima laphurtar amiñi at eta Amikuzeko amiña at eta Garaziko amiña at eta...*

Nolanahi ere den, Lapurdiko tradizioan aspaldiago nagusitu zen idazmoldearen ioaera aldarazi duten beste hizkuntza-ezaugarri batzuk aurkako norabidean joan dira: Lapurdiko euskararen idatzizko ohitura nagusien tradizioa ekialderagoko edo Nafarroa Behereko idazleen eraginez higitzen hasi zela eta XIX. mendean eragina areagotu zela aipatzen du Josu Pikabearen doktorego tesiak (1993); cf. Ibon Sarasolaren iritzi iduria ere (1991 [1986]: 23-4).

7.1.2. Ezaugarri baxenabartarren gizarte-balioa

Nafarroa Behereko ezaugarriak Ipar Euskal Herriko euskal astekari irakurriean agertzeak Hegoaldeko Federiko Krutwig euskaltzainarengan XX. mendean sortu zuen arbuioa ezaguna da, *gira-zira*-zaleen aurka jo zuen, *zorigaiztoko eta ondiko*zko ekhintzat²⁴ zeukan.

Villasantek eta Mitxelenak ere ez zuten begi onez ikusten Lapurdiko idatzizko tradizio zaharra Baxenabarreko ezaugarriez osatze hori (in Zuazo 1988: 344-5); ez zeritzoten egoki tradizioz idazmolde bat garaturik zuen Lapurdiko euskarari Baxenabarreko kutsua txertatzeari, euskararen batasunaren bidean ez zekusaten ongi. Alta, Nafarroa Beherea Zuberoaren eta Lapurdiren artean zubigintzan kokatu zuen Larre euskaltzain baigorriarrak eta batuari buruz joate horretan, berriz, herria ez ahantera aholkatzen (in Camino 1988: 172-3).

Nafarroa Behereko eta Lapurdiko mintzoen arteko aldeaz usu idatzi dute hala herritar xumeek nola jende eskolatuek, behin baino gehiagotan, eta begien bistan dago anitz jenderentzat ez daudela maila berean; balorazioak, gainera, ez dira atzo goizekoak. Duela mende bete Jean Etxepare Bidegorri mirikuak 1915ean Lapurdi eta Baxenabarre aurkaritzan ezarri zituenean, ez dirudi nagusi zebilen iritzitik anitz urrundu zenik (Charritton 1984: 172): *Sarako lapurtarraren handitik, nola Garaziko baxenabartarraren xehetik* zioskun Etxeparek ematen zuela Manex Hiriart-Urruti idazle hazpandarrak. Azkueren hiztegiak dakarrenez, badirudi XX. mende hasierako oztibartarrek berek ez zutela beren euskara begi onez ikusten; lekeitiarrak hiztegian *gohaindu* item-aren glosa dakarren lekuan honela ageri da: *Ostibarreko mintzo basa hunek asia, gohaindia, okhaztatia bitzauteke ingoitik* (1905).

Duela mende erdi bateko lan batean, Haritxelhar euskaltzainburu zenaren hitzetan ere ageri da ikuspegi honen kideko kutsu zenbait: Baigorriko mintzoak usu *izan* eta *edun* adizki laguntzaileak elipsian darabiltzala diosku, Baigorriko euskarak elkar hizketari itzuli gogorra ematen diola, Baxenabarren Lapurdin baino hitz gutiagorekin mintzatu ohi dela, esaldia laburrago dela, idorrago, lapurterazkoa zabalago dela (1963: 69). Baigorriko euskaran usu idordura

sumatzen du, urduritasuna eta lastertasuna, laburduretarako joera, idazkeratik urruntzen ari den mintzoa (73).

Eta gerora ere gauzak ez dira anitz aldatu, baina jo dezagun lehenik XX. mendearen hasierako oharren printzen ikustera, Amiküzeko euskararen perspektiba ez galtzeko. Jakina da eskualde honetako mintzoa ez dela literaturan kasik erabili; harako Adolf Berdeco hark 1913an Trebitsch ikertzaile austriarrari ziotsoenez, mintzo hau ez da lapurtarra bezain gozoa, ezta Zuberoakoa bezain abila ere eta apezek berek, beren *pheedikietan* bazterrean uzten dute (Etxebarria 1994: 65).

7.1.3. Hazparneko euskararen ospea eta eragina

Dialektologiako lanetan aldi oro berragertzen da hizkuntza-berrikuntza sorten abiagune geografikoa zein izan den jakin-nahia eta teknika aitzinatuz doa; cf. Meschenmoser & Pröll (2012); ikus Hualderen hondarreko lana ere (2015).

Amiküze eskualdeko egungo adineko euskaldun xumeek, elizan aste oroz Lapurdiko euskararen moldeak entzuten dituztenek, hura ederresten dute gehienik, hura zaie euskararik egokiena, beren euskara ez omen da lapurtarra bezain egokia, Hazparne alderdi horretakoa edo Lapurdi barrenekoagoa dute gogoko. Ez dute tradizio baxenabartar sendo bat ezagutu, ikasi edo estimatu, liburuetako euskara Lapurdin sortzen eta idazten da, horrela ohitu dira eta horrela onesten dute. Eta halako gurpil zoroa ere sortzen da ospearen eta eraginaren edo eraginaren eta ospearen artean.

Lapurdiko saihetsean dagoen Hazparne hiriaren kokaguneak ez du Lapurdik bere mintzoa eta Baxenabarrek berea dutelako ikuspegiaren alde jokutzen. Baxenabarreko euskaldun ugariren eskualdeburua izan da hondarreko mendetan Hazparne, aspalditik merkatua izan du eta jendea usu inguratu da bertara. Honela diosku oragarar batek:

ama ta aita ta goxama zena ta Hazparnen tzien iiltzen merkhatian, arrutze saltzen ta hola, amak bazien hemen holako kapeta at erten den bezela, hartan eta zaria ta bate atxiki gabe juiten tzen Hazparnea, xendraka geo, ez bidez bide, xendraka, bazitzien eta, hola mendiz mendi, bazitzien bere bideak, xendra bidiak... nik ikhusi diat ama juiten Hazparneat merkhatura ni hurra nintzqlaik ... ikhusi diat ba juiten uñez.

Ez da urrun Oragarre Hazparnetik: Oragarre → Aiherra → Hazparne edo Oragarre → Izturitze → Aiherra → Hazparne bidea egin behar da, non ez bidea mendiz egin.

Bestalde, kanpotar batzuek garrantzi handiko zapatagintza lantegiak eraiki zituzten hirian XX. mendearen hasieran; bi eragileok erakarpina izan dute ondoko eskualdeetan eskuin-ezker eta goi-behe. Berebat, demografikoki edo demolinguistikoki hazpandarrak ehunekoetan gehiago dira eskualdeko beste euskaldunak baino.

Aberastasuna eta gizarte-dinamika eragin ditu Hazparnek ingurumarian. Alde eta aldi guztietako hizkuntza eta dialektuetan, Hazparnekoa bezalako errealitateek hizkuntza batasun zerbait edo berrikuntza batzuen hedadura bederen eragin ohi dute, bai Euskal Herritik kanpo eta bai hemen ere. Gure ustez baitzepadako eragina izan du Hazparnek hizkuntza-ezaugarri batzuen hedaduran, barnealdeko Ipar Euskal Herriko hizkuntza-berrikuntza batzuk barreiatu izanean munta du hiri honek. Bereziki aipagarri deritzogu artean euskal dialektologia ofizialean guti aipatu den errealitate honi.

Lapurdi eta Baxenabarreko mugaren ondoko eskualdeburu honek gizarte eta ekonomiako dinamika eragin du ingurumarian; hona hiriko industriaz XX. mende hasierako zenbaki batzuk: “mila langile ta gehiagoren lana bazaukaten orduan Hazparneko zapatariek. Dotzena bat lantegitan zabiltzan horiek guziak, haundienak hiru ehunez goiti langile eta ttipienak hogeit bat” (E. Larre 1992: 267).

Odon Apraiz-ek XX. mende hasierako lehen laurdenean Azkueren *Erizkizundi*-rako datu bila zebilenean zioenez (Irizar 1999b: 487), XX. mendean euskaltzale zen hazpandar burgesia hark euskara zuzena mintzatzeko eginahala egin ohi zuen. Larrek Hazparneko *solas arrallanta*-ren berri ematen digu (2001: 217), eta hazpandarraren “jauntasuna” gogora ekartzen ere. Inguruko herritarrek “hazpandar horiek, zer handikariak!” erran ohi dute; Ipar Euskal Herrian euskararen transmisioa abaildurik dagoen garai honetan, ikus XXI. mende hasierako Maia Duguine hizkuntzalari hazpandarraren ikuspegia, ahal ekonomiko gehiagoko hazpandarren balizko euskaldun irauteaz, oroitarazten baitigu Monzon zenaren 1966ko *Hazparneko anderea* antzerkiaren irakaspen irri-egingarria (2009: 191-8).

Gure arabera, Nafarroa Garaiko ipar euskaldun horretan Leitza luke Hazparnek paraleloa, ohiz herri honetan ere hizkuntzaren kalitatea zaintzeko halako gizarte-ardura baitago: harenak egin duela erran ohi da, leitzarren aitzi-nean norbait euskaraz makets mintzaten bada. Inguruko herritarren ahoan usu entzun dugu *Leitza haundi, Madrillen pare!*, edo Orixe idazleak 1935eko *Euskaldunak* olerki lanean zioenez, *iparraldetik dator leitzar arranditsu* (1976: 19); Hazparnek ez bezala, arras euskaldun dirau orain ere Leitza eskualdeburuak.

Egiazki harritzeko da ondoko eskualdeetan Hazparneko euskarak duen ospe ona: Amiküze ibarreko Behauzeko lekuko batek biziki goresten zigun 2006an Hazparneko *eskuara*; guk hari hura aipatu eta, berehala erreakzionatu zuen haren alde eta hain ederra dela nork dioen guk hari galdegitean, bere burua, bere ezagutza ezarri zuen bermetzat: *Au! Hazparnen eskuara ederra da, e, nula!* [Ikertzaileak]: Ederra? Nok erranik? *Niaurek! Hazparnen jende gradoko haundia dira, e!* Kanpaña zolan sortu zenak *jende gradoko haundia zekusan Hazparnen eta hango mintzoa goresten.*

Ez genuke atzendu behar Amiküzera predikatzera Hazparneko misionestek jo ohi zutela eta honek ere eragina utzi dukeela; cf. J. B. Etcheberry apezaren 1986ko *Hazparneko misionestak* liburuxka. Hiri honetan 1821etik aitzinera jardun zuten misionestek herri ttipietara jotzen zuten predikatzera eta haiexez geniharduela, Amorotzeko bi lekukok iritzi bera zuten 2007an: *eskuara ederra zizien ba hek e, beste gi[ʒ]a at e, hor Hazparneko ta eskualde... eskuara ederra hek e, guk beno ederraua.*

Eta Hazparnera bidean den Oragarreko mintzoak ere ospea du Amiküzen. Ezaugarriak aurkeztean ikusiko dugu tasun berri batzuk partekatzen dituztela Oragarreko eta Hazparneko mintzoek. Gainerateko amiküztarren artean Oragarreko mintzoa ederresteko joera sumatu dugu. *Hazparneko eskuara ederra da* dioen gure lekuko behautarrak Mehaine eta Behauzekoa baino ederrago dakusa Oragarrekoa: *Oarrekoa re eskuara ederra da, ba izaitekotz oono errain dut... ederroo iduritzen tzaüt oono dela.*

Amiküztarrek usu ez dute beren mintzoa goresten, ezkerrean nahiz hegoaldean badira berena baino hobek; honela dio lekuko sarrikotar batek:

*geo hen O^harretik goiti, juiten gia Isturitzeat, Hazparne, ezta beRiz
“zu”, eRespetü geihagoekin ai dia el^heka, ta gio, kosta, han e, iduiz eta han
e baden beste heskuara at, guk hen manexek eztu^h, eztu^h heskuaraik edeRena*

Eta Garazi aldekoa ere hobea zaio, ez baita Amiküzekoa bezainbat lerratzen frantsesaren lexikorat; honen lekuko sarrikotarraren iritzia:

nik maite ut biziki Donianeko eskuara, biziki untsa... guk erdia frantsesera juiten gia edo boxi at frantsesarat, andik e hek, heskuara, heskuara egia... atxiki ute, baakite elheka eskuaraz gu beno hookio

Eta Arbotin ere entzun dugu Garazi edo Baigorriko euskararen alde:

na horien heskuara bethi nik biziki ederra hatzeman diat, Garazi ta Baigorri ta hor

Nolanahi ere den, Hazparneko mintzoak Amiküzen duen ospe onaz ñabar-durak entzun ditugu Behauzeko beste lekuko batengandik:

Iisarri ta Hazparne, badie elgar eite, eskuara zukako bat, distantziaiki-lako bat, arraposki mintzo tuk; aldiz, gu [Amiküzen] punpeka bezala mintzo gituk, ni ono gehio beharba, bena, erten die Amiküzeko eskuara jautzikaria dela, hek, aldiz, badie, emeki mintzatzeke indar bat egiten balute bezala, merkatuko makiñunak bezala, alako eskuara ederra, ederra, errespeturekin bezalako bat.

Denbora berean lotzen diau faltsuki dela amiñi at, hola mintzo dena, biziki ederki eta, e, eztuk eta fin-fina re hau, Hazparnekoendako erraiten gindian, ba eskuara ederra ik, onek, Hazparnekoa bezala, bena jakiteko egia non dien orrek, beauek arramintzaazi.

Hazparneko euskararen gorestea oraiko afera ez dela Jean Etxepare miriku eta idazleak erakusten digu, Manex Hiriart-Urruti idazle hazpandarrak diharduela (Charriton 1984: 172):

nundik zuen mihian delako errextasun berezia, huna gure iduriko. Euskaldun jitearekin batean, edo haren ondotik, haren hazkurri, aitama, haurride, auzo, ahaide, orok haurdanik odolean emana zakoten, eta ahoan, euskararen ara, euskararen alderateko ixuria. Dakizuen bezala, Hazparnen, Hazparneko inguruetan da behar bada begiratu jorienik, errexenik, eta irakarik gutienekin, gure hizkuntza zaharra.

Eta Larre euskaltzainak Jean Hiriart-Urruti gazteaz idatzia ere lekuko dugu: “euskararen sailean, etxetik haste, Hazparnen berean, Hazketa Abitue-neko mintzaira xotilari joanen zionik ez izanik nehon” (2009: 175).

Arberoako Jean-Baptiste Etcheberry idazle donoztiritarrak ere Dominique Soubelet kalonje hazpandarraren euskara ederresten du (1986: 45):

haren eskuara guziz laketa zen, edari goxoena bezain atsegingarria. Lehen hurruparen ondotik, konparazione, ekarria zinen basotara nasaiaren iresterat, nihork bietan manatu gabe. Etxitaken egunetik biharrerat eta lanik gabe heldu eskuara argi, garbi hortan hoin ederki trebatzerat.

Alta, Etcheberry arberoar honek ez zion Amiküzeko euskarari halako estimaziorik; Sauveur Ibarrart misionestaz ziharduela, honela aurkezten zigun haren euskara Etcheberryk: *etzen segur haren falta doi bat behaztopatzen bazen ere eskuaraz; Amikuze hori kaskoin herriari hurbil dago* (44). Dirudienez halakoxe tradizio bat sortu da Amiküzeko euskararen kalitatea auzitara ekartzeko edo honelakoen errepikatzeke. Amiküzeko Arberatzeko adinetako lekuko baten alabak dioskunez, beren mintzoak ospe txarra du, *pera* ‘udarea’ eta *xi[é]ja*

‘gerezia’ erako maileguak ibiltzen dituzte euskaraz Amiküzen; dioenez, euskara ona Hazparnen dago.

Lekuko behautzar batek dioskunez, entzun du donoztiritarrengandik edo iholdiarrengandik Amiküzeko euskara epaitzen: *entzün diat nik, e, erraiten Donoztikoek edo Iholdikoek ere bai, eta erraiten gure eskuaraz, guria biziki nahasia dela hitz frantsesekin eta biarnesekin ere bai*. Alta, jokabide horren aitzinean ez du uste hitzun arberoarrenganako amiküztarrek inolako jeloskeriarik sentitu dutenik: *jeloskeriaik batee oendako*. Ez daki xuxen arberoarren juzguak zinez amiküztarren mintzoari lotuak diren, ala juzgu horien gibelean sakonagoko beste gizarte-osagai zenbait ez ote den ezkututzen: *eztiat uste hizkuntzari arras funski lothia zela*.

Euskaltzaindiaren EHHA atlaseko datuen bilduma egin zenean, Jutsiko lekukoak Oztibarren ere sentiera hori dagoela erakutsi zuen; dioenez Amiküzen anitz hitz dute frantsesetik harturik: *ikhusten dut artho biltzian*, “*ono batu bi tur, bi tur; zendako ez erran “bi itzuli”?* (17140 galdera).

Hazparneko misionestek fedez haratago beste zerbait ere hedarazi zuketan, baina gaude, estetikan baino beste zerbait gehiagotan ere badatzala afera: ez genioke Hazparneko euskararen zuzentasun eta edertasunari bakarrik so egin behar eta ospe hori, gizarteko beste kontingente materialago batzuen ondorio ez ote den ere gogoetan hasi beharko genuke. Ingurune laborari edo abeltzaineko hainbat jendekez luzez Hazparne alderat jo du zerbitzu frankoren bila eta Hazparneko euskararen ara edo era zenbait ere eraman du berarekin itzuleran herrira, hizkuntza-ezaugarri bat edo beste hazpandarrei kopiaturik, herritarren aitzinean erabiltzeraino, hizkuntza-ezaugarriak lekuz aldatzeraino eta hedatzeraino. Hiri honen eragina, Luhuso, Makea, Lekorne edo Aiherratik haratago doa, izan ere, eskuin-ezker eta goi-behe hedatzen da Hazparneko euskararen ezaugarri bat baino gehiago. Aturrialdeko Lapurdiko herrietako mintzoan ere ezagun du Hazparneko euskarak eragin duela, baina ez horietan bakarrik.

Ez dugu ideia honekin Hazparneko ingurumari guztia Hazparneko bereko mintzora bildu edo sailkatu nahi, ez, baina erakutsi nahi dugu Hazparneren inguruan sortu den dinamika historiko, urbano eta ekonomikoak berrikuntza batzuen hedadura eragin dukeela, edo bederen, hori dela hipotesirik erosoena edo merkeena.

Euskal ezaugarri berri eta sistematiko batzuk aipa ditzakegu hedaturagatik Hazparnetik abiatuak diruditenak:

- a) Genitibo singularreko atzizkiaren *-aan* aldaera ohiko gertakaria da Hazparnen, Heletan, Beskoitzen edo Bardozen egun, baina *-aen* dago Bardozen 1863ko B. *Celhabe notari hangotarra*-ren katiximan: *mun-*

diaen akaantchadio (305); aldiz, XIX. mendeko Hazparneko katiximan *guiichtinuaan* ‘kristauaren’ (214) eta *haan* ‘haren’ (217) adibideak ditugu eta aditz nagusian ere bai, etorkizuneko *joaan* ‘joanen’ adibidean (229). Baigorri, Garazi, Oztibarre, Amiküze gehiengan eta Zuberoan bezala, *-ain* dago Iholdi (cf. Duny Pétré 1959), Armendaritze edo Mehainen, baina Arberoako Donamartiriko XIX. mendeko katiximan *-aan* dago, egun ere Amiküzeko mendebalean dagoen bezala; ezker, Epeldek Uztaritze, Milafranga, Jatsu, Haltsu eta Kanbon entzun du *-aan* (2003: 320).

b) Nor Nori eta Nor Nori Nork aditz sailletako iraganean ageri den tarteko *n* berri analogikoa, egun *zauntan* & *zaundan* ‘zidan, zitzaidan’, *zankon* & *zangon* ‘zion & zitzaion’, *nankon* ‘nion’ aldaerak dituena, XVIII. mende erdiko Hazparneko euskara islatzen dukeen *Kadet eta Bettiriño* idazlanean ageri da: *zangola* ‘ziola’ (Padilla 2011: 235). Ez dakigu berrikuntza horren ispilua *ginduen* & *zinduen* —*edun*-en iraganeko berezko *-nd-* horrek— eragina den, ala *gindakon* & *zindakon* edo *gindauden* & *zindauden* erako adizkiek eskaini ote duten, baina ez litzateke ezina. Irizarrek 1981ean *tipo ustaritzano* izendatzen du era *n*-dun hau (1981 II: 309), baina ez da ahantzi behar eskuinetik Amiküzeko mendebalera ere hedadura izan duela, guk Arrüetan eta Behauzen entzun dugu; ez dakigu, gainera, Uztaritze alderdi horretan berrikuntza hau XVIII. mendearen erdialdean ibiltzen ote zen. Guztiz ageri da *n* berri hau Hazparne inguruan: Aturrialdean Bardoze barne —*etzankion* ‘ez zitzaion’ dugu Bardozen (EHHA)—, Larresoro alderdian (Uztaritze, Larresoro, Milafranga, Itsasu), Arberoan (Izturitze, Aiherra, Heleta, Armendaritze) eta Amiküzeko mendebalean. Garaziko Suhuskunen *zauntan* edo *zauntenan* eta Oztibarreko Larzabalen *zauntateyan* eta *zauntatenan* dakartza Irizarrek (1981 II: 308-9), baina aldaera *n*-dun hauen agerpen bakarra da Garazi eta Oztibarren; guk ez dugu Oztibarreko datuetan aurkitu. Aldaera hauen hedaduran garrantzia eta zerikusia duke Hazparne eskualdeburuak; ikus gai honetaz 7.3.3.3.4.5. §.

c) Ohikotasuna adieraz dezake *johan* (*da*) erako egiturak. Arberoan eta Amiküzeko mendebalean bildu ditugu adibideok: *beldurraz johan ginden*, *zeen ta erremarkatia zinden ezpazinden mezara joaiten* (Armendaritze); *aste guziez johan ginden* (Armendaritze); *bezpeetan iilten bigintien eta ^seo pla[z]er bagin'zin bezperetaik landa elgarrekilan johan elheka ar'zia, ta kartaka ta hola* (Arrüeta). EHHA-k Bidarrai, Itsasu (93610-n *johan duk*), Makea, Hazparne, Bastida, Izturitze eta Aturrialdean dakar *johan da* adizkia eta hedaturak Hazparne du erdi-erdian, ez da Baigorri-Garazietan, Oztibarren edo Amiküze gehiengan sumatzen;

konparazione, Ibarrolan *joaiten gintzun Lurdaat* bildu dugu edo *ama joaiten tzu*; Hoztan *gu Garazirat, merkhatia baugu Doniennen, ordian haat merkhatura joaiten gira* eta *Donaixtin astelehen guziz ene arreba bere arrø'tzen saltzera Donianeko merkhaturat juaiten duk*, baina ez ***johan duk*. Balio puntukaria ere ukan dezake ibiltzen den eskualdean: cf. *sorthu nintuzun amaan altzotik johan zelaikan Espaiñaat, beste ahizpa'aten ikhusteat*, Beskoitzen Trebitsch-ek 1913an bildua (Etxebarria 1994: 61); ikus *johan da* adizkia *doa / badoa / badua / juiten da / ari da* aldaerekin batean (EHHA 92010), hiztunek balio puntukarian emanik. Oztibarreko *Donaixtin* adizki trinkoak bildu ditugu: *badoa / badian & badiak / badiazu*, ez ***johan da*.

d) Ez dakigu Hazparne aldetik abiatua ote den izen eta aditz morfologian ageri zaigun *ii* hiato berria: *duen* → *diin*,⁶² *horiøk* → *horiik* edo are *diren* → *diin* erakoak dabilta hor gaindi. Aturrialdean Bardoze barne, Arberoan eta Amiküzzen ageri da hiato hau, baina ez da Amiküzeko ekialderaino heltzen; mendebalerat Larresoro eskualdean ere ageri da; cf. Epelde egin beharreko ñabardurez (2003: 140); hedadura handikoa da eta Baigorriaraino heltzen da, XIX. mende bukaerako *San Mathioin ebanyeliua*-k badakar bilakaera: *eiten diina* (Pagola et alii 1999b: 33); XX. mende bukaerako EHHA egitasmoko Garaziko eta Oztibarreko mintzoetako datuetan ezaugarriaren ale batzuk ikusi ditugu guk.⁶³ Hazparne ote du sorburua? Guretzat egiantzekotasuna luke hipotesiak, Hazparneko ingurumarian agertzeak pentsarazten baitigu hiri honek ezaugarriaren hedaduran rol nagusia jokatu duela, baina ohar bedi arestiko hiru kasuetan ezaugarri berria ez dela Baigorriaraino hedatu, baina ezaugarri hau bada Baigorriin, XIX. gizaldiko Iribarnegarairen *San Mathioin ebanyeliua* lekuko.

XVIII. mendeko *Kadet eta Bettiriño* idazkiaren lekukotasunaren arabera, baliteke lau tasun hauetarik *-aan* genitiboa, *johan*-en ohikotasun erabilera eta hiatoetako *ii* berrikuntza berriagoak izatea adizkietako *n* analogiko hori baino; XIX. mendeko Bonaparteren saileko Hazparneko katiximan bi ezaugarri ageri dira, hala *-aan* genitiboa nola *ii* hiatoa; cf. *horiic* (215, 222), *horiiz* (222), *horiitan* (229), *diinac* 'direnak' (228) edo *dakiina* 'dakiena' (223) eta baita *jakiin* 'jakinen' (215) edo *jiin* 'jinen' (213) aditz nagusiak ere. Aldiz, XIX. mendeko katixima horretan ez dago ohikotasuneko *johan da* era berriko adizkirik.

62 Beharbada bide-erdi *duen* → **duyen* > **diuen* gertatu delarik, hondarrean *diin* izateko.

63 Garaziko Gamarten *diin* 'duen', *diila* 'duela', *diinak* 'direnak' ditugu (EHHA); cf. Oztibarreko berri.

Amiküzeko mendebalean ez dugu Nor Nori & Nor Nori Nork sailetako plural *i*-dunen adibiderik entzun; cf. *jin zait* ‘zaizkit’ *bi jaun handi*, 1913an Trebitsch-ek Hazparnen bildurik (Etxebarria 1994: 46) eta Irizarri Hiriart-Urruti gazteak 1974an errana, adierazten baitzion “igortzen dauzkitut” aditza *Hazparnen* igortzen daitzut *erraiten da* (Irizar 1999b: 485). Dagoeneko XVIII. mendean bi erak ageri dira *Kadet eta Bettiriño*-n (in Padilla 2011): *daiquizut* ‘dizkizut’ (64), *daizquiot* ‘dizkiot’ (18), *zinaiztan* ‘zenizkidan’ (76) / *derauzquitut* (140), *dauzquidac* (58); Bazkazanen agertu XVIII. mendeko testu batean ere bada *i* pluralean: *baileraucu* (sing.) vs. *emaiten deraicun ontassunez* (pl.) bereizten da (Orpustan 2005: 191). Aturrialdeko Beskoitzen *zaut* ‘zait’ vs. *zait* ‘zaizkit’ aldea zekarren Bonapartek XIX-an, baina egun Henri Duhauk ez dakar *zautz* ‘zaizkit’ aldaera baizik (1993: 61).

Arberoako mintzoa Baxenabarreko berrikuntzei osoki loturik da, baina ez dezagun ahantz mendebaletik ere eragina datorkiola: Hazparnealdean baliatzen diren berrikuntza batzuk Arberoan aurkituko ditugu. Amiküzeko euskarak ere Baxenabarreko berrikuntza franko bildu ditu, egiazki gehienak, baina baita Zuberoan gertatu diren beste batzuk ere, Nafarroa Behereko mintzoen aldean izaera berezia eransten baitiote. Halaz guztiz ere, eskualde zabala da Amiküze eta ez dago guztizko batasunik haren barreneko herrietako mintzoen artean. Amiküzeko mendebaleko herrietan Hazparne herri haziko euskararen eragina ageri da.

Bestalde, Bonaparteren garaian *dio* ‘dio’ baizik baliatzen ez zen Lapurdiko Itsasu, Kanbo eta Milafrangan bada *dako* orain (Irizar 1999b: 235); Epeldek honen berri dakar eta Bonaparteren garaitik honat Hazparnek ezkererat eragina izan duela dio: galderazko *-a* morfemak ere ezker jo du, Itsasu eta Kanbo alderat (2003: 323). Gure ustez arrazoi du Epeldek “*Hazparneko hizkera* esan diezaioketun zerbait” badela dioenean (327).

Oztibarre ondoko Landibarren ere sentitzen da Hazparneko hizkuntza-eraginaren ufada zenbait, lotura lexiko zenbait Hazparnerekin, baina ez dute Ipharlatze gainditu, eragin horren ondoriozko ezaugarriak ez dira Oztibarrera heldu.

7.1.4. Gizarteko nagusitasunaren balizko isla hizkuntzan

Galdera litzateke ea amiküztarrek Oztibarre edo Garazirekiko sentitzen duten nagusitasun ekonomiko horren kidetsukoa ez ote den halako beste nagusitasun bat, hizkuntza-kutsua edo lukeena; hori iradokitzen ote du amiküztar batengandik entzun dugun pasarte honek?

[Oztibarre eta Garaziren aitzinean] *amiküztarrek bere büriaz halako, hartiak, ürgülu poxi at; ta erran nezakek eskuarak ere jarraiki dela, lekhü abeatsen mintzaira re, halako ürgülu batian bezala eta beaz, entzüten nialaik mintzatzen: to! han Ahantsusiko eskuara, etzüten gütiesten, bena, alo, ezük han etxeko jaun handiik eta, eskuara re berdintsia uk, bazüten [amiküztarrek] ürgüli poxi at beren eskuararendako, ta oartaazten, to, hori xuka ari tuk edo erran nahi zute^an, ba, guria edarrao duk, ba, gure eskuara [xuka aritzea Oztibarre eta Garazirekin lotzen da Amiküzen, berek ez dute egiten, non ez norbait ezkontzaz eskualdera jin]*

Beharbada gizarte eta ekonomia-nagusitasun antzeko bat dagoke begirada gora horren sakonean:

beaz, uste diat, Amiküzeko eskuarain estimia zutenek zütean hori eremian aldetik, ez baitezpada mintzairaen aldetik, bena kultura aldetik defendiatu nahiz beren etxaldiak, beren ontasunak eta hala.

Ez da aise gai bata eta bestea elkarrengandik bereiztea:

Garazin lekhü patarrak, etxalde ttipiak, artzañak; “artzañ” erran tzeleik, etzen abeatsa, e, etzen e, beaz, heen eskuara re difeenta zen, bena kasik gütietsia zen, ba, difeenta, muga emaiten zen amiñi at erran nitzakek eta, ekonomikoki bezala amiñi at, beren eremü abeatsa amiküztarrendako eta beaz, bere eskuara ere mugatu bear zuten erraiteko: to, horik xuka ai tuk, Garaziko tuk, eta etxalde ttipiak tie eta lekhü patarrak eta lekhü mehiak eta holako...

7.2. Bi uren arteko mintzoa

7.2.1. Ohar zenbait

Amiküzeko mintzoak ezagun du historikoki bi uren artean gertatu dela: ezker ditu Baxenabarren ahaleko eta baldintzaren ondorioko adizki *liteke* eta *litake* berriagoa, monoptongaturik. Eskuin, berriz, Zuberoan *leiteke* adizki diptongoduna ageri da, aldaera zaharra. Amiküztarrek *e* bokala eginez halako konpromisoa erakutsi dute xiberotarrekin eta monoptongazioan gainerateko baxanabartearrekin: *leteke* sortu izanak zerikusia duke bi auzoekin ukan hartu-emanen, aski adibide erakusgarria da.

Historikoki Zuberoan egon da euskal ekialde linguistikoaren erdigunea, bertan ageri da ekialdean geografia-eremu hedatuena duten ezaugarrien konbinazio sendoena. Euskal Herriko ekialdeko hizkuntza-ezaugarri guztiak Zuberoan ageri baitzaizkigu, honek ondoko ibarrak Zuberoako mintzotik hartzen

ari izan direla iradokiko luke, horregatik, hipotesi gisa besterik ez bada ere, beharbada pentsa liteke garai batean Zuberoan zegoekela demografia, gizarte eta ekonomiaren alderditik indarrrik gehien, abeltzainen erkidego edo gizarte sendo bat, ondoko ibarretako jendea erakartzeko gaitasuna zukeena.

Ordea, Euskal Herriko hizkuntza-ekialdea arras ahul dago egun: Zuberoak, Erronkarik, Zaraitzuk edo Amiküzek gizarte aldetik ez dute orain beren arteko batasunik, gizartearen eta erakundeen aldetik errealitate desberdinetan murgildurik daude; eskualde horietako bazter gehienetan ekonomia apalduz doa eta euskara bera ere, gainbehera gogorrean sarturik dago. Gizarte-egoera hau ez da egokiena hizkuntza-berrikuntzak ekialdean sor eta ondoko eskualdeetara heda daitezen; ahuleziak jo du euskal ekialde linguistikoa. Halaz guztiz ere, aztergaia Xiberoako saihtesean kokatu nahi izan dugu, haren ondoko Amiküze ibarrean. Mintzo anfibioek berezko interesa ukan ohi dute: ez dugu zalantzarik euskaldun amiküztarren berezitasun lektalak bildu, sailkatu, aztertu eta gaiaz argi amiñi baten ekartzea komeni dela.

Amiküzeko euskara aski mintzo ezezaguna da ikerketaren aldetik. René Lafon hizkuntzalariak 1955ean zioenez biziki konplexutasun du Amiküzeko ^heskuarak eta xeheki aztertu beharko litzateke (Irizar 2001: 141); bide horri lotu gara gu hondarreko urteotan. Esaldi harrigarriak irakur daitezke hor gaindi mintzo honen izaeraz; J. Casenavek honela dio: “Behenafarroako euskalkia da hemen mintzatzen dena, baina hego eta hego-ekialdera badu zuberokeraren eite eta kutsua, eta zenbait herrik zuberokera garbi garbia egiten du” (1983: 8). Ez da atzendu behar Casenave 1964-1981 urteetan Donapaleuko *Echecopar* kolegioaren zuzendari izan zela (Davant 2009: 138); ez da dudarik, beraz, Amiküzeko euskara ongi ezagutzen duela.

Ez dakigu “zenbait herri” horiek zein diren, jakintsu zuberotarrak ez dizkigu aurkeztu nahi izan. Peillenen idazki batean ere zantzu iduriak ageri dira, zehazki Amiküze eskualdea aipatzen ez badu ere: “le souletin se maintient au milieu du dialecte bas-navarrais, dans quatre ou cinq villages de Basse-Navarre” (1994: 259). Peillenek Coyosi idatzi gutun batean, Oragarre, Ilharre eta abar mintzo erdi zuberotartzat jotzen ditu (Coyos 1999: 45-6).

Baieztapen horien gibelean, dialektoen mugez auzian, norberaren irizpi-deak zein diren garbi ez aitortu edo esplizitatu izanean egon ohi da koxka. Gure ezagutzan eta ikuspegian, Baxenabarreko inon ere ez da zuberera mintzatzen, are gutiago “garbi-garbia” den xiberotarra. Besterik da laphizketar baten mintzoan Zuberoan nagusi diren ezaugarri ugari aurkitzea, edo Baionan Ipar Euskal Herriko franko euskaldunek laphizketar hori zuberotartzat hartzea, herri horretako seme batek kontatzen zigunez; halaz guztiz ere, honetatik ez da jarraitzen Laphizketako euskara zuberera dialektoko partaide denik; itxurari

eta entzulearen lehen irudipenari baino gehiago, auzia funtsean irizpideei eta metodologiari dagokie, dialektologia deitzen dugun jakintzagai horren ibilbide teoriko-metodologikoari.

Har dezagun Amiküzeko hego-ekialdeko Sorhaphürü herria: Zuberoako Lohitzünerean ondoan dago, bateko hondarreko eta besteko lehen etxeak elkarrengandik hurbil daude; errate batera, Sorhaphürüko elizan hiru zeinutegi daude, Zuberoan bezala; larribartar batek, bestalde, Sorhaphürüko mintzoa zuberera dela diosku, horko mintzoak Zuberoara jotzen duela, baina Sorhaphürün bildu ditugun datuek ez dute ideia hori deusetarako bermatzen: bokalarteko “r” galdu ez duen *gira* adizkia, “izan”-en Nor saileko iraganeko *ginden* ‘ginen’, *dutela* adibidean *-te* Nork morfema hirugarren pertsona pluralean —eta ez “diela”—, *jaten* eta *jin* hitzetako [y-] sabaikaria [3] ozena beharrean... ez dira inola ere zubereraren ezaugarriak; ez Laphizketan, ez Sorhaphürün, ez Amiküzeko hego-ekialdeko herrietan, ez Baxenabarreko inolako herritan egiten da zubereraz; uler bedi, gainera, delako *onus probandi* aurkeztea baieztapen hori egin dutenei dagokiela, ez inola ere guri.

Ezagun du Amiküzeko euskara ez dela zuberotar garbia ezta Baxenabarre orokorreko edo gehieneko mintzoaren eite berekoa ere, ez da hizkuntzalari edo filologoa izan behar horretaz ohartzeko; Jean Etxepare Bidegorri *mirikuak* honela bereizten zuen 1912 urtearen aldean, *Eskualduna* kazetara igor litezkeen euskal idazki llabur batzuez ziharduela: *edo:oinek bere erraitekoak han ezar ahal litza:ke; lapurtar, baxenabartar, amikuztar, xuberotar, nor nahik, zentzuz labilken ber* (in Charritton 1984: 263).

Egoera larrian dago Amiküzeko *heskuara* edo *eskuara*: guti mintzatzen da, franko herri eta etxetan transmisioaren katea eten da; bertako jendeek diotenez, hondarreko hamarkadan zinez beheiti jo du euskararen erabilerak eskualde zabal honetan. Badira euskaraz mintzatzen dakiten gazteak, baina hauetarik anitz makeski mintzo dira, ez dute ohiturarik, gehienik frantsesez usatu dira. Zuberoan bezala, Amiküzeren ere gainbehera doa euskara; orain artean tradizioko hizkuntzaz ezaxola erakutsi duten bertako hainbat lagun eta handiki, beren bizi guztian inguruan euskara entzutera usaturik zirenak, orain bai, euskara zinez galtzen ari dela ohartzen hasi dira.

Amiküzeko hizkuntza-berrikuntzak egun Lapurdi-Baxenabarretik edo Euskal Herri orokorragotik iritsiak izaten dira; tasun berriok ez dira gizarte euskaldun guztira hedatzen, euskaraz mintzatzen jarraitzeko halako barne erabakia hartu duten hiztunengana baizik, eta hauen artean, bereziki helduengana edo gazteengana, zaharregana ez; datuak biltzeko lekuko adinetakoak hobetsi ditugu guk, Amiküzeko orain arteko berezko euskaratik nahi baikenuen.

Herri bakoitzeko euskara leiala bilatzen eginahalak egin ditugu, baina usu ez da aise izan: Amiküzen jendeak *etxetier* edo etxezain ibili dira herri batetik bestera eta honek higadura handia eragin du eskualdean. Zail da herri batean sortua den, aita eta amak herri horretakoak berekoak dituen eta herri horretan berean bizi izan den berriemaile amiküztarririk aurkitzea. Halaz guztiz ere, lan honek Amiküzeko hizkuntza-errealitatea erakutsi nahi du, ez dakar ametsetako egoera ideal bat eta horregatik, bildu dugun euskara motaren berri leialtasunez ematea izan dugu helburua, hori izan da aldi oro gure borondatea, den bezala aurkeztea, Amiküzeko herrietako mintzoa den bezala aurkeztea.

Nafarroa Behereko euskararen dinamikari loturik dago Amiküze eskualdea, ibarraren hegoaldea bereziki, errate batera Uhartehiri herria, baina oro har, Amiküzeko euskarak Zuberoakoarekin lotura eduki duela iradokitzen digute bertako hizkuntza-ezaugarriek. Eskualde zabala den Amiküzen uler liteke guztizko batasunik ez izatea ibarreko euskararen: ez dira guztiz berdinak, errate batera, Oragarreko mintzoa —Lapurdikoa eta Arberoakoa hurbil dituen— eta Zuberoako erak hurbilago dituen Zohotakoa.

Hegoaldean, berriz, Uhartehirik Baxenabarreko era orokorragoetara jotzen du, Oztibarren edo Garazin direnetara. Adibidez, aditz nagusien etorkizuneko “-tu & -tü + -ko”, Amiküzen oro har *-tiko* palatalizatzen da, baina *-tuko* entzun dugu hego Amiküzeko Uhartehirin: *bihar e argituko ik, baliatuko...* Amiküzen ere oro ez da *-tiko*, saihetseko Oragarren *gertatuko* dugu, Arberoa ondoko Behauzen *beatuko*, eta Labetzen *finitüko*, baina oro har erran daiteke Amiküzen *-tiko* ibiltzen dela: *kafe xorta at hartiko uzia?* (Arbe), *bera hen plantatiko delaik* (Arbo) adibideak ditugu Zuberoako mugan; barreneko herrietako etsenpluak ere aurkez daitezke: *baliatiko, gelditiko* (Mar), *gertatiko* edo *hartiko* (Ilh), *batheatio* (Bith). Bilakabidea Zuberoako lurtean gaindi aitzinatu da, herrialdearen ipar-mendebaleraino, Domintxaineko *nahastekatiko*, Olhaibiko *seinditiko*, Arüeko *ohartiko* —baina *arrastratüko*-rekin batean—, Sarrikotapeko *aipatiko* nahiz *sartiko* edo Oihergiko *gidatiko* etsenpluak lekuko; Pagolan bi joerak entzun ditugu: *hartiko*, baina nagusiki *-tüko*: *azkartüko, maneatüko, mintzatüko*.

Uhartehirin badira Amiküzen ibiltzen ez diren baina Baxenabarren nagusi dabilzan berrikuntzak, Uhartehiri ez dago Amiküzeren grabitazio indar linguistikoen menpe bakarrik, baita Baxenabarreko berrikuntzen helmenean ere, herri honetako hiztunak Oztibarre-Garazi ardatzari ere loturik bizi izan dira, nonbait.

Hein batez Baxenabarreko mintzo orokorretik saihesten da Amiküze eta Zuberoa alderdi horretara jotzen du horko euskarak; emeki-emeki Amiküzeko mendebaletik ekialdera baldin bagoaz, herri batetik bestera Zuberoan nagusi dabilzan ezaugarriak pilatuz eta isoglosak sortuz doazela ohartuko gara: eman

dezagun, Amiküze mendebalean *sendatu* aldaera ematen dute, baina ekialdean *sendotü*, mendebalean *jastatu*, baina ekialdean *jeste* eta *jestatü*.

Ibar handia izanik, mintzoaren aldetik ez da Amiküze eskualde homogeenoa: alderdi batetik bestera desberdintasunak sumatzen dira, ondoko herrietako hizkuntza-ezaugarriekiko desberdinak diren beste ezaugarri batzuen agerpena dago aldi oro, herririk herri emeki gertatuz eta ugalduz doaz aldaketak, mailaz maila. Arberotatik Zuberoarat Amiküzen gaindi *continuum* geolinguistiko nabarmena ageri da herririk herri joanez gero, baina etena ere sumatzen da; guk ibilbide hori egin dugu, mendebaletik ekialderat. Honek guztiak erakusten digu Amiküzek bereziki hiru alderdirekin duela muga lektala:

Batetik Arberoarekin, non Baxenabarre erdiguneko ezaugarri nagusiak ageri baitira. Bigarren muga nagusia Uhartehirin finka daitekeela uste dugu: herri horretatik beheiti Oztibarre eta Garazi inguruko euskara sentitzen hasten da; herri honetatik Xiberoako Lohitzüne edo Pagola urrun ez badaude ere, uhartearen euskarak hegorat Oztibarre alderdirat jotzen du. Hirugarren muga Amiküzeko ipar-ekialdean legoke, Xiberoako muga: bertako herrietan osoki zuberotartzat jo ohi ditugun ezaugarriak agertuz doaz mailaka-mailaka, eskuin aitzinatzen garen ber. Hiru eskualde horietan dakuskigu guk Amiküze barreneko muga lektal nagusienak; bestelako ñabardura xeheagoak ere egin litezke, eta halaxe agertuko zaizkigu liburu honetan gaindi, baina hasteko bederen ideia hauek garbi uztea onuragarri dela uste dugu.

Berebat, Zuberoako ipar-mendebaleko herrietako euskarak Amiküzeko eretara jotzen du, ez da guztizko zuberera: Domintxaine, Berroeta, Ithorrotze, Olhaibi, Etxarri, Artüe edo Lohitzüneko euskara, ez da Ligiko, Barkoxeko edo Altzürüküko mintzo bera, manexen erak franko ageri dira Zuberoako ipar-mendebaleko herri horietan. Pagolako euskara ere, baliteke lehenago zuberotarragoa izatea orain den baino. Gai hauetaz 2009ko gure beste bi artikulutan sakonago jardun dugu.

Amiküze barrenean badira kideetasunak ere, azpitaldeak edo azpieremuak dei genitzakeenak: jendearen ibilerek irudikatu dituzkete hizkuntza-antzekotasun edo etenak eskualdean. Ez dago alde handirik ezker-eskuin hedatzen diren Oragarre, Amоротze eta Behauzeko mintzoen artean, auzo dira, erdi-erdian dute Amоротze eta honela zioskun amoroztar batek: *ba, guk killaka, killaka ta, pilotan eta, auzo herrikoikilan berdin, edo beauztarrekin edo, oartarrekilan edo, ^hola*. Adierazgarri da amoroztarrak *auzo* aldaera darabilera eta ez *aizo*, Baxenabarre erdigunean ibiltzen dena; Amоротze nahiz Behauzen *auzo* bildu dugu, baina Amiküzeko gainerateko herrietan *aizo* palatalizatua; Arberatzen *auzo* & *aizo*, bi aldaerak.

7.2.2. Oharmenezko dialektologia: hiztunen hizkuntza-ikuspegia

Dialektologian aritzean ikertzaileak aski ardura eta kezka ukan behar du hiztunen ezagutza lektala entzuteaz eta aztertzeaz: lekukoek anitz jakin dezakete hizkuntza-ezaugarriez eta hauen erabileraren hedaduraz eta geografia-mugez. XX. mendearen bigarren erdian Ipar-Ameriketan edo Japonian dialektologia egitean garrantzia aitortu zaie hiztunen intuizioei. Euskal Herrian ere ibili da bide hau eta emaitzak franko interesgarri izan dira ikerketa guztietan; Jexux Mari Makazagak Elgoibarko mintzoaz ondu ikerketan adibide egokia dugu (2007: 38-9, 251-8).

Amiküzeko eskuararen azterketa honetan zinez heldu diogu gai honi eta lekukoekin euskalkiez, eskualdeetako mintzoez, ezaugarri zenbaitez eta hauen mugez aritu gara: ziur ginen beren iritzia ere aintzat hartzeak on baizik ez ziezaiokeela egin ikerketari. Jarraian Amiküzen eta ondoko eskualdeetako herrietan berriemaileen ahotik entzundakoaren laburpena dakargu:

Arbotiko lekuko batek dioenez *Etxarrin xüberotarra deia*, eta Martxüetako bi lekukok ere zuberera Etxarrin hasten dela diote. Iduria da Laphizketan entzun duguna: *güetako deia*, donc, *Arüe-Etxarri, Lohitzüinen deia eta Xüberoz mintzo dira, xüberotar airia, Larribarre gütio, Domintxinen e gütio, bena hor, hor da...* Zohotako lekukoak dioskunez ez da zuberera garbia *Arüe artio* hasten, zuberera Etxarrin hautematen hasten dela dio; haren emazte behaskandarrak dioenez, *Arüen Xubero*. Domintxaineko lekukoak dio *Arüben* orain arteko zaharrak zuberotarrez mintzatu izan direla, baina orain gazteek Donapaleura jotzen dutenez Amiküzeko mintzora lerratzen direla

Aldiz, Behauzeko lekuko baten arabera: *eta geo, berriz, Domintxinetik behala, hor berriz Xuberækoa sartzen da*. Nolanahi ere den, *behala* adizlagunak harrapatzen dituen kilometroen izarian legoke gakoa, hondarreko hiztun honen iritzia ez doa baitezpada arestian beste lekukoek erranaren aurka.

Olhaibin honela ikusten dute Baxenabarreko eta Zuberoako mintzoen arteko muga:

[Non hasten da xibeotar phürra?] *Sarrikotan* [diote senar-emazte zaharrek, eta bilobak galdegiten: ba, ezta ai amiñi bat ziek bezala han?] *ez, bai, mentüaz ba segürra bethi, jendiak beitia heldü dienak eta* [semeak: Arüben e batük zumait, Beñat Elizondo ai zian e, Xube... gehio thiatzen tzizün] *ehosten* [erosten] *dependitzen dik jendiak balima dia heldü dienak, instalatzen dienak, ehosten etxiak edo; zaharretan, gü bezala Sarrikotan, bethi hala entzün düü, io, Sarrikotan nunbait* ["Etxarrin ez sobea e ono", dio bilobak, "ez phürak gü bezala"] *gük ez tüü üskaa beizik mintzatü bethi hen, hua bea,*

üskaa bethi, eztiüi besteik, eta bethi... bethi ber zea, hen zoko huntan bethi, bethi familiak berrak egonak eta...

Behauzeko lekukoak dioskunez, *Donapaleuraano iduitzen zaut eta eskuara berxia dela Beauzekoaikin, hemen [Arberatzen] puxka at, hemen puxka at "ü" gei^ho iten dute "u" beno*. Ez dakusa alde handirik Arberoako Mehaine eta Behauzeko euskararen artean, baina ez dira berdinak ere: *eztute difeentzia haundi-haundia en'ustez, baute puxka at, bena...* Eder du Oragarreko mintzoa ere, bere sorterri Behauzekoa baino ederragoa: *Oarrekoa re eskuara ederra da... ba, izaitekotz oono errain dut... ederroo iduritzen tzaut oono dela*. Aipatzen baldin bazaizkio Oztibarreko Larzabale eta Jutsi: *hua, horiek e ezautzen, ezta- kit horiik e Donianekotik baute en'ustez, Donianeko mintzairatik iuitzen tzaut bautela*. Eta aldiz, Armendaritze aipatuz gero: *Armandaitzen ta Heletan eskuara berxia ute ene ustez, nik heeena emaiten dut frango aise*.

Hegoaldean bithirindarrek dioskutenez Garazi hizkuntzaz ez bide da urrun: *gaaztaRekin ai[¿]e uzu konprenitzea, eskuarak etzi biziki difeentziaik*. Eta Oztibarre ere ez dute urrun euskararen aldetik bithirindarrek: Jutsi aldeko jendearekin euskaraz elkar ongi ulertzen dutela dioskute, ahaideak dituztela bertan eta merkatuetan elkar batu direla eta badutela harremana.

Eta ondoko ibarretako hitzunek ere sumatzen dute Amiküzeko euskarak berezitasunak dituela. Arberoako Izturitzen hainbat hitz Amiküzekotzat jotzen ditu *EHHA* atlaseko lekukoak:

Amikuzen kharruña, hemen ez. Han ortzia eztute errain, hodeia edo ortzantza; eztute errain galtzak, pantalunak eta galtzerdier galtzak, zapeter oskiek...

*guk erranen dugu landa, hek elge
pera Amikuzen Oharren*

Eta beste hainbat hitz dakar Amiküzekotzat Izturitzeko lekukoak:

arraga, kondera, berreta, borthako, parte hun, zizarra

7.2.3. Elkarreraginaren emaitza norbanakoarengan

Hizkuntza-ezaugarriak ez dira guztiz egonkorrak izaten eta historikoki aldaketak izaten dituzte kokaguneari dagokionez. Lan, ekonomia, kultura, prestigio, konkista, botere edo politika arrazoiengatik, hizkuntza-ezaugarri jakin batzuk egun erabiliak izan daitezke atzo ageri ez ziren eskualde zenbaitetan; zenbatenaz hizkuntza-erabileraren dinamika berriak denboran luzaz dirauen,

hainbatenaz elkarreragin handiagoa gertatuko da dialektoen edo are hizkuntzen artean. Howard Giles-en "egokitzapenaren teoria" eta Robert B. Le Page-ren "identitate bidezko hizkuntza-ekintza"-ren ideia sintetizatuz gero, eta bestalde, hizkuntza gertakaria norbanakoaren alderditik erkidegoaren alderdira eramaten baldin badugu, denbora luzeko egokitzapen prozesuaren ondorio makrosozio-linguistikoa gardena da: hizkuntza-ezaugarri batzuk dialekto batetik beste batera iragan daitezke (Harris 1988: 229) eta belaunaldi bat edo bitan guztiz egokitu edo kokatu. Ezaugarria dialekto batetik bestera iragan dela ulertzen dugu dialekto hartzaileko hiztun talde handi batek bereganatu eta ondotik mintzatze egoera arrunt eta *in-group*-etan inolako balio sinbolikorik gabe baliatzen duenean.

Alta, zenbait kasutan gertatzen da ezaugarriaren aldaketa norbanakoarena izatea, norbait aldi batez berea ez duen eskualdean lanean edo bizitzen izan delako eta bere gramatika pasibora ezaugarri berri batzuk ekarri-edo dituelako; ez ditu herriko *in-group* giro arruntean baliatuko, ez baitira bertakoak eta adis-kide edo senideen aitzinean nabarmen geldituko litzateke horiek baliatuz gero, baina entzun eta ikasi zituen garaian gogoan atxiki zituen eta ondotik haren gramatika pasiboa osatzen dute; garunean prest daude egoera berezi zenbaitetan erabiltzeko; eman dezagun, kanpotar baten aitzinean.

Euskal Herriko ingurune anitzetako beste hainbat laguni legez, lan arrazoiengatik sortzezko eskualdetik kanpora joan beharra gertatu zaie inoiz amiküzarrei. Gamueko gure berriemaileak ezkondu ondotik bi urte eman zituen Zuberoako Atharratzen lanean; dioenez, ez da hango mintzoa ulertzen:

gio goiti juiten bazira horrat tXüberaat, etziü fitsik konprenitzen e; guk bi urthe pasatü tziu Atharratzen, na ez gintzin..., sofitiü diizi, e, ez gintzin konprenditzen

Hiztun honek oro har Gamueko euskara egiten du, Amiküzekoa, baina elkarrizketan zehar bizpalau hitz zuberotar eta herrialde horretako egitura morfologiko berezi bat baliatu zituen, Zuberoan egon izanak eraginak diruditenak: *jauregiat* adlatibozkoa kasu atzizkien morfologian; hiztegian, berriz, *prunki* eta *tai gabe*. Halako batean *ardua* erabili zuen gure aitzinean, beharbada Zuberoako *ardü* gogoan zuelako, gu kanpotar ezezagunak izanki! Hiztun honek elkarrizketan ohiz *ano* ibili zuen.

7.2.4. Ekialdeko ezaugarriak Amiküzen

Ipar Euskal Herrian ekialdeko ezaugarriak eta ez ekialdekoak daude eta ekialdeko tasunen artean, ekialde zabalekoak eta ekialde laburragoak bereizten ahal ditugu. Ekialde laburrekoak xiberotarren ezaugarri eksklusiboak lira-

teke eta guk 6.5. §-n aurkeztu ditugu, baina atal honetan ere baitezpadako dira ñabardura eta xehetasunak. Amiküzeko mintzoaz arduratzean Euskal Herriko ekialdean —eta beraz, Zuberoan— baliatzen diren ezaugarriak aintzat hartu ditugu; ekialdeko tasun hauetarik, guztiak ez, baina hainbat Nafarroa Behereko franko eskualdetan eta Lapurdiko Aturrialdean erabiltzen dira eta baita Pirinioen hegoaldeko ibar nafarretan ere, Erronkari-Zaraitzuetan: beren kokaguneaz eta hedaduraz zehaztasunak behar dira eta ahalaz alderdi diakronikoa ere aurkezturik. Lapurdiko Aturrialdekoak, Amiküzekoak, Zuberoakoak, Erronkarikoak eta Zaraitzukoak ez ezik, ekialdekotzat jo izan diren ezaugarri batzuk, Oztibarren, Garazin eta Arberoa-Iholdi eskualdeetan ere ageri zaizkigu; 6.3. §-n mintzatu gara Arberoako ezaugarriez; hel diezaigun orain Amiküzekoari.

Amiküzeko euskaran Baxenabarreko ezaugarri orokor anitz baliatzen da, baina Zuberoakotzat jotzen ditugun tasun zenbait ere ageri dira; hona ekialdeko tasunen arteko batzuk:

- *ü* fonema palatalizatua ibarraren iparreko herrietan
- *i-u > ü-ü* bokal sekuentziaren asimilazioa aitzinerat
- *-oin > -uin & -uñ* bokal hersketa
- bokalarteko *r* kontsonantearen galera; Amiküzen Baxenabarreko gainerateko ibarretan baino azkarrago da, baina Zuberoan baino ahulago
- *gañan* adizlaguna
- *etxengo* ‘etxeko’ lokatiboa, Xiberoan *etxenko* dena
- *bañotek* ‘bakar batek’ erako *-ot* atzizki txikigarria
- datiboko morfema bikoizturik duten aditz laguntzaileak: *zindataziin* ‘zenidan’
- *ot(h)e* partikularen estraposizioa, Arberoan ere badena
- konparazio perpausetako *bezainbeste* zenbatzailea
- moduzko perpausetan partizipio bururatua beharrean, Amiküzeko ekialdean burutugabea baliatzea: *uai libertitez, ai zizte lanian* ‘orain dibertituz ari zarete lanean’ (Zoho), baina ez da Amiküzeko tasun orokorra; Arberoako Mehainen egitura horretan partizipioa baitezpadakoa da: *hau pusatuz atheako uk*

Gramatikan edo sisteman hainbeste eragin ez duten ezaugarri edo aldaera gehiago ere badira Amiküzen, honako aditz erabilerok, Zuberoa gogora dakarkigutenak:

- *juiten niz* adiera puntukarian baliatzea, ‘noa’ gisa
- *dain astian* ‘datorren astean’ edo *daigiin urthian* ‘datorren urtean’ erak
- *ohit nüzi* ‘oroitzen naiz’

7.3. Amiküzeko mintzoaren deskribapena

7.3.1. Fonologia

7.3.1.1. Azentuera

Amiküze eskualdeko perpaus bat osorik entzutean ez da aise azentua non kokatzen den jabetzea, batez ere katea mintzatuan eten gardenik ez baldin bada; aldiz, hitzak bakaturik edo erdi bakaturik entzuten ditugunean, absolutiboan jokatuak direnek bederen halako kutsu paroxitonoa hartzen dute. Nolanahi ere den, gauza bat bederen garbi dago: Amiküze eskualdeko azentuera ez da Zuberoakoa bezalakoa. Amiküztarrak ohartzen dira zuberotarrek mintzatzean doinuaren aldetik egin ohi dituzten gorabeherez, usu aipatzen dute ezaugarri hau eta markatzaile den aldetik garrantzia ematen diote tasun honi.

Badakigu Zuberoan azentuerak mugagabea eta mugatu singularra bereizten dituela: *alhába* vs. *alhabá*, *lékhü* vs. *lekhía*; eman dezagun, guk Amiküze ondoko Arüen absolutibo mugatuan honela entzun dugu *-a* bukaera duen hitzean:

maite gintzin gazná, bana eosiz

Bestalde, ergatiboan edo instrumentalean singularra eta plurala ere bereizten ditu Zuberoako mintzoak: *mithílak* (sing.) vs. *mithílék* (pl.) edo *mithílaz* vs. *mithíléz* (Hualde 1998: 79).

Aldiz, Amiküze eskualdean azentuerak ez du balio fonologikorik: ez da gertatzen segmentu foniko berdin bi izanez, batean azentua silaba batean eta bestean beste batean kokatzea eta azentuaren kokaleku bataren ala bestearen arabera segmentu batetik bestera adiera aldaketa izatea. Amiküzeko azentuerak ez du balio adierak bereizteko eta hitza pluralean jokatzek oro har ez du azentu aldaketarik eragiten; absolutiboan eta kasu gehiagotan, hitzak dituen silabak dituela, singularretik pluralera ez dago azentu aldaketa nabarmenik Amiküzen.

Bestalde, ez dugu hitz markaturik sumatu Amiküze eskualdeko euskaran, baina ez dugu batere zalantzarik gaia hobeki aztertu beharko litzatekeela.

Gure eskualdeko azentuerak ez du intentsitate handirik, baina ezin erran hitzeko silaben artean batere intentsitate aldaketarik gertatzen ez denik ere, nahiz guk ez dugun hertz-etan neurtu. Hitz absolutiboan azken-aurreko silaban kokatzen da intentsitateko azentua, eta segmentu guztiari aplikatzen zaio, kasu atzizkiak eta mugatzailea barne direla: eskualdeko azentuera hau 2] ereduari atxikitzen zaio, paroxitonoa da.

Bi silabako eleetan halako intentsitate amiñi bat ageri da azentueran, garden entzuten da lehen silaban intentsitate handiagoko azentua bigarrenean baino, Nafarroa Garaiko ekialdean ohi bezala:

lánjan (Barta), *arto xurítzja* (Behau), *ógja* (Arrü), *étxea* (Bith) & *étxean* (Sor)

Adibideotan intentsitatea lehen silaban doa eta aldiz, silaba azentudunaren ondoko hiatoko lehen osagai bokalikoak diptongo izaera hartzen du.

Singularrean zenbait atzizkik azentua beregana dezake: *korphützaindakó* entzuten dugu Arberatzen eta *eztienaindakó* Amorotzen, azentua hondarreko silaban dela. Ordea, destinatiboaren atzizkiak azentua harturik ere, litekeena da hitz luzeetan bederen ezker gelditu den silaba batean ere beste silaba batek azentua hartzea: *ditienaindakó*. Sozietibo singularrean ere azentua hondarreko silaban kokatzen dela iruditzen zaigu: *atsàldeaikilán*, *hàundiaekilán*, Amorotzeko adibideak biak, baina *hunen aita zenaikilan* adibidean ez dugu azentu nabarmenik entzuten.

Oro har, hobeki eta sakon aztertu beharko litzateke geografia-alderdi hone-tako azentuera, etorkizunean azterketa bereziago eta sakonagoak egin litezke.

Iñaki Gamindek Oragarre, Behauze, Ostankoa, Ilharre, Gabadi, Amendüze eta Zohotako datu-bildumen sorta dakar Amiküzen; Xiberoako mugan, Domin-txaine eta Pagolako emaitzak dakartza eta baita zuberera arruntagoa egiten den herrietakoa ere (1999).

7.3.1.2 Fonema arrotz berriak

Hein handian frantsesaren eraginpean bizi da euskara Ipar Euskal Herrian eta kultura nagusiaren indarra berebizikoa da, ondorioz, hainbat hitz mailegatu ditu euskarak hizkuntza honetatik; etorkizuna eta modernotasuna adierazten dituzten alor semantikoetako eleak dira bereziki frantsesetik heldu direnak. Hitz horien bizkar gainean fonema arrotzak tantaka jin dira euskarara, baina oraingoz, hiztun guztiek baliatzen ez dituzten aldetik, maileguok euskal bahean eralkirik orain arteko euskal fonologiaren arabera ahoskatzen dituzten hiztunak

ere badirenez, aldaeratzat har ditzakegu. Fonema arrotz hauen etsenpluak ugari dira egungo Euskal Herriko euskarari, hala bokaletan nola kontsonanteetan, eta hiztunaren adina apalduz doan heinean nabarmenago ageri da haien agerpena.

7.3.1.2.1. Bokalak

7.3.1.2.1.1. Zenbait maileguk *a* eta *e* arteko bokala dakarte, frantsesetik harturik:

aleman (Arm) / *aləman* (Arrü) & *aləmanen* (Lab), *reməmbremendiak* (Arrü)

Inoiz entzun dugu *aləman* aldaera ere.

7.3.1.2.1.2. Bokaletan *e* eta *o* arteko frantses fonema ageri zaigu:

Brətañalat (Mar), *motəer bat* (Sor), *rəmərkətan* ‘erremolkeetan’ (Arrü). Inoiz euskal hitzetan ager daiteke: *Donaplə* (Arrü), *Donapələra artio* (Arrü), *enə ustez* (Arrü)

7.3.1.2.1.3. Ipar Euskal Herri guztian ageri da bokal berri bat euskaraz, *u* palatala, frantses maileguren bizkar gainean etorri da *ü* hau. Geroago jardunen dugu kaskoin edo bearnesetik iragazi bide den Zuberoa, Bardoze eta Amiküzeko *ü* bokalaz. Hona gure eskualdean maileguetan bildu ditugun *ü* berri batzuk:

anbülanzak (Donap), *berdüra* (Sor), *jüsa* ‘zukua’ (Sor), *legüma* (Ost, Arrü, Arbe / Arüe), *oküpatia* (Arbe) & *oküpatzen* (Sor), *otobüza* (Ora) & *otobüzak* (Zoha) & *otobüsak* (Ost), *pünizion^e* at (Arbe), *rebolüzione* (Ora), *regülierzki* (Sor)

7.3.1.2.1.4. Gaia akustikaren alderditik aztertutik, frantsesetikako euskal mailegu berrietan gertatzen ari dena aurkeztera jo dute hondarreko aldiaren gure arteko ikertzaile batzuek; Jauregik eta Epeldek Lapurdiko Senpereko euskal adibideak dakartzate (2011); ikus, bestalde, Oñederra, Jauregi & Epelde ere (2014: 86-87). Frantsesetik bokal sudurkari mailegatuak sartzen ari dira Ipar Euskal Herriko euskarara, baina honela ahoskatzen duten hiztunak ez dira nagusiki frantsesa eskolan ikasi dutenak, sortzez hiztun elebidunak dira, Ipar Euskal Herriko hiztun berri edo gazteak, beharbada euskara sei urterekin ikasi dutenak eta frantsesa etxetik zekitenak: frantsesezko bokal sudurkariak sortzez egiten dakiten hiztunak dira; eman dezagun, ongi dakite *jädarma* egiten.

Euskaraz tradizioakoak ez diren eta frantsesezko maileguren bidez euskarara sartzen ari diren bokal sudurkari guti entzun dugu Amiküzeko adinetako jendeen ahotik. Maileguetan *fin* aipa daiteke: *astüain fïan* ‘astearen hondarrean’

eman du Arberatzeko lekukoak, bokal sudurkaria eginez eta *n* inplosiborik gabe; zioskunez, frantsesa berandu eta gaizki ikasi zuen. Hartara, adinetako lekukoek ez dituzte frantses mailegu berriak beti euskal era zaharrea ahoskatzen. Labertzen euskal elkarriketan *zãntima* hitzean lehen bokala sudurkari ahoskatu zuen lekukoak, xuxen erranik *a* eta *e* arteko bokala, “æ” sudurkaria; silaba bukaerako *n* inplosiboa ahoskatu zuen, bai, baina mailegu honetan argi ageri da frantses ahoskera; hitzuna adinetakoa da, euskaraz bikain egiten duena, gainera. Lekuko berarena da *ãⁿvelopetan* hitz tekniko ere, euskaraz emana.

Berebat, Arüeko adinetako lekuko bati [*ʒ*] *ẽⁿdarma* eta *iẽⁿdarmekin* adibi-deak entzuten dizkiogu: bokala sudurkaria da, nahiz ondotik baden kontsonante kutsu zerbait ere. Euskaraz diharduela Martxüetan lekukoak garbiki *brætõ* ‘bretoia’ ahoskatzen du maileguzko adjektiboa, hitz bukaeran *-n*-rik ez delarik. Honelako kasuak bakan dira ezagutu ditugun Amiküzeko adinetako hitzunen artean, baina entzun ditugu ale batzuk.

Errate batera, Oragarreko auzo Bartan, Ostankoan, Donapaleun, Amorozen, Amendüzen, Domintxainen edo Oihergin *bõ* entzun uste ukan dugu Ipar Euskal Herriko ohiko *bon* ‘ongi’ hitza; Martxüetan, Gamuen eta Zohotan, berriz, *bõn*. Arestiko bi aldaerak bata bestetik bereiztea, bilakabide bata eta bestea mugatzea ez da aise, ez gara gertakari absolutu batez ari, mailaz mailako izaera duen zerbaitz baizik. Barta auzoko hitzun horrek, ordea, *jandarmak* ahoskatu du garden, kontsonante sudurkaria eginez eta Larribarren ere *jandarmak* ageri zaigu; Olhaibin, berriz, *jandarmendako*. Ez dugu gaia sakon landu, eta ezagutza eta tresneria beharko lirateke azterketa xuxen egiteko, baina belarriz bederen, adinetako euskaldunen artean, eman dezagun, *anprunta* ‘sos mailegua’ entzun ohi dugu beti, *n* kontsonante inplosiboa nabarmen ahoskaturik.

7.3.1.2.2. Kontsonanteak

Berri mailegatu kontsonanteen berri dakargu hurranen sailetan:

7.3.1.2.2.1. Igurzkari ezpain-horzkariaren adibideak agertu zaizkigu mailegutetan:

anvelopatzen ‘biltzen’ (Pag), *devuar bat* (Arbe), *enervatü* (Pag), *evitatzeko* (Pag), *grave* (Oih), *manævra* (Ora), *povria* (Arbe), *televi[z]ionia* (Mar) & *televizionari* (Amo) & *televi[z]ionean* (Arbe)

Eta gerta daiteke hiperzuzenketa egitea ere, eman dezagun, frantsesa eskolan ikasirik egun oroz euskaraz mintzatzeko ohitura duenak: *volanjerrak* (Arbe).

7.3.1.2.2.2. Txistukarietan lepokari eta apikari ahostuna ageri zaizkigu bokal artean, gehienak mailegu berrien bizkargainean etorririk; hona igurzkarri apikariaren etsenpluak:

bi[ʒ]ita (Arbe), *espu[ʒ]atü* (Arbe), *oka[ʒ]jioneik* (Arbe)

Mailegu honetan biak batean ditugu: *an[z]ila[ʒ]ak* (Arrü).

Entzun dugu sabaiaurreko ozena ere:

A[ʒ]eñe undoan ‘Agen’ hiria (Arbo), *bir[ʒ]ina* (Ilh), *enteli[ʒ]enta* (Arbo), *[ʒ]jinnastika* (Donap)

7.3.1.2.2.3. Amiküzeko eta ondoko Zuberoako mugako adinetako hiztunen artean entzun daitezke dardarkari ubularearen adibideak, baina ez dira nagusi; ukan ditugun hiztun amiküztar gehienek euskal *rr* dardarkaria aski garbi hobietan ahoskatzen dute eta Arberoako Armendaritze eta Mehainen ukan ditugun lekukoen dardarkariek ere Hegoaldeko hots bera dutela iruditu zaigu. Aipagarri da, haatik, Bithiriña, Berroeta, Domintxaine, Donapaleu, Gabadi, Gamue, Ilharrre, Laphizketa, Ostankoa eta Sarrikotako lekuko adinetakoen dardarkariaren ahoskera ubularea, gure datuetan *R* irudikatu duguna. Ostankoako hiztuna bizpalau urtez Parisen eta Lourdesen sehi izana da, eta bandan aldi batzuetan ubulare garbia egiten du eta beste batzuetan hobikari garbia ere, biak ahoskatzeko gai dela garden ageri da grabazioan. Bithiriñako lekukoa beti etxean egona da, emaztekiaren ohiko jardunetan erauntsia, baina ubularea ahoskatzen du, beharbada eskolan horrela ahoskatu behar dela ikasirik edo. Ukan dugun lekuko donapaleutar laborari bat Xibaltarre auzoan sortua da eta ez da sekula etxetik higitu; ama garaztarra eta aita behaskandarra zituen, elkarrizketan sistematikoki ahoskatu du *R* ubularea: *deuRuin pilotaria*; *hoRek*; *ziRinta*. Gamueko hiztunaren kasuan dardarkari hobikariaren eta ubularearen arteko hotsa entzuten dugu, ez da garbiki hobikaria ala ubularea, bien arteko nahasketa antzeko bat baizik.

Ahoskera dardarkari hobikaria eta ubularra aztertu eta neurtu dituzte Ipar Euskal Herrian Oñederra, Jauregi eta Epeldek NORANTZ egitasmoan (2014: 89-90), adineko hamabost lagun, 40-60 urte bitarteko hamabi eta gazteagoko hogeita hamabi lagun hotsa azterturik, ubularraren aldeko joeraren egungo berri emanez.

7.3.1.3. Bokalak

7.3.1.3.1. Aferesia

Amiküzén ez dago aferesi gertakari ugari, adibide bakan batzuk sumatu ditugu, iduriz fosildurik edo lexikalizaturik daudenak; eman dezagun adibide bat:

berriz afeitifa mezatik landa kanpoan mahañak eta zari ‘ezarri’ et’ape-ritifa (Gam). Leku gehiagotan ere agertu zaigu: *zarri* ‘ezarri’ (Lab) & *zari* (Ilh) & *zai* ‘ezari’ (Zoho) & *zarten* (Donap) & *zartzen* (Lab, Arbo, Arbe, Laph) & *zarzen* (Sor)

Aldiz, Amоротzen, Behauzen eta Arbotin *ezari* entzun dugu, Olhaibin *ezai* eta Bithiriñan nahiz Uhartehirin *ezartzen*; Sorhapürün *ezarzen*, Arrüetan eta Laphizketan *ezarten*. Arberoako Armendaritzen *EHHA*-k nagusiki *ezartzen* bildu du, baina badakar *zartzen* ere. Zuberoa mugako Pagolan ere *zarten* bildu dugu.

Bada *gozaita* ‘ugazaita, aitajauna’ hitza ere (Behau, Uha, Mar / Olh) & *goxama* ‘ugazama, amandrea’ (Mar) & *gozama* (Olh); Zuberoan *egüzaita* & *egüzama* dira hitzok.

Bikoiztasun etsenpluak bat baino gehiago dira:

tseko ‘arratseko’ (Sor) / *atseko* (Arm / Amo, Arrü, Lab, Gam, Arbe / Olh, Loh)

zaroan (Sor) / *azaroan* (Amo, Sor) & *azaroaen* (Behau) & *azarotik* (Olh)

khartzen ‘ekartzen’ (Ost) & *khartzea* (Laph) / *ekhari* (Gab, Ame, Arbo) *mazteak* (Bith) & *maztiain* (Uha) / *emazte* (Arm, Meh / Ora, Amo, Behau, Bith, Uha, Mar, Lab, Gam, Zoh / Arüe, Sarkp, Ainh, Pag, Urd)

belhar phaiten (Gam) / *othe ephaiten* (Uha) & *iratze ep^haiten* (Bith); cf. *othe ephaite* (Ainh)

tsaia (Gam) / *alainan etsaia züzün* (Gam) & *etsaia zelakoan* (Zok)

txekanderea (Amo) / *etxekandere* (Arm / Bith, Mar, Gam / Sarkp) & *etxekandeia* (Arüe, Pag, Urd)

khasi (Zoha) & *khasiz* (Sor) / *ikhas-* (Arm, Meh / Ora, Behau, Amo, Bith, Uha, Arrü, Lab, Ilh, Mar, Gam, Zoho, Arbe, Sor, Laph / Etx, Olh, Loh, Arüe, Sarkp, Ainh, Pag, Urd)

khusi (Ora, Behau, Donap, Sor) & *khusten* (Amo, Lab, Ilh / Arüe) / *ikhus* (Ora) & *ikhusi* (Arm / Behau, Uha, Zoho / Dom, Olh, Loh, Sarkp, Pag)

ikhusiko (Arüe) & *ikhusten* (Arm / Ora, Bith, Lab, Ilh, Arbo / Artie, Ündü, Ainh, Urd) & *ikhustia* (Amo) & *ikhusteko* (Oih)

Nafarroa Garaiko Baztan eskualdean aferesia duen hitz batek ez dirudi Amiküzen jasan duenik: *ipurdi* (Ora).

Oztibarren ere bada aferesi sorta bat:

kharri (Larz) & *kartzen* (Lan) & *karraazten* 'ekarrarazten' (Lan) & *karrázten* (Hoz, EAEL, 263)

zarri (Lan) & *zartzen* (Ibarre, Lan); ikus, halaz ere, *ezartzen* (Lan); *zautzen tzie* 'ezagutzen dute' (Hoz), baina *ezautzen* (Larz)

7.3.1.3.2. Bokalen sinkopak

Eskualdean ez dago sinkopa handirik bokaletan, ez Lapurdiko Aturrialdean bezainbat bederen; cf. Beskoitzeko Duhauren monografiaren emaitzak (1993).

Bada halako joera adierazteko Baxenabarren ez dela sinkoparik gertatzen, baina errate batera, Amiküzen hitz bat edo beste lexikalizaturik gelditu dira hitz barreneko bokala galdurik; eman dezagun, *erran*-en aditz-izenean:

enuk bate ahalge erteko (Amo) & *etzit erten ahal* (Arrü) & *erteko doia* (Behau) & *erteko maneran* (Ora, Bith) & *erten dauzut* (Bith), *phestetaz kanpo eztiüzi erten al e guk* (Mar) & *nola erten diüü* (Lab) & *etzit erten* (Donap) & *erteko manerean* (Arbe) & *arraerten* (Laph) & *erten zakoten* (Olh)

Bestalde, "ari izan" lokuzioaren aditz-izena dugu:

dantzan artzeko (Ora), *lanian artzeko* (Amo)

Eta adibide gehiago ere bada Amiküzen, hitz haborotan gertatzen da bokal galera hitzaren erdian:

agorlain 'agorrilaren' (Sor) & *agorlan* (Bith, Donap, Sor) & *agorlean* (Itho)

barne (Arm, Meh / Ora, Arbo / Olh, Pag) & *barnea* (Arbe / Olh) & *barnen* (Arbo, Sor / Oih, Pag) & *barnean* (Ost, Uha, Donap, Arbe, Sor / Pag) & *barnetik* (Olh) & *barneat* (Sar, Sor) & *barneko* (Arbe) & *barnekuk* (Pag)

bna 'baina' (Amo, Bith, Lab, Ame, Gam, Donap, Arbo, Arbe / Olh)

Donapliin (Arrü, Ame / Olh) & *Donapleun* (Ost) & *Dnapliin* (Ame) & *Dnapliiko* (Ame) & *donaplutarra* (Ost)

eguertan 'eguerdietan' (Zoho)

aldiz guai eltake biltzen ahal (Ih)⁶⁴

ertora ‘erretorea’ (Ora)

hen lo iten eta geo biamon goiztan ‘goizetan’ *partitzen tzitzun* (Bith)

osteuntan ‘ostegunetan’ (Ost)

Eta *-tra* < *-tara* atzizkia ere ageri zaigu Amiküzen:

bizkartraka (Sor), *gaitziürütra at* (Gab), *animaleko mähitrak* ‘mahainta-rak’ (Amo), *orgatra* (Gab), *zakhütraka* (Gab)

Aldiz, sinkopa jasan lezaketen hitz luzeak ere badira galerarik batere gabe entzuten direnak; errate batera *primadera* (Ost).

Amiküzen jatorriz *edun*-en jokoari dagozkion aditz soildu edo sinkopatuak ageri zaizkigu, bokala galdu dutenak:

hautü bat tzü ‘duzu’, ‘da’ zuketan (Zoha), *gitzü* ‘gara’ zuketan (Zoha)

Hona beste hauek iraganean:

nintziün ‘nintzen’ zuketan (Ora) & *nüntziün* (Gam, Arbo), *gintzun* ‘ginen’ zuketan (Ora), *gintzien* ‘gintuzten’ zuketan (Ora), *gintian* ‘genituen’ hiketan (Ora), *ziün* ‘zen’ zuketan, “zuzun”-etik (Behau, Gam), *ziütziün* ‘ziren’ zuketan, “zituzun”-etik (Behau, Gam)

Ezker jarraipena du hitz barreneko bokal galerak Arberoako Armendaritze edo Mehainen. Berebat, bakan dira sinkopak Oztibarren, baina izatez badira ale batzuk; duten lexikalizazio mailaz azterketa berezi bat beharko genuke xuxen mintzatzeko; eman dezagun, guk dakigula *erten* ‘erraten’ beti ahoskatzen da *erten*, baina badira bai *agorlan* ‘agorrilean’ (Hoz, Larz) bai *agorrilan* (Jut) & *agorrilian* (Ibarro) ere; hona adibide gehiago:

arpatzen ‘harrapatzen’ (Lan), *artzen* ‘aritzen’ (Jut), *barnian* (Izu), *Ibarlak* ‘Ibarrolak’ (Ibarro) & *Ibarlako* (Larz)

Ohi denez, baita ugaritasuna adierazten duen *-tra* atzizkia ere:

altzotra at arto (Lan), *eskuz besotraño at iten tzuzun* (Lan), *kamiontra at zeri* (Arh), *orgatra* (Lan), *xakhutra* (Larz), *sartzen zen zaretraka* (Jut)

Cf. sinkoparik gabeko *ahurtara* ‘eskutada’ (Lan)

64 Bardozen ere badakartza laburdura batzuk EHHA-k: *erran take*, *ezteke eman*.

Nabarmena da *edun*-etik eratorri adizkietan bokalen sinkopak eskualdean eragin duen aldakortasuna; Oztibarreko etsenpluak dakartzagu:

gintxun ‘gintuxun’ edo ‘ginen’ xuketan & *gitxu* ‘gituxu’ edo ‘gara’ xuketan (Jut, Zib), *gintien* (Zib, Donaix), *gintin* (Larz); Donaixtin *gituzu* ‘gaituzu’ eta *gitzu* ditugu eta baita *gintzun* ‘gintuzun’ ere; baita *tzu* ‘dituzu’ (Zib, Donaix) erako adibide soilduak ere

Aldiz, badira adibideak osorik ere: *ginituen* ‘genituen’ (Bun), *ginitien* (Jut).

Armendaritzen *gintiin* adizki sinkopatua aipa daiteke eta Mehainen *gintien*.

7.3.1.3.3. Sudurkaritasuna bokaletan

7.3.1.3.3.1. Ezaguna da euskarazko bokaletan sudurkaritasuna ager daitekeela. Jauregik eta Epeldek fonetikaren azterketaren bitartez dioskutenez “bokal sudurkariak ekoiztea bokal ahokariak ekoiztea baino konplexuagoa da fisikoki” (2011: 31).

Mitxelenak berak *FHV*-n aurkezten du gaia: Bizkaian XVI. mendean hone-lako bokalak ahoskatzen zirelako berri esplizituak ditugula dio eta Erronkari eta Zuberoako hitzetan balio fonologikoa duten bokal eta diptongo sudurkari garaikideen berri dakar. Jean-Baptiste Coyosek Arbailako bokal sudurkarien eta ez sudurkarien pare minimo bakan batzuk dakartza (1999: 64).

Badakigu bokal sudurkarien arteko egungo *h*-ak iraganeko bokal arteko *n* arrunta ordezkatzeko duela. Hualdek argitu zuenez, gainera, bokal sudurkarien bitarteko xiberotarren *h* kontsonante hori ere sudurkaria da (1993). Txomin Peillenek dioenez, Zuberoako Pettarra eskualdean ozenki ahoskatzen dira bokal sudurkariok (1992: 254).

Hizkuntzalarien ustez ez dirudi halabeharra denik egungo egunak artean bokal sudurkariak Zuberoan iraun izana; hona Egurtzegiren hitzak (2014: 174):

Contrastively nasalized vowels have been developed by means of language-internal processes in Basque. Nevertheless, borrowings from gascon have greatly increased the number of words with contrastively nasalized vowels in Zuberoan. Contact between Zuberoan and Gascon has probably helped preserve the distinction until recent times. While most Basque dialects lost contrastive vowel nasalization around 4-5 centuries ago, some Zuberoan varieties have maintained it until today.

Erronkarin ere baliatzen ziren bokal sudurkariok, baina hasperenik gabe; alta, Zaraitzun ez da honelako bokalik ageri, Mitxelenak ez zituen entzun (1967:

165) eta guk ere laurogeiko hamarkadan ez genuen Zaraitzun honelako bokalik entzun. Erronkari ibarreko Izaban Mitxelenak *k̄io* ‘usain txarra’, *z̄iatu* ‘koipe gatzatua’ eta *z̄i* ‘ezkurra’ bildu zituen eta Uztarrozen *ḡantzta* edo *ūr* ‘urra’ (1953). Kandido Izagirrek ale hauek dakartza Uztarrozen (ez dugu grafia aldatu): *ánra* ‘harra’ (1959: 297) eta *únra* ‘urra’ (294); baita *áinzpareki* ‘ahizparekin’ (1961: 399), *ánkarrak* ‘ahakarrak, haserreak’ (398), *gánzta* (394) eta *zunr* ‘zuhurra, zekena’ (397) ere. Bonaparteren 1869ko *Le verbe basque en tableaux* iturrian oinarriturik, Mitxelenak diosku ipar-mendebaleko Zuberoako Domintxaine eta Ithorrotze-Olhaibin ere *mēhē* edo *mīhī* hitzetan bokal hauek baliatzen direla (1977: 48), baina XXI. mendearen hasieran Amiküzten ibili ondotik, adieraz dezakegu amiküztarrek ere bokal sudurkariak ahoskatzen dituztela, Zuberoan bezain nabarmen entzuten ez badira ere.

7.3.1.3.3.2. Bokal arteko jatorrizko *n* → *h* bilakabidea ez da aski euskarazko bokal sudurkari oro azaltzeko. Egurtzegik berak duela denbora guti analogiaren azalpena aurkeztu du: proposatzen duenez, *gihaur* eta *zihaur* izenordain hanpatuetako hasperen sudurkariaren kutsatzailea paradigmako lehen pertsona *nihaur* litzateke (2014: 83). Paradigmaren argudioak kasu batzuk azal ditzake, baina beste hitz batzuetako bokaletan ere sudurkaritasuna entzuten da; errate batera, Zuberoako ipar-mendebaleko Sarrikotapean *hēben* ‘hemen’ eta *hē̄xa* ‘herexa, arrastoa’ hitzetan, *h* ondoko bokalean kutsu sudurkaria entzuten da; analogiaz ote da hasperendua? Izan ere, hasperen hori ez baita bokal arteko *n* historiko baten ondoko emaitza.

7.3.1.3.3.3. Bokal arteko *n*-aren bilakaeraz eta analogiaren azalpenaz landa, hirugarren eragile bat egon daiteke ere. Ezaguna da James A. Matisoff-en 1975eko “Rhinoglottophilia: the mysterious connection between nasality and glottality” ikerlana. Ivan Igartuak ere sudurkaritasunaren eta laringalizazioaren arteko hartu-eman hertsiaz eta gertakariak hainbat hizkuntzatan duen paralelo tipologikoaz idatzi du (2008: 177). Dioenez, delako *rhinoglottophilia* honen kariaz, *h* igurzkari glotala edo *ʔ* herskari glotala duten sekuentzia fonetikoek ahoskera sudurkariaren agerpena eragin dezakete: errate batera, Thaiandiako thai hizkuntzan, *h*- ondotik bokal apalen sudurkaritzea gertatzen da: [ha:] ‘bost’ > [hā:]. Nepalgo ekialdeko hayu hizkuntza tibeto-birmaniarrean, [h-] duten silabetan halako sudurkaritze llabur baina nabarmena ageri da (177-8). Matisoff, John J. Ohala eta Manjari Ohala hizkuntzalarien oharrak aipatzen ditu Igartuak eta azalpen fonetikoak dakartza gertakariak (181):

El hecho de que la articulación de los sonidos glotales no requiera elevación del velo del paladar (a diferencia de la mayor parte de las consonantes y en contraste con las nasales, que exigen su descenso) posibilita que parte del aire pase a través de la cavidad nasal.

Amiküzeko grabazioen emaitzak behin eta berriz entzutean, hitz batzuetan bederen halako lotura sumatu uste dugu hitz hasierako hasperenaren eta ondoko bokalen sudurkaritasun kutsuaren artean: hitz hasierako *h-* + *v* segmentuetan halako sudurkaritze ahula sumatzen da Amiküzen bokal ugaritan, nahiz hitz guztietan ez den berdin gertatzen: belarriz bederen, hitz batzuetan besteetan baino nabarmenago sentitzen dugu kutsu sudurkari hori.

7.3.1.3.3.4. Larrasketen 1939ko Zuberoako hiztegiko hitzek bi kategoria dakartzate bokaletan: sudurkariak eta ahokariak, sudurkaritasuna baduten eta ez duten hitzak. Datuen arabera balirudike ez zuela bitarteko egoerarik sentitu, ez zuela sudurkaritasun ahuleko bokalik entzun, auzia 0 ala 100 artekoa balitz bezala, bitarteko egoerarik gabe. Guk, aldiz, Urdiñarbeko hitzunaren beste adibide bakan batzuetan (2009) ez dugu argi *h* ondoko bokalean entzuten duguna *h*-aren hotsaren kutsu edo eragina den, ala *h* ondoko bokal horretan entzuten dena halako sudurkaritzea ote den. Belarriz zail da bereizten, gainera, izan ere, hitz baten entzunaldi batean sudurkaritasun kutsua entzuten da, baina adibide beraren hurranen entzunaldian ez da hain garden sentitzen. Zalantza dugun hurranen hitzak bokal sudurkaririk gabe dakartza Larrasketek (1939), baina *h-* + bokala sekuentzian kutsu sudurkaria entzuten dugu urdiñarbetarraren hala *h*-an nola ondoko bokalean:

hāa ‘hara’ (Larrasket 1939, *háa*), *hālxax* (haláxe), *hāsi* (hási), *hāxekan* ‘belar multzo bila’ (háxe), *hērrilat* (hérril), *hīlik* (hil) & *hīlak*, *hīu* ‘hiru’ (hiu), *hūñez* ‘oinez’ (húin) — aintzat har bedi ondokoa ere kontsonante sudurkaria dela—

7.3.1.3.3.5. Euskararen transmisioa etxean bildu zuten adinetako euskaldunen mintzoa biltzen eta aztertzen jardun dugu eta oro har, iduri luke hauen artean Zuberoan bokalen sudurkaritzea ez dela galdu; heldu eta gazte zuberotarren euskal jardunaz ez dugu daturik. Alta, Amiküzen hitzun zaharren artean ere anitzek ez dituzte euskal hitzetako bokalak sudurkari ahoskatzen eta iduri luke ezaugarriaren galera lehendik abiatu delako. Ez dugu Amiküzeko helduen eta gazteen daturik bildu. Aldiz, Zuberoan, euskaraz ongi egiten duten ber, adinetako jendeek euskal bokal sudurkariak ahoskatzen dituzte: Pettarreko Ündüreine edo Urdiñarbeko euskaldun zaharrekin egotean honela entzun dugu.

Amiküzen bokal sudurkari oro *h* ondoan kokatzen da, lehen edo bigarren silaban; ez da Zuberoako *ardū* ‘ardoa’, *hazkū* ‘azkona’, *kharrū* ‘izotza’ erako adibiderik entzuten, ezta *arrathū*, *arrazū*, *sasū* ‘sasoia’ erakorik edo *kamiū* ‘kamioia’, *lehū* ‘lehoia’, *xabū* ‘xaboia’ berriagoen erakorik ere: arestiko adibide guztiak *u* sudurkari azentudunak dira Xiberoan. Adierazi nahi duguna da, Amiküzen ez dela entzuten bokal sudurkaririk ondoan *h* ez duenik; bistan dena, *h*

hori ere sudurkaria da. Ez dugu Amiküzen bokal sudurkaririk entzun ezker ala eskuin hasperenik edo *h* kontsonanterik ez duenik, horregatik, areago dirudi sudurkaria den *h* kontsonante horrek kutsatu diela ondoko bokal hauei sudurkaritasuna, kontsonantean datzala nagusiki tasun zahar hori eta bokalak kutsatu direla, izan ere, Zohaztiko eta Olhaibiko adibide banatan eta Amendüzeko bitan, gure belarriaren arabera bederen, iruditzen zaigu *h* ondoko bokala dela sudurkari eta ez aitzinekoa, nahiz Amiküzen bildu ditugun adibide gehienetan bi bokalak entzuten ditugun sudurkari, *h* horren ezker eta eskuin direnak; nolana ere den, hobeko dugu gai hau fonetikalarien esku uztea.

Berriki, doktoretza tesian honela dio Egurtzegik (2014: 70):

In contrast to Michelena, I do not consider this aspirate passively nasalized due to the nasalized vowels that surround it (cf. Larrasquet 1932: 168). Following Hualde (1993b: 294f., 2003a: 31), I define /*h̃*/ (here and elsewhere, cf. Egurtzegi 2013a, 2013b) as a nasalized segment which induces phonetic nasalization in the neighboring vowels.

Gure belarriak Amiküzen entzundakoaren arabera —eta errepikatzen dugu gure belarriaren araberrako irudipena dela, tresneriarik baliatu gabe, betiere—, bokalen sudurkaritze kutsuaz denaz bezainbatean, beharbada hiru kategoria leudeke, eta ez bi:

a) bokal sudurkariak garden entzuten diren hitzak, bokal arteko *n* zahar baten bilakaeraren emaitza direnak, *h* erdian duten eleak, Zuberoan kidea dutenak; errate batera, *āhārdi* (Zoho), *āhārran* (Ame), *īhīzin* (Lab) edo *xāhātu* (Zoho); *xahākoa* (Lab) elean, berriz, gure belarrian bederen, bigarren *a* hori sudurkari gardena da eta lehena erdizka baizik ez

b) bokal guztiz ahokari edo arruntak, eta

c) halako sudurkaritasun ahulxeagoa duten bokalak, bokal sudurkari gardenagoak bezalaxe *h* ondoan kokatzen direnak. Arestian eman ditugun Larrasketen Zuberoako hiru herrietako 1939ko *beha*, *behar*, *behatz*, *behéz*, *behi*, *bihī*, *bihotz*, *bohor*, *ého*, *léher*, *ohártze*, *óhe*, *xáhar*, *záhar* hitz horietan eta haborotan, *h* kontsonantearen ondoan halako sudurkaritasun kutsua entzuten dugu Amiküzen guk bokalean: batez ere *h*-ren ondotik, baina usu baita aitzinean ere; eman dezagun, *ōhētik* (Lab)

Hona orain Amiküzeko hitzen etsenplu sorta bat, guk uste bokala sudurkari entzuten baita:

āhāl (Bith, Ost, Mar, Zoha, Arbe) —alta, Zohaztin eta Arbotin *ahāl* entzun uste izan dugu; Ostankoan *āhālez* uste dugu entzuten dugula— &

in āhāla (Sor); *āhālge* (Amo) —Ilharren ere *ahalge* entzutean susmoa dugu bokal horietan badela sudurkaritasuna, baina ez gaude ziur—; *āhārdi* (Ora) & *āhārdiak* (Zoho); *āhārran* ‘eztabaidan, haserrean’ (Ame, Zoho); *āhāte* (Ora, Amo, Behau, Ilh, Gab) & *āhāteak* (Ost) & *āhātiak* (Arbe); *āhāzten* (Ora, Arbe) & *ahāztiak* (Donap); *āhāzpek* (Mar); *āh[ȳ]r* ‘esku ahurra’ (Ame); *āihēn* (Lab)

bēhār (Lab, Ame, Arbe, Sor) & *bēhārra* (Zoho) & *behār* (Lab, Ame) & *bihār* (Gam); *bēhātzen* (Mar, Arbe) & *bēhātuz* (Bith); *bēhī* (Mar, Arbe, Sor) & *bēhīain* (Gam) & *bēhīekin* (Zoho, Arbe) & *bēhīendako* (Donap); *bēhīn* (Donap, Arbe) & *behīn* (Ame); *bēhōr* (Arbe) & *bēhōrreki* (Mar); *berrēh[ȳ]n* (Zoho); *bīhī* (Mar) & *bīhīa* (Arbe) & *bīhīain* (Lab)

ehāiten ‘ehotzen’ (Arbe); *ēh[ȳ]n* ‘100’ (Ame)

gehāu (Lab), *geihēna* (Bith)

hēskualdunak (Mar); *hōgei* (Zoho) & *hōei* (Donap) —(cf. Lakarra 2011: 108)—; *hōla* (Ame, Zoho) —sakonean *honela* izanik—

ihīzin ‘ehizan’ (Lab, Ilh, Donap, Arbo) —baina Donapaleun entzun dugu lekuko berarengandik *ihīzin* ere— & *ihīzen* (Zoho) —baita *ihīzen* ere Zohotan— & *ihīzirat* (Laph) & *ihīztari* (Lab) & *ihīzlari* (Zoho, Laph)

lēhēn (Bith, Mar, Ame) & *lēhēnik* (Zoho, Sor) & *lēhēnao* (Lab) & *lēhēnau* (Zoho) & *lēhēno* (Arbe) & *lēhēneko* (Donap) & *lehēn* (Gam); *lehērtzen* (Arbe)

māhāirat (Sor) & *māhāñak* (Gam) & *māhītrak* ‘mahaintarak’ (Amo); *mahātsa* (Arbe) & *māhasti* (Behau) & *māhastia* (Behau) —honelaxe entzuten ditugu—; *mēhē* (Lab); *mīhīseak* (Uha)

nāhās (Gam) & *nāhāsten* (Arbe); *nāhī* (Zoho, Arbe) & *nāhō* (Mar) & *nahī* (Donap, Ame) / *nornahī* (Donap); *nēhōr* (Arbe) & *nīhūr e* (Ora) & *nīhūri* (Ame) & *nīhūr e* (Amo, Ame) & *nīhūekin* (Ame)

ōhētik (Lab)

sēhī (Bith, Mar)

ūhāl (Sor); *ūhūre* ‘ohorea’ (Ame) & *ūhūria* (Gam) —honelaxe entzuten dugula uste dugu, baina sudurkari gabeko *uhuria* aldaera ere entzun dugu Gamuen; aldiz, Zuberoa mugako Sarrikotapean sudurkari gardena da: *denboan de[ʒ]ūhūe* ‘desohore’ *handia*—

xāhārren (Arbe); *xāhātū* (Lab) & *xāhātze* (Uha) & *xāhātzen* (Bith) —Gamuen *xaatzeko* entzun dugu, kutsu sudurkaririk gabe—; *xēhātu* (Ost) & *xēhēkatūik* (Ame) & *egūr xēhīa sūiaen phizteko* (Zoha) & *xēhīak* (Dom)

zāhār (Lab) & *zāhārrek* (Zoho) & *zahārraua* (Ame)

Beste sekuentzia batzuetan —gure entzumenaren arabera bederen— bokalen sudurkaritasun kutsua entzuten da, baina ez dirudi aspaldiko bokal arteko *n*-ren ondorioa denik: *bēhāla* ‘berehala’ (Lab), *behūa* ‘beroa’ (Ame), *bēhēxte*

(Ame), *ehōtuik* ‘eroturik’ (Ame) adibideetan *vrv* → *vrhv* → *vhv* bilakabidea dagoela dirudi.

Izenordain hanpatuetan ere bokal sudurkariak entzuten dira:

nñhāu ‘nihaur, neroni’ (Arbe) & *nñhāur* (Zoho) —baita *nihau* ere (Zoho)— & *nñhāuk* (Mar, Zoho) & *nñhau* (Donap)

gñhāuk (Donap) & *gñhāuren* (Arbe) —baita Zuberoan ere: *gñhau* & *g[ñ]hāuk* (Artie)—

7.3.1.3.3.6. Hurranen adibideak ere, gure belarriaren arabera bederen, bokal sudurkariak izan litezke; egiazki, kasu batzuetan batzuk besteak baino sudurkariago entzuten dira. Zernahi ere den, ez dira bokal arteko *n* baten bilakabidearen emaitza, hitz hasierako *h*- etimologikoaren ondoan daude: halako *rhinoglotto-philia*-ren adibideak izan ote litezke? Azterketa fonetiko xeheen bidezko deskribapena beharko litzateke:

bñhātza (Bith)

hāgan (Donap), *hāin* ‘haren’ (Donap, Zoho), *hāinbeste* (Ame), *hāk* ‘hark’ (Donap, Ame), *hāmabi* (Donap), *hāmar* (Donap, Ame, Zoho), *hān* (Donap, Ame, Zoho), *hārgingoan* (Donap), *hāri* erakusle datiboa (Ame), *hārtzen* (Ame), *hāsi* (Ame) & *hāste* (Zoho), *hātteman* (Lab), *hāu* (Donap, Zoho), *hāurrak* (Zoho), *hāxeka* (Donap), *hāzidakua* (Mar), *hēa* ‘ea’ (Ame), *hēek* ‘haiek’ (Ame, Zoho) & *hēk* (Donap, Mar) & *hēētan* ‘hietetan’ (Mar), *hēldü* (Ame, Zoho), *hēmen* (Lab) & *hēn* ‘hemen’ (Donap, Ame), *hērri* (Ame, Zoho), *hīgatzten* (Ame), *hīl* (Ame), *hīriuerren* (Ame), *hōin* ‘hain’ (Donap), *hōri* (Zoho) & *hōi* (Donap), *hōrrekīn* (Ame), *hōtza* (Donap)

Hondarreko urteotan Amiküzeko ahoskera entzuten jardun dugunean, irudipena dugu *ññ* eredu edo sekuentzia nagusi dela. Iruditzen zaigu *vññ* katea fonikoaren adibide gehiago entzuten ditugula *vñv* ereduarenak baino, alegia, ondoan *ñ* duten bi bokaletarik hasperendua bakararra denean, eskuinekoa izan ohi dela kasu gehiagotan sudurkaria ezkerrekoa baino. Hau gure belarriaren irudipen inpresionista da, ez da tresna objektiboek neurtu dutena.

7.3.1.3.3.7. Euskal hitzetan beste egoera berezi batzuetan ere ageri da bokal sudurkaria Amiküzten, baina honelako adibide bereziak arras bakan entzun ditugu:

uai kanpuan tzü behiekī (Arbe)

esniaikī (Arbe)

edo Arbatzen duk, edo Domixī, ta uai Domixīentik heldü zakiuk hunat (Zoho)

7.3.1.3.3.8. Itxaron litekeenez, Donapaleuko kantonamenduko Xiberoako herrietan ere bokal sudurkarien adibideak agertu dira euskarazko hitzetan:

āhātiak, īhīzlari, xēhēkatzen (Berroeta)

āhāl, āhārra, āhātzi, āhīzpa, behār, bēhīak, bēhīn, hān, hāxot, īhīzen, lēhēno, mähāñen, nihāundako, nihū e ‘inor ere’, *oihāl, oihān, sēhīaiki, xāhātii & xāhātzen, zāhār, zernahī* (Olhaibi)

Iruditu zaigu Olhaibin *mītsen txiützeko* entzuten dugula, baina bi *i* horien sudurkaritasunaz zalantza dugu; bego honela.

Zuberoan barnago sartuz bezala bokal sudurkarien agerpena areagotuz doa:

āhāl (Oih), *āhārratzen* (Oih), *āhātzi* (Oih), *bēhār* (Sarkp, Pag), *bēhēiti* (Pag), *bēhēx* ‘bereiz’ (Pag), *bēhī* (Sarkp, Oih, Pag), *bēhīn* (Sarkp), *bēhōr* (Pag) & *bōhōr* (Sarkp, Oih), *belhāiko* ‘belauniko’ (Oih), *bōhāme* ‘ijitoa’ (Pag), *ēhāiten* ‘hiltzen’ (Oih, Pag), *eihēa* ‘eihera, errota’ (Sarkp), *īhīztaiak* (Pag), *kamiū* (Oih), *lēhēn* (Sarkp, Oih, Pag), *lēhēr* (Oih), *mähātsa* (Pag), *mēhēxi* (Oih), *nāhās* (Sarkp, Oih, Pag), *nāhī* (Oih, Pag), *nīhāuk* (Pag), *oihāl* (Pag), *ōihān* (Oih), *sa[ʒ]ū* (Pag), *txīan* ‘xehean’ (Pag), *ūhūñ* ‘ohoina, ebaslea’ (Pag), *xāhār* (Sarkp, Oih), *xīa* (Oih), *zāhār* (Oih), *zīhāuk* ‘zuhaurek’ (Pag), *zūren* (Oih)

Hurranen etsenplu Zuberoakoak, ordea, ez dira *h* artekoak, *h* ondokoak dira:

hāat ‘harat’ (Sarkp), *hāiek* (Sarkp), *hāier* (Arüe), *hāik* ‘hark’ (Arüe), *hāla-hāla* (Sarkp) & *hāla* (Pag), *hāmeste* ‘hainbeste’ (Arüe), *hān* (Arüe, Sarkp), *hāndi* (Sarkp) & *hānditez* (Sarkp), *hānitx* (Oih, Pag) & *hānixko* (Sarkp), *hārtan* (Arüe), *hārtzen* (Arüe), *hāsi* (Arüe, Pag) & *hāsteko* (Arüe) & *arrahās* (Arüe), *hātsarrín* (Sarkp), *hāundia* (Sarkp), *hāur* ‘haurra’ (Arüe) & *hāurrak* (Sarkp), *hēben* ‘hemen’ (Sarkp, Pag) & *hēen* (Sarkp) & *hēn* (Sarkp) & *hēn* (Arüe, Sarkp), *hēdatü* (Sarkp), *hēetan* ‘haietan’ (Sarkp), *hēiñ* ‘hein’ (Sarkp) & *hēiñeko* (Sarkp), & *ēhīn* ‘hein’ (Sarkp), *hēk* (Arüe), *hēldü* (Arüe) & *hēltü* (Sarkp), *hēri* (Arüe) & *hērrin* (Sarkp) & *hērritar* (Sarkp), *hēzten* (Arüe), *hīlen* (Sarkp) & *hīlez* (Arüe), *hīü* ‘hiru’ (Arüe, Sarkp) & *hīu* (Pag) & *bizpahīü* (Sarkp), *hōbe* (Arüe), *hōi* ‘hori’ (Arüe), *hōik* ‘horiek’ (Sarkp), *hōla* (Arüe, Sarkp), *hōr* (Sarkp), *hūk* ‘hurak, haiek’ (Sarkp), *hūnat* ‘honat’ (Arüe), *hūnek* ‘honek’ (Arüe), *hūnkiak* (Sarkp), *hūñez* (Oih, Pag)

7.3.1.3.3.9. Eta beste baldintza fonikoetan ere entzuten da bokala sudurkari Zuberoako Arüen: *lh* ondotik *alhōrrean* eta *ilhārra* adibideak entzun ditugu; Amiküzeko Donapaleun, berriz, *belhāun* entzun dugu. Behin *nīh* ondoren entzun dugu Zuberoan: *Añharben* (Sarkp).

Baita herskari hasperenduen ondoko bokalean ere:

arthūa (Sarkp), *bethī* (Sarkp), *khāio* ‘kario, garesti’ (Sarkp), *khāntüz* (Sarkp), *phēsta* (Sarkp)

Bestalde, *vr̥v* > *vr̥hv* > *v̥hv* gertaturik, *bēhēx* (Pag), *bīhāmūnian* (Artie) & *bīhāmōnian* (Sarkp), *mēhēxi* (Oih) adibideak ditugu Zuberoan; eta hauekin batera baita *hēēxa* ‘herexa, arrastoa’ (Sarkp) ere.

7.3.1.3.4. *u*-ren palatalizazioa: seigarren bokala Amiküzen

7.3.1.3.4.1. Indeterminazio grafikoa XVIII. mendean

Charles-Auguste Le Quien de Laneufville apezpikuak 1786an Akizeren menpeko fededun baxenabartarrentzat berrargitararazi zuen katiximan, euskal ekialdean *u* eta *ü* bereizten duten mintzoetan ohiz espero litekeena da <ou> eta <u>-ren jokabidea hein batez, baina ez dago guztizko koherentziarik. Hein bateko egokitzapen horretan oinarriturik edo, Alphonsa Rodriguez-en *Pratica*-ren Lopezen 1782ko itzulpenean ez bezala, Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegia*-k <u> / <ü> bereizketa baliatu du 1786ko kristau ikasbide edo delako *CatLan* transkribatzeko, baina garbi adierazi behar da 1786ko katixima honetan ere <u>-ren balioa ez dela unibokoa eta ez duela sistematikoki /ü/ adierazten.

Gure ikuspegi eszeptikoaren lekuko egokia da baitezpada /u/ ez palatalizatu izan behar duten hurranen adibideen grafia anbigua:

guiristinuac (18, 34), *hunec* ‘honek’ (34), *huntarçunac* (38), *onduan* (9), *urtharrilaren* (8), *urthax* (8)

Hitzotako fonema /u/ izanik, katiximan grafia era unibokoa baliatu balitz, adibideok berez <ou> beharko zuketean izan. 1786ko testuko hainbat bereizketa grafikoren balioa hondatzen ez badute ere, katiximako sistema grafikoaren ahulguneak erakusten dizkiote hizkuntzalariari; funtsean, ez diote aukerarik ematen 1786ko liburuak /u/ eta /ü/ fonemen arteko bereizketa garbia irudikatzen duela sinesteko.

1782ko *Pratica* liburuan legez, 1786ko kristau ikasbide honetan ere hainbat hitz bi eratara idatzirik ageri dira, argitalpenak aldakortasun grafikoa ageri du:

- 1) ur: *goure* (8) & *goureçat* (8, 34), *gouriac* (7) / *gure* (9), *guri* (8)
- 2) urt: *Ourtharilaren* (39) / *Urtharrilaren* (8); *Ourthaxez* (38) / *Urthax* (8)

3) uk: *ouquen* (7) / *uqhen* (37)

4) un: *hounen* 'onen' (10) & *hountarçuna* (36) / *hountarçunac* (38)

5) hiatoan: *ondouan* (9, 33) / *onduan* (9); *Gincouaren* (35) / *Guiris-tinuac* (34)

Ikus ditzagun Amiküzeko katiximatzat jotzen den liburu honetako datuak xeheki:

<ou> dugu adibideotan, teorian /u/ adierazteko:

bessouetan (39), *Demoniouaz* (41), *gaiñecoua* (6), *gouhaurec* (38), *hirour* (6), *houra* (7, 33), *humanoïa* (36) & *humanoua* (36), *icous* (9) & *icoussi* (39) & *icousten* (6), *igoïalki* (36), *jouanic* (40), *Marchouaren* (37), *Mysterioïan* (36), *noun* (7, 38, 40), *ondocouac* (33), *ouhaitzcian* (40), *ourthe* (40) & *ourthetaraino* (40), *Templouan* (8)...

Aldiz, <u>-k teorian /ü/ islatuko luke 1786ko katiximan, baldin idazkia bokal palatal hori orduan indarrean zegoen eskualde bateko hiztun oso batek idatzi balu:

aingurien (38), *baiçuten* (33), *becatu* (33), *buluciac* (33), *burian* (39), *Ceru* (40), *Curutciaren* (8), *dacogu* (38), *ditu* (33), *du* (8), *duçu* (34), *eguna* (8), *gorphutz* (7), *gucien* (8) & *guciac* (33), *guitu* (8), *hartuz* (36), *Jesu-Christoren* (8), *jujatia* (9), *leuco* (8), *Lurra* (33) & *Lurrerat* (9), *miraculu* (38), *mundiaren* (9), *Seinduco* (35), *unitu* (35)...

Bestalde, *urço* (49) eta *Urhe* (38) adibideez gure zalantza adierazi behar dugu: Amiküzeko Oragarren *urreria* bildu dugu, baina Larrasketek *ürheria* dakar Zuberoan 1939an. Berebat, Martxüetan *urzo* entzun dugu eta ondoko Zokotzen *urtzo*. René Lafonen Gamue-Zohaztiko berriemaileak *ürzo* zerabilen 1936an, palatalizatu gabe. Larrasketek *ürzo* dakar Zuberoan 1939an.

Hona xeheki eta ikuspegi fonologikotik eskainirik, kristau-ikasbide horretako alderdi grafikoaren jokabidea zerik den:

<ou> dakartenak, itxuraz /u/ adierazten dutenak:

1) jatorria *o* duen *u*: *noun* 'non' (7, 38, 40), *hounen* 'onen' (10) & *hountarçuna* (36)

2) hiatoaren lehen kidea *u* da eta *o* du jatorria: *bessouetan* (39), *demoniouaz* (41), *gaiñecoua* (6), *Gincouaren* (35), *humanoïa* (36) & *humanoua* (36), *jouanic* 'joanik' (40), *marchouaren* (37), *mysterioïan* (36), *ondocouac* (33), *templouan* (8); baita beharbada *igoïalki* (36) ere

3) *ur* sekuentzia: *hirour* (6), *houra* ‘hura’ (7, 33)

4) *urt* sekuentzia: *ourthe* (40) & *ourthetaraino* (40)

5) *us* sekuentzia: *icous* (9) & *icoussi* (39) & *icousten* (6)

Hona hemen katiximan <u> dakarten adibideak, kasu gehienetan behar-bada /ü/ irudika lezaketenak:

1) hitz hasieran: *burian* (39), *curutciaren* (8), *guciac* (33) & *gucien* (8), *guri* (8) — Arbotin *güriak* ‘gureak’ bildu dugu —, *lurra* (33) & *lurrerat* (9); adierazi dugu *Urhe* ‘urrea’ (38) eta *urço* (49) adibideez gure zalantza

2) hitzaren erdian: *aingurien* (38), *buluciac* (33)

3) hitzaren bukaeran, koda izan nahiz ez izan: *becatu* (33), *ceru* (40) & *cerurat* (9), *dacogu* (38), *ditu* (33), *du* (8), *duçu* (34), *eguna* (8), *gorphutz* (7), *gu* (9), *guitu* (8), *hartuz* (36)

4) maileguak: *Jesu-Christoren* (8), *jujatia* (9), *miraculu* (38), *mundiaren* (9), *unitu* (35)

5) lexemaren mugaren ondotik *k* duela: *lekuco* (8), *seinduco* (35)

Ez dago batere garbi *ouquen* (7) / *uqhen* (37) bitasun grafikoa zer ari zitzai-gun irudikatzen, zehazki zein bokal mota islatzen duen.

Bestalde, egungo Amiküzen hitzaren hasieran *ü* egiten den bi adibidetan <ou> dakar katiximak: *gouhaurec* (38), *ouhaitz, cian* (40). Hitz hau *ühaitz* bildu dugu Zuberoako Oihergin eta Pagolan ere eta halaxe dakar Larrasketek hizte-gian; Amiküzeko Zohotan *ühaizte* bildu dugu ‘uholdeak’ adieran.

Oro har ez dugu uste bermerik dagoenik 1786ko katixima honetan grafiak /u/ eta /ü/ fonemen arteko bereizketa gardena dakarrela erran ahal izateko; ekialdeko bokal sistemarekiko hein batean ezkontzen bada ere, ez da batere sistema unibokoa.

7.3.1.3.4.2. *u* eta *ü* Amiküzeko eskualdeetan

Bardozetik Zuberoaraino ipar Amiküzen gaindi *ü* fonema palatala baliatzen da, eta sekuentzia homofono bakan batzuetan *u* vs. *ü* erako pare minimoak ere gertatzen dira. Euskalari eta ikertzaile gehienek uste dutenez historikoki kas-koinen hizkuntzak kutsaturik gertatu da *u* → *ü* berrikuntza. Aldiz, hondarreko urteotan Oñederrak *u* > *ü* aldaketa argitzeko balizko *u* > *uw* > *iw* > *ü* diptongazio eta monoptongazio gertakaria proposa daitekeela adierazi du (2009).

Egurtzegiren arabera alderdi fonikoan *ü* bokalak duen nabarmentasun akustikoa garrantzizkoa izan da berrikuntza gerta dadin, eta uste du, bestalde, *u* → *ü* aldaketa gertatzeko ondoko hizkuntza kaskoinaren eragina ezin ukatua dela. Berebat, euskararen barrenean *ü* honek bere *habitat* berezia eratu duela dio, baldintza artikulatarioek eragiten baitute kokagune fonologikoaren arabera hitzean *u* ala *ü* dugun (2014).

Zuberoako *ü* fonema galarazten duen ingurune fonikoaz diharduela honela aurkeztu du Egurtzegik bere ikuspegia (2015: 158-9):

u > *y* [ü] bilakabidearen galerazpena koartikulazio efektuen ondorioa dela proposatu dugu: blokeatzea /r/, s, r^h, rt, rd/ segmentu eta taldeak ebakitzeko behar diren mihi puntaren mugimendu finak burutzerakoan beharrezkoa den mihi gorputzaren atzeko kokapenaren ondoriozko koartikulazio efektuek eragiten dutela, hain zuzen ere. Modu berean, prozesuaren abiapuntua *-tu* atzizki orokorrean aurki daitekeen /tu/ bezalako testuinguru fonetikoki aitzineratuetan bila daitekeela proposatu da, hortik beste testuinguruetara zabal zitekeelarik.

Baxenabarre gehiengan bezala, Arberoan *u* ez da palatalizatzen hitz bukarako edo adizkietako hiatoetan baizik: *buria* ‘burua’, *sortia* ‘sortua’, *zien* ‘zuen’, *zitiin* ‘zituen’ (Meh) / *gintiin* ‘genituen’, *niila* ‘nuela’, *ziilaik* ‘zuelarik’, *zindien* ‘zenuen’ & *ziniin* (Arm). Amiküzen ez bezala, oro har Euskal Herriko ekialdean ez bezala, gainerateko egoera edo kokaguneetan *u* egiten da Arberoan, ez “ü”.⁶⁵

Alta, gauza jakina da frantses mailegutan Ipar Euskal Herri guztian *ü* dagoela; eman dezagun, *oküpatia* hitzean (Arbe); cf. 7.3.1.2.1.3. §.

Begien bistan dagoen gauza da Amiküzeko euskal hitzetan badela Baxenabarre gehiengan ez den bokal bat: *u* palatalizatua —beste hitzetan erranik, *ü*— egiten dute amiküzarrek mintzatzean, Xiberoan bezala. Ondotik ikusiko dugu amiküztar guztiek ez dutela *ü* egiten, iparreko herrietakoak dira euskal hitzetan *ü* ahoskatzen dutenak: hiztun amiküztarrek berek adierazi digute herri guztietan ez dela *ü* egiten. Arberatzen bizi zen behautzar batek kontatzen zigun *ü* haboro ahoskatzen dela Arberatzen euskal hitzetan:

*Donapaleuraano iduitzen tzaüt eta eskuara berxia dela Beauzekoainkin,
hemen... puxka at, hemen puxka at “ü” gei^ho iten dute “u” beno*

65 Ez dakigu belaunaldi kontua den, baina katiximan ikasi zuen euskararen moldeak maite zituen hiztun laborari euskaltzale batek —Mehainen 1938an sortu, gerora Amiküzeko Gabadira ezkondu eta 2014ko udaberrian hil zen batek—, *sorthüa*, *ezkondüa*, *khotsüa* erakoak egiten zituen absolutiboko hiatoan. Egiazki kokagune horretan hazpandarrek egiten duten bilakabide bera dela iruditzen zaigu.

Hona hemen, alfabetoaren arabera zerrendaturik, hainbat eta hainbat *ü* Amiküzen bildu ditugun emaitzetarik ekarririk; oraingoz bego honela, ondoko lerroetan aztertuko dugu euskal hitzen zein kokagune fonologikotan ahoskatzen den eskualdean *u* eta zeinetan, berriz, *ü*:

aberastü (Arbe), *ahiür* (Ame), *aidürü* (Behau, Zoho), *alarguntsatiü*⁶⁶ (Mar) & *alargüntsak* (Donap), *Amendüzen* (Mar), *Amiküze* (Ilh, Laph) & *Amiküzeko* (Behau), *andeatü* (Arbo), *antxü* ‘kasik, abantxu’ (Behau) & *antxüño* (Zoho), *aphaldü* (Zoho), *arrünt* (Donap), *atxikimendüz* (Behau), *balü* (Ilh), *barrükü* (Ilh, Zoho), *batzü* ‘batzuk’ (Mar, Gam), *behartü* (Mar), *bihamün* (Sor), *bilküra* (Zoho), *bitüt* (Zoho), *borthü* (Laph), *büüillean* (Laph), *dakük* ‘ziguk’ (Zoho), *damü* (Behau), *egün* (Behau), *egüberri* (Zoha) & *egürri* (Arrü), *egüerditan* (Sor) & *eürdi* ‘eguerdia’ (Arrü), *egün* (Gam, Zoho, Arbe), *ehün* (Mar), *enegüik* (Larri), *epantxü* ‘oztopoa’ (Behas), *eremü* (Behau), *eritarsüna* (Arbe), *erresüma* (Donap), *eskü* (Ame) & *esküz* (Arrü), *ezaütü* (Mar), *ezkü* (Zoha), *eztütana* (Ilh), *eztütützü* (Lük), *ezürak* (Arbe), *gelditü* (Arrü, Mar), *gü* (Arrü, Behas), *güne* (Behau), *güti* (Behau, Arrü, Laph) & *gütü* (Arbe), *güzi* (Behau, Mar), *heldü* (Mar, Gam, Zoho, Sor), *hiritartü* (Behau), *hitzartüik* (Sor), *hürren* ‘hurbil’ (Behau), *idüritzen* (Arbe), *ilhüntzetan* (Laph), *ingürü* (Behau), *intzüten* (Arbe), *kantüz* (Arbe), *khendü* (Zoho), *kükülak* (Sor) — baina *ü* ahoskatzen duten Sarrikotan *kukulak* bildu dugu —, *khüützatzen* ‘gurutzatzen’ (Behau), *labürtzen* (Ame), *lagüntzen* (Arbe), *laketü* (Mar), *lekhü* (Behau, Mar, Gam, Sor) & *lekürat* (Arrü), *lür* (Arrü, Mar, Gam), *makhürrago* (Behau), *mentüaz* (Arbe, Laph), *müthür* (Zoho), *negü* (Arbe, Laph), *nüzü* (Arbe), *pixkolatü* ‘bizkortu’ (Ame), *saldü* (Gam, Arbe), *sekülan* (Behau, Ilh, Arbe), *sühia* (Donap), *süian* ‘suan’ (Mar) & *süko* (Arrü), *tRenpüttxartzen* (Laph), *üda* (Zok, Laph, Sor), *üdalatzen* ‘lur iraultzen’ (Sar, Sor) & *üdalen* (Sar, Ilh, Zoho, Arbe / Olh, Sarkp), *üdüri* ‘irudi’ (Laph), *ülü* ‘eulia’ (Zoha) & *ülütxa* ‘eltxo’ (Zoho), *üme* (Behau, Zoho), *ürrats* (Ame), *ürri* (Sor), *ürrina* (Ame), *ürrhün* (Ame) & *ürrün* (Behau) & *ürrüntxago* (Laph), *üsü* (Arrü, Mar), *üxtarri* ‘uztarria’ (Sor) & *üxtartzen* (Laph), *üztaila* (Laph) & *üztallan* (Sor), *ützi* (Mar, Gam) & *üzteko* (Arrü), *xühür* (Zoha), *xün-xüna* ‘xuxen-xuxena’ (Laph), *zakükari* (Mar), *zaküzü* ‘zaigu’ zuketan (Mar), *zatzatzü* ‘zaizkit’ zuketan (Arbe), *zü* (Laph) & *züka* (Behau) & *zütaz* (Arbe), *züten* (Zoho), *züzen* (Sor), *züzün* ‘zen’ zuketan (Gam)

Ipar Amiküzen, kaskoinaren muga ondoko herrixketan, *u* bokal palatala edo delako *ü* baliatzen dute hiztunek euskal hitzetan. Artolak Amiküze ibarrean *ü*-rik egiten ez duten herrien zerrenda eman zuen duela urte multzo bat (Irizar 2002a: 22): Oragarren, Amorotzen, Bithiriñan, Ostankoan, Uhartehirin

66 Martxüetako adibide honetan hitzeko bigarren *u* palatala entzuten dugu, baina behin eta berriz entzun ondotik ez dugu uste lehena palatala denik, nahiz ulertzen dugun beste norbaitek palatala entzutea ere.

eta Larribarren ez dela ageri diosku; funtsean, Amiküzeko hegoaldean falta da. Aitortu behar da Artolaren oharrena zinez xuxena dela. Errate batera, 1913an Trebitsch etnografoak Adolf Berdeco lekuko amoroztarrari grabatu zizkion pasarte batzuetan ez da *ü* honen arrastorik ere ageri (Etxebarria 1994: 65).

Alta, Oragarren kasuan harritzeko ere bada hau: alde batetik egia da mendebalera Aiherra duela Oragarrek eta Aiherran ez dela *ü* egiten frantsesezko mailegutan baizik, hau da, euskal hitzetan ez da *ü*-rik entzuten Aiherran. Halarik ere, Oragarrek iparrean Bardoze eta ekialderat Arrüeta ditu eta bi herriok *ü* baliatu ohi dute.⁶⁷ Mailegutan, jakina, ez da harritzeko gauza *ü* agertzea: *debalüatu* (1985), *portüges* (1985) eta berdin gertatzen da Uharteherin ere: *apartamendü*. Arrazoi du Artolak Oragarren euskal hitzetan *ü*-rik ez dela dioenean: herri horretako hiztunen ahoan ia ez da entzuten eta Artolak berriemaileengandik ez zuen entzun, baina baliatzen dute *ü* hori inoiz oragartarrek. Guk bildu datuen arabera, Oragarren bada *ü* zerbaixko; guti izanik ere, hona adizki zenbaitetan eta beste ale batzuetan gertatu palatalizazioa: *bate ez kondü abe ta* (1985) / *sekülan / inen dü* entzun genituen 1985.ean eta baita *k*-ren aitzineko *harri-ükhaldia / ükhan* adibideetan ere. Hurranen adibideak 2006an entzunak dira, Behauzera ezkondu emazteki oragartar bati: *arraheldü / berrehün / bizpahirü / bürian / nintziün / seürki / so izazü*; adieraz bedi haren senar behauztarrak *ü* egiten duela. Aldiz, Bardoze hurbil dagoen Oragarreko Barta auzoan guk ez dugu *ü*-rik entzun; lekuko batekin elkarrizketa luzexko bat grabatu dugu eta ez dugu palatalizazio hau sumatu. Artolak bildu adizkietan badira *ü*-ren ale batzuk Barta auzoan; *u-i* sekuentzian gertatzen dira batzuk: *zauküian* ‘zitzaiguan + ziguan’, *zauzkiian* ‘zitzaizkiguan’; bestalde, *nintiian* & *nintiüian* “hark ni” ‘nindian’ toka ere aipa daiteke.

Artola ikertzailearen lan bikain eta emankorra deusetarako auzitara ekarri gabe, datuok argi erakusten digute hizkuntzalaritzan gabiltzanon artean ere aldakortasuna gertatzen dela datuen bilduman:

a) errealitate mintzatuan badagoen ezaugarri bat ikertzaileak bildu duen corpusean ageri ez delako

ala

b) hizkuntzalari batak eta besteak errealitate bera desberdin entzuten dutelako

Hizkuntza-atlasetan ere, ikertzaileen beren entzuteko gaitasun desberdinak aldeak eragin ohi ditu mapetara emaitzak eramatean edota entzuten dena edo entzun uste dena interpretatzerakoan; honelako adibideak ugari dira, errate

67 Bardozeko *ü*-z ikus orain Encinar-en lana (2008).

batera, dialektologia erromanikoan: 1925eko *Tableaux phonétiques des patois suisses romands* lanak argi eta garbi utzi zuen inkestan zehar bi inkestatzailek hots bat eta bera desberdin entzun dezaketela, eta honelaxe gertatzen da afera hau hiztun edo lekukoen artean ere.

Hona orain adibide sail bat, hein batez erakusten diguna Amiküzeko zein herri eta eskualdetan ahoskatzen den *ü* eta zeinetan, aldiz, *u*; errealitatea leial erakutsi nahiz, ez ditugu Arberoako edo Zuberoako herrietako datuak estali:

aiduru (Meh / Bith, Lük) vs. *aidürü* (Behau, Ame, Zoho / Itho, Loh) & *aidüü* (Pag) & *haidüü* (Ündü, Oih)

ardura (Arm / Behau) vs. *ardüra* (Zoko, Sor)

buru (Arm, Meh / Amo, Behau, Bith, Uha) vs. *bürü* (Mar, Lab, Gam, Arbo, Zoho / Sarkp, Pag) & *biü* (Behau, Arrü, Lab, Ilh, Arbo, Zoho, Laph / Dom, Ith, Olh, Artüe, Sarkp, Ainh, Pag, Urd) & *bürían* (Dom)

dalluz (Mar)⁶⁸ vs. *dallüz* (Zoko, Ilh / Olh)

egun (Arm, Meh / Amo, Behau, Bith, Uha) vs. *egün* (Behau, Mar, Lab, Ilh, Gam, Arbo, Zoho, Arbe, Laph / Olh, Loh, Artüe, Sarkp, Ündü, Ainh, Pag, Urd)

gu (Arm, Meh / Ora, Amo, Behau, Bith, Uha) vs. *gü* (Bith, Arrü, Mar, Lab, Gam, Arbo, Zoho, Laph / Dom, Etx, Olh, Loh, Artüe, Sarkp, Ainh, Pag, Urd)

gune (Behau) vs. *güne* (Behau, Lab / Sarkp, Oih, Ainh, Pag)

inguru (Arm / Amo, Bith, Uha) vs. *ingürü* (Behau, Mar, Lab, Ilh, Ame, Gam, Zoho) & *ingüätzen* (Olh) & *ingüatzeko* (Pag)

su (Meh / Bith, Uha) vs. *sü* (Arrü, Lab, Gam, Arbe / Artüe, Sarkp, Urd)

uda (Arm / Amo, Behau, Bith) vs. *üda* (Arrü, Arbe, Laph / Artüe, Ündü, Pag)

utzi (Arm / Ora, Behau, Bith) & *uzten* (Ost) vs. *ützi* (Arrü, Mar, Ilh, Gam, Arbo, Zoho / Olh, Sarkp, Oih, Pag, Urd)

uztail (Arm) vs. *üztailla* (Ilh, Lap) & *üztaila* (Behau / Urd) & *üztalla* (Artüe)

Nabarmena da frantses mailegu berriek *ü* dakartela, herrian euskal *ü* egon ala ez egon: *etzi difikültateik ukhan* (Bith), *konfitüra* (Bith).

Guk ere Oragarretik eskuin iparreko Amiküze guztian *ü* entzun dugu, baina hegoko herrietan ez. Errate batera, Ostankoa eta Uhartehiri herrian ez zaigu *ü*-rik batere agertu, edo ez dugu entzun. Bithiriñan ere euskal hitzetan ez da *ü* ageri, ez dute baliatzen, eman dezagun, *metatu* baliatzen dute —*ü* gabe, ez “metatü” —, baina laurogei minutuko banda batean hiru aldiz agertu zaigu: 1) *Donapeleürat*,

68 Behin eta berriz entzunik palatalizatu gabea dela iruditzen zaigu.

2) *khündatu* ‘kontatu’, 3) *idiüi* ‘iduri’; bigarren adibidean hasperenak halakoxe distortsioa eragin du eta ez da guztiz garbi entzuten; ohart, bestalde, hirugarren adibidean *ü* hori bi goiko bokal palatalek inguraturik dagoela, bi *i*-k inguraturik.

Amorotzeko bi hiztunekin egon gara eta oro har *u* ahoskatzen dute, baina honek ez du erran nahi euskal hitz batean inoiz *ü* agertuko ez zaigunik: *ene idiüriko* eta *idiüri[z]* e adibideetan *ü* entzuten da gure grabazioan, palatalizaturik eta baita *zeñia intzütiakin* etsenpluan ere. Datu hauen arabera, adierazgarri da funtsean *ü* egiten ez den Amorotze eta Bithiriña herrietan *idiüri* & *idiüi* hitzean badagoela *ü*.

Aldiz, Amorotzeren ondoan den Zokotze herrian *ü* egiten da; ez dakigu xuxen zein baldintzatan egiten den, ez baitugu anitz datu, baina grabatu dugun elkarrizketan ageri da: *ardiüra*, *dallüz*, *güti* edo *heldü* Zokotzeko emaitzak dira. Herri tiki honek Herriko Etxea Amorotzerekin partekatzen du, Pariseko administrazioak bi herriak bakarrera batu zituen.

Zokotzek Martxüeta du ondoan; eman dezagun, haur zokoztarrak bertara joaten ziren eskolara, Amorotze baino hurbilago zutelako. Lerro batzuk aitzinago ikusiko dugunez, ñabardurak egin behar dira Martxüetako lekukoen *ü* fonemaren ahoskeraz, baina lehenik hainbat ohar egin behar dugu Behauze herriko lekukoen *u* vs. *ü* gaiaz: aipa dezagun lehenik, Behauze, Amorotze, Zokotze eta Martxüeta herri auzoak direla.

Behauze herria ez dago Amiküzeko iparrean, erdigunean dago; Trebitsch-ek Behauzen 1913an Katherine Faut hogeita bost urteko dendariarengandik bildu emaitzetan —ama behauztarra eta aita martxüetarra zituen (Etxebarria 1994: 66-7)—, *u*-ren palatalizazioa ez da iparreko herrietan bezainbat gertatzen; *-tu* aditz atzizkian *konsolatüz* eta *patitüz* maileguak eman zituen, baina baita palatalizatu gabeko *harturik*, *khundatuko*, *lothu*, *makurtzen*, *orhiturik* edo *sendatu* etsenpluak ere; *dakozüt*, *zatazün* adizkietan ere palatalizazioa ageri da orduko datuetan eta hurranen hitzetan ere bai: *biürüko*, *sü*, *ülü*, *ützi*; baina halere badira *u* ez palatalizatuak ere: *bizpahiru*, *burrünban*, *egunen*, *kurri*.

Guk hiru lekuko behauztar ukan ditugu 2006an:

adinetako emazteki bat 1921ean sortua eta Arberatzen luzaz bizi zena

adinetako gizon bat 1924an sortua eta herrian bizi zena

gazteagoko gizon bat, 1955ean sortu eta Donapaleun bizi dena

Emaztekiaren mintzoan ez da kasik *ü* arrastorik, adibide bakan —*biüütatuik*, *lek^hü*, *puxü at* ‘pixka bat’ —, baina gizonek *ü* ibiltzen dute, hala adinetakoak nola helduak.

Martxüetako emazteki baten jokabidea da gu baitan harridura gehien eragin duena; alde batetik, lekuko honek *ü*-z ahoskaturik itxaron genezakeen hitz zenbait grabazioan *u* ebakiz eman duelako; errate batera, *alharguntsa*; cf. Larrasket, 1939ko Zuberoan *alhargüntsa* dakar.

Egiazki, aipatzen dugun Martxüetako emazteki honek euskaraz bikain egiten du, baina beste herrietako hiztunen artean sumatu ez dugun barne aldakortasun maila handia ere ageri du *u* / *ü* aurkakotasunean; jarraian dakartzagun 2005eko adibideek argi erakusten dute:

bakizu / *etzukezü*, *bauzu* / *bauzü* & *behauzü* / *baüzü*, *bazuⁿ* / *bazün*
duun & *duula* / *düüina*
emazu / *emazü*, *etzu* / *etzü*, *etzun* / *etzün*
gintzun / *gintzün*, *gitzu* / *gitzü*, *gu* / *gü*, *gue* / *güe*, *gure* / *güre*
hiru / *hirü*, *hamahiru* / *bizpahirü*
nuzu / *nüzü*
tzitzun / *zitziün*, *tzu* / *tzü*, *tzun* / *tziün*
uzu / *üzü* / *üzü* / *bauzü*
zun / *ziün*

Amiküzen ohikoa dena da Arrüetan ere *u* eta *ü*-ren kokagunea, baina hitz batzuetan bikoiztasuna sumatu dugu: *gu* izenordainaren agerpen gehienak *gu* izan dira gure elkarrizketan, baina inoiz *gü* izan da; *hiru* aldaera ere nagusi da, nahiz *hirü*-ren adibide bat ere agertu zaigun elkarrizketan. Arbotin ere honelaxe gertatu zaigu: beti *güre* entzun dugu, baina *gu* izenordaina usu hala-hala palatalizatu gabe entzun dugu, nahiz lekukoak adibide batzuetan *gü* ere eman duen.

Bonaparte printzearen arabera XIX. mendean Donapaleun ez omen zen *ü* egiten, baina XX. mende bukaeran Artolak Donapaleuko hiztun batek *u* eta *ü* xuxen bereizten dituela dakar eta iradokitzen du helduen eta gazteen artean bereizketa galtzen ari dela. Irizarrek dakartzan Donapaleuko adizki tauletan (2002a), XIX eta XX. mendeetako datuak ditugu, Artolarenak barne, eta ez da *ü* ageri. Gu Donapaleun Xibaltarre auzoko bi hiztun laborarirekin mintzatu gara eta elkarrizketak grabatu ditugu; bata gizona da, 1931n sortua, ama Garaziko Aintzilakoa eta aita behaskandarra zituena eta *ü* egiten du, baina beste lekukoak ez, oro *u* egiten ditu: emaztekoa da, 1928an sortua, ama oragartarra zuen eta aita Labetzekoa. Ez dugu Donapaleuko kaletar euskaldunik ezagutu, hiriko ohitura guztiz frantsesturi dago.

Larribarren gauzak konplexu direla ematen du. Koldo Artolak dioenez ez dira *u* eta *ü* bereizten eta ezagutu dugu larribartar bat, herrian *ü* ez dela ahos-

katzen erran diguna. Guk *Irulegi Irrati*-ko grabazio batean bi lekuko larribartar entzun ditugu eta biek *ü* egiten dute, nahiz ez duten egin lezaketen etsenplu guztietan egiten. Eman dezagun, bietarik batek ama Arüekoa zuen eta aita bearnesa; hona haren adibide batzuk.⁶⁹

ardüira, berritü, ehün, enegüik, eskü, phülo, sarthü, ürrhatsa, zalü

vs.

barruki, datazu, gelditu, gintzun, ni^ezun, xutik

7.3.1.3.4.3. *ü*-ren baldintza fonologikoak Amiküzen

Amiküzen *ü* ageri den ingurune fonologikoaz baitezpada oharrak egin behar dira. Zuberoakoak baino baldintza hertsiagoak dira euskal hitzetan agertzeko Amiküzen daudenak: ekialdeko baxenabartarrek ez dute mintzatzean xuberatarrek bezainbat *ü* egiten. Bonaparteren garaitik dakigu hau (1869: xiv).

Printzeak zioenez, ibar honetan *düzü* & *dün* adizkiak baliatzen dira, baina *duk* adizkian ez da *u* bokala palatalizatzen, Zuberoan ez bezala, ondotik *k* edo *g* duen *u* ez da palatalizatzen Amiküzen. Bonapartez geroztik Amiküzen bildu diren lekukotasunek ere gauzak honela direla erakutsi dute eta horrezaz landa, *üg* sekuentziaren ezintasuna ere aipagarri da; eman dezagun, Zuberoan ez bezala, Amiküzen ez dago *süge*-rik, “sugeak” dira Amiküzekoak, Ilharren bildu dugun *sugiak* lekuko.⁷⁰

Bonaparte printzeaz geroztik, belaunaldi baten ondotik XIX. mendearen bukaeran Bordeleko Unibertsitateko irakasle Bourciez-ek haur prodigoaren parabola beren sortzezko mintzairara itzultzeko agindu zien Bordele eskualdeko eskoletako errientei eta euskal lekukotasun ugari bildu zuen Ipar Euskal Herrian.

Guk hona Bourciez-ek Amiküzeko Gamue-Zohaztiko J. Pitrau errientearen-gandik bildu itzulpenaren emaitzak dakartzagu lehenik, 1894 ingurukoak; palatalizaturik dauden hitzen zerrenda da (Aurrekoetxea & Videgain, 2004: 124-126):

akordatü, alegeratü, arnegüz, baitüte, baitzintüdan, barkhatü, behaztün, bekhatü, bildü, bürian & büriari, deithü, despendiatü, dihürü, düana, dügü, düit, düten, egün, erreprotxüik, ezaazü, früta, galdatü, galdüik, gütien, güzia, hantüz, hartü, heldü, herrestatüz, itzültzen, khantatü, kitatü, lüzatü, maithatü, müthilek, nezazü, nüzü, obeitü, obendiün, ontasiüna, ordü, phartitü, peritüz, piinitü, saldü, süik, tüzten, ürrün, ützi, xakhürrekin, zazü, zütai, züten.

69 Pierre-Paul Lamothe, 1924an sortua.

70 Honi erreparatzeko aholkatzen zigan arrazoi guztiz Ander Egurtzegi fonologialariak.

Ikusten denez, honako inguruneetan Gamue-Zohaztin *u* palatalizatu da:

Hitzaren hasieran: *gütien, güzia, müthilek, süik, zütaik*

Hitzaren bukaeran: *bekhatü, ordü / arnegüz, erreprotxüik*

Hitz bukaeran koda duelarik: *behaztün, egün, obendiün, ontasüna, xakhürrekin*

-*tu* aditz atzizkian: *akordatü, alegeratü, barkhatü, bildü, deithü, despendiatü, galdatü, khantatü, kitatü, lüzatü, maithatü, hantüz, hartü, heldü, herrestatüz, galdüik, phartitü, peritüz, pünitü, saldü, obeitü*

Adizki laguntzaileetan: *düana, dügü, düit, düten, baitüte, baitzintüdan, ezazazü, nezazü, nüzü, tüzten, zazü, züten*

Hitzaren erdian: *itzültzen*

Asimilazioetan: *dihürü*

Maileguetan: *früta*

ürr sekuentzian: *ürrün*

ütz sekuentzian: *ützi*

1894ko datuen arabera Gamue-Zohaztin palatalizatu gabeko *u*-ren adibi-deak dakartzagu, betiere ingurune fonikoaren arabera sailkaturik:

Zuberoan ez bezala, herskari belarraren aitzinean ***ük* ezintasuna ageri da: *ukhan, kukutia, zukenez, bitzuken, duk*; parabolan *zuken* vs. *züten* ageri da

Ttap kontsonantearen aitzinean ***ür* ezintasuna ageri da: *zure, ur handi, gurekin*

“*r* + herskari horzkaria” sekuentziaren ondotik: *urdek, urthatzia*

Txistukari igurzkarari apikariaren aitzinean ***üs* ezintasuna ageri da: *ikhusi & ikhustea, usteldu, uste, irus, malerus...*

Txistukari afrikatu apikariaren aitzinean ***üts* ezintasuna ageri da: *hutsa*,⁷¹ hona, berriz, diptongokoa denean: *errautsez*

Diptongoan ***aii* ezintasuna ageri da: *aurdikitzen, haurra, gauaz*; diptongo berrietan ere ezintasuna dago: *nausi, baut, naukan, gehiau, nindaun*

o fonematik heldu diren *u* berriak ere ez dira palatalizatzen: *nun* ‘non’, *hun* ‘ona’

71 Trebitsch-ek Bardozen *huts* egin adibidea bildu zuen (1913), palatalizatu gabe (Etxebarria 1994: 68).

Beste adibide batzuetan ere palatalizatu gabe ageri da: *duzketzie...*

Jeanne-Marie Mendibil bardoztarrarengandik Trebitsch-ek 1913an hartu adibideetan ere, bi jokaeratarik dugu: *delibatü, esposatü, gelditü, hartüik, kuntentatüko, makhürtü, paatiuk* eta *plazatü*, batetik, baina baita palatalizatu gabeko *afermatu, bildurik, ezagutu, instalatu, pasatu, sarthu* edo *sorthu* adibideak ere.

Beste belaunaldi baten ondotik, 1936an Lafonek beste gamuar baten lekukotasunak bildu zituen Bordelen; honela, Bourciez-en eta Lafonen emaitzak alderatzeko aukera dago, bildumen artean berrogeita bi urte inguru ditugularik. Lafonek berrogei urteko emazteki gamuar baten datuak dakartza eta dioenez, emazteki hark ez zuen inolako zalantzarik *u* eta *ü*-ren arteko bereizketa egitean; Mérignac-eko euskaltzaina ohartu zen emazteki gamuarraren ahoskera eta Bourciez-en Gamue-Zohaztiko itzulpeneko erabilera bat datozela.

Gamueko emaztekiaren datuetan, *r, s, ts, g* eta *k*-ren aitzinean ez da *ü* gertatzen: *huts, süge, kuküso, lukhinka, nuk, duk, sukhälde, úkhan, ukhätü...*; ordea, beste ingurune foniko batzuetan *ü* egiten zuen emaztekiak, errate batera, *sü, éskü* hitzetan edo *nün* 'naun', *dün* 'dun' erako **edun*-en adizkietan. Gamueko emaztekiaren arestiko bederatzi *u* ez palatalizatu horiek zubereraz *ü* dira. Emazteki hark emanak dira *úrzo, esküña* eta *asüna* adibideak ere, zubereraz *ürzo, esküña* eta *asüna* egin ohi direnak.

Adibide bakarrean bereizi zituen emazteki gamuarrak *u* eta *ü* ingurune foniko berean: *nün* 'naun' / *nun* 'non' (Lafon 1962: 95-6).

Guk Amiküzen bildu ditugun datuak hein batean Lafonenekin bat datoz, baina ñabardurak egin daitezke; morfonologiak erakusten digu *k* kontsonante belarra lexemaren mugatik harat dagoenean, *ük* sekuentzia fonikoa gertatzea ez dela ezina; Charles-Auguste Le Quien de Laneufville apezpikuak 1786an Akizeren menpeko fededun baxenabartarrentzat berrargitararazi zuen katiximan *lekuco* (8) eta *seinduco* (35) adibideak ditugu, beharbada palatalak zirenak, nahiz ez dakigun xuxen edo zinez nola ahoskatzen ote ziren.

Guk bildu honako adibideetan palatala da:

gük, finitüko, ordüko & ordükotz, zakiüka & zakükari (Mar)

ingürüko (Gam)

gük (Donap)

gük e, axerüka (Arbo)

negüko (Laph)

Egiazki, *k, ka, kari, ko, kotz* horiek berez *-ü* duen hitz bati erantsi zaizkio. Gure datuetan, *ük* lexema baten barrenean *ükhan* hitzean ageri da, nahiz badiren amiküztar *ü* ahoskatzaileak *ukhan* egiten dutenak ere; guk *ükhan* herri hauetan bildu dugu: (Ora, Arrü, Lük, Amen, Zohaz, Donap, Arbe).⁷² Zuberoko mugako lehen herri Lohitzünen ere *ükhan* ageri da, zeina ondoko Oihergin eta Pagolan *ükhen* egiten baita.

Herskari belar ahostunari dagokionez, *üg* ez dugu bildu *diügü* adizkian baizik (Laph); ageri denez, hala *dü* nola *gü*, bi morfemak *-ü-z* bukatzen dira. Ohikoa *ug* sekuentzia fonikoa da, Ilharreko *sugiak* ‘sugeak’ adibidean bezala. Gisa berean, *duk* eta *dukanez* entzuten da adizkia, eman dezagun Ilharren, palatalizatu gabe, baina lehen pertsonan *eztütana* (Ilh).

Dena den, Bourciez-en edo Lafonen datuetan ez bezala, gure datuetan ez dago *ür* sekuentziaren guztizko ezintasunik, bada adibideetan:

aidürü (Zoho), *ardüra* ‘usu’ (Sor), *azürían* (sic) ‘azerian’ (Ilh), *bilküra* (Ilh, Zoho), *bürü* (Gam, Arbo, Sor) & *bürían* (Mar), *güre* & *güríak* (Arbo) *güretako* (Laph), *idürítzen* (Arbe), *ingürü* (Ilh, Ame, Gam, Sor), *ostatürat* (Ilh) *üdüri* (Arbo, Laph) & *üdüriko* (Laph), *üngürü* (Laph) & *üngürían* (Laph / Olh)

Aldiz, *üs* sekuentzia maileguetan baizik ez da ageri: *batüsaekilan*, *üsü* (Mar); *üsü* (Lab); *arrüsatiak*, *üsaién* (Laph) / *küsialehenak*, *üsatiak*, *üsian* (Loh).

Itxaron genezakeenez, *rt* edo *rd* sekuentzien aitzinean ez da ageri: *urðakia* (Arbe).

Gaineratekoan *ü* ageri den inguruneak itxaron genitzakeenak dira Amiküzen:

Hitzaren hasieran edo hasiera inguruan, eskuinean eragoz lezakeen kontsonanterik ez baldin bada: *lüze* (Arrü), *süko* (Arrü), *xütik* (Arrü, Sor, Laph), *xüxen* (Arrü)

Hitzaren erdian, eskuinean eragoz lezakeen kontsonanterik ez baldin bada: *agürra* ‘diosala, agurra’ (Arrü), *Garrüzen* (Mar)

Hitzaren bukaeran: *dölü* (Lük), *eskü-makila* (Arrü)

⁷² Egiazki, Arberatzen bildu dugun pare bat adibidetan ez dakigu xuxen gure belarriak *ukhan* ala *ükhan* entzuten duen, ala bi errealitateen arteko *continuum*-aren barreneko *u* palatalizatuxe bat entzuten ote duen, Bonapartek Nafarroa Garaiko hainbat ibarretan entzuten zuen harako *u* eta *ü* arteko hotsaren gisa.

7.3.1.3.4.4. *ua* → *ia* palatalizazioa

Ohikoa da Baxenabarre guztian *-u* + *-a* mugatzailea loturan hitzeko hon-darreko *u* hori palatalizatzea; Beñat Etxepareren XVI. mendeko liburuko *-ua* > *-uia* epentesiak bitarteko *-iua* metatesia iradoki du, ondotik *-ia* soiltzea gertatu datekeelakoan. Arberoa, Oztibarre eta Amiküze guztian atzeman daitezke *-ia* eraren adibideak eta Zuberoarat buruz ere gauzak berdin-berdin dira:

lekhia (Arm), *gustia*, *ordian*, *paatia* ‘pagatua’ (Meh) / *burian*, *nahastia*, *ordian* (Barta), *metatia*, *xahartia* (Ora), *hartia* ‘hartua’, *merkhatia* (Amo), *burian* ‘buruan’, *kontseiliak* (Behau), *burian*, *ordian* (Bith), *estakurian*, *khanbiatia*, *negia* (Uha), *pheedikiak* (Arrü), *sortiak* ‘sortuak’ (Mar), *khiündia* ‘kontua’, *seindiak* ‘sainduak’ (Lab), *kundatia* ‘kontakua’ (Ilh), *sorthia* (Gam), *debria*, *ifernia*, *sorlekha*, *zendia* (Arbo), *etsenpliain* ‘etsenpluaren’, *ostatia*, *zahartia* (Zoho), *kokatia*, *oküpatia*, *ordian* (Arbe), *negiak*, *üngürian* (Laph), *negian*, *üngürian* (Olh)

Berdin gertatzen da adizkietan *u* edo *ü* + *-en* = *-ela* loturaren ondorio diren hiatuetan ere, palatalizazioa dakar.

Oztibarren ere *-ia* hiatoa dugu orain:

khotsia, *liburietan*, *makhaldia*, *marthellia*, *mukuzia*, *zahartiak* (Ibarro); *debekia*, *hautia*, *arima herratia*, *hunkitia*, *itsia*, *peetxia* ‘peretxua, estimua’, *zerbitxiak...* (Jut)

Gatozen orain adizkietara:

Goiko bokal belarra palatalizatu da hiatuetan; alde batetik bigarren pertsona pluralean:

ziek maite uzie laborantz an artzea hola belharka ta? (Ora)
ze nauzie, holako, bihar iandia (Ora)
nola deitzen duzie ziek? (Mar)

Bestalde, iraganeko Nor Nork adizki neutroetan:

ehien ‘ez huen’ (Ora); *bena bazinien geihao larderia ap^hezaindako* (Arrü); *erten nienua* ‘erraten nuena’ (Gam); *nola zien* ‘zuen’ (Mar); *kausitzen gindiena* ‘genuena’ (Mar); *ua zindien* ‘zenuen’ (Amo) & *hori zindien* (Mar) & *jaten tzinien* (Mar)

Irizarren datuen arabera ‘genuen’ adizkian txandaketa ageri da Zohotako datuetan: *ginduen* eta *gindien* ibiltzen dira (2002a). Berebat guk Behauzako

lekuko bati *nien* ‘nuen’ eta *zien* ‘zuen’ entzun dizkiogu, baina baita *nuen* eta *zuen* ere; ez dakigu eragin literarioagatik edo zerk hartaraturik.

Palatalizazioa dago Nor Nork oinarrian eraiki diren hiketa maskulinoko Nor adizkietan ere:

nindian ‘ninduan = nintzen’ (Ilh, Zoho / Sarkp), *zian* ‘zuan = zen’ (Amo, Behau, Lab, Zoho / Olh, Sarkp, Urd), *gintian* ‘gintuan = ginen’ (Amo, Behau, Lab, Ilh, Zoho / Sarkp) & *ginian* ‘gintuan’ (Zoho), *zitian* ‘zitian = ziren’ (Amo, Behau, Lab, Ilh, Gam, Zoho / Sarkp, Urd)

Palatalizatu da Nor Nork saileko “hik” *ien* ‘huen’ (Amo) adizkia ere.

Oinarritzkoak dirudite Nor Nori Nork sailetik ateratzen diren baina Nor Nork sailean jokatzen diren tokako adizkiek:

nian ‘nuen’ (Amo, Behau, Ilh, Lab / Loh, Sarkp, Urd), *zian* ‘zuen’ (Behau, Lab, Zoho / Sarkp), *gindian* ‘genuen’ (Behau, Lab) & *ginian* (Amo, Lab / Sarkp, Urd)

7.3.1.3.4.5. *tuko & tüko* → *tiko*

Etorkizuneko atzizkia hartzean, partizipio burutua eratzen duen *u* arruntaren nahiz palatalizatuaren kasuetan, *-tuko & -tüko* → *-tiko* aldaketa gertatu da Amikützen. Ezaugarri berezia da hau, inguruan ez baita beste eskualderik berrikuntza hau egin duenik, amikützarren ezaugarri endemikoa da eta halakoxe nortasun berezia ematen dio eskualdeko mintzoari. Aipagarri da Lapurdi mugako Hazparne aldean ere mintzo laxoan inoiz entzun daitekeela *-tiko* (Epelde 2003: 290). Bardozen *-tuko* ageri da EHHA-ko emaitzetan — *agertuko, aituko, arribatuko, edertuko, esplikatuko, ezautuko, garbituko, geldituko, goortuko, hartuko, hedatuko, kexatuko, manhatuko, mintzatuko, orratuko, phartituko, plegatuko, sartuko, xahutuko, xikiatuko, zartatuko*—, baina lekuko batek *tiko*-ren adibide bat eman zuen: *zerbait hartiko uzie*.

Baigorri eskualdeko Aldude da Baxenabarren bilakabide hau duen beste alderdia, baina bien arteko ibarretan berrikuntza hau inon ageri ez denez, bi bilakabide edo bi berrikuntza paralelo direla ulertu beharko da: berrikuntzaren sorreraren geografia-guneari edo garaiari dagokionez, Aldude eta Amikützeko delako *-tiko* aldaeran ez luke lotura zuzenik egon behar, bakoitza bere gisa edo bere aldetik berriztatu direla ondorioztatu beharko genuke.

Bilakabidea *u* → *ü* palatalizaziorik garatu ez duten Amikützeko herri batzuetan ere agertzeak iradokitzen digu gertakaria ez dela *-tü* + *-ko* sekuentzian

bakarrak gertatu: *-tu + -ko* fonemak dituzten Amоротze eta Bithiriña herrietan ere bada berrikuntza hau, bi herriok *-tiko* egiten dute:

mintzatiko, segitiko & seitiko (Amo)

batheatiko (Bith)

hartiko, sartiko, sendotiko (Ost)

Eta gainerateko herrietan ere ageri da:

galdiko, pagatiko, seitiko, zerratiko (Sar)

baliatiko, gelditiko (Mar)

barkhatiko, baztertiko, ezautiko, phausatiko (Altzü)

batiko, gerthatiko, hartiko, laxatiko, ohartiko, p^haatiko (Ilh)

leRatiko, muntatiko (Gab)

altxatiko, kexatiko (Ame)

despeitiko, ohitiko, zaaldiko ‘zabalduko’ (Donap)

oküpatiko, plantatiko (Arbo)

bildiko, hartiko (Arbe)

barkhatiko, enpetxatiko ‘epaintxatuko, traba eginen’, *khendiko, konti-
niatiko, marxatiko* (Zoho)

aRañatiko, defrixatiko ‘otharreak lantzeko alor bihurtzea’, *k^hendiko,
khundatiko, zertiko* (Laph)

heldiko (Larri)

arribatiko, gelditiko (Sor)

Balirudike salbuespenak direla Amiküze ibarraren erdigunean kokaturik den Labetze herriko *finitiko* eta *salduko* (sic) emaitzak; ibarraren ekialdean ere Zohotan *gerthatiiko* entzun dugu eta Laphizketan *hartuko*.

Mendebaleko eragina biltzen duten ibarreko herrietan eta Amiküze hegoaldekoetan, hain zuzen ere eskualdearen saihetsetan direnetan, *-tuko* aldaera zaharra gorde da:

artuko ‘hartuko’ (Barta)

ezkunduko, gertatuko (Ora)

argituko —*bihar e argituko izi* perpausean—, *baliatuko, giilatuko,
helduko* (Uha)

Dena den, Oragarretik Behauzera ezkondu emazteki bati *arranjatiko, hartiko* eta *seitiko* ‘segituko’ adibideak entzun dizkiogu. Nolanahi ere den, hiztun

behauztar batek *beatuko*, *iatzartuko* eta *trabatuko* etsenpluak eman ditu elkarrizketan, baina adierazi behar da haren aita-amak Arberoa alderdikoak zirela.

Bestalde, Donapaleu hiriko Xibaltarre auzoan ere *artuko* ‘hartuko’ eta *sartuko* adibideak bildu ditugu lekuko batengandik.

Bilakabide berezi honek Amiküzeko eskualdea gainditzen du eta Zuberoako ipar-mendebaleko herrietaraino sartzen da, geografia etenik gabe. Guztizko zuberera *phürra* egiten den herrietan baizik ez zaigu agertuko *-tiko* aldaerak lehiarik egiten ez dion *-tüko* formaren erabilera; izan ere, Domintxainetik Sarrikotaperaino, Oihergiraino eta Pagolaraino *-tiko* aldaeraren eremuan barrenaraturik gaude, baina horrek ez du erran nahi herri hauetan *-tiko* aldaera entzunen ez dugunik. Errate batera, Artien *arrastratüko* aldaera bildu dugu eta Pagolan *azkartüko*, *erreu[ç]jitüko*, *maneatüko* eta *mintzatüko*. Baina aldaera *xiberotar* horiekin batean, Donapaleu hiriaren edo oro har Amiküzeko eskualdearen eraginpean bizi diren Zuberoako herrietaraino heldu da delako *-tiko* aldaera berria:

phaatiko ‘ordainduko’ (Ber)
nahastekatiko (Dom)
arranjatiko, *ohartiko* (Artie)
seinditiko (Oih)
aipatiko, *hartiko*, *kunprenditiko*, *sartiko* (Sarkp)
gidatiko (Oih)
hartiko (Pagola)

7.3.1.3.5. *o* → *u* / *_ n* bilakabidea

Kontsonante sudurkaria ondoan duen *o* bokala *u* bihurtzen da Ipar Euskal Herrian eta Baztan-Bidasoaldeko hitz batzuetan, baina bereziki *n*-rekin gertatzen da hori, nahiz *m*-ren ezkerrean ere gerta daitekeen; eman dezagun, Amiküzten ez da ezezaguna *umen* ‘omen’ (Gab, Donap) eta Zuberoako Urdiñarben ere entzun dugu.

o → *u* / *_ n* bilakabide honek ez du leku guztietan intentsitate bera eta Nafarroa Beherean Amiküzeko adibideak dira araua urrunen daramatenak. Aldaketaren maila ez da Arberoan Baxenabarreko ekialdean bezainbatekoa: errate batera, Mehainen *o*-rekin *zomat* ‘zenbat’, *zomait* ‘zenbait’, *zoin* eta *eo^ozoin* ‘edozein’ egiten dira, eta baita *ezkondu*, *kontre*, *moztu*, *noiz*, *nor* edo *oinez* ere. Aldiz, Mehaineko hersketak dira *huna* ‘ona’ edo *undar* ‘hondarra’ adibideak, baina *ontasunak* erraten da, ez “un”.

Alabaina, Amiküzten bokal igoeraren bilakabidearen maila handia da:

buneta (Gam) & *bunet gorriak heen tziela* (Olh), *ezkundiak* (Bith, Lab) & *ezkundu* (Ora, Zoho) & *ezkunt eta* (Zoho) & *ezkuntzak* (Ilh) & *ezkuntzaz* ‘ezkontzaz’ (Arrü) —baina Uhartehirin *ezkondu*—, *gizun* (Ora, Arrü, Mar, Ilh, Ame, Gam, Zoho / Dom, Olh, Arüe) —baina *gizon* (Uha, Arbe, Sor)—, *hun* ‘ona’ (Ora, Uha, Arbe), *kundatia* (Ilh), *khundia* (Lab), *kunkurtzen* (Ora), *kuntent* (Ora, Lük), *nun* ‘non’ (Arbe), *undar* ‘azkena’ (Ost) & *undarrak* ‘azkenak’ (Donap) & *undarrekoetz* (Arrü), *undarrian* (Ost), *undo* ‘aldamena’ (Ora) & *undoan* (Ora, Arrü, Ame, Arbe, Laph / Dom) —vs. *ondoan* (Ost, Arrü, Arbe)— & *undotik* (Sor), *ungarri* (Barta) & *ungarriak* (Ost), *untsa* (Ora, Zoho, Arbe) —baina *ezontsa* (Arbe)—, *untzi* (Ost) & *untzian* (Amo)

Berebat, *EAEL*-k *únddoka* bildu du Arrüetan (264 etnot).

Herri batetik ondokora gerta daiteke aldaketa, eta ez era geografikoki guztiz erregularrean, gainera: Armendaritzen bezala Olhaibin *kontent* hitza bildu dugu eta Uhartehirin *konten*, baina Arüen *kunten tzüziün* entzun dugu eta Pagolan *biziki kuntent* eta *kunten tzün*. Nolanahi ere den, iduri luke mendebaleko Amiküzen bilakabideak ez duela ekialdean bezainbat indar, eta halaxe erakusten dute Amorotzeko datuek; errate batera, Trebitschek *gure ondokuer* bildu zuen 1913ko adibidean (65) eta guk ere, egun *on* sekuentzia bildu dugu Amorotzeko adibide batzuetan: *hire etxe ondoan bezala / nola ene etxe ondo bezala*. Berebat, Oragarren *ontsa* bildu dugu.

Galdetzailletan sudurkaria ezker delarik *nur* ‘nor’ (Arbo, Zoho, Laph), *nuiž* ‘noiz’ (Sar, Arbe) eta *nula* (Zoho) etsenpluak bildu ditugu Zuberoari hurren; Trebitschek Amorotzen bizi zen bardohtar batengandik *nulaz* bildu zuen 1913an (69). Berebat, Arbotin eta Sorhapürün *muzten* ‘mozten’ aldaera agertu zaigu.

Zuberoan ere izenordain zehaztugabeetan guztia ez da *zu-*, bada herrialde horretan *zo-* ere; halaxe da Belapeireren zuberera zaharrean edo Beñat Mardo barkoxtarrarenean. Hona hemen XVIII. mende hasierako Oloroeko katiximako adibideak: *çoinç, çoinçec, çonbait, çombat...*; aldiz, Maisterrek *çoumbait* “zunbait” dakar 1757an. Egungo Amiküzen bietarik bildu dugu; errate batera, Bithiriñan *zonbat* eta *zomait* eta Zuberoa saihetseko Olhaibin ere *zomat* eta *zomeit* & *zonbaitzü* entzun ditugu, baina Amiküzeko Martxüetan *zumat* & *zumeño* eta *zomat*, Ilharren *zumait*, Gamuen *zunbait* eta Laphizketan *zumeit*.

Arestikoarekin loturik doa Nafarroa Behereko eskualdeak banatzen dituen hurrengo ezaugarria ere, *-oin / -uin & -uñ* bukaerari dagokiona. Oro har erran daiteke Amiküzen *-uin & -uñ* bukaera nagusitzen dela eta salbuespenak salbuespen, Baxenabarreko gainerateko ibarretan *-oin* egiten dela. Hona Amiküzeko adibide alde bat:

baguñetan ‘treneko bagonetan’ (Arbo), *eskalapuñak* (Bith, Zoho), *gaphuñak* (Bith), *huñez* (Bith, Lap) & *uñez* (Amo, Ora, Arrü, Mar, Ilh, Lük, Arbe, Zoho), *kharruñak* (Lab), *kaskuña* (Sar), *sasuñ* (Zoha)

Bilakabidea zabal dabil Zuberoako ipar-mendebalean gaindi ere:

butuña (Pag), *huñetakuak* (Olh) & *huñez* (Olh, Arüe, Sarkp, Ainh, Pag, Urd), *janbuñak* (Pag), *kharruña* (Oih), *phezuña* (Dom), *salbuña* ‘xaboia’ & *sabluña* & *samuña* (Olh), *sa[ʒ]juña* (Pag), *ühüñak* (Pag) & *uhuña* (Dom)

Trebtschen lekuko Adolf Berdeco amoroztarrak *pezunain gañetik* etsenplua dakar 1913 urtean (65).

Aldiz, Oragarreko Barta auzoan *oiñez* entzun dugu.

7.3.1.3.6. *i-u* edo *i-ü* bokal sekuentzia

7.3.1.3.6.1. XIV. eta XVII. mendeetan Zuberoako etxe izen eta toponimo batzuk idazkariek nola idatzi zituzten ikusirik —XIV. mendeko izenak XVII-an kopiatzaileek aldatu, berriztatu edo eguneratu ez bazituzten bederen— Peillenek ondorioztatu du XIV. menderako Zuberoan hiru silabako hitz batzuetan *i – u → u – u* edo *i – ü → ü – ü* asimilazioa beharbada gertaturik zela edo gertatzen ari zela (1992: 256).

Amiküzeko eskualdeko idazki zaharretan badira asimilazioaren printza ahul batzuk, baina bereziki 1786ko katiximan; idazki honetan ere ez da aldaketaren araua erabat gauzatu, baina ez dakigu bilakabidea hitzez hitz aitzinamendu lexikoaren bidez garatu zatekeela erran ote daitekeen ere; datuak ez dira erabakigarriak:

aphezpicu (99), *cerbitchu* (141) & *cerbitchatu* (153), *higugarri* (93), *iduria* (92) & *iduripen* (iii), *ilhundu* (45), *ithurburia* (iii), *itxurac* (131), *liburu* (94) / *buluciac* (80), *cerbutchatceco* (27), *hugungarri* (149), *parauçura* (10), *uduri* (101), *ungurunion* (29), *utxuki* ‘itsuki’ (53)

Adizkietan ere berdin: *baitituçu* (11) / *lutukian* ‘lituzkeen’ (16).

Arestiko datu horiek eskualdeko zinezko ahoskera islatzen dutela aldeztu lezake Amiküze ondoko Bardezko XIX. gizaldiko B. Celhabe *notari hango-tarra*-ren katiximako adibide alde batek: *buhurtia* (277), *luburu* (278), *ulhun* (315), *utzulia* (277). Berebat, XX. mende bukaerako EHHA bildumak *üingürü* eta *mürü* ‘mirua’ dakartza Bardozen; alderantzizkoa dirudi herri bereko *baatxuru* aldaerak.

Baxenabarre gehienez legez, asimilaziorik gabeko *i - u* bokal sekuentzia dago Arberoan, Mehainen bildu ditugun hurrenaren adibideak lekuko:

idurikatzen, iduritzen, ikhuzi, ilundu, inguru-inguru, ithurri, ixtiak
'ixtuak, txistu jotzeak', *liburiak*

Ordea, bokal sekuentzia hau asimilaturik *ü-ü* ageri zaigu Amiküzeko herri batzuetan; gertakari hau Zuberoari hurren diren herrietan entzuten da gehienik, ez da Amiküze guztikoa, baitezpadako da, bada, gaiaz ñabardurak egitea. Amiküze eskualdeko adibide sorta honetan bokal asimilazioa ageri da:

güsü 'gisua, igeltsua' (Arbe)
lübürü (Arbo) & *lübürüik* 'libururik' (Sar, Laph) & *lübüü*⁷³ (Ilh) & *lübürrien* (Laph) / *lübürria* (Dom) & *lübürriak* (Olh)
üdüri 'iduri' (Arbo, Laph / Dom) / *üdüi* (Dom)
ül^hüntzetan 'iluntzeetan' (Arbo)
üngürü (Ilh, Laph) & *üngürria* (Arbo) & *üngürrian* (Zoha / Dom)⁷⁴ & *üngürrika* (Dom) / *üngüätzen* (Dom, EHHA) & *üngürrian* (Olh)
ützüli (Gam)
xerbützü 'zerbitzua' (Sar, Arbo) & *xerbützü* (Sar) & *xerbüxü* (Zoho) / *xerbützatzen* (Olh)

Zuberoa mugako Olhaibin *bilüüzaazten* 'biluzarazten' etsenplua bildu dugu eta Oihergin *ütsü* 'itsua'.

Domintxainen *üntzün* 'entzun' erran du lekukoak halako batean, baina honela entzun dugun adibide bakarra da.

EHHA bilduman ere badira adibideak:

güsü, üngürütan (Arrü), *güsü, Lübürü* 'liburua', *üdüri, ülhüngia* 'tximista', *üngürria* (Arbo)

Arestiko eredu hori Zuberoakoa bera da edo arras iduria, baina badira bes-telako adibideak Amiküzeko eskualdean, asimilatu gabeak:

aphezpikü (Zoho) & *aphezpikiak* (Bith) & *aphezpikütegian* (Arbo), *idui katzen* 'zain' (Ost) & *idüi katzen* (Olh), *idüipenak* (Laph) & *iduri* (Arm / Ora, Amo, Behau, Uha) & *idüri* (Behau, Laph / Ber) & *iduritzen* (Ost) & *idüritzen* (Arbe) & *idürikoak* (Arbo) & *iduriz* (Uha), *ilhün* (Gab) & *ilhüntze-*

73 Adibide hau ez dugu grabaturik, elkarrizketaren aitzinean edo ondotik eskuz paperean bildu genuen, baina ez dugu entzuteko eran.

74 Baina baita Zohaztin berean *ingürümen* ere, *i-* duelarik.

tan (Laph) & *ilhüntzian* (Dom), *inguru* (Ost) & *ingürü* (Mar, Lab, Ilh, Ame, Gam) & *ingürüño* (Sar) & *inguriak* (Uha) & *ingurian* (Ost) & *ingurietan* (Uha) & *ingürian* (Sar, Gab, Donap, Sor) & *ingüatzen* (Olh) & *ingürümen* (Zoha), *ithurri* (Uha), *itzuli* (Ora) & *itzülikaazten* (Sor) & *itzülikatuz* (Sor) & *itzültzeko* (Olh), *iüükatiü* ‘igurikatu’ (Ilh), *liburu* (Behau, Bith) & *haur libürü atzü* ‘batzuk’ (Arbe) & *libürüük* (Arrü) & *libürriak* (Ame, Zoha / Ber), *xerbitxü* (Sor / Ber) & *xerbitxia* (Lük) & *xerbixu* (Barta)

7.3.1.3.6.2. Oro har ez dira Amiküzeko adizkietakoak edo ez Amiküze guztikoak bederen *i-u* → *u-u* asimilazio gibelerat gertatuak, ohikoago da gure eskualdean *i-u* edo *i-ü* sekuentzia:

nintzun ‘ninduzun = nintzen’ (Ora, Behau, Ost) & *nintzün* (Gab, Zoha, Arbe, Laph), *nindünan* (Arbe), *gintzun* ‘gintuzun = ginen’ (Ost, Larri) & *gintzün* (Gam, Arbo, Arbe), *zitzun* ‘zituzun = ziren’ (Mar)

Halarik ere, badira asimilazio adibideak ere:

eztutuk ‘ez dituk’ (Ilh), *nuntzun* ‘ninduzun = nintzen’ (Ost) & *nüntzün* (Gam, Arbo), *zützün* ‘zituzun = ziren’ (Gam)

Hurranen adibidea paradigmaticoa da, Ostankoako hiztunak bi adizkiak baliatzen ditu, asimilazioa duena lehenik eta ez duena ondotik:

hantik landa jin nuntzun senargeia heen utzia binien eta gio ioan nintzun sasoñ itea Lurdaat, <h>oteletan artzea

Donapaleuko hiztun batek txandaketa arrastoak ageri ditu gurekiko elkarrizketan: gehienbat *gitzü* baina behin *gützü* darabil eta singularreko adibide batean ez gaude ziur entzuten dena *nintzün* ala *nüntzün* ote den; alta, hirugarren pertsonan *zitzun* dira adibide guztiak; bestalde, Nor Nork sailean *maite beütütüt* ‘baititut’ dakar.

Bestalde, Irizarrek *zinuzten* ‘zenituzten’ & *züniützen*, bi ereduak dakartza Arrüetako bilduman (2002a).

Zuberoarat inguratzean hasten dira asimilazioa duten adizkiak ugaltzen:

nüntzün ‘nintzen’ (Arbo, Arbe / Olh, Arüe) & *nüntzün* ‘ninduzun’ (Arbo, EHHA), *nündian* ‘nintzen’ toka (Arüe, Urd) — baina Oihergin *nündia* —, *nündüzün* ‘nintzen’ zuketan (Sarkp, Pag), *nüntin* ‘nituen’ (Ainh)

Arbotin entzun dugun aldaera batek nabarmen Zuberoari so jartzen gaitu: *züniien* ‘zenuen’, *züniän* eta *zünin*, hirurak eman ditu gure bi lekukoetarik batek.

Nor Nork aditz sailean “hark haiek” adizkia aztergai hartzen baldin badugu, Amiküze mendebaleko Sarrikotan *bitüztü* ‘baititugu’ eta Zuberoako lehen herri Domintxainen *bitüztü* ‘baititu’ ageri zaizkigu, eta Gabadin *bituztu*, asimilazioa jasanik, pluralgile bikoitza gorabehera; cf. *bitütü* ‘baititu’ (Arbo), *baitüztüü* ‘baititugu’ (Sar), *dütüü* & *dütüünez* (Laph) eta *eztutu* ‘ez ditugu’ ere (Sar). Ondoko Arberatzeko elkarrizketan hiztunak *enüntzün* eta *enintzün*, bi aldaerak eman ditu eta baita *joan nüzü* eta ‘*ontsi nüzü*’⁷⁵ ere. Laphizketan *ekharrü* nüntuen gisako zerbait entzuten dugu. Domintxainen *nuntzun* ‘ninduzun’ dakar Irizarrek, asimilaturik, baina noka eta toka ez: *nindünan* / *nindukan*.

7.3.1.3.7. Hitz hasierako *oa-*

Hitzaren hasieran *oa-* bokalak gertatzen direnean tinkatu eta *goa-* gerta daiteke euskaraz hitz batzuetan; Nafarroa Garaian ezaguna da bilakaera hau eta *goatze* ‘ohatzea’, *goartu* ‘ohartu’ & *goarteman* ‘oharteman’, *goai* ‘orain’ aldaerak ibiltzen dira hainbat ibarretan. Amiküzen ez da ia honelakorik, baina bada emaitza bat: *goai* ‘orai’ (Amo, Arrü, Mar, Lab, Ilh, Zoho, Arbe, Laph) & *guai* (Bith, Arrü, Mar, Lab, Gab, Arbe) aldaerak erabiltzen dituzte amiküzarrek.

Nolanahi ere den, indartu gabeko aldaerak ere arras erabiliak dira: cf. *oai* aldaera (Arm, Meh / Amo, Behau, Uha, Mar, Lab, Gam, Arbo / Olh, Arüe, Sarkp, Ündü, Ainh, Pag, Urd). Baita *uai* ere (Arm, Meh / Ora, Amo, Behau, Bith, Uha, Arrü, Lab, Gam, Zoho, Arbe / Etx, Olh, Arüe, Sarkp, Ündü, Oih, Ainh, Pag).

7.3.1.3.8. Hitz bukaerako *-u* & *-ü* berria

Euskal Herriko ekialdean berranalisia egin da *-ia* bukaera duten hitz zenbaitetan, baina ez guztietan: palatalizaturik *-ua* hiatoak *-ia* eman baitu — *Mendiburia*, *eskia*, *lekhia*... —, honen ondorio edo emaitza izan da, berez *-i* zuten hitz batzuk berriztatu direla eta orain *-u* & *-ü* bukaera dutela. Zuberoako datuetan ikusi dugu bilakabidea 6.5.1.16. §-n, baina Amiküzen ere badira adibideak, horrenbeste ez izanik ere:

axerü (Ilh, Arbo),⁷⁶ *barrükü* (Ilh, Donap, Arbe, Laph / Dom, Olh, Sarkp) & *barruku* (Ora) —cf. *barruki* (Larri, Uha)—, *kholpu* ‘edanaldi bat’ (Arm / Ora) & *kholpü* (Gab, Zoha, Zoho / Oih); baita *ekhi kholpü* ere (Olh); cf. *harri kholpüz* (Sarkp), *ardu kholpü bat* (Ündü), *kolpü* (Urd), baina aldiz, Arüen *eskü kholpe bat*; cf. Amiküzeko Zohaztiko *hodei kholpü*

75 Ez dakigu kasu honetan ezkerrean *-i* ukaiteak *ü* → *i* eragin ote duen; ez da aise jakitea.

76 Egiazki Arbotin asimilazioa areagotu da eta adibide batean *axerü* entzun dugu; aldiz, Laphizketan *axeri* agertu zaigu.

Oztibarreko Larzabalen *uli* nahiz *uluño* bildu dira (EHHA), baina Ibarren *ulu*. XIX. mendean Ibarrolako Salaberriren *uli* & *ulitxa* eta *sasi* aldaera ez berranlizatuak ditugu, baina egun Jutsin bi erak entzun ditugu, *sasi gunea* nahiz *sasu at & sasutia*; cf. Larzabalen *sasubazter* (EHHA). Ibarrolan *anitz muku* entzun dugu, mugaturik *mukia*.

7.3.1.3.9. Hiatoak

7.3.1.3.9.1. Oro har *-oa* hiatoa gorde dela ikus daiteke, gehiago baitira gure datuetan hersketarik jasan ez duten adibideak:

goxoa, hangoa, lastoa, Xuberokoa (Behau); *gaiztoa, mementoan, nextatoa* (Bith); *arhoa, Jinkoa, katiximakoa* (Mar); *jatekoa, oillaskoa* (Lab); *aroa* (Zoho), baina etsenplu batzuetan hersketa ageri da: *galdua* ‘galdoa, eskaera’ (Lab, Gam); *amodiua, gaztegokuak, orrua* (Bith)

Hersketa adibideak ez dira atzo goizekoak, 1740 inguruko katiximan ageri dira —*anuaeren* ‘ardoaren’ (11), *erospenecua* (13), *Orozgainecua* (26)—, baina ez zeuden aferak guztiz finkaturik, hersketa gabeko adibideak baititugu egun ere.

Ondoko eskualdeetan ere badira adibideak: Arberoan *sorrhua* (Arm), *galdua* (Meh) aipa daitezke eta Zuberoako saihetseko Arüen ere badira: *arthua, ollaskua, otua*.

Bokal palatalean ere antzera gertatzen da:

mediak ‘mendeak’ (Ora); *eunian* ‘egunean’, *gaztia, semja* (Amo); *bidia* (Behau); *aldaria, saar erriak, pian* (Bith); *gañian, itia* ‘egitea’ (Arrü); *batian, bestia, jendia* (Mar); *atsaldian* (Lab); *intziütia* ‘entzutea’, *othiak, sugiak* (Ilh); *etxian, pian, urtian* (Gam); *emaztia* (Zoho); *atxitzia* ‘atxikitzea’ (Laph)

Testu zaharretan ere goratze bokaliko hau ageri da; 1740 inguruko katiximakoak dira hurranen etsenpluak: *aicinian* (45); *curutciaren, gañian* (3); *dienian, eriotcia* (5); ez dirudi katixima honetan hetsi gabeko adibiderik denik.

Haatik, bistan dena da Amiküzeko egungo euskaran *ea* hiatoak aldatu gabeko adibideak ere franko dituela:

eskualdean (Ora); *berea, bizitzea, egunean, etxeak, maiatzean* (Amo); *ekheinean, lehenean* (Behau); *aldarea, emazteak, etxea, igandean, lanean* (Bith); *besteak, ostialea* (Arrü); *atsaldean* (Ilh); *egünean* (Lab); *urtheak* (Gam); *baatzea* ‘baratzea’, *bear* ‘behar’, *etxean* (Arbe)

Ezohikoak dirudite Amorotzeko bardoztar batek Trebitschi 1913an eman adibideetako hiatoen agerraldiok: *nitienien* (68); cf. *-ü* + *-a* sekuentziatik datoreen *bürrien* (69) ere.

Oztibarren arrunta da *ea* > *ia* hersketa hiatuetan, baina iraunkorra da *-oa* sekuentzia, ez da ohikoa *oa* > *ua* gertatzea: *ttipiñoa*, *xoxoa* (Ibarro).

7.3.1.3.9.2. Maiztasunaren aldetik Arberoan baliatuagoa da *ue* > *ie* > *ii* asimilazioa Nafarroa Behereko ipar-ekialdean baino: *nin* & *niin* ‘nuen’ & *niila* —baina baita *nienez* ere—, *gindiin* ‘genuen’, *ziilaik* ‘zuelarik’, *ziniin* ‘zenuen’ adibideak ditugu Armendaritzen; baita *ie* > *ii* ere *diila* ‘direla’ adibidean. Mehainen *hak erten diin bezala* edo *ze mintzairre itsusia diin* perpausak bildu ditugu. XIX. gizaldiko Donamartiriko katiximan ausarki ageri da bilakabidea: *diin* ‘duen’, *zitiila* ‘zituela’, *ginitiin* ‘genituen’, *chindiin* ‘xinduen’; baita oro har hain ohikoak ez diren bigarren pertsonako *ziina ziilakotz* ‘zarena zarelakotz’ eta *jiin* ‘jinen’ adibideetan ere; hondarreko adibidea *jiin* eta bereziki honen metatesia den *jein* entzun dugu Amiküzen; Amiküzeko *jiin* bakarrak Oragarreko Barta auzoan, Uhartehirin eta aita-amak arberoarrak zituen behauztar batengandik entzun ditugu.

Halaz, *ziin* ‘ziren’, *niin* ‘nuen’, *ziin* ‘zuen’, *giniin* ‘genuen’ erako bokal asimilazioak ageri zaizkigu Nafarroa Beherean: *EHHA* bildumako etnotestuiak arakaturik, adibideak Baigorrialdeko, Iholdiko kantonamenduko, Garaziko edo Oztibarreko eskualdeetan agertu zaizkigu eta Lapurdin ere bai: Hazparnealdean eta Aturrialdean ageri da, Beskoitze eta Bardoze herrietako mintzoan.

Amiküzen ez da hau joera ezezaguna, baina mendebaleko herrietan ageri da, Hazparne urrun ez duten Amiküzeko herrietan; eman dezagun, Oragarren *ziin* ‘ziren’ / *diila oita bost urthe* / *jendiak oro kontra zitiin* / *behar niila hunat jin* / *aitzina etziila fedeik, ta neskato hua hola gelditu zeleik iziarriko fedia ziila aitak edo* adibideak entzun genituen 1985ean. Arberoa ondoko Amorotzen 1986an Maddi Mendibil berriemaileak *bazin* ‘baziren’ adibidea dakar (*EAEL*, 265 etnot). Berebat, Bithiriñan *egurra prepaatu behar tziin* bildu dugu. Arrüetan *dependitzen tzi'n tze aro iten tzien* adibide bikoitza bildu dugu: adizkia bera da, baina bi emaitza foniko ditu. Behaizen ere adibideak bildu ditugu aita-amak arberoarrak zituen emazteki batengandik: *hasi ziilaik* ‘zirelarik’, *eri ziilaik* ‘gaixorik zarelarik’, *iten tziin* ‘egiten zuen’ edo *saltzen zitiilaik* ‘zituelarik’ (2006); Behauzeko hiztun honek berak baditu *ire* > *ie* aldaketa adibideak *ii* bilakatzen ez direnak: *miakuluz han hiltzen tzienak inutlki^h hiltzen tziela* (Behau). Ordea, hiztun honek berak elkarrizketan *giileat* ‘gibelerat’ erran du. Gabadin honakoa entzun dugu: *Baiuna hirian egona zün eta etziin hameste atxikimendüik heskuaraindako hak*. Arberatzen kasik ez dugu *ii* entzun, izatekotan *i* luzexko bat etsenplu guti batzuetan: *so iten tzi'n nok tziin xiria*.

Nolanahi ere den, ez da ukatzen ahal Amiküze mendebaleko herriotan badirela Amiküzen nagusi diren beste erako hiatoak ere:

iraazten tzinien ‘zenuen’ (Ora), *zemat gintien* ‘zenbat genituen’ (Ora),
jan nahi etzielaik ‘ez zuelarik’ (Ora)

Amiküzen adizkietan nagusiki *ue > ie* gertatzen da eta bestalde, jatorrian *ie* hiatoa dena ez da aldatzen, *ie* izaten jarraitzen du. Hona adibide sorta bat:

nolaz ikhasia zien (Bith); *eskuara bazakizie ba oono*; *etxeko re beigintien* (Arrü); *enielakoan untsa ikasia*; *gizongea baginienez* (Behau); *ikhusten ziena ürriin* (Arbo); *zarta at bildiko gindien* (Arbe); *ttipia tzelaik intzütien nitien kanpoan khantüz* (Arbe)

Eman dezagun *batzu* zenbatzaileari gertatzen zaizkion bilakabideen berri: konparazione, *batzuen* (Bith) aldaeran ez da *ue > ie* gertatu eta bestalde, *batzui-kilan* (Bith) & *atzuikilan* (Behau) ikusirik, gertakaria *batzuekilan > batzuikilan* izan dela ageri da, *u* aldatu gabe, baina *e > i* aldaturik.

Egungo Oztibarren ugari dira asimilaziorik gabeko datuak:

iten zienetz (Arh); *bazien bere gisako jitia* (Izu); *zerriak batzen tzien eta behia egoiten zakon* (Jut); *nien* ‘nuen’, *hien* ‘huen’, *zinien* & *zindien* ‘zenuen’ (Larz); *etzakiat erran tzienez* (Ibarro); *fite helduko diela* ‘direla’ (Ibarre)

Baina hiztunetik hiztunera joera alda daiteke Oztibarren eta bestelakoak ere entzun daitezke: *lan ttipi frango iten ahal nitiⁿnak* (Ibarro); *guk Ibarrolan ez dugu bi i garbi entzuten, bigarren i laburrago edo entzun uste dugu: baziⁿ, eta baita soildurik ere, irri in tziⁿ eran; baita eta geo ikhusi nitiⁿ ere (Zib). Videgainen 1989ko corpusean badira adibide batzuk:*

etziin, sobera jokho iten ziin horren uztarriak (Izu); *neskato batek haurra in zin eta baatzian ihortzi ziin berak* (Bun); *itsiak erran ziin* (Hoz); *bazüla* ‘bazirela’ (Hoz, EAEL, 263).

Landibarreko Azkonbegi auzoan ere ageri da (Irizar 1999a: 408-29):

ziin ‘ziren’, *xindiin* ‘xenuen’, *nindiin* ‘ninduen’, *xintiin* ‘xintuen’, *niin* ‘nuen’, *hiin* ‘huen’, *ziin* ‘zuen’, *gindiin* ‘genuen’, *zindiin* ‘zenuen’

7.3.1.3.9.3. Palatalizazio bereziak dakartza EAEL-k 1986an Amortzen bildurik (265 etnot): *ziti^ua(n)* ‘zituen’, *sarti(u)a* ‘sartua’; *guk ez dugu honelakorik sumatu Amiküzen.*

7.3.1.3.9.4. Ez da gertakari arrunta, baina Bithiriñan *-oak* > *-uk* agertu zaigu *olluk* ‘oilok’ hitzean.

7.3.1.3.9.5. Ez da gertakari arrunta baina lekuko amoroztar baten mintzoan *bi itxalde* ‘etxalde’ agertu zaigu.

7.3.1.3.10. Bokalak eta bokalerdiak

Ongi bereizi behar da hiatoetan *i / j* ala *u / w* ahoskatzen duten. Eman dezagun, Zohotan *eldü zjan* bildu dugu, non *j* horrek goranzko diptongoa eratu baitu eta Arrüetan, berriz, *ogja* ‘ogia’. Oragarren *erregja* eta *semja* aldaerak entzun ditugu eta etsenplu haboro ere eman dezakegu:

arto xuritzja memento goxoa zen (Beh)

7.3.1.3.11. Bokal asimilazioak

7.3.1.3.11.1. Gehiagotasuneko atzizki konparatiboan *-ago* > *-oo* bokal asimilazioa gertatzen da Baxenabarren; Arberoako Mehaineko adibideak dakartzagu erakusgarri: *launtza geixoo* (*b*)*autelakoan*; *gatzexooñok e*.

Amiküze ez da salbuespena; hona eskualdean bildu adibide sorta bat:

lehenooko (Ora); *ederroo* (Behau); *abaatsoo* ‘aberatsago’, *goraxooño*, *zuzenoo* (Mar); *geihoo* (Lab); *geihoonik* (Ilh)

Baita Zuberoako ipar-mendebaleko beste hauek ere:

ziek ai[ž]oo in ziñaute ba gu'beno / bizikleta beantoo puska at, biziki beanto / beantoo jin tük / güitixoo / berdin goxoki gintützün, bena biziki penu[ž]oo e (Olh); *ba nahi bazen, uai beno gehiooxa^o edaten tzün* (Arüe)

gaiherdi beno beantoo ez, gaiertan (sic) *üzten artho xuitzia / hua beantoo züxün* (Pag)

Bada asimilatu gabeko aldaera ere: *sei urthe gaztiau* (Lab).

7.3.1.3.11.2. Eskualdeko idazki zaharretan bokal asimilazioa ageri da *egon* aditzaren aldaera trinkoetan. Etxepare batek ez darabil adibide asimilaturik, baina 1782ko *Pratica*-k bai: *doonian* ‘dagoenean’ (110), *doola* ‘dagoela’ (275), *çoola* ‘zegoela’ (118), *diooçu* ‘diagozu’ (20); testu berekoak dira adibide osoago hauek ere: *daguen* (276, 405), *diagoçu* (276). XIX. mendeko idazkietan aldaera asimilatuetarik eta osoagoetarik dago Baxenabarren, bi eretarik. Nolanahi ere den, guk ez dugu Amiküzen honelako adibide asimilaturik aurkitu, nahiz *joan*

aditzaren bat bai: *eta ba, ta banindoola, eniela Alemaniaat joan goo ta banindoola Amiketat* (Behau).

7.3.1.3.11.3. Hitz sail batean *o - o* bokal bikotera jo dela dirudi; adibide batzuk guztiz dira episodikoak, eman dezagun:

hotsomaite ‘hots emaitte’ (Amo)

holoko ‘holako’ (Arbo)

Aldiz, beste batzuetan lexikalizazioa gertatu da:

arrosorioak (Arbo)

7.3.1.3.11.4. Asimilazio episodikoagoak dira honako besteok:

bene ‘bena = baina’ —*ba, uai bene gio, ba, uai bene gio bazian ordian*— (Amo)

Morfologiaren informazioaren gainetik *nora* → *noa* → *naa* asimilazioa gertatu da hurranen adibide honetan:

ikhusten ziena ürrin eta ze... naa büüz ari gintien (Arbo)

7.3.1.3.12. *ai* diptongoaren emaitzak

7.3.1.3.12.1. Amiküzten ez da ezezaguna *ai* diptongoa lexikoan:

aiduru (Bith, Lük), *aitzin* (Arrü) & *aitzinetik* (Uha) & *aintzinean* (Bith), *aitaikilan* (Amo), *ai[ç]e* (Bith), *aitañi* (Bith, Zoho, Sor), *aitzur* (Bith, Arrü) & *aitzurrez* (Bith, Mar), *apairuka* (Uha), *argizaite* (Uha, Ame), *baitzatan* ‘baitzidan’ (Uha), *bezain* (Uha), *dohaina* (Ora), *etxezain* (Amo), *gain* (Amo) & *gainean* (Ora), *gainbeera* (Uha), *gaindi* (Ora, Uha), *gaixoa* (Amo), *gaixtaginik* (Arrü) & *gaixto* (Amo), *gozaita* (Uha), *hunaindiko* (Uha), *mahaia* (Bith), *maiatz* (Uha), *pasaia* (Uha), *sabai* (Sor)

Gramatikak ere eragiten du diptongo hau:

baskaiten (Arrü, Amo, Sor), *emaiten* (Ora), *ephaiten* (Uha), *erraiten* (Uha), *hatzemaiten* (Ora), *igaiten* (Uha), *joaiteko* (Uha), *otsemailea* (Mar) & *otsemaiten* (Mar)

7.3.1.3.12.2. Baxenabarren guztiz arrunta da *ai* > *ei* asimilazioa eta indar handiz gertatzen da gramatikako osagaietan: eman dezagun, *zonbait* > *zonbeit*

erako zenbatzaileetan, *bait* > *beit* aditz-aurrizkian edo *-gai* > *-gei* atzizkian. Adibideak ugari eman daitezke eta Amiküzekoak berekoak, gainera:

beigindien ‘baikenuen’ (Zoho), *beinien* ‘bait nuen’ (Donap), *emeiten* ‘eramaten’ (Arrü), *ezpeita* (Arrü) & *ezpe^htakit* (Ora), *noapeit* (Behau, Zoho, Larri), *noizbeit* (Ora, Behau), *nolapeit* (Sor) & *nolazpeit* (Behau), *numeit* ‘nonbait’ (Amo), *zeeit* ‘zerbait’ (Ora, Amo, Behau), *zonbeit* (Amo, Bith / Dom) & *zomeit* (Zoho) & *zumeit* ‘zenbait’ (Amo) & *zomeiño* (Arbe), *zunbeitzuk* (Amo)

Baita atzizkietan ere:

emaztegeiak (Arm), *gizongei* (Arm / Behau), *ihaurgeiak* (Behau) & *ihaurgeiaindako* (Olh) & *idaurgei* (Laph) & *iaurgeiaendako* (Mar), *salgei* (Sarkp)

Beste kasu batzuetan item lexiko arruntek ageri dute *ai* → *ei* bilakaera:

aneaia (Arm, Meh / Ora, Amo, Bith, Gam / Olh), *batheio* (Amo), *seindiain* ‘sainduaren’ (Bith)

Nolanahi ere den, beti ez da bilakabide hau gertatzen eta *ai* diptongoaren iraupenez mintza gaitzke ere:

bezain (Amo), *etxezain* (Amo), *ezpaita* (Ora), *hainbeste* (Behau, Bith), *norbaitek* (Behau), *zenbait* (Ora, Uha) & *zenbaiño* (Arrü) & *zemait* (Uha) & *zonbait* (Amo, Behau, Arru) & *zumait* (Amo, Arru), *zonbaitzu* (Bith) & *zomaitzuk* (Arbe)

7.3.1.3.12.3. Hainbat hitzetan *ai* diptongoa soiltzea gertatu da, honen emaitza beti bera ez baldin bada ere:

anea ‘anaia’ (Behau), *bathaatia* ‘bataiatua’ (Bith), *bena* ‘baina’ (Amo, Behau, Mar, Arbe, Uha) & *bana* ‘baina’ (Bith, Lab, Uha), *beno* ‘baino’ (Amo), *bezen* ‘bezain’ (Arm / Behau) & *bezenbat* (Ora), *bezanbat* & ^b*ezamat* & *bezambat* (Amo), *hameste* ‘hainbeste’ (Ora, Amo, Sar, Arrü, Gab, Gam, Arbe / Dom, Arüe, Pag)

Aldiz, *i* gelditu da *jarrikitzen* ‘jarraitzen’ (Behau) adibidean.

Litekeena da *sahetsean* (Bith, Sor) & *saetsean* (Bith) & *saetsetik* (Bith) & *sahetseko* (Loh) & *saetseko* (Sor) & *sahexka* (Uha) adibideetako egoera gordeztaile izatea, hau da, etimologikoki hitz horretan diptongorik ez izana, Lakarrak berrikuntzatzat jotzen du *saihets* hitzeko diptongoko *i* hori (2009: 578).

Gure datuetan ez da Amiküzen “aiher” agertu, baina *aherra puska at* adibidea eman du Bithiriñako lekuko batek; *aiher* hitzaren *i* hori etimologikoa baldin bada —cf. Lakarra (2009: 579)—, soiltzea legoke aldaera honetan.

7.3.1.3.12.4. Aipagarri da biziki *bait* > *bit* nola gertatu den Baxenabarre ia gehiengan. Beste ezaugarri batzuetan bezalaxe, Baigorriko eskualdea da Baxenabarre erdiguneko berrikuntza hau bildu ez duen bakarra, gainerateko baxenabararren mintzoan *bit* entzutea gauza arrunta baita: Arberoa-Iholdi eskualdean, Garazin, Oztibarren edo Amiküzen eta Lapurdiko ekialdean nahiz Aturrialdean ere honela da, baina Lapurdiko barnealdean ez. Ezaugarriaren muga Zuberota da, baina gogoan izan behar da herrialde honen ipar-mendebalean ere entzuten dela; Domintxainen, Olhaibin, Lohitzünen edo Oihergin *bit* bildu dugu, baina behin Ainharbera helduz gero, *beit* baliatzen dela ikusi dugu, Arüen eta Sarrikotapean bezala.

Amiküzen arrunta da *bit* monoptongatua:

ta uai gustian karga liote orga, bitakite iten ahal dutela, izanak bitira
(Ora) / *phedeikia iten bitute* (Ora)

sosa re izarian bitzen / aneiak eosi al ukan tzian, saldu bitzien, nausiak
saldu bitzien, Beauzen tziin nausia (Amo)

amatxik bitzien adina / ezpitzen sporrik eta hola ordian (Bith)

oai hain tsemia ültzen bita an tratian ta (Uha)

guk ogiak mekanikaikilan joiten bigintien / ezpitakit nik biziki difeentziak izan tzenez / besteak hor bitira (Arrü)

denak berdin biginen / ikhastolan eta bidira familia frango ta haurrak
heskuara ikhasten tzie ik^hastolan! (Mar)

enekin bitzen Totanan preso (Lab)

aski joiten binien (Ame)

Errekart'zena, senatær bitzen, hak, eni galdua in (Gam)

ezpitzen uai bezala suñatzen (Donap)

nun e bitzien lürrak komünak deitzen tzienak (Arbo)

aitatamaikin bitzen / ezpitziñ nahi ixtori^k aphezak / ezpitzen ene afera
/ ezpitakiü bethi nula juain dien aferak / ni zahartia biniz (Zoho)

ahazten bitzaut fite (Arbe)

bihi hua behar bitzen jelgi (Sor)

Beste adibide batzuetan monoptongazioa oraino bidean da eta *e* lauso eta entzuten zail den bat eta *i* sendo bat entzuten ditugu, eman dezagun Bithiriñan; hona adibide sail bat: *b^eitzen* (Amo, Bith), *b^eitzuten* (Bith); ordea, herri hone-

tako bereko beste adibide batzuetan *ei* hori garbiago entzuten da: *beitzen* (Bith), *beitzien* ‘baitziren’ (Bith), *beitzuten* (Bith), *beitzuzten* (Bith); baita Uhartehiriko *beitzien* ‘baitziren’ ere.

Oztibarren ere gramatikaren saileko hitz zenbaitetan *ai* diptongoan asimilazioa gertatu eta *ei* bilakatu da:

beitia ‘baitira’ (Larz), *bezein* ‘bezain’ (Larz), *noapeit* ‘norabait’ (Lan, Larz), *zonbeitek* (Lan)

Lexikoan *argizait* & *argizete* ‘ilargia’ bitasuna aipa daiteke (Larz) edo *edergeillu* hitzaren atzizkia (Lan).

Egiten dute Baxenabarren orokorra den *bait* > *bit* monoptongazioa ere, eta baita beste zenbait ere: *bezik* ‘baizik’ (Larz).

7.3.1.3.13. *au* diptongoaren emaitzak

Zuberoa eta Erronkari ibarretan baldintza fonologiko jakinetan *au* > *ai* bilakabidea gertatu da (FHV, 4.4), izan ere itxura berezia eta bateratua eman die mintzo hauei:

aizo ‘auzoa’, *belhañ* & *belain* ‘bel(h)auna’, *gai* ‘gaua’, *gaiza* ‘gauza’, *i(r)añ* & *ir(a)in* ‘iraun’, *laidatü* & *laidatu* ‘laudatu’, *aintz* ‘ahuntza’.

Ordea, *au*-k ondotik *r*, *rr*, *s* eta *ts* kontsonanteak dituenean ez da palatalizatzen bi ibarrotan: (*h*)*aur* ‘haurra’, *haur* & *kaur* ‘hau’, *gaur*, *kausitü* & *kausitu*, (*h*)*auts*, (*h*)*autse* ‘hautsi’, *erhauts* & *errauts*.

Amiküzen ez da aldaketa hau gertatu, Zuberoa-Erronkarietan *ai* bihurtu diren diptongo horiek *au* dira Amiküzen:

belauniko (Laph), *gau* (Gam, Arbe), *gauza* (Beh, Gam, Arbo), *irauten* (Arbe); 1913an Amorotzen *iraunen* bildu zuen Trebitschek (65)

Halaber, adizkiak ere palatalizaziorik gabeak ditugu Amiküzen:

dautzüt (Behau) & *dauzüt* (Bith), *zaut* (Behau)

Eskuin, Zuberoako Domintxaine eta Olhaibiraino bederen iristen dira *gauza* edo *gau* erako diptongo berriztatu gabeak eta Etxarrikoak dira *auzoak* nahiz *gauza* adibideak, gure datuetan bederen. Haatik, Arüen *au* nahiz *ai*, bi diptongoak txandaka entzun ditugu.

Nolanahi ere den, eta dirudienez hedadura lexikoaren bidez, bilakabideak hitz bat gutienez harrapatu du Amiküzen: *aizo* aldaera ibiltzen da “auzo” beharrean Amiküzeko herri multzo batean (Bardo⁷⁷ / Ora, Sar, Zok, Behau, Bith, Uha, Arrü, Mar, Ilh, Lab, Ame, Donap, Gam, Zoha, Arbo, Zoho, Arbe, Laph, Sor / Dom).⁷⁸ Berebat, *aizo* entzun dugu Zuberoako Arüen, Olhaibin, Sarrikotapean, Lohitzüinen, Oihergin edo Pagolan ere eta halaxe dakar Larrasketek 1939ko bere hiztegian.

Alta, 1913ko etnotestu batek *gure auzoer* dakar Amiküzeko Amoroitze herrian (Etxebarria 1994: 65) eta guhaurek ere *auzo* aldaera bildu dugu egun Amoroitzen eta Behauzeko bi lekukorengandik; bi herriok Arberoari hurbil ditugu, baina Bithiriña ere Arberoari hurbil dago, eta herri honetan *aizo* ageri zaigu; aldiz, ondoko Ostankoan adibide guztiak *auzo* entzun ditugu lekukoarengandik eta Donapaleun ere *auzo* entzun dugu; Uhartan ere entzun dugu *auzo*. Oragarreko Barta auzoan ere *auzo*.

Adibide bakan dugu *au* → *ou* txandaketarena diptongoan; Behauzeko lekuko batek *errautsa* & *erroutsa*, bi aldaerak darabiltza. Ilharren *eꞑoutü* ‘eza-gutu’ entzun dugu.

Aldiz, hurranen etsenpluan diptongoa eta honen emaitza monoptongatua, bi aldaerak ditugu Amiküzeko euskaran:

eauntsi (Mar, Zoho, Arbe / Olh, Loh, Arüe, Ainh, Pag, Urd) / *eontsi*
(Ora, Bith, Lab, Ilh, Mar, Zoho, Arbe / Etx, Olh, Arüe, Sarkp, Pag)

Herri izen batean ere sumatu dugu monoptongazioa:

beste atz... beste adin batetako^{ak} Oarren eta beste adin batetakoak
Beozen eta hola elgar biltzen tzie (Arrü)

7.3.1.3.14. *eu* diptongoaren emaitzak

7.3.1.3.14.1. Emaitza bat baino gehiago utzi du *eu* diptongoak Amiküzen. Alde batetik *eu* berria dago, gehienbat galdu diren igurzkariek eragina:

egun ‘eguna’ (Amo), *eurdi* ‘eguerdia’ (Amo), *ortzeun* (Amo), *seurik*
‘segurik’ (Amo)

Mailegua izan daiteke jatorria ere:

77 Baina *auzo* ere ibiltzen da Bardozen (EHHA).

78 Hala Arberatzen nola Sorhapürün bi ahoskerak entzun ditugu: *aizo* & *auzo*.

deurruak ‘deabruak’ (Amo), *deuRuin* (Donap), *deus* (Bith, Uha, Arrü, Gam, Zoho, Arbe / Loh, Olh)

Baina hitz haborotan ere ageri da: *leun* (Behau) & *leunki* (Behau)

Baxenabarren ohi den bezala aldatu edo soildu gabe dirau *huri* hitzean (Zoko, Bith, Uha, Gab, Lab, Zoho, Laph / Loh, Olh); halaz ere, *EAEL*-k Sarrikotan *úria* dakar (264 etnot) eta *uri* ageri da Bardozen ere (*EHHA*). Baxenabarren legez Oztibarren ere *eu* diptongoa dago *huri* hitzean (Jut).

Baxenabarre gehienez legez (*h*)*esku*- sekuentzia dago gure hizkuntzaren izenean:

heskuara (Amo, Sar, Arrü, Mar, Lab, Gab, Zoho, Sor) & *eskuara* (Ora, Amo, Behau, Arrü, Mar, Ilh, Lab, Zoho, Arbe) & *heskual* (Mar) & *heskual-dun* (Bith, Mar, Lab)

Alta, monoptongaturik *u*- eman du *utzi* (Ora, Behau, Bith, Uha) eta *ützi* (Arrü, Mar, Ilh, Gam, Arbo, Zoho) aldaeretan.

Bestalde, Baxenabarren nagusi da *uli* ‘eulia’ aldaera Baigorri eta Garazialdean eta Oztibarren ere ibiltzen da; aldiz, Amiküzen *ülü* nagusi da, guk Zohaztin entzun dugu eta *EHHA*-k Garrüzen, Arrüetan eta Arbotin dakar, baita Bardozen ere; Trebitschek Behauzen 1913an *ülü* & *üliari* dakartza. Bestalde palatalizatu gabeko *ulu* ere bada Amiküzen, *EHHA*-k Arrüeta eta Garrüzen dakar eta *EAEL*-k Amendüzen *ulia* bildu du. Amiküzetik landa Arberoako Armendaritzen eta Oztibarreko Landibarren dakar *ulu* *EHHA*-k.

7.3.1.3.14.2. Berria dirudi *sourik* ‘segurik = behintzat’ aldaerak, diptongoa aldatu da, *eu* → *ou* bilakaera gertatu da:

ene etxeok sourik bazizien ori (Amo)

gu sourik (Amo)

eun batez sourik (Bith)

baluke^k (?) *biziki gehio khundatzeko, ena horiek eztik balio, eztzie* (?)
ddousetako inportantziaik hiitako (Zoho)

Ondoko Bardozen ere bada gertakari honen herexa, Artolak *ddous* ‘deus’ aldaera bildu zuen 1996an; cf. Irizar (2002a: 307).

7.3.1.4. Kontsonanteak

7.3.1.4.1. Hasperena

7.3.1.4.1.1. Ohar orokorrak

Euskal hasperenaren azterketak ez dira egungoak; errate batera, Mitxelenak berrogeita hamarreko hamarkadan lan diakroniko franko egin zuen euskal *h*-az, egun Lakarrak jarraitzen dituenak; eman dezagun, ondotik aipatuko ditugun *nh*, *lh* eta *rh* taldeak berankortzat jotzen ditu berriki argitaratu lan batean (2015: 369).

Bestalde, orain berean adituek, fonetikalariek, euskal hasperenaz lan sinkroniko deskriptiboak egiten eraunsten dute hemengo eta kanpoko unibertsitateetan.

Guztiok ezaguna da Euskal Herrian hasperena menderen mende galduz joan dela, ahulduz, Ipar Euskal Herriko eguzkialdea dela orain eusten dion alderdia. Duela hogeita hamar urte ezagutu genuenez gardenago ahoskatzen zuten hiztun baxenabartarrek hasperena eta egun, berriz, ez da orduan bezain argi entzuten, edo batzuetan ez da entzuten, baina ez dugu orokortze alferrik egin nahi. Errate batera, Ipar Euskal Herriko NORANTZ egitasmoko datuen arabera, hitzaren hasieran egitasmok aztertu unibertsoko adinduetan lautik hiruk hasperena ahoskatzen dute eta gazteetan hamarretik hiruk baizik ez; bokalen artean maiztasuna apaltzen da: adinduetan erdiek ahoskatzen dute, baina gazteen artean hamarretik bik baizik ez (Oñederra, Jauregi & Epelde 2014: 84-5).

Hasperenaren akustika egun lantzen duten euskal fonologialariek ahoskatze galera joera naturalizat hartu dute, hasperena egitea baino naturalagotzat jotzen da ez egitea; guk honela entzun dugu mintzatzen Oñederra hondarreko urteotan eta berriki honetaz jardun dute Oroitz Jauregik eta Epeldek (2013).

Zalantza dago fonetikoki hasperena ahostuna ala ahoskabea den, hasperenaren ekoizpenean ahosbideko zein aho zatik parte hartzen duen, hasperena ekoizteko era bat baino gehiago baitago; diotenez, “hasperena agertzea edo ez agertzea hasperen mota horien baitan egon daiteke” (256). Dena den, ez dago zalantzarik euskal hasperena hots kontsonante igurzkaria dela; hori bai, Hualdek laringaltzat jo du (2003) eta Egurtzegik glotalizat (2013).

Adituek diotenez hasperena ekoizteko eginahal artikulatorio handiagoa behar da ez ekoizteko baino; errate batera, I. Lehiste-ren arabera (1964), hasperena ekoiztean hurrengo silabagune ahostuna sortzeko baino sei aldiz aire gehiago behar da eta B. Hurch-ek dioenez (1988), akustikoki ere, intentsitate izartze batek erakusten du, energia artikulatorio gehiago erabilirik ere, hasperenaren intentsitate espektroa ondoren duen bokalarena baino anitzez apalago

dela. Artikulazio erari so eginez gero, beste kontsonante jarraikorren artikulazio eretan gertatzen denaren aurka, laringearen edo glotisaren kokagunea ez da aski egokia indarrezko turbulenzia sortzeko eta beraz, oharrenaren aldetik sortzen den unitatea ez da hain ziurra, eman dezagun, herskariekin alderaturik; cf. Jaurigi & Epelde (2013: 257).

7.3.1.4.1.2. *h*-ren entzumena

Arberoan ez da Euskal Herriko eguzkialdean bezainbat hasperen ageri; lekuko mehaindar batek jarraitutasunez eman sekuentzia honetan, lau alditarik bitan ez du *h*-rik ahoskatu: *beaala*, *behala*, *behala*, *beala*; lehen hitza hanpadura handiz emanik dagoela adierazi behar da. Armendaritzen *guhaur* & *gaur*, *nehor* & *neor* entzun ditugu, hiztunak hasperena ahoskatzea unean uneko aukera balitz bezala.

Noizkoa ote da hiztunak hitz batean berean orain hasperena ahoskatzeko eta arte laburrik barne ez ahoskatzeko gertakari hori? Ez dakigu eta ez dugu daturik, baina gauza bat bederen argi erraten ahal dugu: 1982an Arberoako Heleta herrian bi astez izan ginelarik, franko hasperen gehiago entzuten zen orain baino; 1986an banda luze bat grabatu genuen herri horretan Bizkaia etxeko Terexa Mendiburu adinetako lekukoarekin; hura entzunik ohartzen gara hasperena biziki ageri dela. Jon Casenave heletarrari honen berri aipatzean halaxe baieztatzen du berak ere, iraganean hasperenaren ahoskera ageriagoa zela herrian.

Alderdi fonikoan Arberoako kontsonante taldeetan Euskal Herriko ekialde zabalean ageri diren ohiko *nh*, *lh*, *rh* ditugu. Hauetan, lehenik doan kontsonante ozena eta ondoko hasperena zein bere silaban daude: *bel-har*, *el-heño*, *el-hurraín* (Meh). Herskari hasperenduetan *ph*, *th*, *kh* aipa daitezke Arberoan; herskari hasperenduok Amiküzen ere baliatzen dira eta Baxenabarren hiztun zaharrenek ahoskatu ohi dituzte. Iraganean Ipar Euskal Herrian hedadura zabala ukan dute, Lapurdi, Baxenabarre nahiz Zuberoako liburuetan ageri dira.⁷⁹ Hona mehaindar bati bildu dizkiogun herskari hasperenduak:

aphalduik, *apheza*, *phesta* / *arhoak*, *bethi*, *bethia* ‘betea’, *ithotsemaile*,
muthil, *otharretan*, *othoi*, *urtheakoak* / *ekharri*, *khantuz*, *ukhan*

⁷⁹ Mounolek Zuberoako Larraineko ikerketan dakarrenez —datuak 66 eta 80 urte bitarteko lau lekuko larraintarri bildurik—, herskari hasperenduek ahots abiatze unea “esanguratsuki luzeagoa” dute hasperenik gabekoek baino (2004: 241). Adierazgarri da Larrasketek ahoskera jarrai eta lagunartekoan inoiz *bh*, *dh*, *gh* ere entzuten zituela (1934: 28). Coyosek, berriz, *bh* baizik ez du entzun, *bai* hitza hanpaturik ahoskatzen denean (1999: 62).

Amiküzeko emaitzak aurkeztu baino lehen ohar orokor bat egin nahi dugu hasperenaren oharren edo akustikaz; badira hasperen garbiak ibarrean, belarriak berehalakoan entzuten dituenak; badira hitzak hasperena izanik ere gabe entzuten direnak eta bada gure oharmenean beste hirugarren kasu bat ere; gure belarriak uste du hasperenaren antzeko zerbeit entzuten duela, baina ez dago batere garbi hor baden ala ez den; honelakoetan gure transkribapenean *h* ahulago hori goraxeago kokatu dugu, biziki ahul entzuten dela adierazteko; errate batera, Labetzeko ^heskualdiin edo Sorhapürüko ^heskuara.

Honela, badira hitzak etimologikoki hasperena ukanik ere, entzunaldi batzuetan edo adibide zenbaitetan *h* ahoskatu gabe entzun ditugunak; adibide sorta bat ematen ahal dugu:

aantzi (Behau) & *aatzia* (Zoho), *leen* (Behau), *mii* ‘mihia’ (Bith), *miise* (Arrü)

Hona orain Amiküzeko hasperenaren datu sorta zabal bat, guri elkarrizketetan agertu zaiguna:

7.3.1.4.1.3. Hitzaren hasieran

ha —*ha* gaixoa erratean— (Ora), *haat* ‘harat’ (Ora, Arrü), *haatik* ‘halaz ere’ (Zok, Zoha, Donap), *haboroek* (Arbe), *haga* (Arrü), *haitz* ‘haritza’ (Arbe, Laph), *haize* (Zoha), *halaik e* (Laph), *halee* ‘hala ere’ (Ora, Behau, Bith), *hamabi* (Amo, Bith, Lab), *hamalau* (Behau), *hamar* (Sor), *hamoost* (Ilh), *han* (Behau), *haragi* (Ilh), *hardit* ‘ausart’ (Ora) & *harditao* (Arbo), *hargin-go* (Donap), *harri* (Ora), *haRtza* (Laph), *hartü* (Arbe), *hasi* (Amo, Arbo), *hats* ‘arnasa’ (Behau) & *hatsa* (Donap, Laph), *hatsarria* ‘hasiera’ (Arbe) & *hatsarrian* (Laph), *hatzeman* ‘harrapatu, aurkitu’ (Ora, Bith, Lük, Ame, Zoho, Arbe), *haur* (Amo, Arbe), *haurride* (Amo, Bith, Mar) —Olhaibin *aurhide* bildu dugu—, *hauts* ‘errautsa’ (Zoha), *hautsi* (Arbe), *haxeka* (Donap), *hazi* ‘ale hazia’ (Zoho), *hea* ‘ea’ (Bith), *hedagia* (Uha), *he^exa* ‘arrastoa’ (Laph), *hegi* (Sor) & *hegian* (Donap), *hegua* ‘hegoa, haize hegoa’ (Zoha), *hein* (Sor) & *heñ* (Ilh, Arbe), *hek* (Mar), *hemeetzi* (Zoho), *hemen* (Arrü) & *hen* (Arbo), *hemezortzi* (Behau), *herri* (Amo, Behau, Arbe), *herreka* ‘zerrenda’ (Arrü) & *herroka* (Bith) & *herrokan* (Ost), *heskual* (Mar) & ^heskual (Arbe), *heskualdun* (Beh, Bith, Mar, Lab) & *heskuara* (Amo, Behau, Arrü, Mar, Lab, Gab, Donap, Zoho) & *heskuaraz* (Zoha),⁸⁰ *hesol* (Uha), *hezi* (Ame), *hi* (Ora), *higatzen* (Ame), *hil* (Behau, Lab, Arbe) & *hiltze* (Uha), *hilabete* (Arrü) & *hilaetian* (Bith) & *hilaite* (Ora, Mar, Lab / Pag, Sarkp), *hiri* (Behau, Arrü, Donap, Arbe), *hiru* (Ora, Arrü) & *hirü* (Arbe) & *hiu* (Itho) & *hiutanoei* (Arrü),

80 Ondoko Oztibaren Landibarre herrian bildu du EHHA-k *heskuaraz*.

hitz (Amo), *hixtuz* ‘ahulduz, tristatuz’ (Uha), *hobeki* (Sor), *hodei* (Zoha), *hoge* (Ilh) & *hoei* (Lab) & *hogoi* (Ora), *hola* (Bith) & *holako* (Ora, Arbo, Sor) & *holoko* (Arbo), *hori* (Lab), *hosto* (Zoha, Zoho), *hots* ‘hau da, bestela erranik’ (Zoha),⁸¹ *hotsemaiten* (Ilh), *hua* ‘hura’ (Amo), *hume* (Uha), *hun* ‘ona’ (Amo, Bith, Uha, Donap, Arbe), *hunat* ‘honat’ (Gam), *hundar* (Sor), *hungarri* (Donap, Uha), *hunki* (Ora, Laph) & *hunkitzen* (Laph) & *hunkitzean* (Ora), *huñez* ‘oinez’ (Uha, Ame, Sor), *hur* ‘ura’ (Uha), *husteko* (Sor)

Baita *h* gabeko hauek ere:

aiduru (Bith, Lük) & *aidürü* (Behau, Zoho / Itho) & *aidüü* (Loh, Pag), baina Ündüreine eta Oihergin *haidüü*, *otsemaile* (Mar, Laph) & *otsemaiten* (Mar), baina *hotsemaiteat* Amоротzen bizi zen bardoztar batek 1913an Trebitschi emanik (68)

Litekeena da ohiz *hitz* hasieran hasperenik ez den lekuan *h-* agertzea ere: *hamiña at* (Ora). Ez dakigu Donapaleun entzun dugun *hetsi* ‘etsi’ kasu bera ote den.

7.3.1.4.1.4. Bokalen artean

ahaideak (Bith) & *a^hide* (Behau), *ahal* (Ora, Behau, Bith, Lab, Arrü, Arbe, Zoho), *ahalaz* (Lab, Sor) —Arüen *ähälaz* bi lehen bokalak sudurkari direlarik—, *ahatge* (Amo, Ilh), *ahardi* (Barta), *aharra* (Uha, Ame) & *aharran* (Ora, Zoho, Arbe), *ahate* (Ost), *Ahatsa* (Behau), *ahatzi* (Amo, Bith) & *a^hatziak* (Donap) & *ahazten* (Arbe), *ahizpa* (Ost, Lük, Ame, Zoha), *ahorrosika* ‘aharrausika’ (Ilh), *ahüntzik* (Arrü), *ahür* (Ame), *astehartia* (Lab) & *asteharte*z (Olh) & *asteharteakin* (Pag) & *astehartian* (Ündü), *astelehen* (Uha, Donap, Zoho), *baheaikilan* (Arbe), *bahi* (Behau), *behala* (Behau, Zoho / Olh, Sarkp, Urd), *behar* (Mar), *beharba* (Amo, Arrü), *beha* (Ora) & *behati* (Zoha) & *behatzea* (Ilh) & *behatzen* (Arrü, Arbe), *beheiti* (Ost, Arrü), *behi* (Ora, Behau, Arrü, Gam, Zoha, Donap, Arbe), *behin* (Arbe), *behoka* (Uha) & *behor* (Ora, Uha, Arrü, Mar, Zoho, Arbe), *bihar* (Ora, Uha), *bihi* (Lab, Arbe, Sor) & *bihikatü* (Zoho), *bihotz* (Bith / Ber), *bihürgüinean* (Zoha), *bizpahiru* (Ora), *buhamiak* (Uha), *dahalla* (Lük), *dohaina* (Ora) & *dohainari* (Behau), *ehoik* ‘ehorik’ (Arrü) & *ehaiten* ‘ehotzen’ (Arbe), *ehün* (Mar, Lab) & *ehun* (Ora), *gainbehera* (Laph), *gauherdi* (Ost) & *gauherditan* (Amo), *guhaurek* (Arbe), *ihaurgeiak* (Behau), *ihauteri* (Arrü), *ihitz* (Behau), *ihizin* (Lab) & *ihiztaria* (Lab), *johan* (Arrü) —Armendaritzen ere bai—, *lehen* (Ora, Arrü, Sor) & *lehen* (Ost), *lehertzen* (Arbe), *lehuna* (Ost), *lohi* (Bith), *mahaian* & *mahaipean* (Ora), *mahats* (Zoha) & *mahatsa* (Arbe), *mehats* (Zok, Sor), *meheki* (Arbo) & *mehio* (Laph), *mihise* (Uha, Arrü), *nahar* ‘laharra’ (Barta,

81 Hona etsenplu bat: *hoei bat*, *herritarra*, *hots*, *biltzen tzüzün mekanika heldü zelaik* (Zoha).

Uha), *nahas* (Gam) & *nahasi* (Bith), *nahi* (Ost, Arbe) & *nahiant* (Uha), *nehor* (Arbe), *nihau* (Bith, Arbe) & *niharek* (Laph) & *nihau baitan* (Behau) — Armendaritzen *EHHA*-k *niaur* & *nior* dakartza, baina guk *nihau* bildu dugu eta Mehainen *nihau*—, *ohartü* (Arbe) & *ohartia* (Ora), *ohe* (Donap) & *ohea* (Arbo) & *oheat* (Amo, Ost) & *ohiak* (Ora), *ohit* ‘oroit’ (Arbe) & *ohitzapen* (Zoha), *ohoinak* (Ora) & *ohointza* (Ora), *sahets* (Bith), *sehi* (Arm / Ora, Behau, Ost, Bith, Mar, Gab, Gam, Zoha, Zoho / Olh, Urd), *sohallan* ‘selauruan’ (Amo), *suhi* (Behau) & *sühia* (Donap), *uhal* (Sor), *xahatze* (Uha) & *xahatzen* (Ainh) & *xähätzen* (Bith / Olh) & *xahätzea* (Pag) & *xähätzea* (Urd) — Mehainen *xahatu* bildu dugu—, *xehekatzen* (Laph), *xühür* (Arbe) & *xühürtzen* (Laph), *zahar* (Lab, Zoho), *zühürra* (Arbe)

Baita Xiberoako hauek ere:

xahala (Ainh) & *xahalak* (Ündü), baina Sarrrikotapean sudurkari: *xähäl* eta agerraldi batean Ündüreinen *xahäl*; *EAEL*-k Domintxainen *xahalak* dakar

7.3.1.4.1.5. Diptongoaren ondotik

aherra —*aiher* du oinarrian— (Bith), *aihen* (Ora, Lab, Arbe), *auhal* (Ora, Ilh) & *auhalten* ‘afaltzen’ (Ora), *auher* (Gam), *eihera* (Arrü, Mar, Lab, Zoho, Laph), *geihao* (Lab) & *geihau* (Lab) & *geihero* (Lab) & *geihoo* (Lab) & *geihoonik* (Ilh) & *geihena* ‘haurrideetan zaharrena’ (Ost), *leiho* (Ora), *oihal* (Lük, Uha) & *oihalez* (Ost), *oihan* (Ost, Gam, Arbe) & *oihen* (Bardo / Behau, Mar, Lab, Lük, Zoha, Arbo, Zoho, Laph), *Peihoadeat* (Lab), *oihu iten* (Behau)

7.3.1.4.1.6. Herskari biezpainkarian

aiphatü (Zoho) & *aiphatzen* (Ora, Behau, Arbo) & *aiphü* (Arbo), *aphaintzen* (Ame), *aphal* (Ora, Zoha) & *aphalao* (Donap) & *aphaldü* (Zoho) & *aphaltzen* (Ora, Arbo, Laph), *aphez* (Ora, Behau, Bith, Ost, Uha, Mar, Ilh, Lab, Donap, Arbo, Zoho, Arbe) & *aphezpikia* (Donap, Zoho), *aphiila* (Ost, Sor) & *aphila* (Uha), *bipher* (Zoho), *biphiltzia* ‘lumak kentzea’ (Ber), *duphina* ‘tupina, eltze handi zangoduna’ (Behau) & *düphüña* (Zoha), *ephaite* (Barta, Gab) & *ephaiteak* (Gab) & *ephaiten* (Bith, Uha, Laph), *epheR* (Ilh), *ephian* ‘epean’ (Ilh), *gaphar* (Ilh, Altzü, Zoho), *gaphuñak* (Bith), *gorphutz* (Bith) & *korphützaindako* (Arbe), *laphitza* ‘lapitz harria’ (Laph), *Laphurdi* (Arbo, Laph), *phaatu* ‘ordaindu’ (Behau) & *phaatiük* (Arbo) & *phaatzen* (Ora / Olh) & *phaatuz* (Ost), *phago* (Zoha), *Phagola* (Laph), *phantzart* (Dom) & *phantzartez* (Lük), *pharte* (Amo, Arrü, Ost, Donap, Sor) & *phartia* (Arüe) & *phartekatziak* (Arrü), *phartika* ‘banatu’ (Zoha) & *phartikatüz* (Donap), *phartitü* ‘abiatu’ (Arrü, Mar, Donap) & *phartitu* (Bith) & *phartitiak*

(Sor), *phausätzen* (Olh), *phedeikü* (Lab) & *phedeikia* (Ora) & *pheedikiak* (Arrü, Sor) & *phedeikatzen* (Lab) & *phe^edikatzen* (Arbe), *phena* (Ilh, Laph), *p^hentsätzen* (Gab), *phentsü izit* (Donap) & *phentsü diat* (Mar), *phentze* (Ost, Uha, Arrü) & *phintze* (Arbo, Zoho, Laph), *phesta* (Ora, Amo, Ost, Arrü, Mar, Lab, Ilh, Donap, Sor) & *phestaberri* (Bith, Ilh), *pheziak* ‘zamadunak’ (Ame), *phezuñ* (Uha), *phikoko* ‘hiltzeko’ (Laph), *phindarra* (Zoho), *pipher* (Ber), *phütz* ‘biztu’ (Zoho), *pholo* ‘multzoa’ (Arbo) & *phiulo* (Larri), *phorrusalda* (Uha) & *phorria* ‘porrua’ (Arbe), *phiündü* (Mar, Lük, Zoho, Sor) & *phiündian* (Ame) & *phiündüikatze* (Altzü), *phiünta* (Arrü) & *phuntan* (Behau), *phutzian* ‘putzuan’ (Ora), *phuzuindätzen* (Arbo), *saphar* (Zoho), *Soaphuu* (Uha)

7.3.1.4.1.7. Herskari horzkarian

arthatu (Ora), *arthio* (Ora), *artha* (Ora, Ost, Bith, Uha, Arrü, Arbo, Zoho, Arbe, Laph, Sor), *Atharratzeat* (Gam), *athea* ‘atera’ (Donap) & *atheatu* (Ora), *atherbe* (Ost, Sor) & *atherbia* (Arbo) & *atherbian* (Laph), *atheri* (Altzü), *athorra* (Ost, Zok, Mar, Lab, Lük), *aurthen* (Ora), *baithaik* ‘baitarik’ (Behau), *Bartha* (Ora), *batheatu* ‘bataiatu’ (Bith) & *batheio* (Amo), *betha* ‘bete’ aditzoina (Gam) & *bethe* (Ost, Ilh, Lük, Sor) & *bethiak* ‘beteak’ (Arbe), *bethatxätzen* ‘adabaki ezartzen’ (Gab), *bethi* (Ora, Amo, Ost, Bith, Behau, Ilh, Lab, Lük, Gam, Donap, Arbo, Arbe, Laph, Uha, Sor) & *bethidanitik* (Arbe), *Bithiña* (Behau) & *Mithiña* (Laph) & *Mithiña* (Bith), *bortha* (Ora, Gab, Lab, Altzü, Ame), *borthitz* (Bith, Arrü, Lab, Zoha, Donap) & *borthitzean* (Ber) & *borthizki* (Lab), *borthü* (Laph), *bothätzen* (Sor), *ezkonthü* (Mar), *gerthatu* (Ora, Ost, Uha, Sor), *gothortzen* (Olh), *ithuña* (Uha), *ithurri* (Uha), *lothü* (Lab, Ame, Zoho) & *lothiik* (Donap) & *lothia* (Behau), *mothiko* (Arbe) & *muthiko* (Ora, Lab, Lük, Arbe), *muthil* (Ora, Amo, Behau, Ost, Bith, Arrü, Ilh, Lab, Lük, Laph / Olh), *müthür* (Arrü, Zoho), *Orthesen* (Ora), *othar* (Ame) & *otharra* (Laph) & *otharrak* (Ilh), *othe* landarea (Barta, Behau, Ilh, Gab, Lük, Ame, Gam, Zoho, Uha, Laph, Sor), *othe* galdera partikula (Bith), *othoi* ‘mesedez’ (Altzü), *othoitz* (Ora, Bith, Arrü, Arbe, Sor), *pathar* (Uha, Donap, Laph), *sarthu* (Ost) & *sarthü* (Ilh, Lab), *sathor* (Arbe), *sorthiak* (Bith), *the^{si}* ‘abereen tegia’ (Zoho) & *thei* (Donap), *thematu* (Uha), *ther-ther* ‘ezin jarraikiz’ (Dom),⁸² *thindatze* (Ora), *thini* (Zoho), *thinkatiik* (Ame) & *thinkätzen* (Sor), *thiran* (Ame) & *thiatu* ‘tira egin, bultza’ (Bith, Uha) & *thiatzen* (Ost) & *thiatzeko* (Sor) & *thiraka* ‘tiroak joz’ (Laph), *thiroka* ‘su izkiluz tiroka’ (Arbo), *thüka* ‘listuka, txistuka’ (Ilh), *urthaila* (Sor), *urthats* (Donap), *urthe* (Ora, Amo, Behau, Ost, Bith, Uha, Mar, Ilh, Lab, Donap, Arbo, Zoho, Arbe, Laph, Sor)

82 Hasperenik gabe, ordea, *til-til-til-til*: *giiletik bizpahiru mando til til til til* (Dom, EHHA).

7.3.1.4.1.8. Herskari belarrean

Akhamarre (Barta, Laph), *akhidura* (Zoho) & *akhitu* (Ora) & *akhitia* (Zoho) & *akhitiak* (Uha) & *akhitzen* (Laph), *akhula* (Uha), *akhütsi* ‘erakutsi’ (Donap) & *akhusteko* (Bith), *ankha* (Donap), *bakhar* (Ora, Ost, Bith, Lab, Ame, Arbe, Sor) & *bakharrik* (Behau, Bith, Lab, Sor), *bakhotx* (Ora, Ost, Sor), *barkhatu* (Behau), *bekhan* (Amo, Behau, Arbo, Laph), *bokhata* (Ost, Uha), *ekhar* (Donap) & *ekharraazi* (Bith) & *ekharri* (Behau, Bith, Lab, Gab, Laph, Uha) & *ekhartzen* (Ost) & *khartzen* (Ost), *ekhein* (Behau) & *ekhañ* (Ilh) & *ekhaña* (Ilh, Sor) & *ikhañan* (Uha), *ekhendü* ‘kendu’ (Laph) & *ekhendü* (Ber), *ekhi* (Gab, Zoho, Arbe, Laph), *elkhor* (Ora), *ikharan* (Ora) & *ikhaarri* (Uha), *ikhasi* (Ora, Behau, Ost, Bith, Arrü, Ilh, Lab, Zoho, Laph, Uha, Sor) & *khasi* ‘ikasi’ (Zoha, Sor) & *ikhastola* (Lab, Donap), *ikhatz* (Zoha), *Ikheozian* — etxe izena inesiboan jokaturik — (Uha), *ikhusi* (Donap) & *ikhusi* (Ora, Behau, Ost, Bith, Ilh, Arbo, Zoho, Uha, Sor), *ikhuzi* ‘garbitu’ (Uha) & *ikhuzten* (Lük), *khalteik* (Ame), *khanbera* (Ora, Ost, Bith), *khanbiatu* (Ora, Sor) & *khanbiatiü* (Behau, Mar, Donap) & *khanbiatia* (Behau, Bith, Uha) & *khanbiatzen* (Arbo), *khanbio* (Ora), *khandeallu* (Uha), *khanpoat* (Bith, Zoho) & *khanpoan* (Donap), *khantari* (Olh), *khantü* (Sor) & *khantiüz* (Arrü, Zoho, Arbe) & *khantuz* (Bith) & *khantiak* (Arbe), *kharga* aditza (Donap), *khario* ‘garesti’ (Ora, Uha, Donap), *kharrika* (Behau), *kharroña* (Ost) & *kharruñ* (Ora, Lab, Arbe) & *kharrointe* (Uha), *kharrüta* ‘azenarioa’ (Arbe), *khasü* ‘kontuz gero!’ (Donap) & *khasu in* ‘arreta eman’ (Uha / Olh), *khe* (Ora), *khendü* (Lab, Zoha, Zoho) & *khendu* (Uha, Sor), *kherren* ‘gerrena, belarrari eusteko organ (= gurdian) ezarria’ (Arrü), *khexatiü* (Zoho) & *khexu* (Ora) & *khexü* (Arbe), *khölpü* ‘zurruada’ (Donap, Zoho), *khondatiü* ‘kontatu’ (Lab) & *khondatzen* (Bith) & *khündatu* (Bith) & *khundatzea* (Bith) & *khundatzia* (Behau) & *khundatzen* (Sor) & *khündatzeke* (Lük), *khondiak* ‘kontuak’ (Behau) & *khundu* (Bith) & *khundia* (Lab) & *khundiak* (Ora) & *khundiain* (Arrü), *khorda* ‘soka’ (Ora, Uha, Arrü, Donap), *khotsia* ‘pixka bat’ (Ora, Beh, Gam, Zok, Larri) & *khotsiia* (Behau), *khüibak* ‘barrikak’ (Lük), *khütxain* ‘kuxtaren’ (Arbe), *khüützamendu* (Behau) & *khüützatzen* (Behau, Lap) & *khützatzen* (Lük) & *khuutzatzen* (Uha, Ora, Behau, Gam) & *khütze* (Lab) & *khüützia* (Sor) & *khuutzia* (Behau) — Arberatzen *k^hüütziain* —, *khüützefika* (Arbo), *lekhü* (Behau, Mar, Ilh, Lab, Arbo, Zoho, Sor) & *lekhü* (Ora, Behau, Ost, Bith), *lokhaRazi* (Bith) & *lokhartzen* (Uha), *mainkhatü* ‘min hartu’ (Zoho) & *mainkhü* (Donap), *makhila* (Ost, Donap) & *makhilano* (Sor), *makhür* (Behau, Lab, Zoha) & *makhur* (Ora, Lab) & *makhurtu* (Uha), *merkhaturat* (Sor) & *merkhatiirat* (Donap) & *merkhatia* ‘merkatua’ (Ora), *nekhez* (Behau, Sor) & *nekhia* — lan *nekhia* adibidean — (Zoho), *okhaskatuik* (Lük) & *okhestatia* (Ora), *okhiloa* ‘etxearen gibelesko alderdia’ (Ame),⁸³ *pikhaRaik* ‘biluzirik’ (Donap) — cf. *pikaRai* (Ame) —, *sokhorri* (Zoha), *sukhalde* (Behau, Ost),

83 *OEH*-k Amiküzen *okholü* dakar, ‘etxe ondoko soroa’; Oihenartek *okolu* darabil ‘etxe ingurua’ adieran.

sukhar (Ora), *ukhaldi* (Ora, Uha), *ukhan* (Ora, Behau, Ost, Bith, Arrü, Mar, Ilh, Lab, Arbo, Zoho, Laph, Uha, Sor) & *ükhan* (Lük, Arbe), *ukhaia* ‘ukaraia, eskumuturra’ (Laph), *xakhur* (Bith) & *zakhür* (Ilh), *xekha* ‘xerka, bila’ (Ost, Bith, Arrü, Arbe, Sor) & *xekhatu* (Ora, Sor) & *xekhatzen* (Arbe) & *txekha* (Uha) & *txekhatzea* (Bith), *zakhü* (Arrü, Ilh) & *zakhia* (Ame) & *zakhietan* (Sor), *zikhin* (Ost, Laph) & *zikhinaikin* (Zoho) & *zikhintzen* (Uha)

7.3.1.4.1.9. Albokariaren ondotik

alhaba (Behau), *alharguntsa* (Behau), *alhatzea* ‘alatzera’ (Ost), *alhor* (Ost, Donap, Arbe, Sor), *belhar* (Ora, Amo, Behau, Ost, Uha, Arrü, Lab, Zoho, Sor), *belhaun* (Donap) & *belhaiña* ‘belauna’ (Ora) & *belhaiñen* (Sor) & *belhaniko* (Arbo), *bulhar* (Uha), *elhe* (Lab, Arbo) & *elheka* (Ora, Amo,⁸⁴ Arrü, Ilh, Lük, Ame, Donap) & *elhekari* (Behau) & *elhekatzen* (Ilh) & *elhekatü* (Zoho) & *el^heketa* (Lük), *elhur* (Ost, Bith, Arbo), *ilhantxak* ‘miruak’ (Ilh), *ilhar* (Bith, Sor) & *ilharrondo* (Sor), *ilherri* (Ora, Bith, Lab), *ilhün-zaiñak* ‘ilun-zeinuak, ilun-ezkilak’ (Sor), *salhatzen* (Bith), *ülhüingia* (Zoho), *zalhü* & *zalli* (Zoho)

7.3.1.4.1.10. Dardarkariaren ondotik

urrhats (Ora) & *ürrhatsak* (Zoha) & *üRhatsak* (Gab), *ürrhün* (Arrü, Arbe, Sor) & *urrhun* (Ost)

7.3.1.4.1.11. Sudurkariaren ondotik

lanho (Zok), *senhar* (Ost, Behau, Mar / Ündü, Pag) & *sen^har* (Behau, Arbe), *sinhetsi* (Bith) & *sinhesten* (Bith) & *sinhestia* (Arbo); Amorotzen bizi zen bardohtar batek *anhitz* eman zion Trebitschi (1913); egun guk *anhitz* Arberoako Armendaritzen entzun dugu

7.3.1.4.1.12. Hasperenaren higidura

Badira hasperen batzuk beren lekutik zertxobait higitu edo direla diruditenak:

etzit erraiten haal horren gañian deu[ʒ]e (Mar)

84 Baina baita *eleka* ere Amorotzen nahiz Amendüzen.

7.3.1.4.1.13. Igurzkari baten ordain

Beste adibide batzuetan kontsonante igurzkari baten ordain ageri zaigu hasperena:

ehasten ‘ebasten’ *al’tzutela* (Ora)

e^hintzün juten (Gab), non *eg* → *eh* gertatu baita

gazte hat ‘bat’ *balimada bürii etxen* (Mar)

ta geo, to, etxea, etxea, ihil ‘ibil’, *etxe zaharra b^eigindien han, bena etxea in lehenik hor* (Zoho)

Ez da aise *Oharre* (Ora) adibidean bilakabidea xuxen nola izan den jakitea.

Hegoalderago Luzaiden adibide bat dakar Salaberri Zaratiegik: *Burdinzu-hia* (2015: 256).

Zuberoako Oihergin bi adibidetan *r* beharrean *h* eman du hiztunak:

xuhiek eta gorriek

ezpita libro tiho thiatzia

Hitz elkartuan ere agertu zaigu:

astehartia (Zoho), *gauherdi* (Ost, Arrü) & *gauherdiko* (Arbo), *lohaldia* (Gab)

7.3.1.4.2. /j/ fonema

Oro har erran daiteke Amiküzen *j* fonemaren hotsa hitz hasierako euskal aditzetan bederen sabaikari herskaria dela; Trebitschen 1913ko grabazioetan [j] irudikatzen da hots hau eta *EAEL*-ko transkribaketetan <y>; guk Ipar Euskal Herriko tradizioari jarraikiz liburu honetako transkribaketetan <j> eman dugu. Sorhapürüko etsenplu sail bat dakargu, jatorrizko hitzak lehenik eta maileguak ondotik:

jarraikitzen, jaten, jelgi, jitea, joan-jina, joiten / anjelusa, arrenjatzen, jende, jenealian, Ddomingo, juntako, jüsa

Fonema honek badu aldaera gozoago bat, hersketarik gabea edo, igurzka-riagoa, *i* bokalari hurbiltzen zaiona; gure grabazioetako aldaera gozoago hau <i> eman dugu eta honelaxe agertuko da liburu honen bukaerako etnotestuen transkribaketan:

ian 'janen' (Uha) & *iatekoik* (Uha), *iende* (Ost), *ioan* (Ost, Zoha) & *iuan* (Zoho), *ogi-ioite* (Ost) & *ogi-ioitea* (Sor)

Donapaleun biak batera agertu zaizkigu: *ogi ioiten*, *ogiak joiten*; baita *iende* ere.

Ezaguna denez, Xiberoako muga fonema honen hotsa aldatzen da, xiberotarren berrikuntza eskusibo bat ageri da, *marker*-tako ere har genezakeena, jende ugari ohartzen baita berezitasun honetaz. Zuberoako aldaera berezi hau txistukari igurzaria da, sabaiaurrekoa eta ahostuna, gure transkribaketetan [ʒ] eman duguna, *EDEL*-ko transkribaketetan [ʒ] irudiaren bidez eman baita, eman dezagun Etxarrin, Pagolan edo Urdiñarben (273, 274, 276 etnot).

Bi hotsen arteko isoglosa edo muga geografikoa ez da erabatekoa, baina Donapaleutik Xiberoarat goazelarik Etxarrin eta Artien hasten da hots xiberotar berezi hau entzuten, baina herskari sabaikariarekin batean, era eskusiboan ez. Mendialdetik goazelarik, Oihergin aldaera ozena entzun dugu: [ʒ]an, [ʒ]arrakia, [ʒ]ente, [ʒ]in, [ʒ]un, baina baita hots sabaikari herskaria ere; alabaina, Ainharben ez dugu entzun sabaiaurreko ozena baizik. Pagolan bi hotsak entzun ditugu, sabaiaurreko ozena eta herskari sabaikaria eta Sarrikotapean ere biak, nahiz uste dugun hondarreko herri honetan *in-group* egoeretan hots erabiliena sabaiaurreko ozena dela; Ündüreinen ez dugu entzun sabaiaurreko ozena baizik.

Litekeena da auzoko zuberotarrei entzunik *ala[ʒ]inkoa!* esaera ikasirik gero inoizka Amiküzen erabiltzea, baina hitza da hotsa loturik daramana, ez da ulertu behar hotsa Amiküzera iragan denik; errate batera, Uhartan *alajinkoa!* entzun dugu, baina Berroetan bizi den laphizketar bati eta gamuar bati ere *ala[ʒ]inkoa!* entzun diegu eta denboraz, Aezkoako Orbaizetako adinetako gizon adiskide batek ere inoizka erabiltzen zuela ohartu ginen, batez ere zuberotarrez mintzatzen hasten ginelarik, haien mintzamoldearen berri ematen zigunean.

Ez dago erran beharrik ez dakigula noiztik gertatu den Zuberoan berrikuntza hau eta testuek ez dutela salatzen entzumenerako eta entzule manexarendako hain nabarmena den hots nabardura hau. Belapeireren 1696ko eta Oloroeko 1706ko katixima zuberotarretan <j> irudikatzen da /j/ eta 1740 inguruko eta 1786ko Akizeko apezpikutegiaren menpeko eskualdeetako katixima baxenabartarretan ere <j> idazten da fonema, testuen arabera ezin jakin daiteke nola ahoskatzen ziren.

7.3.1.4.3. Txistukariak

7.3.1.4.3.1. Hitz hasierako sabaiaurreko igurzkaria

Baxenabarre eta Lapurdin bezala, beste euskalkietan hitz hasieran afrikaturik ageri den txistukari sabaiaurrekoa igurzkaria da Amiküzen:

xar ‘txarra’ (Uha), *xitxa* ‘txita’ (Lab), *xitxi* (Behau, Zoha, Larri), *xiula* ‘txirula’ (Bith), *xixariak* (Bith), *xixteraikin* (Uha), *xoko* (Uha), *xuku* ‘lehorra’ (Ilh), *xurta* ‘txorta’ (Bith, Zoho, Arbe)

Beste batzuk zenbait euskalkitan *z*- direnen ordain daude:

xakhur (Bith), *xerbitxü* (Lab), *xerrama* ‘zerrama’ (Zoho), *xerri* (Zoho), *xilintxau* ‘zintzilik’ (Zoho), *xingaRa* (Ber), *xiri* (Uha), *xuri* (Amo, Lab) & *xuikinak* (Ilh) & *xuritze* (Behau)

Arrazoi bat edo beste dela bide, hitz batzuek ohiko palatalizazio semantiko edo adierazgarria jasan dute:

xahar (Behau), *xakola* (Bith), *xangoak* (Bith), *xarta* ‘zartako ez handia’ (Bith), *xikiatz.en* ‘zikiratzen’ (Arbo), *ximiko* (Barta, Laph), *xiri* (Uha), *argi xirrintian* (Ilh), *xixtako at* (Bith), *xoxo* (Behau), *xut* ‘zutik’ (Ora) & *xüti* ‘zutik’ (Ilh, Laph), *xuxen-xuxena* (Behau)

Eta maileguak ere aipa litezke: *xarmanta* (Bith).

Baxenabarre eta Lapurdiko gisan, Oztibarren ere hala-hala da:

xakur, *xara*, *xehe*, *xeka*, *xerri*, *xilintxan*, *ximixta*, *xintxa*, *xipa*, *xixari*, *xori*, *xotx*, *xutik*...

7.3.1.4.3.2. Hitz hasierako lepokari afrikatua

Zenbait eletan berrikuntza hau dago: *asto tzarra* (Ora), *ele tzarka* (Ame).

Hona Zohaztiko perpaus hau:

hegua, *haize hegua eta jendiak üliak bezala eorten, denbora tzarra beitz.en*

7.3.1.4.3.3. Txistukari ahostunak bokal artean

Hitz jakin batzuetan bokalarteko txistukari apikari ozenak ageri dira Arberoan:

ai[ʒ]e ‘aise’ (Arm, Meh), *nau[ʒ]i* (Meh)

Oztibarren ere bai:

ai[ʒ]e (Jut, Donaix), *au[ʒ]artatu* ‘ausartu’ (Jut), *ddeu[ʒ]e* ‘deus ere’ (Donaix, Hoz)

Amiküzen entzun ditugun adibideek zerrenda handiagoa eratzten dute eta ageri da hainbat eta hainbat maileguak direla:

ai[ʒ]e (Ost, Bith, Mar, Arbo, Arbe) & *ai[ʒ]eo* ‘aiseago’ (Bith) & *ai[ʒ]io* (Laph) & *ai[ʒ]eta* ‘erraza’ (Barta, Bith) & *ai[ʒ]etaguak* (Ber), *batü[ʒ]a* ‘garia jotzeko tresna mekanikoa’ (Sor), *ba[ʒ]etan* ‘zolako eskualdeetan’ (Mar), *biarne[ʒ]a* (Arbo), *deu[ʒ]e* (Ora, Mar) & *ddau[ʒ]e* (Arbo), *erli[ʒ]ionia* (Arrü, Arbo), *espu[ʒ]atü* (Arrü, Mar), *fre[ʒ]ik* ‘zergarik’ (Mar), *ga[ʒ]atiik* ‘gasa jasanik’ (Mar), *gi[ʒ]a* (Ora, Amo, Bith, Arrü, Gam, Arbo, Sor), *ingi[ʒ]atzen* ‘hegaztiak gizenarazten’ (Mar), *kaRu[ʒ]a behoRaikilan* (Bith), *kome[ʒ]ak* (Uha), *kri[ʒ]antemak* (Bith), *ku[ʒ]i* ‘lehengusua’ (Bith, Mar), *ku[ʒ]iña* ‘lehengusina’ (Donap), *li[ʒ]atzea* (Bith) & *li[ʒ]atzen* (Mar), *maleu[ʒ]ak* (Ora), *mi[ʒ]eria* (Behau), *oka[ʒ]ionia* (Gam), *Pai[ʒ]e* (Bith) & *Pai[ʒ]eat* ‘Pariserat’ (Mar), *pa[ʒ]atu* (Ora, Gam) & *pa[ʒ]atzen* (Sor), *penu[ʒ]a’zian lanak* (Zoho) & *penu[ʒ]ago* (Ber), *pre[ʒ]atia* (Arbo), *trebe[ʒ]a* ‘zeharrekoa’ (Arbe), *u[ʒ]aia* ‘ohitura’ (Zoho), *ü[ʒ]ü* ‘frankotan, maiz’ (Gam, Zoho, Arbe) & *ü[ʒ]jatiak* ‘ohituak’ (Loh)

Nolanahi ere den, hitz horiek berak aldaera ahoskabeen ager daitezke Amiküzen berean:

kusia (Behau) & *kusiak* (Bith), *usaian* (Bith), *usu* (Bith)

Beste batzuetan lepokariak ahostun dira, ageri denez maileguetan:

do[z]ena (Bith, Mar, Ame), *fra[z]a* (Mar), *ko[z]ina* (Zoho, Sor), *pla[z]er* (Arrü)

Beste batzuetan sandhi egoeran gertatzen da, Zuberoan bezala, baina ez inola ere herrialde horretan dagoen maiztasunarekin; lehenik lepokariak ikusiko ditugu, ez eta *nuiž*-en etsenplu alde bat:

berri[z] eraiten (Arrü)
bortxa[z] e (Amo)
etxeko[z] etxeko (Amo, Arrü)
etxe[z] etxe (Arrü, Gab)
e[z] anitz (Arbe)
e[z] Arrütan (Sar)

e[z] duaigabe (Mar)
e[z] eta oai (Ora)
e[z] orok (Arrü)
e[z]untsa ‘norbait eri egotea’ (Ora, Laph)
nui[z] errekontratü (Arbe)
sobera azantzik e[z] in ta hola (Arbe)
e[z] eta adrezia haundikoak ginelakotz ez pilotan (Sor)

Hona apikariak:

biarne[ç] edo (Arrü)
ez arra[ç] ez (Mar)

Hurranen etsenpluan txistukaria egoera esplosiboan dago, baina hala ere ozendu da:

ilhun tzeñietako behar tzinien etxen izan, e, [ç]artia izan, e, etzun hor libertatia (Amo)

Gerta liteke hitzak balio sinboliko handia izatea eta hitzaren hasieran txistukaria ozentzea:

zortzi egun lehenoen enielakoan untsa ikasia eta lezionia [z]afratu nindien (Behau)
gaztaña huntia zelaik [z]afratzen tztitzien... haga animale atekin [z]afratzen tztitzin (Gab)
[z]anpaka ari (Ame)

Honelako hitz hasierako txistukari lepokari ahostunen berri dakar Pierre Duny Pétrék Iholdiko *zart*-ez diharduela. Berebat Baxenabarren hitz hasieran ozenak diren *zirti-zarta*, *zinpí-zanpa*, *zifri-zafra*, *zifli-zafra*, *zinki-zanka*, *zartatu*, *zanpatu*, *zafratu*, *zaflatu*, *zankatu* aurkezten ditu (1959: 54).

Ohikoa ez bada ere, entzun dugu Amiküzen sabaiaurreko ahostuna, baina kontsonante talde berezi batean, ez bokalen artean:

nik baut ene gi[ç]ako debozionia Ama Ber[ç]inan (Behau)

7.3.1.4.4. Dardarkaria

Badira gure eskualdeko hitz bakan batzuk dardarkaria soildu edo galdu dutenak, baina eskuko eriez kontaktzen ahal ditugu.

Dardarkaria soiltzea hitz bakarrean gertatu da Amiküzen sistematikoki, Zuberoako etsenplu berean: *ezari* ‘ezarri’ hitzean aski gertakari orokorra da (Behau, Lük, Ame, Arbo, Zoho, Laph) & *zari* (Ilh), nahiz Bithiriñan eta Labe-tzen *ezarri* bildu dugun. Zohotako adibidean osoki galdu da: *ezaiko* ‘ezarriko’, baina adibide horren oinarrian *ezari* dago, hiztunak bi aldaerak erabiltzen ditu. Amoroitzen ere *ezai* bildu dugu.

Antzera gertatzen da Amiküzeko *ats* ‘arratsa’ aldaeran ere; horra adibide bat: *eta geo atseko etxeat* (Amo); entzuten da *aa* sekuentzia ere: *aatsean* (Ora), *aatsetan* (Bith).

Ondoko etsenpluak Etxarrikoak dira eta Zuberoako usaina dute, Amiküzen ez da honelako adibiderik ageri: *beriz* ‘berriz’, *eran* ‘erran’, *haurik* ‘haurrik’, *heriak* ‘herriak’. *EDEL*-k *r* fonemaren galera duten *alegea* eta *askai* adibideak bildu ditu herri honetan.

Hauen kideko adibide bakarra entzun dugu Amiküzen, *ekhari* ‘ekarri’ hain zuzen ere: (Gab, Ame, Arbo).

Aurkako bilakabidea da Zuberoako ipar-mendebalean entzun duguna: *hirru* ‘hiru’ (Pag), *hurra* ‘ura’ (Artie, Oih, Ainh), *orro* ‘oro’ (Artie, Sarkp, Oih, Pag), *Xüberroan* (Sarkp).

7.3.1.4.5. Herskariak

Herskari ahoskabeak ez dira bokal artean galtzen euskaraz, baina inoiz gerta liteke honelako bi elkarren ondoan gertaturik disimilazioa izatea: *atxii-tzeko* ‘atxikitzeko’ (Bith), *atxiiten* (Ora, Amo, Mar) & *atxiitzen* (Arbe, Behas), baina nagusiki *atxiki* ibiltzen da (Bith, Mar, Ame, Zoho), nahiz analogiaz sortu den *atxii* ere (Ame, Laph).

Inoiz gertatzen da egoera inplosiboan dagoen herskari ahoskabe bat ahos-tuntzea, ondotik jarraitzen zaion fonema ahostuna baldin bada: *mezatig landa* (Mar). Ezaugarri hau Nafarroa Garaiko Aezkoa ibarrean ere agertu zaigu: *gandig ze* ‘hangoa zen’ (Abaurregaina).

7.3.1.4.6. Kontsonante palatalizatuak

Gauza ezaguna da Baxenabarren zenbatenaz ekialderago jo, hainbatenaz *ñ* eta *ll* gehiago entzuten dela hiztunen hitz arruntetan; haatik, Lapurdi aldera joz gero, *in* eta *il* haboro entzuten dugu lekukoengandik. Amiküzeko Oragaren, errate batera, *dohaina* eta *gainean* entzun ditugu, diptongoaren osagai *in* → *ñ* busti gabe, baina hitz horiek palatalizaturik entzuten genituzke Amiküzen

gaindi eskuin joz gero. Nolanahi ere den, palatalizaturik den *besteñean* ‘gainerakoan’ aldaera ere Oragarrekoa da.

Herrietako adibideen aurkezten hasi baino lehen, bereiz ditzagun lehenik eta argitu euskaraz ditugun palatalizazio erak.

7.3.1.4.6.1. Palatalizazio sinbolikoa

Euskal Herri guztian ohi den bezala, gertatzen da Amiküzten ere palatalizazio sinboliko edo adierazgarria: kontsonantea ez du ingurune fonikoak palatalizatzen, hitzari adiera semantiko berezia emateko egiten du hitzunak bustidura, hitzari eduki sinboliko berezia eman nahian. Eman dezagun: *aita baxterrean familia jelgitzen ginelaik* (Bith) adibide honetan ez da adierazi nahi bazterra ttipia zela, aitaren jarrera berezi zenbait baizik. Berebat, *bizpahirui xarta at* (Bith) entzutean, argi dago ez direla zartako gaitzak, katiximan jarrera desegokia izan duten bizpahiru haurri masaileko ez bortitz bana edo eman zaiela adierazten digu.

Hona palatalizazio sinbolikoen adibide sail handixko bat:

attati ‘aitona’ (Donap, Laph), *axuri* (Bith), *baño* (Bith), *beetter* ‘bereterra’ (Arbo), *bultta* ‘aldia, tartea’ (Ost) & *bülttaka* ‘aldikal, batzuetan’ (Arbe), *ddantza* ‘dantza’ (Ost, Arrü), *ddęu[ż]e* (Arbe) & *ddeusik* (Ora, Zoho) & *ddu[ż]ik* ‘deusik’ *etzelaik* (Bith), *Ddomingo* (Sor), *gaixoa* (Ora, Donap) & *gaxoa* (Amo, Ost), *goxaita* ‘aitabitxia, aita jauna’ (Mar, Zoha), *goxama* ‘amabitxia, amandrea’ (Ora, Mar), *goxo* (Ora, Amo) & *be goxoan* (Donap), *gütti* (Arbe), *hexur* (Bith) & *exur* (Behau), *multxo ederra* (Amo), *nexkatoak* (Bith), *gutti* (Behau, Bith) —baina baita *biziki guti* (Behau) ere—, *mettaka-mettaka* (Sor), *moxkortzen* (Laph), *muthil ttipi* ‘morroin gaztetxoá’ (Meh / Arbo), *ñeskato* (Uha), *oñoñak* ‘bunbunak’ (Lük), *otto* ‘osaba’ (Behau, Bith, Donap), *(lekhü) pattarretan* (Arbo), *pintarrak* ‘hegazti mota bat’ (Bith), *planttan* ‘egoki’ (Behau), *polliki* (Meh / Behau) & *pullikiño* (Bith) & *pollit* (Arm, Meh / Bith, Uha) & *pullit* (Ora, Lab, Gam, Zoho, Uha / Olh, Arüe), *puxi bat* (Amo), *ttantta* (Bith), *ttau tttau tttau* (Ame), *ttintta at* (Uha), *ttipi* (Behau, Bith) & *txipia* (Amo), *xahar* (Ora, Amo, Bith, Arbe) & *xahartü* (Donap), *xangoak* (Bith), *xardina* (Bith), *xerri* —baina ibiltzen dute *zerri* aldaera ere, Amorotzen entzun dugu—, *xingar* (Ora), *xiri* ‘ziri ttipia’ (Uha, Donap, Arbe), *xixitik kanpo* (Bith), *xixariak* (Bith), *xoxoik* ‘ergelik’ (Behau), *xuitzen* ‘xuritzen’ (Bith), *xuxen* adjektiboa (Bith, Uha)

Kasu berezia da *holli* ‘horia’, Zuberoan arras ohikoa dena; Amiküzten ez dugu entzun, baina Domintxainen ageri da (EHHA).

Beharbada hiperzuzenketak eragin du despalatalizazioa *dauzi* ‘jauzi’ adibidean (Ame, Sor / Dom); cf. *dautzi* (Ilh / Dom) eta *dantzau gauziak* ‘jauziak’ (Sar); bada *dautzi* in aldaera ere (Ame). Era berekoa da *deitzi* ‘abereak jetzi’ (Lük, Arbo) aditza ere; cf. *deitzen* (Ost).

7.3.1.4.6.2. Ozenen palatalizazio automatikoa

Baxenabarreko ekialdean ez da harritzeko beheranzko diptongoaren osagai den *i*-k ondoko *n* eta *l* palatalizaraztea, baina ezker *i* bokalikoa duten *n* eta *l* kontsonanteek busti gabe diraute. Lehen sailean sudurkari ez palatalizatuak dakartzagu:

adina (Bith, Behau, Sor) & *adinekoak* (Bith) & *adinetakoak* (Arbe), *aitzineat* (Lab), *artino* (Sor, Laph), *baginen* (Donap), *bazekinat* (Bith), *berdina* (Amo, Arrü), *erregina* (Ora), *espartinak* (Bith), *espartingilea* (Sor), *eztainat* ‘ez zakinat’ (Arbe), *ginen* (Beh, Arbe, Sor), *gintinan* (Laph), *jinik* (Behau, Arrü), *inez* ‘eginez’ (Lab) & *inik* ‘eginik’ (Arrü), *kokina* (Behau, Bith, Donap), *langiliak* (Lab, Donap, Sor), *maxina* (Arrü, Bith, Mar), *mina* ‘oinazea’ (Lab), *pilotan* (Arbe), *sinetsi* (Bith, Arrü, Ilh) & *sinesten* (Arbe), *sobeakina* (Ost), *zikina* (Zoho) & *zikhina* (Ost), *zinez* (Behau), *zitanan* (Arbe); palatalizatu ez den mailegua da *pulina* (Bith)

Albokariak dakartzagu orain:

agorrilakotz (Behau), *aphiila* (Ost, Sorh) & *aphila* (Uha), *dilindan* (Arbe), *ezkinakiila* (Behau), *giileat* (Behau, Lab), *hilaite* (Amo, Mar, Lab / Pag), *hilerrri* (Bith) & *ilerria* (Uha), *ibili* (Bith, Behau, Lab, Gam, Arbe, Laph) & *iili* (Arm / Behau), *ilik* ‘hilik’ (Arbe), *inutila* (Behau), *istilaikin* (Behau), *ixila* (Bith, Arbe / Pag), *kilikan* (Zoho), *kinkili-kankala* (Arbe), *langile* (Ora, Bith, Mar, Zoho), *mutilik* (Mar), *oskilian* (Gam), *ostiailiakin* (Gam), *pilota* (Bith, Uha) & *pilotan* (Amo, Mar, Lab, Zoho, Arbe, Uha), *urtarrilean* (Behau) & *urthaila* (Sor)

Fonikoki ikusirik bereziak dira *aphiilla* & *aphiillaen* (Amo) edo *aphilla* (Barta), *agorrilla* (Laph) eta *urtharrilla* (Zok) adibideak; ez dakigu hilabete izenen paradigmatik eragin ote dien, baina baliteke, izan ere 1913an *hazillaren* dakar Amorozen bizi zen bardohtar batek (68). Bithiriñan eta Arberatzen *illobak* entzun dugu. Berezia da era berean Amorozen bildu dugun *illiak* ‘ibiliak’ *gien bezala*.

Ezkerrean diptongoa duen edo ukan duen kontsonante ozena Amiküzen ohiz palatalizatzen da; ikus dezagun sudurkarien saila:

añan ‘baina’ (Arbo), *arraiñ* (Lab) & *arrañik* (Bith), *arrazuñekin* (Ame), *artzaiñ* (Behau) & *artzañ* (Ainh) & *artzañak* (Behau, Arbo),⁸⁵ *belhauñak* (Ora) & *belhauña* (Lük) & *belhauñetik* (Donap) & *belhaiña* ‘belauna’ (Ora), *bestañez* (Sor) & *besteñean* (Ora, Arrü / Pag), & *besteñez* (Amo, Lük, Zoho), *betroñak* (Behau), *ekhañan* (Ilh, Sor) & *ikhañan* (Uha), *errañetan* (Uha), *eskalapuñak* (Ora, Bith, Zoho),⁸⁶ *eskuñ* (Lab, Arbo / Dom), *etxezañekin* ‘etxetiarrekin’ (Uha) & *etxezañ* (Olh) & *etxezañak* (Gam), *gaiñ* (Sor) & *gaiñan* (Ora) & *gaña hartzen* (Amo) & *gañan* ‘gainean’ (Ora, Lab, Arbe / Arüe) & *gañeat* (Bith) & *gañean* (Lab, Uha Arrü / Arüe) & *gañian* (Ora, Arrü, Bith, Mar, Arbe) & *añean* ‘gainean’ (Gam) & *gañeko* (Mar) & *gañetik* (Ilh, Uha) & *gañatikoa* (Lab) & *gañeatekua* (Ilh) & *gañeatiko lanak* (Arrü), *gaphuñak* (Bith) —Mehainen *gaphoina*—, *gaztaña* (Behau, Ilh, Zoha, Arbe, Sor / Arüe, Sarkp, Ainh, Urd) —nolanahi ere den, Amiküzeke Behauzen *gaztaña*-rekin batean aita-amak Arberoa ingurukoak zituen lekuko batengandik *gastaina* bildu dugu eta Arberoako Mehainen *gaztañatze*, *gaztañak* eta *gastanaen*; *EHHA*-k *gaztena* dakar Bardozen— & *gaztañen* (Ost), *heiñ* (Ilh / Arüe) & *heiñean* (Behau, Arbe), *huñetakoak* ‘oinetakoak’ & *uñetakoak* (Sor) & *huñez* (Behau, Bith, Uha / Arüe, Olh, Sarkp, Ainh, Pag, Urd) & *uñez* (Ora, Arrü, Mar, Ilh, Zoho, Arbe), *ithuña* (Uha), *kharroñaikin* (Arbe) & *kharruña* (Ora), *mahañak* (Gam / Oih) & *mahaña* (Olh), *phezuñ* (Uha), *sasoñ* (Sor) & *sasoñik* (Ora) & *sasuñ* (Zoha, Sor), *soñean* (Donap), *zaña* (Donap) & *zañen gaiñian* (Amo), *zapataña* (Sor), *zeñiak* (Bith) & *t’zeñietako* (Amo)

Badira leku izen bereziak ere:

Bithiñak (Behau) & *Mithiña* (Laph) —cf. *Bithiina* (Arm, Meh)—, *Domintxiñe* (Gam / Arüe, Sarkp) & *Domintxiñeat* (Behau / Arüe) & *Domintxiñekin* (Etx) & *Domintxiñen* (Olh) —cf. *Domintxinetik* (Behau) & *Domintxine* (Meh / Etx, Sarkp) & *Domintxineko* (Olh)—, *Ozañe* (Gam, Zoho)

Badira gero Amiküzen mailegu batzuk ozen palatala dutenak; hona etsenplu sorta bat erakusgarri:

Brcetañalat (Mar), *eskalapuñak* (Bith, Zoho) & *eskanpoñak* (Sarkp) —cf. *espalakoin* (Behau, Bith)—, *Españaokari* (Behau) & *Españan* (Lab / Arüe) & *Españatik* (Olh) & *Españala* (Sarkp) & *Españian* (Mar) & *españolak* (Meh) & *españul* (Pag), *iñoranta* (Mar), *kanpañia* (Ora, Lab, Gam, Arbe) & *kanpañakoendako* (Bith) & *kanpañan* (Arm) & *kanpañatik* (Sarkp), *kaskoiña* (Arrü) & *kaskoña* (Arbe) —cf. *kaskoin* (Amo, Ilh) & *kaskoina* (Amo, Lab)—, *eta konpañi* (Ora), *küñatain* (Gam), *liña haundiak* (Uha), *makiñun* (Behau) & *makiñuner* (Arbo) —cf. *makiñunak* (Meh), *makiñuik* (Ündü)—, *miñardi*

85 Baina Arbotiko lekukoak beste adibide batean *artzainak* eman du.

86 Mugagabeen *eskalapuñ zolan* (Bith), palatalizatu gabe.

(Uha) & *miñardia* (Bith, Lab, Arbe, Laph, Sor) & *miñardiak* (Sarkp), *ñago* 'arbia' (Uha, Arbe, Sor), *treiña* (Behau) & *treña* (Ündü) & *treñian* (Behau)

Atzizki txikigarriek ere kontsonante sabaikaria daramate:

aantxuño (Meh / Behau), *aitañi* (Bith, Zoho, Sor / Ainh) & *amañi* (Bith, Uha, Zoho, Laph, Sor / Arüe), *amiña at* (Amo, Mar, Lab, Arbe, Laph / Olh), *amiñi at* (Amo, Bith, Behau, Arrü, Lab, Arbo, Arbe, Laph / Ainh), *baño* (Ora, Bith, Behau, Mar, Lab, Ilh, Gam, Arbe, Laph) & *bañot* (Mar, Arbo, Laph / Dom, Itho), *behorño at* (Uha), *lurño* (Arrü), *poxiño at* (Arm / Arbe), *zenbaiño* (Arrü) & *zonbeño* (Arrü, Arbe / Dom) & *zunbaño* (Arrü)

Hona orain diptongo ondoko albokarien saila, Zuberoan bezala palatalizaturik ageri dena:

aantalla (Amo, Zoho, Sor), *arralleria* (Uha), *arrolla* (Ame) & *arrollan* (Ora) —baita *arrollak* (Sarkp) ere— & *arrullen* (Arbo), *buulla* 'iraila' (Uha) & *bülla* (Laph) & *büüillean* (Laph), *dallüz* (Zok, Ilh) & *dalluz* (Mar) & *dallia* (Ost, Donap) & *dalliaekin* (Ber) & *dalliekilan* (Ainh), *elloba at* (Ilh) & *illobak* (Bith) & *illoa* 'iloba' (Uha), *ezteillar* 'ezteiliar' (Sor), *galla lur* (Uha), *hunkalliak* (Gab), *khandeallu* (Uha), *oillaskoa* (Lab) & *ollasko* (Ora, Amo, Lab / Arüe), *ollo* (Amo, Lab / Loh) & *olluak* (Bith), *otsalla* (Sor) & *otsallan* (Ora, Ost), *saltzalleak* (Uha), *so^halla* & *soalla* & *sualla* (Gab) & *sohallan* (Amo) & *sohallitat* (Ilh) & *soallü* (Sarkp), *sullarda* —*ta gio sullarda*, *zumaitzük bazizien sukhaldeetik landa pieza at han*— (Gab), *tellatia* (Uha, Larri) & *tellatian* (Bith), *üztaila* (Ilh, Laph) & *üztallan* (Zok, Sor / Ber) —*üztailaren eman zion Trebitschi Amorotzeko bardoztar batek 1913an (68)*—, *zerrallain* (Zoha)

Badira mailegu berriagoak ere:

beillatzen (Bith) & *bellariak* (Sor), *billuna* 'jaurtiki den arbola enborra' (Arbo), *butilla* (Bith, Uha, Donap, Lab / Pag), *eskaller turnant* (Lab), *fallitian* 'dirurik gabe gelditu ondoko egoera' (Ora), *fulla* 'idazteko orriak' (Bardo / Ora), *kontselluko* 'udaleko' (Bith), *maileatiük* (Mar) —baina *maileatzekoik* eman zion amorotzar batek Trebitschi 1913an (65)—, *martellu* (Behau), *pua-lla* 'hegaztiak' (Mar, Lab / Arüe, Pag), *tallatzia* 'segaz moztea' (Bith), *tallisa* 'zuhaitz mota' (Zoha)

Palatalizaturik ageri da honako adibidea ere:

killaka (Amo, Bith, Mar)

Ez dira palatalizatzen diptongoa ezkerrean duten adibide hauek, salbuespen itxura dutenak:

alaina (Amo) & *alainan* (Arrü, Behau, Mar, Lab, Gam, Donap), *emalia* (Sor), *fuinak* (Ilh), *ohoinik* (Barta), *oinez* (Arm / Mar), *otsemaile* (Laph) & *otsemailea* (Mar), *sasoineko* (Sor) & *sasoinetan* (Lab) & *sasoinian* (Laph) & *sasuinian* (Barta)

Ez dakigu kasu guztietan hala den, baina palataliza daitekeen fonema morfemako mugan kokatzea edo euskaraz mintzatzean halako jantzi ukitu edo kutsu literarioa agertzea ere izan daiteke batzuetan arrazoia. Hitzez hitz beharko litzateke aztertu.

Baxenabarren ohikoa da jokabide ez palatalizatzaile hau, baina diptongoaren ondoren ez palatalizatzea ez da Amiküzeko araua. Amiküzeko palatalizaziorik gabeko diptongo ondoko ozenen adibideak Arberoa ondoko Behaizen bildu ditugu:

ekheinean, *gaineatekoik*, *gainian*, *gaztaina* — baita *gaztaña* eta *gaztena* ere —, *kontseilu* & *kontseiliak*, *oilo ta oilasko*, *ordaina*, *sailetik*, *üztailaen*

Adibideok eman zituen hiztunaren aita-amak Amiküzerat Arberoatik jinak ziren, hori dateke adibideek palatalizaziorik ez izatearen arrazoia. Ez dakigu diptongo ondoko jokaera ez palatal hau Behaizen gizarteraturik dagoen, ez dugu uste; berriemaile honengan mezako euskarak edo Hazparnealdeko euskararen ospeak eragin ote dute honela ahoskatzeko zaletasuna?

7.3.1.4.6.3. Txistukarien palatalizazio automatikoa

Ezkerrean *i* eta ondotik *t* edo *k* herskariak dituen txistukari igurzkarri lepokaria sabaikaritzea euskalki gehienetan gertatzen da eta Amiküze alderdia ez da salbuespena:

haxkora (Arbo) & *aixkoraekilan* (Bith) — Arrüetan *áixkoraekílan* etsenplua bildu zuen 1986an EAEL-k (264 etnot)—, *hak ekharri zin bixkarrean etxeat* (Bith), *bixkotxa* (Bith), *gaixki* (Arüe), *gaixto* (Uha) & *gaixtoik* (Uha) & *gaxtoik* (Pag) & *gaixtotzen* (Arbe), *herria hixtuz* ‘histuz, tristatuz’ (Uha), *ixkiatzen* ‘izkiriatzen, idazten’ (Bith), *ixtorio* (Behau, Uha), *lixtan* ‘zerrendan’ (Bith)

7.3.1.4.6.4. Bustidura erromanikoak txistukarrietan

Hitz erromaniko zenbaitetan bustidura ageri da txistukarrietan Ipar Euskal Herriko euskaran; Baxenabarreko Izturitzen *konfiantxa* bildu da EHHA-n eta Landibarren *espeantxa*. Guk Armendaritzen *konfiantxa*, *laborantxa* eta Mehaien *laborantxa*. Amiküzen ere era honetakoak bildu ditugu:

konfiantxa (Arbo), *laboantxa* (Mar, Arbo, Zoho, Laph), *preferentzia* (Amo), *xerbitxu* (Behau) & *xerbitü* (Lab); aldiz, Armendaritzen *zerbitxua* & *zerbitzua*, bi erak bildu ditugu eta Mehainen *xerbitxia* & *xerbitxatzen*

Ez dakigu *bortxaz* (Amo, Behau, Bith, Mar / Olh, Sarkp, Pag) sail berean sartzeko ote den; cf. Arberoan *bortxa* (Arm) eta *bortxaz* (Meh).

Geografian eskuinerat jarraitzen du adibide sail honek:

alegrantxa (Sarkp), *konfiantxa* (Dom, Sarkp), *laboantxa* (Arüe, Olh, Oih, Pag), *esparantxa* (Urd), *xerbitxatzeko* (Olh) & *xerbitxik* (Sarkp) & *zerbitxatzeko* (Sarkp) & *xerbitxatzia* (Urd) & *xerbitxin* (Urd)

7.3.1.4.7. Kontsonanteen sinkopak

7.3.1.4.7.1. Bokal arteko *r* galtzea

Ezaguna denez, Zuberoan XIX. mendearen erdialdean bokalen arteko *r*-ak oro galdu ziren, 1840ko belaunaldia izan zen fonema hau bokal artean ahoskatzen azkena; nabarmena da xiberotarrak geroztik bokal arteko *r* gabe mintzo direla. Guk Arüen *üdüü* ‘iduri’ eta *zira* ‘zira’ aldaerak entzun ditugu, oro har Baxenabarren *iduri* eta *zira* direnak. Amiküzen ez da gertatu Zuberoako guztizko galera hori, baina uste dugu Zuberoa ondoan dagoen Amiküze eskualdeko hitzunik direla Baxenabarren bokal arteko *r* gutien ahoskatzen dutenak, baina halaz guztiz ere bada *r* bokal artean Amiküzen. Gauza jakina da, bestalde, euskaran oro har eta Baxenabarren ere bokal arteko *r* ugari ez direla ahoskatzen, baina honetan Baxenabarre joera orokorraren partaide da; eman dezagun, Oztibarren genitiboan galtzen da *r*: *urdiain umia uzu xerria* (Jut).

Baxenabarreko adibide batzuetan bokalen artean *r* galdu dela eta bokalen artean hasperena eragin duela pentsa liteke, baina ulertu beharko dugu sakonean *rh* zegoela eta *r* galdurik bokal artean *h* gelditu dela; Arberoako adibideak balia ditzakegu erakusgarri:

ahan ‘arana’ (Meh), *behexi* (Arm, Meh), *ehia* ‘eria’ (Ame)

Beste ele batzuetan ez dago hasperenik bokalen artean: *geeziak* (Meh).

Oztibarren ere *vrv* > *vrhv* > *vhv* bilakabide berria erakusten dute hainbat hitzek:

ahin ‘arina’ (Lan, Ibarro), *behextia* ‘bereiztea’ (Jut), *ehiak* ‘eriak, atzamarrek’ (Jut), *ehotia* ‘erotua’ (Lan) & *ehotiak* (Larz), *sohαιο* ‘soraio’ (Larz)

Nolanahi ere den, *geeziak* bildu dugu Jutsin, ez “geheziak” eta berdin EHHA-k ere; Landibarren ere *geezi* (EHHA).

Amiküzén ere aurki genitzake adibide iduriak:

ahan ‘arana’ (Ilh), *ahe* ‘area’ (Sar, Ilh) & *ahiak* (Arbo), *ahinau* ‘arinago’ (Arbo), *behaz* ‘beraz’ (Amo), *behexi* (Donap) & *behexte* (Amo) & *behexten* (Arbo / Dom), *behua* ‘beroa’ (Ame) — cf. *behotü* (Gar, EHHA) —, *bihamunian* (Ora) & *bihamon* (Ora, Arrü), *ehia* ‘eria’ (Ame), *ehitu* ‘eritu’ (Ora), *ehotüik* ‘eroturik’ (Ame), *mehexi* (Ora, Zoho), *ohit* ‘oroit’ (Uha, Arbe, Sor) & *ohitzen* ‘oroitzen’ (Uha, Sor), *soho* (Sar, Zok) & *sohuak* ‘soroak’ (Ost)

Desberdina da Oragarren entzun genuen *abahas* ‘aberatsa’, hirugarren silaban kokaturik dagoena, eta desberdina da Oragarreko *ehasten al’tzutela* ‘ebasten ahal zutela’ adibidea ere: bokal arteko *b* galdurik — ez da *r* galdu dena —, hasperena ageri da orain bokalen artean.

Bokal arteko *r* edo ttap kontsonantearen galera nabarmenago da Amiküzén Arberoan baino:

aatsetan (Bith, Arbe), *aatxeak* (Behau) & *atxe* (Arrü), *abeatsak* (Amo, Bith, Laph) & *abaats* ‘aberatsa’ (Ora, Mar, Lab), *abe^e* ‘aberea, behi kudea’ (Arbo), *aotz* ‘arotza’ (Behau) & *aotzik* (Donap) & *autz* (Gab, Larri / Dom), *aua* ‘aroa’ (Barta), *Arbaatzetik* (Arbe), *baatzte* (Amo, Zoho, Arbe) & *baatzeko* (Arrü) & *baatzia* (Lük / Ber) & *baatzian* (Ora, Bith, Laph), *baskaia* ‘bazkaria’ (Bith), *baziela* ‘bazirela’ (Zoho), *beant* (Amo, Bith, Ilh, Arbe) & *beantian* (Arbe), *bedeatzi* (Arbe) & *beatzi* (Zoho), *beaz* ‘beraz’ (Ora, Bith), *bedeen* ‘bederen’ (Ora, Bith, Lük, Zoha) & *bedein* (Uha), *behala* (Behau, Zoho), *bee* ‘bere’ (Zoho), *beotzeko* ‘berotzeko’ (Behau, Arrü), *bezpean* ‘bezperan’ (Ost) & *bezpeetaik* ‘bezperetarik’ (Arrü), *biamon* ‘biharamuna’ (Bith), *büülla* ‘uztaila’ (Arrü) & *buula* (Sor) & *büülan* (Arrü), *buuz* (Uha), *denboa* (Bith, Uha) & *denboan* (Zoho, Laph) & *demoa* (Ora, Ost, Mar), *difeent* (Amo), *easiak* ‘erasiak, errietak’ (Bith, Zoho) & *easiaka* (Ora) & *easiatzen* ‘errietan ematen’ (Behau), *eauntsi* ‘erauntsi’ (Zoho, Arbe) & *eontsi* ‘erauntsi’ (Ora), *eeneun* ‘herenegun’ (Behau), *elgarretaatzten* (Sor), *ei* ‘erori’ (Zok) & *eori* (Ora), *eosi* ‘erosi’ (Amo, Zoho) & *eosten* (Ora, Sor), *ezkaatz* (Sor) & *ezkaatza* (Ost, Laph) & *ezkaatzetan* (Bith), *geo* (Amo, Zoho, Arbe) & *gio* (Arm, Meh / Amo, Behau, Bith, Uha, Arrü, Mar, Lab, Gam, Zoho, Arbe / Olh, Arüe, Sarkp, Pag) & *geoz* (Amo) & *geoztik* (Bith, Arbe) & *gioztik* (Zoho), *haboo* (Olh) & *habootan* (Bith) & *habooxiak* (Dom), *haitza* ‘aritza’ (Bith, Arbo), *hemeetzi* (Zoho), *hua* ‘hura’ (Zoho, Sor), *iaazi* ‘irabazi’ (Zoho) & *iaazten* (Ora), *iatze* ‘iratzea’ (Sor) & *iatzia* (Laph) & *iatziak* (Ost) & *iaztor* ‘iratzeduia’ (Zoho), *iauten* ‘irauten’ (Ost, Sor), *iesten* ‘irensten’ (Zoho), *igan* ‘iragan’ (Dom) & *iganak* (Donap), *inguatui* (Bith), *izkiatiak* (Arrü), *joanaazten* (Barta, Arbe), *laboantxan* (Zoho) & *laboari* (Ora), *mentüaz* (Arbo, Arbe), *meeximendü*

(Ilh), *oen* ‘orena’ (Ost) & *oonak* ‘orenak’ (Gab) & *oonetan* (Zoho), *oono* ‘oraino’ (Amo, Behau, Bith, Arrü, Ame, Gam), *ootako* ‘orotako’ (Zoho) & *ooz* (Laph), *ostialea* (Arrü), *Ozaañe* ‘Ozaraine’ (Arbe) *phedeikü* ‘predikua’ (Lab), *seorak* ‘serorak’ (Zoho), *sobea* (Donap), *uai* ‘orain’ (Amo), *üdüipenak* (Laph), *xiula* (Bith), *xuitzen* ‘xuritzen’ (Bith)

Morfologiaren mugetan gertatu dira besteok:

altxatuik (Ora), *anoik* (Arbe), *ardiik* (Arrü), *argizaitaik* (Uha), *arrebakin* (Zoho), *batetaik* (Arrü), *beraakin* ‘berarekin’ (Ora), *bideik* (Ilh), *bustiik* (Zok), *dendariik* (Arrü), *dielaik* (Arbe), *ebatsiik* (Arbe), *edaleik* (Arbe), *egalea* ‘hegalera’ (Bith), *egürrain* (Arrü), *ehoik* (Arrü), *Elizain* (Bith), *eroriik* (Donap), *eskolaa* (Arbe), *etxateko* (Ora), *ezkündüik* (Lab), *Frantziaa* (Ora), *gintelaik* ‘ginelarik’ (Amo), *gizongeaekilan* (Behau), *gorriik* ‘gorririk’ (Behau), *gue* ‘gure’ (Ora, Uha) & *güe* (Zoho), *haakin* ‘harekin’ (Ora), *haatao* (Arrü), *halaik ee* (Amo), *ikhasiik* (Amo), *ilherrietat* (Bith), *izartuik* ‘neuriturik’ (Ora), *jaliik* (Ora), *latsatzea* (Uha), *mezaat* (Zoho), *ñagoai* ‘arbiari’ (Arbe), *oheat* (Amo), *orotaik* (Bith), *saltzeat* (Bith), *üdaleat* (Arbe), *urthetaik* (Bith), *zenaikilan* (Amo)

Hona EHHA-ko bi etsenplu erakusgarri ere: *zeua* ‘zerua’ (Arrü), *etxekandeia* (Arbo); bi galera hauek ez dira arruntak Baxenabarren, Zuberoako eite dute.

Eskualdearen hegoaldean, Uhartehirin ez dirudi galerak honenbesteko eraginik duenik:

eritasun, ernari, erosi, gelariarekin, hori, ixtorio, kharioxe, lobi, ordari, oro, xuritu, zamari...

adibideak entzun ditugu, alabaina, badira herri honetan galeraren adibideak ere:

bedeatzi, bihamun, buuilla, estolaazi ‘estalarazi’, *geeño, ingumen, noadio, sobea...*

Nolanahi ere den, ez da ulertu behar galera Amiküzen guztiz gertatu denik, izan ere, eskualdean aise entzuten da *r* bokal artean:

aberastü (Arbe) & *aberekin* (Ost), *ageri* (Ora), *aiduru* (Bith, Lük) & *aidürü* (Behau, Ame, Zoho), *andere* (Sor), *antzera* (Ost, Bith, Zoho), *apairu* (Bith), *arauz* ‘nonbait, dirudienez’ (Lab, Ame, Zoho) & *araiç* ‘nonbait, dirudienez’ (Beh, Bith, Ost, Uha, Gab, Arbo / Ber, Pag), *ardiira* ‘usu’ (Zok), *ari* ‘aritzea’ (Zoho), *aro* (Ora, Zoho) & *aroa* (Ost), *axuri* (Bith), *azerüika* (Ilh) & *azeria* (Ilh), *baskari* (Bith, Zoho, Laph / Dom), *bere* (Sor) & *beren* (Sor) & *berian* ‘berean’ (Zoho), *beroan* (Ilh) & *berotzen* (Ost, Sor), *bilkiira* (Ilh),

Zoho) & *bilkhura* (Loh), *buru* (Uha), *denbora* (Ora, Zoho), *emeretzi* (Zoho), *erasiak* (Zoho) & *erasiaz* (Donap), *erein* (Zoho) & *ereiten* (Zoho), *eri* (Olh) & *eritasunez* (Bith), *erori* (Bith), *erosi* (Arbe), *heskuaraz* (Ilh), *ganbera* (Behau) & *khanberak* (Bith), *garizuma* (Ilh), *gazura* (Donap), *gelaria* (Ost), *geroari* (Arbe), *giri* (Uha), *haboroek* (Arbe), *haidürü* (Arbo), *haragi* (Ilh), *hirü* (Zoho, Arbe), *hori* (Zoho) & *horiek* (Zoho), *igerikaz* (Arbe), *iratze* (Bith), *irin* (Lab, Arbe), *irus* (Ame), *isuseria* ‘itsuseria’ (Arbe), *janari* (Ilh), *jaureia* (Olh), *khantaria* (Olh), *laborariak* (Bith), *larderia* (Laph), *libürü* (Arbe), *mentü’az* (Arbe), *orai* (Amo), *ordaria* (Arrü) & *ordaritan* (Arbo, Zoho), *oren* (Amo), *oro* (Uha, Zoho, Sor), *pare* (Zoho), *serorak* (Sor), *sobera* (Bith, Arbe), *tenorian* (Bith), *zare* ‘saskia’ (Bith) & *zaria* (Behau) & *zareak* (Lab) & *zariak* (Lab, Arbe), *zaroan* ‘azaroran’ (Sor)

7.3.1.4.7.2. Igurzkarien galera bokal artean

Erran izan den bezala, aspaldiko gertakaria da euskaraz bokal arteko kontsonante igurzkariak ahulduz galtzea; errate batera, egungo *Goizüta* edo *Goizüeta* herria *Goizübieta* zatekeen aspaldian, egungo *Azkuia* edo *Itürrixa* garai bateko edo erdal tradizioko *Azkoaga* eta *Iturriaga* dira, eta honelako hamaika adibide ditugu, baina era berean, egia da ere beren galera ez dela “bukutzen”; zinez hor diraute, galdu-gordean izanik ere. Franko etsenplu eman daiteke:

Biezpänkarien sailean bokal arteko β kontsonantearen Amiküzeko galera aurkezten dugu:

aandonatu (Amo), *aantalla* (Zoho), *aantxu* (Ora, Bith) & *aantxiü* (Arbo) & *aantxiüño* (Behau) & *aantxiüño* (Arbe), *aere* ‘abere’ *bürü* (Gam), *antziüra* ‘abantzura’ (Arbo), *delieroa* (Zoho), *easlia* ‘ebaslea’ (Ora) & *eatsi* ‘ebatsi’ (Ora, Sar, Uha, Gam), *egüeri* (Laph), *ena* ‘bena, baina’ (Uha), *gielian* (Bith) & *giilian* (Arbe) & *giiletik* (Ora) & *giileat* (Zoho), *hail* ‘hoa’ agintezkoa (Zoho), *hamoost* (Ora), *heen* ‘heben = hemen’ (Arm, Meh / Amo, Behau, Bith, Uha, Arrü, Mar, Lab, Ilh, Gam, Zoho, Arbe / Itho, Olh, Arüe, Sarkp, Pag, Urd), *hilaite* (Zoho) & *hilaate* (Ora), *hoeki* (Sor) & *hoiki* (Mar, Ame, Arbo) & *hoki* (Ora) & *hooki* ‘hobeki’ (Meh / Amo, Ost, Gam) & *hokienienik* ‘hobekienik’ (Ora), *iili* (Behau, Arrü) & *iilten* (Ora, Amo, Bith) & *iiltzen* ‘ibiltzen’ (Ora, Uha, Donap), *iraazi* (Arbe) & *iraazteko* ‘irabazteko’ (Ora, Zoho, Arbe) & *iaazi* (Zoho) & *iaazten* (Ora), *kaale* ‘abere’ (Donap) & *kaaleak* (Uha) & *kaaliak* (Arbo, Sor) & *kaalak* (Ora, Amo), *koosatü* ‘apezak aitortza eman’ (Lük), *ni eno* ‘ni baino’ (Donap), *soera* ‘sobera’ (Ora) & *so^era* (Arrü), *xaaltzen* (Sor) & *zaaldü* (Ilh) & *zaalik* (Amo) & *zaaltzen* (Ost)

Litekeena da bokal artean galdu den *b* horren lekuan *h* kontsonantea agertzea ere: *ehasten* ‘ebasten’ *ahal tzutela* (Ora). Hasperen ahula entzun dugu

Oragarren "bederatzi" hitzean ere, hala *beatzi* nola *be^hatzi*. Ostankoan *i^hilten* entzun dugu eta Martxüetan *gazte hat* 'gazte bat'.

Duny Pétrék *atahal* 'atabala', *ihili* 'ibili', *irahazi* 'irabazi' edo *zahal* 'zabala' erako adibideak dakartza Baxenabarren; cf. *ihili* Garaziko Donibanen eta Lekunberrin (1959: 48 & 56); Heletan ere entzun dugu guk *ihili* 1986an. Ikus Garaziko Uhartan *zahaldü* (EHHA) ere, eta Oztibarren *gihil* 'gibela' (Izu, Jut, Bun, Ibarre) adibidea dugu, baina *zaal* aldaera (Jut, Larz), *h* gabe.

Hurranen sailean δ galdu da eta ikusten denez, sinkopa adibide gehienak osagai gramatikaletan gertatu dira, adizkietan-eta, baina badira osagai lexikoen etsenpluak ere:

beatzi (Zoho), (*ur*) *benikatia* 'benedikatua' (Arbo), *ean* 'edan' (Ora) & *eaten* (Uha, Donap) & *eatia* (Ora) & *ealeari* 'edaleari' (Ora), *eer* 'ederra' (Ora) & *earki* (Ora), *heatu* 'hedatu' (Ost) & *heatia* (Barta), *oola* 'odola' (Ame), *primaeran* (Amo), *süürretik* (Ame)

Adizki laguntzaileak egoera enklitikoan daude eta ez da mirakulu higadura fonikoa jasatea: Baxenabarren adizkietako bokal arteko *d* galtzea hedaturik dago eta honelaxe da Amiküzen ere:

baakik (Zoho), *beharba* (Amo), *zernahi izan dain* 'dadin' (Amo), *erten duana* 'dudana' (Gam) & *düana* 'dudana' (Zoho), *ahal duan bezala* (Arbe), *izan tzain* 'zadin' (Zoho), *hori izi* 'hori dizi = du' (Mar), *baizi* 'badizi = badu' (Mar), *baizie* 'badizie = badute' (Gam), *baitzi* 'baditzi = baditizu = baditu' (Mar), *ari uzu* (Mar), *egia uzu* (Mar), *galdü üzü* (Gam)

Aipagarri da bokal arteko *y*-ren galera ere, ugari gertatzen da:

aerian 'agerian' (Donap), *aian* 'agian, oxala' (Ilh), *aotza* 'agotza' (Uha), *arditei* (Ora) & *arditeia* (Ost), *baintzin* 'bagintzin' (Ora), *beiratü* 'gorde' (Ame), *bierren* (Ilh), *bitüü* 'baitugu' (Zoho), *bizitei* (Behau), *eeneun* 'herenegun' (Behau), *ein* 'egin' (Zoho) & *eiten* (Amo), *eon* 'egon' (Zoho), *eun* 'eguna' (Ost) & *eün* (Zoho) & *eunaikilan* (Amo), *eurdi* 'eguerdia' (Amo)⁸⁷ & *eürdi* (Arrü), *eürka* 'egur bila' (Behau), *ezoutü* 'ezagutu' (Ilh), *goo* 'gogo, nahi' (Ilh) & *gootik* (Ora), *goorak* 'gogorak' (Ame, Arbo) & *goortia* 'gogortua' (Arbe), *hiitü* 'higitu' (Laph), *hoei* 'hoge' (Ora, Ilh), *iaan* 'iragan' (Ame) & *iaiten* 'iragaiten' (Ost), *iande* (Ora, Amo, Ost, Bith, Arrü), *iützen* 'higitzen' (Bith), *iorri* (Ame, Sor) & *iortzen* 'igortzen' (Ora, Zoho), *iuzkia* (Behau), *iüükatü* 'igurikatu' (Ilh), *iziarri* (Amo, Ame), *jaurei* (Zoho), *launer* (Ora) & *launtzen* (Ora), *lüsaar* 'patata' (Sor), *nausi* (Ora, Bith), *nia-rrerz* (Behau), *ñao* 'arbia' (Laph) —cf. *ñagoko* Uhartehirin—, *osaarri* (Ora,

87 Baita *egurdi* ere Amorotzen berean.

Arbe / Olh), *osteunian* (Ilh), *paatu* ‘ordaindu’ (Behau) & *patü* (Ilh) & *paatzen* (Arrü), *pearra* ‘pegarra’ (Ora) & *peartegia* (Gab), *saar erriak* (Bith) & *sar-doi* ‘sagardoia’ (Ilh), *seürik* ‘segurik, behintzat’ (Arbe), *theia* ‘tegia’ (Zoho), *urdandea* ‘urdandegia’ (Zoho)

Gamueko adibide batean *ihandia* ‘igandia’ entzun dugu eta Olhaibiko adibide batean ere gardentasunez ageri zaigu *ehoiten* ‘egoiten’ hasperentzea, baina ez dugu gertakaria adibide gehiagotan sumatu.

Konparazio atzizkian nabarmena da γ -ren galera eta bokalen ondoko berdinkaritzea ala fusioa:

aantzatio ‘abantzatuago’ (Bith), *ardito* ‘harditago’ (Zoho), *aulo* ‘ahu-lago’ (Amo), *deboto* ‘debotago’ (Zoho), *ederro* (Arbe), *erremesoo* (Amo), *fiteo* ‘fiteago, lasterrago’ (Bith) & *fitio* (Ora), *gaztio* (Arrü), *gehixau* (Ora) & *gehixoño* (Zoho), *geihoo* (Amo), *geroau eta gehiau* (Amo), *goguano* ‘gogoanago’ (Behau), *gustiano* (Arbe), *handixuüño* (Zoho), *joanau eta nahiau* (Barta), *kharioo* (Ora), *leenao* ‘lehenago’ (Amo) & *lehenau* (Arrü) & *lehen* (Amo), *seurrao* (Amo), *ttipioua^k* (Amo), *xüxeno* (Arbe), *zozoo* ‘zozoago’ (Amo)

Aldiz, silaben egitura luzeagoan gorderik dakusagu *ago* hurranen adibidean: *beraxagoño* (Arbe).

Oztibarren ere gertakari bera dugu: *aphaloo*, *eztioo*, *gihiloo*, *haundiooak* (Jut); osoki soildurik ere entzun daiteke: *arduro* ‘ardurago’ (Ibarro); *egon* aditzaren trinkoetako asimilazioa ez da atzo goizekoa, 1782ko *Alphonsa Rodriguez* itzulpenean ere ageri da: *noon*, *doola*, *zoola*; egungo adibideak dira *doon* ‘dagoen’ (Jut), *nindoolaik* ‘nengoenean’ (Larz), *zoon* ‘zegoen’ (Jut).

Bokal artean kontsonante igurzaria galdu ondotik gelditzen den hiato edo diptongoan bokal aldaketa berriak gerta daitezke Amiküzen: *hilaitean* (Amo) & *ilaite* (Dom). Bithiriñakoa da ttap falta duen *gioztik* ‘geroztik’ ere. Ez da kasu bera Bithiriñako *ihortzi* ‘ehortzi’, ez da hor ttap kontsonanterik galdu.

EDEL-k ere badakartza era honetako etsenpluak: *ilaite* (Gar); baita ttap galdurik duen *etxiat* ‘etxerat’ (Arbo) ere.

Adibidean kontsonante galerarik gertatu ez baldin bada ere, adieraz deza-gun Amorotzen *herrikoikilan* ‘herrikoekilan’ adibidea bildu dugula.

Arestian aurkeztu dugun galera giro orokor horrek ez du adierazten igurzaria beti-beti galtzen denik eta aldaera gabea guztiz lexikalizatu denik, ez, joera handia du galtzeko, baina franko adibidetan badirau; kontsonante igurzari bakoitzaren arabera dakargu aurkezpena:

abar ‘adarrak’ (Arbo), *abe* ‘hegaztia’ (Gab), *abiatü* (Laph) & *abiatia* (Behau) & *arraabiatü* (Lab) & *abiatzen* (Ame), *ebatsi* (Ora) & *ebaska* (Arbe) & *ebastea* (Ame), *ibili* (Arrü, Lab) & *ibiltzen* (Behau, Arbe), *lobiroan* (Lük), *oseba* (Gab, Ame / Dom), *sobera* (Arbe)

adina (Zoho), *arrado* ‘ezohikoa’ (Arbo) & *aRado* (Laph), *artebidia* (Sor), *brodatzen* (Lük / Olh), *edalea* (Ame, Arbe) & *edalia* (Ora), *edan* (Ora, Arbe), *ederretan* (Arbe) & *ederrena* (Ilh), *hedatia* (Barta), *idiak* (Ilh), *idok* (Donap), *idor* (Ost), *lodi* (Zoho), *odolain* (Behau), *primadera* (Amo, Uha, Ilh), *udalatu* (Ora) & *üdalen* (Ilh / Olh)

ageri (Zoho), *agian* (Donap, Zoho), *begistatzen* (Ame), *biga* ‘bi’ (Uha, Arbe), *butiga* (Lab, Zoho, Arbe), *egoitia* (Zoho), *egosi* (Zoha), *egüerdi* (Arbe), *egun* latineko ‘hodie’ (Uha), *egürra* (Arbe), *enegü* (Donap) & *enegüik* (Ame), *hagan* (Donap), *haragi* (Ilh), *hirügerrena* (Zoho), *hoge* (Ilh), *igaiten* ‘igaraiten, iragaten’ (Uha), *igerikaz* (Arbe), *igitzen* ‘higitzen, mugitzen’ (Behau), *iguzkiaindako* (Behau), *izigarri* (Ame), *jauregi* (Zoho), *neguko* (Uha) & *negian* (Arbe), *ogi* (Behau, Sor), *sugiak* ‘sugeak’ (Ilh)

7.3.1.4.7.3. -n-ren laburdura etorkizuneko aditzetan

Aditz nagusian etorkizuna adieraztean bokal arteko *n* galtzen da Baxenabarren eta Nafarroa Garaiko hainbat eskualdetan; cf. 5.3.2.1. §. Arberoako ondoko etsenpluok dira lekuko:

emain, *errain dute*, *hatzemain duzu*, *izain niz* (Meh); *izain tzen*, *ukhain* (Arm)

Haatik, ez dugu adierazi nahi Arberoan adibide -n-dunik ez denik:

erranen, *joanen* (Arm) / *ukhanen* (Meh)

Oztibarren ere gertatzen da:

etzi belharrik jain e (Ibarre), *jien* ‘jinen’ (Larz), *eniz joain* (Jut)

Nafarroa Garaian XVII. mende hasierako Beriainen lanean ez da galerarik ageri, baina 1729ko predikuan badira galera adibideak. Aipagarri da bilakabi-deak Euskal Herrian dituen saihetsetan ez dela galera ageri; *egongo*, *emango*, *izango* erakoak egiten dira erdialdeko euskaran eta honen ondoko Bortzirietan, aldiz, *egonen*, *emanen*, *izanen*, *n* galdu ez duten aldaerak; saihetsean den Zuberorren ere, oro har, ez da bokal arteko *n* hori galtzen, edo joera ez da Baxenabarren bezain nabarmena. Larrasketek adibide guztiak bokal arteko *n* dutelarik dakartza Zuberorren hego-ekialdean (1939): *egonen*, *emanen*, *erranen*, *igañen*, *igaranen*, *izánen*... Jeruntzeko euskaran, errate batera, horrela da: *emanen deie* (Etxego-

rri 2003: 264), *jinen*, *erranen*, *atzamanen*, *edienen* (266), *ikhenen* (267), *junen* (275), *jakinen* (276). Guk Sarrikotapean *erranen* bildu dugu. Arbailan, lekuko urdiñarbetar batek *-anen* eta *-aen* erako bukaerak eman dizkigu; *-aen* errateko aukeraz galdegitean, garbi adierazi du horiek ere baliatzen direla: *edaen*, *emaen*, [3] *ien* erakoak ere baliatzen dituzte. Coyosek Arbailan [3] *inen* nahiz [3] *ien*, bi aukerak dakartza (1999: 220).

Baxenabarre edo Amiküze ondoan, Zuberoako ipar-mendebalean galera ageri da:

^h*atzamain* (Sarkp) & *atzemain* (Loh), *errain* (Olh, Pag), *iain* ‘iraganen’ (Olh), *izain* (Arüe, Loh, Olh)

Amiküzen aise entzuten dira era honetako laburdurak aditz nagusietan; eman ditzagun adibide erakusgarri zenbait beren perpausetan:

zureak etzu besteneat joain eta besteak e etzu zureat jî'n (Uha)
egün ezteat emain biharko ezpeita izain (Lük)
bethi beha noiz jein tzen eguerdi etxeat juiteko (Arbe)

Hona orain adibide gehiago beren forma hutsean:

egoin (Amo)
emain (Ora, Uha, Lab)
iain ‘janen’ (Uha)
izain (Bith, Laph) & *izein* (Uha)
jakiin ‘jakinen’ (Ora)

jien (Bardo / Ora, Ilh / Dom, Olh, Oih); ikus, ordea, Amiküzen metatesia duen *jein* aldaera dela nagusi: (Arm / Ora, Sar, Behau, Ost, Lab, Ilh, Ame, Gam, Arbo, Arbe / Dom, Pag); Arberoan *jiin* aldaera erabiltzen da, XIX. mendeko Donamartiriko katiximak dakar eta Hazparnekoak ere bai; Amiküzen saihetsetan baizik ez da ageri *jiin*, Hazparne urrun ez duen Oragarreko Barta auzoan eta aita-amak arberoarrak zituen Behauzeiko lekukoaren ahoan; Uhar-tehirin ere *jiin* bildu dugu, baina ez dugu aldaera hau Oztibarreko Videgainen emaitzetan aurkitu: *jien* (Larz, Bun) eta *jinen* (Jut, Ibarre) ageri dira

joain (Bith, Lab) & *juain* (Zoho, Arbe, Laph)
ukhain (Bith, Ilh)

Ikus ingurune honetan sor daitezkeen metatesien berri 7.3.3.4.1.4. §-n.

Halaz ere, galerarik gabeko adibide bakan batzuk agertu zaizkigu guri Amiküzen, baina ez dakigu noraino diren bertako mintzoarekiko leialak, erregistro jantziaren eragina diren, ala nola den: *erranen* (Ora, Laph), *ukhanen* (Ora).

7.3.1.4.8. Kontsonante zenbaiten txandaketak

7.3.1.4.8.1. Adibide batzuetan kontsonante igurzkarien izaera aldatuxe ageri da bokal arteko kokagunean: Gamuen adibide batean *egosten* entzuten dugu ‘erosten’, baina *erosteko* aldaera ere agertu zaigu elkarrizketa berean; Olhaibiko elkarrizketan errepikatu zaigu, *egosten* ‘erosten’ ahoskatu du lekukoak; gainera- teko herrietan *eros* entzun dugu garbiki (Arm / Behau, Uha, Arbe).

7.3.1.4.8.2. Ostankoan eta Bithiriñan *iduikatu* ‘igurikatu = zain egon’ ageri zaigu; hartara, Amortzeko *iukatu* aldaeraren gibelean, *g ez, d* egon liteke.

7.3.1.4.8.3. Amortzeko elkarrizketako hitz batean *ibilia* eta *igilia* arteko igurzkaria entzuten dugu. Berebat, Oragarren *zugia* eta *zubia*, bi aldaerak darabiltza berriemaile batek; alta, Ostankoan *zubira* entzun dugu. Arrüetan *habooxeak* eta *ha^gooxiak*, aski denbora aldi laburrean bi emaitzak entzun ditugu. Bardozeke katiximan *prauge* aldaera ageri da (Pagola, Iribar & Iribar 1999a: 297, 304).

7.3.1.4.8.4. Amortzen bokal artean biezpainsari igurzkariaren ordain hasperena agertu zaigu:

beti Radio Irulegi ta... ha ‘ba = bai’, ha, ta hau, au asten duk seiak eta hoeietan edo, asten duk radiua

Baita Arberatzen ere:

ba, ba, ba, urdia iltzen (sic) gintzin ba bethi, [gitak] bhaa gitak e⁸⁸

7.3.1.4.8.5. Arrüetan hiru kasutan gertatu zaigu jatorriz *r* beharko lukeen kokagunean *h* entzutea:

bortizkeriahik, oheingo, zapatzeha

7.3.1.4.9. Kontsonante taldeak

Euskarazko kontsonanteen taldeak zein diren eta haietan zein eratako aldaketak gerta daitezkeen jakiteko, ikus Mitxelena (1977: 343-69). Kontsonanteen artean badira naturalenak edo ohikoenak diren soiltzeak: bestalde, aintzat hartzekoa da kontsonante taldea hitzaren barrenean, hitzaren bukaeran ala morfemen mугan gertatzen den, kokaguneak zerikusia baitu soiltzea gertatzeko ala ez gertatzeko. Bestalde, kontsonante talde hori eta haren balizko soiltzea para-

88 Lekukoaren alabak gitez [ahateez] galdeginik, baiezko erantzunean *b* hasperendua eman du lekukoak; cf. Coyosek Zuberoako Arbailan entzun duen *bhai* hanpatua (1999: 62).

digma batean kokaturik izatearen ondorioz zein analogia mota gerta daitezkeen jakiteko, *Optimality Theory* delakoa ezagutzera jo daiteke; cf. C. Pons-Moll (2012), J. J. McCarthy-ren “Optimal paradigms” (2005 [2001])-en oinarriturik.

Ikus dezagun orain zer aurkitu dugun Amiküzeko euskarari:

7.3.1.4.9.1. Euskal Herriko ekialdean hitz batzuetan *-rz-* eta *-rs-* kontsonante taldeek afrikatu gabe dira. Zuberoan eta Erronkarin (*h*)*ersi* ‘hertsia’ dago, baina Zaraitzun *erts*i. Eguzkialdekoak eta afrikatu gabeak dira honakoak ere:

harza(r)a ‘berriz’ —Erronkarin *arza*, *astra* eta baita *artsa* afrikatua ere —, *urzo* & *ürxo* ‘usoa’, *erxe* & *erze* ‘esteak’

Bestalde, Bidankozen eta Zaraitzun *berze* eta *berzala* ‘bestela’ aldaerak ditugu eta Uztarrozen, Bidankozen eta Zaraitzun, *borz*; Erronkariko Uztarroze-koak dira *orzegun* eta *orzilare* ere.

Amiküzén ere gertatzen da bikoiztasuna: *urzo* entzun dugu Arbotin eta Laphizketan eta *urzaka* Ostankotan, baina Martxüetan *hanbeste urtzo* eta Amendüzen eta Arbotin *urtzoka*; EHHA-k *urzo* dakar Garrüze eta Arrüetan eta baita Aturrialdeko Bardozen ere. Xiberoako Ithorrotze eta Lohitzüenen ere *urzo* bildu dugu eta EHHA-n ageri denez, zuberotarrek *ürzo* erraten dute nagusiki.⁸⁹

Bestalde, badira *erorzen*, *ezarzen* ‘ezartzen’ & *zarzen*, *sagarze* ‘sagartzea, sagarrondo’ eta *sorzez* ‘sortzez’ aldaerak ere, bostak igurzkariak Sorhapiürün, eta izen berezian ere bai: *Soiharzala juiteko* (Sor); cf. *sorzez* (Oih).

Erabiltzen da *zortzi* aldaera Amiküzén (Sar, Uha), baina *zorzi* ere usu entzuten da (Ost, Arrü, Zoha, Zoho, Sor, Laph / Dom, Olh).

Honezaz landa *-tarziin* atzizki aldaera entzun dugu Amiküzeko ekialdeko herri zenbaitetan:

berotarziinain (Laph), *eitarziin* & *eritarziin* & *eritarsiin* (Arbe), *fier-tarziina* (Laph), *idortarziinari* (Laph), *jabetarziina* (Laph), *ontarsüna* (Zoho)

Zuberoa alderat ere berdin:

eitarziina (Oih, Pag) & *eitarziinak* (Sarkp), *gue gaztetarziina* (Ündü), *goxotarziina* (Etx)

⁸⁹ Baxenabarren *urzo* dago Oztibarreko Jutsin eta Garaziko Ezterenzubín, baina bestela, afrikatua entzuten da Pagolan, Domintxainen, mendebaleko Baxenabarren, Oztibarren eta Garazin; aldiz, *uso* erraten dute Baigorrialdean.

Dena den, badira beste erako adibideak ere: *zirtzil* (Zoho).

Berebat, afrikatu gabeko “rx” eta “nx” sekuentziak — itxura zaharra dutenak — aurkitu ditugu Amiküzen; saihetseko Laphizketan are “rs” ere: *hersi* ‘hertsia’. Kasu batzuk mailegu dira: *borxaz* (Barta, Arbo, Sor), *marxa* (Zoho) & *marxatiko* (Zoho) & *marxaazteko* (Sor); cf. *marxo* ere: (Barta, Ost, Arrü, Gar, Laph, Sor / Dom, Ber, Pag), baina *martxo* entzun dugu Uhartehirin eta EHHA-k dakarrenez *martxo* ibiltzen da Arbotin, Zuberoa guztian, Oztibarren eta Garaziko nahiz Baigorriko eskualde gehienez. Ordea, beste etsenplu batzuk euskal hitzetan ageri zaizkigu: *heenxe* (Zoho), *horxe* (Ame, Zoho, Laph / Oih) & *horxetan* (Sor, Laph) & ^h*orxetan* (Behau), *hanxe* (Zoho) — baina baita Zohotako lekuko berak *hantxe* ere —.

Dena den, ezin erran daiteke Amiküzen sail afrikaturik ez dagoenik: Behaizen ^h*orxetan* eman duen lekuko berak *hortxetaat* eman digu. Berebat, *nx* eta *rx* sekuentziak ahoskatu dituen lekuko zohotar berak *hantxe* aldaera eman du, afrikaturik; cf. *hantxe* ere (Arrü); afrikaturik daude *heentxe* eta *hortxe* adibideak Amiküzeko Amendüzen ere. Afrikaturik ematen dira hauek Arberoako Mehainen ere: *hortxe* & *hortxet*, *hantxet*. Bestalde, Zokotzen *bortxas* entzun dugu.

7.3.1.4.9.2. Ezaguna da Zuberoarekin batean Baxenabarreko ekialdea dela Ipar Euskal Herrian *st* taldea gehien ibiltzen dena eta Amiküzeko eskualdea osoki atxikia da jokabide honi; badakigu mendebalerat *rtz* taldea agertzen hasiko zaigula, bereziki Lapurdi aldean, baina Bidarrain *st* nahiz *rtz*, bi taldeak entzun daitezke, Hazparne alde horretan bezala; Garazi eskualdearen hegoaldean ere bi taldeak entzuten dira eta Baigorri alderdian *rtz* nagusi dabil, nahiz *st* taldea ere entzuten den.

Amiküzen Behaizen baizik ez dugu *rtz* taldea entzun, baina *st*-rekin batean. Lekukoak duen joera zenbait dirudi, aita-amak arberoarrak baitzituen eta beharbada elizan entzun erak dirateke iturria edo bikainagotzat jotzen dituenak ere; hona zein aldaera eman zituen elkarrizketan:

bertze & berze, borz, hamoortz, ortzeun / beste & bestenez, bost, ostiale

Uhartehirin adibide batean *hek barrea ta gio bestze itzulaldi at* entzun dugu, baina mintzaldian bestela *beste* ageri da aldi oro.

7.3.1.4.9.3. “Ozena + herskaria” kontsonante taldean lekuzko aditzondoetan kasu atzizkiko kontsonante herskari ahoskabea ahostundu gabe dago Arberoan ere: *hantik, nuntiknahi* (Meh); Armendaritzekoa da *hementik*. Gramatikako sail horretako formez landa, kontsonante talde honetan ahostuna egiten da Arberoan.

Amiküzen ere lekuzko aditzondoetan *nt* taldea dugu:

hementik (Ora, Behau, Mar, Lab) & *heentik* (Bith, Uha, Gam / Olh, Artie, Sarkp, Pag) & *hentik* (Arru / Sarkp, Pag) & *ehentik* (Lab) & *hebentik* (Sarkp, Ainh, Ündü)

hantik (Ora, Amo, Behau, Bith, Gam, Donap, Zoho, Sor / Dom, Olh, Loh, Artie, Sarkp, Ainh, Urd)

nontik (Uha) & *nuntik* (Ilh, Lab / Olh, Sarkp)

Oztibarren ere ahostundu gabeko *nt* ageri da:

heentik (Jut, Larz, Ibarro) & *hementik* (Jut)

hantik (Arh, Bun, Ibarre, Ibarro, Izu, Larz)

nuntik (Jut, Larz, Ibarre, Hoz)

Hitz zenbaitetan herskari ahoskabea ager liteke Amiküzen, baina inolaz ere, ahoskabea ez da joera orokorra ibarrean: *ezkonthü* (Mar); bestelakoa da *ezkunt eta* (Zoho) kasua; cf. *kondatzen* ‘zenbatzen’ (Behau) & *khündatü* ‘kon-tatu, adierazi’ (Donap).

Hedadura handikoak dira *hantu* eta *huntu* & *hüntü* aditzak:

zolak denak arraiteko dira... urak hantiak dira (Ora); *gaztaña huntia zelaik [z]afrazten tzitzien* (Gab); *gure ogiak eta хүntü zuelaik behar zien bildu* (Sor); *ogia huntu* (Sor)⁹⁰

Donapaleun *mainkhü* entzun dugu.

Berezia da Olhaibin entzun dugun *hanko neskatoekin*, egun bederen Zube-roako erabilerari osoki dagokiona eta *zankhoekin* ere entzun dugu Olhaibin; Ariën ere ber erabilera dute *heenkuk* ‘hemengoak’ erako adibideetan. Ezaugarri honetan Amiküzeko ohiturari ez, Xiberoakoari atxikitzen zaizkio bi herriotako egungo euskaldunak.

Gaineratekoan, lexiko arruntean ozenaren ondoko herskaria ahostuna da Amiküzen:

abendü (Barta, Amo, Behau, Sor / Dom, Pag); nolana ere den Pago-lako hiztunak *abentia abent...* egin du

atsalde (Arm, Meh / Amo, Zok, Behau, Bith, Uha, Arrü, Lab, Gab, Ilh, Ame, Gam, Zoha, Donap, Arbo, Sor / Etx, Olh, Artie, Sarkp, Oih, Ainh, Pag)

90 Bardozen ere *ontu* dakar EHHA atlasak.

etxalde (Behau / Itho, Sarkp, Pag); cf. *etxalte* (Sarkp, Ündü, Oih); Sarri-kotapeko hiztun berak *etxalde* / *etxaltia* & *etxaltik* eman ditu

galdein (Arm, Meh / Ora, Amo, Bith, Uha, Mar, Lab, Arbe, Sor / Olh, Arüe, Sarkp, Pag) & *galdea egin* (Sar) & *galde zakozü* (Arüe)

heldu (Arm, Meh / Barta, Ora, Sar, Behau, Bith, Ost, Uha) & *heldü* (Zok, Arrü, Lab, Gab, Ilh, Mar, Lük, Ame, Gam, Zoha, Donap, Arbo, Zoho, Arbe, Sor / Olh, Loh, Arüe, Sarkp, Oih, Ainh, Pag) / *heldü* (Sarkp, Ainh, Urd); Olhaibin *heltia* entzun dugu eta Pagolan *heltübada*

jende (Arm, Meh / Barta, Ora, Amo, Zok, Sar, Behau, Bith, Ost, Uha, Arrü, Mar, Lab, Gab, Ame, Gam, Zoha, Donap, Zoho, Arbe, Sor / Dom, Olh, Arüe) & *iende* (Arm, Meh / Behau, Ost, Gam, Donap, Zoho / Arüe, Sarkp) / *jente* (Arüe, Oih) & [3]*jente* (Arüe, Sarkp, Oih, Ainh, Pag, Urd)

zango (Arm, Meh / Barta, Ora, Bith, Uha, Ame, Donap, Zoho, Arbe / Pag) / *zankho* (Olh, Oih)

Egiazki Zuberoako saihetseraino iristen dira era honetako herskari ahos-tunduak; Olhaibin *iande* ‘igande’ eta *haendako* bildu ditugu eta Etxarrikoak dira *iandian* eta *alde* adibideak ere; zernahi ere den, *iante* ‘igande’ ere bildu dugu Etxarrin.

Arberatzen *Jingoak nahi badiü* entzun dugu; ez dakigu 1782ko *Pratica* itzulpenean ageri den errealitatearekin loturarik ba ote duen; liburu horretan bost aldiz ageri da *Jingo* eta *Jinko*, berriz, 1095 aldiz.

Bestalde Ostankoan *estalgia* entzun dugu.

Berrizaturik, Zuberoan eta Erronkarin ditugu *lt*, *nt*, *nk* eta *lk* kontsonante talde ez ahostunak; eman dezagun, Zuberoako *philta* ‘pilda, zarpaila, piltzarra, jantzi zaharrak’.

Ainharben entzun ditugun adibideek ere ezagun dute:

althae ‘aldarea’, *altin* ‘aldean’, *heltü*, *igant’ooz* ‘igande oroz’, *xã^hälentako* ‘xahalentzat’, [3]*jentiak* ‘jendeak’

7.3.1.4.9.4. Hitz bukaerako kontsonante ozenaren ondoko hitzaren lehen kontsonantea txistukaria denean, are bi lexemaren mugan, afrikazioa gertatzen da, sekuentzia osagai foniko bakarra balitz legez:

gizon txahar bat / *eiheazain txahar bat* / *debalüatu zen tsosa* (Ora)
misionesten tzero ‘misionesten zera’ / *haurrak eldu zitzun ta gizunain peko behar tzin gelditu hain tsosaekilan* ‘haren sosarekilan’ (Amo)
goizean tsei oonetan hasiik, argi zirrintian (Behau)
eta hain tsenarra bizi uzu beste emazte heekin (Ost)

ezpazien tsobera akitiak / eskalapuin tzolan (Bith)
hain tsemia 'haren semea' (Uha)
iakoitz tseindü (Arrü)
eona bitzen txerbitxian 'baitzen zerbitzuan' / ehiin tzakü 'ehun zaku' /
atsean berean txüi 'arratsean berean xuritu' (Gam)
ederrak b^eitzitien tsos amiña at iten tz'in / irin txüria / kusiain tsemeak
/ tzitzün txekha (Arbe)
han tsartüz gioz (Laph)

Baita bigarren atalean leku izen berezia dagoenean ere: *joan 'Zokotzurat* (Amo).

7.3.1.4.9.5. Kasu berezi batean ez da ozenaren ondoko txistukariaren afrikazioa gertatzen: *jakin* aditzak agintezko aditz laguntzailea ondoan duenean, hain zuzen ere. Hona Amiküzen bildu ditugun etsenpluak:

jaki'zazu (Behau) jaki'zazü (Donap) jaki'zak (Zoho)

7.3.1.4.9.6. Afrikazioa gertatzen da hitz hasierako txistukari igurzkariaren ezkerrean kokatzen den hitz bukaerako kontsonantea herskari belarra denean; herskaria ez galdurik ere afrikazioa gertatzen da eta beraz, nekez pentsa liteke *kz* → *zz* asimilazioa eta ondotik *zz* → *tz* afrikazioa gertatu denik:

jinak tzien / ohoinak tziela (Ora)
borthitzak tzitzun ordian (Bith)
etxe hartan izan gintzun berrien galdeiten eta hek tzaldia zutela, umiak
jinak 'zuztela, ta ernari zela (Uha)
beharko tzie lürrak tsaldü / hak tsaldüik / gizonak txarmantak (Gam)
anoik tsekülan (Arbe)

Bestela herskaria ahul entzuten da:

zer ttipioua^k tzitzun (Amo)

Hurranen adibideetan ere bada afrikazioa, baina fusioan ez da herskari belarrak ageri:

aita'tsei ilaite (Mar)
dena laboraria'tzien (Dom)

Hurranen hiru adibideetan horzkaria da ezkerreko herskaria:

jaun bat tzun (Bith)

amiña at bezpean beant 'sartiak beharba (Ost)

laket tzaukun heer beha egoitea, heen Alqmaniako ta ixtoriuak khundatzen beitzauzkuten (Sor)

Honako etsenpluan konplexuagoa da gertatu den fusioa:

botsei 'bost sei' (Sor)

Oztibarren ere afrikazioak gertatu dira bigarren osagaia txistukaria duten sandhietan:

-t + z- > -tz- —nor zitut tzu?— (Ibarro)

-n + s- > -nts- —han tsegituz (Hoz)

Baita *-k + z- > -tz-* eta *-n + x- > -ntx-* sekuentzietan ere.

7.3.1.4.9.7. Bi herskari elkartzen direnean fusioa gerta daiteke; Amoroztzeko adibide honetan ezkerreko *k* galdu da eta ondoko herskaria tinkatu:

uai eztituk dena pehexten e

Amoroztzeko honako beste adibidean, berriz, biek diraute, baina bigarren herskaria tinkatu da:

handitiak pituzte 'handituak baitituzte'

7.3.1.4.9.8. Fusioa gerta daiteke *n + b* kontsonante taldean eta Amiküzen usu entzuten da; hona adibidexko batzuk:

balimada 'balin bada' (Zoho), demora 'denbora' (Ora, Behau, Arrü, Mar) & demoa (Ame, Arbo), hameste 'hainbeste' (Ora, Amo, Zok, Sar, Arrü, Gab, Gam, Arbe, Laph / Dom, Artie, Pag) & ^hameste (Arbe), numait (Arrü), pusatzen m^eitziuten (Arrü), zemat 'zenbat' (Ora), zemait 'zenbait' (Ora, Uha)

Baina ez da beti-beti gertatzen: *denboran* (Ora), *hanbeste* (Zoho).

7.3.1.4.9.9. Adizlagunetan *-rk-* > *-rg-* berrikuntza fonikoak hedadura arras handia du Baxenabarren eta Aturrialdeko Bardozen ere badakar EHHA-k; Arbe-roan arrunta da *orgo* 'horko' aldaera eta Amiküzeraino iristen da: Arbotikoa da *orgoa* adibidea, Uhartehirikoa *horgo* eta ^h*orgo* dakar Labetzeko lekukoak: *zumai-tek erten die Peio dela ^horgo nausia*. Zuberoko ipar-mendebaleko Olhaibikoa da *horgua* ere, baina bada *horko* ere Olhaibin, bi erak entzun ditugu elkarrizketa luzean; EHHA-k Domintxainen dakar ere. Ezaugarria ez da Baxenabarren soilik berriztatu, ondoko Aezkoan ere badira honelako adibideak: Garaioan *gorgo* 'horko' bildu genuen eta Hiriberrin *Santandergo*; Sakanan ere bada ezaugarri

hau eta Garaziko Ezterenzubin, Esteribarko Iragin edo Erroibarko Mezkitzen ere *orgo* entzun dugu. Oztibarren ere *-r + -ko > -rgo* sekuentzian herskari ahos-tuna ageri da *horgo* ‘horko’ izenlagunean (Jut, Lan, Larz).

Ipar Euskal Herriko alderdi batzuetan gertatu dira *hortik > hordik* erako bilakabideak; errate batera, Nafarroa Garaiko Aezkoan *gordik* ibiltzen da.

Amiküzen ez dugu honelakorik sumatu, nahiz Zohotan *aurdiki* ‘jaurtiki’ bildu dugun; *EHHA*-k dakarrenez baita Bardoze, Domintxaine eta Landibarren ere, baina Larzabalen *aurthikitzen*.

Bardozen “artio”-ren aldaera den *ordu ardio* ageri da, baina baita *artino* ere, biak *EHHA* bilduman.

7.3.1.4.9.10. Bestalde, *hark* erakuslean *-rk > -k* soiltzea gertatu da Arberoan *hak* adibidean, eta ezaugarriak eskuin jarraitzen du; Amiküzen aldaera arrunta da hau (Ora, Amo, Behau, Bith, Ost, Uha, Mar, Lab, Ilh, Gam, Donap, Arbo, Zoho, Arbe). Zuberoa ipar-mendebaleko Olhaibin eta Artien ere *hak* bildu dugu.

Oztibarren ere *rk* taldean *hak* ‘hark’ (Jut, Lan, Larz), *nehok* ‘nehork’ (Larz) edo *nok* ‘nork’ (Lan, Larz, Ibarro) soiltzea ageri da, baina oinarrizko taldea ez da guztiz soildu: *nehork* adibidea ageri da Jutsin.

7.3.1.4.9.11. Ezaguna da *ez + gi-* erako sandhietan txistukaria gal daiteke-ela; guk XX. mendearen bukaeran honelakoak bildu genituen Nafarroa Garaiko Aezkoan, zehazki Hiriberrin: *eindue* “ez gindue”, *eira juntatzen* “ez gira juntatzen”. *EHHA*-k *egindin* ‘ez genuen’ bildu du Bardozen. Amiküzen bilduak ditugu honako adibide hauek guztiak:

- han eintzun* ‘ez ginen’ *gehiau artzen ahal* (Ora)
- einikek* ‘ez genikek’ / *eta le^heneko zera itzuli na^hi ez alare uai / eituk* ‘ez gaituk’ *bate hortako... bate julle bate* (Amo)
- eintzin* ‘ez genuen’ *zuketan* (Uha)
- eindian onartzen* (Ilh)
- eintziin bederazka juiten & eintzin haRemanik* (Gab)
- egira plataikin juiten gü haat* (Ame)
- bena eitzü gosiak il e!* (Gam)
- eintziin* ‘ez ginen’ *zuketan* (Gam)
- eituk* ‘ez gaituk’ (Zoho)
- eindikan pilotaik* (Zoho)
- lübürüik einiela geiho hartuko* (Laph)

Hurranen adibideetan ez da *g* galdu:

eginen gioletik, e (Behau)
eginialakoan beharrik (Uha)
egintzün jelgitzen (Gab)
gü egitzü jarrikitzen geio (Gam)
e^ginian tseroraik ez (Zoha)
egintzin leitzia maite (Zoha)
egintzin gizunak edaliak ez deu[^z]ik (Zoha)
egindakian horiek oro (Zoho)

Aditzean *ez* + *d*- lotzean ere gerta daiteke, baina ez da arestiko soilteza bezainbat gertatzen edo guk bederen ez dugu hein berean entzun:

sosa behar balimauk iukatu, sosa biltzea, euk ‘ez duk’ sekula eosiko
(Amo)

Eta badira, bestalde, kontsonante elkarte euskaraz estandarrago direnak ere:

ezkinien traturrik eosi (Ora)
ezkinakiila (Behau)

7.3.2. Izenaren morfologia

7.3.2.1. Determinazioa

7.3.2.1.1. Mugatzailerik gabeko izen sintagmak

Euskal Herriko ekialdean izen sintagmak mugagabeen artikulurik gabe jokatzea gauza arrunta da.⁹¹ Ezaugarri honetan euskara zaharraren gordailu gertatu dira Zuberoa, Erronkari, Zaraitzu, Ipar Euskal Herriko bazter zenbaitetako mintzoak eta hein batez baita Aezkoa ere.

Zuberoako beste hainbat lekutan bezala, Arbailan *ógia badít* eta *ógi badít* ederki bereizten dira, *har ezazü ogia* eta *har ezazü ogi* perpausetan bezala (Coyos 1999: 117, 119): lehen kasuetako ogi mugatu hori determinatua da, baina bigarren mugagabea ez. Galdetzean ere berdin: *ógi badéa?* (204); galdera orokorra da, generikoa, ogirik baden galdetzen da, ez ea ogi jakin hau edo hura ba ote den.

91 Diakroniaren ikuspuntutik egoki aztertu ditu sintagma biluzi hauek Julen Manterolak (2012); izen zenbakaitzek eta plural biluziek beste hizkuntza batzuetan duten jokabidea ekialdeko euskal mintzoetan gertatzen denarekin alderatu du. Ikus gaiaz Ekaitz Santaziliaren lan interesgarria ere (2010).

Mugatzailerik gabeko sintagmak izaera generikoa duten gaien edo zerbaiten existentziaren adierazle dira semantikoki, determinazio bakan ageri dute, erreferentzialtasunaren estatusa zehaztugabea da. Bestalde, izen zenbakarri biluzi edo mugatzailerik gabeak plural gisa interpreta daitezke irakurketa ez espezifikoa, kopuruarekiko axolagabe, diskurtsoan kopuruaren zehaztasuna adierazgarri ez denean; cf. Manterola (2012: 84-91).

Izaera generikoaren adibideak ausarki bil daitezke Zuberoako egungo euskararen. Ligiko Allande Elixagaraik emanak dira hurranen biak:

gühaurentako beharrago ginikezü oillasko (1986: 80)

bihar biak ju(a)nen gütiük alkharreki(n) beitatik nun baden epher (173)

Hona beste etsenplu bat Zuberoako Gamerekoa (Otsibar 2003: 37):

Nahi düka hik ezne?

Arbailakoa da hurrengo adibide hau (Coyos 1999: 232):

bortüan ikusi dit behi, ardi eta mando

Baxenabarreko mintzoetan mugatzailerik ez erabiltze hau ez da hein berekoa, ez da Zuberoan bezainbatekoa, baina ez da adibiderik falta. Amiküze alderdiko 1740 garaitsuko testu zaharrear, izaera generikoa adierazten du hurranen adibideak:

eta hantic jalgui cen odol eta hur (34)

Arbotin bildu da izaera generikoa duen beste kasu hau:

phantzartez gaztek biltzen zizien tripot (EHHA)

Biluzirik doana subjektua izan daiteke, Zuberoako adibide hau lekuko (Otsibar 2003: 84):

Lamiñazilooa deitiü zilo batetarik hur bero eta hur gazi elkitzen da

Amiküzen ere bada kideko etsenplu sorta bat:

errana den bezala negian denbora xar bauzu biziki (Uha)

Bardoze, deia, an bauk biarnes biziki (Zoho)

Aditz iragankorraren osagarri kokagunean dagoen izena ere biluzirik ager daiteke, Zaraitzuko Espartzan 1982an bildu genuen perpaus honetan bezala:

solo etse batean saltzen zen ardo

Amiküze eskualdeko 1740 inguruko katiximan ere badira determinatu gabeko sintagmen adibideak osagarri zuzenaren kokagunean:

galdeguiten dauçugu barcamendu (127)

bercela becatu haundi eguiten dute (122)

oferitu çacoten urhe (29)

Atributua ere biluzirik joan daiteke, urdiñarbetar batengandik bildu adibide hau lekuko:

etxen etzia bidia hun, ordin bizikleta besapin eamaiten

Arberoako Mehaineko etsenplu hau iduria da:

herriak haundiao bitzien han

Amiküzen atribuzio adibide ugari bildu ditugu adjektibo biluziak, mugatzailerik gabeak, dituztenak:

denak ohoinak tziela ta lanjeos zela haat juitia (Ora)

nihur ez biltzen eta han aldiz, ono haurrak, gaztiak, eta, denek seitzen, eder zu hori, e, horren ikhustia (Ora)

bon, hun eta gaixto re bazela, ezp^eitzinden anixko gauza... zeit kontseillu nahi bal... izan baliz bezala galdein e, ezpitzinden ausartatzen aitari ez amari galdeitea (Amo)

arrunt difeent duk ba orai (Amo)

xixteraiкин ta pilota partidak pollit tzu, egiazko partida hun iten delaik (Uha)

enfin, bo, biziki lüze tuk ixtori^oak (Zoho)

korphutzaindako hun tzi (Arbe)

Beste kasu batzuetan ugaritasuna adierazten dute mugatzailerik gabe biluzirik doazen izenek, halako hanpadura daramate beren baitan. Lafittek bere gramatikan *aurthen bada udare* adibidea dakar (1979: 75). Iduria da Mehainen bildu dugun etsenplu hau: *bazen ordian aphez!*

Amiküzen ugaritasuna adierazten duen hainbat perpaus bildu dugu:

hamabi urthetan hasi nuk ferratzen, bazian behi, idi, zaldi (Behau)

o! bazen lan ba e^sun ortan (Behau)

ordian bazen lan (Uha)

a, Garruzeko feira, hortalat juiten da ba ono jende, hori ezta galtzen ari (Lab)

ta bierren egüinean kabaliak, biltzen da jende bai, jende, geo, saltzen düitea? hori, hori ez takit, na jende, jende zernahi biltzen da hor (Lab)

Zuberoan ere honela da, Ündüreinen bildu dugun etsenplu hau lekuko:

ordin, bazüün bai haur, eskolan e bagüntütüün...

Epeldek Lapurdiko Larresoron *bada lan, e!* perpausa bildu du (2003: 216), beharbada lekukoak ugaritasunaren adieran emana.

Aturrialdeko Bardozen ere era bereko etsenplu hau bildu zuen *EHHA* bildumak:

bazen ordin aphez

Beste zenbait erabileratan mugatzailerik gabeko sintagmek ez dute baitezpada ugaritasuna adierazten. Errate batera, atzizki lokatiboa mugatzailerik gabe ageri da, Errokariko Mariano Mendigatxaren etsenplu hau lekuko (Estornés Lasa 1984: 84):

ez dakid zer erritako zren

Arberoan ere badira adibideak:

gure ama Bithiinako zen eta gure aita zena Iholdiko zen (Meh)
Uztaritzeko zen (Arm)

Hurranen etsenpluak Amiküzen bildu ditugu:

Uharteko bi gizon, hek mozkortzen tztzun nuiznahi, bena heldu zitzun bethi amari, gue ama bea Larri(b)arreko bitzen eta hek Uharteko ta berrien ekhartzea heldu zitzun (Bith)

eztakiat Itsasuko zenez (Lab)

gük bagintzin baño Ezterentzübiko (Arbo)

ta uai jin behaRa dena Gaaziko dela, na, nungo, hori etzit erten al (Donap)

ta aitzinekoa BaigoRiko zünan (Laph)

erran bitut emaztia Iholdiko utala (Sor)

Beste kasu batzuetan *holako* da mugagabea jokatzen dena:

uai biziki bada holako (Arm)

Amiküzen ere entzun daiteke adibide zenbait:

eta gauza ezpada saltzen, sosa nuntik khen, hola, hola uk to, holako
(Lab)

holako 'honela ba' (Donap)

7.3.2.1.2. Mugagabea eta mugatu plurala nahas

Liburu honen 5.3.2.2. §-n ikusi dugunez, usu gertatzen da Ipar Euskal Herrian mugatu pluralean behar duen izena forma mugagabean agertzea. Baxenabarre guztian franko adibide bildu ditu *EHHA*-k:

etxe kanpotan (Aldude); Xuberoko menditarat (Baigorri); beste lekhitan (Arm); arditan e gerthatzen da (Izt); leen emengo erri ttipitan (Gamarte); mahastitan (Jut). Amiküzen ere bildu ditu: ur ttipi oriek erreka erten tzu... eauntsitan zertzen tzu ta gio xukatzen tzu (Gar); gio edozoinek, norberak iten e, zalditan maetxala, bazen lehenau Garrüzen maexala (Arbo)

Egiazki, Amiküzeko gure datuetan ugari dira mugatu pluralaren forma ohiko euskal gramatikaren arabera gordetzen duten adibideak:

elgarretaatzan ba, ba, atsaldiaikilan e berdin-berdina, egunain barnean, e, berdin-berdina; astirian, astirietan (Amo)

ez urthe guzietz (Bith)

bihamunian saskietan ezartzen tzitzien oihalak mihiseak eta liña haundiak (Uha)

oihalak orgetan ithurrirat emaiten gintzin (Uha)

lehen, lehen herrietaat, lehen-lehen herrietaat, hor Marxüta, geo Obarrre, eta gu ez gitzü haatao izan sekiüla (Arrü)

a ba, heek e ba, hola neskato, ta hasi zitzün geo hirietaat juitia neskato, bo, ahal tzen lekhiirat, bazün biziki Pai[ž]ea juiten tzienak ee (Arrü)

urdandietan zerratüik (Lab)

lana herrietan e bazen galdua gehiau juiteko (Lab)

ap^hezpikia eldü uk, ordian eldü zjan, goai eztuk eldü geio hua re, heldü zian herrietaat, ta merak erreziütü zikan (Zoho)

kanpañä zokoetan (Arbe)

gau eta goiz güzietz (Arbe)

Hurranen adibideak mugatu plurala dakar, baina aldaera mugagabea beharko luke izan:

zumait familiek nahi zizien (Bith)

Orain mugagabeko aldaera ageri den Amiküzeko adibide sorta bat dakargu, berez gramatikak adibideotan mugatu plurala galdeginen lukeen arren:

besteñez goizetan hau etzu ez piztuik, e, egu^rrdi artio, eguerditan, bon, jatiakin batian ta (Amo)

bazian ordian etxetan, biziki geio (Amo)

ez, gaztetan ez, hak ba eta uai batzi hiutanoei urthe (Arrü)

hiusten bizüzten saskiak sohallütat (Ilh)

ordian hor askaiten gintian untsa geo eⁿguerditan⁹² berriz jaten gindian ta atsaldetan e atsaldekaskaria iten gindian (Lab)

giileko büreutan kürriera ekhartzen nüen (Lab)

Hurranen adibideetan mugagabearen erabilera gramatikaren araberakoa da:

ordian hasteko etzin elektrizitatia ezaRi eta gerla aintzinan biziki heRik bazizien deia (Bith)

haurrak ta geo gizonak, emazteak eta oro, oro herrokan ta apheza prosesionian erditsutan (Sor)

hori hunkigarri zen prosioneain erditan gertha zain jende ati (Sor)

Oztibarren ere nahasia da erabilera:

nik bildu ukhen tzit frangotan phagotan hori (Larz)

Baina ez da sistematikoa: *heengo mendietan* (Ibarro).

7.3.2.1.3. bat zenbatzailearen joko mugagabea

Ipar Euskal Herriko erdigunean eta ekialdean *bat* zenbatzailearen lekuzko kasuak mugagabearen jokatu ohi dira: *batetan, bateta(r)ik, bateta(r)a(t), bate-tako...*, baina egun Lapurdin eta Nafarroa Beherean *batean, batetik* eta honelako aldaerak ari dira nagusitzen, mugagabekoak ez direnak, horiexek baliatzen dira gehienik. Hurranen adibidean ageri da ablatiboan *ta* ageri dela baina inesiboan ez:

gu zernahi gi[ʒ]az, adin batetaik haat hein batean egoiten ^hiz, e, hein batean (Lab)

92 Beharbada adibide honek aukera ematen digu pentsatzeko Alphonso Rodriguez-en 1782ko euskal itzulpeneko <eguerdi> adibideak zinez *eguerdi* ordezkatzeko duela.

Halaz guztiz ere, literatura zaharrak erakusten digu iraganean *-ta-* baliatzeke joera nagusi zela, mugagabekoa, nahiz jokaera hau ere bere garaian berrikuntza izan zen euskaran.

Arberoako Armendaritzen *phesta batetan* eta *mediku batetaat* aldaerak bildu ditugu eta Amiküzen ere aise entzuten dira *-ta-* duten era hauek. Kasu atzizkiaren arabera ikusiko ditugu.

Hona hemen inesiboko jokoak:

beste karrika atetan (Bith); *nexkatoak alderdi batetan tzitzun eta mutikoak beste alderdian* (Bith); *handiak ezarri alderdi batetan eta tipiak bestean* (Bith); *adin batetan* (Arrü); *beste etxe atetan hor* (Arbe); *laboantxa familiatetan sortia naiz* (sic) (Laph)

Etsenpluok ablatibokoak dira:

gune atetaik eta beste ondokoan beste gunetik (Behau); *batetaik etzit ikhusten* (Bith); *horietaik batetaik, besteik etziit ikusten hori* (sic) *büüz* (Arrü); *mezaa joan bear gintzin e ta bezpeetaat, untsa kuntin gintziin jutiaz, aldatzen gintzun alde atetaik eta elgar ikhusten gintziin ta voilà, ordüko jostetak hola zitzün e* (Mar); *ta geo uai adin batetaik ^haat eztuu lana aantzatzen e, adin batetaik^k, luziao gitzak eta* (Lab); *sei khentzian ekipa atetaik* (Ame); *nik hoitasei urthe nintzin aita zena galdu zelaik kanzer batetaik⁹³* (Arbo)

Hona joko adlatiboak:

ni ohit nuzu Marxütan aizoko herrian Arrütan jaurei baatetat (sic) *jin tzun familia andana at uai juiten den bezala e* (Mar); *geo joan tzen hortik landa beste artifizian batetaat* (Lab); *ta ioan tzian Ilharren hor etxe atetaat eta erran tzian "ta zuin ogitak nahuzie?"* (Lab); *xuriketak, eskorgekin erreka atetat eta bide tzarra* (Lük)

Lokatiboari dagozkio adibideok:

Ostankoan ez, etzatak idiiri, Bithiñan bezala itüik, adin batetakoak; gu bezalatsü, e (Behau); *beste adin batetako^k Oarren eta beste adin batetakoak Beozen eta hola elgar biltzen tzie* (Arrü)

Aldiz, adierazten dena determinatua denean ez da *ta* ageri, *batez dakar, ta gabe:*

aita hil tzian goixik, na hamabi haur, sei mutiko sei neskato... batez kampo denak bizi ituk, denek in tie been etxeak (Behau)

93 Belarriz bederen ez dugu guk *k* entzuten.

Oztibarren ere berdin gertatzen da:

beste gisa batetaat errain dautzite (Hoz); *gune batetaik* (Larz); *hein batetaz geroz* (Lan)

Zuberoan ere ausarki entzuten dira egitura hauek; hona lehenik inesiboko etsenpluak:

barne atetan ezarten ogia ta lastua (Olh)
zumaitak kanpuan zerbaitetan heipe atetan txilintxau (Pag)
bide txar eli batetan (Urd)

Hona orain ablatibokoak:

etxe atetaik bestila, gü bezala gaur zükeziün ta beste etxin beste g... gau atez eta hola (Arüe)
hein batetaik haat (Sarkp, Pag)

Adlatibokoak orain:

beste etxe atetaa joan beazu (Arüe)
eta geo neskato [ʒ]un nündian eta Akhizeat, <h>otel batetaat (Urd)

Etsenpluok morfema lokatiboari dagozkio:

uai ehin = hein⁹⁴ batetakoek, uai berroitahamar hiutanoei urtheko [ʒ]entek eztiütü üskaaz ai (Sarkp)
hein batetako gazték eztakizie, konprenitzen dizie, bena ez mintzatzen, hanixkoek kunprenitzen dizie aprespres üskaa, bena ez mintzatzen (Sarkp)
batetako etxekandeia koziniersa zün (Pag)
urthatse batetako neskato lagün batek erran tzeikian behar günila haen kxanbean sar eta zouvenirrak egin (Urd)

7.3.2.2. Izen sintagmaren egitura

7.3.2.2.1. Oro har “izena + adjektiboa + *bat* zenbatzailea” da euskarazko egitura arrunta eta halaxe da Amiküzén ere, baina Ipar Euskal Herrian adjektiboa *bat* zenbatzailearen eskuinean ere joan daiteke, aski egitura arrunta da hau (Lafitte 1979: 122). Gure ustean egitura horietan halakoxe hanpadura bat ageri ohi da hiztunen doinuan. Eskualdeko etsenplu batzuk dakartzagu sail honetara:

94 Egiazki *ehin* entzuten dugu, baina ez dugu ukatzen *hein* ere izan daitekeela.

phentze at ederra (Gam)

hortako behaiüzü haitz ‘haritz’ *bat ederra* (Arbe)

7.3.2.2.2. Ipar Euskal Herrian ohikoa denez, *geiho* konparatiboa izenaren ezkerrean kokaturik joan daiteke perpausean; hona Amiküzeko etsenpluak:

etxea hangoa bezen tzaharra zen ^hau u^he, bena geiho lekhü ^hazen halee, bizik... biziki geiho leku (Behau)

ni^s beno geiho zer baizi, e, eskola etzi, bena eskol... frantsesa untsa emaiten tzi (Arbe)

ba^sindien zapataña re herrian, oskiek iauten tziuten oai beno gehio den-bora; andeatiak balima zien, bazuten zeeit arreñatzeko, zapatañaat emaiten tzien eta ber oskiekilan seitzen geo (Sor)

7.3.2.2.3. Ez da adizlaguna soilik *biziki*, graduatzaile eginkizuna ere ukan dezake, Amiküzeko adibidea lekuko:

ta biziki beltz baziren? (Ora)

Izenaren ezkerrean doanean aniztasun adiera hartzen du *izigarri* adjektiboak:

ez, argia le^hentxoño, ta ura etzi izigarri urthe, e, zomat urt^he dien, hori etzakiüzüt, etzit kasüik iten bate eta dater (Arbe)

7.3.2.2.4. Erabilera berezia da *bardin* adizlagunarena, graduatzaile eginkizuna ukan dezake adjektiboaren ezkerrean:

ai izan txia zu re zaldiaqkin, ta bardin goxo zen e, uaike traturraekin bezéⁿ (Ora)

7.3.2.2.5. Izenari superlatiboaren atzizkia eranstean bikoizturik ageri da hau, pleonastikoa da; hona eskualdeko etsenplu alde bat:

etzin urtheik gaxtoenenak, e (Sar)

beharrenendako (Bith)

familiako gaztenenak (Lab)

gauzak gehienenik emaiten tzienak (Gam) & *gehienenik* (Amo, Altzü, Larri)

haundienenak (Lab)

hokienenik ‘hobekienik’ (Ora)

arbola lodienen heek (Arrü)

erretreta ttipi bat, ttipienena (Arbo)
gehonenik ‘gehienik’ & *gehionenik* (Dom)

Dena den, badira errepikatu gabeak ere: *ederrena* (Ilh), *gaxtoenak* (Uha).

Testuetan ez dugu pleonasmoa honen islarik atzeman, baina 1740 inguruko katiximan *çaharraguëna* adibidea ageri da (3).

Aldaera bikoiztu eta berezi hauez galdegini, Oztibarreko Donaixtin dioskute berek ez dituztela baliatzen.

Garaziko Behorlegin *gaztena*-ren hiru adibiderek batean, Amiküzekoen gisako etsenplu bat entzun dugu: *haundienenak*.

7.3.2.3. Kasu atzizkiak

7.3.2.3.1. Ergatiboa

7.3.2.3.1.1. Pluraleko aldaera garden ageri den etsenpluak ditugu Amiküzen:

benä uai batzie haboroek thumbak (Arbe)

7.3.2.3.1.2. Pleonasmoa ere entzun dugu, Nafarroa Garaiko Aezkoako *yorkek* adibidean bezala *k* atzizkia errepikaturik; cf. Labetzeko *ikusten dik guk, hor gandik nihukek ezte mezaik emaiten*; batetik Bartan eta bestetik martxüetarren seme amendüztar bati *nihukek* entzun diegu. Hona Amendüzeko etsenplu bat ere: *gatz hua nihukek uste beno hobia zen*. Domintxainen bildu dugu: *nihukek eztiite lüRik hen*.

Honelako etsenpluak dakartza XIX. mende bukaerako Bourciezen parabolak:

Martxüetan *nihokec etzacocien déusic émaiten* (138).

Donapaleun *bainan néhokec ezakoten yéous émaiten* (103).

Arboti-Zohotan hala *nihukek nola nihoc* (112-3).

Domintxaine-Berroetan *nehokec* (126-7).

Lohitzünen bi tradizioetakoa: *ihourkec* (135) eta *nihourkec* (136).

Arüen *nihourkec* (113-4).

Berebat, Oztibarreko Izurakoa da *nehorkec ere ez dezacola easiaik eguin* (167).

7.3.2.3.2. Partitiboa

7.3.2.3.2.1. Euskara orokorrean legez, polaritate negatiboa duten perpause-tan ibiltzen da Amiküzen partitiboa:

*arranjatzen tzizien ixtoriuak bate azantzik in gabe, behaR e, bertzenaz
bethi izain tzun gerla (Bith)*

eta frangotan jeloskeriak inaazten tzin ddeu[ç]ik etzelaik (Bith)

ezpützen sporrik eta hola ordian (Bith)

aixkideik etzit ukhan (Bith)

etzi difikültateik ukhan ta be^hala gustoa hartu izi (Bith)

ordian guai ezizi fitsik erteko (Bith)

ta geo etzizien berri handiik, ez, bena... (Bith)

Baita galderetan ere:

ago, nor du^k besteik? (Mar)

ta bauzia aurride^h? (Artie)

Baita moduzkoetan ere adizlagunari atxikirik:

hen lo iten eta geo biamon goiztan goizik partitzen (Bith)

aita gazteik ezkundia bitzen (Bith)

7.3.2.3.2.2. Atzizki absolutiboa beharrean, hala baiezko perpausean nola erlatibozko izen sintagman *-ik* atzizki partitiboa erabil daiteke eguzkialdeko egungo Euskal Herrian eta Ipar Euskal Herriko autoreen idazki zaharretan ere honela ageri da. Leizarraga etsenplu egokia da:

*Baina ceinec çuetaric, cerbitzaribat duenean laboratzen edo abrén
bazcatzen ari denic, landatic itçuli denean erraiten drauca bertã, Auançadi,
eta iar adi mahainean (Lvc. XVII,7)*

EAEL bildumak honako etsenplu hauek dakartza Zuberoako ipar-mendeba-leko Etxarrin:

*geo ai tützü kartakan gizonak elgarrekin, emaztiak florian,⁹⁵ segiür kar-
kaza ederrik egiten beitiite (273 etnot)*

*biziki herritar žiten tützü partiden ikustea, partida ederrik badüzü (273
etnot)*

95 Karta joko jakin bat da *florian* eraunstea.

baizüü pelotakai ederrick (273 etnot)

Arestiko hiru perpausetan iduri luke halako hanpadura egoerak eragina dela *-ik* atzizkiaren agerpena.

Arberoan zenbait adibide entzun ditugu, betiere erlatiboazko perpausetan ageri direnak:

bada biziki geio gazte plantatzen denik laborantxetan (Meh)

bauk anitz hitz khanbio denik (Meh)

bazen biziki Heletatik iilki zenik Hazparnen denboran (Arm)

Aukera hau ekialderat jotzean ugaltzen da; hona Amiküzeko etsenplu sorta bat:

atzeman düü jende hunik (Lab)

füina ta horiek, ollo ta jaten dütenik frango etxetan (Lab)

hoitan ootan bauk biziki iende lanian ai denik (Zoho)

erran zikan bazela zeit juten etzenik (Zoho)

etzü biziki e iten dütenik hemen ta^akua (Arbe)

bazen jende frango jiten tzenik ikhusteat, e (Laph)

Eskualdeko testu zaharretan galdera egituran ageri zaigu honako adibidea:

...eguín deçakeguia cerbait Ceria merechi dienic? (1786: 63)

7.3.2.3.3. Datiboa

7.3.2.3.3.1. Egun *-er* atzizkiak adierazten du datibo plurala Zuberoatik Lapurdiko erdiguneraino eta Baxenabarre eta Zuberoako testu zaharretan ere *-er* ageri da. Nolanahi ere den, *-eri* da egun Lapurdiko erdialdean indarra hartu duen aldaera, baina bada *-er* oraino, errate batera Uztaritze edo Larresoron (Epelde 2003: 92); hortik ezker *-ei* dago itsasalderat. Halaz, Lapurdiko barnealdean *-eri* ageri zaigu aspaldikoak ez diren datuetan eta Duhauk ere berdin dakar Beskoitzeko egungo euskaran; 1913ko datuetan ere *-eri* dakar Baigorriko hiztun batek Trebitschen datuetan: *mazeleri behiti (54)*.

Halaz guztiz ere, XIX. mendeko Bonaparteren datuetan *-er* ageri da Lapurdiko barnealdean Larresoro, Uztaritze, Ezpeleta, Itsasu eta Kanbon eta Hazparneko katiximak ere *-er* dakar XIX-an, baina *-ei*-rekin batean. Hego Euskal Herrian ere ibili da *-er*, Nafarroa Garaiko Erronkari-Zaraitzuetan edo Garaziko

Luzaiden, baina Aezkoara orduko *-ei* aldaera egiten da. Arberoan ere *-er* dugu egun, Mehaineko adibideak lekuko:

heer bea eiten ginten / mutikoek nesker

Beste hau Armendaritzekoa da:

ez gindien so in behar mutikoer plazan, pilotan ai ziener

Oztibarren ere *-er* alomorfoa egiten da.

7.3.2.3.3.2. Amiküzeko adibide guztietan ere *-er* ageri da pluralean; lehenik adibide llaburak dakartzagu:

ene haurrer (Behau), bester mendekatzen bezala (Bith), mutikoer (Bith), behier (Ilh)

Honako besteok luzeago dira:

maite tut behatzia nik orier dener (Behau)

gio ordian jende handiek etzizien erten geo hauReR (Bith)

lurrak aizoer emanak tzi luatzea (Uha)

beno nik haur orier arropa frango ta nihauk inik, e, ba, etzun hatzamai-ten oai bezala prestak (Mar)

ala entzütten dugu zaharrer erten, España biziki gora zela (Lab)

etzuk dener emana re hola eleka hartzea ta beai elhea jin eta (Lab)*

na lürrak oro saldü aizuer, bai, aizoyer saldü (Gam)

7.3.2.3.4. Edute genitiboa

7.3.2.3.4.1. Ezaguna da Baxenabarren edute genitiboan *-aren* > *-ain* laburdura gertatu dela; Amiküzten ere ausarki ageri dira adibideak:

dendaria'n etxen (Amo), lekhiain eosteko (Amo), nausiain partea (Behau), Elizain manamendiak (Bith), aitain orrua (Bith), etxiain izena (Uha), erretretain hunkitzeko (Uha), egiirrain itia (Arrü), arropain khundiain gañian (Arrü), ogi bihiain (Mar), ene otoain nausiari (Lab), xarpantain xilatzeke (Lab), nausiain pian (Gam), urain txeka (Gam), etsenplian emaiteko (Zoho), zolain itia (Zoho), fedelain gañian (Arbe), khutxain emaiten (Arbe), etxeko anoain egiteko (Laph) / mezain emaiten (Olhai)

Baina Nafarroa Beherean bada *-aen* ere, nagusi izan gabe ere normaltasunez ageri dena. Errate batera, Arberoan ibiltzen da:

zubiaen erdian / trakturraen uzkeildiaikilan (Arm)
ehun milaen artetik / gatzanaen biltzia / zeit aparellaen eosteko / ago-
rri-laen lehenean (Meh)

Eta Amiküzen ere adibideak agertu zaizkigu:

bali[z]aen kargatzen (Ora)
apiillaen hoitairuan / sosaen lekhia (Amo)
ekheinaen le^henean / aitaen larderia / haen pasatzeko / maiatzaen le^he-
nian / egun aen barnian / amaen galtziak (Behau)
ezantzaen khanbiatzen (Bith)
arropaen xuritzea (Uha)
iaurgeiaen moztera (Mar)
erran diikanaen arau (Zoho)

Eta baita Zuberoako ipar-mendebalean ere:

atsaldeko kermezaen iteko / igorteko batiü[ç]aen gañeat / alabaen fian-
tzalletan / khanbeaen iten (Olh)
apezaen alde (Loh)
tripaen asetzeko / lastuaen ondotik / tantaen etxen / amaen lagiüntzen
(Arüe)
lanaen egitea / ogiaen phakatzeko (Ündü)
lürraen traballatzia / ene kondüitaen itea / papier ro[ç]aen elkhitzen /
otoaen ukheitia / oihalaen barnen (Pag)
amaen ahizpa batekilan [ç]uiten üthürrila / gaztañaen axala / süiaen
khia (Urd)

Amiküze eskualdearen mendebalean beste emaitza bat ageri da, Oragarreko adibideak lekuko:

heldu zaukun orgaan zamatzeat / eta haan aitak erten tziin

Amiküze mendebaleko edute genitiboaren ezaugarri foniko hau soziati-boko atzizkira ere iragan da, honek genitiboa bere baitan daraman aldetik; hona Oragarreko etsenpluok:

aitaakin / latinaakin / haakin beraakin / jiteaakin / gue zaldiaakin

Belaunaldi bat gazteagoko Oragarreko beste hiztun Behauzera ezkondu bati, beste aldaera laburrago hauek bildu dizkiogu: alde batetik *zenaan* ‘zenaren’ genitiboa, *haandako* ‘harentzat’ destinatiboa, *amaakilan*, *ama ta aitaakilan*

soziatiboa, baina baita laburxeago ere: *ama^an letra / ogia^an saria^an iaazteko / esnia^akilan*. Eta baita laburrago ere, bokal bakarra duena: *ene aman ama*.

Hazparneko XVIII. mendeko idazki sendoa da *Kadet eta Bettiriño* izenekoa, baina ez dakar honelako adibiderik, alta, XIX. mendeko Hazparneko katiximak bai:

loria emaiten diilacotz haan gracion irauten diinai (217)

Berebat, beste bilakabide bat ere aurkitu dugu edute genitiboan: xuxen errateko ekialdera, Zohotan, haren oinarrian eratzten den destinatiboan, baina ez dirudi nagusi dabilenik ere: *hiitako* ‘hiretako, hiretzat’.

7.3.2.3.4.2. Ez da harritzeko Amiküzen osagarri zuzena genitiboan agertzea:

bali[z]aen kargatzen e, beldur binintzan ene bali[z]a hartu eta eskapa-tuko zuela, ni eoiten ene bali[z]aekin (Ora)

ari zien ene laundu nahiz (Ora)

khuutzia in adoatzeat (Behau)

trikota pollit zombaiten iten ta holako (Bith)

gure haurren arropen josten (Mar)

gizunen athorrain itia (Mar)

lanterna phiztuik akhusteko atsa zela nesken biltzeko (Ilh)

oai aldiz etzü zerri aten iltzeko neoin beharrik (Gam)

etzüzün jenatiak gio! sartzeko ta, zeaiten hartzeko re (Gam)

zazpi aneak Biarnon ber etxian, biarnesain ikhasteko (Gam)

lehen ari gintzün ñagoai arbiain eta kentzen negü güzian kharroñai-kin, hotzak ilik (Arbe)

eta geo zakhietan bihiein errezeitzeko ta zakhien bethe zielaik khandia-tzeko ta... beste bi lagün eta lastoain thiatzeko bospasei... (Sor)

aphiila ^hundarreat hasten lürren... ñago lekhüen eta üdalatzen (Sor)

bekhan tzen eta ordian belhar ümiein sartzia, e (Laph)

Osagarri zuzena genitiboan doanean ohiko bi aukerak ageri zaizkigu Amiküzen ere; Labetzeko hurrenaren adibide honetan “osagarria + aditza” nahiz “aditza + osagarria”, bi hurrenkerak ageri zaizkigu:

ta organi... iten diite pentze at edo biga, kanpi... eo otoen, otoen parka-tzeko, pentze at edo biga, ta geo organizatzen dia gaztiak oro, gaztiak oro edo andana ^{at} plantatzen da eta, amiñi at, plazatzeko jenden

Genitiboa aditzaren ondotik eskuinerat lerraturik dakar Labetzeko beste adibide honek ere:

ta geo hak, hak españolak iortzen tzitien eosteko oihenain

Eskualdeko garai bateko idazkietan ere bada hurrenkera hau:

houra da Gincouaren laudatcia continualqui, eta executatcia haren manien (1786: 28)

Hona etsenplu gehiago:

ezpeitzuten sosik eta eosteko denen (Barta)
ordian etzizien iten Xarrikotan phestaik, Arriütan tzüzün eta, ta gio hasi zitzün Xarrikota re iten phestain eta gio Xarrikotalat ta juiten gintzün (Arrü)
hua heldü zün mandoz xekha bihiain (Arrü)
De Gaulle ai zian galdatzen gazten (Zoho)
hasi niz ikhasten frantsesain eskolan abiatu nizalaik, bospasei urt^hetan
 (Sor)

Ez dago urrun Behauzen entzun dugun adibidea:

bazen beharra khanbiatziain, e

Xiberoa mugako Artien ere honelakoxe adibidea agertu zaigu:

o, baziün hogeï bat lagün bedeen, behar zin bekanikan gañen... behar tzin bi iende, baztertzeko lastuaen eta... lastuaen ondotik errauts bat bezala, hua re behar tzin baztertü ta, zaxhi hek baztertü nausiaendako zelaik eta... eta geo [5]atea eman haiar

Arberoan egun ez dirudi honelakorik dagoenik; Armendaritzen, bederen, *heldu da eiherain eroxerat* eman digute eta osagarri zuzena estraposizioan ezartzea ezinezkotzat jo dute. Honelakoak dira Mehaineko adibideak:

aitamen launtzeko
behien emaite ta ithotsemaile eta
aneia aten galtzea beti pena da
bauk sosa horren eosteko?

Mehaineko lekukoari “bauk sosa erosteko horren” proposatu diogu eta ez du onetsi. Halaz ere, aspaldi ez duela, honelako adibideak genituen Arberoan; Izturitzen adibide bat ageri da EHHA-n:

*premia edo etxeko semia haat edo hango etxeko alhaba hunat heldu
joain ziren ikhusteat etxaldia in e, etzuten nolana hika saldu behar*

Oztibarren edute genitiboaren atzizkia daraman osagarri zuzena estraposi-
zioan ageri da usu:

*gazteria joaiten tzun galdeitea sos puska aten (Lan)
lehen sendika entseatu zuzun zerratzate bere phezen (Bun)
ikhusi diena ez du nekhe itia horren (Larz)*

Zuberoan ere hala da, Peillenek Santa Grazin bildu adibidea
lekuko (1985: 88):

entziitia badit, holako zerbaiten

Sohütakoa da beste hau (Alvarez Enparantza 1980: 29):

ligiárrak etzién habóo fida biützéat béen lanáen

Subjektu kokagunean edo subjektu eginkizunean genitiboa duen adibiderik
guri segurik ez zaigu Amiküzen agertu; cf. Padilla (2013b).

7.3.2.3.4.3. Ezaguna denez, genitiboaren balio destinatibo zaharra gorde-
tzen da eguzkialdeko Euskal Herrian, Beñat Etxeparek eta egiten zuten bezala.
Arberoan ere badira adibideak:

*nausiak errain tzaikon usaiako kondizionetan: “zakhu at hire ta beste
at ene, behi baten erdia saltzean hire, ta beste erdia ene” (Meh)
biga hire, baño ene (Arm)*

Armendaritzeko beste bi etsenpluok ez dakigu berdinak ote diren, geniti-
boa *beldur*-i loturik dagoke, guk uste: *a, beldur ginden e aphezain / beldur nun
aitain*; baina bada beste era bat Armendaritzen: *beldur nun aita indako*. Pikabeak
“*beldur* + destinatiboa” erabiltzea frantsesaren eragintzat jotzen du (1993: 155-
6).

Xiberoan ere genitiboaren atzizki soila erabiltzen da balio destinatiboan,
Athanase Belapeirek 1696an egin ohi zuen legez. Hona orain Zuberoako egungo
bi adibide garden:

*lau herroka nausiain, sei herroka etzezañain, eta ogia erdizka (Sarkp)
mithilak etzila deu[¿] egiten, etzia nahi asuantzaik pakhatü haen eta
ordin hek ützi zieia bea (Urd)*

Amiküzén ere gordetzen da egitura hau, hurranen adibideak lekuko:

denen berdin, denendako berdin (Bith)

bidez haindiko xoko hartan bat bestelain eztakizut nik han, kartier biziki... been arteko ingrata^k tzu bat bestelain... eztakizut ze, gaixto eta, etzit, etzit... (Uha)

zakü at hire ta zakü at etxetierrein (Zoho)

Litekeena da honako etsenplu hau ere sail berekoa izatea, non eta ez den osagarri zuzen arrunta:

edoquin elheren arribatzen gitzü konpreintzea (Mar)

Destinatiboan *-rendako* & *-retako* atzizkia da nagusi Oztibarren, baina entzuten da aspaldiagoko *-(r)en* hutsa ere; hona adibide alde bat:

etxen hil kabale baten etzu erraiten (Bun)

hoi norendako da? amain (Jut)

noendako? goazamain (Jut)

kaka hire to! (Larz)

7.3.2.3.5. Soziatiboa

7.3.2.3.5.1. Eskualdeko aldaeren berri emanen dugu lehenik.

Zuberoan, besteak beste *-kila* & *-kilan* baliatzen dira, baina ibiltzen da *-ki* aldaera zaharra ere, nahiz Zuberoatik landa beste ibar batzuetan ere hein batez iraun duen: Erronkari, Zaraitzu, Aezkoa edo Erroibarren, eta ibar horietarik mendebalerago ere baliatzen da, Sakanan indarrean dirau oraino.

Amiküzén baino baliatuagoa da *-ki* zaharra Zuberoan, baina xiberotarren artean ez da *-kin* falta; errate batera, Alvarez Enparantzak Sohütan bildu adibideetan *-kin* ageri da (1980), baina Etxegorrik Jeruntzen bilduetan *-ki* (2003); Gamereko datuetan ere *-ki* dakar Kadet Otsibarrek (2003). Guk lekuko urdiñarbetar batekin ukan solasaldian gehienik *-kin* bildu dugu, baina *aitaeki ta amaeki* adibidea ere baliatu du. Olhaibiko emaitzetan nagusiki *-kin* bildu dugu, baina erabiltzen du *-ki* ere hiztunak: *elgarrekin / algarreki*. Guillaume Epherre altzürükütarraren lanean ere *-kin* eta *-ki*, bi aldaerak ageri dira.

Nafarroa Beherean eta Lapurdiko erdialderaino bederen *-kilan* atzizkia entzun daiteke: Garazi eta Luzaiden erabiltzen da eta iraganean baigorriarrek ere erabiltzen zuten, baina bakandu da, garai bateko zaharrek aise gehiago

erabiltzen zuten.⁹⁶ Goiti Oztibarre-Landibarre eskualdean nahiz Arberoa-Iholdi alderdian ere baliatzen da *-kilan*. Epeldek erakutsi du Lapurdin Larresorotik Makea bitarteko lerroan ere ibiltzen dela (2003: 298). Hona Arberoako *-kilan-en* adibideak:

behiekilan, elgarrekilan, kabalekila, tresnekilan (Meh)
mintzairekila (Arm)

Bada *-kin* ere:

hitzaeikin, hitza hitz edo gizona hits (Meh), *beekin* 'berekin' (Meh)

Soziatiboan *-kin* eta *-kila*n, bata nahiz bestea baliatzen dira Oztibarren, Justin ikusi dugunez ñabardura semantiko berezirik gabe; aldi bakan *-ki* ere ageri da Oztibarren: *makilaeki urdaoka* (Larz).⁹⁷

Amiküzen ere entzun daiteke *-ki* zaharra, baina non eta ez den ekialdeko herrietan, aldi bakan ageri da Amiküzeko erdialde edo mendebalean; eman dezagun erdialdeko etsenplu bat: *egurraiki berotzen* (Mar); ibarraren hegoaldean adibide bat bildu dugu: *ene aitaiki* (Ost).

Izatekotan ekialdeko herrietan agertuko zaigu aisean:

antzina ai bita adina eta ni haeki (Arbe)
bazün etxe atian zezen bat, haat joaiten tzinen zure behiaiki (Arbe)
o, sosa, sosa, güiti, güitti eta güitti haiki iten (Arbe)
ba apezekin untsa gintzün ba, denak emen untsa zitzün apezæki (Arbe)
a, amak iten tzin, xo, iten tzin gasna zumeit, behi esniaki (Arbe)

Herri berekoa da beste emaitza hau, *i* bokalak hartu duen kutsu sudurkariagatik fonikoki aski berezia dirudiena:

uai kanpuan tzü behiekī, oro kanpuan bitira laxoan

Bestela, funtsean bi era ditugu egungo Amiküzen soziatiboaren ideia adierazteko: *-kin* eta *-kila*n. Ordea, Amiküzen ez da Zuberoan horren ohikoa den *-kila* aldaera entzuten.

96 1948an Urepelen J. M. Barandiaranek Xalbador bertsolariarengandik *heltzeakila*n bildu zuen; guk Orzaizen 1985ean *gurekila*n *fini da erlisione*a *ene iduriko* bildu genuen eta EHHA atlasak *aakila*n 'harekin' adibidea dakar Bidarrain.

97 Cerquand-ek XIX.aren bukaeran Arhantsusin eta Bunuzen dakartza: *ezkontzen bazako bertzereki* (1985: 77) / *xuriketen egitera abiatzeareki* (70); *juan zen bazkariareki* (73); *ikhusteareki aita heldu zela* (74).

Erabilera maiztasunaz erran dezagun guri bederen ahozko elkarrizketetan ia beti *-kin* eta *-kilan* aldaerak agertu zaizkigula. Hona *-kin*-en adibideak:

haakin beraakin barreatzen / gue zaldiaakin ... ez sekulan arribatuko
(Ora)

beti larderiaikin / a, erlisionia haundizki bizi zen e ordian, partikulazki apezakin, jaki zazu / ene gizona hangoa izaitiaikin hak baziin familia Beauzen (Behau)

ergalekin 'elkarrekin' (Uha)

biekin, biekin, neskatooxek itekotz amaekin geihao ta muthikoeak aitaikin eta oro, oro elgarrekin (Arrü)

eontsi nüzü ama zenaikin üdalen / apezekin untsa gintzün / bigaikin iten 'birekin egiten' (Arbe)

elgarrekin, enekin (Laph)

behiekin, idiekin (Ber)

Horra *-kilan*-en Amiküzeko adibide alde bat:

gizon batek sosak o jan tziizien emaztekilan ta bethi fallitian (Ora)

hiru haurrekilan / sos horrekilan / zaldiekilan (Ora)

behaizi juaan mementoko gauzaikilan / guhaun behiekilan / jin tzelaik moda lur berrien iteko maxinekilan / otoekilan / serorekilan (Arrü)

gizongeaekilan / haurrekilan / heekilan (Behau)

animaleko espalakoin batzuikilan / aphezaikilan biziki gaizki izan tzi-tzun / ardiekilan edo / emaztek mantillekilan / hau holakoekilan untsa zen eta frangotan jeloskeriak inaazten tzin deu[é]jik etzelaik / hori liburu batzu leitzaikilan / igandiaikilan / karro[é]a behorraikilan / naski elgarrekilan bizitzaikilan aise da zombait aldiz a^harran, etzu beti ber ideiak, geo fite pasatzen tzu, bear bita egun guziez bizi / salbu osteunaikilan / uraikilan / zomeit aldiz biga, bena usaian batekilan (Bith)

aizo atekilan / amaikilan / behiekilan / bi orgekilan / eskarrieikilan / etxekanderaikilan (Mar)

heekilan / kanpaña ederrekilan (Gam)

aizoekilan / aparallekilan / gazteekilan (Arbo)

barrika zahar batekilan (Zoho)

errintaikilan (Laph)

7.3.2.3.5.2. Eginkizun bat baino gehiago ukan dezake sozietiboko atzizkiak; errealitate bat noiz gertatu den adierazten du ekialdeko Euskal Herrian, denbora adierazten duen izenak sozietiboko atzizkia harturik:

ori le^heneko moda zaarra, ez arrunt biamunian, leeno p^hesta ta astelehenean iten gintzin gue denboan, geo uai be^{ri^z} ondoko zortzian edo iakoitz atsaldiaikin edo iten tzie gaztek (Uha)

iande atsaldiaikin ez, igande atsaldian usean uzten ginien, bena, ateliera behar ginien xähätü (Lab)

Beauzen etxe at erre uk, uai, iandian zortzi edo, eo iakoitzaikin edo eztaüt, aotzain etxea, Beauzen (Lab)

ioan tzian Ilharren hor etxe atetaat eta erran tzian “ta zuin ogitai nahuzie, badizii iakoitzaikin bildia ta baizii iandiaikin bildia, eztizii hartaik emaiten ahal ez zuri” ta [irria] etzakotean hartaik eman (Lab)

astelehen goizian hilen meza, herri güzia asteleheniaikin mezan, berrize, denak, asteleheniakilan (Gam)

belharka re eauntsi igandiaikin (Zoho)

soinia, soimulariak biga edo hiru soimulari... oro libertitzen, dantzatzen eta hola... ilhüntzaiñak entzuteaikilan, andere serorak joiten tziela elizan, soinia gelditzen tzen eta geo bakharrrik dantza dauzi aire at edo beste emaiten ta fini, bihamün artino fini (Sor)

Hurranen adibidean euskaraz ohiz instrumentalari dagokion ingurunean ageri da:

ordian gosiaikin dira ta (Laph)

7.3.2.3.5.3. Hitzak lotzeko eginkizunean *-kila* atzizkiak jokaera sintaktikoa du, izen sintagma konplexuak era ditzake:

asto tzarra zun, ta tratur eer batekilako gizonak erten dako pasatzean eta (Ora)

euria zelaik ezarzen eta kapüxoinaekilako estalgiak (Sor)

7.3.2.3.6. Destinatiboa

7.3.2.3.6.1. Ohar batzuk eginen ditugu lehenik destinatibo edo benefaktiboaren morfema eskualdean nola islatzen den aurkezteko:

Baxenabarren testurik berrienetan *-tako* ageri da, baina Etxeparek, testuan nagusi den *-tako*-rekin batean baditu *-tzat*-en adibideak ere.

Bestalde, Lapurdi alderat joz gero, testuen tradizioan destinatiboaren eginkizuna duen aldaera genitibo atzizkiari lotutako *-tzat* dela gauza ezaguna da. Mende hasierako Beskoitzen honela bildu zuen Trebitschek:

lakhet bita denboaren phasteko enetzat eta ene launentzat (61)

XVIII. mendearen erdialdeko Hazparneko *Kadet eta Bettiriño* idazkian, berriz, *-(ren)tzat* eta *-(ren)dako* atzizkiak ageri dira, biak (Padilla 2011: 42). Eta egungo egunean ez dira gauzak biziki aldatu; ezker, Lapurdiko Larresoro alderdi horretan bi atzizkiak bildu ditu destinatiborako Epeldek (2003: 110).

Iraganean bazen Xiberoan *-rentzat*, baina bakan ageri da testuetan;⁹⁸ *EAEL*-k Domintxainen adibide bat dakar:

bakotxak dituzte ezneaentzat (267 etnot)

-tzako ere badakar *EAEL*-k Domintxainen:

lurrak okupatuik dia artoekin eta behientzako ez da lekuik (267 etnot)

EHHA-k Amiküzeko Garrüzen *-rentzat* aldaeraren adibide bat dakar:

bulanjerrak ogia emaiten tzien ürte güzian eta unenbeste zakhü ogin-tzat... balin bazen soberakina kopeatibarat saltzen tzen edo behar tzienari

Entzun dugu genitibo atzizkiari lotutako *-tzat* Amiküzeko Behauzen, baina adibide bakarra da eta ez dakigu zinez herriko jokaera leial islatzen ote duen; erabiltzailearen aita-amak arberoarrak ziren eta lekuko behautzar honek zinez estimatzen zuen Lapurdiko euskara:

biziki eta kanbiatu zela emaztentzat, etzen sekulan hainbeste jendeik jateko re

Nolanahi ere den, lekuko behautzar horrek berak elkarrizketan “genitiboa + *-tako*” erako atzizkiak eman ditu perpausetan:

beharbaa, beharba^a Miarritzen...dako beno geio Baionaendako litezke ba ain tseur

gizongea soldado ioan tzuzun ^behin Tarbeat, enetako mundiaín beste punta zun demora eetan

sei lerro etxetierreindako eta lau nausiaendako

98 1734ko otoitzean *haing corpitz saintu batentzat Celas ordenatia* (103) dago eta Eskiulako 1780ko testuan ere bada: *jakinic erayki duyela... confraria-bat... guiçon eta emazte fidelen-çat* (5); *Eskioulaco biciaçalec bethi jarraikitzen edo continuatcen dielatic, Virginia Saintaren-çat dien devotione berhecian* (11). Beste era ere badarabil idazkiak: *caritate hedatiena eta tendrena guiçonentaco ukhen duçuna* (22). *Charlemagne* pastoralean ere bada *-tzat*: *hain beste gracia enecat* (159). Intrauspek ere badarabil: *gucientzat houn diren lanac* (1857: 66).

etxea etzen haundia, bena penosa, denak pathar, eta urain falta, ura, ba, i⁸uzkia bazen tole, e, hortako untsa plazatia zen iguzkiaindako. Māhastia re, eta, bagintiin hiru mahasti puxka

7.3.2.3.6.2. Amiküzetik eskuin Xiberoan *-rentako* entzun ohi da, herskari horzkari ahoskabea duena:

beentako / [3] *Jun nahi denaintako* / *khanbeentako* / *uridik etzezañaintako* zütütziin (Sarkp)

haurrentako (Ündü)

aphezentako, denentako, emaztentako sustut / *xā^hälentako* (Ainh)

galduentako / *kestionentako* / *lekhiaintako* (Pag)

so'ik ze zoubeniRa emaiten deadan etxekandeiantako (Urd)

Oro har genitibo atzizkiari lotutako *-tako*-k adierazten du egun adiera destinatiboa Amiküzen, *-retako* baliatzen da izenordainetan eta *-rendako* izen arrunt eta erakusleetan; hona etsenplu batzuk:

beharrenendako (Bith)

aizoaindako (Mar) / *güetako hartü* (Mar)

emaiten daukite guri, ba, ez denak, bena, bat eo beste guetako; sosak beetako (Lab)

ber gauzaindako (Arbo)

bena enikan dretxoik, muthil-neskato gintian eta kuntsellatü zaküitean ezkunt eta zaharrendako egoitia (Zoho)

korphützaindako hun tzü (Arbe) / *peraendako guk "pera"* (Arbe)

güretako (Laph)

Gogora dezagun biziduna ez den onuraduna ere ager daitekeela inoiz mintzoan:

eta biziki eta lan egin du den lekian eta bazketaendako 'saskibaloiairen alde' (Behau)

ba, misionestak heldü zütziin eta hamoost bat egüinendako othoitz iteat eta hola ar zela in, eta hala baar zela in, eta gu haur denboran, e (Arrü)

[zenbat aphez Arrütan ordian?] *baño*, [eta orai?] *a, uai baño herri andana atendako* (Arrü)

kharrüta ba, phorria, bai, korphützaindako hun tzü (Arbe)

ordian bulta (sic) *atendako hemen geindi tzira* (Arbe)

7.3.2.3.6.3. Hainbat aldiz destinatibo atzizkia izen baten osagarria da; *beldur* hitzak destinatiboa eskatzen du:

etxeoendako re beste beldur bat bazian ordian, hurrek bazuten beste beldur bat, çai ezte beldurrik bate (Amo)

7.3.2.3.7. Instrumentala

7.3.2.3.7.1. Dagoeneko XVIII. mendean gure eskualdean erakusle eta izenordain pertsonaletan morfema instrumental berria ageri da; Suarez d'Aulanek eginarazi katiximan *gutaz* (22), *hotaz* (72), *hetaz* (87), *certaz* (98) edo *çointaz* (15) ditugu eta 1913ko Trebitschen datuetako amoroztar baten *tresna pullit hortaz* (65) adibidea joera berari jarraitzen zaio. Ordea, 1782ko Lopezen itzulpenean *-zaz* indarrean zegoen oraindik: *nitçaz* (57), *gutçaz* (19, 40), *hartçaz* (354), *hortçaz* (251)... eta baita 1786ko katiximan ere: *gutçaz* (29); *çoinçaz* (21) & *çoinçaz* (155), *nortçaz* (99); *hountzaz* (71), *bide harz* (27); nolnahi ere den, joera berria ere ageri da katixima honetan: *çointaz* (87); *hountaz* (91, 144), *hotaz* (37, 75, 93), *hetaz* (84), eta hiruzpalau belaunaldiren buruan, XIX. mendeko Donapaleuko katiximan oro dira *-taz*: *orotaz* (240); *zertaz* (230); *hartaz* (240), *horietaz* (238), *hetaz* (234).

Amiküzeko egungo gure datuetan ez da *-taz* baizik ageri: *nitaz* (Gam) / *guetaz* (Lab) / *ziütaz* (Arbe); cf. erakusleak ere: *bethi ohituko nuzu hortaz* (Ora); *hartaz* (Mar). Aldaera zaharraz dugun aztarna berriena Bourciezen haur prodiogoaren parabolan Aiziritzen ageri da (1894): *irouz guitouc, écic baduc certçaz* (105). Joera berriak hedadura handia du: *ortaz* (Arm) / *hortaz* (Pag). Baigorriin *gutaz* dakar Trebitschek 1913an (54). Zuberoako Sarrikotapean *nitaz* bildu dugu eta Etxarrin *giütaz* dakar *EAEL*-k (273 etnot), baina urdiñarbetarrek *nitaz* edo *giütaz* erakoak darabiltzate.

Oztibarren ere izenordain eta erakusleen instrumentalean *-taz* nagusitu da:

enuk fido gizon hortaz (Zib)

enizala ohit zutaz (Ibarro)

nitaz, gutaz, xutaz (Ibarro)

Ez da *-zaz* atzizki aldaera entzuten, nahiz adibide bat segurik baden (Videgain 1989):

ze errain dute nitaz (Jut, 1126)

Gerta liteke batzuetan morfemaren aldaera apikaria agertzea, bereziki ondotik *-tatu* duenean: *begistatzen* (Ame), *elhestatü* (Urd) & *elhestatzen* (Pag), *larrustatzen* (Sor), *ondostatü* (Gab), *ungaRistatü* (Gab).

Bestalde, Zokotzen *-s* entzun dugu: *besteñez*, *bortxas*, *emendatus*, baina nolnahi den ere, lekuko berak baliatzen du lepokaria ere: *dallüz*.

7.3.2.3.7.2. Pluralean *-etaz* aldaera berria ageri da Ipar Euskal Herrian eta Amiküze ez da salbuespena; hona adibide sorta bat:

aferetaz (Sar, Laph) *bakantzetaz kanpo* (Bith), *etxekoetaz* (Donap), *ixtorioetaz* (Behau), *otoetaz eta biziki oküpatia zen* (Lük), *phestetaz kanpo* (Mar) & *phestetaz phesteta* (Laph)

Zuberoako Etxarrin *etxengo gauzetaz* bildu dugu.

Haatik, ageri denez Amiküzen bizirik dirau pluraleko aldaera zaharrak *guzi* & *güzi* zenbatzailean:

gau guziez othoitzak iten gintzin (Ora); *uñez iiltzen bigira oren bat egun guziez* (Amo); *egun guziez* (Bith); *igande guziez* (Bith); *egun guziez orgetan eta behiekin uzarrarian* (Uha); *astelehen güziez Donianeat* (Zoho); *gau eta goiz güziez* (Arbe)

Baita ondoko Arberoan ere: *aste guziez johan ginden* (Arm).

Oztibarren ere izen arrunten pluraleko egungo aldaera *-etaz* da usu: *behietaz edo eta ardietaz* (Ibarro), baina entzuten da *-ez* ere: *liliz* (Lan), *astuez* (Jut).

7.3.2.3.7.3. Ohiko erabileraren eta eginkizunen adibideak ditugu Amiküzen kasu instrumentalean. Euskaraz kasu instrumentalak adiera eta erabilera ugariri erantzuten dio, eginkizun hein batez periferikoa du: tresna, denbora, modua, ibilera non zehar doan —*mendiz mendi* entzun dugu Oragarren—, kausa... aipa ditzake, baina baita adibide zahar batzuetan egiletasuna ere. Bestalde, aditz, postposizio nahiz izenen osagarri ere jokatzen du eta hainbat atzizkiri, aditzondo errepikatuei, partizipioari edo aditz izenari ere elkartzen zaio. Mapa semantikoak baliatuz aniztasun honen berri eman dute Iván Igartuak eta Santaziliak (2013), xeheki eta diakronia aintzat harturik, *-z* honek inoiz izan zukeen ‘konpainia’ adiera eta ibilbide diakroniko zehatz bat proposaturik.

7.3.2.3.7.4. Aditz edo adizlagun batzuek osagarri instrumentala galdegiten dute; hona gure eskualdeko etsenpluak:

bidez haindiko (Uha)
konten gintzun behorraz, e! (Uha)

kunten gintziin jutiaz (Mar)
haurrez bethiak (Arbe)
nigarrez ari (Behau)
phestetaz kanpo eztiizi erten al e guk (Mar)
nitaz hasten tzira? (Gam)
esküz kanbiatiak (Gam)
urez betha hura nahas (Gam)
bere büriaz beste (Zoho)
nik banitikan berroita emeretzi urthe ta hasia nindian asetzen lanez
 (Zoho)

7.3.2.3.7.5. Beste batzuetan modua adierazten du, nolakotasuna, edo zer baliatu den izaera, egoera edo ekintza zenbaitetan:

hua eldü zun mandoz xekha bihiain (Arrü)
esküz bil eta esküz karga (Arrü)
etxekoz etxeko iten tzitziin (Arrü)
zeit gisaz etzaut iduri ikusi duala (Behau)
bortxaz iten zien (Behau)
horiik e bortxaz laundu nute uai esporrari interesatzen (Behau)
büüz büü (Zoho)
zalhüz badiak (Zoho)

7.3.2.3.7.6. Bestelakoan denbora balioa atxikitzen du kasu instrumentalak:

eguerriiz, eguerriiz elgarretaatzea, pazkoz e ba, geo behazu xerri hiltze
hoitaako (Amo)
gauaz beti beillatzen, aldizkatzen (Bith)
Omia Sainduz ba mezak eta ilherrietat eta bezperatik prepaatzen gin-
tzin haatik liliak eta ilherriak xähätzen (Bith)
bi neguz seroren etxen eta gero berze bi negu pastu nintien dendari
baten etxen (Behau)
egun guziez orgetan eta behiekin uztarrian (Uha)
astelehen güziez Donianeat (Zoho)
eta biltzen tzün arthua ezkaatzeat edo ola, ta geo gauaz xuit, [3]ente
andana at bil eta ale! xui; geo [3]an amiño at gai hartan edo, intzaur eta
gaztañ eta ogi eta gazna eta ^holako (Arüe)

7.3.2.3.7.7. Euskara zaharrean ez da gertakari harrigarria ergatiboa ez den beste kasu batzuek egiletasuna adieraztea; eman dezagun, Barrutiaren XVIII.

mendeko antzerkian —cf. Lakarra (1981)— *labur da gizonaren adimentua adizeko Jaunaren ordenadua* (130) eta *guretakozat jaio da Jesus askoren deseadua* (154) egiturak ditugu; bietan genitiboak hartzen du egiletasuna adierazteko zeregina.

Ipar Euskal Herrian ez da harrigarri instrumentalak egiletza balioa hartzea, testu zaharretarik ageri da eginkizun hau, eta Zuberoan ahozko mintzoan dirau oraino. Amiküzen guri ez zaigu adibiderik agertu, baina ondoko Arberoan bai. Lapurdiko itsasaldeko jende xeheen gutunetan ere ageri da (Lamikiz, Padilla & Videgain 2013: 338):

bainan biac elga anglesses hartuac izan dira

7.3.2.3.8. Bizidunen lekuzko kasuak

7.3.2.3.8.1. Bizidunen lekuzko kasuetan *bait(h)a* baliatzen da Ipar Euskal Herri gehienez eta baita Nafarroa Garaiko eskualde batzuetan ere, errate batera Aezkoa ibarrean; hona Arberoako adibide batzuk:

ene baitan ukhan dut gogoan, pentsaketan (Arm)

ene baitaik hola izan niz (Meh)

Hona orain Amiküzeko etsenplu sorta bat:

gerla hori zendako zen nihaun baitan iten nien, bena gerla ori inutila zela, e, miakuluz han hiltzen zienak inutilki iltzen ziela (Behau)

beren baitaik, utzia die eskuara dakitelaik planttan (Behau)

beren baitaik ikhusi utena, khusi utena ta ein dutena eztie aiphatzen (Behau)

Oztibarren ere *baitan* ager daiteke bizidunen inesiboan:

hooki guhaun baitan sarraazteko duaikabe (Lan)

baixit konfiantxa Jinkuain baitan (Larz)

7.3.2.3.8.2. EHHA-ko datu batzuetan *ga* ageri da Oztibarreko mintzoan, baina ez dakigu xuxen hitzunik berenez eman adibideak diren, ala inkesta giroko galderak edo erantzunak diren:

eta haregana joan zuzun (Larz)

aitainganik (Jut)

Amiküzen bizidunen lekuzko kasuetan ez zaigu guri *ga* morfemaren adibiderik agertu; behin zangoa sartu eta Arrüetako elkarrizketan lekukoari guhaurek galdegin genion ea jakintza bat “amarengandik” ikasia ote zuen eta haren erantzuna horixe bera izen zen, bi aldiz jarraian:

amaenganik, amaenganik nola iten tzien hak eta gio hola...

Hartara, Arrüetako lekukoaren aldaera induzitu honi guk bederen ez diogu fidagarritasun handirik ematen. EHHA-ren Bardozeko inkestan lekukoak garbi dio “alabaganik” ez dela baliatzen, *alabatik* dela berak erabil lezakeen forma.

Ipar Euskal Herrian gauza arrunta da bizidunen lekuzko pluraleko kasuetan *ta* morfema agertzea; hona adibide alde bat:

^saztiak elgarretaatzzen, Arrüitan, bigintien ku[é]ji at, hetaat, Bizkairat
(Mar)

be^haizi etxetik khendü eta joan jendetaat emeitea horren kosta alde artio ta... (Zoha)

hoik ðhüzea joiten tzien amiñ^o at eta geo heldü zien gütaat (Olh)

Hurranen adibideetan ablatiboa jokatzen da: *behaizit haurretaik lagiüntza* (Zoha), non lekukoak adierazten baitu Interneten eraunsteko seme-alaben laguntza behar duela.

Adibide hauetan singularreko izenordain pertsonalean nahiz izen arruntetan ageri zaigu *ta*:

bestek in dute beharba nitaik landa, ene ahizpek (Lük)

aitatik landan segida hartu ut (Sar)

Norabide arrunteko atzizkia erabiltzen da bizidun singularretan, ohiko erabilera baita “mediku” edo “zezen” hitzen kasuan Hego Euskal Herrian ere:

bona laborariak leheno etzien bate asiñ^otiak, eta geo De Gaullek ezarri zün hori, laborariak juiten tzielaik eta meikurat eta etzuten sekulan asuantzai, behar zuten bere sakelatik paatu, ta hak etzela hola posible, ezarri zien dener hunemeste asuantzai laborarier, e, ta geoztik asuatia gira (Ora)

zezeneat juiten tziinak hola jendeak, enfin, beren behiekilan (Gab)

juiten tzieleik mezinderreat (Arbo)

andetiak balima zien, bazuten zeeit arreñatzeko, zapatañaat emaiten tzien eta ber oskiekilan seitzen geo (Sor)

behiak e zezeneta emaiteko re lehen (Dom, EHHA)

Trebitschi Amorotzen bizi zen bardohtar batek 1913an emana da beste etsenplu hau (68):

igorri nintzien haur beiratzeko neskato Donezte hirirat laborari amerikano bate'at

Ez dakigu Trebitsch-en Amorotzeko lekuko bardohtar haren beste adibide honetan *-ganat* ezkutaturik egon ote litekeen (68):

hantik hiru hileeten bürian berriz, sehi jua Landeseraat aitaen ezagun batenaat

Iduria da Zuberoa mugako Olhaibin bildu dugun adibide hau ere:

hunat heldü bitzen ene osabainat eta... liotenant bat heldü zakoziin

Guk bildu adibideetan *ga* morfemarik ez, izen bizidunari lekuzko kasua eransten zaio, eman dezagun, *-n*:

nik baut ene gi[é]ako debozionia Ama Ber[ɟ]inan (Behau)

7.3.2.3.9. Inesiboa

7.3.2.3.9.1. Inesiboaren aldaera zaharrak gorde dira Euskal Herriko ekialdean, *etxen*, *ihizen* erakoak, mugatzailerik ez dutenak. Zuberoakoak dira *gain*, *barne* eta *arrats* izenetako adibideak, Ligiko Allande Elixagaraik emanak; cf Peillen (1986):

ago! pekoa idokiko deiagü, gaiñen ezarteko (52)

barnen zerbait zotükü edo zerbait bazela (162)

haurrak ikhusi zia, arratsen, ülhiüntzian eliza khantian igaraiten beitzzen (133)

Erronkariko Uztarrozen ere *arratsen* bildu zuten Mitxelenak eta beste (1953: 530). Arberoan Armendaritzen *gue etxen e hala ikhusi* bildu dugu eta Mehainen xedezko adieran *etxengo* ibiltzen da, Amiküze eta Xiberoako ipar-mendebalean bezala, non mugagabeko hitzari *-ko* lotu baitzaio eta ahostundurik *-go* bilakatu baita. Berebat, Euskal Herriko mendebalean *baten* 'batean' baliatzen da oraino eta ez dira ezezagunak *atxurren*, *bearren*, *itaurren* erako egiturak, errate batera Juan Manuel Etxebarria Ayestak Bizkaiko Zeberion bilduak (1991).

Amiküzén ere inesibo zahar franko entzuten dira, mugatzailerik ez dararmatenak:

eta nola da eta beste aneia, eaz, eta, ezta etxen? (Ora)
bi neguz seroren etxen eta gero berze⁹⁹ bi negu pastu nintien dendari baten etxen (Behau)
dendariain etxen iten bigintzun e gio, ba, ba, negian (Mar)
ta heek herriko aphezain etxen egoiten tzien, zorzi, zorzi at eün, zorzi hamar bat egünez edo (Sor)

Arestiko adibideok iradokitzen dute *etxen* erraten delarik ez dela norberaren etxean soilik, besterenean ere izan daitekeela. Ondoko adibideetan, orde, argi da etxea norberarena dela:

semia etxen dizi ‘dizugu = dugu’ (Mar)
etxen muzten, etxengo lürretan, denak etxengoak (Arbo)
gue etxen ez seurik (Arbe)

Nolanahi ere den, hitz haborotan dugu mugatzailerik gabeko inesiboa Amiküzén:

barnen (Arbo)
ez saltzeko ez barnen egoiteko re (Laph)
barnen ezkaatzian zedarria (Laph)
amiñi bat healak mozten ezta in pharti eta ezarten suphizteko buatetan barnen (Dom, EHHA)¹⁰⁰
gañen horxe kaxkoan joik, bilo güzia dena bi aldetaa joana zien ta klinikalat eman behar eta kontexko hari panpaldi at emanik (Ame)
ezpalü dautzi in, airean tzen gizunan gañen (Ame)
garantia ina ik porcherie-in gañen, konpreintzen duka? Ez, ina ik bastimendiain, ina dik bastimendiain gañen (Zoho)
bidia in gañen libertitzen artzeko (Zoha)
be erroten gañen (Sor)
soalliak ü[ž]ian gañen tzien & gañen soallia zen eta (Laph)
Mauleko bidia in gañen (Laph)
gio ku[ž]ia beitiüt hor gañen (Olh)
ihizen (Zoho, Olh) & *ihizin* (Ilh, Arbo)

99 Aldaera ikasia edo jantzia dela dirudi, Amiküzén ezohikoa dena.

100 Baita *odeian barnen* ere, baina beste adibide batean genitiboa dakar: *bidia in gañen* (Dom, EHHA).

üdalen ‘iraulden, goldatzen’ (Ilh, Zoho, Arbe / Ber, Olh); ez da Amiküzekoa bezalakoa, baina *iraulden* ibiltzen da Arberoako Armendaritzen, inesibo zaharreko aldaera

7.3.2.3.9.2. Beste azalpen bat behar du oragartar bati entzun diogun *gañan* ‘gainean’ egiturak: *hoei pintako pearra burian gañan heldu zun, pearra xuxen*; Labetzen, Arbotin, Oihergin eta Pagolan ere *gañan* entzun dugu; bada gero *gañan* ‘bestela’ adizlaguna ere (Ame, Zoha / Ber, Arüe, Pag). Denboraz Zaraitzun ere *gáñan* ‘gainean’ bildu genuen Espartzan (1982): eragilea fonikoa ez baldin bada —*gáñean* > *gáñian* > *gáñan*, kontsonante sudurkariak bokal palatala irentsi-rik—, sakonean *gain* + *-an* dagoke. Zuberoako *goizan* adibideak —(Elixagarai 1986: 121; de Rijk 1999: 158)— sakonean dena *-an* dela pentsarazten digu, *e* epentesirik gabe; cf. Erronkariko Izabako *góxan* (1953: 509). Zuberoako lehen testuetan honelako egiturak ditugu: Belapeirek *goizan* eta *gaian* dakartza (1696), *-e-* epentetikorik gabe, baina hortik ez da jarraitzen gertakaria arkaismoa izatea; cf. orain Manterola (2015: 257-9).¹⁰¹

7.3.2.3.9.3. Ez dirudi denborazko perpausen atzizkiari Amiküzen inesiboko *-n* atzizkia lotzen zaionik, gure eskualdetik kanpo biltzen dira berrikuntza honen adibideak. Honako etsenplua Lapurdi ekialdeko Beskoitzekoa da, Trebitschek 1913an bildua (Etxebarria 1994: 61):

*sorthu nintuzun amaan altzotik johan zelaikan Espaiñaat, beste ahi-
zpa'aten ikhusteat*

7.3.2.3.9.4. Moduzko perpausetan ere bada inesiboa aditzari loturik Baxenabarren, Donibane Garaziko Jean-Baptiste Landaburuk Trebitschi 1913an eman adibide hau lekuko (Etxebarria 1994: 72):

*legiak azken hitza ukan tzien, Loilakaten etxaldia salduikan miserian
hiltzen gure gizona*

Gauza jakina da Baigorri eta Garazi alderdi horretan ere *-rikan* aldaera ibiltzen dela. Ordea, Amiküzen ez da honelako egiturarik entzuten, gure datuetan ez da bihirik ere ageri, ezta Xiberoan ere; iduri luke mendebaleragoko berrikuntza hau ez dela Euskal Herriko ekialdera heldu.

7.3.2.3.9.5. Iduri luke *hola* adizlagunak pluraleko jokoa hartu duela Ipar Euskal Herriko aski eskualde zabalean. Amiküzen arrunta da *holetan* & *oletan* entzutea; hona adibide bat: *ez arra[ž], ez, ez oletan, ez oletan, ez* (Mar). Bada,

101 Beñat Oihartzabalen arabera (1990: 177), *goizan* ‘egun goizean’ edo *bihar goizan* ‘bihar goizean’ vs. *goizean* generikoa bereizten dira; cf. Pello Agirre (1996: 788). Maisterrek, Egiategik eta Etxahunek badarabilte *goizian*.

bestalde, *olaxetan* era ere (Behau); cf. *hantxetan* (Ilh, Ame). Bestalde *holatan* aldaera ere bada, errate batera Zuberoan.

7.3.2.3.9.6. Urteak adierazten direnean garai jakin bat adierazten du hiztunak, bere burua urte jakin batean kokatzen du, ez da ari zifra horiek dirauten aldi luzeaz, adin hori zuen une hartaz dihardu:

eskolatik landa beitzen hua ta aldiz, gio, hamazazpi hemezortzi urthetan josten ikhasten bizpahiru negüz (Mar)

7.3.2.3.9.7. Bereizketa egiten da *su* hitzean: singularreko aldaera *ta* gabe ageri denean zerbait *su* gainean edo *suan* kokatu dela adierazten du eta *ta* dakarrenean, berriz, erretzen ari dela:

egürra, egürra, süian e atxiitzen tzi haitzak geo, taula iteko ta hola ez ginizin ez hoitaik, hortako behaüzü haitz bat ederra (Arbe)

sualla dena sütan tziün (Gab)

7.3.2.3.10. Genitibo lokatiboa

7.3.2.3.10.1. Zuberoan ibiltzen dira egun *etxenko* edo *goizanko* erako aldaerak, inesiboaren atzizkiari lokatiboarena itsatsirik: mugagabea dugu *etxenko*-n eta mugatua, berriz, *goizanko*-n.

Sarrikotapean etsenplu hau bildu dugu:

goizanko zazpi oenetan e, oro [3]eikitzen tziütziün ordin e

cf. Elixagarai ligiarra zenaren beste bi adibide hauek:

goizanko lau orenak (158)

behin nurbaitek etxenken berri galthatiirik (190)

Iraganean ere badira etsenpluak: Joseph de Revol *apezcupiak* 1706an argitararazi Oloroeko katiximan *goyçanco oracionia* aipa dezakegu.

Eta badira egitura gehiago ere; egungo urdiñarbetar batengandik *ordiünko* bildu dugu; Gamereko Otsibarrek ere badakar (2003: 68):

ordiünko zeinüzaina besomotx zen

Euskal Herriko mendebalean aspaldi hartako Mondragoe erretzearen kantuan *barruangoak* aldaera dugu; baita, bestalde, *Bengoa* deitura bera ere, toponimian Iruñerrian Barañaingo *Landabengoa* izenean iraun duena. Mante-

rolaren arabera azalpen berezia beharko luke *barruangoak* horrek (2015: 5.2.3.2. eta 5.2.3.9. §).

7.3.2.3.10.2. Lokatiboari estekaturik doanean inesiboaren atzizkia era zaharrean itsatsirik mugatzailerik gabe darama *etxe* hitzak Amiküzen, baina ohar gaitezen aldi batzuetan xedezko balioan ibiltzen dela *-ngo*, adibidez Gabadiko adibide honetan: *etxengo balima züiten* ‘etxerako baldin bazuten’; *ardier emeiteko ta urder, ta urde zumeit etxengo ta ^hola* (Zok).

Baina adiera lokatiboan ere ibiltzen da: *etxengo hazküntza zün, e* (Gab). Eta esaerak ere eraiki dira: *denak etxengoz, etxengo zün e* (Gab).

Adiera lokatiboan Behauzen, Arrüetan —*etxengo arthua* adibidean—, Bithiriñan, Martxüetan, Labetzen, Arbotin, Zohotan, Arberatzen, Zuberoako Etxarrin... agertu zaigu. Ordea, gainerateko hitzen joko lokatiboan ez da inesiboaren atzizkirik ageri; errate batera, ez dago ****”herrianko” edo honelakorik deus.

Bestalde, Arberoan ez da “lokatiboa + inesiboa” egiturarik: Armendaritzen eta Mehainen dioskutenez, honelakoetan *etxeko* baliatzen da.

Hego Amiküzeko Uhartehirin *etxeko* eta *etxekoek* adibideak bildu ditugu, baina oro har aldaera arrunta da *etxengo* Amiküzen; hona adibide sorta bat:

urain txekha re joan’me^bar zela etxengoo re, barrika atekilan, aberee... kilan eta barrika atian, ta ordian barrika hartan banizün... sartzen nizin zero at (Behau)

ta iten gintzin etxengo anoa e, miñardia ukhan tziou (sic) luzaz e (Bith)
ordian restouranetat e ez gintien joiten, ez, ez gintien, beti etxengo jatekoa zen, urdia hiltzen gindien etxen berian, biga, bi urde, bi urde bethi, ta gio aita re ñhĩztaria re bazen (Lab)

guk e hemen gue etxengo lanak —eitzak biak bezik— einik, eztik, ez gitzak usu kanpo hoitan eoitzen eta (Lab)

eontsi nuk laboantxan etxengoen laiüntzen (Ilh)

bethi jatekoak eta etxengoz eta (Laph)

etxengo fRütak (Ber)

7.3.2.3.11. Ablatiboa

7.3.2.3.11.1. Leku izen berezien ablatiboa *-tik* egiten da Arberoan, ez dago *-rik*, Mehaineko etsenpluak lekuko: *Domintxinetik landa / Mehainetik*. Izen arruntetan edo adizlagunetan ere *-tik* dago, ekialdean ohi bezala: *arraintzatik*,

artetik, hantik. Aldiz, Xiberoako adibideetan leku izen berezietan *-(r)ik* dugu, Sarrikotapeko etsenpluok lekuko:

Baiunaik / Orthezeik / Xarrikotaik

Egun bederen, leku izen arrunt nahiz berezietan Amiküzen *-tik* egiten da, ez dago *-rik* aldaera zaharra. Erakusleetan, izenordain zehaztugabeetan, pluraletan eta mugagabeetan gorde da *-rik*; hona izen berezien sail bat:

Malagatik (Lab)

Arbaatzetik (Arbe), *Ariüetik* (Arbo), *Biaxunetik* (Arbe), *Domintxinetik* (Behau), *Hazparnetik* (Behau), *Salisetik* (Laph)

Donamartiitik (Gab)

Izen arruntetan edo lekuzko aditzondoetan ere atzizki bera ageri da:

hementik / gioletik / geoztik (Behau); *bazterretik / bezperatik / eskolatik / mahaitik / ondotik / saetsetik* ‘saihetsetik’ (Bith); *nontik* (Uha); *hentik* (Arrü); *ehentik* ‘hemendik’ / *etxetik / nunbaitik* (Lab); *hantik* (Gam); *laboantxatik / noizetik noizeat* (Arbo); *errotik / hantik* (Zoho); *ekhitik / noizetik noizea* (Arbe); *ereizetik* ‘ereitetik’ (Laph); *laxatü üxtarritik* (Sor)

Mugagabeen *-tarik* dugu, testu zaharrak lekuko:

Certaric eguin citien Adamen eta Evaren arimac (c.1740: 23)

Certaric Jesusec salvatu guitu? (1786: 34); cf. erakuslean *hartaric* (1786: 95)

Bada idazkietan *-rik* ablatiboaren adibide bat postposizio bati loturik:

jeiki hilen arteric (1786: 12), baina ez dugu besterik sumatu, 1740 inguruko katiximan *jeiqui hilen artetic* dakar (7)

Egungo egunean Sorhapürün agertu zaigu *-rik*:

baginen andanaxka at ürrünxkaik ‘urrunskatik’ *heldü ginenak*, baina elkarrizketa guztiko adibide bakarra da

Pluralean *-etarik* da ablatiboaren atzizkia Amiküzen:

bezperetaik landa (Amo); *bulharretaik* (Uha); *alaina erreboluzionetaik landa etzen, etzen Españan e, e, gauza itzülipurdika, e* (Lab)

Oztibarren ablatiboan *-tik* nagusi da singularrean:

nuntik jina zira? zerutik (Jut)

Baina aldi bakan *-ti* ere ageri da:

buuti joaiten tuzu (Ibarro); *hemendi ooi urtheren burian arranorik etzu izain* (Ibarre); *pekada suurreti zilintzo* (Lan); *belia bazterreti gaizoa beha* (Lan); *begiti athera behar* (Larz); *khenazu heenti* (Larz)

Ohi denez, pluralean *-eta(r)ik* entzuten da Oztibarren: *gontzetaik jauzi* (Jut).

7.3.2.3.11.2. Zuberoari hurren dago Amiküze, ez da harritzeko inoizka *-ti* aldaera ere entzutea, nahiz egia erran, guri bakan agertu zaigun:

Bidaxuneti heldu meezinderra ‘sendagilea’ (Ora); *etxeti ateatzeko pestetaat* (Behau); *phentzeat heenti, guaun phentzean gäindi* (Uha); *zübiti landa izan tzian* (Lab); *biüiti behera* (Ame); *aphezain erraneti, aphezain erraneti, hartaik juiten* (Zoha); *mezati landa* (Sor)

Harritzeko da, baina testu zaharretan ere guztiz nagusi da *-tik*, ia ez dago *-ti* alomorfoaren agerraldirik; 1740 inguruko katiximan guztiak dira *-tik* eta 1786koan ere guztiz nagusi da, nahiz pare bat *-ti* baden:

chuchen aicineti *Benedicite oracionia erranez* (109)

fedeti jiten esten bat (146)

7.3.2.3.11.3. Beste aldaera bat ageri da ablatiboan denbora nahiz espazioa adierazteko; lekuaren araberakoa da Xiberoako Sarrikotapean bildu dugun *ürründanik* eta Laphizketan *üRündaneik e*. Denbora adierazten dute *bet^hidanik* (Behau) & *bethidanik* (Arbo) —cf. Ainharbe, Lohitzüne eta Sarrikotapeko *bethidanik*—, *jadanik* (Behau) eta *gazte-gaztedanik* (Lük) adizlagunek. Arberatzen *bethidanitik* aldaera pleonastikoa agertu zaigu.

7.3.2.3.11.4. Kasu ablatiboak ekialdeko Euskal Herrian ez du norabidea edo mugimendua soilik adierazten, adiera lokatiboa ere adieraz dezake, norbait nongoa den. Nafarroa Garaiko mugako Aezkoa ibarreko XX. mende bukaerako adibideok lekuko gardenak dira:

etxinat nondi diren ‘ez zakinat nongoak diren’ Hiriberriko etsenplua

gandig ze ‘hangoa zen’ Abaurregainean bildua

Amiküzen ere badira honelako adibideak:

geo Baztii-Klerantza re hasten duk deia kaskoina amiña at, ene aita han, hanti tzian, Bazti-Klerantzetik, a, ba, eta familia oro dena biarnesa mintzatzen tziñtean (Lab)

Joera hau zaharra da, 1786ko katiximan ere ageri da (38):

leguiari obediteceo, eta Abrahamen arraçatic cela eracasteco

7.3.2.3.11.5. Gertakari batetik bestera zenbat denbora iragan den adierazteko ere balio du ablatiboak:

beste gauza at, zortzitik ogia freskoa, ogia zortzitik iten ta beste etxetan e, gio iakoitzaekilan berriz (Behau)

heldu zitzun bizpahiru urthetaik (Bith)

lehen bazun Garrüze, e, ostiale atez merkhatia Garrüzen eta beste ostialian Danæpælon, ba, demoran, ta Garrüzek ützi zuelaik Danænphælok atxiki zî'n hamo^sestetik merkhatia, bena ^soai zortzitik jina ozo, ^hala (Mar)

behor andi bat, hak ekhartzen tzin üme at bi urthetaik ta geo ederrak b^eitzitien tsos amiña at iten tzi'n (Arbe)

khusi tuu misioniak, misioniak, lau, lau-bost urthetaik edo hola arraheldü zien (Sor)

7.3.2.3.12. Adlatiboa

7.3.2.3.12.1. Euskal Herriko ekialdean *-(a)la* aldaera dago adlatiboan, baina euskara orokorrean nagusi dabil *-ra* aldaera orain (Lakarra 2013: 310-1). Zaraitzun *pátakala*, *aziendála* edo *bordála* bildu genituen Otsagabian (1982) baina eskuin jo eta Aezkoara inguratu orduko *-ra* erabilera dago XVIII-XIX-ko testu zaharretan eta oraingo jardunean. Berezia da Erronkariko erabilera: *-ara* egiten zen ibar honetan.

Ekialdeko *-la* honek *a* eraman dezake ezker¹⁰² eta baita *-t* atzizkia ere eskuin: *-alat* entzuten da Zuberoan edo Zaraitzun leku izen arruntetan eta atzizkia hitz bukaerako bokal guztiei nahiz kontsonanteei atxiki dakieke. Zuberoako mendialdean aldaera osoak ditugu egun, mugatzailea sinkopatu gabeak; cf. Ligiko biok (Elixagarai 1986: 157):

eta oihaniala ju(a)n... khürützia egin... khürützia ekharri güniala

102 De Rijk hizkuntzalariak *a* horren pean *ga* dagoela idatzi zuen (1981: 94), baina *a* hori mugatzailea dela pentsatu dute beste hainbat autorek (Santazilia (2013: 259), Trask (*HB*: 205-6). Berriki Manteolak pean *han-la* dakusala idatzi du (2015: 260).

Santa Grazin bildua da hurranen adibidea (Peillen 1985: 22):

ezkapiko beitira, ahal dianak ahal dian lekhiala

Iraganean Belapeire idazlearen jarduna aipa daiteke:

Bethanialat (II, 68) / *eretzialat* (II, 34) / *herrialat* (II, 33) / *celialat* (II, 67)
& *ifernalat* (I, 54)

Bokal lotura horietan eta bokal egokitze horietan sinkopak gertatu dira Zuberoako Pettarran eta baita mendialderago ere, non eta ez dugun postulatzen adibideotan ez dela *a* izan:¹⁰³

alderdilat (Sarkp, Pag), *alhorrilat* (Ainh), *arditeilat* (Pag), *borthilat* (Ainh), *dendailat* ‘dendarira’ (Urd), *etxilat* (Ainh), *frantsesilat* (Ainh), *herri-lat* (Urd), *hürrentzilat* (Ainh), *kafilat* ‘kafera’ (Pag), *lanilat* (Urd), *mendilat* (Sarkp), *merkhatilat* (Pag), *okülistilat* (Urd), *sabailat* (Sarkp, Urd), *saskilat* (Ainh), *üthürnila* (Urd)

-a-z bukatu hitzetan ere bada *-la(t)*: *gaierdiko mezalat* [3]unik (Ainh).

7.3.2.3.12.2. Ekialdean baino bakanago izanik eta ñabardurak dituelarik, Baxenabarre eta Lapurdiko eskualde batzuetan ere *-la(t)* aldaera ageri zaigu historikoki, errate batera Hazparnealdeko XVIII. mendeko *Kadet eta Bettiriño* testuan, betiere *-a-z* bukatu hitzetan: *bisayala* / *gorala* / *Yudeala* (Padilla 2011: 44). Eskuin Arberoan berezko *-a* duten hitzak adlatiboan jokatzean *-ra(t)* ibiltzen da orain. Armendaritzen *-ra* bildu dugu mintzo laxoan: *plazaa bildu*; inkestan, berriz, honako besteok: *errekarat*, *erretreataat*, *mezarat*, *plazaat*... Mehainen *dantzaat*, *elizaat*, *errekaat*, *mezaat*, *plazaat* bildu ditugu, baina *errekaat* & *erretreataat* ere entzun dizkiogu Amiküzeko Gabadin berrogeita hamar urte inguru ezkondurik egin dituen mehandar bati.

Iragan ez urruneko berri Bourciezek erdietsi itzulpenetan (1894) eta *Erizki-zundi Irukoitz*-ean (1922-25) aurki dezakegu. Hazparne ondoko Lekuinen nahiz Oztibarren *-la* ageri da, baina aldiz, Armendaritze eta Mehainen ez; nolana ere den, gauza ezaguna da testu batean ezaugarri bat ez agertzetik ezin atera daitekeela ondorio sendorik, eman dezagun, garai hartan eskualde hartan ez zela erabiltzen; hona XX. gizaldiaren lehen laurdeneko emaitzak:

103 Baina *a* gabe ez da aise *alhorrilat* edo *frantsesilat* erako egiturak justifikatzea: ibilbidea *alhor-e-a-lat* → *alhorrealat* → *alhorrialat* → *alhorrilat* beharko luke izan.

Herria	Bourciezek agindu itzulpena (1894)	Erizkizundi Irukoitza (1922-25)
Hazparne	<i>batetarat / pentcetarat</i>	<i>mahirat</i>
Lekuine	<i>batetala / landetalat</i>	
Makea	<i>batera / bazterretara</i>	
Heleta	<i>batetara / landetara</i>	<i>mahira</i>
Irisarri	<i>batera / kampoetarat</i>	
Iholdi 1	<i>batétarat / landétarat</i>	
Iholdi 2	<i>batérat / landétarat</i>	
Donoztiri	<i>batetarat / landetarat</i>	
Donamartiri	<i>batetara</i>	
Mehaine	<i>batera / landetarat</i>	
Armendaritze	<i>batétara / landétarat</i>	
Arhantsusi	<i>batétala / alhorrélatat</i>	
Jutsi	<i>batetara / alhorretarat</i>	
Larزابale	<i>batétaat / alhorretaat</i>	<i>mahaiera</i>
Ibarrola	<i>batétalat / alhorrélatat</i>	
Hozta	<i>batetala / alhoretarat</i>	

7.3.2.3.12.3. Egungo Amiküzén -a bukaera duten hitzetan ageri da -la(t):

buxerialat (Amo), *dantzalat* (Arrü), *elizalat* (Ora, Amo, Ilh, Lük, Ame, Sor), *errekalat* (Ost, Laph), *erretretalat* (Mar, Gam) & *erretretalaz geoz* (Amo), *grupalat* ‘taldera’ (Ilh), *katiximalat* (Bith, Gam / Olh), *laboantxalat* (Zoho), *mezala* (Beh, Bith) & *mezalat* (Amo, Ost, Bith, Sor / Olh, Loh, Artie), *plazalat* (Ost, Lük, Gam, Sor), *sursalat* ‘iturrira’ (Ora)

Eta izenordain, zenbatzaile edo erakusleen oinarrian ere ager daiteke:

nitalat iorri dienak (Sor) / *meta atetalat* (Sor) / *hortalat* (Lab); *ofizio hartala* (Amo); *hartalat* (Ora, Sor / Loh); *urrun balima zien familiakuak joanak, ez hetala artio, ez alaina* (Amo); *saski hetalat* (Sor). [Ian egiten ahal orai?] *Oo! gütti, biziki güti, nahi ba, bena etzit iten aal, nik denak maite tzit hartalatzea, bena enitzin denak iten, e* (Arbe)

Besterik da Amiküzeko hurranen adibidea, -i oinarriari -alat erantsirik. Gamueko lekuko batek *jauregialat* erabili du gurekin mintzo; jaun hau bi urtez Atharratzen bizi izana baita, aldaera hori erabili izanean beharbada eragina ukan lezake bizialdi hark.

Leku izen berezian ere ager daiteke -la Amiküzén:

Mithñalat (Ost); *Baiunalat okülisteat* (Bith); *Xarrikotalat* (Arrü); *Bræ-
tañalat* (Mar); *behar tzen kurritu eta ordian, Soiharzala juiteko... bethi gaiñ
batian bita, behar zen bethi goiti ioan* (Sor)

Lexikalizaturik dago adlatiboaren atzizkia *gisala* ‘dirudienez’ adizlagu-
nean:

*aphezaindako ta aizu, beti erraiten, ta ba, gelariarekin akortzela ta
ergalekin igaiten tziela ta gio gi[ž]jala, aphezen etxondoan... (Uha)*

Ez da Amiküzekoa soilik, hedadura du Baxenabarren. Garaziko Gamarten
dakar *gisala EHHA*-k; hona bilduma bereko Larzabaleko adibide bat:

bazakiten elhaka gisala

Zuberoan ere ibiltzen da.

Adlatiboan *-ra* eta *-rat* atzizkiak nagusi dira Oztibarren, nahiz *-la* eta *-lat*
ere ibiltzen dituzten oztibartarrek, eta ez hitz bukaera *-a* dutenetan bakarrik;
adibideak Videgainen 1989ko lan bikainetik hartuak dira:

bazkalat; best'alderdilat; etxe batetalat jeutsi; gisa hartala (Arh)

*zolala; gisa hartalat; hail mendilat berhala; hel baginte eguerdiko
saldalat; hesi hartalat joaiteko bazin joangia nehok ikhusi gabe* (Jut)

*Lurdelat; molde hortala zuzun xurria; etxen anoa iten gindizin eta hua
barrikalat* (Lan)

*amak eaman ziakozun seurra erreka hartalat haurra re; ezkondu zuzun
... ostate huntalat; ordian borthulat igortzeko hango denbora in dezaten erdi
gabe jan; zezenelat joan behar zindien; galdin nie telefonolat; eztei batzutala
jiteko* (Larz)

*borthulat igortzen tzu; esneik ez emaiten eskulat; joaiten girelaik men-
dilat* (Bun)

*borthulat elgarrekin joan behar delaik; esnia titilat eta; heldu ziakozu
titi-muthurretalat; mañeterelat* (Ibarre)

*behiak eremaiten bitzitian borthulat, Beltxurat; gure borthulako bidia
deitzen zixin; mañetaralat* (Ibarro)

elizalat sarthu gabe; gisala ‘dirudienez’ (Donaix)

*Xuberalat; elizala; gisalat; Lahondolat joaiten tzu; gio gasnalat
esnian; beste esnelat nahasten zindakon; lekhu hartalat arranoak* (Hoz)

7.3.2.3.12.4. Oro har, *-a* ez diren hitz bukaeretan *-ra* dago Amiküzten:

ohera (Amo), *ezkontzeat* (Behau), *etxeat* (Bith)

alderdirat (Uha), *ithurrirat* (Uha)
guaikorat ‘oraingora’ (Arrü), *lehenekora* (Amo), *herri aizoat* (Ilh)
merkaturat (Beh, Bith)

Leku izen berezietan ere nagusi da *-ra(t)* atzizkia:

Dantxaria^t (Lab)
Donianeat (Lab), *Peihoadeat* (Lab), *Ilarrera* (Ilh), *Amendiizeat* (Gam)
Arbotirat (Gam), *Laphurdirat* (Laph)
Biarnoat (Gam), *Gamorat* (Zoha)
Zokotzurat (Amo)

Baita kontsonantez bukatuetan ere:

Portügaleat (Lab)

7.3.2.3.13. Norabide adlatiboa

7.3.2.3.13.1. Norbaitek hartu duen norabidearen adierazteko *-rat* morfemaren aukera egon da aspaldi honetan Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaiko eskuinalde arras zabalean, garai bateko Iruñerria barne. Alta, jatorrizko norabide adierazpenaz landa, adlatibo huts edo generikoaren lekua ere hartu du eta bateko eta besteko adibideak entzuten dira lekukoengandik. Arberoan Mehaineko egungo hiru lehen adibideotan norabide adlatiboaren adiera jatorra dakusagu:

bagindakien noat ai zien
eta berriz jin giten ene aitetametaat
hail haat, hail horrat

Ondoko hiruretan joan izanaren adiera generikoagoa dago:

eta arreba za^aarrena espo[^z]atu zen geo etxeat
noiz jien tzira gue lanain iteat?
ta ene ama jin ^zen etxetier edo etxezain Meaineat, eta ordian ein zuen
aitain ezautza

Amiküzeko egungo hainbat adibidetan iduri luke *-rat* morfemak halako norabide kutsua dakarrela:

alegia hek aharran ari ta prookatzen tzuten emazte hua, alegia hamiña at, etzuten nahiz, bena alegia iten tzuten, ta bera emazte hua lurreat erortzen tzen, batek klak, multsa ehasten tzakon (Ora)

goizetan, zortzi onetan... zonbeit aldi geixao, noat joaiten gien, itzulia nolakoa hartzen duun (Amo)

etxen sartzen dun ura, bena ez^htun ^hale estaialat joain ura, hen ez gitzu lekhiän halee inundatiak izaiteko (Bith)

lehen herrietaat, lehen-lehen herrietaat, hor Marxüta, geo Obarre, eta gu ez gitzü haatao izan sekiula (Arrü)

ba, undarreat ba (Mar)

na ttipitü iüzü e biziki, etzü bate leenaoko feirak, leena heldü zün, ba jendia estranjeretik horrat, feiretaat (Mar)

biziki juiten da geihoo Peihoadeat ezin ez eta Donapüleat (Lab), merkatura orain jotzen duen jendeaz mintzo

ta gio hunat, jiten bagira konpaazione, Hazparneat... re berdin, etzü bate, Mehaine re bea etzü gure heskuara arras Mehainen e (Gam)

ta, zeeit, zeeit heldü balimada, hantik heldü uk telefona etxeat (Zoho)

joana dira kamiona ehiin eta berroita hamar iuan tuk igan astian, Baiunaat (Zoho)

haat hunat khartzea (Laph)

7.3.2.3.13.2. Alabaina, *-rat* & *-lat* atzizkiak semantikoki ez du agerraldi guztietan norabide adiera hori era gardenean gordetzen; gure ustez, Amiküzeko hurranen adibideek ez dute gardentasunez norabidearen adiera erakusten:

Lurdar urthe guziez, gure itzulia, beharba hoitahamar urthe edo geihau Lurdaaat urthe guzi guzi guziez... meza intzun... eta untsa eldu bazakiiu tenorea, bon, meza intzuten eta gio... (Amo)

komunionia re iten gindielatik bazun bethi egun bat komunionia ein ondoan bizpalau egun uai bospasei egunen burian egun bat juiten tzena karra hurrekilan eta etxeokokilan Lurdaat eta hua bethi gelditu duaikabe o eztaizut... edo hartu, Lurdaateko zer hori hartu (Amo)

beno uai, bakizu, aspaldian ahaziak tzit horiek oro, izan tzu familian, baakizu, biziki ^aauza pasatzen tzu e, geo, ordian hori bazterreat uzten tzu (Bith)

heentik joan tzun muthil eta joan tzun Ameiketat haikilan (Bith)

ta heldü zien eskü emaitateat (Lük)

etxeokok etzie haurrak igortzen elizaat, ordian nola nahüzü segi dezate (sic) (Arbe)

hantxe ur handirat juiten gintzün miisen txiützeke eta oihalen txiützeke (Olh)

Baita *-la* aldaera zaharragoan ere:

a, Garruzeko feira, hortalat juiten da, ba, ono jende, hori ezta galtzen ari (Lab)

7.3.2.3.13.3. Amiküzeko hurranen lau adibideetan, elkarren ondoan diren bi izenek mugimenduaren eginkizun semantiko bera dute, baina formaz batek *-ra* & *-la* atzizkiak daramatza eta besteak *-rat* & *-lat*:

juiten ba txekanderea berdin lanea, ta haurrak berak uzten ta, ba, ba, frangotan berak haurrak an etxeⁿ, ba, ba, joan behar bitzien hak e laneat (Amo)

Lurdalat grutala juiten gintzun eta ixixila behar gintzin egon eta otoitzean ari (Bith)

mezaa joan bear gintzin e ta bezpeetaat (Mar)

Peiroradeat zumaiz aldiz, bena güti uai, Peireoradea re galdü üzü biziki (Gam)

7.3.2.3.13.4. Berebat, ez dirudi hurranen adibideetan hurbiltze adiera dagoenik, ideia ez dirudi denik norantz doan edo zein alderditarat hurrantzen den, gehiago da norbait norabait doala beharbada eginkizun zenbaitetara edo han gelditzekotan eta ez harat hurbiltzekotan; adibideotan *-rat* ez da semantikoki markatua, adiera generikoa du eta neutralizaturik dago, *-ra* arrunta balitz bezalaxe da:

hola gazte eskola üt, eta hori zindien, seroretat juitia (Mar)

hori bethi laboantxan aizana, beti, beti, beti Martxütan, ttipi-ttipitik eta gio jin etxe hobia hatzeman beitzüten Amendüzeat, horrat jin, bena h^aik e, hatsarrian sofritiak e, etzizien argiik ez urik, ordian jin tzielaik, etxia huna ba, eta eoitzak eta, biziki pullitak eta oro, ta funtsak e, denak eta, ba, ba, kaale azteko (sic) ta lekhü ederra (Gam)

mezatik landa kanpoan mahañak eta zari et'aperitifa, bai... eta apeza heldü aperitifain hartzeat ez igandiaikin, astelehenaikin, mezikatik landa (Gam)

eben bena do[z]ena arotzea^kilan (sic) etxekandera edo emaztia juiten tziin merkhatüirat saltzeat (Gam)

arraaurrendako, emaiten gintzin otoan, otoan Arbotirat, katiximalat, lau, bost... (Gam)

lana ai zün, ba, bena, ta erretretat heldia ta etzakiziün ze in behar tzin, ta alajinkoiña, gizonak, denak harritiü bitzien, alajinkua, etxea saldü (Gam)

7.3.2.3.14. Muga adlatiboa

7.3.2.3.14.1. Nafarroa Beherean atzizki hedatuena *-(r)ano* aldaera da. Aldiz, *-rad-* duten aldaerak, erdialdean eta franko iparrean erabiltzen dira: Aturrialdeko Mugerren, Oztibarreko Jutsin eta Larzabalen nahiz Landibarren *-(r)adino* ageri zaigu. Baxenabarreko iparrean eta erdiguneko Landibarre-Oztibarre alderdian aldaera *d-*dunak ez dira bakarrak, baina hori dute beren eremua, beheiti ez dira berriz ageri. Aldiz, *-(r)ano* & *-(r)aino* aldaerak Nafarroa Behere guztian erabiltzen dira, Lapurdiko Aturrialdea eta Hazparne barne, baina ez dira Amiküzen ageri.

Ipar Euskal Herrian horrenbesteko hedadura duen *-rano* aldaera bildu dugu Arberoako Mehainen:

ainbestetaano, Paiseano, etxeano, Portugaleano

Armendaritzen, berriz, *-rardino* ibiltzen dela ohartu gara:

Pariserardino johan da / noardino ai zira? / amatxiren etxerardino

Baxenabarren nagusi den *-rano* atzizkiaren *-raano* aldaera Arberoari hurbil den Amiküzeko Behauzen agertu zaigu, baina eman duen lekukoaren aita-amak arberoarrak ziren:

oai badira bidiak, joaiten al tzira otoan oai lekuraano (Behau)

Donapaleuraano iduitzen zaut eta eskuara berxia dela Behauzokoakin
(Behau)

7.3.2.3.14.2. Nolanahi ere den, egun bederen Amiküzen berezko *-radio* aldaera ageri zaigu nagusi eta aski bereizgarri gertatzen da. Lakarrak *-ra + *din + *no* berreraikitzen du euskarazko muga adlatiboa (2008: 484); ikus Santazilia-ren sistematizazioa ere (2013: 268-9).

Aldiz, ezkerxeago, goiti, Bardozen, “-raino” eta “-radio” aldaeren gurutaketa dirudien *-(r)aidio* erabiltzen da egun. Alta, XIX. mendeko Celhaberren Bardozeko kristau ikasbidean Amiküzeko egungo *-radio* aldaera bera ageri da:

eta emaien daoutazula gracia hobeki bizitzeco eta iraiteco zoue zerbitzu seindien, erihotzeco orduradio (281)

bi erhiz khuutze baten eitia, belarretic boullharreta'adi'o (285)

eta ordudio Yinco bezic etzena, eina gelditu zuzun Yinco eta gizoun
(289)

gorphitza geldituco uzu lurrien, mundiaen akaantchadio (305)

Eta bada beste bat ere, *-radino*:

eskerreco sorbaldatic eskouiñecoradino (285)¹⁰⁴

EHHA-k Aturrialdeko Urketan *lurráadió* bildu du (87530) eta Bardozeko lekuko batek atlas honetan dio ez dela “bihar arte” erraten, *bihardio* baizik.

Hona orain Amiküzeko adibide luzexken sorta bat:

e, e, otobüza ba, bixtan dena, garaadio, Baiuna artio eta, orgekin eta...
[alabek erranaz irri eginez] *idiekin ba, ixtan patez!* (Ora)

Naadio izanak tzizte Frantzian barnian? (Ora)

A, eztea ezkuntzen uai hamestetadio? (Ora)

ni uai, aladdinkua, seiak eta erdi aldexeadio enuzu iratzartzen (Uha)

ba, oen erdi at, Marxiütako eskoladio bi kilometra hentik ta Amootzeat hiru (Zok)

hementik jendia ba Donapauleadio, Donapaleadio, geo Donianeat zomait aldi (Lab)

otobüzak han Lurdan ürrhün berritaadio ürrhün garatzen tzizien (Zoha)

Hurranen etsenpluok llaburrago dira:

noadio (Behau) & *noadio* (Uha), *hanbestetaadio* (Mar), *Donapaleadio* (Lab), *hamoostetadio* (Lab), *hoinbestetaadio* (Lab), *horraadio* (Lab), *Panplonaadio* (Lab), *borthaladio* (Arbo), *etxeadio* (Arbo), *Hazparneadio* (Arbo), *gañeadio* (Laph), *peadio* (Laph)

Berroetara ezkondu laphizketar batengandik, berriz, *-dino* aldaera bildu dugu:

Dnapiüadino, gaRa[3]adino ‘garajeraino’

Muga adlatiboan *-rano* orokorra ageri da Oztibarren:

horraano (Jut), *lau ilaeteano* (Larz), *alhorretaano* (Larz), *Marsellaano* (Donaix)

Baina arestian aipatu dugunez ibiltzen da *-radino* aldaera ere:

104 Idazkietan *-radraino* aldaera dugu XIX. mende bukaeran J. F. Cerquand-ek Garaziko Buztintzen eta Oztibarreko Arhantsusin bildu ipuinetan ageri dena (1985: 50 eta 75). Ziurtasunez dakigu Erronkari ibarreko hiztunek *-radraino* aldaera erabiltzen zutela.

beheradino, erditadino, zoladino (Lan); errekaadino joan da, ez ondorat (Jut)

Guk dakigula Oztibarreko *-radino* aldaera hau ez da beste alderdian entzuten, gogoan ukanik amiküztarrek *-radio* egiten dutela eta Armendaritzen *-rardino* entzuten dela. Aldaera berezi hauek ez dira Hazparden ez XVIII-XIX. mendeetako testuetan ez XX. mendeko datu-bildumetan ageri.

7.3.2.3.14.3. Horiexen pare ezarri behar da *artio* postposizioa ere, lekuzko ingurunean ibiltzen dena eta muga adlatiboaren eginkizun bera hartzen duena; ikus 7.3.2.4.1. §.

Oztibarren ere *artio* postposizioa entzuten da inoiz:

Donaixtin hurranena, Donaixti ta Ibarla berri, Bunuzeaidio (?), geo Lartzaale artio e ba, ta hoik tuu (Hoz)

7.3.2.3.15. Prolatiboa

Baxenabarre gehienean legez *-tako* ibiltzen da Amiküzen, Uhartehiriko bi adibide hauek lekuko:

halako ume... behoka ederra ta in tzi'n, ena ernariaindako erosi ta geo antzia gintzin erosi

garbitzeko estakurian, gio horrek iaurgeietako othe eta nahar eta naasteko oro, debriein behi tropa beitu, denak oro...

Domintxainen *zozoendako hartü gitüztek*, quoi etsenplua bildu dugu.

Prolatiboan *-tzat* ageri zaigu Oztibarreko eskualdean (EHHA):

senartzat hartu dut (Lan)

emaztetzat hartu dut (Lan)

7.3.2.3.16. Kausatiboa

7.3.2.3.16.1. Ez zaigu iruditu *-gatik* atzizki orokorra anitz baliatzen denik, gure elkarriketetan kasik ez da ageri. Adibide bat badugu Armendaritzen bildurik:

bizkarraingatik utzi

Amiküzen ez da kasik ageri:

bon, ^{ua} gio, ^hola alkez e... *uaiko denboagatik, eta gio bea uzu semiaikilan, emaztia re hila, ta semia re, ^hua zelibater, bate ezkontzeko, aita-semiak biak (Uha)*

ez guregatik (Mar)

bizkarreko minaingatik egoin nüzü aphaldüik gustian orenak (Olh)

7.3.2.3.16.2. Balio kausatiboa ukan dezake *-tako* atzizkiak Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaiko ekialdean; hona Amiküzen entzun ditugun adibideok:

etzun xuxen iiltzeko maneraindako, hori, xuxen ii... zõnbanahi xuxen ibiliik e, ezpalin bazien hor burian... (Behau)

kundiak behar tzitien eman hilaite guziz nausiak, eta sos gutiendako! (Behau)

ta deuf[ç]jeindako horxe iorzen 'züztean khanpoat nausiek (Zoho)

7.3.2.3.16.3. Kausa adierazten du *hartakotz* adizlagunak, ‘arrazoi harengatik’ edo adieraz baleza bezala. Arberoako Armendaritzen agertu zaigu eta baita Amiküzen ere; hona etsenplu bat:

hartakotz uai iziarriko difeentzia iten du sos horrekilan, uai behar da iziarriko sos andana eosteko, ollasko pare at ordian eosten tzinien eta... bos mila lietan, eta uai bostehun liera du ... ^balio, hartakotz, uste zinien ordian abaatsa zinela, bainan uai (Ora)

Berdin adierazten da *hortako*-ren bidez ere:

nik erten dut, behar da jakin zernahitan artzen ogia^an saria^an iaazteko ta lanian artzian xekhatzen da, ta bethi heldu da noizbeit eskurat ikhasi hua re, ezta behar hortako etsi eztela sekulan jein eta hola (Ora)

7.3.2.4. Leku-denborazko postposizioak

7.3.2.4.1. Euskal Herrian ez da harrigarri *artio* postposizioa aurkitzea espazioaren muga bat adierazteko eta Amiküzen ere halaxe da, baina denbora adierazteko ere baliatzen da, etsenplu hauek lekuko:

kaalak, behi deizte ta, ardi deizte ta, ba, ba, behiak e, bai, bai, behiak eta ardiak, ba, ardiak, uztalla^an lehena artio (Ora)

Pazkotik eta bakantzeta^a artio edo egüerritik Pazkora artio edo (Sar)

ni sortia Gamoko herrian, ta bethi denboa güzia etxen eona hoitasei urteak artio, laboantxan, aitamekin (Gam)

ereitzetik errekoaltartino (Laph)
hamalau urthetaa artino (Laph)

Zuberoan beste aldaera iduri bat ibiltzen da: *berriz artino* dakar EAEL-k Etxarrin (273 etnot).

Amiküzeko hurranen adibideek lekuaren erreferentzia egiten dute:

uai, oai han e kanbiatiak dira, oai badira herri andana at elgarrekin oai, aphez kondu ree, baituzu, Amoo, Beauze, Lukuze, Amootze, Oarre artio, ta Arruta re en'ustez, badu alimaleko eta zera uaiko apezak (Behau)

arto xuritzja memento goxoa zen, na^hi bauzu, bena haa artio behar baitzen ekharri arthoa, lehenik behar tzen bildu dena eskuz (Behau)

ta galtzak e belhaunetaa artio (Bith)

noat artio (Ost)

eliza artio (Ost)

e, bate, gü Donapælæra artio ta hor eta gio hantik haat ez gintzi... ez tizü biziki relazioneik, e (Arrü)

hanbestetartio (Gam)

hori izana üzü hortik hasiik hona artio opatia 'operaturik' (Donap)

a heen, ba, ba, ba, apepres bera dik hen Denaplæ, bera, bera uk antxiüño Hazparne^a artio e, ber eskuara uk (Zoho)

heltzen tzü horra artio (Arbe)

Litekeena da Zuberoan nagusi den *artino* ere agertzea, baina ez da Amiküzen biziki baliatzen, guri Zuberoako mugako Zohotan agertu zaigu *artio*-rekin batean:

Madrila artio / *Tolosa artino*

Saihetseko Laphizketan eta Sorhapürün ez dugu *artino* baizik entzun; cf. bi herri horietako etsenpluok:

ouest département eta bõ, Salisetik kostalartino ta landesa... (Laph)
ni ohit niz Donezaharre artino izanik eta phestetala mobiletian e, ordian (Laph)

Salbaterreko phestetaat artino, Biarno da hori deia (Laph)

treñan izana nintzan baxharrik 'txekoekilan Lurdala artino (Sor)

Frantziain beste bazterre artino (Sor)

7.3.2.4.2. Norabide ez bururatua edo norabide adlatiboa adierazten du *-(r)i bü(r)üz* & *-ra = -la buruz* postposizioak Ipar Euskal Herri gehianean. Hona Arberoako Mehaineko adibide alde bat:

oro ortaa buuz ai gira
itzulia zen eta, geroari buuz, biziki
gio Iholdira buuz da beste geinaatikoa

EHHA-ko inkestatzaile batek Oztibarreko Jutsiko lekukoaren jarreraren berri dakar: *zilhorat buruz ari da* erakoak darabiltza eta baita *astoari buruz noa* erakoak ere, baina inkestatzaileari diotsonez, nekez onesten du *astorat buruz* sintagma.

Amiküzzen ere *-rat buruz / büüz* postposizioa baliatzen da:

beste heskuara at bauk juiten baima ^hiz kostala büüz, ze (Ilh)
karra... kin [autobusean] gio partitü gintien Malagaat büüz ta Malaga-
tik geo joan gira Portügalear (Lab)
Iruñari бүрүз ai zün ingüümena e, eztaixüt nuntik debRu re (Donap)
artho metari büüz herrokan plantatzen ginen ta saski batzü han ^herrokan
 (Sor)
ta geroztik Izüalat büüz hain tseur (Laph)
Mithiña zolatik haat, Iholdira büüz (Laph)
Baiunara büüz zertiak (Dom)
patarrak igaiten... bizikletan gaiñen, a, eta gogotik juiten [irriz], plaza-
lat büüz, gogotik [3]juiten (Olh)

Denboraren adierazle ere bada:

bethi alegeratzen primaderari buuz jendia, eguna luzatzen ta lanak e
 (Uha)
maiatzean hasiik üdari büüz (Gab)

Beste batzuetan pertsona batez dihardu:

nausiai büüz be^hi errespetia (Gam)

Honako adibideari zentzu instrumentala hartzen diogu:

han e baizüü xahar bat ni beno xaharra⁸ua ono, horietaik batetaik, bes-
teik etzit ikusten hori (sic) büüz (Arrü)

Zuberoa saihetseko Olhaibiko etsenplua da beste hau:

sonia hasi delaik, ordian gü re gohortzen ai hemezortzi urtheer büüz edo, joiten, balerat, ttuku-ttuku, bena huñez, e, huñez joiten ginen, ez uai bezain ürriin, ez, herri aizöetan

Oztibarren ere *buruz* ibiltzen da norabidea adierazteko; jendeetan datiboa darama ezkerrean eta lekuetan adlatiboa:

emaztekiari buuz (Ibarro)

jendeer buruz hurbiltzen da nahiz eta hartaik beiratia izan (Jut)

Hoztaat buuz (Ibarro)

Jibraltarretik Ostankoa buruz (Larz)

Denbora adierazteko ere adlatiboa:

goizerat buruz (Larz)

7.3.2.4.3. Norabidea adierazten du *gora* adizlagunak datiboari lotzean; hurrannen adibidea 1913koa da, amoroztar batek Trebitschi emana (Etxebarria 1994: 65):

jauzi inik mendiko bidiari gora abiatu

Oztibarren “datiboa + *goiti* = *behea* = *hurren*” ageri da espazioa adierazteko:

arboler goiti joiten dena (Lan)

hua ari duzu mahats-zangoari goiti, arthoari goiti, ta ogian! (Larz)

baxari behea joan duk (Larz)

elizari hurren den restoranta (Lan)

7.3.2.4.4. Kokagunea adierazteko ibiltzen da *-ri kuntre* eta Amiküzen entzun dugu inoiz edo behin:

zomait aldiz eta aldaria iten zizin arrabotean edo apez... apez etxeari kuntre (Bith)

Biaxuneri kuntre dien etxe zunbaitek kaskoiña bazizien (Arrü)

sobera ximineiari kuntre (Lab)

zarzen tzüzten hiru lau bost espala (sic) *elgarri kuntre, xiütik büriüz goiti han iüzten* (Sor)

Arberoan ere entzun daiteke:

horier kontre den herriek (Meh)

Zuberoako hurranen adibidean aurkakotasuna gogoari dagokio:

[3]juiten zütüzün Ospitalepeat han makiek (sic) beitzien, haier kuntre artzeko, eta heben igaiten zilaik, heben bathü zütüzün... gaiain igaiteko, phausatzeko... [3]an tzizien eta geo [3]an ordüko ordria [3]in tzüzün phartitzeko... eta ordin ginizün ikhusi alaëmanak etxen (Sarkp)

XIX. mendeko Etxahun zuberotarrak gogo aurkakotasuna adierazteko *-(r)en kuntre* idazten zuen, genitiboa baliaturik eta Etxepare batek haren garaian genitiboarekin darabil *kontra* kasu guztietan, ez dakar datiborik, baina haren lanak ez dakar kokagune adibiderik. Berebat Pikabeak lapurtera idatzia aztertutik, XVII, XVIII eta XIXan *-(r)en kontra* aurkitu du eta *-(r)i kontra*, berriz, XIXan (1993: 222-3).

Gogo aurkakotasunaren adierazteko genitiboa aurkitu dugu Amiküzeko egungo datuetan:

Francoren kuntre (Arbe)

Domintxainen datiboa ageri da: *gerla iten bitzüten Bidaxiüneko hari eta kuntre*.

Oztibarren “datiboa + *kontra* = *kontre*” baliatzen da espazioa adierazteko:

behiari kontra (Arh)

murriari kontre egonez (Lan)

hari kontra partzela bidira (Ibarro)

Arestikoak kokagunea adierazteko dira, baina aurkakotasuna adierazteko edute genitiboa baliatzen da:

noeiten kontra, zuhau eta noaiten kuntre ta (Larz)

7.3.2.4.5. Prosekutiboa adierazteko, iragatea, ibilera edo itinerarioa adierazten duten aditzak baliatzean, kasu inesiboa + *ga(i)ndi* postposizioa ibiltzen da Euskal Herriko eskuinaldean, Ipar Euskal Herrian eta ondoko ibar batzuetan. Erronkariko Uztarrozen *-n gaintik* ageri da (Izagirre 1959: 285):

áxuriak kiñuetan gáintik eta artzáiak pelota xókiän

Zaraitzuko Espartzan ere bildu da, baina adlatiboa baliaturik (Artola 2005: 222):

fanèn níz bai, karréterara gaindí

Zuberoan *-n gainti* ageri da, Pagolan bildu dugun adibidea lekuko:

nik behar nizün etxekuk lagüntü ta so[ž]a in eta heben gainti in eta...

Arberoan ere *gaindi* postposizioa ageri zaigu:

^bena gu, soldado ioaiten gindelaik hor gaindi (Meh)

Baita Oztibarren ere:

mendian gaindi (Ibarro, Donaix)

heen gaindi erten dena (Izu)

Amiküzeko testuetan amoroztar batek Trebitsch-i eman 1913ko lekukotasuna dugu (Etxebarria 1994: 65):

harma bizkarran pottenguak aitzinan iaztor-otharretan gaindi ibiltzia erbi zango luze baten ondotik

Hurranen adibideak guhaurek Amiküzen bilduak dira:

hemen gaindi eztu intzuten (Ora)

haurrek sufritzen die zernahi izan dain, haurrek sofritu' ear die, ta zumbat ezta heen gaindi holako (Amo)

etxalde ederrak bazien hemen gaindi (Behau)

^heskuara horiekilan, hen gaindikako heskuara oro berdina üzü e, bo, Oarre ta Marxüta ta horiek oro berdin eiten, Amootze ta (Arrü)

[alemanez dihardugula] *bazitzün ba heen gaindi zumait* (Arrü)

ez, heen gaindi ez, ni enüzü ohit biarnesek... (Arrü)

he^en gaindi etzü etxetiarrrik (Mar)

hen gaindikako eskuara oro berdina uzü e (Arrü)

heen gaindi ez (Arrü)

heen gaindi ez tük (Ilh)

ikusten dik guk, hor gandik nihukek ezte mezaik emaiten (Lab)

habooxiak hen geindiko ja habooxiak hilak tzi (Donap)

ordian bulta atendako emen geindi tzira (Arbe)

Zuberoan ere bai:

hor gaindi (Dom, Olh, Sarkp)

7.3.2.4.6. Denboraldi jakin bat adierazten duen izenari lotzean ondokotasuna adierazten du *-tik landa* postposizioak:

hantik landa jin nuntzun senargeia heen utzia binien (Ost)
hemen herrian armadatik landa eosi nien oto zahar bat, errotaik gabe
 (Lab)
alaina erreboluzionetaik landa etzen, etzen Españan e, e, gauza itziülpurdika, e, se... seurra ze (Lab)

Eta denbora kutsu hori lekua ere adieraz dezakeen errealtateari inguratzen zaio, inoiz denbora eta lekua elkarrekin nahasiz:

geo joan tzen hortik landa beste arti[z]an batetaat, han müblia ikhasi dü (Lab)

Bestela ere lekua adieraz dezake:

zübiti landa izan'tzian, zeeit, erre, sü zeeit, bena güiti (Lab)

7.3.2.4.7. Une batetik aitzinera datorren etorkizuna adierazteko *-(t)ik ha(r)at* egitura ibiltzen da izenekin Ipar Euskal Herrian eta Amiküze ez da salbuespena:

primaeran he^en errekolta iten duk, arthoa, arthoa, ap^hiüllatik haat, maiatzean ta (Amo)
gu zernahi gi[ž]az, adin batetaik haat hein batean egoiten ^hiz, e, hein batean (Lab)
atsalde erditaik haat amiña at trenpian eta, sukaldian berdin dantza ^sauzietan espratiñak soñian (Gam)

Zuberoako ipar-mendebalerat joz gero ere berdin-berdin da:

ta biziki gauaz zü meza, uai heentik haat ülhüna ukezü re, ez gützü juiten ez lehen bezala, ja lehenau [ʒ]juiten tzüün oo, oro mezalat (Artüe)
gaiaz zortzi bedeatzi oenetan edo zumeit aldiz goizxago, zazpi oenetaik haat, enfin, ülhündü ondun e, eta geo gaiardi artio (Sarkp)
neskatuk, a, ez, a, huk eztakit ze ai zien, been artin an ixtoriaka ta hein batetaik haat dantzian eta voilà, plazan, herriko plazan, so, pelotakaier so, ta killakaier so ta hola (Sarkp)

7.3.2.4.8. Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaiko ekialdean “*-en + buruan*” postposizioa baliatzen da denbora iragate jakin bat adierazteko; hona Amiküzeko “*-(e)n + bürian*” egituraren etsenpluak:

geo geoztik ukhan gindien berriz beste seme at borz urtein burian
(Behau)

gio jin tzun ba bospasei urthen bürrian ura etxeta (Mar)

lehen aldia hiru ilaiten bürrian, ohit emazü (Mar)

zazpi-zortzi urthein bürrian (Mar)

bulta aten bürrian (Lab)

eta geo urthe zumaiten bürrian assurance obligatoire egin duk (Lab)

zortzi eüinen bürrian (Ame)

Baita Zuberoan ere:

egiün zombaiten bürrian (Sarkp)

7.3.2.4.9. Hala Ipar Euskal Herrian nola Nafarroa Garaiko ekialdean oraino gauzatu ez den denbora tartea adierazten da sintagmari *gabe* erantsirik, zerbait egin aitzinetik edo zerbait baino lehen dagoen aldia edo egoera adierazten du:

hantik biziki denboa abe, konbokatzen dik aphezpikiüteirat, jakiteko zer pasatzen tzen herrian (Zoho)

7.3.2.4.10. Mintzagai den egoera edo ekintzatik harat denbora tarte bat adierazten du *antzüira*-k, betiere aitzinera begira, literaturan-eta *abantzura* litzatekeena; Arbotiko hurraren bi adibideetan, lehenean absolutiboa dugu eta bigarreanean edute genitiboa:

gaña^a, gaña^a aste güzia egoiten berri gabe, eta aste at antzüira itē (?) rendez-vous-a i^sandean holako phesta holako herrian, are, holako tenoreko, ta, dena hola, ilait..., zortzi eüinen antzüira... na hoi ene denboran e oⁿo

7.3.2.5. Beste postposizio batzuk

7.3.2.5.1. Egungo euskaran *-en arabera* egiturak dakarren adiera berean erabiltzen da Zuberoan eta ekialdeko Ipar Euskal Herrian “genitiboa + *arau*”, Oihenart idazlea gogora dakarkiguna, errate batera haren 537. atsotitza:

uztaren arau, zuhurraren jatea; janago dezanak arrotz duke gosea

Amiküze eskualdean ere badira adibideak:

erran dukanaen arau (Zoho)

7.3.2.5.2. Zioa edo arrazoia adierazten du *gain*-ek ezkerrean genitiboa due-larik, beste euskaldun batzuen *-en kontura* edo bestela *dela medio* bezalako en-kide:

bo, gu adineat heldü gintelaik phestak hasi zütziin eta ordian phesten gaiñ, e, phestetan ikhusten gintzin elgar eta ordian iten ezaiützak (Arrü)
jeloskeria... neska aten gaiñian (Ilh)

Baita inoiz aipagaia ere, zertaz mintzatzen den edo zertaz den:

phesten gaiñetik eRain dauiat hitz bat (Ilh)
ez gintziin biziki zertiak Lurden gaiñian ez aipatzen apezak ez biziki ta (Arbe)
heldü zütziin noizetik noizea, bo, hamoost egün emaiten tzizien phe'di-katzen, phedikatzén, bethi fedein gaiñian ta hola (Arbe)
ez gira heltzen zien aztaletaata afera horien gaiñen (Dom)

Hurranen kasuan aginteaz edo autonomiaz diharduela dirudi: *nihau ene gaiñ* (Larri), non lekukoak dioenez, bera hasi baitzen lanean, manatzailerik gabe.

7.3.2.5.3. Hautuaren ideia semantikoa dagoenean edo beste euskaldun batzuen ‘beharrean’ adierazteko, aditzekin edo izenekin *orde* ibiltzea gauza arrunta da Baxenabarren eta Amiküzén ere ez da egitura ezezaguna. Baigorri *partez* ibiltzen da eta Baigorri & Garazi eskualdean *plazan* da ageri den beste egitura bat.

Hona hemen Amiküzeko eskualdean bildu ditugun adibideak:

eniz eon Peihoaden, e, juitekoa nintzan ta geo esposatu niz haat juiteko orde, senarrak... ama eritu zakon, senar zenari (Barta)
hartako ni'tzin ba nik ordian heen pathar ortan itzultzen artzeko orde, ameikano hari peko ordoki heetan lau hektara galdeinik, bena... (Uha)
baño ean orde eaten tüüt bizpahiriü (Ame)
eta ezar orde semian izenian ono... ühüre zako ono nausi izaitea (Ame)
beste nunbeiko jendiak jin orde, heen geindiko jendia bauziü, enfin (Laph)
orori eman balezate hiruetanoietan beRoita amost eta hoietan eman orde, gio gaiñian, behaR likezie halee, untsalaik behaR likezi hiruetan oei urthetan eRetretan sarthü, halee, geo denboa fite badoazü, e (Ber)

Aditzaren ondotik ez, izenaren ondotik doa etsenplu honetan:

asaskari orde (Ilh)

Zuberoa saihetseko Olhaibin ere ageri da:

lastoa re saltzen bitzen edo behier emaiten jatea, ta ihaurgeian ibil orde, uai iaurgeian ezarten tziü bai hua re, ordian, bo, oroen khondatzeko balükezü biziki

Oztibarreko eskualdean ere (-ko) orde egitura ibiltzen da:

kaaliak e joka artzeko orde, balakatz aisio bilduko tzu been lekurat
(Lan)

hutsik eon orde (Lan)

7.3.2.6. Zenbait adizlagun berezi

7.3.2.6.1. Adizlagunetan -kotz & -koz ageri da Amiküzen eta denbora muga irudikatzen du, halako xede kutsu bat harturik edo:

ordukotz (Ora, Ost) & *ordükoz deia hasiak zitian* (Ilh) & *ta aita zenak ... ikhusten tzin denbora, biziki, ordükoz, denbora biziki nekhez izein tzela* (Arbo)

undarrekotz (Arrü)

alaba, lehen alaba hua esposatia zen emezortzi urtetakotz (Behau)

agorrrilakotz altxatia zen berriz (Behau)

oai ik^husten dut haurrek eztakite guk ordukotz bagintien... bagindazkien
l'instruction civique (Behau)

deja ordükotz hemen antzaatio 'abantzatuago' (Mar)

Ez dirudi berdin erran daitekeen *ene idurikotz* (Laph) formaz, bestelako adiera du.

Arberoa eskualdean ere ageri dira denbora eta xede kutsua nahasten duten honelako egiturak. Armendaritzeko adibidea da *undarrekotz* 'azken aldian' eta Mehainekoa, berriz, *ordukotz bazen trakturra* etsenplua.

Ingurune gehiagotan ere ageri da -kotz; Baxenabarren arras erabilia da -kotz aldaera eta Bardozen ere *bizitzekotz* dakar EHHA-k; XIX. mendeko katiximan ere -kotz ageri da Hazparnen. Guk baldintzaren protasian -koz bildu dugu Amiküzeko Amorotzen: *guk saltzekoz... ähäte ta hoitaik*. Oro har, zuberotarrek ere -koz baliatzen dute, afrikatu gabe; errate batera, Ainharben *hartakoz* bildu dugu; aldiz, ipar-mendebalean, Amiküze alderdira so bizi diren xiberotarrek -kotz egiten dute, baina binperrez, Arbotin *ordükoz* dakar gure lekukoak, Zuberorok legez.

Oztibarreko eskualdean ere *-kotz* atzizkiak xedezko, denborazko edo kausazko adiera dakar:

hirugarren egunekotz bateatzen baitzien (Lan)

Lapurdiko kutsua hartu diogu Oragarreko Bartan entzun dugun *baniin bat ordukotzat eta...* perpauseko adizlagunari.

7.3.2.6.2. Xedezko balioa hartzen du *-ko* atzizkiak izenari lotzean eta arras erabilia da Baxenabarren:

lau ektara, arthoko, itzultzeko (Uha)

hen, urthe guziz guk... uai urtheko, oai ogiko ta, ñagoko ta (Uha)

hak hartzen tzintien... ta etxeateko re bazun hala-hala balin bazen, ekhartzen tzizien phaatz, hua re (Ost)

egürraendako eosten tzie ta hola; süko, phüntak, arbolen phüntak, ta guai, arbola lodienen heek biziki Españaat juiten tzü ta lehenau hemen berean maixtüriek eosten tzitzien arbolak xiitik, taulen iteko, segeriak eta beitzien, maixtüriek (Arrü)

kotxoak saltzen tzitzün buxeriako ta gio balima zen bat pullita, behatzen tzen etzeko, bena ezipiginien tropa handiik (Arbe)

7.3.2.6.3. Itxura bera duten *hartako* & *hartakotz* adizlagunek bi adiera har ditzakete gure eskualdean; alderdi batetik kausa edo arrazoa adierazten dute, baina beste alderdi batetik baita xedea ere. Lehenik kausa kutsua dutenak dakartzagu:

hartakotz uai... ze heinetaraardino eona gien, atxikiak izanak gien (Arm)

ehun lieakua, hoi sos da, hartakotz uai iziarriko difeentzia iten du sos horrekilan (Ora)

hartako nitzin ba nik ordian heen pathar ortan itzultzen artzeko orde ameikano hari peko ordoki heetan lau hektara... (Uha)

uai aRopak biziki hunau tzu, bena ordian etzun, etzun, ez, bena hartakotz irudi zakiuzun leheno iziki geiho hotzo zela negia, parce que ezipigin-tien arropak aski beroak (Ost)

ta geo arrunt froneat iorri gitüzte ia, ta hartako bethi ari gintien, geoztik ari gira behar e, Francok preso beiratu gitiela eta hola beharba bizüik jin giela hantik, bestanez irriskatzen gin^diela han egoitea (Lab)

gauzak gehienetik emaiten tzienak, janbunak eta ederrenak, prima bazin, ordian hartako, denek in ahala iten tzizin (Gam)

ordian hartakotz behar ukhan gindian in urthe at et' erdi xerbitxi (Sor)

*ordian heekilan joiten ginen, na ez gina (sic) hartako seroratü, ez (Olh)
uaiko borda berietan, khorbadietan 'sartzeko, ez tie sartzen ahal adar
lüzeekilan, hartakoz (Ainh)*

*ez, ez, bate, ez, ez, bate, ez, ez, ez, hartako zeiküzien erraiten "manexi-
nak" edo ola; gio joaiten nüntziün berdin eta Donaplülal, xerbütü, xerbütü
itea, kafe batzüta, Donaplüeko bestetako edo merkhatü...ietako, ordian
berri; han erraiten tzeitazien, bo, ni Xubeatik heldü nüntzala, ta bon, enün-
düziün Xubeatik jiten (Pag)*

Hurranen adibideok xede kutsua dakarte:

ene amak zin tratia iten, frango una zün hartako (Arbe)

*hoik e etxezain tzien eta erdia emaiten nausiai eta muthila bazüiten,
muthila phaatzan oono, aitatxik eta etxekuek ta ni re hartako doia egon niük
bospasei urthe han ta muthila bagindien aste aldizka güik ta hoiek, oiek bethi
ükhan düte, hau ttipi zelaik oono (Olh)*

hartako doia izan niz ba (Olh)

7.3.2.6.4. Adizlagunak eratzen dira *-ki* atzizkia erantsirik:

*ederki (Behau), finki (Donap), haundizki (Behau), inutilki (Behau),
partikulazki (Behau)*

7.3.2.6.5. Nolakotasuna adierazten du *-rik* atzizkiak ere:

berdeik (Laph)

7.3.2.7. Erakusleak

Zalantza eta eztabaida ugari izan dira euskal erakusleen sorreraz eta bilakaeraz; franko dira, gainera, joko pluralaren inguruan ditugun hutsune eta alderdi lausoak, baina liburu hau ez da leku egokia horien guztien aurkezteko eta are gutiago konpontzen saiatzeko; gaiaren *status quaestionis* zabala aurkituko du irakurleak Martínez Aretaren lanean (2013: 283-301) eta berrikuntza mamitsuak determinazioaren bilakaera historikoaz Manterolaren doktoretza tesian; erakusleen historiaz ikus bedi bereziki (2015: 333-45).

Gure eskualdeko erakusleei so egitean komeni da auzi historikoei dagozkien proposamen batzuen berri ukaitea, erakusleen morfologian ageri den aldakortasunaz jabetzeko besterik ez bada ere:

- Etxepareren erakusleen lehen mailako pluraleko *hok* 'hauek' aldaeraz landa, haren beraren 1545eko liburuan ageri den *hoyec* ere 'hauek' dela —

ez dela ‘horiek’ — defendatzen du Altunak (Azkarate & Altuna 2001:14), eta honela *i* epentesia litzateke: *hau-ek* > *ho-ek* > *hoiek* ‘hauek’; ohar bedi irakurlea egun Baxenabarren bigarren mailako erakusle pluralean *hoiek* eta *horiek* entzuten direla, baina deixiari dagokionez Amiküze ondoko Zuberoa herrialdean erakusle pluralean lehen eta bigarren mailen arteko bereizketa ez da hain gardena; Belapeirek honako hiru mailak dakartza 1696an: *hoyek* / *horik* (abs.) & *horiek* (erg.)¹⁰⁵ / *hurak* (abs.) & *hayek* (erg.); egun EHHA-k Xiberoan: *hoik* (abs.) eta *hoiek* (erg.) lehen eta bigarren mailan dakartza

- hirugarren mailan bi eratako erakusle pluralak ditugu gure eskualdean, *hek* erako laburrak eta *heiek* erako luzeagoak; Manterolak *hek* jotzen du historikoki pluraleko erakusleen bigarren atalzat, eta lehen atalean singularreko *hau*, *hori* eta *ha* erakusleak dakuski; honela, *hau-hek* > *hauek*, *hori-hek* > *horiek* eta *ha-hek* > *haiek* egitura elkartuak postulatuak dituzte, non *hek* pluraleko erakusle zaharra baita, *heiek* aldaera baino zaharragoa

7.3.2.7.1. Erakusle arruntak

7.3.2.7.1.1. Egungo euskararen ohikoa den bezala, erakusleen deixian Baxenabarre eskuineko alderdi honetan hiru maila nagusi daude, itxuraz sinkretismo-rik gabekoak, fonikoki eta morfologikoki elkarrengandik ongi bereizten direnak: singularrean *hau* dugu lehen mailan eta hala itxaron beharko genuke, XIX. mendeko Donapaleuko katiximan ere honela ageri baita. Egungo Amiküzen ez da *haur* aldaera zaharragoaren herexarik gelditzen, baina eskualdeko XVIII. mendeko idazkietan aldaera hori dago; *haur* dakarte 1740, 1782 eta 1786ko liburuek.

Bigarren mailako erakusle singular arruntena *hori* da Amiküzen, baina bada *hoi* sinkopaduna ere ibarrean eta ondoko eskualdeetan ere entzuten da *hoi*.

Hirugarren mailako erakuslea *hua* da Amiküzen: nagusi da nabarmen *r* gabeko aldaera eta ondoko ibarretan ere bada, baina *hura* aldaera osoa ere entzuten da Amiküzen.

Amiküzeko pluraleko erakusleetako lehen mailan *hok* entzun dugu, izan ere, halaxe dakarte XVIII-XIX. mendeetako eskualdeko testu guztiek, eta ondoko ibarretan ere *hok* ageri da egun, errate batera Arberoako Armendaritzen edo Zuberoako Olhaibin. EHHA-k Arbotin *hok* & *hauek* dakartza, bi aldaerak, baina

105 Gogoan izan bedi XIX. mendearen erdialdetik honat Zuberoan bokal arteko *r*-ak galdu direla eta lehen mailako *hoyek* eta bigarren mailako *hoiek* aldaeren artean sinkretismoa gertatzeko aukera dagoela.

guri Amiküzen ez zaigu *hauek* agertu, ezta Lapurdin ezaguna den *hauk* ere: *EHHA*ko datuen arabera, *hauk* entzuteko Izturitze-Beskoitzeraino joan behar da.

Erakusle pluralaren bigarren mailan *horiek* ibiltzen da Amiküzen eta ondoko Arberoan ere honelaxe da; aldiz, Amiküzetik eskuin *hoiek* ageri da Zuberoa alderat.

Pluraleko erakusleen hirugarren mailan (*h*)*ek* baliatzen da hala Euskal Herriko ekialdean nola Ipar Euskal Herri gehienez, hegoaldeko Baztan-Bida-soa alderdia barne. Amiküzen *hek* nagusi da eta ez da harritzeko gauza ondoko eskualdeetan ere halaxe izatea; Arberoan eta Zuberoako ipar-mendebalean ere *hek* bildu dugu.

Baina Amiküzen aldaera gehiago dago pluraleko hirugarren mailako erakusleetan; errate batera, *lurño heek* bildu dugu Arrüetan eta ibarreko herri haborotan ere ageri da *heek*, ondoko Zuberoa ipar-mendebala barne; cf. Amiküzeko *heekilan* ere, baina Arberoan *heiekin* bildu dugu (Arm). Gure datuen arabera Amiküzen ez dago *e* arteko *i* hori, baina Oragarre salbuespena da, genitibo pluraleko *heien* agertu zaigu herri honetan.

Oztibarren ere ohikoa da erakusle pluralen sistema: absolutibokoak dira *hok* / *horik* (Lan, Arh, Jut, Larz, Hoz) & *horiek* (Lan, Hoz, Ibarro, Izu, Jut, Larz, Ibarre) / *hek* & *heek*; aitor dezagun *EHHA*-ko datuetan *hek* anitzez ere gehiago ageri dela *heek* baino, baina *hee-* hasiera ez da ezezaguna: *heetaik* (Lan).

7.3.2.7.1.2. Hona, beraz, Amiküze eta auzoetako erakusleen zerrendak osorik:

Singularrekoak:

hau (Ora, Amo, Behau, Bith, Donap / Olh, Sarkp), *hunek* (Amo, Mar, Gam, Donap), *hunnen* (Amo, Mar), *hunekilan* (Amo), *hunendako* (Donap)

hori (Ora, Amo, Behau, Bith, Uha, Mar, Lab, Gam, Donap, Zoho, Laph) & *hoi* (Arm / Ora, Donap / Arüe, Olh, Sarkp, Pag, Urd), *horrek* (Ora, Behau, Mar, Uha), *horri* (Behau), *horren* (Mar), *hoRendako* (Ora), *hortaz* (Mar / Ber, Pag)

hura (Behau, Gam, Ilh) & *hua* (Arm, Meh / Ora, Amo, Behau, Bith, Arrü, Mar, Ilh, Lab, Ame, Gam, Donap, Arbo, Zoho, Laph / Arüe, Sarkp, Ainh, Pag, Urd), *hark* (Meh / Amo, Behau) & *hak* (Amo, Behau, Bith, Uha, Mar, Lab, Ilh, Gam, Arbo, Arbe / Olh) & *harek* (Olh) —Zuberoako Pagolan edo Sohütan ere *haek* ibiltzen da (*EHHA*)— & *haik* (Sor) —ondoko Zuberoan ere bada *haik* (*EHHA*)—, *hari* (Bith, Uha / Olh), *hain* (Amo, Bith, Uha, Lab, Gam / Olh, Pag), *harekin* (Ame) & *haikin* (Ost, Ame, Donap, Sor / Olh, Arüe) & *haekilan* (Bith) & *haikilan* (Ora, Amo, Gam, Arbo, Arbe, Sor / Olh, Sarkp), *haendako* (Ame) & *haindako* (Bith, Zoho, Sor), *hartaz* (Mar, Lük)

Pluralekoak:

hok (Arm / Gam, Laph, Sor / Olh) & *hook* (Ora, Uha, Mar / Olh), *hoo-kin* (Ost)

horiek (Arm, Meh / Ora, Amo, Behau, Ost, Bith, Uha, Mar, Lab, Gab, Ame, Donap, Gam, Arbo, Zoho, Arbe, Laph / Ber) & *horiik* (Behau) & *oriek* (Amo, Behau, Gam / Dom) & *hoiek* (Zok, Gam / Olh, Oih, Pag, Ündü) & *hoik*¹⁰⁶ (Hel / / Ora, Donap / Ber, Olh, Artie, Sarkp, Oih, Pag, Urd), *horiek* (Lab, Gam) & *horiik* (Behau) & *hoek* (Arrü, Arbe), *horier* (Behau, Lab / Ber) & *orier* (Mar) & *hoier* (Donap), *horien* (Amo, Zoho) & *hoin* (Donap), *horiekin* (Ost, Lab), *hoitaz* (Ora, Donap)

hek (Arm / Ora, Amo, Behau, Ost, Bith, Uha, Mar, Ilh, Lab, Gam, Donap, Arbe / Dom, Olh, Artie, Sarkp, Pag, Urd) & *heek* (Ora, Ost, Behau, Arrü, Mar, Zoho, Sor / Olh, Artie, Sarkp, Loh) & *haik* (Amo), *hek* (erg., Ora, Amo, Uha, Arrü, Mar, Lab, Gam, Donap, Sor) & *heek* (erg., Ora, Arrü, Zoho / Olh), *her* (Ora, Ame, Laph) & *heer* (Zoho) —*heier* dakar EHHH-k Amiküzeko Garrüzen eta ondoko Armendaritze, Landibarre eta Jutsin—, *hen* (Sor) & *heen* (Ora, Amo) & *hein* (Arrü, Lab) & *heien* (Ora) —Arbotin ere *heien* dakar EHHH-k eta baita Arberoan ere—, *hekin* (Ilh, Laph / Pag) & *heekin* (Ost) & *heekilan* (Behau, Arrü, Gam / Olh) & ^h*ekilan* (Amo, Arrü) & *heiekin* (Arm), *hetaz* (Ora)

Leku-denborazkoak:

huntan (Ora, Amo, Uha, Mar, Ilh, Lab, Gam, Donap, Arbe / Olh, Ündü, Ainh, Pag), *huntaik* (Pag), *huntaat* (Amo, Mar, Lab / Olh), *huntako* (Ora) & *hontakoa* (Amo)

orretan (Behau) & *hortan* (Ost, Zok, Lab, Zoho, Laph / Olh, Artie, Sarkp) & *ortan* (Uha), *hortaik* (Bith, Lab, Zoho), *horta* (Lab / Artie) & *hortalat* (Lab)

hartan (Arm, Meh / Ora, Amo, Donap, Sor), *hartaik* (Gam, Sor / Urd), *hartaa* (Donap) & *hartala* (Amo), *hartako* (Ora, Bith, Gam)

hotan (Lab), *hootakoa* (Amo)

horietan (Mar) & *hoitan* (Ora, Amo, Zok, Uha, Lab, Zoha, Donap, Zoho), *horietaik* (Arrü) & *hoitaaik* (Ora) & *ho'etaik* (Ora) & *hoitaiik* (Ora, Donap, Arbe / Ber)

hetan (Ora, Amo, Behau, Ilh) & *heetan* (Ora, Mar, Sor) & *eetan* (Behau), *hetaik* (Donap, Sor / Olh) & *heetaik* (Uha) & *haitaik* (Artie), *hetaat* (Mar), *hetala* (Arrü) & *hetala artio* (Amo), *heetako* (Mar)

106 Ez dakigu *hoik* aldaera Amiküzeko eskualdean ohikoa ote den; Oragarren ageri zaigu eta elkarriketan baliatu duen Donapaleuko lekukoak ama garaztarra zuen; cf. Garaziko Ezterenzubiko *hoik* EHHHko datuetan. Zuberoako ipar-mendebaleko *hoik* itxaron litekeena da, horixe dakar Gèzek pluraleko lehen mailaren absolutiboan (1979 [1873]: 49).

7.3.2.7.1.3. Etsenplu batean Zuberoan baliatzen den *huak* aldaera agertu zaigu Amiküzen, baina iduri luke agerpen maila apal hau anekdotikotzat jo daitekeela:

muthilak e familiako jendia bezala kontsideratiak tzitzun, bethi, o, ta bethi behar gintzin "zu" eRan, ta eRespetatu, e, hek juiten balima zien merkhaturat bunbunak ekarriko zizien guetako, bazitzun familia, huak bezala kontsideratiak zitzun (Bith)

7.3.2.7.1.4. Erakusleetan bokal bat kontsonante bihurtu da Amiküzeko zenbait erabileratan, guk segurik ibarraren erdialdean entzun ditugu adibide bakan batzuk:

biziki lanian ari uzu eta Baiunan eta ingüriü betan eta hola (Mar)

bixkaitaRak juiten tzitian Burgoko mezetat, ofizio betat ze (Ilh)

bistan dena, untsa bizi, ba, bena, lan biziki, jende handi ebeikilan (Gam)

Zuberoako mugan ere agertu zaigu:

behiak han... han bitüztüit, bitüztüü ta lehen e han bitzien, ordian in-tzaurtze at bazen han ta joan tzen aben bazkatzeat (Olh)

7.3.2.7.2. Erakusle hanpatuak

7.3.2.7.2.1. Erakusle hanpatuetan ez dugu singularrean (*hau*) *berhau*, (*hori*) *berhori*, (*hura*) *bera* erako egiturarik entzun Amiküzen; Martxüetan eta Amendüzen erran digutenez ez dira erabiltzen: *hau bera*, *hori bera*, *hura bera* aldaerak eman dizkigute bi herriotan.

Erakusle arrunt *hura* eta *hek* dauden era berean, hauen aldaera hanpatutzat har ditzakegu singularreko *bera* eta pluraleko *berak*. Hona *bera* eta *berak* zerrenda banatan kasu atzizkiak harturik:

bera (Mar, Gam, Arbo), *berak* (Lab, Gam), *berainak* (Arm), *beretzat* (Behau)

berak (Ora), *berek* (Meh / Lab), *berendako* (Arm)

7.3.2.7.2.2. Eginkizunaz denaz bezainbatean, *bera* & *berak* aldaerak izaera berdin edo identikoa adierazteko erabiltzen dira alde batetik, latineko *idem* erakuslearen gisa; lehen etsenpluak singularrari dagozkio:

bizi manera bera, jateko manera bera (Amo)

etzün bate gauza bera (Mar)

*apepres bera dik hen, Denaplae, bera, bera uk antxiño Hazparne^a artio,
e, ber eskuara uk (Zoho)*

*zinez ziiik biak martellu berak joa zizte (Behau)
eta geo denbora berian ano xurta at artzen (Bith)*

Beste etsenplu hau pluralekoa da:

horiek oro ixtorio berak titzie kondatzen (Ora)

Zuberoan bezala, Amiküzen ere *ber* jokatu gabe ageri da, ondoan duen izenari loturik:

*guk eztik diferentziaik bate atzeman eta, ber, ber eskuara uk ba, ber
bera (Amo)*

*bera hori re Españian libro zun ta hemen eztekezü ber Jinkoa geoztik
ohitü zatazü (Mar)*

Mauleko ber akzanta (Mar)

ber apheza üzü bietan (Arbe)

etzü bate ber gauza (Arbe)

ber gauza (Etx)

biziki denboa ber arnesekin (Lab)

ber eritasünaikin (Itho)

hiru urthe t' erdi ber etxean (Ost)

zazpi aneik Biarnon ber etxian (Gam)

etzu bate ber laneko moldia (Uha)

biak ber aldekoak (Ame)

7.3.2.7.2.3. Latineko *ipse* erakuslearen erabileran ere erabiltzen da, nork bere buruarekin duen identitate adieran; hona etsenplu guti batzuk:

bana guai arnes horiekin batek berak belharrak oro iten tü (Lab)

batek berak denak iten tü (Lab)

Lekuari dagokionez, berriz, beste euskalki batzuetan *bertan* adizlagunak adierazten duenaren ordain baliatzen da:

landan berian joiteko (Behau)

herrian berian e (Behau)

beharba Oarren berian baden difeentzia, nun bizi dien (Behau)

*ordian mekanika hua etxe[z] etxe korritzen tzüzün, ba herrian berean
bazüzün (Arrü)*

urdia hiltzen gindien etxen berian (Lab)

hemen berian ez (Mar)

hen berian (Ih)

ta atsean berean txiii, ordian konten besta beitzen, sei erreka, hak kundatzen (Gam)

hanxe berian (Zoho)

7.3.2.7.2.4. Literaturako euskara zaharrean Linschmann-Aresti legearen arabera baliatzen ziren erakusle arrunt *haren* eta *bere* erakusle bihurkaria, bata ala bestea agertzea guztiz eragile sintaktikoen araberakoa zen (Kintana 1971, Martínez-Areta 2013, Rebuschi 1995, Sarasola 1980). Ordea, arrazoi sintaktikoen araberako erabilera hura aldatuz joan da eta egun era guztietako adibideak entzuten eta irakurtzen dira; Lapurdiko idazleen berri dakar Georges Rebuschik (1995), iraganean *haren / bere* sintaktikoki bereiztetik *bere*-ren erabilera hedatzen nolaz lerratu diren. Bi erabilera mota ere proposatu ditu egungo datuak aztertzeko: Baxenabarreko *bere*-ren erabilera murrizgarria eta Lapurdiko eta Baxenabarreko *bere*-ren erabilera hedatua (1989); Ipar Euskal Herriko ekialdeko idazkietan *haren* era zaharrean erabiltzeko tradizioaren berri ere ematen du (1995: 350).

Amiküzeko egungo adibide hauetan *bere* dena aspaldi zaharreko testuetan *haren* izanen litzateke:

ta esposatu zelaik e Mehaineat esposatu zun, bena xantzak nahi ukhan tzin bere belle-mera, senarrain ama dendaria zun, etxen ai zena lanian (Amo)

eta bagitzu ta ahizpa at uai hila dena, hak lau urthetan gue othoiz guziak bazazkitzun guri behatuz, zeen ta bakhotxak gue alde behar bigindien, batzuk bere aldian eta... othoitzak in, ta gio hak ikhasi... ikhasiak zitzin guri behatuz (Bith)

jenealian jina zen neskato hua bere aneia edo aita edo zeit holakoikilan (Sor)

Arestiko hiru adibideak Rebuschiren terminologian “eredu nafar-lapurtar zabal edo hedatua” lirateke, *haren* beharrean *bere* onesten dutenak (1989: 169-72).

Egungo Amiküzeko hurranen adibideetan *bere* aldaera ageri da; subjektua eta genitiboko forma erreferentziakide direnean ohikoa da *bere* aldaera agertzea, izan dadin perpausa iragangaitz ala iragankor; lehen etsenpluak iragangaitzak dira:

geo ordian aitañi joan tzun beaz bere hauRain batheatzeko (Bith)

eztituk bere etxen, alokazione at paatzen die uai (Amo)

Hurranen adibideetan erakusle indargarri den *bera* formak izenordain eginkizuna du eta absolutiboan jokutzen da; anaforikoa da, aitzinean aipatu den pertsona batekin erreferentziakide da:

ene aita zenak bi aneia galdü zitzin katorzeko gerlan ta bera jin ga[¿]a-tiik ta hartaik landa hil (Mar)

ai zun ezantzaen khanbiatzen eta geo uzkali lanpaa aten saetsean ta etxe guzia eRe zun, bera re biziki erre, klinikan eona uzu luzaz (Bith)

Heldu diren etsenpluetan *bere* edo *beren* subjektu iragankorren erreferentziakide dira:

bazun Donapalun mezinder bat eta ordian familia pobrek usu hua zizien galditen, bitzakiten hak etziela galdinen bere... ordian e bazun ba, bazitzun bihotz huneko jende (Bith)

bera alaik e, etxea eztie berea, eztituk bere etxen, alokazione at paatzen die uai (Amo)

bai uai lekhia Irun, bere lekhia hor tzi uai (Mar)

bazüten ürgülü poxi at beren eskuararendako (Behau)

Amiküzeko eskuarain estimia zutenek zütean hori eremian aldetik, ez baitezpada mintzairaen aldetik, bena kultura aldetik defendiatu nahiz beren etxaldiak, beren ontasunak eta hala (Behau)

Hurranen adibidean lehen *beren* ez da subjektu iragankor baten erreferentziakidea, baina ondoko *bere*, berriz, bai:

beaz heen eskuara re difeenta zen, bena kasik gütietsia zen, ba, difeenta, muga emaiten zen amiñi at erran nitzakek eta, ekonomikoki bezala amiñi at, beren eremü abeatsa amiküztarrendako eta beaz bere eskuara ere mugatu bear zuten erraiteko, to, horik xuka ai tuk, Garaziko tuk, eta etxalde ttipiak tie eta lekhü patarrak eta lekhü mehiak eta holako (Behau)

Ohikoak dira izenordainen aldaera hauek egitura bihurkarietan ere:

amiküztarrek bere büriaz halako, hartiak (Behau)

bere büriaz beste (Zoho)

Beste honetan iduri luke elipsia dagoela:

bera bos beiginen, oro joan bakotxak bere, sehi, bi haizpa (sic) Pai[¿]eat ta bestia Bordelen (Mar)

Eta ohikoa da izenordainaren aldaera bihurkaria *bere(n) gain* egituran ere:

aprendiz, geo bere gain plantatia (Amo)

eta ofiziale, langile plantatu dira, bi, ta gio beren gain e hasi (Behau)

7.3.2.7.2.5. Bakartasuna adierazteko eginkizuna ere badute *bera* eta *berak* izenordainek, *nihaur, hihaur, guhaur, zuhaur* izenordain hanpatuen gisa:

bon ba, hotsomaite behiekilan, bon, ba, behar b'itzen kasu in, bon, ezpitzién haurrak berak uzten aal, beitzen bethi jende gehien bat ^heikilan, etzian ez eta uaiko traturrekilan bezambat gerthatzen leheno (Amo)

ta haurrak berak uzten ta, ba, ba, frangotan berak haurrak an etxe^an, ba, ba, joan behar bitzién hak e laneat (Amo)

hamarretaik zortzietan radiua bera ari uzu hor, hen, bon, kozina iteai-kin batian ta... na hori bethi bera, berdin, berdin joain gitzu martxa itea, ena hori zaaalik, ori bera ari uzu e; eurdi artio hori martxa uk emen (Amo)

eta frangotan hua ohian bera utziik, geihena eskolan abiatia zen geo... geokotz, bena, ez trankil, e! Jaki'zazu amak bethi gogoan tziela haur hua: ez ahal tziela nehor e jiin ez araiuz etxeat eta nooitek ez ahal tziela iatzarraazi edo! Nik banakien, ba, bera egoiten bazen goxoan etzela iatzartuko, bena nooit jiten bazen iatzartzen a^hal tzen ta, bo, hortai e, zerna^hi sofritu ut, hortai e. Haurrak berak uztia, ez nehor e ukheitia eta haurrer sürbellatzeko bedeen (Behau)

ezkuntzen tzién eta gio lana herrietan e bazen, galdua geihau juiteko bana guai arnes horiekin batek berak belharrak oro iten tü, ikusten tü, batü etxeak, badira gazteak bate ezkundiak eztiénak (Lab)

hak laboantxa bitzién, ta laboantxan bera ezpitzen ari biziki laboantxan, ta mutilzahar batzuekin tziün (Gam)

uai hau ez, erretretan tziü, bera bizi üzü, ama galdü izi, etzit... hau etzit sekülan ikhusten e, bera bizi üzü (Arbe)

Hegoaldean halaxe da hau, errate batera, Nafarroa Garaiko Aezkoan; hona ibar horretako Hiriberriko adibidexko bat:

lemixian beldur anitz pasten bide zue, klaro, orei pasten diren gouzekin, beldurrak eoten beize, orei xarri bide da bera eotera artses, oino sourik etzeo ja ere pastu

7.3.2.7.2.6. Amiküzen *bera* izenordainaren genitiboko pluralean aldaera berria ageri da gehienik, *beren & been* entzuten da eta ez pluraleko *bere* zaharra:

*uai emazte gazteak e lanean ai tzu kanpoan, beren ilaite saria baiñie,
na lehenau espusatzen tzelaik emazte atek gizonain zerain peko behar tzin
gelditu (Amo)*

Aldiz, hurranen kasuan mugatzailea hartzen du eta singularreko era ageri da; arestiko hiztun berak emana izanik, adibidea interesgarri da:

benā alaik e, etxea ezñie berea (Amo)

Adibide honetan pluralean *beren* eta *bere* ibili ditu lekukoak, bi aldaerak:

*dependitzen dü, baitük familiak Paisen bitüzte ta hordian hek, hek heldü
tuk beren haurrekin eta ez usu heldü, usu ikhusten ezüzten horiek, bauk e,
familia frango, Paisen, Paisen bitüzte haurrak, horiek bee haurrekin heldü
tuk eta, a, hemen Laitzen bazian frango Paisen banketan lanean ai dienak
eta, hoitan... (Lab)*

Hona *beren*-en adibide gehiago Amiküzeko herri haborotakoak:

*amiküztarrek bazüiten beren eskualdeaz ürgülü poxi at eta konsidera-
tzen zuten garaztarrak beno gehiago ziela (Behau)*

arte atez beenak amiña at in ondoan hola heldu züzun launtzeat (Ost)

gizonak beste zeeit... been lanetan ai tüzün (Ost)

merkatu solas edo been solasak bazüzien (Bith)

*politika ere beren alde iten b^eüzuten, ordian amiña at baztertzen tüzien
(Bith)*

hua züzien emazték been erreunioa (Mar)

*eta hek e han eta zertü, been bizia biek, bi sen, bi ahizpek senharrak
brætö gertatü (Mar)*

hek heldü tuk beren haurrekin (Lab)

*katixima re been serorekin akhütsi ta geo aphezek, komunioea hain
tseur hamabi urthetan (Donap)*

ta behi eta a^txte güziek eta batzie been pelentak (Arbo)

hek e ben espantoak (Ber)

Ondoko ibarretan ere berdin gertatzen da; hona Arberoako etsenplu bat:

*neskato gazteak etz^{en} jantzan artzeat, herriko festaz emaiten 'zuzten
seorek beren etxeat (Meh)*

EHHA bilduman Arberoan eta Aturrialdean *bere* genitibo pluralaren adibi-
deak ditugu, baina baita Amiküzeko Arbotin eta Arrüetan ere (89520).

7.3.2.8. Izenordain, galdetzaile, zenbatzaile & determinatzaileak

7.3.2.8.1. Pertsona izenordainak

Hona Amiküze eskualdeko hiztunekin egin elkarriketetan agertu zaizkigun izenordain pertsonalen zerrenda:

ni (Ora, Amo, Behau, Bith, Lab, Ame, Donap, Arbe, Sor / Etx, Olh, Arüe, Sarkp, Ündü, Pag, Urd), *nik* (Ame, Gam, Donap, Arbe / Olh, Loh), *eni* (Bith, Lab, Lük, Gam, Arbo, Zoha, Laph) & *niri* (Amo) — Aturrialdeko Mugerren baizik ez dakar *niri* EHHA-k Ipar Euskal Herrian; *neri* arrunta da Lapurdin—, *ene* (Ora, Amo, Behau, Ame, Donap, Sor, Laph / Olh, Sarkp, Ündü, Pag, Urd), *enekin* (Arm / Ora, Lab, Zoho) & *enekilan* (Arm / Bith), *enetako* (Amo, Bith / Sarkp, Ündü), *nitaz* (Gam, Laph / Sarkp)

hi (Ora, Amo, Behau), *hik* (Amo, Ilh / Olh, Urd), *hire* (Amo, Behau, Zoho), *hiekin* (Ame), *hiitako* (Zoho)

gu (Amo, Mar, Lab) & *gü* (Arrü, Mar, Gam, Arbe, Behas, Laph / Etx, Olh, Loh, Arüe), *guk* (Arm, Meh / Amo, Behau, Bith, Uha, Arrü, Mar, Lab, Gam, Arbe) & *gük* (Mar, Lab, Arbo, Arbe / Olh, Loh, Arüe, Sarkp, Pag, Urd), *guri* (Ora, Bith, Lab, Gam, Arbe) & *güri* (Olh), *güre* (Mar) & *gure* (Amo) & *gue* (Bith) & *güe* (Dom), *guekin* (Sarkp) & *guekilan* (Amo) & *güekilan* (Zoho), *güretako* (Laph) & *guetako* (Arm, Meh / Bith, Arrü, Mar, Lab / Sarkp), *guetaz* (Lab)¹⁰⁷

zu (Behau) & *zü* (Donap, Arbe / Arüe), *zuk* (Bith), *zuri* (Lab), *zure* (Arbe / Sarkp), *züitako* (Ame), *züitaz* (Arbe)

ziek (Barta, Mar, Lab, Gam, Donap, Zoho / Olh, Arüe) & *zeek* (Ora, baita beharbada Gamuen ere) & *zek* (Loh) & *zuik*¹⁰⁸ (Barta), *zien* (Ora, Uha / Dom, Olh)

7.3.2.8.2. Pertsona izenordain hanpatuak

7.3.2.8.2.1. XX. mendearen hasierako datuak ditugu eskualdeen arteko halako alderatze xumea egin ahal izateko. Amiküze Arberatzek ordezkatu zuen *Erizkizundi Irukoitz*-ean (1922-25), baina inguruko eskualdeetako aldaerak ere aurkezten ditugu:

107 Zuberua mugako Etxarrin *gütaz* dakar EAEL-k (273).

108 Bandan amaren ahoan ezarri du Bartako lekukoak *zuik* aldaera, baina beste egun batez *zuik* honetaz galdegitean ez duela baliatzen diosku, *ziek* erraten dela.

	lehen perts	bigarrena	lehen p pl	bigarren p s	bigarren p pl
Aldude	<i>niau</i>	<i>hihau</i>	<i>gu guau</i>	<i>zuhau</i>	<i>ziik</i>
Donibane G.		<i>hihau</i>	<i>guau berak</i>	<i>zuhau</i>	<i>ziek</i>
Heleta	<i>nihaur</i>	<i>hihaur</i>	<i>guhaur</i>		<i>zihauek</i>
Hazparne	<i>nihaur</i>	<i>hihaur</i>	<i>guhauk</i>	<i>zuhau</i>	<i>ziek berak</i>
Bardoze	<i>nihau, nihaur</i>	<i>hihau, hihaur</i>	<i>guhaur</i>	<i>zuhaur</i>	<i>zihauriek</i>
Larزابale	<i>nihau</i>	<i>ihau</i>	<i>guhauk</i>	<i>zuhaurek</i>	<i>ziauriek</i>
Arberatze	<i>niau</i>	<i>hihau</i>		<i>zuhau</i>	<i>zihauk</i>

7.3.2.8.2.2. Izenordain hanpatuen egungo datuei so eginez gero, argi ageri da Lapurdiko ohiturara ez, Arberoko euskarak Baxenabarre-Zuberoakora jotzen duela:

nihau (Meh), *nihau*ndako (Arm) / *sal ak iaurek* (Meh) / *guhaur* & *gaur* (Arm), *gaur artian* (Arm)

Hona Amiküzen egun zein sistema ibiltzen den; lehen pertsona singularra lehenik:

nihaur (**Bardo** / Behau, Lük, Zoho) & *nihau* (Bith, Donap, Zoho, Arbe, Larri) & *nihäu* (Ündü), *nihauk* (**Bardo** / Bith, Mar, Ame, Arbo, Zoho / Dom) & *niauk* (Ora, Uha) & *nihau*rek (Arbe, Laph) & *niaurek* (Behau), *niaun* (Laph), *nihau*ndako (Laph), *nihau*n baitan (Behau)

Ez da aldaera ezezaguna Zuberoan:

nihau (Olh, Oih), *nihauk* (Pag), *nihau*n (Pag), *nihau*ndako (Olh)

Ündüreinen bokal sudurkaria agertu zaigu: *nihäu* & *nihäuenaekin* eta halaxe eman dugu urdiñarbetar batek ere: *nihäu*.

Iraganean ere oinarri hau ibiltzen zen eskualdean, Lopezen 1782ko itzulpena lekuko, baina erakuslearen -r inposiboa gordetzen zuen oraino:

nihaur, *nihau*rek, *nihau*ren & *neure*, *nihau*rez

1740 inguruko eta 1786ko katiximek ere *nihaur* dakarte absolutiboan (62an lehenak eta 81ean bigarrenak). 1913an Trebitschek ergatiboko *nihau*rek bildu zuen Amorotzen bizi zen bardohtar batengandik (Etxebarria 1994: 69).

Bigarren pertsona singularrekoak orain:

hihaurek (Dom, EHHA); aldiz, ergatiboan *hihawk ein baheza* ageri da Bardozen eta baita *hiauk* ere (EHHA)

Lehen pertsona pluraleko adibideak dira honakoak:

gühau (Olh), *gühawk* (ergat., Sar, Behau, Donap) & *guhaurek* (Ora, Mar, Arbe) & *gühaurek* (Gab, Zoha, Laph) —Domintxainen ere *gühaurek* (EHHA)—, *guhaun* (Arrü) & *gühoon* (Arbo) & *guhauna* (Arbe) & *gühauna* (Arbo, Zoho) & *guaun* (Uha), *gühaundako* (Arbo / Ber)

Sistema hau bera Armendaritzen agertu zaigu:

*ordian e urruneko etxe horietaat emazte xaharreño atzuekilan ez gin-
diuzten guhaur uzten e ioaiteat*

Baina *h* gabeko *guaur* ere entzuten da Armendaritzen

eta gero zertzen giniin dizka at eta geo jantzan guaun artian

Bestelako sistema da Zuberoan pluralekoa, non singularreko *i*-ren eraginez analogia gertatu dela baitirudi: *gihãu* bildu dugu urdiñarbetar batengandik.

Era hau ageri da Lopezen 1782ko itzulpenean ere:

gihaur, gihaurek, gihauren, gihaureki, gihaurez

Aldiz, eskualdeko 1786ko idazkian aldaera *u* eta *i*-dunak batera ditugu:

gouhaurec (38) vs. *guihaur baitan* (113) & *guihaurec* (111)

Baina Suarez d'Aularen 1740 inguruko katiximak ez dakartza aldaera *u*-dunak baizik:

guhaurec (29, 54, 85), *guhauri* (61, 106), *guhauren* (64), *guharen daco* (51)

Singularreko bigarren pertsona aurkezten dugu orain:

zu^haur (Uha), *zuhaurek* (Mar) & *zühawk* (Arbo)

Ezaguna denez, xiberotarrek *i*-dunak ibiltzen dituzte:

zihawk ‘zerorrek’ (Pag) —baita Domintxainen ere (EHHA)—, *zihaun* ‘zuhauren, zerorren’ (Urd)

Lopez itzultzailearen 1782ko sisteman ere singularreko paradigmak eragin duen analogia ageri da aldaeretan: *zihaur*, *zihaurek*, *zihaturen*.

Hona bigarren pertsona pluralaren aldaerak:

zihauriek (Dom, EHHA)

Baxenabarren ohikoak diren izenordain hanpatuak ditugu Oztibarren:

nihau (Arh, Donaix) & *nihaur* (Jut), *nihauk* (Lan, Jut, Larz) & *nihaurek* (Bun), *nihauri* (Lan), *nihaturen* (Jut) & *nihau* (Jut), *nihaukilan* (Lan)

hihaur (Larz) & *hiau* (Ibarro, Donaix), *hiaurek* (Lan)

Larzabalen -n bukaera ere ageri zaigu absolutiboan (EHHA): *nihau*n, *hihau*n

guhaur (Larz) & *guhau* (Donaix), *guhauk* (Arh, Bun, Lan) & *guhauek* (Lan) & *guhaurek* (Bun, Ibarre), *guhaun* (Lan, Bun, Ibarro)

zuhaur (Larz) & *zuhau* (Larz, Ibarro, Donaix), *zuhauk* (Arh, Larz, Hoz) & *zuhaurek* (Ibarro) & *zuhauek* (Ibarre), *zuhaun* (Larz, Ibarre)

zihauk ‘zeuek, abs.’ (Larz, Ibarro, Donaix) —cf. *zihauk bizi zizte* & *zihaurek egonen zizte* (Jut)—, *zihauk* ‘zeuek, erg.’ (Ibarro, Donaix)

7.3.2.8.2.3. Egun Ipar Euskal Herrian ageri dira izenordain genitibo hanpatu bihurkariaren aldaera zaharrak. Nafarroa Beherean lehen idazkietarik singularreko lehen eta bigarren pertsonen izenordain hanpatu edo bihurkariak *neure* eta (*h*)*eure* izan dira, baina diakronikoki egitura zaharrago baten emaitza dira bi aldaera horiek. Mitxelena **hi-haur-e* edo **hi-hor-e* zekuskien *heure* & *euren* jatorrian (1977: 210, 12. oh.) eta ikuspegi honen arabera, lehen pertsonan **ni-haur-e* zegoela pentsa daiteke. Batek erran lezake harrigarri dela egitura edo protoforma horretarik euskalkietan horren aldaera guti sortu izana, potentzialki dialektalizaziorako aukera handia izanik, baina *neure* eta (*h*)*eure* aspalditik ditugu eremu arras zabalera hedaturik: Euskal Herriko mendebalean, erdialdean —geroago *nere* eta *zere*-ra laburturik— eta Ipar Euskal Herri gehiengan —ekialdean izan ezik— ageri dira lehen testuetarik; agerpen geografiko zabal honek aski zaharrak direla adieraz lezake.

Nafarroa Behereko idazkietan XIX. mendean ageri dira lehenbiziko aldiz balizko jatorrizko egitura horren saileko aldaerak; Iribarnegaraik Baigorriko euskarara itzuli *Yonasen profezia*-n *nihau*n baitan ageri da (Pagola, Iribar & Iribar 1999b: 132), eta B. Celhabe notario itzultzaileak ere, *nihaturen* dakar Bardozeko katiximan; bihurkarian Donamartiriko katiximak *guhaun buriak* dakar (253). Berriagoetan, Eñaut Etxamendi garaztarrak honakoa dakar *Azken elurra*

eleberrian (1975: 17): *Ta geiheo* (sic) *dena arrotz nindukexu nihaun denbora guzian toki hoitan.*

Baina idazleen aitzineko lekukotasun guztiak, *neure*, (*h*)*eure* erakoak dira eta idazle lapurtar klasikoen lanetan ere *neure* & *heure* aldaerak dakuskigu, nahiz XVIII. mendean dagoeneko ageri den Ipar Euskal Herrian aldaera indartuen erabilera ahulduz doala; galera honen berri dakar Rebuschik (1989: 164). Errate batera, Etxepareren 1545eko liburuan *ene* hasia da *neure*-ri lekua kentzen (1995: 346). Hona idazle baxenabartarren adibide zahar bat, 1740 inguruko Suarez d'Aulanen katiximan ageri dena: *esquerr dauçut neure bihotz guciaz* (125); idazle batzuen erabileraren berri dakargu:

Etxepare: *neure* (6, 112), *egin ezak heure* (18) & *eure* (244); Leizarraga: *neure*, *eure*; 1651ko pregariak: *neure* (17); Oihenart: *neure* (306), *eure* (90); Tartas 1666 [1987]: *neuré* (67); Bazkazane 1762: *neure* (201), *heure* (222); Lopez: *neure* (283, 406); Laneufville: *neure* (160), *heure* (14, 101); Donamartiriko katixima: *neure* (274); Cazenavek Garaziko euskarara itzuli *Jondoni Juane apostoliain apokalipsa: neure* (114); Cazenaveren San Mateoren ebanjelioa: *heure* (23).

Mitxelenak zuberera zaharrerako lehen pertsonan *nore* eta *nure* dakartza (1977: 102) eta bigarrean *ore* (210); Tartasen lanean *eman eçac ore diharria ore anaiegatic* (1996 [1672]: 112) dugu eta Belapeireren katiximan *ore creaçalia errecevi eçac* (1696 I: 47); aldaera hori bera ageri da Zuberoako XVIII edo XIX. mendeko *Charlemagne* pastoralean ere (Oihartzabal 1991: 130); lehen pertsonan *noure* "nure" dakar.

Eta zein da Amiküzeko egungo erabilera? Gure datuetan ez da *neure*, *heure*, *geure* edo *zeure* aldaeren adibiderik ageri, honelakoak galdu dira, Linschmann-Aresti legearenak egin du, testu zaharretako genitibo bihurkari horien eginkizuna izenordain arruntek betetzen dute orain, Amiküzeko etsenplu honetan gertatzen den bezala: *ene burian beitzen hori eta ene bihotzean* (Bith); arestian ikusi dugunez, 1740 urte inguruko katiximako adibidean *neure bihotz guciaz* (125) zena, *ene bihotzean* da Bithiriñako egungo erabileran. Videgainek 1989an Oztibarren bildu emaitzetan ere ez dugu *neure*, *heure*, *geure*, *zeure* erako izenordainik ediren.

7.3.2.8.2.4. Erakusleetan erakutsi dugu arestian eguzkialdeko Euskal Herrian aldaera hanpatuek bakartasunaren ideia adierazten dutela; izenordainetan ere berdin gertatzen da. Amiküzen arruntak dira era honetako etsenpluak:

beni nihau nindiinan Arbaatzetik (Arbe)

Amorotzen bizi zen bardoztar batek honakoa kontatu zion Trebitschi 1913an (Etxebarria 1994: 69):

*bi urthe et erdin bürien hil zatan ama. Gero nihaur gelditü haurhideki-
lan ez deuskerietan makhürtü*

7.3.2.8.3. Izenordain zehaztugabeak

7.3.2.8.3.1. Polaritate negatiboa duten izenordain zehaztugabeetan, Baxenabarren *nehor* da hegoaldeko eta erdialdeko aldaera nagusia: Baigorriin —halaxe dakar Trebitsch-en 1913ko etnotestu batek (Etxebarria 1994: 53)—, Garazi-Oztibarretan eta Arberoan ibiltzen da, baina Amiküzen ere ibiltzen da, izan ere, Bithiriñan, Uhartehirin, Larribarren eta Arberatzen *nehor e* entzun baitugu eta Arberatzen *nehorek* eta *ne^hoikin*. Berebat, Behauzen *neor* eta *neori* bildu ditugu eta Gamuen *neoin*; Donapaleun *nehor*.

Entzun dugu *nihor* aldaera ere: *nihor e* (Zoho), *nihori* (Ilh), *nihokin* (Lük).

Gaineratekoan, Amiküzen gehien agertu zaigun aldaera *nihur* da (Ora, Amo, Lab, Ame, Arbo), *nihuk e* (Laph). Kasu ergatiboan jokatzean atzizkiaren pleonasma gertatzen da: *bena juiten hiz Bearnoat, nihukek eztie emaiten meza at e* (Lab). Bada *nihukek* Martxueta eta Domintxainen ere. Arüen berriz *niuek*. Datiboan *nihuri* dago (Ora, Ilh) & *ni^huri* (Sar).

Bardozeke euskara hein batez kide du honetan Amiküzeakoak: *nihur e*, *nihun e* / *nehur* / *nehor* & *nehok* eta *nehun* bildu ditu EHHA-k herri honetan.

Zuberoako ipar-mendebalera inguratzean *nihu e* ageri zaigu (Olh, Pag, Sarkp) eta bokal sudurkaria ere entzun dugu *nihū e* (Olh, Oih); cf. *nihur e* (Ber). Hemendik eskuin Zuberoa barrenean *ihūr* aldaera nagusitzen da eta berarekin batera *ihūntik*, *ihūrat* erakoak. Erronkarin Azkuek *eūr* eta *eunr* ‘inor’ aldaerak bildu zituen Uztarrozen; Bidankozeko euskaran, berriz, *ñor* aldaera ibiltzen zen.

Lekuzkoetan honako izenordainak ditugu Amiküzen:

neon (Gam) / *nihun e* (Ora / Dom) & *niun e* (Sar, Uha, Arbo), *nihunkoek*
‘inongoek’ (Lab) / *niat* ‘inora’ (Amo, Ame) & *nehat* (Behau) / *nihuntik* (Larri)

Nolanahi den ere, Garrüzen *nihun e*-rekin batean *iun e* dakar EHHA-k, xiberotarren gisa.

Oragarren eskema zaharreko adibide bat agertu zaigu, ‘norapeit’ adieran *nihat* ‘nehorat’ erran du lekukoak; cf. 5.3.4.17. §:

nik ez tut baliatu bate, bate, bate gaztetasuna, ezipiginten libro dantzan artzia, ordian phestetaat eta nihat uñez gintzun, uñez gintzun, ni enuzu izan Aizeko¹⁰⁹ phestetan ezkunt urthe artio, amak ez gintzin uzten, e, ola ginten, e

7.3.2.8.3.2. Pertsonetan *noit* 'norbait' izenordaina ageri zaigu Amiküzten:

noit (Ora, Amo, Behau, Bith, Arrü, Mar, Lab, Gam, Arbo, Zoho, Sor / Olh, Pag), *noitek* (Ora, Bith, Lab, Sor), *noiti* (Loh), *noiten* (Arrü, Lab)...

Oztibarren ere bada *noit* 'norbait' (Jut), baina ikus *noait* (Lan).

Izan ere, Landibarre ondoko Ostankoa Amiküzeko herrian ere berdin entzun dugu:

beste noaitekin heldu bazen, ordian baliatzen gintzin aski gehixoot lan iteko, eta bon

Eta Martxüetan eta Olhaibin ere *noait* agertu zaigu.

7.3.2.8.3.3. Eskualdean ageri zaizkigu *zernahi* eta *nurnahi* izenordain zehaztugabeak ere; *nornahi* ez dugu ausarki entzun, baina badira adibideak:

ta dantzan nornahikin ari, baltsan iziarri azkar nintzan, nornahi heldü zen baltsan artzeko, ni laket nintzan, ba (Ame)

bona Xübera konprenitzen tziü, nornahik hek bezain untsa gio (Donap)
etzün nornahi gio, kasü, e, hua hobenetaik (Donap)

uai nurnahik emaiten ahal bitü, behiak han bitüztüt, bitüztüü ta lehen e han bitzien, ordian intzaurtze at bazen han ta joan tzen aben bazkatzeat (Olh)

Aldiz, *zernahi* ausarki agertu zaigu, hala izenordain gisa nola izenaren ondoan; lehenik izenordainaren adibideak dakartzagu, Amiküze eta Xibe-roakoak:

erdia emanez nausiari, ta, zernai izan dain, beti erdia nausiari, e (Amo)
haurrek sufritzen die zernahi' izan dain, haurrek sofritu' ear die, ta zum-bat ezta heen gaindi holako (Amo)

zernai sofritu ut (Behau)

animaleko kantitatiak, lüsaarra bazün beti, zernahi izan dain (Gam)

Hurranen adibideak Zuberokoak dira:

kabaliak e zernahi, oro phikatü behar, hirü aldiz, e, in behar pikürak eta eitasün berri oiekin eta ezin sal (Olh)

109 Mehaineko norabidean da Oragarreko Haize auzo hertsia. Lekukoak ez du *h-* ahoskatzen.

salda t geo xitxi buxi bat, edo āhāteki edo zerbeit, baldin bada konserbatürretik elkhi eta ola, legüma, eta zernahi, ilharra bardin, tomatía ta (Arüe)

aldiz, Donapaleün merkhatü haundia izan düzüü, bai behiz edo ardi[z] edo urdez han zernahi bazüüzün (Sarkp)

busti nülakoz tzola zerna^hi erran 'zitadan (Urd)

Ondoko adibideetan izenaren ondoan ageri da *zernahi*:

zernahi baxtart izain tzen (Arm)

bena gotik lanean ariz, zerna^hi gi[ž]az (Lab)

hori eztaikit, na jende, jende zernahi biltzen da hor (Lab)

zernahi gi[ž]a in dezaziün, beha'uzu eskola amiño at, laboantxan gelditzeke re (Mar)

arrapartitzen lanean, baxeen iteko, edo xerbitxatzeko ta ordian bazen zernahi jende handi hoitaik heldü zenik, abeats oitaik sustut, ta so[ž]a beitzüiten (Olh)

Leku-denborazko kasuetan ere bada *-nahi* hitz elkartuan:

gü hola ai gintien bethi, noanahi joanik ee, gü dantzan ai gintien, ta soldadokan e (Ame)

atsaldean beste at berdin, ta nuiznahi, ta hola (Ame)

nunahitik, e, makiñun hoik (Ber)

7.3.2.8.3.4. Ibiltzen da eskualdean *norbera* izenordaina ere:

bakhotxak, norberak bere lanak egiten tu (Arm)

katixima zuekilan ikhasi bitut, ta lanjerrean balimada haurra, norberak badu eta... batheatzeko dretxoa, nihauk batheatiko izit eta zue gañen... zue gañian izain da (Bith)

ta gio norberak e bitzien (Bith)

e'tük hautüik e, norbeak e behaik amiñi at zertü ben büria e, bestañez, hola jin beharra desteña, desteña, xortia (Sarkp)

Zuberoa barrenerago, *nurbea* bildu dugu Urdiñarben.

7.3.2.8.3.5. Guztiz ohikoa da Amiküzen *deus* eta *bate* izenordainen erabilerara; gauza jakina da *deus* izenordaina palataliza daitekeela: *deus* → *ddeus*; hona lehenik beraren adibide sorta bat:

ta geo bethi bat edo beste heldu zun eritasunez edo espa^akiik, edo hola ta hola, zeeit berri, bena ddeu[ž]e xuxenik, e (Bith)

eta frangotan jeloskeriak inaazten tzin ddeu[ʒ]ik etzelaik (Bith)
ta merak ddeusik etzikan in, hak erran tzikan ze pasatzen tzen (Zoho)
ddousetako inportantziaik hiitako (Zoho)
guk utzi gintzin ta gio undarrian hunek etzin belharrrik ez deuse iten ta
gio undarrian naharra nausitu uzu uain eta uai naharra sasotia uzu (Uha)
horiek e... katixima ik^hasi zi eskuaraz, e, nik oixtian erten nienna, ikhasi
dizi katixima deus e konprenditü gabe ze erten gindien (Gam)
neorek etzizien deu[ʒ]ik iten, e (Arbe)

Adibide sorta honek *bate* izenordainaren erabilerearen berri dakar:

bana hartia du hemengoa e, eztu eta bate kasik egiten hango eskuaratik
 (Arm)
bate etzit bate baliatu (Ora)
uaiko haurrak e etzu bate lehenekoak beno erremesoo, bate, nik beti
erten tzin (?), ena uaiko aita-amak zu lehenekoak beno aulo (Amo)
ordian gerla jina b'itzen, geo ordian etzun bate ber gauza lanian ar-
tzeko (Bith)
jaun ertorak eta... eztakizut bate nola, zeeit othoitz galdein tzin haundi
bati ta etzakizun (Bith)
aita, aita urde hiltzen eta gio, ordian, lehenik amak behar tzin odola
nahasi, geo ni, ta ezpinin bate maite hori eta geo bazitzun muthilak (Bith)
etzu bate ber laneko moldia (Uha)
semia re hua zelibater, bate ezkontzeko, aita-semiak biak (Uha)
alaba etziin lanian bate eauntsi (Mar)
denak berdin gintzun, ez gintzin bate eta jelosi izaiteik aizoaindako,
heek e be gi[ʒ]an, hola beitzen bizia (Mar)
batü etxeak, badira gazteak bate ezkundiak eztiinak (Lab)
baitziu eta donao batzi, etxe ederretan eta kanpaña, kanpaña ederre-
kilan, zumaitzuk ama baizie ono, beste atzi^h bate, ezpeitakit ze pentsatzen
düten, ze eineuten, jein'tzi egün bat, segidaik ez, beharko tzie liirrak'tsaldü,
bizi dieno eta, ezpatüzte bizi d'eno saltzen... (Gam)
erretretaik etziiten, gü bost haur, etzen ai[ʒ]e bizitzia, bena berdin ius
bizi, sos güti ikhenik e, goxoki, uai bada anixko jeloskeria, eta lanean ari
goxoki, eta oai, aldiz, ezta bate ber goxotasüna (Olh)

7.3.2.8.4. Galdetzaileak

7.3.2.8.4.1. Amiküzen ez dugu kasik *nor* galdetzailea baizik entzun: (Arm / Bith, Mar, Donap, Sor / Pag). Aldiz, Zuberoan aise ageri da *nur* (Ber, Olh,

Artüe, Oih); berebat, Urdiñarben *nurbait* entzun dugu. Amiküzen *nur* entzuteko muga ondoko herrietara joan behar da: *eztakizüt nur dien berdiak eta...* (Laph); Zohotan ere entzun dugu: *ta erran tzatan nur zen*, nahiz *nor* ere entzun dugun Zohotan. Arbotin ere *nur* dakar EHHA-k. Laphizketan *nurbera* agertu zaigu mintzatzean.

Denborazko galdetzailean *noiz* nagusi da Amiküzen (Meh / Ora, Behau, Lab, Donap, Zoho, Arbe, Sor / Etx, Olh, Artüe, Pag), baina Sarrikotan bederen *nuiž* entzun dugu eta baita Zuberoako Oihergin, Ainharben eta Urdiñarben ere. Berebat, bada *nuižnahi* aldaera Amiküzen (Bith, Ame); Zuberoa mugako Oihergin ere entzun dugu *nuižnahi*. EHHA-k Arbotin dakar *nuiž*.

Amiküzeko Zohotan *nula* agertu zaigu eta uler daitekeenez, baita Zuberoa muga-mugako herrietan ere (Ber, Dom, Olh, Artüe, Sarkp, Oih, Ainh, Pag, Urd), baina Amiküzen *nola* da nagusi (Hel, Arm, Meh / Barta, Ora, Amo, Behau, Bith, Ost, Donap, Uha, Sar, Arrü, Mar, Lab, Gab, Ame, Gam, Zoha, Zoho, Arbe, Sor, Laph / Olh, Oih, Artüe, Sarkp, Pag, Urd); ageri denez, xiberotarrek ere badarabilte *nola* aldaera.

7.3.2.8.4.2. Bestalde, lekuzko galdetzailearen adlatiboan *naa* ‘nora’ (Arbo) & *naat* ‘norat’ (Laph) adibideak entzun ditugu, bokal asimilazioa gertaturik; hona etsenplu bat:

ikhusten ziena ürrin eta ze... naa büüz ari gintien (Arbo)

7.3.2.8.4.3. Erronkari, Zaraitzu eta Ipar Euskal Herriko eskualde aski zaba-lean, *zoin*, *zonbat* berrikuntzak baliatu dira galdetzaileetan, ziur aski *nor* galde-tzailearen analogiaz. Arberoako Armendaritzen *zonbat* & *zomat* bildu ditugu eta Mehainen *zoin*, baina ezaguna denez, *zuiñ* eta *zunbat* aldaera berriak entzuten dira Zuberoan eta Amiküzeko alderdi batzuetan. Errate batera, Labetze, Gabadi eta Arbotin *zuin* entzun dugu.

Idazki zaharretan Etxeparek *zein* eta *zenbatetan* dakartza, eta Akizeko apezpikutegiaren menpeko eskualdeko XVIII. mendeko katiximetan aldaera analogikoak ageri dira: *zoin* bietan eta *zonbat* 1786koan; bigarren honetan badira bi *Cumbat* (15), beharbada *zunbat* izan litezkeenak.

Amiküzen galdetzaileetan aniztasun handia dago egun. Galdetzaileetan *zonbat* & *zomat* saila ibiltzen da eta baita *zunbat* & *zumat* erak ere; hona bakoitza *zein* herritan agertu zaigun:

zonbat (Behau, Bith, Arbe / Loh, Artüe)

zomat (Arm, Meh / Uha, Mar, Zoho, Arbe / Etx, Olh, Ündü)

zunbat (Amo, Arrü / Sarkp)

zumat (Amo, Ost, Lab, Mar, Ame, Gam, Arbe / Ainh)

Oztibarren ere *zoin* & *edo zoin*, *zonbeit*, *zonbat* galdetzaileak ibiltzen dira.

7.3.2.8.5. Zenbatzaile zehaztugabeak

7.3.2.8.5.1. Baxenabarren ohi den bezala *batzu* & *batzü* ibiltzen da Amiküzen absolutiboan, ergatiboa da *batzuk* & *batzüik*; hona sail honen erabileraren zerrenda:

batzu (Arm, Meh / Amo, Bith) & *atzu* (Ora, Ost, Bith, Uha) & *batzü* (Mar, Lab, Gam, Arbe, Laph / Olh, Loh, Pag) & *atzü* (Mar, Donap, Zoho, Arbe, Laph / Olh, Pag)

batzuk (Amo, Bith) & *atzuk* (Amo, Bith) & *atzüik* (Gam, Arbe / Dom, Pag)

Ez dakigu zein neurritaraino gertatzen den *batzuk* aldaera absolutiboan erabiltzea, hurranean bi adibide hauetan afera ez baitago horren argi:

biziki maite nitzin hor, joaiten bitzin txekhatzea, enfin Christof Colon eta joan beitzen, bena, beste atzu^s leituz nitxin eztaizut bate noa joan tzien, ahatziak tzit (Bith)

eta hetaik landa joaiten tziün ostatiño hoitaat amiñe at denborain pasatzea, batzü egüna oro iaiten, beste atzüik egüna ta gaia e bai, ba ahatzeik, butilla anoai so, eta bozka komesa eta etxaldeetako komesa ta... (Pag)

Ergatiboan *batzuek* agertu zaigu Zuberoako Olhaibin:

batü[ç]a beitzüiten hor, Berrho deitzen tzien batzuek

Ikus jarraian gainerateko kasuak:

batzuen (Bith) & *batzuin* (Lab) & *atzuina* (Behau)

batzuekin (Gam) & *atzüikin* (Lab / Pag) & *batzuekilan* (Arm) & *batzüikilan* (Bith) & *atzüikilan* (Behau)

atzüendako (Lab)

batzüitan (Pag) & *atzutan* (Bith) & *atzüitan* (Pag) & *batzuetan* (Arm) & *beste atzüitan* (Arrü)

batzüitaa (Pag)

Oztibarren ere izenordain zehaztugabeen *batzu* absolutiboa (Lan, Arh, Izu, Jut, Larz, Bun, Ibarre, Ibarro, Hoz) / *batzuk* ergatiboa (Ibarre, Ibarro) bereizten

dira; ikus, bestalde, *batzuri* (Izu), *batzuz* (Izu) eta *batzutala* (Larz) alde batetik eta *batzuendako* (Arh), *batzuekin* (Izu) bestetik.

7.3.2.8.5.2. *zeinbait* / *zenbait* / *zonbait* / *zunbait*

Iraganean *zein* + *bait* osagaien elkarketaren bidez *zeinbait* aldaera sortu zen; emaitza hau osorik dakar Etxepare idazleak XVI. mendean *zenbait*-ekin batera, baina ondotik *zenbait* aldaera disimilatua nagusitu zen. Halaz ere, Akizeko apezpikutegiaren menpeko eskualdeko 1740 urte inguruko katiximak aldaera zaharraren hondarrak dakartza oraino: *ceinbait* (70, 83) & *ceimbait* (17, 66). Herexa horiekin batean era berria dakar ere: *cenbait* (16, 21, 52, 67, 83, 106, 109, 110, 116). Katixima honek berak *çonbait* berrikuntza dakar (110).

Katixima honen 1786ko edizioak *zeinbait* zaharra dakar oraino: *ceinbait aldiz* (90).

Adieraren aldetik indeterminazio maila bat adieraz dezake *zemait*-ek:

seme hoi beharba espuf[é]atzzen delaik eta inen dü armiztiz zemait beharba Frantziari edo, refüjize hori edo, eztakite sekülan zer gerthatuko den, noiz inen den? (Ora)

Ipar Euskal Herrian eta Pirinioetako Zaraitzu eta Erronkari ibarretan *nor* galdetzailearen eraginez *zenbait* → *zonbait* analogia gertatu zen eta *bait* → *beit* ere bilaka daiteke eta bestalde, *zon-* → *zun-* bilakaera fonikoa ere gerta daiteke, Zuberoa eta Amiküzeko *zunbeit* aldaera lekuko. Arberoako Armendaritzen *zonbait*, *zomait* & *zomaitek* erak bildu ditugu eta Zuberoan ere bada *zo-*: *zonbaitek* bildu dugu Ainharben eta *zonbait* Arüen.

Amiküze eskualdean ezagunak dira arestian aurkeztu ditugun zenbatzailen bilakabideok, baina bada *zen-* egituraren herexarik ere oraino:

zenbait (Ora, Uha) & *zemait* (Uha) & *zemeit* (Loh)

Jarraian aurkezten ditugunak *zen* → *zon* higitu diren adibideak ditugu, kopuruan eta erabileran anitz direnak:

zonbait (Arm, Meh / Amo, Behau, Bith, Arrü, Lab / Olh, Arüe, Sarkp, Ainh) & *zonbeit* (Ora, Amo, Behau, Mar, Lab, Gam / Dom, Olh, Arüe, Sarkp)

zomait (Arm, Meh / Bith, Arrü, Mar / Arüe, Sarkp, Ündü, Ainh, Pag, Urd) & *zomeit* (Meh / Behau, Bith, Uha, Zoho / Etx, Olh) & *zomeitek* (erg., Ora)

Eskualdekoa da *zon* → *zun* higidura ere:

zunbait (Bith, Arrü, Gam / Olh, Sarkp, Pag) & *zunbeit* (Arüe, Sarkp) & *zumbeit* (Dom)

zumait (Amo, Zok, Ost, Bith, Arrü, Lab, Ilh, Ame, Gam, Donap / Olh, Arüe, Sarkp, Pag, Urd) & *zumeit* (Ora, Amo, Bith, Lab, Arrü, Mar, Arbo, Arbe, Laph, Sor / Ber, Arüe, Sarkp)

Zenbatzaileok pluraleko *-tzu* atzizkia hartzen dute paradigmaman; hona absolutiboa:

zonbaitzu (Bith) & *zonbaitzü* (Zok / Olh) & *zomaitzu* (Bith) & *zomaitzü* (Pag) & *zonbeitzu* (Bith) & *zonbeitzü* (Arüe, Sarkp) & *zunbaitzü* (Ame) & *zumaitzü* (Arbo) & *zumeitzü* (Ame / Dom)

Hurranen sailean ergatiboko aldaerak ditugu, bilakabide foniko eta guzti:

zomaitzuk (Amo, Arbe) & *zomaitzüik* (Arbe) & *zonbeitzuk* (Bith) & *zomeitzuk* (Bith, Gam) & *zumaitzuk* (Gam) & *zumaitzüik* (Arbe) & *zunbeitzuk* (Amo) & *zumeitzük* (Arbe / Dom)

Ergatibokoak dira honakoak ere, baina morfologia konplexuagokoak:

zonbaitzüek (erg. Sarkp) & *zunbaitzuren* (Gam)

Eta hartzen ahal dute atzizki txikigarria ere:

zonbeino (Arrü) & *zomeino* (Arbe)

Lekuzko aldaerez denaz bezainbatean, *nunbaitik* (Bith) etsenplua dakargu.

7.3.2.8.5.3. Zenbatzaileetan *an(h)itz* aipa daiteke, ondoan ez kantitatea baitezpada, baizik eta nolakotasun kutsua duen errealitatea adierazten duen adizlaguna ukan dezakeena; adibide hau eman zion 1913an Trebitschi Amorotzen bizi zen bardoztar batek (Etxebarria 1994: 69):

hatik anhitz kuntent Bardoztarren ikhustiaz eta hekin xapo'at elhekan hartiaz

Aipagarri da *guti* zenbatzailea ere, eskualdean gaindi biziki baliatzen dena:

jende guti (Arm)

hitz gutiz konprenitzen zen (Arm)

ez hameste sosekin, gutio sosekin, bena alaik e elgarren atxikimendu hori bazizien geio (Amo)

kautxua ezartzen tzin eskalapuin tzolan, ba, azantz guti iteko, besteñez katxeta lodi atzükilan ezartzen tzizien (Bith)

eskiulan gütio (Arrü)

güti, sü zeeit, bena güti (Lab)

Bizkain deia ^h*eskualdun gütiao duk* (Lab)

Peiroradeat zumait aldiz, bena güti uai (Gam)

arauka gütiago (Laph)

gutiao (Etx)

sos güti ükhenik e, goxoki, uai bada anixko jeloskeria, eta lanean ari goxoki, eta oai, aldiz, ezta bate ber goxotasüna (Olh)

me[z]inderra Donaplon eta, in aala güti (Arüe)

emeki-emeki [ʒ]unago eta gütiago (Sarkp)

güti düzüü khanpun negik eta igaiten tüztenak (Ainh)

ez biziki, arrañik güti, aurthen dizüt denik e, e ikhusi arrainkai zumait, aurthen, bena ezüzüü ez hanitx e, edo herrin sorthiak, xokhuak ezagützen tüztenak (Pag)

hua zian eskaltua, sükreik ez deu[ʒ]e gabe, ogi güti zelaik hartaik [ʒ]aten nin (Urd)

gaiza güti (Urd)

Palatalizatzean *gutti* bilakatzen da:

eskualdun guttio (Amo)

biziki gutti (Behau)

erteko maneran ez, gutti (Bith)

Hona *frango* zenbatzailearen adibide sail bat:

sakrifizio frango eiten (Arm)

frangotan (Arm)

gure ixtorio frango elgarr... zer iten gintzin, elgarretaatzen b^eiginten alaaia (Amo)

Armandaitzen ta Heletan eskuara berxia ute ene ustez, nik heeena emaiten dut frango aise (Behau)¹¹⁰

ahaide frango (Bith)

frangotan jeloskeriak inaazten tzin ddeu[ʒ]ik etzelaik (Bith)

frango aldi (Mar)

eta bidira familia frango ta haurrak heskuara ikhasten tzie ik^bastolan (Mar)

frango laborari gitekin (Lab)

110 Lekuko behautarrak arberoarren euskara aise ematen duela dio, aita-amak arberoarrak zituen.

ene amak zin tratia iten, frango una zün hartako (Arbe)
ahatziik e frango, bena ezpigia ai haboo khantiüz aspaldi (Olh)
frango (Loh)

Aldiz, Zuberoa barrenean *franko* bildu dugu urdiñarbetar batengandik.

Eskualdekoak dira *hameste* eta *hunanbeste* ere:

kanpañan ezta hameste (Ora)
ta hak etzela hola posible, ezarri zien dener hunemeste asurantzta labo-
rarier, e, ta geoztik asuatia gira (Ora)
galdua merian iten, hola, hunanbeste behar tzela bildü ta (Mar)
eta gio emaiten hunanbeste, hamoost urthekua, oküpatzen hola (Mar)
hamar urthez emaiteko sos hua giileat... urthian hunenbeste (Zoho)
zertako, hunanbeste denboaz hori da bakharrik gehienik karbona egi-
ten düna (Laph)
emaiten tzeizkün hunanbeste (Olh)
behar tziünin hunainbeste aatxe eman errekisizioneat (Sarkp)
ez beste hunanbeste (Ündü)

7.3.2.8.6. Determinatzaile zehaztugabeak

7.3.2.8.6.1. Izen sintagmako buruaren halako indeterminazio maila adierazten du *zerbeit* & *zeeit* determinatzaile zehaztugabeak, guk Amiküzen entzun adibide gehienetan izenaren ezkerrean kokatzen denak; gure datuetan adibide guti batzuetan doa determinatzailea izenaren eskuinean:

amodio zeit (Bith)
gio iten tzie iñandiaikilan libertimendü zeeit (Arrü)

Oztibarren ere *zenbait* & *zenbeit*-ek legez, determinatzaile mugagabearen eginkizuna du *zeit* & *zerbeit*-ek:

etxeko behar den gauza zeeit (Hoz)
in dikek seurrenik tratu txar zeit (Larz)

Hona zein diren eskualdean dakartzagun aldaerak:

zerbeit (Arm, Meh / Behau, Lab / Etx, Arüe)
zeeit (Arm, Meh / Ora, Amo, Behau, Ost, Bith, Arrü, Mar, Gam, Zoho, Arbe / Etx, Olh, Sarkp, Ainh)

zeit (Meh / Amo, Behau, Bith, Uha, Mar, Lab, Gam, Zoho, Arbe / Olh)

Ageri denez, Ipar Euskal Herriko erdiguneko *zerbait* > *ze(e)it* berrikuntza aski ekialderat iritsi da: Zuberoako Olhaibin eta Ainharben *zeeit* bildu dugu eta Amiküzeko Martxuetan eta Zohotan *zeit*. Aldiz, Zuberoako gunegunera ez da heldu, xiberotarrek osorik ahoskatzen dute *zerbait*.

Hona Arberoako erabileraren bi adibide:

zeit aparellaen eosteko (Meh), *zerbeit atherbexka* (Meh)

Zuberoa saihetsean ere ageri da determinatzailea izenaren ezkerrean duen egitura:

bon, hik e emaiten ahal dük zeit arrapostü (Olh)

Amiküzeko etsenplu hauek islatzen dute *zeit* determinatzailearen bidez adierazten den indeterminazio maila hori:

eta zeit galdu, zeit urreria aundi galdu, behatzuna eo zeit, arraitzuli
(Ora)

ta besteak e zerbait ofizioekin? (Ora)

zeit gisaz etzaut iduri ikusi duala, entzun nien, entzunik ukhan dut
(Behau)

zeeit zozokeria re iten gintzin eta geo denek paatzen tzizien, e, ezpigi-nien elgar salhatzen (Bith)

beste zeeit gauza emaiten tzizien (Bith)

zeit katixima (Bith)

jenealian jina zen neskato hua bere aneia edo aita edo zeit holakoikilan
(Sor)

Oztibarren ere *zeit* ‘zerbait’ (Jut) aldaera dugu, baina cf. *zeeit* (Lan).

7.3.2.8.6.2. Amiküzekoak dira hurranen determinatzaile zehaztugabeak ere:

edozoin (Amo, Lab, Zoha, Laph) & *eoizin* (Donap) & *edozuin* (Sar, Mar, Gab, Sor / Sarkp) & *edozuñ* (Laph)

edozoinek (Amo, Gam) & *edozoñek* (Ainh)

edozoinekin (Amo)

7.3.2.8.6.3. Ohiko erabilera du Amiküzen *beste*-k, izenordain gisa ageri da, baina izenaren ondoan ere ager daiteke eta laguntzen duen izenaren eta beraren artean osagai gehiago ere ager daitezke.

Ipar Euskal Herriko testu zaharretan eta gure eskualdekoetan ere berdin, *beste* determinatzailea izenetik urrun ezkerreanago ager daiteke, eta ez haren ondoan; 1782ko eskualdeko testuan badira adibideak:

beste bere peco Fraidez beno cassu guthiago eguiten cicin (12)

*ezthiela nehorc bere arimaren eta Gincoaganaco einbidiaç utci behar:
hala nola otoitzçac, concenciaren examenac, sacramendietarat hurrantciac,
irakurtzciac eta beste Eliçaco Officiuac* (15)

Arestiko bi pasarteetako *beste* determinatzailea beste era batean ere ager liteke: *bere peko beste fraidez* eta *irakurtziak eta Elizako beste ofiziuak* eran, hain zuzen ere. Amiküze eskualdeko egungo mintzoan ere badira honelako etsenpluak:

*geo nik e ideian hartia nixin hua etxea jin eta ni seur joain nintzala sehi
beste ene lagunik (sic) iten tzuten bezala* (Bith)

*berroita amar nausiari eman ar e, konprtzen tzia? ... ta beste züre par-
tea gannerreat* (Gam)

*liir andana at ai[ž]e, horkoak, orko semiak batü ehün ektarako at eta
beste bierren semiak ta hiugerrenak saldü zitien* (Olh)

Honako perpausetako *beste*-ren adibideak egungo euskaran bederen arrun-
tagotzat jotzen dugun erari dagozkio:

*ono Hazparnen ezten beste akzent bat bezala bazuten han, ibai bazte-
rreko jendeak, arraintzatik eta bizi zien... beste moldeño bat bazuten oono*
(Meh)

seme baxharra, bizüik athea zen beste zomait ehun milaen artetik (Meh)
zunbeitzuk bee lurrekilan eosi ta beste atzuk berriz, lurri gabe ta (Amo)
*etxeoendako re beste beldur bat bazian ordian, haurrek bazuten beste
beldur bat, çai ezte beldurrik bate* (Amo)

geo geoztik ukhan gindien berriz beste seme at borz urtein burian
(Behau)

*ni gehiena beinintzan, etxen behar nixin egon eta beste laur haurride
batzitzun* (Bith)

ordian hen egon tzun ta beste atzu zaharrokoak joan (Bith)
eguerdi balima zen salda xurta at eta gio, ordian, beste zeeit gauza emaiten tzizien (Bith)
eta hoitaik zertü die, in die, geo beste [5]jin at e ór, zakhürren eta haz-teko abatorretan biltzen eta zerrak eta hor prepaatzzen eta gio iortzen hor gaindi zertzea (Sarkp)

7.3.2.9. Zenbakiak

7.3.2.9.1. Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garai gehienez —salbu Erronkarin— nagusi den zenbaki sistema ibiltzen da Amiküzen; *lauetan hogoi* ‘laurogei’ adibidea bildu zuen 1913an Trebitschek Amorotzen bizi zen bardoztar batengandik (68).

Oztibarren ere zenbaki sisteman 60 → doazen zenbakiek *-etan hogoi* edo *-etan hoge*i eredu berria darabilte 99 arte: *hiruetan hoge*i (Lan), *latan oita zortzi* (Larz)...

7.3.2.9.2. Hona Amiküze eskualdeko zenbaki kardinalen saila:

bat (Lab) & *at* (Gam, Arbe), *bi* (Amo, Behau, Lab, Ilh, Donap, Zoho / Pag) & *biga* (Arm / Ora, Behau, Ost, Bith, Lab, Gam, Arbe, Sor / Olh, Sarkp, Urd), *bizpahiru* (Ora, Ost, Mar, Zoho, Sor) & *bizpahirü* (Ora, Ame, Donap, Arbe / Ber) & *bizpahiu* (Olh), *bizpalau* (Ora, Amo, Uha, Mar, Donap, Zoho / Olh), *hiru* (Ora, Amo, Behau, Bith, Lab, Sor) & *hirü* (Donap, Arbe) & *hiu* (Olh, Sarkp, Pag, Urd), *laur* (Bith) & *lau* (Amo, Behau, Ost, Mar, Lab, Zoho, Sor / Olh, Artüe), *laspoost* ‘lauzpabost’ (Ilh) & *laspost* (Sor) & *laspos* (Behau), *bost* (Mar, Lab, Donap / Dom), *bospasei* (Ora, Amo, Arrü, Gam, Sor / Olh), *sei* (Arm, Meh / Ora, Amo, Behau, Ost, Mar, Lab, Gam, Zoho / Olh, Artüe, Sarkp, Ainh, Urd), *zazpi* (Ora, Amo, Bith, Mar, Ilh, Gam / Artüe, Olh, Sarkp, Pag, Urd), *zortzi* (Ora, Amo, Behau, Ost, Bith, Uha, Mar, Lab, Zoho / Sarkp, Ündü, Pag) & *zorzi* (Arrü, Zoha, Zoho, Sor / Olh), *bedeatzi* (Meh / Uha / Artüe, Sarkp, Pag) & *beatzi* (Amo, Uha, Arrü, Mar, Donap / Olh) & *bedeatzi* (Sarkp), *hamar* (Ora, Amo, Bith, Gam, Donap, Zoho / Olh, Sarkp, Pag)

hameka (Ora, Amo, Ost, Behau, Lab / Olh),¹¹¹ *hamabi* (Amo, Bith, Lab, Donap, Arbe / Olh, Pag), *hamahiru* (Bith, Mar) & *hamahirü* (Ame) & *hamaiu* (Ündü, Pag), *hamalaur* (Bith) & *hamalau* (Behau, Ame, Donap / Artüe, Sarkp), *hamabost* (Urd)¹¹² & *hamoost* (Arm / Ora, Bith, Mar, Lab, Ilh, Gam, Zoho, Arbe / Dom, Etx, Olh, Sarkp, Pag) & *hamostetik* (Mar) &

111 Baina litekeena da asimilazio egoera agertzea ere: cf. *amaR onak amak onak artio* (Gab), non *amak* hori *hameka*-ren gauzatze berezia baita, aitzinean duen “hamar”-ek eraginik.

112 Izan ere, Larrasketek *hamabost* dakar 1939ko hiztegian.

hamoortz (Behau),¹¹³ *hamasei* (Ora, Uha, Ame, Gam, Arbe / Olh, Sarkp), *hamazazpi* (Ora, Mar / Olh) & *amazazpi* (Arbe), *hemezortzi* (Mar, Ame / Olh) & *emezortzi* (Ora, Behau) & *hamazortzi* (Pag),¹¹⁴ *hemeetzi* (Zoho), *hogei* (Ost, Bith, Zoha, Zoho / Dom, Olh, Sarkp, Ündü) & *ho^oei* (Ost) & *hoei* (Amo, Lab, Lük, Ame, Zoha, Donap / Sarkp) & *oei* (Amo) —baina baita *hogoi* ere ibarraren saihetsetan: *hogoi* (Ora, Behau) & *ho^oi* (Amo) & *hoi* (Lab / Dom); Oragarre ondoan, Arberoako Izturitzen *ogoi* dakar EHHA-k—

hoitabat (Lab), *hoitabi* (Ora), *hoitairu* (Amo), *hoitalau* (Sarkp), *hoitabost* (Behau / Sarkp, Ündü, Pag), *hoitasei* (Gam, Arbo), *hoitazortzi* (Amo), *hoitahamar* (Ora, Amo, Behau, Bith, Gam / Pag) & *hoitaamar* (Mar, Gam, Arbe) & *hoitamar* (Uha / Sarkp) & *oitaamar* (Zoho)

hoeita hameka (Ilh), *hoeita amabi* (Zoho) & *hoitamabi* (Pag), *hoita hamairu* (Amo, Ame) & *hoita amairu* (Amo), *hoita amoost* (Ora) & *hoitamoost* (Gam), *oitaamazazpi* (Arbe), *hoita emezortzian* (Meh), *hoita emeeztzian* (Arüe), *berrogei* (Zoho) & *berroi* (Gam)

berroita lau (Sor), *berroita bost* (Mar / Pag), *berroita seian* (Mar), *berroita zazpi* (Lab), *berroita zortzi* (Donap) & *berroitzortzian* (Sarkp), *berroita bedeatzi* (Arbe), *berroita hamar* (Behau, Mar, Zoho / Sarkp, Pag) & *berroita amar* (Gam) & *berroitamar* (Ora) & *berroitamar* (Ilh)

berroita hamabi (Amo, Lab) & *berroita amabian* (Meh), *berroge^otaamasei* (Ündü), *berroita hamazazpi* (Sor), *berroita emezortzian* (Sar), *berroita emeretz* (Zoho), *hiutanogei* (Sarkp) & *hiutanoei* (Donap / Sarkp) & *horetanoei* (Pag)

laotanoi (Ora, Amo) & *laotonoi* (Ora) & *laotan hoei* (Olh) & *lautanogei* (Sarkp), *lautan hoitabi* (Zoho), *lautan o^oitabiga* (Laph), *lautan o^oita iru* (Bith) & *lautan oita hiru* (Ora), *lautan hoita launa* (Oih), *laotan oita bost* (Behau)

lautan hoita hamalau (Donap)

ehun (Meh / Ora, Amo, Bith, Uha, Mar) & *ehün* (Mar, Lab, Ilh, Ame, Gam, Zoho / Dom, Olh, Sarkp), *berrehün* (Ora, Ilh, Gam, Zoho / Pag), *hiuehün* (Sarkp, Pag), *lauhehün* (Pag) & *lauhehüneko* (Pag), *bostehun* (Ora) & *bostehün* (Pag), *seiehün* (Lab), *zazpi ehün* (Mar), *zortzi ehun* (Ora), *bedeatzieun* (Meh / Sor), *mila* (Meh / Ora, Uha, Zoho, Sor)

bi mila (Meh / Ora, Behau), *hiru mila* (Ost), *bos mila* (Ora), *sei mila* (Ora), *zazpi mila* (Ora), *hamar mila* (Ora)

ehun milaeen (Meh)

113 Ziur aski Lapurdiko erak gogoko zituen eta aita-ama arberoarren alaba zen lekuko honen beraren emaitza berezia da gehiago, behautarren ohiko zinezko erabilera baino. Bestalde, Hazpamen bi urtez ikasten egon zen Sarrikotako lekuko batek ere *amoorz* eman du gurekiko elkarrizketan.

114 Larrasketek Zuberoan dakarren bezala (1939).

7.3.2.9.3. Zenbaki banakarietan honakoak aipa daitezke:

ta bizikletetan, ba, ta juiten gintzün andana at aldian, eintzün bederazka juiten, gio (Gab)

biek bederaikin (Ame)

hoitazazpira urthetan galdiak (Larri)

EHHA atlasak honela dakar: *lirainja bedera gintzin zapatan barnian* (Gar).

7.3.2.9.4. Ordua adierazten duen zenbakiak ondotik beste denbora tarte baten ñabardura daramanean, Ipar Euskal Herrian ohikoa da ordua adierazten duen zenbakia pluralean mugaturik joatea, baina Hego Euskal Herrian mugagabea joan ohi da. Eman dezagun, Sorhapürün *hiruak et'erdia irian* entzun dugu, eta ez "hiru t'erdia irian". Hona adibide haboro:

ni bostak eta laurden bethi jeikia nüzü (Donap)

seiak et'erditan (Olh)

zazpi oonak edo zazpik et'ardi edo (Artie)

Beste erakoak dira adibide hauek, ordea, Hegoaldean ohi bezalakoak:

hameka t'erdia (Amo)

hamar eta erditan ohian nüzü (Donap)

7.3.2.10. Hitz elkarketa

7.3.2.10.1. Galdetzailea + *nahi*

Idazle zaharrek egin legez, adizlagunetan galdetzaileei eransten zaien *-nahi* osagaiaren ezkerrean geldi daiteke kasu atzizkia, galdetzaileari atxikiririk. Mehainen bildu dugun *nuntiknahi* sistema zaharrari dagokio, baina aldiz, eredu zaharra eta berria batean biltzen ditu Armendaritzen bildu dugun *nuntiknahitik* aldaerak. Itxaron zitekeenez, *noranahi* ere bildu dugu herri honetan. Zuberoan *nontik-nahi den* dakar Gameren Otsibarrek (2003: 28) eta *norat nahi* Guillaume Epherrek (Davant 2009: 124).

Amiküzén *nuitznahi* bildu dugu Bithiriñan. Labetzen sistema berria bildu dugu, *nahi*-k biltzen du kasu atzizkia: *nunahitik*.

Baxenabarreko testu zaharretan nola, Oztibarren ere eraketan *nahi* atala duten adizlagun indefinituetan ezkerreko galdetzaileak hartzen du kasu-atzizkia: *nuntiknahi* (Hoz). Bestalde, orokorra da *noratnahi* (Jut) & *noatnahi* (Bun, Izu) & *noanahi* (Larz) aldaera, baina bada eredu bikoitz berritik ere: *nuntiknahitik* (Larz).

7.3.2.10.2. Adizlagun errepikatu hanpatuak

Errepikatzearen bidez eratzen dira adizlagun hanpatuak euskaraz, baina eguzkialdeko Euskal Herrian berrikuntza bat jasan dute, singularreko mugatzai-lea harturik joka daitezke. Oztibarreko adibideak dakartzagu:

xehexehia (Ibarro); *zaete ix'ixila* (Lan)

Amiküzeko adibideak ere eman ditzakegu:

nola uai ai den bezala, uai tratorrekilan eta berdin-berdina, astelegunaz bezala (Amo)

elgarretaaten ba, ba, atsaldiaikilan e berdin-berdina, egunain barnean, e, berdin-berdina (Amo)

negu gaixtoa balima zen geldi-geldia ta gañea 'bestela' iortzen tzizien amiña at alhatzea (Ost)

ur beroan urdea garbitü, eta, pelatü undoan zuri-zuria jartzen tzauk (Ilh)

beRoi egün eon nitian eta lüze-lüzia (Ilh)

doi-doia 'ozta-ozta, juxtu-juxtu' (Behau, Arbe)

eta nik badakit, eta, behien üxtartzen; doi-doia, e (Laph)

jakin gabe xü[#]n-txiina zertako (Laph)

ordian fite-fitia eta büüüllean ereinazten (Laph)

bizi dira luxan ala ixixila? (Ora)

Lurdalat grutala juiten gintzun eta ixixila behar gintzin egon eta otoitzean ari (Bith)

bethi akomaatzen 'elkarrekin moldatzen' ixixila (Zoha)

doi-doia arrünt nekhez ibilten eta (Zoha)

oro ixixila tzü, a, ba... bena leheno etxe pareko haur horiek eta ttipia tzielaik, intzüten nitien kanpoan khantüz ta hola (Arbe)

juxtu-juxtia gu re gerthatu gitzu uai dela bi urthe, bi urthe eta xaz (Ora)

esposatu gintzun ximple-ximplea Lurden bi familiak elgarrekin (Behau)

eztie aiphatzen xuxen-xuxena zertan ari zien (Behau)

zal-tzaala jartzen eta (Behau)

jan gintzin buxi at zalü-zalia ta phartitü, a (Larri)

Hona Garrüzeko adibide bat EHHA-k bildua:

bena flakuña denboa kanbiuetan eta apal-apala ibiltzen tzu, hori ur bazterreko xoria uzü

Dena den, ez da kasu guztietan gertatzen; eman dezagun, ez da “emeki-eme-
kia” egiten, nahiz hori, errate batera, Nafarroa Garaiko Aezkoako mintzoan
guztiz arrunta den; hona mugatzailerik gabeko Amiküzeko etsenplu batzuk:

emeki-emeki indarra jiteaakin (Ora)

bená beti zorrak gintienak emeki-emeki beti paatu tuk (Amo)

emekiño-emekiño paatzen duk (Amo)

ba, geo, gañean lüze-lüze kargatü undoan (Arrü)

Domintxainen honakoa bildu du *EAEL*-k 1981ean (267 etnot):

zézena ttipia erosten dut eta behiekin kostumatzen da emeki-emeki

7.3.2.11. Eratorpen atzizki eta aurrizkiak

7.3.2.11.1. Amiküzeko zerrenda

Dakargun zerrenda ez da aparentziarik ere Amiküzeko euskaran baliatzen diren eratorpen atzizki edo aurrizkien *inventarium* osoa, zerrenda honetan lekuko amiküztarrekin ukan ditugun elkarrizketetan agertu direnak baliaturik halako sorta eder bat eratu dugu, baina ez du osotasunik, beste lan zehatzago bat litzateke hori. Bestalde, atzizki batzuek adiera bat baino gehiago baitute, zenbakiaren bidez bereizi dugu bata bestetik eta inoizka, Arberoako, Oztibarreko eta Zuberoako berri ere badakargu. Hona, beraz, entzun ditugun eratorpen atzizki eta aurrizkien erakusgarri bat:

-aldi: *itzulaldi at* (Uha), *panpaldi at* (Ame)

-antxa: *aRibantxa at* (Ber)

-ari: *ĩhĩztari* (Lab), *khantari* (Olh), *pilotari* (Sor)

arra- aurrizkia errepikaldia adierazteko; Zuberoan bezainbateko maiztasunez ez bada ere, ibiltzen da Arberoan: *arraitzuli* (Meh), *arrahaur* ‘biloba’ (Meh), baina *berriz sartu* eta *berriz jin* eran ere erran ohi dira gauzak Mehainen. Armendaritzen ere badirudi *berriz sartzea* baliatuagoa dela *arrasartzea* baino; dena den, *berriz jin* eta *arrajin*, *berriz egin* eta *arraegin*, denak baliatzen dira eta baita *arrahaur*, *arraseme*, *arrapartitu* hitzak ere; Oztibarren ere baliatzen da: *arraaxuri* ‘amak sasoiaren bigarren axuria egitea’ (Jut), *arrabesta* ‘jaia errepikatzea’ (Jut), *arrahaur* ‘biloba’ (Jut, Zib), *arrakhusi* (Ibarro), *arrajin* ‘itzuli’ (Ibarre, Donaix), *arrasar* (Ibarro); XIX. mende bukaerako Bourciezen parabolan ere ageri da: *arraphiztu* (Ibarro) & *araphiztu* (Donaixti-Ibarre), *arrajin* (Izu, Ibarro); Oztibarre ondoko Gamarten bildu du *EHHA*-k *arrajin*; hona Amiküzeko etsenpluen sorta: *arraabiatzen* (Arbo),

arraarrahurak (Zoho), *arraberritzeko* (Arbo), *arraerten* (Laph), *aRagi-zentaazteko* (Ilh), *arrahartzen* (Laph), *arrahasi* (Arbo) & *arrahaste* (Ora) & *arrahasten* (Laph), *arrahaur* (Mar, Arbe), *arraheldü* (Laph), *arrain* (Ora), *arraintzuten* (Ora), *arraiortzen* (Laph), *arraitzuli* (Ora), *arrajin* (Zoho), *arrakargatü* (Arbo), *arrametetzen* (Uha), *arramintzazten* (Laph), *arranai-katzen* (Uha), *arraphesta* (Larri), *arrasartzen* (Ilh)

-doi: *sardoi* ‘sagastia’ (Ilh)

-dun: *axurdunak* (Larri), *esnadun* (Arbo, Larri), *sosdiinak* (Arbo), *zor-dun* (Barta)

-eria: *arroperia* (Zok)

-ezia: *abilezia* (Ora), *adrezia* ‘trebetasuna’, (Sor / Pag), *ai[ʒ]ezia* ‘erraztasunezko egoera’ (Behau, Zoha, Arbe), *fitezia* (Ame), *malezia* (Lab / Oih), *nekezia* (Meh), *politezia* (Ariüe); Oztibarren ere ageri da: *ai[ʒ]ezia*

-garri: *hunkigarri* (Behau, Sor), *ikharagaRi* (Dom) & *ikhaarriko* (Uha), *itsusgaRi* (Dom), *izigarri* (Behau)

-gei: *atzargei* (Zok), *emaztegeia* (Dom), *iaurgeia* (Ost) & *idaurgei* (Laph) & *iaurgeietako* (Uha), *lagungeia* (Sor), *nausigeia* (Ost), *zezengei* (Dom)

-gi: *alhagi* (Arm / Arrü, Mar, Ame, Gar, Arbo / Izu, Jut, Bun), *edangia* (Dom, Oih), *gordagi* (Ame) & *gordagiaik* (Dom), *hedagia* (Uha) & *hedagiak* (Lük), *jargi* (Ame / Dom), *latsagi* (Mar, Ame), *sargia* (Laph); Oztibarren ere bai: *edarangia* (Jut), *arrañak errungian* (Larz), *etzangia* (Jut), *latsagia* (Lan)

-gile: *eskü^oile* (Donap), *langiliak* (Lab, Donap, Sor)

-gin: *gaixtaginik* (Arrü), *haRgin* (Gab)

-goa (1) lanbidea: *aprendizgoak* (Ber), *argingoan* (Ame), *artzainguan* (Ainh), *auzgorat* ‘arotzen = errementarien lanbiderat’ (Gab), *dendaruan* & *dendarokoan* (Amo)

-goa (2) generikoa: *hilaite sarigoa* (Amo)

-ka (1) zatien adierazgarri, euskara orokorrean ohikoa: *aldizka* (Donap), *arauka* (Laph), *bultaka* (Amo, Zoho, Laph / Dom), *buxikaka* (Laph), *egunka*, *batian ^hemen ta bestian han* (Amo) & *egunka* (Uha) & *egünka* (Ber), *espalka* (Uha), *guneka* (Ost), *hilaiteka paatzeko* (Amo), *metaka* (Ora, Ame) & *mettaka-mettaka* (Sor), *orenka* (Ora / Ber), *pitxikaka-pitxikaka* (Gam), *gero ezari poloka* (Behau), *puskaka* (Sor, Laph), *ürraska* (Arbo), *urtheka* (Zoho), *xendraka* (Ora)¹¹⁵

-ka (2) jardunaren adierazle: *ipurdi altxaka ari* (Ora), *apairuka* (Uha), *auspeka* ‘ahozpez’ (Laph), *bakharzka* (Sor), *bizkarka* (Sar), *beti ebaska*, *etzün libro*, *ez ginizin permisioneik* (Arbe), *eleka hartzea* (Lab) & *elheka* (Arrü),

115 ...ama ta aita ta goxama zena-ta, Hazparnen tzien iiltzen merkhatian, arrutze saltzen ta hola, amak bazien hemen holako kapeta at, erten den bezela, hartan eta zaria ta bate atxiki gabe juiten tzen Hazparnea, xendraka geo, ez bidez bide, xendraka, bazitien eta, hola mendiz mendí, baakizu, bazitien bere bideak, xendra bidiak, ordian juiten tzitzum eta...

espantuka (Arbo), *gaizkika* (Ilh), *haat-honakatze* (Zoha),¹¹⁶ *indarka* (Ame, Laph) & *indarkako lana* (Arbo), *itzülipüRdika* ‘ugari, nolanahika’ (Dom), *ixilka* (Barta), *jestoka* ‘keinuka’ (Zoha), *joan-jinka* (Behau), *kartaka* (Gab, Arrü, Zoho) & *kartaka eta killaka* (Bith) & *gio kartaka ai zitzun musian* (Bith) & *gizunak musian eta pilotan edo killaka ari* (Mar), *olloa kokozaika* (Zoha), *lasterka* (Gam, Zoha), *nolanahika* (Zoha), *phündüka* (Ber), *punpeka* (Ora, Behau), *thiika* ‘listuka, txistuka’ (Ilh), *makhila ukaldika* (Ame)

-ka (3) harrapatze edo bilakuntza adieran: *aingilaka* (Lab), *ardika* (Bith), *axeriüka* (Arbo) & *azeriüka* (Ilh), *bekadaka* (Donap), *belharka* (Zoho), *egürka* (Behau), *haxeka* (Donap), *iaurgeika*, *iaurgeiaen moztera* (Mar), *onddoka* (Barta), *otheka* (Behau, Ilh, Lük), *sathorka* (Arbe), *urka* (Ora, Gam, Zoho), *urzoka* (Laph) & *urzaka* (Ost); baita Oztibarren ere: *bildotska* (Larz); Arberoan eta Baigorrialdean *-keta* atzizkiak adierazten du bilakuntza, Armendaritzeko *abarketa*, *ogiketa*, *onddoketa* edo *sosketa* lekuko,¹¹⁷ ia ez da Armendaritzen *-ka* baliatzen: ezin erran daiteke “ogika”, baina errate batera, baliatzen da *onddoka joana da*; Baztanen *-keta-ra* ibiltzen da, adlatiboa harturik: *esneketara*, *onddoketara*, *urketara* eta Aezkoan *-ketari* atzizkiak adierazten du pertsona baten jarduna edo joera: *gizonketari*, *mandatuketari*, *maztekiketari*; Lapurdi barnealdean ere ibiltzen da *-keta*, Epeldek *ur keta* dakar Haltsun (2003: 339)

-kal: atzizki honek ez du beti ñabardura berbera, ‘aldia’ edo ‘bakoi-tzeko’ adiera hartzen du; hona Zuberoako etsenplu bat: *zunbat irabazten diüzü gizonkal?* (Elixagarai 1986: 134); Zuberoako ipar-mendebalean ere baliatzen da: *herikal bazen aphez bat* (Etx); Zuberoaz landa, Erronkarin, Nafarroa Beherean eta Aezkoan ere baliatzen da eta erdialderago, Nafarroa Garaiko Eguesibarren nahiz Larraunen, baina Bortzirietan, Malerreka eta Baztanen ez; Amiküzen ibiltzen da: *aldikal paatzzen* (Bith); hona Oztibarreko etsenpluak: *aldikal kexatzzen duk* (Jut); *honbeste ardi, edo behiak igorten batuzu, beste burukal phaatzzen da* (Ibarre)

-kala: Arberoako Armendaritzen agertu zaigu: *botoila at erdikala, untzi bat erdikala*

-kara graduatzailea, beste alderdietako *-xka* edo *xamar* adieran Oztibarren ageri dena: *zalhukara* (Donaix)

-kari (1) jarduna, joera:¹¹⁸ *elhekari* (Behau), *esnekariak* ‘esneketariak, esnezaleak’ (Arrü), *jautzikaria* (Behau), *lastokari* (Donap)

-kari (2) garaia, denbora: *burulakari* (Sor), *ezteikari* (Dom, EHHA), *Garrutzeke feira kari* (Sar), *iandekari* (Barta), *ürrita lehenkari* (Sar), *Jondo^{ne} Marthiakari* (Arrü), *marxokari* (Sor), *Omia Sendürekari* (Arrü), *onze*

116 *geo kaalekılan bagintzin haat-honakatze, ezpigindien urik.*

117 Beñat Karrikaren *Armendaritze haur begiez* liburuak (1990) ere *-keta* dakar: *fraidegai keta zabilan / karakoilketa / amak abarketa igortzen ninduen.*

118 Ondoko Izturitzen *uztarkari* dakar behiaz EHHA-k.

de novembrekari (Arrü), *urtheatsekari* (Zoha); hona Oztibarren ere: *ereiten zuten Jondohane kari* (Jut) & *uztailain amalau kari* (Jut)

-*katü*: *ta berrikatzen eta solaskatzen eta* (Zoha)

-*keria*: *astokeria* (Laph), *gaixtakeriaik* (Zoho) & *gaxtakeriaz* (Ame), *isuseria* ‘itsuseria’ (Arbe), *zarkeriak* (Ame), *zozokeriak* (Ora)

-*keta*: *xuriketa* ‘arropa garbitzea’ (Gab)

-*ki* (1) *era*, *manera*: *emeki-emeki* (Amo), *finki* (Donap), *hoiki* ‘hobeki’ (Arbo), *oneski* (Ame), *pulliki* (Donap), *siütoki* (Zoho), *trixteki* (Behau)

-*ki* (2) *zatia*, *generoa*: *behikia* (Ber), *erraki* (Zoha), *jendaki* ‘ahaideak’ (Uha)

-*ko* txikigarria: *anixko* (Arbe)

-*kor*: *ahazkortiao* (Ora), *gizenkor* (Dom) — Bardozen eta Domintxainen *beankior dakar EHHA-k*—

-*lari*: *ihizlari* (Zoho, Laph) & *ihizlari* (Dom), *soinulari* (Sor)

-*le*: *edaleik* (Arbe) & *edalia* (Ame), *hotsemaile* (Laph), *igailiak* (Olh), *jale* (Dom), *juille* ‘joaile’ (Amo), *muzle* ‘mozten duena’ (Sor)

-*liar*: *egollarra* (Dom), *ezteillar* (Sor)

-*men*: *khanbiamen* (Arbo, Laph), *inguumeneko* (Uha), *p^hentsamenak* (Laph), *beste solasmenik* (Laph)

-*mendü* & -*mendu*: *abertimendu* (Ora), *apartamendü* (Uha), *atxiki-mendü* (Ilh), *barkamendu* (Uha), *khanbiamendü* (Arrü, Laph), *libertimendü* (Arrü), *meeximendü* (Ilh), *muimendü* (Arbe); cf. *beztimenda* (Ber)

-*na* banatzailea: *birana* (Mar, Ame) & *bina* (Ame), *hiruna* (Mar, Ame), *launa* (Mar, Ame), *bosna* (Mar), *seina* (Mar, Ame), *zazpina* (Mar), *zortzina* (Mar), *beatzina* (Mar), *hamarna* (Mar), *hamekana* (Mar); lehenarentzat *badiau sagar bedera* (Mar) erakoak baliatzen dira; bestalde, baliatzen da -*nazka* ere: *banazka* (Ame) & *bederazka* (Gab, Ame), *binazka* (Mar, Ame), *irunazka* (Mar), *launazka biera* ‘launa garagardo’ (Mar), *bosnazka* (Mar), *seinazka* (Mar); cf. Oztibarren *hirunazka* (Ibarre); aldiz, Baxenabarreko beste eskualde batzuetan eta Nafarroako ekialdean -*ra* ibiltzen da zenbakia bokalez bukatzen denean; hona Arberoako etsenpluak: *bedera parte*, *birana*, *launa*, *bosna*, *seira*, *zazpira*, *zortzira*, *beatzira*, *amarna* (Meh)

-*ña*: *kafe xurtaña at* (Amo)

-*ñi*: *aitañi* ‘aitona’ (Bith, Zoho, Sor / Ber, Dom), *ttipñi* (Arbe); EHHA corpusean -*ñi* atzizki ttipigarria dator Larzabalen: *zipa xehe xeheñi batzu*; lekukoek galdegirik, Oztibarren -*ñi* ez dela ibiltzen dioskute, -*ño* dutela berek ibiltzen

-*ño* Baxenabarre gutzian bezala txikigarri arras erabilia: *aantxiño* (Behau, Arbe) & *antxiño* (Zoho), *atsaldeño* (Uha), *baño* (Behau, Mar, Zoho, Arbe), *behorño* (Uha), *beraxagoño* (Arbe), *emazteño* (Arbe), *emekiño* (Amo, Bith), *geoxooño* (Arbe), *hobekixagoño* (Behau), *holaxeño* (Larri), *kholpüño* (Gab), *le^hentxoño* (Arbe), *lürño heek* (Arrü), *ostikoño* (Larri), *pullikiño*

(Bith), *poxiño at* (Arbe), *zenbaiño* (Arrü) & *zonbeiño* (Arrü) & *zomeiño* (Arbe), *zunbaño* (Arrü); Arberoan ere ageri zaigu: *antxuño* ‘kasik’, *baño*, *bi elheño*, *gaztexooñok*, *moldeño*, *poxiño*, *zareño*; Oztibarrekoak dira *emazteñoa* (Donaix), *gazteño* (Ibarro), *haurño* (Donaix), *poxiño* (Ibarro), *ttipiño* (Donaix) & *ttipiñoa* (Ibarro)

-*pen*: *saltzapenak* (Laph)

-*ri*: *dantzari* (Larri), *dendari* (Laph), *gelaria* (Ost), *xekhari* (Gam)

-*sa* atzizkiak emaztekiaren generoa adierazten du eta Zuberoan indar handia du: *eskualdiñtsa* (Dom), *euskaldiñtsak* (Sarkp); Arberoan ere hitz multxo batean ibiltzen da: *artzaintsa* (Meh), *bolanjer(t)sa* (Meh, Arm), *erriñtsa* (Meh), *eskualduñtsak* (Meh, Arm)...; hona Amiküzeten: *erriñtsa* (Zoho)

-*ska*: *mehaska* (Sor)

-*sko*: *beansko uk* (Amo), *kontexko* (Ame), *onxkoa* (Barta, Laph)

-*tasun*: *eritasüna* (Arbo) & *eritasünetan* (Ilh) & *eitasüñ* (Laph), *garbitasüna* (Arbo), *gaztetasuna* (Ora), *hümitasünaikin* (Laph), *largotasüna* (Ilh), *ontasüna* (Arbo)

-*te* aldien adierazlea: *idorte* (Zoho), *kharrointe* (Uha)

-*tegi*: *arditei* (Ora), *gasnategietan* (Arrü), *urdandeia* (Zoho)

-*tiar*: *etxetiar* (Mar / Etx) & *etxetier* (Arm, Meh / Behau, Mar, Lab, Zoha, Gam, Zoho / Arüe, Sarkp) & *itxetier* (Arrü), *goiztiar* (Behau), *udatiar* (Ora)

-*to*: *neskato* (Ora, Zoha) & *nekato* (Meh / Barta, Behau, Arbo, Zoho) &

-*tto*: *ttipitto* (Sar, Mar)

-*tra* kantitatearen adierazlea: *ahürtraka* (**Dom**), *bizkartraka* (Sor), *gaitzüürütra* (Gab), *mähütrak* (Amo), *orgatRa* (Gab), *saskitra* (Olh), *zakhütraka* (Gab); aldaera osoagoa da Arberoan bildu dugun -*tara*: *saskitara* (Meh)

-*tun*: *eakustun* ‘irakaslea’ (Behau)

-*tsü* & -*tsu*: *berdintsia* (Behau), *bezelatsu* (Arm) & *gü bezalatsü* (Arbo), *erditsutan* (Sor), *euritsia* (Meh)

-*tza* izen generikoak sortzeko: *emaitza* (Ilh), *ohointza* (Barta, Zok)

-*tze*: arbolak izendatzeko atzizkia, Zuberoa, Amiküze, Oztibarre, Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoan baliatzen dena; *EHHA* atlasak izen sorta bildu du Arrüeta, Garrüze eta Arbotin eta guk ere bildu ditugu etsenplu batzuk eskualdean: *ahantze* ‘aranondoa’, *frütatze* (Oih), *gaztañatze* (Meh / Gar, Arbo) & *gaztañatzeondo* (Arrü), *hürtze* ‘urritza’ (Arbo) & *urze* (Gar),¹¹⁹ *intzaurtze* (Arrü, Gar, Arbo / Olh),¹²⁰ *phikotze*, *saar(t)ze* ‘sagarrondoa’; ondoko Arberoan -*ondo* baliatzen da Armendaritzen: *gaztinondo*; aldiz, auzo herri Mehainen *gaztenatzia*, *geezitzia*, *saartzia* bildu ditugu. Hona Oztibarreko

119 Baina Amiküzekoa da *urritz* ere: Arbotin *hürritz*, Garrüzen *urritz* eta Arrüetan *ürrhitz* eta *ürritzondo*.

120 Aita-amak arberoarrak zituen lekuko behauztar batek *intzaurrondo* eman du elkarriketan.

berri: *mertxikatze*, *mizpiratze*, *pikotze* edo *sagartze* ditugu Donaixtin; cf. *gastañatze*, *hurtze* ‘urritza, urrondo’ eta *saartze* (Larz), ahantzi gabe Oztibarren badela *-ondo* ere: *saarrondo* (Larz), *urritzondo* (Donaix) eta Ibarrolan *gastañaonduak zahartiak* bildu dugu; berebat, Landibarren *saarrondo* eta Jutsin *saharrondo* ditugu;¹²¹ Garazi-Baigorrialdean ere *sa(g)arrondo* ibiltzen da eta bestalde, EHHA-k Garaziko Gamarten *intzaurtzia* dakar

-xe (1): Amiküzen gehiegizkoaren adiera dakar, hain zuzen ere Euskal Herriko leku gehienetan “-egi” erraten dena; Azkuek Erronkari, Zuberoa, Baxenabarre eta Nafarroa Garaian kokatzen du (1923): *gatzexe gerlaat juiteko* (Barta); *ta erran dakozut ni zaharxe ni^mzala, nahi balima uk in, izak* (Bith); *kharioxe direlako* (Uha); *ürrüntxe gintien Hazparnetik sartzeko* (Sar); *geo progria re ai nuk amiñi at fitexe juiten denez e, denek nahi die heldü eta heldü, hori re, bethi biziki progre bauk* (Lab); *handixe* (Lab) — armairu batez geniharduen lekukoarekin, sobera handi dela eta traba egiten duela —; *juiten ahal nintzan, ta geo beantxe zen* (Ame); *goitxe* ‘goizegi’ (Arbo); laborantzako lurrez geniharduela: *ützi, ttipixe tzielakuan edo etzutelakuan nihur e segitzeko re* (Arbo); *eztüik izan, ürrünxe ituk kontrabanda iteko, nuntik? Einian bizikletaik ee, nuntik na’uk kontrabanda izan tzain, etzian hen, uñez gintian erteko maneran* (Zoho); Behauzeko lekuko batek *-e(g)i* baliatu du: *noizbeit inen duzte haurrek nahi tuztenak, baukete lekhu apartamendu iteko, e, ni oai xaharrei niz*

Arberoako Armendaritzen *kharioei* edo *ttipiei* ibiltzen dira, eta honela, *ttipixe* erratea *ttipixko* erratea bezala da, txikigarria da, ez du gehiegizkotasunik adierazten; aldiz, ondoko herri Mehainen *kharioxe* eta *karioxa* bereizten dira; berebat, *ttipixe* eta *ttipiegi* adieraren aldetik zentzukide dira Mehainen; baita Oztibarren ere: *goitxe* ‘goizegi’ (Zib, Donaix), *haundixe duk* (Jut) & *haundixe* (Donaix), *ttipixe duk* ‘ttikiegia duk’ (Zib) & *ttipixe uzu* (Donaix); Bourciezen etnotestuan ere bai: *ez duzu goitche itzul nadin* (Lan), *étçou goïché itçoul naïn* (Izu); *-xe(g)i* pleonastikoa ere sortu da: *hurruntxei duzu Hazparne* (Ibarro), *goitxei* ‘goizegi’ (Ibarro, Donaix), *ttipixei duk* (Zib); bada *-egi* arrunta ere: *bethei da untzia* (Ibarro), *ba, bethei duk* (Zib)

Zuberoan inkestetan ez dugu *-xe* gehiegizkotasun adieran aurkitu, honetarako *-egi* baliatzen da, urdiñarbetar baten adibide hau lekuko: *nik [3]osteko bekanika nahi nian, bena khaiioegi beitzen*. Gamerekoak dira beste hauek: *egüerditan ez ginen eskolatik etxerat jiten, hürrünegi zelakoz* (Otsibar 2003: 24); *bai goizegi ere* (65); txikigarria da *-xe* Gameraen: *horra hanko funts eta aterbü handixeenak, oro bildirik naba zolan eta saihetsean* (22)

-xe (2): atzizki indartzailea da eta *-xet* aldaera du; cf. *hementxe* (Arbe), *hantxetan* (Ora, Uha, Zoho), *olaxet* (Zoho); beharbada *-tan* atzizki inesiboaren berranalisiaren bitartez —cf. *holaxetan*, *hortxetan*—, adizlagunen *-xe* atzizki hanpatzaileari *-t* erantsi zaio Ipar Euskal Herriko eskualde zenbaitetan; hona Arberoako Mehaineko berri: *hortxe* & *hortxet*, *hantxet*; guk Amiküzeko Mar-

121 Bourciezen lanean *sagar onduac* (Hoz) eta *sahar onduac* (Larz) ditugu.

txüetan eta Gabadin inesiboko *hoRtxetan* entzun dugu, Gamuen *hortxeetan* eta Uhartehirin *hantxetan*; Zohotan, berriz, moduzko *olaxet*, baina atzizkiak ez du beti *-t* biltzen: ^h*ortxe* (Gam), *antxe* ‘hantxe’ (Gam); bai Oztibarren ere: *hementxet* (Donaix), *hortxet* (Lan), *hantxet* (Jut), *holaxet* (Ibarre, Lan), *hementxetan* (Jut), *hortxetan* (Lan, Jut, Zib), *hantxetan* (Zib)

-xe (3): txikigarria ere badela dirudi: *neskatoxe* ‘neskatxa’ (Arrü)

-xka: *aldexka* ‘multzotxoa’ (Sor), *andanaxka* (Sor), *aspaldixkan* (Ber), *drolexka* (Oih), *gaztexkaik* (Ber), ^h*amarraxka at* (Amo), *untsaxka* (Ame), *urrunxka* (Amo), *üsüxka* (Ber), *zeeixka* (Zoha) & *ze'xka* (Ora)

-zain: *artzain* (Meh / Olh, Pag) & *artzaiñ* (Behau) & *artzañ* (Behau, Arrü, Mar / Olh, Ainh), *etxezain* (Dom) & *etxezaiñ* (Laph) & *etxezañ* (Uha) & *etzezain* (Meh / Artie), *oihentzaiñer* (Sar)

-zale: *arizale* (Sor), *galdizale* ‘eskatzaile’ (Laph), *iiltzale* (Oih), *khu-rritzale* (Donap), *lagüntzale* (Ber, Olh), *seizale* ‘jarraitzaile’ (Sor); Oztibarren *ekhartzaliak* (Larz)

-zione abstraktu mailegatua: *adorazione* (Bith, Ilh / Ber), *alokazione* (Amo), *debozione* (Behau, Ilh, Arbe, Sor), *deklarazione* (Bith), *erreboliuzione* (Lab) & *reboliuzione* (Ora), *errekisizioneat* (Sarkp), *errekreazione* (Arbo, Sor), *errelazioneik* (Arrü) & *relazioneik* (Arrü), *esplikazione* (Sor), *estazioneak* (Amo), *inondazioneik* (Bith), *jenerazione* (Ora, Gam), *kolazionea* (Bith), *konfirmazione* (Zoho), *konpaazione* (Gam, Zoho), *konplikazione* (Zoho), *konsultazione* (Lab), *kotizazione* (Lab), *leitzioneak* (Bith), *modifikazione* (Lab), *obligazionea* (Laph), *operazione* (Donap) & *opeazione* (Olh), *prezisioneikin* (Zoho), *proporzione* (Bith), *punizione* (Ost, Arbe), *subanzione* (Sar), *televi[z]ioneaikin* (Sarkp), *zoluzione* (Amo); Oztibarren ere bai: *kominikazione* (Ibarro), *prekozione* ‘arreta’ (Ibarro)

-zü: *othezü* (Dom)

Hona Baxenabarre eta Oztibarren arras baliatuak diren eraketa-atzizkiok, Amiküzen entzun ez ditugunak:

-oin egiten da latinetikako *-one(m)* bukaera duten hitzetan: *arrazoña* (Larz), *flakoïn* ‘zapelatza’ (Jut, Larz) & *flakoñ* (Lan), *mathoin* (Larz), *sasoïn* (Larz); ezaguna denez, Amiküzen *-uñ* aldaera du atzizkiak

*-t(z)er*¹²² ‘-t(z)ear’: *erortzer* (Jut, Larz)

122 Amiküzen ez dugu entzun; Martxüetan eta Amendüzen dioskutenez ez da baliatzen: *galtzeko phündian* (Mar), *hiltzeko phündian* (Mar) & *hil zorian* (Mar); cf. beste hauek ere: *erortzeko phündian* (Ame) & *erortzeko kenkan*, *kenka gaxtoan duk* (Ame).

7.3.2.11.2. Amiküze, Oztibarre eta Zuberoa batera

Euskal Herriko ekialdean, Amiküzen eta Oztibarren ibiltzen diren hiru atzizki berriztatu aurkez ditzakegu:

-gerren ordinala (Barta, Ora,¹²³ Behau, Ost, Bith, Ilh, Lük, Mar, Lab, Ame, Ilh, Gam, Arbo, Zoho, Laph / Dom, Loh); baita Lapurdiko ipar-ekialdeko Bardozen ere; alta, Zohaztin entzun dugu *-garren* ere: *ehüngarren urthian*; Uhartehirin ere *bosgarren* entzun dugu; Oztibarren ere bada *-gerren* (Arh, Ibarre, Lan, Larz), baina *-garren* erarekin batean (Ibarre, Larz)

-kan jarduerazkoa: oroit gaitezen aspaldian Oihenartek harako *auzikan* eta *azikan* adibideak dakartzala (513. atсотitza); Zuberoako Olhaibin *kartakan* bildu dugu eta Ainharben *pelotakan ai* entzunik gaude edo *sa[ž]ü huntan iaurgeikan ai ginen, iatzekan* [jarduna ala bilakuntza?]; Etxarrin *EDEL*-k honakoa dakar: *geo ai tützü kartakan gizonak elgarrekin* (273 etnot); Zuberoako Basabürüan ere baliatzen da: Santa Grazin *ibili dük bai andrekan* bildu da (Peillen 1985: 24); M. Jauregiberrik *jokükan* ‘apustuka’ darabil (de Rijk 1999: 161) eta Gamereko Otsibarrek *pelotakan* (2003: 68); Larrainen *latsakan* bildu zuen *EHHA*-k; Amorotzen bizi zen bardoztar batengandik honakoa bildu zuen Trebitschek (1913): *hatik anhitz kurent Bardoztarren ikhustiaz eta hekin xapo’at elhekan artziaz* (69); aldiz, Arberoako Mehainen, ez da *-kan* aldaera baliatzen, *killetan* eta *pilotan* egiten da eta Amorotzen *killaka* eta Bithiriñan *kartaka* edo *killaka* aldaerak entzun ditugu

Amiküzen ez dirudi aldaera hau arras erabilia denik, guk adibide bakan baizik ez dugu bildu: *aniz denbora pasatu die soldadokan* (Behau); *geo soldadokan e ofizier batek erran tzatan* (Ame)

Izena eratzen duela dirudi ere: *soldadoka joaiteko adina artino* (Sor) & *soldadokatik jin eta* (Sor); iduria da beste hau ere: *huñez haat baındien ba bi kilometraka bide* (Sor); Zuberoako *-ka* izen eraikitzailea oroitarazten digute, cf. Xiberoako *aseka* ‘asealdia’; *belharkak eta haiekin egiten gintitziün bekanikak, bohorraikin* (Sarkp); domintxaindar bati, bestalde, *komüniankak* entzun diogu, baina baita Amiküzeko laphizketar bati ere: *komünianka eina ginien elgarrekin*; Berroetan ere *komünianka* izena ibiltzen da, baina baita *komünione* ere. Ostankoan ere *-ka* atzizkia harturik izena dirudi: *oai, belharkak eta balima zitien, elgar launtzen tzizien, ba*; ez dakigu bilakuntza adierazten ote duen ere: *belharkako maxinak* (Arrü); cf. *belharka* (Ora, Zoho / Etx, Itho); Zohaztin *belharketan eta geo artho sartzia* ere hala-hala esküz entzun dugu, non *belharka* izenaren inesibo plurala baitirudi; Oztibarren ere iduri luke berdín dela: *belharkan* (Donaix)

-ot txikigarria, kaskoinaren mailegu dena: *bañot* (Mar, Gam, Arbo / Dom) & *bañotek* (Ame / Itho); *ta barrikot bat ano uk^han tzien, deu[ž]ik besteik* (Lab); *nunbait, aneia haxoten gielian tzen han, ta hek bandaka ai*

123 Oragarren *a* eta *e* arteko hotsa entzun dugu: *ta biqrrena?* Eta entzun dugu *hirugarren* ere.

aintzinian haxoter ta hua gielian (Olh); *jaunskilot* (Gab); *tripot* (Meh / Artie, Pag); konparaziokoetan ere hala-hala: *beantxot* ‘beranduxeago’ (Larri); *ordian baliatzen gintzin aski geixoot lan iteko* (Ost); *lehentxot* ‘lehenxeago’ (Sar); *zaharxot* (Larri); Zuberoan Larrasketek *labürrot* dakar; berebat, *etxano* dagoen legez bada *etxanot* ere; Jean-Pierre Otsibarrek *txipitot* dakar (Davant 2009: 89); Oztibarren ere bada: *xahartxoot ala gaztexoot* (Arh); *zu ni baino haundixot zira* (Donaix); *haxot* (Zib, Donaix)

7.3.2.11.3. Amiküze eta Zuberoa batera

Zuberoan legez *-tarziin* ageri da Amiküzen, atzizkiaren aldaera zaharra; iraganean Bardozeke 1863ko katiximan ageri da ere: *pharteliartarzunien* (280). Ezaugarri zaharren agerpen geografikoan ez dago berrikuntzen logika hedatzaile hori eta usu, arkaismoek uhartearen irudia hartzen dute;¹²⁴ alta, *-tarziin* atzizkiaren aldaera zaharrak koherentzia geolinguistikoa du: Amiküzeko ekialdean ditugu adibideak geografian; Laphizketan *-tarziin* bildu dugu eta Zohotan *ontarsüina* eta Arberatzen *eritarsüina*; Zuberoa mugako Etxarrin *goxotarziina* entzun dugu, baina itxaron zitekeen hori. Aldiz, Oragarre, Behauze, Bithiriña eta Martxüetan *-tasun* agertu zaigu eta Ilharren, Ithorrotzen, Olhaibin, Lohitzüenen eta Pagolan *-tasiin*; EHHA-k *-tasiin* dakar Domintxainen. Arberoan aldaera berria ibiltzen da: *ai[ž]jetasunak* (Arm), *goxotasun* (Arm), *laxotasuna* (Arm) / *eritasunez* (Meh), *ontasunak* (Meh), *xehetasun* (Meh); Oztibarren ere ez da “-tarzun” ageri, baina iraganean bai: Bourciezek XIX. mende bukaeran dakar (Bun, Ibarro, Hoz). Urteotan Pagolan *-tarsiin* aldaera ere entzun dugu.

7.3.2.11.4. Zuberoako atzizkien aldaerak

Aldaera berezia duten atzizkiak ditugu Zuberoan:

-güa lekua adierazteko: *egingüa* ‘egiteko lekua’ (Sarkp)

-xkót txikigarria, zentzu gaitzesgarria ere izan dezakeena: *emaztexkot* (Urd), *ogixkot* (Sarkp); ez dakigu Amendüzen entzun dugun *untsaxkot* Amiküzen ohikoa ote den; hona Zuberoako etsenplu haboro, literaturatik harturik: *aizexkot*, *alhorxkot*, *astoxkot*, *haxexkot*, *lanxkot*, *mothikoxkot*, *ogixkot*, *saldoxkot*, *soroxkot*; EHHA-k *kabalexkot bat* dakar Domintxainen eta baita *mindizkot* ere

124 Errate batera, Oiartzunen denboraren muga adierazten duen *-ino* morfemaren adibide bakar bat aurkitu zuten Idoia eta Ainhoa Frailek (1996: 137); Oiartzunek iraganean Lapurdirekin hartu-eman usua eduki zuen, baina ez dakigu ziurtasunez hartu-eman honek morfema honen agerpenarekin loturarik ba ote duen.

-us da Zuberoan Lapurdi-Baxenabarretan -os den atzizkia: *amurus, balius, handius, serius, phenus*; ondotik bokala jarraitzen zaionean txistukari apikaria ahostuntzen da

7.3.3. Aditzaren morfologia

7.3.3.1. Ezaugarri orokorrak

7.3.3.1.1. Aditz eta lokuzio batzuen balentziak

7.3.3.1.1.1. Otorduen alor semantikoko zenbait aditzek —Hego Euskal Herrian aditz iragankorra darabiltenek—, *izan* aditza baliatzen dute Ipar Euskal Herriko bazter batzuetan; Amiküzen ere badira adibideak:

geo askaiten tziizün beatzi o'netan (Gab)

askaiten tziizün goizetan balinba zen (Gab)

askaiten gituk (Zoho)

geo han baskaiten tziizün gizonak (Gab)

eta han baskaldü gintian eta oro eta jendek zinez atxiki die egün hun baten pa[ç]aia, ze (Ilh)

egün bezala baskaldü gintzün haen etxen eta bihamunian berean... berroita zortzi oren gabe hila zün (Donap)

eta gio askaiten gituk belefilla ta zeraikin, semiaikin, eta blagan ai gituk amiñi at (Zoho)

ta kaaliak behar gintien etxea ta laxatü üxtarritik, iatea eman, jan behar zuten ta gü¹²⁵ denbora berean baskaiten ginen (Sor)

bon, sartzen tzu, biziki untsa auhaiten tzu ta gio, auhal eta, neskato, bi neskato bazitzun naski, bethi erten deizu muthiko her, e bien, puthikoak, kuntent tziiztea? Ba, ba, arras untsa auhaldiak gituk (Ora)

Oztibarreko Larzabalen *afaldia hiza?* galdera dakar EHHA-k; aditz honen kasuan laguntzaile iragangaitza dakar atlasak Zuberoan, Baxenabarre gehianean eta Lapurdiko ekialdean.

7.3.3.1.1.2. Nafarroa Garaiko ekialdean ibiltzen da *lagundu* aditza Nor Nork sailean, gaineratekoan Nor Nori Nork da ohitura Hego Euskal Herrian. Ipar Euskal Herrian Nor Nork egiten da; hona Amiküzeko adibide pare bat:

125 Ez da guztiz garbi *u* hori palatala den; guk aski palatalizaturik entzuten dugu.

*aitak launtzen nindien an, han laundu nu alee puxka at memento ^hetan
eta delako urain txek^ha ioaiteko, beinintiin bi kilometra beno ge^hio, ioaiten
nintzan abere... aberekin (Behau)*

*presuna atek lagündü ginditzin prestatzen sosa eta geo arrünt tornatü
gindakozün (Zoha)*

Berdin erran daiteke *manatu* aditzaz ere, Nor Nork aditz saila ibiltzen du:

*heen oixtian erran bitüt eta... jauregi... jaure^{gi} horiek tziuten herriak
e manatzen lehenau, gerla aitzinian eta; geo gerlatik landa khanbiatü zian
sistema, bena, bitzien ono erroak (Zoho)*

Berdin erran daiteke *utzi*-z ere baimena ematearen aldetik bederen:

*amari erten dako "hau badian Amiketat" hau Amiketat, ama... niarrez
ama ta enünten utzi (Behau)*

Sail berean jokutzen da *mintzatu* ere, Amiküzeko adibideak erakusgarri dira:

*aphezak erran tzatan, ta, ba, hola in tzatan ta, behar tziüt mintzatü
(Ame)*

aizoko emazte ^hori, goiz huntan mintzatü izit eta... (Zoha)

Landibarren ere *mintzatu diat* ageri da.

Zuberoako mugako Arüen ere agertu zaigu:

a, nik etzit sekulan baño mintzatü re

7.3.3.1.1.3. Ipar Euskal Herrian ohikoa denez, Amiküzten ere era iragankor-
rean joka daiteke *joan* aditza, ‘eraman’ adierazten ahal du:

ollaskoak palaña ‘zare berezia’ atekilan juiten, ... sosain iteko (Gam)

Eta *jín* aditzak ere berdín jokutzen duenez ‘ekarri’ adierazten ahal du:

*hola gazte at = gazteik (?) plantatzen delaik, bakizu, segida bauzu ta
haurrak e jinak tzie ta hek e, eskola amiña at, guaiko egünian aita-amek
pusatzen titzie eskola (Mar)*

Nolanahi ere den, hiztunak halako tratamendu inplikatzailera eranstén bal-
dín badio, Nor Nork sailean jokaturik ere, ez du *joan* aditzak adiera aktiborik;
halako batean gure lekukoak ez dakusa alaba eta honela diosku:

etzakizüt noat joana^dutan (Arbe)

Oztibarren ere adiera iragankorra har dezake *juan* aditzak, ‘eraman’-en kide da:

zeit juaiten dut etxeat (Jut)

Bardozen ere berdin da:

enekin juiten diat / haizeak juan dik

7.3.3.1.1.4. Ez du balio bakarra *behatü* aditzak: *izan* aditz iragangaitza baliatzen du eta datiboa galdegiten. Adieraz ‘entzutea’ izan daiteke, bereziki Zuberoan; 1782ko *Pratica*-k eta Ibarrolako Salaberrik ere adiera honetan dakarte eta Erronkarin ere hala da. Idazleetan, Oihenartek, Tartasek edo Belapeirek ere adiera honetan darabilte. Dena den, Ipar Euskal Herrian ‘entzutea’ beharrean, arras hurbil den ‘adi egotea’ ere izan liteke inoiz adiera; konparazione 1786ko Laneufvilleren katiximan ez dirudi beti entzutea denik. Ezaguna da, bestalde, ‘begiratzea, so egitea’ ere izan daitekeela “behatzea”, batik bat Lapurdi eta Baxenabarren.

Laphizketan garden ageri da ‘entzutea’ duela adiera: *eta funtsian, maite üt xuberotarra behatzia*. Lekuko honek berak bere mintzoaz bestek zer dioten galdera egiten du: *ordian, beaz eztaizüt, ze, nik, ze, eni behatzen denak zer dion nitaz;* cf. *aphezek atxiiten gintzien eta etxeok behatzen tzitzien aphezak, a ta nola!* (Mar).

Zuberoa mugako Amiküzeko Arbotin adibide bat agertu zaigu eta ez dakigu xuxen adiera entzutea ala erne egotea ote den; hona etsenplua zein den:

na kartaka ta ari eztien horiek han tzü xokho atetan eta gio¹²⁶ behatzen balima zia dena holoko zü

7.3.3.1.1.5. Arberoako Izturitzen *joan nahi bazen?* galdera bildu zuen EHHA atlasak. Oztibarren beste hauek:

joan nahi zira? (Jut)

ezpitzen joan nahi (Larz)

Ezaguna denez, egun ekialdean du maiztasunik handiena ezaugarri honek. Zuberoan ere *nahi* ageri den lokuzioa *izan* saileko adizki laguntzaile iragangaitzarekin jokatzen da:

126 Tartekaturik *gio* eta *behatzen* hitzen artean *hat* ‘harat’ edo *han* entzuten dugu, baina lekukoa fite mintzo da eta ez da argi aditzen.

amañ zenak erraiten tzin bezala, nurbeit jiten bada bēhār dakok erran zopa badükala ta egon nāhī dena egoiten dük ta egon nāhī eztena juiten eta hua, hala (Oih)

etxen enündia egon nahi anaia ezkuntüik beitzen (Urd)

Paisen nintzalaik nahiago nindian han egon (Urd)

ta enintzan nahi galdü, lotsa nündian treiñ edo zerbaiten hartzea, galdüko nintzala (Urd)

Ezagarri hau agertzea datuen garaiarekin egon liteke loturik, ez geografia-hedadurarekin bakarrik. Amiküzen, Arbotin *etzüziün erre nahi* bildu zuen EHHA-k eta peko Oztibarren ere bai: *ezpitzzen joan nahi (EHHA, Larz)*. Guk, berriz, egungo egunean Arberoan honako adibideak bildu ditugu:

eztu jin nahi (Arm) / athea nahi dut (Arm) / nahi dut ezkondu (Arm)

jin goo uk enekilan? (Meh) / jin nahi uke hik ee? (Meh) / nahuka jin? (Meh)

Amiküzen bildu dugun etsenpluan balirudike aditza Nor saileko ‘zituan’ dela:

ordian aphezak beste ekipa horrekin, jaureiko ekipaikin, nahi zitian mendekatü merari, errintsa nahi zütean eta... aurdiki (Zoho)

7.3.3.1.1.6. Ipar Euskal Herriko lurralde zabalean eta Nafarroa Garaiko ekialdeko zenbait alderditan *gogo* hitzak nahia adierazten duen aditz lokuzioa eratzen du eta halaxe da gure eskualdean ere. Hona adibide batzuk:

banindoola, eniela Alemaniaat joan goo ta banindoola (Behau)

etzuten utzi goo (Behau)

benä juan goo nian eta ez nu^s izan, tze (Ilh)

joan goo nian (Olh)

Bardozen sortu eta Amorotzen bizi zen emazteki batek —ama bardoztarra eta aita oragartarra zituena— Trebitschi 1913an emanak dira adibideok (Etxebarria 1994: 69):

bildurik ene denbora han pasatu goo nizin sorthu herrian

berriz sehi goo nielarik etxia afermatu nizin

7.3.3.1.1.7. Gertakari inpersonaletan “*behar* + aditz laguntzailea” lokuzioan *edun* aditza ageri da Ipar Euskal Herriko eta Nafarroa Garaiko ekial-

deko mintzoetan eta ergatiboko marka ere bai; Amiküzeko adibideak ditugu honakoak:

etxia paatia ixie, bon, bena nola den, "bena khundiak hilaite guziez beha' in so in, ez tin eta eon behar khundiak in gabe" ... a, ba, ni re hola nuzu, hunek etxi kaso... bitaki nik iten tuala (Ora)

gasna iten balin bada doblatzen da, esnea doblatzen da, bena lanak in behar bitu (Behau)

pasque negian hemen izain beitzinen eta ordian behar tzuten belharrek in eta ihaurgeiak, ihaurgeiak e bildu eta sen^harra usu hemen tzen, ta ni ene bi aurrekilan han (Behau)

eztü behar bizpalau metraen ebastea joan, ze pü..., mürriri ürrhünago izaiteko, nooo (Ame)

behar da hek bezala ümil izan, eztü behar anbalatü (Ame)

ben eskü huska, khasü, e, han jo beha'izi, gio, beha'izi indaR puska (Donap)

etzizit konprenditzen ez guaiko mendia, u, ageri üzü, bena hola üzü ta beha'izi hola-hola hartü guai (Arbe)

amiña at, enüzü ez biziki edalea, ura e ar da, behaizi ura edan (Arbe)

Oztibarren ere *edun* aditza eta ergatibo marka ageri dira perpaus inpersonaletan:

urratzen duzu gaña lodi hua ta beha'izi kendu hak, etzi behar eakitzeat utzi (Lan)

eni zahar batek erran ziaazun, ta ortzantza ari delaik, ez tik arbolapetan egon behar, elhorri zuriain pian egon beha ik (Larz)

7.3.3.1.1.8. Eguraldiaren alor semantikoan berezia da *ari* ageri den lokuzioaren jokabidea, *izan* aditza balia dezake; Oztibarren honako adibidea bildu dugu:

erremarkatu diat euria ai dela kanpoan (Jut)

EHHA-k beste etsenplu hau dakar:

ta ortzantza ari delaik, ez tik arbolapetan egon behar (Larz)

7.3.3.1.2. Aditzen gobernuak

7.3.3.1.2.1. Iduri luke *haizu izan*-ek absolutiboa eskatzen duela:

bi orga behar ginti'n jelgi, igandetan ezpitzen haizu behien ixtarzea eta juitia laneat, i^sandeko partea iakoitzetik biltzen gindien (Sor)

7.3.3.1.2.2. Berebat, beste aditz eta postposizio batzuek datiboa galdegiten dute; atzizki honen agerpena zaharra da *behatu* edo *ohartu* aditzen kasuan, baina *pentsatu*-rean ez: *-(r)i ohartu* XVII-XVIII-XIX. mendeetakoa da; aldiz, *-n pensatu* egituratik *-(r)i pensatu* erara XIX.ean iragan ziren idazle lapurtarrak (Pikabea 1993: 143); hona gure eskualdeko egungo adibide sorta bat:

gazteak eztira oartzen horri (Meh)
oai maloroski espaituu eta mezaik iande guziz, beatzen niz Españaokoari (Behau)
horiik e bortxaz laundu nute uai esporrari interesatzen (Behau)
nik nahi u' ba ono jarriki a^hal baut erli[^z]ioniari¹²⁷ (Behau)
oono ez gitzu prepaatiak, etziu hari pensatzen (Bith)
ezzizie (sic) pensatzen geroari oaiko etx... gaztek, uste izie geo bethi hola ibiliko tüzela haurrak (Arbe)

7.3.3.1.2.3. Baxenabarren ohi denez, *entseatu* edo *utzi* (1) eta *utzi* (2) aditzek adlatiboa daramate menpeko perpausean; hona *entseatu*-ren Amiküzeko etsenplu bat:

meza hartako entseatzen ginen jitea elizalat (Sor)

Hauek *utzi*-ri dagozkio; Arberoako eta Amiküzekoak dira:

geo eun bat idortzeat utzi (Ora)
etxea galtzea utzi izi (Uha)
berz handian iten, ta geo hoztea üzten ta bihamunean muzten puskaka (Olh)

Baimena ematearen adieran ditugu honakoak:

etzian neor e urbiltzea uzten (Meh)
eztik behar merialat sartzeat ützi jende horiek (Ame)
mantelina ützi ta bal de nuit-ea phartitü... eta etxen ützi juitea, ützi, ama phiüü, ikhusten gintian ba aítak amiña at güü so bena, üzten, bo, juiten ginen ba (Olh)

127 Txistukariaren ahoskera ez da gardena; apikari eta sabaiaurrekoaren artean entzuten dugu guk, eta aski ozena, aski ahostuna.

Oztibarren ere adlatiboa galdegiten dute menpeko perpausean *galdein* edo *utzi* (1) eta *utzi* (2) aditzek:

jatea galdeiten tzizien (Ibarro)

utzia uzu zikhintzea (Ibarro)

Ikus ‘baimen emate’ adieran ere:

utzazie lan horren egiterat (Lan)

7.3.3.1.2.4. Ablatiboa galdegiten du *gelditu*-k Amiküzen ere:

geldi ^hadi eatetik (Ora)

7.3.3.1.3. Aspektua

7.3.3.1.3.1. Aditz trinko puntukariak

Euskarazko ohiko lau aditz trinkoren jokabidearen berri dakargu: *egon*, *joan*, *ibili* eta **jaugin* dira.

a) *Egon* aditzaren joko trinkoa ez da ohikoa Amiküzen, hurraren adibideak erakusten digu egoera berria ageri dela:

kaaliak saldü tzie, lehen urthiak eman tzie frango untsa, bo, na uai egoiten tziü meheki, e, egoiten tziü, ta, bon (Arbo)

Halaz guztiz ere badira adibide batzuk egoera zaharraren lekuko:

sartzen tzu ta: “bazauzte aixkideak”? (Ora)

Aldiz, *egon* aditzaren agintezko aldaera erabilera handikoa da:

na nik baakiziüt ixtorio ori, beo, c’est passé, beo be gi[ʒ]a (Donap)

to, ago, barkhatiko uk (Zoho)

bego hortan (Zoho)

bego, iganak tuk (Zoho)

Bestalde, euskarazko ohikoa den ñabardura semantikoa egin behar da, itxaroteko agintzen du adizkiak usu:

zaude, bihamunean bethi bazun meza soldadoendako (Bith)

ago, nor du^k besteik? (Mar)

b) *Joan* aditzaren joko trinkoa ere galbidean dago, baina entzun dugu Amiküzeko adibide guti batzuetan; hurranen erabilera hauek neutroak dira:

uai sosa badoa e fite (Gab)

zeen ta gauzak beitoazki biziki fite (Zoha)

banindoola ‘banindoala’, *eniela Alemaniaat joan goo ta banindoola*
(Behau)

laboantxa gaixki doa, gaixki (Laph)

Beste hauek, berriz, hiketan emanak dira, baina ikusten denez, hauetan bi oinarri ageri dira, *i* nahiz *o*:

ni baniak ono ene lautan hoeitabi urthetan, baniak (Zoho)

aroa balimada badiak (Zoho)

amari erten dako “*hau badian Amiketat*” (Behau)

Hurranen adibideek *o* dute erroan:

eleva[ʒ]a guai mementoan badoak (Ilh)

batuk kaRak ono, bena gehio badoak jendek uai berenez, otoak bitüzte
(Ilh)

hurreneko (sic) *behar tiat lünetak, na urrhün badoak, urrhün, frango urrhün ikhusten diat otoan* (Lab)

hoiek bazoarik Peiroadeat edo Saliseat (Ilh)

ta geo baduzkik nahi düetelaik, ze (Ilh)

ba uai, tratur oriekilan ta, adio edo, are, adio, bate gelditu abe bago-tzak eskuin ta exker, denak presatiak eta (Amo)

gue oxaita beatzi kilometra eta Larribarreat hantik e bethi lau kilometran huñez bazoian e, eta gauaz, hola zian (Behau)

ordian jendiak bazoazkikan (Ilh)

Amiküzen diosalaren erantzunean entzun dugu guk *badoak*.

Bestalde, Bardozen ere *o* eta *i* bidezko polimorfismo hau bera ageri da (EHHA):

baniak Hazparneat

urzo basa badoak oiheneat

Ikus Bardozekeo adibideak xuketan: *nixü, dixü*.

Zuketan ere aldaera trinkoak ditugu Amiküzen, baina orainean *i* nagusitzen da adizki hauetan:

badiazu ‘bagoaz moldatuz edo...’ (Barta)

han estekatzen tzi behorra ta badiazu beste laun batekin eta eatea (Ora)

bi artho-xurizale badiatzu (Ora)

hau askalduik badiazu (Amo)

Amiketat baniazü... ni hamar urthendako baniazü; aítak erran tzatan hau: “hi bahoa hamar urthendako, hoei urthe eoin hiz” (Behau)

badiazu —norbaiti zer moduz dagoen galdegitean eman erantzuna—
(Ost)

badiazu eman digute Uharten eta *badoazu* baino *gehioxot* baliatzen dela adierazi ere

bethi badiazu bat bestiaikin (Donap)

Aldiz, Arbotiko adibide hauetan *o* ageri da; hain zuzen ere, Zuberoan Intxauspek dakarren sisteman *goátzü* eta *doátzü* ditugu (1858: 446); Arboti hari lotua da ezaugarri honetan:

gü bagoatzü bena jendea etzü juiten (Arbo)

bidia har eta denak batian baotzü ardiak bezala (Arbo)

Zuberoa mugako Berroetan ere berdin:

geo denboa fite badoazü, e

EHHA-k Domintxaineko aldaera batzuk dakartza adizki alokutiboetan:

banuak, baduak, baduatzak

Oztibarreko Donaixtin *i* ageri da adizki trinkoen alokutiboan:

badoa vs. *badian* & *badiak* / *badiazu*

Zuketaren iraganean, berriz, *o* ageri da Amiküzen:

lehena etxen eoitzen tziin... geo besteak oro batzo^atziin (Behau)

Agintezkoetan ere entzun daitezke aldaera trinkoak:

zoazi gauza atzen errepaatzea (Zoha)

ben aui zoazi eta zeRzeat (Laph)

Ekialdean *joan* aditzaren adizki trinkoak aurki daitezkeela ezagun du; Erronkariko Bidankozekoak dira Mendigatxaren honakoak:

banua ‘banoa’ (Estornés Lasa 1984: 64), *duala* (84), *yoa* ‘hoa’ (113), *zuatzan* ‘zihozen’ (118)

Zuberoako adibidea da *badu(a)k klinikala* (Elixagarai 1986: 153).

Oztibarre eskualdeko Landibarren ere bildu da *joan*-en joko trinkoa (Videgain 1989):

bateatzen baitzuten ikusteaikilan etzela biziko edo hiltzea, sortzeaikin hiltzea zola

c) Eskualdean ez dago indarrean *ibili* aditza era trinkoan eta egungo Amiküzen kosta da adibideen entzutea. Guri segurik hiru adibide baizik ez zaizkigu agertu; alta, adieraz ibiltzetik baino hurbilago daude joatearen zentzutik, Zuberoako gisa, nahiz erran-nahi bata eta bestea ez dauden hain urrun; hona bi etsenplu, ingurune berean etorri zaizkigunak:

bakantzetan egituk biziki juiten, Lurdaat ba^sa'tzak, han egoiten gituk ast^aat emazteaikin, aste at, ba, hola, noiztenka, ba urthe ^süziz; gaziak baa^l-tzak e noapeit, langile at hatzemaiten dik eta... (Arbo)

Hurranen adibidea agintezkoa da eta zuberotarren gisa ‘hoa’ zentzuan emana da:

juiten bahiz eskola^at ehüt nik enpetxatiko, hail, nahi bauk (Zoho)

Domintxainen Zuberoako gisan *hailua* dakar EHHA atlasak.

Alta, iraganeko adibideak aipa daitezke. 1782ko itzulpen testuan eztabadaka orainean *dabilen & baithabila* eta *dabiltzen* ditugu hirugarren pertsonan eta iraganean *zabilelarik* eta *zabiltzenek*; zuketan orainean *diabilazu, giabiltzazu* eta *diabiltzazu* dakartza liburuak.

1913ko etnotestu batean *bereber badailazu* diotso zuketan Trebitschi Adolf Berdeco amoroztarrak (65) eta egungo adibideetan EHHA-k Bardozen *daila* eta *zabilana* aldaerak dakartza. Domintxainen *badaila* eta *badailtza*-ren arrastoak diruditenak bildu dituzke atlas honek berak, baina lekukoak dioena adierazgarri da:

ezta hain perfekzionatia gure eskuara, eder da “zabiltzate”, bena...

Duela ez horrenbeste denbora *ibili* aditzeko *hóla bídían za(t)zílai*k joko trinko puntukaria bildu da Oztibarreko Hozta herrian (EAEL II, 263 etnot) eta EHHA-k Landibarren *ññara badailazu* adibidea bildu du; Videgainek Oztibarreko Jutsin *galopan joaiten zen, lauazka bazailan* dakar (1989: 1.176).

d) **Jaugin* aditzaren aldaera trinkoak Nafarroa Beherean bigarren pertsonan jokatzeko dira nagusiki eta aginduak adierazteko soilik; konparazione, Bithiriñan entzun dugun *zauri* ‘zatoz’ edo Uharteko *haugi haat* nahiz Labetze edo Laphizketako *haugi*, zeina Zuberoan *aigü* baita, guk Oihergin entzun bezala: *Arbueta, eta, aigü, güe etxeat aigü*; Bardozen ere *haugi* dakar EHHA-k. Labetzekoa da xuketako *xauri* ere, hau ere agintezkoa. Pluraleko adibidean Domintxainen ageri da: *zaizte, zaizte hunat* (EHHA).

EHHA-ko lekuko ezterenzubitar batek dioenez, hirugarren pertsonako *dai-gün urthian* ‘datorren urtean’ erako adizkiak zuberotarrenak eta amiküztarrenak dira. EHHA atlasak Amiküzeko Arbotin *dain astian* dakar, eta Domintxainen *han izanen zizte daun igandian*; Oztibarren ere bada: *daugin urthian* dakar atlasak Larzabalen.

Zuberoan *dai-gün urthian* & *dai-gün urthian* erabiltzen da. Egoera zaharra gorde izanaren erakusle ditugu Zuberoako honako erok: *dai-gün igantian* (Elixagarai 1986: 114), *dai-gün urtheko* (86). Erronkarin *degun bedátserarèino* dakar Izabako kantu batek (Mitxelena et alii 1953: 512) eta *degun ástean* bildu zuen Izagirrek (1961: 402). Azkuek Zaraitzun *aurten aurák andi, dagun urtean lanak egin* esaera dakar (*Euskalerrriaren Yakintza* 3, 1989, 153 or., 1660. esaldia).

7.3.3.1.3.2. Joko trinkoaren galera

Aditzen joko trinko batzuk galdu ondoko egoera berria dago Euskal Herriko ekialdean. Baxenabarren ohikoa da balio puntukaria duten aditz franko era perifrastikoan agertzea. Hona *egon* aditzaren aldaera perifrastikoa adiera puntukarian:

beno uano, ono, ba, egoiten da ‘dago’ haraik ‘halarik’ e, eta, *siurfaza zomeit hemen* (Laph)

Berebat, EHHA-k Landibarren egitura perifrastiko puntukariak bildu ditu:

karga haundi bat ekartzen dik
karga haundi bat ekartzen tzian
zerbait eremaiten dik

Nafarroa Garaian legez, Arberoko Armendaritze eta Mehainen *etorri* aditzaren joko trinkoa ez, *heldu den astean* ‘datorren astean’ baliatzen da. Amiküzen iraganean darabil Arrüetako lekuko batek iduriz ohikotasun edo puntukari balioa duen adibide honetan, ez baita guztiz garbi (EAEL, 264 etnot):

ta ikatzá mur-mur-mur-mur eitén tzun, ezpitákit ní^k zúmat dénbora^z itén tzen, tzidertén a^hát [etzit erten ahal ?], horra! Gió, in tzeniáⁿ, èldu zitzun xéka

Ekialdeko Euskal Herrian *horra zira* ‘zatoz’, *jiten niz* ‘nator’, *joaiten zelarik* ‘zihoalarik’ erako adizki adieraz puntukari baina formaz perifrastikoak ditugu. Era horiek guztiak ez badira ere, Amiküzen era horietarik batzuk bildu ditugu; hona *juan* aditzaren ibarreko emaitza puntukari baina perifrastiko zenbait:

geo progría re ai nuk amiñi at fitexe juiten denez e, denek nahi die heldü eta heldü, hori re, bethi biziki progre bauk (Lab)

khiündatzeko ze ezten juiten edo hola (Lük)

aphezak erran tzatan, ta, ba, hola in tzatan ta, behar tzitüt mintzatü, juiten niz hola, ta, “bon, nik baiüt lan bat züitako” (Ame)

enpekable juiten niz (Ame)

uai juiten tzü a Askain hau, ta uai jin behaRa dena Gaaziko dela (Donap)

erran tzikan bazela zeeit ju'ten etzenik (Zoho)

bo, aroa nola iuiten tzen, bena egün pare at ta... geo hua behi orgetan kargatzen eta etxerat khartzen (Sor)

Hona Zuberoako berri ere (Elixagarai 1986):

biharamenian... meza emaitera juaiten zelarik (73)

Semantikoki egokitzearen adiera duen erabilera entzun dugu Amiküzen *joan* aditzaren forma perifrastikoan:

dallia bizkarrean joiten ginen mindirat, ta han, mindian ikhusten güe etxeari juiten tzen kanpua nun tzen, juntak nun tzitien ta juntatik juntalat muzten iatzia, ta geo behi orgekilan etxeat ekhartzen undoti^k (Sor)

EAEL-ren 1981eko grabazio batean *artoa erostez kario horra duzu* perpausa ageri da Amendüzen; honen arabera iduri luke xiberotarrek bezala amiküzarrek ere *horra duzu* ‘dator’ baliatzen dutela, baina guk hainbat eta hainbat amiküzarrekin egon ondotik ez dugu sekula entzun. Amendüzen berean galdeginik honela erantzun digute: “*horra duzu*” *arrotz zatak*. Hein batez dioguna alde-

tuko luke Domintxainen EHHA-ko emaitzetan lekukoak dioen honexek ere: "horra düzü" Xuberan erabiltzen dela.¹²⁸

Aldiz, egin ditugun grabazioetan Zuberoako mugako hiru herritan agertu zaigu erabilera hau:

eta aldi bat gi[z]jala amañ huñez horra zen eta bixkotx hoik āhātzi zitiē eta bazien bos kilometra einik arragibel jun tzen bixkotxen eostea, Mauleat, āhātzi bizitiē enetako arra bos kilometra in eta de[ʒ]a bada heentik eta Maulea hamahiū kilometra, ordian (Oih)

Ainharben horra züzün bildu dugu:

ene demoan e nik uano etxen ükhen tüt haurrak; halabai "alabadere" bede... bede[z]ia heldü zen, e, bede[z]ia horra züzün eta haekilan batin, bena ama beinin ordin

Baxenabarreko muga hurbil duen Olhaibin adieraren aldetik puntukari kutsua dakarren honako beste etsenplua entzun dugu:

harmak eta bazitzin eta hor ai zün, horra gindelaik ai zün bee baitan ze ari

Zuberoako Ligiko Allande Elixagaraik ere badarabil (144):

untsa askaltürük horra zira

Adibide puntukari perifrastiko ugari ditugu Euskal Herriko ekialdean: Erronkariko Izabakoa da *xitan den úrtian* (Mitzelena et alii 1953: 508) eta Zaraitzuko Jaurrietan bildu genuen *xiten den martxoan*.

Ez dugu Amiküzen *jín* aditzaren aldaera trinko datibodunik entzun, era perifrastikoa baizik:

eta untsa eldu bazakiu tenorea, bon, meza intzuten eta gio estazioneak iten eta ezpada ontsa eldu mezako tenorea, lehenik estazioneak iten eta gio meza (Amo)

faturra jurnalaikilan ezpeizakiu, hamekoon, hameka t'erdiaik artio eldu (Amo)

Oztibarren ugari dira balio puntukaria duten aditz perifrastiko berriak; eman dezagun etsenplu bat: *horren ertera joaiten nintzun* 'nindoan' (Arh); cf., ordea, adibide gordetzaille hauek guztiak (Videgain 1989):

128 EAEL-ko Amendüzeko datu horretan oinarriturik *horra duzu* adizkia Amiküzen kokatu dugu artikulu batean (Camino 2015a: 20), baina zuzendu beharreko datua da.

banoak ahatxeka (Izu)
bethi exkerrekoa aintzino, exkerraldetik zoan aintzino (Jut)
heentik badoazi (Ibarro)
handia re, gorriz bezi, badiazu ba haren ikhusteko (Ibarre)
gio bagoatza goiti eta borthulat elgarrekin joan behar delaik (Ibarre)
doatzi ‘doaz’ (Jut)
sagarerroiak promenatzen diailtzek (Larz)
baaile ‘bahabil’ (Larz)
eskolan gindabiltzelaik (Larz)
baita to / oizu / oxu & oixu ere ‘hartu’ adieran (Zib)

Alderantzizko fenomenoak ere gertatzen da, ohikotasuna duten egoera batzuk aditz trinkoak adierazten ditu:

bazailan igande guziez bezperetan (Jut)

7.3.3.1.3.3. *johan* ohikotasunean

Baxenabarreko eskualde batzuetan ohi denez, “*johan + izan* aditza” egiturak ekintzaren halako ohikotasuna adierazten du; hona Arberoako Armendaritzeko etsenplu alde bat:

aste guziez johan ginden
gero badira bearba riubian ta ibilki dienak, na ez herrian berean; Iisarirrat ioaiten dire; hemen pilota bestenaz; gero dolu ute, gero badira iohan direnak gaueskoletarat, pena ute etxen berian ikhasten ahal tzutelaik, hori da domaia
ta geo jarraitzen ginden, apezain beldur ginden, kasik johan ginden, bakizu, beldurrez, egia da, e, beldurraz johan ginden, zeen ta erremarkatia zinden ezpazinden mezara joaiten

Dena den, ibiltzen dute *joaiten ginden* erako egitura ere Armendaritzen.

Amiküzzen ere bildu dugu egitura hau, Bartan *izan* aditza jokaturik eta Oragarren eta Arrüetan jokatu gaberik; argi da Amiküzeko arras mendebaleko erabilera dela, ez ibarraren erdigunekoa:

geo re hurren ikhusteat edo johan tzun bethi (Barta)
edo juhan n^oapeit edo be’e bakantzetaat edo? (Ora)

*a, herriko neskatoxe ha^sooxiak, zumat tzien u' ezp^riniz ohit ni, bezpee-
tan iülen bigintien eta ^seo pla[z]er bagin'zin bezperataik landa elgarrekilan
johan elheka ar'zia, ta kartaka ta hola (Arrü)*

EAEL-k Amiküze mendebaleko Amorotzen dakar, *izan* aditza jokaturik gainera (265 etnot):

öihanetfk Mèhaineá yohán ginen

Egitura hau biziki ibilia da Amiküzetik ezker, Baxenabarren nola Lapur-
diko Aturrialdean bederen. Hona eskualdeko adibide batzuk (EHHA):

biharamunian johan zinen hat itzultzerat (Mugerre)

*arreinki hua bazen, eta trantxaka edo osoik egosiik, haandako in behar
zen salda... guk in duguna, denboran johan nintzan kolakaan hartzeat Ahur-
tirat (Bardo)*

kukia ordian johan da (Izt)

*urri guzian zen, urriko lehen igandian, Isturitzeko pestak, eta bei-
laren estakurian, Amenduzetik, Garruzetik, orgak haurrez horrat heldu;
bazuten konfiantxa, sinesten zuten, debekatu zuten kaperan sartzia [erortzer
zelakoan], ur-erreka jiten zen gainbehera eta haurra ikuzten zuten ur hartatik.
Eta anhitzek ura johan zuten 'eramaten zuten' (Izt)*

Eta litekeena da balio puntukaria ukaitea ere (EHHA):

*itsu bat, bidian johan, eta, urketa e! bazitiin bere usaiak, eta johan zen
'zihoan' makhila eskian uraan xeka eta bide bazterrian pasatzian, zeit aditu
ziin (Izt)*

*errapetik aintzina badute zein bat xilhoarano johan zeena eta zeina
ederro eta xilho hau handio, behia esnaumo (Izt)*

Oztibarren ohikotasuna adierazteko ez da "johan da" erako adizkirik ibil-
tzen, Videgainen corpusean ez da adibiderik ageri eta Oztibarreko gure lekukoek
ez dute erabili; halaber, honetaz esplizituki galdegin diegunean ezezkoa eman
digute.¹²⁹

129 Videgainen corpusean ohikotasuna adieraz lezakeen balizko adibide bakarra dago; inkestatzaileak lekukoari galdegin dio ea jendarmeak ohartzen diren eta erantzuna honela eman du: *otoan johan direlaik ez, bena zure behia kontrabandan bidian bada alhan ari, behar tzie baztertu hantxetaik (Bun).*

7.3.3.1.3.4. Puntukaria perifrasiaren edo lokuzioan

Aditzoina ibiltzen da *oroitu* aditzean adiera puntukaria duenean:

ohit nuk (Lab) / *ohit nuzu* (Bith, Uha) & *ohit nüzü* (Mar, Lab / Arüe, Loh, Olh) & *ohi' nüzü* (Gam) / *ohit gintien* (Lab)

Hauetan Nor Nork saila baliatzen da: *ohit tzit* (Mar) / *etzit ohit* (Arbe). Hurranen adibidea Laphizketako da:

etzüt herrian ohit eta belharra pherdeik sarthüik eta süik gerthatüik hemen

Ukapenean jokaturik daude beste etsenplu hauek guztiak:

eniz untsa orroit uai (Behau) & *enuzu biziki ohit* (Bith) & *enuzu bate oRit* (Bith) & *enuk ohit* (Lab)

Ikus *ohit emazü* ‘jabetu zaitez, pentsa emazu’ (Mar) egitura ere.

Baina badira bestelako etsenpluak ere, *orhoitu* aditza partizipio bururatu edo burutugabeen jokaturik:

ohitzen tziauzu (Uha)
Españian libro zun ta hemen eztukezü ber Jinkoa geoztik ohitü zatazü
(Mar)

Aditz gehiago daude balio puntukaria izanik ere forma trinkorik ez dutenak, lokuzio bidez edo eratzen direnak:

ta ifernia usu aiphu edozoinekin (Amo)
hitz zit ‘hitzematen dut’ (Bith)¹³⁰
bon, nahi diat ‘onesten diat, onartzen diat’, *bon* (Amo)
so izak (Amo)

7.3.3.1.3.5. Aditzoina ohikotasunaren adierazle

Partizipioko atzizkirik gabe, pertsona eta tempus markarik gabe baliatzen dira inoiz Ipar Euskal Herrian ohiko ekintza bat adierazten duten aditzak; adibi-deok Arberoan bildu ditugu:

130 Hona zein den ingurunea: *eun batez aRunt ttipia zun ba, ape... jaun... jaun eRtorak eta... eztakizut bate nola, zeeit othoitz galdein tzin haundi bati ta etzakizun, ta geo hak suflatu zin eztakizut nola ta, hea bazakienez, ta, baiez ba, ta eRezita zezan ta holako othoitzta, ta, baiez ba, ce petit bouchon, hola eRan tzin eta, hitz zit, ta nolaz ta ikhasia zien, eta, ba, bēhāuz guri.*

geo ez ostatian bazkal, e (Arm)

heen koblak kopiatzen gintien, lau edo bost plantatzen ginten eta bakhotxak lerro at ixkia, ta gio hek oro elgarreta, anitz bertso ola bildu Martinenak-eta (Meh)

eta otoan sar eta are, denak etxeat (Meh)

baute han phasta at, hua moskotik sar eta psiu! Are, ina da aatea, gero bestia (Meh)

Honako adibidean ez dirudi ohikotasunaren adiera daramanik, gertakari puntukaria dela dirudi: *eia sar eta khendu ako* ‘eria sartu dio eta kendu dio’ (Meh).

Oztibarren ere, ohitura adiera edo kutsua erantsiz, aditz asertiboetan aditzoia ageri da usu, eman dezagun:

leheno khen adar horiek eta ahoan ezar, eskolan ginelaik (Larz)

gandeaíluz erratzen zen; tortxa benedikak, etxen belhaunika, zeñha eta bilhoa erra buruko minaindako (Larz)

Hona orain Amiküzeko etsenplu zenbait:

traturrain güiletik iiltzen da hua eta geo bihamonian berriz e largatzen... eta iten dute... haakin beraakin barreatzen, ta atsean sar, balotatzen dute ta sar (Ora)

neskatoak, e, ta, fille de Mariak erten b^eitzuten ordian eta xuriz bezti ta khantariak eliza aitzinian iandetan (Amo)

joⁿ behar nien bi untzi har eta mendi kaxko atetaat urain txek^ha, delako espalakoin zurezkoekin (Behau)

gu haurrak, bon, askal ta eskolaat partitzen gintzun eta geo heek alhoretat ta juiten (Ost)

na leeno, bua, belhar pikatu berria, hek barrea ta gio bertze itzulaldi at, geo atsaldean berriz arrasteluz arranaikatzen ta geo pulatzen ta, bua (Uha)

ta berriz behiak uzta eta beste bandaño at ondoko egunian (Uha)

ta gio bihamunian saskietan ezartzen tziizien oihalak, mihiseak eta liña haundiak... eta gu xeka joaiten gintzun, ohit nuzu eta esku orgekilan batek aitzinetik eta khorda bat ezar eta thiatzeko ta gio saskian ekartzen ta gio hantxetan hedagia zun leheno, uai etzu (Uha)

geo belharkako maxinak bagintzin, moztekoa, itziiltzekoa ta biltzekoa eta gio behar zelaik belharra kargati, esküz bil eta esküz karga ta eo etxea eta esküz deskarga, ta hola (Arrü)

orgetan, orgetan, ez mi^bisetan, ez, phentzian ezarten gintzin bi aldetaik inik holako herreka edo nahia erten biginien, hartan, eta gio fürxinaekin hartan har eta geo orgetaat ezar (Arrü)

erremorkain gañean sar (Lab)

ta pilotan ar eta aldatzen eta gio dantzan artzeat juiten (Ame)

gü aldatzea juiten gintien, ta, xuriz bezti ari gintien gü pilotan eta geo aldatzen gintien ta dantzan artzea juiten (Ame)

besta beitzen, sei erreka, hak kundatzen ... ta lau, ta sei hek, denak eün batez bil, edo lau heek eün batez bil, knptzen tzia? (Gam)

nabo idok behiendako, nabo kharga, etxeat ekhar, eman, las... gio las-toa, ogi ioiten, ogiak joiten beintien ordian e esküz (Donap)

itze hartan sartzen tzindien ta makhilaekin bethi bil, bethi bil, bethi bil, züe khorda... zühauk (Donap)

gio xiria sar, khorda thinka ta parti meta kaskoat zübiria goiti ta bestea e sartzen tzün (Donap)

egünaz bil (Zoho)

hartaik eta zazpi-zorzi metretan instalatzen tzen ta geo uhal haundi batekilan moterrak marxan ezar eta, moterrak itzülিকাазten tzien (Sor)

Ohikotasun adiera dago Zuberoan ere:

ordin ni kuntent nündia erdia ützen balima zien, komitatin sar eta han [3]aten nian (Urd)

Gamereko adibidea da hau (Otsibar 2003: 71):

Agerreko mitilak gü ikusi, arrain bat har eta eraman

Bidankozeko Mendigatxa erronkariarrak ere bazerabilen (Estornés Lasa 1984: 75):

lore kontarik egos (75)

Hurranen etsenpluan ez da ohikotasunik adierazten, baina gramatikak era berezian gobernatzen du menpeko perpausa, bertan dago aditzoina:

bon, nahi die bestek bezala iil, ze na'uk, nahi die seitu (Ora)

ta sustut euria zelaik, euria zelaik etxen ezpitzakiten ze ar, ordian ale! (Gab)

EHHA-k Arbotin honakoa bildu du: bazakizün nuntik lot.

Erronkariko adibide hau ere iduria da, Mendigatxarena (Estornés Lasa 1984: 75):

nik ere uste dud kala igar

Perpaus honetan aditzoinak gramatikalki denbora adierazten du:

laetan oitabost urte batut e, ordian, hola pentsaketa has eta ari niz, ui, ui ama, ze ari niz, ni ono hemen (Behau)

Honakoan elipsia egon liteke: *berek ikhus* (Donap).

7.3.3.1.3.6. *-ki atzizkia ohikotasunean*

Egoeraren, gertakariaren edo ekintzaren hanpadura adieraz dezake aditz nagusiko *-ki* atzizkiak; cf. gaiaz Iñigo, Salaberri & Zubiri (1995). Baina bestalde, aditz nagusiari *-ki* erantsirik ohikotasuna adierazten da ere, Arberoan ohi bezala:

bazen biziki Heletatik iilki zenik Hazparnen denboran (Arm)

gero badira bearba rübian 'rugbian' ta ibilki dienak, na ez herrian berean (Arm)

ibilki uk haat-hunata (Meh)

Bertako lekuko batek dioskunez *joaki* forma ez da Mehainen baliatzen, ohikotasuna adierazteko *johan* baliatzen dutela dio.

Ohikotasuneko *-ki* berri hau ez da Euskal Herriko ekialderaino heldu; Zuberoa, Erronkari, Zaraitzu edo Aezkoa erabileratik kanpo daude. Oztibarren ere ez da baliatzen, ezta diosala gisa edo balio puntukarian ere. Oztibarreko Ibarrolan eta Donaixtin dioskutenez, *ibilki*, *izanki*, *jakinki* erako aldaerarik ez da ibiltzen eta Videgainen 1989ko corpus luzean ere ez dugu aurkitu, ezta EHHA-ko emaitzetan ere.

Eta Amiküzez ere berdin erran behar da, ez da baliatzen. Amiküzen egin ditugun elkarriketa ugarietan ez zaigu era hau agertu. Amiküzeko Amendüzen dioskutenez, ordea, agurtzeko baliatu izan da *ibilki*:

bereziki norbait kurutzatzen bagindian oinez zoana, "ibilki?" galde-tzen gindakoan solasaldiaren hasteko, kasik agurtzeko molde bat bezala

Oragarreko Bartan dioskutenez ere diosalean entzun daiteke: *untsa iz* erran ohi den bezala *iilki iz* ere entzun ohi da.

Arrüetan etsenplu bat dakar EHHA atlasak, baina ohikotasuna ez, adiera modala duela dirudi:

hamairu azurietaik trois pour le patron, hamahiuretaik hiru artzainaindako eta hamar beetako... ta esnien güzia, dena, laoraiendako, gio, e! mais il faut le nourrir... gio bauzü beste at, bestalde, iten tuztenak artzain batzü, baño herrian izangi eta aurtan lehen leendako, etxe güzia dena ferman hartzen... jien da berdin berrehun ardikin, hiriürekin, denak bateko (?) tu horrek, beste modela at hori ono, ta antxiak bestalde ono

Garazin ezaguna da *-ki*; cf. Ezterenzubiko *soldadoak hor ibilki (EHHA)*: muga ondoko Luzaiden ere entzuten dira *ibilki, izanki, jakinki, jinki...*, eta Baigorriko eskualdean ere badira adibideak, Barandiaranek Urepelen bildu etsenplu hanpatu hau lekuko (1982-3: 22):

iratzartu zenean, erloirik ez izaki etxean eta, ustez argia urbil zen, abiatu zen joan beharra zen etxera buruz

Mendebalerago Larresoro aldean ere bada, hala balio puntukarian nola hanpadura balioan, eta adibide bat bildu du Epeldek bardoztar batengandik (2003: 128-9). Urdazubi eta Zugarramurdin balio puntukaria du eta baita hanpatzailea ere, Lapurdiko Saran bezala. Baztanen ez da puntukaria, baina diosalean baliatzen da eta era hanpatzailean ere bai (Montoya 2004: 176-7).

7.3.3.1.3.7. *izan* eta *ukhan* aspektu bururatuan

Ipar Euskal Herrian aditz iragangaitzetan perfektibotasuna adieraz dezake *izan*-ek eta berdin gertatzen da iragankorretan ere, baina hauetan *ukhan* gramatikalizatu da eta geografikoki *ükhen* baliatzen da ondoko Zuberoan; Erronkarin *ekun* baliatzen zen. Egitura iragangaitzaren etsenplua dakar *Borthian Ahüzki* kantu ezaguneko pasarte honek:

Neskatil' ejerra, oi! begi ñabarra / Nuntik jin izan zira bortü gañ hundertara?

Arestiko Zuberoako *nuntik jin izan zira* horretan erredundantea da *izan* perfektibotasuna adierazteko, berez *jin zira* aski gertakari bururatua baita; ez dakigu pasarte horretan *izan* agertzea *metri causa* ote den. Halaz ere, beste kasu batzuetan *izan* eta *ukhan* aditzak ez dira erredundanteak: puntukaritasuna edo ohikotasuna gertakari burutuatarik arras garden bereizten ez duten aditz-lokuzioetan, *izan* edo *ukhan* agertzea gauza beharra izaten da gertakaria zalantzarik edo anbiguotasunik gabe bururatua dela adierazteko. Hurrenaren adibideetan anbiguotasuna saihesten dute *izan* eta *ukhan* aditzek perpausean, ez dira erredundanteak; lehenik adibide erabilienak dakartzagu, hots, iragankorrak, eta ondotik iragangaitzak:

nausiak ezpaitu saldu nahi ukhan etxia (Amo)
geo han behar ukhan tüü kla[ʒ]ak in, kla[ʒ]ak, ba, fite inak izan dira, e,
oto gidatze ta, armamendü eta ^horiek oro ikhasi tüü (Lab)
nahi ükhan die etxe at hartü (Arbo)
pilota maitiau ukhan tzit amiña at... pilota maite ukhan tzit (Donap)
benä behaR ukhan nizän etxen eon (Laph)
ordian hartakotz behar ukhan gindian in urthe at et' erdi xerbitxü (Sor)
benä bat[ützü] bai gaztiak, ützi behar ükhen beitiüte lana (Pag)

Adibide hau, berriz, ohikotasunekoa da:

ogia ere in ukhan dut poxi bat ama eri zelaik hola (Barta)

Hona adibide iragangaitz bat, Amorotzeko lekuko batek 1986an EAEL-n emana (265. etnot); lokuzio honetan *izan* ez da erredundantea:

iküsi zuén... áitu zuén gá(n)beran sártu gábe, flo-flo-flo-flo-flo-flo
zérbaít, eta etzen fida izan

Arberoan Mehainen bildu ditugun bi adibide aipa ditzakegu; lehen etsenplua ez da erredundantea, baina bigarrena, berriz, bai:

behar ukhan duu utzi, ta gu[k] bezala bizikik
paper 'zahar batzu atzeman ukhan tut merian

Oztibarren ere ingurune perfektiboan *ukhan* aditza ageri da; etsenplu honetan adizlagunak ohikotasuna adierazten du, baina gertakaria bururatua da:

nik bildu ukhen tzit frangotan phagotan hori (Larz)

Amiküzeko adibideak dira hurranen hauek ere, guztiak erredundanteak:

eta geo hua hil izan da bate funtsik gabe (Ame)
jakin ükhan banü horiek hola ai ziela, enindian bate jein (Ame)
nik jakin ukhan banü bezperan, goizakin juin... juiten ahal nintzan
(Ame)

Hurranen adibidean *ukhan* + *izan* adizkia ageri zaigu:

geo aita behar uk^han tzen ba joan Biarritzeat komandatiüreat (Lab)

Eta beste honetan aditz iragankorra + *izan*:

izan tzen meza aintzinian aphezai erraiten intzaur erdi bat jan tziela eta
tronpa... ahatzik jan tziela, benä etzien kominiatü ahal izan (Olh)

Honako bi adibideotan aditz nagusiaren jokaeraren kutsua du *ukhan*-ek, -ik atzizkia duen adizlagun antzeko aditz baten ondoan:

*nik mazela hori, ala[ʒ]jinkoa, motafresezakin zenbait urthez garbituik
ukhana izit ba (Uha)*

hala ukhan dik intzünik, erten (Lab)

7.3.3.1.4. Tempusa

7.3.3.1.4.1. Iragana adierazteko oraina

Hego Euskal Herrian ez bezala, iragan burutua adierazteko oraina erabil-tzen da Ipar Euskal Herrian aditza perifrastikoa denean. Ezaugarri hau “berri samar”-tzat jotzen du Zuazok (2014: 259) eta dioenez ez da hedatu Urdazubi, Zugarramurdi edo Luzaidera. Gertakari hau frantsesaren eraginari egotzi izan zaio; eman dezagun, Michel Etchebarnek gaiaz idatzi du, baina ondorio eraba-kigarrietara heldu gabe (2009: 115-9). Mounolek ez du uste sorreran frantsesaren eraginez gertatu denik: dioenez, frantsesaren balizko indar horrek ez dio kaskoi-nari eragin eta bestalde, euskarak eta frantsesak hartu-eman guti zuten garaian ere gertatzen zen euskaraz, Martin Harrieten 1741eko gramatika lekuko (2011: 283-5).

Garai berekoak diren bi gertakarietarik bata, aditz perifrastikoa darabilena, iraganean ageri da eta bestea(k) orainean adierazi dituzte lekukoek Bithiriña, Zohota eta Arberatzeko etsenpluetan. Argi da oraineko aditzak aditzaren egitura perifrastikoa denean ageri direla:

*ni hasi nizalaik nexkatoak alderdi batetan tzitzun eta mutikoak best'al-
derdian (Bith)*

nik banitikan hoita amabi urthe eletrika ukhan duulaik (Zoho)

*eskolaa joan nüzü, enakizün bate frantsesik, pikotik e^e [irri], ordian
frantsesa ikhasteko artian denbora poxiño at joan tzüzün, ta geo errientsa
khexü ta emaiten tzauküün pünizion^e at (Arbe)*

Gamueko lekukoarekin artoaz mintzo gara —2005. urtean da hori— eta hazitako artoa Amiküzera etorri zen garaiaz dihardu, hamarkada batzuk lehena-goko errealitate iraganaz, baina oraineko tempusa darabil hitzunak:

*gio geoztik kxanbiatü b^eidira ixtoriuak, hazitakua jin delaik, konpreni-
tzen tzia? (Gam)*

7.3.3.1.4.2. -e- → -a- iraganeko aditz trinkoetan

Hego Euskal Herriko beste alderdi batzuetan legez, iraganeko adizki trinkoetan berrikuntza gertatu da Ipar Euskal Herrian eta haren ondoko eskualde batzuetan eta -e- → -a- aldaketa gauzatu da aditz erroaren aitzinean. Ordea, Euskal Herriko mendebal-erdialdean aditz trinkoetako iraganean -e-ri eutsi zaio gehienbat; aldiz, Lapurdi-Baxenabarretan -a- ibiltzen da eta Zuberoan ere -a-dago, baina ez guztiz.¹³¹

Oztibarreko Jutsin, errate batera, EHHA-ko emaitzetan *zagon* 'zegoen' ageri da egun, nahiz eskualdean bokal asimilazioz *zoon* ere gertatu den, eta ez analogia ez asimilazioa ez dira atzo goizekoak, izan ere, 1782ko *Pratica* itzulpenean Lopez jutsiarrak *zaguén* & *zoola* dakartza. Nolanahi ere den, ez dirudi asimilazioa aditz guzti-guztietan gertatu den, Jutsin berean *bazekiten* dakar egun EHHA-k. Hona Oztibarreko adibide gehiago:

lauazka bazailan (Jut), *bazaílazun* (Lan); cf. *eskolan gindabiltzalaik* (Lan)

Hona Amiküzeko edo ondoko eskualdeetako adibide gordetzaileak:

enfin konprenitzen ginien "omnipotente" eta (...) ba, bixtan dena, etzekiten ze erraten tzuten, bena (Ora)

aitak bazekikexun ba nik beno eiho (Ora)

Etsenpluotan iraganeko tempusean berritzat jo behar dugun *a* analogikoa ageri da, baina *jakin* aditzari dagozkio guztiak; ezagun du eskualdeko aditz trinkoek beherakada gaitza jasan dutela, beste aditzen adibideak beharko genituzke izan bestela:

leheno bai, leitzen ee baginakien latinez, zeren eta meza beñi latinez gñtzin leheno, bainan oai ahatzia dugu, oai eskuara da beti (Ora)

131 Errate batera, Eskiulako 1758ko idazkian *gorderic cegoën* (47) dakusagu. Iduri luke zuberera zaharrean egoera zaharra ere islatzen zela. Belapeirek *çagoan* (II, 34) eta *çavilan* (II, 66) darabiltza; Oloroeko katiximak *beytçaudin* (1706: 32). Intxauspek *nındagon*, *zagon* / *náraman*, *záráman* / *nakian*, *zakían* / *nadıkan*, *zadıkan* / *narabílan*, *zárabilan* adizkiak dakartza (1858), baina halaz guztiz ere, *ne(n)bílan* eta *zebílan* ageri dira, -e-dunak. Leizarraga batek bietara zerabiltzan, aditza zein den: *nengoan*, *zegoen*, *zeuden* & *zauden* dakartza, baita *zetzan* & *zatzan* ere, edo *zegian*, *zegiten*, —datiboa duela *zegion*, *zegigun*—, *zerabiltzan*, *zeraunsan* & *zeraunson*, *zeraunsaten*, baina *zabilan*, *zabiltzan*, *zadukan*, *zadukaten*, *zaramaten*, *nakusan*, *zakusan*, *zakusaten*, *nakian* & *niakian*, *zakian* & *zeakian*, *zanzuen*, *zanzuten*. Beharbada Garazin XVI. mendean berrikuntza baliatzen zatekeen, Etxeparek *zagoen* edo *zenakusan* dakartza. Erronkarin iraganeko adizkietan Mendigatxaren *ngolarik*, *zagon* & *zagon*, *zauden* / *zakion* 'zekien' / *zakan* 'zeukan' / *zamein* 'zaramaten' aipa daitezke, bi joerak ageri dira. Azkuek Erronkarin *nindagon*, *zagon*, *gindagon* eta *zauden* bildu zituen (1931: 231) eta zioenez, Bidankozen *zagon* erabiliagoa zen *zagon* baino (243). Ondotik Izaban *zágola* bildu zen (Mitxelena et alii 1953: 509).

eskuarazkoak e bazitzun zakienaindako (Amo)
ginakien & ezkinakiila (Behau)
balima gindakien (Ost)
e^sinakiziün (Arrü)
etzakiziün ze in behar tzin (Gam)
bazakizien biarne[^z]a (Dom)

7.3.3.1.4.3. *izan-en iraganean -an / -en*

Nafarroa Beherean eta Lapurdiko ekialdean *izan* aditzaren Nor saileko iraganean *nintzan*, *hintzan* baina *zen* paradigma dago eta Zuberoa guztian ere *nintzan*, *hintzan* / *zen* baliatzen da. Lapurdiko erdialdean eta Baigorri aldean *nintzen*, *hintzen*, *zen* aldaerak ibiltzen dira eta *ni(n)tzen*, *hi(n)tzen*, *zen* egiten dute itsasaldeko lapurtarrek.

Arberoan ere lehen pertsonan *nintzan* egiten da, Mehaineko etsenpluok lekuko:

gaztena beinintzan
na laket nintzan
ni fier nintzan
undar xeena nintzan etxen

Amiküzen ere *nintzan* eta *hintzan* aldaerak entzuten dira, Bithiriñako *ni geihena*¹³² *beinintzan*, *etxen behar nixin egon* edo *ahotik minez beinintzan* adibi-deak lekuko. Behauzen *nintzan*-ekin batean *nintzen* ere agertu zaigu elkarrizketa batean: *han ontsa nintzen ba*. Ez dakigu zenbateraino den herrian egiten den jardunaren adierazle leiala, ala ez ote den lekukoaren jokaera berezia: beharbada elizako, mintzo jasoko edo Lapurdiko tradizioko euskarak eragin duena.

Zuberoako mugako Olhaibin *zali hintzan ordian* bildu dugu eta Zuberoan bezala, Oztibarren ere *nintzan* & *hintzan* ibiltzen dira *izan*-en iraganean.

Ikus orain Borja Ariztimuñoren hipotesi interesgarria (2013b: 53, 13. oh.): *nintzen*, *hintzen* aldaerak berrikuntzat jotzen ditu eta dioenez, Baxenabarreko eta Zuberoako *nintzan*, *hintzan*, berriz, zaharrak lirateke, *han* lekuzko adizlagu-nean oinarriturik sortuak: adizkira *han* → *-an* egokiturik (2013b: 53-4).

¹³² Hitza behin eta berriz entzunik ere, ez gaude ziur *geih-* ote den, entzun uste dugu *gehiena* ere.

7.3.3.1.4.4. *izan-en* Nor Nori iragana

Nor Nori iraganeko adizkietan *zitza-* eta *za-* hasiera duten adizkiak ibiltzen dira Baxenabarren, funtsean lehenak hegoan eta *za-* erakoak iparrean, baina halaz ere, Irizarren arabera Gabadin *zauzun* 'zitzaizun' & *zitzauzün* ibiltzen dira, bi ereduak (2002a). Gabadin berean *zaukun* 'zitzaigun' egiten da eta *zaukün* 'zigun' dago ere, Nor Nori Nork sailekoa. Datu horien arabera Amiküzen *zit-* duten eta ez duten aldaerak ibiltzen dira iraganeko Nor Nori sailean, baina dena den, guk entzun ditugun etsenpluetan *zit-* gabeko aldaerak ageri dira; bakarra ageri da gure elkarriketetan, Arberoako Armendaritzen entzun duguna: *gustatzen zitzakola*; Mehainen, berriz, *gertatu zatan* 'zitzaidan' entzun dugu. Hona orain Amiküzen entzun ditugun etsenplu batzuk:

leeno badugu zenbait eta inik, belhar, aitaakin biek eta Batita gizon txahar bat bagintzin, eihazain txahar bat, heldu zaukun orgaan zamatzeat, auzo at, ta hua orga gainean xahartia deia, zangoa ezin altxa (Ora)

haur hua hola gelditu zakon meninjitatuik (Ora)

sarthu zakozun behiari (Ost)

gerthatu zaküian (Ilh)

büüz heldü zakola 'aurrez aurre hartza ehiztariari erasoan zetorkiola' (Laph)

Oztibarre bi joeren arteko mugan dago Baxenabarren eta bi eretarik ageri da ibarrean: toka *zitziakuan* 'zitzaiguan' eta zuka *zitziuzun* ibiltzen dira Ibarro-lan, baina eztabadan *andatu zakon* nahiz *andatu zitzaikon*, bi ereduak entzun ditugu herrian. Donaixtin, berriz, *zitzauzun* 'zitzaizun' eta *zauzun*, bi ereduak bildu ditu Artolak (Irizar 1999a: 345); Jutsin, berriz, *zitza-* erakoak bildu dira. Oztibarreko erdigunean den Zibitze herrian *zatan* 'zitzaidan' dago, baina baita *zitzaikon*, *zitzaun*, *zitzauzun*, *zitzauzien* eta *zitzen* aldaerak ere eta alokutiboan *zitziakan*, *zitzianan* eta *zitziuzun*; ikus datu gehiago EHHA atlasean (90520, 90530, 90540, 90550, 90560, 90570, 90580).

7.3.3.1.4.5. *-te* & *-ke* etorkizunaren adierazle

Euskara historikoan aditz trinkoetan arras baliatuak izan dira *-te* eta *-ke* morfemak etorkizuna adierazteko: lehen iragangaitzetan eta bigarrena iragankorretan; cf. Intxausperen azalpenak (1979 [1858]: 55-6). Zuberoan sumatzen da oraino ezaugarri zahar hau, eta adibide frankotan *-ke* morfemari etorkizun kutsua dario; hona adibide zenbait:

Adibide iragankorra da *bihar badakikek* 'bihar jakinen duk' garaikidea (Etxegorri 2003: 267). Eta iragangaitzean Elixagarairena aurkez daiteke (174):

bihar, beharbada, aphaltago hizate. Gogoan ukan behar da historikoki harenak ez diren kokaguneetara higitu dela *ke* morfema eta adibide pleonastikoak sortu direla: *eztakie nuiiz giatekin hen egongian*; adibide iragangaitz hau Biarnoko Jeruntzekoa da, non *-te* eta *-ke* morfemak elkartu baitira: Barkoxe, Eskiula eta Jeruntzen *-teke* nahiz *-te* entzuten dira egun.

Hona bi adibide aditza iraganean dutenak, baina etorkizunari begira daudenak, geroari buruz (Peillen 1985: 22):

ordian, hartarik landa mündian ürrhentzea jinen zela. Süiak hartürrik zatekiala aldi huntan. Süiak oro erreren güntiala

eta ordian erran zioziün, behar zeitzola deboziona hurak oro egin eta haren arima phausian zatekiala (70)

Amiküzen Sorhapürün entzun dugun adibidea aipa dezakegu:

ta ni gerthatu nintzan ene ordu artean ezautzen (sic) dremendenik ezaiützen enienaekilan, iholdiarra ukhan nien ta hartaik partitü da elgarreki-lan geo solastatzea ta segidain itea ta uai horxetan date hua

Amendüzekoa da beste hau:

hor sartü ta haez geoztik hor date ta...

Hurranen adibidea iragankorra da eta etorkizun kutsua edo beharbada adiera hipotetikoa dario:

noizbeit inen duzte haurrek nahi tuztenak, baukete lekhu apartamendu iteko, e, ni oai xaharrei niz (Behau)

Dena den, *-te* morfemak beste adierarik ere izan du aspaldian: “*edin + *-te*” loturatik datorren *daite* ‘daiteke’ adizki zaharrean, errate batera, ahala adierazten da, ez etorkizuna. Maister idazle zuberotarrak berak *daite* eta *daiteke*, bi erak zerabiltzan egungo ‘daiteke’ adierazteko (1757). Baxenabarren ere nagusi zen *daite* ‘daiteke’ aspaldian, gure eskualdeko 1782ko *Pratica*-ren itzulpena lekuko, baina XVIII. mendetik ahaleko aditz iragangaitzetara sartuz joan da *-ke* atzizkia.

7.3.3.1.5. Modalitatea

7.3.3.1.5.1. Kutsu modal epistemikoa edo konjeturala ere eransten du aditzean *ke* morfemak eta arras erabiltzen dira *ke* duten adizkiak Ipar Euskal Herrian; honelakoetan Hego Euskal Herrian aditzaren etorkizuneko forma baliatu ohi da.

Hiztunak guti goiti beheiti halako ustea du, edo bestela, gauzak honela edo horrela direla hiztunari nondik-bait edo norbaitengandik heldu zaio eta ondorioz berak ere uste hori balu bezala, baina ezagutzaren ardura hirugarren lagun batena edo izanik, hiztunak ezagutza edo jakitatea erosi bezala saltzen balu bezala, berehala ikusiko dugunez kutsu horietan higitzen da *ke morfema*.

Hurranen adibidea Baxenabarrekoa da, Arberoakoa:

suaxant huitar hoitaik, suaxant huiteko, bakizu Frantzian izan tzen eta moimendu, hoitaik zen eta nahi zukela jakin biziki gauza ta eman nazkon (Meh)

Amiküzekoak dira hurranen etsenpluak:

hoi re entzuna zinuketen, a, hoi ezta bate berria ixtorio hoi (Ora)
badira, eta, Españan assurance, maladie ta hoitaik? Ba seurra, baduzketzie, bena laborariek e? (Ora)

heldu zuzkenan hola edo besteñean eta? (Ora)

aitak bazekikexun ba nik beno eiho (Ora)

beno han konprenitzen duke, eskola hartako moldia ikhasten duke, hale? (Ora)

eta kurritzen ta oro zen? (...) ba, hiru urthetan kurritzen tzen deia, ehitu aitzin kurritzen tziuteken... uai e kurritzen da, edo invalide da? (Ora)

bazen eta epidemia e, denbora atez, zen ta contagieux da hori, eta meninxit (...) bazitaken e denetan seurrena, geo hatzimana dena hatzimana den, besteñean gerthatzen da izi^{is}arri ontsa sendatzen beitzien ordian hartarik, beste atzutan e, gelditzen da (Ora)

latinak... lehenoinportantao zukezun, hemen e ikhasten baitzen latina bena uai hemen utzia ute, behar liteke ai, eskola guzietan ikhasi (Ora)

Baiunan baukexu seurki (Ora)

preferentzia bazukela eo zutela edozoin etxeokok, etxeko jauna izan tzain edo, gañetiko, bena... ttipia ta haundian artian bazian diferentzia ordian (Amo)

gure adinekoak e, alta, erretretalaz geoz eta, iduri likezi balitakela... guk gehienetik, uai, pasatzen tuu mementoak blagan egun guziez eiten bituu eta martxa uai (Amo)

etzuzkean uai bezain khario re arras, e (Amo)

parce que deia en trente-huit ene senarrak xerbitxia fini zukeen (Behau)

ezautzen dukezu, bena beste izen batekin (Bith)

eta izan tzun beste nexkato at... eta mutiko atzuk, eztakizut, batek nahi zikezin araiiz emaztetako, ta gio errefusatu zela erten tzizien (Bith)

batuzketzu inposiblez eleva[ž]ak iteuten hoitaik (Bith)
gazte zukezun [norbait herrira etorri zenean] (Uha)
baakita... hek “lanean artzia” zikezien, ba, erten; oai etzit untsa ohiten
ze erten tzuten, oai aspaldiko kome[ž]ak bitira (Uha)
a bai, ba, enfin, aroari khasu iten tzikezien, ba, araiž, e, kharrointe
haundia ai zelaik etzuzketzun planta (Uha)
guhaun behiekilan, hiru pare heikilan “iten; bi behi parek idi pare atena
iten tzikezien (Arrü)
bo, guk baginikezin... sei, hamar bat behi, hiru behi pare lanian artzeko
ta gio besteak gazteak, geo ukhaiteko (Arrü)
iñorantak gintziin! Aphezek atxiiten gintziien eta etxekoek behatzen tzi-
tziien aphezak, a ta nola! Bena hori re Españian libro zun ta hemen eztukezü
ber Jinkoa geoztik ohitü zatazü (Mar)
ta gero traktürr horiek e eztitazke sobera merkiak e (Lab)
behaRba bat edo beste bazükeziin umen, bena etzit intziin (Gab)
ba guai e bakhar zumeit iiltzen duzketzü ba etxetan, bena ez lehenao
bezala (Gab)
ze adin nuken? (Gab) —lekukoa bere buruari galdez bezala—
ahizpek bardin in dukete (Lük)
[uai aldiz, koletzerrolak eta baitzü martxuetar batek errana] ba, bazuken
... ordian e duaikabe, ena ezpeitakit nik ze... bizi manierak biziki khanbiatu’k
(Gam)
Iholdi ezaützen dükezü, hau iholdiarra üzü (Donap)
bna düdai gabe sosa iaazten dizezie (Arbo)
ezai tikek (Zoho)
halaz nik e enia akhusten nikezin ta hein bat trebe re lanian (Larri)
alqmanak jin tziien huna artino eta ordian banizkeen hamar-hameka
urthe (Sor)
beno mindi oitan dielaik, ümiak ukhaiten düztelaik edo, atakatzen
dizketzie ba hoR (Ber)

Adibideotan lekukoaren iritzia adierazten du ke morfemak, gauzak nola beharko luketen izan:

oai e untsalaik hala behar likezi ba (Amo)
ba... guk ez gintzin besteik ezautzen ordian, uai, uai elikezie hala in
behar gazter eta, enfin, hola uzu, ez gintzun malerusak, denetan berdin tzun,
ordian ez gintzun bate jelos auzoaz ez... bakhotxa guriaikin konten gintzun
(Ost)

bona Pai[ž]eko bürauetan balizketzie "zari horiek amiña at (Ber)¹³³

Honako adibidean baldintzaren ondorioaren kutsua hartzen diogu perpau-sari:

bo, pilotan laket nindukezun so amiño at (Uha)

Hurranen adibidean baldintzaren apodosian ageri da *ke*, *nizate* zahar bati erantsirik eta halako balio konjeturala dakar:

earki ai nizateke ni lekhiain gañian ... behorrain jabia (Ora)

Hurranen etsenplu hau Labetzekoa da, baina gramatikalizatu gabe, *arauz* adizlagunak adierazten du modalitate epistemikoa:

izan da ba biziki oihen moztüik ingürietan, na guai aspaldian, aspaldian kalmatia da, ezpita, haundienenak joanak bitia arauz edo eztakit

Hurranen adibidean baliteke lehen *ke* morfemak modalitate epistemikoa adieraztea eta bigarren aditzeko *ke* ahaleko morfema izatea:

a bai, ba, enfin, uhari khasu iten zikezien ba araiž e, kharrointe haundia ai zelaik etzuzketzun planta horien tzu... gio heen oihalak iten tzitziēn, bertz haundia hor supazterrean hur berotzen ta heen kubalat oihalak han hua gañetik ezartzen tzizien (Uha)

Adibide honetan ahala adierazten du:

ezpinauken 'nengokeen' geio (Donap)

Zuberoan ere arras baliatua da *ke* morfema epistemikoa honelako adieran. Santa Graziko adibidean ikertzaileak lekukoari galdegin dio gertakaria zein mendetan izan zen eta berriemaileak ihardesten dio (Peillen 1985: 20):

gaxoa! enakikezü, eztit ezagütü. Ene mentelako hilik züüzün

Oztibarren ahozko mintzoan franko ageri da modalitatea adierazten duen *ke* morfema, usu halako ustea adierazteko:

Lartzaalen dukek seurra re (Ibarro)

eztukezu gazte-gaztia (Ibarro)

eri dukezu (Jut)

133 Gobernamentuak asmo ekologistaz babestu nahi dituen mendiko piztia horietarik zenbait hiriburu-tako bulegoetan ezartzea frogá litekeela dio laborariak ironiaz.

zeheka, metra ezpitzatekeen berehala jin (Jut)

a, Hoztan hortan balakizketzie ba, bauzu ba zahar batzu ta hango...
(Larz)

Baina ez adiera horretarako bakarrik, hurranen etsenpluan baldintzaren ondorioaren kutsua duela dirudi:

naza baduzu, hak dizi indarra iten, bestela etzikezin ez (Lan)

Adibide honetan asimilazioak edo balizko beste zerbaitek eragin du *ke* morfema estaltzea edo lausotzea:

ba behaRba aitaxi^k ta horiek bazakikiten ba nuntik heldü zien (Gab)

7.3.3.1.5.2. Ipar Euskal Herrian askatasun handia du *omen* partikulak per-pausean kokatzeko, Hegoaldean baino handiagoa, betiere; hona etsenplu batzuk:

eta hori intzuna ixit ene aitañik laugeRen hauRa, alaba zun, eta geo izanak zitun omen elektioniak lehentxoño, eta hain, aitañin amak in tzin kozina gorrier (Bith)

behaRba bat edo beste bazükeziün umen, bena etzit intziün (Gab)

[zangoa noiz sendatuko] *a, hori, baaizü gizona, hori enüzü kapable... horren erteko, bo, behaizi opeatü, opeatü, enüzü... enüzü ürriün juiteko umen, hori izit arriünt... hau ukhana izit operatüik diela en mille neuf cent quatre-vingt-dix-huit* (Donap)

Aldiz, beste adibide honetan bi hurrenkerak ageri dira:

hemen ba omen tzien gu jin aintzinian, ^haize alimale at einen tzien eta intzaurrak denak eta, erori zien omen, nik ez tut ikusi intzaurrik hemen (Behau)

Aldi honetan perpausetik laxaturik edo askaturik bezala ageri da:

alta, erten tziuten errebolüzionea ^sabe España biziki, biziki gora zela e, omen, hala... hala intziuten dugu zaharrer erten, España biziki, biziki gora zela (Lab)

Arberoako etsenplu honetan Hegoaldean ohikoa den kokagunean ageri da *omen*:

eniz, eniz juiten, bana ez takit behautanez abiatu pixkat, arregura egi-ten omen dute... Maia zondako (sic) ez tuzie ikhartzen eta lehengo solasak ibil ditzaun eta (Arm)

7.3.3.1.5.3. Ziurtasunik ez, baina ustea baduenak *behar* erabil dezake mintzatzean gauzen honela izateko aukera adierazteko edo; Zuberoako adibidetzat Intxauserena balia dezakegu, A. P. Iturriagaren 1857ko 120. *elhestaldian*:

itches handiric eguin behar die luikharec eta garmendiec

Aldiz, testu beraren Lapurdiko itzulpenean *bide* darabil Duvoisinek:

ondicozco calteac heldu bide dira lur ikhara eta garmendietaric

Amiküzen *behar* entzun dugu modalitatea adierazteko, itxura edo ustetik ziurtasunerat doan mailaz mailako norabidean, ‘nonbait’, ‘dirudienez’ adieran, honako adibideak lekuko:

Beauzen e geoztik khanbiatia izan behar da, e (Behau)
han sorthia izan beha'izi (Bith)

Guri ez zaigu Amiküzen *bide* partikula agertu, ez dugu entzun. Iraganean Beñat Etxepare garaztarrak bazerabilen, izan ere adibideak ditugu Lapurdiko eta Baxenabarreko literaturan, baina iduri luke ez dela Zuberoako idazkietan ageri.

Amendüzeko hitzun batek dioskunez modalitatea adierazteko ez dute *bide* partikula baliatzen, ez omen da Amendüzen ageri, baina apez senpertar batek eman bertsoetan entzun dutela oroitzen dira:

Oilanda hori nungo oilarrak jokatu ote derauku?
Gaua zen eta, ilun zen eta, ez bide zuen ezagutu,
Edo bertzenaz, lo zegoen eta, ez bide zuen senditu!

7.3.3.1.5.4. Modalitatea adierazten du “*ez + edun -(r)ik*” egiturak euskaraz; Gipuzkoan, errate batera, ezintasuna adierazten du, baina aldiz, Baxenabarren zerbait egiteko beharrik eza du erran-nahia. Arberoako Armendaritzen adibide bat bildu dugu:

ezta urrun joaiteik e ‘ez da urrun joan beharrik, e’

Amiküzen adibide franko agertu zaigu:

han ez ginian jau[ʒ]e galdeiteik etxekanderiari (Mar)
denak berdin gintzun, ez gintzin bate eta jelosi izaiteik aizoaindako
(Mar)
ordian etzen juiteik (Lab)

gu bezala ez tik deu[ʒ]e eosteik goain modernaik, lehenau gazte gintie-laik be^hi bazian arnes berri zumeit, hak gintian interesatzen, bena guai, gue adinian e, jateko gaiñian eta arropa (Lab)

bo, ddqusse, etxea eta ez ginizin pleñitzeik e, zarta at bildiko gindien ^eta fite (Arbe)

Trebitschek Amorotzen egitura iduria bildu zuen 1913an (65):

oro laborariak Amikuzen, eta laborantxako gauzetan gure mintzaiak gure auzoer etzi deus maileatzeikoik

Beste bi hauek Zuberoan bildu ditugu, Sarrikotapean:

*ez düzü ez arthoik ez ogi emaitetik, so[ʒ]ez phakatzen düzü (Sarkp)
barrükü hoitan ez tüzü behien estekateik eta (Ainh)*

7.3.3.1.6. Baldintza

7.3.3.1.6.1. Baldintza *irrealis* delakoaren protasian aspaldiko testu zaharretan ibiltzen diren erak —**edin* eta **ezan* oinarrien bitartez eginak— ditugu Amiküzén:

eta uai haa joan banindadi konplazentzian leeneko ixtorio zaharretan artzeko (Uha)

gü zerratia bagindizte bezala barne atetan, berdin hua (Arbo)

*ezpita, ezpita aphez gazteik, aphez gaztea^s balizte, jendia bethi... (Arbo)
hola gu re abaatsak gintazkek, ba, hola, denak ari balizte lanean gue-tako (Lab)*

*xahartu ta nahi nuke leitzen ari, bena, e... enoatzen niz eta ez tut eta...
ba, uai etzit ikhusten ee, bena, ikhus baneza (Ora)*

bate ez kondü abe ta ikhus balitza jendia bizi eta (Ora)

bon, egungo egunean bizitzea re elukezu ahal ez pazineza zorrik in, ezpauzu... zorrik iten etzira biziko, bea'uzu, bon, geo behar dela arribatu horien pagatzea (Amo)

ziek khonda bazinezate baño eni! (Ora)

le^heneko xa^harrek, gaxoa, ikus balezate uai, uai ko zera, harri litazkek, e... arrunt difeent duk ba orai (Amo)

jin baladi (Altzü)

ekhar baleza (Altzü)

orori eman balezate hiruetanoeietan beRoita amost eta hoietan eman orde (Ber)

7.3.3.1.6.2. Hurranen adibideotan *izan, edun* eta **eradun* oinarriak baliatzen dira baldintza *irrealis* delakoaren protasia eratzeko:

hartu alute katrebent katrekua biziki untsa zukezun (Ora)
zen ta izaiten ahal bitzen... gaua izan balitz izaiten ahal gintzun denak hilak (Ora)
erten ginakon, ba, debrien sosa iraazten duk bai: "ba, paatia banintzan ba", bethi butilla ano zumeit edo hola ukhaiten tzien (Lab)
zeeit jin balako garbitia zen pathar hortan (Ame)
lürrik etzü auerrik, e, ai, ai, ai, ai, a, lürrak eta, denak ai tzü lanian, baliüte gehio re oono, zeen ta animaleko arneseria itute (Gam)
nik ezporra ezpanu enitake untsa (Behau)
ze'it in balakote hoek e hilen tzizien (Arbe)
lehen in bagindü hobe zükezün (Laph)

Entzun dugu "balitz" adizkia afrikatu gabe ere, era zaharrean:

izan baliz bezala galdein e (Amo)
eRaiten tzin ezpaliz espusatü bethi egoin tzela bere bizi güzia Paisen (Gab)
De Gaille maleusa izan tzün; hak Frantzia altxatü izi, ba, hua ezpaliz plantatü, beharba uai beno aphalao izain gintzün (Donap)
izan baliz ... dizkak (Zoha)

Gordetzaila da Erronkariko aldaera ere: Uztarrozen *baliz* bildu zuen Izagirrek (1961:397).

Aditz-izena hartzen du aditz nagusiak Oztibarren alegiazko baldintzan, baina egitura mota hau ez da anitz baliatzen:

demoa ederra iten balu (Ibarro)
uai jiten balitz (Donaix)

XIX. mendean Amiküzeko Oragarren ageri da ipuin batean (Cerquand 1985: 45):

etxekandreak ikhusten balu nik egun ikhusi dutana, segurki irri egin lezake

7.3.3.1.6.3. Amiküze eskualdeaz kanpo ohikoak diren erak ere ibiltzen dira Amiküzen baldintza errearen protasian:

behar beita gainera ... gazetetik ai izan, hamar urthetarik hasi, uai hasten bazira ez-tuzu altxatzen ahal (Ora)

etzatak idüri igandia igana dela ezpaniz juiten igandetan mezaat (Zoho)

7.3.3.1.6.4. Baldintzaren protasian aditza jokatua ez denean, *-kotz* & *-koz* atzizkia balia daiteke aditz izenari loturik; hona etsenplu alde bat:

basatzen balima zen behi bat edo gañetiko, bon, bena ez halaik e, itekotz, bon, edo ur edakiekin edo hola..., ua ba, itekotz, ez besteñez (Amo)

Peiroare, Denapolü ta Pe^roade ... guk saltzekoz... ähäte ta hoitaik, gibelak eta gintielak, iten gintielak, ordian... (Amo)

biziki gutti, biziki gutti, e, aitak izaitekotz, egona ^baitzen ^hua re, gerlak eta inak baitzitiin, aitak izaitekotz bazakien poxi bat, esplikatzeko doia; amak biziki gutti (Behau)

Donapalürat itekotz, amiña at, merkhatia Danapaliin beitzen, ordian zeeit bazelaik saltzeko ta merkhatü hartaa juiten beigintien Donapalürat (Arrü)

biekin, biekin, neskatoxeek itekotz amaekin geihao (Arrü)

Arberoako Mehainen ere ibiltzen da baldintzazko *izaitekotz*.

7.3.3.1.6.5. Ipar Euskal Herrian ohi denez, Hegoaldean ahaleko kutsua luketen aldaerak baliatzen dira Amiküze eskualdean ere baldintzaren apodossian, aditz nagusia *ko* morfemarik gabe eta laguntzailean **edin* edo **ezan*; hona etsenplu alde bat:

le^heneko xa^harrek, gaxoa, ikus balezate uai, uaiiko zera, harri litazkek, e... arrunt difeent duk ba orai (Amo)

nik ezporra ezpanu enitake untsa (Behau)

XIX. mendean Amiküzeko Oragarren ageri da ipuin batean (Cerquand 1985: 45):

etxekandreak ikhusten balu nik egun ikhusi dutana, segurki irri egin lezake

Egitura zaharraren itxura guztia du Zuberoa mugako Oihergin entzun dugun honek ere, guk “lirateke” geniokeena: *bi merkhatü hoiek e aski lia*.

7.3.3.1.7. Ahala

7.3.3.1.7.1. Ahala adierazteko ohiko bideak ditugu Amiküzen, errate batera **edin* eta **ezan* oinarriko aditzen bidez. Hona ahaleko adibide batzuk:

Sail iragangaitzean lehenik eta Nor Nori Nork-en ondotik:

uai eneteke kapable (Ame)
enezakozü galdein e, gia (Arbe)

Oztibarren ere adizki laguntzaile iragankorretan **ezan* da ahala adierazteko aukera bat (Videgain 1989):

etzie marroik ukhanik e, axuria in lezakezie, bena... (Hoz)

Arberoan ere **ezan* erabiltzen da aditz iragankorretan:

ezezaket ikhus / ezezakeat eos / ezezakenat eos (Meh)

7.3.3.1.7.2. Ahalean aspaldikoak ditugu **iron* oinarriko adizkiak Ipar eta Hego Euskal Herrian. Hona Zuberoako adibide bat:

gük [3]an gintiouk, ogiaikin delakoz (Urd)

Oztibarren ere baliatzen da **iron* ahala adierazteko:

utz lio ‘utz lezake’ (Larz) & *iabaz lizkiozu* ‘irabaz litzake’ zuketan (Larz)

Ahaleko perpausak adierazteko *eosten ahal diuk* erakoak baliatzen dira gehienik Arberoako Mehaine eta Armendaritzen, baina ez dira ezezagunak **iron*-etik datozen adizkiak, nahiz ez dirudien nagusiki molde hau baliatzen denik. Hona Mehaineko adibide batzuk:

hortxe, oai denboa ederra balitz ikus gindio, eta, kolina ttipiño atzu bezala
eztioiat ikhus mutiko tzar hori edo emaz tzar hori edo, eztioiat ikhus hori
emazte ati mintzo bada, “eztioxut ikhus”, holakoa...

Armendaritzen ere baliatzen dira, baina hiketan baizik ez: *eztioiat ikhus, eztionat ikus...* Adierazi digutenez “niro” edo “gindiro” erakorik ez da baliatzen Armendaritzen.

Hona orain Amiküzeko berri:

emeki-emeki indarra jiteaakin gehoa g^eihao iten tzuten, ta uai gustian karga liote orga, bena, bitakite iten ahal dutela, ai izanak b^eitira (Ora)

nik eztiozut suporta hoi (Ora)
haurrek ee ze ikhas liote (Lab)

Osagarria pluralekoa denean *tza* pluralgilea ageri zaigu Domintxainen: *jan niotza* ‘jan nitzake’ aldaera neutroa eta *jan niotzak* ‘jan nitzakek’ toka (EHHA).

7.3.3.1.7.3. Perpausei dagokienez, ohiko *ahal*-en bidez ere eraiki daiteke ahalaren adierazpena Amiküzten:

bitakite iten ahal dutela, ai izanak b^eitira (Ora)
hoi leitzen bezela da, leitzen, e, ezpauzu gaztetik hartzen usaia, geo etzira sekula arribatzen ahal (Ora)
hotsomaite behiekilan, bon, ba, behar b^eitzen kasu in, bon, ezpitzien haurrak berak uzten aal, beitzen bethi jende gehien bat ^heikilan (Amo)
eta bethi peti^oora eta gune atean bazen eta xe^hela at, etzena pas... za... idekitzen ahal, hango iendek gakhutzen’meitzuten, bena bazen dauztiria (Behau)
etzu konparatzen ahal, guaike mendia ordükorat, etzü iten ahal, e (Mar)
guk eztizi erten ahal e gure adinian (Mar)
gük eztizi, eztizi heiñ hori behar hartü, ezpitiüü iten ahal (Arbe)

Hurranen adibidean *ahal* eta *ke* morfema batera ditugu:

etituk bate hortako... bate juille, bate, ta juite ahal ginuzkek ... bena ez bate maite (Amo)

Oztibarren ahaleko perpausetan nagusi da “*ahal* + adizki laguntzailea” egitura, *izan* eta *edun* oinarrietako adizkiak lagun ditu:

artzen ahal hiz ba zomatnahi (Arh)
hamar zeunez irauldatzen ahal dut alhor hori (Jut)
eremaiten ahal lukezu bena (Bun)

Ukapen adibide honetan ahaleko *ke* morfemarekin batean ageri da *ahal*:

hanitz behi elitazketzu uztarka ahal, e (Izu)

Hurranen adibidean **iron*-i atxikitu zaio:

nehork eztirozu erten ahal (Jut)

Badira Oztibarren **edin* egitura arruntak ere:

joan ditakezu (Donaix)

joan ditake (Donaix)

Aldiz, Ibarrolan *jin diteke fitexka* dugu, *dite-* eta ez *dita-*.

7.3.3.1.8. Agintea

7.3.3.1.8.1. Nonahi bezala, aginteran ohikoak dira **edin* eta **ezan* oinarrietako adizkiak Amiküzen:

geldi ^h*adi eatetik* (Ora)

7.3.3.1.8.2. Iduri luke, bestalde, ukapenean adizkiei *-la* atzizkia eransten zaiela Amiküzen:

ehaila heien beldur izan gio! (Ora)

etzakala timidoaina in gio! (Ora)

7.3.3.1.8.3. Agintezko joko trinkoa duten aditzetan forma laburrak ageri dira:

ekharrak (Altzü), *emazie* (Ilh), *errak* (Ora), *errazu* (Bith) & *errazü* (Arüe), *izak* 'egik' (Bith), *ützak* (Altzü)

Arberoako Mehainekoak dira *emak* & *emazu*.

Oztibarren ere agintezko adizkien joko trinkoan forma laburrak ibiltzen dira (Videgain 1989):

kasu egizu (Jut), *ekartzie* (Lan), *emaxu* (Lan), *emakok* (Larz), *errakozu* (Larz), *errazu* (Lan, Larz), *errok* (Jut), *ezarrak* (Jut), *harrak* (Larz), *khenazu* (Larz)

Zuberoako Urdiñarbekoa da *zĩhãũn etxen bezala egizü*. Domintxainen *ezarrak* dakar EHHA-k.

7.3.3.2. Aditz nagusia

7.3.3.2.1. Aditz nagusiko *e-* / *i-* aurrizkia

Ez dira *e-* aditz-aurrizki zaharrak sumatzen Amiküzen, haatik, ondoko Zuberoako lehenbiziko herrietan ageri dira morfema zaharraren lehen adibideak:

ibili (Ora, Gam, Arbe, Laph) & *ili* (Arm, Meh / Behau), *ibiltzen* (Mar) & *iltzen* (Amo, Bith, Arru / Sarkp) & *ibiltzen* (Behau, Laph) & *iltzen* (Meh / Amo, Behau, Uha, Lab, Zoho / Etx, Olh) / *ebiltzen* (Sarkp), *ebiltia* (Urd), *ebilteko* (Sarkp)

ikhusi (Ora, Ilh, Loh) & *ikusi* (Zoho), *ikhusten* (Ora, Bith, Mar, Ilh, Lab, Gam, Arbo / Olh, Arüe, Sarkp, Ündü, Ainh, Pag, Urd) & *ikusten* (Amo, Uha, Arrü, Lab, Mar / Dom, Sarkp)

igorri (Zoho / Olh, Sarkp, Pag) & *iorri* (Arm / Lab / Pag), *igorten* (Sarkp) & *igortzen* (Bith) & *ioritzen* (Ora, Ost, Lab, Arbo, Zoho / Sarkp) & *ioritze* (Laph) & *igorteko* (Laph) / *eorri* (Sar) & *erorten* ‘igortzen’ (Zoha) & *egorten* (Sarkp) & *egorteko* (Sarkp)

7.3.3.2.2. Aditz nagusiko atzizkiak

7.3.3.2.2.1. *-i* edo *-tu* atzizki emankorrenetan bukatzen ez diren aditz berezi batzuetan partizipioaren oharmena indartzeko edo, *-tu* pleonastikoa erantsi da, baina Amiküzen ez da Lapurdi itsas-hegiko *izatu* edo *egotu* erako partizipio analogikorik baliatzen, nahiz baden iduria den bat edo beste. Guk Oragarren *atheatu nizalaik* entzun dugu eta Zohaztin *nahi baute atheatü, nahi baute jelgi*. Ondoko Hazparne hirian ere ageri da *atheatu*, hala XVIII nola XIX. gizaldietako idazkietan eta Bardozen ere ageri da (*EHHA*). Arberoan *botatu* entzun dugu Armendaritzen; Amiküzeko Ilharren eta Zuberoa mugako Pagolan *botatü*.

Oztibarren ere badira etsenpluak (Videgain 1989):

atheratu (Lan, Ibarro) & *atheratuko* (Ibarre), *botatu* (Jut), *iakurtu* ‘tripak berezi’ (Arh, Larz)

Ibarrolako Salaberrik ere *iratzartu* dakar (1856).

7.3.3.2.2.2. Zuberoan gertatzen den bezala, Amiküzen ere *i* berri analogikoa ageri da aditzetan; cf. 6.5.1.21 §. Bithiriñan *espa^akiiik* ‘eskapatu-rik’ bildu dugu, Gabadin *giltza espaki zakozün*, Martxüetan *esteki* ‘estekatu, lotu’ entzun dugu eta Arbotin *deskargi*; Zuberoako muga Olhaibin *eskapi* eta Sarrikotapean *enplegi*.

7.3.3.2.2.3. Moduzko perpaus ez jokatueta edo zerbait gauzatu dela adierazteko, *-rik* ibiltzen da Amiküzen, eguzkialdeko Euskal Herrian ohi denez:

badik memento goxoik emanik (Amo)

entzun nien, entzunik ukhan dut (Behau)

bena biarnesik jinik hunat, neskato gazte ezkontzeat hunat, güiti, güiti (Behau)

zenbait urthez garbituik ukhana izit, ba (Uha)
orgetan kargatuik eta (Uha)
ezantzak eta oro niauk paatuik (Uha)
badit nik zemait izardi tiratuik, ba, nik hor (Uha)
zonbanahi xuxen ibiliik e (Bith)
ta geo beti bat edo beste heldu zun eritasunez edo espa^akiik edo hola (Bith)
ih̄ztariiek atzemanik bada (Lab)
gañen, horxe kaxkoan joik, bilo güzia dena bi aldetaa joana zien ta klinikalat eman behar (Ame)
gazteño atzū, nahi^k ikhasi dantzán (Ame)
ta gü Garrüzen eonik muthil Mathieu-en etxen (Ame)
Arüetik hasik (Arbo)
arraildüik (Zoho)
ta sahetsean beste baten lekhia jarriik (Sor)

Nolanahi ere den, ez dakigu *-ta* ere ez ote den ageri, nahiz bakan izan:

joan tzitzun, ta baño, amiña at timidoa, bestea ^hardita, ta erten tzie bortha... bortha undo at helduta, eta zera, harditak... harditak erten (...) timidoari erran, “ehaila heien beldur izan gio” (Ora)

Oztibarren ere nagusi da *-rik* moduzko perpaus ez jokatueta, nahiz inoizka *-ta* ere ageri den. *EHHA*-k moduzkoa dirudien *-ta*-ren adibide bat dakar Larzabalen:

...eta neskatoa jin, eta muthilak erran galdu beitzien zera: “debriak eemain hau balinba!” eta neskatoa airian hartuta, airian eraman deubriak eta adio, ta han parrian, paastian, ohartu zen Salvatore zela: Salvatore jauna othoi salba nezazu. Eta han jautsi ta han gelditu deubriak utziik. Hala, historia.

7.3.3.2.2.4. Aditz nagusian “dardarkaria = albokaria + *-i* partizipio atzizkia” edo *-ki* egitura dagoenean, Arberoan aditz-izenean ez da *-ten* zaharra entzuten, Euskal Herriko erdigunean nagusitu den *-tzen* baizik:

ebakitzen, ekhartzen, ezartzen, igortzen, iiltzen, itzultzen (Meh)

Halaz ere, iraganean mendebalerago eredu zaharra zegoen, cf. XIX. mendeko Hazparneko katiximako *erorteco* (233), nahiz XVIII. mendeko *Kadet eta Bettiriño*-k *erorzen* & *erortzen* (154) dakarren. Berebat, Garazi aldeko Gamarten ere *ezartzen* dakar *EHHA*-k egun. Berrikuntzak ekialderat jo du, baina ez da

bertan hain aspaldikoa: lekuko mehairdar batek dioskunez, lehenago *ezarten* aldaera baliatzen zuen, baina ustez egokiago den, *ezartzzen* erraten du orain.

Amiküzen *-tzen* berritzailea baliatzea arras hedatzen da eskuinalderat: Oragarre, Bithiriña, Martxüeta, Arboti, Arberatze, Laphizketa edo Uhartehirin eta Zuberoako Olhaibi, Etxarri eta Arüen bildu dugu:

ekartzen (Behau, Uha) & *ekhartzen* (Ost, Lab, Arbe / Loh, Arüe) & *ekhartzea* (Bith / Arüe)

ezartzen (Bardo / Meh / Barta, Ora, Bith, Uha, Lab, Ame, Arbe / Dom, Arüe) & *zartzzen* (Lab, Arbo), *ezartzea* (Lab), *ezartzeko* (Lab, Ame)

ibiltzen (Behau, Ost, Zok, Mar, Lab, Lük, Gam, Arbe, Laph, Sor / Etx, Olh, Arüe) & *iiltzen* (Amo, Behau, Uha, Lab, Donap, Zoho, Larri / Etx, Olh) & *iltzen* (Ora)

igortzen (Bith) & *igoRtzen* (Ber) & *iortzen* (Ora, Ost, Lab, Arbo, Zoho) & *iortzeko* (Laph)

jalgitzen (Ilh) & *jelgitze* (Laph) & *jelgitzen* (Barta, Bith, Ilh, Lab, Zoho, Laph / Dom) & *jelkitzen* (Behas) & *elkitzen* (Sarkp, Urd)

jartzen (Ora)

Alta, *-ten* ere baliatzen da Amiküze guztian gaindi, *-tzen* baino gutiago beharbada, baina irauin du:

auhalten (Ora)

ebilten (Bardo)

ekhartzen (Bardo / Zoha); cf. Zuberoan ere (Ündü, Ainh, Pag)

erortzen (Bardo / Ame) & *eortzen* (Ame, Zoha)

ezarten (Ora, Arrü, Donap, Laph / Dom, Olh, Sarkp, Ainh, Pag, Urd) & *zarten* (Pag) & *ezarteko* (Barta)

ibiltzen (Barta, Sar, Arrü, Mar, Zoha, Laph / Sarkp, Ainh, Pag) & *iiltzen* (Amo, Bith, Arru, Donap) & *ebilten* (Sarkp) & *ebilten* = *ibiltzen* (Oih)¹³⁴ & *ebiltia* (Urd) & *ibiltea* (Ost) & *ibiltzeko* (Laph)

igortzen (Sarkp) & *iortzen* (Olh, Pag) & *eortzen* 'igortzen' (Zoha) & *egortzen* (Srkp) & *igortzeko* (Laph)

jalgitzen (Arrü)

Amiküze eskualdeko arestiko adibideek erakutsi digute Zuberoan *-ten* zaharra egiten dela — *ebilten*, *erortera*, *ezartez*, *igortzen*, *ixurtera*, *jartzen*... — eta gauza ezaguna da Euskal Herriko beste saihetsean, Bizkai aldeko *etortzen* edo *ekartzen* aldaera zaharrak ditugula, egun nahiz idazki zaharretan.

134 Ez dugu grabazioan xuxen bereizten lekukoak *ebilten* ala *ibiltzen* ahoskatzen ote duen.

7.3.3.2.2.5. Bukaera *-n* duten euskal aditz zaharrek eta bokalean bukatzen diren beste ale batzuek *ite* egiten dute aditz izena Amiküzten eta ondoko eskualdeetan:

atzemaiten (Uha), *ehaiten* 'ehotzen' (Arbe), *ehaiten* 'erhaiten, hiltzen' (Ündü), *egoiten* (Amo) & *egoitea* 'egoitea' (Behau), *emaiten* (Uha, Arbe), *erraiten* (Arm / Behau, Uha, Lab, Mar / Olh), *hatzemaiten* (Ora, Bith, Mar) & *atzemaiten* (Arbe) & *hatzemaiteko* (Lab), *igaiten* 'iragaiten' (Arm / Uha, Gam, Arbe / Sarkp, Ainh, Urd), *igaiten* 'igotzen' (Olh), *izaiten* (Sarkp) & *izaitiaikin* (Behau), *jasaiten* (Behau), *joiten* 'jotzen' (Bith, Uha, Arrü, Ame, Laph, Larri) & *ioiten* (Arrü, Arbe) & *joiteko* (Behau), *joiten* 'joaiten, joaten' (Bith) & *juiten* (Amo, Bith, Lab, Laph / Arüe) & *iuiten* (Arbe) & [3]*juiten* (Arüe) & *juitia* (Mar) & *joaiteko* (Uha), *ukhaiten* 'edukitzen' (Lab) & *ukaitea* (Arbe) & *ukaitia* (Behau) & *ukhaiteko* (Arrü)

Oztibarren ere *ite* zaharrak iraun du aditz-izenean:

egoiten, emaiten, eremaiten, erraiten, izaiten, joaiten...

Mendebalerago ere *emaiten, erraiten, joiten* erak ageri dira Hazparneko XVIII-XIX. mendeetako idazkietan.

7.3.3.2.2.6. Txistukari ondoko aditz-izenetan *tze* berria gertatu da Euskal Herriko ekialdean, Etxepare, Leizarraga edo idazle zuberotarrak lekuko (Urgell 2006: 931-2); guk eskualdean ahozko adibide bakarra entzun dugu, *deitzen* "deitzen" edo 'jeitzen':

haur denboan ni, hola, behi deitzen eta zer, eta ni Maulen iilten nintzan
(Oih)

7.3.3.2.2.7. Aditz-izenak *-ko* atzizkia hartzen duenean 'gabe' hitzaren adiera eranstean dio, 1782. urteko *Pratica* itzulpenean ezagun duenez; adibide alde batek argi erakutsiko digu:

bata Meça inçunic, besthia Meça inçuteco joan cirela (249-50)

bená soldaduac hirian sar beçanbat Gincoac uxutu citicin eta halaz, damuric edo gaiskirc batere eguitemo hirian igaran cituçun (322)

fraide seindu çahar batec ikussi ciela behin Ainguru bat, çoinhec incen-txatcen baitcithien Comentuco Fraide otoitzcera erneki joan ciren guciac, bai eta ere hain unxa ecin joannez baratu cirenen lekiac, bena naguiç otoitcera faltatu çutenen plaçac uzten cithiela incen-txatceco 'intsentsatu gabe' (17)

ermithain hori estonathia arraposthu hortçaz, hitzçic erraiteco utzçic cin eta beste Ermithain çahar baten idireitera joanic... (394-5)

Hazparneko XIX. mendeko katiximan ere ageri da:

Lehen bortçac obraz edo guticiaz erreceitu behar dia, eta ecin salba ditake mesprecioz erreceitceco uzten badia (224)

Honelako adibide batzuk entzun ditugu eskualdean:

bon, ^{ta} gio, ^hola alkez e... uaiko denboagatik, eta gio bea uzu semiaiki-lan, emaztia re hila, ta semia re, ^hua zelibater, bate ezkontzeko, aita-semiak, biak (Uha)

ta hartako zü denbora he^etan hen sourik ba hen Heskual Herri güzian biziki jende gelditü bate espusatzeko (Arbo)

Zuberoa mugako Ariñen ere bildu dugu etsenplu bat:

ta nik ordin ze adin nien, ebe, zazpi urthe, hoi sortzeko zün

Ikus dena den, *-t(z)eko* atzizkiak ohiko xedezko balioa ere baduela gure eskualdean; cf. 7.3.4.7.3. §.

7.3.3.2.2.8. Etorkizuna adierazteko *-n-z* bukatzen ez diren aditzetan Baxenabarren egun ez da *-ren* egiten; Arberoan *ekharriko* (Meh) dugu eta Amiküzen ere halaxe da:

ekarriko (Bith), *ezaiko* ‘ezarriko’ (Zoho), *ikhusiko* (Zoho)

Bestela *-n-z* eta *-l-z* bukatu aditzetan itxaron zitekeena ageri zaigu Amiküzen:

edain tzu ‘edanen’ (Mar), *egoin* ‘egonen’ (Amo / Olh), *jein tzü* ‘jinen duzu = da’ (Gam) & *jein tzen* (Arbe)

Oztibarren ere berdin da. Bestalde, egun bederen Oztibarren ez da *-iren* edo *-turen* egiten, *-iko* edo *-tuko* baizik; aldiz, 1782ko itzulpenak bost aldiz *ekarrico* dakar, baina behin *ekarriren* (116).

-n eta *-l* bukaera duten aditz nagusietan *-go* agertzekotan, ohar bedi atal hori *gogo*-ren laburdura dela; eman dezagun: *joan goo nian* (Ilh).

7.3.3.2.3. Aditz nagusiaren eta laguntzailearen hurrenkera

7.3.3.2.3.1. Hanpadura egoeran

Ipar Euskal Herrian perpausean hanpatzen den osagaia galdegai-gunean edo bestela erranik aditz multzoaren aitzinean kokaturik doalarik, aditz multzoaren barreneko ohiko hurrenkera aldatzen da eta aditz nagusia adizki laguntzailearen ondotik doa (Lafitte 1979: 48 & 337). Berebat, egitura indartu hau galderan gertatzen denean, auresuposizionala izanen da galdera eta galdegaia exhaustiboa, Duguineren terminologian (2009: 204). Hona Baxenabarreko Heletan bildu genuen etsenplu bat (1985):

hortako dauzut erten ene arbasoen denborakoa zela

Hona Arberoan entzun ditugun etsenpluak:

lehen hirian tzen intzuten (Arm)

hemen hua da geldituko e, batua (Meh)

eta kantuz nolaz ginden ari (Meh)

eta gio noiz duzu mozkina khenduko, sekula aantxuño (Meh)

horiek duzte iten legiak ta gio han, Brutzelen hori (Meh)

Ez dugu ezagutzen honelako adibiderik Zaraitzu-Erronkarietan edo Aezkoan.¹³⁵ 1857ko Lesakako prediku batean adibideak ditugu; Anastasio Etxeberri apez elizondoarra du egile, aita aetzaren semea (Satrustegi 1987: 257):

yru ejemplo famosuaq ttut causitzen Escritura Sagradan

eta verze guziyeq ziren itto ubeldeco uretan (257)

guziyeq zuten pasatu Ytsaso gorriya (258)

Gure eskualdean ere ibiltzen da hurrenkera hori; halako batean oragartar bati galdegin diogu ea Bardozerako usaiarik bazuten eta hona nola erran digun ezetz: Bardozera ez, Hazparnera jotzen zutela diosku, Bardozeren aurka jarriarik Hazparne hanpatzen du, eta aditz laguntzailearen aitzinean kokatzen:

*ez, sekulan, ez, ez, ez, ama ta aita ta goxama zena ta Hazparnen tzien
iiltzen merkhatian, arrutze saltzen ta hola*

135 Aezkoan behin baizik ez dugu entzun era hau, Hiriberrin: *gorrek du balio!* (1998), Alkeizareneko Mariana Bidart Reka andere enamoragarriak emanik. Haren euskara Aezkoako fidagarria zen gutzit, baina aita iholdiarra zuen; hiru urterekin Hiriberrira bizitzera eraman zuten emazteki honek, urte oroz ikustaldiak egiten zizkien lholdiko ahaideei.

Horra Amiküzeko adibide sorta bat:

eta erran tzakon bestiak “eta... ze, zendako ehien eaten” ta, “belhaña hunki atak”, “debrua, to, zakurra uk pasatu, hak dauk hunkitu” (Ora)

bena buxerialat lehenau biziki guti zun juten lehenoko jendea, eskualde hontakoa¹³⁶ sourik, geiho etxeko[z] etxeko (Amo)

ta gio urdia bia... zomait aldi biamunian tzen pikatzen (Behau)

xarpantak tuk in behar... xarpanta inez gioz, gio joain da (Behau)

apezak tziin in bear difeentzia (Behau)

hamarretak^k bat dut okupatzen nik uste (Behau)

aizoez zizien beztitzen (Bith)

aizoez zizien dena prepaatzen (Bith)

lana hek zizien iten (Bith)

eta gañean in ahala zun Donapaulerat juiten (Bith)

aldi bat gitzu izan, pinttarren saltzeat (Bith)

bokhata hor urian ta hola nik e ene zeroeikin ta usu... aldi bat nuzu behiekin joan, beste orduz gañean bethi heldu nintzun emeki-emeki, bena etxeat hola (Ost)

eta astean aldi bat zien ikhusten nausia (Ost)

ikhañan, e, maiatz hundarrean bearba kupaño at mozten tzinien, bena lehen behiekilan halako bandaño atzu zindien mozten eguno^o ta gio hua arrasteluz^b arreatu behar tzinien (Uha)

eta apheza ez ürrüin, an fite ikhusten tzin, e, nor tzen ari (Mar)

na Peio horrek maga[¿]ina Dantxarian gañan dik, bena peko hori die dautzaazi, ala ez? (Lab)

ni nützan oküpatzen maxinaz (Ame)

a, hori nian erran nahi (Gam)

hala uk, ba, hala uk, ba, iten (Gam)

na aita-amek paatü biar tzie, karra izie paatzen, e (Gam)

oai zit ikhusten (Arbo)

gük erreziitü^s inian, merak zian elhekatü, emin (sic) txikan diskurra, erran tzikan bazela zeeit ju'ten etzenik (Zoho)

zopa ta esne gindikan auhaiteko jaten le^heno (Zoho)

bo, ene amak zin tratia iten, frango^h una zün hartako ta atxiitzen (Arbe)

136 Gure belarriak ez du bereizten *hontakoa* ala *orotakoa* ote den, nahiz jabetzen garen *orotakoa* eta *sourik* ez direla elkarri ongi egokitzen; nolnahi ere den, garbi dago ez dela *hun-*.

emazte ^hen lana zen gizonena bezala, geo xüitze ta haurrer katiximain ikhasaaztea re, othoitzzen ikhasaaztea ta, nik ama ut ikhusi gü' etxen lan ortan
(Sor)

Hona Zuberoako ipar-mendebaleko Olhaibiko adibide bat:

an soixante-cinq [suaxant senk] dügü ükhen gük elektrika

7.3.3.2.3.2. *behar eta nahi*

Aditz bereziak dira *behar* eta *nahi*, lokuzioak eratzen dituztenak; eguzkialdeko Euskal Herrian aditz nagusiaren aitzinean kokatu ohi dira perpausean; *behar*-en etsenpluak dakartzagu lehenik:

arto xuritzja memento goxoa zen, nai bauzu, bena haa artio behar baitzen ekharri arthoa (Behau)

ordian, haen pasatzeko behar nintiin bizikletain geinetik ene puskak khendu (Behau)

behar tzen eta artetan gizonaikin joan eta jaki'zazu eta... etzela oaiko moldəa (Behau)

liburu at behauzu ein (Behau)

behar zuten belharrek in (Behau)

bee saria behar tzian hartu (Bith)

bizpahiru kaale parek behar zizien maxina thiatu (Bith)

etzizi (sic) hortako behar erran sofritu duula gehio (Mar)

igande atsaldian üsean üzten ginien, bena, atelierra behar ginien xähätü (Lab)

beno errekolta hartaik erdia behar tzindakon nausiari eman (Gam)

gük eztizi, eztizi heiñ hori behar hartü, ezpitüü iten ahal (Arbe)

galdua merian iten, hola, hunanbeste behar tzela bildü ta (Gam)

Hona *nahi*-ren etsenplu alde bat:

nahi bitute familiak eta arraatzeman (Bith)

nahi ukhan die zari 'ezarri nahi ukan dute' (Ih)

geo progria re ai nuk amiñi at fitexe juiten denez, e, denek nahi die heldü eta heldü, hori re, bethi biziki progre bauk (Lab)

eni galdua in, guri galdua in nahi ginienez jin (Gam)

Alabaina, *behar* edo *nahi* aditz nagusiaren ondotik doazen hurrenkera ere entzun daiteke:

sartü behar bitzen olako tenorian ta (Gam)
etzakotean berritü nahi; hemen, aldiz, nihukek eztüte lanean ari nahi re
sobera horta re (Lab)

Anbigua da Bithiriñako *zeit ber* (sic) *dizi in denboain pa[ž]atzeko* per-pausa, ez baitakigu *dizi* hori zuketako ‘dugu’ den ala zuketako ‘du’ inpersonal aktiboa den.

7.3.3.2.4. Aditz elkartuak

Zuberoan badira aditz elkartu batzuk, hurranen adibidea bezala, Pierre Jauryk 1938an idatzirik (Coyos 2013: 100):

haatik ixtoria bat ohart etxekitzen dü, llabür bezain eijer, beste ordizko
Biañt udiñarbetarraren hetarik bat

Gure eskualdean *ohit-eman* ageri da. Oragarren honako etsenplua bildu dugu:

untsa zitzien bizkarrak eta hezurak e, ohitemazu etzutela uai bezala,
eta, hemen min eta han min eta... osarri huna zitzien izigarri

Beste honako hau Ilharrekoa da:

eta argi hua ükhan zütean, ze, eta ohitemak estimatü zütela, ze

Amendüzen *pentsamazie* entzun dugu.

7.3.3.2.5. Aditz aldaera laburrak

Badira aditz aldaera laburrak Amiküzen ere, izen kutsua dutenak, baina guk ez dugu honelakorik ugari entzun; bi adibide eman ditzakegu, *phentsü* eta *aiphü*:

Nun, be etxen? Oihanbürian, ba, phentsü izit (Donap)
phentsü diat (Mar)
ta ifernia usu aiphu edozoinekin (Amo)
gerthatzen tzatazü eni re, han batzü hamar bat jende haidürü, etzü
besteik aiphü (Arbo)

7.3.3.3. Aditz morfemak

7.3.3.3.1. Tratamendu alokutiboak: *no, to, zu* eta *xu*

7.3.3.3.1.1. Izaera alokutiboaz eta hiketaz

Euskal Herrian tratamenduak ez dira leku guztietan berdin egiten; konparazione, Erronkarin honela baliatzen ziren: kanpotar bati mintzo neutroa egiten zitzaion, eztabada deitu ohi dena, alokutiboa ez den zuketan. Lagunartean edo anai-arreben artean, berriz, toketan edo noketan jarduten zuten; hurbiltasun egoeran edo adinean aitzinatua den adiskide bati mintzatzean, zuketa alokutiboa (Mitxelena et alii 1953: 514). Beroriketa ere egiten zen Nafarroa Garaiko Erronkarin: *berori* eta (*k*)*ori* ziren izenordainak, baina Ipar Euskal Herrian ez da beroriketarik.

Nafarroa Garaiko Aezkoan, konparazione, toka edo noka egiten da ohiz jendartean, baina haurrari edo adinetako jende bati, are adin bertsuko jende arras maite bati, xuka egiten zaio, xuketa ez alokutiboa; aldiz, ezezagunagoa denari zuka, zuketa ez alokutiboa, tratamendu neutroan, eztabadaka. Jende handitzat jotzen zenari berorika egiten zitzaion garai batean, baina galdua da gaugerero ohitura hori.

Beorri zen "berori" eta *beorrek* "berorrek" Donostian apezari edo jende handiari honela mintzatzen zirenean, baina jendarte arruntaren artean zuka egiten da Gipuzkoako hiriburuan, eztabadaka, tratamendu neutroa dei dezakegunean. Ez da hiketan egiten Donostiako karrikan, hirian: hika edo noka Igeldon, hiri saihetsetako auzoetako baserrietan egin ohi da, Ulian, Altzan, Añorgan... Nolanahi ere den, hiketan ez egite hori ez da ezezaguna; errate batera, Ondarroa batean ere ez da egiten.

Hiketa ez den eta Hego Euskal Herriko beroriketa asimetrico hori ere ez den tratamendua, berez *zuka* dena, neutroa da, eztabadakoa, egoera formalago batean edo pertsona ezezagun batekin ibiltzen dena. Hego Euskal Herrian zuka egiten zaio mintzalagunari, baina ez da era alokutiboa egiten: *zu zara, zuk duzu* erraten da, baina *ni naiz, hura da* eta *hotz dago* erraten da gero, eta ez Euskal Herriko ekialdeko mintzoetako *ni nuzu, hura duzu* edo *hotz diagozu*.

Historikoki Euskal Herri guztian hiketan egin izan da eta jokaera alokutiboa da hau: *ni erori naun* erratean, bigarren pertsonak ez du aditzak adierazten duen errealitatean zeregin zuzenik, baina haren morfema femeninoa adizkian ageri da. Aditzak adierazten duen errealitate jakin batean mintzalagun hurkoak zerikusituz zuzenik ez duenean, hitz bidezko komunikaziora mintzalaguna morfologikoki barreneratzea da gertaera alokutiboaren muina. Adizkiak lehen,

hirugarren edota lehen eta hirugarren pertsonen errealitatea adierazten badu ere, mintzalaguna adizkira ekartzea —bigarren pertsonaren morfema eranstea— da trataera alokutiboa.

Berdintasuna edo hurbiltasuna adierazten du hiketak: anai-arreben, adiski-deen edo senar-emazteen artean; honezaz landa, goitik beherako harremanean ere hika egiten diete adinekoek gazteagokoei, aita-amek edo osaba-izebek haurrei, gazteek neska-mutil kozkorrei. Toka egin digute guri zenbait gizon adinetakok Amiküzen: Amorotzen, Labetzen, Ilharren, Arbotin, Zohotan, Sarrikotapean, Oihergin eta Pagolan. Urdiñarben emazteki batek. Aldiz, zuketa alokutiboan egin digute emazteki guztiek urdiñarbetarrak salbu; gizonak ere usu zuketa alokutiboan egin digute. Neutro edo eztabadakoa —zuketa ez alokutiboa— egin digute gizonak Sarrikotan, Labetzen elkarrizketaren hasieran —ondotik toka—, Amendüzen, Sorhapürün, Laphizketan, Domintxainen eta Oihergin.

Noka ere biziki egin izan da Amiküzen, berdinen artean, eman dezagun, gizonak emaztekiari edo ahizpen artean; hona Oragarreko ixtorio bateko pasarte bat, non lehenik gizonak emaztekiari noka egiten baitiote eta honek gizonei toka:

— *..bena zeixka falta diun, anoik eztiun aski ükhan*

— *A gaixoa, herri huntako astoek phutzian eaten die*

Bithiriñan noka ziharduten ahizpak diren gure lekukoen artean:

*lehen, ba, leheno izanak gintunan, bena iduitzen tzatan ‘zaidan’ ot...
treinean edo fitio ginen ala aphezaikilan, enun ohit, e*

Gramatikaren aldetik ez da ohikoa menpeko perpausean aditz alokutiboa agertzea, baina inoiz gerta daiteke lekuko batzuek arau edo lege hau ez asetzea. Eman dezagun, hurranen perpausean tokako adizkia erlatibozko perpausean dago:

banikan seme at uste nikana eoin tzatala etxen (Zoho)

Hurranen adibideetan *gintien* ‘ginen’ adizkia dugu, baina ez dirudi *gintien* ‘ginen’ aldaera denik oihartzun zerbait analogiaz gurutzatu zaiona, izan ere *zitian* ‘ziren’ ere bai baita, hirugarren pertsona. Beharbada besterik gabe hiketako aldaerak dira menpeko perpausean ere ageri direnak, baina Arrüetako kasuan harritzeko da, adibideak emazteki batek guri emanak baitira; gizonak guri emanak dira Ilharre eta Zohotakoak:

*merkhatia Danapalün beitzen, ordian zeeit bazelaik saltzeko ta mer-
khatü hartaa juiten beigintien Donaplürat (Arrü)*

hantik gehienak enae ustez, geo ez gintzin sobera ezaitzen, e, ezpigin-tien gu adinian aantzatiak, gu, ordian, perioda hartan (Arrü)

guri sinetsaazi auküzie re, ba, biziki gauza hala [irri] katiximan iulten gintzielaik eta, uai ezpita bate berdin (Arrü)

bo, gu adineat heldü gintzielaik phestak hasi zitün eta ordian phesten gaiñ, e, phestetan ikhusten gintzin elgar eta ordian iten ezaitzak (Arrü)

atsaldetan bazitian bezperak, ordian bezperak bazitzielaik, bazitian amažteak juiten tziitenak ta geo bazitian gizonak e, bena hek, gizonak... (Ilh)

aíta zena, nik, eta, gizon bat zün eta iziarri enteli[3]jenta, ikhusten ziena ürriin eta ze... naa büüz ari gintien (Arbo)

gazte gintzielaik (Arbo)

ta ordian dretxo hua enikan ukhaiten ahal muthil-neskato nintza... gintzielakoan (Zoho)

Eta Bardozen ere ageri da (EHHA):

buhurdia haurrendako zuzun, ttipiak gintzielaik haurrak buhurdiaan barnian emaiten gintzin eta neguko hauta zuzun

Eta beharbada adizki pluralen analogiaz singularrean ere *nt* ageri da:

sartzen tzu ta, "bazauzte aixkideak?" eta "ba, ba, nahuka hik e kholpu at?" eta: "ba, en... enintian ni hortako jina ez, ni jina nintian ta... hire behorrra ari uk ipurdi altxaka ta, punpeka ta..." (Ora)

Horrezaz landa, oro har euskal lurralde gehienetan ez da baldintzan aditz alokutiborik ageri, ezta galderan ere; eman dezagun, ezin galde daiteke "berant duna?", "berant duka?" bezalakorik, *berant dea?* baizik. Hartara, ezin galdegin "berant duzia?" & "berant zia?" edo "berant duxia?" & "berant xia?" ere.

Hiketaren ohiko adierazpideak ditugu *n* noketan eta *k* toketan eta neutroetan *h*. Halaz, *dinat* erratean argi da morfema zein den, aldiz, tokako *diat* maskulinoan **ga* dago *a* horren giblean. Egungo toketan *i* ageri da Amiküzen, gramatikalki bokal horrek adierazten digu adizkia hiketa alokutibo maskulinoari dagokiola: *eztazküie* 'ez zizkigutek' (Mar), *zakiüian* 'ziguan' (Ilh); nokarako Arrüetako datuak balia ditzakegu: *zauküinan* 'zigunan' (sing.) / *zauzküinan* 'zizkigunan' (pl.); zuketan, berriz, *zauküün* 'zigun' / *zauzkütün* 'zizkigun' (Arrü); cf. Irizar (2002a).

Amiküzen ere bada *a* & *ka* bitasun dinamika toka Nor Nork sailean, Baigorri, Garazin, Oztibarren edo Hazparnen gertatzen den bezala. Eman dezagun Oragarreko adibide bat: *eman tzakoan arrapostia*. Zohotako gure lekukoak bi eratara eman ditu adizkiok oharkabeko elkarrizketa librean:

nitian – nitikan / zian – zikan / ginian – gindikan, gindizkan / zitikan

Hona etsenplua, *zian*, *ginian* / *zikan* bitasuna ageri duena:

ap^hezpikia eldü uk, ordian eldü zjan, goai eztuk eldü geio hua re. Heldü zian herrietaat, ta merak errezibitü zikan, güik errezitü ^sinian, merak zian elhekatü, emin (sic) txikan diskurra, erran tzikan bazela zeeit ju'ten etzenik (Zoho)

zeeit ukhan nikan (Zoho)

jaten ginikan... han eskolan (Zoho)

ostatian ukhan gindikan zopa eta jatekoa emanik (Zoho)

Baxenabarren ohi denez Nor Nork aditz sailean adizkien bukaeran ager daitezke *n* eta *k* morfemak: *bakiuk* ‘bazakiagu’ (Ilh).

7.3.3.3.1.2. Zuketa alokutiboa

Ekialdeko euskarazko jardunean hiketaz landa badira trataera alokutibo gehiago eta Nafarroa Beherean lehen idazkietarik honat ageri dira. Adizkiari bukaeran *zu* morfema eta nor morfemaren ondotik *i* datibo marka —delako *dative flag*— txertaturik eratzen da zuketa alokutiboa, Beñat Etxeparek bere olerkietan garden erakutsi zuena (1980: 154):

minzaceco çurequila gau bat nahi niqueci

1584an Beltran Etxauzkoak ere berdin (TAV, 155):

hortic yalguiz geroz, çamariac penxaraciten dirauztazu, nitien arropa guciac higatu baititut, eta enici pagatu nahi

Bonaparteren garaiko Donamartiriko katiximan ere zuketa ageri da (272):

gisa berian akusatzen nuzu oäi eta bethi Jinkuari ein dituan bekhatu guziez eta galdeiten diakozut barkhamendia

Bonaparteren laguntzaile Cazenavek ere badakar zuketa Garazin; Jondoni Juaneren apokalipsian batetik (134):

ikhusi nizün gero zeria idokiik eta agertu zuzun zamari churi bat eta hain gainian zena deitzen zuun fidela eta egiazkua, zoinak juyatzen eta phar-tidatzen baitu zuzenki

Baita San Mathiuren ebanjelioan ere (44):

barka itsasuain erdian hur kolpek bilinbaka ziaitlazien

Zuberoan ere zuketan mintzatu ohi da, Oloroeko 1706ko katiximako adibide hau lekuko (2):

Ene Gincoa sinhesten diçut ossoki cer ere erran beytuçu, berheciki heben cirela, adoraçen çutut, ene esparañça çutan eçarten diçut, mayte çutut ene bihotz oroz, eta dolu diçut...

Kortesiakoa edo begirunea adierazteko zatekeen zuketa molde hau sorrera garaian, baina aldatuz eta hedatuz joan dateke gero haren erabilera pragmatikoa: eztabadakoaren edo trataera neutroaren ingurunea ere ordezkatu du hondarreko gizaldietan. Lapurdiko Aturrialdea, Baxenabarreko Amiküze, Oztibarre eta Garazi, Nafarroa Garaiko Zaraitzu eta Erronkari ibarra nahiz Zuberoa herrialdea dira trataera berezi gisa zuketa alokutiboa baliatu duten eskualdeak.

Arberoan ere ageri zaigu, baina XIX. mendeko idazkietan: egun zantzu edo herexa zenbait gelditzen da. Garaziko Donibane inguruan ere galduz joan da XX. mendean eta egun gibelera doa, bereziki gazte eta heldu jendearen artean. Baxenabarreko ekialdean hitzun gazte eta helduen artean zuketa galduz doa egun; Zuberoan tinkoago eusten dio.

Adiskidetasuna edo hurbiltasuna agertuz Amiküzen jendea ez bada toka edo noka ari —*hori Amikuzeko elhe phürra da, to ta no* diosku berriemaile mehindar batek—, guztiz arrunta da zuketa alokutiboaren erabilera. Perpausa zuketan emana da Amiküzen, trataera neutroaren eginkizuna harturik du zuketak. Funtsean Oztibarreko euskarari idatzia datekeen 1782ko *Pratica* liburuan ere honelaxe ageri da; itzulpen testu hau nagusiki zuketan emana da, erlijioaren inguruko kontraerak eta narrazioak barne.

XIX. mendeko zuketaren erabilera esparrua zehaztu zuen Bonaparte printzeak eta adierazi Zuberoan eta Baxenabarreko ekialdean trataera neutro edo eztabadakoaren egitekoa zuketa alokutiboak harturik zuela. Honelaxe diotso Intxauspek berari 1858/III/8an: taldeari edo jendetzari mintzatzean, liburuetan jarraibideak edo narrazioak idaztean, honelakoetan eztabadakoa ibiltzen dela, neutroa, baina jendeen arteko hartu-eman arruntean, toka edo noka egiten ez bada, bederen, zuketan egin ohi dela (Irigoyen 1957: 197-8). Gauza jakina da Zuberoan edo Erronkaribarren adizkien inkestak egin direnean nekez lortu direla lekukoengandik adizki neutroak, jendea ohiz hiketan edo zuketan mintzatu baita.

Guk XX. mendearen bukaeran eta XXI.aren hasieran Baxenabarreko ekialdean hitzun zaharrekin izan ditugun hartu-emanetan erabat ohikoa izan da haiek guri zuketa alokutiboan egin izana. Amiküzen ohikoa da ezezagun bati zuka

alokutiboan jardutea; guri hika egin ez digutenetan zuka egin digute ia beti hiz-tunek: emaztekiek beti eta gizonek usu: Oragarren, Uharten, Gamuen, Donapaleun, Arbotin, Laphizketan, Domintxainen, Lohitzünen eta Sarrikotapean. Toka mintzatu zaizkigunean beti gizonak izan dira, salbu emazteki urdiñarbetar bat. Ezezagunari zuka alokutiboan egitea begiruneagatik dela entzun daiteke amiküztarren ahotik, baina bestelako begiruneak ere adierazten dira, konparazione adinarena, non eta ez zaien adinekoei xuketan egiten; Uhartehirin dioskutenez: *xahar bati zuka ai zira, errespetia*.

Hona gure lekukoen mintzoaren pasarte batzuk zuketaren erakusgarri:

laminak bazitzun leheno hemen eta izigarriko laminaldia; bazun zugi bat hor kunkurra, ba Xarrituko zubia, eta hua in tzizien eta gau batez eta... geo harri bat falta utzi eta noitek harria falta zen hua eatsi bihamunian (Ora)

geo horiek e haurrak ttipi zuztelaik, haurrak jarrekitzen zezteitzun 'zitzazkien' beekilan, na uai haurrak handitiak pituzte horiek e, ordian hek e, gelditiak, ba (Amo)

ba, ba, ba, ia, ia, ia, ni eon nintakezu a goizetan geixoo, hola giengo sourik (Amo)

bear nizän joan bi kilometretan eta erreka atetaa xuitzea, enfin (Behau)
geo meezinderra ekharraazi, ta meezinderrak etzin, hexur bat bitzien eta, xitxitik kanpo, fua, eta aita lokhaRazi gabe moztu zakozun ta iduitzen tzatazu ono intzuten duala aittain oRua (Bith)

hain eta akhusteko manerak emaiten tzaukuzun enbeia ikhasteko, iduitzen tzatazu hola zela (Bith)

eta gio illobak erten zatazun, ta, behar gindiela in ta nik ean 'erran' dakozut ni zaharxe nintzala: "nahi balima uk in, izak" (Bith)

bizpahiru kaale parek behar zizien maxina thiatu (Bith)

ikhusten balima sinien ürrhünea bidian, ba^sindakizün xüxen behar gindiela in eta... agürra in, iaitean (Arrü)

eakusten tützelaik televi[z]ionian arraohitzen tzazkiützü 'zaizkigu' (Mar)

etzü ürriin, e [Biarnoa]... bena [etxera ezkondu zen lagun bearnoarrak] eztakizü eskuarrik, konprenitzen tzi, güekin kasik baitzi oitaamar urthe hen dela (Gam)

zintzurra kilikan hasia izit eleka ai biniz aski (Zoho)

bazün holako xiri ttipün at eta geo elgarren artean eskuaraz aitzen baginen, hak emaiten tzauzün, zü ohartü gabe, ordian nik hua promenatzin nizän egün zumeit eta ahal banien beste at atzeman, nik hari emaiten nakozün gio [irri] gio astiain fñan (sic) so iten tzi'n nok tzin xiria [irri] (Arbe)

etzü gaixtoak ez, hala diozie, bena (Ber)

Aditz sorta bat ere eman daiteke argigarri:

eztaizut ‘ez dakit’ (Ora), *zaukiuzun* ‘zigun’ (Bith), *zun* ‘zen’ (Uha), *gintziin* ‘ginen’ (Mar), *etzataziü üdüri* ‘ez zait iruditzen’ (Arbo), *izan zataziü* ‘izan zait’ (Laph)

Jakina denez, zuketa alokutibo hau ez da Baxenabarrekoa edo Amiküzekoa bakarrik, zuberotarrek ere egiten dute; hona Artien bildu dugun adibide bat:

aitetamak hunat ezküindü zütziin... eta geoztik heen gützü

Eztabadako eta zuketa alokutiboko adizkiak perpaus berean elkarrekin joan daitezke eta halaxe gertatzen da 1782ko *Pratica*-ko adibide hauetan ere:

harrac dituzten fruthiac etçu çorhitcen eta labor arboletic erorten tuçu, bena osso eta fin direnac unxa çorhi artekan arbolian egoiten diru (65)

batec bidia erakasten diraguçu, besthiac hara hel-aracitcen guidatcen, eta finian, meditacioniac eçagut-aratcicen dirauskigu alde orotarie ditugun langerrac (115)

Intxauspek ere baditu honelatsuko adibideak Zuberoan, zuketa eta hiketa nahasten ditu perpaus berean Sen Mathiuren ebanjelioan (1856: 39):

jinen nüzü eta sendotüren dít

7.3.3.3.1.3. Adizki alokutiboen egitura

Zuketa alokutiboa eratzean adizkiak bi ezaugarri biltzen ditu; adibidetako balia ditzagun 1782ko *Pratica* itzulpeneko adizkiak, egitura osorik baitute. Ustez eskualdeko adizkiak dira hauek, ziurrenik Oztibarreko Jutsi alderdikoak, Amiküze saihetsekoak:

a) *i* datibo ikurra edo delako *dative flag* hartzen du adizkiaren hasiera aldera Nor morfemaren ondotik: *dago* → *diagozu*, *daite* → *dieitezu*, *zaut* → *ziaazu*, *zako* → *ziakozu*. Nor Nor Nork aditz sailean *e* → *i* gertatzen da: *derakot* → *dirakozut*, *derauzkigu* → *dirauzkiguzu*. Delako *dative flag* edo datiboaren *i* marka adizkian kokatzen da, baina inoiz hori gabe ere ager daiteke: *eman tzakuzun* entzun dugu Amorozen.

b) ezaugarri nagusia adizkiaren bukaera aldera kokatzen den *zu* morfema da, Nor Nork aditz sailean palatalizaturik *zi* bilakatzen dena: Nor aditz sailean *nuzu* da “naiz”, baina *dizit* da “dut” Nor Nork-en, adiz-

kiko lehen *i* horrek zuketako adizkietan *i - u* → *i - i* asimilazioa eraginik, *dizut* > *dizit* emaitza, errate batera. Hona Amiküzeko adibide sorta bat:

ho'i ziu 'dizugu = dugu' (Uha); *ikhasi dizi guk* 'dizugu = dugu', non *gu* morfema galdu baita (Mar); *nizin* 'nizun = nuen' (Gam); *esnia iten gintzin* 'genizun = genuen' (Gam)

c) bestalde, adizki neutroetan bigarren pertsonan *derakozu* 'diozu' baina *derakozie* 'diozue' dagoen bezala, zuketako adizkietan ere hirugarren pertsonako *-e* morfema pluralaren aitzinean palatalizazioa gertatzen da: *dirakozu* 'dio' baina *dirakozie* 'diote'. Hona Zohaztiko adibide bat: *berriak erten daztatzie* 'dizkidate'. Jokabideok txandaketak gertatzea eragin dukete; errate batera, *duke* adizkia zuketan emateko *Pratica*-n *dikezu* dago behin, baina *dikezi* beste behin:

milatan oboro placer dikeçu semiaren hareganaco seindimendu hunez (154)

edariac haren eskietan ichurteco guthiango langer dikeci (400)

Halaz, morfema etikoak adizkian hartzen duen kokaguneaz ere bada zer erran, betiere 1782ko liburuko aldaerez dihardugula: hirugarren pertsona singular aktiboa -Ø denez, morfema etikoa hondarrean kokatzen dela dirudi —*dizu*-Ø > *dizi*, *gituzu*-Ø > *gitizi*—, baina hirugarren pertsona aktiboa plurala denean *-e* darama ondotik: *nizie*, *gitizie*. Nork lehen pertsona singularreko kasuetan, zeinetan koda baitago, morfema etikoa *-t*-ren aitzinean kokatzen da: (*di*)*zit* & *tizi*, baina Nork lehen pertsona pluralekoetan, zeinetan ez baita kodarik, *zi* bukaeran doa eta iduri luke subjektuaren *gu* morfema ezker utzi duela: *diizi*, *tiizi*, *dikeizi*...; iduri luke **diguzu*, **tiguzu*, **dikeguzu* dagoela pean eta bokal asimilazioa gertatu dela, ala hirugarren pertsonako *dizi* erako adizkien analogiaz lehen pertsona pluraleko *diizi* erakoak sortu direla. Aldiz, *dirogu*-ren zuketako era den *ziroguzu* adizkian *o* bokalak *zu* > *zi* palatalizazioa saihestu du.

Lehen pertsona aktibo singularretik pluralera morfemen hurrenkera aldatzen dela erakusten digute *Pratica*-ko honako aldaerek: *dakit* → *ziakizut*, baina *dakigu* → *ziakiguzu*, ez **ziakizugu*. Halaz ere, 1782ko *Pratica* liburuan behin *çiroçugu* (161) daukagu **iron*-en, nahiz *çiroguçu* hamabi aldiz ageri den (14, 52, 68, 197, 197, 239, 283, 283, 285, 350, 444, 445). Zuberoan Intxauspek *zu* + *gu* hurrenkera dakar 1856an: *dezakezügu* ageri da Sen Mathiuren ebanjelioan (111). Egungo egunean Oragarren *ordian guk eztiuzu denak untsa konprenitzen* bildu dugu, non badirudien *gu* morfema *zu* morfemaren aitzinean dela; halaz ere, hiztun berak emana da *hori ein dizii hoei urthez*, osagarri pluralaren komunztadura gorabehera arestikoaren eduki bera dirudiena, baina morfemen hurrenkera alda-

turik. Gabadin entzun dugu “*so^halla*” *erten dizii, ba*, Arbotin *badizⁱ gük e hua*; Zohaztin osagarri plurala duela: *gühaurek ikhasi tizii*; Laphizketan *iten dizii*. Aldiz, Uhartehirin *ikhusi iziu / guk etziu hetaik / pathar biziki, hoi' ziu*.

Arbotin *jakin* aditzaren trinkoetan argi ageri da hurrenkera *gu + zü* dela:

baakiüzü errekalat juiten diela eta gio phuzuindatzen diela denak, bakiüzü

**edin*-en ahaleko adizkietan zuketa ezartzean *daite > dieitezu* gertatzen da 1782ko *Pratica* liburuan: *i* etikoa edo datibo ikurra eta *zu* morfema erantsi dira eta *ai > ei* palatalizazioa gertatu da, *a* goraturik, baina adizki batzuek erakusten digutenez txandaketa dago, **edin*-eko *i* hori duten eta ez duten adizkiak ditugu liburuan: *dieitezu* adizkiko bokalen ugaritasunak soilketa eragin dezake, *dieitezu* aldaera ere bai baitago *Pratica*-n; hogeita hamar *dieitezu* zenbatu ditugu liburuan —cf. *lieiteçu* (37) ere— eta lau *dieitezu* (50, 107, 204, 275). Berebat, *gueisteçu* (281) ere bada behin, *guiezteçu*-ren (309) adibide bakarrarekin batean; lehenean *i* etikoaren disimilazioa eta bigarrenean diptongoko *i*-rena gertatu ote dira? Hirugarren pertsonan *dieisteçu* (134, 186, 275) dago, baina baita *dieiesteçu* ere (27, 27, 27); liburuko hiru *dieiesteçu* horiek orrialde berean daude, ez dakigu huts grafikoa ote den. Bokalen arteko dinamikari zor zaioke ere *citcieçun* (250) eta *citcieeçun* ‘zitzaien’ (355), bi formak agertzea; agerraldi bakarra dute batak eta besteak liburuan.

7.3.3.1.4. Bilakabide fonikoak zuketan

Zuketan bilakabide fonikoak gertatu dira; aipatu dugu *u* bokalaren palatalizazioa *dizu > dizi* bezalakoetan; hartara, ulertu beharko genuke 1782ko *Pratica*-ko *diizi* ‘dugu’ emaitzan *dizugu > dizii > diizi* bilakabidea gertatu dela. Egun ere Sorhapürün *horxetan badi'zi arbole at* entzun dugu, baina alderantziz ere ageri da:

eman dizii memento goxoik, ba, ba (Larri)

gühaurek iten dizii (Ber)

Bokal sinkopak entzuten dira zuketan *edun* adizkietan eta halaxe da Amiküzen ere. Hirugarren pertsona singularra *duzu* da; pluralean, berriz, *dituzu* eta laburragoko *tuzu*, bi aldaerak baliatzen dira, baina hala *duzu* nola *tuzu*, ezkerrean ukapenaren *ez* partikula biltzean bi aldaerak laburtu dira; honela, *etzu* hala ‘ez duzu’ nola ‘ez dituzu’ da hirugarren pertsonan, 1782ko *Pratica* liburuan, konparazione. Geroago Baxenabarren edo Zaraitzun lehen pertsona pluralean

ohikoa izan den **“gitzu”, ordea, ez dago 1782ko *Pratica*-n, osoagoko *gituzu* baizik. Hona sinkopa zein egoera edo baldintzatan gertatzen den:

a) aditzean ukapena egiten denean:

etzu ‘ez duzu = da’ (Amo, Mar) & *lürrik etzū auerrik* (Gam); *etzun untsa ikusia* ‘ez zuzun = zen’ (Bith)

1782ko itzulpenean era osoa nahiz laburtua elkarren ondoan ditugu, ez da atzo goizeko sinkopa:

bena Gincoatan deuz ere eztuçu halacoric, hartan etçu finic (76)

b) Nor Nork sailaren gainean eta *edun* baliaturik eraiki diren hiru silabako adizki laguntzaile izanik, Nor sailean jokatzen direnetan; hona etsenpluak:

eskatpatzen nuntzun ‘ninduzun = nintzen’ (Ora); *sartü nüntzün* (Gam)¹³⁷
gu ez gitzu eontsi ‘gituzu = gara’ (Bith); *heldü gitzu konprenitzaea* (Mar)
 & *gitzü* (Mar, Gam); 1782ko itzulpenean ez dago sinkoparik: *ibiltten guitçu* (35)¹³⁸

neskatoak adin bersukoak bethi gertatzen gintzun elgarrekilan edo josten ikasteko ‘gintuzun = ginen’ (Amo); *bizpalau bagintzun* (Mar); *hain etxian eon gintzün* (Gam)

zomaitzük dantzan e eakusten bazitzun, dantzan eakusten ai zienak ‘zituzun = ziren’ (Amo); *han e bazitzun ku[ç]iak* (Bith); *holako ixtorio atzü bazitzün demora heetan* (Mar); *alçamanak hen tzitzün* (Gam); *erratzak iten tzützün* ‘zituzun = ziren’ (Gam); *denak biarnesak zützün* (Gam)

Gogoan izan bedi honelako adizkietan Zuberoan ez dela sinkoparik, egitura osoagoa ageri dute zuberotarrek:

nündüzün (Sarp, Pag)

137 Irizarrek Nor saileko *nintzün* ‘nintzen’ laburtua dakar zuketan Arrüeta-Sarrikotan, baina Nor Nork sailean bi erak, adizki osoa nahiz sinkopatuak: *nündüzün* ‘ninduzun’ / *nüntzün* ‘ninduzun’ (2002a). Domintxainen Nor Nork sailean era laburrak dakartza: “zuk ni” *nuntzun* (*nüntzün* ?) ‘ninduzun’, “haiek ni” *nuntzen* eta “zuek hura” *zuntzen* ‘zenuten’. Nor sailekoak ere laburrak dira Domintxainen: “ni” *nuntzun*, “gu” *gintzun* eta “haiek” *zutzun*.

138 Nor Nork sailean era laburra nahiz osoa dakartza Irizarrek Zohotan (2002a): *gitzü* ‘gaituzu’ & *gitiützü*; berebat, Arrüeta-Sarrikotan *gitzü* ‘gaituzu’ & *gitiützü*; era laburra da herri bereko *tzü* ‘dituzu’, baina ez *gindützün* ‘gintuzun’. Oragarren laburra nahiz osoagoa dakartza Nor Nork-en: *tzü* ‘duzu’ & *duzu*; aldiz, Gabadi eta Domintxainen *tzü* ‘dituzu’ eta Domintxainen “zuk gu” *gintzun* (*gintzün* ?) ‘gintuzun’ laburrak. Nor saileko emaitzak iduriak dira; Oragarren eta Zohotan bi erak baliatzen dira, *gintutzun* ‘ginen’ & *gintzun* lehenean eta *gintüzün* & *gintzün* Zohotan. Arrüeta-Sarrikotan, Behauzen eta Gabadin *gintzün* laburtua baliatzen da eta Domintxainen *gintzun*.

güntütziin (Sarkp, Ainh, Pag) & *gütütziin* (Sarkp) & *gündüziin* (Sarkp)
& *gintiütziin* (Pag)

züütütziin (Olh, Sarkp, Ündü, Ainh, Pag) & *zutütziin* (Ainh)

c) Nor Nori Nork sailean eraiki diren hiru silabako adizki laguntzaile sinkopadunak ditugu Nor Nork sailean “nik”, “hark”, “guk” subjektuaz eratzeo baliatzen diren hauek:

aïta-amak onak, onak ukan tizit ‘ditizut = ditut’ (Mar); *nik denak maite tzit hartalatzea, bena enitzin denak iten, e* (Arbe); *bere lana baitzi* (Mar), non ez dirudien sinkoparik izan denik; *gita hazten, ttipitik hazten tizti* ‘ditizu = ditu’ (Mar); *bi haur ukhan tizti* ‘ditizugu = ditugu’ (Mar); *in ditzu bizpalau edo bospasei* ‘ditizugu = ditugu’ (Gam); *ene aïta zenak bi aneia galdü zitzin katorzeko gerlan* ‘zitizun = zituen’ (Mar); *aïtzina bazitzin etxe unek eta bi ektara liür* (Gam); *prepaatzen gintzin* ‘genizun = genuen’ (Bith); *ez gintzin sobera ezaiützen* (Arrü); *ikhasten gintzin josten* (Mar); *mezaa joan bear gintzin* (Mar); *been lehen lana ez gintzin guk eskoletan pusatzen ahal* (Mar); *ba^sintzin behiak* (Gam)

d) Nor Nork sailekoak dira adizkiok, subjektua “hark” eta “haiek” izanik:

gizon batek izigarri kausitu gintzin drole ‘gintuen’ (Mar) & *aphezek atxiiten gintzien* ‘gintuzten’ (Mar); *egina tzie* ‘egina dute’ (Arbe)

Beste hauetan *guk* da subjektua, “guk hura” Nor Nork:

animaleko gabardin bat bagintzin (Donap)

e) Zuketako iraganeko hirugarren pertsonako adizki laguntzaileetan bi kontsonante txistukari daude eta bigarrena disimilazioz gal daiteke:

etxe guzia erre zun ‘zuzun = zen’ (Bith); *ibilten tziin* (Arrü); *iñoranta ziiin* (Mar); *ereiten tziin* (Mar); *finitzen tziin* (Gam); cf. *zun* (Ora, Bith, Mar, Uha) / *ziin* (Mar, Gam, Arbo, Arbe)

Beharbada Martxüetako *an fite ikhusten tzin* —*ez zizin*— adibidea ere, disimilazioaren ondoriozko sinkopa dateke.

Baina txistukariak ez dira adibide guztietan disimilatzen:

hua noitena züziin (Arrü), *donado züziin* (Gam)

Hain zuzen ere, 1782ko itzulpenean adibide guztiak *çuçun* dira, disimilatu gabe, ez dago “zun”-ik batere itzulpenean.

7.3.3.1.5. *d-* eta *z-* oraineko adizki alokutiboetan

Adizkien era alokutiboan *d-* ageri da eguzkialdeko Euskal Herrian, palatalizatu gabe. Aldiz, mendebalera joaz bezala, *z-* ageri zaigu nagusi; eman dezagun, Lapurdiko Uztaritzen *zioiat* ‘zioat’ ibiltzen da, Lekhuinen *zakoat*, Hazparnen *zakoiat*, eta eman dezagun, Baxenabarre mendebaleko Bidarrain *zakeat*. Arberoako Aiherran bi hasierak ditugu, *zakoiat* eta *dakoat*. Aldiz, Heletan *dakoat*. Arberoako Mehainen ere *d-* entzun dugu: *dakok* ‘ziok’; *eztezakeat eos*; *eztezakenat eos*.

Amiküzen ere *d-* egiten da, Zohotako adizkiak lekuko:

dakük ‘ziguk’, *erran dakoat* ‘erran zioat’, *eztakiat* ‘ez zakiat’, *badiak semia so itea* ‘bazihoak’; cf. *joan* aditzaren *doak* ‘zihoak’ era ere (Lab, Ilh)

Ilharrekoa da *daküie* ‘zigutek’ eta Martxuetakoa *eztazküie* ‘ez zizkigutek’.

Arberatzekoak dira hurranen adibideak:

eztainat tzonbat irauten tzien, etzünan ez lüze
geo badoazü Hazparneat, ua lapurtarra uzü
nui[z] errekontratü tüüt, ezta^bizüt bate
ez, argia le^bentxoño, ta ura etzi izigarri urthe, e, zomat ur^he dien hori
etzakizüt, etzit kasiük iten bate eta dater
Ariüen mentüaz amiña^a’at, Ariü^ben, geo Lohitzünen, xübeatarra hasten
tzü amiñiña^a’at, geo badoazü ^Hazparneat, ua lapurtarra uzü
nahasten nüzü, behin badiazü hatsarria untsa, bena geo...

Zuberoako lehen herri Lohitzünen *eztakiuk* ‘ez zakiagu’ entzun dugu.

Dena den, Amiküzen *jakin* aditzaren alokutiboko era trinkoetan *d-* nahiz *z-* ibiltzen dira: *heskuara bazakizie ba ono* (Arrü) / *bazakizut* (Uha), biak zuketan; toka Zohotako *etzakiat* eta *bazakik* aipa ditzakegu edo Zuberoako Sarrikotapeko *bazakiat*.

Oztibarren busti gabeko *d-* ageri da hiketa alokutiboko adizki triperpsonaletan (Videgain 1989):

emaiten diakoat to haur huni ttonttoa, ophil ttipiño bat (Larz)
bihotza gatiak jan diakok (Larz)
diailek ‘zabilek’ (Jut)

Zuberoan ere *d-* egiten da, honako adizkiak dakartza Intxauspek *Le verbe basque*-n (1858):

diók ‘ziok’, *dión* ‘zion’, *dikük* ‘ziguk’, *dikiin* ‘zigun’

7.3.3.3.1.6. Xuketa alokutiboa

Euskal Herriko ekialde honetako eskualde batzuetan *zu*-ren txikigarri edo goxagarri den *xu* morfema ere eransten zaio aditzari, alderdi horretako hirugarren era alokutiboa da xuketa; pertsona izenordaina ere *xu* da.

Xuketa alokutiboaren hedadura geografikoa ez da hiketarena bezainbatekoa, baina xuketak are eremu geografiko bakanagoa du. Lapurdiko Aturrialdean, Bardoze barne,¹³⁹ Baxenabarreko Arberoan, Garazin, Landibarre-Oztibarretan eta Nafarroa Garaiko Zaraitzun mintzo dira xuketan. Xuketak XX. mendean xuketari gaina hartu dio erabileran Zaraitzu eta Garazi ibarretan.

Adinetako jendeei egiten zaie xuketan, gozotasuna adierazteko eta arrazoi beragatik haurrari ere halaxe egiten zaio. Xuketan egin ohi dute bi adiskide minek ere, elkarrenganako sentimenduak maitasunezkoak direnean, zeinahi den adin duten. Lagun bati edo haur bati xuketan egiteko eta beste bati ez egiteko arrazoiak guztiz berexiak eta pertsonalak izaten dira euskal gizatalde eta famulietan Euskal Herriko ekialdean; ikus, konparazione, Lafitteren oharrak Heletan haur koskei *to* eta entterkei *zu* errateaz (1977).

Literaturan bakan ageri da xuketa, baina XIX. mendeko Arberoako Donamartiriko katiximan ikus dezakegu; ekintza *xu* pertsonari dagokio eta beraz partaide zuzena da, horregatik adibidea ez da berez alokutiboa (Pagola et alii 1999a):

ikhusi chindiina chuk Jesu-Khrichto sortzen? (256)

alta debozione handia ukhan behaiüchu haandako eta egun guziez hai gomenda chite (261)

Arberoako Mehainen *zu ta xu* egin ohi da *to ta no* baino gehiago; aitatxi ezagutu ez zuen berriemaile batek kontatu digunez, amatxiri, amari eta aitari *xu* egiten zien; Armendaritzen ere guztiz arrunta da xuketa. Landibarre Elize-txeko Athor kusiak xuketan egiten zion J.-B. Etcheverry idazle donoztiritarrari (Etcheberry 1986: 37):

behar ginikexi usiago elgar ikusi: kusiak gitxu, aitasoak anaiak

¹³⁹ *Xuk nuntik biltzen txu sos hok?* dakar EHHA bildumak Lapurdiko Bardozen.

Oztibarreko tratamenduen adibide gisa Ibarrolako jokabidea aurkeztuko dugu: herritarren artean edo familian ez dago ohiturarik eztabadaka egiteko, horregatik, begirunea adieraziz edo, kanpotar bati ere zuketa alokutiboan egiten zaio eta konfiantzako giro hurbilean toka edo noka egiten da. Xuka *gazteño bati* edo *zahar bati* egin dakiok; gizon zaharrei ere bai: *attittiri* ‘aitonari’ eta *gaxaitari* ‘aitajauna, aitabitxia’ ere “xu”; *amari eta aitari zuka*, baina bada aita-amei Oztibarren xuka egin dienik ere; *neskato ateri xu...* baina arreba bati xu eta beste bati no ere egin dakieke, no egiten zaiona gazteago izanik ere; *mutikoer to*, baina *mutiko iziarri gisakoa*, *goxoa* izanik, litekeena da beste mutikoek horri ere xu egitea.

Halaz guztiz ere, adinetako ibarrolar batek dioskunez *xuka Garazin arduro* ‘usuago’ egiten da. Lehenagoko jendeek buhameen euskaratzat ere hartu ohi zuten xuketa Oztibarren: *hori bohamién mintzatzeko manera duk, bohamiak tuk Gaazin hola xuka ari* (Donaix); senar-emazteen artean to eta no egin ohi da Oztibarren. Eta Pagolan ere erran digute Garaziko gizon *bohameek* xuka egiten zutela.

Oztibarre eskualdeko etsenplu zenbait ikusiko ditugu (Videgain 1989):

eta gio hua goazamak emaiten zizien bere haurrari, bitziren e, eta erten zokozun hua emaitian. “oixu! beste urtheko aski uxu hunbeste handitzia!”

(Lan)

euriarengatik jinen nuxu bardin (Jut)

etziaxu ohitu (Jut)

orhit nuxu (Ibarro)

hemen, iduri ziaaxu bildotsa axuria handitia den (Ibarro)

Morfema *xi* bilakatzen da Nor Nork sailean: *Ibarlak bezik etxi igortzen* (Ibarro); aldiz, subjektua hirugarren pertsona plurala denean *xu* + *-e* → *-xie* bilakatzen da.

Baxenabarreko iparreko alderdietan Garazi aipatzen digute beti xuketaren eremu gisa, baina ez dugu orain hango berri ekarriko; jakina denez, Garazi ibarreko eta Hego Euskal Herriko kide den Luzaiden ere arras baliatua izan da xuketa XX. mendeko euskaldunen artean. Bestalde, Zuberoan ez da xuketa erabiltzen, baina Jabier Alberdik dakarrenez Ainharben ibiltzen dute (1996: 318).

Hegoaldean Nafarroa Garaiko Aezkoan ere xuketan mintzatu dira orain arteko euskaldunak, baina joko alokutiboan ez, adizkiak adierazten duen erreallitatean bigarren pertsona edo mintzalegunak zuzenean esku hartzen duenean baizik: *ni niz, gura da, gu gira, gaiek dira* eta *xu xira* nahiz *xuk duxu* eran, hain zuzen ere, baina ez **“gu giaudexu”, **“gaiek diaudexu”, **“gaiek dixie” edo **“guk dixugu” eran.

Amiküzen ere badira xuketaren erabilera episodikoak, baina ez inola ere Landibarre, Garazi edo Zaraitzun bezainbat. Xuketa aipagai denean amiküzta-
rrek ondoko ibarren berri ematen dute ohiz, Arberoa, Landibarre, Oztibarre edo
Garazi aipatzen dituzte; amoroztarrek ondoko Mehaine Arberoako herria aipa-
tzen digute xuketa egiten den gunetzat, herriko edo familiako halako Mehainera
ezkondu dela eta haren oraingo etxean xuketan egitea ohitura dela, jaietan hare-
nera joan direnetan hori entzun ukan dutela: *Mehaine deia etzu bate... eztelaik
urrhun etzu arras gauza bera, biziki "xu" ta biz... xuka senarraikilan, beti xuka
ai zitian; ta aldiz Amootzen bethi to eta no*. Eta Behauzen ere xuketa oztibartar
eta garaztarrekin lotzen dutela entzun dugu: *horik xuka ai tuk, Garaziko tuk,
eta etxalde ttipiak tie eta lekhü patarrak eta lekhü mehiak eta holako...* Eta
Martxüetan ere ikuspegi iduria dute: *ba, Doniane alde; heek, eztakizüt bate
nola deitzen dien, elgarrekin ai zu xuka, ta gu "zu", e, voilà, hola, bena gañea
'bestela', beste gif[ž]a at konprenitzen dizi e elgar, etzi erran behar, konprein-
tzen dizi, bena...* Donapaleun entzunik, berriz: *ba, ba, alainan, Doniane, "hala
uxu", "hola uxu", "eztuxu", hek baizie beste mintzaira at, bon, bo, ze nahüzü,
beha'izi, beha'izi...* Eta Arberatzen ere berdin: *Donianekoa konprenditzen dizi,
ba, xuka ai tzü Donianen*.

Guk entzun dugu inoiz xuketa Amiküzen, baina aldi bakan, ez dago beste
eskualde horietan bezain gizarteraturik eta litekeena da xuketan ari den pertso-
nak ondoko eskualde bateko halako eragina edo izatea, xuketan egin izan duen
Baxenabarreri hurbil diren Amiküzeko herrietan betiere.

Eman dezagun, Uhartehirin egiten da xuketan, haurrei eta, konparazione,
baina ez haurrei bakarrik, *aizoetakoak* ere ari daitezke, edo neskatoei; honela
diosku Uhartehiriko lekukoak: *aldi bat, ba, aita zenak erran tzaazun, "xu"
erten baitzatan...* Herri bereko beste lagun batek dioskunez xuketan egiten da
senar-emazte artean edo lehen auzoekin; aldiz, *Amikuze barnaxoñoko herrietan*
senar-emazteek elkarri *to eta no* egiten diotela diosku Uhartehiriko beste lekuko
honek. Amiküze hegoaldeko Ostankoan era xuketan egiten da: *amaikin ta aitari-
kin*, edota bestela *hauReR*; Ostankoan dioskutenez aita-amei baita zuketan ere.
Bestalde, Oragarren eta Bithiriñan ere entzun dugu xuketa, baina aintzat har
bedi aipatu berri ditugun hiru herriak xuketaren eremuarekin mugakide direla.
Eta bestalde, Oragarreko Barta auzoan erran digutenez kanpotarrari egiten zaio
xuka, beren arteko hartu-emanen *to eta no* egiten dutela adierazi digute:

*haurrari "xu", kartierrekoer "xu", ez etxekoer, khanpotik heldu diin
horiek, uai, Bardotzen gehio "xu" bada; O^barren to eta no*

Hona xuketaren agerraldi batzuk Amiküzeko, guztiak guri mintzatzean
erranik:

seoreta jiten gintxun gu (Ora)

ordian Petan txun, Petan txun eta zingar easlia (Ora) ixtorio batean emanik

edo akort zitxun seur biziki (Ora)

zazpi urthe nitin, eskolaat, alamanak hola errekan, plazan, Oarreko plazan, eta geo ni ikharan, zazpi urthe, ttipia binintzan, arrollan sartuz, alemanak eta han bitziin manevra iten ari bidian, zaldiekilan manevrak iten tzitxien, ta geo, seoreta j'iten gintxun gu eta ikhastea leitzen, katixima ta, zaldi heen beldurra, ta geo ez gintunan fide (sic) gu alemanen, e, ta etxeatekoan heek ogia oro jaten, ta gu ogi beltzaekin eoiten gio (Ora)

a bon! a, gaztio, arrunt gaztiak tzizte, ze eskola in duzie horrat heltzeko? A, karrier badukexu, ba, karrier; besteñean eta baxoik, baxoa badukezu zien Eskualerrian, baxoa, bena biziki gazteik pasatu duzie universitatia (Ora)

a, bon, eskualde guzietako modak bitira (...) enixin uste nik eta, Españan inak tzuela hola, ta, khanbiatiak (Ora)

nula iten da, Bernardet, eztakixu xuk? mat haur tu? Eztakixu bate? Z... zemat haur tu, eztakixu batere? (Ora); adibide honetan ama alabari ari zaio galdezka

a, ba, ni re hola nuzu, hunek etxi kaso... bitaki nik iten tuala, bena nik maite ixit ukhaite... ikhustia hilaitien burian zertan gien (Ora)

ni uai arritia nuzu... haur horiek eta bethi edo marranta edo hau... geo etzie kaso iten, e, beha'izi egia erran, eta bethi behar zie hemen denak ageri xilkoak eta konpañi, izanik e hotz., ni bultaka ai niz... kanpuan kharruña ari ...xoxo... nik eztiozut suporta hoi, hotza delaik e berdin txu, etxie deu[ʒ]e doidoia hortxe apen, bo... nik erten tzit bere'txekatzen dutela e[ʒ]juntsa izaitia, zinez, e, guk beeen bagintzin mantuak eta behar tzitienak hotz'elaik, neguko puskak eta udan udako gauzak, eskalapuñak bagintzin (Ora)

nik biziki maite nixin eskola (Bith)

etxen behar nixin egon (Bith)

eman tzixien (Donap)

bazixien (Donap)

ordian guk eRanak oro denak bildü txu (Gam)

7.3.3.3.2. Datiboaren komunztadura

Aditz triperersonaletan hirugarren pertsonari dagokion datibo-morfema saihestea gauza arrunta da Zuberoan eta Euskal Herriko arras ekialde zabalean; hona Sohütako adibide bat (Alvarez Enparantza 1980: 35):

húa entziin düit urde (e)háiiten xahár eli báti

Honela da Arberoan ere:

ez gindien so in behar mutikoer plazan, pilotan ai ziener (Arm)
gazte ati emaiten tzien laneko gustia (Meh)

Baina badira adibideak komuntadura egiten dutenak ere:

serorari galdein nakon (Arm)

Amiküzen ere arrunta da datiboko hirugarren pertsonaren morfema aditzean ez agertzea; hona eskualdeko etsenplu sail bat:

bená guri etzuten iten ez ^holakoik (Ora)
hak iten tzin katixima ttipier (Bith)
nik jakin gabe denak eman tzi beste ati (Uha)
been lehen lana ez gintzin guk eskoletan pusatzen ahal, bena ofiziua harraazi dizi [‘dugu’ zuketan], bier (Gam)
makiñunekin kaale at saltzen tzelaik, denboa artan nausi haundi hoiek bazizien apepres been makiñuna, e, ben makiñuna, ena solamente etzezañak etzin saldiñ behar makiñunari nausiari erran gabe, a, ez, ez, ez, ez (Gam)
etzit kasiik iten bate eta dater (Arbe)

Adolf Berdeco amoroztarrak Trebitschi 1913an emana da etsenplu hau (65):

alainan guria’uzu, gure aintzinekuek utzia, eta Jinkuak, hala nahi badu, gure ondokuer den bezala utziko duuna

7.3.3.3.3. Pertsona morfemak

7.3.3.3.3.1. Baxenabarren orokorra da lehen pertsona datiboan *izan* aditzean *zaut* ‘zait’ & *zauzkit* ‘zaizkit’ era agertzea eta Zuberoan ezezaguna izanik, berrikuntza espezifikoa da. Bonapartek mendebaleko behe-nafarreraren ezaugarritzat zekusan eta sartaldeko nafar-lapurteran baliatzen ez denez, Nor Nori sailleko adizkietako *ai* → *au* aldaketa hau nafar-lapurteraren sartaldeko multzoaren bereizgarri dakar Zuazok (2014: 136).

Baliteke *zait* → *zaut* aldaketan **eradun*-eko *deraut* ‘dit’ erakoek analogia eragin izana. Baxenabarreko ekialdean Etxepareren *irudi çayt emaztia dela gauça eztia* lerroa dugu gogoan (1980: 126), aldaera zaharra dakarrena, nahiz orduko bigarren pertsonan *zai-* → *zau-* berrikuntza gertaturik zegoen Garazin: *eci hala ari çauçu Ihesu christo vera ere* (106), Altunak *zaitzu* transkribatzen duena. Olce Baionako apezpikuak 1651n inprimarazi *Pregariac*-en Baxenaba-

rruko aldakian *çaitan* ageri da (17), baina Lapurdi ekialdeko edo Nafarroa Behereko XVIII. mendeko testuetan bada *zaut*: *Kadet eta Bettiriño-n idurit-zen zaut* (Padilla 2011: 272), Bazkazaneko idazkietan *hain çaut importantia handicoa* (Orpustan 2005: 231) & *esçaut miraculu* (224). 1740 inguruan Pauen argitararazi Nafarroa Behereko katiximan ez da “hura eni” ageri, baina *erremediotaco cer-bitchatcen çaucu* dakar (107). Lopez apez jutsiarraren 1782ko itzulpenean *iduri çaut* (42) dugu eta baita beste aldaera *erorten çadanian* (325) ere. Lapurdiko itsasaldean ez da *çai-* → *zau-*berrikuntza hau gertatu.¹⁴⁰

Cazenave Bithiriñako apezak Bonaparterentzat katixima itzuli zuen Donapaleuko mintzora eta bertan adibide bat dugu: *emaïn zautan* ‘zaidan’ *penitentziain egiteko* (225). Nor Nori Nork sailean *emaïn datazula*¹⁴¹ *hobeki bizitzeko grazia* dakusagu (225), baina eskualdeko XVIII. mendeko idazkietan ez da *ta* morfema hau ageri. Ez dakigu Cazenavek katiximan Donapaleuko mintzoa leial irudikatu ote zuen. Bourciezek 1894an herrietako errientei itzularazi haur prodi-goaren parabolan *zaut* dugu Amorotze eta Behaskane-Laphizketako aldakietan, baina *çatana* ‘zaidana’ Aiziritzekoan eta zuketako *zatazun* ‘zidan’ Oragarrekoan. Trebitschek 1913an behautzar baten etnotestua bildu zuen eta bertan *sii lothu zataziin* ‘zitzaidan’ *eskian eta oro erre* dakar (67), baina ez dago oraineko tempuseko adibiderik.

Amiküzen nagusiki *-ta* da egun lehen pertsona datiboaren morfema:

etzata iduri (Ora); *ez zataten beharba bate e^hatsiko, e, ari zien ene laundu nahiz* (Ora); *niri etzatala kalteik inen* (Amo); *ekartzan datate egurra hortxetaat* (Behau); *iduitzen zatazu* ‘zait’ zuketan (Bith); *zatan* ‘zaidan’ (Bith); “*xu*” *erten baitzatan* (Uha); *eman datazie* (Ost); *zataziü* (Mar, Laph); *eman tzatan* (Lük) —baina baita *amak eman tzautan* ere—; *pila ezai datate* (Ame); *aphezak erran tzatan* (Ame); *platxea in behar dataziü iande üziez* (Ame); *konprenitzen datak* ‘didak’ (Gam); *eni etzataziin interesatzen* (Zoha); *khiündatiü daztaziü bena ahatzia izit* (Donap); *ordian hak masaf[é]jatiü zataziin* (Donap); *merak erten beitzatzen denak eni* (Zoho); *banikan seme at uste nikana eoin tzatala etxen* (Zoho); *zeit iten baatate* (Zoho); *geo ahazten tzataziü* (Arbe); *gustatzen bitzatan* (Arbe); *izan zataziü obligazione* (Laph); *laket zataziü* (Laph) *erten datazu* (Larri); *bihotza anbalatiü zataziin* (Ber)

140 Lapurdiko itsas hegian *çait* → *zaut* berriztatu ez izatean, ez luke zerikusirik itsastarrek datiboa hirugarren pertsona denean tripersonaletan **eradun*-ez landa *-i- erroko adizkiak ere baliatu izanak, *çait* → *zaut* aldaketa jasan duen lehen pertsonan ez baita **eradun* eta *-i- arteko lehiarik gertatu tripersonaletan, analogiaren balizko eragileak —*deraut* eta kideak— ibili dituzte lehen pertsonan. Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiairen hurbiltasunak lagundu ote du *çait* aldaera zaharra gorde dadin, *zaut* berrikuntza bildu beharrean?

141 Lerro artean idatzirik dago *t* (Pagola, Iribar & Iribar 1999a: 225).

Amiküze mugako herria izanik eta Oztibarrerekin hizkuntza-kidetasuna duen aldetik, ulergarri da Uhartehirin *ta* beharrean *da* agertzea, nahiz hondarreko adizkian ageri den *ta* ere badarabilela:

*hola iten dadatena^k 'didatenak' ja nik buutik galtzen tzit holakoa
aldi bat, ba, aita zenak erran tzaazun 'zidan': "baakixia...", "xu" erten
baitzatan*

Domintxainen *date* & *datate* 'didate' dakartza Irizarrek (2002a); Amiküzen datiboko lehen pertsonaren morfema *ta* baldin bada, lehen adibidean *t*-ren disimilazioa beharko luke izan, eta ez sakoneko balizko *-da-* morfemaren galera.

Egungo Amiküzen *zaut*-en adibide bakan batzuk agertu zaizkigu elkarriketetan, baina Bardozen baliatzen da (*EHHA*). Behazeko emazteki batekin mintzatzean usu agertu zaigu *zaut*, baina haren aita-amak Arberoa alderdikoak ziren. Arberatzen ere *bitzaut* 'baitzait' erabili zuen behin beste emazteki batekin. Elkarrizketan behautarrak *zata* behin, baina nagusiki *zaut* baliatu du; arberaztarraren kasuan ez da adibide gehiago. Bi emaztekiek adierazi digute halako estimazioa Hazparneko euskararendako. Sorhaphürün *iruitzen tzaut*, *etzaut* eta *zauzkit* entzun ditugu. Jean-Claude Mailharin amendüztarrak erraten digunez *zaut* Eliza kutsua duen aditza da. Irizarrek *zata* dakar nagusiki Amiküzen (Arrü-Sar, Ora, Behau, Bith, Gab, Ost, Donap, Zoho, Behas / Dom, Loh, Olh; Arüen *zeta*), baina ezin erran daiteke *zaut* ezezaguna denik ere: (Ora —Bartha auzoa barne—, Amo-Zok, Bith, Ost, Uha / Olh, Arüe); cf Irizar (2002a).

Nor Nori Nork sailean Bartan *daut* 'dit' entzun dugu *ximiko at in daut* eta *erran daut* adibideetan. Irizarrek *dat* eta *daut* dakartza Bartan, Artolak bildurik (2002a).

Lehen pertsona datiboko *ta* alomorfo honek hedadura zabala du Baxenabarre mendebaleko ipar nahiz hegoko ibarretan, baina Baxenabarreko mendebalean ere bada *zaut* aldaera. Armendaritze, Iholdi eta Irisarrin gaindi jarraitzen du *zata*-k, *zaut*-ekin lehian; Heletan eta Aiherran *zaut* erabiltzen da eta Donamartirin *zaut* & *zait*. Beheiti, Ortzainen —*zeta* & *zata*— eta Bidarrain —*zeta* & *zaut*— aldaerak ditugu. Baigorri eskualdeko hegoaldean *zait* nahiz *zaut* aldaerak bildu dira. Lapurdiko ekialdean ere bada *-ta* morfema lehen pertsona datiboan; Beskoitzekoa da *behartu zatazun*, Trebitschek 1913an bildua (61) eta Amorotzen bizi zen bardohtar batena da *hil zatan* 'zitzaidan' *ama* (69). Aturrialdean Lapurdiko Bardozen *zaut* / *zautan*, *zautak* / *zautazu* bildu ditu Artolak (Irizar 2002a: 274).

Datu hauek ikusirik iraganean *zait* → *zaut* berrikuntza Baxenabarren orain baino hedatuago egon zela onets liteke eta honen arabera, Amiküzeko egungo

zata eta Garazi-Oztibarreko egungo *zaat* berrikuntzak lirateke. Amiküzeko *zata*-k *zaut* izan lezake beharbada jatorria eta litekeena da horrenbeste baliatzen den zuketak aldaeraren sorreraz argi zerbait ematea. Egun zuketan *zatazu* & *zatazū* egiten da Amiküzen: *zauta-zu* → *zatazu* gertatu ote da disimilazioz? Ondotik *zatazu* → *zata* gertatu ahal izan da berranalisiaren bidez zuketako aditzetik era arruntera itzultzean. Berranalisiaren ingurunea ez bada zuketarena izan, beharbada erlatibo edo konpletiboko atzizkiaren ingurunea izan dateke: *zautan*, *zautala* → *zatan*, *zatala* → *zata*. Nolanahi ere den, Oztibarreko Lopezen 1782ko itzulpenean zuketako oinarria beste bat da: Lopezek *zaut* dakar, baina zuketan *ziaazu* darabil eta ez **“zautazu”. Uler ote daiteke Lopezen *ziaazu* honen oinarrian *zaat* → *ziaazu* mekanismoa dagoela?

Bestalde, Garaziko *zait* adizkiaren agerpen hedatuak eskualdean aldaera zaharra gorde dutela adieraziko liguke. Hartara, Garazi eta Oztibarreko *zaat* ulertzeko aukera bat *zait* → *zaat* bilakaera izan daiteke, baina Lopez jutsiarraren 1782ko itzulpeneko eta ondoko aldiko Oztibarreko *zaut*-en agerpenak *zaut* → *zaat* aldaketa ere iradoki lezake. Aldiz, egun Garazin Irizarren datuetan bederen *zaat* nagusi da —EHHA-k *zait* dakar Garazin gehienik, nahiz Ezterenzubin *zaat*—. Oztibartarrek *zaat* egiten dute, egun *zaut* ez da nagusi ibarrean, herri xeheak ez, apezek erabilia da gehiago, nahiz Videgainen 1989ko datuetan *zaat* & *zat* aldaerez gain baden *zaut* ere (Lan, Jut). Ohar bedi bigarren pertsonan Oztibarren *zauzu* & *zauzie* daudela eta pluraleko lehenean *zau* & *zauku*; paradigmaren aldetik ez da harrigarri *zaut* ere agertzea. Berebat, amiküztar gehienek *zata* egiten dute. Baxenabarre ekialdean kasik ez da egun *zaut* ageri.¹⁴²

Oztibarren datiboko lehen pertsonaren bi aldaerak ageri dira, hegoalderago nagusitzen den *da* eta iparreragoko *ta*, bi alomorfoak ditugu ibarrean: bestalde, osagarri plurala duenean *-t* ager daiteke bukaeran Oztibarren: *dazkit* ‘dizkit’ (Zib).

Ezaugarri honek erdiz erdi harrapatu du Oztibarre. Nafarroa Beherean ipar eta hego arteko trantsizioa egin duke Oztibarrek hondarreko mendeetan tasun honetan, ipar nahiz hegoko jendeekin eskuz esku halako komunikazioa gorde du; Garazitik —*a* < *da*— hegoaldera *da* morfemak jarraitzen du Aezkoan eta baita hego-nafarrera zabalean ere: *zeida* ‘zait’, *dada* ‘dit’.

142 Oztibarreko Donaixtín honela entzun dugu: “*zaut* gehiago aphezek, hori da forma... guk *zaat* errain dugu, bai, bai, gero nahi balin badugu hobeki adi dezan, beharba *zaut* errain dakou; “hark eni” eztabadaka *eman daat*, *diatak* toka, eztabadaka *eman daat*; *eman daut*, bai, bai, gehiago aphezen..., hori da ebanjelioak eta bon, gure beharrietan sartu diren Elizako, erran nahi baita, eskuara landuagoa”. Ibarrolan ere *jin tzaat* diote: “*jin tzaat*” *kanpotik geiho*. Pentsa ote daiteke *zaat* erakoetan eta *daut* ‘dit’ beharrean *daat* ‘dit’ (Zibitze) aldaera erabiltzean, ez dela beharbada asimilazio bokalikorik, eta lehen pertsonaren morfema pleonastikotzat jo daitekeela, datiboko lehen pertsonaren *a* erantsi dela eta pertsona beraren datiboko *-t* ere hor gelditu dela?

Ikus ditzagun Oztibarreko etsenpluak, bi eretarik:

zinaan ‘zenidan’ (Jut, Donaix), *zindaan* ‘zenidan’ (Arh, Zib, Donaix)
zinautan ‘zenidan’ (Jut), *zinatedan* ‘zenidan’ (Jut), *etzatana* ‘ez zaidana’
 (Lan)

7.3.3.3.3.2. Bikoiztasuna dago lehen pertsonako *dut* adizkiaren aldaera erlatibo edo konpletiboan; *dutan* era berria entzun dugu Labetzen eta *dutana* Lüküzen; Domintxainen ere gisa berean: *tüztala*. Ordea, *t* gabeko aldaera zahar *duan* entzun dugu Arberoako Armendaritzen eta Amiküzeko Zohota herrian; Behauzen *duala* ‘dudala’; osagarri pluralekoan *tuala* Oragarren. Gamuen *erten düana*, Arberatzen *düan* eta Donapaleukoa da *ze erran nahi düan*.

Bithiriñan bi aldaerak entzun ditugu *ta* eta *-da-* > *-a-*:

hiru gauzak bethi ene bihotzean ekharri ituztanak
aita lokhaRazi gabe moztu zakozun ta iduizen tzatazu ono intzuten
duala aitain oRua

Oztibarren lehen eta bigarren pertsonako *da* / *a* < **ga* morfemak ez, nagusi aldaera berria ageri da Nor Nork saileko adizkietan:

dutan (Ibarre) & *utana* (Larz) / *dukan* (Jut), *dukalaik* (Larz), *nindukan*
 ‘ninduan, Nor, ni’, *zukan* ‘zuan, Nor, hura’ (Larz), *nikan* ‘nian, Nor Nork’
 (Larz), *zikan* ‘zian’

Badira aldaera zaharrak ere:

nola iten duan ‘dudan’ (Ibarro), *duana* ‘dudana’ (Lan)

Lehen pertsona subjektuaren morfeman bikoiztasun nabarmena dago:

zintudan (Jut, Bun), *zintuan* (Larz, Donaix) / *zintutan* (Zib)
hindudan (Zib), *hinduan* (Jut), *hintudan* (Larz, Bun) / *hindutan* (Jut,
 Donaix)

7.3.3.3.3.3. Baxenabarren ez da ezezaguna hiketa maskulinoan *t* eta *k* morfemak txandakatzea: Alduden *nik aphez hori inganatiko diak* adibidea dakar Lacombe 1911-12 aldian bildurik (1971-72: 44). Amiküzeko Behauzen alokutibo maskulinoan Nor Nork-en *diat* & *diak* bitasuna ageri da eta pluralean ere *tiat* & *tiak* dira toka (Irizar 2002a). Iduri luke lehen pertsona singularreko *-t* subjektu morfema eta bigarrenaren *-k* morfema trukagarri direla; fonikoki ere, bi herskariak ahoskabe dira, beharbada ez dira horren desberdinak, bata horzkaria eta bestea belarra izanik ere.

Berebat, Nor Nori Nork sailean “nik hari” *dakoat & dakoak* ‘zioat’ dago eskualdean Behauzen, baina beste herrietan ez; hirugarren pertsonako *dakok* ‘ziok’ erako aldaeren oihartzuna ote dago ezaugarri berri honen oinarrian? Subjektua *hik* denean ere *dakok* ‘diok’ egiten da, baina bereizketa garrantzizkoa dirudi morfologian lehen eta bigarren pertsonen artekoa.

Nor Nori-n orainetik iraganera ere bada $t \rightarrow k$ dinamika Gabadiko adizkio-tan (Irizar 2002a): *zezteik* ‘zaizkiek’ \rightarrow *zezkeian* ‘zitzaizkiean’, *zeztein* ‘zaizkien’ \rightarrow *zezkeinan* ‘zitzaizkienan’, *zezteitzü* ‘zaizkie’ zuketan \rightarrow *zezkeitzün* ‘zitzaizkien’; iduri luke txistukari horzkari eta herskari horzkariak adizkio-tan disimilatu direla edo tokako jokoan bederen bi herskarien artean halako dinamika bizi bat sortu dela bietarik bakarra gelditu dadin eta horren emaitza noketara eta zuketara iragan dela gero, baina jabetzen gara interpretatzeko aukera haboro ere egon daitekeela.

Nor Nori Nork saileko adizkian t eta k morfemen txandakatzea gertatu da; hona Gabadiko adibideak (Irizar 2002a):

dezteiat & dezkeiat ‘zizkieat’, *dezteinat & dezkeinat* ‘zizkienat’; *dezteitzüt & dezkeitzüt* ‘diet’ zuketan.

Alderantzizko norabidean, hego-nafarreran $k \rightarrow t$ aldaketa gertatu da hiketako hainbat aditz alokutibotan eta handixkoa da berrikuntzak hartu zuen hedadura: Izarbeibar, Oltza zendea, Goñerria, Eguesibar, hego Esteribar eta Aezkoa. Hondarreko ibar horretakoak dira *xeota* ‘zegoan’ eta *xitxeidata* ‘zitzaizdaan’ adibideak; goiti ekialdeko Arakilen ere egiten zen t hiketan k -ren ordain, Urritzolan eta Ihabarren.

7.3.3.3.4. Baxenabarren ohi bezala, Amiküzzen ere bi generoetan ager daiteke morfema alokutiboa adizkiaren bukaeran: cf. Nor Nork saileko *diuk* ‘diagu’ (Arm / Zoho) edo *diun* ‘dinagu’ (Ora, Zoho) & *eztium* ‘ez dinagu’ (Ora); *tien* ‘dizkinate’ (Arrü, Ir). Ez du honek erran nahi bestelakoak ibiltzen ez direnik:

diau (Behau, Lab / Loh, Sarkp, Oih)

7.3.3.3.5. Hirugarren pertsona singularraren datibo morfema *ko* da Baxenabarren eta halaxe da Amiküzzen ere:

zako & zazko ‘zaio & zaizkio’

Alta, iraganeko pluralean bitasuna dago ibarrean *izan* aditzaren Nor Nori sailean hirugarren pertsonaren morfema datiboan:

zazkon & zazkan ‘zitzaizkion’ (Arrü, in Irizar 2002a)

Euskararen *ko* → *kan* gertakari zaharraren isla edo oihartzuna ote da — Bizkaiko idazki zaharretako *jako* → *jakan* haren edo Axularren *zaikan* ‘zaion’ formen era berean —, ala *zazkan* horretan hirugarren pertsonako *-ka* morfema hori lehen pertsonako *zaztan* ‘zitzaizkidan’ aldaerako *ta* morfemaren analogiaz gertatu ote da?

Bestelakoan, arrunta da *ko* morfema Amiküzen:

zeeit jin balako (Ame); *astezkenian ior nezakon* (Ame)

7.3.3.3.3.6. Amiküzeko hainbat aldaeratan lehen pertsona pluraleko *gu* morfema lausotu, ezkutatu edo ezabatu da; hona adibide garden bat:

baintian hamabi haurride gu, bna eztik bethi nahi duuna ein, e, ta behar ere, funtsian, behar ere (Ame)

Lekukoaren *eztik* horretan “ez diaguk” ulertu behar da, *gu* morfema ezkutatu da; hona beste adibide sorta bat Amoroetzeko:

guk eztik diferentziaik bate atzeman

beti ikasi dik

bate hun giengo seitiko dik

Labetzen bildu dugun pasartean argi dago hiztunak pluraleko *gu*-tik konstatzen duela errealitatea, higadura fonikoak morfemaren itxura *diaguk* → *dik* aldatu badu ere:

guk, hori, lüze-lüzia, hor miñardia baginian, bazian seihiün undo aihen hor, na gio etxeokak joan dielaik eta, anoa Españan eosten dik, laotanoita hemezortzi zaentima pinta anoa, ta, nik edaten nia, emazteak bate etik (sic) e^daten, ta eztik biziki behar, ta miñardia errotik khendü dik, ena aitan denboan ta langiliak e bagintilaik miñardia baliatü dik e, seürki

Pasarte honetan emazteak ardorik batere edaten ez duela dioenean, ondoko *eztik* anbigua da, interpretazio singularra ala plurala, senar-emaztearena, ukan dezake, baina gainerateko hiru *dik* horiek, nabarmendu ditugunak, zinez “diaguk” dira, lehen pertsona plurala ordezkatzeko: *diaguk* > *diak* > *diuk* > *dik* soildu da adizkia.

Amiküzeko etsenplu haboro eman daitezke:

hemen gaindi eztu entzuten (Ora), non *etzugu* → *etzuu* → *eztu* gertatu baita

ta geo, ba, intzun dik, eztakiat egia denez (Ora)

ba, semia etxen dizi ‘dizugu = dugu’ (Mar)

*uu, e^günaz ba, jantzak, e, ba, ba, hasi tzü, ba, bena guk gerla denbora
ükhan bitü, ordian gerla demoran ezti zi ukhan phestaik, ez (Arrü)*

*pu, hamar bat edo, dozena at, kusiak gintien lekhüirat; ez uai ezti zi¹⁴³
geihao relazioneik, e (Arrü)*

*na baakik, sosa behar, sosa behar, ba, alta ez tik ‘diagu’ jaureiik in, eta
otoak e beti zaharrak gintian, bna ze nauk, hola zian, hola (Lab)*

*guk baño baik hameka edo hamabi herri iteko, biziki güti uk aphezetan,
e (Lab)*

*geo hangoak e heldü tuk alderdi huntaat, Españan eon dienek preso,
badik, elgarretaat biltzen gitzak urtean aldi bat ta iten dik baskari bat hola,
ta badik, badik oküpatzen dienak, kotizazione itipi bat paatzen dik eta badik
oküpatzen dienak guetaz (Lab)*

hau haindako ütziiko dü (Ame)

*behar tik kxanpoan ezari horiek eta, ez tik behar merialat sartzeat ützi
jende horiek (Ame)*

*egüerdiko etxeat eta ale bizpahirü dozena arrotze saltzen dü han mer-
khatian eta (Ame)*

hola pa[ž]atü dizi gure denbora (Gam)

*gü gioztik aphezi gabe gituk, enfin, badik beste at, bñana, herritik,
herrian bigindikan, hola khen, hola gel, hola pa[ž]atü zian ixtorioa (Zoho)*

*ta geoztik, geoztik bethi, badik apheza, bena, edo Arbaatzen duk, edo
Domixĩ, ta uai Domixĩentik heldü zakiuk hunat (Zoho)*

ba, ukhan dik, ba, hetaik e, ukhan dik (Zoho)

Arbotiko berriak e igan tin ‘tiagun = ditinagu’ (Zoho)

Beste adibide batzuetan herskari ahostuna galdu da, baina bokalak gelditu dira, bigarrena ia entzuten ez bada ere:

*baginien guk eazaña hemen, gerla denboan ogi xuria jan di^h hemen,
e (Lab)*

edo zuin, bena gertha zain en plus aphezari, apheza hola galdu du^h (Sor)

Irizarren datuetan (2002a) Arrüetan *dako* ez da “hark hari” soilik, “guk hari” ere bada. Aldiz, Oztibarrera orduko *gu* morfema berragertzen da: Jutsin *dakou* & *dazkou* adizkiak ditugu.

Hona Arrüeta herriko adibide haboro: *dakouk* eta *dakok*, bi aldaerak dira ‘zioagu’, bigarrenak *gu* morfema galdurik du; berebat, *zitiü* ‘zaitugu’ & *hitü*

143 Gure belarriak *i* luzexkoa entzuten du, edo hori iruditzen zaigu bederen.

'haugu' aldaerak ibiltzen dira, *gu* morfema eskas dutenak; *tü* adizkia 'ditu' eta 'ditugu' da Arrüetan, biak, eta *tüztü* ere hark 'ditu' eta guk 'ditugu' da, baina toka eta noka bereizketa gorde da: hark *tik* eta *tin* da, baina guk *tiuk* eta *tiun*; zuketan "hark haiek" *tzi* da eta "guk haiek" *ditzzi*; bata eta bestea desberdinak dira, baina bigarreanean *gu* morfemari gertatuak dagoeneko eman dugun azalpena du; cf. 7.3.3.3.1.3. §.

Adizki neutroetan, berriz, "hark hari" eta "guk hari" *dako* da Arrüetan, bigarreana subjektuaren morfemarik gabe; halaber, 'dizkio' eta 'dizkiogu', bi mezuak *dazko* aldaerak asetzen ditu. Oragarren *zitu* 'zaitu' nahiz 'zaitugu' da eta *diztu*, berriz, 'ditu' eta 'ditugu'. Behauzen *dik* 'dik' nahiz 'diagu' da, eta *hü* aldaerak 'hau' eta 'haugu', bi edukiak adierazten ditu. Gabadin *diztü* 'ditu' eta 'ditugu' da. Zohotan inoiz bereizten dira: *zitü* 'zaitu' vs *zitiü* 'zaitugu', baina beti ez: *diztü* 'ditu' eta 'ditugu' da. Domintxainen *dü* 'ditu' eta 'ditugu' da, *dik* 'dik' eta 'diagu' da eta *din* 'din' eta 'dinagu'. Berebat, "hark hura" *zi* 'du' da zuketan eta "guk hura" *dizi* 'dugu'; bata eta bestea desberdinak dira, baina ares-tian adierazi bezala, *gu* morfema lausoturik du *dizi* aldaera horrek.

Bitxia da Zohotan gertatzen dena: datiboa hirugarren pertsona singularra izanik, *dakot*, *dakon*, *dakok*, *dakozü*, *dakozie* eta *dakote* adizkietan bistan da subjektu morfema bukaeran kokatzen dela, baina subjektua lehen pertsona plurala denean, morfema galdu da ala iduri luke morfemak adizkiaren barrenera jauzi egin duela: *dauko* 'diogu', *dauzko* 'dizkiogu', *daukok* & *dik* 'zioagu', *daukon* 'zionagu' eta zuketan *daukozü* 'diogu' ibiltzen dira; betiere, non eta erdiko *u* hori ez den **eradun*-en arrastoa.

Beste batzuetan *gu* morfemaren arrastoa gorde da, konparazione, Bithiri-ñako bi etsenpluok: *gio ikusiko dizii* 'dizugu = dugu'; *eztizii olakoik intzun*.

Ezaugarri berri hau haur prodigoaren parabolaren Aiziritzeko aldakian aurkitu dugu lehen aldiz, 1894ko testuan:

cantatcen dic éta irouz guitouc (105)

Alomorfoei dagokienez adieraz dezagun *ku* ere ibiltzen dela Amiküzen:

eztakü eakiüsi (Ame); *han erreintek* (sic) *emaiten tzaküzien salda* (Donap); *hunek eRan daküzü*, *ordian hori ta hori* (Donap); *hak esplikutzen zazkütziin* (Donap); *dakiüte* 'digute' (Dom)

Zuberoako mugako Olhaibin *erran tzeikün* entzun dugu.

Oztibarren datibo pluraleko lehen pertsonari *u* < *gu* ala *ku* dagozkio eta XVIII. mendeko itzulpenak ere egoera hau erakusten du: egungo euskaran *dau*

‘digu’ eta *dauku* ‘digu’ ageri dira Donaixtin, edo *zitzaukun* ‘zitzaigun’, *dauku* ‘digu’, *daukuzu*, *daukuzie* Jutsin, baina oro har, *gu* > *u* aldaera da Oztibarren nagusi:

dau ‘digu’, *daute* ‘digute’ (Jut); *zaun* ‘zigun’, *zindaun* ‘zenigun’, *zindaute* ‘zeniguten’, *zauten* ‘ziguten’ (Zib); *dauzu* ‘diguzu’, *dauzie* ‘diguzue’, *daute* ‘digute’ (Donaix)

Inoiz, Amiküzen legez, *gu* > *u* > \emptyset gertatu da, baina ditugun adibideetan Nor Nork saileko subjektuaren morfeman agitzen da hori: *ditu* ‘ditugu’ (Donaix).

7.3.3.3.3.7. Pleonasmok gertatu dira bigarren pertsonaren morfeman Amiküzen, baina gertakaria han-hemenka ageri da, ez dakigu zenbateraino dagoen hedaturik. Irizarren datuetan Arrüetako adibideak ageri dira: *zindakozun* ‘zenion’ dugu, bigarren pertsona singularreko subjektuaren morfema bikoizturik; pluralean *zindakoten* ‘zenioten’ egiten da, baina baita *zindakozien* ere. Bestalde, *zin(d)atan* ‘zenidan’ dago, baina baita *zindataziin* ere, bikoizturik. Osagarri plurala duen “zuk hari” adizkia pleonastikoa da, bigarren pertsona subjektuaren morfema bikoizturik dauka: *zindazkotziin* ‘zenizkion’. Datiboa lehen pertsona delarik ere, bigarren pertsonaren subjektu morfema bikoiztu daiteke: *zindaztan* da ‘zenizkidan’, baina baita *zindaztaziin* ere. Zohotan ere bada pleonasmok honen oihartzuna: “zuek guri” *zindaukiuten* & *zindaukiuzien* egiten da; cf. Irizar (2002a).

Amiküzen bezala bigarren pertsona pluraleko morfeman pleonasmok gerta daiteke Oztibarren ere: *zindakoten* ‘zenioten’ aldaerarekin batean *zinakozien* ‘zenioten’ ageri da Donaixtin Irizarren datuetan (1999a); Landibarreko Azkonbegi auzoan *zindazkiaten* ‘zenizkidaten’ & *zindazkiatziien* parek dugu eta *zindazkiutziien* ‘zenizkiguten’ pleonasmok dakar Irizarrek Azkonbegin berean.

7.3.3.3.3.8. Lafonen bidetik Ariztimuñok euskal adizkietan datiboko *-gi > -k morfemaren txertaketak bigarren pertsonako datiboaren txistukarian eragin duen afrikazioaz dihardu (2015: 55-7). Jarraian bigarren pertsona singularreko datiboaren *zu* / *tzu* txandaketari so egingen diogu.

Sinkronikoki ikusirik adibide batzuetan iduri luke Amiküzen alomorfo afrikatua eta plurala hein batez loturik daudela eta gauza jakina da, gainera, aditzaren arloan analogiak ere aldaketak eragin ohi dituela alderdi batetik bestera edo are alderantziz ere. Txandaketa ageri da Amiküzeko adizkietan bigarren pertsonako *zu* morfeman; adibidez, Nor Nori Nork saileko adizkietan bi aldaera dakuskigu, *zu* eta *tzu*. Ikusi batera sinkronikoki iduri luke pluraleko adizkietarik etorri dela *tzu* singularrera eta bi alomorfo eragin dituela. Ikus ditzagun etsenplu batzuk:

Irizarren Behazeko datuetan *dauzute* ‘dizute’ vs. *dautzute* ‘dizkizute’ aurkakotasuna ageri da eta Arrüeta-Sarrikotako datuetan ere singularraren eta pluralaren arteko aldea dakar *zu* / *tzü* aurkakotasunak Nor Nori saileko *zauzüin* ‘zitzaizun’ / *zautzüin* & *zauzkitzüin* ‘zitzaizkizun’ adizkietan. Ez dakigu inoiz honelako erlaziorik izan ote den, izan ere, historikoki *-gi > -k datibo morfemari txertatu baitzaio eta ez pluraleko morfemei bakarrik, baina Amiküzen eredia inoiz halakoa izan baldin bada hautsirik dago egun eta singularreko jokoan ere bada *tzu* aldaera: bokalaren palatalizazioa gorabehera, *zu* / *tzu* alomorfoen arteko txandaketa ageri da eskualdean.

Oragarren *eztautzu* ‘ez dizu’ *khundatu* bildu dugu (1985) eta Behazuen *erran dautzut* ‘dizut’ *eta...* (2006); adibide hauetan *tzu* litzateke bigarren pertsona singularraren datibo morfema, baina Bithiriñan *dauzut* bildu dugu eta Irizarrek ere *dauzut* dakar Oragarre, Behauze nahiz Bithiriñan; berebat, Arrüeta-Sarrikotan *dauzü* eta *dauzüit* dakartza (2002a). Nolanahi ere den, *dautzut* ere badakar Irizarrek Oragarreko Barta auzoan, Behazuen eta Zuberoako Domintxainen (2002a: 283, 101); cf. *dautzu* ‘dizu’ Oragarreko Barta eta Ostankoan (2002a: 283, 175). Pluralean *dauzkitzu* (Ora), *dautzuz* ‘dizkizu’ (Behau) eta *dauzkitzüit* ‘dizkizut’ (Arrü-Sar) dakartza Irizarrek, horietan ere *tzu* & *tzü* da morfema.

Oztibarren sinkronikoki bederen *z-ki* nahiz *z* pluralgileak baliatzen dira eta *tz* aldaera *z* pluralgilearen alomorfoa da. 1782ko Lopez jutsiarraren itzulpenean Nor Nori aditz sailean “haiek zuri” eta “haiek zuei” kasuetan morfema datiboa afrikatua da adizkian *z-ki* ez dagoenean: *ezpazauzkizu* ‘ez bazaizkizu’ eta *bazautzu* ‘bazaizkizu’ dakartza itzulpenak:

guiçonon exempliac espaçauzkiçu aski (405)

luçazago biciz Ginfoaganaco cundiac emendatcen baçauzçu (345)

Datiboa “zuei” denean ere *zauzkizie* eta *zautzie* ditugu:

besthiac oro emanen çauzkicie suergaraitico (15)

justicia eta bezte behar tucienac oro emanac içanen çautcie? (249)

Aldiz, egun, pluraltasuna duten *zauzkitzu* ‘zaizkizu’ (Zib) erako adizkietan, *z-ki* pluralgilearen ondoko datibo morfema ere *tzu* afrikatua da, eta pluralgile gabeko adizkietan ere *tzu* da bigarren pertsona datiboaren morfema Oztibarren.

Oztibarren tripertsonaletan egun balirudike adizki batzuetan osagarri plurala agertzea eta singularreko bigarren pertsonaren subjektu morfema *z* → *tz* tinkatzea erlazioan daudela: *dazkiatzu* eta *daztatzu* biak ‘dizkidazu’ dira Jutsin, baina singularrean *daazu*, *dautazu* edo *datazu* egiten da herri honetan; cf. Irizar (1999a), baina ibarreko emaitza guztiei so eginez gero, argi ageri da formula

honek ez duela Oztibarren orokortasunik, Videgainen emaitzetan (1989) txandaketa dago: *dauzut* ‘dizut’ (Arh, Zib, Jut, Donaix), baina *dautzut* ‘dizut’ (Izu, Donaix, Hoz); cf. *dautzu* ‘dizu’ (Izu, Larz, Bun) ere. Irizarren datuok ez dira ongi ezkontzen EHHA atlasekoekin: *dautzu* ‘dizu’ aldaera Baxenabarreko arras mendebalekoa da 91310 mapan, Bidarra, Armendaritze, Izturitze eta Bastidan baizik ez dago *dautzu*, Baxenabarreko beste guztiak *dauzu* dira. Galdegin dugu honetaz Oztibarren, eta eman dezagun, Donaixtin dioskute *dautzut* guztiz arrunta dela, baina Zibitzen *dauzut* eman digute: Videgainen Oztibarreko 1989ko emaitzetan osagarri singularreko franko *dautzut* eta *dautzu* dago.

Beharbada analogiaz, datiborik ez den Nor Nork saileko bigarren pertsona pluraleko morfema subjektua ere *tzie* ageri da Oztibarreko egungo adibide batzuetan: *tuzie* ‘dituzue’ (Larz, Bun, Donaix) egiten da, baina baita *tutzie* ‘dituzue’ (Jut, Zib) ere, eta osagarria lehen pertsona plurala denean ere *gituzie* ‘gaituzue’ (Donaix) eta *gituzie* ‘gaituzue’ (Jut, Zib), bi aldaerak ageri dira Oztibarreko egungo mintzoan.

Nolanahi ere den, Nor Nork aditz saileko bigarren pertsonaren subjektu morfeman *tzu* agertzea ez da ezezaguna; Hazparneko XIX. mendeko katiximan *ditutçu* dugu (216).

7.3.3.3.9. Amiküzetik Lapurdiko Aturrialderaino bederen, datiboa bigarren pertsona pluralari dagokionean *-zite* da adizkiaren bukaerako atala eta ez ondoko eskualdeetako *-zie*: konparazione, Ilharreko etsenpluan *dauzitet* ‘dizuet’ bildu dugu:

*eRemestiatzen tziütet biziki zien... zien emaitzaz, bena gauza ^{at} eRain
dauzitet: emazie hola-hola ono ai^atzina, b^ena sustut etzazit... etzaziela eman
ge^{ho} tRipotik, bitüt bi urtheena*

Irizarren datuetan, berriz, Arrüeta-Sarrikotakoak dira *zauzite* ‘zaizue’, *zautzite* ‘zaizkizue’, *dauzitet* ‘dizuet’, *dautzitet* ‘dizkizuet’, *nauziten* ‘nizuen’ edo *nautziten* ‘nizkizuen’. Aturrialdean Beskoitzen dimorfismoa dago: *dakoziet* & *dakozitet*, *nakozien* & *nakoziten*; Lehuntzen, berriz, *zaitzite* ‘zaizue’ ibiltzen da. Zuberoan inon ez da honelako adizkirik ageri, ezta Pagolan ere. Ondoko Oztibarreko Donaixtin galdetu dugu ezaugarri honetaz eta dioskutenez bada oihartzun zenbait, batez ere adinetako jendeen mintzoan; estandarreko “zaizue” adierazteko *zautzie* nahiz *zautzi^ete* ibiltzen dira Donaixtin, bigarrena bereziki zaharrek; berebat, “dizuet” adierazteko ere bi aldaera baliatzen dituzte: *dautziet*, baina baita *dautzi^etet* ere, hondarreko aldaera beteago hori jende zaharragoen ahoan entzuten da.

Bestelakoan, datiboa singularreko “zuri” delarik ere, ezaugarri honen isla ageri da Amiküzen bildu ditugun etsenplu guti batzuetan:

bai, etxekanderiak edo urdiak edo nausi horiek, hein, nik izautü itüanäk seurik, eta etzi eRan beaR eRemasak tziela, ützen zauzieten ‘zizuten’ kaale xēhēen haztia (Gam)

urdia re, ez kantitate handin, bena laspost urde gizen ützen tzauzieten ‘zizuten’ eta geo pualla xe^he oriek eta hola, ützen, zeen eta xüxen den bezala, lürra, erdia lana edo errekolta erdia ina zün, ja, solamente, ollaskoa heldü zelaik, urthia heldü zelaik, urthiain bürian, bi ollasko pare (Gam)

zoazi gauza aten errepaatzea, zernahi, errain dauziete ‘dizute’ honenbeste balio izi eta amiña at gehixooño ezar eta, berria baiüzü, are! (Zoha)

uretan, ta geo inaazten dauzite ‘dizute’ anixko eta muimendü müskulaen iteko berriz (Arbe)

benä eskuara beitablian “geezia” uzu, Hazpärnen “geezia” erten dauzite, guk “xi[ž]ak”, e, peraendako guk “pera” eRain dizii (Arbe)

7.3.3.3.10. Hirugarren pertsona pluralaren datibo morfema *e* da eskualde ugaritan euskaraz, baina bokalen arteko asimilazio dinamikak *zee* ‘zaie’ erakoak eragin ditu Baxenabarren. Ez dakigu xuxen Nor Nori Nork sailean zein den bilakabidea sorburutik, sail honetako eskualdeko adizki guztiak **eradun* oinarritik ote datozen, baina *dee* ‘die’ aldaera arrunta da Baxenabarren egun. Honak guztiak *ee* sekuentzia hirugarren pertsona pluralaren datibo morfemarekin identifikatzea eragin duke.

Amiküzen testu zahar fidagarrien lekukotasuna falta dugu, baina geografikoki urruna ez den *Alphonsa Rodriguezen* 1782ko Lopez apez jutsiarraren itzulpenean ageri den eskeman honako aldaerak ditugu:

zee ‘zaie’ —zuketan *zieezu*— eta pluralean *zezte* ‘zaizkie’

Iraganean, berriz, *zitzeen* ‘zitzaien’, zuketan *zitziezun* & *zitzieezun*.

Hona Nor Nori Nork saileko adizkiak 1782ko liburuan:

“hark haiei” *deree* ‘die’, zuketan *direezu* & *direzu* eta “haiek haiei” *deree* ‘diete’, zuketan *direezie*

Osagarria plurala denean, berriz:

“hark haiei” *derezte* ‘dizkie’ da eta “haiek haiei” ere *derezte* ‘dizkiete’

Iraganean:

“hark haiei” *zereen* ‘zien’, eta zuketan *zireezun* —agerraldi bakar batean *zieezun*—

Osagarria plurala denean, berriz:

“hark haiei haiek” *zerezten* & *zezten*, eta “haiek haiei haiek” *zerezten*
— zuketan *zireztezien*—

Eman ditzagun Baxenabarre zabaleko adibide batzuk erakusgarri (Irizar 2002a):

Garaziko Ezterenzubin *dee* ‘die’ edo *zezkeen* ‘zizkien’ erak ditugu, ibar bereko Gamarten *zee* & *zie* ‘zaie’ bitasuna dago, Oztibarreko Jutsin *zee* ‘zaie’ da, Landibarren *dee* ‘die’ eta hegoalderago, berriz, Alduden *zee* ‘zaie’, *dee* ‘die’, *zeen* ‘zien’, *zezteen* ‘zizkien’, *zezteeten* ‘zizkieten’ ditugu; Baigorriin *deet* & *deiet* ‘diet’.

Amiküzen aldakorra da hirugarren pertsona pluraleko morfema datiboaren kokagunea. Bonapartek *deeztet* ‘dizkiet’ bildu zuen, baina Artolak *dezteet*; egun Donapaleun arestiko bi aldaerok ditugu. Artolak dioenez, *ee* horiek lekuz alda daitezke adizkian eta beti ez dira bi bokalak entzuten (Irizar 2002a: 125).

Baina gertakari gehiago ere bada Amiküzen alor honetan; ez dakigu disimilazioa izan den eragile, ala egoera zaharrago batean metatesia, baina Amiküze iparreko herrietan eta Behauzen bederen *-ei* dago hirugarren pertsona pluralean eta gainerateko herrietan *-e(e)*: *zei* ‘zaie’ (Dom), *deit* ‘diet’ (Ora, Gab, Zoho). Oragarren berean “zuk haiei” *deizu* ‘diezu’ eta guk *deu* ‘diegu’ bildu dira. Guk Oragarren zuketan *erten deizu* ‘die’ *muthiko her* bildu dugu eta Arberatzen zuketan honakoa:

bena etzüün gaixtoak... bo, jateko poxi at, ba, ba, nik uste, ba, gü... ene amak emaiten tzeitün ‘zien’, ba, zopa ta, gasna ta ogia ta hola... bo, Biaxünetik eta gio Xibaltarren bazüün buhamiak, uai etzü geiho, uai buhamiak e lanian ai tzü

Altzümartan, berriz, *biteie* ‘baitie’ entzun dugu.

Beste hau Zohaztin entzuna dugu:

olloa kokozaika hasten tzelaik haurrak lasterka juiten, gose beitzien hek e, eta amak erten tzeitün aldi bat, gi[ʒ]jala, aldi bat mahaira jitia, bena ez bietan, e

Arbotin ere bai:

denboa eman tzie eskolan ta geo jelgi dielaik eta etxen enstatüü eta oro, behala hoitahamar urthe jin tzeitü ‘zaie’

Behauzen eta Zuberoako Domintxainen bi erak ageri dira: *nien & nein* ‘nien’. Guk Domintxainen *üdüi zei* ‘zaie’ bildu dugu; aldiz, zuketan honela da: *eta üdüi zezüü noRmal dela aita-amek phaa dezaten* (Dom). Aldiz, Irizarren Donapaleuko datuetan *zee & ze* ‘zaie’ eta *deet* ‘diet’ adizkiak ditugu, hiri hone-tan ez dago *-ei* sekuentzia hori; aldiz, Larribarren *ie* entzun dugu:

heen lana khentzen niela, nik aldiz erten ni^ezun nik ene ogia jaten niela

Ostankoan adibide hau atzeman dugu:

*uai etzee ‘zaie’ iandeik iten bate, astean eun bat oono bestalde, ta etzie
iaazten jeuse ja*

Nor Nori Nork-en *eman deezu* entzun dugu Ostankoan.

Subjektua plurala denean *zezte* ‘zaizkie’ bildu dugu Laphizketan:

uai e alde ootaik thiraka ai zezte

Bardoze ondoan dago Oragarre herriko auzo den Barta; bertan era hone-tako adizkiek Lapurdi aldera jotzen dute¹⁴⁴ eta Irizarrek garrantzi handia ematen dio ezaugarri honi (2002a: 267-8). Oragarre herriko Barta auzoko adizkietako “haiek” morfema datiboa Bardoze herrikoekin alderatuz gero, ageri da Bardoze-rekin batean doala eta ez Oragarre herriarekin:

Oragarre herria:	<i>zei</i> ‘zaie’, <i>zeztei</i> ‘zaizkie’, <i>zeien</i> ‘zitzaien’, <i>zeztein</i> ‘zitzaizkien’
Orag. Barta auzoa:	<i>zakote, zazkote, zakoten, zazkoten</i>
Bardoze:	<i>zakote, zazkote, zakoten, zazkoten</i>
Oragarre herria:	<i>deit</i> ‘diet’, <i>dezteit</i> ‘dizkiet’, <i>nein</i> ‘nien’, <i>neztein</i> ‘nizkien’
Orag. Barta auzoa:	<i>dakotet, dazkotet, nakoten, nazkoten</i>
Bardoz. Ibarra auzoa:	<i>dakotet, dazkotet, nakoten, nazkoten</i>

7.3.3.3.3.11. Aditz iragankorretan hirugarren pertsona pluralaren Nork morfema *-te* da Baxenabarre guztian; hona Arberoako etsenplu batzuk:

atxiitzen dute, iten duzte, zuten, ziuzten... (Meh)

Ezaugarria Amikützen gaindi eskuinerat hedatzen da: Domintxainen eta Olhaibin *diüte* bildu dugu eta Etxarrin *dute & tuzte*, harrigarri den *u* ez palatali-zatuarekin — itxaron beharko genukeen *diüte* bildu du Etxarrin Artolak, *u* bokala palatalizaturik (Irizar 2002a)—. Oihergin, Ainharden eta Sarrikotapean *-te* eta *-e*

144 Bardozen berean ere *dakotet* ‘diet’ dakar EHHA-k.

entzun ditugu, bi morfemak; aldiz, ondoko Ündürein en eta haratagoko Urdiñarben, itxaron bezala *-e* bildu dugu:

ze egiten tzien (Ündü)
ogia ezpadie maite (Urd)

Adizki alokutiboek aldaketa dakarte jokoan Amiküzen: *nüte* ‘naute’ adizkiaren tokako kidea *nie* da. Aldiz, Nor Nori Nork sailean morfema datiboa femeninoa denean bitasuna dago: “haiek hiri” *daune* ‘dinate’ & *daunate*.

7.3.3.3.4. Beste zenbait morfema adizkietan

7.3.3.3.4.1. Lehen pertsona pluralean hiketako oraineko adizki arruntak dira *gituk* (Amo, Behau, Uha, Zoho) & *gitün* (Arbe), nonahi itxaron genitzakeenak; zuketan, berriz, *gitzü* (Mar, Gam, Arbe) & *gitzu* (Ora, Bith, Uha) egiten da, inoiz hor sinkopa jasan gabeko *gitzu* izan zela salatzen baitigu; errate batera, Jutsiko Lopezen *Alphonsa Rodriguez* edo *Pratica*-n 1782ko itzulpenean *guituçu* dago adibideetan.¹⁴⁵

Beharbada zuketako *gitzü* erakoen txistukari afrikatu horren analogiaz, alokutiboen alorrean iduri luke zuketatik hiketara txistukariaren oihartzuna eramane dela eta Amiküzen *gitzan* ‘gaitun’ eta *gitzak* ‘gaituk’ berrikuntzak sortu direla, baina beharbada zuzenagoa da pentsatzea hor *tza* pluragilea dugula.

Eman ditzagun erabileraren adibide batzuk:

iakoitzetan lanian ai gitzak (Amo)
ützen ai gitzak (Ilh)
ni, gu juiten gitzak usu gue, gu Españan eon gien horiek preso, jarritzen gitzak enterramendietaat eta juiten gitzak... balima diau Oloronen edo à la vallée d’Aspe, haadio juiten gitzak, geo hangoak e heldü tuk alderdi huntaat, Españan eon dienek preso, badik, elgarretaat biltzen gitzak urtean aldi bat ta iten dik baskari bat, hola (Lab)

Eman genitzake herri haborotako adibideak ere (Arrü, Behau, Bith, Zoho / Dom, Sarkp).

Ezaugarri hau ez da Amiküzetik kanpo ageri; errate batera, bardoztarrek ez darabilte, ezta Arberoako euskaldunek ere; Amiküze ondoko Sarrikotapean *gitzak* entzun dugu nagusiki eta *gützak* ere behin agertu zaigu; Oztibarren entzun dugunez aldaera hauek ez dira haienak, baina Donaixtin erran digutenez, Ami-

145 1740 urte inguruko katiximan ere *guituçu* dago (125), baina Nor Nork aditz saileko adizki neutroan.

küze ondoko Arhantsusin entzun izan dute *gitzak* edo horren gisakoak. XIX. mende bukaerako *Bourciezen* haur prodigoaren parabolan Amiküze ondoko herrietan bildu den <gutsac> aldaera *gitzak* honen kide da, guk uste *gutzak* edo *gützak* izanen dena. Oztibarreko Arhantsusin (149), Zuberoako Etxarrin (129) eta Amiküze bereko Uhartin (144) ageri dira adibideak. Urdiñarbeko Maider Bedaxagarrek dioskunez, gazteek berria dirudien *gützak* ‘gaituk’ aldaera erabiltzen dute egun.

7.3.3.3.4.2. Baxenabarren ohi bezala, baina Zuberoan ez bezala, Amiküzen ere *izan* aditzaren lehen eta bigarren pertsona pluraleko iraganeko Nor adizkietan *t* edo *d* berriak ager daitezke *n*-ren ondotik, iduriz *nd* edo *nt* kontsonante sekuentzia duten beste aditz sail batzuen analogiak eraginik; *ginten* ‘ginen’ (Meh / Ora, Amo, Mar, Ame) eta *zinten* ‘zinen’ (Amo) azaltzeko, *zinezten* uste dugu izan daitekeela analogiaren akuilatzaile —orainean *ziek gostian egoin zizte* bildu dugu (Donap)—, edo bestela hiketako *gintian* ‘ginen’.

Testuen kronologiak dioskunez gertakaria ez da zaharra; Etxeparek hone-lako adizkirik ez dakar eta ezin jakin orduko Garaziko berri, baina gure eskualdeko 1740, 1782 —*ginen*, *zinen*— edo 1786ko —*ginen*— erlijio idazkietan ohiko aldaera zaharrak daude; mendebalerat, XVIII. mendearen erditsuko Hazparneko *Kadet eta Bettiriño* idazkian ere ez da ageri: *ginen*, *zinen*.

Oragarren *ginden* eta *ginten* ‘ginen’ berrikuntzak entzun genituen 1985ean, baina ez dugu ukatuko beste saila ere bildu genuela orduan ere herrian: *juiten ginen*; *ginten* eta *tzinden* ‘zinen’ entzun dugu 2006an Oragarren. Amorozen *ginten*, *zinten* eta *zinden* entzun ditugu (2006); berebat, Martxüetan *juiten zindizten* ‘zineten’. Aldiz, urrun ez den Bithiriñan ez dugu entzun: *amain familiara!* *joaiten ginelaik*, baina ibarraren hego-ekialdean, Oztibarrera hurbil *ginden* ‘ginen’ bildu dugu Sorhapürün eta *gindela* Uhartehirin. Lüküzen *okhaskatuik biginden* adibidea agertu zaigu. Laphizketan *sarthü* ^s*indelaik*. Zuberoako muga Olhaibin *ginen* baliatu du lekukoak elkarrizketan, baina adibide bakar batean *horra gin-delaik* ageri da; Berroetan berriz *biginden*. Eta ondoko Artien ere entzun dugu:

a, etzü ber gauza e, lehenau behiekin ai zinden eta güitao zün lür, uai aldiz, denek baizie lür metaka, bena mazineki

Hona Amiküzeko etsenplu sorta bat:

biziki pullit zen, juiten ginten eta Paueat edo, juiten ginten eta Españaat ee, denetan meza bardin, hitz bera^s bethi, ez ginien deus konprenitzen, bena (Ora)

berroita hamabian jin hunat, esposatu gintelaik hunat jin (Amo)

etzinten niat e deplazatzen ahal, herrian egoiten tzitzuⁿ (Amo)

azaroan ba^hua, primaderan arthoa, geo belharra, bena ez uai bezalako kanpoak ez, leheno, alainan, behiekin ai zinden lanean ordian, zer ttipioua^k tzi^tzun, kanpo ttipiouak, ba (Amo)

zerri hiltze hoitan eta, phestetan e, phestetan e haurrideak, erteko denak eldu zitian memento hetan gazte gintelaik, animaleko mähitrak eta biltzen gintian, herrian bazian jendia (Amo)

hartan e, gure ixtorio frango elgarr... zer iten gintzin, elgarretaatzan b^eiginten alaaina (Amo)

Aldaerotan aldakortasuna ageri da, Amorotzeko etsenpluok lekuko:

errekoltan ai bazⁱndien ‘bazinen’; baita *izan gⁱntielaik* ‘ginelarik’ (Gam) ere

Cf. hurranen etsenplua ere: *hor ari gⁱntzelaik, laborantxan ari gintelaik* (Amo).

Irizarrek ere badakartza adibideak (2002a):

ginten ‘ginen’, *zⁱnien & zⁱndien* ‘zinen’ (Arrü)

Oragarren *ginten & gⁱndizten* ‘ginen’, *zinden* ‘zinen’ & *zⁱndezten* ‘zine-ten’ dakartza; analogia zenbaitek eragin ditu *gⁱndizten* eta *zⁱndezten* horiek; cf. 7.3.3.3.5.2. §.

Nolanahi ere den, xedezkoetan *nt* ageri da ere: *ar gⁱnten* ‘ari gintezen’ (Donap).

Baigorrialdeko salbuespena eginik, Baxenabarre guztian eta Lapurdiko Aturrialdean ageri da berrikuntza, Bardoze barne. Arberoan ere entzun ditugu, hona Mehaineko etsenplu batzuk:

hor hiutanoi laun biltzen ginten

heer bea eoiten ginten

Baina baita *nd* ere, *ginden* eta *zinden* biak Mehainen entzun ditugu:

ordian prest ginden

ai zinden

Aturrialdean Bardozen dakar *zinden* Irizarrek ere (2002a: 292).

Honelakoa dugu xuketan emana den *xinden* ere, Oztibarreko Zibitzen eta Landibarreko bi auzotan Artolak bildu duena (Irizar 1999a: 353, 415).

Baigorri eskualdean ez dago honelako aldaerarik, berrikuntza ez da mendi arteko ibar horretara heldu, ezta Zuberoara ere; xiberotarrek pluraleko bigarren pertsonako *zinde(e)n* & *zindien* ‘zineten’ adizkian baizik ez dute *-nd-* egiten.

Beharbada arestiko jokaera horrek eragin duke Nor sailean *izan* aditzaren iraganeko *n / nd* txandaketa singularreko lehen eta bigarren pertsonetan Oztibarren: *ginden* ‘ginen’, *zinden* ‘zinen’, *zindezten* ‘zineten’ ditugu Zibitzen, eta ikus Larzabaleko etsenplua:

libertitzen ari gindelaik bidian

Ikus Garaziko Gamarten *ginden* eta *nindelaik* ‘nintzelarik’ ere eta beheiti Ezterenzubin *gindelaik* (EHHA), baina Suhuskunen *ginen*, *zinen*, *zineten* & *zinezten* (Irizar 1999a).

7.3.3.3.4.3. *edun* aditzaren *d* erro-atalari eutsi dioten eta galdu duten adizkiak erabiltzen dira Amiküze eskualdean:

gindien (Arm / Amo, Behau, Bith, Uha, Mar, Lab, Gam, Arbe / Olh) /
ginién (Amo, Behau, Bith, Lab, Gam / Olh)

zindien (Arm / Amo, Uha, Mar, Gam / Arüe) / *zinien* (Ora, Amo, Uha, Mar, Gam / Loh, Arüe)

Hona adibide gordetzaille sorta bat:

oixtian aipatzen gindien hua (Mar)

bená hola gazte eskola üt, eta hori zindien, seroretat juitia (Mar)

ze erten gindien (Gam)

Nolanahi ere den, badira *d* gabeko adibideak ere:

erdia, behia saltzen balima zinien, erdia nausieina (Gam)

libro zinien haztia, bena hori behar tzindakon nausiari eman (Gam)

guri galdua in, nahi ginienez (Gam)

Nafarroa Garaiko Zaraitzu ibarrean bezala, Nor Nori Nork sailean ere gertatzen da, ziur aski Nor Nork-en eraginez Nor Nori Nork-era analogiaz iraganik:

ginakon (Lab) / *gindakozün* (Gam), ‘*tzindakon* (Gam)

zinautan (Meh) / *zindatan* (Meh / Gab)

Irizarrek (2002a) *zinazkon* & *zindazkon* ‘zenizkion’, *zinazkoten* & *zindazkoten* ‘zenizkioten’ bikoteak dakartza Behauzen.

Ez dirudi testurik zaharrenetan ****gineradukon** erako deus ageri denik, hartara, *edun*-eko adizkietarik etorria dirudien *d* dago Oztibarren Nor Nori Nork-en iraganeko subjektu pluraletan, *nd* taldea eginez, baina *n* soila duten adizkiak ez dira galdu: Ibarrolan *gindakoan* eta *ginakoan*, biak entzun ditugu toka; ikus etsenpluok:

ginakon (Jut, Larz), *ginakoxun* (Jut) / *gindakon* (Zib, Donaix), *gindakoxun* (Zib)

nd erakoak Baxenabarreko iparrean ditugu eta *n* soila dutenak Nafarroa Behereko hegoalde eta mendebalean; **ezan*-en kasuan ordurako *nd* zegoen 1782ko itzulpenean, hala Nor Nork nola Nor Nori Nork sailetan:

baguindeça (36) —aldiz, Zaraitzuko Jaurrietan *xardoki bagineza* entzunik gaude 1982an — / *baguindeçako* (428), *bacindeçaco* (418)

Ondoko Garaziko Ezterenzubin *gindezake* dakar EHHA-k eta *edun*-en iraganean *gindien* ‘genuen’ & *ginien*.

7.3.3.3.4.4. Eskualde zabalean, iraganeko *edun*-en, Nor Nork saileko pluraletan lehen eta bigarren pertsona subjektuen analogiaz *n* etorri da singularreko lehen eta bigarren pertsona subjektuetara. Hona perpaus alde bat erakusgarri:

bi neguz seroren etxen eta gero berze bi negu pastu nintien dendari baten etxen (Beh)

ordian joiten nintiin bi... eta exur horiek, lehen aldian etzuten haimeste miⁿ iten (Beh)

Osagarri zuzena singularra dutenetan ere gertatzen da zuketan; eman dezagun, *gintzin* adizkiak singularra du osagarria eta ez da harritzeko *gintzin* → *nintzin* analogiaren norabidea gertatzea:

hamabi urthetan eskola utzi nintzin, Ostankoan biginien eskola (Ost)

nik banintzin pharte at hartuik (Ost)

Marxuta etzü hürrün, bena han enintzin ikusi (Mar)

guk egintzin laborantxaik, e, aita autza nintzin, ta geo ostatia bagintzin, ez gintzün hen egoiten, e, plazan (Gab)

ta aita zenak ... ikhusten tzin denbora, biziki, ordükoz, denbora biziki nekhez izein tzela, maleruski galdu nintzin gazte-gazteik (Arbo)

enintzin ddau[ʒ]e ikhasi (Arbo)

nik otoa banintzin ono (Arbo)

aReba at bezik enintzin (Laph)

Osagarri zuzena plurala denean ere hala-hala gertatzen da:

nik aita eta ama nintzin hen ta beste xaharrik etzüün (Arrü)

nik hoitasei urthe nintzin aita zena galdu zelaik kanzer batetai (Arbo)

Laphizketakoa da eztabadako *nintuen*. Irizarren 2002a bilduman Behaizen *nitien* & *nintien* ‘nituen’, *hitien* & *hintien* ‘hituen’, *nitian* & *nintian* —“nik haiek” toka— ageri dira eta Gabadin ere honela da: *nintien* ‘nituen’ eta *nintian* & *nintinan* & *nintzin* alokutiboan; Zohotan, berriz, ‘nituen’ zuketan *nintzin* & *nitizin* egiten da.

Oztibarren ere pluraleko subjektuetarik analogiaz etorririk, iraganeko tempusean *n* ageri da Nor Nork sailean lehen eta bigarren pertsona singularreko subjektuetan:

nintien ‘nituen’ (Zib, Donaix), *hintien* ‘hituen’ (Zib); *oitabi urthe nintthielaik* (Larz)

7.3.3.3.4.5. Lapurdi barrenean (Uztaritze, Larresoro, Milafranga, Itsasu), Hazparnealdean, Aturrialdeko Bardoze nahiz Beskoitzen eta Baxenabarreko mendebalean (Izt, Aiherra, Hel, Arm) *n* berriak kokatu dira datiboa duten iraganeko adizkietan: *zautan* ‘zidan’ → *zauntan* edo *zakon* ‘zion = zitzaion’ → *zankon*, *ginakon* → *ginankon* gisako berrikuntzez dihardugu, dela Nor Nori, dela Nor Nori Nork aditz sailetan. Ez dakigu berrikuntza horren ispilua *ginduen* & *zinduen* —*edun*-en iraganeko berezko *-nd-* horrek— eragina den, ala berriak diruditen *gindakon* & *zindakon* edo *gindauden* & *zindauden* erako adizkiek eskaini ote duten, baina ez litzateke ezina.

Berrikuntza honen oihartzuna sumatu dugu Amiküzen Arrüetako *zaunkütelaik* ‘zigutelarik’ eta Behauzeko *jin tzauntan* ‘zitzaidan’ *ba adina senarra jin artian* adizkietan,¹⁴⁶ baina ibarreko beste herrietan ez dugu beste adibiderik entzun. Arrüetako bereko beste adibide batean *iten bitzauküiten* entzun dugu, *n* berririk gabe. Arberoako gure datuetan ez da ageri Hazparne aldean ibiltzen den berrikuntza hau: *nakon*, *zakoten*, *erten* (*t*)*zautan* (Arm); *zekon* & *zakon*, *zakoten*, *zaukuten*, *zaukutean* ‘zigutean’, *zinautan* ‘zenidan’; *itsusi zautan* ‘itsusi egiten zitzaidan’ (Meh)—; halaz ere, EHHA-k badakartza era honetako etsenpluak Arberoa eskualdean; ikus gaiaz 7.1.3. §.

7.3.3.3.4.6. Nor Nori saileko *izan* aditzaren “hura guri” adizki alokutiboan da Amiküzeko Zohotan bildu dugun *zakiuk* ‘zaiguk’:

ta uai Domix̄entik heldü zakiuk hunat

146 Adieraz bedi Behauzeko lekuko honen aita-amak arberoarrak zirela.

Berebat *zaukiuk*, *zaukiun*, *zakiuzü* adizki alokutiboak dakartza Behaizen Irizarrek (2002a); bildu den horien kide neutroa *zaukiu* ‘zaigu’ da herrian.

Ez dakigu *zaukiu* ‘zauku’ adizki neutro honetan *i* edo *ki* hori datiboko jatorrizko *gi* → *ki* morfema zaharra den, balizko *zau-ki-gu* aldaeran egungo egunak arte iraun duena, ala aldaera alokutiboan *dative flag*-aren analogiaz etorri den *i* hori *ku* morfema datiboaren erdira, ala hiztunek *ki* hori adizki singularreko ataltzat jo ote duten, *z-ki* ustezko pluralgilean *z* pluraleko morfematzat identifikaturik...

Nor Nori Nork-en ere berdin gertatzen da; hona Gabadin bildu ditugun bi adibide:

biziki inpresione handia in tʒakiüzün ba... zatazün
hak biziki khantü eakütsi zakiüzün, eskualdün khantü-ta

Bestalde, Nor Nori Nork sailean *zaukiun* ‘zigun’ edo *zinaukiun* ‘zenigun’ aldaerak ditugu Behaizen, *zinauzkiun* ‘zenizkigun’ izanik plurala (Irizar 2002a).

Gabadin *dauküte* ‘digute’ & *daukiute* aldaerak egiten dira neutroan eta alokutiboan *dauküie* ‘zigutek’ & *daukiuie*; “hark guri” *daukuk* ‘ziguk’ & *daukiuk* da toka. Aniztasuna nabarmena da alokutiboan Gabadin (Irizar 2002a):

zauküian ‘ziguan’ & *zauküian* & *zaukiukan*

7.3.3.3.4.7. Oraineko Nor Nori aditzen hasieran *d-* ager daiteke euskaraz *z-* beharrea; Bizkaiko eskualde batzuetan horrela da, eman dezagun Plentzia edo Mungia gunetarik urrun ez den Jataben: *dako* ‘zaio’, *daku* ‘zaigu’, *datzu* ‘zaizu’ erakoak dakartza Gamindek 1985ean; halaxe dakar Mungian *EHHA*-k ere:

San Juan esaten dako emen su orreri

Gure eskualdetik arras urrundu gabe honelakoxeak ditugu Hazparne alderdian Artolak bildurik (Irizar 1999b):

zaut & *daut*, *zako* & *dako*, *zait* & *dauzkit* & *zauzkit*, *zazko*, baina ez dakar **“dazko” aldaerarik.

Amiküzeko eskualdean ez dugu *d-* hori entzun, adibide guztietan *z-* agertu zaigu.

7.3.3.5. Pluralgileak

7.3.3.5.1. Osagarri plurala duten aldetik *it* pluralgilea dakarten *edun*-en lehen eta bigarren pertsonako aditzei analogiaz ζ bigarren pluralgile bat erantsi zaie Ipar Euskal Herriko eskualde batean baino gehiagotan: adizki berera bildu dira *it* eta ζ morfemak. Nafarroa Behereko iparraldean indar handia du bilakabide honek eta halaxe gertatzen da Amiküzen ere, hurrenaren adibideok lekuko:

ta geo uai mendiak ‘mendeak’ *ekharr* *bitiztu tresnak oro khanbiatu*, *arrunt... khanbiatu bita mendia arras* (Ora)

uai d'atziak bitiztut ‘baititut’ (Amo)

kaxetak ‘pastillak’ *e beitzitut* (Amo)

uaikoen manerak e bultaka buru berotze ederrik emaiten beitzitu ‘baititu’ *gazteak etxen* (Amo)

ahatziak beitzitu ‘baititugu’ *re, ezpeit'a uaikoak horiek e* (Amo)

semiak haziak iten bitiztüt bethi (Zoho)

behiak han bitiztüt, bitiztütü ta lehen e han bitzien, ordian intzaurtze at bazen han (Olh)

Irizarren arabera Behauze, Gabadi edo Zohotan *diztüt* ‘ditut’ ibiltzen da lehen pertsonan eta Arrüetan *tüt & tütüt*. Domintxainen *dütüt & duzt*. Oragarrekoak dira *gitu & gituztu* ‘gaitu’, *tut & diztut* ‘ditut’, *tu & ditu & diztu* ‘ditu’. Berezixeagoa da *hiüt*-ekin batera Arrüetan ibiltzen den *hiüt* ‘haut’ itxuraz analogikoa. Osagarri zuzena *gu* denean, iraganeko aldaeretan, Behauzeko “hik gu” *gintuzkan* ‘gintuan’ aldaeran pluralgile berria bigarren pertsona subjektuaren morfemaren aitzinean kokaturik dago; berebat, Gabadin “hik gu” *gintuzkan & gintukan* ‘gintuan’ ibiltzen da.

Gertakaria ez da eskusiboa, Amiküzetik landa ere honelako adibideak ditugu, errate batera Landibarren eta Lapurdiko Aturrialdean. Beskoitzen *bititut & bitiuzt* edota *tuk & tuzk* ‘dituk’ erak ageri dira. Zuberoako ipar-mendebalean ere bildu dira honelako aldaerak, errate batera Oihergin eta Pagolan. Ez dakiguna da Artolak Larrainen 1999an bildu *egín düütütádan gáznak óro* erako adibideak eskualde horretan ohikoak ote diren (Irizar 2002b: 244).

Arberatzen Nor Nork sailean *edun*-en “haiek zu” jokatzearan lekukoak ζ gabe egin duela ohartu gara: *etzü enteresatia re zütaz, baztertzen tzütete* ‘zaituzte’.

Landibarren ere Nor Nork sailean *edun*-en osagarria plurala denean *izt* pluralgile analogikoa ager daiteke:

sukriak denak arranjatzen bitiztu ‘baititu’ (Lan)

Oztibarren ez da *z* pluralgilea *edun*-en ageri, baina **edin*-en Nor pluralean bai:

eztizten ihaust ‘ez daitezen iraus’ (Hoz)

freska zizten ‘freska zitezen’ (Jut)

7.3.3.3.5.2. Analogiaz edo, *izan*-en bigarren pertsona pluraleko aditzera *z* berri bat sartu dateke hondarreko mendeetan Baxenabarren; eman dezagun, 1782ko *Pratica* itzulpenean ohiko adizkia baliatu zen oraineko tempusean, *cirete* (219) eta iraganekoan *etcinetena* (177) etsenplutik erator dezakegun “zineten”.

Egun, ordea, Baxenabarren ohikoa da *zizte* aldaera *izan*-en oraineko bigarren pertsona pluralean eta halaxe da gure eskualde Amiküzten ere:

jiten aal tzizte (Ora)

zein'tzizte xaharrenak? (Ora)

zinez ziiik biak martellu berak joa zizte (Behau)

eta erran nakon “oai hor ziiizte, aski duzie hor berean egoitia” (Behau)

ziek Españan ono goiti ai zizte, ono (Lab)

uai libertitez ez ai zizte lanian (Zoho)¹⁴⁷

Iraganean *zinezten* bildu genuen 1985ean Oragarren —*eta ziek harritiak zinezten Frantzia holakoa zela?*—, eta halaxe dakar Irizarrek Arrüeta-Sarrikota, Donapaleu, Lohitzüene, Bardoze eta bertako Barta auzoan ere.

Alta, *zindezten* dakar Oragarren eta Bithiriñan; cf. *zinizten* (Behau / Dom, Olh) eta *zindizten* (Zoho); 7.3.3.3.4.2. §-ko gertakari bera dirudi.

Osoki analogikoa eta berria da *zizten* ‘zineten’ (Donap / Dom, Etx).

Berria da **edin* aditzari dagokion *dizten* ‘daitezen’ ere (Dom, EHHA).

7.3.3.3.5.3. Euskal Herriko eskualde jarraikor eta hedadura handikoan berrikuntza gertatu da **ezan* aditzaren Nor Nork aldaeretan, subjektua bigarren pertsona denean bederen; oro har aginte aditzetan gertatu da, baina Nafarroa Garaiko eskualde batzuetan baldintzaren protasiko aditzetan ere agitu da.

Berrikuntza pluralgilearen aldaketan datza: *it* → *zki* izatera iragan da Nor Nork-en, osagarri datiboan duten **ezan*-en aldaera *zki*-dunek lagundu dute aldaketa, Nor Nori Nork osagarri pluraleko *errazquiucu* (c. 1740: 17) erakoek akuilatu dute berrikuntza; eman ditzagun adibide batzuk:

147 Irizarrek 2002a bilduman *zizte* dakar Zohotan.

itzazu → (e)(za)zkizu *ditzagula* → (de)(za)zkigula
balitza → balezki *bitza* → bezki (Nafarroa Garaian)

Zuberoan ez bezala, Baxenabarreko alderdi gehienetan pluraleko *-zki-* morfema dago **ezan* aditzaren Nor Nork sailean, ez *-it-*. Iduri luke berrikuntza hau ez dela zaharra, lehen idazkietan ez da ageri: Beltran Etxauzek 1584ko gutunean *ene excusac, othoy, aytari eta amari ygor yçaçu dakar* (TAV, 155) eta Oztibarrekotzat jotzen dugun 1782ko *Alphonsa Rodriguez* edo *Pratica* itzulpenean ere sistema zaharra dago: *itzazu, zatzu, itzazie* eta *zatzie* agintezkoak dakartza; ordea, sistema berria baliatzen da egun Oztibarren.

Nafarroa Garaiko eskualde anitzetan ere ageri da berrikuntza hau: Estelleriko Gesalaztik hasirik, Goñerrin, Oltza zendean, Izarbeibarren edo Iruñerriko Ezkabarten gandi, Eguesibar, Erroibar eta Artzibar barna Aezkoa eta Zaraitzuraino. EHHA-ren arabera, Ipar Euskal Herrian Zuberoan eta Lapurdi gehienean ez da gertatzen, baina literaturan Xurio azkaindar eta Donibane-Lohizuneko *erretorac* baditu adibideak beste sailekoekin nahaska *Imitacionea*-ren 1788ko edizioan: *çure graciac isuratçu ene gaiñerat* (1978: 270) vs. *harzquitçu* (270), *bihurzquitçu* (300). Egungo mintzoan ezaugarria Lapurdi barreneko alderdian ageri da, Makea, Hazparne, Itsasu eskualdean eta baita Bardozen ere. Hazparnen ez dakigu XVIII. mendean gauzak nola ziren: <yunta izac>-en adizkia 'itzak' baldin bada (Padilla 2011: 220), uler daiteke berrikuntza garatu gabe zegoela oraino, edo nagusitu gabe bederen, baina XIX.erako berrikuntza ageri da: cf. Bonaparteren Hazparneko katiximako *errazkitçu* (224).

Baxenabarreko saihetsean, Baigorriin, ez da ezaugarri berri hau ageri, baina erdigunean eta gainerateko eskualdeetan ibiltzen da.

Arberoan honako etsenpluak bildu ditugu:

etzazkitziela erra 'ez ditzazuela erre' (Arm); *ekharzkik hunat* (Meh)

Oztibarren adibideok dakartza Videgainek (1989):

harzkik & hazkik 'har itzak' (Ibarro); *ezazkik* 'ezar itzak' (Donaix); *errain zautzun lehenik edo zain'zkik edo kasu'mak* (Hoz); *in'zkik bi kakhotx edo bost edo* (Jut)

Amiküzen ez dugu ezaugarri honen berri handirik, baina aitor dezakegunez ageri da; Oztibarrera hurbil den Uhartehirin pluralean *ekhaatzu* erakoen bidez ematen dira zuka aginduak, baina toka *ekhar zkik* era berriztatua ibiltzen da eta Martxüetan *ekharzkik hunat, intzkitzie, ekharzkiak, ekhar netzak* eta *ekhar nezazkik* aldaerak entzun ditugu; Altzümartan ere era bereko *ekhaazkik othoi*, baina Gabadin beste era batekoak entzun ditugu: *emaatzik, biltzaatzik* eta

ekhartzik. Domintxainen ere era honexetakoak ageri dira (EHHA): *gitak sarra-tzik, jelgi zatzie*

EHHA egitasmoko 91150. galderan **ezan*-en pluralak bildu dira; agintzekoetan Amiküzen ez da (*eza*)*zkizu* ‘itzazu’ aditzen erakorik ageri; ondoko Bardozen eta Izturitzen bai, baita Landibarren eta Oztibarreko herrietan ere; aldiz, Pagolan, Domintxainen eta Zuberoako herrietan ez. Amiküzeko herrietan erantzunik gabe daude Arrüeta-Sarrikota eta Garrüze; hona, aldiz, Arboti-Zohotako erantzun pluralak:

idekatzü, idekizatzü, jozatzü, jantzatzü

Lekukoari “zkitzu” proposatu zaio eta ezetz erantzun du. Oragarreko XIX. mende bukaerako ipuin batean *har zatzu* ageri da (Cerquand 1985: 94).

7.3.3.3.5.4. Beharbada *it* marka duten adizkietara *z* pluralgile pleonastikoa lerratu izanak eragin duke irudikapen berri batez, hiztunek pluralak sortzeko *zt* erabiltzea, baina diakroniaren aldetik *z* + hirugarren pertsona pluraleko datiboaren *te* morfema (< *-*de*) dela ere pentsa liteke: 1782ko *Pratica* itzulpeneko Nor Nori Nork saileko oraineko “hark haiei” *derezte* ‘dizkie’ edo iraganeko “hark haiei” *zerezten* ‘zizkien’ erako adizkiak ditugu, non pluralgilea *z* litzatekeen eta *t* hori datibo pluraleko *te* morfemaren hasiera.

Nor Nori aditz sailean subjektua “haiek” plurala denean, eta Nor Nori Nork sailean osagarri plurala “haiek” denean, *z* + *te* datibo pluraleko morfema ageri da: cf. Arrüetako *zei* ‘zaie’ vs. *zeztei* ‘zaizkie’ eta *dei* ‘die’ vs. *deztei* ‘dizkie’ (Irizar 2002a).

Nor Nori Nork-en “nik hiri” maskulinoa *deat* da Arrüetan, baina femeninoa *daunat* eta “zuri” neutroa *dauzüit* (Irizar 2002a). Pluralean “nik hiri” *dauzkiat* da, baina *dezteat* aldaera ere bada, eta beraz, irudi luke bi pluralgile balia daitezkeela: *zki* nahiz *z*+*t*; aldiz, “zuri” eta “hiri” femeninoa *dauzkitzüit* & *dauzkinat* egiten dira, *zki* morfema baliaturik. Behausten ere maskulinoan “nik hiri” *dauzkiat* & *dezteat* ditugu, baina Oragarren *dazteat* baizik ez; Zohotan *dezteat*; Donapaleun iraganean *neztetzüin* ‘nizkien’ zuketan. Gabadin maskulinoan *dezteat* da, baina femeninoan *deztenat* & *dauzkinat*. Zohotan *nauzkikan* & *neztean* eta *nauzkinan* & *neztenan*. Ez dakigu “nik hiri” *deat* horretan hiperzuzenketa ote dagoen, hots, *diat* → *deat*; eta pluralgilea itsastean *dezteat* gertatu da, pluraleko morfema *zt* balitz bezala edo.

7.3.3.3.5.5. Morfema datiboa duen adizki batean txistukaririk ez denean, errate batera datibo morfema *gu* denean, *z* pluralgilea erabil daiteke, eman dezagun Martxüetako *eztazküie* ‘ez dizkigute’ adibideko “dazküie” horretako *z*; berebat, “hi”-ren *na* edo *ka* delako, fonema txistukaririk gabea, *-zki*- pluralgilea

erabil daiteke ere: *zauzkinan* & *zauzkikan* (Arrü) in Irizar (2002a), eta jarraian ere iturri bereko adizkiak aurkeztuko ditugu.

Plurala egitean bigarren pertsona singularraren morfema txistukaria $z \rightarrow tz$ tinka daiteke eta singularra *zauzün* 'zitzaizun' izanik, plurala *zautziün* 'zitzaizkizun' egin (Arrü). Dinamika honek pluralgilea egiteko era bat baino gehiago eragin du Ipar Euskal Herrian eta berdin Amiküzén ere; ondorioz, eginkizun bereko bi adizki entzun daitezke usu: *zautziün* 'zitzaizkizun' egonik ere, *zki* morfema ere har dezake eta *zauzkitziün* 'zitzaizkizun' egin (Arrü). Jokabide bikoitz honetan adizki batean bi pluralgile daudela pentsa lezake filologoak: *zki* eta *tz* edo z afrikatua, baina afrikazio horren historia xeheki ezagutu beharko litzateke honela mintzatu ahal izateko; cf. 7.3.3.3.3.8. §. Martxüetan bildu dugun zuketako *zazkiütziü* 'zaizkigu' adizkiaren kasua litzateke.

So egin diezaiegun orain Irizarren datu hauei: Oragarren Nor Nori-n singularrean *zauzu* dago, baina pluralean *zautzu* & *zauzkitzu*; "nik zuri" *dauzut*, baina pluralean *dauzkitzut*. Iraganean Nor Nori Nork-en singularrean *nauzun* dago Behauzen, baina pluralean *nautzun* & *nauzkitzun* 'nizkizun'.

Berebat, "hura zuei" *zauzite* da orainean, baina subjektua plurala izanik, "haiek zuei" *zautzite* bilakatzen da eta iraganean ere berdin: *zauziten* 'zitzaizuen' vs *zautziten* & *zauzkitziten* 'zitzaizkizuen' (Arrü-Sar). Zuketakoak dira, bestalde, Nor Nori saileko *zakozü* 'zaio' vs *zazkotziü* 'zaizkio' adizkiak (Arrü-Sar). Gabadin *gindauzkitzun* & *gindautzun* 'genizkizun'. Domintxainen *nautziten* & *nauzkitziten* 'nizkizuen'.

$z \rightarrow tz$ tinkatze hau beharbada hitzunaren aldetik pluralarekin identifikatu ahal ukan denez, adizkian *zki* pluralgilea izanik ere, osagarria plurala denean, bigarren pertsonaren subjektu-morfema txistukaria ere afrikaturik ageri da: "zuk eni" *datazu* 'didazu' dago Oragarren, baina pluralean "zuk eni" *daztatzu* 'dizkidazu'.

Eta berdin beste pertsonetan ere: Nor Nork saileko "zuek gu" 'gaituzue' adizkia *gitiützie* dakar Irizarrek Arrüeta-Sarrikotan (2002a).

7.3.3.4. Aditz laguntzaileak

7.3.3.4.1. Gertakari fonikoak

Aditzaren morfologiak adieraz bedi adizki laguntzaileen sailak franko aldakortasun ageri duela Baxenabarren, izan ere, aldaketa fonikoen ondorioz morfema ugarik bi ahoskera ditu eta morfema bat kokagune bat baino gehia-

gotan joan daiteke adizkian edo litekeena da bestela, morfema hori batere ez agertzea ere; honen guztiaren emaitza aldakortasuna da.

7.3.3.4.1.1. Ipar Euskal Herri barreneko eta ekialdeko aditz laguntzaileetan lehen idazkietakoak eta beraz zaharrak dira *niz*, *hiz* monoptongazioak Nor aditz sailean eta *nu*, *hu*, *gitu*, *zitu* soiltzeak Nor Nork-en. Ondotik, *niz* eta *hiz* aldaeren analogiaz sortu dira *gira*, *zira* eta *zirate* pluralak. Adizkiok hedadura hartu zuten, Hego Euskal Herriko Zaraitzu eta Aezkoa ibarretaraino heldu baitira.

Amiküzeko Laphizketan *niz* eta *naiz* agertu zaizkigu, baina eragin literarioa egon behar du *naiz* horren gibelean; monoptongatuak dira Amiküzeko ohiko aldaerak:

niz (Arm, Meh / Ora, Behau, Bith, Lab, Gam, Zoho, Laph / Olh, Sarkp, Pag)
hiz (Arm / Ora, Amo, Lab, Zoho / Oih, Urd)
gira (Arm, Meh / Mar, Lab, Laph / Dom, Etx)¹⁴⁸
zira (Arm / Ora, Uha / Artie)
tziztea? ‘ote zarete?’ (Ora)
nuk (Ora) & *enuk* (Ora)
nu (Behau)
hüte (Ame)

Orokorrak dira Amiküzen Nor Nork saileko *hu* / *gitu* / *zitu* adizki monoptongatuak ere; errate batera, *hü* eta *zitü* ditugu Behauzen, eta *hu*, *gitu* eta *zitu* Oragarren (Irizar 2002a).

Oztibarren ere monoptongazioa jasan dute *niz* ‘naiz’, *hiz* ‘haiz’, *nu* ‘nau’ eta *hu* ‘hau’ adizki laguntzaileek.

7.3.3.4.1.2. Ez dira egungoak Baxenabarren adizkien hasierako morfema higatuak; ia-ia aferesi dei ditzakegu, baina ez dira zinezko aferesiak, aditz nagusiaren ondoko atalaren galerak dira. Beñat Etxepareren 1545eko lanekoak dira *behar tugu*, *afer tuçu* edo *handi tuçu* (1980: 120, 44 eta 188). Inguruneak gertakaria errazten duenean, aise galtzen dira *di-* eta *du-* Amiküzen: Behauzeko Adolf Berdecok *aitortzen zit* dakar 1913an Trebitschen emaitzetan (65). Guk bildu etsenplu sorta bat dakargu jarraian, lehenik Nor sailekoak emanik:

Baiunan tzü ‘düzü = da’ (Gam); *etzu konparatzen ahal* ‘ez duzu = ez da’ (Mar); *gauzak khario tzü* ‘dituzu = dira’ (Mar); iduria da ondoko pasarteko *juan tzu* adibidea ere, baina ez dakigu xuxen singularra ala plurala den: *ba*,

148 Aipagarri dira Lapurdiko oihartzuna dakarten Bardozeko *gie* ‘gara’ eta *bitie* ‘baitira’ (EHHA).

voilà, *uai hementik e, juan tzu, biziki lanian ari uzu eta Baiunan eta ingürü betan eta hola, bena Paueat eta eztuk biziki ez, ez...* (Mar); *pa[ž]atü zü gure denbora* (Gam)

Nor Nork sailekoak dira beste hauek:

erraiten tziit ‘dizit = dut’ (Mar); *nik merari etzit in* (Gam); *batzit* ‘ditizit = ditut’ (Bith); *heskualdunak Pai[ž]en arrakasta gaitza zi* (Mar); *hor tzi* ‘dizi = du’ (Mar, Gam); *behar tzi* (Gam); *ikusi tiau lehiü ederrak e ba* ‘ditiagu’ (Mar); *ikhasten tzie* ‘dizie = dute’ (Mar)

Adibide laburtu horiek ditugu Amiküzen, baina beste baldintza batzuetan ez da laburdurarik ageri:

ai düzü (Gam), *hemen duzu* (Mar), *heldu duzu* (Mar) / *deitzen duzie* (Mar)

Berebat, Nor Nori Nork-en eraikitzen den nokako Nor Nork-en *tinat* & *ditinat* erako pareak ditugu Arrüetan; cf. Irizar (2002a).

7.3.3.4.1.3. Baxenabarren ohi bezala, adizki laguntzailean bokal arteko *t* bat, bietarik lehena, disimilazioz galdu da:

zuzten ‘zituzten’ (Arm, Meh / Ora, Amo, Bith, Lab) & *zützen* (Mar, Sor / Olh) & *bitzüzten* (Arbe) & *züztean* ‘zitiztean’ (Zoho); cf. *ziuztet* ‘zaituztet’, Irizarrek Arrüetan bildurik (2002a)

Oztibarren ere adizki laguntzailean bi herskari horzkari hurbil izanik baten galera gerta daiteke:

tiuzte ‘dituzte’ (Larz) & *duzte* ‘dituzte’ (Arh, Donaix, Ibarre, Hoz, Ibarro, Jut, Larz); *zuztet* ‘zaituztet’ (Zib); cf. *ziuztet* Garazi ibarreko Suhuskune herrian

Aldiz, bi horzkariekin Oztibarren *zituzte* ‘zaituzte’ osoagoa dugu Donaix-tin; bestalde, *t-k* sekuentzian *t* galdu da: *duzke* ‘dituzke’ (Jut).

Herskari ahoskabeak ahoskune berekoak ez direnean ere gerta daiteke disimilazioa Amiküzen:

eztainat ‘eztakinat’ *gau berian ala beste gau batez* (Ora)
eztait ‘eztakit’ *ze pasatu zen* (Gam)
eztaizut (Ora)

Dena den, aldaera osoa ere ibiltzen da:

eztakinat (Ora), *eztakit* (Mar)

Zuketan *eztaizut* ‘ez dakizut’ (Amo) aipa daiteke.

7.3.3.4.1.4. Metatesi antzeko zerbait sumatu dugu *-n-z* bukatzen diren aditz batzuen etorkizuneko forman. Zohotan entzun dugu *gio juiteinz hatau* ‘gero juiten hiz haratago’ adibidean, non *juiten hiz* → *juiteinz* baitirudi gertatu dela. Baita *iteintza?* ere (Zoho) “iten ‘egiten’ hiza?” adierazteko. Arrüeta-Sarrikotan ere honela dakar EHHA atlasak: *intharroztéinz* (17100).

Oztibarren ere ageri da metatesi hau: *jiintz* ‘jinen hiz’ (Ibarro); cf. XIX. mendeko *izaintz punitia* Larzabalen Bourciezek bildurik (Aurrekoetxea & Videgain 2004: 163).

7.3.3.4.1.5. *izan* aditzeko lehen pertsona singularrak erlatiboko eta konpletiboko edo *-la* oinarria duten bestelako atzizkiak hartzean *-an* eta *-ala* gertatzen da: *nizan* dakar Trebitsch-ek 1913an Amorozen bizi den bardoztar batengandik eta *nizan* hori bera bildu dugu guk (Arm / / Sarkp, Pag). Bestalde, *nizala* (Behau), *nizalakoan* (Zoho) eta *nizalaik* (Meh / Ora, Bith, Gam) aldaerak ere entzun ditugu.

7.3.3.4.1.6. Tokako adizkietan *ta-an* → *te-an* disimilazioa dirudi gertatzen dela Amiküzen, Arrüetako aldaerak lekuko; cf. Irizar (2002a): *zatan* ‘zitzaidan’ eta *zaztan* ‘zitzaizkidan’ adizki neutroak dira, baina tokako *zatan* & *zatean* ‘zitzaidaan’ eta *zaztan* & *zaztean* ‘zitzaizkidaan’ bikoitzek erakusten dute. Behauzen ere adizki alokutiboan *e-dun* nahiz *e* gabeko adibideak daude: *zatan* ‘zidan’ neutroa da, baina toka *zatean* ‘zidaan’ nahiz *zatan* ibiltzen dira.

7.3.3.4.1.7. Arestiko gertakaria oroitarazten digu beste honek: hiketan *dakoat* ‘zioat’ nahiz *dakat* aldaerak daude (Arrü); cf. Irizar (2002a); *dakat* horretan bokal fusioa gertatu dateke, hirugarren pertsona singularreko datibo morfemaren atal bokalikoa lausotu zaigu.

Oztibarren datiboaren agerpena islatzen duen *i* morfemaren ordain *ka* ere ager daiteke edo bestela bai *i* eta bai *ka*, biak ager daitezke:

niakoan (Arh), *nakoian* (Azm)

nakokan (Bun), *niakokan* (Bun)

7.3.3.4.1.8. “*behar + edun*” lokuzioan fusioa gertatzen da eta baita sinkopa zenbait ere; hona Amiküzeko eta ondoko eskualdeetako adibide sorta bat:

beha’un (Bith) / *beha’uk* (Amo) / *beha’uzu* (Bith, Arrü, Mar) & *beha’uzü* (Mar)

Lehen pertsonan ere bai: *beha'uta?* (Olh) & *beha'utan* (Sarkp).

7.3.3.4.1.9. Iduria da **ezan*-en gertatzen dena ere:

nahi balima'uk in, izak 'egin ezak' (Bith)

7.3.3.4.2. Oharrak aditz laguntzaile batzuez

7.3.3.4.2.1. Amiküzeko adizki batzuetan emaitza bera dago subjektua hirugarren pertsona singularra eta plurala denean; Irizarren datuak ditugu oinarri (2002a):

"hark zuei" & "haiek zuei" *dauzite* (Arrü) eta "hark haiei" & "haiek haiei" *dei* (Arrü)

"hark haiei" osagarri plurala *zeztein* & *zeizten* (Zoho) eta "haiek haiei" *zeztein* (Zoho)

"hark haiei" *zezteian* 'zizkiean' eta "haiek haiei" *zezteian* 'zizkietean' (Zoho)

7.3.3.4.2.2. Hiketako iraganean *-n* duten eta ez duten adizkiak ditugu Domintxainen, Zuberoan ohikoa den jokabidea:

Nor Nork-en "hark ni" toka *nindia* & *nindian*, noka *nindina* & *nindinan* eta zuketan *nintzi* & *nintzin*; "nik haiek" *nintian* & *nitia* & *nitian*

Nor Nori Nork-en: *nauzü* & *nauziün* 'nizun'; berebat, "nik hura" zuketan iraganean *nintzi* & *nintzin* da; ez dakigu zuketako iraganeko aldaerak inkestagintzak eragin ote dituen

7.3.3.4.2.3. Nor Nori Nork-en **eradun* oinarriaren *u* duten eta ez duten adizkiak ditugu Amiküzen; eman dezagun, *u*-dunak dira Arrüetan bildu ditugun *bitzauküiten* 'baitziguten' edo *sinetsaazi auküzie* 'digute' zuketan, berdin Arberatzeko *tzauküziün* 'zigun'; aldiz, *u* gabea da Arberatzeko *zaküziün* 'ziguten' eta honelakoak dira Irizarrek Domintxainen dakartzanak:

dakü, daküzü, dakuzie, dakute

Zohotan, berriz, bikoiztasuna dago:

"haiek eni" *daztate* & *dauztate* 'dizkidate', "zuk eni" iraganean *zindatan* & *zindautan*, "hark eni" *zatan* & *zautan*, "haiek eni" *zataten* & *zautaten* (Irizar 2002a)

Oztibarren **eradun* oinarria baliatzen da adizki triperptsonaletan eta haren erroko *u* ager daiteke ala ez:

diauzkuk ‘zizkiguk’ (Zib), *dauzkiuk* ‘zizkiguk’ (Arh)

Aldiz, *dazkiauk* ‘zizkiguk’ (Jut) eta *dizkiauk* ‘zizkiguk’ (Arh, Zib, Jut, Donaix, Bun, Hoz, Azm) adizkietan iduri luke *u < gu* morfema dagoela.

7.3.3.4.2.4. **edin* adizkien oraineko, iraganeko nahiz hipotetikoko ahaleko sailean eta baldintzaren ondorio hipotetikoan baliatzen diren adizkien bokale-tan eskualdeko eredia ageri zaigu Amiküzzen, *e - e* eredia deitu duguna. Hona etsenpluak:

Lüküzzen *leteke* ‘liteke’ ageri da eta baita iraganeko adibide *phestak zezteken segürra han* ere

Amendüzzen, berriz, *uai eneteke kapable* eta *zakhur batek bizpahiriü hil ta han anbalatü zetekenez* ‘zatekeenez’ perpausak entzun ditugu; alta, *zeteke-nez* horretan *izan* aditza dagoela dirudi

Arbotin *enetekezü* eta Donapaleun *letekela* etsenpluak bildu ditugu

Laphizketan *izan deteke*, *behar leteke* eta *baleteke*; luzexkoagoko beste bi hauek ere bai:

au contraire, *behar leteke egin aniz gehiago hori negüko... eletezke hoin eta borthitzak*

Amiküzeko Gabadira ezkondu pagolar batek *erran leteke* aldaera eman du eta Berroetan *uai beno geiho beitzeken seürrenik* entzun dugu, non *zeken* aldaera honek *zeteken*-en laburdura izateko itxura duen

Ikusten dugunez, herri hauetan entzun ditugun adibideetan *te* eta *ke* morfemak ageri dira eta adizki hipotetikoak, iraganekoak eta orainekoak; lehen pertsonako *eneteke* hori ez dakigu xuxen orainekoa ala hipotetiko den.

Aldiz, Zuberoan *ei - e* eskema ageri da: *léite* eta *léiteke* dakartza Intxauspek hirugarren pertsonan eta *néinte* lehenean (1858: 153). Izan liteke Zuberoan **edi* → *ei* sinkopa gertatu izana eta Amiküzeko sisteman **edi* → *ei* → *e* soildu izana, baina ez dugu gaiak eskatuko lukeen bezalako azterketa historiko xeherik egin. Bestalde, Euskal Herriko mendebalean *lei* ‘liteke’ ageri da eta erdialdean *leike* ‘liteke’, *egin*-en aldaerak ez baldin badira, bederen.

Itzulpenean laguntzaile ala ikuskatzaile zuberotarrak ukan zituen Leizarragak *laite* & *leite* bikoizketa dakar 1571n, baina baita *leteke* ere; gure eskualdeko tzat jotzen den 1740 inguruko katiximak adibide bat dakar: *ezpailaite ichur hura buriaren gagnera* (95) eta 1786ko argitalpenean ere *ezpailaite* ageri da (124). Orainean nagusi da *daiteke* 1740 inguruko eta 1786ko katiximetan, baina badira bi *deiteque* ere 1786koan, biak 37. orrialdean; *deiteke* hau haboro hurbiltzen zaio Amiküzeko *deteke* horri. Honelaxe dakar XIX. mendeko bigarren erdiko Bardozeke katiximak ere: *deitekezu* (279) eta *ezeitekena* (287). Zuberoan XVIII.

gizaldian Oloroeko katiximak (1706: 107), Maisterrek (j), Resseguek (1758: 32) edo *Antiokiako San Julian* pastoralak (61) *leite* dakarte. Oztibarreko Lopezen 1782ko itzulpenean bederatzia agerraldi ditu *laite* aldaerak eta *leite* behin ageri da (43), baina aurkez ditzaugun liburuko adibide guztiak (xehetasunetarako ikus Camino 2013b: 125):

ahaleko orainean *naite*, *daite*, *gaizte*, *zaizte* eta *daizte*; zuketan *dieitezu* & *dietezu*, *gieztezu* & *geistezu*, *dieistezu* & *dieiestezu* (?); *ke* dutenetan *daiteke*, *gitakeela*, *zitake*, *estaitzteke* & *ditakeen*; zuketan, berriz, *gitakezu*; hipotetikoan *laite* & *beileite*, *baikindaiste*, *ezpailaite* ‘ez bailitezke’; zuketan *lieitezu*, *ginditezu*, *lieiztezu*; *ke* morfema dutenetan *nindaitekeen*, *zintakea*, *litakeen* eta zuketan *gintakezu*; iraganean *zaitteen* ‘zitekeen’ eta zuketan *etziteitezun* ‘ez zitekeen’ eta *ke* morfema duela *zaittekeen*

Oztibarreko 1782ko itzulpenean ez da egun Amiküzen ageri zaigun *e - e* eredia ageri, nahiz zuketako adizki batzuetan *gieztezu* & *geiztezu* erako adizkiak ageri diren, baina zuketatik kanpo argi ageri da 1782ko itzulpenean ez dagoela *e - e* eredurik.

Zuberoako eredia ikusirik ez dakigu pentsa ote daitekeen zuketako adizki batzuek eragin edo lagundu duketela aldaera neutroetan *e - e* eredia gertatu izana, azken buruan hori, zuketan sortu den aldetik, *e - e* eredia arras berritatz hartzea bailitzateke; pentsa liteke ere orainekoak ez diren *leite-ke* edo *zeite-ke* erakoek berezkoa dutela *e - e* egitura eta horien analogiaz geroago gertatu direla oraineko *dete-ke* erakoak, oraineko adizki hauek ez baitute etimologikoa lehen *e* hori, non eta ez den gertatu *daite* → *deite* asimilazioa eta ondoko *deite* → *dete* soiltzea. Azterketa historiko xeherik egin gabe ez dugu frogarik baieztapenik egiteko; eta ez dugu frogarik era hauetako adizkietan den *te* morfemako *e* bokal horrek lehen silabako *ai* ala *i* asimilarazi dituela adierazi ahal izateko ere; balizko *liteke* → *leteke* —edo *litake* → *leteke*— asimilazioa duela ez aspaldi gertatu dela pentsa liteke ere, baina ez dugu inolako frogarik eta aztergai dago afera honen ibilbide historikoa; testuak aztertu beharko lirateke, datu geografiko gehiago bildu eta hipotesiak eraiki, euskararen historian barreneratu. Nolanahi ere den, Amiküze ondoko Bardozeke *deite*-erako aldaerek eta Xiberoako *leite* erakoek iradokiko lukete Amiküzeke *lete-ke* erakoetan bi *e* horiek etimologikoak direla.

Alta, Amiküzen *e - e* ereduko adizkiak ez dira bakarrak: Uharten *enintakezu jin* entzun dugu eta “enetekezu” aldaeraz galdeginik ezetz erran digute; Ostankoa *jin nintakezu* eta *jin ditekezu* entzun ditugu eta Lüküzen, berriz, *eliteke*; Altzümartan *izan liteke* eta *ziteken* aldaerak bildu ditugu. Ilharren *eltake* sinkopatua. Zuberoa mugako Domintxainen *balitekezü beste eRebolüzione aten behaRa*, *e* eta Berroetan *uai elitake in ahal izan uai*. Ibarraren mendebalean dagoen Oragarren ere *i - e* eredia entzun dugu:

*ba hiru urthetan kurritzen tzen deia, ehitu aitzin kurritzen tziteken... uai
e kurritzen da, edo invalide da?*

Honelakoa da bertako Barta auzoko eredia ere, baldintzaren ondorioan:

ben a etxen behar litake ari eskuaraz

Eta Bardozen ere berdin dakar EHHA atlasak: *eztitake konpara, izan ditakezu, gertha ditakek, enitakezu, litakexu, balitazkezu, nintazkek, hinteke, litake & elitake, litakek, litazkek, gintazkek, zintezke, bazitakezun...* Ordea, Videgain datu-biltzaileak dioenez, atlaseko Bardozeke F lekukoak ere *e - e* eredia jarraitzen du, baina ez dirudi gainerateko lekuko bardoztarrek horrela egiten dutenik. EHHA-n ikusi ditugun Bardozeke aldaeretan *te* morferma gabeko *eleke* eta *etzeken* ageri dira. Arestian ikusi dugunez, XIX. mendeko lekukotasun idatzian, Celhabe notarioaren katiximan *ei - e* ereduaren etsenpluak ditugu Bardozen: *deitekezu* (279), *ezteitekena* (287).

EHHA bilduman ere *e - e* erako nahiz *i - e* erako adibideak ageri dira gure eskualdean: Arboti-Zohotan *enentekek, neteküzü, henteke, leteke, letekezü* eta *lezteke*; bada, ordea, *zinezteke* ere; orainean ere *juan ditekek* dakar, baina baita *deteke* eta *detekezu* ere eta iraganean *zetekeen, zetekezün; ke* morfemarik gabeko *zetezün* dakar ere. Atlas honetan berean *deteke, nenteke* —zuka *nentekezü*—, *henteke, leteke* —toka *letekek*— eta *lezteke* aldaerak ageri dira ondoko herri Domintxainen eta iraganean *zetekeen*; nolahi ere den, badakar *liteke* ere.

Aldaera berezi hauez galdeginik, Oztibarreko Donaixtin dioskute ez direla baliatzen, berek *enentekek, eliteke* erakoak ibiltzen dituztela.

Nafarroa Garaiko Basaburu Txikiko Miguel Ignacio Armasa domingotar idazle labaiendarrak *al detequen* ‘ahal daitekeen’ adizkia dakar XIX. mendearen bukaeran (Lekaroz 2014: 265), baina ez dugu uste hor “deteke” dagoenik, “detteke” palatalizatua behar du izan; eman dezagun, <mate> idazten duenean *matte* ‘maite’ adierazten duela dirudi. Bestalde, forma honen idazkiko aldaeretan *dateque* “datteke” ageri da ere (263).

7.3.3.4.2.5. Nor Nori sailean *ki* morfema ageri zaigu adizkian; Amorotzen orainean *ezpeizakiu* ‘ezpaitzaigu’ entzun dugu eta Ostankoan iraganean honako etsenpluak:

*hartakotz irudi zakiuzun lehen iziki geiho hotzo zela negia
hua heldu zakiuzun ta hua ikhusten gindielaiak gu konten gintzun*

7.3.3.4.2.6. Datiboaren marka —*dative flag* deitu ohi dena, datiboaren agerpena islatzen duen *i* < **gi* morfema— gabeko adizki hirupertsonalak ageri zaizkigu Amiküzen, eman dezagun, **ezan*-en:

enezakozü galdein ‘ez niezaiokezu galde’ (Arbe)

Tokako hurranen adizkian ere eskas da:

errain dakoat ‘zioat’ *ba nik* (Ora)

Irizarren datuetan ere *i* gabeko adizkiak ditugu (2002a); *dakoat* hau bera dakar Arrüeta-Sarrikotan, Oragarren, Behauzen, Gabadin, Zohotan, Domintxainen, Donapaleun, Bithiriñan, Lohitzünen, Etxarrin eta Olhaibin.

Aldiz, datiboa hirugarren pertsona plurala denean bada *i*: *dakoie* ‘ziotek’ dakar Irizarrek Arrüeta-Sarrikotan, Oragarren, Behauzen, Gabadin, Zohotan, Domintxainen, Donapaleun, Bithiriñan, Lohitzünen eta Olhaibin.

Bardozen bildu datuetan denboraren iragana ageri da: Bonapartek morfema bikoizturik dakar: *diakoyat*, baina Artolak *dakoat*; cf. Irizar (2002a). Arberoako Donamartirin, berriz, *dakoat* eta *diakoat* dakartza Irizarrek; Aiherran *zakoiat* eta *dakoat*.

Oztibarren delako *i* datiboaren adierazpena adizkian ager daiteke, baina litekeena da ez agertzea ere; ageri denean, bi kokagunetan egon daiteke:

diazkoat (Bun) & *dizkoat* (Donaix) / *dazkoiat* (Azm)

Bestalde, *i* gabeko *dazkoat* ere bada (Arh, Jut, Zib, Bun, Hoz).

7.3.3.4.2.7. Zenbait adizki analogiko sortu dira Amiküzen:

Nor Nork osagarri singularra duten “haiek ni” *nüte*-ren edo “haiek hi” *hüte*-ren analogiaz dago “haiek zu” *züte* ‘zaituzte’ (Zoho).

Iraganean “nik hi” *hinduan* ‘hindudan’ dugu Gabadin, baina baita *huntan* ere.

Analogia dagoke Gabadiko Nor Nori Nork saileko *haztan* & *hinaztan* ‘hizkidan’ adizkian.

Analogiak *hazkon* & *hindazkon* ‘hizkion’ erako txandaketak sortu ditu Zohotan.

7.3.3.4.2.8. Amiküzen eta ingurumarian Nor Nork pluralean bi aldaera daude ‘dituzte’ adizkian: *düzte* eta *tüzte*. Guk Sarrikotan, Behauzen eta Sorhapürün entzun dugu *duzte* eta Berroetan *düzte*; EHHA-k Bardozen dakar *duzte*;

berebat, *diizte* dakar Irizarrek ere (Gab, Zoho / Dom; ikus 2002a). Hona Berroetako etsenplua:

bena mindi oitan dielaik, ümiak ukhaiten diztelaik edo, atakatzen dizketzie ba hoR

7.3.3.4.2.9. Nor Nork-en alokutiboan *nt* nahiz *nd* ager daitezke osagarri singularrean Gabadin: *gintian* ‘genian’ & *gindinan* ‘geninan’ (Irizar 2002a).

7.3.3.4.2.10. Nor Nori Nork sailean subjektua “guk” delarik berezia da Behauzen “zu” eta “zuek” datiboei gertatzen zaiena: *dizi* ‘dizugu’ nahiz ‘dizuegu’ da eta pluralean *titzi* ‘dizkizugu’ nahiz ‘dizkizuegu’ (Irizar 2002a).

7.3.3.4.3. Aditz laguntzailearen elipsia

Aditz laguntzailearen elipsiak hainbat egitura ezagun eragiten ditu Amiküzen ere; hona eskualdeko etsenplu zenbait:

eta gara hartan jendia metatia metroan: vous voulez que je vous aide ? bali[z]aen kargatzen, e, beldur binintzan ene bali[z]a hartu eta eskapatuko ziela, ni eoitene ene bali[z]aekin, non, non, ça va, ez nihuri emaiten ene bali[z]a (Ora)

mendeak hola nahizi duaikabe edo... bate ez berdin bizi jendia... hooki izaitetz, hooki bizi (Amo)

etituk bate hortako... bate juille, bate, ta juite ahal ginuzkek .. bena ez bate maite (Amo)

ezpada ontsa eldu mezako tenorea, lehenik estazioneak iten eta gio meza... ta han baskaiten eta gio grotan berriz atsaldean beste bat... oren pare at edo gehiao grotan eoitene berriz ... eta geo atseko etxeat (Amo)

bena, alaik e, bon, ez arras lehenekora erori nahi, ez alaik e oono, ez, ez (Amo)

amodioa balima zen ta hek nahi balima zuten, ze in behar tzen, aitatamek e uzten, ta ezautu tik familiak eta... (Amo)

eskolan ^enintziün bate laket, pf, ez maite (Arbe)

ba, ba, ba, lüsaarra iten gintzin, ba, ba, ba, lüsaarra frango, bai [egun oroz jaten zinuen?] ez, ez, bena maite (Arbe)

7.3.3.4.4. Aditz laguntzaileen joko aberastasuna

Egitura aberatsak era daitezke **ezan* oinarriko aditzetan datiboko morfema agertzean:

bera bizi üzü [irri]; ze nahi üzü, enezakozü galdein, e, gia! (Arbe)

7.3.4. Syntaxia

7.3.4.1. Erlatibozko perpausak

7.3.4.1.1. Orokorra da *-en* atzizkia euskara guztian erlatibozko perpausak eraikitzeke eta halaxe da Amiküzen ere:

semia, etxen den seme horrek... (Zoho)

Beste kasu batzuetan burua elipsian ageri da eta haren ordain mugatzailea edo erakusleak ageri dira:

etzakala in nik iten duana (Zoho)

ene aita, oixtian aipatzen gindien hua, ene aita zenak bi aneia galdü zützin katorzeko gerlan (Mar)

bona erten tzüten hua sinesten (Gam)

Litekeena da burua ezker gelditzea ere, baina halakoetan ez dugu muga-gabeko adibiderik aurkitu, kasu guztietan ezkerrean den burua mugaturik dago:

edo zoin gauza uaiakoek galdeiten tuztenak (Amo)

gio batzü makiñunak o'no etxeetan iilten dienak e, eosten (Arrü)

guai arnes horiekin batek berak belharrak oro iten tü, ikusten tü, batü etxeak, badira gazteak bate ezkundiak eztienak (Lab)

gure parropian, U^harte-Larribarreko parropian bada kapera at Soi-har'zako kapera deitzen dena (Sor)

7.3.4.1.2. Euskara zaharrean bezala kasu batzuetan *-enik* da erlatiboaren atzizkia, partitibo erantsirik; ikus hau 7.3.2.3.2.2. §-n ere:

badüü biziki kabale basa hemen, fuina ta horiek, ollo ta jaten dütenik, frango etxetan, makhür haundiak iten tüzte, ollo ta, gita ta, axerü ta... (Lab)

hoitan ootan bauk biziki iende lanian ai denik (Zoho)

konfirmasiione baakika zer den? haurrer, ba... ap^hezpikia eldu uk, ordian eldu zen, goai eztuk heldu geio ore, heldü zian herrietaat, ta merak errezebitü zikan, gük erreziitü ^sinian, merak zian elhekatü, emin (sic) txikan diskurra, erran tzikan bazela zeeit ju'ten etzenik ta aphezpiku hua ezpeitzen mensa, apentziaik e, hantik biziki denboa abe, konbokatzen dik aphezpiküteirat, jakiteko zer pasatzen tzen herrian (Zoho)

7.3.4.1.3. Ekialdeko Euskal Herrian, Nafarroa Garaiko ekialdeko ibar batzuk barne, “*bait* = *bit* + aditz jokatua” egiturak erlatiboko perpausa adieraz dezake; adibide ugari entzuten da Amiküzen:

baituk eskualdunak herrian berian ezpitute soportatzen abertzale izan giten (Behau)

hangoek heskualdunak... nahi bitute been familiak eta... arrahatzeman (Bith)

bauzu biziki etxe gio uai ezpeitute arrastelu bat etxen geo! (Uha)

guk bagintzin etxen lürrak arbolia beigintien ta ordian hantik ekhartzen gu^{re}haun etxetik egürra etxea (Arrü)

benä guk ukan titzi erretorrak —enfin, apeza deitzen tzu— pilotan eta musian kusi bitütüü heek, gizunak gizunekin (Mar)

xuützen ai zitielaik bazitian jendiak husten bizüzten saskiak sohallütat (Ilh)

baintian bizpalau etxe ezpizüiten aRgiik (Ilh)

herria aski pullita beita ta untsa plazatia, baitzü biziki saltzen dütenak bastitzeko, ^hortxe baiüzü lotizamendü bat lehenao phentzea bitzen, phentze at ederra (Gam)

bazüzün jendia kurritzen bitzien batetik bestera, des passeurs ... iraazteko, ba; a, ez, guk ez ginizün iten, gük ezitzi sekülan ddau[^z]ik in (Arbe)

baiüzü biziki jende hemen büria altzen ‘galtzen’ bitüite (Arbe)

Bardozen sortu eta Amorotzen bizi zen Jeanne-Marie Mendibilek —ama bardoztarra zuen eta aita oragartarra—, honela dakar Trebitschi 1913an kontatuan (Etxebarria 1994: 68):

baginuzün zortzi haur bizi, hiru hilik, eiten bitü hameka

Labetzeko hurranen esaldien sortan bi eratako erlatibozkoak ditugu; alde batetik “aditz jokatua + -en” ibiltzen dutenak eta bestalde, “*bit-* + aditz jokatua” egiten dutenak:

dependitzen dü, baitük familiak Paisen bitüzte ta hordian hek, hek heldü tuk beren haurrekin eta ez usu heldü, usu ikhusten ezüzten horiek, bauk e, familia frango, Paisen, Paisen bitüzte haurrak, horiek bee haurrekin heldü tuk eta, a, hemen Laitzen bazian frango Paisen banketan lanean ai dienak eta, hoitan

Oztibarren ere, besteak beste erlatibozko perpausetan baliatzen da *bit*:

Ithurriondoko pentzia, errekaño at bitu ondoan (Lan)

7.3.4.1.4. Erlatibozko perpausetan aditz nagusia inolako atzizkirik ez adizki laguntzailerik gabe joan daiteke gertakari bururatuetan, aditzaren eta

ondoko izen sintagmaren buruaren artean atzizkirik izan gabe; hona Zuberoako Pagolako adibide bat:

benä etsamina ez gñinizün iaiten ikhasi lekhin, voilà, uai iaiten dizie ikhasi lekhin

Baxenabarren eta Aezkoan ere ezaguna da joera hau. Hona Arberoako adibide batzuk:

hartu lekhurat emak berriz hori, hori eztiat nahi, hori kabale tzarra uk
(Meh)

gauza huna nai bauzu ian, grupa ttipika, tropa ttipika in gauza da hobena, hola; ezta hor miakuluik (Meh)

Amiküzeko etsenplu sorta bat dakargu:

uaiko mendian ezta behar xekhatu eskolatik landa behala ikhasi hua atzemaitia, hori miakulu bat da (Ora)

arraheldü zu, aman altzoan ikhasi lengoia etzu ähāzten (Ora)

etxen behar gauzak saltzen tztizien merkhatian (Ora)

uai bauzu erretretatu ^hamarraxka at ‘badira orain hamar bat erretretan direnak’ (Amo)

ordian etzuten biziki untsa artzen guk eman kontseiliak (Behau)

büülla undarrian erain hek geo ne... primaderan hek pusatiak bitzien, heekilan bazkatzen belharra jin artio (Arrü)

denak aidürü, bena pilota jelgi lekhian ezartzen, han ez da xikanatzeik
(Ame)

ükhan haekilan behar tzie egon (Arbo)

Arbotiko adibide hau EHHA-tik hartua da:

iten zizien malür ere, mahatsetan eta frütatzetan e, ezpita bethi harrik, hartan iten zie ongi, bena mahatsian e serios-seriosa [irri], zük in lana garbitzen dautzite eta zalhüxkaik...

Oztibarren ere hala-hala da:

etxen hil kabale baten etzu erraiten (Bun)

Ez dago egitura horretarik urrun honako izen sintagma:

arto poxiño at botatzen zakozun, arrotzia errun sari ‘arrautza errun izanaren saritzat’ (Lan)

7.3.4.1.5. Aditz nagusi ez jokatuak *-(r)ikako* atzizkia bil dezake erlatibozko perpausa eraikitzeko; Uhartehiriko adibidea dugu hau:

oono gue etxen, etxen batzu, enfin, niauk inikako arrastaldi atzu, bena arraztelu oitaik e, bizpairu batzu, bauzu biziki etxe gio uai ezpeitute arrastelu bat etxen geo!

Oztibarrekoa da honako adibidea:

badira Lafitte-n etxetik jinikakoak bena ttipiak dira (Jut)

Bonapartek baliatu zituen Bizkaiko katiximetan erlatibozkoan ageri diren *-(r)iko* erek badute Amiküzekoen eite: *erruquiz beteric*o Ama (Arratia); *Jaungoicoac eguinico gauzac gaitic* (Arratia); baina badira Bizkaian *guison pecatuen jausicoari prometidu eucen moduan* (Plentzia) erakoak edo *Agar erichon emacumeagas jasoneco historiec* (Plentzia) tankerakoak ere.

Eskualdeko 1740 urte inguruko katixima zaharrean badira honen adibide iduriak, baina ez aditzean eraikiak, beste kategorietan kokaturik baizik:

naturaz gagneciua, barneticaciua, universal... (113)

cofessioniaz guerozticaco becatiac declaratu (116)

bere heen ganicaco dependencia (77)

oro-z-gaiñeticaco botheriaren (28)

7.3.4.1.6. Aspaldikoak dira “galdetzailea + *ere*” egitura duten perpaus erlatibo korrelatiboak Euskal Herriko eguzkialdeko literaturan. Arberoako Mehai-nen bildu dugu honako etsenplua:

nun e beita, ez duk xuxen ibilia, tratu gextoa in dik

Armendaritzekoak dira beste bi hauek:

nun e bita, jinen da / nora joan bita ere, jinen da

Hurranen adibideak EHHA-k bilduak dira:

ordin ehun bat ondo edo zonbat e bituzu leku (Bardo)

pharte hartu dutenak familian laguntzen, eta nor bita okupatu (Jut)

Beste hau ibar bereko Hoztakoa da (EAEL II, 263 etnot):

nünnahí, nün agítzen báützit:aanén, nünnahí e, bídian!

Zuberoan ere ohikoa da era hau, Peillenek Santa Graziko ixtorio batean dakar adibide hau (1985: 24):

benā nork ere erran beiti elhe hura, nitzaz orhitüren dük

Amiküzen bildu adibideak dakartzagu orain:

saltzen du^u guk nahi du^una, zeR e bitu^u prepatuik (Sar)

undar misionia ordian izan tzen berroita emezortzian edo, nui^z eta berroita emezortziaz gioztik ezten biziki misioneik izan, misionia galdu da (Sar)

biziki juiten da geihoo Peihoadeat ezin ez eta Donapüleat... izan dira frango laborari gitekin, gite (sic) saltzeko, defendiatü tütze sa... saltzea' ta hek, laborari hek ez tira berriz juiten, e, juiten dia Peihoadeat, nun e saltzen ahal bitüte (Lab)

iten tüztean lehenik goizetan etxe... nun e bizen gihoonik, ze (Ilh)

geo bagintzin eta, kuRtsak inaa^zten gintiin, devuaRak, eta geo nok e bitzien hoekienik iten, ükhaiten tziin tzeit, sos pitxika at, zzeit, baakizü (Gab)

hengo apheza, noR e bitzen hengo apheza, hartü zin... haRtü zitzin Labetze ta IlhaRe aintzina (Gab)

geo ostatu huntan bazün biziki gauza, e, bazün telefona, etziin hen bezik, etxe huntan bezik telefonaik, ordian, zeit, herri güzian, ordian zer e behar bitzen nonbaitik, denak, telefona huna (Gam)

nun e bitzien lürrak hor, komünak deitzen tzienak, horiek denak defrixatü (Arbo)

ta herriko oihena nun e gelditzen beitera, hek hola egoiten tzi ta gio (Arbo)

ta zuinek gehio emaiten bitü ta hola (Arbo)

goitatzzen nor eta... atzamain tzien eskuaraz ari ta bethi zernai izanik, eskola finitzean nok e bitzien makhila hua, errintsak galdeiten tzien eta... (Sor)

nun e bigintien güre, eta... güre kü[^z]iak, quoi (Laph)

Videgainek ere *zer ere b(a)it & zoin ere b(a)it & non ere b(a)it* egiturak bildu ditu Oztibarren korrelazio bidezko erlatibozko perpausetan; hona etsenplu zenbait (1989):

lapina edo erbia, ze bitzen e... (Lan)

nohat ee nahi bita, zoin aldetaat erori nahi bita, alderdi hartaik emaiten lehenik (Lan)

haugi hunat hi, “Munuze”, Munuzen eresia bazen; zoin herritaik eresia bitzen eta, edo haugi hi “Iholdi” (Jut)

zoin herri bitzen eta hanko, bena frango guti zen (Jut)

auzoak, pharte hartu dutenak familian laguntzen, eta nor bita okupatu (Jut)

hainitzetan erten duzu nuntik abiatzen bita eta hango izena: Babatze-erreka, Babatze da lepho bat (Jut)

giilat so iten zizin dalliain xorroxteko ta nun e ikhusten beitzuten mostukaik gorena, hain gainian egoiten zitzun dalliain xorroxten egon zain beheitxo bestiak pasatu artio (Larz)

7.3.4.2. Kausazko perpausak

7.3.4.2.1. Eguzkialdeko Euskal Herrian ohi den *bait* dugu Amiküzen ere kausa edo azalpenezko perpausetan, *bei(t)* edo *bi(t)* ahoskera duena:

Baiunalat okülisteat eztakizut zonbat urtetan, huit ans, ezpiniin untsa ikhusten, bestenez ez gintzun e, ez, ez, ez (Bith)

ezpitzzen sporrik eta hola ordian (Bith)

geo bakizu, haurrak gielaik, zeeit zozokeria re iten gintzin eta geo denek e, denek paatzen tzizien e, ezpigne (?) elgar salhatzen (Bith)

hil tzizien ba, bana, e, nekez, ura uRun beitzuten edo, palekilan, palekilan, e, ura jiteko artean behar tzien iduikatu e, ura, ta geo etzun trakturrik e leheno, uai tonali[z]ier eta horiekilan iten tzu, bena leheno etzun, ordian palekilan hiltzen tzizien (Bith)

gio ürrhüneko horiek ezpitzien heldü bezpeetat, mezan izan ondoan geo bezpeetat etzitzün heldü ürrhünekoak uñez be^har bizen iili (Arrü)

erten nian oxtian berroita hamabi iganden gañean, berroita zazpi lanean ari gintiela, untsa beharra beiginiien, bestenez eztakiat nik (Lab)

behar bitüte borthizki lanean, enfin, phedeikatzen e ari, zeeiten sine-tsaazteko re (Lab)

nik e ostatia maite biniin kotsi at ta... (Gam)

ba, haat ürrhün joaiten gintzün, pentze atian biginiien erreka guria bitzen, haat joaiten gintzün, bena ezakizüt zomat urthe irauñ dienez, anitz ez, gio jin bita ura (Arbe)

7.3.4.2.2. Ohiko *zeen ta... b(e)i(t)* egitura ere hitzetik hortzera entzuten dugu Amiküzen:

kontsolatu gitzie denak hor bigira, zen ta izaiten ahal bitzen... gaua izan balitz izaiten ahal gintzun denak hilak (Ora)

beharba elgar launtzeko re gauza tipi batzuen iteko, zeen ta bakotxak gue lanak bigintien, batek egurra prepaatu behar tziin, besteak arrotzak (sic) bildu, besteak eztaizut, ba, ja ahatzea izit, aita edo ama lagundu eta holako (Bith)

zomeit aldiz bate etzakizien bate zendako etzuten elgar maite, zen ta lehenekoek ezpitzuten ikhusten ahal... elgar ikhusten ahal eta hori jarraitzen tzun (Bith)

zeen ta hango ordokia re iziarriko lurra beita (Uha)

zeen arthotik landa ogia eraiten bitzen gio (Arrü)

eosi zian karabana haundi bat, zen ta sosa beitzien (Lab)

lürrak eta, denak ai tzü lanian, baliute gehio re oono, zeen ta animaleko arneseria itute; animaleko arneseria eta oro e, complet (Gam)

eskuara galdu duzu amiña at, zeen eta gaztek etzü ari eskuaraz herrian e uai, elgarren artian e, gazte oiek etzü seküla 'ntzüiten eskuaraz, be^hi frantsesez ai tzü, pilotan ai dielaik e ikhusten tzit nik gazteak or, hamoost hamasei urtheko (Gam)

Litekeena da kausazko menpeko perpausean konpletiboa ere agertzea, narrazio giroan gertatu zaigu:

etzutela ondarran eman zeen ta i(g)andiaikin bildia zela (Lab)

Oztibarren ere arras ohikoa da *zeren* partikula kausazko perpausetan:

zeren uliek dute erruten hor gain hortan (Jut)

ba, zeren makhila hor bitzen (Larz)

7.3.4.2.3. Kausazko perpausetan *-lakoan* berrikuntza Lapurdin ageri zaigu,¹⁴⁹ barnealdean eta baita ekialdean ere, Bardoze lekuko. Baxenabarren ere ibiltzen da, Baigorri, Arberoa, Garazi, Oztibarre eta Amiküze barne. Dena den, bada *-lako* ere Amiküzen, Ostankoako etsenplu hau lekuko:

ta etzian ukhan komuniatzia jantzan ari zelako

Hona guk bildu Arberoako *-lakoan*-en adibide batzuk:

hortzak ikuztean ura ietsi nin; serorari galdein nakon ea kominiatu bear nienez: hoe niila ez kominiatuik, ura ietsi niilakoan, ezin sinetsia da! 'hobe nuela ez jaunartzea, ura irentsi nuelako' (Arm)

149 Hona adibide bat Hazparneko XIX. mendeko katiximan: *Çoin da othoitcetan hobeena? Gur-Aita. Certaco? J. Cristoc berac bee ahoz errana içana delacuan* (219).

zaharra dira arbole horiek, horiek, eta, ez tira xuxen goiti, baituzte adarrak, moztuik izan dielakoan (Meh)

Amiküzen ere bildu dugu adibide sail bat:

eta harri hua etzutelakoan hatzemaiten ahal, zugia ‘zubia’ oro barreatu!
(Ora)

ta hua bethi anoik ean gabe, e, zakurrak belhaña hunkia zakolakoan, jan eta erran tzakon bestiak “eta... ze, zendako ehien eaten” ta, “belhaña hunki atak”, “debrua, to, zakurra uk pasatu, hak dauk hunkitu” (Ora)

arront xiloan da etxe hau, gue etxetik toute la chaîne des Pyrénées aeri dia, izigarriko bixta da, ez gu’etxea delakuan, bena... (Ora)

gure kafeñoa eaten gintzin elgarrekilan, uai etzu halakoik, etzu, ez bate samur gielakoan, bena, etzu berriz bate... (Amo)

zortzi egun leheno enielakoan untsa ikasia eta lezionia [z]afratu nindien (Behau)

ta geo undarrian traturra^f ezai gindiela behorra^f khendu gintzin eta, egindielakoan beharrik eta traturra ezartziaikilan khendu gintzin (Uha)

ta etzatak iduri igandea igana dela ezpaniz juiten igandetan mezaat, ez besteak beno deboto^o nizalakoan, bena ene abituen atxiitzeko (Zoho)

Oztibarren ere kausazko balioa du *-lakoan* atzizkiak:

phikokoa seurrenik eztelakotz hazteko hun eta phikokoa ezartzen, edo adinez, edo mandoa delakoan, eztielakotz umeik iten edo zeit enegu, edo maingu delakoan edo adarrak eztielakoan untsa edo bilhoa eztelakoan edo hola zerbait thaka duenian (Jut)

Zuberoan elkarrizketetan guri ez zaigu *-lakoan* agertu eta lekuko urdiñar-betar batek ezinezkotzat jo digu atzizki hau kausazkoetan.¹⁵⁰

Aldiz, Bizkaiko eskualde bakan batzuetan badira berrikuntza honen adibideak; Eneko Zuloaga ikertzaileak dioskunez, Bermeo alderdian baliatzen da *-lakon* kausazko perpausetan —ez dihardu ustezkoez, kausazko garbiez baik— eta Gamindek ere hiru etsenplu bildu ditu Bilboko Buja auzoan (1990); *EHHA*-k ere Zollon eta Zaratamon adibide bana dakar.

7.3.4.2.4. Oro har, zuberotarrek *-lako*z baliatzen dute kausazko perpausetan, afrikatu gabe. Urdiñarben halaxe bildu dugu:

150 Ez dakigu Jean-Louis Davanten adibidea Pettarreko mintzoari zinez ote dagokion ala mintzaera jantziak eragin duen: *Mauleko jaun kondeak Bereterretx bekaizkeriaz hilarazi luke, biek Margarita maite zutelakoan* (2009: 2); ala ustea adierazten ote du *-lakoan* horrek?

busti niilakoz tzola zerna^hi erran 'zitadan

Jeruntzeko adibide batean *jin delakoz* dakar Etxegorrik (2003: 265). Game-ren ere honela da: *eta halere Xiloka maitea, ene xiloka delakoz* (Otsibar 2003: 15).

Iduri luke Baxenabarre edo Amiküzera hurbil berragertzen zaigula *-lakotz* atzizkiko txistukari afrikatua Zuberoako ipar-mendebalean:

agei düzü, bena aharrak, e, ze izaiten ahal da, zomeit aldiz, e, ze, e... ezüelakotz... ezüelakotz pak^hatzen... aharra... aharra bauzü e, segür e (Sarkp)

Amiküzzen kausazko perpausetan ez dugu *-lakotz* atzizkia aurkitu, baina Trebitschek etsenplu bat bildu zuen 1913an Amorotzen bizi zen bardoztar baten-gandik (Etxebarria 1994: 68):

bana ene ahalaz kumentatiüko dielakotz hasten nüzü ene in ahalen eitia

7.3.4.2.5. *kausa* maileguak ere era ditzake kausazko perpausak, Laphizketako adibidea lekuko: *gosta zunaikin kausaz*.

7.3.4.2.6. *medio* maileguak ere era ditzake kausazko perpausak, Oragarrereko etsenplu hau lekuko: *alabak atxiki zi heskuara ama dela medio*.

7.3.4.2.7. Kausa edo baldintza kutsuko perpausetan, beste alderdietako “-z gero” ezagunaren ordain *-z gañ* postposizioa baliatzen da Amiküzzen; hona etsenplu bat:

erraiten diünanaz gañ sinetsiko hüt (Ame)

Oztibarren ere baliatzen da:

otoa dunanaz gañ hirekin joain gitun (Donaix)

Cerquand-en XIX. gizaldiko ipuinetan bada Arhantsusiko adibide bat (1985: 75):

utziko zaitut juaitera hala desiratzen duzunaz gainean

Hona Zuberoako adibideak, Zibozeko M. Jauregiberrirena lehena (de Rijk 1999: 161):

zü haiñ azkar zirenaz gaiñen, nahi'zia joka zuiñek mando hortan karga ehiin kilo, zoiñek zalheago

Beste hau Pierre Jauryk 1936an idatzia da (Coyos 2013: 86):

bena orai, pelota düanaz gainen zeren ez ari?

Sarrikotapean [5]in tzienez gaiñen bildu genuen.

Domintxainen ere bildu da (EHHA):

sinhets dezaun hola denaz gaiñen

sinhets ak erran dienez gaiñen

2009an makur genioenez, Zuberoakoa da -z *gaiñen* postposizioa, baina Patxi Salaberri Zaratiegik dioskunez, XX. mendeko Luzaideko gutun batzuetan ere era honetako perpausak ditugu eta erakusten digute Luzaide zenbateraino den Garazi:

ni ere kusi nahiko ninduxula han [n]jintzanaz gainian

ja ke ta horren mintzatzea jiten direnaz gainian

7.3.4.2.8. Maileguz sartu da gure hiztun baten mintzora frantsesezko *parce que*, ondotik ohiko *bit* duena; Hego Euskal Herriko Urola aldean-eta entzun ohi den maileguzko *porke*-ren kasu bera da; ez dugu usu entzun Amiküzeko euskaran *paske* hau; hona Ostankoako bi etsenplu:

parce que ezpigintien arropak aski beroak

ba, behin ba, parce que ezpeizen xofa[ç]aik ddause e, estalgia bazun aski ordian, bena sartzeko fresko zun, ba

7.3.4.3. Perpaus kompletiboak

7.3.4.3.1. Ohiko -(e)la da atzizki kompletiboa eskualdean:

eaten tzizin puxka at eta, alainan, sartü^behar beitzen olako tenorean ta, hua erran tzizien alemanek il tzutela irian, Donaploko idian, hua, hua beti, beti'ntzun tzit (Gam)

ezzizie (sic) pentsatzen geroari oaiko etx... gaztek, uste izie geo bethi hola ibiliko tütela haurrak (Arbe)

7.3.4.3.2. Aditza “uste edun” lokuzioa denean -(e)n izan daiteke menpeko perpausoko atzizkia, hala perpaus nagusia baiezkkoa nola ezezkoa denean:

baze'ma or eta nausi bat paatz... traturrain erdia paatzen bitzien, na hemen eztut uste neori paatu uten (Behau)

joanak gitzak bet^{hi}i aitzineat, goai, giileat eztakiat bate joain gienez, e, eztiat, eztiat uste giileat joain gien (Lab)

etzit uste igande oroz bagindien meza Zohaztin (Zoha)

haur denboran etzit uste ikhasi düün gük hori (Zoha)

ez, phagoa mindian tzü, etzit uste hemen baden (Zoha)

a, hola, gazte gintian, pazentzia ba^sindikan oroin iesteko ta aitzina joan tu^k bizia, ^ena uste diat herria ezai düün plantan; uai, gazte horiek, erran gabia, eztakie hori (Zoho)

baut uste emazte horren aneia zitaken... ai izana nizala lanean, ai izana niz ogi ioiteko bekenizien batü[^z]ain ondolik eta ibili izana niz... eta Ostankoako alderdian ai izan nintzan Ddomingo deitzen tzen batekilan, ba... hua geroztik tzen... gü eskulanetan ai izanak gira (Sor)

aintzinian etzit uste xahaRak izan dien biziki LuRdan (Ber)

Ondoko ibarretan ere “uste edun” aditz lokuzioaren edo *iduritu* aditzaren menpeko perpaus konpletibook *-en* atzizkia eraman dezakete; lehen adibidea Arberoakoa da eta beste biak Oztibarrekoak:

eta ezpitzüin ikhusten “bai zuri ere”, uste ukhan züin norbait zen (Izt)

uste izit biga bazuzten (Lan)

hemen, iduri ziaaxu bildotsa axuria (sic) handitia den (Ibarro)

7.3.4.3.3. Euskal Herriko eskuinalde guztian ohi denez, perpaus nagusia ezezkoa denean menpeko perpaus konpletiboan *-(e)la* atzizkia ageri da:

enixin uste nik eta Españan inak tziela hola, ta, khanbiatiak (Ora)

ia, ia, etzüü sofritiü, etzi erran behar sofritiü düüila, bethi ukhan tziu^k zeeit, ez sosik biziki, bena beti zeeit, beti zeeit (Gam)

etzü eta senditzen nik horren beharra baduala (Gam)

etzi erran behar goorra tziela (Gam)

etzit erten gaxto dela, bena bon, hautü bat tzü (Zoha)

Oztibarren ere hala-hala egiten da:

enien uste hoin zozoa nintzela (Jut)

7.3.4.3.4. Hego Euskal Herrian nominalizazioaren bidez egiten dira hainbat menpeko perpaus konpletibo edo perpaus nagusiaren osagarri zuzenaren eginkizuna dutenak; horiek **edin* eta **ezan* oinarriak baliatuz egiten dira Ipar Euskal Herrian. Amiküzeko adibide hauek erakusgarri ditugu:

eta zien emaztia nahiko duzie lanean ar dain ala... Ba, ala nahiko duzue (sic) etxea... etxean (sic) eon dain... a bai, bai, bere lanean ar, bai, bai, bai, bea ala nahiaoko zinukete in zezan bere menaia ta, ziek arribatu orduko salda ina ta gio khanberak... (Ora)

haundiak etzian untsa hartzen ez eta ttipiak in tzain, ttipiak ba haundiakin in tzain, bena, haundiak ez sobera (Amo)

ta haundia ttipiaikilan in ta haundiak ez ontsa hartu eta ttipiaikin in tzain ta ondarrean etxetik partitu ta Paisea uan (sic) ta aita ta amak aando-natu (Amo)

ni etzian balio ioan nindain (Behau)

ordu zen kanbia ziten (Behau)

baionesak maite nuke egon diten (Behau)

akhustea emaiten tzin berdin balio zakola in tzezakoten, berdin, bazin bertutia, hots (Bith)

hea bazakienez, ta, baiez ba, ta, errezita zezan ta holako othoizta ta (Bith)

etzi balio kritikan ar giten sobea (Uha)

ni ezpiniz seküla izan, bethi aitak nahi beitzien etxen eon ginten lanian artzeko (Arrü)

amak erran tzaukun aldi bat in gindezan (Lük)

bitxi hatzeman bitzien eta nihaur joan nindain, hola nihaur izan nindain, bai (Lük)

nuntik nahuk kuntrabanda izan tzain (Zoho)

deboziona ari üzü arrunt galtzen, etxekoek etzie haurrak igortzen elizaat, ordian nola nahüzü segi dezate (sic), etzü posible (Arbe)

Ordea, beste batzuetan nominalizazioa ibiltzen da aditz jokatu beharrean:

ben a hori gizonek etzuten konpreⁿtzen, joan be^har tzen eta ioan bear tzen, haurrak aski zuten oian egoitea (Behau)

nahi badü ba, nik... etzü aski nik nahi ukaitea, eritarsüna (sic) jiten balin bada ordian joan behaüzü (Arbe)

7.3.4.3.5. Zehar-galderetan *-(e)nez* atzizkia ageri da Euskal Herriko eguzkialdean, guztiz Ipar Euskal Herriko herrialdeetan: Lapurdiko itsas-hegian eta erdigunean ez, Baigorrialdean ezta ere, baina Lapurdiko ekialdean, Baxenabar gehienez eta Xiberoan bai. Eguzkialdea aipatu baitugu, hona Zaraitzuko Espartzan 1982an bildu genuen esaldia:

gero Aezkoan eztakixut badaonez

Erronkarin, berriz, -ez nahiz -etz bildu dira (Izagirre 1961: 395):

eztakiár káusiten duránetz 'ez dakit asmatuko dudán'

Aezkoan ez da ezaugarri hau baliatzen, ibar honetatik ezkerrera ez da inon ageri.

Amiküze ondoko Arberoako adibideak dira honakoak:

serorari galdein nakon ea kominiatu bear nienez (Arm)

*lehen gauza, lekhuz khabiatzen gindelaik bethi, lehen gauza, eskual-
dunik bazenez xekatzén gindien* (Meh)

behar hori senditzen dutenez ai niz pentsaketa (Meh)

Amiküze ondoko Xiberoan Arüeko lekuko batek kontatu ziguna aurkez dezakegu:

*bai, ebats, etzü bethi [3]ien ebaztlia gio, ükheiten bauzü ti[r]o'at
üzkila, ikhusiko uzü, e, ü[ç]ü [3]ien tzienez*

Hona orain Amiküzeko adibide alde bat:

*ba, ba, belharrak balima zien e, behar tzian aphezari permisionia gal-
dein, hea artzen al tzienez lanian iande eunaikilan* (Amo)

Españan eztakiat badenez, bena hen seurik... (Amo)

*ilhar biltzea, lehen herroka in eta, ttantta, etzenez eta atsaldekaskariain
tenorea, bethi gosez zitzun* (Bith)

et hori sortia zenez enuzu ohit (Bith)

geo ikhusiko ugunez hantik, hori ezpitakit nik (Uha)

*joanak gitzak beti aitzineat, goai, güileat eztakiat bate joain gienez, e,
eztiat uste güileat joain gien* (Lab)

eztakit erten ahal tuztanez (Lük)

*banitien bi kaxet ta zunbait aldi süürretik oola abiatzen tzatan hola ta
gio beldür zien hea emeki-emeki jein tzatanez zeeit* (Ame)

*Errekart'zena, senatær bitzen, hak, eni galdua in, guri galdua in nahi
ginienez jin* (Gam)

eztait hola erran behar denez (Gam)

*güe nausiak bazitzin sei etxetier, hiru Zohaztin ta hiru Gamuen, eta ai
nüzü he'indako zenez bakharrik egür hori, tallisa, ala herritar güziendako
(Zoha)*

eztaizüt bate demora hortan bazenez e hoitaik (Donap)

*arauz eta ohartzen intzan behala, hiri re seurraz e, heia gustatzen
tzaukanez edo hua gustatzen tzenez hitaz, hua re bauk, geo, ta hola, to (Zoho)*

etzakiat ezautzen dukanez (Zoho)

*bo, behin ba, geo eztaki:üt iraunen dienez, bai:üü biziki jende hemen
büria altzen bitüte (Arbe)*

Hona Oztibarreko adibideak:

etzakizut beste mundian urde hiltzen ai denez (Ibarro)

etzakiat erran tzienez (Ibarro)

kasu iten duzu beala gielerraiaak sanoak dienez (Lan)

Landibarren berean *-(e)netz* aldaera ere bada datuetan:

jastatu ea badenetz aski gatz eta bipher

Garazi gogorazten digu (Ezterenzubi, *EHHA*):

galdein zien arno xorta bat ukhaiten ahal zienetz

7.3.4.3.6. Perpaus konpletiboetan Lapurdi eta Baxenabarren *baizik & bezik (eta)* —Zuberoan *baieziz*— partikula sarrarazlea aipagarri da; Hegoaldean *baezik eta* baliatzen da Garazi ondoko Aezkoa ibarrean. Zuberoako etsenplu hau Ligiko Allande Elixagarairena da (Peillen 1986: 166):

*emazte batek pleinta ekharri zia baieziz gizun batek kotapian eskia
iragan z(i)ola*

Berebat, Lapurdiko Makean ere bildu da (*EAEL*, 236):

*ta án, persúna xahar baték errán tzaunt... èrran tzauntán... hák erran
tzauntán eta... egùn batéz, hará yoan etá, baizík-etá, Gànixék... erregína
paástu zín gábeaz!*

EHHA bildumak *bezik e* dakar Lapurdiko Bardozen.

Hona Baxenabarreko Arberoako adibide bat:

*alemanak joan tziren eta plenta at izan tzen hemen, ba^ezik eta bazirela
makiak (Arm)*

Oztibarren ere kutsu narratiboko perpaus konpletiboa zabaltzen du *baizik eta* partikulak (Videgain 1989):

intzun dixit baizik eta ahotzak ikhusi zuztela jalgitzen, ogi-ahotza, baakixu (Ibarro)

nik intzun dudana, gio eztiakizut zeen hori heen, egia ala gezurra da, baizik eta galdein zutela ithurriain iteat ihize, leheno erran bat duzu, eta ez omen zun joan, eta gioztik gisala euria iten dielaik, ihitzian edaten omen dizi (Hoz)

Amiküzen bildu ditugu adibide guti batzuk:

ta guai eorri düte letra ta amiña at arranjatuz, bezik eta emain dutela sübanzione ta zeit ikhusgarri, zeit inen dutela (Sar)

gio besteen phentzetik haat eta han bidia utzi nahi gabez ai izana gituk tribunalian ta oro; gu sortuz geoz, nik etzit beste bideik ikhasi ta, bezik eta guk bidia heentik, eliza bidetik ... bide rres haat joaiten aal ginela (Uha)

a, ba, behala so iten düte, ibilten den ur hori, bezik eta hori, eta, gütio dela hau eta (Laph)

EHHA-k Amiküzeko Arrüetan honakoa bildu zuen:

ba, ba, biziki abila, erten dute bezik eta harma senditzen diela re, erten, erten... nik intzuna ut, ba, erten baitute eskuaraz zunbaitek "belia bezan zaarra uk"

Eta Arboti-Zohotan beste hau (EHHA):

etzü sartü, telefonatü izi bezik eta badela reünione bat gaur

Inoiz halako kausal subjektiboa adieraz lezake, partikularen bidez beste norbaitek zerbait ez egiteko estakurua adieraz baleza bezala; Domintxaineko bi etsenplu dakartza Videgainek *EHHA*-ko emaitzetan:

baizik eta beroxe zela

baizik eta baziela enterramendü bat

7.3.4.3.7. Arestikoaren iduria da *hotsez eta* partikula sarrarazlea, ondotik perpaus kompletiboa dakarrena; hona adibide erakusgarri batzuk:

hori bazin, leheno iten tzun, ba, nola berdura, hotsez eta hau holakoe-kilan untsa zen eta frangotan jeloskeriak inaazten tzin ddeu[¿]ik etzelaik, eta izan tzun beste nexkato at... eta mutiko atzuk eztakizut, batek nahi zikezin arai z emaztetako ta gio errefusatu zela, erten tzizien untsa zela holakoekilan eta haekilan, ta gio ordian iten tzizien, ba (Bith)

hutsez eta ura zen hürrüp eta klik edan diat bena aguardinta zian! Südürretik botatü diat! (Ame)

EHHA egitasmoak ere bildu du egitura hau; hona Arboti-Zohotako etsenpluak:

etzü jin lanecat hotsez eta eri dela, hotsez eri dela
joan tzü onddoka hotsez eta badela biziki

7.3.4.4. Perpaus konparatiboak

7.3.4.4.1. Berdintasunezko konparazio perpausetan *bezain* ageri zaigu Amiküzen aditz irangaitzetan:

Lurdeat joiten ginen artetan, ez oai bezen usu e (Behau)
ono baut beldurra ni bezain kontent tzen, e! (Behau)
etxea, hangoa bezen tzaharra zen ^hau (Behau)
nik badiat langile at, hak bazakik, güe etxia ezaiützen dik nik bezain untsa, ta ni han nuk kasü iteko (Zoho)
ba, ahal bezain untsa ba, ba, ü[ž]ü ba, bena ez i^sande güziez, ez (Arbe)

Hurrenkeran aldaketak izan daitezke ere:

debriain mazela uzu gio hori, peko zola, pathar ori luzia bezain (Uha)

Eta elipsiak ere izan daitezke:

ai izan txia zu re zaldiaakin, ta bardin goxo zen e, uai ko traturraakin bezē'n (Ora)
a, ba, biziki, familia bezain (Bith)

Har dezake *ko* morfema konparazio era honek:

kasik orduko trakturrak bezain haundikoak dira les jeux des enfants uai haurren ofreitzen dien uai ko egunean ofreitzen dien eta cadeau hoitan (Sor)

Berdintasuna aditz irangankorrena denean *bezanbat* baliatzen da Arberoan:

etzuten oai bezanbat ^sosik e (Meh)
nik badiat hik bezainbat (Arm)

Amiküzen, Oztibarren eta Zuberoan aukera zabalagoa dago; *EHHA* bilduman *beza(i)nbeste* aldaera nagusitzen da Zuberoa, Amiküze eta Bardozen. Iraganean ere, Maister idazle zuberotarraren 1757ko lanean *bezanbat* eta *bezañ beste*, bi erak ageri dira. Egun Amiküzen bada *beza(i)nbeste* partikula, eta Bar-

dozen ere bai —*bezenbeste* eta *bezenbat* aldaerak darabiltzate—. Oztibarren *bezenbat* ibiltzen da, baina badira *bezenbeste*-ren bi adibide bederen Videgainen 1989ko datuetan:

oai etzu leheno bezenbeste (Hoz, 1017)

baakizu, bauzu lekhu bezenbeste (Izu, 1435)

Hona *beza(i)nbeste*-ren etsenpluok Amiküzen:

gu bezainbeste (Behau)

khanpoan egon tzizte ostatitit, geo lana finitü ondoan nahuzien bezainbeste eon tzizte (Ame)

Errekarren denboran heen lür ibili bezenbeste edo gehio baziün oihan (Gam)

zu'bezainbeste hortz badut (Dom, EHHA)

Alta, nabarmen ageri da *bezenbat* ere Amiküzeko dela:

kasik etxeaindako ^bezamat beauzu etxe lekhiain eosteko (Amo)

eta geo batek besteak bezenbat in nahi, hik iten duk ^hori, besteak gehio in nahi, ahal balimadu oono (Amo)

etzian ez eta uaiko traturrekilan bezenbat gerthatzen leheno (Amo)

etzüzün lürrik e goai bezenbat (Arrü)

geo ezpeita leheno bezenbat haurrik e, ordian... (Arrü)

etxaldetan etziren goai bezenbat kantitatez, bena bazen eta mota gehio (Laph)

Baita Zuberoa saihetseko herrietan ere:

bõ, etzen oai bezainbat gusta eskolatzea diela beRoi urthe, oai biziki khario da (Dom)

ezpitzen oai bezenbat iten (Olh)

7.3.4.4.2. Sintagmak alderatzeko erabil daiteke *nola* partikula:

hor etzü beharba hameste ^heskuaik nola hemen (Arrü)

7.3.4.4.3. Ohiko konparazio perpausak eratzen dira Amiküzen gehiagotasunaren adierazteko; hona adibide bat:

joain da urthe at bedeen edo geihau, zeen ta urak in du suiak beno geihau makhur... zolak denak arraiteko dira (Ora)

*uaikoak amiña at laxatiak tuk amiña at ta gaztek gaña hartzen fite...
uaiko haurrak e etzu bate lehenekoak beno erremesoo, bate, nik beti erten
tzin (?), ena uaiko aita-amak zu lehenekoak beno aulo (Amo)*

7.3.4.4.4. Gehiagotasunezko konparazio perpausetan Nafarroa Garaian, Baxenabarren eta Lapurdiko Aturrialde eta barnekaldean *ago* atzizkiak *ko* morfema eraman dezake ondotik; hona Nafarroa Garaiko Aezkoa ibarreko XX. mende bukaerako etsenplu bat: *gazteaokoa bildotsa* (Hiriberri).

Baxenabarren hedadura handikoa da jokabide hau: Baigorri eskualdean, Iholdi-Arberoan edo Oztibarren ikusi ditugu adibideak *EHHA*-n. Bestalde, armendariztar batek idatzia da perpaus hau (Karrika 1990: 56):

hango ni baino zaharragoko mutiko batek fraide-gai joan nahi zuela

Amiküzen ere ibiltzen dira honelako egiturak:

*gu bost haur biginen, ordian aita etzun joan, ta ono biziki bazitzun
jelosi zienak, aita gazteik ezkundia bitzen, ono gaztea bitzen, bena bost haur
biginen, ordian hen egon tzun ta beste atzu zaharrokoak joan (Bith)*

*ta geo hek ono hunak balima zien ttipiagokoari pasatzen tzizien, ta
taulieRak e hala-hala (Bith)*

Oztibarren ere *-agoko* atzizkia ageri da konparazio-perpausetan (Videgain 1989):

ttipioko atian, kubetak deitzen gintzin (Lan)

*ezpitake erran behar, hi ahari mando at hiz, erran nahi izi astoa beno,
itsusioko zeit uzu ono, aharia mandoa (Larz)*

arrañak handiagokoak tutzu (Larz)

Berdintasunezko alderatzean ere ager daiteke:

ehi ttipi bezain lodiko zuri batzu (Jut)

7.3.4.4.5. Gehiagotasunezko konparazio perpausen bigarren atalean *ezin ez* partikula ibiltzen da Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaiko ekialdean; hona Baxenabarreko bi etsenplu erakusgarri, Arberoan bildurik:

*bada biziki geio gazte plantatzen denik laborantxetan, ezin ez eta
hemen (Meh)*

nahio dut amatxiikin lanian ai izan, ezin ez eta aitarekin (Arm)

Amiküzen ere egitura bera dugu, adibide hau lekuko:

*biziki juiten da geihoo Peihoadeat, ezin ez eta Donapüleat (Lab)
ta guk nahiago gindian heRian berian eon tzizten ezi ez ta juitia
khanpoat, ze (Ilh)*

Zohotan, berriz, *ezin eta* eran entzun dugu egitura.

Oztibarren konparazioaren bigarren atalean *ezin ez ta* ibiltzen da:

nahio tut emazteak kozinan ikusi ezin ez ta gizonak (Jut)

Zuberoan aspalditik *ezi ez* aldaera baliatu da, Belapairek, Maisterrek, Egia-
tegik, Arxuk edo Gèzek dakarte beren idazkietan. 1734ko *Othoitze eta cantica
espirituala Çubero herrico* liburukoa da hurrenaren adibidea (23-4):

*erresolitu nuçu... houn ororen lehen galcera, eta gaitz ororen soffri-
tcera eciez çoure deusetanere offensatcera*

Maisterrena da beste hau (1757: 147):

*çougneç haboro dolore erakharri behar beiteicie, ecieç cernahibeita
gaiçaren galciac*

7.3.4.5. Denborazko perpausak

7.3.4.5.1. Zernahi errealitate denbora jakin batean gertatu dela adierazteko,
-larik baliatzen da perpausean aditza jokatua denean:

Bernadetek salda jan nahi etzielaik erten tzakon aitak (Ora)

*komunionia re iten gindielaiç bazun bethi egun bat, komunionia ein
ondoan bizpalau egun, uai bospasei egunen burian, egun bat juiten tzena
karra hurrekilan eta etxeokokilan Lurdaat, eta hua bethi gelditu duaikabe
o eztaizut (Amo)*

*eta justu-justu ene ama loriatia, loriatia zen "ne gizona jin tzelaik
(Behau)*

heldu zelaik tutatzen tziin (Ost)

*ta geo bihamunean hua hoztu zelaik geo ithurrirat latsatzea ioaiten
tzitzun, biamunean emaiten gintzin (Uha)*

*familiako gaztenenak zortzi urthe ein dü eta, hiru urthe xerbitxü, hiru
urthe xerbitxü eta bost urthe presundeï, familia gaztenenak, eta demo...,
enfin, libratü utelaik (sic), etxeat jin delaik, hamoost eo hoi egün gabe ukhan
dü konjita etxetik partitzeko (Lab)*

*guk..., gazte gintzielaik, Atzümartan gintzielaik etxea erreik ukhan düü
(Lab)*

*enfin, o^hartzen gira ba, han gielaik, elizan eta entzaramendietan o^har-
tzen gira badela ba difeentzia (Lab)*

*gazte oiek etzū seküla ⁱntzūten eskuaraz, be^hi frantsesez ai tziū, pilotan
ai dielaik e ikhusten tzit nik gazteak or, hamoost-hamasei urtheke (Gam)*

*ene aneia espu[^z]atü zelaik xubeatar (sic) batekin, egün hartan, amiña,
bea enizin aitzen (Arbe)*

7.3.4.5.2. Ez dirudi Amiküzen denborazko perpausetako *-larik* atzizkiari inesiboko *-an* eransten zaionik, gure eskualdetik kanpo biltzen dira honelako adibideak; honakoa Lapurdiko Beskoitzekoa da, Trebitschek 1913an bildua (Etxebarria 1994: 61):

*sorthu nintuzun amaan altzotik johan zelaikan Espaiñaat, beste ahiz-
pa'aten ikhusteat*

7.3.4.5.3. XIX. mende bukaerako Bourciezen haur prodigoaren parabolan Amiküzen *-nian* atzizkiaren adibideak ditugu denborazko perpausetan, baina egun ez da arrunta, nahiz inoizka gerta daitekeen; guk adibide pare bat entzun dugu, baina biak Uhartehirin, Amiküzeko muga-mugan:

*leheneko denboan ñexkatoak tenore aten sartzen tztzun, etzun bate uai
bezala, uai etzu, "ai jiten dianian jiten tzu ta, etzu bate berdin (Uha)*

*biamunean emaiten gintzin haat orgetan ta geo xuitu zutenean gutio
beitzen eta eskuorgekulan gu haurrak (Uha)*

EHHA-k Arbotin bildu du:

*zazpi hexürak, hori buxeraindako, ginharria biltzen tzie, le maigre,
azpitik, hausten dütenian, biltzen tzie des tranches behar bitüte forma ezai
eta forman ezartzeko biltzen zie ginharria eta baitzū zazpi hexürak, eta hua
buxerek beretako nahi zie, jateko atsian, auhaiteko*

Oztibarren denborazko perpausetan nagusi da *-larik*, baina *-nean-en* herexak ere entzuten dira (Videgain 1989):

eskelariak zailtzalaik amoina galdeiten tztzun (Lan)

eta gio hartu zienian kholpia (Larz)

Larزابalen honakoa dakar ***EHHA-k***:

*lili hua, eta hazitu zenian, horrek aza mazuzta bezala beltza bitu, hazia
ondu denian, hartaik zopa iten*

Aditza errepikaturik eta *-nean* atzizkia baliaturik perpausa eratu du Amotzoko lekukoak, esaldiaren baieztapenaren halako bermea edo emanez,¹⁵¹ hona adibidea:

etzun eta ezin ina, etzenian ezin ina

7.3.4.5.4. Euskal Herriko eskualde frankotan legez —Nafarroa Garaiko Aezkoa ibarra, Bizkaia, Lapurdi edo Baxenabarre— denbora balioa erants dakioke perpaus bati aditz nagusiari sozietiboko atzizkia loturik; Hego-Amiküzeko adibideak dakartzagu erakusgarri:

*maite gintzin ba juitea hola... lanean artziaikin batean solasa ta...
biziain arauko solasak... gu goxoki, gu gustian gintzun, e, haurrak gintzun
eta (Ost)*

*ez, frantsesez, gañea baintzin harri bat, eta hua eskuara ai zenak behar
zin sartzia'kin eman (Ost)*

deia punpa bitzen heen, khusi uzu beharba iaiteaikin, ez? (Ost)

*ta geo undarrian traturra^k ezai gindiela behorra^k khendu gintzin eta,
egindielakoan beharrik eta traturra ezartziaikilan khendu gintzin (Uha)*

Trebitschek Lapurdiko Hazparden 1913an bildua da beste hau (Etxebarria 1994: 46):

*dio hirugarren batek hek ikhustiaikin: "lehen aldia diat ikhusten duala
bi kuutzek hirugarren bat karreatzen"*

Oztibarreko eskualdean ere hala-hala da (Videgain 1989):

*gue xaharrek erten tzizien xakur errabiatiak izaiten tziela seurro arbo-
lia ostatsiaikin eta ostoak erortziaikin (Lan)*

*bateatzen baitzuten ikusteaikilan etzela biziko edo hiltzea, sortzeaikin
hiltzea zola (Lan)*

7.3.4.5.5. Denborazko adiera biltzen du perpausak aditz nagusi ez jokatuak datiboko atzizkia hartzen duelarik, eskualde zenbaitetako euskaran ageri denez. Eman dezagun, Zuberoako Belapeireren lanean (1696), Aezkoan XX-XXI. mendeetako ahozko mintzoan, Erronkarin XX. mende hasierako Mendigatxaren idazkietan...; itxaron genezakeenez, Amiküzen ere bada erabilera hau:

151 Gipuzkoako Goierrin arras egitura iduria entzun dugu, baina instrumentala baliaturik: *neken goa-
tuko zea, goatuko zeanez.*

*ta gu re eontsi gia, ba, biziki denboa ber arnesekin, ta gio nik haurrak
jitiari ta, arnes berriak eosi tüt, batüt an hangarrean arnes berri batzü (Lab)
adina jiteari etzü sobera lan in behar (Ame)
emeki-emeki maxtürantzan hasi, bizkarra haunditzeari (Larri)
eliza hemen eta, galtzeari, eta, bes... ezta herri bakharra, Laphizketako
phestak ere, kartierreko phestak ere galdü ziren (Laph)*

Horra Zuberora saihetseko adibide pare bat:

*xahartzeari juin tzü geo re hek e (Ber)
gio hek ttipitziai ardi zunbait ezai (Olh)*

Domintxainen adibide hau bildu da (EHHA):

*negüan etzen iten atsaldeaskariik, egüna finitziari, argia re khario bi-
tzen, goizago iten zen, gaua lüzatziari etzen hainbeste jaten*

7.3.4.5.6. Denboran ondokotasuna adierazten du *eta* partikulak aditz nagusiari atxikitzen zaiolarik:

*behaizi gauza at erran, uai jendia etzu kunkurtzen etzu eta hola xahartu
ta etzu hola holakatzen (Ora)
ene senhaRain aita-amak eonak tzitzun han hek e heentik joan ta
ezkondu ta bihaamunean joan tzitzun Ameiketaat (Ost)
jeik eta arrunt behiak suañatzen tzitzien, e; gu haurrak, bon, askal ta
eskolaat partitzen gintzun eta geo heek alhorretaat ta juiten (Ost)
ba... gerla finitü ta alqamanak ehentik partitia^k tzien ba (Lab)
partida finitü eta baskaldü eta baskal eta, berriz etxeat jin (Ame)
nik ohitzapen gaixtoa e, hori, ez ^hurik ukhaitea etxea eta (Zoha)
bo, ddau[ž]e, etxea eta ez ginizin pleñützeik e, zarta at bildiko gindien,
‘ta fite (Arbe)*

7.3.4.5.7. Arestian bezalako adiera dakar *ondoan* adizlagunak aditzari lotzen baldin bazaio:

*bethe undoan etxeat ekhartzten gindian, ze (Ilh)
ta heentik haat Seint Jean de Luzera joan ondoan (Ame)*

7.3.4.5.8. Denboraren muga bat adierazten denean, aditz jokatuari loturik *-(e)no* atzizkia baliatzen da Euskal Herriko eskuinaldean. Ez da atzo goizeko egitura, Bernat Etxeparerena da 1545eko adibide hau (1980: 62):

*beccatoreac dolorezqui sugarrian lurrian
hariqueta dançuteno sentencia gaynian*

Geografikoki mendebaletik hasirik lehen adibidea Gipuzkoako Oiartzunen bildu da, Ergoien auzoko emazteki batengandik (Fraile & Fraile 1996: 137):

*aurra beakin zuiño ama arrek izugarrizko sustantziya zakala aurra in
arte*

Oro har eta salbuespenak salbuespen, Ipar Euskal Herria da egitura honen eremua egun; errate batera, Nafarroa Garaiko Aezkoan ez dugu sekula entzun. Baxenabarren anitz ibiltzen da, Arberoan bildu ditugun adibideak lekuko; hona etsenplu bat:

ttipian etxian tzieno (Meh)

Hona Zuberora saihetseko Arüeko etsenplu bat:

eta phausa amiño at, erretretan giemo bear dizi profitatü

Amiküzeko adibideak dira honako hauek:

*gu ttipi-ttipitik usatiak gituk eta, aita ta amekin beti ikasi dik orei ta beti
seitzen, beti ta, hun giemo, bate hun giemo seitiko dik, eun e oono sarri iuain
gituk ba... (Amo)*

ari gintien egünean goizik jeiki eta ats artio, enfin, ageri zemo (Lab)

*ezpeitakit ze pentsatzen düten, ze eineuten, jein tzi egün bat, segidaik
ez, beharko tzie lürrak tsaldü, bizi diemo eta, ezpatüzte bizi d'emo saltzen,
gio... (Gam)*

ahal duano inen diat (Zoho)

ba eauntsi izit ba leitzen gazte nintzano (Arbe)

Oztibarren ere halaxe da:

Jinkuak uzten niemo (Ibarro)

bero deno (Donaix)

7.3.4.5.9. Denbora muga bat finkatzen du *artean* postposizioak ere:

ura jiteko artean behar tzin iduikatu, e (Bith)

*eskolaa joan nüzü, enakizün bate frantsesik, pikotik e' [irri], ordian,
frantsesa ikhasteko artian denbora poxiño at joan tziüzün, ta geo errientsa
khexü ta emaiten tzauküzün pünizion^e at (Arbe)*

*ta üztallatik eta ondoko urtheko arthoain iteko mementora artian bitzen
ilaite andana pasatzeko (Sor)*

7.3.4.5.10. Lehenagoko denbora adieraz daiteke *aitzin* baliaturik:

*eta kurritzen ta oro zen? (...) ba hiru urthetan kurritzen tzen deia, ehitu
aitzin kurritzen tziteken... uai e kurritzen da edo invalide da? (Ora)*

7.3.4.5.11. Aldiberekotasuna adierazten du *arau* hitzak denborazko inguru-
nean gertatzen denean:

*jin arau juiten tzüzun sehi (Ost)
bena, jin arau, eta... ukhain düzie sosa giileat (Ilh)*

7.3.4.6. Perpaus kontzesiboak

7.3.4.6.1. Era bat baino gehiago dago adiera kontzesiboa emateko. Ipar
Euskal Herrian ohikoa da Arberoako Armendaritzen bildu dugun honako era
hau:

nunahi izanik ere jinen da

Egitura ez da ezezaguna Zuberoan, Urdiñarbeko honako bi etsenpluok
lekuko:

*igantia izanik ee, lanilat [3]juiten nüzü
beant izanik ee, heben egoiten ahal hiz.*

Amiküzen ere ibiltzen da:

*zonbanahi xuxen ibiliik e (Bith)
hauRa ez bathaatia izanik e ezartzen tzizien ilherrietan, bena baste-
rrean (Bith)
zomait aldiz emazteak e elga... izanik e ama-alabak etzü bethi ai[ç]e
(Zoha)*

*bena biziki-biziki huna zün ollaskoa, izanik e hotza, gotik jaten tzü ta
gañean ta ingürria in eta LaRañen gaindi ta etxea jin (Donap)*

Perpaus kontzesiboetan eta moduzkoetan ez dugu *-rikan* aldaeraren adibi-
derik sumatu ez Amiküzen ezta Oztibarren ere.

7.3.4.6.2. Arestikoen iduria da idazki zaharretan ageri den beste egitura
hau, “*edin = *ezan aditz jokatua + ere” egitura duena (c. 1740: 116):

*Ez, eguin leçaque sacrilegio higuigarri bat, cofessa litçan ere berce
becatu guciac*

7.3.4.6.3. Egitura haboro dago Amiküzen, errate batera *nahiz* partikula darabilena; hona adibide erakusgarri zenbait:

*hori etzen makhiirra haundia, e, geo, geo, jatekoa re mehe gindien e,
nahiz, españolak e Gürtzen izan dienak, hek e, hek e intzüiten tüü jatekoa
mehe züiten (Lab)*

Amorotzen bizi zen eta Bardozen sortu zen lekuko batek —ama bardoztarra, aita oragartarra— Trebitschi etsenplu hau eman zion 1913an (68):

jende erdi prauetarik jaliten nüzü nahiz beren etxen zien

7.3.4.6.4. Ikusi ditugu 5.3.4.20. §-n *nahibada* partikula kontzesiboaren etsenplu batzuk, gure eskualdeko testu zaharretan ageri direnak. Geroztik Zuberoako eta Erronkariko perpaus kontzesiboetan entzuten da, baina Amiküzeko egungo gure datuetan ez da ageri; lehen adibideak Zuberoakoak dira:

*ceren eta, nahi bada Jesus-Christen merechimentiez baicy etzen ihour
sartcen ahal Celietan; Gincouac nahi beitu halere bat bederac eguin deçan
ahala oro bere aldeti (Eskiulako idazki bat, 1758: 4)*

Charlemagne pastoralekoak dira beste hauek (Oihartzabal 1991):

*guerla bates jcousten duçu çounbat milla hiltcen den baquia eguin
eçaçu nahibada houraç costaren diren (263-4)*

*eztiat dudatçen haren lagunçia nahibada ene aitaq galdu dian biçia
(291)*

*nahibada alhaba çian Didieren emastia maite uqhen leçan qhiristi
leguia (368)*

EHHA-k Bearnoko Eskiulan dakar egun *nahibada*-ren erabilera Zuberoan; aldaera nagusiak *izanagatik* eta *izanik e* dira Xiberoan, baina ibiltzen dute *nahiz* aldaera xiberotarrek.

Hona Mendigatxa erronkariarraren *naibeda*-ren adibide bat (Estornés Lasa 1984: 66):

orai xa eztaud isartan obro, naibeda eztakiola balio bakotxa re

7.3.4.6.5. Ipar Euskal Herrian orokorra den eta Nafarroa Garaiko ekialdeko eskualde zenbaitetan ere ageri den *alta* partikula baliatzen da Amiküzen ere:

nik eztiit seküla-seküla ukhan enegiik nihüekin, alta, zumait plaza kürritü üt, e, zumeit ehün plaza (Ame)

7.3.4.6.6. Oztibarren *solo* mailegua ager daiteke perpaus kontzesiboetan:

ardi ederra, solo eztik behin ee umeik inik (Jut)

Amiküzen *solo* eta *solamente* aldaerak entzun ditugu, baina adibide bakan:

nik alanbrea pa[ʒ]a eta artho elge atian sarthü, solo enizin joiten memento hartan (Larri)

makiñunekin kaale at saltzen tzelaik, denboa artan nausi haundi hoiek bazizien apepres been makiñuna, e, ben makiñuna, ena solamente etzezañak etzin saldü behar makiñunari nausiari erran gabe, a, ez, ez, ez, ez (Gam)

pualla xe^e oriek eta hola, ützen, zeen eta xiixen den bezala, lürra, erdia lana edo errekolta erdia ina zün, ja solamente, ollaskoa heldü zelaik, urthia heldü zelaik, urthiain bürian, bi ollasko pare (Gam)

Testuetan beste erabilera dute, adizlagunarena:

G. Jesu-Christo behar duguia adoratu Eucaristiaco Sacramendu sein-dian? E. Ez, solamente adoratu behar dugu, bainan eguin guineçake becatu ezpaiguineça (sic) adora (1786: 132)

...eta ikhusiko düzie efeko miragarria, ez solemente (sic) idien xarmen kontre, bena orano erranen derautazie... (Jauregiberri 1891: 72)

7.3.4.7. Xedezko perpausak

7.3.4.7.1. Aditza jokaturik denean **edin* eta **ezan* laguntzaileak baliatzen dira xedezko adiera eransteke:

hura ain gañean ezartzen tzinien pulunpetan ixur etzain, ta gio hartaik untzien ikhuzteko ta... (Uha)

Bestela aditz trinko arrunta + *-n* egitura aipa daiteke:

gue demoa ina bitu^u, oai gauden gu ixilik goxoki (Ora)

7.3.4.7.2. *amokatik (eta)* partikulak ere xedezko perpausak eraikitzen ditu: egitura *amore* hitzean oinarritzen da eta hizkuntza erromanikoetan kidetsukoak ditu, errate batera Nafarroa Garaian edo kaskoian. Euskaraz batez ere Ipar Euskal Herrian da ezaguna, Zuberoa barne. Bizkaian bada *amorearren*, baina

ez menpeko perpausen sartzaile, jatorrizko balio semantikoari uztarturik baizik, OEH-k dakarren bezala “por el amor (de)” adieran.

Akizeren menpeko Baxenabarreko 1740 inguruko katiximako hurrenen adibidean *amore* sortzezko bere adieratik hurbil ageri zaigu:

E. Ene Gincua maite citut ene bihotz guciaz, gauça gucien gaiñetic, eta neure laguna neure buria beçala çure amorecatic (8)

Arestikoaren iduria da 1786ko beste hau:

E. Ceren fediaz, sinhesten baitugu Gincou baitan Esparançaç eçarten baitugu goure confidancha haren baitan, eta Caritativ maitatcen baitugu Gincoua, eta Proximoua Gincouaren amorecatic (64-5)

Lapurdiko itsasaldeko herri xumearen gutunetan ere agertu da egitura (Lamikiz, Padilla & Videgain 2013: 337):

cuei bi lerroren eschribaceco jaquin deçaçuen amoreac gatic cuen aita eta amaren...

Nafarroa Behereko iparraldeko egungo datuetan partikula hau xedezko menpeko perpausen sarrarazlea da. Ez da beti era berean erabili; testu zaharretan xedezko perpausaren bukaeran ageri da, baina ahozko egungo datuetan xedezko menpeko perpausaren sarrarazle ageri da: *amokatik* (*eta*) delakoaren ondotik xedezko perpausa ibiltzen da egun.

Horra nola ageri den 1740 inguruko katiximan (35):

G. Cergatic pizteco egon cen irur-garren eguneraino? E. Haren hilciarren eta piztiaren gaignian dudaric bathere içan ez çadin amorecatic

Beste hau 1786koa da (73):

G. Cergatic erten da Ave Maria Paterraren ondotic? E. Ceren Gincouas landan Virginia Seindiari behar baiguira adressatu principalki, eta errachkiago jardirex ditçagun amorecatic haren arartecaritarçunaz Gincouari Jaunaren oracionian galdeguin dazcogun gauçac

Zuberoan Belapeire da lekuko eta perpausaren aitzinean ageri da *amorekatik*, egun Amiküzen legez (I, 22):

ahalaz hontara erakhar ditcen bere haur, mithil eta nescatoac, amorecatic ikhas ditcen fede Catholicac daduzcan eguiac

Cerquand-en XIX. mendeko ipuinetan Baxenabarreko Baigorri eta Garazi eskualdeetan ere bildu zen egitura hau (1985: 19 & 33):

*othoizten zaitugu ardiets dauzkigutzun lau gauza gu guzien nagusia-
renganik, amorekatik eta izan dadin gure erresuma bethikotz uros (Aldude)
jaik hadi, espaka gaiten argia gabe, amoreagatik atso hori gutaz trufa
ez dadin (Garaziko Izpura)*

Amiküzeko Ilharren egitura bertsua aurkitu dugu, *amokatik eta* xedezko aditzaren aitzinean kokaturik, horra hiru etsenplu Ilharreko:

*biltzen gintian berriz eskolalat eta atxiitzen gintian eskolan oren pare
at amokatik eta aRaikhasteko, ze
heskuaraz, baño heldü uk biarnes bat edo kaskoin bat heldü uk gure
grupalat, hua han delakoan hasiko *itzak elheka fRantsesez, amokatik eta hak
e konpReni dezan, bena bi miniütan aatzea diⁿk hua, han dela
izan dain gizuna edo emaztea, ze, hoi ai tuk, zendako, amokatik eta
ai[^z]exago bizitzeko, ze...*

Labetzen ere *-in amokatik* entzun genuen eta Laphizketan ere bai; hona herri honetako etsenplua:

gio beRiz gainbehera, otoak atxii zezan amokatik

Arberoako mehaindar batek emana da xedezko adieran beste hau:

amookatik eta bakia eman dezakan

EHHA-n adibide gehiago dator:

eta hori amokatik etzain eror (Arbo)

Aturrialdeko Bardozekoa da beste hau:

*alimale basek hümia in eta lekhatzen ‘milikatzen’ dute untsa, amokatik
eta predaturrek eztezaten sendi, usaina joan dain*

Hurranen adibideak ere Amiküzekoak dira, baina iduri luke kausa-arrazoizko kutsua dutela:

*hartako ginakozün guk semiari eta... erran gindakozün etziela balio
güre amokatik etxen egoitia, bena hak nahi ziⁿ laboantxan ari (Arbo)
erli[^z]ionia eta amokatik, arai^z (Arbo)*

*heen Franzian prima hunkitzen düte eta behiendako ta prima amooka-
tik behaR tie behiek eta ekhaRi (Ber)*

Beste hauek EHHA-k bilduak dira:

*xarpanta amokatik, müriak egiten duelaik züpor (Arrü)
eta gio han ereiten hazia, bipherra ta tomatia, aza re nahi bazen, gio
kukutzen kharroiendako amokatik, estalgi bat iten lastoz (Arbo)
gio lüze hola üzten düte gioko pusain amokatik xutik direlaik arboliak
(Arbo)
uai ezfik iten ahal artho-hazitakoain liliain amukatik (Dom)*

7.3.4.7.3. Xedezko balioa du *-ko* atzizkiak aditz-izenari loturik doanean euskaraz eta Amiküzen ere erabiltzen da; hona etsenplu sorta bat:

*lanean artzeko (Amo)
ta gio eman tzakiuzun lur heen, etxe hunen iteko lekhia, lurra eman
tzakiuzun... (Amo)
aatxe at edo biga edo emaiten tzitien eta gio emaztek e zareak otoain
gaiñian, eta, saltzeko, saltzeko (Lab)
ezartzen tzitien pie[3]ak fuñ hein hatzemaiteko edo axeria edo, hetaik
^hatzemaiteko, o, hori ai zen ba biziki ^hortan (Lab)
jin tzelaik moda lur berrien iteko maxinekilan (Arbo)
mahañen ezarteko atsaldeko kermezaen iteko (Olh)*

7.3.4.7.4. Xedezko kutsua du *-kotan* atzizkiak ere, beste eskualde ba-
tzuetan asmoa azaltzen duena; herritarrik gerla ondoan Alemanian gelditu zen
galdeturik honela erantzun zitzaigun:

ez han etzü gelditü bizitzeko... tan, ez, hentik ez, Arrütatik etzü (Arrü)

Eta Frantzian asteko lanorduen arautegia 40 → 35 jaisteaz diharduela xedezko kutsua ikusi uste dugu lekukoaren gogoan:

*jendia kunten tzen behin, berdin iaaztekotan eta, berdin iaaztekotan eta
giütio lanean artzia, bena, he, uai... behar zi ari, e (Laph)*

Oztibarren ere xedezko balioa du (Videgain 1989):

*behorra berdin-berdina uzu, umia antzutu nahi mendian uztekotan
(Ibarre)
pikalozkia da aurthikitzekotan (Jut)*

7.3.4.8. Moduzko perpausak

7.3.4.8.1. Moduzko perpaus jokatugabeetan partizipio bururatua beharrean aditz izena agertzeak Zuberoan dirau egun, baina iraganean hedatuago zegoen ezaugarri hau Ipar Euskal Herrian, Lapurdiko literatura zaharrean ere gertatzen zen. Hona Zuberoako adibide alde bat:

a, bai, bo, ni üsin... üs... üsü üskaaz ai gütüzü bai, xaharren artin, bena uai xaharrak ai tützü gütitez bethi, o'din oai, oai frantse[ž]ez üsatiük gütüzü artzea (Sarkp)

alkhar maite bēhār giniek dügün beno haboo uano, alkhar lagüntü ta geo orro ius tuk alkhar lagüntez (Oih)

eta ordin hek libertitzen ai eta libertitez ni in nünten han (Oih)

kartai [ž]arraikitzez, ta enintzan nahi galdü, lotsa nündian treiñ edo zerbaiten hartzea, galdüko nintzala (Urd)

Arüe alderdi horretan bi joerak gurutzatzen direla dirudi, eredu bateko eta besteko bina etsenplu entzun ditugu:

geo bazin betterra, eta ordin [ž]uiten tüzün aphezaikin betterrak eta etxetaa emaite komünionean edo oono xilintxa atekin hola [ž]oitez

in aala güti, etzü aphezik ee aski [eta meza beti herrian dea?] khandia-tzez, behaizi biziki eman geo, biziki meza

[ta egurraen ekartzeko nola iten duzie?]: ta iosiz, ta hunek ekhartzen tzi horra ke[ž]a horta, hortxe beita ke[ž]a hoi ezartzen tzi hunek betheik eta hola

maite gintzin gahná, bana eosiz, a, āhāl tzen lekütik, ez egün ooz khandio e

Aldiz, Amiküze ondoko Zuberoako herrietara hurranduz gero gauzak aldatu direla dirudi:

zumeitzük uste ute bizitzen ahal dela jendia lehen bezala eta amiña at inez, jatekoa etxen inez eta, bena hori ezta iten ahal (Dom)

belaR idoRa einez (Ber)

Halaz guztiz ere, Zuberoa ondoko Amiküzeko ekialdean bederen, aditz-izena entzun dugu adibide batean:

uai, uai, uai, erten deiat, uai libertitez ai zizte lanian (Zoho)

Baina Zohotako lekuko honek berak ematen ditu honelako perpausak bestaldera ere, partizipio bururatua baliaturik:

*aski divis... e^hekatüz eta aski zertüz, arrañatüz in dik zeit
ta hua ai zian gieletik ereiten, amak erein tik, lau erreka hola, ütüz
artia arraen lekhia*

Ondoko Arbotin ere partizipio bururatua entzun dugu:

*jendea plantatü amiña at bere gi[ž]an, quoi, bere xokhoan, erranez,
bon nik uai eztiat nihuin beharrik eta nihauk iten al diat eta ale
a, nahi balima diüü ba, na pha^htüz*

Moduzkoak dira Amiküzeko beste perpaus hauek ere, baina ez dakarte aditz-izena, partizipioa baliatzen dute:

*lanean ariz (Barta)
jeikitzen a^hal tziira goizian seiak et'erdietan beatzi oenetan ohera joa-
nez (Amo)
hak hartzen tzintien... ta etxeateko re bazun hala-hala balin bazen,
ekhartzen tzizien phaatur, hua re (Ost)
bi heRiak xerbitxatzen tzitzin, e, aldizkatuz, baakizü (Gab)
aitaikin hasi, ta ene demoa üzia lasto meta iten bethi eauntsiz (Ame)
ba, aphezak erranik, ez leitüz, ez, ez, ez, ez, egintzin leitzia maite (Zoha)
ba, butilla at juiten tzün phartikatüz, e, ordian denak eoiten tzitzün
zernahikin (Donap)
denbora heetan bi errekolta mota iten tzien eta khanbiatur, urthe atez
a^hor bat artho zen ta beste alorra ogi (Sor)
arthoak biltzen gintien artho a^horrean kurrituz, bi lagün elgarri jarrai-
kiz saski bat artian kurriaaziz, artho büriak hartaat biltzen gintien (Sor)
xekhatuz-xekhatuz (Sor)
etxen inez (Dom)*

Oztibarren ere partizipioa baliatzen duten perpausak bildu ditugu, beste-lakorik ez:

*uai, merkhatieta ta ibiliz mentuaz mintzatzen dira usio jendekin (Zib)
eginez ikhasten duk makilen eiten, ariz, ari beha ik (Ibarro)
intzunez ikhasten duk eskuara (Donaix)*

7.3.4.8.2. Badira perpaus jokatugabe batzuk soziatiboko atzizkia daramate-
nak; egitura hau usu entzuten da Amiküzen; moduzko eta denborazko adieraren
artean leiratzen dela iruditzen zaigu guri bederen:

ene gizona hangoa izaitaikin hak bazün familia Beauzen (Behau)

^hori liburu batzu leitziaikilan (Bith)

naski elgarrekilan bizitziaikilan aisi da zonbait aldiz a^harran, etzu bethi ber ideiak, bena gio fite pasatzen tzu, be^har bita egun guziez bizi, eta gio katiximan e ikhasten... aakustea emaiten txin be^har tzela lagun protsuma maitatu (Bith)

ondoko urthian, e espusatü; ofizioik ez ukhitaikin muthil-neskato phar-titü, voilà (Mar)

7.3.4.8.3. Zuberoan, Erronkarin, Zaraitzun eta Nafarroa Beherean baliatzen da *-en ber* konjuntzioa moduzko perpausetan, “-en aldetik” edo “-enez” adieran; guk Zuberoako Larrainen *besta den ber* adibidea bildu dugu.

Hona Erronkariko Mendigatxa bidankoztarraren beste bat (Estornés Lasa 1984: 62):

aren eskutik xin dein ber, izan deila komeni dena

Arberoan ere ibiltzen da egitura hau:

laboraria den ber, bazakik eztela holako aroaekilan alorreat joan behar edo landala joan behar (Meh)

Oztibarren ere *ber* ageri da baldintza kutsuko perpausetan:

eiten duzien ber berdin zaut (Jut)

Lapurdikoko mugako Bardozen *EHHA* atlasak bildua da etsenplu hau:

tenorian arribatzen den ber bardin zatak

Amiküze eskualdean etsenplu batzuk bildu ditugu:

heldu den ber ez zatak inporta berant jinik ere (Ame)

garbia den ber etxen onhartuko diat (Ame)

atsaldetan ezpazen epizerian lanik, juiten nintzan ni neskatoaikin berdin khanbea xähätzen edo zeeit ai nintzan, etzatan inport eni, lanian ai nintzan ber, zeeit, bena untsa ikhusia nintzan biziki (Olh)

Eta *EHHA* bildumak beste hau dakar Domintxainen:

artheta xarra zen ilharra zen lekhian, lehen oro behar zitian, etxengo artheta zen ber etzitian saltzen

7.3.4.8.4. Moduzko kutsua du *n arau* egiturak ere:

intzüten düdanan arau edo (Arbo)

7.3.4.9. Perpauk hautakariak

Saihetsetako euskalkietan ohi denez, Baxenabarren ere *ala* partikula hautakaria ibiltzen da, eman dezagun Oztibarren. Honakoak Amiküzen bildu etsenpluak ditugu:

Barbari Babon jan tzak hau, bon, gaur ala bihar, gaur, gaur, gaur (Ora)

eztainat gau berian ala beste gau batez (Ora)

geo Omia Saindu al' ez kri[é]antema tun kurrentian (Bith)

bena lanak, negukoak dorpio tzu, talliakilan, izan dain i^sande, ala iakoitz ala euria, ena kaaliaikin bethi beauzu lana (Uha)

hilaite oroz ala urthean, eniz ohoit (Lab)

nahi ala ez (Lab)

na Peio horrek maga[é]jina Dantxarian gañan dik, bena peko hori die dautzaazi, ala ez? (Lab)

negü güzian ñao khentzen, izan tzain euri ala xol, khentzen (Laph)

izan dain gau ala egün (Laph)

7.3.4.10. Galdera perpausak

Zati galdera ez direnetan, bai/ez galderetan *-a* morfema ibiltzen da Euskal Herriko ekialdean. Honezaz landa, galdera denean *bai* eta *ez* adizlagunetan ere ageri da; *baia?* galdegin digute Amiküzeko Martxüetan eta Uhartehirin eta Zohotan, berriz, *eza?*.

Badira kutsu bereko gehiago ere:

nitakita 'ba ote dakit nik' erakoak (Ora); cf. *nik dakita!* (Arm / Arrü, Donap / Etx, Loh); *nik debru akita* (Amo); *baakita* (Uha); *dakita nik* (Sarkp)

Adibideak ausarki ageri dira; hona Nafarroa Garaian Zaraitzuko Espartzan 1982an bildu genuen bat:

orai, ikasten diea dotrinarik?

Itxaron genezakeenez Baxenabarren ere ibiltzen da, Arberoako adibideok lekuko:

oit zirea? (Arm)

oit hiza esku xurietan? (Arm)

geeziak hundiak direa, to? (Meh)

Oztibarren ere bai: *abian dea?* (Hoz).

Zuberoako ipar-mendebaleko Olhaibikoa da etsenplu hau:

benā ni bethi iaan nīz ene kartaikin, ene ama, hua lasterkaazi zūten bai nunbait, hīria re ba... hīria re doi eskapi edo etzena?

Hona Amikūze ibarreko adibide alde bat:

benā ziek eta sportif horiek pelotariak bezala biziki khario phaatzēn tuzie... benā ni... hēmen denak harritiak tuk, ta geo ba intzun dik, eztakiat egia denez e, eta Tintinek batiela hoita hamar miliun ilaitian, egia dea ho'i?
(Ora)

eta badea besteñean eta zien eskualdean beltzik? (Ora)

a, badia ... dotzena bat urthe badia? (Ora)

ba, ba, nahuka hik e kholpu at? (Ora)

etzia ezautzen? (Amo)

eta otoak eta baitia? (Amo)

haur horiek gaixtoak dira?(Bith)

konprnützen tzia zer den, ba? (Mar)

bauka burutik? (Ame)

kürkürīa baakizia zer den? (Zoha)

khusi üzü meta at fotoan bedeen, khusi zia? (Donap)

“konfirmasiāone” baakika zer den? (Zoho)

“ordinatorra” bakika zer den? (Zoho)

kafe xurta at hartiko üzia? (Arbe)

ai dira urzoka ta han e? (Laph)

ta badea aRano ta hoitaik han? (Ber)

Iduri luke guztizko galdera ez bada -a gabe ere egin daitekeela. Martxüetako lekuko batek galdera eta eskaintzaren arteko zerbait egin digu honako perpausean eta ez dakar a morfema: *kafeño at edain tzu*.

Beste batzuetan ez dugu -a morfema sumatu: *eta baakizu nun den?* (Amo).

Beste batzuetan zati galderan ere a partikula agertu zaigu, arras kasu berezian:

jakizak khexüt... khexatü gin^dīela biak, han etxe zaharrean gintian oono, e, ta, ze gerthatü zena? (Zoho)

7.3.4.11. Galdera ez diren inguruneetan *-a* morfema

Honakoan galdera baliorik ez duen *-a* morfemarekilako etsenplu bat aurkezten dugu:

jendiak, jendiak eztik bethi büria egün ooz konduitan, baituk, baituk juiten beitia enerbatüik, bidian badia afera zeit juiten eztenik eta... eztik estonatü behar (Lab)

Ez da guztiz berdina beste etsenplu hau eta beharbada galdera dago lehen aditz horretan, baina badu formula kutsua hala ere:

hi bahiza ni ere banuk eta are! (Amo)

Zuberoa mugako Oihergin ere entzun dugu: *bate ohit niza.*

7.3.4.12. *othe* partikula modala

Eguzkialdeko Euskal Herrian galderazko perpausetan *ot(h)e* partikula estraposizioan erabil daiteke, aditzaren eskuinean: Arberoan, Amiküzen, Zuberoan, Erronkarin eta Zaraitzun gertatzen da. Hona Zuberoako adibide bat, Altzürüküko Grégoire Epherrereña (1929-1974); cf. Davant (2009: 131):

Bazakiana ote de la Villeheliok ere bildü zütüiala zazpi kantore horik?

Johañe Epherre (1931-2004) Altzain sortuak ere badakar bertso batean (133):

Egün hau berhezia zertako den othe?

Zuberoako iparrean, Larrabile herrian *jin dea othe?* erakoak baliatzen direla erran digu Davantek. Baina Zuberoatik kanpo arauzkoa den era ere bada Zuberoan. Lekuko urdiñarbetar batek dioskunez, ohiz [3] *jin othe da?* erako egitura baliatzen du berak.

Gameren bi etsenplu ditugu (Otsibar 2003: 9):

jelos niz botxü hura ez ote zenez lehenago Bosmendieta gainean

Miñarri mendiaren sabela gatzez beterik ote dateka? (16)

Xahok XIX. mendean honakoa dakar (Davant 2009: 46):

izkiriba neikezüe eüskaraz zer lege berri egin ote dükeie(n) züen depütatü berri horiek

Dominique Achigar zihigarrarena da *jakiteko zer ote den* (Davant 2009: 88).

Nolanahi ere den, Otsibarren beraren hurraren adibideak gaia hobeki aztertu behar dela iradokitzen du: *ez dakit nik nola ote egiten ahal zūkean* (2003: 81).

Baztangoizan *eztuzu ote izein penik?* adibidea dakar N'Diayek (1970: 231), baina Paskual Rekalde filologo amaiurtarrak dioskunez, egitura hau egun ez da arrunta Baztanen.

Amiküzen eta Arberoan egitura hau ez da ezezaguna. Armendaritzen *horren aneia erdia da, ta nola joan da othe?* bildu dugu lekuko batengandik, baina inkestaren bidez beste kokagunean ere bildu dugu *othe* bigarren berrie-maile batengandik:

amatxi lholdiko othe zena? / alhaba nun othe dut? / senharra jin othe da?

Mehainekoak dira hurrengo etsenpluak:

jein 'jinen' dea othe?

eztakit ardi horrek bildotxa ukhain dienez othe gaur

Dena den, Mehaineko lekukoak arazorik gabe onetsi ditu *othe* partikula aditz nagusiaren ondotik eta adizki laguntzailearen aitzinean zekarten adibide proposatuak.

Amiküzen ere badira adibideak estraposizioan:

geo biziki eta, Paisen biziki portüges e bauzu, portügesak ezp'itakit nik zendako, rebolüzione demoan jindak dienez othe, nolaz [ʒ]inak dien he^ek, ala gehiao sosen iraazteko jinak tzien ote Frantziaa? (Ora)

ezpitakit nik lamina horiek zer zien othe (Ora)

deklarazione egunean zeñiak jo zutela, gerla zela ta denak izitiak, eta uai nor joain da ta hau joain eta, aita joain dea othe? Gu bost haur biginen, ordian aita etzun joan, ta ono biziki bazitzun jelosi zienak, aita gazteik ezkundia bitzen, ono gaztea bitzen, bena bost haur biginen, ordian hen egon tzun ta beste atzu zaharrokoak joan (Bith)

Oztibarre eskualdean ere estraposizioan ager daiteke *othe* partikula:

jinen da othe? (Larz)

7.3.4.13. Emendiozko *ere* lokailua

Eguzkialdeko Euskal Herrian emendiozko (*e*)*re* lokailua aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean koka daiteke; honelakoetan baliteke halako hanpadura egotea, baina hala izatera, kasu bakoitzean lokailuak sintagma jakin bat ala perpausa osorik harrapatzen duen argitu beharko litzateke; adibideak ugari eman daitezke. Aezkoan hauek bildu genituen XX. mendearen bukaeran:

Aurride gaeteik 'haietarik' egon ere zire gena 'hona' bixitan (Abaurregaina)

Badaki ta elekatzen ere du (Abaurregaina)

Erraten ere du berorrek (Abaurregaina)

Kuidatu ere dut (Orbara)

Meatu ere da polliki (Orbara)

Urrian 'irailean' ere gira (Orbara)

Itsusi ere zeo gor 'hor' (Orbaizeta)

Literaturan Frantzisko Lapitzeren adibidea ekar daiteke (1978 [1867]: 132):

ohartu zenean Iñazioc beretzen ari zuela, mila gezur ekharri ziotzan Iñazioren contra. Bainan haren gezur tzarrac gaitz hartu zituen Zabiarec eta ichilarazi ere zuen.

Gure eskualdeko idazkietan 1740ko adibide hau ekar daiteke gogora (94):

bai, ezeztaitcein tu batheatu bano lehenago eguin cirenac oro, eta erremetitcein ere tu heerr çorr cicezteen pena guciac

Hona orain Amiküzeko egungo etsenplu batzuk:

serorekilan josten ikhasi re dizi biziki, ta trikota iten e ba (Arrü)

jaten e zizien, buf (Laph)

EHHA-k Arbotin gerthatü re düzü etsenplua bildu du.

Oztibarren ere adizki nagusiaren eta adizki laguntzailearen artean kokatzen da *ere* partikula hanpadura egoeran.

7.3.4.14. *non + ez + aditza + -(e)n* baldintza perpausak

Ohikoa da “*non ez + aditza -en*” egitura Ipar Euskal Herrian eta Amiküzén ere entzuten da baldintza egitura hau:

a, ba, nun ezten zeit edo noit, edo rübia edo zeeit edo zer, zer handi, bena, ee, goiz besteñez bethi (Amo)

barnean eoiten tzitzun e kaaleak, nun etzen negu gaixtoa, negu gaixtoa balima zen geldi-geldia ta gañea iortzen tzizien amiña at alhatzea ta geo biltzen berriz ta geo deizten ta gio haikin askaria eiten haurrendako, hori zun (Ost)

7.3.4.15. Galdegaia

7.3.4.15.1. Hego Euskal Herrian aditzaren aitzinean, galdegai-gunean, ez daiteke beste inolako osagairik ager, non eta hau ez den galdegaia. Ipar Euskal Herrian ohikoa da beste eskualde batzuetan galdegaia baizik koka ez daitekeen gunean beste osagai bat agertzea; hurrenaren adibidean, nolakotasuna adierazten duen adizlagunari berez dagokion galdegai-gunean subjektua kokatu da:

beno hun tzi ikustea bestetan e nola jendea bizi den (Mar)

Arestiko perpausean ikusten da jendea nola bizi den, ez bizi denez; beste euskaldun batzuek *jendea* subjektua *nola*-ren aitzinean edo *bizi den* aditzaren eskuinean kokatuko lukete. Hurrenaren adibidean ere bada honelako zerbait; berriz ere *nola* galdetzailea dugu jokoan eta haren eta aditzaren artean adizlaguna ageri da:

ithurri hura, surtsakoa nahio izie, arai, baakizu nola errokan jartzen dien eaten? (Uha)

Gaineratekoan, euskara orokorrean legez Ipar Euskal Herrian ere galdegaia aditzaren aitzinean doa, hurrenaren adibideak lekuko:

ordian ai[é]e zen eskualdun izaitea, oai da nekezia eskualdun izaitea (Meh)

ena uaiko aita amak zu lehenekoak beno aulo (Amo)

7.3.4.15.2. Aditzak *ba* morfema hartzea da aipa daitekeen beste gai bat, berez morfema hori atxiki izanak ñabardurarik ez dakarrelarik; hurrenaren etsenpluak balio digu, zeinetan galdegaia ez baita aditza, *zonbat* baizik:

barda oono ohian ai nintzan kondatzen zonbat etxe baden eroriik (Behau)

hortxe bauzu, zuma bada horra, bizpahirü ehün metra... (Mar)

Arestiko egitura horien ordain, Hego Euskal Herriko hiztun batek *zonbat etxe den eroriik* edo *zenbat da horra* erran lezake. Hurrenaren adibide hau Zohaztikoa da:

eta hak e pasaazten datazi ta... joan nain ikhustea: "so izan ze baden, ze baden, ze arrapostü ükhan düan eta..."

Hona Artien ere nola agertu zaigun:

han lanean, bai, hoita hamar urthe, medalla hortxe baizit a, gaxua, eztaikit zumat etxe baden

Eta Olhaibin ere bai:

bo, zumat baginen han? bagintian andana at

7.3.5. Lexikoa

7.3.5.1. Aurkezpena

Hurrenaren lerroetan eskualdeko lexikoaren izaeraz eta egituraz ildo batzuk finkatu nahi ditugu eta horretarako Amiküzen baliatzen diren hitz ugari eta alderdi lexikoko aldaera foniko sorta bat aurkeztuko ditugu, betiere Baxenabarre orokorreko eta Zuberoako atal lexikoarekiko Amiküzekoak duen hartu-eman argitara ekarriz, ezker-eskuin eta peko alderdian dituen Arberoako, Zuberoako eta Oztibarreko lexikoarekin Amiküzekoak duen loturan oinarriturik. Paradaz balia, Baxenabarre erdiguneko eta hegoaldeko lexikoaz ere idatzi dugu, eman dezagun, Oztibarreko lexikoaren nortasunaz edo honek ondoko Garaziko eta urrunagoko Baigorriko eskualdeko hitzekin duen erlazioaz. Berebat, Oztibarren dena Lapurdin ba ote den ere aurkeztuko dugu hitz eta aldaera batzuei doakienez.

Aldi oro, hitz nahiz aldaeren azterketan, eskuinetik jin den eta datorren ekialdeko oldar historikoak eta bestalde Ipar Euskal Herriko mendebaletik edo erdiguneko Euskal Herritik etorri den eta datorren oldarrak Amiküzen zein eragin izan duen ikusiko dugu, hots, orain ere jasaten duen eragina eta honetarako, hitz eta aldaeren hedadura geografikoa albat zehatzen finkatzen saiatuko gara, baina ez dugu estali nahi Amiküzeko ele franko Ipar Euskal Herri guztian gaindi baliatzen direla eta beste anitz Euskal Herri guztikoak direla, horregatik emaitzok beregainki eman ditugu 7.3.5.2.3.1. eta 7.3.5.2.3.2. §-etan. Bi sail hauetan ageri den emaitza erakusgarri hutsa da, ez da bilaketa sistematikoaren fruitua eta ez du, beraz, osotasun asmorik; ezina litzateke lan hori gure egitasmo honen

barrenean, guztizko beste ikerlan osoagoa beharko luke izan hori, huts-hutsean lexikoari eskainia eta semantika sakonago landurik, gainera.

Grabitazio-indar linguistiko ugariren menpe dagoen Amiküze eskualde zabalean, konbinazio geolexiko ugari eraiki litezke azterketa abiatzeko tenorean, baina era litezkeen errealitate guzti-guztietan men egitea ere sobera litzateke, liburu honetako lana gaindituko luke; eman dezagun: aztergai diren hitz edo aldaera fonikoak kasu batzuetan Zuberoan eta Amiküzen baizik ez dira ageri, baina beste kasu batzuetan, bi eskualde horietan eta Oztibarren edo bestela, Zuberoan, Amiküzen, Oztibarren eta Arberoan eta usu ere, horietan eta baita Lapurdiko Aturrialdean ere, Bardozen, edo Bardoze, Urketa eta Mugerren, edo hiru hauetarik batean edo bestean. Usu ezaugarri lexikoa Zuberoan, Amiküzen, Oztibarren eta Baxenabarreko ekialdean ageri da, franko eskualdetan eta inoiz baita Hazparnealdean ere, eta beste batzuetan, aurkeztu berri dugun hedadura horretara guztira gehi Lapurdiko barnealdera ere jotzen dute ezaugarriek, ezker.

Ikerlanean “ekialde zabaleko” item eta aldaerak aipatu edo izendatu ditugu batzuk, ezkerrean heltzen direnak, errate batera, Arberoa alderdiraino edo are haratago, Ipar Euskal Herriko mendebalerago, inoiz Nafarroa Garaiko ekialderaino. Ezkerretik edo mendebaletik datorren eragin lexikoak hartzen duen hedadura Baxenabarre erdiguneko Arberoa dago, baina eragin horretarik zerbait Amiküzeraino heltzen da. Halaz ere, Amiküze ibar zabala da, geolinguistikoki ez da berdin Oragarren edo Laphizketan egotea: Zuberoatik heldu den eragin lexikoa eta Baxenabarre edo mendebaletik heldu dena Amiküzera biltzen dira, biak, ezkerretik eta eskuinetik: ez dezagun ahantz, lexikoki ez da eskualde homogeneoa Amiküze.

Eskualde lexikoak finkatzen hasiz gero, “ekialde hertsia” deitu dugun alderdiko item lexikoak eta aldaera fonikoak ere aipatuko ditugu ikerlanean. Eskualdea “ekialde hertsia” deituko dugu ez delako mendebalera hedatzen: Zuberoan, Erronkarin, inoiz Zaraitzun eta Zuberoatik ezker dagoen iparreko Baxenabarren ageri dira hitz eta aldaera hauek, baina ezkerreago ez; Arberoan, Baigorrialdean, Garazin, Aezkoan edo Lapurdin ez ditugu entzunen.

Eta “Baxenabarreko ekialdeaz” dihardugunean zertaz ari gara zehazki? Izendapen horren barrenean funtsean Amiküzeko eta Oztibarreko alderdi lexikoa sartuko dugu, baina inoiz Arberoako hitzak ere agertuko dira zaku horren barrenean, edo Garaziko iparraldekoak, bereziki ekialdera jotzen duten herrietakoak; izen hauek lan egiteko tresnak baizik ez dira, hitz eta aldaera guztiak ez baitira eskualde geografiko berera hedatzen, aldeak daude batoren eta bestearen geografia-hedaduren artean, kasik aleatorioki; nolana ere den, dialektologiak

errealitate konplexu honi guztiari aurre egin behar dio, ezinbestean, hori du bere eginkizuna.

Nabarmena da gure azterketan ezin azter ditzakegula aukera edo geografia-konbinazio horiek guztiak eta honegatik gure jokabidea amiñi bat argitu nahi dugu: hitz eta aldaera fonikoen hedadura geografikoa albait zehatzen aurkeztuko dugu, baina betiere gogoan izanik guk ere mugak ditugula; alderdi batetik gure ezagutzarenak eta bestetik, Euskal Dialektologian egun ezezaguna denak finkatzen dituen mugak.

Honela, Amiküzeko alderdi lexikoa eta inguruko eskualdekoa aurkezteko dakargun eskema ez da norbaitek pentsa lezakeen egokiena, guztiz loturik dago guk datu hauek biltzeko ukan dugun dinamikari eta ibilbideari eta baita Euskaltzaindiaren atlasak atera dituen alor lexikoko bospasei zenbakiei ere. Datu horiekin guztiakin antolatu dugun eskualde lexikoen eskema konplexua da, hein batez objektiboa izan nahi du, baina zientziak errealitateari heltzeko dituen mugen barrenean kokatzen da ezinbestean: guhaurek orain berean dugun ezagutza du oinarria eta honela ulertu behar da. Izanen da eskema hau hobetu eta gaindituko duenik ondotik ere, baina nolana ere den, gure lan honek maila bat goratzen du Ipar Euskal Herriko alderdi lexikoaren hedadura geografikoaz artean ukan dugun ezagutza, bereziki Baxenabarreri doakionez.

Gure ikuspegia Amiküzetik abiatzen da eta berau du helburu; eman dezagun etsenplu bat argigarri: zenbait hitz eta aldaera Amiküzeko sailean sartuko ditugu eta ez Zuberoakoan, nahiz ele edo aldaera horiek gune-gunea xiberotarren herrialdea duten. Irakurleak ulertu beharko du ele edo aldaera hori Zuberoan eta Amiküzén baliatzen dela eta horrexegatik ez dela Zuberoako hitz edo aldaera endemikoen sailean ageri, Amiküze eta Zuberoa batera ageri diren sailean baizik, bestela zorioneko hitz edo aldaera hori bi sail edo zerrendetan kokatzen ibili beharko baikenuke, eta beraz errepikatzen, baina ahalaz liburuan gaindi errepikatzeak saihestera jo dugu.

Jabetu gaitezen, bestalde, historikoki hitz eta aldaerak ez direla beti gune beretan egon: inoiz bazeuden lekuan falta dira orain eta orduan ez zeuden leku batzuetara heldu dira geroago eta hor daude orain. Aldaketa geografikoak jasan dituzte hitzek eta horren jakinaren gainean jokatu behar du amiküztarren lexikoaren aurkezpena xuxen egin nahi duen filologoak; aipatuko ditugun datuetan errealitate diakroniko honen printza guti batzuk agertuko dira. Eman dezagun, garai batean *ürga(i)tzi* 'lagundu' aditza ageri zen Xiberoan, baina egun ez da erabiltzen; *zeli* 'zerua' ageri da Amiküzeko XIX. mendeko katixima batean, baina egun *zerü* darabilte amiküztarrek; eman dezagun, Gabadin *zeria* bildu dugu. Berebat, Beñat Etxepareren 1545eko liburuko zenbait hizkuntza-ezauga-

rrik Zuberoan dirau orain ere, liburu hartantxe zeukaten forma berean gainera, baina egungo Garazin forma horiek gaugeru aldaturik edo garaturik daude eta beraz, 1545eko liburuan ageri diren aldaera horien geografia-hedadura aldatu da.

Aurkeztuko ditugun emaitzek iturri edo jatorri bat baino haboro dute eta ez dira guzti-guztiak garai berekoak, baina bai gehien-gehienak, garaikideak dira kasik guztiak. Metodologikoki ez da hau lan egiteko era perfektua, baina euskal testuak eta euskal datuak ez dira eredu metodologikoak orratzetik hari jarraitu ahal izateko bezain ugari eta aberatsak; ondorioz, ahal bezala jokatu beste biderik ez dugu izan.

Datu gehienak XX. mende bukaerakoak eta XXI.aren hasierakoak dira, guhaurek Amiküzen eta haren saihetseko eskualdeetan grabatu edo bilduak. Ikuspegi hau osatu eta zabaltzeko Euskaltzaindiak *EHHA* atlaserako bildu emaitza lexikoa baliatu dugu, 1986-94 urteen artekoa guti goiti beheiti; bereziki Oztibarreko lexikoaz jardutean baliatu dugu *EHHA*. Liburuaren sarbidean adierazi dugun legez, gure emaitza eta bestea bereizteko *EHHA*-ko datuetako herrien laburtzapenak azpimarraturik dakartzagu: (*Arrü*) *EHHA*-k bildua litzateke eta (*Arrü*) guhaurek bildua.

Oztibarreko datu lexikoez dihardugunean, guztiak edo gehienak *EHHA* atlasekoak direnez, ez ditugu nabarmendu. Baliatu ditugu Videgainek 1989ko tesian bildu Oztibarreko hitz eta aldaerak ere. Aldi oro adierazi dugu datuen iturria zein den; hori izan da gure asmoa, bederen. Dena den, argi utzi behar da Euskaltzaindiaren *EHHA* egitasmoko Oztibarreko emaitza lexikoak Videgainek berak bildu zituela.

Bestalde, *EHHA*-ko datuez dihardugunean, lexikoaren azpiatal honetako hitz edo aldaera batek gainean izarñoa daramanean, euskal atlaseko ohitura grafiko bat adierazten du: ulertu behar da *EHHA*-ko inkestagintzan lekukoari berak berenez eman ez zuen hitz edo aldaera bat proposatu zitzaiola eta berak herrikotzat onetsi zuela, 1986-94 bitarteko inkesta garaian herri horretan baliatzen zuten hitza dela; eman dezagun: **jela*.

Arestian aipatu datuez landa zerbait aurkeztean edo testu zaharrago batetik zerbait hartzean, xuxen adieraziko dugu emaitzek zein jatorri duten: Trebitsch-ek 1913an bilduak diren, 1922-25 bitarteko *EI*-koak diren, 1984-90 arteko *EAEL*-tik hartuak diren edo iturria beste bilduma bat duten.

Zinezko eginahala egin dugu daturik ez errepikatzen, baina hitz nahiz aldaera foniko baten eta beraren printza bat baino gehiago aztertu dugunean ez da aise izan aldi oro errepikatzetik saihestu ahal izatea; batzuetan Amiküzetik so egin diogu sistematizazioari, beste batzuetan Zuberoatik eta beste batzuetan

Oztibarretik, horregatik izen batzuk errepikatuko dira, baina perspektiba arrazoiengatik gehiago ohartu ez izanagatik baino. Aintzat har bedi, bestalde, ikertzailearentzat ere ez dela aise alde batetik aldaeren aniztasun zabala eta beste aldetik sistematizazio nahia kasu guztietan egoki uztartzea, datu lexiko ugari aurkezten baitugu azpiatal honetan.

“Hitzak” eta “hitz hauen aldaera fonikoak” aipatzen ari gara aldi oro, baina gauza jakina da beti ez dela aise aldaera fonikoa eta hitza gardentasunez bereiztea, interpretazioari eta begiradari dagokion zerbait da gehiago, hizkuntzaren errealtateari doakion alderdi zurrun bat baino. Konparazioan, Nafarroa Beheretik ikusirik —batik bat *kharrika* eta *artebide* hitzen ondoan ezartzen baldin badugu— Baxenabarre hegoaldeko *estreka* beste hitz bat gehiago da, edo hitz desberdina, baina Euskal Herritik so eginik, Bizkaiko *estarta*, Gipuzkoako *estrata* edo *estrada* nahiz Nafarroako *estraka*-rekiko, aldaera foniko bat gehiago da Baxenabarre hegoaldeko *estreka*. Halaz, argi da auzian garrantzizkoena begirada dela, ikuspegia, konparazioaren norabidea, item horri ikertzailea Euskal Herri guztitik ala Baxenabarretik begira dagoen. Berebat, Xiberoako *tzitzer* eta Nafarroa Behereko *babazizkor* alderatzean, bata eta bestea bi eletzat jo genitzake, bi hitz desberdintzat, baina Baztango *zizerkor*, Nafarroako *txitxor*, Lapurdiko eta mendebaleko Baxenabarreko *baazuza* eta Bizkaiko *abasuse* aintzat harturik, Euskal Herri osotik so eginez gero, etorki beretik *continuum*-ean gaindi jaitsi diren bi aldaera fonikotzat jo beharko genituzke Xiberoako *tzitzer* eta Baxenabarreko *babazizkor*.

Ohar metodologiko hauek eginik, haboro berandu gabe datuen aurkezten hasteko tenorea heldu da:

7.3.5.2. Amiküzeko lexikoa

Halako iritzi bat badabil kurri, baizik eta euskaraz dihardutenean amiküztarrek sobera ele kaskoin edo frants darabiltela, Hazparne batean edo Armendaritze batean baino maileguzko hitz gehiago ematen dutela mintzoan. Iritzi hau hala amiküztar ez direnei nola amiküztarrei berei entzun diegu eta arrazoitzat menderen mende kaskoina ondoan ukan izana eta hondarreko mendean frantsesak indar handia hartu ukana aipatzen dira. Datuek erakutsiko dute honetatik zerbait badela, baina hori baino anitzez aberatsagoa da Amiküzeko alderdi lexikoa eta horregatik, amiküztarren ele eta aldaera fonikoen ikuspegi orokorra dakargu hona. Lehenik berenak baizik ez diren item eta aldaerak aurkeztuko ditugu.

7.3.5.2.1. Amiküzeko hitz eta aldaera endemikoak

7.3.5.2.1.1. Amiküztarren konpromisoa: *interdialect*

Aurkezpenaren estrategian Amiküzeko lexikoaren kokagunea aintzat hartu dugu, izan ere, bizpalau hizkuntza-eremuren bitartekari lana egiten baitu Amiküzek eta honek halako nortasun hibridoa eman dio eta ematen ere dio oraino. Eman dezagun: aldaera batzuetan Amiküze bide-erdi gelditu da, bi hizkuntza-eremu hedaturen artean pibotatzen erauntsi du etengabe, zubigintzan, konpromiso betean. Jo dezagun etsenplu batera:

Baxenabarren *moltsa* ‘diru poltsa’ ibiltzen dute eta hego Amiküzeko Uhartehiri eta Ostankoan ere *moltsa* bildu dugu, baina eskuin, Zuberoan *musa* & *müsa* erraten dute. Amiküze gehienez, berriz, bi aldaera hauen arteko *tertium quid* dirudien *multsa* ageri zaigu (Ora, Amo, Mar, Zoho); *interdialect* hau ez da ez Baxenabarreko ez Xiberoako aldaera, bien arteko konpromisoan hirugarren subjektu batek eraiki irtenbide berria baizik eta honelako aldaera berri gehiago ere aurki dezakegu.

Zuberoako *elkhi* eta *jelki* aldaeren eta Baxenabarreko *jalgi*-ren artean dugu Amiküzeko *jelgi* ere: (Meh / Barta, Arrü, Bith, Ilh, Lab, Gab, Ame, Gar, Zoha, Zoho, Laph, Larri, Sor / Dom / Larz). Zuberoan bezala bada Amiküzen *jelki* ere (Behas, Arbo, Zoho); Hazparne aldean eta Aturrialdean *jali* ibiltzen da; cf. 7.3.5.2.2.9. §.

Baxenabarre gehienez *dupina* & *dupiña* ibiltzen da eta Baigorrialdean *tupin(a)*; Urdiñarben *thipiña* entzun dugu eta horrelaxe da Zuberoa gehienez; aldiz, Baxenabarre eta Zuberoa artean leiratuz bezala, Amiküzen *diphiña* baliatzen da (Arbo / Dom); cf. *duphin* (Arrü) eta *duphina* (Behau) & *düphiña* (Zoha).

Zuberoan *giltzarrapo* ‘sarraila’ aldaera nagusi da eta Lapurdi ekialdean eta Baxenabarreko erdialde eta hegoaldean, berriz, *zerrapo*, Oztibarre, Landibarre, Baigorrialdea eta Garazi gehienez barne, baina Amiküzen erdibideko *zarrapo* ibiltzen da, Bardoze eta Zuberoako Domintxainen bezala; bestalde, Pagola herrian — ohi bezala hau ere konpromisoan —, *giltzarrapu* eta *arrapu* aldaerak erabiltzen dira; Amiküzeko Arrüetan, berriz *zerrüra* (EHHA, 34110).

Sarrikotapean entzun dugu *atxeki*, Amiküze alderdiko *atxiki* eta Zuberoako *etxeki* aldaeretak edaten baitu.

7.3.5.2.1.2. Berezko nortasuna Amiküzeko hitzetan

Amiküzeko lexikoari halako izaera berezia eta nortasuna ematen dioten ezaugarriak dira hitz endemikoak, eskualdeaz landa baliatzen ez direnak edo

ondoko bazter zenbaitetan soilik ibiltzen direnak. Alderdi batetik amiküztarrekin guk izan harremanean bildu emaitza eta bestetik EHHA atlasak eskualdean bildua aintzat harturik, bertako hitz berezien sail bat dakargu orriotara. Ondotik, 7.3.5.2.2. §-n Amiküzeko lexikoak ezker eta eskuin dituen mintzoekin zer partekatzen duen eta nola egokitzen eta egituratzen den ikusiko dugu, hondarreko aldian zer-nolako konstelazio lexikoak eratu dituen eskualdeko geografia zaballean.

Hona Amiküzeko hitz endemikoen sail bat:

arreitüil ‘behiari eskuin joateko errana’ (Gar / Dom) & *arraütüil* (Arbo),¹⁵² *arteka* ‘mendia iragateko gunea’ (Arrü, Gar)¹⁵³

dauztiri ‘hesiak gaintzeko eskailetarxoa’ (Behau) & *dauzteri* (Arbo / Dom) & *dauziri* (Gar) & *dozteri* (Arrü)

e[3]nia gala(a)zi ‘aberearen umea amarengandik bereizi, higuindu’ (Bardo / Arbo / Dom),¹⁵⁴ *gita* ‘ahatea’ (Bardo / Mar, Lab, Donap, Zoho, Arbe / Dom, Olh)¹⁵⁵

gizkei ‘zalia, burduntzalia’ (Bardo / Arrü, Gar, Arbo / Dom) — Zuberoan *xalhi* da nagusi, baina bada *gahe* ere—

hüxet ‘abere adarzuta’ (Bardo / Arrü, Gar) & *huxet* (Arbo)¹⁵⁶

koka ‘arrautzak berotu, txitatu’ (Arrü, Gar) & *kokan* (Arbo) & *kokatü* (Gar, Arbo), *khorbe* ‘ganbela, abereen egurrezko janlekua, hormari loturik’ (Arrü, Gar, Arbo, Laph / Dom); Landibarren ere bai; Oztibarren abereen jateko ‘aska’ da *khorbe*, ez horman dena¹⁵⁷

lits ‘lursagarraren landarea’ (Arbo / Dom),¹⁵⁸ *lobiro* ‘etxe aitzina, samatsa’ (Bardo / Uha, Arrü, Arbo, Zoho / Dom) & *loiro* (Gar) & *lobio* (Pag)

152 Arrüetan *itzul* dakar atlasak galdera ikurrarekin eta Landibarren nahiz Garaziko Gamarten ere *itzul*; Zuberoan *esküñ* eta Lapurdi-Baxenabarretan *eskuin* ibiltzen dira gehienik.

153 Baxenabarren *lep(h)o* ibiltzen da eta Zuberoan ere bai, Pagola eta Domintxaine barne. Amiküzen *arteka* bildu da, baina Arrüetan galdera ikurra darama. Bestalde, *athea* dago Oztibarren (Larz) eta Garazin (Gamarte, Ezterenzubi). Baigorri galdera ikurra darama.

154 Bastidan *galaazten* eta Zuberoako Montorin *galaazi*. Arrüetan *hiundü*, *antzutia* eta *beixi* proposamen onetsia dakartza atlasak; Garrüzen *antzutu*.

155 Garrüzen baita *ahate* ere; Bardozen ere *ahate* & *gita*. Oragarreko lekukoak honela egin du gurekin mintzatzean: *etxen anixko legüma ta arrotze, ollasko, gi... ähäte eta biziki eta iten gintzin, saltzen gintzin*. Zuberoan nagusi da *ähäte*, baina Erronkarin *gita*. Berebat, Zuberoako *ahattü* ‘ahatekumea’, *gita ttipi* da Amiküzen, baina Garrüzen *gita ume* dakar atlasak. Gainerateko Baxenabarren *ahate ttipi* edo *ahate piru* ibiltzen dira; Alduden *aate ume*. Bestalde, Amiküzekoa da *gita ama* & *gítama* elkarketa ere. Zuberoan *ahatama* & *ahate ama* ibiltzen da, baina Amiküzen bezala, Domin-txainen *gita ama*; aldiz, Oztibarre, Garazi eta Baigorrialdean *ahate eme* ageri da.

156 Amiküze inguruan *k(h)atxo* eta *adartxut* hitzak ditugu eta Garazin *adarxixto*.

157 Lapurdin *miñeter* & *miñater*; Baxenabarren *mañatera*. Xiberoan *arrestelie* eta Xibero-erdialdean *mand[5]letea*, nahiz Pagolak konpromisoan *mand[5]ate*a duen.

158 Amiküzeko Arrüeta eta Garrüzen *zango* dago ere eta *aihen* dago Izturitzen.

& *lobiru* (Bith) — *Bartan lobirua* — & *lohiru* (Arbo) & *lubiro* (Lük, Dom) & *luiru* (Mar),¹⁵⁹ *loila* ‘urtarrila’ (Arbo)¹⁶⁰

tunkaka ‘behiak buru-ukaldika’ (Arrü) & *tunkatü* (Arbo)¹⁶¹

sausil[é]a ‘lukainka’ (Ilh) & *xauxixa* (Arbo, Dom) & *sausisa* (Gar),¹⁶² *xendra* ‘lasterbidea, laburbidea’ (Ora, Behau) & *xenra* (Laph)¹⁶³

udalatu ‘goldatu’ (Ora) & *üdalatü* (Arrü, Arbo / Dom) & *üdalen* ‘iraulden, goldatzen’ (Ilh, Zoho, Arbo / Olh, Sarkp)¹⁶⁴

zintziür ‘mozteko den arbolari egin hozka’ (Arbo) & *xintxur* (Arrü)¹⁶⁵

7.3.5.2.1.3. Berezko nortasuna Amiküzeko aldaeretan

aññer ‘satanderea, erbiñudea, ogigastaia’,¹⁶⁶ *auhal-* ‘afal-’ (Ora, Ilh / Dom) & *auhaldu*¹⁶⁷ ‘afaldu’ (Ora) & *auhalten* (Ora), *axerü* ‘azeria’ (Ilh, Arbo)

-
- 159 Zohotan dioskutenez *hoie* metro etxeko *portaletik*, *ingürü hua*, *othe eta artho zango* uzten da bertan. Zuberoan nagusi den *barrio* eta *lobio* eleak ibiltzen dira Pagolan. Armendaritzen *samats* deitzen da. Etxe aitzinarendako “samatsa” ez da Amiküzeko Martxüeta edo Amendüzeko elea, baina Bithiriñakoa bai. Bestalde, Baxenabarreko mendebalean eta Hazparnealdean bezala, Amiküzeten bada *basakurte* & *basakurta* ere; Aldude eta Garazin *korle* & *korrale* dena. Gaien nahasketa bera ere “samatsa” da: *lehen, samatsa, iten zen othia ezarten lubiwetan, etxe aintzinian, negian eta gio hungarriaekin nahastekatzen zen eta hua da samatsa enetako* (Dom, EHHA); baita Amiküzeko Barta auzoan ere. Arberoako Izturitzen ere halaxe dakar EHHA-k: *samats lehen iten zen, oai fini da, bortha aintzinian hedatzen zen othia, oihanetan bil eta han bada, eta zapha, istilentako, eta gio hungarri kuxa bat emaiten zen ustel zadin eta gio bil, phentzian emaiteko berriz, negian zen iten*. Bestalde, “*luiru*” aintzinean da: *giblean*, berriz “*okhiloa*” (Mar, Ame).
- 160 Oihenart idazlearen *loila* gogorarazten digu. Trebitschek *llollan* dakar 1913an Amorotzen bizi zen bardoztar batengandik bildurik; cf. Etxebarria (1994: 69).
- 161 Garrüzen *joka* eta Landibarren *jokatu*. Gainerateko Baxenabarren *buruka* nagusi da.
- 162 Arrüetan *lukinka*. Aturrialdean ere *xauxixa* mailegu hau dago, baina Bardozen *xauxika* & *xauxixka* (sic) eta Itsasun *sosisa*. Zuberoan bakan ageri da: *xauxixa* (Altzai), *xoxixa* & *xauxixa* (Dom); Pagolan *xoxixa*-k galdera ikurra du. Baxenabarren *luk(h)inka* nagusi da, baina peko aldean *luk(h)ainka* dago (Aldude, Baigorri, Ezterenzubi).
- 163 Baxenabarre erdigune eta hegoaldean *heinkabide* ibiltzen da eta Zuberoan *llabürbide*.
- 164 Arberoako Armendaritzen *iraulden*; Zuberoako Urdiñarben glosa hau bildu dugu: *lürrain ahatzia, ialli, batek ilduk, brabanta, brabantaekilan ützültzen bai lürra...*
- 165 Ordea, Garrüzen *pikalotxa* & *oxka* dakartza atlasak. Baxenabarren nagusi da *pikalozke* & *pikalozki* edo *pikalots* era, baina ibiltzen da *ozka* Gamarte, Luzaide, Baigorri eta Alduden ere; Zuberoan *ozke* eta *oxke*.
- 166 Garrüzen *anddinder* dakar atlasak. Pagola barne Zuberoan nagusi da *anddee(i)[5]er*, baina Amiküzeten bezala, *aññer* dago Domintxainen. Oztibarren *anddiar* & *anddeear* erak ditugu eta Landibarren *añndier*; hondarreko aldaera honek jarraipena du Garazin *anddiar*-ekin batean, baina eskualde honetan nagusi da *andderiar*, nahiz baliatzen diren bertan *anddibar* eta *angillar* ere. Baxenabarreko hego-mendebalean aldaera osoagoak gorde dira: **anddereder* Alduden, *anddeleder* Baigorri eta **anddeder* Bidarrain.
- 167 Bada *auhaiten* (Ora, Uha) & *auhaiteko* (Gab, Zoho) ere eta EHHA-k *auhaita* dakar (Gar).

basaurde (Bardo / Ilh, Arbo, Laph / Dom),¹⁶⁸ *baskal* aditzoina (Bith) —cf. *baskaiten* ‘bazkaltzen’ (Ora, Amo, Arrü, Sor) & *baskaiteat* (Zok) & *baskari* (Bith, Zok, Laph / Dom, Etx); aldiz, Oztibarreko Jutsin *bazkaiten ari* (Videgain 1989: 1135)—, *behaztun* ‘eraztuna’ (Ora), *bezela* ‘bezala’ (Arm / Ora, Sar, Amo, Behau, Lab, Gam, Zoho / Sarkp), *buntz* ‘atearen gontza, txoria, orpoa, bisagra’ (Arrü, Arbo) —cf. *guntz* (Gar / Dom, Pag / Larz)—,¹⁶⁹ *burtxintxa* ‘urtxintxa, katagorria’,¹⁷⁰ *burxaz* ‘bortxaz’ (Arrü) & *borxaz* (Barta, Ora, Arbo, Sor)

defendio ‘abereak sasoi batez sartu ezin diren soroa’,¹⁷¹ *deurru* ‘deabrua’ (Amo) & *diurru* (Uha) —baina bada *debriain* & *debriein* ere Uharten eta Domintxainen *debrien* dakar EHHA-k—

egurdi (Amo, Arrü, Lük) & *egürdi* (Arrü) & *eürdi* (Arrü) & *eurdi* (Amo) & *egordi*¹⁷² (Bardo / Ilh, Lük, Zoha, Arbo / Etx) —cf. *eguerdi* (Bardo / Bith, Gar, Arbo) eta *egüerdi* (Arbe / Olh, Sarkp, Ündü, Ainh)—, *eman* ‘eraman’ (Behau, Bith, Zoho)—,¹⁷³ *eskaller* ‘eskailerak’ (Lab),¹⁷⁴ *espalakoin* (Behau, Bith) —cf. *eskalapuñ* (Bith, Zoho)—, *esperuñ* ‘oilarrak gibelean duen azkazala’,¹⁷⁵

-
- 168 Hitz elkarketaren egitura osorik gorde dute *basaurde* aldaeran Bardozek, Amiküzek eta ondoko Izturitzek; gaineratekoan *basurde* dago Zuberoan —Pagolan *basorde*-rekin batean—, Lapurdiko Bardozen eta Baxenabarre zabalean, Oztibarre, Garazi eta Baigorrialdean. Beste saihetsetan, *basaurde* ageri da Ezterenzubín eta Zuberoako Larrainen, baina bietan ibiltzen da *basurde* ere. Euskal Herriko mendebalean berragertzen zaigu berriz ere osoagoko *basaurde*.
- 169 Zuberoan *guntz*, Oztibarren eta Garazin *gontz*, Aldude eta Baigorriin ere *gontz*, baina Bidarrain *kontz*.
- 170 Zuberoan *ürtxa(i)ntxa* nagusi da, baina ohiko konpromisoan *ürtxintx* erabiltzen da Pagolan. Domintxainen *burtxintxa* dago eta Garrüzen *burxintxa*; Arrüetan asimilazioak *burtxuntxa* eragin du eta elkarketak *gathübürdzantsa* Arbotin. Amiküzen bezala *b-* du ondoko Landibarrek Baxenabarren; alta, Oztibarre, Garazi eta Baigorrialdean *urtxintxa(a)* aldaera baliatzen da —Ezterenzubín *urtxintxa*-rekin batean—. Nafarroako ekialdean berragertuko zaigu *burtxintxa* eta Bortziritako Etxalarren *kurtxintx*.
- 171 Zuberoan nagusi da *debetü*. Bardozen *defentsa* dago, Arbotin *defendio*, Arrüetan *defendiatia* eta Garrüzen *debekatu*. Landibarren *defentsa* bildu da, Oztibarreko Larzabalen *debekhu*, *defentsa* & *debetatu* eta Jutsin *debeku* & *defendu* proposamenak onetsi. Baxenabarre hegoaldean *debekatu* ageri da.
- 172 Amiküzen monooptongazioa dago, baina Baxenabarreko Oztibarre, Garazi eta Baigorrialdean *eguerdi* nagusi da eta Zuberoan *egüerdi*. EHHA-k Pagolan *egüerdi* eta Domintxainen *egwerdi* dakartza.
- 173 EAEL-k ere *ereman* dakar Amendüzen eta Zuberoako Sarrikotapean ere *eeman* bildu dugu. Zuberoan *eraman* & *eamán* & *iamán* aldaerak ditugu; guk Pagolan eta Urđiñarben *eamán* bildu dugu eta EHHA-k *eamaiten* dakar (Dom).
- 174 Zuberoan *eskelé* dago, baina Ürrüstoi eta Urđiñarben *eskeler*. Amiküzen bezala Domintxainen *eskaller* baliatzen dute eta Pagolan *eskallarak*, *eskallerak* & *eskaler*. Lapurdi eta Baxenabarre mendebalean *eskaler* dago eta nagusiki *eskeler* ibiltzen da Baxenabarre erdialde —Armendaritzen entzun dugu— eta hegoaldean. Oztibarren ere *eskeler*. Garazin *eskeler* & *eskaler* ibiltzen dira eta Baigorrialdean *eskaler*.
- 175 Zuberoan *ezpeü* dena *espeu* da Pagolan eta *aztapar* Domintxainen. Bardozen *esperun* bildu da, Arrüetan *esperuñ* eta Garrüzen *espeoiñ*. Iduria da Landibarreko *espruim*, baina Jutsin *aztapar* ageri da. Garazin eta Baigorrialdean *ezproim* ibiltzen dute, baina Gamarten *zizpita*.

gaalla ‘harri xintxola’ (Gar) & *galla* (Arbo, Dom),¹⁷⁶ *gaphar* ‘laharra, sasia’ (Altzü, Ilh, Arbo, Zoho) —Zuberoa guztian *khapar* dago—, *garbuts* ‘gaztainaren morkotsa’ (Gab, Arrü / Dom) & *garbots* (Bardo / Gar, Arbo),¹⁷⁷ *goizetan goizik* (Arrü, Arbo / Dom) & *goiztan goizik* (Bith)¹⁷⁸

heskuara (Bardo / Amo, Sar, Arrü, Mar, Altzü, Lab, Ilh, Altzü, Gab, Zoho, Sor),¹⁷⁹ *hürren* ‘hurbil’ (Behau, Arrü, Gar, Arbo / Dom) & *hurren* (Lab) & *üRen* (Donap) & *urrendu* (Uha) & *urrendia* ‘hurbildurik’ (Bith)¹⁸⁰

ik(h)atzile (Arm / Arrü, Arbo) —ipar Baxenabarren Amiküzen eta Arberoan nahiz Hazpamen ageri da eta Oztibarreko Larzabalen ere bai; Zuberoan *inkhatzile* dago Pagolan eta *inkhatzegile* Ürrüstoi, Urdiñarbe, Altzai eta Santa Grazin; Zuberoan bezala, Garrüzen *ikatxero* bildu da—, *ilharreski* ‘ainarra, txilarra, ilarrea’ (Arrü, Arbo / Dom) & *ilharresku* (Gar) & *ilharski* (Bardo); cf. *ilharroski* (Lan),¹⁸¹ *iphular* ‘goldea itzultzeko lerro bakoitzaren muturrean irauli gabe uzten den eremua’ (Arrü, Gar, Arbo / Dom)¹⁸²

kokozaika ‘kakaraka, kokorazka’ (Arrü, Gar, Zoha),¹⁸³ *korringo* ‘arrau-

176 Pagolan, Domintxainen, Arrütietan, Larzabalen, Gamarten eta Ezterenzubin *kallau*; Behorlegin *gallo*.

177 Lapurdin *karlo*, Zuberoan *mardots* eta herrialdearen iparrean *margots*. Domintxaine konpromisoan da: *garmuts*, *barbuts* eta *garbuts* emaitzak dakartza eta Amiküzen bokal arteko *b* da berezia. Oztibarren *gardots* dago, baina honezaz landa *erdots* & *sokhal* ibiltzen dira Larzabalen. Aberatsa da Baxenabarreko hegoaldea: Garazin *mokots*, *kormots*, *karnots* eta *sokal* & *xokhal* ditugu, Alduden *kornutx*, Baigorriin *kornuts* & *khorbux* eta Bidarrain *mokots*.

178 Berezkoa da Amiküzeko aldaera hau, ez da ibarretik kanpo ageri: Garrüzen *goizik* & *goizian goizik* baizik ez du bildu EHHA-k. Zuberoan guztietarik dago, baina *goizetan goizik* Domintxainen baizik ez. Ugari dira ideia hau adierazteko ingurumarian diren aldaerak: *argia gabe* sintagma, *goizalde* hitza, *goizik* adizlaguna...; aitor dezagun Amiküzen ere erabiltzen direla era hauek.

179 Bardozen baita *heskualdun* ere. Amiküzen adibide guztietan ez da hasperena indarrez entzuten, baina ibarreko franko herritan garbi entzuten da *h-*. Peilleni Euskaltzaindiko bilkura batean entzunik dakigu Zuberoan Santa-Grazin dirauela *h-* horrek.

180 Sinkronikoki da horrela, zeren iraganean Zuberoan ere bai baitzen: *hürren* dakar Belapeirek eta Leizarragak ere Zuberoakotzat dakar; Oihenartek ere badarabil. Egun Nafarroan nagusi da *urbil* eta Lapurdin, mendebaleko Baxenabarren, Baigorrialdean eta Garazin *hurbil* ibiltzen da. Baxenabarreko ekialdean, Oztibarre eta Garazin *hurran* dugu eta Amiküze ondoko Landibarren *hurren* dakar Gotzon Garatek (1988: 156). Zaraitzuko Jaurrietan *urran* bildu genuen; Erronkari ibarreko tradizioan, berriz, *ullan* ibili da. Xiberotarrek, pagolarrak barne, *hiullan* ibiltzen dute egun, baina *hiullen* bildu da Altzürükün.

181 Bizkaiko *giñer*, *iñer*, *kiñar*, Leintz aldeko *illar*, Gipuzkoako *txillar* eta Nafarroa Garaiko *añar*, hego Zuberoan *ilharre* eta iparrean *gilharre* erratan da; Pagolan ere *gilharre* ibiltzen da. Amiküzen bada *ilharrezkiondo* (Arrü) ere. Bardozen *ilhaski* dago ere eta Aturrialdean *illaraki* & *illarreki*. Aldaera nagusia da *il(h)arre* Oztibarre-Garazietan, baina Luzaiden *illarri* darabilte. Aniztasuna dago hegoaldean: Alduden **larre*, Baigorriin *ilharka* eta Bidarrain *basilar* eta **larreilar*.

182 Zuberoan *müga* edo *ithelar* ibiltzen dira eta Amiküze ondoan *iphuru* edo *bazter*; urrunago, Gipuzkoako Beterrin eta Lapurdiko itsas hegian berragertzen zaigu *ipular*.

183 Zuberoan funtsean *koko(d)ats* & *kokorats* & *kokolats* egitura dakar atlasak eta Urdiñarben *kokatxex* entzun dugu. Erronkarin *kakaraka* dago. Amiküzeko aldaera hau ez da beste inon ageri; Pagolan *kokoratsez ai*, Domintxainen *kokoatsa* eta Arbotin *khantüz*. Gainerateko emaitzetan aberastasuna dago. Jutsin *kokhazkaz*, Landibarren *kokoatza* eta *kokoatzaz*, Larzabalen *kokohaska* eta *kokohatsa*, Luzaiden *kokoratza*, Arnegin *kokorazka*, Ezterenzubin *kokohoxka*, *kukuluxka* eta *koko-*

tzarena'¹⁸⁴ & *korringo* 'Amanita Caesarea' izeneko perretxiko mota'¹⁸⁵, *kriniera* 'zaldiaren lepagaineko ilea' (Arrü, Arbo) & *kriñera* (Bardo) — Aturrialdean ere bai, baina Baxenabarre gehienez bezala, Garrüzen *kuma* eta Zuberoan *gima* —, *küxkandela* 'sugandila' (Zoho)¹⁸⁶

lezamin 'liztorra' (Bardo / Arrü, Gar, Dom, Pag) & *lezamin* (Arbo)¹⁸⁷

mezinder 'sendagilea' (Bith, Lab, Gar, Arbo, Zoho)¹⁸⁸ — cf. Zuberoako *bedezĩ* —, *mimen* 'zumea' (Bardo / Arrü, Gar, Arbo) — baita Hazparnealdean eta Aturrialdean ere; Baxenabarre ekialdean eta Zuberoan *mihimen*, Domintxaine eta Pagola barne —, *mistika* 'mertxika' (Bardo / Arbo / Dom) & *mixtika* (Arrü, Arbe) & *miztika* (Dom) & *mistiga* (Gar)¹⁸⁹ *nekato* 'neskatua' (Meh / Behau, Zoho)

oihen 'oihana' (Bardo / Behau, Sar, Arrü, Mar, Lab, Gab, Lük, Zoha, Arbo, Zoho, Laph / Dom, Sarkp)¹⁹⁰ *otsonahar* 'otsolaharra, astoarrosa, basaarrosa, sasiarrosa' (Arrü, Gar, Arbo / Dom, Pag); cf. *otsonaharlili* (Jut) — Zuberoan *basaarro[ž]atze* eta *basanahar* ageri dira eta Baxenabarren *otsolahar* edo *basaarrosa* —

loxka, Behorlegin *kokoraxka*, Gamarten *kokorika*, Uhartan *kokarozka*, Alduden *kakazka*, Baigorriin *kokoloskoka*, *inharrosi* eta *kokoloskaka*. Bidarrain *karrakaz*.

- 184 Pagolako *gorringo* aldaera orokorra da eta Oztibarre, Garazi eta Baigorrialdean erraten dute. Zuberoan *gorrinko* dago eta Bardoze eta Amiküzen *korringo*. Domintxainen *korringo* eta *gorringo* bildu dira.
- 185 Bardozen ere *korringo* dago, baina Zuberoan *gorrintxa*, Pagola barne. Oztibarre eta Garazin *gorringo* nagusi da; Baigorriin *gorringo* & *onddo gorringo* ditugu, Bidarrain *onddo papoingorri*.
- 186 Uste dugu *kaxkandel* & *kaxkandol* ere ibiltzen direla Amiküzen. Bardozen *xixangleta* & *süskandila* dakartzu EHHA-k. Zuberoan nagusi da *süskandea* — Pagolan konpromisoan *süskandela* ibiltzen da —; hitz arteko *-k-* hori bera ageri da Amiküzeko *küxkandel(a)* aldaeran: xiberotarrei zor die Amiküzeko aldaerak bigarren *k* hori, baina lehena Amiküzen garatu da. Oztibarren ere bitarteko irtenbidea dago: *suskandil(a)* (Lan, Jut, Larz). Baxenabarren Amiküzen eta Oztibarren baizik ez da ageri *-k-* hori; Nafarroa Behereko erdigunetik beheiti ez dago *k*-rik gehiago; hego-mendebal eta hego-ekialdean zatiketa gardenik nekez onesten duen aniztasunezko *continuum*-a ageri da: Gamarten *suangila*, Behorlegin *sugeaingir*, Ezterenzubin *sugaingil*, Uhartan **sugangil*, Arnegin *subebandi*, Luzaiden **sugebandil*, Baigorriin *subeingil*, Alduden *subaundil* eta Bidarrain *subemangil*.
- 187 Zuberoan *lozabia* & *lozebiña* & *lozabiña* & *lozamiña* erraten dena Lapurdin *le(i)zafin* da; Lapurdin legez *f*-duna da Baxenabarre gehieneko *le(i)zafin* era, Oztibarre, Garazi, Baigorri eta Aldudekoa; Bidarrain Lapurdi oroitarzten digun *lestafin* erraten da. Hitzaren ezkerreko aldeko auzoekin partekatzen duten amiküztarrek *-m-* hori dute: ez da Lapurdi eta Baxenabarre gehieneko aldaera.
- 188 Ohartzen dira amiküztarrek ondoko eskualdeetan ez dela hitz hau baliatzen, berena baizik ez dutela. Bestalde, txistukaria ahostuna izan daiteke; Zohotan *mez]inder* entzun dugu.
- 189 Zuberoan *peska* eta Pagolan *pexka*, baina Domintxainen ez. Lapurdi eta Baxenabarre gehienez legez, *mer(t)xika* aldaera baliatzen dute oztibartar, garaztar eta Baigorri eskualdeko hiztunek.
- 190 Nahiz Amiküzen ez den *oihan* falta (Arrü, Gar, Arbo), ez da *oihen* Amiküzetik kanpo ageri salbu Bardozen, eta gainera *oihan* Oztibarreko, Garazi gehieneko eta Baigorri-Bidarraietako era bakarra da; ez dakigu Arberoako Mehainen ere ez ote den *oihen* ibiltzen. Zuberotar gehienek eta pagolarren erabilera *oihan* da, baina Zuberoako ipar-mendebalean ere bada *oihen*. Peko alderdian, Luzaide-Gamarteetan *oian* dago eta Aldude-Uharteetan *oian*.

pexil(a) ‘perrexila’,¹⁹¹ *phintze* (Arbo, Zoho, Laph / Dom, Sarkp),¹⁹² *piuñ* ‘antzararen umea’ (Arrü, Gar, Arbo / Dom),¹⁹³ *puatrall* ‘zaldiaren bularraldea’,¹⁹⁴

saphar ‘sasia’ (Bardo / Zoho) —EHHA-k ez dakar beste inon—

tartaña ‘armiarma’ (Mar, Ame) & *tardaña* (Arrü, Gar)¹⁹⁵

üdari ‘zuldarra, behiaren azala zulatzen duen gaitza’ (Gar, Arbo) & *uder* (Lan, Izu, Jut, Hoz) & *uer* (Arrü) & *üdarro* (Dom) —Zuberoan bezala, Pagolan *üder*—,¹⁹⁶ *ülütxa* ‘eltxoa’ (Ame, Gar, Arbo / Pag) & *ulutxa* (Gar, Zoho) —cf. *ülütxa* (Pag) & *ulitxa* (Dom)—¹⁹⁷

xitxa ‘txita, xitoa’ (Lab, Gar, Arbo),¹⁹⁸ *xitxar* ‘kazkabarra’ (Gar, Arbo) & *xixar* (Arrü) —Garrizzen baita *baazuza* ere—, *xurta* ‘txorta, tanta’ (Ora, Bith, Zoho, Arbe)

zehalo ‘abereak edo jendea jotzeko makila mehea’ (Arbo) & *zealo* (Gar)¹⁹⁹

7.3.5.2.1.4. Amiküzeko alderdi batek nortasuna aldaeretan

abaña ‘armiarma’ (Arbo, Arbe (El) / Dom) & *amaña* (Ame, EAEL)²⁰⁰

-
- 191 Zuberoan *per(t)xill* erratan da eta Pagolan *pertxill*, baina Domintxainen *pexil*. Aturrialdeko Urketan *perxil* eta Bardoze eta Beskoitzen *peexil* baliatzen da, Baxenabarreko Bastidan legez. Oztibarren *perrexila* ibiltzen da eta Garazin *perrexil(a)*, baina Uhartean *perrxil*. Baigorrialdean ere *perrexil* erabiltzen dute.
- 192 Salaberri Ibarrolakoak ez dakar *phentze* baizik. Amiküzeten bada *phentze* ere (Uha, Arrü, Gam).
- 193 Zuberoan *antzeü* denari Pagolan *antxeu* eta *antxea piu* deritza, Oztibarren *piru* eta *antzera piru*. Garazin *piru* nagusi da eta Gamarten, berriz, *antzera ttipi* bildu da. Arnegi eta Baigorriin *piro* dago eta Alduden *antzara ume*.
- 194 Arbotin dakar atlasak eta Arrüetan *puatrin*; Bastidan *puatrail* eta Bardozen *potrail*; aldiz, Amiküze inguruko eskualdeetan legez, Domintxainen *bulhar* eta *papo*. Zuberoan *bulhar* dago eta Lapurdiko Aturrialdean *puatrin* mailegua, Itsasun legez.
- 195 Kaskoinez ere *tardaña* omen da. Hitz banaren bidez Amiküzeko saihetsek ezker-eskuin lotzen dute eskualdea. Mendebaleko Amiküze Aturrialdearekin lotzen du *tardaña*-k, Mugerre, Urketa, Beskoitze eta Bardozerekin. Goitik beheiti lotzen da Baxenabarre Arbotiko *armau*, Landibarreko *amiamau* eta Bidarraiko *amu*-ren bidez. Lapurdin *armiarma* dena Zuberoan *añharba* da, Pagola eta Domintxaine barne, baina Montorin bada *amañ* eta *arraño* ere. Baxenabarreko mendebala eta hegoaldea, Oztibarre-Garaziak, *lipu*-ren eremua dira eta Aldude-Baigorri alderdian *lupu* ibiltzen da.
- 196 *har* ageri da Larzabale, Garazi eta Baigorrialdean.
- 197 Zuberoan *eltxo* nagusi da eta horixe entzun dugu Urdiñarben. Lapurdi-Baxenabarreetan *ulitx(a)* aldaera nagusi da, Bardoze barne eta honelaxe da Oztibarre-Garazi-Baigorrialdeko eskualdeetan ere.
- 198 Zuberoan *xitxa* erratan da. Baxenabarreko mendebalean eta Lapurdin bezala, *xito* dago Landibarraren eta Baigorrialdean, baina *xita* aldaera Oztibarre-Garazietan.
- 199 Zuberoan *zahäu* dago, baina Domintxainen *zahalo*; Baxenabarreko mendebalean *za(h)aro* eta ekialdean *za(h)alo*; Bardozen, *zahalo*, Mugerren *zaharo* eta Beskoitzen *zeharo*.
- 200 Zuberoako Montoriko *amañ*-en eite du —bada *arraño* ere Montorin— Amiküze iparreko *abaña* & *amaña* aldaerak; gaineratekoan ez da honelakorik inon ageri. Mendebaleko Amiküze Aturrialdean

haitz ‘arbola, zuhaitza’ (Gar / Dom) — ikus 7.3.5.2.2.2. §-n ‘haritza’ dela ere—; bada *arbole* ere (Dom)

ixañ ‘izaina’ (Arbo, Gar),²⁰¹ *ihauzka* ‘zaldi jendea lurrean iraulka aritzea’,²⁰²

khadeña ‘behia lotzekoa’; bada *kadena* ere²⁰³

mind ‘mendia’ (Zoha, Arbo, Zoho, Laph, Sor / Dom, Ber, Artüe); cf. *mendi* (Hel, Arm, Meh / Ora, Behau, Ost, Uha, Arrü, Arbo, Arbe / Sarkp),²⁰⁴ *miuñ* ‘mirua’ (Arrü) —EHHA-k Bardozen dakar ere—

Eskualdean nagusitu ez diren eta anekdotikoak diruditen aldaerak ere agertu zaizkigu Amiküzeko elkarriketetan:

buzkalentzia ‘bozkalentzia, poza’ (Arbe)

erain ‘erein’ (Arrü),²⁰⁵ *ergal* ‘elkar’ (Uha) & *ergaletatu* (Uha)

napait ‘norabait’ (Arrü); erabilera nagusiak *noapeit* (Arm / Ora, Amo, Behau, Zoho / Olh) & *noapait* (Sarkp, Urd) dira

xuikita ‘xuriketa, arropa garbitzea’ (Behau); Arberoako Mehainen *xuiketa*

rekin lotzen du *tardaña*-k, Mugerre, Urketa, Beskoitze eta Bardozerekin. Baxenabarreko mendebala eta hegoaldea, Oztibarre-Garaziak, *lipu*-ren eremua dira eta Aldude-Baigorri alderdian *lupu* da. Baxenabarre ipar-hego lotzen da Arbotiko *armau*, Landibarreko *amiamau* eta Bidarraiko *amu*-ren bidez.

- 201 Aldiz, Arrüetan *etxaint* & *etxaina* eta Domintxainen *itxaña*. Gipuzkoan *izañ*, Lapurdi hego-mendebalean *xintximari*, Lapurdi barranean *odoleoskile* & *odoledale* eta Zuberoan nagusiki *zizañ* dena, *xixañ* da Pagolan, guztizko konpromisoan. Afrikatua nagusi da Baxenabarren: Oztibarre eta Garazin *itxain* & *basaitxain* aldaerak ibiltzen dira eta *itxain* dago Baigorriin, baina *itzain* Aldude-Bidarrrietan.
- 202 Gipuzkoan *zaldaliak irabazi* erraten zaio eta mendebalean *garagarra* *irabazi*. Lapurdin nagusi da *iharroska* eta Baxenabarren *ihalozka*, baina Zuberoan bi ele baliatzen dira: *itzilteka* eta *ützüharrikan*. Pagolan *ihaloska* eta *ütsülarrika* bildu dira eta Domintxainen *iharroska*. Amiküzten Arbotin *ihauzka* eta Arrüetan *ihauska* & *ihauzka* dakartza atlasak. Oztibarren *ihalozka* baliatzen da eta Garazin *ihaloska* aldaera nagusi da, baina Luzaiden *itxaloska* erraten dute, Behorlegin *itsaloska* eta Gamarten *iharrozka*; Uhartan, berri, *itzulipurdika*, **jaloska* eta **jaloskatu* ageri dira. Oparoa da hego-mendebala: Alduden *ildoska*, Baigorriin *itzaloska* eta Bidarrain *itzoroska* ibiltzen dira.
- 203 Hazpamen *kadena* eta Izturitzen *khaden* ditugu, Arrüetan *kadena*, Arbotin *khadiña*, *khadañak* & *khadeña* eta Domintxainen *khaiña* & *khadeña*. Ipar-Zuberoan legez, Pagolan *khatiña*. Baxenabarre erdialdean legez Garrüzen *kadiña* dago, Jutsi eta Larzabalen *khadiña* eta Landibarren *kadina*. Garaziko Behorlegi eta Ezterenzubini ere *k(h)adiña* baliatzen da eta Uhartegamarteetan *k(h)adina*. Luzaidek, Aldudek eta Baigorri *gatina* dute, Arnegik *kadena*, Baigorri *katin* & **khadina* eta Bidarraik *gate*.
- 204 Arberoan, Amiküze gehianean, Xiberoa gehianean —Pagola barne—, Oztibarre, Garazi eta Baigorriin *mendi* baliatzen dute. Salaberri Ibarrolakoak ez dakar hiztegi *mendi* baizik.
- 205 Nagusi da *erein*: *erein* (Zoho), *ereiten* (Amo, Mar, Gam, Zoho), *ereitzetik* (Laph); cf. *ereen* (Ilh) ere. *EI*-k *ereiten* dakar (Arbe).

7.3.5.2.2. Amiküze eta ondoko eskualdeetako lexikoa

7.3.5.2.2.1. Ipar Euskal Herri barnealdeko hitzak Amiküzen

Zuberoakoak ez bezalako item lexiko orokor franko ageri dira Amiküzen, Baxenabarren nagusi direnak; Nafarroa Beherearen eskuineko saihetsean egonik ere, usu jotzen du Amiküzek Baxenabarre zabaleko joeretara. Egiazki, ekialdekoak ez diren ezaugarriak partekatzen ditu Amiküzek ondoko mintzo baxenabartarrekin; ahalaz tasunok ibarreko zein herritan baliatzen diren aurkeztuko dugu. Hona adibide zenbait:

aatxe ‘aretxea’ (Meh / Behau, Lab / Sarkp) & *a^atxe* (Laph) & *atxe* (Laph) — cf. *xāhāl* (Sarkp), *xahāl* (Ündü) & *xahal* (Ainh); aldiz, bada *xahaldun* Amiküzen, Laphizketan entzun dugu —, *ahaide* (Bith),²⁰⁶ *ai(n)tzinaire* & *ai(n)tzinaize* ‘ekialdeko haizea’, *alainan* — adiera ilatiboa du eta *ba* partikula eraman dezake ezker — (Arm / Ora, Amo, Behau, Arrü, Mar, Gam, Donap) & *alaina* (Ora, Amo, Lab), *alta* aurkaritza balioa duen partikula (Ora, Amo, Behau, Mar, Lab, Ame, Zoha, Donap, Zoho), *andana* (*at*) (Arm / Ora, Behau, Arrü, Mar, Lab, Gam, Donap, Arbe, Sor / Olh, Arüe, Pag) & *andanaxka* (Sor), *aphoosto* ‘*Arctium minus* landarea’,²⁰⁷ *azantz* ‘zarata’ (Bith, Zoho, Arbe)²⁰⁸

balekibale ‘badaezpada’ (Ame), *basaphorri* ‘*Galanthus nivalis* landarea’,²⁰⁹ *beha* ‘zain’ (Arm, Meh / Behau, Donap, Arbe / Pag) — baina *behatü-k* badu Zuberoan legez entzute adiera ere Amiküzen (Laph) —

dala ‘teilatuko delako *canal* / *chéneau* zatia’; Baxenabarre hegoaldean *kotera*

elka ari (Amo, Bith, Lab, Ilh, Zoho, Sor) & *elheka* (Ora, Amo, Arrü, Ilh, Lük, Ame, Donap) & *elhekatü* (Zoho) & *eleketan* (Arm / Arbe); cf. Zuberoan *elhesta* (Oih, Pag) & *elhestan* (Urd) & *elhestatü* (Urd) & *elhestakatzez* (Urd)

fitsik ‘deus ere’ (Arm / Ora, Amo, Bith, Uha, Gam) & *fritsik* (Uha, Lab, Ame / Arüe) & *pitxik* (Behau)

hodei ‘erauntsia, ekaitza’ (Arrü) & *odei* (Arbo, Zoho, Laph) & *hodeiaire* (Gar); baita *galerna* ere (Arrü),²¹⁰ *hotseman* ‘abereen aitzinean joatea’ (Ilh)

206 Baina ez da nagusi Amiküzen; cf. *azkazi* (Behau, Bith, Sarkp) eta *askazi* (Arbe / Ündü, Urd).

207 Bada Bardozen, Makean, Jutsin edo Ezterenzubín ere. Zuberoa eta Baxenabarre gehianean *lap(h)atina*, baina Hazparnen eta Arberoa *ohoin*; Armendaritzen baita *ohoinlili* ere.

208 *EI-k azants* dakar Arberatzen.

209 Baita *basatipula* Arrüetan ere. Ondoa *otsoporru* dago Makea-Izturizetan, *basatipula* Landibarre & Armendaritzen eta *anbulo* & *anbula* Baxenabarre erdialde eta hegoaldean.

210 Zuberoan *tenpesta* (Dom) eta *oa[ʒ]e* ageri dira eta Lapurdi gehianean *kalerna*; Baxenabarreko erdi eta hegoaldean indartsu dago *ortzantz*, Amiküzeko Garrütze barne. Euskal Herriko mendebalean ere bada *odai euri* edo *odei zaparrada*, hego-mendebaleko Zollo, Zeberio, Orozko herrietarik hasirik Gipuzkoako Legazpiraino —*odei*— eta Nafarroa Garaian Ergoieneko Dorraoraino: *odoi*.

& *otsemaiten* (Mar) & *hotsemaile* ‘abereak alorrean hotsez gidatzen dituenak’ (Laph) & *otsemailea* (Mar)

iakoitz ‘larunbata’ (Meh / Amo, Behau, Uha, Arrü, Mar, Lab, Ilh, Gam / Etx, Olh, Sarkp, Loh, Pag) & *iiakoitz* (Pag) & *ihiaikoitz* (Olh) & *ibiakoitz* (Arm / Arbe) & *ebiakoitz* (Pag) & *eiakoitz* (Sarkp) — cf. *neskenegün* (Sarkp) & *nexkenegün* (Sarkp) & *neskeneün* (Oih, Pag)—, *ikhatz* ‘behien eritasun bat’,²¹¹ *irian* ‘ondoan, aldean’ (Arm / Ora, Sor), *irri* ‘barrea’ (Arm, Meh / Bith, Sor / Pag) — cf. *erri* (Zoho / Itho, Sarkp, Pag)—

kalapitan (Bith), *kallu* ‘zerriaren azala’ (Gar) & *kallü* (Arrü, Dom) & *kailü* (Arbo) — baita *kalla* eta *kaila* ere (Arbo)—, *karlos* ‘mutilzaharra’ (Barta / Arüe), *kilikan* ‘sentibera’ (Zoho), *kinkili-kankala* ‘baldar ibiltzea’ (Arbe), *komesa* ‘-z mintzo’ (Uha / Pag), *kokin* ‘maltzurra’ (Behau, Bith, Donap) — adieraz bedi kasu honetan Zuberoan ere badela *koki* & *kokin*—

labasi ‘erauntsia, euri jasa’ (Gar, Arbo, Zoho)

mando ‘ardi antzua, dehotza’, *muthil* ‘morroi joan ohi dena’ (Arm, Meh / Amo, Behau, Bith, Ilh, Lab, Laph) & *mutil* (Mar)

naski ‘dirudienez’ (Ora, Behau, Bith, Gam / Sarkp)

ondo ‘arbola gerria, trunkoa, nardia’ (Gar, Arbo / Dom, Pag) — baita *trunko* (Arbo / Dom, Pag) eta *billun* ere (Arrü, Arbo)—, *otte* ‘kilkerra’ (Arm / Arrü, Gar, Arbo / Dom / Lan, Jut, Larz) & *otthé* (Pag) — ‘matxinsaltoa’ ere adierazten du hitz honek Baxenabarre guztian—, *otto* ‘osaba’ (Behau, Bith, Gam, Donap, Laph / Olh, Arüe)

putar ‘zaldiaren ostikoa’ (Arm / Arrü / Dom, Pag / Jut, Larz)

tole ‘nahi bezainbat’ (Behau, Ame)

phindar ‘txinparta’ (Zoho),²¹² *plano* ‘ordokia, leku zelaia’ (Uha, Mar),²¹³ *poxulu* ‘behaztopa, oztopoa’ (Meh / Amo),²¹⁴ *primadera* (Arm / Amo, Uha, Ilh / Pag), *punpeka* ‘jauzika, errate batera zaldia edo gurdia’ (Ora, Behau / Dom) & *punpaka* (Arrü / Pag)

uhar ‘euri jasa, zaparrada’ (Arm / Arrü, Gar, Arbo)²¹⁵

211 Lapurdin ere nagusi da *ikatx*. Bizkaian *karbunko* & *kabrunko* mailegua erraten da, Gipuzkoan *lipu*, Nafarroan eta Baxenabarren *satar* eta Zuberoan *liipe*, baina Domintxainen *ikhatz* eta *sathar*. Amiküze ondoko Baxenabarren *mingaixto* ibiltzen da, Arrüeta bame eta Garrüzen bada *satar* ere.

212 Amiküzén, Baxenabarre guztian eta Lapurdi gehiengan ibiltzen da.

213 Uztaritze, Hazparne eta Aturrialdean ere *plano* erraten da. Zuberoa-Baxenabarreetakoa da *ordoki*.

214 Zuberoan ezezaguntzat eman digute; Larrasketek dioenez, etxe izena eta deitura da *Püxülü* Zuberoan. Luzaiden *Juan de Puchulutegui Bordasar de este valle* ageri da 1803an; cf. 1804ko «en favor de Juan de Puchulu y la suya dueños de la Casa de Bordassahar» (Patxi Salaberri Zartiegik ahoz errana).

215 Armendaritzen *euri uharra ari da bildu* dugu.

7.3.5.2.2.2. Ipar Euskal Herri barnealdeko aldaerak Amiküzén

Aldaera lexiko hauek Amiküzén entzun ditugu eta ez dira Zuberoan ageri direnak berak, dela Zuberoakoek beste aldaketa bat jasan dutelako, dela Zuberoan lehengo izaerari eutsi dioten hitzak Amiküzén berriztatu direlako; hona sorta bat:

a(a)txebürü ‘zapaburua’,²¹⁶ *aitatxi* ‘aitona’ (Arm / Behau, Arbe / Dom, Olh) —Laphizketan *aitatxi* eta *attatti*, biak ageri dira; Bithiriñan dioskute *uaiko gaztek* “aitatxi” erraten dutela, *guk aitañi erten gintzin*, eta *attitti* ere ibiltzen dute ohiko mintzoan—, *alfor lanak* ‘udako lanak, lurra bero denean’ (Uha), *amatxi* ‘amona’ (Arm, Meh / Behau, Laph / Dom) —cf. *amañi* ere (Bith, Gab)—, *aneia* (Arm, Meh / Ora, Amo, Bith, Uha, Mar, Lab, Gam, Arbe / Olh, Oih), *ano* ‘ardoa’ (Arm, Meh / Bith, Ilh, Uha, Arbe), *araiç* (1) ‘nonbait, dirudienz’ (Behau, Bith), *araiç* (2) ‘zinez, egiazki’ (Uha), *arront* ‘guztiz’ (Uha), *asteharte* (Lab, Zoho / Olh, Pag, Ündü),²¹⁷ *astelegunaz* (Amo), *astezken* (Arm / Bith, Arrü, Mar, Gab, Ame, Zoho), *atsalde* (Arm, Meh / Amo, Behau, Uha, Bith, Lab, Ilh, Arbo / Etx, Olh, Arüe, Sarkp, Oih, Ainh, Pag), *atxiki* (Arm, Meh / Amo, Behau, Bith, Uha, Mar, Lab, Ilh, Zoho, Laph / Olh, Sarkp, Pag) —cf. *etxeki* (Urd)—, *aurdiki* ‘jaurtiki’ (Bardo / Arm, Meh / Arrü, Mar, Gar, Arbo, Zoho),²¹⁸ *ausmarria* ‘hausnarra’ (Bardo / Gar, Arbo) & *ausmarria in (Arrü)* & *ausmarren* ‘hausnar egiten’ (Arbo); cf. *ausmaarri* (Arm)

bana ‘baina’ (Arm / Ora, Bith, Ost, Uha, Lab),²¹⁹ *behor* (Meh / Ora, Bith, Uha, Arrü, Mar, Zoho, Arbe) —cf. xiberotarren *bohor*, Sarrikitapean entzun duguna—, *bekada* ‘oilagorra’ (Arrü, Gar, Arbo / Dom, Pag) —baita *pekada* ere (Dom)—,²²⁰ *berdin* (Arm, Meh / Amo, Behau, Bith, Uha, Arrü, Mar, Lab, Gam, Arbo, Arbe) —ikus 7.3.5.2.2.9. §-n *bardin* ere—, *berenez* (Mar, Ilh), *berret* ‘apotea, aketza, umea egiten duen zerri arra’ (Arrü, Gar),²²¹ *bihamun* ‘biharamuna’ (Urketa, Bardo / Arm / Bith, Uha / Jut, Larz, Zib,

216 Ipar Euskal Herriaren iparraldean gaindi hedatzen da aldaera hau: Mugerre, Hazparne, Izturitze, Bardoze, Arboti eta Domintxainen bildu du *EHHA*-k. Zuberoan nagusi da *xahalboka*, Pagola barne; aldiz, Eskiulan *xahalbü* eta Jaurrietan *xalburu*. Oztibarre eta Garazin zabal dabil *buruzaal* —Landibarre eta Larzabalen *zipaburuzaal*—. Luzaiden *apozaal*, Behorlegin *zipa*, Gamarten *lolo*, Alduden *apotxali*, Baigorriin *apotzale* eta Bidarrain *aatxiigel*.

217 Atlasak Baxenabarreko Landibarren eta Zuberoako Altzürükün dakar ere.

218 Makea, Izturitze, Oztibarre edo Garazin *aurt(h)iki*.

219 Labetze da Amiküze erdialdeko salbuespena: herri honetan *bena* entzun dugu etsenplu kasik guztietan, baina agertu zaigu *bana* ere; saihetseko Oragarren eta hegoaldeko herrietan dago *bana*.

220 Zuberoa guztiko da *azaia*, Pagola barne. Aturrialdean, Hazparne-Itasuetan eta Baztango ekialdean ere *bekada* ageri da; aldiz, Oztibarre, Garazi eta Baigorrialdean ez da *pekada* & *phékada* era baizik ibiltzen.

221 Gamarten ere *berret* bildu da, baina Oztibarren *perret*; Zuberoan *berrat* erraten da, Pagola, Domin-txaine eta Amiküzeko Arboti barne. Gipuzkoa ekialdean, Nafarroa Garaian, Lapurdin eta Baxena-barre gehienez legez, *aketz* dago Baxenabarre hegoalde guztian, Garazin eta Baigorri eskualdeetan, Aezkoan legez. Bada, bestalde, *herauts* edo *ehauts* Landibarre, Ezterenzubi eta Gamarten.

Ibarro, Donaix) & *bihaamun* (Ibarro) & *biaamun* (Meh) & *biamun* (Ilh) & *bihamon* (Ora), *bokheta* ‘arroparen garbialdia ibaian’ (Meh) & *bokhata* (Ost, Uha), *buxer* ‘harakina’ (Arrü, Gar, Arbo)

ddantza ‘dantza’ (Arm / Arrü),²²² *deizte* ‘abereak jeztea’ (Ora), *dilindan* ‘zintzilik’ (Arbe), *dorphe* ‘pertsone baldarra’ (Bith), *dupina* ‘jan egosteko ontzi mota bat’ (Behau) —cf. *düphiña* (Zoha)— eta *diphiña* ere Amiküzen (Arbo / Dom)

edaki ‘irakin duena’ —*ur edakiekin*— (Amo), *elgar* ‘elkar’ (Arm, Meh / Amo, Behau, Bith, Mar, Ilh, Lab, Arbe, Sor, Laph / Dom, Olh, Loh, Oih, Pag) —Uhartehirin *ergal*; cf. *algar* (Urd)—, *emazteki* ‘emakumea’ (Arm / Amo), *huri* (Arm, Meh / Bith, Uha, Lab, Zoho, Laph / Olh, Loh, Pag) —cf. *ebi* (Urd)—, *ezik* (Amo),²²³ *ezontsa* (Arbe) & *ezuntsa* (Uha) & *e[z]untsa* (Laph)

fidea ‘fedea’ (Bith),²²⁴ *frango* ‘franko, anitz’ (Arm, Meh / Ora, Amo, Bith, Ost, Arrü, Mar, Lab, Ilh, Ame, Zoha, Arbe, Sor, Laph / Olh, Loh)

gaixtaginik (Arrü), *gañatikoa* ‘gainerakoa’ (Lab) & *gañetiko* (Amo), *garrat(h)uin* ‘arratoia’ (Gar, Arbo) & *garratoin* (Bardo / Arrü / Jut, Larz) —Arberoa *garratoi* bildu dugu (Arm); cf. *garrotoñ* (Lan)—, *gasna* ‘gazta’ (Arm, Meh / Behau, Bith, Uha, Arrü, Lab, Gam, Zoha, Arbe, Sor / Dom, Olh, Pag) —cf. *gazna* (Urd)—, *gauherdi* (Arrü)

haitz ‘haritza’ (Meh / Ora, Bith, Arbe / Arüe), *hamoost* ‘hamabost’ (Arm, Meh / Ora, Bith, Arrü, Mar, Lab, Ilh, Ame, Gam, Zoho, Arbe, Sor / Dom, Etx, Olh, Arüe, Sarkp, Ündü, Pag) —baina *hamabost* (Urd), Larrasketek bezala—,²²⁵ *haragi* (Ilh) —xiberotarrek *h-* gabe—, *hea* ‘ea’ (Bith), *heaztei* erdal ‘corbeau / alero’ (Arrü / Lan), *hemen* (Arm, Meh / Bith, Lab, Arbe), *hipaka* (Zoho)²²⁶

ihortziak ‘ehortziak’ (Bith), *ikhatzile* ‘ikazkina’,²²⁷ *ilar xehe* ‘ilarra’ (Arrü, Gar) & **ilhar xehe* (Lan) —cf. *ilhar biibil* (Arbo), Zuberoan bezala—,²²⁸ *intzun* ‘entzun’ (Bardo / Arm / Barta, Ora, Amo, Behau, Bith, Ost,

222 Orokorragoko *dantza* ere bada Amiküzen (Ora, Amo, Bith, Arrü, Mar, Ame, Gam, Arbe). Zuberoan ere *dantza* bildu dugu (Dom, Olh, Loh, Sarkp, Pag, Urd) eta halaxe dakar Larrasketek ere: *dantza*.

223 Honako erabileran: *ez*, *ez ezik*, *bon*, *egun batendako ta ola*.

224 Lopez oztibartarraren 1782ko *Pratica* itzulpenean bi aldiz ageri da *fide* eta hogeita zortzi aldiz *fede*.

225 Baina Basabürüko Gameraen *amostean* dakar Otsibarrek (2003: 75).

226 Lekuko zohotarrak diosku ez dutela *zipha* ibiltzen, nahiz *OEH*-k *zipha* dakarren Amiküzen; hiztegi horren arabera, iduri luke Zuberoan *zipha* dela nagusi.

227 Nafarroa Garaiko ekialdean eta Lapurdi-Baxenabarretan nagusi da *ik(h)azkin* aldaera eta zuberotarrek, berriz, *inkhatxeo* ibiltzen dute. Ohiko konpromisoan Pagolan *inkhatzile* eta *inkhatxeu* ibiltzen dira eta Domintxainen ere halako *interdialect* era da *ikhatzero*; berebat, Garrüzén *ikatzero* bildu da. Bastidan ere *ikhatzile* ageri da eta Larzabalen hirukoitza da bilduma: *ikhatzile*, *ikhatzero* & *ikhatzero*. Oztibarreko Jutsi, Landibarre, Garazi eta Baigorri eskualdekoak aldaera nagusi *ik(h)azkin*-en erabiltzaile dira.

228 Lapurdiko Aturrialdean, Hazparnealdean eta Izturitzen ere bai. Landibarren proposamen onetsia da. Zuberoan bezala, Baxenabarren nagusi da *ilar biribil* aldaera eta Lapurdin *etxilar*.

Uha, Ilh / Olh) & *intziin* (Lab, Zoha, Donap, Arbe / Pag) — cf. *entzun* (Ora, Beh) & *entziin* (Zoho),²²⁹ betiere saihetsetan—

jali (Hel, Bardo / Ora, Lük) & *jalitzen* (Lük) & *jalgi* ‘irten’ (Arm / Amo, Arrü, Ilh) & *jalgiten* (Arrü), *jarrikaazten* ‘jarraikarazten’ (Arrü), *jela* ‘alorra hersteako ataka’ (Arrü),²³⁰ *Jingo* ‘Jaungoikoa’ (Arbe),²³¹ *Jondone* & *Jondoni* (Arrü)²³²

kondu — *aphez kondu re*— (Behau), *khotsu* ‘pixka bat’ — *khotsia* forman— (Arm, Meh / Ora, Behau, Gam)

leizar ‘lizarra’ (Bardo / Uha, Arrü, Gar, Arbo / Dom, Pag)²³³

motzale ‘mozten duena’ (Ora)

noiztenka (Meh / Zoho)

ohite ‘oroimena’ (Gam) — cf. *nik ja gure ohitian*—, *oixtian* ‘arestian’ (Amo, Behau, Mar, Lab, Gab, Gam, Zoho, Sor)

paatu ‘ordaindu’ (Meh / Amo, Behau, Bith, Uha, Lab, Arbe) & *patii* (Lab) — cf. *pakhätü* Zuberoan—, *pazko* (Bardo / Amo, Behau, Sar, Zoko, Arrü, Gar, Arbo / Dom) & *phazko* (Arrü),²³⁴ *phesta* ‘jaia’ (Arm, Meh / Ora, Amo, Behau, Bith, Arrü, Mar, Altzü, Lab, Ilh / Dom, Etx, Olh, Loh, Arüe, Sarkp, Oih) — cf. *besta* (Ündü, Pag, Urd)—, *phestaberri* ‘*Corpus Christi* eguna’,²³⁵ *poloka* ‘puloka, multzoka’ (Behau), *poxi* (*b*) at ‘pixka bat’ (Arm, Meh / Behau, Ost, Arbe) & *puxi bat* (Arrü) & *puxi at* (Behau) — cf. *buxi bat*

229 Zohotan baita *iintziin* asimilatua ere.

230 Arrüetan baita *xela* ere; Amiküzten aita-amak arberoarrak zituen lekuko behauztar batengandik entzun dugu *xehela*. Baxenabarren *xela*, *xeh(i)la* & *xehella* ditugu eta Zuberoako Urdiñarben *xehela* & *kehella* bildu ditugu. Mendebalera doa *jela*: Hazparne, Izturitze, Bardoze eta Bastidara, baina Larzabalen ere *jela* ageri da eta Beskoitzen *gela*. Zuberoan *kehella* & *kihilla*; Pettarran baizik ez dago *xehela*. Sarrikutapean *kheta* bildu dugu eta horrelaxe dakar EHHA-k Domintxainen. Urdiñarben *kehella* bildu dugu: *lehen egürrez eginik zitia*, *oai bürdüñez beitia*, *hanitx*, *beno egürrez eginik dianak tüütük xehelak*, *bestelan bürdüñez dianak* “portalik” *deitzen tiagü* (Urd). Pagolan honela entzun dugu: “*xehela*” *gük erraiten dizügü* “*kheta*”, “*xehela*”, *bai*, “*xehela*” *xübeatar düzü*, *bai*, *nik uste*, *ba eta segür e*.

231 Lopez jutsiarraren XVIII. mendeko *Pratica* itzulpenak bost aldiz dakar (1782: 35, 38, 57, 112, 422).

232 *OEH*-k aberats aurkezten digu Amiküze: *Jandoni*, *Joandene*, *Jondane*, *Juandane*, *Juandene* eta *Juandoni*. Zuberoan *Jundane* & *Jondane*.

233 Lapurdi itsasaldean eta Bidarrain *lizar*; Lapurdi barnealdean, Aturrialdean eta Baxenabarren *leizar*; xiberotarrek *lexar* erraten dute.

234 Ere mu zabalean ageri da aldaera ahoskabea: Lapurdiko ekialdearekin bat eginez *pazko* dakar atlasak ipar Baxenabarren, Landibarre eta Larzabale barne. Aldiz, Zuberoan bezala, Pagolan eta Jutsin *bazko* aldaera ahostuna dago. Era hau bera dago Baxenabarre hegoaldean — Aldude barne —, Nafarroa Garaiko ekialdean eta Lapurdiko mendebal guztian ere, baina Baigorri-Bidarraietan *pazko*.

235 Baxenabarre iparraldean eta Lapurdiko ekialdean — Aturrialdea barne — baliatzen da aldaera hau eta hegotik Garaziko Gamarte eta Oztibarreko Larzabaleraino heltzen da, Landibarre barne. Zuberoa guztian, Pagolan eta Oztibarreko Jutsin *bestaberri* dago, baina Domintxainen *bestaberri* & *pestaberri*.

(Urd)—²³⁶ *pullit* ‘ederra’ (Ora, Arbo), *puthiko* (Ora) & *putiko* (Behau),²³⁷ *sasoi* ‘garaia’ (Arm / Amo) & *sasoin* (Meh / Lab / Loh) & *sasoñ* (Ost, Sor) & *sasoñik* (Ora) & *sa[ʒ]ju* (Ündü, Pag) & *sa[ʒ]jū* (Ainh) & *sa[ʒ]juin* (Urd) & *sa[ʒ]juña* (Pag), *sohallü* ‘belar idorra gordetzeko etxe ondoko eraikuntza’ (Ilh, Arbo) & *soallü* (Sarkp) & *soallia* (Gar) & *sohallan* (Amo) —Landibarren *sabai* eta *soallu* dakartza EHHA-k eta Bardozen *selhauru*; Amendüzen entzun dugunez “*sabaia*” eta “*sohallia*”, *biak etxen dira*; *belharra bethi barnen*; *etxe ondokoa “angarra”* da—²³⁸

zalhü ‘arin, bizkor’ (Zoho / Olh) —cf. *zalhe* (Urd)—, *zendako* ‘zergatik’ (Ora, Bith, Ame)

7.3.5.2.2.3. Baxenabarre ekialdeko hitzak Amiküzen

Sail honetako hitzak Baxenabarreko ipar-ekialdean edo ingurumarian bildu dira, Oztibarren eta goitixeago Amiküzeko eskualdean edo ingurumarian; batzuk guhaurek eta beste batzuk Euskaltzaindiaren EHHA egitasmoko kideek:

artzaiñizar ‘artizarra, goizeko izarra’ (Bardo / Arm / Gar / Lan); Arberoan ere ageri da

dala ‘teilatuko ura jaisten den hodia’ (Arrü, Gar, Arbo / Dom, Pag / Lan, Jut, Larz); baita *zenga* Arrüetan eta *gutiera* Pagolan ere

kixkarratu ‘zerriaren azala erre’ (Gar —proposamen onetsia—, Lan, Jut, Larz) cf. *kixkarratü* (Dom, Pag) —Garazin ere bai; Zuberoan oro har *txokhartü*—, *kokatra* ‘sortu den txita multzoa’ (Arrü, Gar, Arbo / Dom) —aldiz, *kookatra* (Jut), Pagolan *kokatá*—,²³⁹ *kuduiñ* ‘irasagarra’ (Gar) & *khuiñ* (Arbo) & *khuduñ* (Dom, Pag) & *kuduñ* (Jut) & *kuduiñ* (Lan)

mando ‘delako behi *nymphomane*’ (Arrü, Arbo / Lan, Jut, Larz); ageri da Lapurdiko Mugerren eta Makean nahiz Arberoan ere

patitü ‘jasan, sufritu’ (Mar) —frantsesezko *pâtir* da—,²⁴⁰ *pularda*

236 Zuberotarren aldaera *boxi* dela diosku OEH-k.

237 Zuberoan *potiko* ibiltzen da, baina *Charlemagne* pastoralean *putiko* ageri da.

238 Bardozen hitz bukaeran *-u ala -i* den ez da garbi, eta bestalde, beste lekuko bardoztar baten ustez ez da herriko hitza.

239 Amiküzeko (*ollo*)*kokatra* bezalakoa da Oztibarreko Jutsiko *ollokookatra* & *kokatra*. Zuberoa gehienez legez Pagolan *kokatá* dago, baina Domintxainen *ollokookatra*. Landibarre eta Larzabalen *xitandana* dago, Gamarte eta Baigorri legez; bestalde, *xitaldi* & *xita alde* ageri da Baxenabarre erdigune eta hegoaldean. Peko alderdian *ateraldi* dago Alduden eta *hazaldi* Luzaiden.

240 Behaizen 1913an Trebitsch-ek bildurik ere. cf. Lopez oztibartarraren 1782ko *Pratica: pati-aracico dereat gossia, egarria, hotzça eta berua, eta kargaz akit-aracico, amorecatic hire ppenen jassaithiaz aboro ocupa hadin* (385). Zuberoan eta Ipar Euskal Herriko idazle gehiagorengan ageri zaigu. Tartasek *Arima*-n dakar, Ibarrolako Salaberrik badarabil eta Gèzek ere bai. Bazkazaneko predikuetan ere ageri da: *patitico du establia batian sasoinetaco rigorosena* (Orpustan 2005: 213).

‘oilanda’ (Arrü, Gar, Arbo / Larz) & *pullarda* (Dom / Jut)²⁴¹

traimü ‘bi haberen arteko tarte’ (Arrü) & *tranü* (Gar / Dom) & *tramu* (Jut, Larz) & *tramü* (Pag); hego Zuberoan *sumearte*

urde hiltze (Bardo / Bith, Arrü, Mar, Lab, Gar, Arbo / Dom, Artie, Pag / Lan, Jut, Larz); baita Lapurdiko Aturrialdean eta Arberoan ere; dena den, *zerri hiltze* edo *xerri hiltze* ere baliatzen dira Amiküzen

xamango ‘txongoa, txungurra’ (Arrü, Gar, Arbo / Lan) & [*3*]amango (Dom) & [*3*]amangoki (Dom) & *xamalgo* (Larz)

zeru xahar ‘atertzean ikusten dena’ (Arrü) & *zelü xahar* (Arbo / Pag, Urd) & *zerü xahar* (Dom) & *zeru xahar* (Larz); Garaziko Gamarten ere *zeru xahar*

7.3.5.2.2.4. Baxenabarre ekialdeko aldaerak Amiküzen

Sail honetako aldaerak Amiküzeko eskualdean eta Oztibarren ageri zaizkigu, baina inoiz baita Arberoan ere; franko aldaera *EHHA* egitasmotik harturik dakartzagu, baina guztiak ez:

argizaitte ‘ilargia’ (Uha / Larz, Donaix) & *argizaitu* (Lan) & *argizeitu* (Jut),²⁴² *arthei* ‘neguan ardiak gauez etxe inguruan gordetzeko lekua’ (Gar, Arbo / Dom) & *artei* (Arrü / Jut, Larz) —Pagolan *arditei*—, *auhari* ‘afaria’ (Ora, Gab, Lab, Larri, Laph / Ibarre) —Ibarrolako Salaberrik ere bai—; cf. *auari* (Zib); Haritxelharrek Iholdi alderdian kokatzen zuen *ahuaría* & *ahualdu* (1963: 61), baina guk Arberoako Armendaritzen *afari* entzun dugu

gakho ‘hil ondoren urdea dilindatzeko’ (Gar, Arbo / Dom / Jut, Larz) & *gako* (Arrü),²⁴³ *gaphuñ* ‘kapoia’ (Bardo / Bith, Arrü / Dom, Pag) & *gapuñ* (Lan) & *gaphuin* (Arbo / Larz) —hegoaldera eta mendebalera *k-* dago Bastida, Baigorri, Irisarri, Arnegi eta Garaziko Uhartan eta baita Amiküzeko Arrüetan ere—, *goha* ‘bero tzarra, haizerik gabea’ (Bardo / Meh / Arrü, Arbo / Lan, Jut, Larz) & *goa* (Gar) & *gorha* (Arm); Zuberoan *gohan* & *gohain* aldaerak ditugu

241 Zuberoan *ollanta* erraten da, Pagola barne eta Domintxainen *ollanda*. Amiküzen ere bada *oilanda* Arrüetan eta Garrüzen **ollanda*. Oztibarreko Jutsi eta Larzabalen *ollanda* diote ere. Landibarren, Ezterenzubin eta Baigorrialdean *oilanda* eta Garazi gehiengan, berriz, *ollanda*.

242 *EAEL*-k Aturrialdeko Urketan, Amiküzeko Amendüzen eta Domintxainen dakar. *EHHA*-k, berriz, *argizeita* dakar Domintxainen.

243 Zuberoan *khako* edo *kakho* aldaera nagusitzen da, baina Pagolan *xirrintola* bildu da. Larzabalen *gako* & *grako*, baina Baxenabarre erdialdean legez, Landibarren *krako*. Garazin *gantxo* nagusi da, baina bada *grantxo* & *grantzo* ere, nahiz Uhartan *kakotx* eta *kroka* bildu diren. Ezker, Alduden *gantzo*, Baigorriin *krakotz* eta Bidarrain *mako* bildu dira.

haxot ‘egur sorta’ —cf. Olhaibin bildu dugun *belhar haxot*— (Arbo / Dom / Lan, Jut, Zib, Donaix) & *axot* (Gar),²⁴⁴ *heen* —pean *heben* duela dirudiena— (Bith, Uha, Mar, Ilh, Gam / Dom); ikus Oztibarren ere *heen* (Arh, Izu, Jut, Larz, Bun, Ibarre, Ibarro, Hoz; in Videgain 1989)

ihitz ‘ihintza’ (Behau, Arrü / Lan, Jut, Larz, Ibarro, Hoz) —Zuberoan *ihitz* ahoskatzen dutena; Ipar Euskal Herrian hedadura handia du: Lapurdiko Aturrialdean eta ekialdeko Garazin ere *ihitz*, mendebaleko Garazin *iitz*, baina Lapurdiko eran Baigorri eta Bidarrain *ihintz*; alta, Baxenabarreko mendebalean eta Amiküzeko Garrüzen *izarrihitz* ageri da—

k(h)adiña ‘behia lotzeko katea’ (Gar, Arbo / Jut, Larz) —baita Garazi ekialdeko Behorlegi eta Ezterenzubini ere; cf. *kadena* (Arrü), *khadeña* (Dom) eta *khatiña* (Pag)—, *kafe* ‘habia’ (Bardo / Arrü, Gar, Arbo, Zoho / Dom / Jut, Larz) —Gamarte, Behorlegi edo Arnegin ageri da; EHHA-ko datuek partitiboan *kafeik* dakarte Jutsin; Landibarren *kafia* da erantzuna, izan ere, Baxenabarren *kafi(a)* eta *kafir(a)* ditugu bestela; cf. *kafira* (Arm, Meh); Zuberoan *habia*, Pagola barne, baina baita Amiküzeko Behaskanen ere—, *klosko* ‘ur putzua’ (Arm / Arrü, Zoha, Arbo / Dom / Larz); cf. *losko* (Sarkp)²⁴⁵

mitre ‘berina, kristala’ (Arrü, Gar / Lan, Larz), *muxerun* ‘udaberriko ziza, *Tricholoma georgii*’ (Gar) & *muxeræn* (Arbo) & *moxolon* (Larz); Gamarten ere *moxolon*, Behorlegin *muxerona*, Zuberoan *buxeu*

oseba (Ora, Bith, Gab, Arbe, Laph / Dom); Ibarrolako Salaberriker ere *oseba* dakar, baina Zuberoan *osaba* dago (EAEL)

txitatei ‘txitak sartzeko kaxa berezia, kaiola’ (Arbo / Larz); Garaziko Behorlegi-Ezterenzubini legez; Altxürükü-Urdiñarben ere (*t*)*xitxategi*; Arrüetan *kaiola*; Garrüzen *kaloï* dakar EHHA-k, Zuberoan bezala, baina galdera ikurra darama; guk Zohotan *kaloia* bildu dugu

urdandei ‘zerritegia’ (Bardo / Arrü, Lab, Gar, Arbo, Zoho / Dom / Lan, Jut, Larz)

xaz ‘iragan urtean’ (Arm / Ora, Behau, Bith, Lab / Olh / Lan, Jut, Larz) —baita Aturrialdeko Mugerre, Urketa eta Bardozen ere—, *xingar* ‘zerriaren urdaiazpikoa’ (Arm, Meh / Ora) & *zingar* (Sarkp), *xilkhoi* ‘zila, zilborra’ (Arbo / Dom, Pag / Jut, Larz) & *xilkoi* (Arrü, Gar)²⁴⁶

244 *haxe* + *-ot* txikigarria = *haxot* ibiltzen da Baxenabarre iparreko Amiküze-Oztibarretan; bestalde, Garrüzen *axot* dago eta Domintxainen bezala, Arrüetan *fagot*. Zuberoan *haxe* & *fagot* dira nagusi eta Oztibarreko Larzabalen *xixtapur* bildu da. Garazi ekialdean *haxe* dago eta hegoaldean, Baigorriko eskualdean bezala, *zama*. Baxenabarre mendebalean *haxe* berragertzen da: Bastida, Izturitze eta Irisarrin.

245 Behorlegin **kloska* onetsirik dakar EHHA-k, baina atlaseko Bardozekeko lekukoak dio *losko* ez duela ezagutzen.

246 Zuberoan *pikhoste* dago, baina galdera ikurra darama *pikhoste*-k Pagolan. Landibarre, Behorlegi, Ezterenzubi, Arnegi, Baigorri eta Alduden *xilk(h)o* dute, baina Gamarte, Luzaide eta Bidarrain *xilk(h)o*.

zaaldü ‘atea ireki’ (Arrü, Arbo) & *zaaldu* (Bardo) & *zaldü* (Gar / Dom) & *zabaldu* (Jut) & *zaaldu* (Lan, Larz); Pagolan *zabaltü*; Baxenabarre mendebalean nagusi da *ideki* eta Lapurdin *ireki*; *sabaldu* & *zabaldu* Bizkaian, Gipuzkoako mendebalean eta Nafarroa Garaiko mendebalean berragertzen zaizkigu

7.3.5.2.2.5. Baxenabarre ekialdeko eta Zuberoako hitzak Amiküzen

ähãrdi ‘zerrama, zerri emea’ (Ora, Zoho) & *ahardi* (Barta, Mar / Jut, Larz), *ahari* ‘zikiroa, irendua dena’ (Bardo / Arrü, Gar, Arbo / Dom / Lan, Jut, Larz) & *ahai* (Pag) — Baxenabarre mendebalean *zikiro* dena, Arnegi, Aldude, Baigorri, Bidarra, Armendaritze barne, nahiz *aari* eskuinaldetik Hazparnera-ino hedatzen den —, *arrest* ‘kabila, atzeko larakoa, idiak gibelera doazenean gurdia blokeatzeko pieza bat’ (Arbo), *athela* ‘kabila, larakoa, idiak aitzinera doazenean gurdia blokeatzeko pieza bat uztarriaren aitzinean’ (Arrü, Gar, Arbo), *axurdun* ‘oraindik umea kendu ez dioten ardia’ (Larri) — proposamen onetsia da Garrüzen; Oztibarren ere ageri da (Lan, Jut, Larz) eta baita Garaziko Gamarte eta Ezterenzubin ere —, *axuri* ‘ardiak egiten duen ume jaioberrria’ (Bith, Arrü, Lab, Gar, Arbo / Dom, Ainh / Lan, Jut, Larz, Hoz); cf. *axui* (Pag), Zuberoa guztian bezala; ezker *bil(d)ots* dago Baxenabarren — halaxe bildu dugu Mehainen —, Lapurdin, Nafarroan, Gipuzkoako mendebalean eta Bizkaian; eskualdean baita Arrüetan ere eta Garrüzen proposamen onetsia da *bildotxa*

basajaun ‘kakalardoa, kakamarloa’ (Arm / Arbo / Dom, Pag / Jut, Larz) — Aturrialdeko Mugerre eta Beskoitze barne; Landibarren eta Baxenabarre gehienean *kakamarlo* dago, Larzabale, Aldude, Baigorri, Eugi, Baztan edo Lapurdi alderdia barne —, ²⁴⁷ *be(h)or(t)zori* delako *Sturnus vulgaris* txoria, behorren ongarrian ibiltzen dena, erdal ‘étourneau sansonnet / estornino’ (Arrü, Gar, Arbo / Dom / Lan, Jut, Larz) — *behorxori* aldaera ere bildu dugu (Ibarro): *beltxa, xoxoa iduri, larrazkenean heentik badoazi*; Garazin proposamena egitean Ezterenzubin eta Hergaraiko Behorlegin *be(h)ortxori* onetsi dute; Zuberoan *bohortxoi* erraten da, Pagola barne; cf. *harxori* (Jut) eta *hartzori* (Larz) ere; peko alderdian *hartzori* ageri da Garazin, baina Irisarrin ere onetsi da *artzori*; beheiti jarraipena du *behor(t)zori* hitzak, proposamena egitean Behorlegi-Ezterenzubietan onetsi dute —, *biphila* ‘*Convulvulus arvensis* landarea’ (Arbo / Dom, Pag / Jut) — baita *luhuntz* ere Baxenabarre ekialdean (Jut, Larz, Ibarro); palatalizaturik *lühüntz(a)* egiten dute xiberotar gehienek, Pagola barne, baina ipar Zuberoan *piphila* & *biphila* dago —, *brosta* ‘sasitza’ (Arrü / Pag / Lan, Larz) & **brusta* (Gar); Zuberoan *brusta*, Domintxaine barne

247 Zuberoa hegoaldean *kükümarro* ibiltzen da eta erdialdean *barbalot*; Garrüzen *anaton* bildu da.

eauntsi ‘erauntsi, jardun’ (Mar, Ame / Pag, Urd) & *eontsi* (Ora, Bith, Mar, Lab, Ilh, Zoho, Arbe / Etx, Olh, Arüe, Sarkp, Pag / Jut, Hoz), *ek(h)i* ‘eguzkia’ (Zoho, Arbe, Laph / Olh, Sarkp, Oih / Jut, Larz) —Trebitsch-ek Amorotzen dakar 1913an eta guk Oztibarreko Jutsin bildu dugu; cf. *ekitara* (Jut), eta baita *iruzki* eta *iguzki* ere (Jut); Hoztan “ekhi” ezetz dioskute; Bardozen *ekhherri* ageri da (*EHHA*)—, *elhe* ‘hitza’ (Meh / Lab, Mar, Arbo / Ibarro)

gei ‘nahia’, ‘asmoa’ eta ‘itxaropena’ adierazten ditu hein batean (Uha, Zoho, Laph / Oih, Pag) —Ilharren ezezaguntzat eman digute; cf. Oztibarren ere: *jin gei dik* (Ibarro), *jin gei duk ba holako jendea* (Jut)—, *giltz* (Arrü, Gar / Jut, Larz) & *giltza* (Arbo) & *giltzitzen* (Lük), *gif[ç]jala* ‘nonbait, dirudienez’ (Uha, Zoha / Jut, Larz, Ibarro, Hoz, Donaix) & *gisalat* (Hoz)

haizoble ‘geriza, haizearen babesia’ (Arbo / Jut, Larz) & *aizoble* (Gar); Zuberoan *haizolbe* & (*h*)*axolbe*; cf. Garazin Gamarteko *haizedoble*, Ezteren-zubiko *haizoble* eta Behorlegiko *aizolbe*

kharrika ‘bide hertsia, estarta, inta’ (Arrü, Gar, Arbo / Dom / Larz) & *kharrika beltza* (Pag) —Zuberoan *kintha* da nagusi, baina ipar-ekialdean Altzürükü barne *kharrika* baliatzen da—, *kharroña* ‘izotzaldi gaitza’ (Ost) & *kharruñ* (Ora, Lab, Arbe / Oih) & *kharrointe* (Uha) & *kharroin* (Lan, Jut, Larz), (*neskato*) *khundia* ‘nesken taldea, kategoria’ (Arbo) & *ardi khunde* ‘ardi jendea: ardiak, ahariak, artzarrak...’ (Jut) —zaldietan ere *khunde* ibiltzen da (Bun, Jut)—, *kutel* ‘aihotza, adar mozteko guraizeak’ (Arbo) & *kutela* (Dom, Pag / Jut) & *kotela* (Arrü)

labri ‘artzain txakurra’ (Arbo) & *labrika* (Larz) & *llabrika* (Dom) —Aturrialdeko Urketan ere *labri*; Zuberoan *llabrit*, Pagola barne—, *larrutu* ‘amildegian behera joan’ (Gar / Jut, Larz) & *larrütü* (Pag) —cf. *lerratu* (Bardo)—, *lekaxina* ‘ziza horia, *Cantharelus cibarius*’ (Gar, Arbo / Dom, Pag / Lan, Jut, Larz) —Zuberoan eta Jutsin *lekaxin*—, *linpa* ‘gurdiaren gibeletik aitzineraino bi saihetsetan dauden zurezko bi pieza luzeak’ (Arrü, Gar), *lunka* ‘solomoa’ (Bardo / Arrü, Gar, Arbo / Dom / Jut, Larz) & *liinka* (Ilh / Pag) & *lonka* (Larz); Zuberoan *liink(a)*²⁴⁸

mahunga ‘ibaian arrantzu egiteko sarea’ (Arbo / Lan, Larz) & *maunga* (Gar) —Zuberoan *arramahanka*, Pagolan *armahanka*—, *mant(h)ar* ‘behiak lepotik dilindan duen larru plegua’ (Arbo / Pag / Jut); Zuberoan *lephomanthar*, Domintxaine eta Pagola barne, baina Arrüetan *lepomanta*; cf. *lepamantar* (Lan) & *papomanthar* (Larz)

net ‘gutziz, osoki’ (Bith, Ame, Donap / Dom, Olh, Ainh) —Oztibarreko Salaberri Ibarrolakoak hiztegian dakar—

ordoki ‘leku zelaia, ordeka’ (Arm / Uha, Mar, Gar / Lan, Jut, Larz); Arrüetan *plano* eta Arbotin *planada* —Baxenabarreko ipar-mendebaleraino

248 Lapurdiko Aturrialdean eta Baxenabarreko ipar-mendebalean bezala. Aldiz, Baxenabarre erdigunean hedadura du *urineko*-k, Garaziko Behorlegi barne eta *filet(a)* dago Garazin; Baigorrialdean, berriz, *soinki* ibiltzen da, baina Lapurdi ekialdeari eta Baztani lotzen zaio Bidarra: *soloma* darabil.

eta Lapurdiko Makearaino heltzen da *ordoki* eta bestaldetik Garazi edo Zaraitzuraino; aldiz, ondoko herrian, Aezkoako Abaurregainean etxe izena da *Ordoki*, hitz arrunta *zelai* edo *eluts* da, Aezkoan ez da *ordoki* hitza baliatzen, baina hegoaldera, Nafarroako toponimian biziki ageri da: iraganean 1687an Galipentzun eta 1730ean Tabarren (Salaberri Zaratiegi 2015: 261); ikertzaile honek dioskunez, oraindik ere Melidan *Ordokia* leku izena dago eta Zaren eta Irunberrin ere bada—, *oro* ‘guztiak’ (Hel / Ora, Uha, Mar, Ilh, Gam, Donap, Arbo, Zoho, Laph / Jut, Larz) —Garaziko Gamarten eta Behorlegin proposamen onetsizat dakar *EHHA*-k— & *oo* (Mar, Gam, Zoho, Laph / Jut)

pandüla ‘hormako ordularia’ (Bardo / Arrü, Arbo / Dom / Pag) & *pandola* (Jut) & *pendol* (Lan) & *pandela* (Gar) —Urketan *pandola* eta Zuberoan *pandüla*—, *pera* (Arbe / Jut); cf. *peratze* (Arb / Dom) & *peatzia* (Urd),²⁴⁹ *pikarrai* ‘biluzik’ (Mar, Donap) —Ibarrolako Salaberrik ere badakar eta *OEH*-k Amiküzen—, *pilika at* ‘pixka bat’ (Behau); Ibarrolako Salaberrik badakar eta *OEH*-k Arberoan kokatzen du ere

tirant ‘etxearen murre batetik besteraino doan zurezko pieza horizontala’ (Arm / Arrü / Jut) & *tiant* (Larz) —Zuberoan *thiant*—, *trantxa* ‘urdai-azpikoa’ (Arbo / Dom, Pag / Larz)

üzkorno ‘hegaztien lepahezurraren bukaera, ipurdi aldean’ (Arbo / Dom, Pag) & *uzkorno* (Larz) & *uzkurno* (Jut)

zeñu ‘ezkila’ (Amo, Bith) & *zeinhu* (Arm) —Oztibarren ere *zeinu* baliatzen da, ‘kanpaikada’ adiera ere baduena (Ibarro, Donaix); Ibarrolako Salaberrik *zeinhu*—, *zinkha* ‘irrintzia’ (Arbo / Lan, Jut, Ibarro, Donaix),²⁵⁰ *zizkatia* ‘sitsak janik’ (Arrü / Dom) & *xixkatia* (Dom) & *zizku* ‘zizka, sitsa, bipia’ (Jut) —Pagola barne, Zuberoan *zizka* da nagusi—, *zoleta* ‘hormaren gainean dagoen zur luze horizontala, teilatuaren zurezko egiturari eusteko’ (Arrü / Dom / Jut, Larz); mendebalera *zapeta* & *zapetadura* hitzak ageri dira

7.3.5.2.2.6. Baxenabarre ekialdeko eta Zuberoako aldaerak Amiküzen

argia gabe ‘eguna argitu gabe oraino, goizaldean’ (Arrü / Larz); baita Garaziko Ezterenzubín nahiz Zuberoako Domintxainen, Altzürükün eta Urdiñarben ere²⁵¹

249 Arberatzen dioskute: *peraendako guk* “*pera*” *eRain dizii*, “*udaria*”, *gañeat* “*udaria*” *uzu*. Eta Jutsin: *guk* “*pera*” *erten dugu*, “*madaria*” *erten dute Heletan eta Garazin* “*udaria*” (Videgain 1989: 1229).

250 Landibarre & Larzabaleko *EHHA*-ko datuen arabera jendeek egiten dutena da; jendearena dela dioskute Donaixtin ere, laburra eta indartsua, ez dela zaldiarena, baina *EHHA*-n ‘zaldiaren irrintzia’ da ere (Jut).

251 Oztibarreko erantzunak dira Jutsiko *goiz*, *biziki goizik* eta *goizaldeat*, Landibarreko *goizaldeat* eta Larzabaleko *goizalde* eta *biziki goizik* ere.

brabant ‘golde handia, brabana’ (Ost, Uha, Arrü, Gar, Arbo, Arbe, Sor / Olh, Oih, Urd), *be* ‘behia edo idia aitzinera joan dadin errana’ (Bardo / Arrü, Arbo / Dom, Pag / Jut, Larz) & *bee* (Gar) & *bie* (Arm), *bena* ‘baina’ (Arm, Meh / Ora, Behau, Amo, Bith, Ost, Uha, Arrü, Mar, Lab, Ilh, Ame, Gam, Zoha, Donap, Zoho, Arbe, Sor / Olh, Arüe, Sarkp, Ündü, Oih, Ainh, Pag, Urd / Arh, Izu, Jut, Larz, Bun, Ibarre, Hoz, in Videgain 1989), *bekhan* ‘aldi guti batzuetan’ (Izt / Amo, Behau, Laph / Dom, Olh, Arüe, Sarkp, Urd / Izu, Jut, Ibarre, Ibarro, Hoz; in Videgain 1989), *ber* —*ber gauza* erako egituretan— (Bith) —cf. *ber gauzendako* (Jut)—, *bezainbeste* konparazio partikula (Behau) & *bezanbeste* (Gam / Izu, Donaix, Hoz) —*oai etzu lehen bezainbeste* (Hoz); “*aharia*” *deitzen dizie hor eta heen aldiz, baakizu, bauzu lekhu bezainbeste* (Izu);²⁵² baina bada *bezanbat* ere Amiküze nahiz Oztibarren: *badiat hik bezanbat hortz* (Larz); eta baita *bezain* ere: *familia bezain molde bada* (Donaix)—, *bihikatü* ‘aletu, garandu’ (Arbo) & *bi(h)ikatu* (Bardo / Arrü, Gar / Lan, Jut, Larz) & *mihikatü* (Dom) & *bihikatzen* (Olh) —Garaziko Gamarten *biikatu*, baina Behorlegi, Ezterenzubi eta bestetan, Baigorrialdea barne, *bihitu*; Larzabalen ere bada *bihitzia*—, *bitre* ‘berina, kristala’ (Arbo / Urd / Jut), *busta* “busti”-ren aditzoina (Gar, Arbo / Jut, Larz)²⁵³

erratze ‘erretzea’ (Bardo / Izt, Arm / Mar, Ilh / Pag) —cf. *erra* aditzoina (Larz) & *errätzen* (Larz) & *erraaziz* (Jut)—, *eskapi* ‘ihes egin’ (Lab / Larz) & *espaki* (Gab / Jut, Larz),²⁵⁴ *eskusega* ‘eskuzerra, zerrotea’ (Izt —herri honetan *eskuzerra*-rekin batean— / Gar / Dom / Lan, Jut) & *esküsega* (Pag) —cf. *sega* ‘zerra’ (Larri)—, *exker* (Bardo / Amo, Behau, Lab, Ame, Arbo, Donap / Dom, Sarkp) —Maister idazleak legez; ikus Oztibarren *exker* (Arh, Jut), baina *ezker* (Bun, Hoz, Izu, Larz)—, *ezari* ‘ezarri’ (Amo, Behau, Arbo, Zoho, Laph, Sor / Etx, Olh) —eta Oztibarreko Hoztan—

früta (Arrü, Gar / Dom, Pag) & *fruta* (Arbo / Lan, Jut) & *fruita* (Larz); Domintxainen baita *frütü* ere; Lapurdin eta Baxenabarreko mendebalean *fruitu*, Aturrialdeko Bardoze barne

gordatze ‘gordetzea’ (Zoho) & *gordatzen* (Lük); cf. *gorde* (Zoho); Oztibarren *gorda* aditzoina dago (Larz) & *gordatzén* (Arh, Bun, Larz)

252 XIX.aren bukaeran Bourciezek Ibarrolan bildurik: *ogui, ano, arrotcé, gasna nahi douten bésain besté* (Aurrekoetxea & Videgain 2004: 156) eta Izurako itzulpenak ere badakar.

253 Arbotin honela entzun dugu: *atsetan eta beldürrez: busta zain pholoak eiten gintuen*. Videgainek Garrüzen *ehadila busta* dakar eta Oztibarreko Jutsin *busta ziten* (EHHA). Ekialdera mugaturik dago aldaera hau; Leizarragak badu adibide bat, beharbada haren laguntzaile zuberotarren eraginez, baina badarabil *busti* ere. Ibarrolako Salaberriren Nafarroa Behereko hiztegiak ere *busta* & *busti* dakartza; Bela, Zalgize, Oihenart, Tartas: *busti* / Maister: *boustatcia* (377); Egiategik eta Intxauspek ere badarabilte *bustätzen*, baina Etxahunek eta Arxuk *busti*; Larrasketek *busta* & *busti* dakartza. Errokariko Izaban *büstatako* ‘bustitzeko’ bildu zen.

254 Salbuespen hau izan ezik Amiküze-Oztibarretan ez da erabiltzen Zuberoako aditz partizipioen -i sail berria. Larzabaleko lekukoak dioenez: “*phorroki*” *Xuberan, hemen “phorroskatu”* (EHHA); eta Bardozeko lekukoak ere berdin dio, *phorroki* ez dela baliatzen.

hail agintezkoa ‘hoa’ adieran (Meh / Zoho / Jut, Larz, Ibarre) —cf. Zuberoako *abilua* ‘hoa’—, (*h*)*atsarre* ‘hasiera’ (Amo, Gam, Arbe / Dom, Olh, Sarkp, Pag / Jut)

iautiri ‘ihauteria’ (Gar) —baina *ihauteri* (Arbo); cf. *ihautiri* (Jut, Larz)—, *ihaurgei* ‘abereen azpigarrria ukuiluan’ (Behau / Olh / Lan, Jut, Larz) & *iaurgei* (Ost, Uha, Mar / Olh, Ainh) & *idaurgei* (Laph), *ihizor* ‘ehizako zakurra’ (Arrü, Arbo / Dom / Larz, Ibarro),²⁵⁵ *irrintziri* ‘zaldiaren irrintzia’ (Arbo / Lan, Larz) & *intziri* (Arrü); cf. *irrintzina* (Gar),²⁵⁶ *it(h)ain* ‘akaina, lakasta, kaparra’ (Gar, Arbo / Pag / Jut, Larz) & *ithañ* (Dom)²⁵⁷

kalantxerri ‘sabelaldiko txerrikume ttipiena’ (Arbo) & *kaantxerri* (Gar) & *khadantxerri* (Larz) & *kaantxerri* (Lan, Jut), *küküila* ‘gandorra, gangarra’ (Arbo / Dom, Pag) & *k(h)ukula* (Arm, Meh / Lan, Larz) —Baxenabarren nagusi diren *kukulusta* (Jut) & *kukulosta* (Larz) eta *kukulusta* (Lan) aldaerak ere ibiltzen dira Oztibarren; Garazi gehienez ere *kukulusta* ageri da—,²⁵⁸ *kuntre* ‘kontra’ (Behau, Bith, Lab, Ame, Zoho, Arbe, Laph / Dom, Olh) —cf. *kontre* (Barta, Bith, Ame / Jut); Larzabalen bi erak, *kuntre* eta *kontra*

laa ‘zaldia eta geldiarazteko egin oihua’ (Arrü, Gar, Arbo / Dom / Lan, Larz), *lawazka* ‘zaldia galopean’ (Arbo / Dom) & *lauhazka* (Gar / Pag / Jut, Ibarro) & *lauazka* (Arrü / Larz), *luhuntz* ‘aihena, lurruntza, *Convulvulus arvensis* landarea’ (Arrü / Jut, Larz) & *luhuntza* (Gar) & *luuntz* (Gar); Bar-
dozen ere *lühiuntza*, baina galdera ikurra darama; Jutsin baita *biphila* ere, ipar Zuberoan eta Domintxainen legez

migantxa ‘urrixa gaztea, biga edo miga baino gazteagoa’ (Gar, Arbo / Pag / Lan, Jut, Larz) & *migatxa* (Arrü) —ondoko Gamarten ere *migantxa*, baina Domintxainen *miga*—, *mosko* ‘hegaztien moko’ (Bardo / Arm, Meh / Arrü, Gar, Arbo / Lan, Jut, Larz); badira *musko* (Behorlegi, Santa Grazi) eta *müsko* (Barkoxe, Eskiula) ere

nahar ‘laharra, sasia’ (Bardo / Barta, Uha, Arrü, Gar, Arbo / Dom / Lan, Jut),²⁵⁹ *nexkato* ‘larazetik dilindan izaten den euskarria’ (Arrü, Arbo / Larz / Ezterenzubi) —baina Garrüzen *neskato*; Aturrialdean eta Amiküze ondoko Izturitzen ere *nexkato*—

255 Baxenabarre mendebaleko joerari lotzen zaio Garrüzeko *iiztor*: Arberoan, Baigorrialdean, Garazi mendebalean, Landibarren eta Oztibarreko Jutsin ageri da *ihiztor*.

256 Behorlegin ere *irrintzire* & *irrintzirez*, baina Ezterenzubin *irrintzin*. Mendebalera eta hegoaldera *irrintzin(a)* dago eta Oztibarren ere bai (Bun, Ibarre, Ibarro, Izu, Jut).

257 Zuberoa guztian *ithañ*. Bardozen eta Arrüetan ez dago *lakasta* baizik. Hona aldaera gehiago: Landibarren *ithuiñ*, Armendaritzen *lithoi*, Izturitzen *lithoin*, Beskoitze eta Makean *litoin*; bestalde, Iri-sarrin onesten da *lithoi*. Bestalde, bada *lak(h)asta* ere (Lan, Jut, Larz), Garazin, Baigorrialdean eta Lapurdiko alderdi gehiagotan legez.

258 Zuberoan *küküila* ibiltzen da. Amiküzen Garrüzen *kukuzai* dago eta Arrüetan *gingilla*. Uharte eta Alduden *kukurrust* bildu da eta Baigorriin *kukulusta* eta *kukurrusta*, baina Bidarrain *kukulin*, Baztan, Sara, Itsasu eta Makea inguruan bezala.

259 Bardozen *laphar* eta *saphar*-ekin batean. Larzabalen *lahar*, Jutsin baita *laphar* & *laharrondo* ere; Baigorrialdean *laphar(rondo)* eta Garazin *lahar* & *elorri*; Ezterenzubin *laphar* & *laparrondo* eta Lapurdin ere *lap(h)ar* dakar atlasak.

ohit ‘oroi’ (Bith, Uha, Mar, Lab / Arüe, Loh, Olh) —ikus Oztibarren *enuzu ohit* (Ibarro, Hoz), *ohit nuzu* (Larz); Garaziko Ezterenzubini *orhoit niz* & *ohit niz* dakartza lekukoak (EHHA)—²⁶⁰

phalet ‘abere adarzabala’ (Bardo / Arbo / Dom / Jut, Larz), *pheldo* ‘menda, menta’ (Arbo / Jut, Larz); Arbotin *manta* ere badakar EHHA-k — Zuberoan *meldo* & *meldü*—

sabre ‘eskuzerra, zerrotea’ (Arbo) & *sablesega* (Arrü) & *sabresega* (Gar / Larz) —Garrüzekoa proposamen onetsia da; Zuberoan *segasabre* ibiltzen da—, *sagartzia* ‘sagarrondoa’ (Arüe, Urd) & *saartzte* (Bardo / Arbo / Larz) & *saarze* (Arrü, Gar) & *sartzte* (Dom),²⁶¹ *segazahi* ‘zerrautsa, zerrazahia’ (Bardo / Arm / Arbo / Dom, Pag / Lan, Jut, Larz) & *segazai* (Gar) —Alduden *zerrazai*, Bidarrain **zerrazagi*—, *sendotü* ‘sendatu’ (Ilh, Laph / Ber, Arüe); cf. *sendatu* (Arm / Ora) eta Trebitschek ere *sendatu* bildu zuen Behauzen (1913); Oztibarren ere *o: sendo* ‘sendaturik’ —*hua erori orduko behia sendo zun* (Larz)— & *sendotzen* ‘sendatzen’ (Hoz)²⁶²

trenkasega ‘arpana, trontza’ (Arrü, Gar, Arbo / Dom, Pag / Jut, Larz); cf. *trontxasega* (Lan)

ülü ‘eulia’ (Bardo / Zoha, Arbo / Dom, Pag, Urd) & *ulu* (Bardo / Arm / Arrü, Gar / Dom / Lan, Jut, Ibarre),²⁶³ *ürrako* ‘urradura, ebakia’ (Ame), *urzo* ‘usoa’ (Bardo / Ost, Gar, Arbo, Laph / Itho, Loh / Jut, Larz); cf. *urtzo* (Mar, Ame, Arbo / Hoz)

zerrallü ‘egurrez egin itxitura edo hesia’ (Arrü, Zoha, Arbo / Dom) & *zerrallu* (Bardo / Gar / Lan, Jut, Larz) & *zerrailu* (Meh),²⁶⁴ *zurt(h)ai* ‘zureria, etxegintzan egurrezko pieza guztien multzoa’ (Arrü, Gar / Jut) & *zurt(h)aja* (Arbo, Laph / Dom) & *zurtha[3]e* (Pag),²⁶⁵ *züzüülü* ‘zizeilua’ (Arbo) & *zuzulu* (Gar / Lan, Jut, Larz)

260 *oroi*t eman du aita-amak arberoarrak zituen gure lekuko behauzta batek.

261 Oztibarren bada *saarrondo* (Larz) ere, baina bestela Baxenabarren *sagarrondo* edo *sagar* ditugu.

262 Etxeparek ere baliatu zuen *sendotu*, baina Zuberoan du aldaera honek erabilera nagusia, *nd / nt* aldea gora behera.

263 Zatiketa dago aldaera honek Zuberoan duen hedaduran: *illi* eta *üllü* nagusitzen dira Basabürtian eta *ülü* dago Amiküze ondoko ipar-Xiberoan: *illi* EAEL-k Altzain, Eskiulan, Larrainen eta Santa Grazin eta EHHA-k Barkoxen, Eskiulan, Larrainen eta Santa-Grazin dakarte. Amiküzeko Zohotan *üllütxa* bildu dugu; 1913an Trebitsch-ek Behauzen *ülü* dakar eta EAEL-k *ulia* Amendüzzen. Baxenabarre hegoaldean *uli* dago Garazi-Baigorrietan, Larzabale barne.

264 Zuberoa *zerrallü* eta *zerrado* aldaerek zatiturik dago, baina etenak ez du koherentzia geografiko handirik; *zerrallü* aldaera Bardozetik abiatzen da eta Behorlegiraino heltzen, Baxenabarreko ekialdean hedaturik; Jutsin baita *hesi* ere. Pagolan *zerradiä* dago; Baxenabarre hegoaldean nagusi da *zerradura* Garazi-Baigorrialdean, baina badira *hesi* (Arnegi, Uharte) eta *hesoldoki* (Luzaide) ere; Bidarrain *zerragi*.

265 Nafarroa Garaian *zuraje* dena *zurta[3]e* erratan da Zuberoan. Garrüzzen bada *xarpanta* ere eta Landibarren *zurtate*, *zurtaia* & *xarpanta*. Oztibarreko Larzabalen *zurthate*, zeina Garaziko Behorlegi, Gamarte eta Ezterenzubini ibiltzen baita. Lapurdin *zureri* dago eta baita Arnegi, Aldude, Bidarra eta Baigorriin ere. Luzaiden *amazon* bildu da eta Uhartin *xarpanta* & **zureru*.

7.3.5.2.2.7. Amiküzeko hitzak Zuberoan bezalakoak

Ugari dira Amiküzen, ekialdeko herrietan bereziki. Hona sorta bat:

adret ‘antzetsua, iaioa’ (Behau, Zoho), *agrada izan* ‘gogoko izan’ (Ame),²⁶⁶ *aiduru* ‘zain’ (Bith, Lük) & *aidürü* (Behau, Zoho / Itho) & *aidüü* (Loh) & *haidüü* (Ündü),²⁶⁷ *aizebeltza* ‘mendebala, zeharraizea’ (Arbo) & *haizebeltza* (Larz), *amiñi bat* ‘pixka bat’ (Behau, Bith, Uha, Lab, Arbo, Zoho, Laph / Itho, Loh, Sarkp, Oih, Ainh, Pag, Urd) & *amiñña at* (Arbe),²⁶⁸ *arraitzuli* ‘bigarren aldiz joan’ (Ora) & *arraitzüli* ‘belarrari bigarren itzulaldia eman’ (Olh), *arren* ‘beraz’ (Uha),²⁶⁹ *arrunt* ‘brehala’, (Uha,²⁷⁰ Lab / Pag), *askazi* ‘ahaidea’ (Arbe / Ündü) & *azkazi* (Behau, Bith, Laph)

begi(e)tako(ak) ‘abereen begiak eulietarik babesteko ezartzen dena’ (Bardo / Arbo, Gar) — baita Izturitzen *beitako* ere —, *biesa* ‘alforja’ (Bardo / Arrü, Gar, Arbo) — Baxenabarren *alfortxa* dena —

deskokatü ‘oiloa deskokatu, freskatu, busti’,²⁷¹ *drole* ‘bitxia’ (Mar, Uha / Sarkp, Oih, Pag)

eho ‘hiltzea’ (Laph) — baina Amiküzen ez da orokorra —, *elge* ‘alorra, landu den lur zatia’ (Bardo / Ora, Arrü, Mar, Gam, Arbo, Zoho, Arbe) — Trebitsch-ek Amorotzen dakar 1913an —,²⁷² *eli bat* ‘sorta bat, batzuk, pare bat’ (Zoho) — ez da Amiküzeko orokorra; Erronkarin *oski eli bat* ‘zapata pare bat’ zen adieraz; urdiñarbetar batengandik *lüneta lodi-lodi eli at* bildu dugu —,

266 Zuberoatik landa Ipar Euskal Herriko aspaldiko idazle zenbaitek erabili zuten, baina egungo ahozko mintzoan nagusiki Zuberoan ageri da.

267 Beñat Karrika armendariztarrak badakar liburuan (1990), baina Armendaritzen hitza Amiküzekotzat eman digute. Landibarren *aidukatu* proposamen onetsia da eta Baigorriin *haiduru* ere bai (EHHA). Oztibarreko Ibarrolan ez digute *aiduru* herrikotzat eman.

268 Baina badira *amiña at* (Ora, Amo, Bith, Arrü, Mar, Lab, Gam, Zoho, Arbe, Laph / Olh, Pag) & *hamiña* (Ora) eta *amiño at* ere (Bith, Uha, Mar / Olh, Loh, Artü, Pag). Erronkari, Zaraitzu eta Nafarroa Beherean ere *amiño bat* erran ohi da.

269 Iraganeko garaietan mendebaleragoko idazle zenbaitek ere baliatzen zuten, baina ekialdeko minztoetan etengabeko erabilera izan du eta du; errate batera, guk Zaraitzuko Jaurrietan bildu genuen. OEH-k Nafarroa Beherean dakar; Amiküzeko Zohotan eta Behaskanen ezezkua eman digute inkestan, baina Uharten, berriz, baiezkoa.

270 Iduri luke halakoa dela: *uai e phestetaik landa, uai e gazteak pasatzen tzu etxetat, ori leheneko moda zaarra, ez arrunt bihamunian, leeno phesta... eta astelehenean iten gintzin gue denboan, geo uai berriz ondoko zortzian edo iakoitz atsaldiaikin edo iten tzie gaztek, e.*

271 Zuberoan ez da nagusi: Altzürükün, Urdiñarben eta Domintxainen ageri da eta Montorin *deslokati*, bestela *freskatü* darabilte xiberotarreket eta Baxenabarren ere *freskatu* ibiltzen da, Amiküzen salbu.

272 Ohar bat egin nahi dugu Oztibarrez: Videgainen corpusean Jutsin ageri da (1989: 1282): *ogi-elgia eta artho-elgia* (Jut); guri, ordea, Jutsin 2005ean *elge* Amiküzekotzat eman ziguten, ez herrikotzat, beren elea *alhor* dela zioskuten; Donaixtikoko lekukoak berdin erran digu, amiküztarrena dela eta hori dio EHHA-n Larzabaleko lekukoak ere; Ibarrolan hiru lekukok ez dela herrikoa erran digute eta 1932an sortu laugarren lekuko batek, berriz, *alhor* eta *pentze* eman ondoan, zalantza izan du *elge-z*, baina hondarrean erraten dela adierazi du: beharbada amiküztarrak edo xiberotarrak ditu gogoan hitz hori baliatzen?

ephantxi ‘oztopoa, eragozpena’ (Behas),²⁷³ *erdiro* ‘arraildura’ (Zoho) & *erdio* (Urd) — EHHA-n Arberoaoko Izturitzeko lekukoarentzat hitz ezezaguna da —, *errai* ‘zerriaren birika’ (Gar / Jut, Larz); baita *gibelerrai* ere (Arrü, Arbo / Dom, Pag), Zuberoan ere ageri dena; cf. *gielerrai* (Lan, Larz) eta Ezterenzubiko *ielerraiak* eta Arnegiko *giilerrai*

fundamen ‘zimendua’²⁷⁴

gastati ‘mizke hazi, mimatu’ (Donap / Olh) & *gastatu* (Amo, Uha), *gozaita* ‘eguzaita, aitapontekoa’ (Behau, Uha / Olh) & *goxaita* (Ame, Zoha)

haboro ‘gehiago’ (Arbe) & *haboo* (Bith, Donap / Sarkp, Ündü, Ainh, Pag, Urd) — txikigarria du ere: *habooxiak* (Dom) & *abooxia* (Behau, Lab, Gam) & *haoxia* (Ilh, Arbo / Dom) & *habooxago* (Arüe); Erronkarin *ob(o)ro* egiten zen; Oztibarren ez dirudi erabiltzen denik, izan ere, Larzabalen ezetz diotsote Videgaini: “*haboro*” *Xuberan, Phaolan* (1989: 1399) eta Salaberri Ibarrolakoak *dialecte souletin*-i dagokiola dakar 1856ko hiztegian, baina EHHA atlaseko Larzabaleko emaitzetan behin ageri da: *eta oai iten zizien habooxe bena zoinek urrunoo* —, *hardit* ‘ausarta’ (Ora, Zoho / Arüe, Pag),²⁷⁵ *heexa* ‘hatza, aztarna’ (Zoho / Sarkp)²⁷⁶

idoki ‘kendu’ (Zoho), *ilhantxa* ‘mirua’ (Ilh) & *ilhantx* (Dom) & *milhantxa* (Dom),²⁷⁷ *üüikatü* ‘igurikatu’ (Ilh) & *üüikatzen* (Lab); Mehainen *idurikatu* bildu dugu eta Armendaritzeko Karrikak ere badakar (1990: 23, 51)

janbun ‘urdaiazpikoa’ (Bardo / Gar, Gam, Arbo / Olh) & *janbuñ* (Pag) & [*Janbũ*] (Sarkp) & [*Janbun*] (Pag); cf. *janbon* (Arrü)²⁷⁸

landabroka ‘landare biziz egin hesia’²⁷⁹

mahumet ‘haize zirimola, zurrumbiloa’ (Arrü, Arbo / Dom, Pag) & *maumet* (Gar),²⁸⁰ *mainkhatu* ‘min hartu’ (Zoho)²⁸¹

273 Leizarragak eta Etxeberri Ziburukoak *enpatxu* dakarte; Lopezen 1782ko itzulpenak *epa(i)ntxu* dakar.

274 Aturrialdean eta Bastidan ere bai; Landibarren lekukoak *zimendu* eman du, baina onetsi du *fondamen*.

275 Oragarreko adibidean: *geo usatu ginden, bena lehen aldian juiten tzielaik etzira sobera hardit*.

276 OEH-k Baigorri eta Garazin kokatzen du ere. Armendaritzen galdeturik ez dela herrikoa erran digute.

277 Zuberoan nagusi da *ilha(i)ntxa*; cf. *ilha(i)ntxa* (Pag, Urd, Larraine, Montori, Altzai, Altziürükü).

278 Zuberoan *janbũ* dago eta hondarreko bokala azentuduna da; Aturrialdean ere *janbun* dago Bardoze-Urketan eta Mugerren *janbu*. Zuberoako iparraldean legez, Baxenabarre guztian nagusi da *azpi*, baina Nafarroa Behereko mendebalean eta Ezterenzubini *xingarrazpi* ere ageri da. Garaziko Uhartan *xerriazpi* bildu da eta Alduden *zerriazpi*.

279 Amiküzen eta Zuberoako Pagolan, baina baita *lant(h)abrok* Urdiñarbe eta Ürrüstoin ere. Zuberoan nagusi da *zerrallü* eta Baxenabarren *hesi*.

280 Nahiz Zuberoako hegoaldean baden *khübil(o)* ere; Oztibarren *askaot* bildu da eta Pagolan *kaska-bot*, baina Baxenabarre hegoaldean *ti(r)u(r)ite* nagusitu da eta mendebalean, berriz, *zirimol(a)*, Lapurdi bezala. Alduden *zirurika* ageri da.

281 Arberoa dioskutenez, ‘min hartzea’ adierazteko *maikhatu* baliatzen da Amiküzen. Zuberoan *mankhatü* ‘min hartzea’ eta ‘huts egitea’ da.

- ñago* ‘arbia’ (Uha, Arbo, Zoho, Arbe / Dom, Olh) & *nabo* (Amo)²⁸²
oski ‘oinetakoak’ (Mar, Lük, Ilh, Ame, Gam, Donap, Zoho) —baina Zuberoko Olhaibin *huñetakuak* entzun dugu—²⁸³
paket ‘anitz’ (Behau, Mar),²⁸⁴ *pharte hun!*,²⁸⁵ *podra* ‘behoka’ (Arrü, Gar, Arbo / Dom, Pag); cf. *proda* Aturrialdeko Bardozen eta Mugerren
sargia & *etxesargia* ‘etxe aitzineko ate ondoko edo atariko kanpoko alderdia’ (Arbo),²⁸⁶ *sendika* & *senditü* ‘zantzuaren gibeletik zakurra usmaka joatea’,²⁸⁷ *solamente* ‘bakarrik, soilik’ (Gam)²⁸⁸
t(h)arroka ‘zohia, lur mokorra, zokorra’ (Urketa, Bardo / Arrü, Gar, Arbo) —Oztibarreko Jutsin ere proposamen onetsizat dakar *EHHA*-k—, *ter-ter-ter* ‘emeki-emeki’ (Zoho), *thini* ‘gailurra, muturra’ (Zoho / Olh); cf. Zohotako *mindü thini*; Ibarrolako Salaberrik ere badakar
ülhüingia ‘tximista’ (Zoho), *ünk(h)ü* ‘arbola erroa, ipurdia’ (Arrü, Arbo / Dom); cf. *unko* (Gar)
xantxa ‘aberea jeztean esnea biltzeko ontzia’ (Arbo) & *xantxo* (Arrü) & *txaintxo* (Bardo) & *xentxa* (Dom),²⁸⁹ *xixklo* ‘abere potrobakarra’ (Gar / Dom) & *xixtro* (Arbo)²⁹⁰

Gerta liteke zuberotartzat jotzen ditugun hitz batzuk egun Amiküzen guk bederen entzun ez izana, baina iraganean amiküztarrek baliatu izana; errate batera, Aiziritzen Bourciez-ek XIX. mendearen bukaeran bildu itzulpenean *mañata* ‘mirabea, sehia’ daukagu. Guri egungo Zohotan ezezaguntzat eman

-
- 282 Zohotako lekukoak dioskunez, Hazpamen eta Larzabalen *arbi* erraten da. Lekuko amoroztarrak nagusiki *nabo* erran du, baina behin *arbia*. Atlasak Arrüetan *ñabo* & *arbi* eta Garrüzen *arbi* dakartza. Zuberuan Larrasketek *ñabo* dakar eta halaxe entzun dugu Ainharben; *EHHA*-k horrela dakar Pagolan ere, baina Santa-Grazi & Eskiulan *ñabü*. Oztibarre-Landibarren, Garazi gehianean eta Baigorrialdean *arbi* erraten da.
- 283 Iraganean hedadura zukeen: 1596ko Bizkaiko *Refranes y Sentencias* atsoitiz bildumak ere *oski* dakar.
- 284 Behaizen: *hak paket tipitu du biziki lana*. Arberoako Armendaritzen erran digute ez dutela baliatzen.
- 285 Martxüetan eta Amendüzen formula balioa du, agur bati erantzuten dio, baina ez da lagunartekoa, etorri dena agurtzen du, ezezagun bat edo: *Egün hun / Bai zuri ere pharte hun!* Zuberoko Ithorrotzen lehen agur gisa eman digute etxe batera agertzean. Urdiñarben, Sohütan eta Altzürükün erabiltzen da eta Larrasketek Barkoxeko Larraja auzoan dakar; Domintxainen *pharte hun* eta Oztibarren *pharte on* (*EHHA*).
- 286 Baxenabarren *borthaintzin* deritzana; cf. Domintxainen *borthaintzin*, baina *bort(h)aitzin* (Arrü, Gar).
- 287 Zuberoko guztian dago *senditü*; Amiküzeko *sendika* & *sentitü*-z landa, Izturitze eta Landibarren *senditu* dago eta Aturrialdean Bardoze-Urketan. Uharte-Garazin *senditu*-k zalantza ikurra dakar atlasean.
- 288 M. Jauregiberri zuberotarrak: *ordian, ez da phena solamente mintzairiaren galtzia* (de Rijk 1999: 160).
- 289 Zuberoko nagusi da *xa(i)ntxa*. Itsasaldean ere *xantxa* bildu da Hendaia eta Donibane-Lohizunen.
- 290 Baxenabarren *barratt*, *barrett* edo *berrett* ibiltzen da.

digute; egia erran, Bourciez-en Baxenabarreko itzulpenetan ez da Amiküzén beste inon ageri.

7.3.5.2.2.8. Amiküzeko hitzak ipar-Zuberoan bezalakoak

belarretako 'idi uztartuaren kopetako babesgarria' (Arbo) —Bardozen ere *belarreko*, baina Garrüzén *kopetako*; ipar Xiberoan *belarretako* eta *belharreko*, zeina hegoalderago *bonteko* baita—

filet 'azpizuna' (Arbo) & *filemiñõ* (Arrü / Arüe) & *filemiñon* (Gar)²⁹¹

ingi[ʒ]atzen 'kalkatu, antzarak janez bete' (Mar) & *ingi[ʒ]atzeko* (Ilh) & *engi[ʒ]atzen* (Meh) & *engi[ʒ]aatzen* (Barta); cf. *ingisatu* (Lan); cf. *galkhatu* (Jut, Larz)²⁹²

kotera 'etxeko itukina' (Arrü, Gar, Arbo / Dom / Lan, Larz) & *kotea* (Pag)²⁹³

xi[ʒ]a 'gerezia' (Arbe)²⁹⁴

7.3.5.2.2.9. Amiküzeko aldaerak Zuberoan bezalakoak

Aldaerok Euskal Herriko ekialdekoak dira, Zuberoan ere erabiltzen direnak, baina amiküztarrek ere baliatzen dituzte; etsenpluen sorta bat dakargu orriotara:

ahatze 'ahantzi' (Bith, Zoho) & *aatze* (Ilh) —Zuberoan *āhātze*, Erronkarin *a(n)tze*, Zaraitzun *atze*, Aezkoan *atzendu*—, *ai[ʒ]et* 'erraza' (Meh / Bith, Altzü, Behas) —*lan ai[ʒ]ia* era ere bada, Zohotan eman digute; Armendaritzen *ai[ʒ]it* bildu dugu—, *aitañi* 'aitona' (Bith, Zoho / Dom, Olh, Arüe, Sarkp, Ündü, Ainh),²⁹⁵ *aizo* 'auzoa' (Arrü, Mar, Ilh, Lab, Gam, Bith, Arbo, Zoho, Arbe, Uha) —bi herritan *auzo* entzun dugu (Amo, Behau)—, *alhagi(a)* 'bazkalekua' (Arm / Arrü, Gar, Arbo / Izu, Jut, Bun), *alajinkoiña*

291 Hazparne eta Itsasun ere *filet(a)*, Baxenabarren *azpixon* nagusi da eta Zuberoan (*urde*)*arrañ* & *filet(a)*.

292 Ipar Zuberoan Domintxainen, Ürrüxtoin eta Eskiulan ibiltzen da eta Aturrialdeko Bardozen *ingi[ʒ]eratu* dago; Baxenabarren beheiti Garaziko Gamarten lekukoak *inge[ʒ]atu* proposamena onetsi du.

293 Zuberoa gehienez *txorta* dago, baina Baxenabarren nagusi da *itaxur* hitza. Lapurdiko barnealdean eta Aturrialdean *zitotz* ageri da, baina Bardozen *ithaxur*.

294 Bardozetik ipar-Zuberoako ekialderaino hedatzen da *xi[ʒ]a*. Arbola izenez ere antzera erran daiteke: ipar Zuberoan *xi[ʒ]atze* ibiltzen da; Domintxainen *xi[ʒ]atze* & *gezitze*. Amiküzén ele bakarra dago: *xi[ʒ]atze* (Arbo), *[ʒ]i[ʒ]atze* (Gar), *si[ʒ]atzeondo* (Arrü); Aturrialdeko Bardozen ere *xi[ʒ]atze* dakar atlasak.

295 Mugaturik ere bai, Zuberoako Jauregiberrinen adibide hau lekuko: *eta aitañia mintzo holax, eta ene aitañia ni beno anützez hobeki orano* (de Rijk 1999: 160).

(Gam) & *alajinkua* (Gam), *amañi* ‘amona’ (Bith, Uha, Laph / Olh, Artie, Ündü, Ainh, Pag), *antzera* (Bith, Ost, Mar, Gam, Zoho / Lan, Jut, Larz) & *antzea* (Olh) — ezker *antzara* dago Armendaritzen, Irisarrin, Baigorrialdean eta Garazin, baina Gamarten *antzera* —, *arauz* ‘dirudienez, segurki’ (Mar, Lab, Ame, Zoho / Olh, Loh), *arraga* ‘marrubia’ (Bardo / Arrü, Gar, Arbo, Zoho / Dom, Pag / Jut, Larz) — cf. *arrega* (Lan) —, *astaña* (Ora, Arrü, Gar, Arbo / Dom / Larz, Ibarro, Donaix) — Aturrialdean gaindi Lapurdi itsasertzeraino heltzen da eta Zuberoako iparrean eta ekialdean baliatzen da; bestalde, Larzabalekoa da *asto urrixa* ere; Jutsin *asto eme*, Landibarren *asto urrixa* eta Garazi nahiz Baigorriin *asto eme*, baina Gamarten *astu urruxa* eta Alduden *asto urriz*; Zaraitzuko Jaurietan ere bada *astaña*; hegoaldean proposamen onetsia da Arnegin eta Bidarrain —, ²⁹⁶ *astoüme* ‘astakumea, asto puloa’ (Arbo / Dom, Pag) & *astoume* (Jut), ²⁹⁷ *auher* (Gam) — cf. *aufer* (Uha) ere —, *axkora* ‘aizkora’ (Arrü) & *haxkora* (Jut); cf. *aixkora* (Arbo) eta *azkora* (Gar)

bardin ‘berdin’ (Bardo / Ora, Lük, Donap / Artie, Sarkp, Ainh, Pag / Jut) — Bourciezek Landibarren dakar; aldiz, Ibarrolan *berdin* entzun dugu eta dioskutenez *bardin* ez da ibiltzen —, ²⁹⁸ *barrükü* ‘korta, ukuilua, barrukia’, ²⁹⁹ *bart(h)adera* ‘atea lotzeko zatia’, ³⁰⁰ *berrat* ‘aketza’ (Arbo / Dom, Pag), *butiga* (Lab, Zoho, Arbe)³⁰¹

deskargi ‘deskargatu’ (Arbo), ³⁰² *dimuñ* ‘uztarrian sartzen den organo zurezko haga’ (Arrü, Gar, Arbo) — Zuberoan *dimü* dena, *ü* azentuduna

-
- 296 Gaizki mintzo den emazteki batez *astaña* erraten da; cf. *maite eztuun noitendako “astaña”* (Ibarro).
- 297 Zuberoan *astohüme* nagusi da eta Altxürükü eta Urdiñarben *astok(h)üme*; Arruetan **astoume* eta *asto tipi*; Larzabalen *asto*. Hazparnealdean eta Aturrialdean ere *asto ume* ageri da. Baxenabarre mendebalean, Bidarrain edo Garazi eskualdean nasai dabil *asto pulo* edo *asto pullo* aldaera. Garazi nahiz Baigorrialdean ere *astokume* baliatzen da; Gamarten *asto ttipi* eta *ume* bildu dira.
- 298 Zuberoan ohikoa da, baina Ipar Euskal Herriko idazle zaharrek bazerabilten: Etxeparek, Leizarragak, Oihenartek, Tartasek, Lopezek eta Cazenaveren Garaziko eta Iribarnegarairen Baigorriko ebanjelioek ere halaxe dakarte; Hego Euskal Herrian Erronkari-Zaraitzuetan, Aezkoan eta Eguesibaren bederen ageri da.
- 299 Zuberoan *barrükü* nagusi da, Pagola barne, baina *ezkaatz* ere ibiltzen da; Domintxainen *barrükü* eta *establia*; Amiküzeko Arboti-Arrüetan *barrükü*, baina Garrüzen *barruko*. Oztibarre-Landibarren *barruki* ibiltzen da. Garazin *barroki* & *barruki*, bi erak daude eta *beitei* onetsi dute lekukoek Arnegi-Luzaideetan. Baigorrialdean nagusi da *behite(g)i* eta ibiltzen dira Baigorriin *barroki* eta Bidarrain *barruko* ere.
- 300 Zuberoan *barthadea* & *phartadea* ditugu, Pagolan *barthadea*, Domintxainen *bartadera*, Amiküzzen *bart(h)adera* eta Bardozen *barthader*. Oztibarre, Garazi eta Baigorrialdean *p-* ahoskabea darabilte.
- 301 Hitzaren aldaera, Zuberoako ohikoa da, *butiga* eta ez “botiga”. Adiera zabala du, baina ‘denda’-rena ez: *OEH*-k ‘nahaskeria, saltsa’ adieran dakar Zuberoan eta Amendüzzen dioskutenez, Amiküzzen ere Zuberoako adiera du. Bestalde, guk Amiküzzen ‘gure bizialdia’, ‘gure ibilerak’, ‘gure negozioak’, ‘gure gorabeherak’ kutsua hartu diegu entzun ditugun adibideei. Hona sorta bat: *hor düit ba nunbeit, han markatiak gintien khiütze atekin, ba, ba, eta hola, hola, hola gue, gue, butiga* (Lab); *ta hola, hola joan duk güe butiga hen* (Zoho); *bo, merkhatian eta geo fini... ba ez... eztaizüit sobera erraiteko, etüzün konplikatia e butiga lehen* (Arbe).
- 302 Baina Arbotin baizik ez dugu entzun. Partizipio bururatua egiteko sistema hau Zuberoako berrikuntza da eta hitz honetan Amiküze ekialdeko mugako Arbotin baizik ez dugu entzun.

delarik —, *Domia Sendore* ‘Omiásaindu, Domu Santu eguna’ — Jutsin *Omia Saindu* eta Larzabalen *Omnia Seindu*; cf. *Omia Sendore* (Lan)—³⁰³

eitarziin ‘eritasuna’ (Arbe) & *eitarziin* (Pag, Sarkp, Oih), *erri in* ‘irri egin’ (Zoho) — ez da orokorra Amiküzen eta bada *irri in* ere Zohotan—, *espintxeta* ‘suko kurrika, suhatza’ (Arrü, Gar, Arbo / Pag); cf. *espintxeta* ere (Arbo),³⁰⁴ *ezkun-* ‘ezkon-du’ (Arrü, Behau, Bith, Mar, Ilh, Lab, Zoho / Itho, Olh) & *ezkündü* (Behau, Lab / Artie, Olh, Sarkp)

fermo ‘fermu’ (Arbe)

galdo ‘eskaera’ (Sar, Lab, Ilh, Gam, Arbo, Zoho) —cf. *sos galdo* elkarketa (Zoho) eta *aphezpikia sos galdoz ari* (Arbo)—, *gañan* (1) ‘gainera’ (Ame, Zoha / Olh) —cf. Zuberoako *gañeran*—, *gañean* (2) ‘bestela’,³⁰⁵ *guntz* ‘atearen gontza, txoria, orpoa, txanga, bisagra’ (Gar / Larz); baina ikus *gontz* Oztibarren (Lan, Jut, Larz)

habia ‘kabia’ (Behas), *hautse* ‘hautsi’ (Ilh / Dom, Oih, Pag),³⁰⁶ *herausi* & *ehausi* ‘zerri emea ar eske egotea’³⁰⁷

- 303 Baxenabarre eta Lapurdin *Omia Saindu* nagusi da. Ez doa Amiküze guztia Zuberoarekin batean, baina herri batzuk bai. Bithiriñan *Omia Saindu* eta Sarrikotan *Umia Seindü* bildu ditugu, baina badira Zuberoako eite duten emaitzak ere: Arrüetan *Omia Sendüre* bildu dugu, Zuberoan nagusi den *Domesanthöe* aldaeraren iduria: Pagolan *Domisanthöe* eta Domintxainen *Domisondore* & *Domisendore* dakartza atlasak, Arbotin *Domisondore* eta Garrüzen *Domiasendore* & *Omiasondore*, baina Arrüetan *Omia Seindu*. Altxümartan *Omia Seindü* entzun dugu. Landibarren *Omiasondore* dago, Armendaritze, Bastida eta Bardozen bezala; Jutsin *Omia Saindu*, Larzabalen *Omnia Seindu*, Baigorrialde eta Garazi gehianean *Omia Saindu*, Arnegin *Umia Saindu* eta Behorlegin *Omia Saindu* & *Umia Saindu*.
- 304 Zuberoan aldaera aurrikidunak daude: *ezpüntxet*, *expüntxet*, *ixpüntxet*, *ezpüntxet*, *expüntxet*, baina *tanaza* dago Larrainen eta *p(h)üntxet* Altxai eta Ürrüstoin. Amiküzen ere aurrikia ageri da: Domintxainen *ispüntxeta* & *ixpüntxeta*. Oztibarren *p(h)üntxet* eta Garazi gehianean *püntxeta(k)*; aldiz, Luzaiden *püntxeta*, *tenaza* & *suats*. Bidarrain ere *suats* dago eta Baigorrialdean ere *püntzet* edo *püntxet* aldaera orokorra da.
- 305 Cf. Amendüzeko *oai harko etxeat jon, gañean ene emazte hua kexatiko data*. Beste hauek Ostankotan entzun ditugu: *negu gaixtoa balima zen geldigeldia, ta gañea iortzen tziñen amiña at alhatzea ta geo biltzen berriz ta geo deitzen / bokhata hor urian ta hola nik e ene zeroekin ta usu... aldi bat nuzu behiekien joan beste orduz gañean bethi heldu nintzun emeki-emeki, bena etxeat hola / igandetan bethi mezalat ioan behar gintzin oen bat leheno nahi bagindien meza intzun, gañean etzun jelgitzetik, ez*. Hau Sarrikotakoa: *estakit hil tzenez e haur hua, na gañean egündano eztu bes-teik intziñ*. Hauek Donapaleukoak dira: *eztaixüt triünalean ala nola, bena bethi bildü izi, gañean behin ja behar ziñ kxanpoan eon / ta biak lothüik finki behar ükhan ... laünek behexi, gañean batek behar tzin bizia galdü / artean hua hun tziñ, gañian beharko gintzin ba nahi ta ez barrükü güzia ützi / ba Dnapleat edo hola, bena gañean Bitarritze ta Baiona ta hoitan ez, han izana nizalaik izana nüzü taxiain*. Hau Arbotikoa: *ene emazteak behar tzin gauherdiko sarthü, ta muthikoa, aldiz, hua gehiao libro zün, bena gañan, neskato khundia ta zumaitzi goizau ono*. Eta hau Zohaztikoa: *a, gañan, ülü hegal batekilian eta... arrestatiak, e, derremendeneikilan*. Artiekoa hau: *ez, ikhusten itzi hola nunbeit, errekntratzen dütiügü bena, ez gañan; etsenpluok ‘bestelakoan’ adiera dute*. Uhartehirin ere entzun dugu.
- 306 Baina *hautsi* ere badakar Domintxainen EHHA-k.
- 307 Zuberoan *heüsi*, *ehüsi* & *eüsi* aldaerak ageri dira eta *e* da beti lehen bokala; Pagolan *heüsi* dago eta Domintxainen *heüsi*. Amiküzen ere *e* da lehen bokala, Arbotiko *ehausi* eta Garrüzeko *herausi* lekuko, baina Arrüetan *hiaüsi* bildu da eta Bardozen *ihautsi*, Baxenabarre orokorreko *ihausi* go-

ian ‘iragan’ (Dom, Etxa) & *aiten* (Ora, Zoho / Olh, Arüe, Oih, Pag) —cf. *iganak* ‘iraganak’ (Ora); bestalde, *ian* dugu Zohotan ‘igan’ adieran—, *ihizen* (Olh) & *ihizen* (Zoho), *ihizi* ‘ehiza’ (Lab, Donap) & *ihizi* (Loh, Oih), *ihizlari* ‘ehiztaria’ (Zoho, Laph) & *iizlari* (Gar) —cf. *ihiztari* (Lab)—, *ika-txero* ‘ikazkina’ (Gar), *ilhar bübil* ‘ilarra’ (Arbo), *intzaurtze* (Arrü, Gar, Arbo / Dom, Olh, Pag)³⁰⁸

jelki ‘irten, atera’ (Arbo, Zoho, Behas) —Zuberoan *elkhi* nahiz *jelkhi* baliatzen dira; Arüen *elkhi* entzun dugu guk eta EHHA-k Domintxainen dakar—, *jeste* ‘dastatu’ (Zoho / Dom) & *jestatü* (Zoho),³⁰⁹ *juiten* ‘joa(i)ten’ (Amo, Arrü, Mar, Ilh, Lab, Bith, Zoho / Arüe) —cf. *joan* (Amo)—

khaidera ‘aulkia, kadira’ (Arrü / Oih, Pag) & *kaidera* (Gar, Arbo / Dom) & *khadera* (Arrü),³¹⁰ *kaloia* ‘kaiola’ (Zoho), *khanbera* ‘etxeko gela’ (Ora, Ost, Bith / Dom) & *khamera* (Gar) & *khanbea* (Olh, Sarkp, Urd)³¹¹

mahain (Olh, Urd) & *mahaña* (Olh) & *mahañak* (Gam) & *mahañe gaña* (Oih) & *mahañen* (Olh) —cf. *mahai* (Pag) & *mahaia* (Meh) & *mahaian* (Bith)—, *maixtürü* ‘zurgina’ (Arrü, Lab / Dom) & *maxtürü* (Behau, Lab, Gab, Larri / Dom) —Zuberoan *maixtürü*—, *mezperak* ‘igande arratsaldeko elizkizunak’ (Bith, Laph / Etx, Arüe, Olh),³¹² *muztü* ‘moztu’ (Arbo / Sarkp, Oih) & *muzten* (Ost, Arbo, Sor / Olh, Sarkp, Ainh, Pag)

nahiant ‘nahi duena’ (Uha), *nuz* ‘noiz’ (Bith, Ame / Oih, Ainh, Urd), *nur* ‘nor’ (Arbo, Zoho, Laph / Arüe, Olh, Sarkp, Oih, Urd)

ordari ‘ordaina’ (Behau, Uha, Arrü, Arbo, Zoho) & *ordaritan* (Zoho),³¹³ *ozader* ‘ortzadarra’ (Arrü, Gar, Arbo / Dom)³¹⁴

gorarazten digutenak, izan ere, *ihausi* bildu baita Jutsi, Landibarre, Larzabale, Luzaide, Arnegi, Gamarte eta Ezterenzubin; aldiz, Behorlegi, Uharte eta Alduden *iausi*, baina Baigorri eta Bidarrain *ihaus*.

308 Aita-amak arberoarrak zituen behauztar batengandik *intzaurrondo* entzun dugu.

309 Zohotan *jeste diat*, *jestatü diat* & *jesta zak* bildu ditugu; Trebitsch-ek *justatu* dakar Amоротzen (1913).

310 Zuberoan, Pagola barne, *khaidea* & *kaidea* ageri da. Oztibarre-Landibarren *k(h)adera* dago; berebat, Garazi gehianean eta Baigorrialdean ere *kadera*, baina Ezterenzubin, hasperendurik, *khadera*. Erronkarin *katreda* & *katrera*, Zaraitzun *katedra* eta Aezkoan *katedra* & *katreda*.

311 Zuberoan *khanbea* & *khanbaa* ditugu. Baxenabarren hitz hasiera ahostuna da: Oztibarre, Landibarre eta Garazi gehianean *ganbera* eta Uharte, Arnegi eta Luzaiden *ganbara*. Baigorrialdean *ganbera* eta *ganbara*, bi aldaerak ageri dira.

312 Arberoako Armendaritze eta Mehainen *mezperak* erratan da baina Xiberoan *mezpe(r)a* bildu dugu (Sarkp, Ündü, Oih, Ainh, Pag, Urd); Basabürüko Gameren *mezpera* dakar Otsibarrek (2003: 68); aldiz, Belapeirek bezala, Larrasketek *bezpera* dakar (1939).

313 Leizarragak *ordain*-en Zuberoako aldaeratzat zekarren. Zuberoan bi adiera ditu: ‘ordaina’ eta baita ‘ordezko pertsona’ ere.

314 Arbotin baita *ozaar* ere eta Oztibarreko Jutsin ere *ozader*. Zuberoan *ozadar* nagusi da, Pagola barne, nahiz Santa Grazin *orzadar* eta herrialdeko ipar-ekialdean (*h*)*ostoadar* nabarmendu. Landibarre, Larzabale, Garazi eta Baigorrialdean (*h*)*ortzadar* darabilte, baina Aldude-Bidarraietan gurzkarri: *orzadar*.

phe(r)edikü ‘predikua, sermoia’ (Arrü) & *phedeikü* (Lab) & *phe-diku* (Arm) & *phedikü* (Sarkp, Pag),³¹⁵ *prauē* ‘pobrea’ (Bardo / Bith, Gab, Lab, Zoho / Dom) — Gamuen *proiak* bildu dugu, baina Bithiriñan *pobre*; EHHA-k *prauē* dakar Domintxainen —, *püpliatze* ‘makala, txipua, zurtzuria, busuntsa, *Populus nigra*’ (Arrü, Gar) & *püpliatze* (Gar, Arbo)³¹⁶

txitxa ‘txita, txitoa’ (Arrü)

untsalaik ‘ongi izatera, ondo bidean’ (Amo) & *untsalaik e* (Sarkp) & *untsala* (Urd)

xāhātü ‘xahutu, garbitu’ (Lab) & *xāhātu* (Mith, Uha) & *xahatu* (Meh) & *xaatü* (Gam, Arbo),³¹⁷ *xainkhueri* ‘ardiaren zango muturreko min edo eritasuna’ (Arrü) & *xainkeria* (Gar) & *xankheria* (Arbo) & *txankheia* (Pag),³¹⁸ *xakola* ‘sakela’ (Bith, Ame / Olh, Pag) — baita *sakola* ere (Bardo / Uha, Donap, Arbo / Dom, Pag); Larrasketek *xakola* dakar Xiberoan —,³¹⁹ *xainkheria* ‘behiaren nafarrerria, maingueria, delako ‘fièvre aphteuse / fiebre aftosa’ (Laph) & *xankeria* (Arbo) & *xankheia* (Urd) & *txañkeria* (Dom) & *txankheia* (Pag, Sohüta, Barkoxe, Eskiula),³²⁰ *xainkhüz* ‘errenka’ (Laph) — baina ez da orokorra Amiküzen; cf. Zuberoako *txainkü* —, *xerbitxü* ‘zerbitzua’ (Lab, Lük, Gam, Sor / Sarkp, Urd) & *xerbitxu* (Behau) & *xerbixu* (Barta) & *xerbitxü* (Zoho) & *xerbitxatzia* (Urd) & *xerbitxatzen* (Gab / Olh) — cf. *zerbitxu* (Arm) & *zerbitzu* (Arm) —, *xilintxau* ‘zintzilik’ (Zoho / Dom)³²¹ & *zilintxau* (Zoho) & *xilintxao* (Olh) & *txilintxau* (Dom, Pag, Urd) — Zuberoan nagusi da *txilintxau*; alta, Erronkarin eta Zaraitzun *tilinton* baliatzen zen eta Bardozen EHHA-k *tilinto* dakar; Amiküzekoa da *tilingo* aldaera ere; Arberoako Aiherran *dilingo* bildu da (Garate 1988: 310) —, *xüti* ‘zutik’ (Ilh, Laph) — cf. *zuti* Tartasek eta *züti* Belapeirek; dena den, bada *xütik* ere Amiküzen (Arrü, Mar, Laph, Sor / Oih, Pag); cf. *xutik* (Bardo / Arm / Larz) eta *xütik* (Ainh) —

315 Trebitsch-ek Amorozen bildu zuen: [*Amikuzeko xoko huntako eskuara*] *aphezek berek pheedikietan uzten dutela bazterrean* (Etxebarria 1994: 65). Zuberoan badu ‘errieta’ adiera ere (Larrasket).

316 Zuberoan *publie* & *püblie(r)tze*. Lapurdi eta Baxenabarre mendebalean *zurtzuri*, Aldude-Bidarraietan *xur(t)xuri* eta Arnegi-Luzaideetan *zurzuri*. Pagolan *pæplier* eta Domintxainen *püblie*. Ikus Oztibarre eta Garazin *pulier* eta Landibarren *puble*. Baita Garazin *busuntsa* eta Baigorriin *buxuntxa* ere eta baliteke Alduden ere *buzunts* erabiltzea.

317 OEH-k *xahatu* idazle zuberotar eta amiküztarrena dela dio.

318 Garrüzen baita *maingeria* ere eta Domintxainen *artrita*. Zuberoan *txainkheia* ibiltzen da eta Pagolan *txankheia*, Lapurdiko eskualde batzuetan eta Baxenabarren *maingueri(a)*; Oztibarre, Garazi eta Baigorrialdean *mainguria* & *maingueria* eta Arnegin *zangoeri*; Nafarroa Garaiko ekialdean *maingeria*.

319 Ez da Amiküzeko aldaera bakarra; cf. *sakela* (Arm, Meh / Ora, Uha, Lab, Zoho) eta *xakela* (Sarkp). Bardozen ere *sakela* dakar EHHA-k.

320 Zuberoan *ahēia* da nagusi, Pagola barne. Baxenabarre hegoaldean *ahoeria* eta *maingueri* ibiltzen dira Garazi eta Baigorrialdean; erdialdean *maingueri* nagusitu da. Amiküzen guztietarik ageri da: Arrüeta-Garrüzen *pikota* eta Bardozen ere bai; Garrüzen onetsi da **maingueria* ere.

321 Baita Domintxainen *zilintzo* ere (EHHA).

zübü ‘zubia’ (Bardo / Arrü / Dom, Pag),³²² *zuin* ‘zein’ (Mar, Lab, Gab, Arbo / Sarkp)

Beste adibide batzuetan denbora iragan izanak aldaketak eragin ahal izan dituela dirudi: errate batera, *EDEL*-k Domintxainen eta Etxarrin *zelü* dakar, baina Amendüzen *zeria*; Zohotan *zerü* bildu dugu guk ere. Ordea, iraganean *zelü* eta *zerü*, bi aldaerak ditugu Donapaleuko XIX. mendeko katiximan, baina *zelü*-k maiztasun handiagoa du: *hain egiazki eta errealki nola zelian beito* (245) / *ohit giten zerian egoiten denaz* (233). Erronkarin bestela ziren gauzak: *zeuru*, *zeiru* & *zeuri* zeuden, baina Zaraitzun *zeru*; ikus Mitxelenaren *FHV* (1977: 100) eta Gómez (1991: 403).

Ipar Euskal Herriko eta Baxenabarre gehieneko berrikuntza batzuekiko immune gelditu da Amiküze gehiena eta honen ondorioz, ekialdeko ezaugarri zaharretarik ere ibiltzen da Amiküzen, Zuberoan bezala eta Arberoan ez legez. Baxenabarren *hогоi* dago, eta honela ageri da Bardozen ere (*EHHA*), baina Zuberoan eta Amiküzen *ho(g)ei* aldaerak irau du; cf. *hogeitamar* (Behau) ere; hona emaitzak xeheki:

hогоi (Ost, Bith, Lab, Ilh, Arbo, Zoha, Zoho / Etx, Arüe, Olh, Sarkp, Ündü) & *ho^sei* (Ost) & *hoei* (Amo, Lab, Lük, Ame, Zoha, Donap / Sarkp) & *oei* (Amo) & *hогоi* (Ora, Behau) & *ho^oi* (Amo) & *hoi* (Lab / Dom); aldiz, Amortzen *hoi*, *ho^oi* eta *hoei*, bi aldaerak bildu ditugu eta Behauzen ere *hогоi* & *hогоi*

Zuberoan nagusi diren baina hiztun amiküztarren ahotik ere entzuten diren aldaerak aurkeztu ditugu, baina alderantziz ere gertatzen da: Nafarroa Beherean edo Amiküzen nagusi diren ezaugarri batzuk, Zuberoako ipar-mendebaleko herrietan ageri dira, baina ez dira Zuberoa gehienean ibiltzen: errate batera, Zuberoan ez bezalakoak eta Baxenabarre gehienekoak bezalakoak dira Oihergin bildu ditugun adibide lexikook:

eakoitza ‘larunbata’, *primadea*

Baxenabarreko aldaera lexiko orokorrak dira Oihergin bildu ditugun hauek ere:

atsalde, *be(de)atzi*, *ederrago*, *elgar*, *ga[ʒ]na*

Baina Oihergi zubereraren muga herria da, Zuberoan orokorrak diren beste adibide hauek guztiak ere bertan bildu ditugu:

322 Zuberoan *zübü* berranalizatua nagusi da, baina Pagolan *zübi* dakar atlasak. Bardozen bada *zubu* ere eta Arruetan *zuu*; aldiz, Garrüzen *zubi* eta Arbotin *zübi*. Lapurdin bezala, Oztibarre, Garazi eta Baigorrialdean nahiz Baxenabarre mendebalean *zubi* orokorra baliatzen da.

bedatsia eta *neskenegüina* hitzak
alkhar, *ei[3]erra* & *ei[3]erki*, *ga[z]na* aldaerak

7.3.5.2.2.10. Amiküzeko aldaerak ipar-Zuberoan bezalakoak

bideka ‘herri bideetako lanak, auzolana’ (Gab / Lan, Jut, Larz)³²³
kooste ‘gorostia’ (Arrü, Gar / Pag) & *khooste* (Dom) & *khostü* (Arbo);
 cf. *kootz* (Lan), baina *goosti* (Larz) & *gorosti* (Jut)³²⁴
masus(a) ‘masusta’ (Arrü, Gar) & *maxuxa* (Arbo)³²⁵
xixkor ‘txantxigorra, gantxigorra’ (Arrü, Gar, Arbo / Dom, Pag)³²⁶

7.3.5.2.3. Hedadura zabaleko lexikoa Amiküzen

7.3.5.2.3.1. Ipar Euskal Herri guztiko hitzak Amiküzen

aharran ‘liskarrean’ (Arbe), *amanda* ‘isuna’ (Uha, Arbo, Laph / Ber),
ardüra ‘usu’ (Zoko), *astiri* ‘arrastiria, arratsaldearen apaltzea’ (Arm, Meh /
 Amo, Altzü, Lük) & *astii* (Meh)
blagan ‘kalakan, kontu kontari’ (Arm / Amo, Arbo / Sarkp), *bortha*
 ‘atea’ (Ora, Bith, Gab, Lab, Altzü, Ame / Dom, Loh, Sarkp, Pag, Urd) & *borta*
 (Lan) —Lapurdiko mendebalean izan ezik—, *botza* ‘ahotsa’ (Ora, Arbe)
debru (Ora, Amo / Sarkp)³²⁷
entrealeko ‘erdipurdiko, arruntagoko’ (Amo), *errobineta* erdal ‘grifo’
 (Bith, Uha), *etxola* ‘mendian artzaina biltzen den egongia’ (Bardo / Arm /
Arrü, Gar, Arbo / Dom / Lan, Jut, Larz) —Zuberoan *olha* dena—, *eundano*

323 Lapurdin nagusi da *manobra* & *malobra* eta Nafarroan *auzalan*, Luzaiden *auzolan* dena. Zuberoa hegoan *aizelan* eta iparraldean *bideka* ditugu; Pagola, Domintxaine, Amiküze, Landibarre eta Oztibarre *bideka* hitzaren erabiltzaile dira eta Garaziko Ezterenzubi eta Gamarten ere *bideka* dago; Behorlegiko lekukoak ere onetsi du. Arnegi, Behorlegi, Uharte eta Alduden *bideite* dago eta Bidarrain *bidegite*.

324 Zuberoan nagusiki ahostunez hasten da: *gosti*. Aturrialdeko Bardozen bezala, baina Xiberoako iparrean ahoskabea da: Ürrüstoi eta Altzürükün *khosti* eta Sohütan *khoostitze*. Amiküzen bezalako *kh-* & *k-* hasierarik ez dago Baxenabarren; Oztibarre, Garazi eta Baigorrialdean hasiera ahostuna du: *goosti*.

325 Hegoalderago *mazuza* dago Oztibarren eta Garazin.

326 Hego-Zuberoan *a(i)ntxigor* & *ga(i)ntxigor* erak daude eta ipar-mendebalean *xixkor*. Bardozen *xigor* & *xingor*. Gainerateko Baxenabarrek batasuna erakusten du *ga(i)ntxi(g)or* aldaeran; ezker -g- gabe erraten da Aldude, Baigorri eta Bidarrain: *gantxior*.

327 *nik debru akital* erratean (Amo).

‘sekula’ (Ora), *ezkaatz* ‘beheko solairuan etxeko sarrerako ataria, ez da Zube-roako ‘ukuilua’ (Bith, Zoho)

gabetaik ‘gabe’ (Ber), *galotxak* ‘zurezko oinetako mota bat’ (Bith)

haatik ‘halaz ere’ (Behau, Bith) & *atik*³²⁸ (Amo), *haindiko* ‘haraindiko’ (Uha), *hunaindiko* (Uha)

jenagarri ‘gogaikarria, molestutzen duena’ (Behau), *jitez* ‘izaeraz’ (Bith)

kukutü ‘ezkutatu’ (Arbe)

laborari ‘nekazaria’ (Arm / Ora, Behau, Bith, Arrü, Lab, Ame, Gam, Sor / Dom, Etx) & *laboari* (Ora) & *laboai* (Sarkp, Oih, Pag), *laket* ‘gogoko, gustuko’ (Meh / Uha, Ame, Zoho, Arbe, Sor / Olh, Sarkp, Ündü, Oih, Pag, Urd), *larderia* ‘begirune eta beldur arteko sentiera; dena den, Behauzeke adibide batean nabarmen beldurra adierazten du, norbait gerlara deituko duten beldurra’ (Behau, Arrü, Lab, Laph) & *larderiatu* ‘errietan eman’ (Arm)

malestruk (Bith),³²⁹ *ments* ‘ergela’ (Arm / Zoho)

ogi ‘garia’ (Hel, Arm, Meha / Ora, Amo, Behau, Ost, Arrü, Mar, Lab, Ame, Gam, Donap, Sor / Olh, Arüe, Sarkp, Urd),³³⁰ *orga* ‘gurdia’ (Ora, Arrü, Gab, Ame, Zoha, Sor / Olh), *orroa* ‘garrasia, oihua’ (Ora)

partikulazki (Amo), *Petriin* “*Jondone* _” ‘DonePetiri’ (Arrü), *phitz* “biztu”-ren aditzoina (Arm, Meh / Zoho)

so^berakin ‘soberan dena, behar ez dena’ (Bith)

taulier ‘mandarra, amantala’ —*emazten* _*ra*— (Bith, Mar) & *tauler* (Ost), *tinkatzen* (Arbe) & *tinkatzez* (Urd), *thonba* ‘hilobia’ (Bith) & *thunbak* (Arbe)

undar ‘azkena’ adjektiboa (Ora, sar, Bith, Donap),³³¹ *uzkali* ‘irauli’ (Bith)

xaramela (Amo), *xixta at* ‘une bat’ (Arrü)

7.3.5.2.3.2. Euskal Herri guztiko hitzak Amiküzzen

abere ‘behi jendea’ (Behau), *āhāte* (Ora, Amo, Behau, Gab) & *ahate* (Amo, Behau, Bith) —aldiz, bearnesaren mailegu den *gita* entzun dugu eskuinerago (Mar, Lab, Donap, Zoho, Arbe / Dom, Olh)—, *arbia* —*biullan*

328 Perpausa honakoa da: *Xala ta, Gonzalez eta...* [Gonzalez pilotaria ari dela hobetzen] *ba, iandean galdu ik atik, iraazten tzielaik, aise iraazten tzielaik* (Amo).

329 *OEH*-k Ipar Euskal Herri guztian kokatzen du.

330 Baztanen eta Ipar Euskal Herri guztian baliatzen da adiera honetan.

331 Oragarren *idietan e undarrak gintzun saltzen* eta Sarrikotan *undar misionia ordian izan tzen, berroita emezortzian edo, nuz eta berroita emezortziaz gioztik ezten biziki misioneik izan, misionia galdu da*. Bithiriñan *undar igandez*; cf. Domintxainen zerria hiltzean azken hatsa baino lehen *undar ostikuak* (EHHA).

edo agorrilan, hor, “nagua” edo nola erten da, “arbia” edo holako zeeit— (Arrü)

bai, baloñaikin ‘balonarekin, baloiarekin’ (Mar), *biurgune* (Zoho)

earki ‘ederki’ (Ora) & *eder* (Arm, Meh / Behau, Ilh, Zoho, Arbe), *egin-bidia* ‘jarduna, eginkizuna’ (Arbe), *eremiak* ‘eremuak’ (Arrü), *eskulan* (Uha), *eztei* (Arrü)

gertatzen ‘prestatu’ adieran (Amo), *gosta* ‘kostatu’-ren aditzoina (Donap, Arbo, Laph / Dom, Ber); cf. Donapaleuko *etzu gusta* ‘ez da deus kostatzen hori egitea’

izardi ‘izerdia’ (Uha)

jeiki (Amo, Lab)³³²

kitoik ‘dohan’ (Amo, Mar / Olh, Arüe), *kokatia* ‘kokaturik’ (Arbe)

meiku ‘sendagilea’ (Ora)

norberak (Bith), *nunahi* (Arbe)

ordain (Behau), *ostiale* (Arm, Meh / Amo, Behau, Arrü, Mar, Gam, Donap, Arbe / Loh, Arüe, Sarkp, Oih, Pag)

sakela (Arm, Meh / Ora, Behau, Uha, Lab, Zoho) & *xakela* (Sarkp)

to! badu halako dei kutsua, gizona deituz bezala edo ‘horra’ antzeko zerbait erranez bezala (Zoho, Arbe), *trukadan* ‘trukean, ordainez’ (Bith)

xarbo ‘*Gobio gobio* arraina’ (Arrü, Lab, Gar, Arbo / Dom, Pag)

zakur (Ora), *zirtzil* (Zoho)

7.3.5.2.4. Bestelakoak

Sail honetako hitzak ez ditugu geolinguistikoki alderatu, baina alderdi batetik ez bada beste batetik interesa dutelakoan, hona ekartzea hobetsi dugu; hona sorta bat:

aita-amak (Bardo / Amo, Ost, Donap, Mar, Gam / Dom) & *aitatamak* (Barta),³³³ *anbalatu* ‘gehiegizko lastertasunaren ondorioa: idiei edo bihotzari gerta dakieke, baina baita jendeari ere, haserretu eta elkarrri indarka aurre egiteraino’ (Barta, Ame / Ber), *apeentziaik e* ‘inondik ere, inolaz ere’ (Amo) & *apentziaik ee* (Lab, Zoho, Behas) & *apeentziaik ee* (Lük) & *aphentziaik e* (Bardo), *arbole* (Laph), *arrotze* ‘arrazta’ (Bardo)³³⁴ / Gab, Ilh, Laph) & *aRutze* (Dom) —baita *arrotze* eta *arroltze* ere Domintxainen (EHHA)—,

332 cf. *jeiki* XIX. mendeko Bardozeiko katiximan (293); Gamereko Otsibarrek *jeikitzen* dakar (2003: 41).

333 Baita *burraso* ere Barta.

334 *arroltze* ere badakar EHHA-k Bardozen.

astelegun ‘asteko egun arrunta’ (Amo), *attatti* ‘aitona, aitatxi’ (Laph), *azpil-diirak* — arroparenak — (Ber)

behin ‘hasieran’ (Ost, Laph / Dom) — Etxeparek edo Leizarragak bezala —, *briganta* erdal ‘granuja’ (Uha)

ebe ‘zera, hau da, hona’ (Izt / Donap, Gam / Arüe, Oih, Sarkp, Pag) & *eben* (Gam / Sarkp),³³⁵ *emiüts* ‘txiroa, guti duen langilea’ (Dom)

fütü ‘akabo’ (Arbe) — cf. frantsesezko *foutu* —

hartako ‘horregatik’ (Ost, Gam), *hola ta hola* ‘nolanahi’³³⁶ (Lab, Zoho)

ithutsak, basa laborariak (Bith)³³⁷

nai ‘belar herreka, zerrenda’ (Arrü) & *naikatu* ‘belarra lerro-lerro ezarri’ (Barta, Uha, Bith, Ilh) & *arranaikatu* (Uha), *neskaxe* ‘neskatxa’ (Laph)

piru-pirun ‘emeki-emeki’ (Behau) & *pirun-pirun* — *eri delaik, emeki-emeki* — (Bith) — eta Bartan ere bai, *pirun-pirun osaarria galtzen*; aldiz, Martxüetan eta Amendüzen hitz ezezaguntzat eman digute; Baigorri *piran-piran dakar OEH-k* —, *pixkolatü* ‘osasun aldetik bizkortu’ (Ame) & *arrapixkolatu* (Behau), *prepaus* ‘aipamena’ (Barta, Bith) — *ukhan dugu zure prepaus* (Bith); *ukhan du prepaus*; *intzun dut prepaus hori preseski* (Barta) —

saie ‘xintxoia’, cf. frantsesezko *sage* (Bith), *solaskatzen* ‘hitzak gurutzatzen, mintzatzen’ (Zoha, Laph) & *solasketan* (Laph)

terren-terren ‘herrestan, gogorik gabe, nagikeriaz’ (Arbe), *trakas* ‘era-gozena, kezka’ (Mar, Ame) — frantsesez *tracas*; *trakasian, poxolian* (Ame); *ezti’balio trakas hori hartzia* (Ame); *trakas gütirekin, xinpleki* (Ame) —, *trenpan* ‘blai’ (Donap), *truk* ‘trukean’ — *askariain truk etsenpluan* — (Uha)

7.3.5.3. Arberoako lexikoa

Sail honetan Arberoatik so egiten diogu Ipar Euskal Herriari eta bi multzotan bereizi ditugu Arberoako hitz eta aldaerak; lehenean Ipar Euskal Herriko barnealdekoak ezarri ditugu: ele eta aldaera hauetarik batzuk Amiküzen berragertuko zaizkigu, baina beste anitz ez; aldiz, bigarren multzora Euskal Herriko ekialde zabaleko hitz eta aldaerak ekarri ditugu eta hauetarik gehien-gehienak Amiküzen aurkituko ditugu.

335 Baita Bardozen ere: *bena enikezin haan lekhian nahi nik, ebe, o!* (EHHA).

336 Beste adieran ere bai: *hola ta hola* (Bith), ‘honela izan zela kontaturik’ zentzuan.

337 Honela erran zuen hiztunak —edo honela entzun genuen guk bederen—, baina orain ez dugu hiztunarengandik argitasunik lortzen hitz honetaz; *OEH-k* ez dakar hitz hau.

7.3.5.3.1. Ipar Euskal Herri barnealdeko hitzak Arberoan

Euskal Herriko ekialde-ekialdean ageri ez diren tasunak bereizi ditugu hona, Ipar Euskal Herrian eta Baxenabarren hedadura handia dutenak, baina Xiberoan baliatzen ez direnak; Nafarroa Beherean orokorrak diren hautu zenbait ageri zaizkigu Arberoan. Armendaritzen eta Mehainen ekialdekoak ez diren hitzak baliatzen dira; ele hauetarik batzuk Amiküzen atzemanen ditugu, baina beste hainbat ez:

arbi (Arm), *arraildura* ‘arrakala’ (Meh), *athea* ‘irten’ (Arm)

barrandan ‘zeletan’ (Arm)

eakoitz ‘larunbata’ (Meh) & *ibiakoitz* (Arm) — Amiküzen *iakoitz*; aldiz, Lapurdin legez Arberoako Izturitzen *launbat* ageri da *EHHA*-n—

hatz ‘aztarna’ (Arm),³³⁸ *hurbildu* (Arm)

iduzki (Meh) — Amiküzeko Behauzen ere *iuzki* & *iguzki* aldaerak bildu ditugu, baina Zohotan, Arberatzen eta Laphizketan *ekhi* hitza—, *ilargi* (Arm) —baina bada *argizari* ere Arberoan (Arm); Amiküzeko Uhartan *argizaitte*, zeina Armendaritzen *ilargi* aldaketarentzat baliatzen baita: *khanbioa*, *argizaitte bethea*, *laurdena ta hori* “*argizaitia*” *erten duu horiendako*—, *iraulden* ‘goldatzen’ (Arm), *ixkiantxa* ‘izaina’ (Arm)

kopeta Oztibarren Ibarrolako Salaberrik hiztegian dakar eta *OEH*-k Baigorriin eta Arberoan; Zuberoa mugako Pagolan ere entzun dugu

mahuri ‘marrubia’ (Arm), *mamutx* ‘xomorroa, intsektua’ (Arm), *miru* (Arm), *muñak* & *buru muñak* (Arm)

neska (Meh)

*ortzi*³³⁹

phentze —Oztibarren Ibarrolako Salaberrik zekarren bezala; bestalde, bada Amiküzen ere (Uha, Arrü, Gam), baina Amiküzekoa da *phintze* ere: (Arbo, Zoho / Sarkp) & *pintze* (Mar)—; Sarrikotapean baita *pheintzik* ere,³⁴⁰ *primadera*

sorrho ‘urteko belarra bigarren aldiz mozturik’

xehela ‘alor edo zelaia hersteako egurrezko ataka’ (Arm)

338 Ekialdean animalien ‘hatzaparra’-ren adiera du Zaraitzun eta Erronkarin; Azkueren arabera baita Zuberoan ere; ‘azkura’ ere adierazten du Zuberoan, Larrasketen lana lekuko. Aezkoan ere azkurari *atz* erraten zaio, baina baita *aznéi* ere; Eguesibarko Joakin Lizarraga elkanoarrak *azgale* idazten zuen.

339 Armendaritzen *ortzi* ‘ortzantza, trumojia’ dela erran digute, baina Mehainen ‘tximista’ da, *ortziak kabalak erre* ohi ditu Mehainen.

340 Idazle zuberotarrek ez dute hitz hau baliatu, baina herrialde honen saihetseko Sarrikotapean ageri da.

Aldea adieran egotea ere litekeena da: *astiri & arrastiri* ‘arratsalde apala’ da Mehainen edo Amiküzen, baina ‘arratsaldea’ adierazten du Zuberoan.

Mehainen *selhauru* ‘aletegia, bihitegia’ da, baina Zuberoan etxearen barrenean goiko solairua adierazten du, edo lurreko egurrezko oholak; elizan, berriz, galeria edo balkoiaren adiera du zuberotarrentzat. Ikus Gamereko adibide hau (Otsibar 2003: 41):

goizan aldiz, emeki-emeki bata bestearen ondotik jeikitzen ginen eta otoitzeak bere alde erranik, selauriitik behera eraisten ginen, askaritato prest

eskeler gainean, selauri artea, leiho baten argiareki (22)

7.3.5.3.2. Ipar Euskal Herri barnealdeko aldaerak Arberoan

Ekialdekoak ez diren aldaerak baliatzen dira Arberoan; aldaera hauetarik batzuk Amiküzen atzemanen ditugu, baina beste hainbat ez:

afari,³⁴¹ *ainhitz* (Arm) —baina baita ekialdean ibiltzen den *anhitz* ere (Arm)—, *altzeiru* ‘altzairua’, *argizari* ‘ilargia’ (Arm), *ausiki* ‘hozka egin’ (Arm)

bit ‘bait’ (Hel, Arm, Meh) —Zuberoan *beit* den aldetik—

dilingan ‘zintzilik’ (Arm, Izt)

emezortzi (Meh), *entseatu* ‘saiatu’ (Arm), *erder* ‘lerdea’ (Arm)

galde ‘eskaera, galdera’ (Arm),³⁴² *ganbera* ‘etxeko gela’ (Arm),³⁴³ *gaphoina* ‘kapoia’ (Meh), *gaztina* ‘gaztaina’ (Arm)

hamar aldiz ‘anitz aldiz’, *haurride* ‘anaiarreba’ (Arm), *hautsi* (Arm), *hertze* ‘hesteak’ (Arm)

iastatu ‘dastatu’ (Arm), *iautsi* ‘jaitsi’ (Meh) & *jautsi* (Arm), *idurikatu* ‘igurikatu, zain egon’ (Meh), *igerika* ‘igerian’ (Meh) & *ierika* (Arm)

kadera ‘aulkia’ (Arm, Meh), *kafira* ‘habia’ (Meh), *kolpe* (Arm), *khuutze* ‘gurutzea’ (Arm) & *khuutzatze* (Arm), *khuutzefika* ‘etxeko gurutze ttipia, ez elizakoa’ (Arm)

laphar ‘sasia’ (Arm) & *lahar* (Arm), *laxo* ‘solte’ (Arm)

mokoka ‘aharran’ (Arm)

341 Nahiz Haritxelharrek Iholdi aldean *auhari* zekarren (1963: 61); cf. *auhaldu* & *auhari* erak Amiküzen.

342 Armendaritzen garbi *galde* bildu dugu. Mehaineko lekukoak *bi galde ukhan tiat, galdiak, galdein* erakoak baliatzen ditu, baina inoiz zalantza ageri du erantzunetan: *bauka galdoik?* edo *baitiat galduak* ere zalantzan dago herrikoak diren ala ez diren. Oro har, dienez *galde* da Mehaineko aldaera.

343 Behauzen aita-amak arberoarrak zituen lekuko batengandik *ganbera* bildu dugu, baina nagusi da *kh-* Amiküzen eta ondoko eskualdeetan: *khanbera* (Ora, Bith) & *khanbea* (Olh, Sarkp, Urd).

ogoi ‘hogei’ (Arm), *okhilo* ‘okila’ (Arm), *ontsalaz* ‘ongi izatera, ondo bidean’ (Arm)

pautxa ‘pagotxa, faruxa’ (Arm), *pinta* ‘likidoaren neurri bat’ (Arm / Ora, Lab, Donap)

sakela (Arm, Meh), *sendatu* (Arm / Ora), *sugeandoila* ‘sugandila’ (Arm)

-tasun atzizkia (Arm, Meh) —*eritasunez*, *ontasunak*—; Amiküzeraino heltzen da

ukhan (Hel, Arm, Meh), *ulitxa* ‘eltxo’ (Arm), *urdekeria* (Meh), *urran* ‘hurbil’ (Arm), *urri* hilabetea (Arm, Meh), *urrixa* ‘emea’ (Arm), *urtzo* ‘usoa’

xahutu diruaz errana (Arm), *xikitatu* ‘zikiratu’ (Arm / Ora / Sarkp), *xinaurri* (Arm), *xutik* (Arm)

uzkinazo ‘ipar-belea, eskinosoa’ (Arm, Meh)

7.3.5.3.3. Ekialde zabaleko hitzak Arberoan

Hurranen tasunok ekialdean eta Baxenabarreko hainbat alderditan ageri diren hitzak ditugu; guk Arberoa eskualdeko Armendaritze eta Mehainen bildu ditugu. Euskal Herriko ekialde zabaleko hitzak dira Arberoako hauek: mendebalerat Ipar Euskal Herriko erdialderat hedatzen dira. Teorian sorta honetako ele gehienak Amiküzen ere baliatuak izatea itxaron beharko genuke:

aantxu & *abantxu* & *antxuño* ‘ia, kasik’, *agorri* ‘abuztua’, *aharra* ‘gatazka’, *aizina* ‘astia’,³⁴⁴ *al(h)atu* ‘bazkatu’, *alta* —aurkaritza balioa duen partikula; ez da Zuberoan ageri, baina Erronkarin, Zaraitzun eta Aezkoan bai—, *apairu* ‘janaldia’ —Erronkarin *apario*—, *ardura* ‘anitzetan, usu’, *argizait* ‘ilargi aldaketa, ilargi xuria’, *arralleria* ‘umorea’, *askaldu* ‘bazkaria edo afaria baino lehen egin ohi den otordua’, *askari*, *atzeman* ‘harrapatu, aurkitu’, *ausarki* ‘ugaritasunez’

begiatu ‘gorde’, *beitharte* ‘aurpegia’ —Zaraitzun *betárte*—, *behorzori* —erdaraz ‘étourneau / estornino’ deritzan txoria; Zuberoan *bohortxoi* erraten da eta Erronkarin *beurtxori*—, *bilo* ‘ilea’, *biziki*, *bizpalau* ‘hiruzpalau’, *bort(h)a* ‘atea’, *bortxaz*, *bultta at* ‘une bat, denbora aldi bat’, *buhame* ‘ijittoa’

dailu ‘sega’, *dendari* ‘jostuna’ —Baztan, Erronkari, Zuberoa eta Zaraitzu barne—

ebatsi ‘lapurtu’, *eihartu* ‘lehortu’, *eihera* ‘errota’, *el(h)e* ‘hitza’, *emazte* ‘emakumea’, *errekeitu* ‘hornidura, jatekoa’, *ezko* ‘argizaria’, *eztei* ‘ezkontza’

gainhara ‘saguzarra’, *gune* ‘lekua’ —Erronkarin *gunian* denborazko ‘orduan’ da—

344 Nafarroa Garaiko Aezkoa barne eta Eguesibarko Joakin Lizarraga idazlea atzendu gabe.

haindi ‘haraindi, harako aldean’ —Zuberoan *hainti*—, *haizu* ‘zilegi’, *higitu* ‘mugitu’, *haurride* ‘anaiarreba’ —hitzaz dihardugu, ez aldaeraz; Zuberoan *aurhide* ibiltzen da, baina Ainarben *haurride* bildu dugu eta Arüen *aurride*—

iatzartu ‘esnatu’ —Zuberoan *iratzarri* & *eatzarri*—, *ikhara* ‘dardara’, *ikhertu* ‘aztertu’, *ikhuzi* ‘garbitu’

jìn ‘etorri’, *joan-jìn* ‘joan-etorria’

kalaka ‘mintzatze iraunkorra’, *kharroin* ‘izotza’ —Zuberoan *kharrũ*, Erronkarin *karroĩ*—, *k(h)ausitu* 1) ‘loritu, asmatu’ 2) ‘aurkitu’,³⁴⁵ *kokoratxa* —Zuberoan *kokodaxez*, Erronkarin *kakaraka*— ‘kakara, alara, garranga’ (Arm), *kontent* ‘pozik’, *khotxo* ‘arra’, *kukula* ‘zerbaiten gain-gaineko alderdia, artoarena edo oilarrarena’

larrazken ‘udazkena’, *lili* ‘lorea’, *lotsatu* ‘izutu’

mehar ‘argala’, *menturaz* ‘agian, beharbada’, *miise* ‘maindirea’

norbera ‘bakoitza’ —baina pertsonekin baliaturik—

ordoki ‘leku zelaia’, *oren* ‘ordua’ —Erronkarin eta Zaraitzun *oron*—, *orobat* ‘era berean’, *ortzear* ‘ortzadarra’ (Arm), *osa(g)arri* ‘osasuna’,³⁴⁶ *othar* ‘ote basa sortzen den alderdia, ez da lantzen’ (Meh / Ilh, Ame, Zoho / Arüe), *othoi* ‘erregutzen dizut’

pathar ‘aldapa’, *pot* ‘musua, apa’

sasoi & *sasoin* ‘sasoia, garaia’, *sobera* ‘gehiegi’

trufatu ‘iseka egin’

uhar ‘eurialdi bortitza’ —Zuberoan *üharre* & *üharri* ‘uholdea’ adierazteko baliatzen da—, *ukarai* ‘eskumuturra’ —baina ‘ukabila’ adiera ere badu Erronkarin (Izagirre 1959: 312); Arxu altzürükütarraren gramatikaren hiztegian ere (1979 [1868]: 202), *ukharaia* eta *ukhamila*, biak ‘le poing’ dira, baina ez dirudi Zuberoan erabilera hau nagusi denik—, *ur andi* ‘ibaia’,³⁴⁷ *urrats* —Zuberoan *urhats*— ‘pausoa’, *urtharril*

xahatu ‘garbitu’, *xanpaz* & *xanpaka* ‘zaunkaka’ —Zuberoan *txanpa* aldaera du—, *xekha* ‘bila’ & *xekhatu* ‘bilatu’ —Zuberoan *txerkhatü* dago—, *xorta* ‘tanta’ edo ‘likido baten kantitate ttipia’ —Zuberoan *txorta* baliatzen da eta Amiküzen *xurta*—

345 Bi adierak ditu Arberoan; ‘loritu’ edo ‘atsegin izan’ adieran dakar Larrasketek Zuberoan, baina Armendaritzeko ‘asmatu’ adiera eta Zuberoako ‘loritu’ hurbil dira. Ipar Euskal Herri gehienez —Zuberoako Intxausperen eta Erronkariko adibideak barne— eta Nafarroa Garaian ‘aurkitu’ adieran ageri da *k(h)ausitu* & *kaustu*. Hona Amiküzeko Martxüetako etsenplu bat: *gauza drolia kausitzen gindiena, dantzán muthikoa libro zün artzia, bena ez neskatoak, ba, ezpeigindien besteik ikusi, ta gizon batek izigarri kausitu gintzin drole, e.*

346 Erronkarin eta Baigorri bezala, baina Zaraitzuko Otsagabian eta Espartzan *osasan* bildu genuen.

347 Erronkari ibarreko Urzainkin dakar Mitxelenak (1954: 143) eta OEH-k Izaban; Zaraitzun eta Aezkoan *ugalde* baliatzen da.

zamari ‘laneko zaldi zikiratua’ (Arm), *zare* ‘saski giderduna’, *zeinhu* ‘kanpaia’ (Arm) —“ezkila” ez dela ibiltzen dioskute—

7.3.5.3.4. Ekialde zabaleko aldaerak Arberoan

Arberoan bildu ditugun aldaera hauek ere eskuin hedatzen dira eta gehienak Amiküzen berraurkituko ditugu:

berant ‘berandu’ (Meh), *biga* ‘bi’ (Arm), *borroka* (Arm)
erratze ‘erretzea’ (Arm)
ginharre ‘giharra’ (Meh)
hunki & *hunkitu* ‘ukitu’ (Arm)
itze ‘iltzea’ (Meh)
k(h)ario ‘garestia’ (Arm)
mihi (Meh)
pe ‘behereko alderdia’ (Meh)
uai ‘orain’ (Arm) —*n* gabeko aldaera den aldetik, ez *orai* → *oai* → *uai*
aldaketari dagokionez—, *uhaste* ‘uholdea’,³⁴⁸ *uzker* ‘puzkerra’ (Meh)
xahako ‘zahatoa’ (Arm) —Zaraitzun *xáko*—, *xilo* ‘zuloa’ (Meh)

7.3.5.4. Zuberoako lexikoa

7.3.5.4.1. Zuberoako berezko hitzak

Zuberoako berezkoak direla idatzirik ez dugu adierazi nahi hitz hauetarik batzuk bearnesetik maileguan hartuak ez direnik eta bestalde, ez dugu adierazi nahi ere ele hauetarik anitz Erronkarin —eta batzuk baita Zaraitzun ere— erabiltzen ez zirenik, baina Zuberoa da Amiküzeren ondoan dena, ez Erronkari edo Zaraitzu.

Halaber, berrikuntzen gunea eta haren eragin eremuak bereizten hasiz gero, iduri luke, Erronkarin, Zaraitzun edo Amiküzen diren berrikuntza hedatuak beti ageri direla Zuberoan ere eta herrialde hau datekeela ezaugarri berri horien sorlekua, eskualde handiena, jendeztatuena eta ekonomia aldetik ere indartsua izan denez.

348 Urdiñarbetar batek honako aipamena egin du hitz hau eman eta: *ühastia bai, denboa gaitza, basa, ebi eta tenpesta, ta henegün egin dik heben; erreka gaintitzen, handitzen delaik; ühastia delaik, erreka handitzen diik eta gaintitzen*; ez dirudi guztiz adiera desberdina duenik. Amiküzeko Zohotan ere eurite handiari erraten zaio *uhaste: da euri handi bat, odei batetik landa*.

Hona, beraz, ekialde hertsian edo Zuberoan ibiltzen den hitz sorta bat:

abañ & *amañ* ‘lipusarea, amarauna’ —Oztibarreko Jutsin *amain*—, *adelatü* ‘prestatu’ & *adelü* ‘prestakuntza’, *ahan(a)* & *han* ‘oihartzuna’ —Oztibarreko Larzabale barne—, *aha(r)tzartz* ‘ardiak ernalarazteko baliatzen den ar osoa, aharia, marroa’, *akhei* ‘okela ustela, berhila’, *akhodiña* ‘etxeko ardurak, etxeko ohiko eginkizunak’, *aments* 1) ‘bederen’, 2) galdera zentzua indartzeko partikula,³⁴⁹ *anddekotagorri* ‘marigorringoa, katalingorria’, *antzeü* ‘antzara umea’, *ardall* & *arradail* ‘bigarren aldiz mozten den urteko belarra’, *ardibiülta* ‘mendiko bazkaleku irekia, udako larrea’, *arramaiatz* ‘ekaina’, *arrasti(r)i* & *arrest(i)r(i)* ‘arratsaldea’ —eta beraz, *arrasti(r)i apal* (Otsibar 2003: 33)—, *arres* ‘ardia’ —baita Erronkarin ere—, *arriia* ‘karrika, kalea’, *athe* ‘multzoa’ & *atheka* ‘metaka’, *aurritü* ‘ahuldu, hondatu’, *axaita* ‘aitona’, *axama* ‘amona’, *azaia* ‘oilagorra, pekada’

bahiüts ‘ahoko habuina’ —Domintxainen *gahiüts* (EHHA)—, *bakada* ‘ardien bazka saria’, *bakhotxik e* ‘bakar bat ere’ —baina iraganean adiera hau Euskal Herri guztian hedaturik zegoen—, *baranthail* ‘otsaila’, *barbalot* ‘zomorroa’,³⁵⁰ *barreta* ‘eskailera maila’, *bedatse* ‘udaberria’, *bede[z]i* ‘sendagilea’, *belhagile* ‘sorgina, aztia’,³⁵¹ *bel(h)ar* ‘kopeta’,³⁵² *bilhaxka* ‘borroka’, *bizkar hiüts* ‘zaldi gainean zelarik gabe joatea’, *bizkarratü* ‘ardimoztea’, *boonte* ‘kopeta’ —Zaraitzun *boronde*—, *botinaje* ‘elkartea’, *broka* ‘arbolaren kimua, puja, amua, begia, botoina’, *brutxo* & *purtxo* ‘zerriak hastantzeko hotsa’, *buhadé* ‘auspoa’, *bünhegi* ‘burkoa, bururdia’, *bürhüngü* ‘ardiaren buruko harra, ardi burtxoroa’, *bürno* ‘patataren ernamuina edo hozia’, *buzi* & *buxi* ‘puska’

dehota ‘ardi antzua, ardi mandoa’, *dünda* ‘ortzantza, trumoia’ (Dom, Olh), *dündü* ‘iluna’ —Erronkarin *dundu* ‘urdirina’ da—

eden 1) ‘kabitua, barrenean hartu’, 2) ‘lasaitu’, *egari* ‘jasan, pairatu, eutsi’ —Zaraitzun eta Erronkarin bezala; iraganean Etxeparek eta Leizarragak ere ibilia—, *ehelegatü* ‘amorratu’, *ehi* & *ihi* ‘erraz’,³⁵³ *eho* & *ehaiten* ‘hil & hiltzen’ —baita ‘argia itzaltzea’ ere—, *ekhijelkigia* ‘ekialdea’, *ekhitoltze* ‘eguzkiaren beroak itotzea’ & *ekhitoltü* ‘eguzkiak itotzea’, *ekhiürü* &

349 M. Jauregiberri ziboztarraren adibidean: *Hi hiz aments, hik düka hola lotsazi?* (de Rijk 1999: 158).

350 Zomorro bat baino habororendako bildu da *barbalot* EHHA-n, baina adibide guztiak Zuberoakoak dira.

351 Erronkarin *belagin*, *beragin* & *bedegin*, baina baita *belagile* ere; bidankoztarrak *belaginak* deitzen dituzte (Lopez-Mugartza 2008: 74).

352 Erabilera literario sendoena zuberotarrena da eta zuberotarrek darabilte egun, baina Leizarragak, Etxeberri Ziburukoak, Axularrek eta Duvoisinek ibili dute eta Ibarrolako Salaberrik hiztegian dakar.

353 1782ko *Pratica*-k ere *ihi* & *ihiki* dakartza eta Ibarrolako Salaberrik ere *ihi* & *ihiki*. Zuberoan *ehi* dago; Maisterrek *ehi* & *ehiki* ditu eta Gèzek eta Intxauspek *ehi*, baina Belapeirek *ihi* dakar. Ez da Lapurdin edo Baxenabarre gehienez ageri.

ekhiiratü ‘geldirik, bare & baretu’,³⁵⁴ *elhürtxoi* ‘txonta, pintxotea, *Fringilla coelebs* izeneko txoria’,³⁵⁵ *elizabesta* ‘herriko jai egun nagusia’, *elhürlürta* ‘elur luizia, elur lausoa, el(ur)usoa’, *emüts & e(r)emüts* ‘txiroa’, *enjogi izan* ‘zaletasuna izan, joera izan’, *engoxatü & ingo(a)xatü* ‘alditxartu, konortea galdu’, *entsarrü & entsarre* ‘elur erauntsia’, *eñheik izatea* ‘nekaturik egotea’,³⁵⁶ *e(r)etz(e)* ‘alderdia’,³⁵⁷ *errabakhotx* ‘ardi erroaldia, titigaldia’, *eskalko* ‘bero handia’, *eskapila* ‘ez bustitzeko artzainek janzen duten kapa’, *eskautu & eskaltu* ‘irinez egin ahia’,³⁵⁸ *eskerniatü* 1) ‘gutziz nekatu’, 2) ‘nor-bait gaizki hartzea’ & *eskernio* 1) ‘nekea, sufrimendua’, 2) ‘iseka’ —bigarren adiera hau hedatuagoa da Ipar Euskal Herrian eta *eskernio* zuberotarren aldaeratzat joko genuke—, *esparbe(a)* ‘belatxa, gabiraia, kabrina’ —baita Lapurdiko Bardozen ere—, *esprabi* ‘probatu’ & *esprabü* ‘saioa’, *estiapen & estiapen* ‘ilbehera, beharapena’, *estroxan & etroxan* ‘presaka’, *etxau* ‘leku baztertuetako etxe edo baserria’, *etxit* ‘ez guztiz, ez osoki’

frisat ‘dantza jauzi mota bat’

gahatü ‘atxiki, eutsi’, *gazanaxal* ‘gazanontzia, zumitza’, *geñhatü* ‘abereak bazkarazi, jatera eman’, *gibel* ‘laiotza, ospela’, *gilap(h)e* ‘hegatza, hegatzegia, erdal *corbeau / alero*’, *glask* ‘hozkada’,³⁵⁹ *godalet* ‘edalontzia’, *goithü* ‘garaitu’,³⁶⁰ *gootz* ‘ongarria, simaurra, satza’,³⁶¹ *gothaña & kothaña & kotiña* ‘urdearen azala’,³⁶² *gritx* ‘matxinsaltoa’

han & ahan(a) ‘oihartzuna’ —Oztibarreko Larzabale barne—, *hapatakaz & haputikaz* ‘arrapaladan, lauhazka’, *harrielkhigia* ‘harrobia’, *harri-idokigia* ‘harrobia’, *harzara* ‘berriz ere’ —Erronkarin *astra* eta *artsa*—,³⁶³ *hatsalbo* ‘hatsa ezin harturik’, *hedaillo* ‘lurrean etzanik’, *hegatz* ‘teilatua’,

354 Baita *ükhüiratü* ere; Erronkarin *ekuri* (Estornés Lasa 1984: 66) eta *ekurik* (118) dakartza Mendigatxak; Uztarrozen *ékuru* bildu da (Izagirre 1959: 298).

355 Landibarren eta Gamarten lekukoei *elhürtxori* proposatu zaie eta onetsi dute (EHHA).

356 Nahiz *akhitü* ere baden Zuberoan, Belapeirek eta Intxauspek dakartenez. Donapaleu aldera begira dagoen Etxarrin, aldiz, *akhitü* dakar EAEL-k (276) eta baita Amiküzeko Amendüzen ere; guk Zohotan *akhitü* eta *akhidura* bildu ditugu, baina “unatu” eta “eñhe” ezezaguntzat eman dizkigute.

357 Alderaketak egiteko ere balio du *eretze*-k; aurki liteke Zuberoaz kanpoko idazleetan, baina egun funtsean Zuberoan baliatzen da. Guri Pagolan agertu zaigu: *dexa aita errenseñatia* ‘informatua’ *züzün monitorrain eetzian hea alhaba untsa demerdutzen tzenez eta kondüitan, eta monitorrak erran zoüzün...*

358 Urdiñarbeko glosan: *ogiaekilan egiten tzian lehen eskaltua, ogi iinaekilan eta krema bezala, bate ezneik ez deuf[é]e gabe, hua zian eskaltua, sükreik ez deuf[é]e gabe, ogi güiti zelaik hartaik [3]jaten nin, leen ola baitzen.*

359 Otsibar gamerearrak: *galtatzea hora non den, ez beita goxo ixustean glaska baten ükeitea* (2003: 18).

360 Hitz zaharkitua dirudi; Bizkaiko idazki zaharretan ere ageri da eta baita Erronkari-Zaraitzuetan ere.

361 Gipuzkoan eta Nafarroa Garaiko ipar-mendebalean bada *gorotz*, baina Zuberoarekiko inolako lotura geografikorik gabe; Baxenabarren nagusi da *hungarri* eta ez da *gorotz*-ik, baina Zuberoan bada *hungarri* herri bakan batzuetan.

362 Baxenabarre gehienguan *kailu* eta Amiküzen bezala Domintxainen *kallü*. Baztan eta Bidasoaldean *kallu*.

363 Etxeparek eta Leizarragak baliatu zuten, baina geroztik idazle zuberotarrek.

heltiibada ‘agian, beharbada’, *herots & ehots* ‘zarata’,³⁶⁴ *hexa* ‘orga gurpilaren arrasto edo hatza’,³⁶⁵ *hiotü* ‘usteldu’, *hō* ‘zakurra’,³⁶⁶ *hümoi & himoi* ‘aberearen umeontzia, umetokia’

idoki ‘atera, erauzi’,³⁶⁷ *igan urthe* ‘iaz, joan den urtea’, *ihaurri* ‘gorotza hedatu, barreiatu’, *ilhinti* ‘itxindia’, *inkhatxero* ‘hodei beltzak’, *inkaiü* ‘kantitate ttipia’, *intertan* ‘bitartean’, *iñhar bat* ‘pixka bat’, *iñhazi* ‘oinaztargia, tximistargia’, *isola* ‘ur jasa, erauntsia’,³⁶⁸ *itxes* ‘triskantza’

jesan ‘mailegatu’, [5] *jinebre(tze)* ‘orrea, ipurua’, *jokü* ‘apustua’

kakabarbalot ‘kakalardoa’, *kaminet & kamenet* ‘armairua’, *khandelü* erdal ‘glaçon / carámbano’, *khantü* ‘ondoko aldeá — *khantian* ‘ondoan’ —, *kapalotx & kapelotx & kapilotx* ‘ez bustitzeko artzainek janzten duten kapusaia’, *kaxeta* ‘ardi jezteko aulkia, ttottoa’, *kheestatü* ‘abere bat zikiratu’ & *kheestü* ‘zikiratzaila’, *kintha* ‘bide hertsia, estarta, inta’, *kobla* ‘gapirioa’, *kholtte* ‘hesola, taketa, zerrailua’, *khordamüsa* ‘etengabeko hitz jarioa, letania’, *kota* ‘gona’ —baita Zaraitzu-Erronkarietan ere—, *kuhat* ‘ukaldia’, *khülo* ‘adarrak apal edo beherantz dituen aberea’, *kuntrebent* —erdal ‘volet / contraventana’, Lapurdin eta Nafarroa Beherean “leiho” dena—, *khüña* ‘sehaska’ —Erronkarin *kuna*—, *khüpiüs & khüpiüx* ‘konkorturik’ & *khüpiüstü* ‘makurtu’, *khüso & khürso* ‘txorijagola, txorimaloa, mamua’, *kiüska(tü)* ‘hegaziak mokoka edo pikoka jardutea’

labeda ‘ekialdeko haizea’, *labio* ‘lanbro arina’, *lantzer* ‘euri fina, lan-garra’ —Erronkarin *lantxer* ‘lainoa’ da—, *larrerrasin* ‘zaldi gainean zelarik gabe joatea’, *latha* ‘arrantzako kana(bera)’, *latsün* ‘gisua’,³⁶⁹ *legar* ‘zerga’,³⁷⁰ *leñhürü* ‘argi izpia’, *lerdo* ‘ostegun gizona’, *lürt(h)a & lurta & lurtadiüra* ‘narra, luizia’ —Erronkari eta Zaraitzun ere bada *lurta*; Zaraitzun baita *lurte* ere—, *lurtatü* ‘lur zati bat lerratzea’

364 Amiküzekotzat dakar *heots* *OEH*-k. Guk Zohotan *azantz* bildu dugu eta Arberatzen *azants* dakar *EI*-k.

365 Bestelakoan, *herexa* ‘hatza, arrastoa’ hitz generikoa, Lapurdi-Baxenabarreetan ibilia eta ezaguna da; guk Laphizketan *heexa* entzun dugu.

366 Nahiz historikoki hitzak Euskal Herrian hedadura handiagoa duen: Landuchiok, Bizkaiko 1596ko atsoitzek eta Lapurdi eta Baxenabarreko testuek dakarte *hor* hitza eta elkarketan bigarren atala da: Nafarroa Garaiko Aezkoan *artzanola* erraten da eta Eguesibarko Joakin Lizarragak ere bazerabilen; Zaraitzun eta Erronkarin *artzanor* ibiltzen zen.

367 Zuberoan dago hitz honen erabilera, baina idazle zahar batzuek ere baliatu zuten: Leizarraga, Oihenart, Tartas, Haranburu, Etxeberri Ziburukoa, Duvoisin. Ez diogu ‘kendu’ adiera erantsi, adiera hori Amiküzen ezaguna baita, errate batera Zohotan.

368 *OEH*-k Amiküzen dakar ere, baina guk bederen ez dugu hitza entzun eta Zohotan eta Behaskanen egin inkestan ezetz erran digute.

369 Zaraitzuko Otsagabian ere baliatzen zen; Erronkarin *gisu* dakar B. Estornesek, baina galdera ikurra du.

370 Guk Sarrikotapean bildu dugu; hona Azkuek zer dakarren: “parece que esta acepción viene de la voz *legarrak*, con que se designaban las reuniones de los Estados de la Soule, encargados entre otras cosas de imponer contribuciones” (*OEH*).

mala ‘lohitokia’, *mand[3]jetea* ‘ganbela, abereen janlekua, hormari loturik, egurrezkoa’, *manex* ‘zuberotarra ez dena, bereziki baxenabartarra edo lapurtarra’, *mantetx* ‘tximiniaren janbak’,³⁷¹ *ments izan* ‘falta izatea’,³⁷² *miusat* ‘arto opila edo taloa esnean zopatia’, *mixkandi* ‘sehia, zerbitzaria’,³⁷³ *montüra* 1) ‘zaldi jendea, zaldi, asto eta mandoen kategoria’, 2) ‘zalaria, zaldi zikiratua’

nabasi & nabasiki ‘ausart, beldurrik gabe, fidaturik, libro’, *nadi* ‘arbola gerria, tronkoa’, *natibitate* ‘eguberri’, *neskenegün* ‘larunbata’,³⁷⁴ *nülatü* ‘landu gabe, larre utzi den lur eremua’, *nunebeita* ‘ziur aski’

nika ‘begi-keinoa’ — Erronkarin bezala, baina ‘begirada’ adiera ere badu kallesen mintzoan —

oiheski & oihezki ‘laiotza, ospela’,³⁷⁵ *oithian* 1) ‘beraz, bada’, 2) galderan harridura adierazteko ere baliatzen da, *oküpü* ‘haurdun’ — lagunarteko hitza da —, *orkhei* ‘egur txikitzeo tronko edo pikadera’ — OEH-k Amiküzen kokatzen du ere —, *osatü* ‘irendu, zikiratu’,³⁷⁶

partü ‘bidean gurutzatu’, *pastetx* ‘taloa’, *peallü* ‘makatza, udare txikia’, *peska* ‘mertxika’, *pihu* ‘deus gabe’, *pikhoste* ‘zila, zilborra’, *prefosta* ‘zalan-zarik gabe, jakina’ — Zohotako lekukoak ere Zuberoakotzat eman digu —, *prunki* ‘ugari’, *pühüllü & mühüllü* ‘mihura’, *pumaterr(a)* ‘lursagarra, patata’, *phurnauzika & phürnauzka* ‘animaliak jauzika edo elkarrekin jostatzen ari-tzea’, *phü(r)ü* 1) ‘behintzat’, 2) ‘guztiz’

sabelta ‘abereen umealdia’, *seteme(r)* ‘iraila’, *soba* ‘astazaldiaren gainean ezartzen diren pieza horizontalak, goi-hagak, karrerak’, *sokhan* ‘intxaurraren azal berdea, sokolina, sokarana’,³⁷⁷ *sü murra* ‘txingarra’, *sükhaltarte* ‘ezkaratza, karrajua, etxe barreneko ataria’, *sume* ‘etxegintzako zur zuzena, pitraila’, *sumearte* ‘bi haberen arteko tartea’

thai gabe & thei gabe ‘gelditu gabe’, *thalika* ‘arbolaren adar berria, muskila, puja, arrapusa’, *theiü* ‘zikina’, *therrix(k)ot(a)* ‘lurrezko ontzia, kati-

371 Wilhelm Giese-k dakarrenez (1931: 12), ‘el revellín que bordea la parte inferior de la campana y donde se ponen candiles, candeleros, vajilla, un reloj’; del latín *manticulum*.

372 Aezkoan ‘persona zozoa, ergela, funtsik ez duena, burutik ongi ez dena’ da *mentsa*; Garraldan berriemaile batek zioskun hitz *frantsa* dela. OEH-k Ipar Euskal Herrian —Zuberoa barne— eta Erronkariko Uztarrozen dakar eta Peillenek mailegu biarnesen artean kokatzen du (1981).

373 Lekuko urdiñarbetarrak ez duela baliatzen diosku; *mañata* eman du. Larrasketek badakar eta Thomas Uthurri (1920-1997) atharrastarrak ere badarabil (Davant 2009: 138); XIX. mende hasierako Bourciez-en itzulpenetan Zuberoan ageri da. Bestalde, Ibarrolako Salaberri ere badakar hiztegian.

374 Nafarroa Garaiko mendialdean ere kokatu da *neskenegun & neskegun* hitzaren erabilera; cf. Caro Baroja (1984 [1971]: 240).

375 Nafarroa Garaiko ekialdean ere bai: Erronkarin *oxezki*, Zaraitzun *o(i)eski* eta Aezkoan *oiozki & oezki*.

376 Nafarroako alderdi euskalduneko hegoaldean ere *osatu* ibili da, Erronkaritik Sakana erdialderaino.

377 Gipuzkoako hegoaldean ere ibiltzen da *sokaan & soka*.

lua', *thiña* 'abereen ezkabia, legena, hazteria', *topet(a)* 'ontzitxoia',³⁷⁸ *trahola* 'eginkizun handiak', *tramada* 'zerrenda, lerroa', *thürbüts* 'ur arrea, ur lohia'

txak(h)oste 'jendeak hesia gaingintzeko sistema, eskaileratxoa',³⁷⁹ *txinka* 'pindarra, txinparta', *txitxater* & *txi(r)txatea* 'matxinsaltoa', *txütxiika* 'zurgintzako lana'

tzüstotü & *thüstatü* 'usteldu' —Erronkarin *tustatu*—

ühülgü 'ortzantza, trumioia', *ülhaintxa* 'mirua',³⁸⁰ *uñhü* 'tipula', *urdañ* 'jangoikoa, mondongoa, jaunbiroa', *urdearrañ* 'azpixonua, solomo txikia', (*gotz*)-*ürpho* 'gorotz pila, multzoa', *ürrhentü* 'bukatu', *ürrüpheä* 'eremu laua', *ürzaphal* 'tortola'

xähäl 'txahala' (Loh),³⁸¹ *xahalboka* 'zapaburua', *xanfart* 'mahaiko janaldi jaia', *xankha* 'abereen orroa, marrua', *xanpillus* & *xanpilluz* 'itzulipurdia', *xiflet* 'belarrondokoa', *xikota* 'gaztagintzan gazura'

zihain 'esne-gaina, krema', *zī(i)* 'ezkurra', *zimana* 'gailur teila, bizkar teila' *ziunta* & *zünta* 'lastertasuna', *zizka* 'sitsa, bipia' & *zizke*, *zort(z)e* 'gaztagintzan baliatzen den egurrezko ontzia', *zotükatiü* 'higitzea' & *zotükü* 'higidura, konbultsioa'

7.3.5.4.2. Bearnésaren eragina

Litekeena da euskaraz arkaismo diren hitz batzuek Zuberoan oraino irautea, eta litekeena da zuberotarrek XX. mendea arte testuetan ibili dituzten hitzak egun ez baliatzea edo xiberotarren artean erdi galdurik egotea ere. Iruditzen zaigunez, arkaismoa da *ürgaitzi* 'lagundu', Belapeirek *ürgatzi* zekarrena. Ez da Larrasketen hiztegian ageri eta gauza jakina da Bizkaiko testu zaharretan ere erabiltzen zela.

Franko euskal hitz berezi baliatzen da Zuberoan eta bada hainbat adiera berezi ere ekialde horretan, baina gauza ezaguna da Zuberoako euskarak bearnesetik mailegu anitz hartu duela; XIV-XVI mendeen artean gaskoia hizkuntza ofiziala izan zen Zuberoan.

Nolanahi ere den, gaskoiaren barreneko atala da mintzo bearnesa eta eragin handia izan du zuberotarren euskararen berezitasunean.

Coyos-ek zubereraren ageri diren mailegu okzitaniarrak eremu kontzeptuaren arabera sailkatu ditu (2006); lehenago Peillen zifrak ematera ausartu zen (1992: 270): sentimenduak, erdeinuzko nahiz bestelako kalifikatzaileak, ekin-

378 Zaraitzuko Otsagin ere baliatzen zen eta baita erdaraz Iruñerrian ere.

379 Oztibarreko Larzabalen ere badakar atlasak.

380 Zuberotarrena da *ilhantxa* aldaera ere, baina amiküztarrek ere ibiltzen dute.

381 Lapurdin ere bada *xa(h)al*, Bardoze barne, baina Baxenabarre guztian *a(r)atxe* erraten da.

tza-izenak, aditzak eta eguneroko tresnak adierazteko hitz gaskoi anitz hartu du Zuberoako euskarak, baina familiaren, erlijioaren, denboraren edo espazioaren eremu semantikoetarako ia ez da bearnes mailegurik bildu.

Errate batera, psikologiazkoak diren mailegu gaskoiak ugari dira Zuberoan (Peillen 1981); hona sail bat:

aillart 'bizkor, erne', *arraheñ* 'erdotza, garbia' & *arraheñki* 'artoski',
abill 'iaioa', *funts* 'izate'

Gaitzespen hitzetan ere bearnesa ageri da:

arrunt erdal 'vulgaire / vulgar', *arrabuhin* 'gogo txarrekoa', *aujame* 'jenio itsusia', *bahest* 'moldegaitza', *briu* 'mozkorra', *debeatü* 'aspertu, nozitu', *gormant* 'jale handia', *greü(t)garri* 'nazkagarria', *kauke* 'beti eske, bizkarroia', *injeminas* 'odol gaitzekoa', *malet* 'maltzurra', *mali* 'zozoa', *menüx* 'buru mehea', *perfüdius* 'aharraria, borrokalaria', *pergüt* 'oinazez betea', *pek* 'eroa', *talabahüt* 'zarata egilea, urduria'.

Hitzak eta atzizkiak mailegatu direnez, hitz elkarketa eta eratorpena eragin dute. Hona ele elkartuen sorta bat:

adarpalet 'abereak adarrak kanporat uzta itxuran izatea', *desoropila* 'korapiloa askatzea', *ematxot* 'emazteki txikia' zentzu txarrean, *eskümantxu* 'eskularra', *faüzüzü* 'fazointsua, erak esageratzen dituen', *kuntrexilo* 'kontrazintzur irenstea', *menstü* 'xoratzea, burua galtzea, zozotzea', *moskofü* 'jatekoan mokofina', *ogendant* 'erruduna', *pintukari* 'ardo maite duena'.

Gaztelaniatik ere mailegu ugari hartu zuen Zuberoako mintzoak garai batean, Basabürüan bereziki; gai honetaz ikus Peillen (1981). Gaskoiaren maileguez Peillen (1998) eta Coyosen (2001, 2006) lan jakingarriak ikus daitezke.

7.3.5.4.3. Zuberoako berezko aldaerak

Zuberotarren aldaera edo berrikuntza zenbaiten falta sumatuko du zerrenda honetan irakurleak, baina Amiküzeko herri zenbaitetan ere baliatzen direnez, ibar horretako aldaeren zerrendan ageri dira:

agi 'haragia', *ahattü* 'ahatekumea', *aheia* 'behiaren naparmina, maingueria', *aihaltü* 'afaldu' —Erronkarin *aigaltu*, Zaraitzun *abaldu*—, *aihari* 'afaria' —Erronkarin *aigari*, Zaraitzun *abari*—, *aize* —Baxenabarren *haize* nagusi den aldetik—, *aizinant* 'astia duen jendea', *alagera* —Amiküzen *alegera*—, *alkhar* & *algar* 'elkar', *anaie* 'anaia' —baina *anaia* ere bildu dugu

(Urd); Amiküzzen *aneia* —, *añharba* ‘armiarma’,³⁸² *añheka* ‘enara’, *aphezküpi* ‘apezpikua’, *aphil* ‘apirila’, *aphotorro* ‘apoa, zapoa’, *argizagi* ‘ilargia’ — Arberoan *argizari* bildu dugu — & *argizagi berri* ‘ilberria’ & *argizagi bethe* ‘ilbetea’, *a(r)itxe* ‘aretxea’, *arrathū* ‘arratoia’, *arraultze*, *arrazū* ‘arrazioa’, *aseka* ‘asealdia’, *astizken* ‘asteazkena’, *astohiime*, *aurhide* ‘haurridea, senidea’,³⁸³ *axkolta* ‘aizkolkoa, aizkora txikia’, *azükülü* ‘azkazala’

bago ‘pagoa’,³⁸⁴ *bakant* ‘bakaturik, bakarrik’, *bakhatü* & *pakhatü* ‘ordaindu’, *bedaka* ‘belarka, belar biltzea edo moztea’, *bederatzü* ‘bederatzü’,³⁸⁵ *begar* ‘ur eramateko ontzia’ — baita *pegar* ere —, *belhainko* ‘belainiko’ — Belapeirek *belhariko* dakar; Erronkarin *belairuko* zegoen eta Zaraitzun *belauriko* — & *belharikatü* ‘belaunikatu’, *berekatü* ‘ferekatu’, *berset* & *breset* ‘bertsoa’, *berritan* ‘bi aldiz, birritan’, *bestelan* ‘bestela’,³⁸⁶ *bethiine* ‘betegunea, perfektzioa, osotasuna’, *biha(ra)men* ‘biharamuna’ — Erronkarin *biramen* —, *bilaizi* ‘biluztu’, *bilhagarro* ‘birigarroa’, *bohor* ‘behorra’,³⁸⁷ *boogatiü* ‘frogatu’ — Larrasketek ‘eskuen bidez hautematea’ dela dio; badakar *probatü* ere —, *bortha alaze* ‘atalasea, borta alartzea’, *bosta* ‘brosta, sasia’, *botxe* & *botxiü* ‘haitza, harkaitza, amildegia’, *boztaiio* ‘bozkarioa’, *bunka* & *onka* ‘likidoen neurria, lau dekalitro’, *bürhau* ‘biraoa’, *bürüzpikho* ‘buruz beheiti’, *buxeu* ‘*Tricoloma georgii* ziza’, *büztanliür* ‘buztina’

debetü ‘debekua’, *dihäü* ‘dirua’ — Erronkarin *deiru* eta *deuri* —, *Domia Sendore* ‘Omiasaindu, Domu Santu eguna’

edan ‘abereak edanarazi’, *ebi* — Baxenabarren *euri* den aldetik —, *egürüki* ‘zain egon’,³⁸⁸ *egüzaita* ‘aita pontekoa’, *egüçama* ‘amabitxia, amandrea’, *ekhardüra* ‘joera’, *elger* ‘ergela’, *elhestatü* ‘mintzatu’ — Erronkarin *elerran* baliatzen zen eta Zuberoan ere bada *elhe erran* & *elherran*; Aezkoan *elekatu* erraten da baina Zaraitzun *xardoki* & *xarduki* —, *elkhi* ‘irten, atera’ — Erronkarin eta Zaraitzun *erkin* —, *eltxo*,³⁸⁹ *ellho* & *ertzö* ‘eroa’ — Belapeirek

382 OEH-k Amiküzzen ere kokatzen du *añharba*, baina guk ibarrean *tartaña* bildu dugu (Mar, Ame). Aldiz, *El-k abaña* dakar (Arbe) eta *EAEL-k amaña* (Ame); Domintxaine eta Etxarrin ere *abaña* dakar *EAEL-k*.

383 Dagoeneko Olhaibin *aurhide* ageri zaigu.

384 Nafarroako Erronkari, Zaraitzu, Aezkoa, Erroibar, Esteribar, Ultzama, Baztan eta Bidasoaldean bezala.

385 Aldaera zaharra ez bada, *axeru*, *eguzku*, *uzku*, *zubu* berriak eragin dituen berranalisiaren ondorio bada.

386 Belapeirek *bestela* dakar, baina aldaera berria, Basabürüan, Arbailan eta Pettarran baliatzen da egun; Maisterren 1757ko itzulpenean, dagoeneko *gagneran* aldaera ageri da (385).

387 Zuberoa guztikoa da, baina Eskiulan *bohor* & *behor* ibiltzen dira eta Domintxainen *behor* baizik ez. *EHHA*-ko datu batzuetan Amiküzeko Sarrikotan *bohor* ageri da, baina *beor* aldaera eman digute guri eta adierazi *bohor* ez dutela ezagutzen. Errate batera, Zohotan *behor* bildu dugu eta Olhaibin ere *behor* ageri da gure datuetan; Oihergin entzun dugu guk lehen *bohor*, horra bitarteko herrietan ez.

388 Dagoeneko Belapeirek *ügürüki* dakar, baina baita *egürükite* ere; bestalde, Erronkarin oro har *orkitu* zegoen, baina Uztarrozen *ülki[itu]* dakar Izagirrek (1961: 394) eta Izaban *ürkitu* (403).

389 Hegoaldean orokorra da *eltxo*, baina Zuberoako aldaera Baxenabarre oron *ulitxa-k* inguraturik dago, Pirinioetan salbu: Erronkarin *eltxu* & *eltxe*, Zaraitzun *eltxo* eta Aezkoan *eltzo* ditugu.

erho —, *eraitsi* ‘jaitsi’ — bai Nor sailean bai Nor Nork sailean ere —, ³⁹⁰ *erlui* ‘harrulia, arrobia’, *erregetxupit* ‘txepetxa, errepettitta’, *erre[3]jent* ‘maisua’, *erri* ‘irria’ — Zohotan *erri in* entzun dugu eta Domintxainen *eRingaRi* —, *erxe* ‘hestea’ & *her(t)se*, *eskalanpoñan* (Sarkp), ³⁹¹ *eskele* ‘eskalea’ — Pagolan *eskelai* bildu dugu —, *eskiñaso* & *üskiñaso* ‘ipar-belea, eskilasoa, eskinosoa’, *esnaur* & *esñaur* ‘hausnarra’ & *esnautii* ‘hausnartu’, *espaantxa* ‘itxaropena’, *etxano* & *etxanot* & *etxenot* ‘etxetxoa’, *etxeki* ‘atxiki’, *e[3]jer* ‘ederra’, ³⁹² *ezne* ‘esnea’ — Erronkarin eta Zaraitzun bezala —, *ezabaki* & *exabaki* ‘gordeka, aitortu gabe’, ³⁹³ *ezepeü* ‘oilarrak gibelean duen azkazala’

ferragia ‘ferratokia’, *ferrü* ‘faruxa, pagotxa’

gaiañhea ‘gauenara, saguzarra’, *galthatii* ‘galdetu, eskatu’, *galtho* ‘eskaera, galdera’, *ganibet* ‘zerria hiltzeko labana’, *gano* ‘desira, gogoa, joera’ — Erronkarin *ganu* —, *gardii* & *garde*, erdal ‘chardon / cardencha’, *garne* & *grane* ‘ganbara, sabaia, ganerra’, *gazna* — Erronkarin *gázta* —, *gea* ‘hegaziaren errota, hera, arandoia’, *geinhatü* ‘zaindu, artatu, jatera eman’ — OEH-k Amiküzen ere badakar *geñhatu*, baina guk oraino ez dugu entzun —, *geinü* 1) ‘janaria’, 2) ‘aurrezkiea’, *gima* ‘zaldiaren lepoko ileak’, *godeña* ‘irasagarra, menbrilloa’, *gohin* ‘sargoria’, *gorozüma* & *goroxima* & *goxiüma* ‘garizuma’ — Erronkarin *gorexima* —, *gorrinko* ‘gorringoa’, *gorrintxa* ‘*Amanita caesarea* izeneko perretxiko mota’

habia ‘kabia’, ³⁹⁴ *haigü* — behiak deitzeko errana, Lapurdi-Baxenabarreetako *haugi*-ren ordain —, *hainen* ‘hain’, *haitx* ‘haritza’, *hanitx* ‘anitz’, *harlasa* ‘harlauza, harlosa’, *harokaitz* & *arogaitz* ‘ekaitza, tenpesta’, (*h*)*azkü* ‘azkona, azkonarra’, *hekitii* ‘irakin’, *hemetzü* ‘hemeretzi’ ipar Zuberoan & *himetzü* hego Zuberoan, *herroka* ‘lerroa’ — bada Zuberoan hedadura handiagoko *herreka* ere —, *her(t)se* ‘hestea’ & *erxe*, *herausi* & *ehausi* ‘irausi, zeri emea ar eske egotea’, *hüllan* ‘hurran, hurbil’, *hunk* ‘hunki’ aditzoina, *hunkhoi* ‘ona denaren zalea’, *hurte* ‘uhastea, uholdea’, *hütxa* ‘arropa sartzeko kutxa’ — baita Bardoze eta Jutsin ere —

iga(r)en & *iga(r)an* ‘iragan’ — Erronkarin *igari* & *igaran* eta Zaraitzun *igari* & *igare* —, *igeixkatii* ‘igeri egin’ — Amiküzen *igerikaz* bildu dugu (Arbe) —, *ihauti* ‘ihauteria’, *ihize* ‘ehiza’, *ihulaz* (*e*) ‘nolabait ere’, *ilhorri xui* ‘elorri xuria’, *inbeia* ‘enbeia, gogoa’, *inkhatxeo* ‘ikazkina’, *inkhatz* ‘ikatza’, *ise(i)atii* ‘saiaitu’ & *ise(i)ü* ‘saioa’, *isuki* & *usuki* ‘hozka egin’, *ixker* ‘ezkerra’

390 *Karga bat mantetxetik eatsi nahi badük* (Urd); *ene semia bortütik eatsi dük* (Urd); ...*einatzen ginen, eta bereziki goizan eraistean, arratsen oherakoan, eta bidaje zonbaiten hastean* (Otsibar 2003: 22).

391 Zuberoan elearen barreneko *n* hori dakarte Arxu, Etxahun, Gèze edo Larrasketek.

392 Belapeirek *eder dakar* (1696 II: 13), baina egungo Zuberoan bezala, Erronkarin ere *exer* bildu da Izaban (Artola 1977: 92) eta Uztarrozen (Izagirre 1961: 394); erronkariarren txistukaria ahoskabea da.

393 Oztibarreko Jutsin ere bildu dugu *ezabeki*, baina dioskutenez lehenago erabiliagoa zen hitz hau.

394 Zuberoako aldaerak urrun du Bizkaiko *abi*, Baxenabarreko *kafi(a)* & *kafe* aldaerak inguratutik dago.

—Zuberoan bezala Amiküzen ere *exker* dago—, *ixkerret* ‘ezkertia’ —baita hedadura handiagoko *exkerret* ere—, *ixustin* ‘ezustean, ustekabean’, *itzailthakan* ‘zaldi jendea lurrean iraulka aritzea’ & *itzailtekan*

[3] *Jauzkatü* ‘gurdia edo, punpaka, balantzaka joatea’, *jei* ‘jaia’ —hurbi-lean Erronkariko *xei* du, urrunera Sakana erdialdean eta Bizkaiko Plentzian ageri da—, *johada* ‘joaldia, kolpea’

khaldü ‘ukaldia’, *kalk(h)atü* ‘galkatu, ingisatu’, *khandeallü* ‘kandelario eguna, ganderailu’, *khanto(r)e* ‘abestia’, *kharbe* ‘harpea, leizea’, *karkabillots* ‘karkaila, algara’, *kartiel* ‘herritik urrun den etxe multzoa’, *kaskabur* ‘kazkabarra, txingorra’, *kehella* & *kihilla* ‘xeila, ataka, langa’ —Pettarran *xehela*—, *khiisti* ‘kristaua’,³⁹⁵ *khobañ* ‘kofoina, erlauntza’, *kobesatü* ‘aitortu’, *koko-datsez* & *kokodatsez* ‘karakaz, kokorazka’, *komünianka* ‘jaunartzeko jaia’, *khorpitz* ‘gorputza’, *khoxü bat* ‘apur bat’, *khozatü* ‘kutsatu’ & *khözü* ‘kutsua’, *kukuxkan* ‘zeletan, barrandan’, *khümit* & *khümitü* ‘gonbidapena’, *khünte* ‘mota, espeziea’, *kürübillo* ‘inguruka eta indarrez dabilen haizea, zurrunbiloa’, *kurrunkaz* ‘zurrunka’, *khüütxe* ‘gurutzea’

lakhats ‘lakasta, (l)akaina, kaparra’, *lapĩ* & *llapĩ* & *llepei* ‘untxia’, *laxü* ‘laxo, solte’, *leira* ‘izotz xafla edo zarakarra’, *lexar* ‘lizarra’ —Lapurdiko ekialdean eta Baxenabarren *leizar*, baina Zaraitzu eta Aezkoan *lizar*—,³⁹⁶ *losa* ‘lapitzarria, lauza, pizarra’, *losko* ‘putzu txikia’, *lothü* ‘lo egin, lokartu’,³⁹⁷ *lozabi(ñ)a* & *lozebi(ñ)a* ‘liztorra’

mardots & *margots* ‘gaztaina morkotsa’, *margo* ‘xarboa, *Gobio gobio* arraina’, *marhüga* ‘masusta’, *maxela* ‘matela’, *milgor* ‘bilgorra’, *mintzaje* ‘hizkuntza, mintzamoldea’, *mithil* ‘mutila, morroia’, *mithi(r)i* ‘mutiri’, *moskoka(n)* ‘hegaziak mokoka edo pikoka jardutea’, *mothiko* ‘mutikoa’, *mühüllü* & *pühüllü* ‘mihilua, *Foeniculum vulgare* landarea’, *murté* & *morté* ‘morteroa’, *musa* ‘moltsa’

neskatxuna ‘neskatxa, neskatoa’, *noiztarik noiztara* & *nuixtaik nuixtaa* ‘noizean behin’

olha ‘etxola, txabola’, *ollaltegi* & *ollautegi* ‘oilategia’, *ooldi* & *ooldio* ‘goroldioa’, *opilatü* ‘korapilatu’, *ostikata* ‘ostikada’, *ozadar* ‘ortzadarra’

pallot erdal ‘omoplate / omoplato’, *phentekoste* & *phentakoste* & *phintakoste* ‘mendekoste’, *pikhulako* ‘haragitako gizendu den behia’, *pintu* & *pinto* ‘ardo neurri bat’, *pipiñi* ‘ttipittoa’, *pixastü* ‘maskuria’, *pot(t)jiko* ‘mutikoa’ —geografia-hedadura zabalagoa du Zuberoako testu guti batzuetan ere ageri den *putiko* aldaerak—, *profeitü* ‘probetxua’, *pühüllü* & *mühüllü* ‘mihilua, *Foeniculum vulgare* landarea’

395 Belapeirek *kristi* dakar eta Erronkarin *kristiā* erraten zen; Zaraitzun eta Aezkoan *kristio*.

396 Bonapartek Erronkari ibarrean *fresno* dakar, baina B. Estornés Lasak Izaban *ustugéi*; Azkuek Uztarrozen *uxtigai-atze*.

397 Erronkarin bezala; lo egiteko agindua *ló adi* da Izaban; Artolak *lotu* partizipioa dakar Uztarrozen Fidela Bernaten datuetan (2000: 509). Aezkoan kantu batean agertu da, baina egun ez da baliatzen.

sagükitze ‘intsusa, sa(b)uka’, *salhater* ‘salataria’, *sanka* ‘abereen kexua’, *sentotü* ‘sendatu’,³⁹⁸ *soliba* & *soliva* ‘teilatuko taulei eusten dien pieza’, *suhoi* ‘sukoi, su hartzen duena’, *sükhibel* & *sükhubel* ‘sugibealekoa, eguberrietan supazterrean ezarri ohi den egur puska handia’, *siiskandea* ‘sugandila’, *süsker* ‘muskerra’

tahalla ‘mahaiko oihala’, *taharna* ‘ostatua’, *tharta* ‘darte, sastraka’, *thipil* ‘soildurik, zuriturik, biluzirik’ & *thipiltü* 1) ‘zuritu, lumatu’, 2) ‘azaldu, esplikatu’, *thipiña* ‘tupina, burdinazko ontzi handia’

txainkhü ‘maingua’ — Amiküzeko Laphizketan *xainkhüz* agertu zaigu —, *txeste* & *txestatü* ‘dastatu’ — Amiküzeko Zohotan *jeste* eta Erronkarin *testatu* —, *txinkha* ‘txinparta, pindarra’, *txinker* & *txinkar* ‘eri txikerra’, (t)*xinkhor* ‘urdaia, xingarra’, *txitxa* ‘txita, txitoxa’,³⁹⁹ *txokhartü* ‘zerriaren azala erre’, *txortola* ‘tanta’, *txostaka* ‘dibertimendua’ & *txostatatü* ‘dibertitu’ & *txostatü* ‘jostatu’ — Erronkarin *tostatü* —, *txurdunpa* ‘higiturik, dislokaturik’, *txüti* ‘zutik’⁴⁰⁰

tzapastakaz ‘zurrupitaka, euria gogotik ari duenean’, *tzürribila* ‘euri jasa’

uano ‘oraino, oraindik’, *ühatx* & *ühaitz* ‘ibaia’ — Erronkarin *ugatx*, *eguatx* & *egatx* —, *ükhen* ‘ukan’ — Erronkarin *ekun* —, *ükhübil* & (ü)khümüllü ‘ukabila’,⁴⁰¹ *ükhül* ‘okila, (t)okiloa’, *ülhain* ‘unaia, bereziki udan bortuan’, *üñhürri* & *üñhürri* ‘inurria’ — baina Domintxainen *xindurria* dakar EHHA-k —, *urdanke(r)ia* ‘urdekeria, zerrikeria’, *ürrieta* ‘urria’,⁴⁰² *ürrixa* ‘urrixa, emea’, *urthail(a)* ‘urtarrila’, *urthuki* & *urthiki* ‘jaurtiki’, *ürsañ* & *ürxañ* ‘urtzintza, doministikua’, *ür(t)xa(i)ntx* ‘urtxintxa, katagorria’, *üskaa* ‘euskara’, *üsküñaso* & *esküñaso* ‘ipar-belea, eskinosoa’, *üstio* ‘guztia aprobetxaturik’, *usuki* & *isuki* ‘hozka egin, ausiki egin, ziztatu’, *üzkü* ‘ipurdia’

xariot ‘zama edo jendea eramateko, lau gurpilekoa, eman dezagun, zaldiari loturik’,⁴⁰³ *xoten* ‘zotina’, *xuinko* ‘arrautza xuringoa’

zalhe ‘laster’, *ze(r)entako* ‘zergatik’, *zibi* & *zügü* ‘zubia’, *zïpha* ‘hipa, negar zotina’,⁴⁰⁴ *zizaiñ* ‘izaina, xintximaria’,⁴⁰⁵ *zühaiñ* ‘zuhaitza’, *zünhar* ‘zumarra’, *züzüülü* ‘zizeilua’

398 Ipar-mendebaleko Berroeta eta Aruen *sendotü* entzun dugu. Erronkarin *sontotu* & *sentotu* ibiltzen zen.

399 Afrikaturik, baina Santa Grazi, Pagola eta Domintxainen *xitxa*. Urdirben *xita* & *xitxa* dakartza atlasak, baina guk *txitxa* bildu dugu bertako batengandik.

400 Larrasketek *txüt* eta *xüti* dakartza; Amiküzeko Ilharren ere *-k* gabe *xüti* aldaera bildu dugu, baina Larribarren *xutik*.

401 Larrainen *khübili* aldaera bildu dugu.

402 Domintxainen eta Pagolan *ürri* dakar EHHA-k.

403 Baxenabarren *karrosa* dena; guk *karro[s]a* bildu dugu (Sor / Pag); cf. *karrosa* (Arbo); *xariot* dakar EHHA-k Pagolan eta Oztibarreko Jutsin *xariot* & *karrosa*.

404 OEH-k Amikuzen ere badakar, baina guk ez dugu entzun; Zohotan *nigarrez* *hipaka* bildu dugu.

405 Nafarroa Garaian ere bada *zizaiñ*, baina Zuberoarekin hartu-eman geografikorik ez duten ibarretan. Zuberoako *zizaiñ* aldaera Baxenabarreko aldetik *itxain*-ek guztiz inguratzen du.

Nafarroa Behereko aldaerak ez bezalakoak dira Zuberoako hauek:

ardü ‘ardoa’ —Erronkarin *ardäu*—, *besta* ‘jaia’, *ebi* ‘euria’ edo *hama-zortzi*, zeinak Baxenabarren, *ano*, *phesta*, *huri* edo *hemezortzi* erraten baitira

7.3.5.5. Oztibarreko lexikoa

Atal honetan aurkezten ditugun datuak ez dira guk bilduak, edo gehienak ez bederen. Nagusiki bi iturri dituzte, Euskaltzaindiaren *EHHA* atlasa (1985-96) eta Xarles Videgainen doktoretza tesia (1989); funtsean Videgain bera da *EHHA* egitasmorako datu biltzen eskualdean jardun zuena, beraz, ia beti iturria Videgain bera da. Guk Oztibarreko Jutsin 2005ean eta Donaixti, Zibitze, Ibarrola eta Hoztan 2015ean bildu datu lexiko batzuk ere baliatuko ditugu, baina ez dira anitz eta hala denean adieraziko dugu, horregatik, dakartzagun datu kasik guztien iturria Videgain dela argi utzi nahi dugu, 1989ko haren doktoretza tesi bikaina eta *EHHA*ko emaitzak. Amiküzeko kasuan ez bezala, *EHHA*-ko datuak ez ditugu pean nabarmendurik aurkezten.

7.3.5.5.1. Grabitazio-indar lexikoak Oztibarren

7.3.5.5.1.1. Ez ditugu Oztibarren entzunen Lapurdin eta Baxenabarreko mendebalean baliatzen diren hitz zenbait; sorta honetan aurkezten ditugu:

arpan ‘trenkasega, trontza’

bildots ‘ardiaren ume sortuberria’ & *bilots*, *biri* ‘zerriaren birika’ & *birika*, *borda* ‘ardiena’

egurreile ‘basomutila’

gizen ‘koipea, urina’ (Aldude, Irisarri, Arnegi, Uharte, Armendaritze, Izturitze)

ihurzuri ‘trumoia, ostotsa, ortzantza’ (Baigorri) & *irurzuri* (Aldude)

madariondo ‘udareondua’ (Baigorri, Bidarra, Irisarri, Armendaritze, Bastida)

pareta (Aldude, Baigorri, Bidarra, Irisarri) & *paeta* (Uharte, Arnegi, Izturitze) —herriotan guztiotan bada *murru* ere—

so ‘zaldi jendeari gelditzeko errana’ —baita hego-Zuberoan ere—

zerrazahi ‘zerrautsa’, *zume* ‘mihimena’

7.3.5.5.1.2. Hona orain Lapurdin eta Baxenabarreko mendebalean baliatzen diren aldaerak, Oztibarren entzunen ez ditugunak:

arratsalde, arrotin (Baigorri, Irisarri)
moko 'hegaztiarena'
xinaurri 'inurria'
zureri(a) 'etxeko zurezko pieza guztien multzoa'

7.3.5.5.1.3. Lapurdikoak izan gabe edo herrialde horretan nagusitasun geografikorik eduki gabe ere, Baxenabarreko mendebalean ibiltzen diren aldaera zenbait daude, Oztibarren entzunen ez ditugunak; hona sorta bat:

bideite 'auzolana' —cf. *bideka* Baxenabarreko ekialdean eta Zuberoan—

kafira 'habia' (Bidarrai, Irisarri, Armendaritze eta Izturitzen)

mahuru 'marrubia' & *mahuri* & *mauli*

uztar 'asto edo zaldiaren ostikoa' —Izturitze, Irisarri, Bidarrai, Aldude; atlasak Ezterenzubin dakar ere; bada Zuberoan *üztarrostiko* ere (Eskiula, Altzürükü, Urdiñarbe, Sohüta)—

zapetadura 'hormaren gainean dagoen egur luze horizontala, teilatua-
 ren egurrezko egiturari eusteko' (Izturitze, Irisarri) —cf. *zapeta* (Baigorri, Arnegi, Ezterenzubi)—, *zizelu* 'zizeilua'

7.3.5.5.1.4. Baxenabarreko mendebalean baliatzen diren hitz batzuk Oztibarre ondoko landibartarrek ibiltzen dituzte. Usu ezker jotzen du Landibarrek, mendebalera, Arberoa aldeko hitzetara; Hazparneko berri ere badakargu; hona ele horietarik sorta bat:

alhaleku (Lan) —Hazparnen **alhabide*, **larre*—, *arbole* (Jut, Larz) & *arbule* (Lan) & *arbola* (Lan) —Hazparnen ere *arbola*; Euskal Herri gehieneko hitza da *arbole*, ez Arberoakoa bakarrik; bestalde, Larzabalen *zuraitz* dago ere—, *ateka* 'ataka, langa, xeila' (Lan) —Hazparnen *jela* eta *zerrailu*, baina galdera ikurra darama bigarrenak—

gako 'giltza' (Lan) —Hazparnen *gako*—

haizemalda 'geriza, haizearen babes' (Lan) —Hazparnen *malda*—

manta & *basamanta* 'menda, menta' (Lan) —Hazparnen *hostomanta*; cf. Jutsi eta Larzabaleko *pheldo*—

ondoxuri 'udaberriko ziza, *Tricholoma georgii*' (Lan) —Hazparnen *pentzetako ondoxuri*—, *orma* 'izotzaldi gaitza' —lekuko landibartarrak onetsi proposamena da; Hazparnen *hormabeltz*, **hormakarroñ*—

zubi ziri 'eskailera maila' (Lan) —Hazparnen *maila*, *martxa*—

Aipa litezke beste pare bat ele ere gure eskualdean, Baxenabarreko mendebalean ageri direnak:

pixuntzi ‘zerriaren maskuria’ (Jut); Hazparnen *pi[z]untzi*
sapa ‘bero zakarra, sargoria’ (Lan, Jut, Larz); Hazparnen *lur eosi*,
 **sapa*; egiazki hitz hau Baxenabarre erdigune eta hegoaldean, Nafarroan eta
 Lapurdin ibiltzen da

7.3.5.5.1.5. Landibarren bildu du atlasak mendebalera so jartzen gaituen
 beste aldaera sorta hau ere; arestian bezala Hazparneko berri ere badakargu:

amiamau ‘armiarma’ (Lan) —Hazparnen *amiemau*—, *arditei* ‘neguan
 ardiak gauez etxe inguruan gordetzeko lekua’ (Lan) —Hazparnen *borda*,
 **arditei*—, *argizari* ‘ilargia’ (Lan); *EAEL*-k Irisarrin eta Donamartirin dakar
 eta guk Armendaritzen entzun dugu; Behorlegin ere ageri da (*EHHA*);
 Hazparnen *ilargi*

biharamun (Lan) —mendebalekoa da *biharamun* aldaera Baxenaba-
 rren: Aldude, Arnegi, Bidarrai, Irisarri, Armendaritze eta Izturitzen dakar
 atlasak eta agerpen ekialdekoena Ezterenzubikoa da; cf. *bihamun* (Jut, Larz,
 Zib, Ibarro, Donaix); Hazparnen *bihamon*—, *biphi* ‘pipia, zerrena’ (Lan, Jut,
 Larz); Hazparnen *dermita*, *mita*, **bipia*

heaztei erdal ‘corbeau / alero’ (Lan); Lapurdi eta Baxenabarre mende-
 balean legez; Hazparnen *teilatuazpi*, **eaztei*

ihauteri (Lan) —Hazparnen *ihauteri*—, *ihiztari* ‘ehiztaria’ (Lan, Jut)
 —Hazparnen *iiztari*, cf. *ihizlari* (Jut, Larz)—, *ihiztor* ‘ehizako zakurra’ (Lan,
 Jut); cf. *ihizor* (Larz, Ibarro) eta Hazparnen *iiziko xakur*

joa! ‘behi eta idi geldiarazteko agindua’ (Lan); Jutsi eta Larzabalen
jwa! oihukatzen da, Hazparnen *ago!*

kadina ‘behia lotzeko gatea’ (Lan); cf. *khadiña* (Jut, Larz), Hazparnen
kadena

lantzurda & *lantxurda* ‘xirimiria, euri langarra’ (Lan); Hazparnen *lan-*
txurda, **eurizirtzir*

urtxo ‘usoa’ (Lan, Larz); Hazparnen *urzo*, **arruketa*; Hoztan *urtzo*
 entzun dugu

xito ‘txita, txittoa’ (Lan); Hazparnen ere *xito*, baina cf. *xita* (Jut, Larz)

7.3.5.5.1.6. Bestalde, ugari dira Nafarroa Behereko hegoaldean baliatzen
 diren hitzak, baina Oztibarren ageri ez zaizkigunak; hona horrelako eleen sorta
 ugari hau:

abere ‘zaldi kudea, zaldi jendea’ Baigorri eta Garazi aldean & *abre*
 Alduden —izan ere, Oztibarren ez da adiera horretan baliatzen; hona Vide-
 gainen tesiak Izuran bildua (1989): *aberia behi-klasa uzu*, le bovin; Ibarrolan
 ere “*abere bat*” *behiendako* dio lekukoak—, (*adar*)*xixto* ‘aberearen adar
 zuzenak, bihurtune gutikoak, gorak’, *a(h)ari* ‘ardiak ernalarazteko baliatzen

den ar osoa' —Baxenabarre gehienez *marro* izendatzen da eta zikiratuari *ahari* erraten zaio, Zuberoan bezala —, *aketz* 'ume egiteko gai den zerri arra', *alki* 'ardi jezteko jarlekua' —erabilera hedatua du Lapurdin eta Hego Euskal Herrian —, *apotzale* 'zapaburua' (Baigorri) & *apotxali* (Aldude) & *apozaal* (Luzaide) — cf. *apozauli* Nafarroa Garaiko Erratzun —, *aska* 'abereek jateko aska edo ganbela', *astopulo* & *astopullo* 'astakumea' —Bidarra, Irisarri, Garazi barne —, *arkhuntze* & *aurkintze* 'abere emeen natura, alua', *at(h)e* 'atea, borta', *axal* & *azal* 'kailua, zerriaren azala', *azazkal* 'behiaren apatxak, aztaparrak'

behite(g)i 'ukuilua, korta', *bilarrozi* & *bil(h)arroxi* 'urrixa gaztea, oraino biga/miga ez dena', *busuntsa* 'makala, *Populus nigra*'

erroitx 'amildegia' & *erroitxu* 'amildu' (Arnegi, Baigorri, Bidarra) & *erroitzi* (Aldude), *esti* 'behi eta idiak gibelera joanarazteko' —Aldude, Luzaide eta Behorlegin baizik ez, bestela *arre* orokorra dago Baxenabarre hegoaldean ere —, *eurieskale* 'okiloa' (Luzaide, Ezterenzubi), *ezkerraihen* 'lurruntza, aihena, *Convulvulus arvensis* landarea'

filet(a) 'solomoa' —Landibarre barne —

gatina 'alanbrea', *gaur* 'egun'

haizeitzalgune 'haizearen babesean' —ipar Lapurdiko Bardoze eta Urketan ere (*haizitzal* dago —, *hauk* behiak deitzean *haugi*-rekin batean errana (Behorlegi, Ezterenzubi, Uharte)

iphurdiko ertze 'ipurtatea, ondestea' (Ezterenzubi, Behorlegi), *izterkakotz* 'aberearen iztazaina, esekitokia, esekilekua'

kotera 'teilatuko ura jaisten den hodia', *kozkotari* 'okila' (Aldude, Baigorri, Ezterenzubi, Luzaide), *kuku* 'txorimaloa', Beskoitzen, Hazparnen eta Garazin; Phagolan *kiiki*

langar 'xirimiria, lanbroa' (Aldude, Luzaide) & *lankar* (Baigorri, Bidarra), *larraotte* 'matxinsaltoa', *lore*

malda 'aldapa', *muga(h)arri* 'mugarria'

oi(h)artzun 'oihartzuna', Lapurdin ere bai

pikotatu 'mokoaz arrautza hausten hastea' (Baigorri, Behorlegi) & *pikokatu* (Ezterenzubi), *puda* 'adar mozteko tresna' (Aldude, Arnegi) & *poda* (Ezterenzubi) & *pedoi* (Baigorri), *puthargi* 'ipurtargia' (Ezterenzubi) & *puttargi* (Arnegi, Luzaide), *pitrail* 'etxearen murre batetik besteraino doan zurezko pieza horizontala' (Irisarri, Arnegi, Luzaide, Behorlegi), *pottoko* & *pottoka* 'moxala, xamaria' (Luzaiden eta Baigorrialdean)

sai 'putrea' —Baigorri eta Bidarrain; Behorlegi eta Uhartan proposamen onetsia da —, *sarnafera* 'Donibane gaueko sua', *soinki* 'solomoa' (Aldude, Baigorri) & *xoinki* (Uharte)

tripotertze 'ipurtatea, ondestea' —Irisarri eta Luzaide artean bildu da —, *trunko* 'arbola jaurtikiaren enborra, osorik edo mozturik'

xerri & *zerri* ‘zerria’ —Baxenabarreko goiko ibarretan *urde* ibiltzen da—, *xerri iltze* ‘zerri hiltzea’, *xerri kutin* ‘txerrikumea’ —Garazi eta Baigorrialdeaz landa, Irisarri eta Armendaritzen ere ibiltzen da—, *xerrite(g)i* ‘txerriregia’, *xixa* ‘ziza horia, *Cantharelus cibarius*’, *xutikako* ‘etxegintzan gailurrari eusteko pean ezartzen den goitik beherako egurrezko pieza’ (Arnegi, Luzaide) & *zutikako* (Aldude); Baigorriin *puntzuin*, Bidarrain *pontzoin*

zaldiko ‘moxala, xamaria’ (Baigorrialdean), (*abar*) *zama* ‘adar sorta’, *zelai* ‘ordokia, lautada’, *zerradura* ‘hesia, itxitura’, *zerriazpi* ‘urdaiazpikoa’, *zezenko*, *zikiro* ‘ahari irendua’, *zingarrazpi* ‘urdaiazpikoa’, *zirurika* ‘haize zurrumbiloa’ (Aldude, Uharte); oroit *tirurite* ere badela Garazin eta Landibarren *tiuite*

7.3.5.5.1.7. Hona Nafarroa Behereko hegoaldean baliatzen diren aldaera sorta bat, Oztibarren ageri ez zaizkigunak:

andereoratz erdal ‘libellule / libélula’ (Ezterenzubi, Uharte) —cf. *orratzile* (Jut, Larz) & *orratz* (Jut)—, *arratoin* (Aldude, Luzaide), *artzar* ‘zaharregiz hiltzeko den ardia’ (Aldude, Baigorri, Ezterenzubi), *astokume* (Garazin nahiz Baigorriin)

ba(b)azizkor ‘kazkabarra, txingorra’

errebesta ‘jai errepikatua’ & *errepesta* —Oztibarren *arra-* aurrizkia dago hitz honetan—, *estreka* ‘bide hertsia, estarta, inta’

gatin(a) ‘behia lotzeko katea’, *goorapen* ‘ilgora’

(*h*)*erze* ‘hesteak’ (Bidarra, Aldude, Uharte, Gamarte)

ihaurgi ‘inaurkina, abereen azpigarria ukuiluan’, *ik(h)aztoi* ‘txondorra’ (Bidarra, Aldude, Baigorri, Arnegi) & *ikaztei* (Gamarte, Luzaide), *itxaloska* ‘zaldi jendea lurrean iraulka aritzea’ (Luzaide) & *itzaloska* (Baigorri) & *itzoroska* (Bidarra)

karakol, *korle* ‘ardiak jezteko itxitura’ (Aldude, Arnegi, Luzaide), *kormots* & *kormuts* & *mokots* ‘gaztainaren morkotsa, oskola’

leiztor (Arnegi, Bidarra) & *leztor* (Luzaide); ezagun du Hegoaldearen hurbiltasuna; cf. *liztor* Alduden

oraino ‘oraindik’

panego ‘hegabera, azpixuria’ —gainerateko Baxenabarren *paneo* & *paneu*, baina Irisarri, Izturitze eta Lapurdiko Makean -g- du—, *pettitterrege* ‘txepetxa’, *pualleria* & *puaileria* ‘hegaztiak’; baita Jutsin ere, baina Landi-barre-Larzabalen *pualla*

subebandi(l) ‘sugandila’ & *subeingir* & *suangila* —Baxenabarre mendebalean ere eredu iduria aldaera gehiagorekin—, *sugebiper(a)* ‘sugegorria’; mendebalerat, Lapurdin bezala, *subebiper* Bidarrain

7.3.5.5.2. Oztibarreko lexikoaren nortasun apala

7.3.5.5.2.1. Nabarmena da Nafarroa Beherearen erdigunean kokaturik dagoen Oztibarrek geografia-hedadura desberdineko atal lexikoak izan behar dituela.

Oztibarre bezalako eskualdeek hizkuntza-bitartekaritza lana egin ohi dute eta mintzoen arteko trantsizioa laguntzen eta aldeztzen. Baxenabarreko joera nagusian arras murgildurik dago Oztibarre, izan ere, Baxenabarren nagusi diren hautu lexiko eta aldaera fonikoei dagokienez, frankotan jotzen du Oztibarrek herrialdeko hautu nagusienaren alde. Baxenabarrearen komunikazio saiheks geografikoetan kokatzen diren Baigorri-Ortzaize eta Amiküze eskualdeek ez bezala, erdigune geografiko nagusia osatzen duten Arberoa, Oztibarre eta Garazi ibarrak dira kasurik gehienetan Baxenabarreko erdigune lexikoa. Baxenabarren nagusi diren hitz eta aldaeren erabiltzaile dira oztibartarrak.

Euskal Herri guztian ezagunak dira Baxenabarren orokorrak diren hitz batzuk; eman dezagun: *arthalde*, *ateri* ‘zerua garbi’, *bururatu* ‘bukatu’ (Ibarro), *goizalde*, *ideki* ‘ireki’, *kurrinka* ‘zerriaren hotsa’, *lepho* ‘mendi gorak iragateko alderdia’, *naski* ‘nik uste’, *orro* ‘behiak egiten duen hotsa, marrua’..., baina guk hona Baxenabarreko espezifikokoak direnak aurkeztuko ditugu, gehienak *EHHA* atlasak Oztibarren XX. mendearen bukaeran bildu zituenak. Nolanahi ere den, ez bedi uler Baxenabarreko hitz eskusiboak direnik, Baxenabarren orokorrak eta Oztibarren ibiltzen direnak baizik: batzuek besteek baino hedadura handiagoa dute, batzuk Nafarroa Garaian ere baliatzen direnetarik dira, beste batzuk Ipar Euskal Herrian baizik ageri ez direnak, eta beste batzuk funtsean Baxenabarren baliatzen direnak.

7.3.5.5.2.2. Ikus ditzagun Baxenabarreko hitz orokor batzuk Oztibarren ibiltzen direnak:

adarburu ‘adabegia’ (Lan, Larz), *aharra* ‘errieta’ (Ibarro), *aihotz* ‘adar mozteko tresna’, *airegaixto* ‘tximista’, *aizina* ‘astia’, *alta* — aurkakotasun partikula — (Larz), *andana* ‘pila’ (Hoz), *ardura* ‘usu’ (Hoz), *argia gabe* ‘goiz-goizean, argitu aitzinean’ (Larz), *argia hil* ‘argia itzali’, *arrano* ‘putrea’, *arrapus(a)* ‘altsuma, ernamuina, muskila’ (Lan, Larz), *arre* ‘astoari eta zaldiari gibelerat joateko errana’ (Lan) & *arreka*⁴⁰⁶ (Larz) & *arri* (Jut), *arroltzen gainien (egon)* ‘txitatzen, arrautzen berotzen’ (Jut, Larz), *arteki* ‘hirugiharra, zerriaren sabelaldeko urdaia’, *asteundar* ‘aste-bukaera’ (Jut, Larz) & *asteondar* (Lan), *atzar* ‘zaharregi den eta hiltzeko den ardia’ (Hoz), *azpi* ‘urdaiazpikoa’

406 Erantzun honi galdera ikurra ezarri zaio *EHHA* atlaslean.

baitezpada ‘nahi eta nahi ez’ (Ibarro), *barreatu* (1) ‘hedatu’, *barreatu* (2) ‘eraitsi’, *beha egon* ‘zain egon’ (Jut, Larz), *beitarte* ‘aurpegia’ (Jut), *bera* ‘bera bakarrik’ (Ibarro), *billun* ‘arbola jaurtikiaren enborra, osorik edo mozturik’ (Jut, Larz) & *bilun* (Lan), *bixkarteila* ‘teilatua gailur edo bizkarreko teila’, *biziki* ‘anitz, ausarki’, *bort(h)a* ‘atea’ (Lan, Jut, Larz), *bortha aintzin* ‘etxeke kanpoko ate ingurua’ (Jut, Larz), *botoin* ‘arbolaren kimua, puja, amua, begia, botoina’ (Jut), *bulta* ‘unea’ (Zib), *burtxoro* ‘buruan sartu har batek ardiari eragin zorabio patologikoa’

elhakan ‘hizketan, berbetan’ (Larz), *elhurluma* ‘elur maluta’, *eme-ki-eme-ki*, *e(r)asia* ‘marmarra’ (Lan), *ernatu* ‘norbaiti zerbaitetan laster hasteko errana’, *erreak* erdal ‘ravin / barranco’, *errobakar* ‘ardiak titi bat galdurik izatea’ (Jut), *espaldatu* ‘abereetan hezurra bere lekutik ateratzea’, *estalaazi* ‘zezenak behia ernaltzeko egiten duena’ (Lan, Larz) & *estelaazi* (Jut) —Zuberoan, Baxenabarre guztian eta Lapurdi ekialdean baliatua—, *etzen* ‘miztoa, ziztatzeke intsektuak duen orratza’

fite ‘laster’, *flakoin* ‘belatza, zapelatza’, erdal ‘faucon pèlerin / halcón’ (Jut, Larz) & *flakoñ* (Lan)

galeria ‘balkoia’ (Larz) & *galeru* (Lan), baina Jutsin *balkon*, Urdiñar-beko *balkoia* & *balkuña* gogorarazten diguna; Garazin berragertzen zaigu *balkoin*: Behorlegin, Arnegin eta Luzaiden

hagun ‘lerdea’ (Lan, Larz), *hantu* ‘hausnartzen ari den abere baten sabelean bazkak ezbeharrez eragiten duen hanpadura’, *harroka* ‘arkaitza, haitza’ —Gipuzkoan *arroka*, baina *OEH*-k ez dakar Bizkaian edo Nafarroan—, *haugi* —behiak deitzeko errana—, *hedatu* ‘barreiatu’

ibiakoitz ‘larunbata’ (Jut, Larz),⁴⁰⁷ *ihizi* ‘txoria’ (Lan, Jut) & *ihize* (Larz), *ildaxori* ‘buztanikara, *Motacilla alba* txoria’ (Jut, Larz), *ilhurtu* ‘abere amak erditzean umea galdu’, *iraka* erdal ‘ivraie / cizaña’ (Lan) & *hiraka* (Jut, Larz)

kafar ‘labezomorroa’ (Lan), *kallu* ‘urdearen azala’ (Jut, Larz) & *kailu* (Lan), *kardinale* ‘karnaba’, *karrera* ‘etxegintzan goi-haga, astazaldi edo astoen gainean ezartzen diren pieza horizontalak’ (Jut, Larz), *korrale* (1) ‘etxe aitzina, oiloak ibiltzen direna, hogeit bat metro arte edo’ (Larz) —baita Amiküzeko Garrüzan eta Garazin ere; cf. *korle* (Aldude, Uharte, Luzaide)—, *korrale* (2) ‘ardiak jezteko itxitura’ (Lan, Larz) & *korrole* (Jut), *khotsta* ‘pixka bat’ (Ibarro, Hoz)

lakio ‘txori harrapatzeke’ (Lan, Jut), *leher in* & *lehertu* ‘etxea zaharrez erori’, *lili* ‘lorea’ (Lan, Jut, Larz), *lukinka hertze* ‘heste meharra’ (Jut), Lapurdiko ekialdean, Baxenabarren eta Zuberoan bezala

mamu ‘txorimaloa’ —baina Garazin *kuku*—, *mantzut* ‘zer, badantzut, nola?’ & *mantxut* (Lan), *marluz(a)* ‘bakailoa’, *marro* ‘ardiak ernalarazteko baliatzen den ar osoa’, *mehar* (Ibarro) —gizon batez aritzean, adibidez—

407 *EHHA*-k dakar datuetan, baina atlaseko erantzunean *ijakoitz*.

mentu(r)az 'beharbada' (Jut, Zib, Ibarro), *mihise* 'maindirea', *mitxa* 'poxpola', *murruzori* 'txolarrea, *Passer domesticus*', *musa* 'goroldioa' (Lan)

ñaphur 'auzoan edo behar ez den lekuan sartzeko joera duen aberea'

ondoko 'karena, umetokia' (Lan), *orga* 'gurdia' (Larz), *orre* 'ipuruia', *ostiko* 'etxe baten horma ahulduz doalarik ezartzen zaion egur edo harrizko euskarria' (Lan)

p(h)antzoi 'aberearen urdaila, estomaka' (Jut, Larz), *pat(h)ar* 'aldapa', *patxuer* 'bizpahiru baserrik banatu gabe duten lur saila' (Jut, Larz) & *pazuer* (Lan), *peitu* 'eskastu' —*etzu gizentzen ez jeus e, bethi peituz joaiten tzu* (Videgain 1989)— (Hoz), *pikader* 'egur xehatzeko enbor zatia, tronkoa, trangadera, orkheia' (Jut) & *pik(h)adar* (Lan, Larz), *p(h)ikoko* 'harakindegirako gizendu behia', *piru* 'ahatearen edo antzararen umea', *pittika* 'antxumea', *pitrail* 'etxearen zurezko habeen saila', *poxi bat* 'pixka bat, zati bat' (Lan) & *puxi bat* (Donaix), *primadera* 'udaberria', *pulinda* 'indioiloa, indioilar emea', *phulo* 'alorrean edo landan meta txikietan eratzen diren ongarrri edo simaur multzoak' (Larz) & *pulho* (Jut), Landibarren *meta*

sarro 'sagarroia, trikua' (Lan, Jut), *saltsatu* 'urean txipli-txapla edo plisti-plasta ibiltzea', *sega* 'zerra' (Lan, Jut, Larz), *sugeitsu* 'zirauna, sugemutua', *sup(h)izteko* 'poxpola'

tenore, tenpesta 'ekaitza' (Lan, Larz), *titimutu* 'ardiak titi bat galdurik' (Larz) & *mutu* (Lan, Larz), *tripot* 'odolkia', *tropa* —ardi saila, artaldea— (Lan, Larz)

ukan 'eduki' (Jut), *urhaste* 'uholdea' (Lan) & *uhaiste* (Jut) & *huraste* (Larz), *urin* 'koipea', *urineko* 'urin edo koipean gordetako haragi zatia', *urpasaia* 'erreka edo ibaia iragateko ur mehea' (Larz) & *pasai* (Jut)

xamari 'moxala, xaldikoa', *xart(h)u* 'abereen txertoa' (Lan, Jut) & *xerthu* (Larz), *xedera* 'txori harrapatzeko' (Jut, Larz), *xingar* 'urdaia' (Lan, Jut, Larz)

zalthuts 'zelarik gabe zamalkatzea' (Jut), *zedarri* 'mugarria' (Lan, Larz) & *zedarre* (Jut)

7.3.5.5.2.3. Baxenabarreko aldaera orokorrak aurkezten ditugu orain, Ozti-
barren ibiltzen direnak:

aastiri 'ilunabarra' (Jut) & *astiri* (Larz, Donaix) & *atsiri* (Larz) & *asteri* (Lan) —baina Bourciezek *astiri*—, *abar* 'arbola-adarra' (Lan, Jut) —cf. *adar* (Larz)—, *abendo* 'abendua', *andredonamaria* 'Ama Birjina' (Lan) & *andredenamaria* (Larz) —Jutsin *andramaria*—, *ano* 'ardoa', *arai*z 'dirudienez' (Donaix), *atherbe* 'aterpea' (Jut)

ba 'bai', *behala* 'berehala' (Lan, Larz), *bertz* 'eltzea' (Lan, Izu, Jut, Ibarro), *biga* 'bi' —ondoan izenik ez duenean—, *bilgor* erdal 'suif / sebo'

(Lan, Jut, Larz), *bipher* ‘piperra’ (Jut, Larz) & *biper* (Lan), *biri-biri* ‘antzarak deitzeko edo biltzeko hotsa’ (Lan, Larz)

duphiña ‘marmita, burdinazko eltzea’ (Larz) & *dupina* (Lan)

elder ‘lerdea’ (Lan) & *eldar* (Jut), *elgar* ‘elkar’ (Jut), *errekitu* ‘errekaitua, hornidura, jatekoa edo’ (Lan), *igan* ‘igo’ (Lan)

frango ‘franko’ (Izu, Jut, Larz, Bun, Ibarro, Hoz)

ganit ‘zerri hiltzeko labana’ (Larz), *gaphirio* ‘teilatuko bizkarzuretik saihetsera, hormara doazen haga lodiak’ (Jut) —Larزابalen *kaphirio* eta Landibarren *solido*—, *gielerrai* ‘zerriaren birika’ (Lan, Larz)

haize ego ‘hego-haizea’ (Lan, Larz), *hamoost* ‘hamabost’ (Ibarro), *harpe* erdal ‘grotte / gruta’ (Lan, Jut) —baita ‘caverne / cueva’ adieran ere (Jut, Larz)—, *hausko* ‘hauspoa’ (Lan, Jut, Larz), *hwé* ‘zerria uxatzeko hotsa’ (Larz) & *hūe* (Jut) & *huue* (Lan), *hurran* ‘hurbil’ (Ibarro), *huxu* ‘oiloak uxatzeko oihua’ (Lan, Larz) & *hux* (Jut)

intzun ‘entzun’ (Jut, Larz, Hoz), *iñhara* ‘enara’ (Lan), *ithaxur* ‘itogina’ (Jut, Larz) & **itaxur* (Lan), *itxain* ‘izaina, xintximaria’ (Lan, Jut) & *itxañ* (Larz), *ixkiatu* ‘idatzi’ (Ibarro), *izpiritu* (Ibarro)

jaunbiro ‘zerriaren mondongoa, jaungoikoa’ (Lan) & *jaunbilo* (Larz), *jeutsi* ‘jaitsi’ (Jut, Larz) & *jautsi* (Lan), *jinko* ‘jainkoa’

kakamarlo ‘kakalardoa’ (Lan, Larz) —Baxenabarre iparraldean, Jutsin eta Zuberoan *basajaun*—, *kattalingorri* ‘amona mantangorria, marigorringoa’ (Lan, Jut, Larz), *(ollo) ko(h)oka* ‘loka’ (Lan, Jut, Larz), *korropilo* & *koopilo* ‘korapiloa’ (Lan), *kukulusta* ‘gandorra’ (Jut) & *kukulosta* (Larz) & *kukulasta* (Lan)

lanho ‘hodeia’ (Jut), *leizar* ‘lizarra’ (Lan, Jut, Larz), *leize* erdal ‘gouffre / sima’ (Lan, Jut, Larz) —baita *osin* ere (Larz)—, *leizor* ‘liztorra, *Vespa crabo*’ (Lan, Jut, Larz), *lukhinka* ‘lukainka’ (Jut, Larz), Landibarren *lokinka*; Baxenabarren erabiltzen den bazter gehienetakoa eta Lapurdi ipar-ekialdekoa da monoptongazio berria: aldiz, Aldude, Baigorri, Ezterenzubi edo Zuberoan osoagoko *luk(h)ainka* edo *lūkhainka* aldaeran dirau; ohi bezala, Domin txaine Baxenabarrerekin doa *lukhinka*-n eta Pagolak ohiko konpromisoa du: *lūkhinka* & *lūkhainka*

miga ‘umea egin arteko behi gaztea’ (Lan, Jut, Larz), *mizpir(a)ondo* (Lan, Jut, Larz) —baita baita *mizpiratze* ere (Larz)—, *muku* ‘mukia’ (Ibarro)

ok(h)ilo ‘okila, *Picus viridis* txoria’ (Lan, Jut, Larz), *oseba* ‘osaba’ (Larz)

pixastre ‘zerriaren maskuria’ (Larz) & *pixixtre* (Lan), Jutsin *pixuntzi*, Lapurdin bezala

sauka ‘intsusa’ (Jut, Larz) —baita *saoka* ere (Larz)—, *solido* ‘teilatuko taulei eusten dien zurezko pieza’ (Lan, Jut, Larz)

ttipi (Ibarro), *tturri* ‘zerria deitzeko hotsa’ (Lan, Larz); *tturrin* ere arras ibilia da Baxenabarren

urtzo ‘usoa’ (Hoz), *uzkinaso* ‘ipar-belea, eskinosoa, *Garrulus glandarius* txoria’ (Larz) & *uzkiñaso* (Jut) & *uzkinazo* (Lan)

xara ‘(t)xaraka’ (Lan, Larz) & *sara* (Jut), *xarbo* ‘goujon / boga’ edo *Gobio gobio* arraina (Lan, Jut, Larz) —baita *zarbo* ere (Larz)—, *xehela* ‘ataka, langa’ (Lan, Jut) & *xehella* (Jut, Larz, Ibarro), *xekha* ‘xerka, bila’ (Zib), *xikitatu* ‘zikiratu, irendu’ (Lan, Jut, Larz)⁴⁰⁸ & *xikitero* ‘zikiratzailea’ (Lan, Jut, Larz), *ximixta* erdal ‘éclair / relámpago’ (Lan, Larz) & *ximist* (Jut),⁴⁰⁹ *xinhurri* ‘inurria’ (Jut) & *xiñurri* (Lan) & *xingurri* (Larz)

zal(h)u ‘laster, arin’ (Lan, Jut, Larz, Zib, Ibarro, Donaix),⁴¹⁰ *zezengei* ‘zezen izateko gordetzen den ar gaztea’ (Lan, Jut, Larz), *zizari* ‘zizarea’ (Lan, Jut, Larz) —baita *xixari* ere (Jut)—, *zuhar* ‘zumarra’ (Jut, Larz), *zurt(h)ate* ‘etxeko zurezko pieza guztien multzoa’ (Lan, Larz)

7.3.5.5.3. Baxenabarre erdiguneko lexikoa Oztibarren

Hainbat hitz eta aldaera Nafarroa Behereko erdialdean ageri dira, kasu batzuetan beste batzuetan baino herri sare trinkoagoan, baina ez dira ageri ez hegoaldean ezta iparrean ere, Oztibarren, Hego-Amiküzeko herrietan edo Garaziko iparraldean baizik; geografia-hedadura mota aski indefinitua eta aleatorioa da hau, muga malgu edo kulunkariak dituena:

7.3.5.5.3.1. Hitzak

Baxenabarreko erdialdean nagusitu diren ele batzuk dakartzagu, herrialdearen iparrean edo hegoan itxaron beharko ez genituzkeenak:

arrolla ‘gurdiaren gurpilak lurtean utzi hatza’ (Lan), *atheka* ‘hesia gaitetik iragateko zurezko sistema’ (Jut, Larz)

(*h*)*erbaia* ‘abereen bazkagatik ordaintzen den saria’ (Jut, Larz) — Gamarten ere bai; Zuberoan *bakada* darabilte eta Baxenabarre gehiengan legez, Landibarren *bazkasari* —, *hutsal* ‘leku ospela, laiotza’ (Lan, Jut, Larz)

koskatu (1) ‘hegaztiak arrautzaren azala hautsi eta kanporatzea’ — Zuberoan legez *koskaka* (Lan) eta *koskatu* (Larz) ageri dira, baina Jutsin *jali* edo *atera*; Garaziko Gamarten eta Izturitzen ere *koxkatu* —, *koxkatu* (2) ‘gaz-

408 Landibarren *xigitatu* eta ondoko hitz *xigitero* ageri dira ere (EHHA).

409 Amiküzeko Laphizketan tximistak eragin txinpartaren adieran entzun dugu: *hemen ohit niz eta, e, herri sargian, e, ximixteikilan eta süia phiztiük izanik eta*.

410 Jutsin *zalhe* dakar Videgainen corpusak (1989: 1203): *beroa bitzen eta zalhe*, baina adiera ez da argi; Oztibarren *zalhu* baizik ez dugu bildu, *zalhe*-z galdeginik lekuko guztiek ezezkoa eman digute, berena *zalhu* dela.

tainaren azalean ebakia egitea' (Jut, Larz); aldaera hau proposamen onetsia da Garaziko Ezterenzubin; Zuberoan bezala Garazin *oxka*, *oxke* edo *oxkatu* ibiltzen dira; bestalde, zuberotarrenak dira *sakho* edo *pikho* eleak ere

ño 'ardiak deitzeko oihua'; Oztibarren, Baxenabarre erdialdean, Bidarrain, Garaziko Gamarten edo Lapurdiko Makean ibiltzen da; Zuberoan Pagola eta Altzürükün; bestelako Zuberoan eta Garazi ekialdean nagusi da *prrr*; Garazi mendebalean, Baigorrialdean eta Amiküzen agintezko *xauri* aditza ageri da

ortzantz 'tximista' (Lan, Larz) —Gamarten eta Irisarrin legez; Lapurdiko ekialdean *ortzi* ibiltzen da eta Zuberoan *dünda*, baina xiberotarrenak dira *iñhazi*, *ühülgi* edo *ximixta* ere; ostots edo trumoiaren adiera ere badu *ortzantz* eleak Baxenabarreko erdi-hegoaldean, Garritze, Irisarri, Uharte, Luzaide lerroan, Landibarre eta Oztibarreko Jutsi eta Larzabale barne; *ortzi* ere ibiltzen da Larzabalen 'trumoa, ostotsa' adierazteko —, *otalako* 'abereen aska edo gabela' (Lan)

papho 'zaldiaren bularraldea' (Larz); Armendaritze, Bidarra, Garaziko Uharte eta Zuberoa mugako Domintxaine eta Urdiñarbekin partekatua; Jutsin *khorpa* & *bulhar* eta Landibarren *bular* ibiltzen dira; Zuberoan nagusi da *bulhar*, baina bada *bülhar* ere; Hazparnealdean, Arberoan eta Garazin ere *bul(h)ar* nagusi da

7.3.5.5.3.2. Aldaerak

Baxenabarreko erdialdean nagusitu diren aldaera batzuk dakartzagu, herrialdearen iparrean edo hegoan itxaron beharko ez genituzkeenak:

añddier 'satanderea, erbinudea' (Lan) & *anddiar* (Jut) & *anddeear* (Larz) —Amiküzen *añiñer* dago eta Baxenabarre hegoaldean *andderiar*, *anddi(b)ar* edo *anddereder* aldaerak; Landibarreko *añddier*-ek kide du ondoko Garazin Gamarteko *andjier* —, *arrutze* 'arrautza' (Lan); cf. *arroltze* (Jut, Larz)

barekaakoil 'barraskiloa' (Jut, Larz) & *barekarakol* (Lan); Zuberoan, Amiküzen eta Bardozen *kakoil* & *kakoill* dena eta Garazin *ka(r)akol*, Aldude barne; aldiz, Baigori-Bidarraietan *barekorkoil*

harrulu 'arrobia, harrulia' (Jut, Larz); Izturitzen ere *arrulu*; Zuberoan *erlui* dago eta Garazi eta Baigorrialdean (*h*)*arruli*, Lapurdin bezala

jwa! 'behi edo idiak geldiarazteko agindua' (Jut, Larz) & *joa!* (Lan); Izturitze, Armendaritze, Gamarte eta Pagolan ageri da *jwa!*; hegoaldeko salbuespena da Garaziko Ezterenzubiko *jwa!*; Zuberoan *xüa!* & [*ʒjüa!*] baliatzen da

krako 'hil ondoren urdea dilindatzeko' (Lan)

lurhuntz ‘huntza’ (Lan); Ibarrolan gehiago ibiltzen da *luhuntz huntzosto* baino; cf. Baxenabarre eta Lapurdiko *huntzosto* (Jut, Larz); erdiguneko Baxenabarren *luuntz* aldaera dago Irisarri, Armendaritze eta Garrüzen; Zuberoan kide dute *lii(r)hiuntz* (Pagola, Altzürükü); kiderik gabe ondoko herrietan (*h*)*untzosto* duela, hegoalderago Arnegin ere *luuntz* dakar atlasak

oono ‘oraino, oraindik’ (Lan, Larz) —Jutsin *oraino*, *oino* eta *ono*; Oztibarre eta Garaziko aldaera nagusi *oono*-ren ezkerrean *oraino* ageri da Aldude, Baigorri, Bidarra, Irisarri eta Lapurdin; aldiz, zuberotarrek nagusiki *uano* egiten dute —, *orrazile* erdal ‘libellule / libélula’ (Jut, Larz)

7.3.5.5.4. Oztibarre Baxenabarreko erdigune-hegoalderat pibotatzen

Baxenabarre guztikoak ez diren hitz eta aldaeren artean, hau da, Baxenabarrearen barrenean eskualde bateko kolore berezia dutenak bilatuz gero, erdigunea eta hegoaldea batzen dutenek sorta ederra eratzen dute. Erdigune eta hegoaldeko sorta lexiko hazi honen partaide ageri zaigu usu Oztibarreko euskaldunen mintzoa. Etsenplu ugariren bidez erakuts daiteke:

7.3.5.5.4.1. Hitzak

Oztibarre ingurukoak eta Garazi alderdiko hitzak dira honakoak; inoiz, baita Baigorri alderdikoak ere:

aarzabal ‘abere adarزابالا’ (Lan), *amula* ‘otsaporrua, anbuloa, *Galanthus nivalis*’ (Larz) —Irisarrin legez; Garazin *anbula*, Alduden *anbulo*, Bidarra-Baigorri *amulo*, Lapurdin *anbulo* & *anbulu*; Landibarren *basatipula* —, *asti* ‘beta, aizina’ (Jut) —Larزابalen galdera ikurra dakar atlaslean —, *atheka* ‘mendi-lepoa’ (Larz) —Garazin Gamarten eta hegoalderago Ezterenzubin ageri da; Baigorri galdera ikurra darama; Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko bazterretan *lep(h)o* nagusi da; Amiküzen *arteka* ibiltzen da —, *azpixon* ‘azpizuna’ (Lan, Jut, Larz); hedadura du: Baxenabarreko erdialde, Garazi eta Baigorrialdean nahiz Lapurdi eta Nafarroa Garaian ibiltzen da

barratt ‘abere potrobakarra’ (Jut, Larz) & **berretta* (Lan), *basaarrosa* ‘otsolaharra, astoarroa, sasiarroa’ (Larz), *bazkasari* ‘abereen bellarren ordaina’ (Lan), *bethalde* ‘behi saldoa’ (Jut), *buuka* ‘behiak buru-ukaldika aritzea’ (Jut, Larz) —Amiküzeko Garrüzen *joka* ageri da eta Landibarren *jokatu*; Larزابalen baita *adarka* ere —, *buruzaal* ‘zapaburua’ (Jut) & *zipa-buruzaal* (Lan, Larz); ezker ere jotzen du *buruzaal*-ek: Makea, Armendaritze, Irisarri, Uharte, Arnegi gehi Garazi ekialdera, baina *zipa* dago Hergaraiko Behorlegin; Irisarrin eta Baxenabarre ekialdean *zipaburuzaal*; Baigorri *aphotzale* eta Alduden *apotxali*; Zuberoan *xahalboka*

eazarri ‘euri jasa, euri zaparrada’ (Jut, Larz) —Garaziko Gamarte, Behorlegi eta Ezterenzubín *eazarri* ageri da eta Zuberoako mugan *iazarri* Urdiñarben; aldiz, Nafarroa Garaian *erauntsi* dagoen bezala, Zuberoan nagusi da *iauntsi* & *eauntsi*, baina bada *isola* ere; *uhar* ibiltzen da Aturrialdean, Hazparnealdean, Arberoan eta Amiküzén —, *elauso* ‘elur jauzia’ (Jut), *ezkabia* ‘abereen legena, sarna’ (Lan) & *ezkabe* (Jut)

gielerrai erdal ‘fressure / asaduras’ (Larz)

har ‘zuldarra, behiaren azala zulatzen duen gaitza’ (Larz) —Garazin, Baigorrialdean, Baxenabarreko mendebalean eta Lapurdin legez —, *harzori* *Sturnus vulgaris* txoria, erdal ‘étourneau sansonnet / estornino’ & *harxori* (Jut) & *artzori* (Larz) —Oztibarren berean baita *behor(t)zori* ere (Lan, Jut, Larz) & *behorxori* (Ibarro) —, *hozi* ‘lursagarraren ernamuina’ (Jut, Larz)

iguzki(h)aize ‘ekialdeko haizea’ (Jut, Larz), *irasaar* ‘irasagarra’ (Larz) & *iasaar* (Lan, Jut), *izokin* (Jut)

joandoneane udare ‘udare ttikia’ (Lan); Garazi eta Arberoako herriekin partekatua; Uhartén *jondonaane udare* erraten da eta Armendaritzen *Jondonaane madari*

kaasel ‘ateburua’, erdal ‘linteau / dintel’ (Larz), *khorbe* ‘abereen aska edo ganbela’ (Larz) & *ghorbe* (Jut) —Zuberoan *mand[ʒ]etea* ibiltzen da, Garazin *gorbe* eta Euskal Herri zabalean *aska* edo *ganbela* —, *kotxu* ‘ardiak eta behiak jeztean esnea biltzeko ontzia’ (Jut, Larz) & *kotxe* (Lan), *kusku* ‘egoskariaren azal edo leka’ (Lan, Jut, Larz)

lipu ‘armiarma’; Oztibarren eta Garazin; Aldude-Baigorrialdean *lupu*, Amiküzén *abaña* & *amaña* & *tardaña*, Zuberoan *añharba* eta Lapurdin *armiarma*

maingueria ‘ardiak zango muturrean duen eritasuna’ (Lan, Larz) & *mainguria* (Jut) —Garazin eta Baigorrin ageri zaigu *maingueria* —, *menotak* ‘behiaren bi zango lotzeko traba, pluralean jokaturik’ (Jut)

ninika ‘zuhaitzaren kimua, puja, amua, begia, botoina’ (Lan, Jut); Alduden, Baigorrin eta Garaziko Arnegin ageri da

ortzantza aire ‘ekaitza, erauntsia’ (Larz)

partadera ‘atea lotzeko zatia’ (Lan, Jut, Larz), *putzu* (Lan); Hego Euskal Herrian ibiltzen da, Nafarroa barne, baina Baxenabarre iparrean ez

samats ‘etxe aitzina, basakurtea, oiloak ibiltzen direna, hogeit bat metro arte edo’ (Arm / Bith / Lan, Jut, Larz) —Garazi ekialdean ere ibiltzen da eta goiti Izturitze, Bastida eta Urketan jarraitzen du; Bardoze eta Amiküzén *lo(b)iro* dago eta Zuberoan *barrio*; Hazparnealdean, Arberoan eta Garrüzén

basakurte,⁴¹¹ Aldude eta Garazin *korle & korrale*—,⁴¹² *sugai* ‘erretzeko egurra’ (Jut)

tiuite ‘haize zurrunbiloa’ (Larz), *ttotto* ‘ardi jezteko aulkitto’a’ (Lan, Jut)

usmatu ‘zakurra usainka aritzea’ (Lan); Garazin, Alduden eta Bidarrain ageri da

xingar(h)ezur ‘txongoa, txungurra’ (Lan, Jut)

zego ‘esne biltzeko ontzia’ (Lan) & *zero* (Larz) & *zeo* (Jut), *zirimola* ‘haize zurrunbiloa’ (Larz)

7.3.5.4.2. Aldaerak

Oztibarre inguruko eta Garazi alderdiko aldaerak dira honakoak; inoiz, baita Baigorri alderdikoak ere:

ahate eme —Garazi-Baigorrialdean bezala; Zuberoan *ahatama & ahate ama* eta Amiküze eta Domintxainen *gitama*—, *apealatx* ‘gabiraia, belatxa’ (Larz) —cf. *belatx* (Lan, Jut); Baxenabarre erdialdetik beheitik Gamarte eta Uharteko *ap(h)alatx*-ekin batean doa Larzabale; Ipar Euskal Herriko erdigunean nagusi da *belatx* eta Zuberoan *esparbé(a)*—, *apotzar* ‘apoa, zapoa’ (Lan) & *aphutzar* (Larz) —Garazi eta Baigorrialdean ageri da *apotzar*; *ap(h)o* dago, bestalde, Oztibarre, Garazi eta Baigorrialdean—, *arrap(h)esta* ‘jaiegun jakin baten errepikaldia’ (Lan, Larz)

barruki & barroki ‘ukuilua, korta’,⁴¹³ *berdaarri* ‘baratzekariak, ortuariak’ (Lan), *biphi* (1) ‘sitsa, pipia, zerrena’ (Lan, Jut, Larz), *biphi* (2) ‘kirika, pipita, oiloen mihiko eritasuna’ (Lan, Larz) & *bipi* (Jut)

eskeler ‘eskailera’ —hegoaldean Garazin *eskeler*-ekin batean bada *eskaler* ere; Baigorrialdean *eskaler* eta *eskalera* ditugu—, *espare* ‘ezpatau-*lia, Tabanus bovinus*’; Garazin ere *espare*, baina Arberoan *lespada*; hegoalderago Aldude eta Baigorriin *espara* diote eta Bidarrain *lezpar* proposamena onetsi da; Lapurdin *lespada & lespada* ditugu eta Zuberoan *espai & espae*

411 Amiküzen bada *basakurte*; Bithiriñan *olluen, giten* lekua da etxe ondoan; Bartan ere *puallak basakurtean* bildu dugu.

412 Bithiriñan *samats* eta *lobiru*, biak ibiltzen dira etxe aitzinarendako. EHHA-k funtsean Oztibarre-Garazin dakar *samats*. Hona Armendaritzen zer dioskuten: “*samatsa*” *etxe aintzinarendako, “samatsa” erten tzen lehen, bazen ba difeentzia: iatzia ta othia ta..., zimentatia denari “bortha aintzina”;* *eta bestenaz, leheno laborari etxetan eta samatsa; samatsa, nik dakita, hamar bat metra, berdin; ba etxetik athea ta segidan tzen e, samatsak laborari etxetan, bazen ba pheza handia, ba, leheno*. Amiküzeko Bartan *lobiruan* uzten den ongaria da *samatsa* eta adiera honexetan dakar EHHA-k Domintxainen.

413 Bi aldaerak ditugu Baxenabarre hegoaldean, *barruki & barroki*; atlasak ez dakar *barroki* Oztibarren, baina Videgain-en 1989ko corpusean ageri da (Jut, Ibarro, Ibarre); Baxenabarreko hegoalde eta mendebalean ibiltzen da *barroki*: Baigorri, Armendaritze, Arnegi eta Ezterenzubini; *barruki* Oztibarre guztian ibiltzen da (Lan, Izu, Jut, Bun, Ibarre, Ibarro, Hoz, Larz).

kalkhatu ‘kalkatu, antzarak janez bete’ (Jut, Larz), *ganbera* ‘etxeko gela’ — Amiküze eta Zuberoan *khanbe(r)a* ibiltzen da, baina Garazi eta Baigorrialdean *ganbera* & *ganbara* —, *gantxigor* ‘txantxigorra’ (Lan, Larz) & *gaintxior* (Jut) — Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoako eskualde batzuetan ere bai —, *gaxtigar* ‘astigarra’ (Jut, Larz), *geeño* ‘garañoa’ (Lan, Jut, Larz), *giil* ‘jaten den gibela’ (Jut) — Garazin nagusitzen da: Gamarte, Uharte, Ezterenzubi eta Behorlegin dakar atlasak —, *gontz* ‘atearen gontza, txoria, orpoa, txanga, bisagra’ — Hazparnealdean eta Baxenabarre mendebalean *kontz* dago, Aturrialdean *kuntz*, Zuberoa eta Amiküzen *guntz* eta Oztibarre, Garazi eta Baigorrialdean, berriz, *gontz* —, *gooldio* ‘goroldioa’ (Larz)

hegatz erdal ‘corbeau / alero’ (Lan, Jut, Larz), *hertze* ‘hestea’ (Lan, Jut, Larz) — Zuberoan *herse* & *hertse* & *erxe* erak ditugu eta Arberoa-Oztibarren *hertze*, Garrüze, Luzaide, Arnegi eta Ezterenzubin legez; Garaziko gainerateko herrietan eta Baigorrialdean aldaera ez afrikatuak ditugu —, *hozpil* ‘persona hozbera’ (Lan, Larz)

ihalozka ‘zaldia lurean iraulka aritzea’ — hegoalderago *ihalozkatu* (Gamarte, Arnegi), *i(h)aloska* (Behorlegi, Ezterenzubi), *jaloska* (Uharte), *ildoska* (Aldude) aldaerak ditugu; Lapurdin nagusi da *iharrozka*; kasik Oztibarren bezala Pagolan *ihaloska* ibiltzen da eta Amiküzen *ihauzka* & *ihauska*, baina Domintxainen *inharroska* —, *ihausi* ‘zerri emea ar eske egotea’ (Lan, Jut, Larz) — Luzaide, Arnegi, Gamarte eta Ezterenzubin ere *ihausi*; aldiz, Behorlegi, Uharte eta Alduden *iausi*, baina Baigorri eta Bidarrain *ihaus*; Zuberoan eta Amiküzen *e* da hitzeko lehen bokala —, *ilharre* ‘ainarra, txilarra’ (Jut, Larz); Zuberoa gehienez bezala; Aezkoan ere *ilarre* ibiltzen da eta Erronkarin *ilaurri*; Zaraitzuko Jaurrietan *larre* dakar atlasak eta Aezkoako Abaurregaienean *txillarra*

joare (Larz), *joal* ‘behi edo idiak geldiarazteko agindua’ (Lan)

k(h)adera ‘aulkia’ (Lan, Ju, Larz) — Garazi-Baigorrialdean ere *k(h)adera* dago, baina Zuberoa-Amiküzen *khaide(r)a* —, *kalopa* ‘lauhazka, galopan’ (Lan) — Baxenabarreko iparrean *gal-*, Jutsi eta Larzabale barne, baina Garazi eta Baigorrialdean *kal-* —, *khuma* ‘zaldiaren lepoko ileak’ (Lan, Jut, Larz)

lahar ‘sasia’ (Larz) & *laharrondo* (Jut) — eta baita *laphar* ere (Jut) —, *lantzar(a)* ‘xirimiria, lanbroa, langarra’ (Jut, Larz), *le(i)zafin* ‘liztorra’, *leuza* ‘lauza’ (Larz); ipar Baxenabarren *ardua[z]a* mailegua dena, Bizkai-Gipuzkoetan *pizarra*, Nafarroa Garaian *lapitzarri*

mañatera ‘ganbela, abereen egurrezko janlekua, hormari loturik’ (Jut, Larz), *mazusa* ‘masusta’ (Jut, Larz) — Larzabalen baita *mazusa* ere — & *mazuz* (Lan)

ortzadar (Lan, Larz), *ortzantz* ‘ostotsa, trumioia’ (Lan, Jut, Larz)

pekada ‘oilagorra’ (Lan, Jut, Larz), *pik(h)alozke* ‘mozteko den zuhaitzari gizakiak egin hozka’ (Jut, Larz) & *pikalots* (Lan) — proposamen onetsia da —, *p(h)intxet* ‘suko kurrika, suhatza’ — Garazi gehienez ere *pintxeta(k)*

dugu, Luzaiden *pintxeta*, *tenaza* & *suats*; Bidarrain ere *suats* dago eta Baigorrialdean *pintzet* nahiz *pintxet* aldaera orokorra—, *purra-purra* ‘oilok deitzeko era’ (Lan, Jut, Larz); hedadura handikoa da *purra* Ipar nahiz Hego Euskal Herrian, baina ipar Baxenabarren ez da ageri, ezta Ezterenzubín edo Hergaraiko Behorlegín ere

sagarroi ‘trikua, sagarroia’ (Larz), *sasu* ‘sasia’ (Lan, Jut, Larz); Garrüzearaino heltzen da *sasu* atlasean; Baxenabarre ipar-mendebaleko herrietan *sasi* dago; Baxenabarre hegoaldean *sasu* nagusi da, baina Arnegi eta Baigorriñ *sasi* ageri da; Ibarrolako Salaberrik *sasi* dakar (1856)

taulen ‘barazkien sail osoa’ (Lan, Jut, Larz), Zuberoan *taula*

udareondo (Lan), *uli* ‘eulia’ (Larz) —eta Jutsin ere onetsi da *uli* proposamena, baina cf. *ulu* Oztibarren—, *usindatu* ‘usnaka aritzea’ (Jut, Larz, Ibarro) —Arnegi eta Irisarriñ ere *usindatu* ageri da; Zuberoa, Amiküze eta Bardozen *senditü* ibiltzen da eta Landibarren *senditu* & *usmatzen*—, *uspel* ‘leku ospela, laiotza’ (Jut)

xilko ‘zila, zilborra’ (Lan), *xita* ‘txita, txittoa’ (Jut, Larz), *xitandana* ‘sortu den txita multzoa’ (Lan, Larz)

zahalo ‘haga, makila’ (Lan, Jut, Larz); Izturitzen, Baigorrialdean eta Luzaiden *zaharo*

Gertatzen dira beste hedadura eredu batzuk ere, ezohikoagoak direnak; eman dezagun: Baxenabarreko erdialdearen zati batekin eta hegoaldearekin doa Oztibarre *lakhasta* ‘akaina’ (Lan, Jut, Larz) aldaeran, baina Zuberoako mendebala eta Amiküze barne direla; aldiz, Baxenabarre erdialdeko zati handi batek, Arberoa guztiak, *lik(h)asta* aldaera partekatzen du Lapurdiko Aturrialdearekin eta Hazparnerekin.

7.3.5.5. Baxenabarre ekialdeko hitzak Oztibarren

mingaixto ‘charbon / carbunco’ abereen eritasuna (Lan, Jut, Larz); Zuberoan *liipe*

phala ‘zurubiaren maila’ (Lan, Jut, Larz)

sokhal ‘gaztainaren morkotsa’ (Larz); atlasean ez da ageri Garazi ekialdeko Ezterenzubín eta Hergaraiko Behorlegín baizik

tor(t)xa ‘izotz ziria, kandela’ (Jut, Larz) —baita Garazi gehienez ere—; Baxenabarreko mendebalean, Hazparnealdean eta Amiküzen *ziri* edo *ziri* duen hitz elkartua dago; cf. *karroinziri* (Lan)

7.3.5.5.6. Baxenabarre ekialdeko aldaerak Oztibarren

k(h)erren ‘haragia erretzeko burdina luzea’ (Jut), *kokohazka* ‘oiloaren kakara edo karaka’ (Jut) & *kokohaska* (Larz) —Uharten *kokarozka* dago, Arnegin *kokorazka*, Behorlegin *kokoraxka* eta Ezterenzubin *kokohoxka*—, *k(h)uma* ‘zaldiaren lepoko ilea’ (Lan, Jut, Larz)

musurin ‘zerriak muturraz lurra muturkatzen aritzea’ (Lan) & *muxurin* (Jut); Gamarte, Ezterenzubi eta Behorlegin legez; cf. *musurka* (Arrü, Gar / Dom, Pag) & *müsurka* (Arbo); cf. *musurka* (Lan) eta *musurkan* (Larz) eta Zuberoan ere *musurka*

palote ‘zerriaren omoplatoa’ (Jut, Larz) & *paleta* —galdera ikurra dakar atlasean— (Lan), *pulier* ‘makala, *Populus nigra*’ (Jut, Larz, Ibarro)

zurt(h)ate ‘zureria, etxegintzan zurezko pieza guztien multzoa’ (Lan, Larz); Garaziko Gamarte, Behorlegi eta Ezterenzubin bezala; Baigorrialdean, berriz, *zureri*

7.3.5.5.7. Baxenabarre ekialdeko eta Zuberoako hitzak Oztibarren

**ardi saldo* ‘artalde’ (Jut)

baxa ‘erroitza, amildegia’ (Jut, Larz) —atlasean ez da Baxenabarren beste inon ageri Garaziko Behorlegin izan ezik—, *berhil* ‘berez hil den aberearen haragia’ (Jut, Larz), *berrhondo* ‘altsuma, ernamuina, muskila, arrapusa’ (Jut) —Zuberoan Pagolan baizik ez dago *berrondo* eta Baxenabarren Jutsiz landa Ezterenzubin baizik ez—, *bildots* ‘ardiaren urte beteko ume urrixa’ (Jut, Larz) & *bildotx* (Lan) —Baxenabarre gehienez, Lapurdin eta Nafarroan *antxu* dena, baina Garaziko Behorlegin ere *bildots* erraten da—

izei (Jut), bestela mailegua: *sapino* (Larz) & *zapeñ* (Lan); aldiz, Garazin Ezterenzubin *izei* eta Behorlegin *izai*

k(h)aan ‘karena, umetokia’ (Lan, Jut, Larz), *kusku* ‘leka’, erdal ‘haricot vert / judía verde’ (Jut) & *kuxku* (Lan, Larz)

oihankari ‘basomutila, egurgilea’ (Jut, Larz)

zerren ‘sitsa, pipia’ (Jut, Larz) —Ipar Euskal Herrian Zuberoa da *zerren* sendo darabilen herrialde bakarra; Baxenabarren Ezterenzubin ibiltzen da eta Baigorri eta Gamarteko lekukoek ere onetsi dute; Bardozen *zerna* ageri da eta Euskal Herriko mendebalean *seren*—, *zoladura* erdal ‘plafond / techo, cielo raso’ (Jut, Larz) —Garazi ekialdean eta Baigorriin ere bai—, *zuraitz* ‘zuhaitza, arbola’ (Larz)

7.3.5.5.8. Baxenabarre ekialdeko eta Zuberoako aldaerak Oztibarren

burkhi ‘urkia’ (Larz); baita Ezterenzubi eta Behorlegin ere; Zuberoan *bürki* (Eskiula), *bürkhe* (Larraine) eta *bürkhü* (Altzai) aldaerak ageri dira

ergillot ‘bi urteko ergia, idiskoa, zekorra’ (Jut, Larz); Ürrüstoin, Urdiñarben, Larrainen eta Santa Grazin ageri da

gianoï ‘zerriaren hestegorria’ (Jut, Larz); Behorlegi eta Ezterenzubin *gidanoi*, Arnegin **giranoi* eta Nafarroa Garaiko hainbat eskualdetan *iranoi* ibiltzen da

ihizlari ‘ehiztaria’ (Jut, Larz); Zaraitzuko Jaurrietan ere *izlari*; Zuberoa mugako Berroetan ere *ihizlari* entzun dugu

mihimen ‘zumea’ (Lan, Jut, Larz)

p(h)otxa ‘erroitza, amildegia’ (Jut, Larz); Ezterenzubi eta Irisarrin ere *potxa*; cf. *potza* Garrüze eta Ezterenzubin; Garrüzen galdera ikurra dakar *potza-k*; Zuberoan ere *botxe* & *botxü* ditugu eta Nafarroa Garaiko erdararen ere *poche* ibiltzen da⁴¹⁴

zitzer ‘kazkabarra, txingorra’ (Lan, Jut)

7.3.5.5.9. Oztibarreko herri batzuek eta Zuberoak partekatzen dituzten hitzak

Oztibarrek edo ibar honetako herri zenbaitek Zuberoarekin edo haren alderdi batekin, besteak beste honako hitzok partekatzen ditu:

ahan ‘oihartzuna’ (Larz), *amain* ‘amarauna’ (Jut), *arren* ‘beraz’⁴¹⁵ (Jut) —nahiz literaturan Ipar Euskal Herriko mendebaleragoko idazleetan ere ageri den, sendotasunez ekialdean ibili da eta ibiltzen ere da orain; Bourciezek Ibarrolan dakar—, *asto k(h)otxo* ‘asto arra’ (Lan, Larz)

behota ‘behi antzua’ (Jut, Larz), *broka* ‘arbolaren kimua, puja, amua, begia, botoina’ (Jut, Larz)

elhurtxori ‘*Fringilla coelebs* txoria’ (Lan) —atlaseko proposamen onetsia da eta Gamarteko *elhurtxori* ere bai; Larzabalen *neguxori* bildu da—, *ezabeki* ‘isilka, aitortu gabe’⁴¹⁶ (Jut) —hitza galduz doala diosku lekuko jutsiar batek—

414 Cf. Iribarrenen hiztegia: “paso o cañada; espacio de tierra estrecho entre dos alturas, vgr. el paso de Nagore y el de Zuza”.

415 Amiküzen ez dugu entzun: Barton, Martxüetan eta Amendüzen ezezaguna dute. Ostankoan adierazi digutenez beharbada ibiltzen da, baina fede handirik gabe erran digute. Bithiriñan dioskute hitz hori ez dela herrikoa, baina Oztibarreko izeba izuratar batek *donc* adieran ibiltzen zuela.

416 Ez dugu Amiküzen entzun: Barton, Bithiriñan, Martxüetan eta Amendüzen ezezaguna dute.

ga[ʒ]naxal ‘gazanontzia, zimitza’ (Larz) —erantzun honek galdera ikurra darama atlasean—,⁴¹⁷ *gixon* ‘exegintzan gailurrari eusteko pean ezaritzen den goitik beherako egurrezko pieza’ (Jut, Larz); Zuberoan ez da nagusi, Pagola eta Urdiñarben ageri da

heex ‘gurdi gurpilaren hatza’ (Jut)

inguaia ‘bihurgunea’ (Larz), Zuberoan *iüngüada*

laburbide (Jut, Larz) —Baxenabarre erdigunean *heiñka(ko)bide* dago eta Amiküzen *xendra*; Landibarren *laburzka* erraten da, baina onetsi dute *heiñka* & *heinzka* proposamena—, *losko* ‘ur putzua’ (Jut)

naba ‘ibarra’ (Larz)

orkhatz ‘basahuntza’ (Jut, Larz), *orkhei* ‘egur xehatzeko enbor zatia’ (Jut, Larz)

txakhoste ‘jendeak hesia gaintzeko sistema, eskaileratxoa’ (Larz); Pagolan Zuberoan bezala *txakhoste*, baina Domintxainen Amiküzen bezala *dauzteri*

uhaitz ‘ibaia’ (Jut, Larz, Zib, Donaix) —Bourciezek Donaixti-Ibarren dakar— & *urhaitz* (Larz), *uzkiargitzale* ‘ipurtargia’ (Jut); Pagolan *iüzküargi*, bestelakoan ez da ageri gehiago Zuberoan

xotx ‘ardiak zenbatzeko edo artaldea eratzeko sistema’ (Jut, Larz, Bun, Ibarro)

zerrallu ‘landare biziz egin hesia’ (Larz)

7.3.5.5.10. Oztibarreko herri batzuek eta Zuberoak partekatzen dituzten aldaerak

Zuberoarekin partekatzen ditu aldaerok Oztibarreko herri batzuetako euskarak:

aheri ‘behiaren nafarrerria, maingueria’ (Larz) —Zuberoako *aheja*-ren kide da; aldiz, Jutsiko *ahoeria* aski orokorra da Baxenabarren—, *aingera* ‘aingira’ (Jut), *amain* ‘armiarmasarea’ (Jut), *arrain* ‘amurraina’ (Larz) —Arbotin, Garrüzen eta ipar Baxenabarren bezala *amurrain* bildu da Jutsi eta Landibarren; Nafarroa Garaiko Pirinioetan ere ‘amurraina’ da *arrai*—, *asto ume* (Jut), *azazkulu* ‘behiaren apatxak, aztaparrak’ (Lan); ez dabil urrun Zuberoako *azüzküüü*, ezta Garazi alderdiko *azazkal* ere

417 Oztibarreko Jutsin *zortze* dakar EHHA-k ‘zimitza’ edo ‘gazanontzia’ eta Zuberoan *gasnaaxal* edo *gazanaxal*. Aldiz, zimitzaren peko oinarri edo erretilua, *zorze* & *zortze* da Zuberoan, baina *zortzepeko* Baxenabarreko ekialdean; alta, Larzabalen EHHA-k *xotxa* & *gaxnaxotxa* dakar, baina Jutsin *zortzepeko*. Barandiaranek Ibarren *zortzea* ‘zimitza’ vs. *zortzepekoa* ‘oinarria, erretilua’ dakartza (1955: 45-6). Hoztan *xotxa* bildu da: *eta gio xotxa ezartzen duzu taula haundi baten gainian, xor-xapekoa hua* (Videgain 1989: 1047). Ibarren ere bai: *xotxa, ua uzu, gasna pian edo gio xotxazala* (1555).

bahuts ‘habuina, ahoko lerdea’ (Jut), *bazko* (Jut)

eausti ‘jaitsi’ (Larz) —cf. Zuberoan *ehaitsi* Urdiñarbe, Altzai, Al-zürükü, Pagola edo Santa Grazin—, *e[z]naurtu* ‘hausnarrean egin’ (Jut)

gorphitz (Jut, Larz) & *gorpitzan* (Lan); izan ere 1782ko itzulpenean *gorpitz* nagusi da; cf. Zuberoako *khorpitz* (Larrasket); dena den, bada *gor-phutz* ere (Larz)

hutta ‘arropa sartzeko kutxa’ (Jut), Zuberoan *hütta* dena

ían astian ‘iragan astean’ (Larz), *ikhatxero* & *ikhatzero* ‘ikazkina’ (Larz), *ilharteka* ‘leka’, erdal ‘haricot vert / judía verde’ (Lan, Jut, Larz) & *t(h)eka* (Jut, Larz)

jilufri ‘krabelina’ (Lan, Larz); Zuberoa mugako herrien gisa egiten dute oztibartarrek: Pagolan [ʒ]iluflea eta Urdiñarben [ʒ]iroflea darabilte, aldiz, gainerateko Zuberoan *ælle* erraten da; Baxenabarre hegoaldean *julufre* & *julufri* ibiltzen da, baina Amiküzen eta Jutsin ez da erantzunik bildu

khima ‘zaldiaren lepoko ileak’ (Jut) —Zuberoan *gima* eta Baxenabarre ekialdean *k(h)uma* den aldetik, Garrüze barne—, *khunde* ‘espeziea’ (Jut) —*zaldi khundiaindako* (Jut) & *subekundia* (Jut)— & *khundu* (Larz); cf. *gizon khundu*, *emazte khundu* (Larz, EHHA)

leixarrondo ‘lizarra’ (Larz); baita *leizar* ere (Larz); cf. Zuberoan *lexar olha* (Jut) —baina Oztibarrekkoa da *etxola* ere—, *ooldio* ‘goroldioa’ (Jut); Amiküzen *muza*

pallote ‘zerriaren omoplatoa’ (Larz); Zuberoan nagusi da *pallot*

ukhen (Larz); baina guztiz nagusitzen da *ukhan* Oztibarren

xariot ‘zama edo jendea eramateko, lau gurpilekoa, eman dezagun, zaldiari loturik’ (Jut); baina baita *karrosa* ere

Atlasean ez da ageri Zuberoak eta Garazik partekatzen duten hitz edo aldaera eksklusiborik; salbuespena da Behorlegi-Gamarteko *azkara* ‘arkara, ahunzkara’. Bada *ahoeria* Garazin, Zuberoako *aheia*-ren iduria dena, behiaren nafarrerria edo maingueria adierazteko: Behorlegi, Ezterenzubi eta Gamarten ageri da, eta baita ezker Bidarrain ere.

8. Ondorioak

8.1. Espazioa, gizartea, bizia, berrikuntzak eta hizkuntza

1952an Torsten Hägerstrand saiatu zen erakusten nola hedatzen den berrikuntza baten harrera, nola kurritzen duen eskualde sistema batean gaindi: hark oinarria ondokotasunean eta distantzian zekusan, komunikazioaren baitan, muga fisikoen eta gizarte erresistentziaren arabera, izan ere, berrikuntza baten azterketan jarraipena bezain garrantzizkoa baita etena edo kontrastea.

Laborarien ohiko erkidegoek egonkorrak izateko joera dute, non gizakien ekintzen egitasmoak denbora luzean errepikatzen baitira espazio murriztean, kasik eskualde kognitibo uniformeetan. Aldiz, laborarien gizartean baino, mundu hiritar eta industrialean egitasmoen egokitze lehiakorra konplexuagoa da eta hedatuago dago mundu osoko espazioan.

Geografia eta gizartea bereiz aztertzeke joera dugu zientzian dihardugunok, baina hein handian bateratsu doaz. Dialektologia egiten denean gizarte erlazioen eta egitura espazialen arteko hartu-emanak jokabide zientifikoaren erdigunean kokatzen da, areago gure eguneroko bizian denboraren eta espazioaren antolaketa eraldatzen ari diren garai honetan. Dakigunez leku bat ez da espazioa soilik, gizarte elkarrekintza jakin batzuen jokaleku geografikoa baizik: une oro aintzat hartu behar da zein den espazioan eta denboran gertatzen diren ekintzen baldintzen hierarkia eta banaketa. Lekuak eskualdeka eta barren-barreneko baldintzen arabera bereiz ditzakegu, non gizarte praktika errutinizatuen arautzea eta hurrenkera baitira botere erlazioen sorreraren eta erreproduktzioaren eragileak.

Erkidego batean berrikuntzak gertatzen direnean, gizarte erlazioen egituren bitartez eta gizarteko praktiken sistemen bitartez iragazten dira: ebentoen sekuentziak, komunikazioa eta berrikuntzaren harrera ez dira morfologia espazial hutsean gauzatzen, gizarte orotako berezko osagaia dira lehia eta gatazka: ez dezakegu pentsa berrikuntzak *pro bono publico* direla, horien harrera arazo edo gatazkarik gabea dela beti eta horregatik, indibidualismotik eta fisikalis-motik harat, ebentoen konjuntzio iraunkorrek baino, gizarte praktiken sistemak argigarriago dira ikertzailearentzat, gizartearen anatomiaren teorizazio bat galdegiten duten aldetik.

Higidurak berez du lehenagoko hurrenkera hausten, egitasmo batek ez dezake higidura multzo bat baino anitzez higidura posible gehiago gauzatu

kolapsatu gabe, espazioak mugak ditu aldibereko norabideak egokitzeko, auzokotasun egoeran egile bakoitzak higidura batzuk baizik ez ditzake egin, ez ditzake guztiak batera egin, egitasmoen antolaketan hurrenkera egon behar du, elkarrekintzen sistemak denbora-espazioaren norabideen geometrian errutinizaturik daude: delako espazio-denbora, egitasmoen arteko lehiaren jokalekua bilakatzen da. Derek Gregory geografoak dioenez, espazioen historia botereen historia da: estrategia geopolitiko handietarik *habitat*-aren taktika ttipietara doan historia, hain zuzen ere (1985: 316).

Michel Foucault-ek dioen bezala (1980), konfigurazio espazialek agerian uzten dituzte botere-bilakabide historikoak: pentsalari honek dioenez, legitimazio eta menperatze-egituren sorrerari eta ugalketari loturik dago informazioaren zirkulazioa (in Gregory 1985: 316-317); ura gure eiherrara edo hobeki erran, dialektologiaren era ekarririk, adieraz genezake, hizkuntza-berrikuntza baten ibilbidea, hedadura eta helmene ere, espazio jakin baten egituraren barrenean, denbora jakin batean eta gizarte mota jakin baten baldintzen arabera gertatzen direnez, legitimazio eta menperatze-egituren sorrerari eta ugalketari loturik daudela.

Foucault-ek “gizarte diziplinatua” deitzen duen errealitatean, gizabanakoek espazioan duten distribuziotik beretik dator diziplina. Berrikuntza bat gertatzen denean —eman dezagun, hizkuntzan—, mintzoaren ezaugarri baten higidura dago, baina gizataldeen arteko ohiko auzokotasun hertsia hor dirau. Badakigu zernahi espaziotan higidurak ordena-haustura eragiten duela: errealitatean ez dago ekinbiderik higidura kopuru jakin bat baino gehiago egin dezakeenik kolapsatu gabe: norabideak aldi berean egokitzeko espazioak duen gaitasuna mugatua da; ekintzaile baten inguruko auzokotasunak bere ezaugarriak ditu eta delako “espazio - denbora” lehiagunea ekimenen arteko guda-eremua bilakatzeko da (Foucault 1980, in Gregory 1985).

Hizkuntza-ezaugarriak espazioan higitzeak halako lehia sortzen du beren artean: Baxenabarre gehienaren eta Zuberoaren artean ixtaklok kokaturik dagoen Amiküzeko eskualdeak halako hizkuntza-unibertso berezia eratu du, alderdi bateko eta besteko ezaugarriekin halako nahasketa berezia egin du eta franko ezaugarritan berezko berrikuntza endemikoak eraiki ditu, ondoko eskualdeetan ezezagunak direnak, amiküztarrek baizik baliatzen ez dituzten hizkuntza-ezaugarriak.

Erran dugunez, Amiküzen bereziena hizkuntza-ezaugarrien konbinazioa bera da:

- hainbat ezaugarri berri Zuberoan baliatzen direnak, baina Baxenabarreko gainerateko ibarretan ageri ez direnak (ikus 7.2.4. §)

- Baxenabarre orokorreko franko berrikuntza
- okzitanieratik mailegatu ahal ukan den berrikuntza bat edo beste
- Amiküzeko mendebalean ageri den Hazparnetikako berrikuntza sorta bat (ikus 7.1.3. §)

eta

- Garazi eta Oztibarreko ardatzetik Uhartehiri edo Ostankoaraino bederen heldu diren ezaugarri batzuk

Dagoen lekuan egoteak eragin du gizarte-errutinizazioaren bidez amiküztarrek bateko eta besteko euskaldunekin hizkuntza-harreman hori —eta ez beste bat— ukan izana. Gizarte-sare horiexen baitan —eta ez beste batzuetan— loturik egon izanak halako unikotasun edo berezkotasuna eragin du, errealitate horrek eman dio Amiküzeko ^heskuarari daukan kolore berezia.

Eman dezagun etsenplu bat: eskuinaldean den Xiberoako *müsa* ‘diru poltsa’ eta Baxenabarre gehieneko nahiz Lapurdiko *moltsa* ez, *multsa* ibiltzen dute amiküztar gehienek: halako aldaera *interdialect* bat eratu dute, bateko eta besteko ezaugarriak batera daramatzen hirugarren errealitate bat, ez eskuinekoa ez ezkerrekoa dena, erdiguneko berri berezia baizik, ixtaklok.

Amiküzeko mintzoa ez dago gizarte-errealitate historiko jakin batetik bereiz.

Alderdi guztietan bezala, eskualdeko herri bateko eta besteko jendeak elkarrekin ezkontzen dira. Darabilgun mintzoan norberaren eta aita-amen sorterriak anitz eragiten du, eta baita ezkontideak ere, eskualdeko beste herri bateko euskara egiten baldin badu. Eta zer erran etxetiargoaz: herri batean sorturik, beste batera ezkondurik, ondotik beste hirugarren batera jorik, azkenik etxetiargoa utzi eta bizilekua laugarren batean erosi eta bertan kokaturik, jendeen halako higadura eta nahasketa senti da guk ezagutu dugun Amiküzeko gizartean. Etxetiargoak hizkuntza-batasuna eragin dezake eskualdean, bai, baina honela zail da hizkuntzalariarentzat hitzun baten ezaugarriak xuxen nongoak diren jakitea: haren aita-amen herrikoak, bera sortu zen herrikoak, ondotik etxetiargoan luzaz bizi izan den beste herri batekoak, ala azkenik etxea erosi duen herrikoak... orok eragiten du pertsona baten bizi linguistikoan, nahiz haur denboran entzuten dugun mintzoa den nagusiki gure garunean txertatzen.

Idazten diharduen monografian edo mapa/karta geografiko batean lekuko euskaldun etxetiar horien mintzoaren ezaugarriak kokatu nahian dabilelarik, hizkuntzalariak usu sentipena du kimera baten ondotik dabilela, corpusean ezinezkoa dirudien ordena eta koherentzia aurkitu nahian, eta inoizka halako

zalantza sortzen zaio eskuartean duen eginkizunaz, atera uste dituen ondorioen xuxentasunaz eta ziurtasunaz, funtsean, egiten duen lanaren kalitateaz. Eta zer egin behar da?

8.2. Amiküzeko hizkuntza-ezaugarrien hezurdura orokorra

8.2.1. Amiküztarrak mintzoaren aldetik funtsean baxenabartarrak dira, xiberotarren eragina luzaz bildu duten baxenabartarrak. Kokagune horrek izaera berezia eragin du, bateko eta besteko ezaugarriak ukaitea: oinarri baxenabartarraren gainean edo horiekin batean bederen, ezaugarri xiberotarrak kokatu dira, eta beste batzuetan, berriz, halako *interdialect* ezaugarri bereziak eraiki dituzte, Baxenabarren edo Zuberoan ageri ez diren Amiküzeko aldaera anfibio edo mis-toak, batetik eta bestetik nahasiz hirugarren errealitate berezko bat ekarririk, berena baizik ez dena.

Gainera, ikerlan honek berak erakutsi digu hizkuntza-ezaugarri ugariaren konbinazioa dagoela Amiküzen eta guk lana bururatzean tasun horien halako tipologia edo antolaketa egin dugu, amiküztarren mintzoaren hezurduran zein eratako osagaiak dauden argi geldi dadin; munduko hizkuntza natural ororendako saihestu ezinak diren denbora eta espazioa aintzat hartu ditugu tipologia hau eratzeko:

8.2.2. Lehenik Amiküzeko ^heskuaran ageri diren ezaugarri zaharrak aurkeztuko ditugu, oro har ondoko Zuberoan entzun ohi direnak, baina ohar gaitzen tasun hauetarik batzuek Euskal Herriko ekialde hertsia baino hedadura zabalagoa ukan dezaketela, izatez euskararen ezaugarri zaharrak baitira, han eta hemen berrager dakizkigukeenak:

- guk entzunik bederen hainbat hitzetan gorde diren *h* ondoko bokal sudurkariak
- *rz*, *rs*, *rx* eta *nx* kontsonante talde ez afrikatuak
- mugatzailerik gabeko izen sintagmak
- partitiboa baiezko eta erlatibozko perpausetan
- genitiboaren balio destinatiboa
- osagarri zuzen genitiboaren estraposizioa
- *-a-* gabeko *-en* inesiboak
- adlatiboaren atzizkiaren *-la* aldaera
- ablatiboan inoizka *-ti* agertzea

- polaritate negatiborik gabe *nihat* ‘nehorat’ erakoak baliatzea
- *dain astian* ‘datorren astean’ edo *daigün urthian* erako aditz trinko puntukari batzuek irautea
- etorkizuneko *-te* atzizkia *izan* aditzean
- **edin* eta **ezan* oinarrietako adizkiak baldintzaren protasian

8.2.3. Zuberoan entzunen ditugu jarraian datozen ezaugarriak ere, baina berritzaileak dira, batzuk Erronkarin ere baliatzen zirenak eta amiküztarrek ere baliatzen dituzte tasun hauek. Xiberotar eta amiküztar elkarren ondoko jende *aizoak* baitira, auzokotasun hartu-emanak eta giza-errutinizazioak eragin du hizkuntza-ezaugarri hauek ukan duten eta orai ere baduten geografia-hedadura, batzuek eta besteek hizkuntza-berrikuntza hauek partekatzea giza-komunikazioaren emaitza da; hona gure ustean zein diren garrantzizkoenak edo gramatikan sistematikoenak, bederen:

- kaskoinaren mailegua dirudien *ü* fonema palatalizatua ibarraren iparreko eta erdiguneko franko herritan
- *i-u* > *ü-ü* bokal sekuentziaren asimilazioa aitzinerat
- *-oin* > *-uin* & *-uñ* bokal hersketa
- txistukari ahostunak bokal artean, baina gertatzen da hau Baxenabarren ere
- bokalarteko *r* kontsonantearen galeraren hein bateko maiztasun gora; Baxenabarreko gainerateko ibarretan baino azkarrago da Amiküzeko ekialdean, baina Zuberoan baino ahulago
- *gañan* adizlaguna
- *etxengo* ‘etxeko’ erako lokatiboak; cf. Xiberoan *etxenko*
- *bañotek* ‘bakar batek’ erako *-ot* atzizki txikigarria
- aditz trinko puntukari zenbait galdu izana
- datiboko morfema bikoizturik duten aditz laguntzaileak: *zindataziin* ‘zenidan’
- *ot(h)e* partikularen estraposizioa, Arberoan ere badena
- Modalitatea adierazteko, Lapurdiko eta Baxenabarre orokorreko *bide* beharrean, *behar* baliatzea
- konparazio perpausetako *bezainbeste* zenbatzailea

- moduzko perpausetan partizipio bururatua beharrean, Amiküzeko ekialdean burutugabea baliatzea: *uai libertitzez ai zizte lanian* ‘orain diberituz ari zarete lanean’ (Zoho), baina ez da Amiküzeko tasun orokorra, ekialdekoa baizik; Arberoako Mehainen egitura horretan partizipioa baitezpadakoa da: *hau pusatuz atheako uk*
- zenbait hitz eta aldaera, Zuberoan bezalakoak direnak; ikus 7.3.5.2.2.5. eta 7.3.5.2.2.10. arteko §-ak; eman dezagun, *ohit nüzü* ‘oroitzen naiz’; Arberoan, Izturitzen *ohit niz* eta *orhitzen niz*, bi aldaerak ageri dira EHHA-ren emaitzetan

Gramatikan edo sisteman hainbeste eragin ez duten ezaugarri edo aldaera berri haboro ere badira Amiküzen; ikus, errate batera, honako aditz erabilera, Zuberoa gogora dakarkiguna:

- ‘noa’ adierazteko *juiten niz* adiera puntukarian baliatzea

8.2.4. Jarraian datozen ezaugarriok ezagunak eta orokorrak dira Baxenabarren eta baita ondoko beste zenbait eskualdetan ere; funtsean, amiküztarrak ere baxenabartarrak direla salatzen digute; bestalde, amiküztarren mintzoaren hezurdura eratzen ere dute:

- bokalen aferesi eta sinkopa zenbait eta ondorioa du honek adizki laguntzaileetan ere; errate batera, *nuntzun & nüntzün, gintzun & gintzün* eta *zitzun & zitzün izan*-en zuketako Nor saileko adizkietan; cf. Zuberoako *nündüzün, güntützün* eta *züützün*
- *ai* → *ei* goratzea
- *bait* → *bit* soiltzea
- lexemaren muga “herskaria + txistukaria” afrikatzea
- Zuberoa gehiengan ez bezala aditz nagusiaren etorkizuneko forman bokal arteko *n* galtzea
- *rk* > *rg* eta *-rk* > *-k* gertakariak
- adizkietan *ez* + *g*- sandhia soiltzea
- kasu atzizkietan *-aren* → *-ain* laburtzea
- izena jokatzean usu plurala beharrean forma mugagabea baliatzea
- pluraleko *bere* izenordaina *beren* bilakatu izana
- *bat* zenbatzailearen joko mugagabea
- instrumentaleko *-etaz* plural berria

- soziatiboko *-kılan* atzizki-aldaera
- *hor(t)xet, han(t)xet, holaxet, heen(t)xetan, holetan, holaxetan* erako adizlagunak
- leku-denborazko postposizioen sail guztia
- izenordain, zenbatzaile eta determinatzaile zehaztugabeen hainbat jokaera
- eratorpen atzizki zenbaiten jokaera
- aditz eta lokuzio batzuen balentzia eta aditz batzuen gobernu bereziak
- aditzoina ohikotasunaren adierazle izatea
- *izan* eta *ukhan* perfektiboak
- zuketa alokutiboa
- *d-* morfema oraineko adizki alokutiboetan
- *ginden, ginten / zinden, zinten* erako adizki berriak *izan*-en iraganean
- *zki* pluralgile berria **ezan* adizkietan
- *zu & tzu* aldaerak bigarren pertsonaren morfeman
- kausazko *-lakoan* atzizkia
- *be(i)zik eta* partikula sartzailea perpaus konpletiboetan
- *-en-ez* aldaera zehar-galderan
- xedezko *amokatik eta* partikula
- zenbait hitz eta aldaera Baxenabarren orokorrak direnak; ikus 7.3.5.2.2.1. eta 7.3.5.2.2.4. § artekoak eta 7.3.5.2.3.1. §-koak

8.2.5. Badira beste ezaugarri batzuk Baxenabarren orokorrak ez direnak baina Amiküzeko endemikoak ere ez direnak eta beraz, Amiküze inguruan aurkituko ditugu, baina ez Baxenabarre guztian; hauek ere amiküztarren ^heskuara eratzen dute:

- *ta* datibo morfema lehen pertsonan
- *nintien & nintzin* ‘nituen’ analogikoak
- *edun* aditzaren *z* pluralgile berria
- Nor Nori Nork sailean *zt* erako osagarri zuzen pluralak
- *othe* partikula modalaren kokagunea
- eskualdeko eta inguruko zenbait hitz eta aldaera berezi

8.3. Amiküzeko mintzoaren nortasunaz eta haren idatzizko agerpen berankorraz

8.3.1. Artean zuberotarrek eta baxenabartarrek baliatzen dituzten ezaugarri sail handi bana erakutsi ditugu, baina anitz ez izanik ere, badira Amiküzeko endemikoak diren ezaugarri berriak ere, eskualde honetako euskarari baizik ageri ez direnak, amiküztarren ^Heskuarari halako berezitasuna ematen diotenak, bertatik kanpo ageri ez diren heinean. Mintzoaren ezaugarri hauexek dira aitzinean dugun mintzalaguna sortzez amiküztarra dela salatzen digutenak, hizkuntzaren geografian *marker-tzat*, *salatzaitzat* eta *bereizgarritzat* hartu ohi direnak:

- a) etorkizuneko atzizki *-tiko* ez da Baxenabarren beste inon ageri ez bada Baigorrialdean, baina ibar bateko eta besteko berrikuntza beregainak dira, ez dute inolako loturarik sorreran
- b) aipatu dugu hizkuntzalari batzuen ustez muga adlatiboko atzizkiaren *-radio* aldaera zaharra dela; Amiküzen ageri da, baina inguruan kasik inon ez; Aturrialdeko Urketan eta Bardozen bada *-radio* eta Bardozen baita *-raidio* ere; Oztibarren eta Landibarren *-radino* ibiltzen da eta Aturrialdeko Mugerren ere bildu da alomorfo hau; Arberoa alderdiko Armendaritzen *-rardino* entzun dugu guk
- c) atzizki superlatiboa pleonastikoa da, “*-en + -en + mugatzailea*” eran bikoizturik ageri da; Garazin ere adibide bat entzun dugu
- d) adizkietan aipagarri da *gu* morfemaren murrizketa foniko nabarmena eta are galera ere
- e) adizkietan datiboa hirugarren pertsona plurala delarik *-e(e)* morfema arruntaz landa *-ei* aldaera ageri zaigu eskualdean
- f) bigarren pertsona pluraleko datiboaren morfema *-zite* da eta ez *-zie*; ezaugarri hau Aturrialdeko mintzoarekin partekatzen dute amiküztarrek; ezaugarria singularrera ere iragan da eta ‘dizute’ adierazteko erabiltzen dute amiküztarrek *dauziete* ere
- g) **edin + -ke* adizkietan *e - e* eredu agertu zaigu Amiküzen, baina ez dirudi guztiz orokortu den ere; guk dakigula ez da eskualdetik kanpo ageri
- h) hiketako *gitzan* ‘gaitun’ & *gitzak* ‘gaituk’ & *gützak* ‘gaituk’ adizki berriak ageri dira eskualdean
- i) aldaera lexikoetan ere badira ale batzuk erakusten digutenak Amiküzen gaudela eta ez beste inon: errate batera, *küxkandel(a)* ‘sugandila’ aldaerako bigarren *-k-* hori, ziur aski Xiberoan sortua da, aldaera sorta honen

hedadurari so egiten badiogu: *siiskandea* dago Xiberoan, *suskandila* Oztibarren, eta *suangila*, *sugeaingira*, *subeaingila* edo *subebandi* Baxenabarre hegoaldean; alta, berezia da *küxkandel(a)* konbinazioa, lehen *k-* asimilatu hori Amiküzen berriztatu da, endemikoa da

Liburu honetan agerian utzi dugunez, Amiküzen ez dira horrenbeste ezaugarri espezifiko edo eskusibo baliatzen, guti dira darabiltzaten berezko ezaugarriak, ale endemiko guti batzuk baizik ez ditugu aurkitu; honela, bakan dira Oztibarre aldekoak, Baxenabarre orokorrekoak edo Zuberokoak ez bezalakoak diren Amiküzeko ezaugarri endemikoak. Teorian ezaugarri endemiko hauen sorreraren balizko arrazoaia, Donapaleu hiriarren inguruko gizarte-dinamikak Amiküze eskualdean eragin duen giza-errutinizazioa izan dateke, hiri honen ingurumarian iduri luke hedatu direla eskuin-ezker eta peko alderdirat, baita jende kaskoinen bizilekuak bitarteko ibarreko iparreko herrietaraino ere.

8.3.2. Nolanahi ere den, arestian zerrendatu ditugun amiküztarren berrikuntza espezifiko horiek, *a* → *i* artekoak, eskualdeari hizkuntza-nortasun berezi hori ematen diotenak, ez dira testuetan berandu arte ageri; horren berankorra ote da Amiküzeko ^heskuararen izaera eta nortasuna? Ez jakin. Hurraren sailean honelako ezaugarrien adibideen sorta bat dakargu, lehen agerpen idatzien berri emanik:

- Partizipio eta etorkizun atzizkien loturako *-tuko* & *-tüko* → *-tiko* palatalizazioaren idazkietako adibide zahar bakarra XVIII. mendekoa da: *maitalitico* (1786: 13), testu hartan beste adibide guztiak *-tuko* dira: *adoratucio* (13), *barcatucio* (85), *beiratucio* (13, 88), *cehatucio* (86), *gouticiatucio* (14), *ohoratucio* (13)... Ondotik ez da gehiago ageri Bourciezen 1894ko itzulpena arte: Gabadi eta Garrüzen *hartico* (130, 132); Donapaleun *hartico* (102-4)⁴¹⁸
- Muga adlatiboko *-radio* aldaera ez da testuetan ageri: ez XIX. mendeko Donapaleuko katiximan —*tenoreano* (225), *bulharretaano* (227)—, ez Jauregiberriren 1891ko itzulpenean —*fundamenerano* (76); *ahi arteraino* (78)— ezta Cerquand-en XIX. mende bukaerako Oragarreko ipuinetan ere: *elizaraino* (93), *hamaketeraino* (sic, 96), *zabaleraino* (96). Bourciezen parabolan ez da muga-adlatiboko atzizkirik ageri

418 XIX-ko Donapaleuko katiximan ez da ageri —*barkhatuco* (225), *geldituco* (242), *juntatuco* (242)—, ezta Jauregiberriren itzulpenean ere: Peillenen 2015eko argitalpenean *baliatüko* (73), *entrentenitüko* (70), *ezaütüko* (71, 74), *freskatüko* (74), *ganzütüko* (77), *hartüko* (75), *hurtüko* (71), *khendüko* (73), *lehertüko* (76), *pikatüko* (76), *preparatüko* (72), *sendotüko* (74), *xilatüko* (75) adibideak ditugu.

- Adizkiko *gu* morfemaren higadura fonikoa ez da 1894 arte ageri, haur prodigoaren parabolaren Aiziritzeko aldakiak dakar: *cantatcen dic éta irouz, guitouc* (105)
- Hiketan Nor saileko *gitzan* ‘gaitun’ & *gitzak* ‘gaituk’ adizki berriak ageri dira Amiküzzen; Garrüzen baita *gützak* aldaera ere; XIX. mende bukaerako Bourciezen parabolan *gutzak* & *gützak* aldaerak ageri dira Uhartehirin (144), Oztibarreko Arhantsusin (149) eta Zuberoako Etxarrin (129)
- Ez da ageri testuetan **edin*-en saileko *leteke*, *neteke*, *zeteke*, *deteke* erako adizkirik, *deiteke* (1786) eta *leite* (1782) bai, baina orain amiküzta-
rren ahoetan entzun daitezkeen soilagoko horiek ez

8.3.3. Badira, bestalde, testuetan berandu ageri diren edo batere ageri ez diren ezaugarri haboro ere, geografia-hedadura handiagoa dutenak; hona sorta bat:

- Izen pluralen instrumentaleko *-etaz* atzizki aldaera berria ere ez da eskualdeko testuetan ageri: cf. XIX-ko Donapaleuko katixima: *othoitzez*, *barurez*, *limosnez*, *induljentziez* (242), *egin bekhatiez* (243), *egin bekhatu guziez* (245)
- Analogiak eragin Baxenabarre gehieneko *izan* aditzeko *ginden* ‘ginen’ & *zinden* ‘zinen’ edo *ginten* ‘ginen’ adizki berritzaileak ez dira eskualdeko idazki zaharretan ageri
- “nihork” + “-ek” ergatibo pleonastikoaren adibideak ere XIX. gizaldiaren bukaeran ageri zaizkigu, Bourciezek bildu parabolan; eman dezagun, Martxüetan *nihokec etzacocien déusic émainten* (138) eta Donapaleun *bainan néhokec ezakoten yéous émainten* (103)
- Nor Nori aditz saileko *zata* ‘zait’ erako adizkiak XIX. gizaldiaren bukaeran ageri zaizkigu. Cazenave Bithiriñako apezaren Donapaleuko katiximan ez da ageri —*emaïn zautan* ‘zaidan’ *penitentziain egiteko* dakar (225)—, baina leial irudikatu ote zen Donapaleuko mintzoa Cazenaveren itzulpen honetan? Bourciezek 1894an herrietako errientei itzularazi haur prodigoaren parabolan *zaut* dugu Amoroitze eta Behaskane-Laphizketako aldakietan, baina *çatana* ‘zaidana’ Aiziritzekoan. Trebitschek 1913an behautzar baten etnotestuan *sü lothu zatazün* ‘zitzaidan’ *eskian eta oro erre* dakar (67); alta, ez da oraineko tempuseko adibiderik ageri

8.4. Donapaleu sorburua: batasunaren eta aniztasunaren artean

8.4.1. Egun industria aldetik Donapaleu hiriak presentzia, eragina eta indarra badu ere, Donapaleun ^heskuara arras ahul dagoen garaia da oraingoa, izan ere bilakabide ekonotekniko berritzaileek hein handian ahuldu dituzte tradizioko euskal laborarien giroa eta mundu-ikusmoldea. Alta, euskaraz ziharduena iraganeko Amiküze hartan Donapaleuko berezko dinamikak eta ostiraleko merkatuak berebiziko garrantzia ukan dute eskualdeko jendeen hartu-emanetan, errutinizazioan eta gizarte-sareak finkatzeko eran, horregatik, Amiküze eskualdeko hizkuntza-berrikuntza eskusiboak hein batez Donapaleurekin edo bertako dinamikarekin bederen lotzeko arrazoiak badirela uste dugu.

Eskualdeko buru egiten duen Donapaleu orain den baino euskaldunago izan da historikoki: laborari eta abeltzain bizimodua euskaraz eraman duen gizarte-egitura baten barreneko buru ikusi behar dugu iraganean Donapaleu hiria. Ekonomian eta zerbitzuetan halako buruzagitza eduki izanak nola edo halako prestigioa eman ohi dio. Donapaleuren erakarmen indarrak, bertako euskaldunekin usu jardun beharrak eta hiri orori darion balizko prestigioak nolorebaiteko hizkuntza-batasun bat eragin ahal izan du inguruan, eskualdeko hitzunek inoiz hiriko mintzamoldearen ezaugarri edo era batzuk berenganatu dituzkete, haiek bezala mintzatzeko hautu intuitiboa egin dukete, hiri horretara usu jotzera behartu baitira.

8.4.2. Hemendik kanpo ere, hirian eta hiriaren ingurumarian gauzatzen den ekonomia eta kultura-nagusitasunak halako erakarpen bat ukan ohi du inguruko herrietako jendeentzat, halako hizkuntza-batasun edo berdintasun moduko bat eragiten duena, hiriko ezaugarri batzuk ingurumarian hedatzen direlako, hartako, hiriaren ondoko herrietan ere agertzea itxaron beharko genuke. Donapaleura zerbitzu zenbaiten bila jorik, bertan elkartu ohi diren amiküztarren bilgune izan da hiri hau, hartu-emana, gizarte-sareak, elkartasuna, errutinizazioa eta balizko hizkuntza-batasuna eragin dituzkeena.

Baina prestigioaren arrazoiak landa, hemendik kanpoko dialektologiako lan frankok erakutsi du eragin berritzaile eta aldatzailea izan lezakeen bizigunea ere badela hiria (Alexander 2007, Bortoni-Ricardo 1985, Bynon 1981 [1977], Cortelazzo 1969, Chambon 2004, Montes Giraldo 1982, Nordberg 1994, Radtke 1998, Ronjat 1980 [1941], Veny 1986, Villena 1994, Wiemer 2004).

Donapaleu elkarretaratze gunea izan da eta bertako merkatu eta ostatu gunetan herri frankotako amiküztarrak eta auzo eskualdeetakoak elkarren ondoan gertatu dira. Herritik hirira ezkontzera edo bizitzera doazenek ere beren formak daramatzate hara eta barne aldakortasuna hazten dute. Balirudike arrazoi honek hiriak eta haren prestigioak ingurumarian eragin hizkuntza-bata-

sunaren aurkako ondorioa ere ukan lezakeela aldi berean: hiri-dinamika horren elkarretaratze giro berezian hizkuntza-ezaugarrien halako elkartze edo nahastea sortzen da eta horren isla hizkuntzako ezaugarri berri batzuetan ageri da, *mixture* kutsuko nahas-mahas bidezko hiriko hizkuntza-ezaugarri berrietan. Hiriko ezaugarri berri horiek ez dira berehalakoan nagusituko, baina herri ttiketarik Donapaleura usu joaten den jende hori bera da berrikuntza horien eramaile herrira itzultzen denean.

Donapaleuko nahasketa giro berezian sortuak diratekeen ezaugarri berri horiek hirira usu jotzen duen herritarrak haren herritarren aitzinean eta behar-bada baita familiakoen aitzinean erabiltzen hastearekin, ezaugarriak hedatzen has daitezke eta nolaz xuxen ez dakigula, hedatuz doazen ezaugarriak inoiz errotzen dira, hartako erran ohi da hizkuntza-ezaugarri baten hedaduraren arazoiek eta ondorioek elkar elikatzen dutela. Konparazione, teorion ez da ulergarri sarrikitarrak, oragartarrak, lohitzüntarrak edo bithirindarrek sortu berrikuntza bat hedatzea eta Amiküze eskualdean gaïndi zabaltzea, hiriko dinamika berri-tzailearen eskemak uste dugu hobeki funtziona lezakeela argigarri, baina ezaugarri berri bakoitzaren kasua xuxen aztertu beharko genuke ondorio generikoak atera baino lehen eta ez da hori egokiera aiseta.

8.4.3. Hiriak aniztasuna ukan ohi du mintzoaren aldetik, ondoko eskualdeetako jendeek bizitzera hirira jotzen dute eta geografia-alderdi bat baino gehiagotako ezaugarriak entzun daitezke hirian aldi berean eta nahaska; honela, hiriko hizkuntza-aniztasunak eraginik berrikuntzak ager daitezke hiriko mintzoan, dela nahasketak eraginik edo dela prestigioak hartaraturik, izan ere, usu ikusi dugu hiria ingurumariko herrietarik hizkuntzaren bidez bereizi dela, halako nahikari burgesa du hiritarrak laborariak ez bezala mintzatzeko (Dalen 1993, 1999).

Hirian hizkuntza-aniztasuna egon daitekeela ez da afera berria; Donapaleun bi hiztunekin egonik gaude berri: bien aita-amak Donapaleuz kanpo sortuak ziren; *ü* egiten ez duen eta *-tuko* → *-tiko* berrikuntza ere egiten ez duen hiztunak ama oragartarra zuen, aita Labetzekoa eta senarra Donapaleukoa; iduri luke amaren mintzoari loturik egon dela. Beste hiztunak *ü* argi ahoskatzen du eta *-tiko* berrikuntza ere baliatzen du; ama Garaziko Aintzilakoa zuen, baina aita Behaskanekoa. Hirietan gauza arrunta da honelako aniztasuna agertzea, nahiz teorikoki bederen hiriko mintzoa ondoko herrietara hedatzeak ingurumarian halako *levelling* edo mintzo-bateratzea eragiteko aukera handia duela ere onetsi beste biderik ez dugun.

8.4.4. Baina hizkuntza-aniztasunaren gaiaz dihardugularik ez ditzagun jauntxoak ahantz, jauregien, lurren eta are etxe anitzen jabe ziren jende boteretsu haiek. Jauntxoek eskumenean zeuden lurren ustiatze sistemak etxetiargoa eragin du hondarreko mendeetan bederen. Etxetiargo honek garrantzia eduki ahal ukan

du Amiküzeko hizkuntza-ezaugarrietan: jendea haren aita-amena ez den etxe batean edo aita-amena ez den herri batean sortu ahal izan da usu, ezkontzean beste etxe batera jo, eta familiatu ondotik ere beste herri bateko beste etxe batera jo dukete hainbat amiküztarrek azken aspaldian, non nola, noiz nola; usu entzun dugu lelo hau lekukoengandik.

Barne-higidura ohitura horiek ere litekeena da eskualdeko mintzamoldean halako batasun edo kohesio era zenbait garatu izana, elkarrekin erdi nahasian ibili baitira eskualdeko herrietako amiküztarrak, lan egin beharrak eta maitasunak —edo ezkontzek bederen— elkarren ondoko herrietako jendeak hartu-emanen jarrarazi dituzte luzaz; ez ote du honek halako *levelling* edo berdinkatzea eragin eskualdeko ^heskuan?

Kontrakoa gertatu izana litzateke harrigarri, elkartasunak hizkuntza-zati-keta eragitea. Elkartasun horrek aniztasuna eragin dezakeela ez dugu ukatzen, eskualde bateko baino gehiagotako jendea eta haien mintzoak elkartzean, baina prozesu honek belaunaldi pare baten buruan halako hizkuntza-batasun maila bat eragin dezakeela ere ez dugu ukatzen ahal. Eta gure ustean bada halako mintzo nuklear batu iduri bat edo Amiküzen, nahiz honekin ez dugun adierazi nahi Amiküze hizkuntzaz eskualde homogeneoa denik, apariantziarik ere!

8.5. Berrikuntzen hedadura: Amiküzeko erdigunea vs. saihetsak

8.5.1. Donapaleu ez da hirigune hazi bakarra eskualdean, beste grabitazio-indar linguistiko batzuen menpe ere egon dira historikoki Amiküzeko herriak, batez ere eskualdeko saihetsetan kokaturik daudenak. Donapaleuren erradiotik urrunxeago kokatzen diren herrietan gertatzen da ahulen Amiküze eskualdeko berrikuntza endemikoen eragina; eman dezagun, *-tuko & -tiiko* → *-tiko* berrikuntza ahul ageri da edo ez da ageri mendebalean Oragarren eta honen auzo Bartan, hegoaldean Behauzeko mendebaleko hitzun baten kasuan eta hego-ekialdean Uhartehirin. Egiazki Uhartehiri Donapaleuren auzo herria da, urrun dela errateak ez luke kanorerik, baina herri honen kasuan pentsa liteke ere, beharbada Garazi-Oztibarre ardatzeko hizkuntza-ohiturek Donapaleutik hegorat etor zitekeen hizkuntza-eragin berria hein batez neutralizatu ahal ukan dutela.

Ibarraren saihetsetan diren herrietan Amiküzez kanpoko hizkuntza-eragina ageri da: Uhartehirin Oztibarre-Garazikoa, eta Ostankoan ere segurki, honek ondoan Landibarre duela ahanzi gabe. Eta bestaldean, Amiküzeko mendebalean Hazparne alderdiko mintzoaren eragina sentitzen da, ibarraren ekialdeko herrietan Xiberoako euskara bereziarena ageri den bezalaxe.

8.5.2. Donapaleura hurbil —batez ere Amiküzeko iparrean—, kaskoin jendeek amiküztarren gizaratean eta mintzoan eragin ahal ukan dutela ere aintzat

hartzekoa da; *u* eta *ü* bokalen sistema berria eskualdeko iparrean eta erdigunean kokatu da, hizkuntzan eragin du eta ondorioa bederen geografikoa da: kaskoinekiko hartu-eman zuzenagoan bizi izan diren amiküztarrek berriztatu dute *u* bai-zik ez duen bokal sistematik → *u* eta *ü* dituenara, baina dinamika geografikoan gertatu da hori, auzokotasunaren arabera: amiküztar ipartarrek eta erdiguneko frankok bai eta ondoan Baxenabarre zabala ukan duten hegotarrek, berriz, ez.

Ez dugu ikusi ezaugarri honen geografia-hedadura berean doan beste hizkuntza-tasunik; errate batera, zuketa alokutiboaren geografia-hedadurak ez du zerikusirik *u* - *ü* bokal sistemak duenarekin: Haasek dioena dioela (1994: 176), guk segurik ez dugu ezagutzen *ü* berriak hartu duen hedadura bera duen beste ezaugarri berririk Amiküzen.

Nolanahi ere den hizkuntza-gertakari batzuk bederen aspaldikoak dira eta ez ditugu nahi bezain ederki eta sakon ezagutzen, izan ere, errate batera, egun Oragarreko Barta auzoan badira kaskoinak eta ondoko Bardozen ere bai eta halaz ere, Barta kartierreko egungo euskaran bederen ez da kasik *ü*-rik sumatzen; ez dakigu xuxen berrikuntzak noiz gertatu diren, haien ondorioa ezagutzen dugu, haboro ez. Badakigu, ordea, Oragarren auzo berria dela Barta eta hain segur ez dela *ü* galerarik gertatu bertako euskaran.

8.5.3. Baina eskualdera heldu den eraginaz landa, Amiküzeko ^heskuaren eraginaz ere mintzatu behar da: Donapaleutik eskuin indarrez eragiten du Xiberoa alderat, Domintxaine, Berroeta, Etxarri, Ithorrotze, Olhaibi, Artüe, Sarrikotapia, Oihergi edo Pagola herrietarat eta hegoaldean badakigu Landibarreko Behaune auzoan ere badirela tasun batzuk gainerateko landibartarrenak edo arberoarrenak ez bezalakoak direnak, hain zuzen ere amiküztarrek baliatzen dituztenak baitira. Amiküzez kanpoko Arhantsusin ere ageri da Amiküzeko euskararen isla: egiazki, hiztun oztibartarrak berak dira honetaz ohartzen lehenak. Amiküztarrekiko hartu-emanak eraginik, eskualde horietako euskaldun zuberotar, oztibartar edo landibartarrek berenak ez ziren hizkuntza ezaugarriak entzun, eskuratu, berenganatu, eraman eta errotu dituzte, amiküztarrei hartuak dituzte; gizarte aldetik historikoki Donapaleu hiri ahula izan balitz, hizkuntza-eragin hori ez zatekeen inolaz ere gertatuko.

Donapaleuren eraginaz dihardugunean ikusi behar da ea Amiküzeko ezaugarriak Uhartehiriz edo Ostankoaz harat Oztibarre alderat ere hedatzen diren edo Uhartehirira eta Ostankoara baizik ez diren heldu, izan ere, ez da gauza bera Uhartehiri edo Ostankoa Amiküze gehienarekiko bereizten duten ezaugarriak zaharrak ala berriak izatea, honelako datuek hainbat argibide emanen ligukete Donapaleuren hizkuntza-eraginaren balizko aldi edo sasoiez.

Gure ikuspegian, hondarreko garai honetan bederen Sarrikotapea eta Oihergi dira zubereratzat jo dezakegun mintzoa egiten duten lehen bi herriak eskualdean, baina ez da zalantzarik Olhaibi batean edo Etxarrin eta bereziki Ariñen zubereraren eite hartuz doala euskara, indar handiz gainera. Domintxaine eta Berroetaraino uste dugu heltzen dela Amiküzeko euskararen eragin nabar-menena, bertatik eskuinera emeki-emeki Zuberoako eretarat jotzen du euskarak, baina ikusi dugun bezala, badira Baxenabarreko ekialdean gaindi datozen ezaugarriak eta Amiküzeko berrikuntzak, ez Sarrikotapera bakarrik, are Ainharbera-ino ere heltzen direnak, Etxarri, Olhaibi, Lohitzüene, Oihergi edo Pagolan gaindi; iraganeko Donapaleuko gizarte dinamika indartsua salatzen dute Amiküzen gaindi Zuberoarat sartu diren berrikuntza hauek.

8.5.4. Eta alderantzizkoan, Xiberoatik heldu den hizkuntza-indarra ere aipagarri da. Ez gara ausartzen euskarari doakionez Mauleri halako eragina aitortzera, izan ere, mintzoz euskaldun ez ziren bearnesak buru izan baitira luzaz hiri honetan, baina honek ez du erran nahi Zuberoak Amiküzeri eskuinetik hizkuntza erakarpenik eragin ez dionik; ezin liteke bestela eta honela izan da, hizkuntzak ezagun du. Eskuinera lerratuz eguzkialdera goazen ber, Amiküze ekialdeko herrietan ohiz Zuberoakotzat jotzen ditugun hizkuntza ezaugarrien agerpena areagotuz doa, Zuberoako muga-mugan diren herrietan: Arbotin, Zohotan, Arberatzen, Laphizketan...

- Alderdi fonikoan *i - ü → ü - ü* asimilazio mailarik gaitzena Amiküzeko ekialdean ageri da; konparazioe, Arbotikoak dira *lübürü, üdüri, ülhüntze, üngürü*. Eta aditzaren morfologian ezaugarri honek duen islari doakionez, Arbotin entzun dugun aldaera batek nabarmen Zuberoari so jartzen gaitu: *zünien* ‘zenuen’, *zünian* eta *zünin*, hirurak eman ditu herri honetako gure bi lekukoetarik batek
- Galdetzaileetan kutsu zuberotarreko *nur* (Zoho, Laph) & *nurbera* (Laph), *nula* (Zoho) entzun ditugu Amiküzeko ekialdean; denborazko galdetzai-lean kutsu zuberotarreko aldaera ez da hain ekialdean gertatzen: *nuiž* (Sar) & *nuižnahi* (Bith, Ame); ez hain ekialdean ere, *zuin* dugu Amiküze erdialdean (Lab, Gab) nahiz ekialdean (Arbo)
- Zuketan *joan* aditzaren trinkoetan, Amiküzeko gainerateko herrietan ez bezala, Zuberoan bezala *o* erroa entzun dugu Arbotin eta ez *i*
- Arbotin entzun dugu *deskargi* ‘deskargatu’, partizipioak eratzeke Zuberoko sistema berrian legez; Amiküzen ez dugu aldaera berri hau beste inon entzun
- Zohotan *jeste diat, jestatü diat & jesta zak* bildu ditugu, baina Trebitsch-ek, ordea, *jastatu* dakar Amorotzen 1913-ko etnotestu batean

- Arbotin ez bezala —*erranez* eta *phaatüz*, partizipio bururatuak entzun ditugu—, Zohotan moduzko perpausetan *libertitzez* aditz-izena entzun dugu eta ez “-tuz”
- Alderdi lexikoa ere aipa dezakegu: *eho* ‘hil’ hitza Laphizketan agertu zaigu, *eli bat* Zohotan, *khunde* elea Arbotin —*neskato khundia*—
- Amiküzen *ahatze* ‘ahantzi’ agertu zaigu (Bith, Ilh, Zoho); berebat, Amiküzen nagusi den *artio* postposizioa *artino* da ekialdeko saihetsean: (Sor, Laph); Zohotako lekukoak, berriz, gehienik *artino* aldaera baliatu du, baina baita *artio* ere; *entzün* ageri da Zohotan, Zuberoako gisan; *erri in* ‘irri egin’ entzun dugu Zohotan *irri in*-ekin batean eta Behaskanen, berriz, *habia* ‘habia’ aldaera; Ilharren *hautse* ‘hautsi’ baliatzen da; *xainkhüz* ‘errenka’ aldaera Laphizketan entzun dugu
- Atzizkietan *-tarzün* ahoskera zaharra aipa daiteke (Arbe, Laph) edo haren kide *-tarsiin* (Zoho, Arbe / Pag)

8.5.5. Artean euskal dialektologian biziki aipatu da Zuberoako euskarak Amiküzen eragina ukan duela, baina begien bistan dagoen gauza da amiküzta-rrak hizkuntza-konstelazio bat baino gehiagoren menpe egon direla.

Donapaleu inguruko berrikuntza batzuk Uhartehirirat edo Ostankoarat heldu ez izanak edo ohiz Garazi-Oztibarre-Landibarre alderdikotzat jotzen ditugun ezaugarri batzuk Amiküzeko hegoaldean agertzeak Donapaleu eskualdeburuaren hizkuntza-eragina erlatibizatuko luke, adieraziko luke Amiküzerat beste berrikuntza batzuk ere etorri diratekeela:

- a) Garazi-Oztibarreko edo
- b) Landibarreko edo
- c) mendebaleko Baxenabarreko ardatzetarik

etorri diratekeela, eta Donapaleuko hizkuntza-berrikuntzak neutralizatzeko bezainbateko indarrez, gainera.

Amiküze hegoaldean ezagun du Uhartehiriko eskuaran Oztibarre eta Garazitik heldu den hizkuntza-eragina ez dela urrun: Gabadiko hiztunak ere sumatu du eragina:

eta geo beRiz hasten tzi, UaRte, UaRtetik haat hasten tzi OztibaReko heskuara

Ageri denez, herri honetako zenbait ezaugarri peko eskualdeetako joeretara lerratzen dira; batzuen eta besteen arteko hartu-emanak ezaguna da; gure lekuko

bithirindarrek dioskutenez, herritarrek hartu-emana dute Oztibarre aldeko jendeekin, baita familia bidez ere; hona Amiküze hegoaldeko ezaugarri batzuk:

- ostankoarrak eta bithirindarrak barne amiküztar gehienek etorkizuneko aditzetan ematen duten *-tiko* berrikuntza ez dute uhartearrek onetsi, gainerateko baxenabartarren *-tuko* orokorra ibiltzen dute
- Ostankoan entzun dugu *ie* ez den *ii* edo antzeko bokal lotura berezi hori: *ziin* ‘zuen’, *etziñ* ‘ez zuen’, *behar ziñ*... eta bada soilagoa ere: *gintzin* ‘genuen’ zuketan; alta, honek ez du erran nahi *ie* lotura Ostankoan ez denik: *zien* ‘zuen’, *ginien* ‘genuen’, *zizien* ‘zuten’; nolana ere den, Ostankoak ez ditu urrun Arberoa eta Oztibarre; ibar horietan ere ezaguna da *ii* bokal asimilazio hau, ondokotasunaren eraginak azalduko liguke
- Arberoan, Landibarren edo Garazin legez, Oztibarrera edo Landibarrera hurbil diren Uharteherin eta Ostankoan xuketa alokutiboa baliatzen da
- Amiküze mugako herria izanik eta Oztibarrerekin hizkuntza-kidetasuna duen aldetik, ulergarri da datiboko lehen pertsonaren morfeman Uharteherin *da* agertzea: *dadatena*^k ‘didatenak’, *t’zaazun* ‘zidan’
- Ostankoan sistematikoki *denak* entzun dugu, ez Amiküzen ohikoa den *oro*
- *moltsa* ibiltzen dute Uharteherin eta Ostankoan, ez Amiküzen nagusi dabilen *moltsa*
- Ostankoan bezala *ezkondu* ibiltzen da Uharteherin eta ez *ezkundu*
- Oztibarren bezala *martxo* erraten da Uharteherin eta baita *zortzi* ere, ez Amiküzen anitz herritan, Ostankoa barne, entzuten dugun *marxo* edo *zorzi*
- nahiz *undarrian* ‘hondarrean’ ahoskatzen duten, *gizon* eta *konten* aldaerak entzun ditugu Uharteherin
- *joanak* & *joateko* & *joain* & *juaiten* erraten dute Uharteherin eta ez amiküztar gehienek *juite-*; Ostankoan, berriz, *joan*, *juan* eta *juiten* entzun ditugu, hiru aldaerak
- *jiin* ‘jinen’ aldaera entzun dugu Uharteherin, Arberoan entzun ohi den hura, ez Amiküzen nagusi dabilen *jien* edo *jein*; Ostankoan ere *jein* entzun dugu
- Amiküze guztian bezala, baliatzen da etxe aitzina adierazteko *lobiru* Bithiriñan, baina baita *samats* hitza ere, zeinak Armendaritzen, Landibarren, Oztibarren eta Garazin oiloak ibiltzen diren etxe aitzineko alderdia

adierazten baitu; gaineratekoan, *samats* etxe aitzinean zegoen ote eta ongarri nahaskiari erraten zaio Amiküzen, eman dezagun, Oragarreko Barta auzoan eta Domintxainen

- Amiküzen ohikoa da *bezela* ‘bezala’ aldaera, baina Uhartehirin *bezala* entzun dugu, *a* eta *e* arteko bokala duena
- Amiküzen nagusi dabilen ordinalaren *-gerren* aldaera beharrean, *-garren* entzun dugu Uhartehirin
- Ostankoan “oihan” edo “aizo” beharrean *oihan* eta *auzo* entzun ditugu
- Amiküze hegoaldeko herrietan baliatzen da gure eskualdea Oztibarre-Garazirekin lotzen duen *bana* ‘baina’ aldaera ere (Bith, Ost, Uha), eta Amiküze saihetseko Oragarren ere bada *bana*, Aturrialdeko Bardozen bezala; dena den, Uhartehirin entzun dugu *bena* ere; halaz ere, Arbotin *bena*, *bana* eta *bna* entzun ditugu

Baina erran hauek guztiek ez dute adierazten Amiküzen nagusi dabilzan beste hainbat eta hainbat ezaugarri ibarreko hegoaldean kausituko ez ditugunik; eman dezagun, muga adlatiboan Amiküzeko tasun endemikoa den *-radio* atzizkia ageri da Uhartehirin: *noadio*.

8.5.6. Eta Oragarre eta ondoko herriez ere berdin erran genezake; ez daude herri hauek Amiküzetik laxaturik, eskualdeko ezaugarriak ageri dira horietan ere, baina eskuinera dituzten Amiküze gehieneko herrietan agertu ez zaizkigun eta Hazparnealdeko euskara eratzen duten ezaugarri batzuen oihartzun nabarmena sumatu dugu Oragarren eta ondoko herrietan. Sarrikotako lekukoak honela zioskun Oragarreko mintzoaz: *Oarre manexa da, bena han amiña at ibilten du... Istuizeko ta elgarreateko, na gañea* ‘bestelakoan’ *manexa da OaRe, e*.

Hazparne hiriak erakarpen indarra ukan du eskualdean, zehatzago errateko, Amiküzeko mendebalean; industriako gaiak eros zitezkeen hiri honetan eta aldi berean hazpandarrei laborantzako lehengaiak sal zekizkiekeen. Amiküzeko mendebala ez dago Donapaleutik urrun, baina ezta Hazparnetik ere. Ekar ditza-gun tasunok gogora:

- *diila* ‘duela’, *niila* ‘nuela’, *nitiin* ‘nituen’, *gintiin* ‘genituen’, *baginakiin*, *ziin* ‘zuen’, *zitiin* ‘zituen’ erako sekuentziak ageri dira Oragarreko hiatuetan eta Barta auzoan ere bai; ondoko Izturitze herrian, Arberoan, *ziniin* erakoak dakartza EHHA-k; izan ere, Bartan entzun dugu *jün* ‘jinen’ aldaera, Hazparneko XIX. mendeko katiximak dakarrena eta Arberoan entzuten dena

- arlo fonikoari dagozkio Lapurdiko kutsua gogorarazten diguten palatalizatu gabeko *dohaina* eta *gainean* aldaerak ere: Amiküze mendebaleko Oragarren entzun ditugu; Sarrikotan, berriz, *sasoin* eta *artzainak*; Oragarreko auzo Bartan *ohoinik* edo *sasuinian* —eta baita *ohointza* ere—, baina lekuko berak dioskunez ibiltzen dira *uhuña* eta *sasuña* ere; ondoko herrian *geinian* ‘gainean’ edo *phantzoila* aldaerak dakartza Izturitzen, Arberoa ibarrean *EHHA*-k
- edute genitiboan *-aan* atzizkia darabilte oragartarrek, Hazparnen legez; Arberoako Izturitzen *uraan* ‘uraren’ ageri da *EHHA*-n
- Lapurdiko kutsua hartu diogu Oragarreko Bartan entzun dugun *baniin bat ordukotzat eta...* perpauseko adizlagunari
- auzo herri Arrüetan *zaunkütelaik* ‘zigutelarik’ aditzeko *n* horrek ere Hazparneko alderdira so jartzen gaitu; ondoko Arberoan *zantan* ‘zidan’ edo *bitzankon* ageri da Izturitzen *EHHA*-ren emaitzetan
- ohikotasuna adierazten duen *johan* aldaera Bartan, Oragarren, Arrüetan eta Amorotzen agertu zaigu, betiere Amiküzeko mendebalean
- Lapurdin bezala *hazila* entzun dugu Bartan, baina Amiküzen *azaro* (Amo, Sor); Bartan ezezaguntzat eman digute “azaro”
- Amiküze mendebaleko Sarrikotan entzun dugu *atheatzen* hitza; aldiz, Bartan erran digute ez dutela ibiltzen, *jelgi* baliatzen dutela
- berebat, Bartan *asko lekhotan bazuten labia* entzun dugu, Amiküzen entzun dugun *asko* bakar⁴¹⁹
- Oragarren entzun dugu *meiku*, Amiküzen ohiz *mezinder* dena
- aldaera batzuek ere konexio bera erakusten dute: Beskoitzen *gela* ‘ataka, langa’ edo *ateka* dena, *jela* da Hazparne, Bardoze, Bastida, Izturitze eta Amiküzeko Arrüetan; hondarreko herri honetan *jela & xela* ageri dira
- *jelgi & jalgi* aldaerak ageri zaizkigu Amiküzen, baina Oragarren *jali* entzun dugu, Heletan, Hazparnealdean edo Aturrialdean ohi den bezala, Bardoze barne; Bartan, berriz, *jelgi* entzun dugu
- Amiküzen beste inon ez bezala *orhoit & orroit* entzun ditugu Bartan, baina baita *eniz ohit* ere; berebat, Amiküzen ohikoa den *ai[ç]jeta* hitzaz landa *arratxa* ‘erraza’ ere entzun dugu Bartan

419 Oragarreko Barta kartierreko gure lekukoa Bartan sortua da eta Bartan bizi da; aita ere bartarra zuen eta senar zena ere bai, baina ama jatsuarra, garaztarra.

- Oragarren entzun dugu garbiki Baxenabarre orokorreko eta Lapurdiko *hогоi* aldaera eta Arberoa urrun ez duen ondoko Amorotzen, berriz, *ho^oi*
- Lapurdi aldeko eraginaren indarra erakutsi digute Oragarre herriko Barta auzoko *arno* eta *burraso* aldaerek; *aitatamak* bada Bartan, baina "ano" ez; Amiküzen beste inon ere ez ditugu *arno* eta *burraso* entzun
- Bartan entzun dugu *zuik* 'zuek' izenordaina ere, Lapurdiko Arrangoitze edo Uztaritze gogora dakarzkiguna
- Amiküze mendebaleko Sarrikotan entzun dugu *bazkaiten* 'bazkaltzen' aldaera eta baita *nintzen* ere, baina bi aldaerok eman dituen lekukoak bi urtez erauntsi zuten Hazparnen ikasten

8.5.7. Eta aipa dezagun Amiküze erdigunea: ez du hain hurbil Garazi-Ozti-barre ardatza eta Hazparne ere urrunxe du. Oro har erdigune hau *ü* eginez mintzo da, Oragarre, Amorotze, Bithiriña, Ostankoa edo Uhartehiri ez bezala, baina erdigune zabal honetako herri guztietan ez da *ü* bokalaren agerpen-maiztasunaren maila bera entzuten, edo guk bederen ez dugu honela entzun. Erdiguneko herri hauek ere ez dute horren hurbil Zuberoa, baina eman dezagun, Oragarren edo Amorotzen baino eragin handiagoa du euskara zuberotarrak erdigune honetan, nahiz erdigune zabal horretan herri batetik bestera aldea egon daitekeen, baina ez hein handian, guk uste.

Eta dialektologian ezaguna ere badenez, ezaugarri zaharren agerpen geografikoan ez dago halako guztizko logikarik ere; gerta daiteke Zuberoa ondo-ondoko herri batean gizon batek herskari hasperenduen ahoskera apala izatea, eta Oragarreko auzo Bartako emazteki batek hauek gardenago ahoskatzea, non, eta Zuberoa urrunen duen Amiküzeko bazterrean, horrexegatik diogu ondokotasunaren eta hurbiltasunaren logikak garrantzia duela, baina ez dela ezaugarri guzti-guztietan matematikoki ageri, ñabardurak egin beharra dagoela; hasperenaren galeran fonologia naturalaren erakutsia ere aintzat hartzekoa da. Alta, ezaugarri berrien hedaduran *continuum*-aren irudiak ongisko funtzionatzen du, dela hauek Hazparne aldetik etorriak izan, dela xiberotarren euskaratik jinak izan, dela oro har Euskal Herriko erdigune orokorretik jinak izan.

Halaz, Donapaleu urrun ez duen Amiküzeko erdigune zabal honek, Amiküzeko ezaugarri endemiko edo berezkotzat jo ditugun horiek guztiak edo gehienak ematen ditu mintzoan, bertako lekukoek ezagun dute amikütarrak direla, nahiz mintzoan ez diren Barta kartierreko, Oragarreko, Ostankoako, Uhartehiriko edo Zohotako amikützar periferiko bat bezain markatuak edo nabarmenak. Gure ikuspegian bederen, erdiguneko hiztun amikütarrak — eman dezagun, Martxüeta, Labetze, Ilharre, Altzümarta, Lüküze, Amendüze, Gabadi, Gamue edo Zohaztikoak...— neutroenak dira, ibarraren saihetsetako euskara-

ren eragina ahulen biltzen duten heinean: Amiküzeko mintzoaren gune-gunean leudeke herri eta hiztun hauek eta gure ustean, historikoki Donapaleu legoke mintzo honen aldaeren oinarri edo sorburuan, egun amiküztarren hiri hau kasik guztiz erdaldundurik badago ere.

8.5.8. Erraten ari garen bezala, Amiküzen bada halako mintzo nuklear eta neutro bat, baina ibar administratiboaren hegoalde, mendebal eta ekialdean ibarraz kanpoko hizkuntza-eragina biltzen du mintzoak, hartako, ezin erran genezake Amiküzeko euskara homogenea denik, saihets handiak ditu ibarrak, eremu lau nahiz menditsuak, otarreak, arto elgeak, ardi alderdi eta pentzeak, kaskoinekiko ondokotasuna eta gainerateko baxenabartarrekiko auzokotasuna... Oro har Amiküzeko administrazio-barrutia da homogenea ez dena eta hartako ezin mintzoak ere guztizko batasunik ukan. Amiküzen hogeita hamabi herri ditugu, aise erraten da, eta argi denez neke da horrenbeste herritan eta hain espazio zabalean hizkuntza-batasunik izatea, ez bederen Oztibarrekoa izan litekeen bezainbatekoa.

Aski ttipia da Oztibarre ibar luxanga hori; mendiz inguraturik dago eta hamabi herrik osatzen dute: *a priori* halako eskualde batek aukera handia luke mintzo homogeenaren ukaiteko. Oztibarreko hiztunekin hartu-emanen izan garelarik, eta Videgainen tesiko transkribapen luze eta bikainak irakurri ditugularik ere berdin, aski mintzo homogenea aurkitu dugu, batasun nabarmeneko. Lekuko oztibartarrei afera honetaz galdegin diegunean ez digute aurkakorik aipatu eta Videgain euskaltzaina bera ere irizkide da honetan (1989: 30, 38).

8.5.9. Amiküzera itzulirik, irudika dezagun mapa baten gainean gure ustean hondarreko mendeetan Amiküzeko eskualdea jo duten hizkuntza-eraginak nondik heldu diren, hala ibarraren erdigunean sorturik nola ibarraren saihestetarik jinik. Guhaurek egin interpretazioa da, hainbat ñabarduraren beharra lukeena, baina eginahal eta ikuspegi orokortako ulertzea nahiko genuke, *grosso modo* erauntsi dugu.

Hazparneko eragina argi ageri da Oragarren eta bertako Barta auzoan.

Baxenabarre erdialdeko euskararen isla Uhartehirin dakusagu indartsuen, eta hein apalagoan Ostankoan eta baita beharbada Bithiriñan ere; Amorotzen ere zerbaixko dakusagu.

Ezkerretik Xiberoako eragina Amiküze eskualdeko gizarte guztira heldu da, baina indar handienaz eskuineko saihetsean kokaturik dauden herrietara.


Erdiguneko eta iparreko Amiküzen halako batasun erlatibo dago, eskualdeko ^heskuararen *goihen gradoa*, baina ñabardurak egin beharko lirarteke: herri batetik bestera emeki-emeki isoglosa berriak agertuz doaz. Liburu hau ez da

gai hori xeheki jorrazeko leku egokia, Amiküzeko euskararen berri orokorra dakargu guk eta gerora ere, horretan erauntsi nahi duenak lan zehatzagoak egin litzake.

Eskuin, hori kolorea eman dugu Xiberoa gehiengan, zuberotar phürra edo plaña egiten den eskualdeetan, eman dezagun, Urdiñarben edo Ündüreinen; jabetzen gara, halaz ere, Baxenabarretik Urdiñarbera halako hizkuntza-eragin zerbait heltzen dela. Ezkerxeago, Amiküzeko euskararen eragina heltzen da Sarrikotapera eta ezaugarri batean edo bestean baita Ainarbera ere, nahiz bi herri hauetan euskara zuberotarra duten. Aldiz, Arüe, Oihergi eta Pagola Baxenabarreko eta Xiberoako ezaugarriak batera partekatzen dituzten herri mistoak ditugu, bertako euskaldunek badakite batera edo bestera mintzatzen eta horren irudikatzeko, hiru herriok trama batez nabarmendu ditugu mapan. Haratago, Etxarrin, Olhaibin eta Lohitzünen Baxenabarreko aldaerak ugariago dira eta horregatik, Zuberoako hori kolorea ahulago eman dugu hiru herri hauetan; ezker jorik, Ithorrotze, Domintxaine eta Berroetan gaindi emeki-emeki eta mailaz maila Amiküzeko euskarara sartuz goaz, horregatik, alderdi honetan horiaren eta berdearen arteko bateratze edo fusioa irudikatu dugu irudian.

Hona eskualdeko eraginen berri koloretan dakarren mapa:

3 MAPA



8.6. 1782ko *Pratica*-ko euskara Amiküzeko dea?

8.6.1. 1782koa da Akizeko apezpikutegiaren menpeko nafarrentzat itzuli zen Alphonsa Rodriguez-en *praticaren pparte*-a: Landibarre, Oztibarre eta Amiküze eskualdeetako fededunak zituen helburu. Itzultzailea Oztibarreko Ibarre herrixkako apez bat izan omen zen, Maurice Harriet-ek eduki zuen liburu honen ale batean idatzirik utzi zuenez (Lafitte 1982: 437). Lopez zuen deitura eta sortzez Jutsikoa omen zen, oztibartarra. Haren itzultze jardunaren hatza testuaren barrenean aurki daiteke, meza nola entzun behar den azaltzen ari delarik: *hemen utciric heuzcarala itçultcen dudan liburian idireiten diren misteriuen explicacionia...* (1782: 226). Liburua euskarara itzuli dela dakar eta jardun horren egiletza lehen pertsona singularraren bidez adierazten du, esplizituki gainera, irudi luke itzultzailea pertsona bat dela, bat bakarra. Arestian aipatu Harrietek bere alean idatzirik utzi zuenez (Lafitte 1982: 437), Lopezek itzultze lanetan lankide izan zuen Marc de Philippes d'Abense zuberotarra, Akizeko bikario nagusia, aitoren semea, Onizegainen sortua.

1782ko *Pratica* itzulpenean Zuberoako euskararen kutsu nabarmena dago, hartara, itzulpena egiteko Lopez Jutsiko euskararen oinarritu zela pentsa bage-neza, ulertu beharko genuke, egun dagoen baino Oztibarreko euskara XVIII. mendean Zuberoako euskarari hurbilago zegoela eta ondorioz, geroztik bata bestetik urrunduz joan direla, baina ez dugu ikuspegi hori lagundu lezakeen datu sendorik, zantzu zenbait baizik. Ikuspegi hori lagunduko luke Suarez d'Aulan apezpikuak 1740 inguruan Pauen argitararazi katiximako hizkuntza-datuak Alphonsa Rodriguezen 1782ko itzulpeneko datuekin bat baletoz, guti goiti-beheiti bi itzulpenak eskualde bertukoak direlako eta berrogeita bi urte inguruko aldean idatzi zirelako, edo katixima horren 1786ko berrargitalpeneko datuak eta *Pratica*-koak bat baletoz, baina liburu bateko eta besteetako mintzoak ez dira ezpal berekoak.

Ez dugu uste, bestalde, Alphonsa Rodriguezen idazkiaren itzulpen luzeak 1782 urte inguruko Amiküzeko euskara leial ordezkatzan duenik ere, nahiz hizkuntzalari anitzek iritzi hau agertu duten: Bonapartek, Darricarrèrek, Lacombe, Boudak, Villasantek eta Orpustanek. Auzia argitzeko edo frogatzeko orduko Amiküzeko euskara ezagutu beharko genuke, baina ez dugu ordukoa ezagutzen, XIX. mendeko zertxobait, XX. mendekoa eta oraingoa baizik. Eta bestalde, ez dugu arrazoi sendorik ikusten Oztibarreko apez jutsiar batek halako itzulpen luzea Amiküzeko mintzoan egin zezan, bere eskuaran egitea zukeen erosoena.

Zer da, bada, gaiari sendotasunez heldu ahal izateko hein batez bederen dakiguna?

8.6.2. Badakigu Amiküzeko eta Oztibarreko egungo euskara ez direla berdinak eta badakigu ere, 1782ko *Pratica*-ko mintzoa eta Amiküzeko egungo euskara ez direla berdinak. Badakigu, bestalde, 1782ko *Pratica*-ko mintzoa eta 1740 inguruko nahiz 1786ko Baxenabarre ekialdeko katiximetako euskara ere ez direla berdinak, 1782koa ez dela beste bien berdina. Amiküzeko egungo euskara eta 1740 inguruko nahiz 1786ko Baxenabarre ekialdeko katiximako euskara ere ez dira arras berdinak, baina badute beren arteko halako koherentzia; nolanahi ere den, 4.1.5. §-n bi katixima hauen eta 1782ko *Pratica*-itzulpenaren artean egin ditugun konparazioetan dagoen baino lotura gehiago. Eta era berean, Oztibarreko egungo euskara eta 1740 inguruko nahiz 1786ko Baxenabarre ekialdeko katiximako euskara ere ez dira arras berdinak, baina badute beren arteko halako koherentzia hauek ere.

Zuberoako euskara eta 1782ko *Pratica*-koa badakigu ez direla berdinak; cf. 4.1.5. §. Oztibarreko euskara eta 1782ko *Pratica*-koa alderatzen baldin baditugu, Oztibarreko egungo datuekin izan behar du, ordukorik ez da ezagutzen. 4.1.5. §-n aurkeztu dugun bien arteko alderaketak erakutsi digu datu batzuetarik bestetara aldea dagoela. Lopez jutsiarra XVIII. mende bukaeran *Pratica* itzulteko Oztibarreko euskaran oinarritu baldin bazen, *Pratica* liburuan ageri diren ezaugarri batzuen arabera ulertu beharko litzateke Oztibarreko Jutsiko euskarak geroztik Baxenabarreko mintzo orokorrera jo duela eta XVIII. gizaldian zuberotarrekin partekatzen zituen tasun batzuk galtzera lerratu dela, bai baitira 1782ko itzulpen liburuan ezaugarri berri zenbait, egun bederen Zuberoakoak baizik ez direnak, egun oztibartarrek ibiltzen ez dituztenak. Berrikuntza horiek Zuberoan sortuak diruditenez, eskuinean sortu, ezkererat hedatu eta Oztibarren galdu direla pentsatzea ez da ikuspegi ekonomikoena, hizkuntza errealitate arras berezia irudikatu beharko baikenuke: Zuberoan sortu berrikuntzetarik batzuk Oztibarre alderdira hedatu dira, XVIII. mende bukaeran Oztibarren ditugu, baina Zuberoatik ekarririkako berrikuntza haietarik batzuk XX. mendeko Oztibarren galdu dira eta beste batzuk ez.

Lopez 1782ko idazkitik XX. mendeko Amiküzeko euskarara eta garai bereko Oztibarrekora aldea dago eta baita 1740 urte inguruko Suarez d'Aulanen katiximakora edo 1786an Akizen argitaratu zenekora ere; aldiz, 1740 inguruko nahiz 1786ko katiximek eta XX. mendeko Amiküzeko mintzoak ezaugarri batzuetan bederen koherentzia gehiago dute elkarren artean eta 1740 inguruko nahiz 1786ko katiximek eta XX. mendeko Oztibarreko mintzoak ere bai. Gure ustean, Alphonsa Rodriguezen XVIII. mende bukaerako euskal itzulpenak Amiküzeko mintzoa islatzen duela dioen ikuspegiari ez zaizkio kontuak ongi ateratzen; eta alderatzean Amiküze ezarri beharrean Oztibarre jartzen bada ere berdin erran genezake; cf. Haase (1994).

8.6.3. Guk ez dugu uste 1782ko *Pratica* itzulpenean Euskal Herriko ekialdeko edo Baxenabarre ekialdeko garai hartako leku jakin eta erreal bateko euskara islatzen denik. Gure irudiko, Lopez zeritzon apez jutsiar hark Oztibarre eskualdeko euskarara egin euskal itzulpenari, bigarren esku batek, Marc de Philippes d'Abense Akizeko bikario eta Jutsiko apezak —liburuaren *ezcusco iskiribu*-ari 1872/III/12an onespena eman zion zuberotarrak—, edo hark agindurik beste zuberotar zenbaitek ukitu batzuk egin zizkiokoen, baina ez ditugu orduko paper haiek fisikoki ezagutzen eta diogun hau guztia hipotesia da, auziari argitasun amiñi bat eman nahi diona; Maurice Harrietek liburuaren ale batean idatzirik idatzi zuenez, Lopezek eta d'Abensek *en collaboration* jardun zuketan (Lafitte 1982: 437).

Bigarren aukera bat izan daiteke pentsatzea, d'Abense Akizeko bikario zuberotarrak Lopez apeza ongi ezagutzen zuela eta harengan Baxenabarre eta Zuberoa *junta*-ko idazle euskaldun bidialektalaren gaitasuna zekusala, funtsean testua Oztibarreko euskarari idatz zezan, baina halako kutsu zuberotar bat emanik, euskara nahasixean idatzirik eta Zuberoako ezaugarri zenbait euskal idazkian ager zitezen, d'Abensek bazekielako Oztibarre - Zuberoa giro bidialektalean usaturik eta zaildurik zegokeen Lopez jutsiarrarentzat hizkuntza-tasun xiberotar horiek ezagunak zirela eta horiek euskal liburuan emateko gai zela, hain zuzen ere d'Abenserren helburua izanik xiberotarrek ere 1782ko liburu itzuli honetako euskara aski ongi uler zezaten. Lopezen itzulpenean bada Zuberoako euskaratik alderdi franko: beharbada d'Abense laguntzaile eta Akizeko bikario nagusiak testua zuberotarrek ere ulertzeko modukoa izan ledin nahi izan zuelako edo zernahi arrazoi idurigitatik. Hau honela izan baldin bazen, aitortu behar da eskualde bateko eta besteko ezaugarriek testuan duten agerpen maiztasunak eta distribuzioak ez dutela azalpen errazik: ezaugarri baxenabartarrak ausarki ageri dira; bakan, berriz, zuberotarrak eta arras era aleatorioan.

Euskaltzaindiak Bilboko Azkue bibliotekan duen *Pratica*-ren aleko 456. orrialdean garden ageri da zuberotarrek ere balia zezaketela liburu edo itzulpen hau; Muskildiko Marie Elgartek baliatzen zuen 1833an: *ci ce livre ce perdoit*⁴²⁰ *comme pouroit faire rendre á Marie Elgart de Musculdy le 5 avril 1833*.

Egiazki, Lopezen herri Jutsitik Zuberoako Pagolara bide zuzena dago mendiz, kilometro batzuk baizik ez eta Pagolatik Muskildira ere berehala gaude, Oxkaxe gaintitu besterik ez da behar. Lopez jutsiarra Ibarre herrixkan zegoen apez, etxetik arras hurbil, Baxenabarren, Oztibarren; Ibarretik abiatu, Oxkaxe gaina iragan eta lehen herria Muskildi da, Zuberoakoa. Kilometro guti zegoen euskaldun batzuen eta besteen artean, herri batzuen eta besteen artean, eta abel-

420 Frantses zaharra ikertzen duen Begoña Agiriano UPV/EHuko irakasleak dioskunez, XVII-XVIII. mendeetan *-oit* zen aditz imperfektu eta baldintzazkoen desinentzia; ondotik *-ait* eman zuen.

tzainen gizartea zen hura, mendira aise jotzen zuena, Baxenabarre eta Zuberoako euskaldunak aise elkar zitezkeen mendian udako bazkalekuetan.

Lopez jutsiarrak egin itzulpenari d'Abense zuberotarrak hizkuntza-ukituak egin zizkiolako froga fisikoak aurkitzea orain aise ez bada ere, hizkuntza-ezaugarri zenbaitek iradoki lezakete bigarren esku bat edo bigarren hizkuntza-irizpide bat ere izan zela 1782an argitaratu zen liburuan, dela itzulpen garaian, dela euskal itzulpenaren eskuizkribua Avignongo inprimategira eramateko garaian, dela inprimategiak baliatu zuen apografoan.

Aitor dezagun, bestalde, Lopezek Oztibarre eskualdeko euskara oinarritzat hartu zuela diogunean, ez garela ukatzen ari oinarria orduko Amiküzekoa ere izan daitekeela, baina sobera guti dakigu bi eskualdeotako orduko mintzoaz edo mintzoez. Arestian adierazi dugun bezala, ez da zertan pentsatu ere Lopezek Oztibarreko berea baztertu eta Amiküzekoan idatzi zuela, lehen hipotesia beharko luke izan Oztibarrekoan ondu zuela. Nolanahi ere den, guretzat garrantzia duena beste auzi bat da: 1782 hartako Baxenabarre ekialdeko *Pratica* itzulpenean badira Amiküze edo Oztibarre eskualdekoak ez, baizik eta egun bederen Zuberoakoak diren hainbat hizkuntza-ezaugarri; ezaugarri horiek Zuberoakoak izateaz landa garai hartan Amiküzekoak edo Oztibarrekoak ere izan balira, nolaz ez ziren agertu gure eskualdeko 1740 inguruko eta 1786ko katiximetan?

8.6.4. 1782ko *Pratica*-ko datu eta adibideak 4.1.5. §-n ikusi ditugu; orain gogoeta bat edo beste eta datu alde bat aurkeztu nahiko genuke. Ez dugu ukatzen XVIII. mendeko Baxenabarre ekialdeko euskaran egun Zuberoakotzat jotzen ditugun ezaugarrien agerpena oraingoa baino ugariagoa izateko aukera, ez inola ere; adibidez, Bonapartek inprimarazi Ibarrolako Salaberri oztibartarraren 1856ko hiztegiiko aldaera batzuek ere ikuspegi horretara lerratzen dute balizko errealitate hura: egun ohiz Zuberoan ibiltzen diren hitz eta aldaera zenbaiten adibideak dakartza orduko hiztegiak, ziurrenik bi euskalkien mugaren ingurumari hartan garai hartan ezagunak edo ibiliak zirelako.

XVIII. mendeko Amiküze eta Oztibarreko euskara gehiago lerratzen ahal zatekeen Zuberoakora egun lerratzen den baino, baina erran honetatik ez da jarraitzen 1782ko *Pratica*-k dakarren hizkuntza-ezaugarrien konbinazio espezi-fiko hori orduko Oztibarreko edo orduko Amiküzeko herri zenbaitetako zinezko mintzoa denik, guztiz besterik da hori pentsatzea. Aurkako norabideko adibideak ere aurki daitezke, gainera; egun Amiküzeko iparraldean *hautse* 'hautsi' (Ilh / Dom, Oih, Pag) aldaera ageri da eta ibarreko ekialdean *jeste* 'dastatu' (Zoho) & *jestatü* aldaerak, nabarmen Zuberoako *hautse* eta *txeste* & *txestatü*-ra jotzen dutenak, eta aldiz, *hautsi* eta *jastatu* dira 1782ko *Pratica*-n ditugun aldaerak, hain zuzen ere Salaberri Ibarrolakoak bere hiztegian dakartzanak: *hautsi* (81) eta *yastatu* (173). Beraz, oraingo aldiaren bederen bada eragin zuberotar bat

Amiküzeko iparraldean eta ekialdean ageri dena, baina 1782ko *Pratica* itzulpenean edo Oztibarreko Ibarrola herriko Salaberrik 1856an argitaratu zuen hiztegiari sumatzen ez duguna, hartako, erran dezakegu datuek ez dutela norabide bakarreko ikuspegirik ematen eta eraginaren hedaduraren edo norabidearen afera ez dagoela nahiko genukeen bezain garbi.

Guk ez dugu uste *Pratica*-ren itzulpeneko hizkuntza-ezaugarrien konbinazio espezifikorik orduko Oztibarre edo Amiküze eskualdeetako zinezko euskara leial ordezkatzen duenik. Egungo Oztibarreko eta Amiküzeko ahozko mintzoak eta Baxenabarre ekialdeko 1740 inguruko eta 1786ko bi euskal katiximek ez digute aukerarik ematen 1782ko *Pratica*-ko hizkuntza-ezaugarrien konbinazio jakin hori bi eskualdeotarik batean ala bestean kokatzeko.

Gure ustean, bigarren esku zuberotar batek, beharbada d'Abensek, bere lana egin zukeen Lopez jutsiarrak ondu itzulpenaren eskuizkribuaren gainean, edo inprimategiko apografoan bestela. Liburu argitaratuko aldaera "zuberotar" horien erantzulea Lopez bera izan baldin bazen, azalpen zaila luke hizkuntza-ezaugarri xiberotarren agerpen maiztasun desorekatuak, bai d'Abense zuberotarren sudur sartzearen hipotesia onetsirik eta bai testuan ageri den euskara guztia Lopez itzultzailearen eskutik abiatu zela jorik ere, aldaera zuberotarren agerpena guztiz aleatorioa den aldetik.

Liburuaren euskal itzultzailea funtsean lagun bakarra izan zela ez dezakegu uka, baina gure ustean, euskarara itzuli zen liburu honetako mintzoak, bertako euskara dialektalak, lan jardunean esku bat egon beharrean bi izan zirela erakusten du, edota bederen, liburuko hizkuntza-aldaerak mintzo bati baino gehiagori dagozkiola, ez dagoela guztizko koherentzia dialektalik. 1782ko *Pratica*-ko datuez eraiki dugun hipotesia frogatzea ez da aise, baina puskan ere arazo anitzez gutiago aurkezten du itzulpeneko hizkuntza-ezaugarrien konbinazioa 1782ko Amiküze eskualdekoa edo Oztibarre alderdikoa dela postulatzek eragin liezagukeen baino.

Bibliografia

- AGIRRE, P., 1996, *Athanase Belapeire: Catechima laburra (1996). Autorearen garaia, nortasuna eta idazlanak. Grafiak eta fonologia. Edizio kritikoa eta hiztegia*, UPV/EHUko doktoretza tesi argitaragabea.
- , 1998, “Pronus singulis diebus Dominicis clarè & distinctè immediatè post Evangelium populo legendus”, *ASJU* 32/1, 1-46.
- , 2001, “*Catechima laburra*, zubereraren ezaugarri fonologikoen lekukoa”, *ASJU* 35/2, 653-787.
- ALBERDI, J., 1996, *Euskararen tratamenduak: erabilera*, Iker 9, Euskaltzaindia, Bilbo.
- ALDAI, G., 2010, “Euskararen kasu-markaketaren aldakortasun dialektala”, in B. Fernández, P. Albizu & R. Etxepare (arg.), *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai*, *ASJU*-ren gehigarriak 52, UPV/EHU, Bilbo, 5-19.
- ALDEKOA, I., 2008, “Ilustrazioa eta euskal literatura”, *ASJU* 42/2, 211-35.
- ALEXANDER, R., 2007, “Dialectology”, The Slavic and East European Language Research Center. <http://seelrc.org/glossos/>, 1-52.
- ALTUNA, P., 1979, *Etxepareren hiztegia*, Mensajero, Bilbo.
- ALVAREZ ENPARANTZA, J. L., 1977, “L’emploi de l’indéfini en souletin (à travers l’oeuvre du poète Etxahun)”, *FLV* 25, 29-55.
- , 1980, “Zubererazko transkribaketa bat”, *FLV* 34, 29-36.
- ALLIÈRES, J., 1975, “Les versions basque, gasconne et française d’un même dialogue à Labastide-Clairence (Pyrénées-Atlantiques), point 691-0 de l’ALG”, in *Hommage à Jean Séguy, Via Domitia* (omenaldiaren zenbaki berezia) 2, 3-19.
- , 1977 & 1986, “Petit atlas linguistique basque français “Bourciez” (I eta II), *FLV* 27, 353-86 eta 47, 5-45.
- , 1987, “Gascón y euskera: afinidades e interrelaciones lingüísticas”, in R. Cierbide (arg.), *Pirenaico navarro-aragonés, gascón y euskera*, UPV/EHU, Bilbo, 181-98. Ikus 1992ko *ASJU* 26/3-n ere, 801-11.
- ANITZEN ARTEAN, 1992, *Amikuze. Le Pays de Mixe*, Izpegi, Baigorri.
- ARANA, A., 2001, *Zaraitzuko hiztegia. Zaraitzuera - Euskara batua. Euskara batua - Zaraitzuera*, Nafarroako Gobernua & Hiria, Iruñea & Alegia.
- ARANA MARTIJA, J. A., 1997, “Georges Lacomberen artxiboa”, in *Federiko Krutwig-i omenaldia*, Iker 10, Euskaltzaindia, Bilbo, 49-77.
- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA, 1984-1990, *Euskalerriko atlas etnolinguistikoa [EAEL]*, Aranzadi, Donostia.
- ARBELBIDE, X., 1987, *Garazi*, Elkar, Donostia & Baiona.

- ARESTI, G., 1972, "Flexiones verbales empleadas por Leizarraga de Briscous, en sus traducciones vascas de 1571", *FLV* 11, 157-94.
- , 1973, "Léxico empleado por Leizarraga de Briscous", *FLV* 13, 61-128.
- ARGAINARATZ, P., 1978 [1665], *Devoten breviarioa*, Hordago, Donostia.
- ARIZTIMUÑO, B., 2013a, "Finite verbal morphology", in M. Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque*, Peter Lang, Frankfurt am Main, 359-427.
- , 2013b, "Euskal aditz jokatuaren osaeraz eta jatorriaz zenbait ohar", in R. Gómez, J. Gorrochategui, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Kongresua*, UPV/EHU, Gasteiz, 41-60.
- , 2015, "Lazarragaren eskuizkribuko adizki batzuez (euskal aditz jokoaren kronologia erlatibo baterantz)", in Eridenen du zerzaz kontenta: *Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, M. J. Ezeizabarrena & R. Gómez (arg.), UPV/EHU, Gasteiz, 49-70.
- ARTOLA, K., 1977, "Erronkariko uskararen azken hatsak... eino're!", *FLV* 25, 75-107.
- , 1980, "Erronkariko «uskara»ren azken hatsak... oraino're!", *FLV* 34, 49-85.
- , 1991, 2000, "Fidela Bernat anderea, euskal hiztun erronkariarra", *FLV* 58, 247-81. *FLV* 85, 487-512.
- , 2002-06, "Zaraitzuera aztertzeko ekarpen berriak", Eaurta, Otsagi, Ezkaroze, Orontze, Espartza eta Ibiztako transkribapenak hamar ataletan, *FLV*.
- ARXU, J.-B., 1979 [1868], *Bi mihiren gramatika. Uskara eta frantsesa*, Hordago, Donostia.
- ARZAMENDI, J. & M. AZKARATE, 1983, "Léxico de los refranes de B. de Zalgiz", *ASJU* 17, 265-327.
- AURREKOETXEA, G., 2004, "Iparraldeko hizkeren sailkapena (1): lexikoa", *ASJU* 38/1, 287-331.
- & X. VIDEGAIN, (arg.), 2004, *Haur prodigoaren parabola Ipar Euskal Herriko 150 bertsiotan*, *ASJU*-ren gehigarriak 49, UPV/EHU, Bilbo.
- & ——— & A. IGLESIAS, 2004, *Bourciez bildumako Euskal Atlasa (BBEA): 1. Lexikoa*, *ASJU* 38/2.
- & ——— & ———, 2005, *Bourciez bildumako Euskal Atlasa (BBEA): 2. Gramatika*, *ASJU* 39/1.
- AXULAR, 1954 [1643], *Gero*, Manuel Lekuonaren edizioa, Itxaropena, Zarautz.
- AZKARATE, M. & P. ALTUNA, 2001, *Euskal morfologiaren historia*, Elkarlanean, Donostia.

- AZKUE, R. M., 1969 [1923], *Morfología Vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- , 1927, “Aezkera edo Petiribeño inguruetakoko mintzaera”, *Euskera* 8, 179-300.
- , 1931, “Particularidades del dialecto roncalés”, *Euskera* 12, 207-406.
- , 1989, *Euskalerraren yakintza III*, Euskaltzaindia & Espasa Calpe, Bilbo & Madril.
- BAGGIONI, D., 1996, “De Coquebert de Montbret et Raynouard au duo G. Paris / P. Meyer: aux sources de la linguistique et dialectologie romanes françaises”, *Revue des Langues Romanes* 100/1, 135-62.
- BARANDIARAN, J. M., 1955, “Notas sobre la vida pastoril en Ibarre”, *AEF* 15, 39-46.
- , 1982-83, “Materiales para un estudio etnográfico del pueblo vasco en Urepel. Año 1948”, *AEF* 31, 9-30.
- BARATCHART, L., 1992, “Le régiment de milice du Pays de Mixe (17^e et 18^e siècles)”, in *Amikuze. Le Pays de Mixe*, Izpegi, Baigorri, 159-74.
- BÁRCZI, G., 1963, “Les recherches dialectologiques en Hongrie”, *Orbis* 12, 141-56.
- BATMALLE, P., 1992, “Récit de vie sur Lur Berri et l’évolution de l’agriculture locale”, in *Amikuze. Le Pays de Mixe*, Izpegi, Baigorri, 249-56.
- BELAPEIRE, A., 1696, *Catechima laburra eta Jesus-Christ goure ginco jaunaren eçagutcia, salvatu içateco*, Jérôme Dupoux, imprimaçaliar eguina, Pauven.
- BERIAIN, J., 1980 [1621], *Tratado de como se ha de oyr missa*, Hordago, Donostia.
- BIDART, P. (biltz.), 1994, *Le Pays de la Soule*, Izpegi, Baigorri.
- BILBAO, G., 1996, “Jean Mekol Garindañekoaren *Edipa* pastorala (1793)”, *ASJU* 30/1, 239-332.
- , R. GÓMEZ, J. A. LAKARRA, J. MANTEROLA, C. MOUNOLE & B. URGELL, 2010, *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, UPV/EHU, Gasteiz. Interneten eskuragarri: <http://www.lazarraga.com>
- BISANG, W., 2004, “Dialectology and typology - An integrative perspective”, in B. Kortmann (arg.), *Dialectology meets Typology. Dialect grammar from a cross-linguistic perspective*, Mouton de Gruyter, Berlin & New York, 11-45.
- BONAPARTE, L.-L., 1991, *Opera omnia vasconice*, 4 liburuki, Euskaltzaindia, Bilbo.

- , 1991 [1869], *Le verbe basque en tableaux*, in *Opera Omnia Vasconice I*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- BORDA, I., 2011a, “Amikuze. Nafarroa Beherea ezezaguna”, *Nora*, 41, 2011ko ekaina, 8-19.
- , 2011b, “Oragarre (Nafarroa Beherea). *Ultima limes*”, *Argia* 2266 zenbakia, 2011/II/27.
- BORTONI-RICARDO, S. M., 1985, *The urbanization of rural dialect speakers. A sociolinguistic study in Brazil*, Cambridge University Press.
- BOUDA, CH., 1948, “Les formes respectueuses du verbe mixain”, *Eusko Jakintza* 2, 595-615.
- BOURDIEU, P. & L. BOLTANSKI, 1975, “Le fétichisme de la langue”, *Actes de la recherche en sciences sociales* 1, 2-32.
- BRITAIN, D., 2004 [2002], “Space and spatial diffusion”, in J. K. Chambers, P. Trudgill & N. Schilling-Estes (arg.), *The handbook of language variation and change*, Blackwell, Malden, MA-Oxford, 603-37.
- BRUNEAU, O., 1992, “Les possessions «navarraises» des Gramont”, in *Amikuze. Le Pays de Mixe*, Izpegi, Baigorri, 89-101.
- BYNON, TH., 1981 [1977], *Lingüística histórica*, Gredos, Madril.
- CAMINO, I., 1988, “Euskara batuak 20 urte bete ditu, baina... batua batu ote?”, *Euskal kulturaren urtekaria*, *Argia*, 161-91.
- , 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- , 2004, “Nafarroa Behereko euskara”, *FLV* 97, 445-86.
- , 2008, “Nafarroa Behereko euskara zaharra”, *ASJU* 42/1, 101-69.
- , 2009a, “Hizkuntza-aldakortasunari Amiküzetik so”, *Lapurdum* 13, 61-80.
- , 2009b, “Mugako hiztun eta aldaerak ipar-ekialdeko Zuberoan”, *FLV* 111, 145-201.
- , 2009c, *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*, Elkar, Donostia.
- , 2011a, “Pirinioak, ekialdea eta euskal mintzoak”, in A. Sargana, J. A. Lakarra & P. Salaberri Zaratiegi (arg.), *Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina*, Iker 26, Euskaltzaindia, Bilbo, 773-822.
- , 2011b, “Ekialdeko euskararen iraganaz”, in I. Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*, *ASJU*-ren gehigarriak 69, UPV/EHU, Bilbo, 87-153.

- , 2013a, “Euskal dialektoen historiaz: Lapurdi eta Nafarroa Garaia”, in R. Gómez, J. Gorrochategui, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Kongresua*, UPV/EHU, Gasteiz, 77-140.
- , 2013b, Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco aitaren guiristinho perfeccioniaren praticaren pparte bat (1782). *Edizioa eta azterketa. ASJU* 47/1 & Euskaltzaindia, Euskararen lekukoak bilduma 27, Bilbo.
- , 2015a, “Oztibarreko mintzoaz eta haren lexikoaz”, *FLV* 119, 5-60.
- , 2015b, “Amiküzeko ^heskuararen hezurdura lektala”, in I. Epelde (arg.), *Euskal hizkera eta dialektoak gaur egun, Lapurdum-en* 3. ale berezia, 27-79.
- , 2015c, “Oztibartarren lexikoa”, *Lapurdum* 19, 149-64.
- , 2015d, “Ahoskera hiztunik hiztun eta eskualderik eskualde”, *Euskera* 60/2, 409-50.
- CARO BAROJA, J., 1946, *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Salamancako Unibertsitatea, Salamanca.
- , 1984 [1971], *Los vascos*, Istmo, Madril.
- CASAS TORRES, J. M. & A. ABASCAL, 1948, *Mercados geográficos y ferias de Navarra*, Nafarroako Gobernua & CSIC, Zaragoza.
- CASENAVE-HARIGILE, J., 1983, *Amikuze*. Ikastola liburutegia. Geografia saila 8, Gordailu, Donostia.
- , 1989, *Hiztegia français-eüskara*, Hitzak, Ozaze.
- CAZENAVE, 1999, *La doctrine chrétienne traduite de l'espagnol en basque bas-navarrais-mixain, tel qu'il est parlé à St. Palais*, in R. M. Pagola, I. Iribar & J. J. Iribar 1999a, 223-46. [Donap kat]
- , 1999, *La doctrine chrétienne traduite de l'espagnol en basque bas-navarrais-arberouan, tel qu'il est parlé à St. Martin d'Arberoue*, in R. M. Pagola, I. Iribar & J. J. Iribar 1999a, 251-74. [Donam kat]
- , 1999, *Girichtino-dotrina edo katichima. Aita Gaspar Astete Jesuistak españolez ichkiatia, Donibane Garaziko heskuararat itzulia*, in R. M. Pagola, I. Iribar & J. J. Iribar 1999a, 141-74. [Donib kat]
- , 1999, *Jesu Khrichtoin ebanjelio seindia San Mathiüin aäbera*, in R. M. Pagola, I. Iribar & J. J. Iribar 1999a, 17-76. [Caz SM]
- , 1999, *Jondoni Juane apostoliain apokalipsa Gaaziko heskuaran emana esplikazione zoimbaitekin*, in R. M. Pagola, I. Iribar & J. J. Iribar 1999a, 107-39. [Caz JJ]
- CELHABE, M., *Bardozeke katixima*, in Pagola, Iribar & Iribar 1999a, 275-316.

- CERQUAND, J. F., 1985, *Ipar Euskal Herriko legenda eta ipuinak*, A. Arana (arg.), Txertoa, Donostia.
- CIERVIDE, R., 1994, "Creación de la Senescalía de Saint-Palais 1639", in *Oihenarten laugarren mendeurrena*, Iker 8, Euskaltzaindia, Bilbo, 613-25.
- CORTELAZZO, M., 1969, *Avviamento critico allo studio della dialettologia italiana (1). Problemi e metodi*, Pacini editore, Pisa.
- COYOS, J.-B., 1999, *Le parler basque souletin des Arbailles. Une approche de l'ergativité*, L'Harmattan, Paris.
- , 2001, "A propos de *Les emprunts de la Langue Basque à L'occitan de Gascogne*", *Lapurdum* 6, 391-419.
- , 2006, "L'apport lexical de l'occitan gascon béarnais au basque souletin: recherche des champs conceptuels", *BMB*, hors série, 201-23.
- , 2013, *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- CHAMBERS, J. K. & P. TRUDGILL, 2005 [1980], *Dialectology*, Cambridge University Press.
- CHAMBON, J.-P., 2004, "Les centres urbains directeurs du Midi dans la francisation de l'espace Occitan et leurs zones d'influence: esquisse d'une synthèse cartographique", *Revue de Linguistique Romane* 68, 5-13.
- & Y. GREUB, 2002, "Note sur l'âge du (proto)gascon", *Revue de Linguistique Romane* 66, 473-95.
- CHARLES AUGUSTE Le Quien de Laneufville argitarazle, 1786, *Catichima edo fediareen eta guiristino-eguien explicacione laburra*, René Leclercq, Akize. [Laneufville]
- CHARRITTON, P., 1982, "Fonds Broussain. Les lettres de Georges Lacombe (8-8-1903 – 27-2-1921)", *Bulletin du Musée Basque* 98, 161-80.
- , 1984, *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak*, Elkar, Donostia.
- , 1985, "Fonds Lacombe du Musée Basque. Les lettres de Pierre Broussain à Georges Lacombe (3-10-1903 – 9-4-1920)", *Bulletin du Musée Basque* 108, 85-108. 109, 133-60. 110, 161-88.
- , 1986a, *Resurreccion Maria de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa*, Iker 4, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1986b, "Fonds Lacombe du Musée Basque. Les lettres de Pierre Broussain à Georges Lacombe (3-10-1903 – 9-4-1920)", *Bulletin du Musée Basque* 111, 1-30.

- , 1992, “Aita Sauveur Lardapide (1812-1889) Hazparneko misionestaren paperak”, in *Luis Villasanteri omenaldia*, Iker 6, Euskaltzaindia, Bilbo, 143-59.
- , 1997, “P. Broussainen gutunak J. Urkijori”, in *Federiko Krutwig-i omenaldia*, Iker 10, Euskaltzaindia, Bilbo, 383-409.
- DALEN, A., 1993, “The emergence of an urban dialect”, in W. Viereck (arg.), *Proceedings of the International Congress of Dialectologists, Bamberg, 29/7 – 4/8 1990. Historical Dialectology and Linguistic Change. Linguistic Atlases and Dictionaries*, F. Steiner, Stuttgart, 42-9.
- , 1999, “Contributing factors in the making of the post-medieval urban dialect of Trondheim”, in E. H. Jahr (arg.), *Language change. Advances in historical sociolinguistics*, Mouton de Gruyter, Berlin-New York, 291-304.
- DANSEREAU, D., 1992, “The current situation of the Occitane Language: sociological issues”, *Orbis* 35, 191-7.
- DARRICARRÈRE, J. B., 1911, “Le livre basque intitulè: *Onsa hilceco bidia*”, *RIEV* 5, 14-46.
- DASSANZA, M., 2015, *Albaitaritzako idazlanak (1692–1892)*, Tx. Peillen (prest.), Euskaltzaindia, Bilbo.
- DAVANT, J.-L., 2009, *Zuberoako literaturaz. Antologia laburra*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 2010, “Jesü Kristen imitazioea”, Martin Maisterren *Jesü Kristen imitazioea* lanaren edizioko aitzinsolasa, Euskaltzaindia, Bilbo, 9-37.
- DESMET, P., P. LAUWERS & P. SWIGGERS, 2002, “Le développement de la dialectologie française avant et après Gilliéron”, in P. Lauwers, M.-R. Simoni-Aurembou & P. Swiggers (arg.), *Géographie linguistique et biologie du langage: autour de Jules Gilliéron*, *Orbis* supplementa 20, Peeters, Leuven – Paris – Dudley MA, 17-64.
- N'DIAYE, G., 1970, *Structure du dialecte basque de Maya*, Mouton, The Hague-Paris.
- DUGUINE, M., 2009, “Hazparneko euskaraz bi hitz”, *Euskera* 54 (1), 193-210.
- & A IRURTZUN, 2010, “Nz-in situ euskaraz: gazteen nafar-lapurterazko galdera-estrategia berri bat”, in B. Fernández, P. Albizu & R. Etxepare (arg.), *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai*, *ASJU*-ren gehigarriak 52, UPV/EHU, Bilbo, 21-36.
- DUHALDE, M., 1978 [1809], *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean*, Hordago, Donostia.

- DUHAU, H., 1993, *Hasian hasi. Beskoitzeko euskara*, Alinea, Donibane-Lohizune.
- , 2003, *Hasian hasi. Beskoitzeko Euskara (Beskoitzeko Heskua)*, Euskal Kultur Erakundea & Beskoitze, Donibane Lohizune.
- DUNY PÉTRÉ, P., 1959, "Trois textes folkloriques basques de Basse-Navarre Orientale", *BAP* 15/1, 47-60.
- DUVOISIN, J.-P., 1978 [1857], *Dialogues basques*, Hordago, Donostia.
- EGURTZEGI, A., 2013, "Diferentes tipos de aspiración en vasco (con análisis espectrales del dialecto suletino actual)", in E. Blasco & A. Nocentini (arg.), *Iberia and Sardinia. From the Mesolithic Period to the Late Bronze Age: Linguistic, Genetic, and Archaeological Links*, Le Monnier, Firenze, 151-69.
- , 2014, *Towards a phonetically grounded phonology of Basque*, UPV/EHU-ko doktoretza tesi argitaragabea.
- , 2015, "Zubereraren /y/: bere sorrera eta hedapenaren inguruan", in M. J. Ezeizabarrena & R. Gómez (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta: sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, UPV/EHU, Bilbo, 149-62.
- & G. ELORDIETA, 2013, "Euskal azentueren historiaz", in R. Gómez, J. Gorrochategui, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Kate-draren III. Kongresua*, UPV/EHU, Gasteiz, 163-86.
- ELIZALDE, J. «Zerbitzari», 1985, *Azkaine gure sorterrria*, Elkar, Donostia.
- ENCINAR, K., 2008, "Lapurdiko Aturriko euskara: Bardozeko *ü* bokalaz", *Euskera* 53/2, 383-95.
- EPELDE, I., 2003, *Larresoroko euskara*, UPV/EHU-ko doktoretza tesi argitaragabea.
- , 2004a, "Lapurdiko hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz", *FLV* 96, 271-303.
- , 2004b, "Larresoroko gaur egungo euskara", *Euskera* 49/2, 663-77.
- , 2012, "Lapurdiko itsasegiko euskararen ahoskera: Donibane Lohizune", in J. A. Lakarra, J. Gorrochategui & B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena kate-draren II. biltzarra*, UPV/EHU, Gasteiz, 307-21.
- & B. OIHARTZABAL, 2010, "Perpau barneko hizkuntza lerratzeak (hl) ekialdeko euskal elebidunetan", in B. Fernández, P. Albizu & R. Etxepare (arg.), *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai*, ASJU-ren gehigarriak 52, UPV/EHU, Bilbo, 55-64.

- & O. JAUREGI, 2011, “Bokal sudurkariak tentatzen”, in A. Sagarna, J. A. Lakarra & P. Salaberri (arg.), *Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina*, Iker 26, Euskaltzaindia, Bilbo, 973-88.
- ESARTE, P., 1983, *Alduide, corazón de Navarra*, Iruñea.
- ESTORNÉS LASA, J., 1984, “Mendigatxa’k Azkueri kartak, 1902-1916. Eta Erronkari’ko uskaratik utzulpen ta goarpenak”, *FLV* 43, 55-127.
- , 1985, “Zoilo’reu uzta. La cosecha de Zoilo”, *FLV* 45, 31-93.
- ESTORNÉS LASA, B., 1997, *Diccionario español - uskara roncalés. Erronkariko uskararen hiztegia*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- ETCHEBARNE, M., 2009, “Tester un calque grammatical grâce à la méthode de la covariation d’abstrat”, *Lapurdum* 13, 113-26.
- ETCHEBERRY, J.-B., 1962, *Michel Garicoitz sainduaren bizia eta bertuteak*, Baiona.
- , 1986, *Hazparneko misionestak*, Cordeliers, Baiona.
- ETXAMENDI, E., 1975, *Azken elurra*, Baiona.
- , 1985, *Aurora*, Maiatz, Baiona.
- ETXEBARRIA AYESTA, J. M., 1991, *Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*, Ibaizabal, Zornotza.
- ETXEBARRIA, J. M., 1986, “Euskal Herriko atlas linguistikoaren historiarako”, *Euskera* 31/2, 375-412.
- , 1994, “Las grabaciones de Viena en euskera. Bajo navarro occidental y bajo navarro oriental”, *Mundaiz* 47, 45-75.
- ETXEBARRIA, M., 1987, “Iniciación a la fonética acústica”, *ASJU* 21/2, 475-514.
- ETXEBERRI [ZIBURUKOA], J., 1981 [1669], *Manval devotioezcoa, edo ezperen oren oro escvetan errabilltçeco liburutchoa. Escarazco versutan eguiña, eta guztia bi partetan berecia*, Patxi Altunaren edizioa, Mensajero, Bilbo.
- ETXEBERRIA, U., 2010, “-a, -ak eta -(r)ik euskal hizkeretan zehar”, in B. Fernández, P. Albizu & R. Etxepare (arg.), *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai*, ASJU-ren gehigarriak 52, UPV/EHU, Bilbo, 65-83.
- ETXEGOIEN, J., 2009, *Privilegios y fueros del valle y universidad de Aezkoa en el reyno de Navarra. 1169-1229-1782-2009*, Irati Bortuak Elkarte & Aezkoa Kultur Elkarte.
- ETXEGORRI, PH., 2003, “Jeruntzeko uskara. Ekialdeko euskara”, *FLV* 93, 247-86.
- ETXEPAIRE, B., 1980 [1545], *Linguae vasconum primitiae*, Patxi Altunaren edizioa, Mensajero, Bilbo.

- ETXEPARE BIDEGORRI, J., 1903, "Donapaleoko euskal-pestak", in P. Charritton (arg.), 1984, 15-21.
- , 1911, "G. Lacombe Aldudan", in P. Charritton (arg.), 1984, 257-9.
- , 1912, "Beretik", in P. Charritton (arg.), 1984, 259-60.
- , 1915, "Jean Hiriart-Urruty kalonjea (185-1915)", in P. Charritton (arg.), 1984, 171-5.
- , 1921, "G. Lacombe euskaltzain", in P. Charritton (arg.), 1984, 215-23.
- , 1922, "Euskaltzaleen Biltzarraren xedeak eta sail berria Maulen", in P. Charritton (arg.), 1984, 61-8.
- , 1926, "Atharratzeko mintzaldiak", in P. Charritton (arg.), 1984, 143-9.
- ETXEPARE, R., 2009, "Omen bariazioan", in B. Fernández, P. Albizu & R. Etxepare (arg.), *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai*, ASJU-ren gehigarriak 52, UPV/EHU, Bilbo, 85-112.
- EUSKALTZAINDIA, 2008-16, *Euskal Herri Hizkeren Atlasa [EHHA]*, 7 liburuki, Euskaltzaindia, Bilbo.
- FAIRÉN GUILLÉN, V., 1955, "Sobre las facerías internacionales en Navarra", *PV* 61, 507-24.
- FRAILE, I. & A. FRAILE, 1996, *Oiartzungo hizkera*, Oiartzungo Udala.
- GAMINDE, I., 1985, *Aditza bizkaieraz*, 3 liburuki, UEU, Bilbo.
- , 1990, *Bilbo berbaz berba*, Bilbo berreuskalduntzerako koordinakundea, Bilbo.
- , 1995, "Zubereraren azentuaz", *Uztaro* 13, 107-28.
- , 1999, *Euskaldunen azentuak*, Labayru, Bilbo.
- & J. SALABERRIA, 1997, "Ezpeleta, Lekorne eta Makeako azentu-ereduez", *Uztaro* 20, 93-103.
- GARATE, G., 1988, *Erdarakadak. Euskaraz ongi mintzatzeko hiztegia. Zazpi probintzietako adibideak*, Mensajero, Bilbo.
- GAZTELUZAR, B., 1983 [1686], *Eguia catolicac salvamendu eternalaren eguitemo necesario direnac*, Lino Akesoloren edizioa, Euskaltzaindia, Bilbo.
- GAVEL, H., 1920, *Éléments de Phonétique Basque*, *RIEV* 12.
- GÈZE, L., 1979 [1873], *Éléments de grammaire basque*, Hordago, Donostia.
- GIESE, W., 1931, "Terminología de la casa suletina", *RIEV* 22, 1-15.
- GÓMEZ, R., 1991, "Erronkariko dotrina argitaragabe bat: edizioa eta azterketa", in J. A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, ASJU-ren gehigarriak 14, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 375-426.

- , 2007, *XIX. mendeko euskal gramatikagintzari buruzko ikerketak*, UPV/EHU, Bilbo.
- GREGORY, D., 1985, “Suspended animation: the stasis of diffusion theory”, in D. Gregory, & J. Urry (arg.), *Social relations and spatial structures*, Macmillan, Hong Kong, 296-336.
- & J. URRY, 1985, “Introduction”, in D. Gregory, & J. Urry (arg.), *Social relations and spatial structures*, Macmillan, Hong Kong, 1-8.
- GUITER, H., 1973, “Atlas et frontières linguistiques”, in G. Straka & P. Gardette (arg.), *Les dialectes romans de France à la lumière des atlas régionaux. Col. de Strasbourg, 1971*, Paris, 61-109.
- HAASE, M., 1990, “Erdal hitzen mailegatzea Iparraldeko euskaraz”, *Euskera* 35/2, 405-15.
- , 1992, “Bilinguisme basco-gascon en Basse-Navarre”, in G. Aurrekoetxea & X. Videgain (arg.), *Nazioarteko dialektologia biltzarra. Agiriak, Iker 7*, Euskaltzaindia, Bilbo, 687-98.
- , 1994, “Amikuzera”, in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 173-87.
- HARITSCHELHAR, J., 1963, “Textes folkloriques de la vallée de Baigorri”, in *Actas del tercer congreso internacional de estudios pirenaicos*, Gerona, 1958, Instituto de Estudios Pirenaicos & CSIC, Zaragoza, 51-73.
- , 1970, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- HARIZMENDI, C., 1978 [1658], *Ama Birjinaren ofizioa*, Hordago, Donostia.
- HARRIET, M., 1741, *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan*.
- HARRIS, J., 1988, Peter Trudgill. 1986, *Dialects in contact* lanaren aipamena, *Journal of Linguistics* 24/1, 227-32.
- HOORMAT, P., 1992a, “Le Pays de Mixe de 1815 à 1838, de la fin de l’Empire à la loi du 18 juillet 1837”, in *Amikuze. Le Pays de Mixe*, Izpegi, Baigorri, 175-94.
- , 1992b, “Saint-Palais au temps de la IIe République (1848-1851) et du Second Empire”, in *Amikuze. Le Pays de Mixe*, Izpegi, Baigorri, 195-214.
- HUALDE, J. I., 1993, “Topics in Souletin Phonology”, in J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*, Benjamins, Amsterdam-Philadelphia, 289-327.
- , 1998, *Euskararen azentuerak*, *ASJU-ren gehigarriak* 42, UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilbo & Donostia.

- , 2015, “Dialektologia dinamikoa”, in I. Epelde (arg.), *Euskal hizkera eta dialektoak gaur egun, Lapurdum-en* 3. ale berezia, 125-53.
- Igantxetaco pronoua, eta hilen pronoua*, Pauben, G. Dugue’ eta J. Desbaratz, beithan mouleçco leteretan eçarria, c. 1757.
- IGARTUA, I., 2008, “La aspiración de origen nasal en la evolución fonológica del euskera: un caso de *rhinoglottophilia*”, *ASJU* 42/1, 171-89.
- & E. Santazilia, 2013, “Instrumentalaz gogoratzuz, instrumentuaz haratago. Kasuaren izaera tipologian eta euskararen bilakabidea”, in R. Gómez, J. Gorrochategui, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Kongresua*, UPV/EHU, Gasteiz, 227-44.
- INTXAUSPE, E., 1991 [1856], *Jesus-Kristen Ebanjelio Saintia Sen Mathiuren arauéra*, in *Opera Omnia Vasconice* 2, Euskaltzaindia, Bilbo, 161-243.
- , 1991 [1858], *Jaundone Jouhane apostoliaren apokalipsa*, in *Opera Omnia Vasconice* 2, Euskaltzaindia, Bilbo, 271-307.
- , 1978 [1857], *Dialogues basques souletins*, Hordago, Donostia.
- , 1979 [1858], *Le verbe basque*, Hordago, Donostia.
- IRIBARNEGARAI, 1999, *Yesu Chrichtoin Ebanyeliua San Mathioin arabera*, in R. M. Pagola, I. Iribar & J. J. Iribar (arg.), *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Mendebaldeko behe-nafarrera*, Deustuko Unibertsitatea & Eusko Jaurlaritza, Bilbo, 19-81. [Irib SM]
- IRIGOYEN, A., 1957, “Cartas de Inchauspe al príncipe Luis Luciano Bonaparte”, *Euskera* 2, 171-260.
- IRIZAR, P., 1981, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia.
- , 1992, *Morfología del verbo auxiliar roncalés*, Nafarroako Gobernu & Euskaltzaindia, Iruñea & Bilbo.
- , 1997, *Morfología del verbo auxiliar labortano*, UPV/EHU & Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1999a, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental I*, UPV/EHU & Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1999b, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*, UPV/EHU & Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 2001, *Memorias de un vascólogo. Mis relaciones con lingüistas y colaboradores*, Delegación en Corte de la RSBAP, Madrid.
- , 2002a, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental II*, UPV/EHU & Euskaltzaindia, Bilbo.

- , 2002b, *Morfología del verbo auxiliar suletino*, UPV/EHU & Euskaltzaindia, Bilbo.
- IZAGIRRE, K., 1959, 1961, “Erronkariko euskal-ondakin batzuk”, *BAP* 15, 279-314. *BAP* 17, 391-407.
- JAUREGI, O. & I. EPELDE, 2011, “Bokal sudurkariak gaurko lapurteran”, *Lapur-dum* 15, 29-42.
- & ———, 2013, “Hasperenaren galera Iparraldeko euskarari”, in R. Gómez, J. Gorrochategui, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Kongresua*, UPV/EHU, Gasteiz, 245-62.
- KAMINO, P. & P. SALABERRI, 2004, “Nafarroa Behereko hiru eskutitz”, *FLV* 95, 89-113.
- , 2006, “Luzaideko eta Ondarrolako hiru gutun”, *FLV* 101, 95-108.
- , 2007, *Luzaideko euskararen hiztegia*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Iruñea & Bilbo.
- KARRIKA, B., 1990, *Armendaritze haur begiez*, Auspoa, Tolosa.
- KEREJETA, M. J., 1991, “Notas sobre las poesías premiadas en Pamplona en 1609 y 1610” in J. A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, ASJU-ren gehigarriak 14, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 161-83.
- KINTANA, X., 1971, “Posesiboak idazle zaharretan”, *FLV* 7, 75-80.
- KROCH, A. S., 1986 [1976], “Toward a theory of social dialect variation”, in H. B. Allen & M. D. Linn (arg.), *Dialect and Language Variation*, Academic Press, INC., San Diego, 344-66.
- LACOMBE, G., 1931, “Le traducteur de Rodriguez et son dialect”, *Gure Herria* 11, 68-9.
- , 1947, “Les traductions basques de S^t-Mathieu (de 1856 à 1869)”, *Eusko Jakintza* 1, 289-94.
